ERROMAKO
MEZA LIBURUA

ERROMAKO
MEZA LIBURUA

VATIKANOKO II. KONTZILIO EKUMENIKOAREN
AGINDUZ ERABERRITUA
PAULO VI.A AITA SANTUAK PROMULGATUA
ETA JOAN PAULO II.A AITA SANTUAK BERRETSIA

EREDUZKO ARGITALPENA
LATINEZKO HIRUGARREN ARGITALPEN EREDUZKOAREN ARABERA EGINA
ESPAINIAKO GOTZAINEN BATZARRAK ONARTUA
ETA JAINKOAREN GURTZARAKO ETA SAKRAMENTUEN ARAUBIDERAKO
KONGREGAZINOAK BAIEZTATUA

LIBROS
LITÚRGICOS
Conferencia Episcopal Española

idatz

MMXX

MEZA LIBURUAren argitalpen hau Jainkoaren Gurtzarako eta Sakramentuen Araubiderako Kongregazioak, 2000ko apirilaren 20ko dekretu bidez (Prot. N. 143/00/L) promulgatutako *Missale Romanum, editio typica tertia*-ren eta 2008ko *reimpressio emendata*-ren (Prot. N. 652/08/L) arabera egina izan da.

Meza Liburu honen itzulpenean aintzat hartuak izan dira, Jainkoaren Gurtzarako eta Sakramentuen Araubiderako Kongregazioak, 2001eko martxoaren 28ko *Liturgiam authenticam* Irakaspenean aditzera emandako printzipio eta arauak.

Euskal Elizbarrutietako Gotzainen agindupean diharduen testu liturgikoen elizbarruti arteko itzulpen-taldeak landutako testu hau, Espainiako Gotzainen Batzarrak, 2014ko azaroaren 17/21eko CIV. Batzarraldian, botoen gehiengo bereziaz onetsi zuen, eta Jainkoaren Gurtzarako eta Sakramentuen Araubiderako Kongregazioak 2017ko urriaren 31ko dekretu bidez (Prot. N. 82/15) berretsi.

Meza Liburu honetan, Jainkoaren Gurtzarako eta Sakramentuen Araubiderako Kongregazioak, 2006ko urriaren 17ko Gutunean, Gotzainen Batzarrei egindako eskariaren arabera, Eukaristi Otoitzeko kalizaren sagarako *pro multis* esamoldearen itzulpena egokitu egin da, eta aipatu Kongregazioak 2017ko martxoaren 3an (Prot. N. 54/17) onetsi zuen. Kongregazio berak, 2018ko urtarrilean, «Gure Aita»-ren bukaerako eskaria aldatzea onartu zuen.

Concordat cum originali	*Imprimatur*
Francisco Pérez González	Ricardo Blázquez Pérez Kardinala
Iruñeko Artzapezpikua eta Tuterako Gotzaina	Valladolideko Artzapezpikua Espainiako Gotzainen Batzarburua

© testuarena: Conferencia Episcopal Española eta
Euskal Elizbarrutietako Gotzainak

© argitalpen honena: LIBROS LITÚRGICOS, 2019
eta Euskal Elizbarrutietako Gotzainen izenean
Idatz, Donostiako Elizbarrutiko Argitaletxea

Azaleko krismoia: Iratxeko monasteriokoa (Nafarroa). Gurutzeak euskal hilarrietakoak.
Ilustrazioa (ik. 562. or.): *Emaus*, Fray Xavier de Eulate ofm (Donostiako Seminarioa).

Argitalpen honetako testuaren jabetasuna Espainiako Gotzainen Batzarrarena eta Euskal Elizbarrutietako Gotzainena da; horiei dagokie testu hau argitaratzeko eskubidea; hala adierazia dago Jainkoaren Gurtzarako eta Sakramentuen Araubiderako Kongregazioaren *Liturgiam authenticam* Irakaspenean (2001eko martxoaren 28a), baita indarrean dauden arau eta lege zibiletan ere.

Ez dago Copyrightaren titularraren baimenik gabe argitaratzerik, legedian ezarriak dauden zigorren pean.

Egile-eskubideekin zerikusia duen edozertarako jarri harremanetan Donostiako Gotzaindegiarekin.

ISBN: 978-84-17459-15-4
Lege-gordailua: M-3790-2020
Inprimatzailea: Campillo Nevado
Enkoadernatzailea: Felipe Méndez

ERROMAKO MEZA LIBURUAREN EREDUZKO HIRUGARREN ARGITALPENAREN EUSKARAZKO ITZULPENA

AURKEZPENA

Ibilbide luze eta neketsu baten ondorio izan da Meza Liburu honen argitalpena. *Vatikanoko II. Kontzilioaren aginduz eraberritutako Erromako Meza Liburuaren* ereduzko hirugarren argitalpena da hemen euskaraz emana dagoena. Duela 50 urte, 1969ko apirilaren 3an, Ostegun Santu egunean, San Paulo VI.a Aita Santuak *Missale Romanum* Konstituzio Apostolikoa[1] sinatu zuenean eman zitzaion hasiera ibilbide honi. Laurehun urte igaro ziren, Trentoko Kontzilioaren aginduz San Pio V.ak, 1570eko uztailaren 14an, Erromako Meza Liburua promulgatu zuenetik. Meza Liburuaren ereduzko hirugarren argitalpena izan zen San Joan XXIII.a Aita Santuak deitutako Vatikanoko II. Kontzilioak eragindako erreforma liturgikoaren fruiturik bikainena. 1970eko martxoaren 26an argitaratu zen latinez *Missale Romanum ex decreto Sacrosancti Œcumenici Concilii Vaticani II instauratum, auctoritate Pauli PP. VI promulgatum*.[2]

Vatikanoko II. Kontzilioko Meza Liburua

Kontzilioaren aginduz, 1970ean argitaratutako Meza Liburua, ordu arte erabilia izan zen Trentokoarekin parekaturik, sakonki eraberritua etorri zen: *Erromako Meza Liburuaren Eraketa Orokorra* testu berriz hornitua, liturgi egutegia santuen kopuruari dagokionaz arindua, formulario eta ospakizun berriez, bereziki liturgi aldi berezietakoez, prefazio eta Eukaristi Otoitz berriez... aberastua. Meza Liburu berri honetarako oso baliagarria izan zen antzinako liturgi iturrien ezagutza.

Liburuaren egitura bera ere eraberritua zuen. Trentoko Meza Liburuan batera aurkitzen ziren liburu berean Mezetako otoitzak eta irakurgaiak; Vatikanoko Meza Liburuak, aldiz, otoitzak bakarrik zekartzan, eta beste liburu berezietan jarriak ziren irakurgaiak, erantzun-salmoak eta gainerako kantuak. *Ordo Lectionum Missæ,* hau da, *Irakurgaiak* izeneko liburu berria eratu zuten, latinez hiru liburukitan zetorrena, euskaraz, berriz, liburu bakarrean argitaratua.

Vatikanoko II. Kontzilioko Meza Liburua argitaratu ondoren hainbat aldaketa egin behar izan zuten; besteak beste, *Erromako Meza Liburuaren Erakuntza Orokorra* zuzendu[3], Sakramentu eta Ohikune Mezetako formulario berriak gehitu, lehengo formularioak testu berriekin osatu, etab. Berrikuntza horiekin Meza Liburuaren ereduzko bigarren argitalpena egin zuten Erroman 1975ean.

Vatikanoko II. Kontzilioko Meza Liburuaren ereduzko hirugarren argitalpena, 2000. urtean onetsi zuen Jainkoaren Gurtzarako eta Sakramentuen Araubiderako Kongregazioak, baina 2002an argitaratu zuten, eta 2008an *Emendata*-ko zuzenketekin berrargitaratu.[4] Argitalpen honetan ere hainbat berrikuntza zetorren, esate

---

1 PAULO VI.A *MISSALE ROMANUM* KONSTITUZIO APOSTOLIKOA, A.A.S. 61 (1969), 217-222. or.; euskarazko testua, in *Erromako Meza Liburu* honetan, 1-4. zk.

2 JAINKOAREN GURTZARAKO KONGREGAZIO SAKRATUA, Dekretua (1970-III-26), (Prot. n. 166/70): A.A.S. 62 (1970), 554. or.

3 JAINKOAREN GURTZARAKO KONGREGAZIO SAKRATUA, Dekretua (1975-III-27), (Prot. n. 1970/74): Notitiæ 111/112 (1975), 297. or.

4 Missale Romanum ex decreto Sacrosancti Œcumenici Concilii Vaticani II instauratum, auctoritate Pauli PP. VI promulgatum, Ioannis Pauli PP. II cura recognitum, Typis Vaticanis, A. D. MMII. JAINKOAREN GURTZARAKO ETA SAKRAMENTUEN ARAUBIDERAKO KONGREGAZIOA, De editone typica tertia Dekretua (2000-IV-20), (Prot. n. 143/00/L): in Notitiæ 38 (2002), 452-453. or., eta tertia emendata 503-504 (2008), 367-387. or.

baterako, berriak ziren *Erromako Meza Liburuaren Eraketa Orokorreko* IX. kapitulu osoa, Jauna ogi-ardoen itxurapean emateko fededunei gehitu zitzaien eskubidea, *Erromako Egutegi Orokorrean* azken urteetan onartutako ospakizun berrien testuak, Meza Liburuaren egitura eraberritua, Meza- formulario berriak, Adiskidetzeari buruzko eta Suizako Sinodokotzat ezaguna zen Eukaristi Otoitza, lau era dituena, orain birmoldatua *Zenbait beharralditarako Mezetan erabil daitekeen Eukaristi Otoitza* deritzana, eta Garizumako Mezetan, antzinako liturgi ohiturari jarraituz, herriaren gaineko otoitzak, eta gehituak edota zuzenduak izan diren beste hainbat testu.

Hori guztia horrela izanik, Benedikto XVI.ak esana da: «Liturgiaren historian badela hazkundea, baina ez inolako hausturarik».[5]

Hiru lanaldi edo etapatan egindako itzulpena

Gainerako lekuetan bezala, 1964an hasi ziren gure artean ere liturgiako testuen itzulpen-lanak. Ordu arte gure artean ez zen horrelako itzulpenak taldean egiteko esperientziarik, ezta elizbarrutiak arlo pastoralean elkarlanean aritzeko eskarmenturik ere. Asmatu egin behar izan zen bidea, estropezu eginez bada ere. Saio eta ahalegin batzuen ondoren, 1969an lortu zen Euskal Herri osoko ordezkariekin itzulpen- talde bakarra lanean jartzea. Milaka ordu aritu izan zen elizbarruti arteko taldea itzulpen-lan hauetan: Meza Liburua, Irakurgaiena, Salmoak, Orduetako Liturgia (egunezkoa), Ohikune Liburuak... itzultzen eta emaitza ere milaka orritakoa izan zen.

Hiru etapa edo lanaldi bereizi behar dira: 1) lehenengo egin behar izan zen lana Kontzilio aurreko Meza Liburua itzultzea izan zen; Trentoko Kontzilioaren aginduz San Pio V.ak 1570ean argitaratutako Meza Liburua, artean latinez erabilia zena, itzultzea; 2) bigarren etapa edo lanaldian, 1970eko Meza Liburu berria, Vatikanoko II. Kontzilioaren Meza Liburua deritzana itzuli behar izan zuten; eta, hainbat zuzenketa egin ondoren, 1975ean egin zuten ereduzko bigarren argitalpena; eta 3) hirugarren etapa azken urteotakoa izan da; 2002an Meza Liburuaren ereduzko hirugarren argitalpena, gero 2008an *emendata*ko zuzenketekin eta beste hainbat osagai aberasgarrirekin berrargitaratutakoa, itzultzekoa. Lanaldi honetakoa da *Irakurgaiak* liburuaren itzulpena ere, berriren berri egina izan baita itzulpen hau. Kontuan izan behar da, guztiz baliagarria izan dela oraingo lan honetarako 1994an argitaratu zen Elizen Arteko Biblia.

Bi itzulpen-talde eratu ziren 1964an lan hauek hasi zirenean: bata Baionako elizbarrutikoa, bestea Donostiakoa. Une hartan, Bilbaoko elizbarrutian ez zen itzulpen-taldea eratu beharrik izan, egin berria baitzuten Trentoko Meza Liburu haren itzulpena, 1960an argitaratua, eta testu hura erabili zuten lehenaldi hartan. Lehenengo etapako lanak, hasieran behintzat, talde bakoitzak bere aldetik egin zituen. Kontua da, kristau euskaldun guztientzat berdinak izan behar zuketen Mezako zatiak talde bakoitzak bere aldetik eta bere erara itzuliak azaldu zirela.

Hortik hasi zen testu horiek bateratu beharraren eskaria eta bultzada. 1966ko udaldian Urretxun eginiko batzarraren ondorioz, halako ahalegin berezia egin zuten euskaldun guztientzat egokia izan zitekeen itzulpena lortzeko. Han azaldu ziren asmo horrek berekin dituen zailtasun eta eragozpenak. Baina ahalegin horren fruitua izan zen elkarrekin egindako itzulpenaren argitalpena: *Sagara-aurreko deiak, Mezako sagara-otoitzak, Egun berezietarako aldaketak*, zenbait prefazio berri eta I. Eukaristi Otoitzarekin, 1967an hiru hizkuntzatan argitaratua: latinez, gaztelaniaz eta euskaraz.

Gauzak horrela, *«Universa Laus»* deitu erakundeak Iruñean egin zituen 1967. urtean nazioarteko Jardunaldiak. Han gertatu zen Annibale Bugnini, Erromako Liturgi Batzorde Nagusiko Idazkaria. Egoera hartaz baliaturik, euskararen egoeraren azterketa egin zuten Bugnini jaunarekin euskal itzulpen-taldeetako ordezkari batzuek, eta erabaki honetara iritsi ziren: Mezaren ospakizunean egunero erabili ohi diren zatietan beharrezko zela itzulpen-batasun osora ez bada, ahalik handienera, iristea Euskal Herri osorako.

---

5 Benedikto XVI.a, *Motu proprio* egindako *Summorum Pontificum* idazkiarekin batera *Gotzainei eginiko Gutuna*, 2007-VII-7: A.A.S. 99 (2007), 798 (jatorrizkoa italieraz).

Argitalpenetan erabili beharreko euskararen arazoa

Itzulpen bateratu eta bakarraren arazoak euskararen batasunarena jarri zuen aurrean; oroimenaz baliaturik, orduko egoera ulertzen saiatu beharko da. Euskaltzaindiak 1968an Arantzazun egindako Biltzarrean euskara idatzian batasuna lortzeko erabakia hartu bazuen ere, astiro-astiro egin ziren horretarako urratsak: deklinabidea, aditz laguntzailea, hiztegia, araudia, etab. Ezarian-ezarian bidea zabaltzen ari zen, baina euskarari dagokionaz eskolatu gabeko jendearentzat ez ezik, eta orokorrean jende helduarentzat, apaizak barne, neurri handi batean arrotzak gertatzen ziren euskara batuan argitaratzen ziren idazlanak.

Liturgi liburu ofizialak egiteko garaia zen, baina garai hartako tirabirak medio, ez zen ikusten zein mailatako euskara erabili, euskalki soilaren eta euskara batuaren artean. Euskal Elizbarrutietako Gotzainei euskararen inguruko arazo honen berri eman zitzaien, 1973ko otsailaren 3an Loiolan egindako Batzarrean, eta, haiek, arazoari eman beharko litzaiokeen irtenbidearen txosten bat eskatu zuten, horretarako beharrezko jotzen ziren harremanak izanez.

Hainbat pertsona eta talderekin bilerak egin ondoren, «Eliz argitalpen ofizialetarako elizbarrutiarteko Batzordea» eratu zen 1975ean. Argitalpenetarako bidea erabakitzea zen batzorde honen eginkizuna. Euskara batuari ez zitzaion uko egiten, baina beharrezko ikusten zuen helburu horretarako ibilbidea mailaka egitea. Beharrezko zen pedagogia aproposa erabiltzea.

Horrela, bada, argitalpenen hartzaileen arabera jokabide bikoitza erabiltzea izan zen aipatu Batzordeak Gotzainei aurkeztutako txostenean proposatua: haur eta gazteen belaunaldia alfabetatua zegoenez eta ikastolako gainerako liburuak euskara batuan zituztenez, ez zen arrazoirik ikusten erlijio-liburuak eta horien lagungarriak, baita parrokietako administrazio-liburuak, inprimakiak, etab. euskara batuan ez egiteko. Baina, gauzak gehiegi behartzea zirudien, liturgi elizkizunetarako egin behar ziren liburuak eta orokorrean herri xehearentzat pentsatuak zeudenak euskara batuan egitea. Batasunaren helburua begien aurrean izanik ere, euskalkien eta batuaren arteko erdibide bat, baturantzako bidea erabiltzea izan zen erabakia. Eta, jakina, garai hartan borroka gogorrak sortzen zituen «H»-a ere alde batera uztea.

Erabaki horren ondorioz, elizbarruti arteko taldean egindako itzulpena bakarra izanik ere, hiru argitalpen egiten ziren: bata gipuzkera osotuan zeritzana, Gipuzkoa, Nafarroa eta Arabako fededunentzat; bestea Bizkaikoentzat bizkaitar euskalkiak dituen zenbait osagai erabiliz; eta hirugarrena Baionako Elizbarrutiko fededunentzat, lapurterazko euskalkia neurri batean erabiliz.

Gotzain berriak hiru Elizbarrutitan

1968ko urte-bukaera aldera, Gotzain berriak izendatu zituzten Iruñe, Bilbao eta Donostiako elizbarrutietan, eta hirurek, Baionako Gotzainarekin batean, itzulpen-talde bakarra sortzea erabaki zuten liturgiako testuak itzultzeko. 1969ko urtarrilaren bukaeran hasi zen talde bateratu hau Kontzilioaren aginduz 1970ean argitaratutako Meza Liburu berriko testuak itzultzen. Hau izan zen itzulpen-lanen bigarren etapa. Hasierako bi etapa hauetako itzulpenak *ad experimentum* moduan hartu zituzten Erroman, bai euskarazkoak bai gainerako hizkuntzetakoak, eta behin-behineko balioa zuten.

Lehenengo eta bigarren etapetako lanak presaka eta astirik gabe egin behar izan ziren, igande jakinetarako gaiak prestatu beharra zegoelako. Argitalpenak ere hasiera hartan zatika-zatika egin zituzten, igande-sorta baterako gaiak eskainiz aldi bakoitzean liburuxka desberdinetan.

Ereduzko hirugarren argitalpeneko Meza Liburua argitara eman aurretik, *Liturgiam authenticam* Irakaspenean[6] liturgi testuen itzulpenerako irizpide eta arauak eman zituen Jainkoaren Gurtzarako eta Sakramentuen Araubiderako Kongregazioak, 2001. urtean. Aipatu irizpide eta argibideak gogoan izanik egin izan arren euskarazko itzulpena, zehaztasun estuagoz itzultzera behartu zuten Erromatik. Ondo bereizi behar ziren *«Deus»,*

6 Jainkoaren Gurtzarako eta Sakramentuen Araubiderako Kongregazioa, *Liturgiam authenticam, Erromatar liturgiako liburuak argitaratzekoan herri-hizkuntzen erabileraz Irakaspena* (2001-III-28): A.A.S. 93 (2001), 685-726. or.

«Domine», «Domine Deus», «Omnipotens Deus», «Omnipotens sempiterne Deus», «Unigenitus», «Filius unicus», «vetustas - novitas» kontrasteak, *«humanum genus», «natura humana», «homo», «vir», «humana substantia», «humana fragilitas», «humana mortalitas», «carnem suscipere», «nativitatem secundum carnem», «caro fieri», «nova per carnem nativitas», «in nostra carne adventum», «commercium», «caritas, dilectio», «corpus, cor, anima, animus, spiritus», «sacerdos»* eta *«presbiter»*... Prefazioetako bukaeretan azaltzen diren hitz eta esaldiak: *«Cherubim ac Seraphim», «thronis et dominationibus, cumque omni militia caelestis exercitus», «caeli caelorum virtutes», «potestatem», «principatum»*... Bestalde, Ama Birjinaren deitura liturgian, ekumenismoari begira, ohiko *«Andre Maria»* («Nuestra Señora», *«Madonna», «Notre -Dame»*...) utzi egin behar dela, eta «Maria Birjina *dohatsua*» erabili, etab.

«Pro vobis et pro multis» eta «Gure Aita»

Mezaren ospakizunean kalizaren sagarako *«pro vobis et pro multis»* sakramentu-hitzak, hainbat kasutan, baita gurean ere, *«zuentzat eta guztientzat»* itzuli izan dela eta, 2006ko urriaren 17an Jainkoaren Gurtzarako eta Sakramentuen Araubiderako Kongregazioak nazioetako Gotzainen Batzarrei eginiko Gutunean, Benedikto XVI.aren nahia zela adieraziz eta *Liturgiam authenticam* dokumentuari jarraituz, eskari egiten zien, hitz horien «itzulpen zehatza egin behar zela», Ebanjelioko hitzak zirelako (Mt 26, 28; Mk 14, 24); beraz, *«zuentzat eta askorentzat»* esango da aurrerantzean sakramentu-hitz horietan.

Gure Meza Liburuaren argitalpen-lanak egitekoan, Frantziako Gotzainek, «Gure Aita»-ren bukaerako eskariaren itzulpena aldatzeari buruz, hartutako erabakiaren albistea iritsi zen. Egokiera horretaz baliaturik, euskarazko itzulpena ere aldatzea onartu zen euskal Elizbarrutietako Gotzainen batzarrean, 2017ko abenduaren 23an. Aldaketa hau onetsia izan zen Erroman ere. Beraz, «Gure Aita»-ren bukaerako eskaria honela gelditzen da: «...ez gaitzazu utzi tentaldian erortzen, baina atera gaitzazu gaitzetik».

Meza Liburuaren euskarazko argitalpenak

Arestian aipatu denez, hasierako argitalpenak zatika egindako liburuxketan azaldu ziren, bai Trentoko Meza Liburuaren euskarazko testuak, bai Vatikanoko ereduzko lehenengo eta bigarren Meza Liburuarenak ere. Liburuxka horien bilduma osatuz, falta ziren testuak itzuliz eta behar ziren egokitzapenak eginez, 1984an argitaratu zen euskaraz ereduzko lehenengo Meza Liburu ofiziala Erromako onespenaz (Prot. n. CD 1106/83). Meza Liburu honetan, sartu ahal izan ziren latinezko jatorrizkoan artean sartuak ez zeuden hainbat testu, hura argitaratuz geroztik azaldu zirelako, hala nola, *Haurrekin ospatzen diren Mezetarako eta Baketzeari buruzko Mezetarako Eukaristi Otoitzak.*[7] Bestalde, Santuen sailean sartu ziren euskal Elizbarrutietako egutegi berezietako santuen testuak.

Euskarazko bigarren argitalpen ofiziala Vatikanoko II. Kontzilioak argitaratutako Erromako Meza Liburuaren ereduzko hirugarren argitalpenaren euskarazko bertsio hau da. Lehen aipatu denez, 2002an argitaratu zuten latinezko jatorrizkoa, eta 2008an *Emendata*-ko zuzenketekin berrargitaratu. Euskarazko gure argitalpen honetan, jatorrizko Meza Liburua beraren zati berri guztiekin jasoa egoteaz gainera, euskal elizbarrutiarteko santu bereziak sartu dira, ez, ordea, elizbarruti bakoitzeko santu bereziak, ez baita oraindaino horien guztien egutegi eta testuen Erromako onespenik lortu ahal izan. Beraz, horien ospakizunerako testuak elizbarruti bakoitzak emango ditu argitara.

Euskararen inguruko garai bateko arazoak asko xamurtu dira, euskararen erabilpenean azken urteotan egindako aurrerabideari esker. Gaur egun eratua dago euskara baturako bidea Euskaltzaindiak jarritako oinarriei esker, eta hedatua ere badago ikastola, euskaltegi, unibertsitate eta hedabideei esker, besteak beste. «H»-aren

7 Sakramentuetarako eta Jainkoaren gurtzarako Kongregazio SakratuA, (Prot. n. CD 2250/77), *Gotzainen Batzarretako Buruei Gutuna, Haurrekin ospatzen diren Mezetarako eta Baketzeari buruzko Mezetarako Eukaristi Otoitzei buruz*, in *Notitiæ* 13 (1977), 555-556. or.

erabilera ere normaldua dago. Horrek esan nahi du, Meza Liburu berrian ez dela eragozpenik ikusten euskara batua erabiltzeko, nahiz eta ertzetako bi euskalkien ñabardurekin argitalpenak egiten ere jarraitu.

Meza Liburu hau, aurrekoa bezalaxe, kanturako doinuz hornitua dago. Mezaren Egunerokoan apaizak kristau-batzarrarekin abesten dituen 43 elkarrizketa, 61 prefazio, Pazko Hirurreneko kantuak eta Haurrekin ospatzen diren Mezetarako beste 15 doinu guztiz eguneratuak dakartza, doinu bakoitza bere testuarekin loturik.

Eliz elkartasunerako baliabide

Elizaren ospakizunetan herri-hizkuntza, hau da, euskara erabiliz, liturgia indarberritzeari dagokionaz, garrantzi handiko gertaera da *Vatikanoko II. Kontzilioaren aginduz eraberritutako Meza Liburu* honen argitalpena. Elizaren fedea da liburu honetan adierazten dena. Antzinako esaldia da *«lex orandi, lex credendi»*, eta hau da horrekin esan nahi dena: Elizaren fedea dela beraren otoitzaren oinarria, eta, beraz, Elizak bere fedea adierazten duela otoitzean. Testu liturgikoek Elizaren fedea adierazten dutenez, «ez du inork, apaiza izan arren, ezer gehitu, kendu edota aldatu behar liturgian bere kasa» (SC 22, &3). Eliztasunaren indarra eta egia galduko luke.

Elizaren fedean eta otoitzean bat egitea da fede-batasuna bermatzen duena. Eliz elkartasunerako oinarrizko baliabidea dugu Meza Liburua, arreta bereziz zaindu behar dugun Eukaristian jotzen delako Elizaren jardunaren gailurra, eta, era berean, Eukaristia delako Elizaren indar guztiaren iturria (ik. SC 10; LG 11).

Meza Liburuaren argitalpen honetan aurkitzen den doktrina- eta espiritu-aberastasuna, kristau-fededun guztiei, eta bereziki Eukaristiaren zerbitzari diren apaizei, egiten zaien deia gertatzen da, ospakizunaren egitura ulertu eta liturgiako hitzak nork bere egitera. Fededunak bere otoitz pertsonalerako hausnarketa- gaitzat erabil dezake, bere espiritu-bizitza indarberritzeko. Era honetan, Elizak aitortzen duen fedea bereganatu eta eguneratu egingo luke etengabe. Eta liturgian aipatzen diren testuak hurbilagotik eta sakonago ezaguturik, errazago gertatuko da liturgi ospakizunean «oso-osoan, ohartuki eta era aktiboan» (SC 14) parte hartzea.

2019ko apirilaren 18an
Jaunaren Afariko Ostegun Santu egunean
Erromako Meza Liburuaren lehenengo argitalpenaren
50. urtemugan

Itzultzaile-taldeak

JAINKOAREN GURTZARAKO
KONGREGAZIO SAKRATUA

Prot. n. 166/70

DEKRETUA

Paulo VI.a Aita Santuak, 1969ko apirilaren 3an, Ordo celebrationis eucharisticae eratu eta, Missale Romanum Konstituzio Apostolikoaren bidez, Missale Romanum osatzen duten testuak onetsirik, Meza Liburuaren argitalpen hau promulgatzeko agindua hartu zuen Jainkoaren Gurtzarako Kongregazio Sakratu honek Aita Santuagandik, eta ereduzko edizioa dela adierazten du.

Erromako Meza Liburua erabiltzeari dagokionaz, argitalpena agertu bezain laster erabili ahal izango da latinezko edizioa; baina behin betiko egutegi berria ezarri artean, beharrezko diren egokitzapenak egin beharko dira santuen jaietan; Gotzainen Batzarren ardurapean uzten da herri-hizkuntzetako argitalpenak prestatzea eta, Aulki Santuak egiaztaturik, zein egunetan hasiko den indarra izaten adieraztea.

Honen kontrako ezer eragozpen izango ez delarik.

Jainkoaren Gurtzarako Kongregazio Sakratuaren baitan emana, 1970eko martxoaren 26an, Jaunaren Afariko Ostegun Santu-egunean.

BENNO GUT KARDINALA
Prefektua

A. BUGNINI
Idazkaria

JAINKOAREN GURTZARAKO
KONGREGAZIO SAKRATUA

Prot. n. 1970/74

EREDUZKO BIGARREN ARGITALPENARI BURUZKO OHARRA

Erromako Meza Liburua berria inprimatu behar izan denez gero, aldaketa batzuk eta testu berriak sartu dira, 1970eko lehenengo edizioaz geroztik promulgatuak izan diren dokumentuak edizio berri honetan ager daitezen.

«Eraketa Orokorrean», ertzeko zenbakiak aldatu gabe, akolitoaren eta irakurlearen eginkizunen azalpena egiten da, lehen subdiakonoari zegozkion zenbakien ordez.

Nolabaiteko garrantzia duen beste aldaketa, sakramentu eta ohikune Mezak eta behar berezietakoak datozen Meza Liburuko zatian egin da. Meza horietako formulario batzuk osatu egin dira, dagozkien sarrera- eta jaunartze-antifonekin. Horrez gainera, eliza nahiz aldarea sagaratzeko eta baketzeari buruzko ohikune Mezako testuak gehitu dira; deboziozko Mezetan, berriz, Maria Birgina santua Elizaren Amaren, eta Mariaren Izen guztiz santuaren testuak.

Titulu eta errubriketan garrantzi gutxiagoko aldaketa batzuk sartu dira, liturgi liburu berrietan azaltzen diren hitz edota esaldiekin hobeto lotu daitezen.

Paulo VI.a Aita Santuak onetsi zuen bere aginpideaz Erromako Meza Liburuaren bigarren argitalpen hau, eta Jainkoaren Gurtzarako Kongregazio Sakratuak argitara eman du orain eta ereduzko edizioa dela adierazten.

Gotzainen Batzarren ardura izango da, herri-hizkuntzetako edizioak prestatzekoan, Erromako Meza Liburuaren bigarren argitalpen honetan dauden aldaketak sartzea.

Honen kontrako ezer eragozpen izango ez delarik.

Jainkoaren Gurtzarako Kongregazio Sakratuaren baitan emana, 1975eko Urte Santuko martxoaren 27an, Jaunaren Afariko Ostegun Santu-egunean.

JAMES ROBERT KNOX KARDINALA
Prefektua

A. BUGNINI
Dioclecianako Artzapezpiku titularra
Idazkaria

JAINKOAREN GURTZARAKO
ETA SAKRAMENTUEN ARAUBIDERAKO
KONGREGAZIOA

Prot. n. 143/00/L

EREDUZKO HIRUGARREN ARGITALPENARI BURUZKO DEKRETUA

Jaunaren Gizakundeko hirugarren milurtekoaren hasieran, egoki zirudien Erromako Meza Liburuaren edizio berria argitara ematea, Aulki Apostolikoaren azkenaldi honetako dokumentuak, batez ere Zuzenbide Kanonikoaren Kode berria, jasotzeko eta, aldi berean, egindako aldaketak eta sartutako testu berri beharrezkoenak aintzakotzat hartzeko.

Erromako Meza Liburuaren Eraketa Orokorrari dagokionean, aldaketa batzuk sartu dira, beste liburu liturgikoetako estilo eta arauen araberakoak baita pastoraltzako esperientziak erakutsitakoak ere. Argiago adieraziak azaltzen dira gure Jauna ogi-ardoen itxurapean emateko eskubideari buruzko arau berriak; guztiz berria da Eraketaren IX. kapitulua eta horrekin bidea zabaltzen da Erromako Meza Liburua gai izan dadin behar pastoralei dagokien erantzuna emateko.

Ospakizunetarako Erromako Egutegi Orokorrean azkenaldian onartuak izan diren formula berriak gehitu dira. Maria Birjina santuaren Betikoa Mezako formulario berriekin aberastu da Jainkoaren Amarenganako debozioa sustatzeko. Bestalde, beste Betikoetan, behar berezietarako Mezetan nahiz egoera desberdinetarakoetan, baita hilen aldeko Mezetan ere, aldatu egin da otoitz batzuen idazkera, testuen esanahia zehatzago jaso ahal izateko. Garizumako Mezetan, antzinako liturgi ohiturari jarraituz, herriaren gaineko otoitza jarri da egunero.

Mezaren Egunerokoaren eranskin moduan Adiskidetzeari buruzko eukaristi Otoitza jarri da, baita behar berezietarako erabil daitekeen Eukaristi Otoitz berezia ere.

Erromako Meza Liburuaren hirugarren argialpen hau Joan Paulo II.a Aita Santuak bere aginpideaz onetsi zuen 2000. urteko apirilaren 10ean, eta Jainkoaren Gurtzarako eta Sakramentuen Araubiderako Kongregazioak argitara eman du orain eta ereduzko edizioa dela adierazten.

Ereduzko hirugarren argitalpen honez geroztik, Gotzainen Batzarrak arduratuko dira, oraindik erabiltzen diren lehengo itzulpenak jatorrizko latinezko testuaren arabera arretaz zuzendurik, Erromako Meza Liburuaren herri-hizkuntzetako itzulpen berriak egiteaz, leialtasun osoz eta zehaztasunik handienaz egin ere, zuzenbidearen arabera Aulki Apostolikoak onetsi ditzan.

Horrela, bada, Erromako Meza Liburuaren ereduzko hirugarren argitalpen latinezko testua hau zuzenbidearen arabera argitaratua izango den egun beretik erabili ahal izango da Eukaristia guztiz santuaren ospakizunean. 2000. urteko Jaunaren Gorputz eta Odolaren festaburuan hasiko da indarrean egoten.

Honen kontrako ezer eragozpen izango ez delarik.

Jainkoaren Gurtzarako eta Sakramentuen Araubiderako Kongregazioaren baitan emana, 2000.go apirilaren 20an, Jubileu Handiaren urtean, Jaunaren Afariko Ostegun Santu-egunean.

Gregorio A. Medina Estévez Kardinala
Prefektua

Frantzisko Pio Tamburrino
Artzapezpiku Idazkaria

JAINKOAREN GURTZARAKO
ETA SAKRAMENTUEN ARAUBIDERAKO
KONGREGAZIOA

Prot. n. 82/15

ERROMAKO MEZA LIBURU ERABERRITUAREN EUSKARAZKO ITZULPENAREN EGIAZTAPENA

Rikardo Blázquez Pérez jaun txit agurgarriak, Valladolideko Artzapezpiku eta Espainiako Gotzainen Batzarburuak, 2015eko urtarrilaren 22ko gutunean egindako eskariari erantzunez, FRANTZISKO Aita Santuak Kongregazio honi emandako eskumenez baliaturik, atseginez egiaztatzen dugu Erromako Meza Liburuaren ereduzko hirugarren argitalpenaren euskarazko itzulpena, honi erantsitako liburuan dagoenez.

Testu hau inprimatzekoan sar bedi osorik, egindako eskariari Aulki Apostolikoak emandako egiaztapenaren Dekretua. Gainera, argitaratutako testu honen bi liburu bidal bitez Kongregazio honetara.

Honen kontrako ezer eragozpen izango ez delarik.

Jainkoaren Gurtzarako eta Sakramentuen Araubiderako Kongregazioaren baitan emana, 2017ko urriaren 7an, Arrosarioko Maria Birjina dohatsuaren oroipen-egunean.

ARTURO ROCHE
Artzapezpiku Idazkaria

R.P. CORRADO MAGGIONI, S.M.M.
Idazkariordea

MEZA LIBURUAREN ERABILPENERAKO DEKRETUA

Euskal Elizbarrutietako Gotzainok atseginez eta gogotsu eskaintzen diegu geure Elizbarrutietako apaizei eta eliztar guztiei *Vatikanoko II. Kontzilio Ekumenikoaren aginduz eraberritua* izan den Erromako Meza Liburua. Elizaren fedea da otoitz-liburu honetan adierazia dagoena, ezinbesteko baliabidea Elizaren fede-batasuna eta -elkartasuna bizitzeko. Dei bizia egiten dugu arretarik handienaz zaindu eta erabil dezagun denok Eukaristiaren ospakizunean, egia gerta dadin Eukaristiako sakrifizioa dela Elizaren jardueraren eta kristau-bizitza osoaren iturburu eta gailur (ik. LG 11; SC 10).

Zuzenbide Kanonikoak ematen dizkion eskumenei jarraikiz, Espainiako Gotzainen Batzarrak, 2014ko azaroaren 17/21eko CIV. Batzarraldian, botoen gehiengo bereziaz onetsi zuen, euskal Elizbarrutietako Gotzainen agindupean egindako *Editio typica tertia Missalis Romani emendata*-ren euskal bertsioa. Ondoren, Erromara, Jainkoaren Gurtzarako eta Sakramentuen Araubiderako Kongregaziora, bidalia izan zen eta, beharrezko zuzenketak eginik, berretsia izanaren agiria eman zuten 2017ko urriaren 31ko dekretu bidez (Prot. N. 82/15).

Ereduzko eta ofizialtzat hartu behar den Meza Liburuaren argitalpen hau erabiliko da aurrerantzean euskal Elizbarrutietako parrokia, elizkizun-leku eta kaperetako ospakizunetan, datorren Abendualdiko I. Igandetik aurrera, 2019ko abenduaren 1ean hasita, bezpera-arratsaldeko Mezak barne.

Idatzia gera dadin eta dagozkion ondorioak izan ditzan, sinatzen dugu dekretua euskal Elizbarrutietako Gotzainok.

Iruñea eta Tutera, Gasteiz, Bilbao eta Donostia
2019ko ekainaren 23an
Kristoren Gorputz eta Odol Santuen festaburuan

Francisco Pérez González, Iruñeko Artzapezpikua eta Tuterako Gotzaina
Juan Carlos Elizalde Espinal, Gasteizko Gotzaina
Mario Iceta Gavicagogeascoa, Bilbaoko Gotzaina
Jose Ignazio Munilla Agirre, Donostiako Gotzaina
Juan Antonio Aznárez Cobo, Iruñeko eta Tuterako Gotzain Laguntzailea
Joseba Segura Etxezarraga, Bilbaoko Gotzain Laguntzailea

«MISSALE ROMANUM»
KONSTITUZINO APOSTOLIKOA

ERROMAKO MEZA LIBURUA
VATIKANOKO II. KONTZILIO EKUMENIKOAREN
DEKRETUZ ERABERRITURIK PROMULGATUA

PAULO GOTZAINAK

JAINKOAREN ZERBITZARIEN ZERBITZARIAK
GOMUTAGARRI IZAN DADIN BETIKO

ERROMAKO MEZA LIBURUA, Trentoko Kontzilioaren dekretuz Gure Aurretiko Pio V.a santuak 1570ean promulgatua,[1] Kristoren Eleiza guztiarentzat Batzar sakratu haretatik etorritako hainbeste mesede harrigarriren artean, gogoangarrienetakotzat euki izan da beti. Izan be, lau gizalditan latin-ohikuneko abadeentzat eukaristia oparia eskeintzeko araua izan da, eta Ebanjelioaren zabaltzaile diran misiolariek ia mundu guztiko herrialdeetara eroan eben. Ez dogu ahaztu behar, gainera, ezin zenbatu ahala santuk Meza Liburu honen bibli irakurgaiak eta otoitzak izan ebezela euren gogo-asegarri eta Jainkoaganako maitasunaren biztugarri; horreen zatirik garrantzitsuena Gregorio Handia santuak antolatua zan.

Baina kristau-herrian, liturgi mugimendua sendotzen eta zabaltzen hasi zanean –eta mugimendu hau, gomutagarri dan Gure Aurretiko Pio XII.ak inoanez, gure aldian Jainkoak izan dituan burubide arduratsuen eta Eleizan Espiritu Santuak izandako igarotze osasungarriaren ezaugarritzat hartu behar da–[2] argi be argi ikusi zan, Erromako Meza Liburuaren testuak berrikusi eta aberastu beharrekoak zirala. Gure Aurretiko Pio XII.ak berak hasi eban berrikuste hau, Pazko Gaubela eta Aste Santua barritu zi-

1 *Quo primum* Konstituzino Apostolikoa (1570.07.14).
2 Ik. PIO XII.a, Allocutio iis, qui primo Conventui ex omni natione de Liturgia pastorali, Assisii habito, interfuerunt (1956.09.22): A.A.S. 48 (1956), 712. or.

tuanean;[3] holan, Erromako Meza Liburua gaur egungo pentsaera barriaren eskakizunetara egokitzeko lehenengo pausua emon eban.

Oraintsu Vatikanoko II. Kontzilio Ekumenikoak, *Sacrosanctum Concilium* Konstituzinoaren bidez, Erromako Meza Liburua berrikusteko oinarriak ezarri ditu, eta hau erabagi dau: lehenengo, «*testuak eta ohikuneak, gauza santuen ezaugarri diranez, hori argiago adierazoteko eran zuzendu behar dirala*»;[4] bigarrenik, «*Mezaren Egunerokoa berrikusi egin behar dala, zati bakotxaren esanahia eta zati guztiek alkarregaz daben zerikusia argiroago agertu dadin, eta fededunen espirituzko esku-hartze eginkorra erraztu dadin*»;[5] hirugarrenik, «*Jainkoaren hitzaren mahaia mardulago prestatzearren kristauentzat, zabalago zabaldu behar dirala Bibliako aberastasunak*»;[6] eta azkenik, «*Alkarmezarako ohikune barria prestatu behar dala eta "Pontificale" liburuan eta Erromako Meza Liburuan ezarri*».[7]

Ez da uste izan behar, halan be, Erromako Meza Liburuaren berrikuste hau prestaera barik egina izan danik; azkeneko lau gizaldiotan liturgi jakitearen arloan egindako aurrerakuntzak asko urratu dau honetarako bidea. Trentoko Kontzilioaren ondoren, «*Vatikanoko Liburutegiko kodex zaharren eta beste leku batzuetatik ekarritakoen*» azterketa –Gure Aurretiko Pio V.a santuaren *Quo primum* Konstituzino Apostolikoak dinoanez– guztiz lagungarri izan zan Erromako Meza Liburua berrikusteko. Baina, harrezkero, antzina-antzinako liturgi iturriak aurkitu eta argitaratuak izan dira; eta Sortaldeko Eleizearen liturgi testuak sakonago ezagutu eta aztertuak izan dira, gainera. Horregaitik, egunean baino egunean gehiago izan dira jakiteari eta espirituari dagokiozan aberastasun honeek, liburutegi ilunetan gordeta euki barik, argitaratu egin behar zirala uste izan dabenak, kristauen buru-bihotzak argitu eta janaritzeko.

Erromako Meza Liburuaren egitura barriaren hari nagusiak aurkeztuko doguz orain. Lehenengo, liburuaren sarrera lez jarri dogun *Eraketa Orokorrean*, eukaristi oparia ospatzeko arau barriak datoz, bai ohikuneei eta batzarkide bakotxaren eginkizun bereziari dagokienez, bai gauza eta leku santuei dagokienez.

Erabarritze honen aldakuntza nagusia Eukaristi Otoitza deritxonari dagokio. Erromako ohikunean otoitz honen lehenengo zatiak, hau da, prefazioak, gizaldietan zehar era asko izan dau; bigarren zatiak, barriz, *Canon Actionis* deritxonak, IV-V. gizaldiez honantz aldaketa bako era hartu eban. Sortaldeko liturgiek, ostera, Anaforetan euretan be zelako edo halako ugaritasuna izan eben. Hori dala-eta, antzina Erroman erabili izan ziran edo barriren barri egin diran prefazio ugariz aberastu da Eukaristi Otoitza: prefazio honeek argiroago dakarrez fede-misterioaren alderdirik nagusienak, eta es-

---

3 Ik. Ohikuneetarako Kongregazino Sakratua, *Dominicæ Resurrectionis* Dekretua (1951.02.09): A.A.S. 43 (1951), 128. or. eta hur.; *Maxima redemptionis nostræ mysteria* Dekretu orokorra (1955.11.16): A.A.S. 47 (1955), 838. or. eta hur.

4 Vatikanoko II. Kontzilioa, *Sacrosanctum Concilium* liturgia sakratuari buruzko Konstituzinoa, 21. zk.

5 Ik. *ibid.*, 50. zk.

6 Ik. *ibid.*, 51. zk.

7 Ik. *ibid.*, 58. zk.

kerrak emoteko arrazoi aberats eta ugariak eskeintzen dabez; honez gainera, aitaturiko Eukaristi Otoitzari hiru Kanon barri gehitzeko agindu dogu. Halan be, arrazoi pastoralei begiturik eta alkarmeza errazago emoteko, Kanon bakotxean Jaunaren hitzak bardinak izan daitezala agindu dogu. Hau dala-eta, Eukaristi Otoitz bakotxean berba honeek honan esatea erabagi dogu:

Ogiaren gainean: *Hartu egizue eta jan guztiok honetatik: hau nire Gorputza da-eta, zuentzat emongo dana.*

Kalizaren gainean: *Hartu egizue eta edan guztiok honetatik: hau nire Odolaren kaliza da-eta, itun barri eta betikoaren odola, zuentzat eta askorentzat pekatuak parkatzeko isuriko dana. Egizue hau nire oroigarri.*

Hau da sinismenaren misterioa esaldia, Jaunak esandako berbetatik aparte ataratakoa eta abadeak esana, fededunen gorespenaren sarrera lez gelditu da.

Mezearen Egunerokoari dagokionez, «*ohikuneak, euren izate berean jarraitzen dabela, erraztu egin dira*».[8] Eta honan, «*urteak joan eta urteak etorri, bikoiztutakoak edo berariazko mesede barik gehitutakoak*»[9] kendu egin dira: hau, eskeintzako, ogia zatitzeko eta jaunartzeko ohikuneetan jazotzen zan, batez be.

Honez gainera, «*zaharraren zaharrez galdutako gauza batzuk, Eleiza Guraso santuen antzinako eginbideen arabera, barriro ezarri dira*»:[10] honeen artekoak dira homilia,[11] Jainkoaren herriaren otoitza,[12] eta Mezearen hasierako damu-otoitza edo Jainkoagaz eta senideekin adiskidetzea, ohikune honi, egoki zanez, bere garrantzia bihurtuz.

Vatikanoko II. Kontzilioak, gainera, «*erabagiko dan urteen epe baten herriak Liburu Santuen zatirik nagusiena entzun dagiala*»[13] agindu ebanez, domeketako irakurgaiak hiru urtetan banatu dira. Epistolaren eta Ebanjelioaren aurretik, domeka eta jaiegunetan Itun Zaharretik hartutako irakurgaia izango da, edo Pazkoaldian Apostoluen Eginak liburutik hartutakoa. Honan, salbazino-misterioaren etenbako aurrerakuntza nabarmenago argituko da, Jainkoaren agerpeneko berbak eurak erabiliz. Bibliako testu-sorta hain ugariaren bidez, jaiegunetan Idazteuneko zatirik garrantzitsuena aurkeztuko jake fededunei; eta irakurgai honeek astegunetan egiten diran Liburu Santuetako beste irakurgaiez osotuko dira.

Honeek guztiak, fededunengan Jainkoaren hitzarenganako gosea[14] gero eta handiagoa izan dadin eratu dira, honan, eta Espiritu Santua gidari dala, itun barriko herriak Eleizearen batasun osorako eragina izan dagian. Itxaropen bizia dogu, gainera,

---

8 Ik. *ibid.*, 50. zk.
9 Ik. *ibid.*, 50. zk.
10 Ik. *ibid.*, 50. zk.
11 Ik. *ibid.*, 52. zk.
12 Ik. *ibid.*, 53. zk.
13 Ik. *ibid.*, 51. zk.
14 Ik. *Amos* 8, 11.

Meza Liburuaren Eraketa honek osotasun handiagoz prestatuko dituala bai abadeak bai fededunak Jaunaren Afaria ospatzeko eta, aldi berean, Liburu Santuak sakonago gogoetagai harturik, egunetik egunera janari ugariagoa aurkituko dabela Jaunaren hitzean. Honen ondorioa, Vatikanoko II. Kontzilioak gogo ebanez, hau izango da: Liburu Santuak arimaren etenbako bizi-iturri bihurtuko dirala guztientzat, kristau-irakaspenaren argibiderik oinarrizkoena eta, azkenik, teologia hezieraren muin-muina.

Erromako Meza Liburuaren berrikuste honetan azaldu doguzan hiru zatien aldakuntzaz gainera –hau da: Eukaristi Otoitzaz, Mezearen Egunerokoaz eta Irakurgaien Liburuaz gainera–, beste atal batzuk be berrikusi eta aldatu dira: Aldiko Berezia, Santuen Berezia eta Betikoa, Sakramentu eta Ohikuneetarako Mezak eta Debozinozko Mezak. Otoitzak arreta bereziz aztertu dira; alde batetik, ugariago dira orain otoitzak, gaurko beharrizan barriei otoitz-era barriak dagokiezalako, eta, bestetik, honeen jatorrizko testua ezarri da, antzinako kodexen argitan, kritika bidez. Honeek holan izanik, liturgialdi nagusietako astegun guztiek –Abendu, Gabonaldi, Garizuma eta Pazko aldietakoek– bakotxak bere otoitz bereziak daukiez egunean-egunean.

Hau be esan daigun: Erromako Gradualeko testua aldatu ez dan arren –kantuari gagokiozala behinik behin–, testu hori ulergarriago izan dakigun, San Agustinek eta San Leon Handiak sarri aitatzen daben erantzun-salmoa barriro ezarri da; gainera, Meza isiletako sarrera- eta jaunartze-antifonak be, egoki iruditu danean, aldatu egin dira.

Amaitzeko, Erromako Meza Liburu barria dala-eta, orain arte agertu dogun guztiari Guk lege-indarra emon nahi deutsogu. Gure Aurretiko Pio V.a santuak Erromako Meza Liburua ofizialki promulgatu ebanean, liturgi batasunaren eragingarritzat eta Eleizearen kultu jatorraren agergarritzat aurkeztu eutson ha kristau-herriari. Holan, Vatikanoko II. Kontzilioaren arabera, Meza Liburu barrian «*legezko aldaketak eta egokitzeak*»[15] ezarriz, Geuk be badogu uste on, fededunek alkarren arteko batasunaren agergarri eta indargarritzat hartuko dabela egokitze hori; honan, hainbeste hizkuntza desbardin izan arren, intsentsua baino usaintsuago dan otoitz bakarrak eta berak igongo dau zeruetako Aitagana, Abade Nagusia dogun Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez, Espiritu Santuagan.

Konstituzino honetan datozan aginduek, urte honetako azaroaren 30etik, Abendualdiko lehenengo domekatik aurrera indarra izan dagiela agindu dogu.

Hau be nahi dogu: erabagi eta agindu dogun guztiak indarra eta eragina izan dagiala orain eta gero be, Gure Aurretikoengandiko edozein Konstituzino eta Agindu Apostoliko, holakorik izan baledi, edo beste edozein erabagi eragozpen izango ez dala, aipagarriena eta indargetzekoa izan arren.

Erroman San Pedron emona, Eguen Santuan, 1969ko apirilaren 3an, Gure Aitasantutzaldiko seigarren urtean.

PAULO VI.a AITA SANTUAK

---

15 Ik. VATIKANOKO II. KONTZILIOA, *Sacrosanctum Concilium* liturgia sakratuari buruzko Konstituzinoa, 38-40. zk.

ERROMAKO MEZA LIBURUAREN ERAKETA OROKORRA

HITZAURREA

1. Jaunak, bere Gorputz Odolen oparia sortuarazoko eban pazko-afaria ospatzekoa zala, prestaturik egoan areto handi bat apaindu egiela agindu eban (*Lk 22, 12*). Eleizeak beretzat hartu izan dau beti agindu hau; horregaitik ezarri ditu Eukaristiaren ospakizunerako arauak, hau da: pertsona, leku, ohikune eta testuei dagokiezan arauak. Kontzilioaren aginduz orain ezarri diran arauak eta aurrerantzean Mezearen ospakizunean erromatar errituko Eleizeak erabiliko dauan Meza Liburu barria Eleizeak dauan gogo honen agergarri dira, hau da: Eukaristiako misterio agurgarrian daukan fedearen eta berari deutson maitasun aldatuezinaren agergarri; eta, barrikuntza batzuk egin diran arren, hari bereko tradizino etenbakoa autortzen dabe.

Aldaketa bako fedearen agergarri

2. Mezea oparia dala irakatsi eban handikiro Trentoko Kontzilioak,[1] Eleizearen tradizino etenbakoari jarraituz; hori bera adierazo dau barriro Vatikanoko II. Kontzilioak, Mezeari buruz esanahi sakoneko berba honeek esanez: «Gure Salbatzaileak, Azken Afarian, bere Gorputz Odolen eukaristi oparia eratu eban; honen bidez, bera etorri arte, gizaldietan zehar iraunarazoko eban kurutzeko oparia eta, holan bere heriotzaren eta biztueraren oroigarria itziko eutson Eleizeari, bere Emazte maiteari».[2]

Mezako otoitzetan eten barik agiri da Kontzilioaren irakaspen hau. Hain zuzen, San Leonen antzinako Sakramentu Liburuko berbek adierazoten dabe irakaspen hori: «Opari hau oroigarri ospatzen dogun bakotxean gure erospena egiten»[3] dala hain zuzen be; hori Eukaristi Otoitzetan egoki eta oso-osoan agertzen da; Eukaristi Otoitzetan, hain zuzen be, abadea, «anamnesia» egitean, herri guztiaren izenean zuzentzen jako Jainkoari, eskerrak emoten deutsoz eta opari bizia eta santua eskeintzen, hau da: Eleizearen eskeintza eta Jainkoak berak gu beragaz baketu gaituan oparia;[4] eta Kristoren Gorputz Odolak Aitarentzat opari atsegingarri eta mundu guztiarentzat salbagarri[5] izan daitezala eskatzen dau.

Honan, Meza Liburu barrian Eleizearen *lex orandi* danak betiko *lex credendi* dalakoari erantzuten deutso; eta honek hau dakarzku gogora: eskeintza egiteko eran izan ezik, gauza bat bera dirala kurutzeko oparia eta hau Mezatan, sakramentu-eran, barritzea: Jaunak Azken Afarian eratu eta Apostoluei bere oroigarritzat ospatzeko agindu eutsena bera, hain zuzen; eta, horregaitik, Mezea, aldi berean, goratzeko, eskerrak emoteko, baketzeko eta ordaintzeko oparia dala.

3. Kristo bene-benetan dago Eukaristiako ogiardaoen itxurapean; misterio harrigarri hau Va-

---

1 TRENTOKO KONTZILIO EKUMENIKOA, XXII. Batzarraldia (1562.09.17): Denz.-Schönm. 1738-1759.

2 VATIKANOKO II. KONTZILIO EKUMENIKOA, *Sacrosanctum Concilium* liturgia sakratuari buruzko Konstituzinoa, 47. zk.; ik. *Lumen gentium* Eleizeari buruzko Konstituzino dogmatikoa, 3 eta 28. zk.; *Presbyterorum Ordinis* abadeen ministerioari eta bizitzari buruzko Dekretua, 2, 4 eta 5. zk.

3 Jaunaren Afariko arratsaldeko Meza, oparigaien gaineko otoitza. Ik. *Sacramentarium Veronense*,L.C. Mohlberg-en argitarapena, 93. zk.

4 Ik. III. Eukaristi otoitza.

5 Ik. IV. Eukaristi otoitza.

tikanoko II. Kontzilioak[6] eta Eleizearen Irakaskintzako beste agiri batzuek[7] barriro baieztatzen dabe, eta Trentoko Kontzilioak[8] sinistu beharrekotzat erabagitako maila berean eta indar beraz baieztatu be. Bestalde, hau bera agertzen da Mezearen ospakizunean, izate-aldatze edo transubstantziazinoaren bidez Kristo bertaratzen daben sagara-hitzetan ez ezik, baita eukaristi liturgian erakusten dan begirunerik eta gurtzarik handiena adierazotean be. Horregaitik eskatzen jako kristau-herriari, Eguen Santuan eta Kristoren Gorputz eta Odol Santuen festaburuan Sakramentu agurgarri hau era berezian gurtu dagiala.

4. Kristoren ordezkari lez oparia eskeintzea eta herri santuaren batzarrean buru izatea dagokien Gotzainaren eta abadearen ministerioa zer dan honetantxe agertzen da: ohikunearen beraren eraketan abadeari lehen-lekua gordetzen deutsolako eta eginkizun berezia autortzen deutsolako. Eginkizun hau zer eta zelakoa dan, Eguen Santuz –Abadetzaren sorrera gogoratzen dan egunez– Krisma Mezan esaten dan prefazioan agiri da batik bat argi eta zabal. Esku-ezartzeaz abadeahalmena emoten dala azaltzen da prefazio horretan; ahalmen horren zeregin desbardinak zehazten dira eta Itun Barriko Abade Nagusia dan Kristoren luzapena dala adierazoten.

5. Ministeriorako abadetzaren guna jakiteak lagundu be asko laguntzen dau fededunen errege-abadetza zer dan jakiten eta honen goibalioa guztiz aintzat hartzen: fededunen espirituzko eskeintza, Bitarteko bakarra dan Kristoren opariagaz batera burutzen da-eta Gotzainaren eta abadeen ministerioaren bidez.[9] Hain zuzen be, Eukaristiaren ospakizuna Eleiza osoaren egintza da, eta ospakizun horretan bakotxak, Jainkoaren herrian dauan mailaren arabera, berari dagokion guztia bete behar dau eta hori besterik ez. Hori dala-eta, gizaldietan zehar jaramon handirik egin ez jaken ospakizunaren zati batzuk arreta bereziz aztertu beharko dira. Herri hau, izan be, Jainkoaren herria da, Kristok bere odolaz erosia, Jaunak berak batua eta bere hitzaz janaritua, giza familia osoaren eskariak Jainkoari zuzentzeko deitua dan herria; salbazino-misterioagaitik Kristoren bidez eskerrak emoten dituana, haren oparia eskeiniz; Kristoren Gorputza eta Odola hartuz, batasunean sendotzen dan herria. Herri hau, bere jatorriaz santua dan arren, santutasunean eten barik garatuz doa, eukaristia misterioan jakinaren gainean, jarrera biziz eta onuraz esku hartzen dauala.[10]

Etenbako tradizinoaren agergarri

6. Vatikanoko II. Kontzilioak, Mezearen Egunerokoa barriro ikusteko arauak emon ebazanean, beste gauza batzuren artean, ohikune batzuk «Eleiza Guraso santuen jatorrizko eginbidearen arabera»[11] barriro ezarri eitezala erabagi eban; honetarako, 1570ean Trentoko Meza Liburua argitaratzean, Pio V.a santuak *Quo primum* Konstituzino Apostolikoan erabilitako berbak eurak aitatu ebazan. Erromako Meza Liburu bi honeek berba berberak erabiltzeak hau adierazoten deusku: bien artean lau gizaldiren aldea egon arren, biek tradizino bat bera jasotzen dabela. Eta tradizino horren barrua aztertzen badogu, ikusiko dogu Meza Liburu barriak zein egoki osotzen dauan aurrekoa.

7. Aldi ha oso gatxa izan zan. Zalantzan jartzen ebazan fede katolikoaren irakaspen batzuk:

---

6 VATIKANOKO II. KONTZILIO EKUMENIKOA, *Sacrosanctum Concilium liturgia* sakratuari buruzko Konstituzinoa, 7 eta 47. zk.; *Presbyterorum Ordinis* abadeen ministerioari eta bizitzari buruzko Dekretua, 5 eta 18. zk.

7 Ik. PIO XII.a, *Humani generis* Entziklika (1950.08.12): A.A.S. 42 (1950), 570-571. or.; PAULO VI.a, *Mysterium fidei* Entziklika (1965.09.03): A.A.S. 57 (1965), 762-769. or.; *Sollemnis professio fidei* (1968.06.30), 24-26. zk.: A.A.S. 60 (1968), 442-443. or.; OHIKUNEETARAKO KONGREGAZINO SAKRATUA, *Eucharisticum mysterium* Irakaspena (1967.05.25), 3f eta 9. zk.: A.A.S. 59 (1967), 543 eta 547. or.

8 Ik. TRENTOKO KONTZILIO EKUMENIKOA, XIII. Batzarraldia (1551.10.11): Denz.-Schönm. 1635-1661.

9 Ik. VATIKANOKO II. KONTZILIO EKUMENIKOA, *Presbyterorum Ordinis* abadeen ministerioari eta bizitzari buruzko Dekretua, 2. zk.

10 Ik. VATIKANOKO II. KONTZILIO EKUMENIKOA, *Sacrosanctum Concilium* liturgia sakratuari buruzko Konstituzinoa, 11. zk.

11 *Ibid.,* 50. zk.

Mezearen opari-alderdia, ministeriorako abadetzaren izaera eta Eukaristiako ogi-ardaoen itxurapean Kristo benetan eta beti egotea. Hori zalaeta, Pio V.a santuak orduan egin nahi izan ebana, lehenengo eta behin, hau izan zan: antzinako tradizinoaren azken pausuak onik atara, arrazoi barik egiten eutsoen-eta aurka tradizino horri; horretarako aldakuntza txiki batzuk besterik ez ziran egin ohikune sakratuan. Izan be, 1474an lehenengo aldiz argitaratutako Meza Liburutik 1570eko Meza Liburura alde txikia dago; eta lehenengo argitalpen ha Inozentzio III.aren sasoietako Meza Liburuaren berrargitaratzea besterik ez zan izan. Vatikanoko Liburutegiko Kodexak argibide izan ziran esaera batzuk zuzentzeko, baina «antzinako autore ospetsuen» ikerlan hau Erdi Aroko liturgi azalpenetan bakarrik egin zan.

8. Gaur egun, ostera, «Eleiz Guraso santuen eginbide» hori –eta horri jarraitu nahi izan eutsoen Meza Liburuaren zuzentzaileek– adituen idazki askok aberastu dau. 1571n lehenengoz argitaratutako Gregorianum deituriko Sakramentu Liburuaren ondoren, sarri egin dabez erromatar eta anbrosioar antzinako Sakramentu Liburuen argitalpen kritikoak; baita Espainiako eta Galiako liturgi liburu zaharren argitalpenak be; honeetan, espiritu aldetik eder-ederrak ziran otoitz asko aurkitu dira, ordura arte ezezagunak ziranak.

Hainbeste liturgi liburu aurkitu izan danetik, hobeto ezagutzen dira orain, Sortaldean eta Sartaldean ohikuneak eratu aurretik, lehen gizaldietan izan ziran tradizinoak.

Gainera, aurrera egin daben Eleiz Guraso santuei buruzko ikerlanei esker, eukaristi misterioaren teologia gehiago argitu da: argitasun hau antzinako kristaualdiko Eleiz Guraso ospetsuenen irakaspenetatik etorri da, esate baterako, San Ireneo, San Anbrosio, Jerusalemgo San Zirilo eta San Joan Krisostomoren irakaspenetatik.

9. Horregaitik, «Eleiz Guraso santuen eginbideak», hurko gure aurrekoek itzi euskuena gordetze hutsa baino zeozer gehiago eskatzen dau, hau da: osorik ulertzea eta sakonago aztertzea Eleizearen lehenaldiak eta bat bera dan fedea adierazoteko Eleizeak giza eta kultura- ingurune guztiz desbardinetan –semiten, greziarren eta latindarren herrialdeetan– izan dituan agerbide guztiak. Ikuspegi zabal honen laguntzaz argiago ikusi geinke zein harrigarrizko leialtasuna eragiten dauan Espiritu Santuak Jainkoaren herrian fedearen gordailua aldatu barik gordetzeko, hain handia izan arren otoitzen eta ohikuneen ugaritasuna.

Egoera barrira egokitzea

10. Meza Liburu barri hau, Erromako Eleizearen *lex orandi* dalakoaren lekuko eta azken kontzilioek ekarritako fedearen gordailu izanik, liturgi tradizinoan garrantzi handiko pausoa be bada.

Vatikanoko II. Kontzilioko Gurasoek Trentoko Kontzilioaren baieztapen dogmatikoak barriro ontzat emon ebezanean, historiaren guztiz bestelako une baten egin eben hori; hau dala-eta, orain lau gizaldi burura etorri be egingo ez jakezan eginbide eta jokabideak hartu behar izan ebezan arlo pastoralean.

11. Trentoko Kontzilioak argi ikusi eban orduan, eduki onuragarri ugari ebala Mezeak katekesirako; baina, ezin atara izan ebazan eguneroko bizitzarako behar ziran ondorio guztiak. Eukaristiaren ospakizunean herri-hizkuntzaren erabilpena zilegi izatea orduan be askoren gurari bizia zan. Kontzilioak, ostera, orduko egoera berezia gogoan izanik, Eleizeak beti irakatsi izan ebana barriro be irakatsi behar ebala azpimarratu nahi izan eban, hau da: Eukaristiako oparia, lehenengo eta behin, Kristoren beraren egintza dala, eta fededunen esku hartzeko erak ez dauala haren barru-eraginkortasuna aldatzen. Horregaitik, hitz sendoz eta, aldi berean, zuhurrez hau esan eban: «Mezeak herriarentzat irakasgai ugari euki arren, ez jaken Gurasoei komenigarri iruditu, gehienetan herri-hizkuntzan ospatzea».[12] Gainera, esan eban kondenagarri zala hurrengo hau uste ebana: hau da, «Eukaristi Otoitzaren

12 TRENTOKO KONTZILIO EKUMENIKOA, XXII. Batzarraldia, Mezako Opari Santuari buruzko Irakaspena, 8. kap.: Denz.-Schönm. 1749.

zatia eta sagara-hitzak isilik esaten diralako, Erromako Eleizearen ohikunea arbuiagarria dala, edo Mezea herri-hizkuntzan emon behar dala».[13] Halanda guztiz be, alde batetik, Mezatan herri-hizkuntza erabiltzea galarazo baeben be, bestetik, horren ordez, katekesi egokia emon egiela agindu eutsen arduradunei: «Kristoren ardiek goserik izan ez dagien... Eleiz Batzarrak artzainei eta arimen arduradun guztiei agintzen deutse, Meza emoten dan bitartean, nahiz horreek eurek nahiz horreen ordez beste batzuek, Mezatan irakurtzen dan zatiren baten azalpena egin eta, gainera, opari guztiz santu honen misterioren bat azaldu dagiela, batez be domeka eta jaiegunetan».[14]

12. Vatikanoko II. Kontzilioak, Eleizearen eginbidea aldi honetako beharrizanetara egokitzeko baturik, Trentoko Kontzilioak egin eban lez, liturgia sakratuaren izaera didaktikoa eta pastorala sakon aztertu eban.[15] Ohikune sakratua latinez egitea bidezkoa eta eragingarria dala katoliko dan inork be ukatu ez arren, «sarritan amahizkuntzaren erabilera herriarentzat oso ondo etorri leitekela» ikusi ahal izan eban Vatikanoko II. Kontzilioak, eta horretarako baimena emon be egin eban.16 Erabagi hau gogo beroz hartu eben leku guztietan; eta honan, Gotzainek eta Aulki Apostolikoak zuzendurik, herriagaz egiten diran liturgi ospakizun guztiak herri-hizkuntzan ospatzea zilegi izatera etorri gara, ospatzen dan misterioa hobeto ezagutua izan dadin.

13. Liturgian herri-hizkuntza erabiltzea lagungarri oso garrantzitsua izaten danez, ospakizunak beragan dauan misterioaren katekesia argiago emoteko, Vatikanoko II. Kontzilioak, Trentokoaren agindu batzuk bete behar zirala adierazo eban, ez ziran-eta leku guztietan betetzen, esate baterko: domeka eta jaiegunetarako aginduta egoan homilia egitea,[17] eta ohikune sakratuetan tarteka oharpenak egiteko ahalbidea.[18]

Vatikanoko II. Kontzilioak irakasten dau, «Mezatan esku-hartze osoena fededunek, abadearen jaunartzearen ondoren, opari beretik Jaunaren Gorputza hartzea» dala;[19] horregaitik, Trentoko Gurasoen beste gurari hau be bete dadila eskatzen dau arren eta arren, hau da: Eukaristia santuan beteago esku hartzeko, «Meza bakotxean, han diran fededunek gure Jauna hartu dagiela, gogoz ez ezik, baita sakramentuz be».[20]

14. Trentokoaren artzain-gogo eta -asmo berak eraginik, Vatikanoko II. Kontzilioak beste ikuspegi batetik azaldu eban, Trentokoak ogi-ardaoen itxurapean jaunartzeari buruz erabagi ebana. Eukaristiako sakramentua ogiaren itxurapean bakarrik hartzeak indar bete-betea dauaneko irakatsia ez dau gaur egun inork be zalantzan jartzen; baina, ogi-ardaoen itxurapean hartzea be ontzat emon eban kasu batzuetan, hau da: sakramentuezaugarriaren era argiago honen bidez, fededunak esku hartzen daben misterioaz hobeto jaubetu daitekezan kasuetan.[21]

15. Holan, Eleizeak, «antzinakoa» –hau da, tradizinoko gordailua– gorderik, zintzo betetzen dau egiaren irakasle izateko bere eginkizuna eta baita «barria» aintzat hartzeko eta zuhurtasunez erabiltzeko eginbeharra be (*ik. Mt 13, 52*).

Horregaitik, Meza Liburuaren zati baten datozan Eleizearen otoitz batzuek gehiago begiratzen deutsie momentuko beharrizanei: esate baterako, Sakramentu eta Ohikuneetarako Mezek

---

13 *Ibid*., kan. 9: Denz.-Schönm. 1759.
14 *Ibid.*, 8. kap.: Denz.-Schönm.1749.
15 Ik. VATIKANOKO II. KONTZILIO EKUMENIKOA, *Sacrosanctum Concilium* liturgia sakratuari buruzko Konstituzinoa, 33. zk.
16 *Ibid.*, 36. zk.
17 *Ibid.,* 52. zk.
18 *Ibid.,* 35. zk., § 3.
19 *Ibid.*, 55. zk.
20 TRENTOKO KONTZILIO EKUMENIKOA, XXII. Batzarraldia, Mezako Opari Santuari buruzko Irakaspena, 6. kap.: Denz.-Schönm. 1747.
21 Ik. VATIKANOKO II. KONTZILIO EKUMENIKOA, *Sacrosanctum Concilium* liturgia sakratuari buruzko Konstituzinoa, 55. zk.

eta Beharraldi Batzuetarakoek. Meza honeetan, antzinakoak eta oraingoak egoki alkartzen dira. Holan, Eleizearen antzina-antzinatik hartutako esaera batzuk ikutu barik gelditu dira, hainbeste bider argitaratu izan dan Erromako Meza Liburuan ikusi daitekenez; beste asko, oraingo beharrizanetara eta egoerara egokitu izan da; beste batzuk, ostera, oso-osoan barriak egin dira, burutapenak –eta sarritan esaerak eurak be bai– orain-tsungo kontzilio-agirietatik hartuz; esate baterako, Eleizearen, laikoen, giza lana santutzearen, herrialde guztien batasunaren eta gure aldi honetako premina berezien alde egindako otoitzak.

Gaurko munduaren egoera barria gogoan izanik, aspaldi-aspaldiko testuak erabiltzekoan uste izan da, gaurko teologiaren hizkerara eta Eleizearen oraingo arauetara egokituz esaldi batzuk aldatzean, ez jakola altxor beneragarri horri ezelako irainik egiten; holan aldatuak izan dira, adibidez, lurreko ondasunak erabiltzeari buruzko esaldi batzuk, eta Eleizearen beste sasoi batzuetakoak ziran gorputzeko penitentziaren erak gogoratuarazoten ebezanak.

Horretara, Vatikanoko II. Kontzilioaren liturgi arauek osotu eta hobetu egin dabez puntu askotan Trentokoarenak. Vatikano II.ak, hain zuzen, burutu egin dau lau gizaldi honeetan eta, batez be, azken aldi honetan –batez be, Pio X.a santuak eta haren ondorengoek liturgi gaietarako biztu eben zaletasunari esker–, fededunak liturgia sakratura hurreratzeko egin izan dan hainbat ahalegin.

I. Kapitulua

EUKARISTI OSPAKIZUNAREN GARRANTZIA ETA DUINTASUNA

16. Mezearen ospakizuna, Kristoren eta hierarkikoki eratutako Jainkoaren herriaren egintza dogunez, kristau-bizitza osoaren ardatza da Eleiza osoarentzat eta lekuan lekukoarentzat, baita fededun bakotxarentzat be;[22] Mezearen ospakizunean burutzen da-eta Jainkoak mundua Kristogan santutzen dauan ekintza nagusia eta gizon-emakumeek Aitari emoten deutsoen gurtza, Jainkoaren Semea dan Kristoren bitartez, Espiritu Santuagan, Jainkoa gurtuz.[23] Mezatan, gainera, urte osoan zehar erospeneko misterioen oroipena egiten da, eta oroipena eginez, zelan edo halan esateko, barritu egiten dira misterio horreek.[24] Gainerako egintza sakratuek eta kristau-bizitzako beste egintza guztiek bat etorri behar dabe Mezeagaz, ha dabe-eta sorburu eta ha helburu.[25]

17. Horregaitik, garrantzirik handieneko gauza da Mezearen, hau da, Jaunaren Afariaren ospakizuna taxuz eratzea, zelan ministro sakratuek halan fededunek, bakotxak berari dagokionez esku hartuz, hortik fruturik beteenak lortu dagiezan;[26] horretarako sortu eban Kristo gure Jaunak bere Gorputz Odolen eukaristi oparia eta itzi eutson Eleizeari, bere Emazte maiteari,[27] bere nekaldiaren eta biztueraren oroigarri.

---

22 Ik. VATIKANOKO II. KONTZILIO EKUMENIKOA, *Sacrosanctum Concilium* liturgia sakratuari buruzko Konstituzinoa, 41. zk.; *Lumen gentium* Eleizeari buruzko Konstituzino dogmatikoa, 11. zk.; *Presbyterorum Ordinis* abadeen ministerioari eta bizitzari buruzko Dekretua, 2, 5 eta 6. zk.; *Christus Dominus* gotzainek Eleizan daben zeregin pastoralari buruzko Dekretua, 30. zk.; *Unitatis redintegratio* ekumenismoari buruzko Dekretua, 15. zk.; OHIKUNEETARAKO KONGREGAZINO SAKRATUA, *Eucharisticum mysterium* Irakaspena (1967.05.25), 3e eta 6. zk.: A.A.S. 59 (1967), 542 eta 544-545. or.

23 Ik. VATIKANOKO II. KONTZILIO EKUMENIKOA, *Sacrosanctum Concilium* liturgia sakratuari buruzko Konstituzinoa, 10. zk.

24 Ik. *ibid.*, 102. zk.

25 Ik. VATIKANOKO II. KONTZILIO EKUMENIKOA, *Sacrosanctum Concilium* liturgia sakratuari buruzko Konstituzinoa, 10. zk.; *Presbyterorum Ordinis* presbiteroen ministerioari eta bizitzari buruzko Dekretua, 5. zk.

26 Ik. VATIKANOKO II. KONTZILIO EKUMENIKOA, *Sacrosanctum Concilium* liturgia sakratuari buruzko Konstituzinoa, 14, 19, 26, 28 eta 30. zk.

27 Ik. *ibid.*, 47. zk.

18. Hau guztiau lortuko da, liturgi batzar bakotxaren zelakotasuna eta beste gauza batzuk gogoan izanik, fededunek ohartuz, egitez eta bete-betean esku hartzeko moduan eratzen bada ospakizun osoa, hau da: esku-hartzea gorputzezkoa eta arimazkoa bada eta sutsua fedez, itxaropenez eta maitasunez; hauxe da Eleizeak nahi dauana eta ospakizunak berak eskatzen dauana; holakoak dira-eta kristau-herriak Bateoaren indarrez dituan eskubidea eta eginbeharra.[28]

19. Fededunak eleizkizunean tarteko izateak eta egitez parte hartzeak beste ezerk baino hobeto adierazoten dau liturgi ospakizuna Eleizearen egintza dala;[29] baina hori batzuetan ezinezkoa izaten dan arren, Eukaristiaren ospakizunak beti gordetzen dau bere indarra eta duintasuna, Kristoren eta Eleizearen ekintza dalako; ekintza horretan betetzen dau abadeak bere eginkizun nagusia eta beti herriaren salbazinorako dihardu.

Horregaitik, eukaristi oparia, ahal dan neurrian, egunero be ospatzea gomendatzen jako abadeari.[30]

20. Eukaristiaren ospakizuna, liturgia guztia lez, fedea janaritu, indartu eta adierazoten daben eta zentzumenari dagokiozan ezaugarrien bidez egiten dan ezkero,[31] ahal dan ahaleginik handiena egin behar da Eleizeak jarritako era eta elementu egokiak aukeratu eta antolatzen: eleizkizuna non eta norentzat egiten dan kontuan izanik, fededunen esku-hartze eginkor eta beteari hobeto eragingo deutsoen era eta elementuak, hain zuzen be, eta hareen espirituarentzat onuragarrien izango diranak.

21. Horregaitik, Eraketa Orokor honen helburua hau da: Eukaristiaren ospakizuna taxuz eratzeko eginbide nagusiak ezartzea, batetik, eta arauak zehaztea ospakizun-era bakotxa zelan egin adierazoteko, bestetik.[32]

22. Oso-oso garrantzitsua da Eleiza partikularrean Eukaristiaren ospakizuna.

Eleizbarrutiko Gotzaina da, bere ardurapeko Eleiza partikularrean Jainkoaren misterioen lehenengo banatzailea, liturgi bizitza osoaren zuzendaria, eragilea eta zaintzailea.[33] Gotzaina buru dala egindako ospakizunetan, batik bat presbiteroak, diakonoak eta herriak esku hartzen dabela harek egindako Eukaristi ospakizunetan, agirian jartzen da Eleizearen misterioa. Horregaitik, era honetan gehienbat ospaturiko Mezak eredugarri dira eleizbarruti osoarentzat.

Berari dagokio eginahalak egitea, abadeek, diakonoek eta kristau-fededun laikoek beti ahalik sakonen ulertu dagien ohikuneen eta testu liturgikoen benetako esanahia eta, baita be, Eukaristi ospakizuna era bizian eta onuraz ospatzera erakarriak izan daitezan. Helburu berberaz, ahalegindu bedi halako ospakizunen duintasuna gero eta handiagoa izan dadin; horretarako, oso baliotsua da leku sakratuaren, musikaren eta artearen edertasuna.

23. Bestalde, ospakizunak arau horreei eta liturgia sakratuaren espirituari era beteagoan erantzun deien eta ospakizunaren eraginkortasun pastorala handiagoa izan dadin, Eraketa Orokor honeetan eta Mezearen Egunerokoan egokitze eta aldaketa batzuk egin dira.

---

28 Ik. *ibid.*, 14. zk.

29 Ik. *ibid.*, 41. zk.

30 Ik. *Presbyterorum Ordinis* presbiteroen ministerioari eta bizitzari buruzko Dekretua, 13. zk.; *Zuzenbide Kanonikoaren Kodea*, kan. 904.

31 Ik. VATIKANOKO II. KONTZILIO EKUMENIKOA, *Sacrosanctum Concilium* liturgia sakratuari buruzko Konstituzinoa, 59. zk.

32 Mezearen ospakizun berezietan gorde bedi aginduta dagoana: ik. Talde berezietarako Mezak: JAINKOAREN GURTZARAKO KONGREGAZINO SAKRATUA, *Actio pastoralis* Irakaspena (1969.05.15): A.A.S. 61 (1969), 306-811. Or. ; umeekin emoten diran Mezetarako: *Haurrekin emoten diran Mezetarako Argibideak* (1973.11.01): A.A.S. 66 (1974), 30-46. or. ; Orduetako Liturgia Mezeagaz alkartzeko erari buruz: *Orduetako Liturgiaren Eraketa Orokorra,* 93-98. zk.; bedeinkazino batzuk eta Andra Maria Birjina dohatsuaren irudiak koroatzea Mezeagaz alkartzeko erari buruz: ERROMAKO OHIKUNE LIBURUA, De Benedictionibus, ereduzko argitalpena, 1984, Eraketa Orokorra 28. zk.; *Andra Maria Birjina Koroatzeko Ohikune Liburua*,ereduzko argitalpena,1981,10 eta 14. zk.

33 Ik. VATIKANOKO II. KONTZILIO EKUMENIKOA, *Christus Dominus* gotzainek Elizan daben zeregin pastoralari buruzko Dekretua, 15. zk.; ik. baita be *Sacrosanctum Concilium* liturgia sakratuari buruzko Konstituzinoa, 41. zk.

24. Aldaketa honeek, gehienetan, ohikune batzuk edo testu aukeratzea dira, hau da, abestiak, irakurgaiak, otoitzak, oharpenak eta zeinuak aukeratzea, parte-hartzaileen beharrizanei, prestakuntzari eta izaerari egokiago erantzuteko. Abade ospatzaileari dagokio aldaketa horreek egitea. Halan be, izan begi abadeak gogoan bera liturgia sakratuaren zerbitzaria dala eta ez dauala zilegi Mezearen ospakizunean ezer gehitzea, kentzea nahiz aldatzea bere kabuz.[34]

25. Gainera, Meza Liburuak, dagokion tokian, aldaketa batzuk dakarz; horreek egitea, liturgia sakratuari buruzko Konstituzinoaren arabera, eleizbarrutiko Gotzainari edo Gotzainen Batzarrari dagokie[35] (*ik.* geroago *387, 388-393. zk*).

26. Herrien eta eskualdeen ohiturei eta izaerari erantzuteko egin beharrekoak diran aldaketa eta egokitzapen nagusienei dagokienez, liturgia sakratuari buruzko Konstituzinoaren 40. zenbakiaren arabera, gorde bedi *De Liturgia Romana et inculturatione* Irakaspenak dinoana[36] eta geroago (*395-399. zk.*) esango dana.

II. Kapitulua
MEZEAREN EGITURA, OSAGAIAK ETA ZATIAK

I. Mezearen egitura orokorra

27. Mezatan edo Jaunaren Afarian, Jaunaren oroigarria edo eukaristi oparia ospatzeko batzen da Jainkoaren herria, abadea buru eta Kristoren ordezkari dala.[37] Eleiza santuaren lekuan lekuko batzarrari oso egoki datorkio, beraz, Kristok agindu eban ha: «Nire izenean bi edo hiru lagun baturik dagozan lekuan, han nago Ni euren erdian» (*Mt* 18, 20). Hain zuzen be, kurutzeko oparia betikotzen dauan[38] Mezearen ospakizunean, hantxe dago Kristo benetan: haren izenean batu dan batzarrean bertan, batzarburuagan, honen hitzetan eta, bere izatez eta iraunkortsu, Eukaristiako ogi-ardaoen itxurapean.[39]

28. Mezeak zati bi dituala esan geinke: Hitzaren liturgia eta Eukaristiaren liturgia; baina zati bi honeek bata besteari estu lotuak dagoz, kultu edo ospakizun bakarra egiteraino.[40] Mezatan, Jaunaren mahaia atontzen da, Jainkoaren hitzaren eta Kristoren Gorputzaren mahaia, eta fededunek hezibidea eta jatordua[41] aurkitzen dabe

---

34 Ik. VATIKANOKO II. KONTZILIO EKUMENIKOA, *Sacrosanctum Concilium* liturgia sakratuari buruzko Konstituzinoa, 22. zk.

35 Ik., baita ere, VATIKANOKO II. KONTZILIO EKUMENIKOA, *Sacrosanctum Concilium* liturgia sakratuari buruzko Konstituzinoa, 38 eta 40. zk.; Paulo VI.a, *Missale Romanum* Konstituzino Apostolikoa, ik. *lehenago*.

36 JAINKOAREN GURTZARAKO ETA SAKRAMENTUEN ARAUBIDERAKO KONGREGAZINOA, *Varietates Legitimes* Irakaspena (1994.01.25): A.A.S. 87 (1995), 288-314. or.

37 Ik. VATIKANOKO II. KONTZILIO EKUMENIKOA, *Presbyterorum Ordinis* presbiteroen ministerioari eta bizitzari buruzko Dekretua, 5. zk.; *Sacrosanctum Concilium* Liturgia sakratuari buruzko Konstituzinoa, 33. zk.

38 Ik. TRENTOKO KONTZILIO EKUMENIKOA, XXII. Batzarraldia, Mezako Opari Santuari buruzko Irakaspena, 1. kap.: Denz.-Schönm. 1740; ik. PAULO VI.a, *Sollemnis professio fidei* (1968.06.30), 24. zk.: A.A.S. 60 (1968), 442. or.

39 Ik. VATIKANOKO II. KONTZILIO EKUMENIKOA, *Sacrosanctum Concilium* liturgia sakratuari buruzko Konstituzinoa, 7. zk.; PAULO VI.a, *Mysterium fidei* Entziklika (1965.09.03): A.A.S. 57 (1965), 764. or.; OHIKUNEETARAKO KONGREGAZIO SAKRATUA, *Eucharisticum mysterium* Irakaspena (1967.05.25), 9. zk.: A.A.S. 59 (1967), 547. or.

40 Ik. VATIKANOKO II. KONTZILIO EKUMENIKOA, *Sacrosanctum Concilium* liturgia sakratuari buruzko Konstituzinoa, 56. zk.; OHIKUNEETARAKO KONGREGAZIO SAKRATUA, *Eucharisticum mysterium* Irakaspena (1967.05.25), 3. zk.: A.A.S. 59 (1967), 542. or.

41 Ik. VATIKANOKO II. KONTZILIO EKUMENIKOA, *Sacrosanctum Concilium* liturgia sakratuari buruzko Konstituzinoa, 48 eta 51. zk.; *Dei Verbum* Jainkoaren agerpenari buruzko Konstituzino dogmatikoa, 21. zk.; *Presbyterorum Ordinis* abadeen ministerioari eta bizitzari buruzko Dekretua, 4. zk.

mahai horretan. Badira beste ohikune batzuk be ospakizuna hasteko eta amaitzeko.

II. Mezearen osagaiak

Jainkoaren hitza irakurtzea eta azaltzea

29. Liburu Santuak Eleizan irakurtzen diranean, Jainkoak berak berba egiten deutso bere herriari eta Kristok, bere berban presente dagoala, iragarri egiten dau Ebanjelioa.

Hori dala-eta, Jainkoaren hitzaren irakurketa garrantzi handiko zatia da liturgian, eta begirunez entzun behar dabe danek. Jainkoaren hitza, Liburu Santuetako irakurgaietan, edozein alditako gizon-emakume guztientzat esana eta guztientzat ulergarria izan arren, haren azalpen argia homiliaren bidez egin ezkero, erraztu egiten da haren ulertzea eta eragina; hain zuzen be, homilia liturgi ekintzaren zatia da.[42]

Abadeari dagokiozan otoitzak eta gainerako zatiak

30. Abadeari dagokiozan egitekoen artean, ospakizun osoaren gailurra dan Eukaristi Otoitza da lehenengoa. Horren hurrengo, otoitzak datoz, hau da: hasierako otoitza, oparigaien gainekoa eta jaunartze ondorengoa. Herri santu osoaren eta bertan dagozan guztien izenean zuzentzen deutsoz abadeak Jainkoari otoitz horreek,[43] Kristoren ordez batzarraren buru dala. Arrazoiz, beraz, deritxe «buru danaren otoitzak».

31. Era berean, batuta dagoan batzarraren buru dan abadeari dagokio ohikunean bertan datozan oharpenak egitea. Errubrikek holan dinoenean, zilegi jako meza-emoileari horreek zeozertxu egokitzea, parte-hartzaileek hobeto ulertu dagiezan; halan be, kontu izan begi abadeak liturgi liburuan datorren oharpenaren esanahia gorde behar dauala beti, berba gitxitan laburtuz. Jainkoaren berbea zuzentzea eta azken bedeinkazinoa emotea be buru dan abadeari dagokio. Sarrera labur batzuk egitea be zilegi jako, eguneko Mezarako fededunak prestatzeko: hasierako agurraren ondoren eta damu-otoitzaren aurretik; irakurgaien aurretik, hitzaren liturgian; prefazio aurretik, Eukaristi Otoitzerako; inoiz ez, ostera, Otoitz honen barruan; eta era berean, abadeari dagokio Eleizkizun osoa amaitzea, azken agurra egin aurretik.

32. «Buru danari» dagokiozan eginkizun honeek ahots garbiz eta ozenez egin beharrekoak dira, eta guztiek adi-adi entzun beharrekoak.[44] Horregaitik, abadeak hori guztia egiten dauan bitartean, ez bedi beste otoitzik edo kanturik egin, eta egon bedi isilik organoa eta beste edozein soinugailu be.

33. Abadeak, izan be, batzarburu danez, Eleizearen eta batuta dagoan alkartearen izenean egiten ditu otoitzak; batzuetan bere izenean bakarrik esaten ditu, bere eginkizuna arretatsuago eta eleizkoiago bete ahal izateko. Ebanjelioa irakurri aurretik, dohaiak prestatzean eta abadeak jaunartu aurretik eta ondoren egiteko proposatuak dagozan otoitz honeek isilik esango dira.

Ospakizunean erabiltzen diran beste esapide batzuk

34. Mezearen ospakizuna bere izatez «alkartekoa» danez,[45] garrantzi berezia dabe abadearen eta fededunen batzarraren arteko alkarrizketek, baita gorapenek be.46 Alkarrizketak eta gores-

---

42 Ik. VATIKANOKO II. KONTZILIO EKUMENIKOA, *Sacrosanctum Concilium* liturgia sakratuari buruzko Konstituzinoa, 7, 33 eta 52. zk.

43 Ik. *ibid.*, 33. zk.

44 Ik. OHIKUNEETARAKO KONGREGAZINO SAKRATUA, *Musicam sacram* Irakaspena (1967.03.05), 14. zk.: A.A.S. 59 (1967), 304. or.

45 Ik. VATIKANOKO II. KONTZILIO EKUMENIKOA, *Sacrosanctum Concilium* liturgia sakratuari buruzko Konstituzinoa, 26 eta 27. zk.; OHIKUNEETARAKO KONGREGAZIO SAKRATUA, *Eucharisticum mysterium* Irakaspena (1967.05.25), 3d zk.: A.A.S. 59 (1967), 542. or.

46 Ik. VATIKANOKO II. KONTZILIO EKUMENIKOA, *Sacrosanctum Concilium* liturgia sakratuari buruzko Konstituzinoa, 30. zk.

penak, ospakizuna alkarregaz egiten dala adierazoteko ez ezik, abadearen eta herriaren arteko batasuna errazteko eta lortzeko be badira.

35. Alkartutako fededunei esku-hartze bizia eskatzen jake edozein Meza-eratan; esku-hartze hori fededunek abadearen agurrei eta otoitzei egiten deutsiezan gorapenetan eta erantzunetan jazotzen da, holan adierazoteko eta sendotzeko alkarte osoaren ekintza dala.[47]

36. Fededunen esku-hartze biziaren adierazgarri eta eragile izanik, batzar osoari dagokiozan gainerako zatiak honako honeek dira, batez be: damu-otoitza, fede-autormena, Jainkoaren herriaren otoitza eta Jaunaren Otoitza.

37. Azkenik, beste esapide batzuri buruz:

a) batzuk, berez ohikune edo ekintza dira; adibidez, Aintza zeruetan, erantzun-salmoa, Aleluia eta Ebanjelio aurreko txatala, Santu, Santua, anamnesiko gorespena, jaunartze ondorengo kantua;

b) beste batzuk, ostera, ohikune jakinen lagungarri dira; esate baterako, sarrerako kantua, eskeintzakoa, ogia zatitzekoa (Jaungoikoaren Bildotsa) eta jaunartzekoa.

Testu bakotxa zelan esan

38. Abadeak edo diakonoak nahiz irakurleak nahiz danek, ahots garbiz eta ozenez esan behar dabezan testuetan, zelako testua dan halako ahotsa erabili behar da, irakurgaia, otoitza, oharpena, gorespena edo kantu bakotxa bere izateaaren arabera, ospakizunaren era eta batzarra egiten dan jaieguna be kontuan izanik. Izan bedi kontuan baita hizkuntza bakotxaren zelakotasuna eta herrien izaera be.

Ondorengo arau eta errubriketan erabiltzen dan «esan» nahiz «iragarri» berbak bardin balio dau kantuentzat eta ozen esan beharreko testuentzat, lehenago aitaturiko printzipioen arabera.

Kantuaren garrantzia

39. Jauna noiz etorriko zain batutako kristau fededunei, salmoak, gorazarreak eta kantu inspiratuak danek batera kantatu dagiezala eskatzen deutse Apostoluak (ik. *Kol 3, 16*). Kantua, izan be, bihotzeko poz betearen ezaugarri da (ik. *Eg 2, 46*). Hori dala-eta, Agustin santuak arrazoiz dino: «Maitatzen dauanak abesten dau»,[48] eta oso aspalditik dator beste esaera hau be: «Ondo kantatzen dauanak, birritan egiten dau otoitz».

40. Mezearen ospakizunean, beraz, hartu bedi oso aintzat kantua, beti be herri bakotxaren izaera eta batzar liturgiko bakotxaren ahalbideak gogoan izanik. Beraz, abestekoak diran testu guztiak beti abestu beharrik ez badago be, esate baterako, asteguneko Mezatan, eginahal guztiak egin behar dira domeketan eta Meza entzun beharreko egunetan ministroen eta herriaren kantua falta ez dadin ospakizunetan.

Abestu behar dana aukeratzekoan, izan beitez behinenak garrantzi handiagoa daben zatiak, batez be abadeak edo diakonoak nahiz irakurleak, herriaren erantzunekin abestu beharrekoak, edo abadeak eta herriak batera abestu beharrekoak.[49]

41. Gainerako kantuen artean, izan bedi gregoriar kantuak lehenengoko lekua, Erromako liturgiak oso berea dauan ezkero. Ez dira ezelan be baztertzen gainerako musika sakratuaren erak, polifonia batik bat, liturgi ekintzaren espirituari erantzuten badeutsoe eta fededun guztien esku-hartzea indartzen badabe[50].

Nazino desbardinetako fededunak alkartzea egunean baino egunean gehiago izaten danez, ondo legoke fededun honeek Mezearen Eguneroko zatiren batzuk latinez abesten jakitea, batez

47 Ik. OHIKUNEETARAKO KONGREGAZIO SAKRATUA, *Musicam sacram* Irakaspena (1967.03.05), 16a zk.: A.A.S. 59 (1967), 305. or.

48 HIPONAKO SAN AGUSTIN, *Sermo* 336, 1: PL 38, 1472.

49 Ik. OHIKUNEETARAKO KONGREGAZIO SAKRATUA, *Musicam sacram* Irakaspena (1967.03.05), 7 eta 16. zk.: A.A.S. 59 (1967), 302 eta 305. or.

50 Ik. VATIKANOKO II. KONTZILIO EKUMENIKOA, *Sacrosanctum Concilium* liturgia sakratuari buruzko Konstituzinoa, 116. zk.; ik. *ibid.,* 30. zk. ere.

be fede-autormena eta Jaunaren Otoitza, doinurik errazenak erabiliz.51

Keinuak eta gorputz-jarrerak

42. Ospakizun osoa duintasunez eta soiltasun prestuz distiratsu egitera jo behar dabe bai abadearen, diakonoaren eta laguntzaileen bai herriaren keinuek eta gorputz-jarrerek, zati guztien benetako esanahi betea nabaritu dadin eta danen parte-hartzea indartu.[52] Aintzat hartu beharko da, beraz, Eraketa Orokor honek eta Erromako Errituaren jardueran ohikoa danak ezarria eta Jainkoaren herriari on espirituala ekarriko deutsona, norberaren jokera eta eretxia baino gehiago.

Ospakizunean tarteko diranek gorputz-jarrera bera izatea liturgia sakraturako batzartu diran kristau-alkarteko kideen batasunaren ezaugarri da, han diran guztien gogo-bihotzen batasuna adierazoten eta indartzen dau-eta.

43. Fededunak egon beitez zutunik sarrerako kantuaren hasieratik edo abadea altarara datorrenetik otoitzaren amaiera arte; Ebanjelio aurretik abesten dan Aleluia bitartean; Ebanjelioa iragarri bitartean; fede-autormena eta Jainkoaren herriaren otoitza egin bitartean; baita oparigaien gaineko otoitz aurretik Senideok, egin daigun otoitz deia egiten danetik Meza amaitu arte be, geroago aitatuko diran uneetan izan ezik.

Egon beitez, ostera, jesarrita Ebanjelio aurretik irakurtzen diran irakurgaietan eta erantzun-salmoa esatekoan, homiliakoan eta eskeintzarako oparigaiak prestatzen diran bitartean; baita, egoki eretxi ezkero, jaunartze ondorengo isilune sakratua egin bitartean be.

Belauniko egongo dira, barriz, sagara-aldian, gaixotasunagaitik, lekua estua dalako edo jentetza handia dalako nahiz beste arrazoiren batengaitik hori ezinezkoa ez bada. Sagarakoan belaunikatu ezin diranek, barriz, makurtu begie burua, sagara ondoren abadea belaunikatzen danean.

Gotzainen Batzarrari dagokio, halan be, Mezearen ospakizunerako aitatu diran keinu eta gorputz-jarrera honeek herri bakotxaren erara eta arrazoizko ohituretara, zuzenbidearen arabera, egokitzea.[53] Baina ospakizunaren zati bakotxaren esanahiari eta izaerari erantzun deioen ahalegindu beharko da. Santu, Santua gorespena egin ondoren Eukaristi Otoitza amaitu arte eta jaunartze aurretik abadeak Hona hemen Jainkoaren Bildotsa esaten dauanean herria belauniko egoteko ohitura dagoan tokietan, goresgarri da ohitura hori gordetzea.

Keinu eta gorputz-jarreretan bardintasun hau lortzeko, men egin begie fededunek diakonoak nahiz laguntzaile laikoak nahiz abadeak, Meza Liburuan erabagita dagoanaren arabera, ospakizun bitartean egingo dituan oharpenei.

44. «Keinu» hitzaz, ekintzak eta prozesinoak be adierazo nahi dira; esate baterako, abadea diakonoagaz eta laguntzaileekin altarara hurreratzea, diakonoak Ebanjelioa iragarri aurretik Ebanjelio Liburua irakurtokira eroatea, fededunek emoitzak altarara eroatea eta jaunartzeko hurreratzea. Ekintza eta prozesino honeek guztiak egin beitez duintasunez, kasu bakotxerako agindutakoaren arabera kantu egokiak abestu bitartean.

Isiluneak

45. Beharrezko da isilune sakratua be, ospakizunaren zati danez, bere sasoian gordetzea.[54] Isilune honeek zertarako diran jakiteko, Mezearen

---

51 Ik. VATIKANOKO II. KONTZILIO EKUMENIKOA, *Sacrosanctum Concilium* liturgia sakratuari buruzko Konstituzinoa, 54. zk.; OHIKUNEETARAKO KONGREGAZIO SAKRATUA, *Inter Œcumenici* Irakaspena (1964.09.26), 59. zk.: A.A.S. 56 (1964), 891. or.; *Musicam sacram* Irakaspena (1967.03.05), 47. zk.: A.A.S. 59 (1967), 314. or.

52 Ik. VATIKANOKO II. KONTZILIO EKUMENIKOA, *Sacrosanctum Concilium* liturgia sakratuari buruzko Konstituzinoa, 30 eta 34. zk.; ik. *ibid.,* 21. zk. ere.

53 Ik. *ibid.,* 40. zk.; JAINKOAREN GURTZARAKO ETA SAKRAMENTUEN ARAUBIDERAKO KONGREGAZIOA, *Varietates legitimæ* Irakaspena (1994.01.25), 41. zk.: A.A.S. 87 (1995), 304. or.

54 Ik. VATIKANOKO II. KONTZILIO EKUMENIKOA, *Sacrosanctum Concilium* liturgia sakratuari buruzko Konstituzinoa, 30. zk.; OHIKUNEETARAKO KONGREGAZIO SAKRATUA, *Musicam sacram* Irakaspena, (1967.03.05), 17. zk.: A.A.S. 59 (1967), 305. or.

zein zatitan egiten diran izan behar da gogoan; damu-otoitzean, esate baterako, eta otoitzerako dei egindakoan, fededunak nor bere barruan sartuko dira; irakurgaia nahiz homilia amaitutakoan, entzun dabena une batez hausnartuko dabe; jaunartu ondoren, barriz, euren bihotzetan Jainkoa goratu eta otoitz egingo dabe.

Goresgarria da ospakizunaren aurretik be isiltasuna gordetzea Eleizan, sakristian eta hurrean dagozan lekuetan, danak eraspenez eta egoki prestatu daitezan misterio santuak ospatzeko.

III. Mezearen zati bakotxa

A) Hasierako ohikuneak

46. Hitzaren liturgiaren aurretikoak –sarrerako kantua, agurra, damu-otoitza, Erruki, Jauna, Aintza zeruetan eta otoitza– ospakizunari hasiera emoteko eta prestatzeko dira.

Ohikune honeen helburua hau da: batu diran fededunek alkartea osotzea eta Jainkoaren berbea behar dan lez entzuteko eta Eukaristia egoki ospatzeko prestatzea.

Liturgi liburuen arabera, Mezeagaz lotuta egiten diran ospakizun batzuetan, itzi egiten dira hasierako ohikuneak edo era berezian egiten.

Sarrerako kantua

47. Herria batzarrean batuta dagoala, abadea diakonoagaz eta laguntzaileekin sartzen dan bitartean, sarrerako kantua hasiko da. Kantu honen zeregina hau da: ospakizunari hasiera emotea, alkartu diranen batasuna indartzea eta honeen gogo-bihotzak liturgialdiaren edo jaiaren misterioa hausnartzeko prestatzea, eta abadeari eta laguntzaileei prozesinoan lagun egitea.

48. Abeslariek eta herriak txandaka abestuko dabe, nahiz abeslari batek eta herriak nahiz herriak bakarrik nahiz abesbatzak bakarrik. Kantu horretarako Erromako Gradualean nahiz *Graduale simplex* izenekoan aurkitzen dan antifona hartu daiteke bere salmoagaz, nahiz ospakizun sakratuari edo egunari nahiz liturgialdiari egoki datorkion beste abestiren bat, Gotzainen Batzarrak onarturiko testuagaz.[55]

Sarrerako kanturik ez bada, Meza Liburuan datorren antifona esango dabe fededun guztiek nahiz horreetako batzuek nahiz irakurleren batek; besterik ezean, abadeak berak irakurriko dau, hasierako oharpentzat be (*ik. 31. zk.*) egokitu daikela.

Altarea eta batzarrean batutako herria agurtzea

49. Abadeak, diakonoak eta laguntzaileek, altarara heltzean, agurtu egingo dabe, haren aurrean makurtze nagusia eginez.

Ondoren, abadeak eta diakonoak mun egingo deutsoe altareari, begirunea adierazoteko; eta, egoki eretxi ezkero, abadeak intsentsuaz lurrunduko ditu kurutzea eta altarea.

50. Sarrerako kantua amaiturik, abadeak, bere tokian zutunik, batzar osoagaz batera aitaren egingo dau; ondoren, abadeak, agurraren bidez, Jauna presente dagoala adierazoko deutso batutako herriari. Agur honen eta herriaren erantzunaren bidez, argi erakusten da batuta dagoan Eleizearen misterioa.

Herriari agurra eginik, abadeak nahiz diakonoak nahiz beste laguntzaileren batek, oharpen labur-laburra egin leikio herriari, eguneko Mezarako girotzeko.

Damu-otoitza

51. Ondoren, damurako deia egingo dau abadeak; isilune laburra egin ondoren, alkarte osoak pekatuen autormena eginez burutuko dau damu-otoitza, eta abadeak parkamen-eskaria eginez amaituko dau, nahiz eta eskari honek Penitentziako sakramentuaren eraginkortasunik ez izan.

Domeketan eta, batez be, Pazkoaldian, damu-otoitza egiten dan tokian, batzuetan uraren

55 Ik. JOAN PAULO II.a, *Dies Domini* Gutun Apostolikoa (1998.05.31), 50. zk.: A.A.S. 90 (1998), 745. or.

bedeinkazinoa eta txipriztintzea egin daiteke, Bateoaren oroigarri.[56]

Erruki, Jauna

52. Damu-otoitzaren ondoren, Erruki, Jauna hasiko dau beti, damu-otoitzaren barruan esan ez bada. Fededunek Jauna goratu eta errukia eskatzen daben kantua izanik, gehienetan guztiek egin beharrekoa da, hau da, herriak, abesbatzak eta abeslari batek parte hartzen dabela.

Eskari bakotxa gehienetan birritan egiten da; baina gehiagotan be esan daiteke, hizkuntza bakotxaren izaerak nahiz musikak nahiz beste zeozerk eskatzen dauanaren arabera. Erruki, Jauna damu-otoitzaren zati lez abesten danean, eskari bakotxaren aurretik esaldi laburra, edo «tropus» deitua, jarriko da.

Aintza zeruetan

53. Aintza zeruetan aspaldi-aspaldiko eta garrantzi handiko gorazarrea da: honen bidez, Espiritu Santuagan batu dan Eleizeak Jainko Aita eta Bildotsa goresten ditu eta eskariak egiten. Ezin da gorazarre honetako testua aldatu, beste bat sartzeko. Abadeak hasiko dau edo, holan behar bada, abeslariak nahiz abesbatzak. Fededunen batzarrak abestuko dau nahiz herriak eta abeslariek txandaka nahiz abesbatzak bakarrik. Abesten ez bada, danek batera esango dabe edo bi taldetan, alkarri erantzunez.

Abendualdian eta Garizuman izan ezik, domeketan abestuko da edo esango, baita festaburu eta jaietan be, eta ospakizun nagusi berezietan.

Otoitza

54. Ondoren, abadeak otoitzera dei egingo deutso herriari; eta danek, abadeagaz batera, isilune labur bat egingo dabe, Jainkoaren aurrean dagozala konturatu daitezan eta bihotz barruan euren eskariak egin dagiezan. Orduan, abadeak Mezako otoitza –*kolekta* deitua– irakurriko dau. Otoitz honen bidez ospakizunaren zelakotasuna adierazoten da. Eleizearen antzinako tradizinoari jarraituz, otoitz hau Jainko Aitari zuzendua izaten da, Kristoren bidez, Espiritu Santuagan,[57] eta Hirutasun Santua aitatuz amaitzen da, era luzean, honan:

Aitari zuzendua danean: Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez, Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Aitari zuzendua izanik, otoitzaren azkenean Semearen aipamena egiten danean: Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Semeari zuzendua danean: Aitarekin eta Espiritu Santuarekin batean Jainko eta errege bizi zara-ta gizaldi eta gizaldietan.

Herriak, eskari hau onartzeko, Amen esango dau eta holan berea egingo otoitza. Mezatan kolekta-otoitz bakarra esango da.

B) Hitzaren liturgia

55. Liburu Santuetatik hartutako irakurgaiek osotzen dabe hitzaren liturgiaren zati nagusia, tartean abesten diran kantuekin batera; homiliak, fede-autormenak eta Jainkoaren herriaren otoitzak, barriz, garatu eta burutu egiten dabe hitzaren liturgia. Homiliak argitzen dituan irakurgaietan, Jainkoak berba egiten deutso bere herriari,[58] erospen- eta salbazino-misterioa argitzen

56 Ik. *geroago*, 1285-1288. or.

57 Ik. TERTULIANO, *Adversus Marcionem*, IV., 9: CCSL 1, 560. or.; Origenes, *Disputatio cum Heracleida*, 4. zk., 24: SCh 67, 62. or.; *Statuta Concilii Hipponensis Breviata*, 21: CCSL 149, 39. or.

58 Ik. VATIKANOKO II. KONTZILIO EKUMENIKOA, *Sacrosanctum Concilium* liturgia sakratuari buruzko Konstituzioa, 33. zk.

eta espirituzko janaria eskeintzen; eta Kristo berbera, bere hitzaren bidez, fededunen erdian dago.[59] Jainkoaren berba hau herriak isilunearen eta kantuen bidez berea egingo dau eta, gainera, fede-autormenaren bidez onartuko; eta berba honegaz janariturik, Jainkoaren herriaren otoitzean Eleiza osoaren preminetarako eta munduaren salbazinorako eskariak egingo ditu.

Isilunea

56. Gogoeta erraztuko dauan eran ospatu behar da hitzaren liturgia; zehatz baztertzekoa da, beraz, nor bere barruan sartzea oztopatuko leuken era bateko nahiz besteko presa. Lagungarri dira horretarako baita isilune laburrak be, batutako alkarteari egokituak, Espiritu Santuaren eraginez, Jainkoaren Hitza bihotzean barruntau dagian eta otoitzean erantzuna emoteko prestatu dadin. Esate baterako, hitzaren liturgia hasi aurretik, lehenengo eta bigarren irakurgaien ondoren eta homiliaren amaieran egin daitekez halako isiluneak.[60]

Bibliako irakurgaiak

57. Irakurgaietan Jainkoaren hitzaren mahaia prestatzen jake fededunei eta Bibliako altxorrak agirian jartzen.[61] Beraz, Bibliako irakurgaiak euren antolaeran gorde behar dira, holan Itun biak eta salbazinoaren historia bat etortzea agirian jartzen da-eta; Jainkoaren berbea dakarreen irakurgaien eta erantzun-salmoaren ordez ezin da Bibliakoa ez dan ezelako beste testurik sartu.[62]

58. Herriak esku hartuz ospatutako Mezetan, irakurgaiak beti irakurtokitik egingo dira.

59. Tradizinoaren arabera, irakurgaiak iragartzea ez da batzarburuaren egitekoa, laguntzaileena baino. Irakurgaiak, beraz, irakurleak iragarriko ditu; Ebanjelioa, barriz, diakonoak edo, diakonorik ez bada, beste abaderen batek. Halan be, diakonorik edo beste abaderik ez balego, abade meza-emoileak berak irakurriko dau Ebanjelioa; eta beste irakurle egokirik ez balego, irakurri beiz gainerako irakurgaiak be abade meza-emoileak.

Irakurgai bakotxaren ondoren, egin bei irakurleak gorespena eta, horri erantzunez, goratu bei batuta dagoan herriak sinismenez eta gogo onez entzun dauan Jainkoaren hitza.

60. Ebanjelioaren irakurketa da hitzaren liturgiaren gailurra. Begirunerik handiena zor jakola erakusten dau liturgiak berak; emon be, gainerako irakurgaiei ez lako ohore berezia emoten deutsoe Ebanjelioari, bai iragarri behar dauan ministroak, bedeinkazinoa eskatuz edo otoitzaren bidez prestatuz, bai fededunek, Kristok berak berba egiten deutsela euren gorespenaz ezagutuz eta autortuz, irakurgaia zutunik entzunez, edo Ebanjelio Liburuari egiten jakozan begirune-zeinuez.

Erantzun-salmoa

61. Lehenengo irakurgaia irakurri ondoren, hitzaren liturgiaren zati dan erantzun-salmoa dator eta garrantzi liturgiko eta pastoral handia dau, Jainkoaren berbea hausnartzera bultzatzen dau-eta.

Erantzun-salmoak irakurgai bakotxari erantzun behar deutso, eta *Irakurgaiak* liburutik hartu behar da gehienetan.

Erantzun-salmoa abestea da egokiena, gitxienez herriak emon beharreko erantzuna abestea. Salmolariak, beraz, irakurtokitik nahiz beste leku egokiren batetik iragarriko ditu salmoaren ahapaldiak, batzar guztiak jesarrita entzuten dauala; gainera, gehienetan, bere erantzuna errepikatuko dau, salmo osoa eten barik –hau da,

---

59 Ik. *ibid.*, 7. zk.
60 Ik. ERROMAKO MEZA LIBURUA, *Ordo lectionum Missæ*, ed. typ. altera, 1981, 28. zk.
61 Ik. VATIKANOKO II. KONTZILIO EKUMENIKOA, *Sacrosanctum Concilium* liturgia sakratuari buruzko Konstituzinoa, 51. zk.
62 Ik. JOAN PAULO II.a, *Vicesimus quintus annus* Gutun Apostolikoa (1988.12.04), 13. zk.: A.A.S. 81 (1989), 910. or.

erantzun barik– irakurtzen ez bada behintzat. Halan be, salmoei dagokiezan erantzunetan herriak errazago esku hartu dagian, errepika eta salmo batzuk aukeratu dira, urteko liturgialdien edo santuen sailen arabera. Salmoa abesten danean, irakurgaiari dagokion salmoaren ordez, aitaturiko horreek erabili daitekez. Salmoa abestu ezin bada, Jainkoaren hitza hausnartzea erraztuko dauan erarik egokienean esango da ozen.

Irakurgaiak liburuan datorren salmoaren ordez, abestu daiteke Erromako *Graduale*-ko gradual-erantzuna edo *Graduale simplex*-eko erantzun-salmoa nahiz Aleluia errepika dauana, liburu honeek dakarrenez.

Ebanjelio aurreko gorespena

62. Ebanjelioaren aurretik iragarritako irakurgaiaren ondoren, Aleluia edo errubriketan ezarritako beste kanturen bat abestuko da, liturgialdiari dagokionez. Berez ohikune edo ekitaldi dan gorapen honegaz, Ebanjelioan berba egingo deutson Jaunari harrera eta agurra egingo deutso fededunen batzarrak, eta kantuz autortuko dau harengan dauan fedea. Zutunik abestuko dabe danek, abesbatzak nahiz abeslariak hasiera emon ondoren eta, behar bada, errepikatu egingo da; txatala abesbatzak nahiz abeslariak abestuko dau.

a) Aleluia liturgialdi guztietan abesten da, Garizuman izan ezik. Txatalak *Irakurgaiak* liburutik edo *Graduale*-tik hartuko dira.

b) Garizuman, Aleluia-ren ordez, *Irakurgaiak* liburuan datorren Ebanjelio aurreko txatala abestuko da. *Graduale*-an datorren beste salmoren bat nahiz *tractus*-en bat be abestu daiteke.

63. Ebanjelio aurretik irakurgai bakarra irakurtzen danean:

a) Aleluia esan behar dan liturgialdietan, Aleluia errepika dauan salmoa, nahiz salmoa eta Aleluia bere txatalagaz hartu daiteke.

b) Aleluia esan behar ez dan liturgialdietan, ostera, salmoa eta Ebanjelio aurreko txatala hartu daitekez edo salmoa besterik ez.

c) Aleluia edo Ebanjelio aurreko txatala abesten ez bada, esan barik itzi daiteke.

64. «Neurtitza», Pazko- eta Pentekoste-egunez kanpo, ez da beharrezkoa, eta Aleluia-ren aurretik abestuko da.

Homilia

65. Homilia liturgiaren zatia da; guztiz gomendagarria,[63] beharrezkoa da-eta kristau-bizitza janaritzeko. Komeni da Liburu Santuetako irakurgaien zati baten azalpena izatea, nahiz Mezearen Egunerokoaren testu batena nahiz eguneko Meza bereziarena, beti be ospatzen dan misterioa eta entzuleen berariazko preminak gogoan izanik.[64]

66. Homilia, gehienetan, meza-emoile dan abadeak berak egingo dau edo, honek eskaturik, beste alkarmeza-emoileren batek edo, aldian behin, egoki begitandu ezkero, baita diakonoak be; baina inoiz be ez laikoak.[65] Kasu berezietan eta arrazoi zuzenik dagoanean, egin daike homilia batzarrean dagoan Gotzainak nahiz abadeen batek, alkarmezea emon ezin badau be.

Domeka eta jai oso diran egunetan, herria baturik emoten diran Meza guztietan egin beharrekoa da homilia eta ezin da egin barik itzi, arrazoi larriren bat egon ezik; hortik kanpo, gomendatua da homilia egitea, batez be Abendualdiko, Garizumako eta Pazkoaldiko astegu-

---

63 Ik. VATIKANOKO II. KONTZILIO EKUMENIKOA, *Sacrosanctum Concilium* liturgia sakratuari buruzko Konstituzinoa, 52. zk.; ik. *Zuzenbide Kanonikoaren Kodea*, kan. 767 § 1.

64 Ik. OHIKUNEETARAKO KONGREGAZIO SAKRATUA, *Inter Œcumenici* Irakaspena (1964.09.26), 54. zk.: A.A.S. 56 (1964), 890. or.

65 Ik. *Zuzenbide Kanonikoaren Kodea*, kan. 767 § 1; ZUZENBIDE KANONIKOAREN KODEA ONGI INTERPRETATZEKO BATZORDE PONTIFIZIOA, kan. 767 § 1aren inguruko zalantzari erantzuna: A.A.S. 79 (1987), 1249. or.; Ecclesiæ de mysterio abadeen ministerioan fededun laikoek izan leikien lankidetzari buruzko eztabaida batzuren inguruan dikasterio arteko Irakaspena (1997.08.15), 3. art.: A.A.S. 89 (1997), 864. or.

netan, baita eleizara jentetza handia joaten dan beste jai nahiz astegunetan be.[66]

Egoki da, homilia amaiturik, isilune laburra egitea.

Fede-autormena

67. Kredoa edo fede-autormena honetarako egiten da: batu dan herri osoak Liburu Santuetatik irakurgaietan iragarritako eta homilian azaldutako Jainkoaren hitzari erantzuna emon deion eta, liturgian erabiltzeko onartua dan formulaz fedeko egiak oihukatuz, sinismeneko misterio handiak gogoratu dagizan eta autortu, Eukaristian misterio horreen ospakizuna hasi aurretik.

68. Kredoa abadeak herriagaz batera domeka eta festaburuetan esan nahiz abestu behar dau; eraspen bereziz egiten diran beste ospakizun batzuetan be esan daiteke.

Abesten bada, hasi begi abadeak edo, nahi bada, abeslariak nahiz abesbatzak, baina danek abestu behar dabe, batera nahiz herriagaz txandakatuz.

Abesten ez bada, danek esan behar dabe ozen, batera edo bi taldetan alkarri erantzunez.

Jainkoaren herriaren otoitza

69. Guztien aldeko otoitzean edo Jainkoaren herriaren otoitzean herriak fedez onartu dauan Jainkoaren berbeari erantzuten deutso eta, zeozelan, Bateotik datorkion bere abade-eginkizuna betez, otoitz egiten dau gizon-emakume guztien salbazinorako. Herriagaz ospatzen diran Mezetan gehienetan egin beharrekoa da otoitz hau; eta Eleiza santuaren, herri-agintarien, beharralditan diranen, gizon-emakume guztien eta munduaren salbazinoaren alde egiten dira eskariak.[67]

70. Honako honeek izango dira normalean eskari-sailak:

a) Eleizearen preminen alde,

b) herri-agintarien alde eta mundu osoaren salbazinorako,

c) zailtasunen baten zamapean dagozanen alde,

d) bertako kristau-alkartearen alde.

Ospakizun berezietan, ostera –esate baterako, Sendotzan, Ezkontzan nahiz Hiletetan–, ospakizunari egokiago datorkion beste eskari-sailen bat aukeratu daiteke.

71. Abade meza-emoileari dagokio jesarlekutik otoitz hau zuzentzea. Oharpen laburrez emongo deutso hasiera, fededunei otoitzera dei eginez, eta azken otoitzaz amaituko dau. Proposatuko diran asmoak izan beitez soilak, askatasun zuhurrez eta berba gitxiz eginak, eta adierazo begie alkarte osoaren eskaria.

Normalean, irakurtokitik edo beste leku egokiren batetik irakurriko ditu nahiz diakonoak nahiz abeslariak nahiz irakurleak nahiz fededun laikoak.[68]

Herriak, barriz, zutunik adierazoko dau bere otoitza, eskari bakotxaren ondoren danek batera erantzunez nahiz isilik otoitz eginez.

C) Eukaristiaren liturgia

72. Azken Afarian, Kristok pazko-oparia eta -jatordua eratu eban eta, honen bidez, kurutzeko oparia eten barik barriztatzen da Eleizan, Kristoren ordezkari dan abadeak Kristok berak egin ebana eta ikasleei bere oroigarri egiteko agindu eutsena bera egiten dauanean.[69]

---

66 Ik. OHIKUNEETARAKO KONGREGAZIO SAKRATUA, *Inter Œcumenici* Irakaspena (1964.09.26), 53. zk.: A.A.S. 56 (1964), 890. or.

67 Ik. VATIKANOKO II. KONTZILIO EKUMENIKOA, *Sacrosanctum Concilium* liturgia sakratuari buruzko Konstituzinoa, 53. zk.

68 Ik. OHIKUNEETARAKO KONGREGAZIO SAKRATUA, *Inter Œcumenici* Irakaspena (1964.09.26), 56. zk.: A.A.S. 56 (1964), 890. or.

69 Ik. VATIKANOKO II. KONTZILIO EKUMENIKOA, *Sacrosanctum Concilium* liturgia sakratuari buruzko Konstituzinoa, 47. zk.; OHIKUNEETARAKO KONGREGAZIO SAKRATUA, *Eucharisticum mysterium* Irakaspena (1967.05.25), 3ab zk.: A.A.S. 59 (1967), 540-541. or.

Kristok, izan be, ogia eta kaliza bere eskuetan hartu, eskerrak emon, zatitu eta bere ikasleei emon eutsen, esanez: Hartu egizue, jan, edan; hau nire Gorputza da; hau nire Odolaren kaliza da. Egizue hau nire oroigarri. Horregaitik, Eleizeak Eukaristiaren liturgia ospakizun osoa Kristoren berba eta egintza honeen arabera eratu dau. Hori dala-eta:

1) Oparigaiak prestatzekoan, ogia eta ardaoa eroaten dira altarara, uragaz batera, hau da: Kristok berak bere eskuetan hartu ebazan gauzak.

2) Eukaristi Otoitzean eskerrak emoten deutsoguz Jainkoari salbazino-egintzagaitik, eta oparigaiak Kristoren Gorputz eta Odol egiten dira.

3) Ogia zatitzean eta jaunartzean, fededunek, asko izanik be, ogi bakarretik janez Jaunaren Gorputza hartzen dabe eta kaliza beretik edanez Jaunaren Odola hartzen, Apostoluek Kristoren beraren eskuetatik hartu ebezan lez.

Oparigaien prestaera

73. Eukaristiaren liturgia hastean, altarara eroango dira Kristoren Gorputz eta Odol egingo diran oparigaiak.

Lehenengo, altarea edo Jaunaren mahaia prestatuko da, altarea eukaristi liturgiaren erdigunea da-eta;[70] altaran sagara-oihala, garbi-zapitxua, Meza Liburua eta kaliza ipiniko dira; kaliza alboko mahaitxuan be prestatu leiteke.

Ondoren, oparigaiak ekarriko dira: ondo legoke ogia eta ardaoa fededunek ekartzea. Abadeak edo diakonoak leku egoki baten hartuko ditu altarara eroateko. Fededunek liturgikizunerako ekartzen dabezan ogi-ardaoak eurenak ez izan arren antzina lez, halan be, oparigaiak aurkezteko ohikune honek espirituzko esangura eta adierazpen bera dau.

Dirua nahiz beste emoitza batzuk be ekarri daitekez behartsuentzat edo eleizearentzat: fededunek eurek ekarri leikiez edo eleizan bertan batu; leku egoki baten ipiniko dira, eukaristi mahaitik kanpo.

74. Oparigaiak eroateko egiten dan prozesinoan, oparigaien aurkezpeneko kantua abesten da (*ik. 37. b zk.*); kantu honek gitxienez oparigaiak altara gainean ipini arte iraungo dau. Kantu hau abesteko arauak, sarrerako kantuarentzat emondako arau berberak dira (*ik. 48. zk.*). Oparigaiak aurkezteko ohikunean beti abestu leiteke kanturen bat, oparigaiak prozesinoan ekartzen ez badira be.

75. Abadeak altara gainean ipiniko ditu ogia eta ardaoa, ezarritako formulak errezatzen dituan bitartean. Altaran ipinitako oparigaiak intsentsuaz lurrundu leikez abadeak, gero baita kurutzea eta altarea bera be, Eleizearen emoitzak eta otoitzak, intsentsua lez, Jainkoaren aurrera igoten dabela adierazoteko. Ondoren, diakonoak edo beste laguntzaileren batek lurrundu leikez abadea, honek dauan ministerio sakratuagaitik, eta herria, Bateoari esker dauan duintasunagaitik.

76. Ondoren, abadeak eskuak garbituko ditu altara ertzean. Ohikune honek barruko garbitasun-gogoa adierazoten dau.

Oparigaien gaineko otoitza

77. Oparigaiak ipini eta horretarako egin diran ohikuneak amaitutakoan, dei egingo deutso herriari abadeak beragaz batera otoitz egitera, eta oparigaien gaineko otoitza errezatuko dau; holan amaitzen da oparigaien prestatzea, eta dana prest gelditzen da Eukaristi Otoitzerako.

Mezatan oparigaien gaineko otoitz bakarra egingo da, amaiera laburrez amaituz, honan: Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. Amaieran Semearen aipamena egiten bada: Errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Herriak, eskari hau onartzeko, Amen esango dau eta, holan, berea egingo otoitza.

---

70 Ik. OHIKUNEETARAKO KONGREGAZIO SAKRATUA, *Inter Œcumenici* Irakaspena (1964.09.26), 91. zk.: A.A.S. 56 (1964), 898. or.; *Eucharisticum mysterium* Irakaspena (1967.05.25), 24. zk.: A.A.S. 59 (1967), 554. or.

Eukaristi Otoitza

78. Orain hasten da ospakizun osoaren erdigunea eta gailurra, hau da, Eukaristi Otoitza: eskerreta sagara-otoitza. Abadeak bihotza Jainkoagana jasotzeko deia egingo deutso herriari, otoitz eginez eta eskerrak emonez jaso be; eta Jesu Kristoren bidez eta Espiritu Santuagan, alkarte osoaren izenean, Jainko Aitari zuzentzen deutson otoitzean abadeak beragaz bat egingo dau herria. Otoitz honen esanahia hau da: fededunen batzar osoak Kristogaz bat egiten dauala, Jainkoaren egintza handiak autortuz eta oparia eskeiniz. Danek begirunez eta isilik entzun behar dabe Eukaristi Otoitza.

79. Eukaristi Otoitzak dituan zatirik nagusienak honan bereiztu daitekez:

a) Eskerrak emotea –hau, batez be, prefazioan adierazoten da–: abadeak, herri santu osoaren izenean, Jainko Aita goratzen dau eta, salbazino-egintza guztiagaitik edo beraren alderdi berezi batzuekaitik, eskerrak emoten deutsoz, egunari, jaiari nahiz liturgialdiari dagokionez.

b) Gorespena: honen bidez, batzar osoak, zerutarrekin bat eginik, Santu, Santua abesten dau. Gorapen hau Eukaristi Otoitzaren zatia da eta herri guztiak iragarriko dau abadeagaz batera.

c) Epiklesia: zati honetan, Eleizeak eskari berezi batzuren bidez, Espiritu Santuaren eragina eskatzen dau, gizakiek aurkeztutako dohaiak sagaratu daitezan, hau da: Kristoren Gorputz eta Odol egin daitezan, eta jaunartzekoan ostia orbanbakoa salbagarri izan dadin hartuko daben guztientzat.

d) Eukaristia eratua izan zaneko kontakizuna eta sagaratzea: zati honetan, Kristoren berba eta ekintzen bidez, Kristok berak Azken Afarian eratu eban oparia gauzatzen da; ogi-ardaoen itxurapean bere Gorputza eta Odola eskeini zituan eta janari-edaritzat Apostoluei emon eutsezan, misterio honi beti iraunarazoteko aginduz.

e) Anamnesia: une honetan, Eleizeak Apostoluen bitartez Kristo Jaunagandik hartutako agindua betetzean, Kristoren beraren oroigarria burutzen dau, batez be haren nekaldi dohatsua, biztuera zoriontsua eta zerura igotea gogoratuz.

f) Eskeintza: honen bidez Eleizeak, batik bat hemen eta orain batuta dagoan Eleizeak, oroigarri honetan opari orbanbakoa eskeintzen deutso Aitari, Espiritu Santuagan. Eleizearen nahia hau da: fededunek, opari orbanbakoa ez ezik, euren burua be opari eskeini dagiela[71] eta, Kristoren bitartez, Jainkoagazko eta bata besteagazko batasun osoa egin dagiela, azkenean Jainkoa guztientzat guztia izan dadin.[72]

g) Eskariak: honeen bidez adierazoten da, Eleiza osoagaz –zeruko eta lurreko Eleizeagaz– bat eginik ospatzen dala Eukaristia; eta beraren alde eta haren gorputz-atal guztien alde, bizien eta hildakoen alde, egiten dala oparia, gorputz-atal guztiak Kristoren Gorputz Odolez lorturiko salbazinoan eta erospenean esku hartzera deituak diranez.

h) Azken doxologia: honen bidez Jainkoaren gorespena adierazoten da; herriak Amen esanez baiezten eta amaitzen da.

Jaunartzeko ohikunea

80. Eukaristi ospakizuna pazko-jatordua dogunez, Jaunak emondako aginduaren arabera, sinistedunek, behar dan lez prestaturik, haren Gorputza eta Odola hartzea komeni da, espirituzko janaritzat. Horretarako dira ogi-zatitzea eta prestaera diran gainerako ohikuneak; honeen bidez eroaten dira fededunak jaunartze-aldira.

---

71 Ik. VATIKANOKO II. KONTZILIO EKUMENIKOA, *Sacrosanctum Concilium* liturgia sakratuari buruzko Konstituzinoa, 48. zk.; OHIKUNEETARAKO KONGREGAZIO SAKRATUA, *Eucharisticum mysterium* Irakaspena (1967.05.25), 12. zk.: A.A.S. 59 (1967), 548-549. or.

72 Ik. VATIKANOKO II. KONTZILIO EKUMENIKOA, *Sacrosanctum Concilium* liturgia sakratuari buruzko Konstituzinoa, 48. zk.; *Presbyterorum Ordinis* abadeen ministerioari eta bizitzari buruzko Dekretua, 5. zk.; OHIKUNEETARAKO KONGREGAZINO SAKRATUA, *Eucharisticum mysterium* Irakaspena (1967.05.25), 12. zk.: A.A.S. 59 (1967), 548-549. or.

Jaunaren Otoitza

81. Jaunaren Otoitzean egunean eguneko ogia eskatzen da eta hor, kristauontzat, eukaristi ogia be adierazoten da; pekatuen garbikuntza be eskatzen da, gauza santuak benetan santuei emonak izan daitezan. Abadeak otoitzerako deia egingo dau eta fededun guztiek abadeagaz batera esango dabe otoitza. Enbolismoa abadeak bakarrik esango dau eta herriak doxologiaz amaituko. Jaunaren Otoitzaren azkeneko eskaria zabalago azaltzen dauan enbolismoak gaiztoaren indarretik askatzea eskatzen dau fededunen alkarte osoarentzat.

Deia, otoitza bera, enbolismoa eta zati hau amaitzeko herriak esaten dauan doxologia abestuz nahiz ozen esango dira.

Bakearen ohikunea

82. Ondoren, bakearen ohikunea dator: honen bidez Eleizeak bakea eta batasuna eskatzen dau beretzat eta giza familia osoarentzat, eta fededunek eleiz batasuna eta alkarrenganako maitasuna adierazoten dabe, Sakramentuan parte hartu aurretik.

Bakea emotearen ohikuneari gagokiozala, ezarri begie Gotzainen Batzarrek erarik onena, herri bakotxaren izaera eta ohiturak gogoan izanik. Halan be, bakotxak bere inguruan dituanei bakarrik eta soiltasunez komeni da bakea emotea.

Ogi-zatitzea

83. Abadeak zatitu egingo dau eukaristi ogia, behar izan ezkero diakonoak edo alkarmeza-emoile batek lagundurik. Ogi-zatitzeak, Azken Afarian Kristok egindako ohikune honek, Eukaristiaren ospakizun osoari emon eutson izena Apostoluen aldian. Fededunok, asko izanik be, ogi bizi-emoile bakarra hartzean, gorputz bat egiten dogula adierazoten dau ohikune horrek (*1 Ko 10,* 17), munduaren salbazinorako hil eta biztu zan Kristo da-eta ogi hori. Bakea emon ondoren hasten da ogi-zatitzea eta behar dan lako begirunez egingo da, behar baino gehiago luzatu barik baina garrantzi bakoa danaren itxurea emon barik. Ohikune hau egitea abadeari eta diakonoari dagokie.

Abadeak ogia zatitu eta ostia-zatitxua kalizera botako dau. Horregaz salbazinorako dan Jaunaren Gorputz Odolen batasuna adierazoten da, bizirik eta aintzaz betea dan Kristo Jesusen Gorputza hain zuzen be. Jaungoikoaren Bildotsa deia normalean abesbatzak nahiz abeslariak abestuko dau edo, gitxienez, ozen esango, herriak erantzuten dauala. Dei hau, ogi-zatitzea egiten dan bitartean behar dan beste errepikatu daiteke, ohikunea amaitu arte. Azkenean, emoiguzu bakea esanez amaituko da.

Jaunartzea

84. Bere barruan isilik otoitz eginez prestatuko da abadea, Kristoren Gorputza eta Odola era onuragarrian hartzeko. Fededunek hori bera egingo dabe, isilik otoitz eginez.

Ondoren, abadeak eukaristi ogia, patenearen nahiz kalizaren gainean jarrita, fededunei erakutsiko deutse eta Kristoren jatordura dei egingo eta, fededunekin batera, agindurik dagozan Ebanjelioko berbak erabiliz, apaltasunekintza egingo dau.

85. Oso desiragarri da fededunek, abadeak berak egin behar dauan lez, Meza haretan bertan sagaraturiko ogiaz Jaunaren Gorputza hartzea; baita, aurreikusitako kasuetan, kalizatik edatea be (*ik. 283. zk.*), agiriko ezaugarriz hobeto agertu dadin, jaunartzea orduantxe ospatzen dan oparian parte hartzea dala.[73]

86. Abadeak jaunartzen dauan bitartean jaunartze-kantua hasiko da; kantu honek, ahotsen batasunaren bidez, jaunartzen dabenen espiri-

73 Ik. OHIKUNEETARAKO KONGREGAZIO SAKRATUA, *Eucharisticum mysterium* Irakaspena (1967.05.25), 31 eta 32. zk.: A.A.S. 59 (1967), 558-559. or.; SAKRAMENTUEN ARAUBIDERAKO KONGREGAZIO SAKRATUA, *Immensæ caritatis* Irakaspena (1973.01.29), 2. zk.: A.A.S. 65 (1973), 267-268. or.

tuzko batasuna adierazo behar dau, bihotzeko poza agertu eta argi erakutsi Eukaristia hartzera joateko prozesinoa «alkarte-ezaugarri» dala. Fededunei Sakramentua banatu bitartean iraungo dau kantuak.[74] Jaunartze ondoren gorazarreren bat abestekoa bada, amaitu bedi sasoiz jaunartze-kantua.

Abeslariek be eroso jaunartu ahal dagiela zaindu behar da.

87. Jaunartze-kanturako hartu daiteke Erromako *Graduale*-ko antifonaren bat, salmo eta guzti nahiz salmo barik nahiz *Graduale simplex*-eko antifona bere salmoagaz, nahiz egokia dan beste kanturen bat, Gotzainen Batzarrak onartua. Abesbatzak bakarrik nahiz abesbatzak edo abeslari batek herriagaz batera abestuko dabe.

Kanturik ez balego, Meza Liburuan datorren antifona esan leikie fededun guztiek nahiz horreetako batzuek nahiz irakurleren batek; besterik ezean, abadeak berak irakurriko dau, berak jaunartu ondoren eta fededunei gure Jauna emon baino lehen.

88. Jauna emotea amaitutakoan, abadeak eta fededunek aldi batez otoitz egingo dabe isilik, egoki begitandu ezkero. Nahi bada, batzar osoak salmoren bat nahiz gorapenezko beste kanturen bat nahiz gorazarreren bat abestu leike.

89. Jainkoaren herriaren otoitz hau eta jaunartze-ohikune osoa burutzeko, abadeak jaunartze-ondorengo otoitza egingo dau, ospatutako misterioaren frutuak heldu daitezala eskatuz.

Mezatan jaunartze ondorengo otoitz bakarra egingo da eta amaiera laburrez amaituko, honan:

Aitari zuzendua danean: Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez;

Aitari zuzendua danean, baina azkenean Semearen aipamena egiten bada: Errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan;

Semeari zuzendua danean: Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan. Herriak Amen esango dau eta, holan, otoitza berea egingo.

D) Amaierako ohikunea

90. Amaierako ohikuneak zati honeek ditu:

a) Ohar laburrak, beharrezko badira;

b) abadearen agurra eta bedeinkazinoa; hau, egun eta egokiera batzuetan, herriaren gaineko otoitzaz edo bedeinkazino-era nagusiaz aberasten eta adierazoten da;

c) azken agurra, diakonoak nahiz abadeak egina, bakotxa bere eginkizun onetara bihurtu dadin, Jainkoa goratuz eta bedeinkatuz;

d) altareari abadeak eta diakonoak mun egitea eta, ondoren, altara aurrean abadeak, diakonoak eta gainerako laguntzaileek makurtze nagusia egitea.

III. Kapitulua

EGINKIZUNAK ETA MINISTERIOAK MEZEAREN OSPAKIZUNEAN

91. Kristoren eta Eleizearen ekintza da eukaristi ospakizuna; hau da, Gotzainaren ardurapean batuta eta eratuta dagoan herri santuaren ekintza. Horregaitik, eleiz gorputz osoari dagokio eta horixe adierazoten eta jazoarazoten dau. Gorputzatal bakotxagan, halan be, eragin desbardina dau, ze ordenak, eginkizunak eta bertan esku hartzeko moduak desbardinak dira-eta.[75]

Holan, «jatorri aukeratu, errege eta abade, nazino sagaratu, Jainkoak beretzat irabazitako herri» dan kristau-herriak agirian jartzen dau bere antolakuntza koherentea eta hierarkikoa.[76]

---

74 Ik. SAKRAMENTUETARAKO ETA JAINKOAREN GURTZARAKO KONGREGAZIO SAKRATUA, *Inæstimabile donum* Irakaspena (1980.04.03), 17. zk.: A.A.S. 72 (1980), 338. or.

75 Ik. VATIKANOKO II. KONTZILIO EKUMENIKOA, *Sacrosanctum Concilium* liturgia sakratuari buruzko Konstituzinoa, 26. zk.

76 Ik. *ibid.*, 14. zk.

Danek be, bai ministro ordenatuek bai kristau-fededun laikoek, euren zerbitzua nahiz eginkizuna betetzean, egin begie bakotxari dagokion guztia eta ez besterik.[77]

I. Ordena sakratuari dagokiozan eginkizunak

92. Eukaristiaren legezko ospakizun guztiak Gotzainak zuzenduko ditu, berak zuzenean edo bere laguntzaile dituan abadeen bitartez.[78]

Mezatarako herria batu danean, Gotzaina bertan badago, oso komenigarri da Eukaristian bera buru izatea eta abadeak ekintza sakratuan lagun izatea, alkarmeza-emoile moduan. «Batasunaren sakramentu» dan Eleiza honen misterioa argiago agertu dadin egiten da hori, ez ohikunearen azaleko ospea handitzeko.[79]

Baina Eukaristian Gotzaina buru ez bada eta horretarako, bere ordez, beste norbait izentatu badau, orduan egoki da hitzaren liturgian batzarburu bera izatea, albaren gainean estola, bular-kurutzea eta eleiz kapa soinean harturik, eta Mezearen azkenean bedeinkazinoa be berak emotea.[80]

93. Abadeak be Ordena sakratuaren ahalmena dau, Eleizan Kristoren ordezkari lez oparia eskeintzeko.[81] Hori dala-eta, orain eta hemen batuta dagoan herriaren batzarburu izango da, otoitza zuzenduko dau, salbazino-mezua iragarriko, herria beragaz alkartuko dau Aita Jainkoari Kristoren bitartez Espiritu Santuagan oparia eskeintzean; bere senideei betiko biziaren ogia emongo deutse eta berak be eurekin batera hartuko dau. Hau dala-eta, Eukaristia ospatzean, duintasunez eta apalik zerbidu behar ditu Jainkoa eta herria eta, bere jokaeraz eta Jainkozko berbak iragartzeko eraz, Kristo han bizirik dagoala aditzera emon behar deutse fededunei.

94. Presbiteroaren ondoren, diakonoak dau, hartu dauan Ordena sakratua dala-eta, lehenengoko lekua Eukaristi ospakizunean zerbitzari diranen artean. Diakonotza Ordena sakratua Apostoluen aspaldiko sasoi hareetatik ospe handiko zerbitzu-maila izan da Eleizan.[82] Mezatan diakonoak dauan berariazko eginkizuna Ebanjelioa iragartzea da eta inoiz Jainkoaren berbea predikatzea be bai; Jainkoaren herriaren otoitzean eskariak adierazotea; abadeari laguntzea; altarea prestatzea eta oparia ospatzean zerbitzea; fededunei Eukaristia banatzea, batez be ardaoaren itxurapean, eta keinuei eta gorputz-jarrerei buruz batzar osoari oharpenak egitea.

II. Jainkoaren herriaren eginkizunak

95. Mezearen ospakizunean, fededunek «herri santua, Jainkoak beretzat irabazitako herria, errege eta abade dan herria» osotzen dabe, Jainkoari eskerrak emoteko eta, abadearen eskuz ez ezik, abadeagaz batera opari errubakoa eskeintzeko eta euren burua be eskeintzen ikasteko.[83] Arduratu beitez, bada, hau erakusten, erlijinozko sen sakonaren bidez eta ospakizun berean esku hartzen daben senideenganako maitasunaren bidez.

---

77 Ik. *ibid.*, 28. zk.

78 Ik. VATIKANOKO II. KONTZILIO EKUMENIKOA, *Lumen gentium* Elizari buruzko Konstituzino dogmatikoa, 26 eta 28. zk.; *Sacrosanctum Concilium* liturgia sakratuari buruzko Konstituzinoa, 42. zk.

79 Ik. VATIKANOKO II. KONTZILIO EKUMENIKOA, *Sacrosanctum Concilium* liturgia sakratuari buruzko Konstituzinoa, 26. zk.

80 Ik. *Cæremoniale Episcoporum*, 175-186. zk.

81 Ik. VATIKANOKO II. KONTZILIO EKUMENIKOA, *Lumen gentium* Eleizeari buruzko Konstituzino dogmatikoa, 28. zk.; Presbyterorum Ordinis abadeen ministerioari eta bizitzari buruzko Dekretua, 2. zk.

82 Ik. PAULO VI.a, *Sacrum diaconatus Ordinem* Gutun Apostolikoa (1967.06.18): A.A.S. 59 (1967), 697-704. or.; ERROMAKO PONTIFIKAL LIBURUA, *De Ordenatione Episcopi, presbyterorum et diaconorum*, ed. typ. altera, 1989, 173. zk.

83 VATIKANOKO II. KONTZILIO EKUMENIKOA, *Sacrosanctum Concilium* liturgia sakratuari buruzko Konstituzinoa, 48. zk.; OHIKUNEETARAKO KONGREGAZINO SAKRATUA, *Eucharisticum mysterium* Irakaspena (1967.05.25), 12. zk.: A.A.S. 59 (1967), 548-549. or.

Itzi begie, beraz, alde batera bakarkeriako nahiz zatiketako edozein itxura be, gogoan izanik bakarra dala zeruan daben Aita eta, horregaitik, danak senide dirala alkarrentzat.

96. Egin begie, bada, gorputz bat Jainkoaren berbea entzunez, otoitz eta kantuetan esku hartuz, batez be danek batera oparia eskeintzean eta Jaunaren mahaian parte hartzean. Batasun hau ederto agertzen da, fededun guztiek alkarregaz keinu eta gorputz-jarrera eurak dabezanean.

97. Fededunek ez begie ezezkorik emon, ospakizunean ministerio edo eginkizunen bat betetzeko eskatzen jakenean, eta zerbidu begie pozik Jainkoaren herria.

III. Ministerio bereziak

Akolito eta irakurle eratuen ministerioa

98. Altarearen zerbitzurako eta abadeari eta diakonoari laguntzeko eratuta dago akolitoa.

Berari dagokio, batez be, altarea eta ontzi sakratuak prestatzea eta, behar izan ezkero, ezohiko zerbitzari lez, fededunei Eukaristia banatzea.[84]

Altarako zerbitzuan akolitoak baditu bere zati berariazkoak (*ik. 187-193. zk.*), berak bete beharrekoak.

99. Liburu Santuetako irakurgaiak iragartzeko eratuta dago irakurlea, Ebanjelioa izan ezik. Jainkoaren herriaren otoitzeko eskariak be aurkeztu leikez eta, salmolaririk ez dagoanean, erantzun-salmoa iragarri be bai.

Eukaristi ospakizunean irakurleak badau bere eginkizun berariazkoa (*ik. 194-198. zk.*), berak bete beharrekoa, ordenatuta dagoan zerbitzaria tartean egonik be.

Gainerako eginkizunak

100. Akolito eraturik ez danean, laguntzaile laikoak izentatu daitekez altarearen zerbitzurako eta abadeari eta diakonoari laguntzeko. Kurutzea, kandelak, intsentsu-ontzia, ogia, ardaoa, ura eroango dabez horreek eta gure Jauna emoteko be izentatu daitekez, ezohiko ministro moduan.[85]

101. Irakurle eraturik ez danean, izentatu beitez beste laiko batzuk Liburu Santuetako irakurgaiak iragartzeko, eginkizun hori betetzeko benetan gai badira eta arretaz prestatuak, holan fededunek, irakurgaiak entzunez, Liburu Santuei buruzko maitasun samurra eta bizia lortu dagien euren bihotzean.[86]

102. Salmoa edo irakurgaien arteko beste kantu biblikoren bat abestea salmolariari dagokio. Eginkizun hau ondo bete dagian, beharrezko dau abeslariak salmo-kanturako trebetasuna izatea, berbak ondo ebagitzen eta garbi ahoskatzen jakitea eta kanturako gaitasuna izatea.

103. Fededunen artean, bere eginkizun liturgiko berezia dau abesbatzak edo abestaldeak: berari dagokiozan zatiak ondo abestea, kantuaren zelakotasunaren arabera, eta fededunei kantuan parte hartzen laguntzea.[87] Abesbatzarentzat esaten dan honek bardin balio dau gainerako musikarientzat be, bakotxari dagokionez, batez be organistearentzat.

104. Abeslariren bat edo kantu-zuzendariren bat jartzea komeni da, herriaren kantua zuzentzeko eta eusteko. Gehiago oraindino, abesba-

---

84 Ik. *Zuzenbide Kanonikoaren Kodea*, kan. 910 § 2; *Ecclesiæ de mysterio* abadeen ministerioan fededun laikoek izan daikeen lankidetzari buruzko eztabaida batzuren inguruan dikasterio arteko Irakaspena (1997.08.15), 8. art.: A.A.S. 89 (1997), 871. or.

85 Ik. SAKRAMENTUEN ARAUBIDERAKO KONGREGAZIO SAKRATUA, *Immensæ caritatis* (1973.01.29), 1. zk.: A.A.S. 65 (1973), 265-266. or.; *Zuzenbide Kanonikoaren Kodea*, kan. 230 § 3.

86 VATIKANOKO II. KONTZILIO EKUMENIKOA, *Sacrosanctum Concilium* liturgia sakratuari buruzko Konstituzinoa, 24. zk.

87 Ik. OHIKUNEETARAKO KONGREGAZIO SAKRATUA, *Musicam sacram* Irakaspena (1967.03.05), 19. zk.: A.A.S. 59 (1967), 306. or.

tzarik ez balego, abeslari batek zuzenduko ditu kantuak, herriak berari dagokiona abestuko dauala.[88]

105. Eginkizun liturgikoa betetzen dabe beste honeek be:

a) Sakristauak nahiz seroreak: liburu liturgikoak, jantziak eta Meza ospatzeko behar diran gainerako gauzak prestatuko ditu arretaz.

b) Ohargileak: honek azalpenak eta oharpenak egingo ditu egoki danean, labur, fededunak ospakizunean esku hartu eta hobeto ulertzeko prestatu daitezan. Oharpenak ondo prestatuta eroatea komeni da eta argiak eta neurritsuak izatea. Bere eginkizuna betetzeko, ohargileak fededunen aurrean leku egokia izan behar dau, baina ez irakurtokia.

c) Eleizan diru-batzeak egiten dabezanek.

d) Herrialde batzuetan, fededunei eleiza atarian harrera egiteko arduraduna be izaten da, bakotxari bere lekua erakusteko eta prozesinoak eratzeko.

106. Batez be gotzain-eleizetan eta eleiza nagusienetan ondo legoke gai izango dan ministroa edo zeremonia zuzendaria izentatuta izatea, eleizkizun sakratuak egoki prestatzeko, eta ministro sakratuek eta fededun laikoek euren egitekoak begirunez, eraz eta eraspenez bete dagiezan.

107. Abadeari nahiz diakonoari ez dagokiozan eginkizunak –lehenago aitatu dira (*100-106. zk.*)–, parrokoak nahiz eleizako erretoreak aukeratutako laiko egokien esku itzi daitekez,[89] bedeinkazino liturgikoa edo aldi baterako izendapena emonik. Abadea altaran zerbitzeko eginkizunari buruz, gorde beitez Gotzainak bere Eleizbarrutirako emondako arauak.

IV. Eginkizunak banatzea eta ospakizuna prestatzea

108. Batzarburu-eginkizuna abade batek berak bete behar dau beti zati guztietan, Gotzaina bertan dagoanean berari dagokiozan Meza-zatietan izan ezik (*ik.* lehenago, *92. zk.*)

109. Ministerio bera egiteko zerbitzari bat baino gehiago balego, ez dago ezelako eragozpenik zerbitzuaren zati batzuk batek eta beste zati batzuk beste batek egin dagizan; adibidez, diakono batek abesten diran zatiak hartu daikez bere gain, eta beste batek altarako zerbitzua; irakurgai bat baino gehiago izan ezkero, ondo legoke irakurle batek baino gehiagok iragartzea; eta gauza bera gainerakoetan. Halan be, ez da ospakizuneko osagai bat askoren artean banatuko; esate baterako, irakurgai bera bik, batak bestearen ondoren, irakurtzea, Jaunaren Nekaldia izan ezik.

110. Herriagaz ospatzen dan Mezan laguntzaile bat besterik ez badago, bete begiz horrek laguntzaileen eginkizun guztiak.

111. Liturgi ospakizun bakotxaren prestaera egin begie arretaz eta gogo onez alkarturik, Meza Liburuaren eta gainerako liburu liturgikoen arabera ospakizunean zerikusia daben guztiek, bai ohikuneari bai musika-alderdiei eta ikuspegi pastoralari dagokiezanetan, Eleiz arduradunaren gidaritzapean, eta zuzenean fededunei dagokiezanetan hareen eretxia be entzunik. Ospakizunean buru izango dan abadeak, halan be, berari dagokiozanetan erabagiak hartzeko eskubidea dauka.[90]

---

88 Ik. *ibid.,* 21. zk.: A.A.S. 59 (1967), 306-307. or.

89 Ik. LEGEEN TESTUAK INTERPRETATZEKO KONTSEILU PONTIFIZIOA, kan. 230 § 2.ari buruz adierazotako zalantzari erantzuna: A.A.S. 86 (1994), 541. or.

90 Ik. VATIKANOKO II. KONTZILIO EKUMENIKOA, *Sacrosanctum Concilium* liturgia sakratuari buruzko Konstituzinoa, 22. zk.

IV. Kapitulua

MEZA OSPATZEKO ERA BATZUK

112. Lekuan lekuko Eleizan, bere presbiterotaldeaz, diakonoez eta ministro laikoez inguraturik, Gotzaina buru dala[91] eta Jainkoaren herri santuak bertan oso-osorik eta egitez parte hartuz ospatzen dan Mezeari dagokio zalantza barik lehentasuna, beraren esanahiagaitik. Holako Mezatan zertzen da, hain zuzen be, Eleizearen agerbiderik nagusiena.

Gotzainak emondako Mezan edo, berak Eukaristia ospatu barik, bera buru dan Mezan, gorde beitez Gotzainen Zeremonia Liburuan datozan arauak.[92]

113. Alkarte jakin batégaz emoten dan Mezea be guztiz aintzat hartzekoa da, batez be parroki alkarteagaz emoten danean, sasoi eta leku jakinetan Eleiza orokorra adierazoten daualako, batez be domekearen alkarregazko ospakizunean.[93]

114. Alkarteek ospatzen dabezan Mezen artean, komentu-mezak –Eleizeak egunero ospatzen dauan liturgiaren zati dalako–, edo «alkarte-meza» deritxonak, garrantzi berezia dau. Eta Meza honeek aparteko erara emon beharrik izan ez arren, oso ondo legoke abestea eta, batez be, alkartekide guztiek –erlijioso nahiz kalonje– oso-osorik esku hartzea. Horregaitik, honako Mezatan, bete begi nork bere eginkizuna, hartu dauan Ordenaren edo ministerioaren arabera. Beraz, kasu honeetan, fededunen onura pastoralagaitik Meza bakarka emon behar ez daben abade guztiek, ahal bada, alkarmeza emotea da onena. Gehiago oraindino, alkarteko abade guztiek, fededunen onura pastoralagaitik Meza bakarka emon beharra izan arren, egun berean komentu-mezan edo «alkarte-mezan» esku hartu leikie.[94] Egokiago da, izan be, eukaristi ospakizunean dagozan abadeek, arrazoi zuzenen batek salbuesten ez baditu behintzat, normalean euren Ordenari dagokion eginkizuna betetzea eta, horregaitik, jantzi sakratuak soinean harturik, alkarmeza-emoile lez esku hartzea. Alkarmeza emoten ez badabe, dagokion koru-jantzia edo erroketea eroango dabe sotanaren gainean.

I. Herriagaz ospatutako mezea

115. «Herriagaz ospatutako Mezea» esatean, fededunek esku hartuz emoten dan Mezea esan nahi da. Ahal dan guztietan, batez be domeka eta jaiegunetan, Meza hau kantuz eta egoki diran beste laguntzaileekin emotea komeni da;[95] halan be, kantu barik eta laguntzaile bakarragaz be emon leiteke.

116. Edozein meza-ospakizunetan, diakonoak, bertan bada, bete begi bere eginkizuna. Meza-emoileari, normalean, akolitoak, irakurleak eta abeslariak laguntzea komeni da. Baina, ondoren azalduko dogun errituak laguntzaile gehiago izatea be aurreikusten dau.

Prestatu beharrekoak

117. Altarea gitxienez zapi zuri batez estaldu behar da. Altara gainean nahiz inguruan, ospakizun guztietan gitxienez argimutil bi ipini behar dira kandela biztuekin, edo lau nahiz sei –batez be, domekako nahiz jai osoko Meza danean– eta,

---

91 Ik. VATIKANOKO II. KONTZILIO EKUMENIKOA, *Sacrosanctum Concilium* liturgia sakratuari buruzko Konstituzinoa, 41. zk.

92 Ik. *Cæremoniale Episcoporum*, 119-186. zk.

93 Ik. VATIKANOKO II. KONTZILIO EKUMENIKOA, *Sacrosanctum Concilium* liturgia sakratuari buruzko Konstituzinoa, 42. zk.; *Lumen gentium* Eleizari buruzko Konstituzino dogmatikoa, 28. zk.; *Presbyterorum Ordinis* abadeen ministerioari eta bizitzari buruzko Dekretua, 5. zk.; OHIKUNEETARAKO KONGREGAZINO SAKRATUA, *Eucharisticum mysterium* Irakaspena (1967.05.25), 26. zk.: A.A.S. 59 (1967), 555. or.

94 Ik. OHIKUNEETARAKO KONGREGAZIO SAKRATUA, *Eucharisticum mysterium* Irakaspena (1967.05.25), 47. zk.: A.A.S. 59 (1967), 565. or.

95 Ik. *ibid.*, 26. zk.: A.A.S. 59 (1967), 555. or.; *Musicam sacram* Irakaspena (1967.03.05), 16 eta 27. zk.: A.A.S. 59 (1967), 305 eta 308. or.

Eleizbarrutiko Gotzainak Meza emoten dauanean, zazpi kandela. Era berean, altara gainean edo altaratik hurrean, kurutzeak be egon behar dau, Kristo kurutzeratuaren irudiagaz. Argimutilak eta Kristo kurutzeratuaren irudia daroan kurutzea sarrerako prozesinoan eroan daitekez. Ebanjelio Liburua be altara gainean ipini daiteke, sarrerako prozesinoan eroango ez bada eta beste irakurgaien liburuaz desbardina bada.

118. Honako honeek be prestatu behar dira:

a) abadearen jesarleku ondoan: Meza Liburua eta, beharrezko bada, kantu-liburutxua,

b) irakurtokian: irakurgaien liburua,

c) alboko mahaitxuan: kaliza, sagara-oihala, garbi-zapitxua, kaliza-estalkitxua –erabiltzen bada–, patena eta kopoiak –beharrezko badira– batzarburu dan abadeak, diakonoak, laguntzaileek eta herriak jaunartzeko ogiagaz; ur-ardaoen ontziak ardaoagaz eta uragaz, honeek oparigaien aurkezpenekoan fededunek ekarri behar ez badabez; ur bedeinkatuaren ontzia, txipriztintzea egitekoa bada; fededunen jaunartzerako azpiltxua eta esku-garbiketarako behar diranak.

Egoki da kaliza estalkitxuaz estaltzea; eguneko kolorekoa edo zuria izan daiteke estalkitxua.

119. Sakristian, zelako Meza-ospakizuna izango dan kontuan izanik, abadearen, diakonoaren eta gainerako laguntzaileen Eleiz jantziak prestatu behar dira (*ik. 337 – 341. zk.*):

a) abadearentzat: alba, estola eta kasuila;

b) diakonoarentzat: alba, estola eta dalmatika; halabeharrak edo ospe txikiagoko mailak eskatu ezkero, itzi daiteke dalmatika;

c) gainerako laguntzaileentzat: alba nahiz onartuak diran beste jantziren batzuk.[96]

Alba janzten dabenek erabili begie zinguloa eta amitoa be, albaren forma dala-eta horreek beharrezko ez badira behintzat.

Mezarako sarreran prozesinoa egitekoa bada, prestatu bedi Ebanjelio Liburua be; domeketan eta jaiegunetan intsentsu-ontzia eta nabeta intsentsuagaz, eta prozesinoan eroango diran kurutzea eta argimutilak kandela iziotuekin.

A) Mezea diakono barik

Hasierako ohikuneak

120. Herria batzarrean batuta dagoala, abadea eta laguntzaileak, bakotxa bere eleiz jantziak soinean dituala, altarara joango dira era honetan:

a) laguntzaile bat, ketan dagoan intsentsuontzia daroala, intsentsua erabiltzekoa bada;

b) kandelak daroezan laguntzaileak eta honeen erdian akolitoa edo beste laguntzaileren bat kurutzeagaz;

c) akolitoak eta gainerako laguntzaileak;

d) irakurlea, Ebanjelio Liburua zeozertxu jasota eroan daikeala, ez, ostera, Irakurgaien liburua;

e) meza-emoile izango dan abadea.

Intsentsurik erabiltzen bada, abadeak, prozesinoa hasi aurretik, intsentsua jarriko dau ontzian eta kurutze-seinalea eginez bedeinkatuko, ezer esan barik.

121. Altararantz prozesinoa egin bitartean, sarrerako kantua abestuko da (*ik. 47-48. zk.*).

122. Altarara heldutakoan, abadeak eta laguntzaileek makurtze nagusia egingo dabe.

Prozesinoan Kristo kurutzeratuaren irudia dauan kurutzea eroan bada, ezarri daiteke altara ondoan, altarako kurutzetzat, baina kurutze bakarra izan dadila; bestela leku egokiren baten itziko da. Argimutilak, barriz, altara gainean nahiz ondoan jarriko dira; eta Ebanjelio Liburua altara gainean.

---

96 Ik. *Ecclesiæ de mysterio* abadeen ministerioan fededun laikoek izan daikeen lankidetzari buruzko eztabaida batzuren inguruan dikasterio arteko Irakaspena (1997.08.15), 6. art.: A.A.S. 89 (1997), 869. or.

123. Abadeak, altarara heltzean, mun egingo deutso begirunez. Ondoren, egoki begitandu ezkero, kurutzea eta altarea lurrunduko ditu, inguratuz.

124. Hau eginik, abadea bere jesarlekura joango da. Sarrerako kantua amaitutakoan, guztiek –abade eta fededun–, zutunik, kurutze-seinalea egingo dabe. Abadeak hau esango dau: Aitaren, eta Semearen, eta Espiritu Santuaren izenean. Herriak erantzungo dau: Amen.

Gero, abadeak, herriari begira eta besoak zabalduz, batzarra agurtuko dau, ezarritako agur-eraren batez. Eta abadeak berak nahiz beste laguntzaile egokiren batek, oharpen laburra be egin leikie fededunei, eguneko Mezarako girotzeko.

125. Gero damu-otoitza egingo dau. Ondoren, Erruki, Jauna kantatuko nahiz esango da, errubriken arabera (*ik. 52. zk.*).

126. Aginduta dagoanean, Aintza zeruetan abestuko nahiz esango da (*ik. 53. zk.*).

127. Ondoren, abadeak herriari otoitz egitera dei egingo deutso, eskuak batuz eta Egin daigun otoitz esanez. Eta guztiek, abadeagaz batera, otoitz egingo dabe unetxu batez isilik. Gero, abadeak, besoak zabalik, otoitza esango dau, eta amaieran herriak erantzungo: Amen.

Hitzaren liturgia

128. Otoitza amaitutakoan, jesarri egingo dira danak. Abadeak egin leikie, labur-labur, fededunei oharpena hitzaren liturgiarako sarrera lez. Irakurleak, barriz, irakurtokira joan eta, Meza aurretik bertan ezarrita egon behar dauan irakurgai-liburutik, lehenengo irakurgaia iragarriko dau, danek entzuten dabela. Amaitzean, irakurleak Jaunak esana gorespena oihukatuko dau, eta danek erantzungo dabe Eskerrak Zuri, Jauna.

Orduan, isilune laburra egin daiteke, egoki begitandu ezkero, danek hausnartu dagien entzun dabena.

129. Gero, salmolariak nahiz irakurleak berak salmo-ahapaldia esango dau, eta herriak normalean errepika esanez erantzungo.

130. Ebanjelio aurretik bigarren irakurgairik bada, irakurleak irakurtokitik iragarriko dau, danek entzuten dabela eta, amaitzean, gorespenari erantzungo, lehenago esan dan lez (*ik. 128. zk.*). Ondoren, egoki eretxi ezkero, isilune laburra egin daiteke.

131. Ondoren, danak zutunik, Aleluia edo beste kanturen bat abestuko da, liturgialdiak eskatzen dauanaren arabera (*ik. 62-64. zk.*).

132. Aleluia edo beste kantu hori abestu bitartean, intsentsurik erabiltzen bada, abadeak intsentsua jarriko dau eta bedeinkatuko. Gero, eskuak baturik eta altara aurrean guztiz makurturik, Garbitu egizuz esango dau isilik.

133. Ondoren, Ebanjelio Liburua hartuko dau, altaran badago, eta, laguntzaile laikoak aurretik doazala –honeek eroan daikeez intsentsu-ontzia eta kandelak–, irakurtokira hurreratuko da, Ebanjelio Liburua zeozertxu jasota eroanez. Bertan dagozanak irakurtokira begira jarriko dira, Kristoren Ebanjelioari deutsoen begirune berezia aditzera emonez.

134. Irakurtokian, abadeak liburua edegi eta, eskuak baturik, esango dau: Jauna zuekin; herriak hau erantzungo dau: Eta zure espirituarekin, eta gero: Jesu Kristoren Ebanjelioa, hatzamar lodiaz liburuaren gainean kurutze-seinalea eginez, eta ondoren baita bere bekokian, ahoan eta bularrean be. Gainerako guztiek be hori bera egingo dabe. Herriak hau oihukatuko dau: Aintza Zuri, Jauna. Abadeak, intsentsurik erabiltzen bada, liburua lurrunduko dau (*ik. 277-278. zk.*). Ondoren, Ebanjelioa iragarriko dau, amaieran gorapen hau esanez: Jaunak esana, eta danek erantzungo dabe: Eskerrak Zuri, Jauna. Abadeak liburuari mun egingo deutso, honako hau isilik esanez: Ebanjelioko hitzez, gure pekatuak garbitu beitez.

135. Irakurlerik ez balego, abadeak berak iragarriko ditu irakurgai guztiak eta salmoa oihukatuko, irakurtokian zutunik dala. Han bertan jarriko dau intsentsua ontzian, intsentsua erabiltzekoa bada, bedeinkatu eta, guztiz makurturik Garbitu egizuz esango dau.

136. Abadeak, jesarlekuan nahiz irakurtokian edo, halan begitandu ezkero, beste leku egokiren baten zutunik dala, homilia egingo dau; amaitzean, isilunea egin leike.

137. Kredoa abestuko nahiz ozen esango dau abadeak herriagaz batera (*ik. 68. zk.*), danak zutunik dirala. Eta, Espiritu Santuaren egitez, etab. esatean, guztiek makurtze nagusia egingo dabe; eta Jaunaren Gizakundearen Adierazpeneko eta Jaunaren Jaiotzako festaburuetan, barriz, belaunikatu egingo dira.

138. Fede-autormena eginik, abadeak, bere jesarlekuan zutunik eta eskuak baturik, ohar laburra eginez danen aldeko otoitza egitera gonbidatuko ditu fededunak. Ondoren, abeslariak nahiz irakurleak nahiz besteren batek irakurtokitik edo beste leku egokiren batetik, asmoak aurkeztuko deutsoz herriari eta herriak, bere aldetik, eskatuz erantzungo dau. Azkenean abadeak, eskuak zabalik, otoitza eginez burutuko ditu eskariak.

Eukaristiaren liturgia

139. Danen aldeko otoitza amaiturik, guztiak jesarri egingo dira eta oparigaien aurkezpeneko kantua hasiko da (*ik. 74. zk.*).

Akolitoak nahiz beste zerbitzari laikoren batek sagara-oihala, garbi-zapitxua, kaliza, estalkitxua eta Meza Liburua ipiniko ditu altara gainean.

140. Fededunek Eukaristiaren ospakizunean esku hartzen dabela adierazoteko, ondo legoke beharrezko diran ogia eta ardaoa, edo Eleiz alkartearen nahiz behartsuen preminetarako emoitzak, eurek aurkeztea.

Fededunen emoitza honeek abadeak hartuko ditu, akolitoak edo beste laguntzaileren batek laguntzen deutsola. Eukaristiarako ogi-ardaoak abade meza-emoileari eroango deutsoez eta honek altaran jarriko ditu; gainerako emoitzak, ostera, beste leku egokiren baten itziko dabez (*ik. 73. zk.*).

141. Altaran abadeak patenea ogiagaz hartuko dau eta, esku biekin altara gainean apur bat jasorik, Bedeinkatua Zu, Jauna otoitza esango dau isilik. Gero sagara-oihalaren gainean itziko dau patenea ogiagaz.

142. Ondoren, altarearen alde batera joanda, ardaoa eta ur apurtxu bat botako dau kalizera, Gizatasunean gugaz otoitza esango dau isilik, laguntzaileak ur-ardaoen ontziak emoten deutsozan bitartean. Altara erdira etorririk, esku biekin kaliza hartuko dau eta, apur bat jasorik, Bedeinkatua Zu, Jauna otoitza esango dau isilik. Ondoren, kaliza sagara-oihalaren gainean itziko dau eta, behar bada, kaliza-estalkitxuaz estalduko.

Eskeintzakoan abestirik ez bada edo organoa jotzen ez badabe, abadeak, ogi-ardaoak aurkeztean, ahots garbiz eta ozenez esan leikez bedeinkazino-formulak, eta herriak erantzungo dau: Bedeinkatua Zu, Jauna, orain eta beti.

143. Kaliza altara gainean itzirik, abadeak, guztiz makurturik, Onartu gaizuz, Jauna esango dau isilik.

144. Ondoren, intsentsua erabiltzekoa bada, abadeak ontzian jarri eta bedeinkatu egingo dau, ezer esan barik, eta oparigaiak, kurutzea eta altarea lurrunduko ditu. Zerbitzariak, altarearen aldamenean zutunik, abadea lurrunduko dau eta gero herria.

145. Onartu gaizuz, Jauna otoitza esandakoan, edo lurrundu ondoren, abadeak, altarearen aldamenean zutunik, eskuak garbituko ditu, Garbitu nagizu, Jauna otoitza isilik esanez, laguntzaileak ura emoten deutson bitartean.

146. Altarearen erdira etorririk eta herriari begira, besoak zabalduz eta batuz, otoitz egitera gonbidatuko dau herria, honan: Senideok, egin daigun otoitz. Herriak, zutunduta, erantzun egingo deutso esanez: Jainkoa goresteko. Ondoren abadeak, besoak zabalik, oparigaien gaineko otoitza esango dau eta, azkenean, herriak Amen erantzungo.

147. Orduan, abadeak Eukaristi Otoitza hasiko dau. Errubriken arabera (ik. 365. zk.), Erromako Meza Liburuan datozan Eukaristi Otoitzetako bat edo Aulki Apostolikoak ontzat emondakoren bat aukeratuko dau. Eukaristi Otoitzaren izaerak berak eskatzen dau abadeak –ordenatua dalako– esatea Otoitza eta ez beste inork. Herriak, barriz, bat egingo dau abadeagaz sinismenez eta isilik, eta Eukaristi Otoitzean zehar ezarrita dagozan uneetan esku hartuz: Prefazio aurreko alkarrizketan, Santu, Santua esanez, sagara ondoko gorapenean eta azken doxologiaren ondoko Amen edo Gotzainen Batzarrak, Aulki Santuaren oneretxiagaz, ontzat emondako beste gorapen batzuk oihukatuz.

Oso komenigarri da musika daukien Eukaristi Otoitzaren zatiak abestea abadeak.

148. Eukaristi Otoitza hasirik, abadeak, besoak zabalduz, Jauna zuekin abestuko nahiz esango dau eta herriak erantzungo: Eta zure espirituarekin. Jarraian Gora bihotzak esanez, eskuak jasoko ditu, eta herriak erantzungo: Jaunagan daukaguz. Gero, besoak zabalik, Eskerrak Jaungoiko gure Jaunari esango dau, eta herriak erantzungo: Egoki da eta zuzen. Ondoren abadeak, besoak zabalik, prefazioa esango dau; amaitutakoan, eskuak baturik, han diran guztiekin batera, Santu, Santua abestuko dau nahiz ozen esango (*ik. 79. b zk.*).

149. Abadeak Eukaristi Otoitza esaten jarraituko dau, otoitz horreetako bakotxean datozan errubriken arabera.

Meza-emoilea Gotzaina bada, zure zerbitzari I. gure Aita Santuarekin berben ondoren, nigaz, zeure zerbitzari ezerez honegaz gehituko dau, edo I. gure Aita Santua berben ondoren, ni, zeure zerbitzari ezerez hau gehituko. Gotzainak Eukaristia bere Eleizbarrutitik kanpo ospatzen badau, zure zerbitzari I. gure Aita Santuagaz berben ondoren, I.ko Eleizbarruti honetako Gotzaina dan I. nire anaiagaz, nigaz, zeure zerbitzari ezerez honegaz gehituko dau, edo I. gure Aita Santua hitzen ondoren, I.ko Eleizbarruti honetako Gotzaina dan I. nire anaia, ni, zeure zerbitzari ezerez hau gehituko.

Eleizbarrutiko Gotzaina edo zuzenbidez haren parekoa dana, izentatu egin behar da honan: zure zerbitzari I. gure Aita Santuagaz eta I. gure Artzainagaz (edo Bikario, Prelatu, Prefektu, Abadeagaz).

Eukaristi Otoitzean, Gotzain Koadjutoreak eta Laguntzaileak be aitatu daitekez; ez, ostera, bertan izan daitekezan gainerako Gotzainak. Aitatzekoak asko balira, danak batera aitatuko dira, honan: I. gure Artzainagaz eta beraren Gotzain Laguntzaileekin.

Eukaristi Otoitz bakotxean, aipamen honeek gramatika-arauetara egokitu beharra dago.

150. Sagara baino zeozer lehentxuago, ondo eretxi ezkero, laguntzaileak txilina joz ohartuazoko ditu fededunak. Leku bakotxeko ohituraren arabera, abadeak ostia eta kaliza herriari erakustean be jo daiteke txilina.

Intsentsua erabiltzekoa bada, ostia eta kaliza herriari erakustean, lurrundu egingo ditu laguntzaileak.

151. Sagara ondoren, abadeak Hau da sinismenaren misterioa esango dau eta herriak gorespena egingo, aginduak dagozan formuletako bat aukeratuz.

Eukaristi Otoitzaren amaieran, patenea ostiagaz eta kaliza hartu eta, biak jasorik, abadeak bakarrik Honen bitartez doxologia esango dau. Azkenean, herriak Amen oihukatuko dau. Ondoren, sagara-oihalaren gainean jarriko ditu abadeak patenea eta kaliza.

152. Eukaristi Otoitza buruturik, abadeak, eskuak batuta, Jaunaren Otoitzaren aurreko oharpena egingo dau eta, gero, herriagaz batera ozen esango otoitz hori, besoak zabalik.

153. Jaunaren Otoitza amaitu ondoren, abadeak, besoak zabalik, Atara gaizuz, Jauna enbolismoa esango dau, berak bakarrik; eta azkenean herriak Zeurea dozu erregetza erantzungo.

154. Gero, abadeak, besoak zabalik, Jesu Kristo gure Jauna, Zeuk esana da Apostoluei otoitza esango dau ahots garbiz eta, amaitutakoan, besoak zabalduz eta batuz, bakea iragarriko dau herriari begira, Jaunaren bakea beti zuekin esanez. Herriak Eta zure espirituarekin erantzungo dau. Ondoren, egoki begitandu ezkero, abadeak Emoiozue bakea alkarri gehituko dau.

Abadeak emon deikie bakea laguntzaileei, beti be presbiterioan geldituz, ospakizunean nahasketa ez sortzeko. Jokatu dagiala holan, arrazoi zuzen batengaitik, fededun gitxi batzuri bakea emon nahi badeutse be. Eta danek, Gotzainen Batzarrak ezarritakoaren arabera, bakea, alkartasuna eta maitasuna adierazoko deutsoe alkarri. Bakea emon bitartean, hau esan daiteke: Jaunaren bakea beti zurekin, eta erantzun: Amen.

155. Ondoren, abadeak ogi sagaratua hartu, patena gainean zatitu eta zatitxu bat kalizera botako dau, Kaliza honetan isilik esanez. Bitartean, abestaldeak eta herriak Jaungoikoaren Bildotsa abestuko dabe nahiz esango (*ik. 83. zk.*).

156. Orduan, abadeak, jaunartzeko prestatuz, Jesu Kristo gure Jauna, Jainko biziaren Semea nahiz Jesu Kristo gure Jauna, zure Gorputza eta Odola hartzea otoitza esango dau isilik eta eskuak baturik.

157. Otoitz hau amaitutakoan, abadea belaunikatu egingo da, Meza haretan sagaratutako ostia hartuko dau eta, patena gainean nahiz kaliza gainean apurtxu bat jasorik, herriari erakutsiz esango dau: Hona hemen Jaungoikoaren Bildotsa, eta, herriagaz batera, Jauna, ni ez naz inor esango dau.

158. Gero, altarara begira zutunik, abadeak isilik Kristoren Gorputzak zaindu nagiala betiko bizitzarako esan eta Kristoren Gorputza hartuko dau begirunez. Jarraian, kaliza hartu, Kristoren Odolak zaindu nagiala betiko bizitzarako esan eta Kristoren Odola hartuko dau begirunez.

159. Abadeak Sakramentua hartzen dauan artean, jaunartze-kantua hasiko da (*ik. 86. zk.*).

160. Gero, patenea nahiz kopoia hartu eta jaunartzeko dagozanengana joango da, honeek normalean prozesinoan hurreratuko dirala.

Ez da zilegi ogi sagaratua nahiz kaliza sakratua fededunek euren eskuz hartzea edo eskuz esku alkarri banatzea. Belaunikaturik nahiz zutunik hartuko dabe fededunek gure Jauna, Gotzainen Batzarrak erabagiaren arabera. Zutunik jaunartzen dabenean, Sakramentua hartu aurretik zor jakon erreberentzia egitea gomendatzen da, erabagi horreen arabera.

161. Jaunartzea ogiaren itxurapean baino egiten ez bada, abadeak ogi sagaratua zeozertxu jasorik, bakotxari erakutsi eta esango deutso: Kristoren Gorputza. Jaunartzeko dagoanak Amen erantzungo dau eta Sakramentua hartuko ahoan nahiz, baimenduta dagoan tokietan, eskuan, norberak gura dauan lez. Jaunartzen dauanak, ostia sakratua hartu baizen agudo, osorik jango dau.

Jaunartzea ogi-ardaoen itxurapean egiten bada, gorde bedi bere lekuan adierazoko dan erritua (*ik. 284-287. zk.*).

162. Jauna banatzen lagundu deikioe abadeari ospakizunean egon daitekezan beste abade batzuek. Beste abaderik ez badago eta jaunartzekoen kopurua oso handia bada, dei egin deikie abadeak berari laguntzera ezohiko ministroei, hau da, akolito eratuei edo ohikune honetarako izentatuta dagozan beste fededun batzuri.[97] Beharrezko danean, abadeak izentatu daikez «ad actum» horretarako gai diran fededunak.[98]

Laguntzaile honeek ez begie igon altarara abadeak Jauna hartu baino lehen eta fededunei banatu beharreko Eukaristia guztiz santuko ogiardaoak dagozan ontzia hartu begie beti abadearen eskutik.

163. Gure Jauna banatzea amaitutakoan, gelditu ahal izan dan ardao sagaratua guztiz edango dau altaran abadeak; larregi diran ostia sagaratuak, barriz, altaran jan leikez edo Eukaristia gordetzeko dagoan tokira eroan.

Abadeak, altarara bihurturik, apurrak batuko ditu, holakorik baledi; gero, altarearen aldamenean nahiz alboko mahaitxuan, patenea edo kopoia kalizaren gainean garbituko dau, eta kaliza be bai Ahoz hartu dogun hau isilik esanez, eta garbi-zapiaz lehortuko dau. Ontziak altaran garbitzen badira, laguntzaileak alboko mahaitxura eroango ditu. Baina zilegi da, batez be garbitu behar diran ontziak asko izan ezkero, altaran nahiz alboko mahaitxuan eta sagara-oihal baten gainean iztea, behar dan lez estalduta, Meza ondoren, herria agurtutakoan, garbitzeko.

164. Gero bere jesarlekura bihurtu daiteke abadea. Isilune sakratua egin leiteke nahiz gorapenkanturen bat edo salmoren bat abestu (*ik. 88. zk.*).

165. Ondoren, jesarlekuan nahiz altara aurrean zutunik, abadeak, herriari begira eta eskuak ba-

97 Ik. SAKRAMENTUETARAKO ETA JAINKOAREN GURTZARAKO KONGREGAZIO SAKRATUA, *Inæstimabile donum* Irakaspena (1980.04.03), 10. zk.: A.A.S. 72 (1980), 336. or.; Ik. *Ecclesiæ de mysterio* abadeen ministerioan fededun laikoek izan daikeen lankidetzari buruzko eztabaida batzuren inguruan dikasterio arteko Irakaspena (1997.08.15), 8. art.: A.A.S. 89 (1997), 871. or.

98 Ik. *geroago* Eranskina, Gure Jauna emoteko laguntzailea «ad actum» izentatzeko Ohikunea 1174 or.

turik, esango dau: Egin daigun otoitz, eta, besoak zabalik, jaunartze ondorengo otoitza esango dau; aurretik isilune labur bat egin leiteke, jaunartze ondoren egin ez bada. Otoitza amaitzean, herriak Amen erantzungo dau.

Amaierako ohikunea

166. Jaunartze ondorengo otoitza amaitutakoan, egokiak diran oharpenak egingo dira, egin behar badira, labur-labur.

167. Gero, abadeak, besoak zabalduz, herria agurtuko dau Jauna zuekin esanez, eta herriak Eta zure espirituarekin erantzungo. Eta abadeak, eskuak barriro baturik, behingoan ezkerreko eskua bular gainean jarriz eta eskumako eskua jasoz, esango dau: Bedeinkatu zagiezala Jaungoiko ahalguztidunak eta, herriaren gainean kurutze-seinalea eginez, jarraituko dau: Aitak, eta Semeak, eta Espiritu Santuak; danek Amen erantzungo dabe.

Egun eta egokiera batzuetan, bedeinkazino hau, liturgia arauei jarraituz, herriaren gaineko otoitzaz edo bedeinkazino-era nagusiaz aberasten eta adierazoten da.

Gotzainak berari dagokion formulaz bedeinkatuko dau herria, kurutze-seinalea hiru aldiz eginez herriaren gainean.[99]

168. Bedeinkazinoaren ondoren, behingoan, abadeak, eskuak baturik, Zoaze Jaunaren bakean esango dau, eta danek Eskerrak Jainkoari erantzungo dabe.

169. Orduan, abadeak ohi dan lez mun egingo deutso altareari eta, laguntzaileekin batera makurtze nagusia egin ondoren, joan egingo da horreekin batera.

170. Meza ondoren beste liturgi eleizkizunik balitz, amaierako ohikunea –hau da, agurra, bedeinkazinoa eta azken agurra– ez dira egingo.

B) Meza diakonoagaz

171. Eukaristi ospakizunean diakonorik bada, jantzi sakratuak soinean dituala, bete begi dagokion zerbitzua. Hona hemen:

a) abadeari lagunduko deutso eta haren aldamenean egongo da;

b) altaran, kalizari eta Meza Liburuari dagokiozanetan lagunduko deutso;

c) Ebanjelioa iragarriko dau eta, meza-emoile dan abadeak agintzen badeutso, egin leike homilia (*ik. 66. zk.*);

d) fededun herria zuzenduko dau oharpen egokiak eginez eta danen aldeko otoitza egiteko eskariak adierazoko ditu;

e) abade meza-emoileari Jauna emoten lagunduko deutso, eta ontzi sakratuak garbituko ditu eta antolatuko;

f) gainerako laguntzaileen eginkizunak beteko ditu, halan behar bada, laguntzailerik ez danean.

Hasierako ohikuneak

172. Diakonoa, Ebanjelio Liburua daroanean, abadearen aurretik joango da altarara bidean. Bestela, abadearen alboan.

173. Altarara inguratzean, Ebanjelio Liburua badaroa, erreberentzia egin barik, altarara igongo dau. Gero, Ebanjelio Liburua altara gainean jarririk, abadeagaz batera mun egingo deutso altareari.

Ebanjelio Liburua ez badaroa, makurtze nagusia egingo deutso altareari abadeagaz batera, ohi dan lez, eta beragaz batera mun eginez gurtuko dau.

Azkenik, intsentsua erabiltzekoa bada, abadeari lagunduko deutso intsentsua jartzen eta kurutzea eta altarea lurruntzen.

99 Ik. Cæremoniale Episcoporum Liburua, 1118-1121. zk.

174. Altarea lurrundurik, jesarlekura joango da abadeagaz batera eta honen ondoan egongo, behar danean laguntzeko.

Hitzaren liturgia

175. Aleluia edo beste kanturen bat abestu bitartean, intsentsurik erabiltzen bada, intsentsua ontzian jartzen lagunduko deutso abadeari; gero, haren aurrean guztiz makurturik, bedeinkazinoa eskatuko deutso, Bedeinkatu nagizu, jauna ahots apalez esanez. Abadeak bedeinkazinoa emongo deutso, esanez: Izan bedi Jauna zure bihotzean. Diakonoak, kurutze-seinalea eginez, Amen erantzungo dau. Ondoren, altareari erreberentzia eginik, haren gainean jarrita dagoan Ebanjelio Liburua hartu eta irakurtokira joango da, liburua zeozertxu jasota daroala, eta intsentsu-ontzia kea dariola daroala eta laguntzaileak kandela biztuekin aurretik dituala. Han herria agurtuko dau, eskuak baturik, hau esanez: Jauna zuekin; gero, Jesu Kristoren Ebanjelioa esatean, liburuan atzamar lodiaz kurutze-seinalea egingo dau eta ondoren baita bere bekokian, ahoan eta bularrean be; liburua lurrunduko dau eta Ebanjelioa iragarriko. Amaitutakoan, Jaunak esana oihukatuko dau, eta danek erantzungo dabe: Eskerrak Zuri, Jauna. Ondoren, begirunez mun egingo deutso liburuari, ahots apalez esanez: Ebanjelioko hitzez, eta abadearen ondora bihurtuko da.

Diakonoak, Gotzainari laguntzen badihardu, hari eroango deutso liburua mun egin deion edo diakonoak berak egingo deutso mun, isilik esanez: Ebanjelioko hitzez. Ospakizunik nagusienetan, egoki eretxi ezkero, Ebanjelio Liburuaz bedeinkatuko dau Gotzainak herria.

Azkenik, alboko mahaitxura edo beste leku egoki eta duinen batera eroan daiteke Ebanjelio Liburua.

176. Beste irakurle egokirik ez bada, irakurri begiz diakonoak gainerako irakurgaiak be.

177. Abadeak sarrera egin ondoren, diakonoak berak adierazoko ditu Jainkoaren herriaren otoitzerako eskariak, gehienetan irakurtokitik.

Eukaristiaren liturgia

178. Jainkoaren herriaren otoitza buruturik, abadea jesarlekuan jesarrita dagoala, diakonoak altarea prestatuko dau, akolitoak lagundurik; berari dagokio, izan be, ontzi sakratuez arduratzea. Herriaren emoitzak hartzerakoan be, abadeari lagunduko deutso. Gero, patenea emongo deutso abadeari, sagaratzekoa dan ogiagaz; ardaoa botako dau kalizera eta ur apurtxu bat, Gizatasunean gugaz isilik esanez, eta ondoren abadeari emongo deutso. Kaliza prestatze hau alboko mahaitxuan be egin daike. Intsentsua erabiltzekoa bada, lagundu egingo deutso abadeari oparigaiak, kurutzea eta altara lurruntzen eta gero berak nahiz akolitoak abadea eta herria lurrunduko ditu.

179. Eukaristi Otoitza esan bitartean, abadearen aldamenean egongo da diakonoa zutunik, abadea baino atzeratxuago, kalizari eta Meza Liburuari dagokiezanetan laguntzeko.

Epiklesia hasten danetik kalizaren erakustea egin arte diakonoa, normalean, belauniko egongo da. Diakono bat baino gehiago bada, sagarakoan horreetako batek jarri leike intsentsua ontzian eta intsentsua emon ostiaren eta kalizaren erakustea egitean.

180. Eukaristi Otoitzaren amaierako doxologian, abadearen aldamenean zutunik, kaliza jasota eukiko dau, abadeak patenea ogi sagaratuagaz gora jasota daukan bitartean, herriak Amen oihukatu arte.

181. Abadeak bake-otoitza egin, Jaunaren bakea beti zuekin esan eta herriak Eta zure espirituarekin erantzundakoan, diakonoak, egoki eretxi ezkero, bakerako deia egingo dau, eskuak baturik eta herriari begira, Emoiozue bakea alkarri esanez. Berari abadeak emongo deutso bakea eta berak hurrean dituan laguntzaileei emon deikie.

182. Abadeak jaunartutakoan, diakonoak ogiardaoen itxurapean hartuko dau Jauna abadeak emonda eta gero herriari Jauna emoten lagunduko deutso abadeari. Gure Jauna ogi-ardaoen itxurapean emotekoa bada, diakonoak jaunartzera doazenei kaliza emongo deutse eta, Jauna emotea amaiturik, gelditu dan Kristoren Odola behingoan hartuko dau begirunez altaran, halan

behar bada gainerako diakonoek eta abadeek lagundurik.

183. Gure Jauna banatzea amaiturik, diakonoa abadeagaz batera altarara etorriko da, apurrak batuko ditu, holakorik baledi, eta gero kaliza eta gainerako ontzi sakratuak alboko mahaitxura eroango ditu eta han garbitu eta euren lekuetan jarriko, ohi dan lez; abadea, bitartean, jesarlekura joango da. Halan be, itzi daikez garbitzekoak diran ontziak egoki estalduta alboko mahaitxuan, sagara-oihalaren gainean, gero, Meza amaitu baizen agudo, herria agurtutakoan, garbitzeko.

Amaierako ohikunea

184. Jaunartze ondorengo otoitza esandakoan, diakonoak, behar izan ezkero, oharpenak egingo deutsoz herriari labur-labur, abadeak berak egitea nahiago ez bada behintzat.

185. Herriaren gaineko otoitza egin edo bedeinkazino nagusiko formulea erabili nahi bada, diakonoak hau esango dau: Makurtu burua Jaunaren bedeinkazinoa hartzeko. Abadeak bedeinkazinoa emondakoan, azken agurra egingo deutso diakonoak herriari, eskuak batuta eta herriari begira Zoaze Jaunaren bakean esanez.

186. Gero, abadeagaz batera, altareari mun egingo deutso eta, makurtze nagusia egin ondoren, etorri dan moduan bihurtuko da.

C) Akolitoaren eginkizunak

187. Akolitoak bete daikezan eginkizunak era askotakoak dira; gainera, horreetako batzuk batera bete beharra jazo daiteke. Horregaitik, akolito batzuren artean banatzea komeni da, egoki dan moduan; akolito bat besterik ez badago, egin dagizala berak garrantzizkoenak, eta gainerakoak banatu dagiezala laguntzaile batzuren artean.

Hasierako ohikuneak

188. Altararako bidean kurutzea eroan daike, kandela iziotuak eroango dabezan laguntzaile biren erdian. Altarara heldutakoan, altarearen ondoan ezarriko dau, altarako kurutzea izan dadin; bestela, leku egokian itziko dau. Gero presbiterioan dagokion lekua hartuko dau.

189. Ospakizun osoan zehar behar dan guztietan, abadeagana eta diakonoagana hurreratzea dagokio akolitoari, liburua emoteko eta gainerako beharrizanetan horreei laguntzeko. Horregaitik, ahal dan neurrian, jesarlekuan nahiz altaran bere zerbitzua eroso beteko dauan lekuan egotea komeni da.

Eukaristiaren liturgia

190. Diakonorik ez bada, Jainkoaren herriaren otoitza amaiturik, abadea jesarlekuan dagoala, akolitoak altara gainean sagara-oihala, garbizapia, kaliza, estalkitxua eta Meza Liburua jarriko ditu. Gero, herriak eroandako emoitzak hartzen lagunduko deutso abadeari, behar izan ezkero, eta, bere sasoian, ardaoa eta ura altarara eroan eta abadeari emongo deutsoz. Intsentsua erabiltzekoa bada, intsentsu-ontzia abadeari ekarriko deutso eta oparigaiak, kurutzea eta altarea lurruntzen lagunduko. Gero, abadea eta herria lurrunduko ditu.

191. Ohikunez eratua dan akolitoak lagundu leikio abadeari, ezohiko zerbitzari lez, herriari Jauna emoten.[100] Gure Jauna ogi-ardaoen itxurapean emotekoa bada, jaunartzera doazenei kaliza emongo deutse; eta, ogi sagaratua ardao sagaratuan bustirik emoten bada, kalizari eutsiko deutso.

192. Era berean, ohikunez eratua dagoan akolitoak, gure Jauna banatzea amaitzean, ontzi sakratuak garbitzen eta euren lekuetan jartzen lagunduko deutso abadeari nahiz diakonoari. Diakonorik izan ezean, ohikunez eratua dan akolitoak alboko mahaitxura eroango ditu ontzi sakratuak eta han, ohi dan lez, garbitu, lehortu eta euren lekuetan jarriko ditu.

---

100 Ik. PAULO VI.a, *Ministeria quædam* Gutun Apostolikoa (1972.08.15): A.A.S. 64 (1972), 532. or.

193. Mezearen ospakizuna amaiturik, akolitoa eta gainerako laguntzaileak, diakonoagaz eta abadeagaz batera, sakristiara bihurtuko dira prozesinoan, etorri diran era eta ordena berean.

D) Irakurleen eginkizunak

Hasierako ohikuneak

194. Altararako prozesinoan, diakonorik izan ezean, irakurleak, onartuta dagoan jantzia soinean dauala, eroan daike Ebanjelio Liburua zeozertxu jasota. Holakoetan, abadearen aurretik joango da; osterantzean, gainerako laguntzaileekin.

195. Altarara heldutakoan, makurtze nagusia egingo dau besteekin batera. Ebanjelio Liburua badaroa, altarara joan eta altara gainean itziko dau. Gero, presbiterioan gelditu ko da bere lekuan, gainerako laguntzaileekin batera.

Hitzaren liturgia

196. Ebanjelio aurreko irakurgaiak iragarriko ditu, irakurtokitik. Salmolaririk ez danean, lehenengo irakurgaiaren ondoren, berak esan leike erantzun-salmoa.

197. Diakonorik ez bada, Jainkoaren herriaren otoitza egitekoan, abadeak sarrera egin ondoren, irakurleak esan leikez eskariak irakurtokitik.

198. Sarrera- eta jaunartze-kanturik ez bada eta Meza Liburuan datozan antifonak fededunek esaten ez badabez, irakurleak esan leikez bere sasoian (*ik. 48 eta 87. zk.*).

II. Alkarmezea

199. Alkarmezeak egoki adierazoten dau abadetzaren, opariaren eta Jainkoaren herri osoaren batasuna; ohikuneak berak eskatzen dau Gotzaina eta abadeak ordenatzean, Abadea bedeinkatzean eta Krisma-mezan.

Fededunen onura dala-eta, beste zeozer egin behar ez bada edo komenigarri ez bada, alkarmezea gomendatzen da:

a) Jaunaren Afariko arratsaldeko Mezan;

b) Kontzilioetan, Gotzainen Batzarretan eta Sinodohaitan emoten diran Mezetan;

c) Komentu-mezan eta Eleizetako eta otoitz-lekuetako Meza nagusian;

d) Abade sekularrek nahiz erlijiosoek egiten dabezan edozein eratako batzarretan emoten diran Mezetan.[101]

Abade bakotxak badau eskubidea bakarka Mezea emoteko, baina ez Eleiza edo otoitz-leku berean alkarmezea ospatzen danean. Baina Jaunaren Afariko Eguen Santuan eta Pazko Gaubelan ez dago Meza bakarka emoterik.

200. Bidaldian dabiltzan abadeak izan beitez gogoz onartuak Eukaristia alkarregaz ospatzeko, beti be abade dirala jakinik.

201. Abade-talde handia dagoan lekuan, emon daiteke alkarmezea egun berean behin baino gehiagotan, beharrizanak edo onura pastoralak halan eskatzen badau; baina hori beste ordu baten edo beste lekuren baten egin behar da.[102]

202. Gotzainari dagokio, eleiz legearen arabera, alkarmezeari buruzko arau zehatzak bere Eleizbarrutiko eleiza eta otoitz-leku guztietan ezartzea.

203. Batez be aintzat hartzekoa da Eleizbarruti bateko abadeek euren Gotzainagaz batera alkarmezea emotea, lekuko Eleizearen batzarra danean (hau da, "*Missa stationali*" deituan), batik bat Liturgi urteko festaburu nagusienetan, Eleizbarrutiko Gotzain barria nahiz Gotzain Koadjutorea nahiz Laguntzailea ordenatzeko Mezan, Krisma Mezan, Jaunaren Afariko arratsaldeko Mezan, lekuko Eleizearen Santu Fundatzailearen

---

101 Ik. VATIKANOKO II. KONTZILIO EKUMENIKOA, *Sacrosanctum Concilium* liturgia sakratuari buruzko Konstituzinoa, 57. zk.; Zuzenbide Kanonikoaren Kodea, kan. 902.

102 Ik. OHIKUNEETARAKO KONGREGAZIO SAKRATUA, *Eucharisticum mysterium* Irakaspena (1967.05. 25), 47. zk.: A.A.S. 59 (1967), 566. or.

nahiz Eleizbarrutiko Zaindariaren ospakizunetan, Gotzainaren urtemugetan eta, azkenik, Sinodoa eta gotzain-ikustaldia danean.

Arrazoi beragaitik, gomendagarria da alkarmezea, abadeak euren Gotzainagaz alkartzen diran guztietan, gogo-jardunak diranean nahiz beste batzarren bat dabenean. Holako kasuetan, Abadetzaren eta Eleizearen batasuna agiriago azaltzen da; hori da, izan be, alkarmezearen berezitasuna.[103]

204. Arrazoi jakin batzuk izanik, esate baterako, ohikuneari edo jai bati esanahi handiagoa emoteko, emon daiteke egun berean bakarmezea nahiz alkarmezea behin baino gehiagotan, kasu honeetan:

a) Eguen Santuz Krisma Mezea emon dauan abadeak, emon daike arratsaldean barriro Jaunaren Afariko Mezea;

b) Pazko Gaubelan bakarka nahiz alkarregaz Mezea emon dauanak, emon daike Mezea bigarrenez Pazko-egunean bakarka nahiz alkarregaz;

c) Jaunaren Jaiotza-egunean abade guztiek hiruna Meza emon daikee bakarka nahiz alkarregaz, Meza bakotxa dagokion orduan emon ezkero;

d) Hildako Fededun Guztien Oroipen-egunean abade guztiek hiruna Meza emon daikee bakarka nahiz alkarregaz, ospakizun horreek denpora desbardinetan egiten badira eta bigarren eta hirugarren Mezearen aplikazinoari buruz ezarritakoak betetzen dirala;[104]

e) Gotzainagaz edo haren ordezkoagaz, Sinodo baten nahiz gotzain-ikustaldikoan nahiz abadeen batzarren baten alkarmezea emon dauanak, emon daike beste Meza bat fededunen onerako. Honek bardin balio dau, besteak beste, erlijiosoen batzarretarako.

205. Alkarmezea, edozein eratan, normalean bete beharrekoak diran arauak kontuan izanik eratuko da (*ik. 112-198. zk.*), baina geroago esango diranak betez nahiz aldatuz.

206. Mezea hasi ondoren, ez bedi inor alkarmezea emotera etorri eta ez bedi inor onartu be inoiz.

207. Presbiterioan prestatu beitez:

a) aulkiak eta liburutxuak alkarmezea emongo daben abadeentzat;

b) alboko mahaitxuan, behar baizen handi izango dan kaliza edo behar dan beste kaliza.

208. Diakonorik ez bada, alkarmeza-emoileetako batzuek egingo dabez haren eginkizunak.

Beste zerbitzaririk be ez bada, egokiak diran beste fededunek egingo dabez hari dagokiozan eginkizunak; bestela, barriz, beste alkarmeza-emoileek egingo dabez.

209. Bakarka Mezea emotekoan erabiltzen diran eleiz jantziak jantziko dabez alkarmeza-emoileek, sakristian nahiz beste leku egokiren baten. Baina bidezko arrazoiren bat, esate baterako abade-talde handia edo nahiko jantzirik izango ez balitz, meza-emoile nagusiak izan ezik, gainerakoek kasuilea itzi daikee eta estolea bakarrik jantzi albaren gainean.

Hasierako ohikuneak

210. Dana prest dagoanean, prozesinoa hasiko da ohi dan lez eleizan zehar altararantz. Abade alkarmeza-emoileak meza-emoile nagusiaren aurretik joango dira.

211. Altarara heltzean, alkarmeza-emoileek eta meza-emoile nagusiak, makurtze nagusia egin ondoren, altareari begirunez mun egingo deutsoe eta dagokion jesarlekura joango da bakotxa. Meza-emoile nagusiak, egoki begitandu ezkero, kurutzea eta altarea intsentsuaz lurrunduko ditu eta gero jesarlekura joango da.

Hitzaren liturgia

212. Hitzaren liturgiakoan, meza-emoile bakotxa bere lekuan egongo da, zutunik edo jesarrita, meza-emoile nagusiak egiten dauanaren arabera.

---

103 Ik. *ibid*., 565. or.

104 Ik. BENEDIKTO XV.a, *Incruentum altaris sacrificium* Konstituzino Apostolikoa (1915.08.10): A.A.S. 7 (1915), 401-404. or.

Aleluia hastean, zutunik jarriko dira danak, Gotzaina izan ezik; honek intsentsua jarriko dau, ezer esan barik, eta bedeinkazinoa emongo deutso Ebanjelioa iragarriko dauan diakonoari edo, diakonorik ez bada, alkarmeza-emoileari. Alkarmezan buru dana abadea bada, ostera, diakonorik ez dalako, Ebanjelioa iragarriko dauan alkarmeza-emoileak, ez deutso meza-emoile nagusiari bedeinkazinoa eskatuko, ezta harengandik hartuko be.

213. Homilia, normalean, meza-emoile nagusiak egingo dau edo alkarmeza-emoileetako batek.

Eukaristiaren liturgia

214. Oparigaien prestaera (*ik. 139-146*) meza-emoile nagusiak egingo dau; bitartean, beste alkarmeza-emoileak euren lekuetan egongo dira.

215. Meza-emoile nagusiak oparigaien gaineko otoitza amaitutakoan, alkarmeza-emoile guztiak altarara hurreratuko dira eta zutunik geratuko altara inguruan, baina ohikuneak egitea eta fededunei ikustea galarazo barik, eta diakonoari be, bere eginkizuna betetzeko altarara hurreratu behar dauanean, galarazo barik.

Diakonoa altara ondoan egongo da, behar danean kalizagaz nahiz Meza Liburuagaz dagokion eginkizuna betetzeko. Baina, ahal dala, zeozertxu atzeratuta egongo da, meza-emoile nagusiaren inguruan egongo diran abade alkarmeza-emoileen atzean.

Zelan esan Eukaristi Otoitza

216. Prefazioa meza-emoile nagusiak bakarrik abestu edo esango dau; Santu, Santua, ostera, alkarmeza-emoile guztiek abestuko edo esango dabe herriagaz eta abesbatzagaz batera.

217. Santu, Santua amaitutakoan, alkarmeza-emoileek Eukaristi Otoitza esaten jarraituko dabe ondoren aitatuko dan eran, baina keinuak meza-emoile nagusiak bakarrik egingo ditu, kontrakorik esaten ez bada.

218. Alkarmeza-emoile guztiei dagokiezan testuak, batez be danek esan beharrekoak diran sagarako hitzak, guztiek batera esango dabez, baina ahots apalez, meza-emoile nagusiaren ahotsa garbi entzun dadin. Holan, herriak hobeto jasoko dau esaten dana.

I. Eukaristi Otoitza edo Erromako Kanona

219. I. Eukaristi Otoitzean edo Erromako Kanonean Zuri, beraz meza-emoile nagusiak bakarrik esango dau, besoak zabalik.

220. Izan gogoan, Jauna, guk gogoan ditugun eta Danok Eleiza osoagaz bat eginik abade alkarmeza-emoileetako batek nahiz bestek esatea komeni da, berak bakarrik, besoak zabalik eta ozen.

221. Hona hemen, Jauna meza-emoile nagusiak bakarrik esango dau, besoak zabalik.

222. Bedeinkatu, Jauna, eskeintza hau otoitzetik Apalik eskatzen deutsugu bitartean, keinuak meza-emoile nagusiak egingo ditu, baina berbak alkarmeza-emoile guztiek esango dabez, honan:

a) Bedeinkatu, Jauna, eskeintza hau, eskuak oparigaien gainera luzatuz;

b) Berak, hil bezperan eta Era berean, afalondoan eskuak batuta;

c) Jaunaren hitzak, egoki eretxi ezkero, eskumako eskua ogirantz eta kalizerantz luzatuz; meza-emoile nagusiak ostia eta kaliza fededunei erakustean, ostiari eta kalizari begituz eta gero makurtze nagusia eginez;

d) Horregaitik, Jauna, guk eta Hartu egizuz begi on eta argiz besoak zabalik;

e) Apalik eskatzen deutsugu makurtuta eta eskuak baturik zure Semearen Gorputz eta Odol santuak hartzen ditugun guztiok esan arte; behingoan, zutundu eta, aitaren eginez, zeruko ondasunez eta graziaz bete gaitezan esango dabe.

223. Hildakoen aldeko Izan gogoan, Jauna eta Guri be, zeure bihotz onean alkarmeza-emoileetako batek nahiz bestek esatea komeni da, berak bakarrik, besoak zabalik eta ozen.

224. Guri be, zeure bihotz onean esatean, alkarmeza-emoile guztiek bularra joko dabe.

225. Honen bitartez, Jauna meza-emoile nagusiak esango dau.

II. Eukaristi Otoitza

226. II. Eukaristi Otoitzean, Santu zara, bai, Jauna meza-emoile nagusiak bakarrik esango dau, besoak zabalik.

227. Egizuz, bada, santu otoitzetik Eta apalik eskatzen deutsugu bitartekoak alkarmeza-emoile guztiek batera esango dabez, honan:

a) Egizuz, bada, santu eskuak oparigaien gainera luzatuz;

b) Berak, saldu ebenean eta Era berean, afalondoan eskuak batuta;

c) Jaunaren hitzak, egoki begitandu ezkero, eskumako eskua ogirantz eta kalizerantz luzatuz; meza-emoile nagusiak ostia eta kaliza fededunei erakustean, ostiari eta kalizari begituz eta gero makurtze nagusia eginez;

d) Horregaitik, Jauna baita Eta apalik eskatzen deutsugu be besoak zabalik.

228. Izan gogoan, Jauna, mundu guztian bizien aldeko eskaria eta Era berean, izan gogoan, Jauna, bizteko itxaropenean hildakoen aldekoa, alkarmeza-emoileetako batek nahiz bestek esatea komeni da, berak bakarrik, besoak zabalik eta ozen.

III. Eukaristi Otoitza

229. III. Eukaristi Otoitzean Santu zara, bai, Jauna meza-emoile nagusiak bakarrik esango dau, besoak zabalik.

230. Apalik, beraz, Jauna otoitzetik Begira, Jauna, zeure Eleizearen eskeintza honi bitartekoak alkarmeza-emoile guztiek batera esango dabez, honan:

a) Apalik, beraz, Jauna eskuak oparigaien gainera luzatuz;

b) Berak, saldu eben gau haretan eta Era berean, afalondoan eskuak batuta;

c) Jaunaren hitzak, egoki eretxi ezkero, eskumako eskua ogirantz eta kalizerantz luzatuz; meza-emoile nagusiak ostia eta kaliza fededunei erakustean, ostiari eta kalizari begituz eta gero makurtze nagusia eginez;

d) Horregaitik, Jauna, guk eta Begira, Jauna, zeure Eleizearen eskeintza honi besoak zabalik.

231. Berak egin gaizala, Gu Zugaz baketzen gaituan opari hau eta Hildako gure senideak eskariak alkarmeza-emoileetako batek nahiz bestek esatea komeni da, berak bakarrik, besoak zabalik eta ozen.

IV. Eukaristi Otoitza

232. IV. Eukaristi Otoitzean Bai, goresten zaitugu otoitzetik santutasunaren betea emoteko bitartekoak meza-emoile nagusiak bakarrik esango ditu, besoak zabalik.

233. Beraz, Jauna otoitzetik Ikusi, begi onez, Jauna bitartekoak alkarmeza-emoile guztiek batera esango dabez, honan:

a) Beraz, Jauna oparigaien gainera eskuak luzatuz;

b) Eta bera goratzeko ordua etorri jatzunean eta Era berean eskuak batuta;

c) Jaunaren hitzak, egoki eretxi ezkero, eskumako eskua ogirantz eta kalizerantz luzatuz; meza-emoile nagusiak ostia eta kaliza fededunei erakustean, ostiari eta kalizari begituz eta gero makurtze nagusia eginez;

d) Horregaitik, Jauna eta Ikusi, begi onez, Jauna besoak zabalik.

234. Orain, Jauna, izan gogoan, Izan gogoan Kristoren bakean eta Zeure seme-alaba eskariak alkarmeza-emoileetako batek nahiz bestek esatea komeni da, berak bakarrik, besoak zabalik eta ozen.

235. Aulki Apostolikoak onartutako beste Eukaristi Otoitzei dagokienaz, gorde beitez horreetako bakotxarentzat ezarrita dagozanak.

236. Eukaristi Otoitzeko azken doxologia meza-emoile nagusiak bakarrik nahiz beragaz batera alkarmeza-emoile guztiek esan daikee, baina ez fededunek.

Jaunartze-ohikunea

237. Gero, meza-emoile nagusiak, eskuak baturik, Gure Aita aurreko oharpena egingo dau eta, ondoren, besoak zabaldurik, gainerako alkarmeza-emoile guztiekin, honeek be eskuak za-

balduta daukiezala, eta herriagaz batera, Jaunaren Otoitza esango dau.

238. Atara gaizuz, Jauna meza-emoile nagusiak bakarrik esango dau, besoak zabalik. Amaieran alkarmeza-emoile guztiek, herriagaz batera, Zeurea dozu erregetza gorespena esango dabe.

239. Diakonoak edo, diakonorik ez bada, alkarmeza-emoile batek Emoiozue bakea alkarri oharpena egindakoan, guztiek alkarri bakea emongo deutsoe. Meza-emoile nagusiaren ondoan dagozanek harengandik hartuko dabe bakea, diakonoaren aurretik.

240. Jaungoikoaren Bildotsa esan bitartean, diakonoek edo alkarmeza-emoile batzuek ogi sagaratua zatitzen lagundu deikioe meza-emoile nagusiari, bai alkarmeza-emoileek bai herriak jaunartzeko.

241. Ostia-zatitxua kalizera bota ondoren, meza-emoile nagusiak, berak bakarrik eta isilik, Jesu Kristo gure Jauna, Jainko biziaren Semea nahiz Jesu Kristo gure Jauna, zure Gorputza eta Odola hartzea otoitza esango dau.

242. Jaunartze aurreko otoitza egin ondoren, meza-emoile nagusia belaunikatu eta aldendu egingo da apur bat. Alkarmeza-emoileak, banan-banan, altara erdira hurreratuko dira eta, belaunikatu ondoren, Kristoren Gorputza hartuko dabe altaratik begirunez eta, eskumako eskuan daukiela eta ezkerrekoa azpian ipinirik, euren lekuetara joango dira. Alkarmeza-emoileak euren lekuetan be gelditu daitekez eta, meza-emoile nagusiak nahiz beste alkarmeza-emoile batek nahiz batzuek, patenea eskuetan dabela, handik hartu daikee Kristoren Gorputza, hareen aurretik igaroz, baita patenea batak besteari emon be, azkenekora heldu arte.

243. Gero, meza-emoile nagusiak Meza haretan sagaratutako ogia hartu eta, patenearen edo kalizaren gainean apurtxu bat jasorik, herriari erakutsiko deutso, esanez: Hona hemen Jaungoikoaren Bildotsa eta, alkarmeza-emoileekin eta herriagaz batera Jauna, ni ez naz inor esango dau.

244. Ondoren, meza-emoile nagusiak, altarara begira, isilik, Kristoren Gorputzak zaindu nagiala betiko bizitzarako esango dau eta Kristoren Gorputza hartuko begirunez. Gauza bera egingo dabe alkarmeza-emoileek bakotxak gure Jauna hartuz. Honeen ondoren, diakonoak meza-emoile nagusiagandik hartuko ditu Jaunaren Gorputza eta Odola.

245. Jaunaren Odola kalizatik bertatik zuzenean edanez hartu daiteke nahiz ogi sagaratua bertan bustiz nahiz tutulu edo koilaratxu bat erabiliz.

246. Jaunartzea kalizatik bertatik zuzenean edanez egiten bada, ondoren aitatzen diran era bi honetakoren baten egin daiteke:

a) Meza-emoile nagusiak, kaliza harturik, Kristoren Odolak zaindu nagiala betiko bizitzarako esango dau isilik eta ardao sagaratu apur bat edango kalizatik; behingoan kaliza diakonoari edo beste alkarmeza-emoile bati emongo deutso. Gero, fededunei emongo deutse gure Jauna (*ik. 160-162. zk.*).

Alkarmeza-emoileak banan-banan edo, kaliza bi erabili ahal balediz, binaka, altarara hurreratu, belaunikatu, ardao sagaratua edan, kalizaren ertza lehortu eta euren jesarlekuetara joango dira.

b) Meza-emoile nagusiak Jaunaren Odola edango dau, ohitura danez, altara erdian.

Alkarmeza-emoileek euren lekuetan hartu daikee Jaunaren Odola, diakonoak edo alkarmeza-emoile batek bakotxari eskeinitako kalizatik edanez, nahiz honeek batak besteari kaliza eskura emonez. Kaliza garbitzea, nahiz edan dauanak nahiz edateko emoten dauanak egin daike. Jaunartu ahala, bakotxa bere lekura joango da.

247. Gelditu dan Kristoren Odol guztia diakonoak hartuko dau begirunez altaran; behar izan ezkero, beste alkarmeza-emoile batzuek lagundu deikioe; ondoren, alboko mahaitxura eroango dau eta han, diakonoak berak edo ohikunez eratua dan akolitoak, ohi dan lez, garbitu, lehortu eta bere lekuan jarriko dau (*ik. 183. zk.*).

248. Alkarmeza-emoileen jaunartzea beste era honetara be egin daiteke: banan-banan altaratik Jaunaren Gorputza hartu eta behingoan Jaunaren Odola hartzen dabela.

Honan egin ezkero, meza-emoile nagusiak ohi dan lez hartuko dau Jauna ogi-ardaoen itxurapean (*ik. 158. zk.*), baina kalizatik edateko

beste alkarmeza-emoileentzat aukeratu dan era bera erabiliz.

Meza-emoile nagusiak Jauna hartutakoan, kaliza altarearen alde baten itziko da, beste sagara-oihal baten gainean. Alkarmeza-emoileek, banan-banan altara erdira hurreratu eta, belaunikatu ondoren, Jaunaren Gorputza hartuko dabe; gero, kaliza dagoan aldera joan eta Jaunaren Odola hartuko dabe, horretarako aukeratu dan erara, lehenago esan danez.

Diakonoaren jaunartzea eta kaliza garbitzea lehenago esan dan lez egingo dira.

249. Alkarmeza-emoileen jaunartzea ogi sagaratua kalizean bustiz egiten bada, meza-emoile nagusiak ohitura danez hartuko ditu Jaunaren Gorputza eta Odola, alkarmeza-emoileek jaunartzeko beharko dan beste ardao sagaratu kalizean geratu dadin kontu izanik. Gero, diakonoak edo alkarmeza-emoileetako batek altara erdian nahiz alde baten itziko dau kaliza, beste sagara-oihal baten gainean, ostia-zatiak daukazan pateneagaz batera.

Alkarmeza-emoileek, banan-banan altarara hurreratu, belaunikatu, ostia hartu, kalizean busti eta, azpian patena ipinirik, ahora eroango dabe. Ondoren euren lekuetara joango dira, Mezearen hasieran lez.

Diakonoak be ogi sagaratua kalizean bustiz hartuko dau Jauna, eta alkarmeza-emoileak Kristoren Gorputza eta Odola esaten deutsonean, Amen erantzungo dau. Gelditu dan Kristoren Odol guztia diakonoak hartuko dau begirunez altaran; behar izan ezkero, beste alkarmeza-emoile batzuek lagundu deikioe; ondoren, alboko mahaitxura eroango dau eta han, diakonoak berak edo ohikunez eratua dan akolitoak, ohi dan lez, garbitu, lehortu eta bere lekuan jarriko dau.

Amaierako ohikunea

250. Meza amaitu arteko guztiak, meza-emoile nagusiak egingo ditu, ohi dan erara (*ik. 166-168. zk.*), alkarmeza-emoileak euren lekuetan dagozala.

251. Altaratik bihurtu baino lehen, makurtze nagusia egingo deutsoe alkarmeza-emoileek altareari. Eta meza-emoile nagusiak diakonoagaz batera mun egingo deutso, ohitura danez.

III. Mezea, zerbitzari bakar batek parte hartzen dauanean

252. Abadeak, zerbitzari bakar batek lagunduz eta erantzunez emoten dauan Mezan, herriagaz ospatzen dan Mezako ohikune bera erabiliko dau (*ik. 120-169. zk.*); holakoetan, laguntzaileak esango ditu herriari dagokiozan zatiak.

253. Baina laguntzaile hori diakonoa bada, berari dagokiozanak egiteaz gainera (*ik. 171-186. zk.*), herriari dagokiozan beste zatiak be egingo ditu.

254. Laguntzailerik edo gitxienean fededunen bat barik ez bedi Mezarik emon, arrazoi garrantzitsu eta larriren bat izan ezik. Kasu honetan, ez da agurrik eta oharpenik egingo, ezta bedeinkazinorik emongo be Mezearen amaieran.

255. Meza aurretik, beharrezko diran ontziak prestatu eta alboko mahaitxuan nahiz altarearen eskumaldean jarriko dira.

Hasierako ohikuneak

256. Abadeak, altarara heltzean, makurtze nagusia egingo dau laguntzaileagaz batera, altareari mun egin eta jesarlekura joango da. Nahi izan ezkero, altaran be gelditu daiteke; kasu honetan, han jarriko dau Meza Liburua. Orduan laguntzaileak nahiz abadeak sarrerako antifona esango dau.

257. Ondoren, abadeak laguntzaileagaz batera, zutunik, aitaren egingo dau, Aitaren, eta Semearen esanez; eta, zerbitzariari begira, agurtu egingo dau, ohiko formula bat erabiliz.

258. Jarraian, damu-otoitza egingo dau eta, arauek dinoen eran, Erruki, Jauna eta Aintza zeruetan esango.

259. Gero, eskuak batuta, Egin daigun otoitz esan eta, isilune egoki bat egin ondoren, besoak zabalik, Mezako otoitza esango dau. Azkenean, laguntzaileak Amen erantzungo dau.

Hitzaren liturgia

260. Irakurgaiak, ahal dala, irakurtokitik edo atriletik iragarriko dira.

261. Otoitza esan ondoren, laguntzaileak lehenengo irakurgaia eta salmoa irakurriko ditu eta, behar danean, bigarren irakurgaia eta Aleluia bere txatalagaz edo beste kanturen bat.

262. Gero, abadeak, makurtze nagusia eginez, Garbitu egizuz esango dau eta Ebanjelioa irakurriko, azkenean Jaunak esana esanez; laguntzaileak Eskerrak Zuri, Jauna erantzungo dau. Ondoren, abadeak liburuari mun egingo deutso, Ebanjelioko hitzez isilik esanez.

263. Jarraian, arauek halan agintzen badabe, laguntzaileagaz batera fede-autormena egingo dau abadeak.

264. Gero, Meza honetan be, Jainkoaren herriaren otoitza egin daiteke. Abadeak sarrerako eta amaierako otoitzak egingo ditu, laguntzaileak eskariak egingo dituala.

Eukaristiaren liturgia

265. Eukaristiaren liturgian dana herriagaz ospatzen dan Mezakoan lez egingo da, ondoren esaten diranak izan ezik.

266. Gure Aita-ren ondorengo enbolismoaren azkenean datorren gorespena amaiturik, abadeak Jesu Kristo gure Jauna, Zeuk esana da Apostoluei otoitza egingo dau; ondoren Jaunaren bakea beti zuekin esango dau eta laguntzaileak Eta zure espirituarekin erantzungo. Egoki begitandu ezkero, bakea emongo deutso abadeak laguntzaileari.

267. Gero, laguntzaileagaz batera Jaungoikoaren Bildotsa esan bitartean, ogi sagaratua zatituko dau abadeak patenearen gainean. Jaungoikoaren Bildotsa amaitutakoan, ostiazatia kalizera botako dau, Kaliza honetan esanez isilik.

268. Hori egin ondoren, Jesu Kristo gure Jauna, Jainko biziaren Semea nahiz Jesu Kristo gure Jauna, zure Gorputza eta Odola hartzea otoitza esango dau abadeak isilik; gero, belaunikatu eta ogi sagaratua hartuko dau eta, laguntzaileak jaunartu behar badau, berari begira eta patenearen edo kalizaren gainean ogi sagaratua apur bat jasorik, Hona hemen Jaungoikoaren Bildotsa esango dau eta, jarraian, laguntzaileagaz batera, Jauna, ni ez naz inor. Ondoren, altarara begira, Kristoren Gorputza hartuko dau. Laguntzaileak jaunartu behar ez badau, ostera, abadeak, belaunikatu, ogi sagaratua hartu eta altarara begira, Jauna, ni ez naz inor eta Kristoren Gorputzak zaindu nagiala esango dau isilik, eta ogi sagaratua hartuko. Jarraian kaliza hartu eta, Kristoren Odolak zaindu nagiala esan ondoren, ardao sagaratua hartuko dau.

269. Laguntzaileari gure Jauna emon aurretik, jaunartze-antifona esango dau laguntzaileak nahiz abadeak berak.

270. Abadeak kaliza garbituko dau altarearen alde baten nahiz alboko mahaitxuan. Altaran garbitu bada kaliza, alboko mahaitxura eroan daike laguntzaileak, nahiz altarearen alde baten itzi.

271. Kaliza garbitutakoan, abadeak isilune bat egitea komeni da; gero, jaunartze ondorengo otoitza esango dau.

Amaierako ohikunea

272. Amaierako ohikunea herriagaz ospatutako Mezakoan lez egingo da, baina Zoaze Jaunaren bakean esan barik.

IV. Arau orokor batzuk edozein meza eratarako

Altarea eta Ebanjelio Liburua agurtzea

273. Tradizinoari jarraituz, altarea eta Ebanjelio Liburua agurtzea mun eginez adierazoten da. Baina, agiriko ezaugarri honi herrialderen bateko kultur tradizinoan egoki begitantzen ez bajako, Gotzainen Batzarrak beste ezaugarri bat ezarri leike horren ordez, Aulki Apostolikoaren oneretxiagaz.

Belaunikatzea eta makurtzea

274. Eskumako belauna lurreraino tolestuz egiten dan belaunikatzeak gurtza edo adorazinoa esan gura dau; horregaitik, Sakramentu guztiz

santuari egiten jako, baita Kurutze santuari be, Bariku Santuko Nekaldiaren Ospakizunetik Pazko Gaubelaren hasiera bitartean.

Mezatan hiru bider egiten dau meza-emoile nagusi dan abadeak belaunikatzea: ogi sagaratua erakutsi ondoren, kaliza erakutsi ondoren eta jaunartu aurretik. Alkarmezan gorde beharreko zehaztasunak bere lekuan adierazo dira (*ik. 210-251. zk.*).

Baina sagrarioa, Sakramentu guztiz santuagaz, presbiterioan balego, Mezearen hasieran eta amaieran belaunikatuko dira abadea, diakonoa eta beste laguntzaileak, ez, ostera, Mezearen ospakizun barruan.

Bestetara, belaunikatu egingo dira danak Sakramentu guztiz santuaren aurretik igarotzean, prozesinoan ez badatoz.

Prozesinoan kurutzea eta kandelak daroezan laguntzaileek, belaunikatu ordez, burua makurtuko dabe.

275. Makurtzeak pertsonei nahiz horreen ezaugarriei erakusten jaken begirunea eta ohorea esan gura dau. Era bitakoa da makurtzea: buruaz egina edo gorputzaz egina.

a) Jainkozko hiru Pertsonak batera aitatzen diranean eta Jesusen izena, Andra Mariaren eta Meza-ospakizuna egiten jakon santuarena aitatzen diranean be, burua makurtuko da.

b) Gorputza makurtzea, barriz, edo makurtze nagusia, beste kasu honeetan egingo da: altarearen aurrean; Garbitu egizuz eta Onartu gaizuz, Jauna otoitzak esaterakoan; fede-autormenean Eta, Espiritu Santuaren egitez esaterakoan; eta Erromako Kanona edo I. Eukaristi Otoitzean Apalik eskatzen deutsugu otoiza esaterakoan. Era berean, gorputza makurtuko dau diakonoak, Ebanjelioa iragartzeko bedeinkazinoa eskatzean. Abadea be makurtu egingo da apur bat, sagarakoan Jaunaren hitzak esatean.

Intsentsuaz lurruntzea

276. Intsentsuaz lurruntzeak begirunea eta otoitza adierazoten dau, Liburu Santuetan ikusi daitekenez (ik. *Sal* 141 [140], 2: *Ap* 8, 3).

Edozein Meza-eratan erabili daiteke intsentsua:

a) sarrerako prozesinoa egiten dan bitartean;

b) Mezearen hasieran, kurutzea eta altarea lurruntzeko;

c) Ebanjeliorako prozesinoan eta Ebanjelioa iragartzerakoan;

d) ogi-ardaoak altara gainean jarririk, oparigaiak, kurutzea eta altarea, eta abadea eta herria be lurruntzeko;

e) sagara ondoren ostia eta kaliza erakusterakoan.

277. Abadeak intsentsua ontzian jarri eta, ezer esan barik, kurutze-seinalea eginez bedeinkatuko dau.

Lurrundu aurretik eta ondoren, makurtze nagusia egingo jako intsentsua emoten jakon pertsoneari nahiz gauzeari, baina ez altareari eta Mezako oparigaiei.

Intsentsu-ontziaren bina kolpe hiru bider emonez lurrunduko dira: Sakramentu guztiz santua, Kurutze santuaren erlikiak eta jentaurrean gurtzeko jarrita dagozan Jaunaren irudiak, Mezako oparigaiak, altarako kurutzea, Ebanjelio Liburua, pazko-zuzia, abadea eta herria.

Bina kolpe birritan emonez lurrunduko dira: jentaurrean gurtzeko jarrita dagozan santuen erlikiak eta irudiak eta, hain zuzen, ospakizunaren hasieran bakarrik, altarea lurrundu ondoren.

Altarea honan lurrunduko da kolpe banaka:

a) Altarea hormatik bereizia badago, ingurubira eginez lurrunduko dau abadeak.

b) Hormatik bereizia ez badago, barriz, lehenengo altarearen eskumaldea lurrunduko dau abadeak, eta gero ezkerraldea.

Kurutzea altaran bertan edo aldamenean badago, altarea bera baino lehenago lurrunduko da. Altarearen atzekaldean badago, beraren aurretik igarotakoan lurrunduko da.

Kurutzea eta altarea lurrundu aurretik, oparigaiak lurrunduko ditu abadeak, bina kolpe hiru bider emonez nahiz oparigaien gainean intsentsu-ontziagaz kurutzearen seinalea eginez.

Garbiketak

278. Ogi sagaratuaren zatiren bat atzamarretan itsatsita geratzen danean, batez be ogi sagaratua zatitzean edo fededunei gure Jauna emon ondoren, patena gainean garbituko ditu abadeak atzamarrak eta, behar izan ezkero, urez be bai. Era berean, patenatik kanpo zatirik geratzen danean, batu egingo dau.

279. Ontzi sakratuak abadeak, diakonoak nahiz eratutako akolitoak garbituko ditu, jaunartze nahiz Meza ondoren eta, ahal dala, alboko mahaitxuan. Kaliza urez bakarrik nahiz ardaoz eta urez garbituko da, eta garbitzen dauanak berak hartuko dau ur hori. Patenea, gehienetan, nahikoa da garbi-zapitxuaz garbitzea.

Kontu izan bedi, gure Jauna emon ondoren gelditu daiteken Kristoren Odola orduan bertan eta guztiz edan behar dala altaran.

280. Ogi sagaratua nahiz honen zatitxuren bat lurrera jausten danean, begirunez jasoko da. Ardao sagaratutik zeozer isurtzen danean, isuri daneko lekua urez garbituko da, eta gero ur hori sakristiako urtegira botako.

Ogi-ardaoen itxurapean jaunartzea

281. Jaunartzeak, ezaugarri dan aldetik, esanahi beteagoa dau ogi-ardaoen itxurapean egiten danean. Agertu be, era honetan agertzen da argien eukaristi jatorduaren ezaugarria; argiago adierazoten da Jaunaren Odolean egiten dan itun barri eta betikoa onartzeko borondatea be, eta hobeto ikusten eukaristi jatorduak eta Aitaren erreinuko jatordu eskatologikoak alkarregaz daben zerikusia.[105]

282. Ahalegindu beitez eleiz artzainak ohikunean tarteko diran edo esku hartzen daben fededunei Trentoko Kontzilioak jaunartzeko era honi buruz emondako irakaspen katolikoa modurik egokienean gogora ekartzen. Azaldu begie, lehenengo, fede katolikoak irakasten deuskuna: ogiaren nahiz ardaoaren itxura bakarraren pean be Kristo osorik dagoala eta egiazko Sakramentua hartzen dala; horregaitik, jaunartzearen frutuei gagokiezala, itxura bakarraren pean gure Jauna hartzen dauanak ez dauala salbazinorako behar diran grazietatik ezer galtzen.[106]

Irakatsi begie, gainera, Eleizeak badauala ahalmenik Sakramentuak zelan emon zehazteko nahiz, beti be mamina gorde ezkero, aldatzeko, fededunentzat mesedegarriena zer dan gogoan izanik, bai sakramentuen gurtzarako, bai hartzaileen onerako, kontuan izanik gauzen, aldien eta lekuen egoera desbardinek eskatzen dabena.[107] Eta ekarri begie gogora, aldi berean, ohikune santuan ahalik egokien parte hartzen arduratu behar dabela, eukaristi jatorduaren ezaugarria ondohain agertzen dan eran, hain zuzen.

283. Sakramentu-liburuetan esanak dagozan kasuez gainera, zilegi dabe ogi-ardaoen itxurapean jaunartzea:

a) Eukaristia nahiz alkarmeza ospatu ezin daben abadeek;

b) Mezan eginkizunen bat bete daben diakonoak nahiz beste laguntzaileek;

c) komentu-mezan nahiz «alkartekoa» esaten dan Mezan alkartekideek, baita seminarioetako abadegaiek, gogo-jardunak egiten diharduenek, edo batzar espiritualean nahiz pastoralean parte hartzen dabenek be.

Jaunartzea ogi-ardaoen itxurapean egiteari buruz arauak emon leikez Gotzainak bere Eleizbarrutirako, eta gorde beharrekoak dira arau honeek baita erlijioso-erlijiosen eleizetan eta talde txikietan be. Ahalmena emoten jako Gotzain berari, ogi-ardaoen itxurapean jaunartzeko baimena emon ahal izateko abadeari, honek bere ardurapean jarritako kristau-alkartean holan egitea egoki izango dala ikusten dauan kasuetan, beti be fededunak ondo irakatsiak izanik, Sakra-

105 Ik. OHIKUNEETARAKO KONGREGAZINO SAKRATUA, *Eucharisticum mysterium* Irakaspena (1967.05.25), 32. zk.: A.A.S. 59 (1967), 558. or.

106 Ik. TRENTOKO KONTZILIO EKUMENIKOA, XXI. Batzarraldia (1562.07.16), jaunartze eukaristikoari buruzko Dekretua, 1-3. kap.: Denz.-Schönm. 1725-1729.

107 Ik. *ibid.,* 2. kap.: Denz.-Schönm. 1728.

mentua profanatzeko arriskurik ez bada eta jentetza handia dalako ohikunea zaila izaten ez bada.

Gure Jauna fededunei ogi-ardaoen itxurapean zelan emon eta ahalmen hau zabalago emoteari buruz arauak emon daikeez Gotzainen Batzarrek, Aulki Apostolikoaren onespenez.

284. Gure Jauna ogi-ardaoen itxurapean emotekoa danean:

a) kalizaren zerbitzua normalean diakonoak egingo dau edo, diakonorik ez bada, abadeak; baita ohikunez eratutako akolitoak edo gure Jauna emoteko ezohiko zerbitzariak be; halakoari kasu bakotxerako emongo jako eginkizun hau;

b) Jauna emon ondoren gelditu izango dan Kristoren Odola altaran bertan edaten dau abadeak nahiz diakonoak nahiz kaliza emoten lagundu dauan ohikunez eratutako akolitoak, eta ondoren garbitu, lehortu eta euren lekuetan jarriko ditu ontzi sakratuak.

Ogi-itxurapean bakarrik jaunartu nahi daben fededunei, holan emon bekie gure Jauna.

285. Gure Jauna ogi-ardaoen itxurapean emoteko prestatu beitez:

a) jaunartzea ardao sagaratua zuzenean kalizatik edanez egitekoa bada, behar baizen handi izango dan kaliza edo behar beste kaliza, kontu izanez, ostera, Kristoren Odol gehiegi geratu ez dadin ospakizunaren amaieran edateko;

b) ogi sagaratua kalizean bustiz egitekoa bada, ostiak ez daitezala ahulegiak edo txikiegiak izan, ohikoak barik loditxuagoak baino, parte bat Kristoren Odoletan bustirik egoki emon ahal izateko.

286. Jaunartzea ardao sagaratua kalizatik edanez egitekoa bada, jaunartzailea Kristoren Gorputza hartu ondoren kaliza daukan zerbitzariagana joan eta haren aurrean jarriko da zutunik. Zerbitzariak esango dau Kristoren Odola; jaunartzaileak erantzungo Amen. Zerbitzariak kaliza emongo deutso, eta harek bere eskuz eroango dau ahora; kalizatik apur bat edan, barriro zerbitzariari bihurtu eta bere lekura joango da; zerbitzariak kalizaren ertza zapitxuaz garbituko dau.

287. Jaunartzea ogi sagaratua kalizean bustita egitekoa bada, jaunartzailea, patenea okots azpian jarririk, ogi sagaratu zatien ontzia dauan abadeagana hurreratuko da, alboan kaliza daukan laguntzailea dauala. Abadeak ostia hartu, zati bat kalizean busti eta erakutsiz esango dau Kristoren Gorputza eta Odola; jaunartzaileak erantzungo dau Amen. Abadeak emongo deutson Sakramentu santua ahoan hartu eta bere lekura joango da.

V. KAPITULUA
ELEIZEN ERAKETA ETA APAINDURA EUKARISTIAREN OSPAKIZUNERAKO

I. Printzipio orokorrak

288. Eukaristia ospatzeko Jainkoaren herria eleizan batzen da gehienetan edo, eleizarik ez bada edo txikiegia danean, misterio handi hau ospatzeko duina dan beste leku egokiren baten. Eleizek eta beste leku honeek, beraz, ekintza santu hau burutzeko eta fededunek egitez esku hartzeko egokiak izan behar dabe. Etxe santuek eta liturgian erabiltzen diran gauzek, gainera, horretarako gai eta ederrak izan behar dabe, gauza zerutarren agerbide eta sinbolo diranez.[108]

289. Hona zergaitik gura izaten dauan Eleizeak artegintzaren zerbitzu prestua, eta hona zer-

108 Ik. VATIKANOKO II. KONTZILIO EKUMENIKOA, *Sacrosanctum Concilium* liturgia sakratuari buruzko Konstituzinoa, 122-124. zk.; *Presbyterorum Ordinis* abadeen ministerioari eta bizitzari buruzko Dekretua, 5. zk.; OHIKUNEETARAKO KONGREGAZINO SAKRATUA, *Inter Oecumenici* Irakaspena (1964.09.26), 90. zk.: A.A.S. 56 (1964), 897. or.; *Eucharisticum mysterium* Irakaspena (1967.05.25), 24. zk.: A.A.S. 59 (1967), 554. or.; *Zuzenbide Kanonikoaren Kodea,* kan. 932 § 1.

gaitik emoten dituan ontzat nazino eta herrialde guztietako arte-adierazpenak.[109] Gehiago oraindino, iraganeko gizaldietako artelanak eta altxorrak zaindu eta gordetzen[110] eta, behar danean, gure egunetako preminetara egokitzen ahalegintzen dan lez, aldi bakotxari ondo datorkiozan arte-era barriak sortzen be ahalegintzen da.[111]

Hori dala-eta, ertilariei heziera emotean eta eleizetarako artelanak aukeratzean, izan bedi kontuan artearen egiazko bikaintasuna, fedearentzat eta jainkozaletasunarentzat benetan mesedegarri izan daitezan eta jadetsi nahi diran esanahia eta helburuak lortzeko be benetan egokiak izan daitezan.[112]

290. Eleiza guztiak sagaratu egin behar dira edo gitxienean bedeinkatu. Gotzain-eleizak edo katedralak eta parroki eleizak ohikune ospetsuz sagaratu behar dira.

291. Etxe sakratuak eraikitzen, erabarritzen eta egokitzen diharduenek Eleizbarrutiko Liturgi eta Eleiz Artearen Batzordeari aholkua eskatu behar deutsoe. Arlo honetan arauak ezartzeko edo etxe barrien planoak ontzat emoteko nahiz garrantzizko arazoei buruz eretxia emoteko, Batzorde horren kontseilua eta laguntasuna izan behar ditu Eleizbarrutiko Gotzainak.[113]

292. Eleizearen apaindureak gehiago begitu behar deutso edertasun apalari, handikeria distiratsuari baino. Apaingarri diran osagaiak aukeratzekoan, zaindu bedi gauzen egiazkotasuna eta izan bedi kontuan fededunen heziera eta leku sakratu osoaren duintasuna.

293. Eleizea bera eta inguruan dituan beste lekuak be gure sasoietako beharrizanei erantzuteko egoki eratuak izan daitezan, beharrezko da kontuan izatea ospakizun sakratuekin zuzenean zerikusia dabenak ez ezik, baita bidezkoa dan fededunen erosotasuna eta herria batzen dan lekuetan gehienetan kontuan izaten diranak be.

294. Mezatarako batzen dan Jainkoaren herriak ordena koherentea eta hierarkikoa dau beragan; hori ospakizunaren zati bakotxeko zerbitzu eta ekintza desbardinetan adierazoten da. Horregaitik, leku sakratuaren eraketa orokorrak batuta dagoan batzarraren irudia zeozelan emotea komeni da, danen arteko ordena egokia erraztea eta zerbitzu bakotxa ondo egiteko be lagungarri izatea.

Fededunak eta abesbatza euren esku-hartze bizia erraztu leiken lekuan egongo dira.[114]

Abade meza-emoilea, diakonoa eta beste laguntzaileak presbiterioan egongo dira. Han prestatuko dira alkarmeza-emoileentzako jesarlekuak; asko balira, ostera, eleizako beste alde baten, baina altaratik hurrean, prestatu beitez horreentzako jesarlekuak.

Honek guztiak, eraketa hierarkikoa eta zerbitzuen desbardintasuna adierazoteaz gainera, barru-barruko batasun egokia be egin behar dau, argi agertu dadin herri santu guztiaren batasuna. Leku sakratuaren eta beste gauza guztien izaerak eta edertasunak jainkozaletasuna biztu eta ospatzen dan misterioaren santutasuna adierazoteko gauza izan behar dabe.

---

109 Ik. VATIKANOKO II. KONTZILIO EKUMENIKOA, *Sacrosanctum Concilium* liturgia sakratuari buruzko Konstituzinoa, 123. zk.

110 Ik. OHIKUNEETARAKO KONGREGAZINO SAKRATUA, *Eucharisticum mysterium* Irakaspena (1967.05.25), 24. zk.: A.A.S. 59 (1967), 554. or.

111 Ik. VATIKANOKO II. KONTZILIO EKUMENIKOA, *Sacrosanctum Concilium* liturgia sakratuari buruzko Konstituzinoa, 123 eta 129. zk.; OHIKUNEETARAKO KONGREGAZINO SAKRATUA, *Inter Œcumenici* Irakaspena (1964.09.26), 13c zk.: A.A.S. 56 (1964), 880. or.

112 Ik. VATIKANOKO II. KONTZILIO EKUMENIKOA, *Sacrosanctum Concilium* liturgia sakratuari buruzko Konstituzinoa, 123. zk.

113 Ik. *ibid.,* 126. zk.; OHIKUNEETARAKO KONGREGAZINO SAKRATUA, *Inter Œcumenici* Irakaspena (1964.09.26), 91. zk.: A.A.S. 56 (1964), 898. or.

114 Ik. OHIKUNEETARAKO KONGREGAZINO SAKRATUA, *Inter Œcumenici* Irakaspena (1964.09.26), 97-98. zk.: A.A.S. 56 (1964), 899. or.

II. Presbiterioaren eraketa ospakizun sakraturako

295. Altarea dagoan lekua da presbiterioa, Jainkoaren hitza iragartzen dan eta abadeak, diakonoak eta beste laguntzaileek euren eginkizuna betetzen daben lekua. Bereizia egongo da eleizako areto nagusitik, goratxuago dagoalako edo egitura eta apaindura berezia daukalako. Baina bertan Eukaristia eroso ospatzeko eta ondo ikusi ahal izateko adina leku izan behar dau.[115]

Altarea eta honen apaindura

296. Altaran kurutzeko oparia barriztatzen da sakramentu-ezaugarripean; Jaunaren mahaia be bada, eta bertan parte hartzeko batzen da Jainkoaren herria; Eukaristian gauzatzen dan eskerrak emoteko gunea da gainera.

297. Leku sakratuan egiten dan Eukaristiaren ospakizuna altaran egin behar da; leku sakratutik kanpo be ospatu daiteke mahai egoki baten gainean, beti be altara-zapia eta sagara-oihala, kurutzea eta argimutilak erabiliz.

298. Eleiza guztietan altareak mugiezina izan behar dau; Harri bizia dan Kristo Jesus (*1 P* 2, 4; ik. *Ef 2*, 20) irudikatzen dau altareak garbi eta iraunkor; ospakizun sakratuak egiteko dagozan beste lekuetan, ostera, mugikorra izan daiteke altarea.

Zoruari loturik dagoalako, lekuz aldatzerik ez dagoan altareari esaten jako mugiezina; tokiz aldatzeko modukoa bada, barriz, mugikorra.

299. Altara nagusia hormatik bereizia egin behar da, erraz inguratzeko eta ospakizuna herrira begira egiteko eran, hori da-eta egokiena, ahal dan neurrian. Batzarrean batuta dagozan fededun guztiek berez-berez eta adi-adi ikusi ahal izango daben lekuan egon behar dau.[116]

Altara nagusia normalean aldatuezina eta sagaratua izango da.

300. Altarak, mugiezinak nahiz mugikorrak izan, «Pontificale Romanum» dalakoak dakarzan ohikuneen arabera sagaratuko dira; altara mugikorrak, halan be, nahikoa da bedeinkatzea.

301. Altara mugiezina dan mahaiak, Eleizearen tradizinozko ohiturearen eta haren esanahiaren arabera, harrizkoa izan behar dau, berezko harriz egina, hain zuzen. Halan be, izan daiteke beste gai batez egina, gai hau duina, sendoa eta ondo landua izan ezkero, Gotzainen Batzarraren eretxiz. Mahaiaren oina edo behea edozein gaiz eginikoa izan daiteke, duina eta sendoa izan ezkero.

Altara mugikorra edozein gaiz egin daiteke, gai duina, sendoa eta liturgiarako egokia izan ezkero, herrialde bakotxeko tradizinoaren eta ohituren arabera.

302. Sagaratuko dan altara azpian santuen erlikiak, martirienak ez izan arren, ipintzeko ohitura gordetzea komeni da. Baina erlikia honeek egiazkoak dirala jakiteko ardura hartu behar da.

303. Eleiza barriak egitekoan altara bakarra eraikitzea komeni da, Kristo bakarra dala-eta Eleizearen Eukaristia be bakarra dala adierazo dagian fededunen batzarrean.

Lehen eraikitako eleizetan, altarea kokatuta dagoan eran kristau-herriaren parte-hartzea zail izaten danean eta altara hori beste leku batera eroaterik ez dagoanean bere arte-balioari kalterik egin barik, eraiki bedi mugiezina dan beste altara bat, artetsu egina eta behar danez sagaratua, eta altara honetan bakarrik egin beitez ospakizun sakratuak. Fededunen arreta altara barrira zuzendu dadin, ez bedi aparteko apainduraz jantzi altara zaharra.

304. Jaunaren oroigarriaren ospakizunari eta Jaunaren Gorputza eta Odola banatzen diran jatorduari zor jaken begirunea dala-eta, ospakizuna egingo dan altara gainean gitxienez zapi zuri bat ipini behar da; zapi honek eraz, neurriz eta apainduraz altarearen beraren egiturari dagokiona izan behar dau.

---

115 Ik. *ibid.,* 91. zk.: A.A.S. 56 (1964), 898. or.
116 Ik. *ibid.*

305. Altarearen apainduran neurritsu izan behar da.

Abendualdian apaindu bedi loraz altarea, baina neurritsu, liturgialdi honen izaerak eskatzen dauan lez, Jaunaren Jaiotzari dagokion alaitasun betea aurreratu barik. Garizuman galarazota dago altarea loraz apaintzea. Salbuespena egingo da, ostera, Lætare domekan (Garizumako IV. domekan), festaburuetan eta jaietan.

Lora-apaindurak neurritsua izan behar dau beti, eta hobe da lorak altara-inguruan jartzea, altara-mahai gainean baino.

306. Altara-mahai gainean, hain zuzen, Mezearen ospakizunerako behar diranak bakarrik jarri daitekez, hau da: Ebanjelio Liburua ospakizunaren hasieratik Ebanjelioa iragarri arte, kaliza pateneagaz oparigaien aurkezpenetik ontzi sakratuak garbitu arte, kopoia behar izan ezkero, sagara-oihala, garbi-zapitxua, kaliza-estalkitxua eta Meza Liburua.

Jarri bedi, gainera, era egokian, abadearen ahotsa jasotzeko beharrezko dan bozgorailua.

307. Liturgi ekintza bakotxean beharrezko dira argimutilak, begirunearen eta jai-giroko ospakizunaren adierazgarri (*ik. 117. zk.*); altara gainean nahiz inguruan, ondohain datorkien eran ipiniko dira, altarea eta presbiterioa zelakoak diran kontuan izanik, gauza guztien artean batasun egokia izan dadin eta altaran egingo edo jarriko diranak ondo ikustea fededunei galarazo ez deien.

308. Era berean, altara gainean nahiz alboan, Kristo kurutzeratuta dauan kurutzea ipiniko da, batzarrean batuta dagoan herriak ondo ikusteko eran. Kurutze hau, liturgi ospakizunez kanpo be, altara ondoan egotea komeni da, Jaunaren nekaldi salbagarriaren oroipena fededunei gogora ekartzearren.

Irakurtokia

309. Jainkoaren hitzaren duintasunak eskatzen dauanez, leku berezia izan behar da Eleizan berba hori iragartzeko, Jainkoaren hitzaren liturgia sasoian fededunen gogo-begiak bertara berez-berez bihurtuarazoteko moduan.[117]

Leku hau gehienetan irakurtoki mugiezina izatea komeni da, ez atril mugikor hutsa. Eleizearen egituraren arabera, herriak zerbitzari ordenatuak eta irakurleak ondo ikusi eta entzuteko moduan ipinita egon behar dau irakurtokiak.

Irakurgaiak, erantzun-salmoa eta pazkodeia bakarrik iragarriko dira irakurtokitik; homilia eta Jainkoaren herriaren otoitza be bertatik egin daitekez. Irakurtokiaren duintasunak eskatzen dauanez, hitzaren zerbitzariak bakarrik igon behar dau bertara.

Irakurtoki barria liturgiarako erabili aurretik bedeinkatzea komeni da, Erromako Ohikune Liburuaren arabera.[118]

Abade meza emoilearen jesarlekua eta gainerako jesarlekuak

310. Meza-emoile dan abadearen jesarlekuak batzarburu- eta otoitz zuzendari-eginkizuna dauana bera dala adierazo behar dau. Hori dala-eta, horretarako lekurik egokiena presbiterioaren gorenean, herriari begira dagoan lekua izango da normalean, Eleizearen egiturak edo beste zeozek besterik eskatzen ez badau, esate baterako, urrunegi egoteagaitik abadearen eta batutako batzarraren arteko hartuemonak zaildu egiten baditu, edo sagrarioa altara atzeko lekuaren erdian ipinita badago. Ez dau tronu-itxurarik izan behar.[119] Jesarleku hau liturgia ospakizunetarako erabili aurretik bedeinkatzea komeni da, Erromako Ohikune Liburuaren arabera.[120]

---

117 Ik. OHIKUNEETARAKO KONGREGAZINO SAKRATUA, *Inter Œcumenici* Irakaspena (1964.09.26), 96. zk.: A.A.S. 56 (1964), 899. or.

118 Ik. ERROMAKO OHIKUNE LIBURUA, *De benedictionibus*, ed. typ., 1984, Irakurtoki barriaren bedeinkazinoa, 900-918. zk.

119 Ik. OHIKUNEETARAKO KONGREGAZIO SAKRATUA, *Inter Œcumenici* Irakaspena (1964.09.26), 92. zk.: A.A.S. 56 (1964), 898. or.

120 Ik. ERROMAKO OHIKUNE LIBURUA, *De benedictionibus*, ed. typ., 1984, Batzarburuaren aulkiaren bedeinkazinoa, 880-899. zk.

Era berean, presbiterioan jarriko dira abade alkarmeza-emoileentzako aulkiak, baita, alkarmeza-emoile ez izan arren, koru-jantziz alkarmezan dagozan gainerako abadeentzat be.

Diakonoaren aulkia meza-emoile nagusiaren jesarlekuaren ondoan egongo da. Beste laguntzaileentzako aulkiak abadeen aulkietatik ondo bereizteko moduan jarriko dira, hareei dagokien eginkizuna erraz bete ahal izateko eran.[121]

III. Eleizea zelan eratu

Fededunen lekua

311. Fededunen lekua ardura handiz eratu behar da, hareek begiz eta espirituz ospakizun sakratuetan esku hartu ahal izan dagien. Gehienetan aulkiak eta jesarlekuak izatea mesedegarri da. Baina ez da ontzat hartzekoa, pertsona pribatu batzurentzat jesarleku bereziak eukitzeko ohiturea.[122] Aulkiak eta jesarlekuak, batez be barrien barri eraikitako Eleizetan, egoki dan eran ipiniko dira, ospakizunaren une bakotxean izan behar dan gorputz-jarrera fededunek erraz hartu dagien eta, gure Jauna hartzekoan, eroso ibili ahal izan daitezan.

Kontu izan behar da, fededunek, bai abadea bai diakonoa eta irakurleak ikusi ez ezik, gaur egungo teknika-bidezko entzungailuen bitartez horreek guztiek ondo entzuteko era izan dagien.

Abesbatzaren eta musikagailuen lekua

312. Eleizearen egiturea kontuan izanik, abesbatzaren lekuak argi erakutsi behar dau zer dan: batzarrean batuta dagoan fededun-alkartearen zati, hau da, ospakizunean berariazko eginkizuna dauana; egokia izan dadila leku hori, abesbatzak bere eginkizuna ondo bete dagian, eta abeslari bakotxari Mezan parte hartzea, hau da, sakramentuz parte hartzea be erraztu deion.[123]

313. Organoa eta legez ontzat emondako beste musikagailuak euren lekuetan egongo dira, hau da, abeslariei eta herriari kantuan egoki lagunduko deutsien lekuan eta, hareek bakarrik diharduenean, guztiek ondo entzun ahal izango daben lekuan. Organoa liturgi ospakizunetarako erabili aurretik bedeinkatzea komeni da, Erromako Ohikune Liburuaren arabera.[124]

Abendualdian organoa eta gainerako musikagailuak neurritsu erabiliko dira, liturgialdi honen izaerak eskatzen dauan lez, Jaunaren Jaiotzari dagokion alaitasun betea aurreratu barik.

Garizuman kantuari eusteko bakarrik dago baimenduta organoaren eta beste musikagailuen erabilera. Salbuespen egingo da, ostera, Lætare domekan (Garizumako IV. domekan), festaburuetan eta jaietan.

Eukaristia guztiz santua gordetzeko lekua

314. Eleizearen egitura eta leku bakotxeko legezko ohiturak kontuan izanik, Sakramentu guztiz santua sagrarioan gordeko da, Eleizako leku oso duin, dotore, ondo ikusi daiteken, apaindutako eta otoitzerako egokia dan lekuan.[125] Sagrarioak normalean bakarra izan behar dau, mugiezina, gai sendoz egina eta hautsezina; ez dau barrua agirian itzi behar eta profanazino-

---

121 Ik. OHIKUNEETARAKO KONGREGAZINO SAKRATUA, *Inter Œcumenici* Irakaspena (1964.09.26), 92. zk.: A.A.S. 56 (1964), 898. or.

122 Ik. VATIKANOKO II. KONTZILIO EKUMENIKOA, *Sacrosanctum Concilium* liturgia sakratuari buruzko Konstituzinoa, 32. zk.

123 Ik. OHIKUNEETARAKO KONGREGAZINO SAKRATUA, *Musicam sacram* Irakaspena (1967.03.05), 23. zk.: A.A.S. 59 (1967), 307. or.

124 Ik. ERROMAKO OHIKUNE LIBURUA, *De benedictionibus*, ereduzko argitalpena, 1984, Organoaren bedeinkazinoa, 1052-1067. zk.

125 Ik. OHIKUNEETARAKO KONGREGAZINO SAKRATUA, *Eucharisticum mysterium* Irakaspena (1967.05.25), 54. zk.: A.A.S. 59 (1967), 568. or.; *Inter Œcumenici* Irakaspena (1964.09.26), 95. zk.: A.A.S. 56 (1964), 898. or.

arriskua guztiz ekidingo dauan moduan itxita egongo da.[126] Sagrarioa liturgi ospakizunetarako erabili aurretik bedeinkatzea komeni da, Erromako Ohikune Liburuaren arabera.[127]

315. Ezaugarriak indarra izan dagian, egokiago da Eukaristi guztiz santua gordeta dagoan sagrarioa Mezea emongo dan altaran ez egotea.[128]

Beraz, sagrarioa, Eleizbarrutiko Gotzainaren eretxiaren arabera, honan ipiniko da:

a) presbiterioan, ospakizuna egingo dan altaratik kanpo, egokienak dirudien eran eta lekuan, ospakizunerako orain erabiltzen ez dan altara zaharra baztertu barik (*ik. 303. zk.*);

b) nahiz fededunen gurtzarako eta otoitzerako egokia izango dan kaperaren baten,[129] Eleizearen egituragaz bat egina eta fededunek ikusteko moduan badago.

316. Aspaldiko ohiturari jarraituz, sagrario ondoan argiontzi berezi bat biztuta egongo da beti, orioz nahiz argizariz elikatuta, holan Kristoren presentzia adierazoten eta ohoratzen dala.[130]

317. Kontuan izan behar dira, era berean, Eukaristia guztiz santua gordetzeari buruz zuzenbidearen araudian ezarrita dagozan gainerako erabagi guztiak.[131]

Irudi sakratuak

318. Eleizeak lur honetako liturgia ospatzean Jerusalemgo uri santuan ospatzen dan zerutar liturgian parte hartzen dau, eta ha aldez aurretik ahogozatzen; erromes doa Kristo Jainkoaren eskumaldean jarrita dagoan uri santu horretara, eta, santuen oroipen beneragarria eginez, hareekin parte izatea eta hareen batzarrean onartua izatea itxaroten dau.[132]

Horregaitik, Eleizearen antzina-antzinako tradizinoaren arabera, Jaunaren, Andra Mariaren eta Santuen irudiak jarri beitez etxe sakratuetan fededunen gurtzarako,[133] eta ipini beitez, han ospatuko diran fede-misterioetara fededunak, eskutik lez, eroateko moduan. Holan, bada, kontu handia izan behar da, alde batetik, itxura barik irudi gehiegi ez jartzeko eta, bestetik, hareek maila egokian ipintzeko eta fededunen gogo-begiak ospakizunetik ez aldenduarazoteko.[134] Santu bakotxak ez dagiala normalean irudi bat baino gehiago izan. Orokorrean, Eleizearen apainduran eta eraketan, irudiei dagokienez, kontuan izan bedi kristau-alkarte osoaren jainkozaletasuna eta irudien edertasuna eta duintasuna.

---

126 Ik. OHIKUNEETARAKO KONGREGAZINO SAKRATUA, *Eucharisticum mysterium* Irakaspena (1967.05.25), 52. zk.: A.A.S. 59 (1967), 568. or.; *Inter Oecumenici* Irakaspena (1964.09.26), 95. zk.: A.A.S. 56 (1964), 898. or.; SAKRAMENTUETARAKO KONGREGAZINO SAKRATUA, *Nullo unquam tempore* (1938.05.28), 4. zk.: A.A.S. 30 (1938), 199-200. or.; ERROMAKO OHIKUNE LIBURUA, *De sacra communione et de cultu mysterii eucharistici extra Missam,* ed. typ., 1973, 10-11. zk.; *Zuzenbide Kanonikoaren Kodea,* kan. 938 § 3.

127 Ik. ERROMAKO OHIKUNE LIBURUA, *De benedictionibus*, ed. typ., 1984, Eukaristia gordetzeko sagrario barriaren bedeinkazinoa, 919-929. zk.

128 Ik. OHIKUNEETARAKO KONGREGAZINO SAKRATUA, *Eucharisticum mysterium* Irakaspena (1967.05.25), 55. zk.: A.A.S. 59 (1967), 569. or.

129 *Ibid*., 53. zk.: A.A.S. 59 (1967), 568. or.; ERROMAKO OHIKUNE LIBURUA, *De sacra communione et de cultu mysterii eucharistici extra Missam*, ed. typ., 1973, 9. zk.; *Zuzenbide Kanonikoaren Kodea*, kan. 938 § 2; JOAN PAULO II.a, *Dominicæ Cenæ* Gutuna (1980.02.24), 3. zk.: A.A.S. 72 (1980), 117-119. or.

130 Ik. *Zuzenbide Kanonikoaren Kodea*, kan. 940; OHIKUNEETARAKO KONGREGAZINO SAKRATUA, *Eucharisticum mysterium* Irakaspena (1967.05.25), 57. zk.: A.A.S. 59 (1967), 569. or.; ERROMAKO OHIKUNE LIBURUA, *De sacra communione et de cultu mysterii eucharistici extra Missam,* ed. typ., 1973, 11. zk.

131 Ik., batez be, SAKRAMENTUETARAKO KONGREGAZINO SAKRATUA, *Nullo unquam tempore* (1938.05.28): A.A.S. 30 (1938), 198-207. or.; *Zuzenbide Kanonikoaren Kodea*, kan. 934-944.

132 Ik. VATIKANOKO II. KONTZILIO EKUMENIKOA, *Sacrosanctum Concilium* liturgia sakratuari buruzko Konstituzinoa, 8. zk.

133 Ik. PONTIFICALE ROMANUM, *Ordo Dedicationis ecclesiæ et altaris*, ed. typ., 1977, IV. kap., 10. zk.; ERROMAKO OHIKUNE LIBURUA, *De benedictionibus*, ed. typ., 1984, Fededunen benerazinorako ipintzen diran irudien bedeinkazinoa, 984-1031. zk.

134 Ik. VATIKANOKO II. KONTZILIO EKUMENIKOA, *Sacrosanctum Concilium* liturgia sakratuari buruzko Konstituzinoa, 125. zk.

VI. Kapitulua

MEZEAREN OSPAKIZUNERAKO BEHAR DIRANAK

I. Ogia eta ardoa eukaristia ospatzeko

319. Kristok egin ebanari jarraituz, Jaunaren jatordua ospatzeko ogia eta ardaoa, uragaz nahastuta, erabili izan ditu Eleizeak beti.

320. Eukaristiaren ospakizunerako gari-urunez bakarrik egindako ogia behar da, egin barri samarra eta, latindar Eleizako tradizinoaren arabera, ogi hila, legamina bakoa.

321. Ezaugarri izateak berak eskatzen dau, Eukaristiaren ospakizunean erabiliko dan gaiak egiazko janari lez agertzea. Hori dala-eta, Eukaristiako ogia, ogi hila eta ohi dan erara egindakoa izan arren, herriagaz emoten dan Mezan abadeak zatiak egiteko adinakoa izatea komeni da, gitxienez fededun batzuri emon ahal izateko. Ostia txikiak ez dira ezelan be baztertzen, jaunartzeko dagoan jente-kopuruak nahiz beste arrazoi pastoral batzuek hori eskatzen badabe. Baina ogizatitzeak–Apostoluen sasoian izen hauxe emoten jakon-eta Eukaristiari–argiago agertuko dau guztiek ogi batean eta maitasun berean bat egitearen ezaugarriak dauan garrantzia eta indarra, senideen artean ogi bat bakarra banatzen bada.

322. Eukaristiaren ospakizunerako ardaoak «mahatsaren frutu» (ik. *Lk 22, 18*) izan behar dau, hau da, berezko ardao garbia, bestelako gaiekin nahastu bakoa

323. Eukaristiarako diran ogi-ardaoek egoera onean egon behar dabenez, kontu handia euki behar da, ardaoa mindu ez dadin eta ogia be lizundu ez dadin, ezta nekez zatitzeko moduan gogortu be.

324. Sagaratu ondoren edo jaunartu dauan unean, abadea konturatzen bada kalizean ez dauala ardaorik jarri, ur hutsa baino, ur hau ontzi baten itzirik, ardaoa eta ura kalizean jarri eta sagaratu dagizala, kaliza sagaratzeko berbak esanez; ez ditu, ostera, zertan esan barriro ogia sagaratzeko berbak.

II. Tresna sakratuak orokorrean

325. Eleizak eraikitzeko lez, eleizako tresneria guztiari dagokionez be ontzat emoten ditu Eleizeak herrialde bakotxeko artelanak eta aintzat hartzen herrialde horren izaerari eta ohiturei dagokiezan eratzeak, eleizkizunetarako diranez, horretarako egokiak badira.[135]

Arlo honetan be berezko edertasun apala zaindu behar da arduraz, egiazko artegintzari ondo baino hobeto dagokionez.

326. Tresna sakratuak egiteko gaiak aukeratzekoan, orain arte ohituraz erabili izan diran gaiez aparte, erabili daitekez gaur egungo pentsamoldearen arabera bikainak, iraunkorrak eta eleizkizunei dagokiezantzat jotzen diranak be. Baina arlo honetan herrialde bakotxeko Gotzainen Batzarra izango da epaile (*ik. 390. zk.*).

III. Ontzi sakratuak

327. Meza emoteko behar diran gauzen artean, begirune berezia zor jake ontzi sakratuei eta, horreen artean, kalizari eta pateneari, ogia eta ardaoa honeetan eskeini, sagaratu eta hartuko dira-eta.

328. Ontzi sakratuek metal duinaz eginak izan behar dabe; herdoildu daiteken edo urrea baizen duina ez dan beste metalez eginak izan ezkero, urreztatu egingo da barrualdea gehienetan.

329. Gotzainen Batzarraren eretxiz eta Aulki Apostolikoak bere oneretxia emonik, beste gai sendoz be eginak izan daitekez ontzi sakratuak, leku bakotxeko eretxi orokorraren arabera duinak izan ezkero, esate baterako, ebanoz edo beste zur gogorren batez, liturgian erabiltzeko egokiak badira. Kasu honetan, hobe da apurtzen eta usteltzen ez diran gaiak erabiltzea. Aintzakotzat hartu behar da hori ogi sagaratua euki-

135 Ik. VATIKANOKO II. KONTZILIO EKUMENIKOA, *Sacrosanctum Concilium* liturgia sakratuari buruzko Konstituzinoa, 128. zk.

tzeko diran ontzi guztientzat, hau da, patena, kopoia, ostien ontzitxua, kustodia eta gainerako ontzientzat.

330. Jaunaren Odola eukitzeko diran kalizei eta gainerako ontziei dagokienez, isuria zurrupatzen ez dauan gai-motaz eginak izan behar dabe. Ontzi horreen oina, halan be, beste era bateko gai sendo eta duinez egindakoa izan leiteke.

331. Sagaratuko dan ogitarako egoki izan daiteke patena handiagoa erabiltzea, bertan bai abadearentzat eta diakonoarentzat bai beste laguntzaile eta fededunentzat izango dan ogia jartzeko.

332. Ontzi sakratuen eite edo ereari gagokiozala, ertilariei dagokie horreek erarik egokienean sortzea, herrialde bakotxeko ohiturei ondohain datorkiezan ereduak aukeratuz, ontzi bakotxa eleizkizunetarako egokia izan ezkero eta eguneroko bizitzan erabili ohi diranetatik desbardinak dirala.

333. Ontzi sakratuak bedeinkatzeari dagokionez, liturgia liburuetan agindutako ohikuneak beteko dira.[136]

334. Gorde bedi sakristian garbiontzia jartzeko ohitura, ontzi sakratuak eta zapitxuak garbitzen erabilitako ura bertan botatzeko (*ik. 280. zk.*).

IV. Jantzi sakratuak

335. Kristoren gorputza dan Eleizan guztiek ez dabe eginkizun bera betetzen. Eukaristiaren ospakizuneko eginkizun desbardinak jantzi desbardinez adierazoten dira; horregaitik, jantzi honeek zerbitzari bakotxari dagokion eginkizunaren adierazgarri izan behar dabe. Jantzi sakratuek, bestalde, ekintza sakratuaren beraren edergarri be izan behar dabe. Egoki da abade, diakono nahiz laguntzaile laikoen jantziak liturgia ospakizunean erabili aurretik bedeinkatzea, Erromako Ohikune Liburuaren arabera.[137]

336. Ordenatutako nahiz eratutako edozein mailatako zerbitzariek erabili beharreko jantzi sakratua alba deritxona da; garrikoaz lotzen da garrian garriko barik be gorputzari ondo egokitzeko eran egina ez badago. Albak lepo-inguruan norberaren ohiko jantzia ondo estaltzen ez badau, albea jantzi aurretik amitoa jarriko da. Albaren ordez ez daiteke erroketea erabili kasuila edo dalmatika jantzi behar danean, ezta kasuila edo dalmatikaren ordez estola jarri behar danean be.

337. Meza emoteko edo Mezeagaz zuzeneko zerikusia daben ekintza sakratuak burutzeko abade meza-emoilearen jantzi berezia, besterik esaten ez dan bitartean, kasuila da, albaren eta estolaren gainetik jantzia.

338. Diakonoaren jantzi berezia dalmatika da, albaren eta estolaren gainetik jantzia; halabeharrez edo jai-maila apalagoa dalako, itzi daiteke dalmatika.

339. Akolito, irakurle eta beste laguntzaile laikoek alba edo herrialde bakotxean Gotzainen Batzarrak legez onartutako beste jantziren bat jantzi daikee (*ik. 390. zk.*).

340. Estolea sama-inguruan eta aurrealdetik dingilizka eroaten dau abadeak; diakonoak, barriz, kurutzatuta, ezkerreko sorbaldatik, aurrealdean zeharkatuz, gorputzaren eskumaldean lotzen dauala.

341. Eleiz kapea prozesinoan eroaten dau abadeak, baita beste ekintza sakratu batzuetan be, ohikune bakotxaren errubrika berezien arabera.

342. Eleiz jantzien erari dagokionaz, Gotzainen Batzarrak erabagi daikez egokitzapenak eta Aulki Apostolikoari proposatu, eleiz jantziak he-

136 Ik. PONTIFICALE ROMANUM, *Ordo Dedicationis ecclesiæ et altaris*, ed. typ., 1977, Kalizaren eta patenearen bedeinkazinoa; ERROMAKO OHIKUNE LIBURUA, *De benedictionibus*, ed. typ., 1984, Liturgi ospakizunetan erabiltzen diran tresnen bedeinkazinoa, 1068-1084. zk.

137 Ik. ERROMAKO OHIKUNE LIBURUA, *De benedictionibus*, ed. typ., 1984, Liturgi ospakizunetan erabiltzen diran tresnen bedeinkazinoa, 1070. zk.

rrialde bakotxeko beharrizan eta ohituren araberakoak izan daitezan.[138]

343. Eleiz jantziak egiteko, ohiko gaiez gainera, herrialde bakotxeko berezko diran zuntzak erabili daitekez, baita ekintza sakratuaren eta pertsonaren duintasunari dagokiozan zuntz artifizialak be. Gauza honetan Gotzainen Batzarra izango da epaile.[139]

344. Jantzi bakotxaren edertasuna eta duintasuna ez da apaingarri ugari eroatean bilatu behar, gaiaren eta ebagieraren edertasunean baino. Apaingarri jartzen diran irudi eta sinboloek gauza sakratuetarako dirala adierazo behar dabe, horri ez dagokion guztia alde batera itzirik.

345. Jantzi sakratuen kolore desbardinak honetarako dira: begiz ikusten danetik be egokiago nabarmentzeko, alde batetik, ospatzen diran fedeko misterioen ezaugarriak eta, bestetik, liturgi urtean zehar kristau-bizitzan aurrera egiten dihardugula adierazoteko.

346. Jantzi sakratuen koloreari dagokionez, tradizinoz jasotako ohitura gorde behar da, hau da:

a) Zuria, Pazkoaldiko eta Gabonaldiko eleizkizun eta Mezetan erabiliko da; era berean, Nekaldikoak ez diran Jaunaren ospakizunetan; Andra Mariaren, aingeru santuen eta martiri ez diran santuen ospakizunetan; Santu Guztien (azaroaren 1ean), San Joan Bateatzailearen (ekainaren 24an), San Joan Ebanjelariaren (abenduaren 27an), San Pedroren Gotzain-aulkiaren (otsailaren 22an) eta San Paulo Kristogana bihurtzearen (urtarrilaren 25ean) festaburuetan.

b) Gorria, Jaunaren Nekaldiko Erramu-domekan eta Bariku Santuan erabiliko da, eta Pentekoste-domekan, Jaunaren Nekaldiko ospakizunetan, Apostoluak eta ebanjelariak zerurako jaio ziran jaiegunetan eta martiri santuen ospakizunetan.

c) Berdea, Urtean Zeharreko eleizkizun eta Mezetan erabiliko da.

d) Morea, Abendualdian eta Garizuman erabiliko da. Hildakoen aldeko eleizkizun eta Mezetan be erabili daiteke.

e) Baltza, ohi dan lekuetan, hildakoen aldeko Mezetan erabili daiteke.

f) Errosa-kolorea, Gaudete domekan (Abendualdiko III. domekan) eta Lætare domekan (Garizumako IV. domekan) erabili daiteke.

g) Festaburu berezietan jai-giroko jantzi sakratu ederragoak erabili daitekez, egunari dagokion kolorekoak ez badira be.

Liturgi koloreei dagokienaz, halan be, Gotzainen Batzarrek erabagi daikeez egokitzapenak eta Aulki Apostolikoari proposatu, kolore horreek herrialde bakotxeko beharrizan eta asmamenaren araberakoak izan daitezan.

347. Sakramentu eta Ohikuneetarako Mezetan Meza horri dagokion kolorea erabiliko da, edo zuria nahiz jai-girokoa; Beharrizanaldi batzuetarako Mezetan, egunekoa nahiz liturgialdiko kolorea, edo morea penitentzia esanahia dabenean (esate baterako, 31., 33. eta 38. Mezetan); eta Debozinozko Mezetan, aukeratu dan Mezeari dagokion kolorea, edo egunekoa nahiz aldikoa.

V. Eleizan erabiltzeko diran beste gauza batzuk

348. Gai jakinak izentaturik dabezan ontzi eta jantzi sakratuez gainera, liturgian erabiltzeko[140] edo zeozelan eleizarako diran beste gauza guztiek be duintasunez eginak eta daben helbururako egokiak izan behar dabe.

---

138 Ik. VATIKANOKO II. KONTZILIO EKUMENIKOA, *Sacrosanctum Concilium* liturgia sakratuari buruzko Konstituzinoa, 128. zk.

139 Ik. *ibid*.

140 Liturgian erabiltzeko eleiz etxeetan gordetzen diran gauzen bedeinkazinoaz, ik. ERROMAKO OHIKUNE LIBURUA, *De benedictionibus*, ed. typ., 1984, III. atala.

349. Kontu berezia izan behar da, liturgia liburuak –batez be Ebanjelio Liburua eta irakurgaiena, Jainkoaren hitza iragartzeko izanik, begirune berezia zor jakelako– gauza zerutarren seinale eta sinbolo izan daitezan benetan liturgi ekintzan eta, beraz, benetan duinak, egokiak eta ederrak.

350. Era berean, arreta guztiz zaindu behar da altareagaz eta Eukaristiaren ospakizunagaz zuzeneko zerikusia dauan guztia, esate baterako, altarako kurutzea eta prozesinoan eroaten dan kurutzea.

351. Ahalegin handia egin behar da garrantzi txikiagoko gauzetan be, artearen eskabideak onartuak izan daitezan eta garbitasuna eta edertasun apala batera agertu dagien.

VII. Kapitulua
MEZEA ETA HONEN OSAGAIAK AUKERATZEA

352. Ospakizunaren eragin pastorala handitu egingo da, zalantza barik, irakurgai, otoitz eta kanturik egokienak aukeratzen badira, parte hartzen dabenen preminak, gogo-prestaera eta izaera gogoan izanik. Hau ondo lortuko da, geroago azalduko dan aukerabide zabala behar dan lez erabiltzen bada.

Abadeak, beraz, Mezea prestatzekoan Jainkoaren herriaren espirituzko onari begitu behar deutso, bere gogo pertsonalari baino gehiago. Izan begi gogoan, gainera, Mezako osagaien aukeratze hori ospakizunean egitekoren bat izango dabenekin batera egin behar dauala, fededunak, honeei dagokiezanetan, alde batera itzi barik.

Eta Mezako osagaietan zer aukeratu handia dagoan ezkero, beharrezkoa da, ospakizunaren aurretik, diakonoak, irakurleak, salmolariak, abeslariak, ohargileak eta abesbatzak bakotxari dagokion zatia zein dan garbi jakitea, ezer itzi barik itsumustuan egiteko. Izan be, zerikusi handia dau ohikunearen osagai guztiak eraz eta egokiro burutzeak, fededunen gogo-bihotzak Eukaristian parte hartzeko prestatzeagaz.

I. Zein meza aukeratu

353. Festaburuetan, Mezea emongo dan eleizako egutegiari jarraitu behar deutso abadeak.

354. Domeketan, Abendualdi, Gabonaldi, Garizuma eta Pazkoaldiko astegunetan, jaietan eta beharrezko oroipenetan:

a) Mezea herriagaz emotekoa bada, Mezea emongo dan eleizako egutegiari jarraitu behar deutso abadeak;

b) Meza laguntzaile batek bakarrik parte hartuz emotekoa bada, eleiza haretako egutegia nahiz bere egutegia aukeratu daike abadeak.

355. Nahierazko oroipenetan:

a) Abendualdian abenduko hilaren 17tik 24ra bitarteko astegunetan, Gabon-zortziurrenean eta Garizumako astegunetan –Hauts-eguneguenean edo Aste Santuko astegunetan batik bat– liturgi egunari dagokion Meza berezia emongo dau abadeak; halan be, Egutegi Orokorrean egun horretarako izentatuta egon daiteken oroipenetik otoitza hartu leike, Hauts-eguneguna edo Aste Santuko asteguna izan ezean. Pazkoaldiko astegunetan santuen oroipenak bere osoan egin daitekez.

b) Abenduko hilaren 17a baino lehenagoko Abendualdiko astegunetan, Gabonaldiko astegunetan urtarrilaren 2tik aurrera, eta Pazkoaldiko astegunetan, astegunari dagokion Meza nahiz santuaren Meza nahiz gogorespena egiten dan santuetako batena nahiz egun horretan santuen zerrendan agertzen dan santuren baten Meza aukeratu leike abadeak.

c) Urtean Zeharreko astegunetan, astegunari dagokion Meza nahiz nahierazko gogorapenekoa, egun horretan halakorik balego, nahiz egun horretan santuen zerrendan agertzen dan santuren batena nahiz Beharraldi Batzuetarako Meza bat nahiz Debozinozko Meza bat aukeratu leike abadeak.

Mezea herriagaz emotekoa bada, abadeak normalean eta arrazoi handirik barik ez ditu alde batera itzi behar Irakurgaien Liburuak astegun bakotxerako dakarzan irakurgaiak, Eleizearen

gogoa da-eta, Jainkoaren hitzaren mahaia kristauei oparoago prestatzea.[141]

Arrazoi horregaitik, hildakoen aldeko Mezak neurriz hartu behar ditu; izan be, edozein Meza bizien eta hildakoen alde eskeintzen da eta edozein Eukaristi Otoitzetan be hildakoen oroipena egiten.

Maria Birjina dohatsuaren nahierazko oroipenari edo santuren bati fededunek eraspen berezia deutsoen lekuan, holako Meza bat noizbehinka emon bedi, bidezkoa dan herriaren zaletasuna asetzeko.

Egutegi Orokorreko oroipen baten eta eleizbarrutiko edo erlijioso-erlijiosen egutegiko beste oroipen baten artean aukera egin daitekenean, bestelako arrazoirik ez bada eta tradizinoari jarraituz, bertako santuaren oroipena gurago izango da.

II. Mezako osagaiak aukeratzea

356. Liturgiari nahiz santuei dagokiezan Mezako osagaien testuak aukeratzekoan, ondoren datozan arauak beteko dira.

Irakurgaiak

357. Domeka eta jaiegunetarako hiru irakurgai izentatu dira: Profetarena, Apostoluarena eta Ebanjelioa; honan, salbazino-egintzaren jarraipena Jainkoaren asmo miragarriaren arabera ikusten irakasten jako kristau-herriari. Irakurgai honeek derrigorrez iragarri behar dira. Pazkoaldian, Eleizearen tradizinoari jarraituz, Itun Zaharretik hartu ordez, Apostoluen Eginak liburutik hartu da irakurgaia.

Jaiegunetarako irakurgai bi jartzen dira. Baina arauei jarraituz, jaieguna festaburu bihurtzen danean, hirugarren irakurgaia gehituko jako eta hau Betikotik hartuko da.

Santuen oroipenetan, irakurgai bereziak ez badabez, astegunari dagokiozanak iragarriko dira gehienetan. Kasu batzuetan, santuari ondo dagokiozan eta haren bizitza espiritualaren edo jardunbidearen alderdi bereziren bat gogoratzen daben irakurgaiak proposatu dira. Baina ez da derrigortu behar irakurgai honeek iragartzera, arrazoi pastoralen batek halan eskatzen ez badau behintzat.

358. Irakurgaien Liburuko astegunetako zatian urte guztiko asteetako egun bakotxerako irakurgaiak datoz; beraz, irakurgai honeek izentatuta dagozan egunean bertan erabiliko dira normalean, festaburua edo jaia izan ezean, edo eguneko santuaren aipamena egiten dauan Itun Barriko irakurgai bereziak dituan oroipena izan ezean.

Halan be, aste barruko irakurgaien jarraipena festaburu, jaiegun edo ospakizun bereziren batengaitik eteten bada, abadeak badau eskubidea, aste guztiko irakurgaien zerrenda gogoan harturik, itzi behar izan zana beste irakurgaiei gehitzeko edo zein testu aukeratu erabagitzeko.

Talde berezientzako Mezetan abadeak badau eskubidea aitatutako ospakizun honetarako egokienak diran irakurgaiak aukeratzeko, onarturik dagoan Irakurgaien Liburuko pasarteak izan ezkero.

359. Sakramentu nahiz Ohikune Meza emoten danerako be bada Liburu Santuetako irakurgaisorta berariazkoa, baita Beharraldi batzuetan emoten diran Mezetarako be.

Fededunek, Jainkoaren hitzaren zati egokiagoak entzunez, esku hartzen daben misterioa hobeto ulertu dagien eta Jainkoaren hitza aintzat gehiago euki dagien egin da irakurgaien aukera hau.

Beraz, liturgia batzarrean irakurriko diran zatiak aukeratzeko orduan, ez jake arrazoi pastoralei bakarrik begitu behar; gogoan izan behar da, era berean, zelako aukeramena emoten dan egokiera berezi batzuetarako.

360. Batzuetan era bitara emoten da irakurgai bera: era luzean eta era laburragoan. Bietako bat aukeratzekoan izan bedi kontuan eretxi pasto-

141 Ik. VATIKANOKO II. KONTZILIO EKUMENIKOA, *Sacrosanctum Concilium* liturgia sakratuari buruzko Konstituzioa, 51. zk.

rala. Irakurgai luzea edo laburragoa onuraz entzuteko fededunek daben gaitasunari begitu behar jako, eta homiliaren bidez azalduko dan testu osoagoa entzuteko daben gaitasunari.[142]

361. Ezarrita dagozan edo aukeran emon diran testu biren artean aukeratzeko egokiera emon danean, parte-hartzaileen onurari begitu behar jako, eta batuta dagoan batzarrarentzat errazagoa eta komenigarriagoa izango dana aukeratuko da; eta onura pastoralak halan eskatzen dauanean, errepikatu nahiz itzi egin daiteke testu bat, ospakizun jakin baterako berezi lez eta beste baterako aukeran emoten bada.[143]

Hori jazotzen da, testu bat bera hurko egun bitan errepikatu behar danean, esate baterako, domekan eta ondorengo astegun baten; edo susmoa dagoanean testu jakin batek zailtasunak sortu leikezala fededun-talderen baten. Edozelan be, kontu izan behar da, Liburu Santuetako testuak aukeratzekoan pasarte batzuk beti bazterrera gelditu ez daitezan.

362. Lehenago aitatu dan testu egokiago batzuk aukeratzeko eskubideaz gainera, eskubidea emon jake Gotzainen Batzarrei kasu jakin batzuetan irakurgai egokiago batzuk adierazoteko, beti be legez onartutako Irakurgaien Liburutik aukeratuak izatekotan.

Otoitzak

363. Edozein Mezatan, besterik esaten ez dan bitartean, Meza horretarako izentatuta dagozan otoitz bereziak esango dira.

Santuen oroipenetan Mezako otoitz berezia esango da; berezirik ez bada, barriz, dagokion Betikotik hartuko da; oparigaien gaineko otoitza eta jaunartze ondorengoa, ostera, bereziak ez badira, Betikotik nahiz Aldiko astegunekotik hartuko dira.

Urtean Zeharreko astegunetan, aurreko domekako otoitzak hartu daitekez, baina baita Urtean Zeharreko beste edozein domeketakoak nahiz Meza Liburuan Beharraldi Batzuetarako Mezetan datozan otoitzak be. Bestalde, bada beti eskubidea, Beharraldi Batzuetarako Mezetatik Mezako otoitza –hau da, hori bakarrik,– hartzeko.

Honan, testu-sorta aberatsagoa eskeini da, fededunen otoitza ugariago elikatzeko.

Halan be, urteko aldirik nagusienetan, egokitze hau eginda dago, Meza Liburuan aldi horreetako egun bakotxerako ezarrita dagozan otoitzen bidez.

Eukaristi otoitza

364. Erromako Meza Liburua prefazio barri ugariz aberastu da. Prefazio horreen asmoa, Eukaristi Otoitzean eskerrak emoteko zergatiak era zabalagoan agertzea eta salbazino-misterioaren alderdi desbardinak argiroago azaltzea izan da.

365. Mezearen Egunerokoan emonda dagozan Eukaristi Otoitz bat nahiz bestea aukeratzeko, ondorengo arau honeek betetzea komeni da:

a) I. Eukaristi Otoitza edo Erromako Kanona, beti erabili daiteken arren, Danok Eleiza osoagaz bat eginik berezia esan behar dan egunetan edo Hona hemen, Jauna berezia daukien Mezetan erabiliko da gehienbat. Baita otoitz horretan aitatzen diran Apostoluen eta santuen jaietan be; domeketan era berean, arrazoi pastoralakaitik III. Eukaristi Otoitza nahiago izan ezean.

b) II. Eukaristi Otoitza, dituan berezitasunakaitik, aste barruko egun arruntetan edo egokiera jakinetan esango da gehienbat. Bere prefazioa izan arren, beste prefazio batzuekaz be erabili daiteke; salbazino-misterioa era laburragoan dakarrenekin, batez be; esate baterako, astegunetako prefazioekin. Mezea hildako norbaiten alde emoten danean, haren aipamen berezia egin daiteke, Izan gogoan, Jauna, [gaur] mundu honetatik eskari berezia esanez, bere lekuan adierazota dagoan lez.

c) III. Eukaristi Otoitza edozein prefaziogaz erabili daiteke. Domeketan eta jaiegunetan

142 ERROMAKO MEZA LIBURUA, *Ordo lectionum Missæ*, ed. typ. altera, 1981, Eraketa Orokorra, 80. zk.
143 *Ibid*., 81. zk.

erabiltzeko da batik bat egokia. Baina Eukaristi Otoitz hau Hildakoen aldeko Mezetan erabiltzen danerako bada, Aita guztiz ona, erakarri Zeugana mundu zabalean banaturik dabiltzan zeure semealabak berben ondoren, hildakoaren aldeko eskari berezia, eta Izan gogoan, Jauna, [gaur] mundu honetatik otoitza esan daiteke, bere lekuan adierazota dagoan lez.

d) IV. Eukaristi Otoitzak bere prefazio aldatuezina dau eta salbazino-historiaren laburpen osoagoa dakar. Mezeak bere prefazio berezirik ez dauanean eta Urtean Zeharreko domeketan esan daiteke. Otoitz honetan, dauan egituragaitik, ezin daiteke hildako baten aldeko eskari berezirik tartekatu.

Kantuak

366. Mezearen Egunerokoan jarrita dagozan kantuak, esate baterako, Jaungoikoaren Bildotsa, ez daitekez beste kantu batzuez ordezkatu.

367. Irakurgai arteko, sarrerako, oparigaien aurkezpenerako eta jaunartze ondorengo kantuak aukeratzean, leku bakotxean ezartzen diran arauak beteko dira (*ik. 40-41, 47-48, 61-64, 74, 86-88. zk.*).

VIII. Kapitulua

EGOKIERA BATZUETARAKO MEZAK ETA OTOITZAK ETA HILDAKOEN MEZAK

I. Egokiera batzuetarako mezak eta otoitzak

368. Sakramentu eta Ohikuneetarako liturgiaren bidez, pazko-misteriotik datorren jainkozko graziak santutu egiten dituanez ondo prestatutako fededunen bizitzako jazoerak,[144] eta Eukaristia sakramenturik bikainena izanik, Meza Liburuak kristau-bizitzako hainbat egokieratan erabili daitekezan Meza-erak eta otoitzak dakarz, mundu guztiaren nahiz Eleiza osoaren nahiz lekuan lekuko Eleizearen beharrizanak gogoan harturik.

369. Irakurgaiak eta otoitzak aukeratzeko eskubidea hain zabala dan ezkero, Egokiera Batzuetarako Mezak neurritsu erabili behar dira, hau da, egoerak eskatzen dauanean.

370. Egokiera Batzuetarako Meza guztietan, besterik zehatz esaten ez bada, astegunetako irakurgaiak eta honeen tarteko kantuak erabili daitekez, ospakizunagaz ondo badatoz.

371. Aitatutako Meza honeen artean Sakramentu eta Ohikuneetarako Mezak dagoz, Beharraldi Batzuetarakoak eta Debozinozkoak.

372. Sakramentu eta Ohikuneetarako Mezak sakramentu edo ohikuneren baten ospakizunagaz lotuta egoten dira. Galarazota dagoz Abendualdi, Garizuma eta Pazkoaldiko domeketan, festaburuetan, Pazko Zortziurrenean, Hildako Fededun guztien Oroipenean, Hauts-egun Egunean eta Aste Santuko astegunetan; bete beitez, gainera, ohikune-liburuetan edo Meza horreetan euretan ezarritako arauak.

373. Beharraldi Batzuetarako Mezak noizean behin edo aldi batzuetan izaten diran egokiera jakin batzuetan erabiltzekoak dira. Gotzainen Batzarrak urte osoan zehar ezarri leikezan eskariak egiteko, eskumena dauan agintariak Beharraldi Batzuetarako Mezetatik hartu daikez.

374. Beharraldi handiren bat nahiz egokiera pastoral berezia izaten danean, egokiena dan Mezea emon daiteke, Eleizbarrutiko Gotzainaren aginduz edo baimenez; eta hau edozein egunetan, baina ez festaburuetan, ezta Abendualdi, Garizuma eta Pazkoaldiko domeketan, Pazko Zortziurrenean, Hildako Fededun guztien Oroipenean, Hauts-egun Egunean eta Aste Santuko astegunetan be.

---

144 Ik. VATIKANOKO II. KONTZILIO EKUMENIKOA, *Sacrosanctum Concilium* liturgia sakratuari buruzko Konstituzinoa, 61. zk.

375. Jaunaren misterioei buruzko nahiz Andra Maria Birjinaren, edo aingeruen, santuren baten nahiz santu guztien omenez emoten diran debozinozko Mezak Urtean Zeharreko asteguneta emon daitekez fededunen eraspena indartzeko, baita nahierazko gogorespena izaten danean be. Baina ez daitekez debozinozko lez emon Jaunaren eta Andra Mariaren bizitzako misterioei dagokiezan Mezak, Andra Mariaren Sortze Garbiari dagokiona izan ezik; izan be, misterio horreen ospakizuna liturgi urtearen joan-hariagaz lotuta dago.

376. Beharrezko oroipena dan egunetan, edo Abendualdiko asteguneta abenduko hilaren 16ra arte nahiz Gabonialdian urtarrilaren 2tik aurrera nahiz Pazko Zortziurrenaz kanpoko Pazkoaldiko asteguneta, berez galarazota dagoz Beharraldi Batzuetarako Mezak eta Debozinozkoak. Baina, egiazko beharraldi batek nahiz egokiera pastoralak eskatu ezkero, herriagaz egingo dan ospakizunean, eleizako arduradun nahiz meza-emoile dan abadearen eretxiz, emon daiteke beharraldi horri erantzuten deutson Mezea.

377. Urtean Zeharreko asteguneta, nahierazko oroipena edo asteguneko liturgia danean, edozein Meza emon daiteke eta Egokiera Batzuetarako edozein otoitz esan, baina ez Ohikune Mezarik.

378. Andra Mariaren oroipena «zapatuan» egitea gomendatzen da biziro, kultu berezia emoten jakolako Eleizearen liturgian gure Salbatzailearen Amari, santu guztien aurretik eta gainetik.[145]

II. Hildakoen mezak

379. Kristoren Pazkoaren eukaristi oparia eskeintzen dau Eleizeak hildakoen alde, Kristoren gorputz-atal guztien alkartasunari esker batzuri espirituzko laguntza ekartzen deutsen lez, besteei itxaropenaren kontsolamentua emon deien.

380. Hildakoen aldeko Mezen artean, Hileta Meza da nagusiena; hau egun guztietan emon daiteke, hurrengo honeetan izan ezik: jai oso diran festaburuetan, Eguen Santuan, Pazko Hirurrenean eta Abendualdi, Garizuma eta Pazkoaldiko domeketan, zuzenbidearen erabagien arabera gorde beharrekoak gordez.[146]

381. Heriotzaren albistea hartu ondoren nahiz gorpua hilobiratzen danean nahiz urtemugan emon daiteke hildakoen aldeko Meza, baita Gabon Zortziurrenean, beharrezko oroipena danean eta asteguneta be, baina ez Hauts-egun Egunean edo Aste Santuko egunetan.

Hildakoen aldeko beste Mezak, «egunerokoak» deritxenak, Urtean Zeharreko asteguneta emon daitekez, astegun honeetan nahierazko oroipena edo asteguneko eleizkizuna danean, benetan hildakoen alde emoten badira.

382. Hileta Mezan egin bedi normalean homilia labur bat, baina hildakoaren gorazarre-hitzaldirik egin barik.

383. Dei egin bekie fededunei, batez be hildakoaren senitartekoei, haren alde eskeintzen dan eukaristi oparian jaunartuz esku hartzera.

384. Hilobiratzea Hileta Meza ondoren egiten danean, jaunartze ondorengo otoitza esandakoan, itzi egingo da amaierako ohikune guztia eta, horren ordez, hildakoa Jaunari aurkeztea edo azken agurra egingo da; ohikune hau gorpua aurrean dagoanean bakarrik egingo da.

385. Hildakoen aldeko Mezako osagaiak, batez be Hileta Mezakoak, aukeratzekoan –esate baterako, otoitzak, irakurgaiak, Jainkoaren herriaren otoitza, etab.–, izan bedi gogoan, bidezkoa danez, hildakoarentzat, senitartekoentzat eta bertan diran fededunentzat onuragarri izatea ikuspegi pastoraletik.

Eleiz artzainek hartu begiez kontuan ardura handiz, hiletak dirala eta, liturgia ospakizunetara eta Ebanjelioa entzutera datozanak; beharbada,

---

145 Ik. VATIKANOKO II. KONTZILIO EKUMENIKOA, *Lumen gentium* Eleizari buruzko Konstituzino dogmatikoa, 54. zk.; PAULO VI.a, *Marialis cultus* Aholku Hitz Apostolikoa (1974.02.02), 9. zk.: A.A.S. 66 (1974), 122-123. or.

146 Ik., batez ere, *Zuzenbide Kanonikoaren Kodea*, kan. 1176-1185; ERROMAKO OHIKUNE LIBURUA, *Ordo Exsequiarum*, ed. typ., 1969.

katoliko ez diranak nahiz Eukaristiara inoiz be ez datozanak izan daitekez; edo oso gitxitan datozan katoliko epelak nahiz fedea bera be galdu dabela dirudienak; Kristoren Ebanjelioaren zerbitzari da abadea guztientzat.

IX. Kapitulua

GOTZAINEI ETA EUREN BATZARREI DAGOKIEZAN EGOKITZAPENAK

386. Vatikanoko II. Kontzilio Ekumenikoak emondako dekretuen arabera gure sasoiotan eratu izan dan Erromako Meza Liburuan arreta handia jarri izan da beti, Eukaristi ospakizunean fededun guztiek parte-hartze betea, ohartua eta ekintzazkoa izan dagien; hain zuzen, liturgiaren izaerak berak eskatzen dau hori eta fededunek eurek be eskubide eta eginkizun dabe hori, euren izaeraz.[147]

Ospakizunak liturgi sakratuaren arauei eta espirituari hobeto erantzun deien, egokitzapen batzuk proposatu dira Eraketa honetan eta Mezearen Egunerokoan; Eleizbarrutiko Gotzainaren edo Gotzainen Batzarren eretxiaren esku jarri dira aitatutako egokitzapenak.

387. Bere artaldearen abade nagusitzat hartu behar dan Eleizbarrutiko Gotzainagan eta haren esku dago zeozelan fededunen bizitza Kristogan;[148] berari dagokio liturgi bizitza bera Eleizbarrutian indartzea, eratzea eta zaintzea. Eraketa Orokor honetan haren esku jarri da alkarmezearen jarduera eratzea (*ik. 202 eta 374. zk.*), arauak ezartzea altaran abadeari laguntzeko eginkizunari buruz (*ik. 107. zk.*), gure Jauna ogi-ardaoen itxurapean emoteari buruz (*ik. 283. zk.*) eta eleizak eraiki eta eratzeari buruz (*ik. 291. zk.*). Baina, lehenengo eta behin, liturgia sakratuaren espiritua abadeengan, diakonoengan eta fededunengan indartzea dagokio Eleizbarrutiko Gotzainari.

388. Hemen ondoren aitatzen diran eta koordinaketa gehiago eskatzen daben beste egokitzapenak Gotzainen Batzarrak zehaztu beharrekoak dira, zuzenbidearen arauek dinoen eran.

389. Gotzainen Batzarrei dagokie, lehenengo eta behin, Erromako Meza Liburu hau ontzat emondako herri-hizkuntzetan prestatzea, onartzea eta argitaratzea, Aulki Apostolikoak bere oneretxia emon ondoren, hareei dagokiezan herrialdeetan erabilia izan dadin.[149]

Erromako Meza Liburua, latinez nahiz herri-hizkuntzetara egindako eta legez onarturiko itzulpenetan, osorik argitaratu behar da.

390. Gotzainen Batzarrei dagokie egokitzapenak erabagitzea eta, Aulki Apostolikoak bere oneretxia emon ondoren, Meza Liburuan sartzea; honeek dira Eraketa Orokor honetan eta Mezearen Egunerokoan adierazoten diranak:

- fededunen keinuak eta gorputz-jarrerak (*ik.* lehenago, *43. zk.*);

- altareari eta Ebanjelio Liburuari egin beharreko begirune-keinuak (*ik.* lehenago, *273. zk.*);

- sarrerako, oparigaien aurkezpeneko eta jaunartzeko kantuen testuak (*ik.* lehenago, *48, 74 eta 87. zk.*);

- egokiera berezietan Liburu Santuetatik hartu beharreko irakurgaiak (*ik.* lehenago, *362. zk.*);

- alkarri bakea emoteko era (*ik.* lehenago, *82. zk.*);

- gure Jauna hartzeko era (*ik.* lehenago, *160 eta 283. zk.*);

- altara eta tresneria sakratua egiteko gai egokiak, batez be ontzi sakratuenak, eta liturgiarako jantziak egiteko gaia, era eta kolorea (*ik.* lehenago, *301, 326, 329, 339 eta 342-346. zk.*);

147 Ik. VATIKANOKO II. KONTZILIO EKUMENIKOA, *Sacrosanctum Concilium* liturgia sakratuari buruzko Konstituzinoa, 14. zk.

148 Ik. *ibid*., 41. zk.

149 Ik. *Zuzenbide Kanonikoaren Kodea*, kan. 838 § 3.

Gotzainen Batzarrek egoki deritxeen Argibideak edo Irakaspen pastoralak, Aulki Apostolikoak bere oneretxia emon ondoren, Meza Liburuan sartu ahal izango dira, leku egokian.

391. Gotzainen Batzarrei dagokie, Mezearen ospakizunean erabiliko diran pasarte biblikoen itzulpena ardura bereziz zaintzea. Hain zuzen, Liburu Santuetatik hartutako zatiak irakurtzen dira eta horreen azalpena egiten homilian, salmoak kantatzen, eta horreen arnasa eta sena daroen eskariak, otoitzak eta kantu liturgikoak egiten dira, eta ekintza eta ezaugarriek be Liburu Santutik hartzen dabe euren esanahia.[150]

Erabiliko dan hizkerak fededunek ulertzeko modukoa izan behar dau, eta jentaurrean iragartzeko egokia, Bibliako liburuetan erabiltzen diran hizkera desbardinak bereiziz.

392. Era berean, Gotzainen Batzarrei dagokie gainerako testuen itzulpena be arreta handiz prestatzea, hizkuntza bakotxaren izaera berezia errespetatuz, latinezko jatorrizko testuaren esanahia bere osoan eta leial emon izan dadin. Itzulpen honeek egitekoan kontuan izan behar dira Mezakoan erabiltzen diran hizkera desbardinak, hau da, batzarburuaren otoitzak, antifonak, gorespenak, erantzunak, letania eskariak, etab.

Ez da ahaztu behar, testuen itzulpenak ez dirala, lehenengo eta behin, gogoetarako, ospakizuneko ekintzan jentaurrean iragartzeko edo kantuan erabiltzeko baino.

Erabiliko dan hizkerak herrialdeko fededunei dagokiena izan behar dau, baina aldi berean duina eta literatur ikuspegitik kalitatezkoa; beti be beharrezko izango da berba eta esaldiren batzuk esanahi biblikoari eta kristauari buruzko katekesia egitea.

Hizkuntza bera daben herrialdeetan itzulpen bera izatea komeni da, ahal dan neurrian, testu liturgikoei dagokienez, eta batik bat testu biblikoei eta Mezearen Egunerokoari dagokienez.[151]

393. Kontuan izanik ospakizunean kantuak, liturgiaren zati beharrezkoa eta osagarria dalako, dauan garrantzia,[152] Gotzainen Batzarrei dagokie kantuen doinuak onartzea, batik bat Mezearen Eguneroko testuentzat, herriak emon behar dituan erantzun eta gorapenentzat, eta liturgi urtean zehar izaten diran ohikune berezientzat.

Era berean, eurei dagokie Jainkoaren kultuan zein musika-mota, doinu eta musikagailu erabili daiteken erabagitzea, ekintza sakratuetarako benetan egokiak izan daitezan.

394. Eleizbarruti bakotxak bere liturgia eta Mezen Egutegi Berezia izatea komeni da. Gotzainen Batzarrak, barriz, nazinoko Egutegi Berezia egin behar dau bere aldetik nahiz lurralde zabalagoa hartzen dauan egutegia, gainerako Batzarrekin batera; Egutegi honi Aulki Apostolikoak emon beharko deutso oneretxia.[153]

Lan hori egitekoan, arretarik handiena jarri behar da domekea gorde eta babesten, lehentasuna dauan jaieguna danez; horregaitik, domekearen gainetik ez da beste ospakizunik jarri behar, guztiz garrantzitsua ez bada behintzat.[154] Era berean, kontu izan bedi, Vatikanoko II. Kontzilioak dekretuz onartutako liturgi urtea bigarren mailako osagaiak sartuz ilundurik geratu ez dadin.

---

150 Ik. VATIKANOKO II. KONTZILIO EKUMENIKOA, *Sacrosanctum Concilium* liturgia sakratuari buruzko Konstituzinoa, 24. zk.

151 Ik. *ibid*., 36. zk. § 3.

152 Ik. *ibid*., 112. zk.

153 Ik. *Normæ Universales de Anno liturgico et de Calendario*, 48-51. zk., hemen *geroago*, 71-72 or.; JAINKOAREN GURTZARAKO KONGREGAZIO SAKRATUA, *Calendaria particularia* Irakaspena (1970.06.24), 4 eta 8. zk.: A.A.S. 62 (1970), 652-653. or.

154 Ik. VATIKANOKO II. KONTZILIO EKUMENIKOA, *Sacrosanctum Concilium* liturgia sakratuari buruzko Konstituzinoa, 106. zk.

Nazinoko egutegia egitekoan Errogatibaegunak eta urteko lau Tenporetakoak zehaztu behar dira (*ik. 373. zk.*), baita ospakizun horreek zein eratan egin behar diran, horreetan erabiliko diran testuak[155] eta gainerako agindu bereziak be.

Meza Liburua argitaratzekoan, Egutegi Orokorrean dagokien lekuan sartzea komeni da nazino edo lurralde osorako diran ospakizunak; herrialde edo eleizbarruti batekoak diranak, barriz, eranskin berezi baten jarriko dira.

395. Azkenik, fededunen parte-hartzeak edo hareen onura espiritualak aldaketa nahiz egokitzapen sakonagoak egitea eskatuko balebe, ospakizun sakratua herri desbardinen espiritura eta tradizinora hobeto egokitu dadin, Gotzainen Batzarrek proposamenak egin ahal izango dabez Aulki Apostolikora, liturgi sakratuari buruzko Konstituzinoaren 40. zenbakian esanda dagoanaren arabera, eta honen oneretxiagaz Meza Liburuan sartu be bai, batez be Ebanjelioaren iragarpena entzun barria daben herrien mesedetan.[156] Kontuan hartu beitez arretaz «*Erromatar liturgia eta inkulturazinoa*» Irakaspenean emonda dagozan arau bereziak.[157]

Gai honi dagokionean, honan jokatuko da:

Lehenengo, zehatz adierazoko jako Aulki Apostolikoari egin nahi dana, hango baimena lorturik, egokitzapen bakotxa lantzen joateko.

Proposamen honeei Aulki Apostolikoak bere oneretxia emon ondoren, epe eta leku jakinetan erabiliko dira esperientzia moduan. Gauzea ondo badoa, Gotzainen Batzarrak, epea amaitutakoan, egokitzapenagaz jarraitzeko erabagia hartu ahal izango dau eta Aulki Apostolikoaren eskura jarriko, azken formulazinoa emon deion.[158]

396. Egokitzapen barriak, batez be sakonagoak, egiten hasi aurretik, benetako ahalegina egin beharko da, abadeei eta fededunei heziera emoten era jakitun eta ordenatuan, lehendik emonda dagozan eskubideak gauzatzen eta ospakizunaren espirituari dagokiozan arau pastoralak ondo betetzen.

397. Gorde beharreko printzipioa da, Eleiza partikular bakotxak bat eginda egon behar dauala Eleiza unibertsalagaz; batasun horrek ez dau fedeari buruzko doktrinari eta sakramentuen ezaugarriei dagokiena bakarrik izan behar; mundu guztian onartuak diran Apostoluengandiko eta etenbako tradizinozko ohiturei dagokiena be izan behar dau; beharrezkoa da, izan be, tradizino eta ohitura horreek gordetzea, alde batetik, okerreko doktrinak alboratzeko eta, bestetik, fedea bere osotasunean transmititzeko, Eleizearen otoitz-legeak fede-legearen araberakoa izan behar dauanez.[159]

Erromako ohikunea Eleiza katolikoak dauan liturgi altxorraren eta ondasunaren zati garrantzitsua eta ederra da; aberastasun hori Eleiza unibertsalari dagokion ondasuna da; horregaitik, hori galtzeak kalte handia ekarriko leukio.

Erromako ohikunea ez da Erromako urian sortutako liturgi ohikuneak gordetzeaz bakarrik arduratu; beste herrialde eta Sartaldeko nahiz Sortaldeko Eleiza partikularretako ohitura eta asmamenetik sortutako beste hainbat ohikune be berenganatu dau era sakon, organiko eta egokian, holan lurralde batekoa baino izaera zabalagoa hartuz. Gure sasoiotan, Erromako ohikune

---

155 Ik. *Normæ Universales de Anno liturgico et de Calendario*, 46. zk., hemen *geroago*, 96. or.; JAINKOAREN GURTZARAKO KONGREGAZINO SAKRATUA, *Calendaria particularia* Irakaspena (1970.06.24), 38. zk.: A.A.S. 62 (1970), 660. or.

156 VATIKANOKO II. KONTZILIO EKUMENIKOA, *Sacrosanctum Concilium* liturgia sakratuari buruzko Konstituzinoa, 37-40. zk.

157 Ik. JAINKOAREN GURTZARAKO ETA SAKRAMENTUEN ARAUBIDERAKO KONGREGAZIOA, *Varietates legitimæ* Irakaspena (1994.01.25), 54 eta 62-69. zk.: A.A.S. 87 (1995), 308-309 eta 311-313. or.

158 Ik. *ibid*., 66-68. zk.: A.A.S. 87 (1995), 313. or.

159 Ik. *ibid*., 26-27. zk.: A.A.S. 87 (1995), 298-299. or.

horren nortasunaren eta batasunaren adierazgarria Aita Santuaren aginduz argitaratu diran liturgia liburuetan datza, eta horreen itzulpen diran liturgia liburuetan, Gotzainen Batzarrek euren lurraldeetarako onartu eta Aulki Apostolikoak bere oneretxia emon deutsienetan.[160]

398. Erromako ohikunearen inkulturazinoa egin nahi danean be, Vatikanoko II. Kontzilioak ezarritako araua bete behar da,[161] hau da, liturgiaren erabarrikuntza egitekoan ez dirala aldaketak sartu behar, benetakoa eta ziurra dan Eleizearen onurak halan eskatzen ez badau, eta kontu handia izan behar dala forma barriak lehendik ezagunak diran formetatik organikoki sortuak izan daitezan.[162] Inkulturazinoak, bestalde, gitxieneko epe bat eskatzen dau, gauzak presaka eta arreta barik egiteagaitik liturgi tradizino jatorra ez hondatzeko.

Inkulturazinoa egin nahi izateak ez dau esan nahi ohikune-familia barriak sortu behar diranik; kultura jakin batek izan daikezan preminei erantzutea da helburua; baina Meza Liburuan nahiz beste liturgi liburuetan sartutako egokitzapenak Erromako ohikuneari kalterik ez egiteko moduan egin behar da inkulturatze-lana.[163]

399. Beraz, hizkuntza-desbardintasuna eta kultura-askotasuna onarturik be,[164] Erromako ohikunearen osotasunaren eta batasunaren tresna eta ezaugarri argi izan behar dau etorkizunean Erromako Meza Liburuak.[165]

---

160 Ik. JOAN PAULO II.a, *Vicesimus quintus annus* Gutun Apostolikoa (1988.12.04), 16. zk.: A.A.S. 81 (1989), 912. or.; JAINKOAREN GURTZARAKO ETA SAKRAMENTUEN ARAUBIDERAKO KONGREGAZINOA, *Varietates legitimæ* Irakaspena (1994.01.25), 2 eta 36. zk.: A.A.S. 87 (1995), 288 eta 302. or.

161 Ik. JAINKOAREN GURTZARAKO ETA SAKRAMENTUEN ARAUBIDERAKO KONGREGAZINOA, *Varietates legitimæ* Irakaspena (1994.01.25), 46. zk.: A.A.S. 87 (1995), 306.

162 Ik. VATIKANOKO II. KONTZILIO EKUMENIKOA, *Sacrosanctum Concilium* liturgia sakratuari buruzko Konstituzinoa, 23. zk.

163 Ik. *ibid*., 36. zk.: A.A.S. 87 (1995), 302. or.

164 Ik. *ibid.*, 54. zk.: A.A.S. 87 (1995), 308-309. or. 165 Ik. VATIKANOKO II. KONTZILIO EKUMENIKOA, *Sacrosanctum Concilium* liturgia sakratuari buruzko Konstituzinoa, 38. zk.; PAULO VI.a, *Missale Romanum* Konstituzino Apostolikoa: ik. hemen lehenago, 5. or.

165 Ik. VATIKANOKO II. KONTZILIO EKUMENIKOA, *Sacrosanctum Concilium* liturgia sakratuari buruzko Konstituzinoa, 38. zk.; PAULO VI.a, *Missale Romanum* Konstituzino Apostolikoa: ik. hemen lehenago, 5. or.

«MYSTERII PASCHALIS»
IDAZKI APOSTOLIKOA
«MOTU PROPRIO» ERARA EMONA

LITURGI URTEAZ ARAU OROKORRAK
ETA ERROMAKO EGUTEGI BARRI OROKORRA
ONARTUAK

PAULO VI.a AITA SANTUAK

PAZKO MISTERIOAREN ospakizunak kristau-kultuan garrantzirik handiena dauala eta misterio hori egunen, asteen eta urte osoaren joan-etorrian azaltzen dala argi eta garbi irakatsi deusku Vatikanoko II. Kontzilioak. Horregaitik, Kontzilioak emondako arauei jarraituz[1] Liturgi urtea erabarritzean, argiago jarri behar da Kristoren pazko-misterioa, bai Aldiko Berezia eta Santuen Berezia eratzekoan, bai Erromako Egutegia berrikustekoan.

I

Egia esan, gizaldien joanean hara zer jazo dan: bezpera-egunak, jaiak eta zortziurreneko ospakizunak ugaritu diralako eta liturgi urtean beste zer batzuk sartu diralako, fededunek, batzuetan, eraspen-egintza bereziak gauzatu dabez, eta, horregaitik, hareen gogoak inoiz Jainkoaren erospeneko misteriorik garrantzitsuenetatik aldendu egin dira.

Edonork daki Gure Aurretiko Pio X.a santuak eta Joan XXIII.a gogoangarriak arau batzuk emon dabezala, domekeari barriro jatorrizko bere duintasuna bihurtzeko –domekea «lehentasuna dauan jaieguntzat»[2] euki behar dabe-eta guztiek egiaz eta berez– eta Garizuma santuaren liturgia ospakizuna eratzeko. Era berean, guztiok da-

---

1 Ik. VATIKANOKO II. KONTZILIOA, *Sacrosanctum Concilium* liturgia sakratuari buruzko Konstituzinoa, 102-111. zk.

2 Ik. *ibid.*, 106. zk.

kigu Gure Aurretiko Pio XII.a gogoangarriak Sartaldeko Eleizearentzat Pazko Gaubela nagusia erabarritzea erabagi ebala;[3] Gaubela horretan, Jainkoaren herriak, kristau-sarbideko sakramentuak ospatuz, barritu egiten dau Kristo Jaun berbiztuari buruzko alkartasun espirituala.

Aita Santu honeek, Eleiz Guraso santuen irakatsiei eta Eleiza katolikoaren tradizinoari adoretsu jarraituz, bide zuzenean ebiltzan honako hau uste izatean eta zentzun honez irakastean: alde batetik, liturgi urtean zehar, Jesu Kristok gure onerako jasan eban heriotza eta egin zituan beste egintza salbagarriak gogoratzen doguzala eta lehen aldiko gauza batzuk hausnartzen, holan edozein kristau, lau-laua izanda be, eskolatuz eta janarituz; eta, bestetik, liturgi urtea ospatzeak «*berariazko indarra eta sakramentu-eragina dauala kristau-bizitza sendotzeko*».[4] Hau guztiau Geuk be honan dala sinisten dogu eta autortzen.

«*Kristoren Jaiotzaren misterioa*»[5] eta munduari Agertzea ospatzean, arrazoiz eskatzen dogu «*bere gizatasunean gure antzeko autortzen dogunak egin gaizala barru-barrutik bere antzeko*»;[6] eta, Kristoren Pazkoa barritzen dogunean, Kristogaz birjaio diranentzat «*sinismenez hartu dogun sakramentua geure bizitzan zintzo bete daigula*»[7] eskatzen deutsogu Jainkoari. Izan be, Vatikanoko II. Kontzilioaren berbak aitatuz, Eleizeak «*Erospeneko misterioak gogoratzean, bere Jaunaren ahalmen santutzailearen eta merezimentuen aberastasunak zabaltzen ditu eta, zeozelan, aldi guztietan barriztatzen, fededunak, aberastasun honeek eurenganaturik, salbazinoko graziaz bete daitezan*».[8]

Hau dala-eta, liturgi urtearen berrikusteak eta horren erabarritzetik etorriko diran arauek helburu hau besterik ez dabe: fededunak, sinismenaren, itxaropenaren eta maitasunaren bidez, «*urte osoan zehar agirian jartzen dan Kristoren misterio osoagaz*»[9] biziroago alkartzea.

---

3 Ik. OHIKUNEETARAKO KONGREGAZINO SAKRATUA, *Dominica Resurrectionis* Dekretu orokorra (1951.02.09): A.A.S. 43 (1951), 128-129. or.

4 OHIKUNEETARAKO KONGREGAZINO SAKRATUA, *Maxima redemptionis nostræ mysteria* Dekretu orokorra (1955.11.16): A.A.S. 47 (1955), 839. or.

5 SAN LEON HANDIA, *Sermo XXVII in Nativitate Domini* 7, 1: PL 54, 216.

6 Ik. ERROMAKO MEZA LIBURUA [ed. typ., 1962], *Agerkundeko otoitza* [Meza Liburu honetan, ik. Jaunaren Bateoko bigarren otoitza, 145. or.].

7 Ik. ERROMAKO MEZA LIBURUA [ed. typ., 1962], *Pazko Zortziurreneko martitzeneko otoitza* [Meza Liburu honetan, ik. Pazko Zortziurreneko asteleheneko otoitza, 314. or.].

8 VATIKANOKO II. KONTZILIOA, *Sacrosanctum Concilium* liturgia sakratuari buruzko Konstituzinoa, 102. zk.

9 Ik. *ibid.*

II

«*Hautsi ezinezko lokarriz bere Semearen salbazino-egintzari loturik dagoen*»[10] Maria Birjina dohatsuaren jaiek eta santuen oroipenek –eta, bidezko danez, honeen artean aurkitzen dira «*gure jaundone Martirien eta Garaileen jaiotzegunak*»[11]– apartezko argiz egiten dabe argi. Ez dogu uste, hau lehen esandakoaren aurka dagoanik; izan be, «*santuen jaiek Kristok bere zerbitzariengan egindako harrigarriak iragartzen dituzte, eta fededunentzat jarraibide egokiak dakarrez*».[12] Eleiza katolikoak gauza sendo eta ziurtzat euki izan dau beti, santuen jaiek Kristoren pazko-misterioa iragarri eta barriztatu egiten dabela.[13]

Gizaldietan zehar santuen jaiegun gehiegi sartu izan dala ezin daiteke ukatu. Horregaitik, Batzar Santuak ohar egoki hau egiten dau: «*Salbazino-misterioak berberak ospatzen dabezan jaiegunen gainetik santuen jaiak jarri ez daitezan, jai horreetariko askoren ospakizuna lekuan lekuko eleiza, herrialde eta erlijioso-alkarteentzat itzi bedi, mundu guztian garrantzia daben santuen oroipena bakarrik ospatuz Eleiza osoan*».[14]

Kontzilioaren erabagi honeek bete ahal izateko, santu batzuren izenak kendu egin dira Egutegi Orokorretik; eta beste santu batzuren oroipenak eta ospakizunak, egoki eretxi ezkero, euren herrialdeetan barriro ezartzeko eskubidea emon da. Hau dala-eta, mundu guztian ezagutzen ez diran santu batzuren izenak Erromako Egutegitik kendu egin dira, eta Ebanjelioa oraintsuago zabaldu dan herrialde batzuetako martiri batzuren izenak sartu; holan, Egutegi barriko zerrendan, duintasun-maila berean aurkitzen dira herrialde guztietako ordezkariak, horreen bikaintasuna autortzen dala, odola Kristogaitik isuri ebelako edo aparteko bertuteak erakutsi ebezelako.

Holan, bada, latin-ohikunearentzat egin dan Egutegi Orokor barria aldi honetako pentsaerari eta erlijinozko izaerari hobeto datorkiola uste dogu, eta hobeto agertzen dauala Eleizeak berea dauan orokortasuna. Egutegi honetan gizon-emakume ospetsuen izenak datoz etorri be, eta Jainkoaren herri guztiari santutasunaren eredu bereziak eskeintzen deutsoez, santutasuna era askotara bizi izan dabelako. Ez dago esan beharrik zelako espirituzko onura dakarren honek kristau guztientzat.

Gauza honeek guztiak Jaunaren aurrean arretaz hausnartu ondoren, Erromako Egutegi Orokor barria, liturgia santuari buruzko Konstituzinoa betearazoteko *Consilium* dalakoak egina, gure Apostolu-aginpidez onartzen dogu, baita liturgi urtearen

10 *Ibid.,* 103. zk.
11 Ik. *Breviarium Syriacum* (V. mendekoa), B. Mariani argit. (Erroma 1956), 27. or.
12 Ik. VATIKANOKO II. KONTZILIOA, *Sacrosanctum Concilium* liturgia sakratuari buruzko Konstituzinoa, 111. zk.
13 Ik. *ibid.,* 104. zk.
14 Ik. *ibid.,* 111. zk.

erabideari dagokiozan Arau Orokorrak be, eta 1970eko urtarrilaren lehenengo egunean jarriko dira indarrean, Ohikuneetako Kongregazino Santuak aitatu dogun *Consilium*-egaz batera emongo dituan erabagien arabera eta, Meza Liburuaren eta Orduetako Liturgia liburuaren argitalpen erabarritua egin arte, indarrean egongo dira.

Gure Idazki honetan erabagi dogun guztia, *Motu proprio* erara emona, sendo izan dadila eta indar izan dagiala agintzen dogu, Gure Aurretikoengandiko Konstituzino eta Agindu Apostolikoak, holakorik izan baledi, edo beste edozein erabagi eragozpen izango ez dirala, aipagarrienak eta indargetzekoak izan arren.

Erroman San Pedron emona, 1969ko otsailaren 14an, gure Aitasantutzaldiko seigarren urtean.

PAULO VI.a AITA SANTUAK

LITURGI URTEAZ ETA EGUTEGIAZ ARAU OROKORRAK

I. Kapitulua
LITURGI URTEA

1. Kristok burututako salbazino-egintzaren gogorapen sakratua ospatzen dau Eleiza santuak urte osoan zeharreko egun jakinetan. Astero, domekaz, Jaunaren biztueraren gogorespena ospatzen da –horregaitik, domekeari «Jaunaren eguna» deritxo–; oroipen hori urtean behin, nekaldi santuagaz batera, Pazko-festaburuan ospatzen da; urte betearen jiran, Eleizeak Kristoren misterio osoa garatzen dau eta santuen jaiotzegunen gogorespena egiten.

Liturgi urteko aldietan tradizinoz egiten diran ospakizunen arabera, Eleizeak eskolatu egiten ditu fededunak arimari eta gorputzari dagokiozan eraspenezko jardunez, irakaskuntzaz, otoitzez eta penitentziazko eta errukizko egintzez.[15]

2. Ondoren datozan argibideak Erromako ohikuneari nahiz beste ohikuneei dagokiez eta halan hartu beharrekoak dira; baina bete beharreko arauak Erromako ohikuneari bakarrik dagokioz, euren izatez beste ohikuneei be dagokiozan arauak izan ezean.[16]

I. Izenburua
EGUN LITURGIKOAK

I. Egun liturgikoa orokorrean

3. Egun bakotxa Jainkoaren herriaren ospakizun liturgikoen bidez santutzen da; batez be, eukaristi opariaren eta Orduetako Liturgiaren bitartez.

Egun liturgikoa gauerdian hasten da eta hurrengo gauerdian amaitzen. Domekearen eta festaburuaren ospakizuna, halan be, aurreko eguneko arratsaldean hasten da.

II. Domekea

4. Asteko lehen egunari Jaunaren eguna edo domekea deritxo; egun honetan, Eleizeak, Kristoren biztuera-egunean bertan hasitako tradizino apostolikoari jarraituz, pazko-misterioa ospatzen dau. Hori dala-eta, lehentasuna dauan jaiegunzat hartu behar da domekea.[17]

5. Garrantzi berezia daualako, domekea, festaburuetan eta Jaunaren jaiegunetan bakarrik gel-

15 Ik. VATIKANOKO II. KONTZILIOA, *Sacrosanctum Concilium* liturgia sakratuari buruzko Konstituzinoa, 102-105. zk.
16 Ik. *ibid.,* 3. zk.
17 Ik. *ibid.,* 106. zk.

ditzen da bere ospakizuna barik; Abendualdiko, Garizumako eta Pazkoaldiko domekak, halan be, Jaunaren jaiegun guztiak eta festaburu guztiak baino lehenagokoak dira. Esandako domeka honeetan izaten diran festaburuak ondorengo astelehenean ospatuko dira, Erramu-domekan edo Jaunaren Biztuerako domekan izaten ez badira.

6. Domekeak, berez, ez dau onartzen egun horretan beste ospakizunen bat betiko ezartzea. Halan be, domekaz ospatzen dira:

a) Gabon Zortziurreneko domekan, Familia Santuaren jaia;

b) urtarrilaren 6aren ondorengo domekan, Jaunaren Bateo-jaieguna;

c) Pentekoste ondorengo domekan, Hirutasun Guztiz Santuaren festaburua;

d) Urtean Zeharreko azkeneko domekan, Jesu Kristo gure Jauna, diran guztien Erregearen festaburua.

7. Agerkunde, Igokunde eta Kristoren Gorputz eta Odol Santuen festaburuak, jai oso egin beharrekoak ez diran lekuetan, domekaz ospatuko dira, domeka hori euren egun berezia balitz lez, eta era honetan ospatuko dira:

a) Agerkunde, urtarrilaren 2a eta 8aren arteko domekan;

b) Igokunde, VII. Pazko-domekan;

e) Kristoren Gorputz eta Odol Santuen festaburua, Hirutasun Guztiz Santu ondorengo domekan.

III. Festaburuak, jaiak eta oroipenak

8. Liturgi Urte osoan zehar Kristoren misterioa ospatzekoan, Eleizeak maitasunezko benerazino berezia erakusten deutso Andra Maria Jainkoaren Amari be eta martirien eta beste santuen oroipenak jartzen ditu fededunen eraspenerako.[18]

9. Mundu guztian garrantzia daben santuak Eleiza osoan ospatu behar dira; gainerakoak nahierara ospatu ahal izateko ezartzen dira egutegian, edo lekuan lekuko Eleiza bakotxaren nahiz herrialde nahiz alkarte erlijioso bakotxaren gurtzarako izten dira.[19]

10. Ospakizunak bereiztu egin behar dira, daukien garrantziaren arabera, eta honako izenak emoten jakez: festaburua, jaia, oroipena.

11. Festaburuak dira egunik nagusienak; honeen ospakizuna aurreko eguneko I. Bezperetan hasten da. Festaburu batzuek bezpera-arratsaldeko Meza berezia be badabe, aurreko eguneko arratsaldean emon beharrekoa, Mezea arratsaldeko orduetan emoten bada.

12. Pazkoko eta Jaunaren Jaiotzako festaburuen ospakizuna zortzi egunetan zehar luzatzen da etenik barik. Zortziurren horreetako bakotxak bere legeak ditu.

13. Jaiak egunaren berezko muga barruan ospatzen dira; horregaitik, ez dabe I. Bezperarik, Jaunaren jai bat izanik, Urtean Zeharreko edo Gabonaldiko domeka baten ordez ospatzen ez bada eta domekeari dagokion Orduetako Liturgia ordezkatzen ez badau behintzat.

14. Oroipenak beharrezkoak edo nahierazkoak dira; honeen ospakizuna, egun horretan izaten dan asteguneko ospakizunagaz konponduko da, Erromako Meza Liburuaren eta Orduetako Liturgiaren Eraketa Orokorretan esandakoaren arabera.

Garizuman izaten diran beharrezko oroipenak nahierazko oroipen lez bakarrik ospatu daitekez.

Egun berean egutegiak nahierazko oroipen bat baino gehiago badakar, horreetako bat bakarrik ospatuko da, eta besteak itzi egingo dira.

15. Urtean Zeharreko zapatuetan, beharrezko oroipenik ez bada, Andra Maria Birjinaren nahierazko oroipena egin daiteke.

IV. Astegunak

16. Domekearen ondoren datozan asteko egunei astegunak deritxe; egun honeen ospakizuna

18 Ik. *ibid.,* 103-104. zk.
19 Ik. *ibid.,* 111. *zk.*

era desbardinez egingo da, bakotxak dauan garrantziaren arabera:

a) Hauts-egun-eguna eta Aste Santuko egunak, astelehenetik eguenera bitartekoak, gainerako ospakizun guztiak baino lehenagokoak dira;

b) Abendualdiko astegunak, abenduko hilaren 17tik 24a artekoak, biak barru, eta Garizumako astegun guztiak beharrezko oroipenak baino lehenagokoak dira;

c) gainerako astegunek, festaburu eta jai guztien aurrean, galdu egiten dabe euren ospakizuna eta, oroipenekin batera izaten diranean, konponketa egin behar da euren artean.

II. Izenburua
LITURGI URTEA

17. Liturgi Urtean zehar, Eleizeak Kristoren misterio osoa ospatzen dau, Gizakundetik Pentekoste-egunera arte, eta Jaunaren etorrerako ospakizunera arte.[20]

I. Pazko Hirurrena

18. Jesu Kristok, batez be pazko-misterioaren bidez egin eban gizakiaren erospena eta Jainkoaren gorapen bete-betea: bere heriotzaz gure heriotza ezereztu eban, eta bere biztueraz gure bizia barritu. Horregaitik, Jaunaren nekaldiko eta biztuerako Pazko Hirurren Santua Liturgi Urte osoaren gailurra da.[21] Domekeak aste barruan dauan lehentasuna dau Pazko-festaburuak Liturgi Urtean.[22]

19. Jaunaren nekaldiko eta biztuerako Pazko Hirurrena Jaunaren Afariko arratsaldeko Mezaz hasten da; Pazko Gaubelan jotzen dau gailurra, eta Biztuera-domekako Bezperekin amaitzen da.

20. Jaunaren Nekaldiko Bariku Santuz[23] eta, egoki eretxi ezkero, baita Zapatu Santuko Pazko Gaubelara arte be,[24] pazko-barau sakratua egingo da leku guztietan.

21. Pazko Gaubela, Jaunaren biztuerako gau santua, «Gaubela santu guztien amatzat»[25] hartzen da eta Gaubela honetan Eleizea Kristoren biztueraren zain egoten da zuhur, eta sakramentuetan ospatzen dau. Hori dala-eta, Gaubela osoa gauez ospatu behar da; beraz, ilundu ondoren hasi eta domekako egunsentia baino lehenago amaitu behar da.

II. Pazkoaldia

22. Biztuera-domekatik Pentekoste-domeka bitartean dagozan berrogeita hamar egunak pozik eta alai ospatu behar dira, jaiegun bakarra eta, gehiago, «domeka nagusi bakarra»[26] izango balira lez.

Batez be egun honeetan abesten da Aleluia.

23. Aldi honetako domekak Pazko-domekatzat hartzen dira eta, Biztuera-domeka ondoren, II., III., IV., V., VI., VII. Pazko-domeka esaten jake; Pentekoste-domekeak burutzen dau berrogeita hamar eguneko aldi sakratu hau.

24. Pazkoaldiko lehenengo zortzi egunek Pazko Zortziurrena osotzen dabe, eta Jaunaren festaburu lez ospatzen dira.

25. Pazko-egunetik berrogei egunera Jaunaren Igokundea ospatzen da, jai oso ez dan lekuetan VII. Pazko-domekara aldatzen ez bada (*ik. 7. zk.*).

---

20 Ik. *ibid.,* 102. zk.
21 Ik. *ibid.,* 5. zk.
22 Ik. *ibid.,* 106. zk.
23 Ik. PAULO VI.a, *Pœnitemini* Konstituzino Apostolikoa (1966.02.17), II. § 3: A.A.S. 58 (1966), 184. or.
24 Ik. VATIKANOKO II. KONTZILIOA, *Sacrosanctum Concilium* liturgia sakratuari buruzko Konstituzinoa, 110. zk.
25 SAN AGUSTIN, *Sermo* 219: PL 38, 1088.
26 SAN ATANASIO, *Epist. fest.* I.a: PG 26, 1366.

26. Igokundetik Pentekoste aurreko zapatura arteko astegunetan, biak barru, Espiritu Santu Laguntzailearen etorrerarako prestatzen da Eleizea.

III. Garizuma

27. Garizuman Pazkoa ospatzeko prestatzen da Eleizea: Garizumako liturgiak pazko-misterioa ospatzeko prestatzen ditu, bai kristaugaiak, kristau-sarbidea mailaz maila eginez, bai fededun guztiak be, euren Bateoa gogoratzen eta penitentzia egiten dabela.[27]

28. Hauts-egun-egunean hasten da Garizuma eta Jaunaren Afariko Meza aurretik amaitzen.

Garizumearen hasieratik Pazko Gaubelara arte ez da Aleluia esango.

29. Garizuma-hasierako Hauts-egun-eguna barau-eguna da leku guztietan,[28] eta errautsa ipintzen da.

30. Aldi honetako domekei, Garizumako I., II., III., IV., V. domekea esaten jake. Seigarren domekeari, Aste Santua hasten dauanari, Jaunaren Nekaldiko Erramu-domeka deritxo.

31. Aste Santuan, Kristo Jerusalemen Mesias lez sartu zanetik hasita, haren nekaldia gogoratzen da.

Eguen Santuz, goizean, Gotzainak, bere abadeekin alkarmeza emonez, orio santuak bedeinkatzen ditu eta krisma sagaratzen.

IV. Gabonaldia

32. Pazko-misterioaren urteroko ospakizunaren ondoren, Eleizeak ez dau Jaunaren Jaiotza eta haren lehenengo agerpenak gogoratzea baino ospakizun zaharragorik eta beneragarriagorik, eta hori Gabonaldian egiten da.

33. Jaunaren Jaiotza-eguneko I. Bezperetatik Agerkunde ondorengo edo urtarrilaren 6aren ondorengo domekara arte, biak barru, izaten da Gabonaldia.

34. Jaunaren Jaiotzako bezpera-arratsaldeko Mezea abenduko hilaren 24ko arratsaldean emoten da, I. Bezperen aurretik nahiz ondoren.

Jaunaren Jaiotza-egunean hiru Meza emon daikez abade bakotxak, antzinako tradizino erromatarraren arabera, hau da, gauean, egunsentian eta egunean.

35. Gabonaldiak bere zortziurrena dau, honan eratuta:

a) zortziurren barruko domekan edo, domekarik ez bada, abenduaren 30ean, Jesus, Maria eta Jose Familia Santuaren jaia ospatzen da;

b) abenduaren 26an, San Esteban lehenmartiriaren jaia;

c) abenduaren 27an, San Joan Apostolu eta Ebanjelariaren jaia;

d) abenduaren 28an, Umetxu Errubako Santuen jaia;

e) abenduaren 29, 30 eta 31 zortziurreneko egunak dira;

f) urtarrilaren lehen-egunean, Gabon Zortzigarrenean, Jainkoaren Ama Mariaren festaburua ospatzen da eta Jesus Izen Santua ezartzearena.

36. Urtarrilaren 2tik 5era bitartean izaten dan domekea Gabon ondorengo II. Domekea da.

37. Jaunaren Agerkundea urtarrilaren 6an ospatuko da, jai oso ez dalako 2a eta 8aren arteko domekara aldatu izan ez bada (*ik. 7. zk.*).

38. Urtarrilaren 6aren ondorengo domekea Jaunaren Bateoaren jaia da.

V. Abendualdia

39. Abendualdiak alderdi bi ditu: batetik, Jainkoaren Semea gizakien artera lehenengoz etortzearen oroipena egiten dan Gabon-jaietarako

27 Ik. VATIKANOKO II. KONTZILIOA, *Sacrosanctum Concilium* liturgia sakratuari buruzko Konstituzinoa, 109. zk.
28 Ik. PAULO VI.a, *Pœnitemini* Konstituzino Apostolikoa (1966.02.17), II. § 3: A.A.S. 58 (1966), 184. or.

prestatze-aldia da, eta, bestetik, aurreko hori guztia gogoratuz, azken aldietan Kristok egingo dauan bigarren etorrera itxarotera fededunen gogo-bihotzak zuzentzeko aldia. Arrazoi bi horneekaitik, Abendualdia itxaropen eraspentsuaren eta pozgarriaren aldia dala agertzen jaku.

40. Azaroaren 30ean edo egun honetatik hurren izaten dan domekako I. Bezperetan hasten da Abendualdia, eta Jaunaren Jaiotzako I. Bezperen aurretik amaitzen.

41. Aldi honetako domekei Abendualdiko I., II., III., IV. domeka deritxe.

42. Abenduko hilaren 17tik 24ra bitarteko astegunek, biak barru, zuzen-zuzenean Jaunaren Jaiotza prestatzea dabe helburu.

VI. Urtean Zeharreko aldia

43. Itxura berezia daben aldiez gainera, beste 33 edo 34 aste gelditzen dira Liturgi urtea osotzeko; aste honeetan ez da Kristoren misterioaren alderdi berezirik ospatzen. Kristoren misterio hau bere osoan gogoratzen da, batez be domeketan. Aldi honi «Urtean Zeharreko» aldia deritxo.

44. Urtarrilaren 6aren hurrengo domeka ondorengo astelehenean hasten da «Urtean Zeharreko» aldia eta Garizuma aurreko martitzena bitartean, biak barru, luzatzen; Pentekoste-domeka ondorengo astelehenean hasten da barriro, eta Abendualdiko I. domekako I. Bezperen aurretik amaitzen.

Horregaitik, aldi honetako domeka eta astegunetarako, Meza Liburuan eta Orduetako Liturgian datozan otoitz-gaiak erabiliko dira.

VII. Errogatibak eta urteko Lau Aroak

45. Errogatibetan eta urteko Lau Aroetan Eleizeak gizon-emakumeen beharraldi batzuren alde otoitz egiten deutso Jainkoari, batez be lurreko frutuen eta giza lanaren alde, eta eskerrak emoten deutsoz agirian Jainkoari.

46. Errogatibak eta Lau Aro honeek leku bakotxeko fededunen beharraldietara egokitzeko, Gotzainen Batzarrek noiz eta zelan ospatu behar diran erabagitzea komeni da.

Ospakizun honeek zenbat egunetan, baten ala gehiagotan, egin behar diran, eta Liturgi Urte osoan zehar zenbat bider egin behar diran jakiteko, eskumena dauan agintariak behar diran arauak ezarriko ditu, lekuan lekuko beharrizanak gogoan izanez.

47. Egun horreetako bakotxean emongo dan Mezea Beharraldi Batzuetarako izeneko Mezetatik aukeratuko da, eskarien asmoari ondohain datorkiona.

II. Kapitulua
EGUTEGIA

I. Izenburua
EGUTEGIA ETA BERTAN AZALDU BEHAR DABEN OSPAKIZUNAK

48. Ospakizunen eraketa Liturgi Urteko egutegiaren arabera egingo da; orokorra nahiz berezia izan daiteke egutegia: orokorra, Erromatar ohikunea erabiltzen dan toki guztietarako bada; berezia, Eleiza berezi baten nahiz bazkun edo familia erlijioso baten erabiltzekoa bada.

49. Liturgi Egutegi Orokorrak ospakizunen aldi osoa dakar, bai salbazino-misterioarenak Aldiko Berezian bai, Eleiza osorako garrantzizkoak diranez, guztiek ospatu beharrekoak diran santuen Eleizkizunak, bai Jainkoaren herriaren santutasuna orokorra eta etenbakoa dala erakusten daben beste santuenak.

Liturgi Egutegi Bereziak hurkoagoak diran eta aldi osoa gogoan izanik eratzen eta atontzen

diran ospakizunak dakarz.[29] Hain zuzen be, ondo dago Eleiza edo familia erlijioso bakotxak batik bat bereak dituan santuei aipamen bereziz gur egitea.

Eskumena dauan agintariak atonduriko Egutegi Bereziak Aulki Apostolikoak onartu behar ditu.

50. Egutegi Bereziak egitekoan, puntu honeek izan behar dira gogoan:

a) Aldiko Berezia –hau da, erospenaren misterioa Liturgi Urtean zehar azaldu eta ospatzen dan aldi, festaburu eta jaien aroa– beti osorik bete behar da eta ospakizun bereziak baino lehenagokoa izan behar dau.

b) Ospakizun bereziak ospakizun orokorrekin egoki konpondu behar dira, liturgi egunetako zerrendan kasu bakotxerako ezarri diran era eta lehentasuna gorderik. Egutegi Bereziak gehiegi astundu ez daitezan, santu bakotxak ospakizun bakarra izango dau Liturgi Urtean; arrazoi pastoralek eskatuko balebe, Eleiza edo famili erlijiosoaren Zaindari edo Sortzaile santuaren lekualdatzea edo aurkikuntza gogoratzeko, bigarren ospakizuna be antolatu daiteke, nahierazko oroipen lez.

c) Onartutako ospakizunek ez dabe Aldiko Berezian egiten diran salbazino-misterioaren ospakizunen bikoizketa izan behar, eta ez dira ugaritu behar bidezkoa dan baino gehiago.

51. Eleizbarruti bakotxak bere egutegia eta Orduetako Liturgiaren eta Mezen Berezia eukitea ondo badago be, ez dago eragozpenik Eleiz probintzia oso baten, herrialde edo nazino baten nahiz lurralde zabalago baten danentzako Egutegi eta Berezi berberak izateko; honako egutegia eta Berezia alkarregaz lan eginez prestatu behar dabez arduradun guztiek.

Hori bera egin daiteke, arrazoi bardinakaitik, erlijioso-erlijiosen egutegietan, herrialde bereko probintzia desbardinetarako egiten diranean.

52. Egutegi Berezia, lekuan lekuko festaburu, jai eta oroipen bereziak Egutegi Orokorrean ezarriz osotzen da, hau da:

a) Eleizbarrutiko egutegian, Zaindarien eta Gotzain-Eleizea sagaratzearen ospakizunez gainera, Eleizbarrutiagaz aparteko zerikusia daben santu eta dohatsuenak be ezarriko dira; esate baterako, bertan jaio, luzaroan bizi edo hil ziralako.

b) Erlijioso-erlijiosen egutegian, Alkartearen Izenaren, Sortzailearen eta Zaindariaren ospakizunez gainera, familia erlijioso horretakoak izan ziran santu eta dohatsuenak edo beragaz aparteko zerikusia izan ebenenak be ezarriko dira.

c) Eleiza bakotxeko egutegian, Eleizbarrutiko nahiz familia erlijiosoko ospakizun bereziez gainera, beste honeek sartzen dira: egun liturgikoen zerrendan ezarrita dagozan Eleiza bereko ospakizunak eta baita euren gorpuzkiak Eleiza haretan dabezan santuenak be. Familia erlijiosoetako diranek lekuko Eleiz alkarteagaz bat egiten dabe, Gotzain-Eleizea sagaratzea eta bizi diran lekuko eta lurraldeko Zaindari nagusiaren eguna ospatzeko.

53. Eleizbarruti edo familia erlijioso batek santu edo dohatsu asko dauanean, Eleizbarrutiaren edo familia erlijiosoaren egutegia ez da gehiegi astundu behar. Horretarako:

a) Lehenengo eta behin, Eleizbarrutiko edo familia erlijiosoko santu eta dohatsu guztien ospakizuna edo gitxienez talde batena batera egin daiteke.

b) Eleizbarruti edo familia erlijioso osoarentzat garrantzi berezia daben santuek eta dohatsuek baino ez dabe izango aparteko ospakizuna egutegian.

c) Gainerako santu eta dohatsuen ospakizunak zerikusi berezi-berezia daben lekuetan nahiz horreen gorpuak dagozanetan bakarrik egingo dira.

54. Lekuan lekuko ospakizunak beharrezko edo nahierazko oroipen lez ezarri behar dira egutegian, horreetako batzurentzat egun liturgikoen zerrendan besterik esana ez badago edo historia nahiz pastoraltza aldetik beste arrazoi berezirik ez badago. Halan be, ospakizun horreetako batzuk, leku jakinetan handikiroago egin daitekez

29 Ik. JAINKOAREN GURTZARAKO KONGREGAZINO SAKRATUA, *Calendaria particularia* Irakaspena (1970.06.24): A.A.S. 62 (1970), 651-663. or.

Eleizbarruti guztian edo familia erlijiosoan baino.

55. Egutegi Berezi bateko ospakizunak egutegi hori erabiltzea dagokien guztiek burutu behar dabez eta, Aulki Apostolikoaren baimenaz izan ezik, ezin daitekez ospakizun honeek egutegitik kendu, ezta aldatu be horreen maila.

II. IZENBURUA
OSPAKIZUNAK ZEIN EGUNETAN EGIN

56. Santuak, zerurako jaio ziran egunean ospatzen ditu Eleizeak, hau da, hil ziran egunean. Egutegi Berezian ezarritako lekuko ospakizunekin be hori bera egin behar da.

Halan be, ospakizun bereziek lekuko Eleiza edo familia erlijioso bakotxarentzat aparteko garrantzia izan arren, oso ondo legoke, ahal dan neurrian, Egutegi Orokorreko festaburu, jai eta beharrezko oroipenen ospakizunetan batasuna izatea.

Hau dala-eta, lekuko egutegian jarri behar diran ospakizun berezietan, ondorengo honeek bete behar dira:

a) Egutegi Orokorrean datozan ospakizunak egun berean ezarri behar dira Egutegi Berezian be, ospakizunen maila, behar izan ezkero, aldatuz.

Hori bera egin behar da Eleiza jakin baterako ospakizunekin be, Eleizbarruti edo familia erlijiosoko egutegiari dagokionez.

b) Egutegi Orokorrean ez datozan santuen ospakizunak, hil ziran egunean egin behar dira. Hil ziran eguna zein dan inork ez badaki, beste egunen baten egingo da santu horren ospakizuna; esate baterako, abade egin eben egunean edo aurkitu nahiz lekuz aldatu eben egunean; hori be ezinezkoa bada, Egutegi Berezian beste ospakizunik ez dan egunen baten.

c) Nahiz eta maila txikiagokoa izan, Egutegi Orokorrak edo lekukoak dakarren beharrezko ospakizunen bat egin behar dalako, hildako egunean nahiz berari dagokion egun berezian ospatzerik ez badago, libre dagoan hurrenengo egunera aldatuko da.

d) Baina arrazoi pastoralakaitik beste egun batera aldatu ezin bada, eragozpena sortzen dauan beste ospakizun hori aldatuko da..

e) Onartuak deritxen beste ospakizunak, pastoraltzaren aldetik egokiena dan egunean ezarriko dira.

f) Liturgi Urteko aldia bere argi bete-betean agertu dadin eta santuen ospakizun batzuk betiko galarazorik izan ez daitezan, Garizuman eta Pazko Zortziurrenean izaten diran egunetan, ez da gehienetan ospakizun berezirik jarriko, ezta abenduko hilaren 17tik 31 arteko egunetan be, non eta beharrezko ez diran oroipenak edo 8. zenbakiko a, b, c, d egun liturgikoetako jaiak edo beste aldi batera aldatu ezinezko festaburuak ez diran. San Joseren festaburua (martxoaren 19a) Garizumaz kanpoko beste egun batera aldatu leikie Gotzainen Batzarrek, jai oso egin beharreko eguna ez bada.

57. Santu edo dohatsu batzuk egutegian batera ezarrita badagoz, batera ospatuko dira beti, ospakizun-maila bera dabenean, nahiz eta horreetakoren bat edo batzuk bereziagoak izan. Baina santu edo dohatsuetakoren bat edo batzuk goragoko maila baten ospatu behar badira, Orduetako Liturgia honeena bakarrik egingo da, gainerakoen ospakizuna bertan behera itzirik, beharrezko oroipen lez beste egun batera aldatzea egoki izan ezean.

58. Fededunen onura pastoralagaitik zilegi da aste barruan izaten diran eta fededunen aldetik biziro onartuak diran ospakizunak Urtean Zeharreko domeketan ospatzea, ospakizun honeek lehentasun-zerrendaren arabera domekea baino lehenagokoak badira. Herriagaz emoten diran Meza guztiak ospakizun horreei dagokiozanak izan daitekez.

59. Ospakizunari dagokionez, egun liturgikoen lehentasuna ondorengo zerrendaren arabera erabagiko da:

EGUN LITURGIKOEN ZERRENDA

lehentasunaren mailaz eratua

I.

1. Jaunaren Nekaldi eta Biztuerako Pazko Hirurrena.

2. Jaunaren Jaiotza, Agerkundea, Igokundea eta Pentekoste.
Abendualdiko, Garizumako eta Pazkoaldiko domekak.
Hauts-egun-eguna.
Aste Santuko egunak, astelehen santutik eguen santura arte, biak barru.Pazko Zortziurreneko egunak.

3. Egutegi Orokorrean azaltzen diran Jaunaren, Maria Birjina dohatsuaren eta santuen festaburuak.
Hildako Fededun Guztien Oroipena.

4. Festaburu bereziak, hau da:
a) Lekuko, herriko nahiz uriko Zaindari nagusiaren festaburua.
b) Eleiza jakin baten sagaratze-eguneko eta urtemugako festaburua.
c) Eleiza bakotxeko Titularraren festaburua.
d) Lekaide-lekaime edo erlijioso-erlijiosen alkarteko Titularraren, Fundatzailearen nahiz Zaindari nagusiaren festaburua.

II.

5. Egutegi Orokorrean azaltzen diran Jaunaren jaiak.

6. Gabonaldiko eta Urtean Zeharreko domekak.

7. Egutegi Orokorrean azaltzen diran Andra Maria Birjinaren eta santuen jaiak.

8. Jai bereziak, hau da:
a) Eleizbarrutiko Zaindari nagusiaren jaia.
b) Gotzain-Eleizea sagaratzearen urtemugako jaia.
c) Herrialde, probintzia, nazino edo lurralde zabalagoko Zaindari nagusiaren jaia.
d) Lekaide-lekaime edo alkarte erlijioso nahiz probintzia erlijioso bateko Titularraren, Fundatzailearen edo Zaindari nagusiaren jaia, gorago 4. zenbakian esandakoak aintzat hartzen dirala.
e) Eleiza jakin bateko beste jai bereziak.
f) Eleizbarrutiaren nahiz lekaide-lekaime edo erlijioso-alkarteko egutegian azaltzen diran beste jaiak.

9. Abenduko hilaren 17tik 24a arteko Abendualdiko astegunak, biak barru.
Gabon Zortziurreneko egunak. Garizumako astegunak.

III.

10. Egutegi Orokorrean azaltzen diran beharrezko oroipenak.

11. Beharrezko oroipen bereziak, hau da:
a) Leku, Eleizbarruti, herrialde, probintzia, nazino, lurralde zabalagoko, lekaide-lekaime edo alkarte nahiz probintzia erlijiosoko bigarren Zaindariaren oroipenak.
b) Gainerako oroipen beharrezkoak, Eleizbarrutiko nahiz lekaide-lekaime edo erlijioso-erlijiosen alkarteko egutegian azaltzen diranak.

12. Nahierazko oroipenak 9. zenbakian izentatutako egunetan be egin daitekez, baina Mezako eta Orduetako Liturgiaren Erakuntza Orokorretan esaten dan erara.
Era horretara egin daitekez beharrezko oroipenak be, Garizumako astegunetan izaten diranean.

13. Abenduko hilaren 16ra arteko Abendualdiko astegunak.
Gabonaldiko astegunak, urtarrilaren 2tik Agerkunde ondorengo zapatura arte.
Pazkoaldiko astegunak, Pazko Zortziurrenaren ondorengo astelehenetik Pentekoste aurreko zapatura arte, hau be barru.
Urtean Zeharreko astegunak.

60. Egun berean ospakizun bat baino gehiago izaten bada, liturgi egunen zerrenda honetan goragoko maila dauanaren ospakizuna egingo da. Halan be, egun berean goragoko mailako beste batek aurrea hartzen deutsolako, festaburu bat ospatzerik ez balego, libre dagoan hurrenengo beste egun baten ospatuko da, hau da, liturgi

egunen zerrendan 1-8. zenbakietan sartzen ez dan egunean, baina beti be Liturgi Urteari buruzko Arauetan, 5. zenbakian esaten diranak aintzat hartzen dirala. Jaunaren Gizakundearen Adierazpeneko festaburua, ostera, Aste Santuko egun baten izaten danean, II. Pazko-domekearen ondorengo astelehenean ospatuko da beti. Gainerako ospakizunak egin barik itziko dira urte haretan.

61. Egun berean, eguneko Bezperak eta hurrengo eguneko I. Bezperak ospatu beharra izango balitz, liturgi egunen zerrenda honetan goragoko maila dauanaren Bezperak ospatuko dira; maila berekoak balira, barriz, eguneko Bezperak.

ERROMAKO EGUTEGI OROKORRA
ETA IRUÑEKO GOI ELIZBARRUTIKO
ETA TUTERA, GAZTEIZ, BILBO ETA DONOSTIAKO
ELIZBARRUTIETAKO BEREZIA

URTARRILA

1	Gabon-zortzigarrena: JAINKOAREN AMA MARIAREN	Festaburua
2	Basilio Handia eta Naziantzoko Gregorio santuak, gotzainak eta eliz irakasleak	Oroipena
3	*Jesusen Izen guztiz Santua**	
4		
5		
6	JAUNAREN AGERKUNDEA	Festaburua
7	*Peñaforteko San Raimundo, presbiteroa*	
8		
9	*Cordobako San Eulogio, presbiteroa eta martiria*	
10		
11		
12		
13	*San Hilario, gotzaina eta eleiz irakaslea*	
14		
15		
16		
17	San Anton, abata	Oroipena
18		
19		
20	*Fruktuoso, gotzaina, eta Augurio eta Eulogio, diakonoak, santuak, martiriak* *San Fabian, aita santua eta martiria* *San Sebastian, martiria*	
21	Santa Ines, birjina eta martiria	Oroipena
22	San Bizente, diakonoa eta martiria	Oroipena
23	San Ildefontso, gotzaina	Oroipena
24	Salesko San Frantzisko, gotzaina eta eleiz irakaslea	Oroipena
25	SAN PAULO APOSTOLUAREN KRISTOGANATZEA	Jaia
26	Timoteo eta Tito santuak, gotzainak	Oroipena
27	*Santa Anjela Merici, birjina*	
28	Aquinoko San Tomas, presbiteroa eta eleiz irakaslea	Oroipena
29		
30		
31	San Joan Bosco, presbiteroa	Oroipena
	Urtarrilaren 6aren ondorengo domekan: JAUNAREN BATEOA	Jaia

* Liturgi mailarik jartzen ez danean, gurarizko oroipena da.

OTSAILA

1		
2	JAUNAREN AURKEZPENA	Jaia
3	*San Blas, gotzaina eta martiria* *San Oskar, gotzaina*	
4		
5	Santa Agata, birjina eta martiria	Oroipena
6	San Paulo Miki eta lagunak, martiriak	Oroipena
7		
8	*San Jeronimo Emiliani* *Santa Josefina Bakhita, birjina*	
9		
10	Santa Eskolastika, birjina	Oroipena
11	*Lourdesko Maria Birjina dohatsua*	
12		
13		
14	ZIRILO, LEKAIDEA, ETA METODIO, GOTZAINA, SANTUAK EUROPAKO ZAINDARIAK	Jaia
15		
16		
17	*Maria Birjina doatsuaren Zerbitzarien Ordenako* *Zazpi Fundatzaile santuak*	
18		
19		
20		
21	*San Pedro Damiani, gotzaina eta eleiz irakaslea*	
22	SAN PEDRO APOSTOLUAREN GOTZAIN AULKIA	Jaia
23	San Polikarpo, gotzaina eta martiria	Oroipena
24		
25		
26		
27		
28		

MARTXOA

1	*Baionako San Leon, gotzaina eta martiria*	
2		
3	*Emeterio eta Zeledonio santuak, martiriak*	
4	*San Kasimiro*	
5		
6		
7	Perpetua eta Felizitas santuak, martiriak	Oroipena
8	*San Joan Jainkoarena, erlijiosoa*	
9	*Santa Frantziska Erromatarra, erlijiosa*	
10		
11		
12		
13		
14		
15		
16		
17	*San Patrizio, gotzaina*	
18	*Jerusalemgo San Zirilo, gotzaina eta eliz irakaslea*	
19	SAN JOSE, MARIA BIRJINA DOHATSUAREN SENARRA	Festaburua
20		
21		
22		
23	*Mogrovejoko San Toribio, gotzaina*	
24		
25	JAUNAREN GIZAKUNDEAREN ADIERAZPENA	Festaburua
26		
27		
28		
29		
30		
31		

APIRILA

1		
2	*Paulako San Frantzisko, ermitaua*	
3		
4		
5	*San Bizente Ferrer, presbiteroa*	
6		
7	La Salleko San Joan Bautista, presbiteroa	Oroipena
8		
9		
10		
11	San Estanislao, gotzaina eta martiria	Oroipena
12		
13	*San Martin I.a, aita santua eta martiria* *San Hermenegildo, martiria*	
14		
15		
16		
17		
18		
19		
20		
21	*San Antselmo, gotzaina eta eleiz irakaslea*	
22		
23	*San Jorje, martiria* *San Adalberto, gotzaina eta martiria*	
24	*Sigmaringengo San Fidel, presbiteroa eta martiria*	
25	San Markos, ebanjelaria	Jaia
26	San Isidoro, gotzaina eta eliz irakaslea	Jaia
27		
28	*Armentiako San Prudentzio, gotzaina* *Gasteizko Eleizbarrutiko eta Arabako Zaindaria* *San Pedro Chanel, presbiteroa eta martiria* *San Luis Maria Griñon Monfortekoa, presbiteroa*	
29	Sienako Santa Katalina, birjina eta eleiz irakaslea Europako Zaindaria	Jaia
30	*San Pio V.a, aita santua*	

MAIATZA

1	*San Jose langilea*	
2	San Atanasio, gotzaina eta eleiz irakaslea	Oroipena
3	San Felipe eta Santiago, apostoluak	Jaia
4		
5		
6		
7		
8		
9		
10	Avilako San Joan, presbiteroa eta eleiz irakaslea	Oroipena
11		
12	*Nereo eta Akileo santuak, martiriak* *San Pankrazio, martiria*	
13	*Fatimako Maria Birjina dohatsua*	
14	San Matias, apostolua	Jaia
15	San Isidro nekazaria	Oroipena
16		
17	*San Paskoal Bailon, erlijiosoa*	
18	*San Joan I.a, aita santua eta martiria*	
19		
20	*Sienako San Bernardino, presbiteroa*	
21	*San Kristobal Magallanes, presbiteroa, eta lagunak, martiriak*	
22	*Santa Joakina Vedruna, erlijiosa* *Casiako Santa Rita, erlijiosa*	
23		
24		
25	*San Beda Agurgarria, presbiteroa eta eleiz irakaslea* *San Gregorio VII.a, aita santua* *Santa Maria Magdalena Pazzikoa, birjina*	
26	San Felipe Neri, presbiteroa	Oroipena
27	*Canterburyko San Agustin, gotzaina*	
28		
29		
30	*San Fernando*	
31	Maria Birjina dohatsuaren Ikustaldia	Jaia

Pentekoste ondorengo eguenean:
Jesu Kristo gure Jauna, betiko Abade Nagusia — Jaia

Pentekoste ondorengo domekan:
HIRUTASUN GUZTIZ SANTUA — Festaburua

Hirutasun Guztiz Santu ondorengo igandean:
KRISTOREN GORPUTZ ETA ODOL SANTUAK — Festaburua

EKAINA

1	San Justino, martiria	Oroipena
2	*Martzelino eta Pedro santuak, martiriak*	
3	San Karlos Lwanga eta lagunak, martiriak	Oroipena
4		
5	San Bonifazio, gotzaina eta martiria	Oroipena
6	*San Norberto, gotzaina*	
7		
8		
9	*San Efrem, diakonoa eta eleiz irakaslea*	
10		
11	San Bernabe, apostolua	Oroipena
12		
13	Paduako San Antonio, presbiteroa eta eleiz irakaslea	Oroipena
14		
15	*Santa Maria Mikaela Sakramentu guztiz Santuarena, birjina*	
16		
17		
18		
19	*San Romualdo, abata*	
20		
21	San Luis Gontzaga, erlijiosoa	Oroipena
22	*Nolatar San Paulino, gotzaina* *Joan Fisher, gotzaina, eta Tomas Moro santuak, martiriak*	
23		
24	SAN JOAN BATEATZAILEAREN JAIOTZA	Festaburua
25		
26	*San Pelaio, martiria*	
27	*Alexandriako San Zirilo, gotzaina eta eleiz irakaslea*	
28	San Ireneo, gotzaina eta martiria	Oroipena
29	PEDRO ETA PAULO SANTUAK, APOSTOLUAK	Festaburua
30	*Erromako Eleiza Santuko Lehen Martiriak*	

Pentekoste ondorengo III. barikuan:
JESUSEN BIHOTZ GUZTIZ SANTUA — Festaburua

Pentekoste ondorengo III. zapatuan:
Maria Birjina dohatsuaren Bihotz guztiz Garbia — Oroipena

UZTAILA

1		
2		
3	SAN TOMAS, APOSTOLUA	Jaia
4	*Portugalgo Santa Elisabet*	
5	*San Antonio Maria Zaccaria, presbiteroa*	
6	*Santa Maria Goretti, birjina eta martiria*	
7	*San Fermin, gotzaina eta martiria*	
8		
9	*San Agustin Zhao Rong, presbiteroa, eta lagunak, martiriak*	
10		
11	SAN BENITO, ABATA, EUROPAKO ZAINDARIA	Jaia
12		
13	*San Henrike*	
14	*San Kamilo Lelis, presbiteroa*	
15	San Buenaventura, gotzaina eta eleiz irakaslea	Oroipena
16	Karmel mendiko Maria Birjina dohatsua	Oroipena
17		
18		
19		
20	*San Apolinar, gotzaina eta martiria*	
21	*Brindisiko San Lorentzo, presbiteroa eta eleiz irakaslea*	
22	SANTA MARIA MAGDALENA	Jaia
23	SANTA BRIGITA, ERLIJIOSA, EUROPAKO ZAINDARIA	Jaia
24	*San Sarbelio Makhlûf, presbiteroa*	
25	SANTIAGO, APOSTOLUA, ESPAINIAKO ZAINDARIA	Festaburua
26	Joakim eta Ana santuak, Maria Birjina dohatsuaren gurasoak	Oroipena
27		
28		
29	Santa Marta	Oroipena
30	*San Pedro Krisologo, gotzaina eta eleiz irakaslea*	
31	Loiolako San Ignazio, presbiteroa	Oroipena
	Bilboko eta Donostiako Eleibarrutien Zaindaria	

ABUZTUA

1	San Alfontso Maria Ligorio, gotzaina eta eleiz irakaslea	Oroipena
2	*Vercelliko San Eusebio, gotzaina*	
	San Pedro Julian Eymard, presbiteroa	
3		
4	San Joan Maria Vianney, presbiteroa	Oroipena
5	*Santa Maria basilika Sagaratzea*	
6	JAUNAREN ANTZALDATZEA	Jaia
7	*San Sixto II.a, aita santua, eta lagunak, martiriak*	
	San Kaietano, presbiteroa	
8	Domingo Guzman santua, presbiteroa	Oroipena
9	SANTA TERESA BENEDIKTA KURUTZEKOA, BIRJINA ETA MARTIRIA EUROPAKO ZAINDARIA	Jaia
10	SAN LORENTZO, DIAKONOA ETA MARTIRIA	Jaia
11	Santa Klara, birjina	Oroipena
12	*Chantalgo Santa Joana Frantziska, erlijiosa*	
13	*Pontziano, aita santua, eta Hipolito, presbiteroa, santuak, martiriak*	
14	San Maximiliano Maria Kolbe, presbiteroa eta martiria	Oroipena
15	MARIA BIRJINA DOHATSUAREN ZERURATZEA	Festaburua
16	*Hungariako San Esteban*	
17		
18		
19	*San Joan Eudes, presbiteroa*	
	San Ezekiel Moreno Díaz, gotzaina	
20	San Bernardo, abata eta eleiz irakaslea	Oroipena
21	San Pio X.a, aita santua	Oroipena
22	Maria Birjina dohatsua Erregina	Oroipena
23	*Limako Errosa santua, birjina*	
24	SAN BARTOLOME, APOSTOLUA	Jaia
25	*San Luis*	
	San Jose Calasanz, presbiteroa	
26	Santa Teresa Jesusena Jornet eta Ibars, birjina	Oroipena
27	Santa Monika	Oroipena
28	San Agustin, gotzaina eta eleiz irakaslea	Oroipena
29	San Joan Bateatzailearen Martiritza	Oroipena
30		
31		

IRAILA

1		
2		
3	San Gregorio Handia, aita santua eta eleiz irakaslea	Oroipena
4		
5		
6		
7		
8	MARIA BIRJINA DOHATSUAREN JAIOTZA	Jaia
9	*San Pedro Claver, presbiteroa*	
10		
11		
12	*Mariaren Izen guztiz Santua*	
13	San Joan Krisostomo, gotzaina eta eleiz irakaslea	Oroipena
14	KURUTZE SANTUAREN GORESPENA	Jaia
15	Doloreetako Maria Birjina dohatsua	Oroipena
16	Kornelio, aita santua, eta Zipriano, gotzaina, santuak, martiriak	Oroipena
17	*San Roberto Belarmino, gotzaina eta eleiz irakaslea*	
18		
19	*San Jenaro, gotzaina eta martiria*	
20	Andres Kim Taegon, presbiteroa, Paulo Chong Hasang eta lagunak, santuak, martiriak	Oroipena
21	SAN MATEO, APOSTOLUA ETA EBANJELARIA	Jaia
22		
23	Pietrelcinako San Pio, presbiteroa	Oroipena
24	*Mesedeetako Maria Birjina dohatsua*	
25		
26	*Kosme eta Damian santuak, martiriak*	
27	San Bizente Paul, presbiteroa	Oroipena
28	*San Wentzeslao, martiria* *San Lorentzo Ruiz eta lagunak, martiriak*	
29	GOIAINGERU SANTUAK: MIKEL, GABRIEL ETA RAFAEL	Jaia
30	San Jeronimo, presbiteroa eta eleiz irakaslea	Oroipena

URRIA

1	Santa Teresa Jesus Haurrarena, birjina eta eleiz irakaslea	Oroipena
2	Aingeru Zaindari santuak	Oroipena
3	*Borjako San Frantzisko, presbiteroa*	
4	Asisko San Frantzisko	Oroipena
5	ESKARI ETA ESKER ONEZKO OTOITZ EGUNA	Astegun nagusia
6	*San Bruno, presbiteroa*	
7	Errosarioko Maria Birjina dohatsua	Oroipena
8		
9	*San Dionisio, gotzaina, eta lagunak, martiriak* *San Joan Leonardi, presbiteroa*	
10	*Villanuevako San Tomas, gotzaina*	
11	*Santa Soledad Torres Acosta, birjina* *San Joan XXIII.a, aita santua*	
12	PILAREKO MARIA BIRJINA DOHATSUA	Jaia
13		
14	*San Kalisto I.a, aita santua eta martiria*	
15	SANTA TERESA JESUSENA, BIRJINA ETA ELEIZ IRAKASLEA	Jaia
16	*Santa Eduvigis, erlijiosa* *Santa Margarita Maria Alacoque, birjina*	
17	Antiokiako San Ignazio, gotzaina eta martiria	Oroipena
18	SAN LUKAS, EBANJELARIA	Jaia
19	*Alcantarako San Pedro, presbiteroa* *Joan Brebeuf eta Isaak Jogues, presbiteroak, eta lagunak, santuak, martiriak* *Kurutzeko San Paulo, presbiteroa*	
20		
21		
22	*San Joan Paulo II.a, aita santua*	
23	*Capistranoko San Joan, presbiteroa*	
24	*San Antonio Maria Claret, gotzaina*	
25		
26		
27		
28	SIMON ETA JUDAS SANTUAK, APOSTOLUAK	Jaia
29		
30		
31		

AZAROA

1	SANTU GUZTIAK	Festaburua
2	Hildako Fededun guztien Oroipena	
3	*San Martin Porres, erlijiosoa*	
4	San Karlos Borromeo, gotzaina	Oroipena
5	*Kurutzeko Santa Anjela Guerrero González, birjina*	
6	Pedro Poveda Castroverde eta Inozentzio Sortzez Garbiarena Canoura Arnau, presbiteroak, eta lagunak, santuak, martiriak	Oroipena
7		
8		
9	LETRANGO BASILIKA SAGARATZEA	Jaia
10	San Leon Handia, aita santua eta eleiz irakaslea	Oroipena
11	Tourseko San Martin, gotzaina	Oroipena
12	San Josafat, gotzaina eta martiria	Oroipena
13	*San Leandro, gotzaina*	
14		
15	*San Alberto Handia, gotzaina eta eleiz irakaslea*	
16	*Eskoziako Santa Margarita* *Santa Gertrudis, birjina*	
17	Hungariako Santa Elisabet, erlijiosa	Oroipena
18	*Pedro eta Paulo apostolu santuen basilikak sagaratzea*	
19		
20		
21	Maria Birjina dohatsuaren Aurkezpena	Oroipena
22	Santa Zezilia, birjina eta martiria	Oroipena
23	*San Klemente I.a, aita santua eta martiria* *San Kolunbano, abata*	
24	San Andres Dung-Lac, presbiteroa, eta lagunak, martiriak	Oroipena
25	*Alexandriako Santa Katalina, birjina eta martiria*	
26		
27		
28		
29	*Tolosako San Zernin, gotzaina eta martiria*	
30	SAN ANDRES, APOSTOLUA	Jaia

Urtean Zeharreko azkeneko domekan:

JESU KRISTO GURE JAUNA, DIREN GUZTIEN ERREGEA — Festaburua

ABENDUA

1		
2		
3	Xabierko San Frantzisko, presbiteroa Nafarroako Zaindaria	Oroipena
4	*Damaskotar San Joan, presbiteroa eta eleiz irakaslea*	
5		
6	*San Nikolas, gotzaina*	
7	*San Anbrosio, gotzaina eta eleiz irakaslea*	Oroipena
8	MARIA BIRJINA DOHATSUAREN SORTZE GARBIA ESPAINIAKO ZAINDARIA	Festaburua
9	*San Joan Diego Cuauhtlatoatzin*	
10	*Meridako Santa Eulalia, birjina eta martiria*	
11	*San Damaso I.a, aita santua*	
12	*Guadalupeko Maria Birjina dohatsua*	
13	Santa Luzia, birjina eta martiria	Oroipena
14	Kurutzeko San Joan, presbiteroa eta eleiz irakaslea	Oroipena
15		
16		
17		
18		
19		
20		
21	*San Pedro Kanisio, presbiteroa eta eleiz irakaslea*	
22		
23	*Ketyko San Joan, presbiteroa*	
24		
25	JAUNAREN JAIOTZA	Festaburua
26	San Esteban, lehen martiria	Jaia
27	San Joan, apostolua eta ebanjelaria	Jaia
28	Umetxu Errubako santuak, martiriak	Jaia
29	*San Tomas Becket, gotzaina eta martiria*	
30		
31	*San Silvestre I.a, aita santua*	

Gabon-zortziurreneko domekan edo, domekarik izaten ez bada, abenduaren 30ean:

Familia Santua: Jesus, Maria eta Jose — Jaia

Liturgi urteko ospakizun nagusien

ALDIKO TAULA

Urtea	Hausterre	Pazkoa	Igokunde	Pentekoste	Kristoren Gorputz Odolak	Urtean Zeharreko asteak				Abendualdiko lehen-igandea
						Garizuma aurretik		Pazkoaldi ondoren		
						noiz arte	astea	noiztik	astea	
2018	Ots. 14	Apir. 1	Mai. 13	Mai. 20	Eka. 3	Ots. 13	6	Mai. 21	7	Aben. 2
2019	Mar. 6	Apir. 21	Eka. 2	Eka. 9	Eka. 23	Mar. 5	8	Eka. 10	10	Aben. 1
2020*	Ots. 26	Apir. 12	Mai. 24	Mai . 31	Eka. 14	Ots. 25	7	Eka. 1	9	Aza. 29
2021	Ots. 17	Apir. 4	Mai. 16	Mai . 23	Eka. 6	Ots. 16	6	Mai. 24	8	Aza. 28
2022	Mar. 2	Apir. 17	Mai. 29	Eka. 5	Eka. 19	Mar. 1	8	Eka. 6	10	Aza. 27
2023	Ots. 22	Apir. 9	Mai. 21	Mai. 28	Eka. 11	Ots. 21	7	Mai. 29	8	Aben. 3
2024*	Ots. 14	Mar. 31	Mai. 12	Mai. 19	Eka. 2	Ots. 13	6	Mai. 20	7	Aben. 1
2025	Mar. 5	Apir. 20	Eka. 1	Eka. 8	Eka. 22	Mar. 4	8	Eka. 9	10	Aza. 30
2026	Ots. 18	Apir. 5	Mai. 17	Mai. 24	Eka. 7	Ots. 17	6	Mai. 25	8	Aza. 29
2027	Ots. 10	Mar. 28	Mai. 9	Mai. 16	Mai. 30	Ots. 9	5	Mai. 17	7	Aza. 28
2028*	Mar. 1	Apir. 16	Mai. 28	Eka. 4	Eka. 18	Ots. 29	8	Eka. 5	9	Aben. 3
2029	Ots. 14	Apir. 1	Mai. 13	Mai. 20	Eka. 3	Ots. 13	6	Mai. 21	7	Aben. 2
2030	Mar. 6	Apir. 21	Eka. 2	Eka. 9	Eka. 23	Mar. 5	8	Eka. 10	10	Aben. 1
2031	Ots. 26	Apir. 13	Mai. 25	Eka. 1	Eka. 15	Ots. 25	7	Eka. 2	9	Aza. 30
2032*	Ots. 11	Mar. 28	Mai. 9	Mai. 16	Mai. 30	Ots. 10	5	Mai. 17	7	Aza. 28
2033	Mar. 2	Apir. 17	Mai. 29	Eka. 5	Eka. 19	Mar. 1	8	Eka. 6	10	Aza. 27
2034	Ots. 22	Apir. 9	Mai. 21	Mai. 28	Eka. 11	Ots. 21	7	Mai. 29	8	Aben. 3
2035	Ots. 7	Mar. 25	Mai. 6	Mai. 13	Mai. 27	Ots. 6	5	Mai. 14	6	Aben. 2
2036*	Ots. 27	Apir. 13	Mai. 25	Eka. 1	Eka. 15	Ots. 26	7	Eka. 2	9	Aza. 30
2037	Ots. 18	Apir. 5	Mai. 17	Mai. 24	Eka. 7	Ots. 17	6	Mai. 25	8	Aza. 29
2038	Mar. 10	Apir. 25	Eka. 6	Eka. 13	Eka. 27	Mar. 9	9	Eka. 14	11	Aza. 28
2039	Ots. 23	Apir. 10	Mai. 22	Mai. 29	Eka. 12	Ots. 22	7	Mai. 30	9	Aza. 27
2040*	Ots. 15	Apir. 1	Mai. 13	Mai. 20	Eka. 3	Ots. 14	6	Mai. 21	7	Aben. 2
2041	Mar. 6	Apir. 21	Eka. 2	Eka. 9	Eka. 23	Mar. 5	8	Eka. 10	10	Aben. 1

* Bisurtea

ALDIKO BEREZIA

ABENDUALDIA

ABENDUALDIKO I. DOMEKA

Sarrera-ant. Zugana jasotzen dot gogoa; ene Jainko, Zugan dot konfiantza, ez nadila lotsagarri geratu; ez daitezala arerioak nire lepotik poztu; ez daitezala lotsatu Zugan itxaroten dabenak. Ik. Sal 25 [24], 1-3

Aintza zeruetan ez da esango.

Otoitza Jainko ahalguztiduna,
emoiguzu zeure fededunoi Abendualdia hastean,
gugana datorren Kristoren bidera
egintza onez beterik urteteko gogoa,
azken egunean bera aintzaz etortzean,
haren eskumaldean jarririk,
zeruko erreinua lortu daigun.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta, gizaldi eta gizaldietan.

Sinisten dot esango da.

Oparigaien gainekoa Onartu, Jauna,
zeure esku zabaletik hartuta dakartsuguzan dohaiak;
egizu, ogi-ardao honeekin
oraingo bizitzaldian ospatzen dogun Eukaristia
zure erospenaren betiko sari izan dakigula.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Prefazioa: Abendualdiko I.a nahiz III.a, 466. edo 470. or.

Jaunartze-ant. Jaunak emongo dau euria, eta gure lurrak ekarriko bere uzta. Sal 85 [84], 13

Jaunartze ondorengoa

On egin deigula, Jauna,
orain ospatu dogun sakramentu honek;
eta egizu,
mundu honetako gauza igeskorren artean erromes gabiltzanok
zeruko ondasunak maitatu daiguzala
eta horreetan jarri daigula geure bihotza.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Bedeinkazino nagusia erabili daiteke, 640. or., 1. zk.

Abendualdiko I. astelehena

Sarrera-ant. Entzun, herriok, Jaunaren hitza, iragarri urruneko kostaldeetan; badator gure Salbatzailea, ez bildurrik izan! Ik. Jr 31, 10; Is 35, 4

Otoitza

Jainko gure Jauna,
egizu,
itxaron daigula zuhur zure Seme Jesu Kristoren etorrerea;
etorri eta atea jotzean,
otoitzean gogotsu aurkitu gaizan
eta haren gorespenetan alai.
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa

Onartu, Jauna,
zure esku zabaletik hartuta dakartsuguzan dohaiak;
egizu, ogi-ardao honeekin
oraingo bizitzaldian ospatzen dogun Eukaristia
zure erospenaren betiko sari izan dakigula.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Prefazioa: Abendualdiko I.a nahiz III.a, 466. edo 470. or.

Jaunartze-ant. Zatoz, Jauna, guri bakea ekartzera, zure aurrean bihotz zintzoz poztu gaitezan. Ik. Sal 106 [105], 4-5; Is 38, 3

Jaunartze ondorengoa

On egin deigula, Jauna,
orain ospatu dogun sakramentu honek;
eta egizu,
mundu honetako gauza igeskorren artean erromes gabiltzanok
zeruko ondasunak maitatu daiguzala
eta horreetan jarri daigula geure bihotza.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Abendualdiko I. martitzena

Sarrera-ant. Hara, Jauna etorriko da bere santu guztiekin; egun haretan argi handi batek distiratuko dau. Ik. Za 14, 5.7

Otoitza

Jainko Jauna, entzun bihotz onez gure otoitzak,
eta emon zeure graziaren laguntza estualdietan bizi garanoi,
gure artera datorren zure Semeak indarbarriturik,
pekaturako gure jokera zaharrari gogor egin deiogun.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa

Bigundu zagiezala, Jauna, gure otoitz
eta eskeintza apal honeek,
eta, geure aldetik merezimenturik ez dogun ezkero,
lagundu deigula zure errukiak.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Prefazioa: Abendualdiko I.a nahiz III.a, 466. edo 470. or.

Jaunartze-ant. Garaipenaren koroia emongo deutse epaile zuzenak haren agerraldia maitasunez itxaroten dabenei. Ik. 2 Tm 4, 8

Jaunartze ondorengoa

Eukaristiaren espiritu-janari honek aseturik,
otoitz egiten deutsugu, Jauna:
erakutsi eiguzu, sakramentu honetan parte hartu dogunoi,
lurreko gauzak zuhur erabiltzen
eta zeruko ondasunak maitatzen.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Abendualdiko I. eguaztena

Sarrera-ant. Etorriko da Jauna berandu barik; harek argituko dau ilunpean ezkutatuta dagoana, eta herri guztiei agertuko jake.
Ik. Hab 2, 3; 1 Ko 4, 5

Otoitza Jainko gure Jauna,
prestatu egizu gure bihotza zeure graziaz,
Kristo zure Semea etortzean,
betiko biziaren mahaian esku hartzeko
eta zeruko janarian parte izateko gai aurkitu gaizan,
bera zerbitzari dogula.
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa Atsegin bekizu, Jauna,
gure buruaren eskeintza adierazoten dauan opari hau,
eta bete egizu gugan, sakramentu honen bidez,
zeure salbazinoa.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Prefazioa: Abendualdiko I.a nahiz III.a, 466. edo 470. or.

Jaunartze-ant. Hara, indarrez jantzita dator gure Jauna, bere zerbitzarien begiak zabaltzera.
Ik. Is 40, 10; 35, 5

Jaunartze ondorengoa Jauna, zure errukiari deika gagoz:
hartu dogun sakramentu honek
osatu gaizala geure jokaera txarretatik
eta datorkiguzan Gabon-jaietarako prestatu.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Abendualdiko I. eguena

Sarrera-ant. Zu hur zaitut, Jauna, zure agindu guztiak fidagarriak dira. Aspalditik ezagutzen ditut zure mandamentuak, Zu betidanik zara-eta.
Ik. Sal 119 [118], 151-152

Otoitza Agertu egizu, Jauna, zeure ahalmena
eta lagundu eiguzu zeure indar handiaz;
gure pekatuek galazoten daben salbazinoa
zure errukiaren graziak ekarri deigun.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa Onartu, Jauna,
zure esku zabaletik hartuta dakartsuguzan dohaiak;
egizu, ogi-ardao honeekin
oraingo bizitzaldian ospatzen dogun Eukaristia
zure erospenaren betiko sari izan dakigula.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Prefazioa: Abendualdiko I.a nahiz III.a, 466. edo 470. or.

Jaunartze-ant. Zuzentasunez eta jainkozaletasunez mundu honetan bizi gaitezala, gure itxaropen zoriontsua noiz beteko, eta Jainko handia aintzaz beterik noiz agertuko zain. Tt 2, 12-13

Jaunartze ondorengoa On egin deigula, Jauna,
orain ospatu dogun sakramentu honek;
eta egizu,
mundu honetako gauza igeskorren artean erromes gabiltzanok
zeruko ondasunak maitatu daiguzala
eta horreetan jarri daigula geure bihotza.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Abendualdiko I. barikua

Sarrera-ant. Hara, distiratsu jatsiko da Jauna, bere herriari bakea ekartzera eta betiko bizia emotera.

Otoitza Jesus Jauna, agertu egizu zeure indarra, eta zatoz,
Zeuk lagundu eta askaturik,
gure pekatuen arriskuetatik urten eta salbatu gaitezan.
Aitarekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi zara-eta gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa

Bigundu zagiezala, Jauna, gure otoitz
eta eskeintza apal honeek,
eta, geure aldetik merezimenturik ez dogun ezkero,
lagundu deigula zure errukiak.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Prefazioa: Abendualdiko I.a nahiz III.a, 466. edo 470. or.

Jaunartze-ant.

Salbatzailea, Jesu Kristo Jauna, itxaroten dogu; harek antzaldatuko dau gure gorputz ezerez hau, bere gorputz aintzatsuaren irudiko eginez.
Ik. Flp 3, 20-21

Jaunartze ondorengoa

Eukaristiako espiritu-janari honek aseturik,
otoitz egiten deutsugu, Jauna:
erakutsi eiguzu, sakramentu honetan parte hartu dogunoi,
lurreko gauzak zentzunez erabiltzen
eta zeruko ondasunak maitatzen.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Abendualdiko I. zapatua

Sarrera-ant.

Zatoz eta erakutsi guri, Jauna, hegodun izakien arteko tronuan zagozan horrek, zeure aurpegi argia, salbatu gaitezan. Ik. Sal 80 [79], 4.2

Otoitza

Oi Jainko,
gizadia izakera zaharraren menpetik askatzeko,
zeure Seme bakarra bialdu zenduan mundu honetara;
emoiguzu onberatasunez
haren etorreraren zain uste osoz gagozanoi
zeure grazia zerutarra
egiazko askatasunaren saria lortu daigun.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa

Atsegin bekizu, Jauna,
gure buruaren eskeintza adierazoten dauan opari hau,
eta bete egizu gugan, sakramentu honen bidez,
zeure salbazinoa.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Prefazioa: Abendualdiko I.a nahiz III.a, 466 edo 470. or.

Jaunartze-ant.

Hara, behingoan nator eta neugaz dakart saria, dino Jaunak, bakotxari bere lanaren arabera ordaintzeko. Ap 22, 12

Jaunartze ondorengoa

Jauna, zure errukiari deika gagoz:
hartu dogun sakramentu honek
osatu gaizala geure jokaera txarretatik
eta datorkiguzan Gabon-jaietarako prestatu.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

ABENDUALDIKO II. DOMEKA

Sarrera-ant. Siongo herri, badator Jauna herriak salbatzera; bere ahots sendoa entzunazoko dau Jaunak, zuen bihotzaren pozerako.
Ik. Is 30, 19.30

Aintza zeruetan ez da esango.

Otoitza Jainko ahalguztiduna eta errukitsua,
lur honetako gauzen ardura ez daigula eragozpen izan
zure Semeari bidera gogotsu urteteko;
eta eroan gaizuz, jainkozko jakituriaren irakaspenez,
zeure Semearekin bat egitera.
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Sinisten dot esango da.

Oparigaien gainekoa Bigundu zagiezala, Jauna, gure otoitz
eta eskeintza apal honeek,
eta, geure aldetik merezimenturik ez dogun ezkero,
lagundu deigula zure errukiak.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Prefazioa: Abendualdiko I.a nahiz III.a, 466 edo 470. or.

Jaunartze-ant. Jagi zaitez, Jerusalem, igon gainetara eta ikusi zure Jainkoak bialtzen deutsun poza.
Ba 5, 5; 4, 36

Jaunartze ondorengoa Eukaristiako espiritu-janari honek aseturik,
otoitz egiten deutsugu, Jauna:
erakutsi eiguzu, sakramentu honetan parte hartu dogunoi,
lurreko gauzak zentzunez erabiltzen
eta zeruko ondasunak maitatzen.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Bedeinkazino nagusia erabili daiteke, 640 or., 1. zk.

Abendualdiko II. astelehena

Sarrera-ant. Entzun, herriok, Jaunaren hitza, iragarri urruneko kostaldeetan; badator gure Salbatzailea, ez bildurrik izan! Ik. Jr 31, 10; Is 35, 4

Otoitza

Igon begi, Jauna, zure aurrera gure eskariak;
egizu, ezagutu daigula eta ospatu bete-betean
zure Seme gizon eginaren misterio handia.
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa

Onartu, Jauna,
zeure esku zabaletik hartuta dakartsuguzan dohaiak;
egizu, ogi-ardao honeekin
oraingo bizitzaldian ospatzen dogun Eukaristia
zure erospenaren betiko sari izan dakigula.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Prefazioa: Abendualdiko I.a nahiz III.a, 466 edo 470. or.

Jaunartze-ant. Zatoz, Jauna, guri bakea ekartzera, zure aurrean bihotz zintzoz poztu gaitezan. Ik. Sal 106 [105], 4-5; Is 38, 3

Jaunartze ondorengoa

On egin deigula, Jauna,
orain ospatu dogun sakramentu honek;
eta egizu,
mundu honetako gauza igeskorren artean
erromes gabiltzanok
zeruko ondasunak maitatu daiguzala
eta horreetan jarri daigula geure bihotza.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Abendualdiko II. martitzena

Sarrera-ant. Hara, Jauna etorriko da bere santu guztiekin; egun haretan argi handi batek distiratuko dau. Ik. Za 14, 5.7

Otoitza Zure salbazinoaren barri ona
lurraren azken mugetaraino adierazo dozun Jainkoa,
egizu, itxaron daigula pozez beterik
zure Semearen jaiotza ospetsua.
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa Bigundu zagiezala, Jauna, gure otoitz
eta eskeintza apal honeek,
eta, geure aldetik merezimenturik ez dogun ezkero,
lagundu deigula zure errukiak.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Prefazioa: Abendualdiko I.a nahiz III.a, 466 edo 470. or.

Jaunartze-ant. Garaipenaren koroia emongo deutse epaile zuzenak haren agerraldia maitasunez itxaroten dabenei. Ik. 2 Tm 4, 8

Jaunartze ondorengoa Eukaristiako espiritu-janari honek aseturik,
otoitz egiten deutsugu, Jauna:
erakutsi eiguzu, sakramentu honetan parte hartu dogunoi,
lurreko gauzak zentzunez erabiltzen
eta zeruko ondasunak maitatzen.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Abendualdiko II. eguaztena

Sarrera-ant. Etorriko da Jauna berandu barik; berak argituko dau ilunpean ezkutatuta dagoana, eta herri guztiei agertuko jake. Ik. Hab 2, 3; 1 Ko 4, 5

Otoitza Jainko ahalguztiduna,
Kristo Jaunari bidea prestatzeko agindu deuskuzu;
egizu, onbera, geure fedearen makaltasunak
ez gaizala eroan itxaropena galtzera,
eta gu gatx guztietatik osatzera datorren
zerutar osagileak kontsolatu gaizala
bera noiz etorriko dan zain gagozanok.
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa

Atsegin bekizu, Jauna,
gure buruaren eskeintza adierazoten dauan opari hau,
eta bete egizu gugan, sakramentu honen bidez,
zeure salbazinoa.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Prefazioa: Abendualdiko I.a nahiz III.a, 466 edo 470. or.

Jaunartze-ant.

Hara, indarrez jantzita dator gure Jauna, bere zerbitzarien begiak zabaltzera. Ik. Is 40, 10; 35, 5

Jaunartze ondorengoa

Jauna, zure errukiari deika gagoz:
hartu dogun sakramentu honek
osatu gaizala geure jokaera txarretatik
eta datorkiguzan Gabon-jaietarako prestatu.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Abendualdiko II. eguena

Sarrera-ant.

Zu hur zaitut, Jauna, zure agindu guztiak fidagarriak dira. Aspalditik ezagutzen ditut zure mandamentuak, Zu betidanik zara-eta.
Ik. Sal 119 [118], 151-152

Otoitza

Bizkortu, Jauna, gure bihotza eta gure fedea,
eta eragin zure Semearen bideak prestatzera,
honen etorrerari esker,
biziera santuaz zure zerbitzari izan gaitezan.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa

Onartu, Jauna,
zeure esku zabaletik hartuta dakartsuguzan dohaiak;
egizu, ogi-ardao honeekin
oraingo bizitzaldian ospatzen dogun Eukaristia
zure erospenaren betiko sari izan dakigula.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Prefazioa: Abendualdiko I.a nahiz III.a, 466 edo 470. or.

Jaunartze-ant. Zuzentasunez eta jainkozaletasunez mundu honetan bizi gaitezala, gure itxaropen zoriontsua noiz beteko, eta Jainko handia aintzaz beterik noiz agertuko zain. Tt 2, 12-13

Jaunartze ondorengoa

On egin deigula, Jauna,
orain ospatu dogun sakramentu honek;
eta egizu,
mundu honetako gauza igeskorren artean erromes gabiltzanok
zeruko ondasunak maitatu daiguzala
eta horreetan jarri daigula geure bihotza.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Abendualdiko II. barikua

Sarrera-ant. Hara, distiratsu jatsiko da Jauna, bere herriari bakea ekartzera eta betiko bizia emotera.

Otoitza

Jainko ahalguztiduna,
egizu, egon dadila zure herri hau zuhur-zuhur
zure Semearen etorrera itxaroten,
Salbatzaileak irakatsi eban lez,
fedearen eta maitasunaren argiak bizturik,
urten daigun haren bidera.
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa

Bigundu zagiezala, Jauna, gure otoitz
eta eskeintza apal honeek,
eta, geure aldetik merezimenturik ez dogun ezkero,
lagundu deigula zure errukiak.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Prefazioa: Abendualdiko I.a nahiz III.a, 466 edo 470. or.

Jaunartze-ant. Salbatzailea, Jesu Kristo Jauna, itxaroten dogu; harek antzaldatuko dau gure gorputz ezerez hau, bere gorputz aintzatsuaren irudiko eginez. Ik. Flp 3, 20-21

Jaunartze ondorengoa

Eukaristiako espiritu-janari honek aseturik,
otoitz egiten deutsugu, Jauna:
erakutsi eiguzu, sakramentu honetan parte hartu dogunoi,
lurreko gauzak zentzunez erabiltzen
eta zeruko ondasunak maitatzen.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Abendualdiko II. zapatua

Sarrera-ant. Zatoz eta erakutsi guri, Jauna, hegodun izakien arteko tronuan zagozan horrek, zeure aurpegi argia, salbatu gaitezan.
Ik. Sal 80 [79], 4.2

Otoitza

Jainko ahalguztiduna, argitu begi gure bihotza
zure aintzaren distira dan zure Seme bakarrak;
honen etorrerak, gauaren azken ilunak deseginik,
gu argiaren seme-alaba garala agirian jarri dagian.
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa

Atsegin bekizu, Jauna,
gure buruaren eskeintza adierazoten dauan opari hau,
eta bete egizu gugan, sakramentu honen bidez,
zeure salbazinoa.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Prefazioa: Abendualdiko I.a nahiz III.a, 466 edo 470. or.

Jaunartze-ant. Hara, behingoan nator eta neugaz dakart saria, dino Jaunak, bakotxari bere lanaren arabera ordaintzeko. Ap 22, 12

Jaunartze ondorengoa

Jauna, zure errukiari deika gagoz:
hartu dogun sakramentu honek
osatu gaizala geure jokaera txarretatik
eta datorkiguzan Gabon-jaietarako prestatu.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

ABENDUALDIKO III. DOMEKA

Meza honetan kolore morea nahiz errosa erabili daiteke.

Sarrera-ant. Zagoze beti pozik Jaunagan; barriro dinotsuet, zagoze pozik. Hurrean da Jauna. Flp 4, 4-5

Aintza zeruetan ez da esango.

Otoitza

Oi Jainko, ikusten dozu zeure herria,
Jaunaren jaiotzako jaia zintzo itxaroten;
egizu, arren,
heldu gaitezala salbazino miragarriaren zorionera
eta gorapen eta pozik handienaz ospatu daigula.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Sinisten dot esango da.

Oparigaien gainekoa

Atsegin bekizu, Jauna,
gure buruaren eskeintza adierazoten dauan opari hau,
eta bete egizu gugan, sakramentu honen bidez,
zeure salbazinoa.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Prefazioa: Abendualdiko I.a nahiz II.a, 466 edo 468 or.

Jaunartze-ant. Esan bihotz-bildurtiei: Eutsi gogor! Ez bildurrik izan! Badator gure Jainkoa, gu salbatzera! Ik. Is 35, 4

Jaunartze ondorengoa

Jauna, zure errukiari deika gagoz:
hartu dogun sakramentu honek
osatu gaizala geure jokaera txarretatik
eta datorkiguzan Gabon-jaietarako prestatu.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Bedeinkazino nagusia erabili daiteke, 640 or., 1. zk.

Aste barruan asteguneko Mezea emon behar danean, hemen ondoren asteko egunari dagokiozan meza-gaiak erabiliko dira, abenduaren 17tik 24ra bitarteko astegunetan (ik. 113-120. or.) izan ezik.

Abendualdiko III. astelehena

Sarrera-ant. Entzun, herriok, Jaunaren hitza, iragarri urruneko kostaldeetan; badator gure Salbatzailea, ez bildurrik izan! Ik. Jr 31, 10; Is 35, 4

Otoitza

Entzun, Jauna, bihotz onez gure otoitzak,
eta argitu gure bihotzeko ilunpeak
zeure Semearen etorreraren graziaz.
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa

Onartu, Jauna,
zeure esku zabaletik hartuta dakartsuguzan dohaiak;
egizu, ogi-ardao honeekin
oraingo bizitzaldian ospatzen dogun Eukaristia
zure erospenaren betiko sari izan dakigula.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Prefazioa: Abendualdiko I.a nahiz III.a, 466 edo 470. or.

Jaunartze-ant. Zatoz, Jauna, guri bakea ekartzera, zure aurrean bihotz zintzoz poztu gaitezan. Ik. Sal 106 [105], 4-5; Is 38, 3

Jaunartze ondorengoa

On egin deigula, Jauna,
orain ospatu dogun sakramentu honek;
eta egizu,
mundu honetako gauza igeskorren artean
erromes gabiltzanok
zeruko ondasunak maitatu daiguzala
eta horreetan jarri daigula geure bihotza.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Abendualdiko III. martitzena

Sarrera-ant. Hara, Jauna etorriko da bere santu guztiekin; egun haretan argi handi batek distiratuko dau. Ik. Za 14, 5.7

Otoitza

Zure Semearen bitartez izaki barri egin gaituzun Jainkoa,
begira bihotz onez zeure errukiaren egintza salbatzaileari
eta, zeure Semearen etorreraz,
garbitu gaizuz izaki zaharraren ondorio guztietatik.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa

Bigundu zagiezala, Jauna, gure otoitz
eta eskeintza apal honeek,
eta, geure aldetik merezimenturik ez dogun ezkero,
lagundu deigula zure errukiak.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Prefazioa: Abendualdiko I.a nahiz III.a, 466 edo 470. or.

Jaunartze-ant. Garaipenaren koroia emongo deutse epaile zuzenak haren agerraldia maitasunez itxaroten dabenei. Ik. 2 Tm 4, 8

Jaunartze ondorengoa

Eukaristiako espiritu-janari honek aseturik,
otoitz egiten deutsugu, Jauna:
erakutsi eiguzu, sakramentu honetan parte hartu dogunoi,
lurreko gauzak zentzunez erabiltzen
eta zeruko ondasunak maitatzen.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Abendualdiko III. eguaztena

Sarrera-ant. Etorriko da Jauna berandu barik; berak argituko dau ilunpean ezkutaturik dagoana, eta herri guztiei agertuko jake. Ik. Hab 2, 3; 1 Ko 4, 5

Otoitza Jainko ahalguztiduna,
egizu, arren,
hurrean dogun zure Semearen jaiotzako festaburuak
ekarri deigula bizitza honetarako laguntza,
eta egin gaizala betiko ondasunen jaube.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta dizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa Atsegin bekizu, Jauna,
gure buruaren eskeintza adierazoten dauan opari hau,
eta bete egizu gugan, sakramentu honen bidez,
zeure salbazinoa.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Prefazioa: Abendualdiko I.a nahiz III.a, 466 edo 470. or.

Jaunartze-ant. Hara, indarrez jantzita dator gure Jauna, bere zerbitzarien begiak zabaltzera. Ik. Is 40, 10; 35, 5

Jaunartze ondorengoa Jauna, zure errukiari deika gagoz:
hartu dogun sakramentu honek
osatu gaizala geure jokaera txarretatik
eta datorkiguzan Gabon-jaietarako prestatu.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Abendualdiko III. eguena

Sarrera-ant. Zu hurrean zaitut, Jauna, zure agindu guztiak fidagarriak dira. Aspalditik ezagutzen ditut zure mandamentuak, Zu betidanik zara-eta. Ik. Sal 119 [118], 151-152

Otoitza Jauna, zure zerbitzariok ez gara nor zure ondoan,
eta geure pekatuek benetan nahigabetzen gaitue;
egizu, poztu gaizala gu salbatzera datorren zure Semeak.
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa

Onartu, Jauna,
zure esku zabaletik hartuta dakartsuguzan dohaiak;
egizu, ogi-ardao honeekin
oraingo bizitzaldian ospatzen dogun Eukaristia
zure erospenaren betiko sari izan dakigula.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Prefazioa: Abendualdiko I.a nahiz III.a, 466 edo 470. or.

Jaunartze-ant.

Zuzentasunez eta jainkozaletasunez mundu honetan bizi gaitezala, gure itxaropen zoriontsua noiz beteko, eta Jainko handia aintzaz beterik noiz agertuko zain. Tt 2, 12-13

Jaunartze ondorengoa

On egin deigula, Jauna,
orain ospatu dogun sakramentu honek;
eta egizu,
mundu honetako gauza igeskorren artean
erromes gabiltzanok
zeruko ondasunak maitatu daiguzala
eta horreetan jarri daigula geure bihotza.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Abendualdiko III. barikua

Sarrera-ant.

Hara, distiratsu jatsiko da Jauna, bere herriari bakea ekartzera eta betiko bizia emotera.

Otoitza

Jainko ahalguztiduna,
etorri dakigula zure grazia eta izan daigula beti bidelagun,
gogo biziz itxaroten dogun zure Semearen etorrera
laguntza izan dakigun oraingo eta geroko bizitzarako.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa

Bigundu zagiezala, Jauna, gure otoitz
eta eskeintza apal honeek,
eta, geure aldetik merezimenturik ez dogun ezkero,
lagundu deigula zure errukiak.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Prefazioa: Abendualdiko I.a nahiz III.a, 466 edo 470. or.

Jaunartze-ant. Salbatzailea, Jesu Kristo Jauna, itxaroten dogu; harek antzaldatuko dau gure gorputz ezerez hau, bere gorputz aintzatsuaren irudiko eginez.
Ik. Flp 3, 20-21

Jaunartze ondorengoa

Eukaristiako espiritu-janari honek aseturik,
otoitz egiten deutsugu, Jauna:
erakutsi eiguzu, sakramentu honetan parte hartu dogunoi,
lurreko gauzak zentzunez erabiltzen
eta zeruko ondasunak maitatzen.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

ABENDUALDIKO IV. DOMEKA

Sarrera-ant. Isuri goitik, zeruok, iruntza lez, isuri, hodeiok, garaipena euria lez!
Edegi bedi lurra, eta emon begi Salbatzailea! Is 45, 8

Aintza zeruetan ez da esango.

Otoitza Isuri egizu, Jauna, gure bihotzetan zeure grazia,
eta egizu, aingeruak esanik
zure Seme Jesu Kristo gizon egin dala jakin dogunok,
haren nekaldiaren eta kurutzearen bidez,
heldu gaitezala biztueraren ospera.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Sinisten dot esango da.

Oparigaien gainekoa Jauna, Maria dohatsuaren sabel garbia
bere indarrez santu egin eban Espirituak sagaratu dagizala
zure altarara ekarri doguzan eskeintzak.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Prefazioa: Abendualdiko II.a nahiz IV.a, 468 edo 471. or.

Jaunartze-ant. Begira, Birjina umedun dago eta semea izango dau; Emmanuel ipiniko deutso izena. Is 7, 14

Jaunartze ondorengoa Jainko ahalguztiduna,
betiko biziaren agiria harturik, hauxe eskatzen deutsugu:
zenbat eta hurrago izan salbazinoko jaia,
prestatu gaitezala hainbat eta gartsuago
zure Semearen jaioteguna fede-jarreraz ospatzeko.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Bedeinkazino nagusia erabili daiteke, 640. or., 1. zk.

ABENDUALDIKO ASTEGUNAK

abenduko hilaren 17tik 24a arte

Ondoren datozan meza-gaiak izentatutako egunetan erabiliko dira, domekan izan ezik; domekeak bere meza-gai bereziak ditu.

Abenduaren 17an

Sarrera-ant. Egin begie poz-oihu zeruek! Alaitu bedi lurra! Etorriko da gure Jauna eta izango dau bere pobreentzat errukia. Ik. Is 49, 13

Otoitza Giza izatearen egile eta salbatzaile zaran Jainkoa,
Zure Hitzak beti Birjinaren sabelean
haragi hartzea nahi izan dozu;
entzun onbera gure otoitzak,
eta egizu, gure gizatasuna hartu eban zure Seme bakarrak
emon deigula parte izatea jainkozko bere bizian.
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa Sagaratu, Jauna, zeure Eleizearen dohaiak,
eta emoiguzu, misterio miragarri honen bidez,
indartzen eta bizkortzen gaituan zeruko ogia.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Prefazioa: Abendualdiko II.a nahiz IV.a, 468 edo 471. or.

Jaunartze-ant. Badator herri guztiek itxaroten ebena, eta aintzaz beteko da Jaunaren etxea. Ik. Ag 2, 7

Jaunartze ondorengoa Jainko ahalguztiduna,
zure dohai santuez asetu gaituzu;
biztu egizu gugan zeure Espirituaren sua,
Jesu Kristo zure Semea etortzean
argi distiratsu izan gaitezan haren aurrean.
Errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Abenduaren 18an

Sarrera-ant. Etorriko da Kristo gure erregea, Joanek etortzekoa zala iragarri eban Bildotsa.

Otoitza

Jainko ahalguztiduna,
pekatuaren antxinako buztarpean gagoz;
egizu, itxaroten dogun zure Semearen jaiotza barriak
askatu gaizala behin betiko.
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa

Jauna, egin gaizala zure gogoko
eskeintzera goazen sakrifizioak;
egizu, bera hilkor eginik
gu hilezkor egin gaituan zure Semeak
emon deigula betiko bere bizian parte izatea.
Errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Prefazioa: Abendualdiko II.a nahiz IV.a, 468 edo 471. or.

Jaunartze-ant. Emmanuel ipiniko deutsoe izena, hau da, «Jainkoa gugaz».
Mt 1, 23

Jaunartze ondorengoa

Onartu daigula, Jauna, zure errukia
zure tenpluaren erdian,
behar dan lez prestatu daiguzan
hurrean diran gure erospeneko jaiak.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Abenduaren 19an

Sarrera-ant. Etorriko da etortzekoa dana, ez dau luzatuko, eta ez da gehiago bildurrik izango gure lurrean, bera da-eta gure Salbatzailea.
Ik. Heb 10, 37

Otoitza

Oi Jainko, Birjina santuak umea izatearen bidez
zeure aintzaren distira erakutsi deutsazu munduari;
egizu, zure Semea gizon egitearen misterio handia
fede biziz sinistu daigula
eta bihotz apalez goratu beti.
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa

Begitu begi onez, Jauna,
geure pobretasunean altarara ekarri doguzan dohai honeei,
eta sagaratu egizuz zeure Espirituaren indarrez.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Prefazioa: Abendualdiko II.a nahiz IV.a, 468 edo 471. or.

Jaunartze-ant. Agertuko jaku goiz-eguzkia zeru goitik, gure oinok bake-bidean zuzentzera.
Lk 1, 78-79

Jaunartze ondorengoa

Eskerrak Zuri, Jainko ahalguztidun horri,
Zeuk emondako dohaiakaitik;
biztu, onez, gugan
datozan misterioak prestatzeko gogoa,
geure Salbatzailearen jaiotza
bihotz garbiz ospatu daigun.
Errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Abenduaren 20an

Sarrera-ant. Kimu bat sortuko da Jeseren zuhaitz-hondotik, lurbira osoa beteko dau Jaunaren aintzak, eta ikusiko dabe gizaki guztiek Jainkoaren salbazinoa. Ik. Is 11, 1; 40, 5; Lk 3, 6

Otoitza Jainko ahaltsu eta betikoa,
aingeruak esandakoari baietza emonez
betidaniko zure Hitz miragarria onartu eban Birjina errubakoak
eta, Jainkoaren bizileku bihurturik,
Espiritu Santuaren argiaz bete zan;
egizu, Ama Birjinak lez
onartu daigula geuk ere apalik zure nahia.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa Onartu, Jauna, zure Semearen sakrifizio bakarra barritzeko ekarri doguzan dohaiok;
egizu, misterio honetan parte izanez,
hartu daiguzala bete-betean
orain sinismenez itxaroten doguzan ondasunak.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Prefazioa: Abendualdiko II.a nahiz IV.a, 468 edo 471. or.

Jaunartze-ant. Aingeruak esan eutson Mariari: «Begira, sabelean sortu eta semea izango dozu, eta "Jesus" ezarriko deutsazu izena». Lk 1, 31

Jaunartze ondorengoa Jauna, zaindu zeure babesean
janaritzat zeruko ogia emon deutsazun familia hau,
eta, sakramentu honen indarrez,
emoiozu egiazko bakean pozik bizi ahal izatea.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Abenduaren 21ean

Sarrera-ant. Laster etorriko da Jainko Jaun ahalguztiduna eta Emmanuel ipiniko deutsoe izena, gugaz dago-eta Jainkoa. Ik. Is 7, 14; 8, 10

Otoitza

Entzun, Jauna, bihotz onez zeure herriaren otoitzak;
zure Seme bakarra gure haragia harturik etortzeaz
pozten diranek
izan dagiela betiko biziaren poz betea,
ha azkenaldian ospetsu etorriko danean.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa

Hartu bihotz onez, Jauna,
zeure Eleizearen dohaiok,
guk eskeintzeko Zeuk maitasunez emonak;
egizuz, zeure indarrez,
gure salbazinoaren sakramentu.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Prefazioa: Abendualdiko II.a nahiz IV.a, 468 edo 471. or.

Jaunartze-ant. Zorionekoa zu, Jaunak esan deutsuna beteko dala sinistu dozulako Lk 1, 45

Jaunartze ondorengoa

Eukaristia honetan parte hartzeak, Jauna,
ekarri deiola zure herriari etenbako laguntza,
zure zerbitzari leial izanez
bete-betean eskuratu dagian
gorputz-arimen salbazinoa.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Abenduaren 22an

Sarrera-ant. Ateburuok, zabaldu zaiteze; zabaldu zaiteze, aspaldiko ateok, badator-eta Errege ospetsua. Sal 24 [23], 7

Otoitza

Oi Jainko,
gizaki jausia heriotzaren menpean ikusirik,
zeure Seme bakarraren etorreraz
salbatu nahi izan dozu;
egizu, haren gizon egitea apalik autortzen dabenek
Salbatzailearen bizi barrian ere parte izan dagiela.
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa

Jauna, zure errukian uste on dogula gatoz
geure dohaiekin zure altara santura;
egizu, garbi egiten gaituan zure grazia lagun
ospatzen dihardugun sakramentuak bihotz-barritu gaizala.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Prefazioa: Abendualdiko II.a nahiz IV.a, 468 edo 471. or.

Jaunartze-ant. Handiesten dau nire arimak Jauna, handiak egin deustaz-eta Ahalguztidunak. Lk 1, 46.49

Jaunartze ondorengoa

Hartu dogun zure sakramentuak, Jauna,
emon deigula indarra,
geure bizitzako egintza onez beterik
Salbatzaileari bidera urteteko
eta betiko zorionaren saria lortzeko.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Abenduaren 23an

Sarrera-ant. Ume bat jaioko jaku, eta haren izena Jainko indartsu; bedeinkatuak izango dira harengan nazino guztiak. Ik. Is 9, 5; Sal 72 [71], 17

Otoitza

Jainko ahalguztidun betikoa,
zure Semeak haragi hartu ebaneko jaioteguna hurreratzean
otoitz egiten deutsugu:
Maria Birjinaren sabelean haragi hartu
eta gure artean bizi izan zan zure Hitzak,
Jesu Kristo gure Jaunak,
agertu deigula zure zerbitzari ezerezoi errukia.
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa

Guk egin ahal deutsugun
jainkozko gurtzarik bikainena dan opari honek
adiskidetu gaizala guztiz Zugaz, Jauna,
gure Salbatzailearen jaiotza
bihotz garbiz ospatu daigun.
Errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Prefazioa: Abendualdiko II.a nahiz IV.a, 468 edo 471. or.

Jaunartze-ant. Hara, atean nago deika; norbaitek nire ahotsa entzun eta atea edegiten badeust, harenean sartuko naz eta alkarregaz afalduko dogu. Ap 3, 20

Jaunartze ondorengoa

Emoiguzu, Jauna, zeure bakea
zeruko dohaiez asetu gaituzunoi,
gure artera datorren zure Seme maiteari
argiak bizturik eta gogotsu bidera urten deiogun.
Errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Abenduaren 24an
Goizeko Meza

Sarrera-ant. Hara, bete da sasoia, eta Jainkoak bere Semea bialdu dau lurrera.
Ik. Ga 4, 4

Otoitza Zatoz laster, Jesus Jauna, ez luzatu;
poztu daizala eta indartu zure etorrerak
euren uste osoa zure bihotz errukitsuan dabenak.
Aitarekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi zara-eta gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa Hartu bihotz onez, Jauna,
oparitako ekarri deutsuguzan dohaiok,
Eukaristian gure janari eginik,
pekatutik garbitu gaitezan
eta zure Semearen etorrera ospetsua
bihotz leialez itxaron daigun.
Errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Prefazioa: Abendualdiko II.a nahiz IV.a, 468 edo 471. or.

Jaunartze-ant. Bedeinkatua Jauna, Israelen Jainkoa, agertu eta bere herria askatu dauana!
Lk 1, 68

Jaunartze ondorengoa Zeure Eukaristiaz bizibarritu gaituzu, Jauna;
egizu, prestatu gaitezala
zure Semearen jaiotza agurgarria ospatzeko,
haren betiko dohaiak pozik eskuratu daiguzan.
Errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

GABONALDIA

Abenduaren 25ean
JAUNAREN JAIOTZA
Festaburua

Bezpera-arratsaldeko Meza

Meza-gai honeek erabiliko dira abenduaren 24an, arratsaldean, Gabon I. Bezperen aurretik nahiz ondoren.

Sarrera-ant. Gaur jakingo dozue badatorrela Jauna gu salbatzera, eta bihar ikusiko dozue haren aintza. Ik. Ur 16, 6-7

Aintza zeruetan esango da.

Otoitza Salbazinoaren esperantza pozgarria
urtero gure bihotzean bizkortzen dozun Jainkoa,
egizu, zure Seme bakarra gu salbatzera datorrenean
pozik onartzen dogun lez,
gu epaitzera etorriko danean ere
hartu daigula uste osoz.
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Sinisten dot esango da. Eta Espiritu Santuaren egitez... gizon egin zan berbak esatean, belaunikatu egingo dira danak.

Oparigaien gainekoa Jauna, zeure Semearen jaiotza ospetsuagaz
emon deutsazu hasiera gure salbazinoari;
emoiozu zeure herri honi
misterio santu honeek
maitasunik handienaz ospatzeko grazia.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Prefazioa: Gabonaldikoa, 472-475. or.
Ik. prefazio horreetako orrietan, I., II. eta III. Eukaristi Otoitzetan Gabon-misterioaren aipamena egiteko oharrak.

Jaunartze-ant. Jaunaren aintza agertuko da, eta gizaki guztiek ikusiko dabe gure Jainkoaren salbazinoa. Ik. Is 40, 5

Jaunartze ondorengoa

Janari-edari santuak emon deuskuzuz, Jauna,
sakramentu honetan;
egizu, indarbarritu gaitezala zure fededunok
zure Semearen jaiotza ospatuz.
Errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Bedeinkazino nagusia erabili daiteke, 641. or. 2. zk.

Gauerdiko Meza

Gabon-egunean abade bakotxak hiru Meza nahiz alkarmeza emon daikez, dagokien orduetan emon ezkero.

Sarrera-ant. Jaunak esan deust: Nire seme zara zu; Neuk zaitut gaur sortu. Sal 2, 7

Edo:

Poztu gaitezan guztiok Jaunagan, gure Salbatzailea jaio da-eta munduan. Gaur egiazko bakea jatsi jaku zerutik.

Aintza zeruetan esango da.

Otoitza Egiazko argiaren distiraz argitu dozu, Jauna, gau santu hau; egizu,
lur honetan jazoera honen argi distiratsua ikusi dogunok
gozatu daigula zeruan haren aintzaren ederra.
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Sinisten dot esango da. Eta Espiritu Santuaren egitez... gizon egin zan hitzak esatean, belaunikatu egingo dira danak.

Oparigaien gainekoa

Izan bekizu atsegin, Jauna,
Gabon-gau santu honetan egiten deutsugun oparia;
eta gure dohaiak sagaratzen dituan
hartu-emon santu honen bidez,
egin gaizuz zeure Semearen izaera bereko,
harengan bat egin gaituzu-eta Zeurekin.
Errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Prefazioa: Gabonaldikoa, 472. or., batez be I.a, Kristo argia.
Ik. prefazio horreetako orrietan, I., II. eta III. Eukaristi Otoitzetan Gabon-misterioaren aipamena egiteko oharrak.

Jaunartze-ant. Hitza haragi egin zan, eta ikusi dogu haren aintza. Jn 1, 14

Jaunartze ondorengoa

Pozez gainezka ospatzen dogu, Jainko gure Jauna,
Kristo gure Salbatzailearen jaiotza;
emoiguzu santu bizitzea, honegaz bete-betean bat egiteko.
Errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Bedeinkazino nagusia erabili daiteke, 641. or., 2. zk.

Goizeko Meza

Sarrera-ant. Argiak distira egingo dau gaur gure gainean, Jauna jaio jaku-eta; haren izena Harrigarri, Jainko, Errege bake-emoile, Aita betiko, eta haren erregetzak ez dau azkenik izango.
Ik. Is 9, 1.5; Lk 1, 33

Aintza zeruetan esango da.

Otoitza

Jainko ahalguztiduna,
haragi egin dan zure Hitzaren argi barriak bete gaitu;
egizu, gure bihotzetan argi egiten dauan fedeak
distiratu dagiala gure egintzetan ere.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Sinisten dot esango da. Eta Espiritu Santuaren egitez... gizon egin zan hitzak esatean, belaunikatu egingo dira danak.

Oparigaien gainekoa

Izan beitez, Jauna, gure eskeintzak
gaur ospatzen dogun
Jesusen jaiotzako misterioaren neurrikoak,
zure Semea gizon egina eta, aldi berean, Jainko dana
agertu deuskuzun lez,
lurreko gure dohaiok
emon deiguezala jainkozko ondasunak.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Prefazioa: Gabonaldikoa, 472-475. or.
Ik. prefazio horreetako orrietan, I., II. eta III. Eukaristi Otoitzetan Gabon-misterioaren aipamena egiteko oharrak.

Jaunartze-ant.

Poztu zaitez, Sion uri eder! Egin irrintzi, Jerusalem uriburu! Hara, badatorkizu zeure erregea, santua eta salbatzailea. Ik. Za 9, 9

Jaunartze ondorengoa

Poz handiz ospatu dogu, Jauna, zure Semearen jaiotza;
emoiguzu misterio honen bihotza fedez sakontzea
eta maitasun handi eta emonkorrez bizitzea.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Bedeinkazino nagusia erabili daiteke, 641. or., 2. zk.

Eguneko Meza

Sarrera-ant.

Umea jaio jaku, Semea emon jaku; hari emon jako aginpidea, eta haren izena Kontseilari harrigarri. Is 9, 5

Aintza zeruetan esango da.

Otoitza

Oi Jainko, era miragarrian moldatu dozu giza duintasuna,
eta era miragarriagoan erabarritu;
egizu, gizatasunean gugaz bat egin dauan zure Semeak
bat egin gaizala beragaz jainkotasunean.
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Sinisten dot esango da. Eta Espiritu Santuaren egitez... gizon egin zan berbak esatean, belaunikatu egingo dira danak.

Oparigaien gainekoa

Onartu, Jauna, gaurko Gabon-festaburu honetan,
Zugaz adiskidetzen gaituan oparia,
hauxe da-eta gizakiak Zuri eskeini ahal deutsun
gorespenik bikainena.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Prefazioa: Gabonaldikoa, 472-475. or.
Ik. prefazio horreetako orrietan, I., II. eta III. Eukaristi Otoitzetan Gabon-misterioaren aipamena egiteko oharrak.

Jaunartze-ant.

Munduko bazter guztiek ikusi dabe gure Jainkoaren garaipena.
Sal 98 [97], 3

Jaunartze ondorengoa

Jainko errukitsua,
gaur jaio dan munduaren Salbatzaileak
Jainkoaren seme-alaba bihurtzen gaituan lez,
egin gaizala hilezkor ere.
Errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Bedeinkazino nagusia erabili daiteke, 641. or., 2. zk.

Jaunaren Jaiotzako zortziurren barruko domekan
edo, domekarik ez bada, abenduaren 30ean

FAMILIA SANTUA: JESUS, MARIA ETA JOSE

Jaia

Sarrera-ant. Arineketan joan ziran artzainak, eta han aurkitu ebezan Maria eta Jose eta umea askan etzunda. Lk 2, 16

Aintza zeruetan esango da.

Otoitza Oi Jainko,
egiazko bizi-eredua emon deuskuzu Familia Santuan;
egizu, onbera, izan daiguzala geure familietan be
hareen hartuemon eta maitasun berberak,
betiko zoriona izan daigun zeruetako zure etxean.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espirituarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Jai hau domekaz ospatzen danean, Sinisten dot esango da.

Oparigaien gainekoa Bakezko opari hau Zuri eskeintzean, Jauna,
apal-apal eskatzen deutsugu:
Jainkoaren Ama Birjinaren
eta Jose santuaren otoitzari esker,
gure familiak bizi daitezala sendo
zure adiskidetasunean eta bakean.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Prefazioa: Gabonaldikoa, 472-475. or.
Ik. prefazio horreetako orrietan, I. II. eta III. Eukaristi Otoitzetan Gabon-misterioaren aipamena egiteko oharrak.

Jaunartze-ant. Munduan agertu zan gure Jainkoa eta gizakien artean bizi izan zan. Ik. Ba 3, 38

Jaunartze ondorengoa

Aita guztiz onbera,
sakramentu honen bidez indarbarritu gaituzunok
bizi gaitezala Familia Santuaren antzera,
lur honetako nekeen ondoren
beragaz batera betiko zoriona lortu daigun.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Bedeinkazino nagusia erabili daiteke, 641. or., 2. zk.

Abenduaren 29an

Gabon-zortziurreneko V. eguna

Sarrera-ant. Hain maite izan eban Jainkoak mundua, bere Seme bakarra emon eutson, harengan sinisten dauanik inor galdu ez dadin, betiko bizia izan dagian baino. Jn 3, 16

Aintza zeruetan esango da.

Otoitza

Jainko ahalguztiduna eta ikusiezina,
egiazko argiaren etorreraz
argitu dozuz gure ilunpeak;
begitu eiguzu begi onez,
zeure Seme bakarraren jaiotzan agertu deuskuzun
eskuzabaltasuna goratu daigun.
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa

Onartu, Jauna, gure dohaiok;
euron bidez hartuemon miragarriak doguz Zugaz;
egizu, Zeuk emondakoak eskeiniz,
izan daigula Zu Zeu hartzeko grazia.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Prefazioa: Gabonaldikoa, 472-475. or.
Ik. prefazio horreetako orrietan, I. II. eta III. Eukaristi Otoitzetan Gabon-misterioaren aipamena egiteko oharrak.

Jaunartze-ant. Gure Jainkoaren errai errukitsuakaitik, agertu jaku goiz-eguzkia zeru goitik. Ik. Lk 1, 78

Jaunartze ondorengoa

Jainko ahalguztiduna,
egizu, misterio santu honeen indarrez
izan dadila gure bizitza gero eta kristauagoa.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Abenduaren 30ean
Gabon-zortziurreneko VI. eguna

Gabon-zortziurren barruan domekarik ez bada, egun honetan ospatuko da Jesus, Maria eta Jose Familia Santuaren jaia (ik. 126. or.).

Sarrera-ant. Isiltasun bareak dana inguratzen ebala eta gaua bere ibilbidearen erdian egoala, zure hitz ahalguztidunak urten eban, Jauna, zeruko tronutik. Jkt 18, 14-15

Aintza zeruetan esango da.

Otoitza

Jainko ahalguztiduna,
giza haragia hartuz zure Semeak izan dauan jaiotza barriak
askatu gaizala behin betiko
pekatuaren buztarpean gagozanok.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa

Hartu, Jauna, bihotz onez zeure herriaren eskeintzak,
fedez autortzen dogun egia
zerutar sakramentu honen bidez lortu daigun.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Prefazioa: Gabonaldikoa, 472-475. or.
Ik. prefazio horreetako orrietan, I. II. eta III. Eukaristi Otoitzetan Gabon-misterioaren aipamena egiteko oharrak.

Jaunartze-ant. Haren betearen betetik guztiok hartu dogu, grazia graziaren gain hartu be. Jn 1, 16

Jaunartze ondorengoa

Oi Jainko, Eukaristian parte izatea emon deuskuzu;
egizu, sakramentu honek
eragin daizala gure bihotzean bere frutuak
eta sakramentu hori hartzeak
egin gaizala gai zure dohaiak onartzeko.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Abenduaren 31n
Gabon-zortziurreneko VII. eguna

Sarrera-ant. Umea jaio jaku, Semea emon jaku; hari emon jako aginpidea, eta haren izena Kontseilari harrigarri. Is 9, 5

Aintza zeruetan esango da.

Otoitza

Jainko ahalguztidun betikoa,
zure Semearen jaiotzan jarri dozu
fede-hartuemon guztien hasiera eta burutzea;
egin gaizuz haren atal bizi,
bera da-eta gizadiaren salbazino-iturri bakarra.
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa

Oi Jainko, Zeu zaitugu
egiazko jainkozaletasunaren eta bakearen iturria;
egizu, dohai honen bidez
autortu daigula eta goratu zure handitasuna,
eta sakramentu hau hartzeak
sendotu daiala gure arteko alkartasuna.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Prefazioa: Gabonaldikoa, 472-475. or.

Ik. prefazio horreetako orrietan, I. II. eta III. Eukaristi Otoitzetan Gabon-misterioaren aipamena egiteko oharrak.

Jaunartze-ant. Jainkoak bere Seme bakarra bialdu eban lurrera, gu haren bidez bizi gaitezan. 1 Jn 4, 9

Jaunartze ondorengoa

Era askotara laguntzen deutsazu, Jauna, zeure herriari;
emoiozuz zeure errukiaren oraingo eta geroko osagaiak,
mundu honetako arazoetan Zeuk lagundurik,
konfiantza osoz jo dagian betiko ondasunetara.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Urtarrilaren 1ean
Gabon-zortzigarrena

JAINKOAREN AMA MARIA SANTUAREN FESTABURUA

Sarrera-ant. Agur, Ama santua, gizaldien gizaldietan zeru-lurren Erregea da-naren Ama!

Edo:

Argiak distira egingo dau gaur gure gainean, Jauna jaio jaku-eta; eta haren izena Harrigarri, Jainko, Errege bake-emoile, Aita betiko, eta haren erregetzak ez dau azkenik izango. Ik. Is 9, 1.5; Lk 1, 33

Aintza zeruetan esango da.

Otoitza Maria dohatsua birjina izanik ama eginez,
gizadiari salbazinoa emon deutsazun Jainkoa,
egizu, laguntzaile ere izan daigula zure aurrean
beraren bidez lortu genduan-eta biziaren sortzailea,
zure Seme Jesu Kristo gure Jauna.
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Sinisten dot esango da.

Oparigaien gainekoa Oi Jainko, Zeuk emoten deutsezu hasiera asmo on guztiei eta Zeuk dozuz burutzen;
Jainkoaren Ama santuaren festaburu honetan eskatzen deutsugu,
salbazinoaren hasiera pozik ospatzen dogunok
lortu daigula egun baten salbazino horren betea.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Prefazioa: Maria Birjina dohatsuaren I.a, amatasuna ospatzen dogun, 520. or.

Erromako Eukaristi Otoitzean, Danok, Eleiza osoarekin 566.. or., II. Eukaristi Otoitzean, Izan gogoan, Jauna 584. or., eta III. Eukaristi Otoitzean, Entzun bihotz onez, 602. or., bereziak esango dira.

Jaunartze-ant. Jesu Kristo bat bera da atzo, gaur eta beti. Heb 13, 8

Jaunartze ondorengoa

Jauna, pozik hartu doguz sakramentu zerutarrak;
egizu, Maria beti Birjina dohatsua
zure Semearen sortzaile eta Eleizearen amatzat
autortzen eta goresten dogunok
laguntza izan daigula betiko bizia lortzeko.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Bedeinkazino nagusia erabili daiteke, 642. or., 3. zk.

Ondorengo egunetan asteguneko Mezea emon behar danean, 137-144. or.an datozan meza-gaiak hartuko dira.

GABON ONDORENGO II. DOMEKA

Sarrera-ant. Isiltasun bareak dana inguratzen ebala eta gaua bere ibilbidearen erdian egoala, zure hitz ahalguztidunak urten eban, Jauna, zeruko tronutik. Jkt 18, 14-15

Aintza zeruetan esango da.

Otoitza Jainko ahalguztidun betikoa, fededunen argia,
bete egizu mundu osoa zeure aintzaz,
eta argi distiratsu horrek
eroan dagizala herrialde guztiak Zeu ezagutzera.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitertez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Sinisten dot esango da.

Oparigaien gainekoa Sagaratu egizuz, Jauna, dohai honeek
zeure Seme bakarraren jaiotzaz,
honetan erakusten deuskuzu-eta egiaren bidea
eta honetan agintzen zeruetako erreinuko bizia.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Prefazioa: Gabonaldikoa, 472-475. or.

Jaunartze-ant. Onartu eben guztiei Jainkoaren seme-alaba izateko ahalmena emon eutsen. Jn 1, 12

Jaunartze ondorengoa Jainko gure Jauna, apalik eskatzen deutsugu,
sakramentu honen indarrak garbitu gaizala
geure grina txarretatik
eta bete dagizala gure asmo zuzenak.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Bedeinkazino nagusia erabili daiteke, 641. or., 2. zk.

Urtarrilaren 6an

JAUNAREN AGERKUNDEA

Festaburua

Bezpera-arratsaldeko Meza

Meza-gai honeek erabiliko dira festaburu aurreko arratsaldean, Agerkundeko I. Bezperen aurretik nahiz ondoren emongo dan Mezan.

Sarrera-ant. Jagi zaitez, Jerusalem, eta begitu sortaldera; ikusi zeure seme-alabak batuta, sortaldetik sartalderaino. Ik. Ba 5, 5

Aintza zeruetan esango da.

Otoitza Argitu, Jauna, gure bihotza
zeure handitasunaren argi distiratsuaz,
mundu honetako ilunpetan zehar onik igarotzeko
eta betiko argiaren erreinura heltzeko gai izan gaitezan.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Sinisten dot esango da.

Oparigaien gainekoa Onartu, Jauna, zure Seme bakarraren Agerkundea
eta lehenengo jentilak erakarri izana ospatzeko
eskeintzen deutsuguzan oparigaiak;
egizu, izan daitezala zure gorespenerako
eta betiko gure salbazinorako.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Prefazioa: Agerkundekoa, 476. or.

Jaunartze-ant. Jainkoaren aintzak argitzen dau Jerusalem uri santua, eta haren argitan dabiltz herriak. Ik. Ap 21, 23

Jaunartze ondorengoa

Janari santu honegaz bizibarriturik,
otoitz egiten deutsugu, Jaun errukitsua,
zure zuzentasun-izarrak
argitu daizala beti gure gogo-bihotzak
eta Zeu autortzea izan dadila gure oparia.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Bedeinkazino nagusia erabili daiteke, 642. or., 4. zk.

Eguneko Meza

Sarrera-ant.

Horra non datorren Jainko Jaun ahalguztiduna; bere esku dau erregetza, indarra eta ahalmena. Ik. Ml 3, 1; 1 Kro 29, 12

Aintza zeruetan esango da.

Otoitza

Oi Jainko, egun honetan agertu zeuntsen, izarra gidari zala,
zeure Seme bakarra jentil-herriei;
izan zaitez gugaz onbera
eta eroan gaizuz sinismenez ezagutzen zaitugunok
zeure aintzaren ederra bete-betean gozatzera.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Ohitura dan lekuetan, egoki eretxi ezkero, urteko jai mugikorrak iragarri daitekez Ebanjelio ondoren; ik. V. Eranskina: Pazko-egunaren eta gainerako jaiegun mugikorren egutegia, 1304. or.

Sinisten dot esango da.

Oparigaien gainekoa

Begira, Jauna, begi onez zeure Eleizearen dohaiok;
ez deutsugu horreetan urrerik,
intsentsurik eta mirrarik eskeintzen,
horreek adierazoten daben Jesu Kristo gure Jauna baino,
opari egingo dana eta janari emongo jakuna.
Errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Prefazioa: Agerkundekoa, 476. or.

Ik. Prefazio honetako orrian, I., II. eta III. Eukaristi Otoitzetan Agerkundeko misterioaren aipamena egiteko oharrak.

Jaunartze-ant. Haren izarra ikusi dogu sortaldean eta Jauna gurtzera gatoz errega-luekin. Ik. Mt 2, 2

Jaunartze ondorengoa

Jauna, izan daigula lagun zure argia nonahi eta beti,
ospatu dogun misterio hau fede garbiz sakondu daigun
eta maitasun gartsuz onartu.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Bedeinkazino nagusia erabili daiteke, 642. or., 4. zk.

GABONALDIKO ASTEGUNAK
urtarrilaren 2tik Jaunaren Bateo aurreko zapatura arte

Meza-gai honeek dagokiezan egunetan erabiliko dira, adierazota dagoan eran otoitza aldatuz.

Astelehena

Sarrera-ant. Egun santua argitu jaku; zatoze, herriok, eta gurtu egizue Jauna, argi handia jatsi da-eta lurrera.

Agerkundeko festaburuaren aurretik:

Otoitza Emoiozu, arren, Jauna, zeure herriari
sinismen sendoa eta iraunkorra;
eta egizu, zure Seme bakarra, betiko zure aintza bera dauana,
gurea lako gorputzean
Ama Birjinagandik jaio dala autortzen dabenek
urten dagiela oraingo gatx guztietatik
eta izan dagiela betiko zoriona.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Agerkundeko festaburuaren ondoren:

Oi Jainko,
betiko zure Hitzak zeruaren aurpegi ederra agertu eban
eta Maria Birjinaren erraietan
gure haragi makala hartu eban;
egizu, egiaren distiraz etorri jakunak
eroan dagiala ahalmen osoz bere betera
munduaren salbazinoa.
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa

Onartu, Jauna, gure dohaiok;
euron bidez hartu-emon miragarriak doguz Zurekin;
egizu, Zeuk emondakoak eskeiniz,
izan daigula Zu Zeu hartzeko grazia.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Prefazioa: Agerkundeko festaburuaren aurretik, Gabonaldikoa, 472-475. or.; Agerkundeko festaburuaren ondoren, Agerkundekoa, 476. or., nahiz Gabonaldikoa, 472-475. or.

Jaunartze-ant.

Ikusi dogu haren aintza, Aitagandik graziaz eta egiaz betea datorren Seme bakarrari dagokion aintza. Jn 1, 14

Jaunartze ondorengoa

Jainko ahalguztiduna,
egizu, misterio santu honeen indarrez
izan dadila gure bizitza gero eta kristauagoa.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Martitzena

Sarrera-ant.

Bedeinkatua Jaunaren izenean datorrena! Jainko da Jauna, berak egiten deusku argi. Sal 118 [117], 26-27

Agerkundeko festaburuaren aurretik:

Otoitza

Oi Jainko,
Birjina santuaren erditze dohatsuaz
zigorretik aske itzi dozu
zure Semearen haragizko izatea;
egizu, harengan bizi barrira sortuak garanok,
garbitu gaitezala pekatuaren kutsu zaharretik.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Agerkundeko festaburuaren ondoren:

Oi Jainko, zure Semea haragizko gure izaeran agertu da;
egizu, kanpotik gure antzeko autortzen dogun harek
erabarritu gaizala barrutik bere antzeko eginez.
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa

Hartu, Jauna, bihotz onez zeure herriaren eskeintzak,
fedez autortzen dogun egia
zerutar sakramentu honen bidez lortu daigun.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Prefazioa: Agerkundeko festaburuaren aurretik, Gabonaldikoa, 472-475. or.; Agerkundeko festaburuaren ondoren, Agerkundekoa, 476. or., nahiz Gabonaldikoa, 472-475. or.

Jaunartze-ant.

Jainkoak, halako maitasun neurribakoaz maite izan gaitualako, gurea lako pekatuzko izaeran bialdu dau bere Semea.
Ef 2, 4; Erm 8, 3

Jaunartze ondorengoa

Oi Jainko, Eukaristian parte izatea emon deuskuzu;
egizu, sakramentu honek
eragin dagizala gure bihotzean bere frutuak
eta sakramentu hori hartzeak
egin gaizala gai zure dohaiak onartzeko.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Eguaztena

Sarrera-ant.

Ilunpean ebilen herriak argi handia ikusi eban; heriotza-kerizpean bizi ziranei argiak egin eutsen distira. Is 9, 1

Agerkundeko festaburuaren aurretik:

Otoitza

Jainko ahalguztiduna,
mundua argi barriz argitu dau Salbatzaileak;
argitu daiala gure bihotza ere eta erabarritu beti.
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Agerkundeko festaburuaren ondoren:

Oi Jainko, nazino guztiak argitzen dozuzan argia,
emoiezu herri guztiei betiko bakearen poza,
eta biztu gure bihotzean
gure aurretikoen gogora isuri zenduan argi miragarria.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa

Oi Jainko, Zeu zaitugu
egiazko jainkozaletasunaren eta bakearen iturria;
egizu, dohai honen bidez
autortu daigula eta goratu zure handitasuna,
eta sakramentu hau hartzeak
sendotu daiala gure arteko alkartasuna.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Prefazioa: Agerkundeko festaburuaren aurretik, Gabonaldikoa, 472-475. or.; Agerkundeko festaburuaren ondoren, Agerkundekoa, 476. or., nahiz Gabonaldikoa, 472-475. or.

Jaunartze-ant. Bizia agertu zan; Aitagaz egoan eta geuri agertu jakun. 1 Jn 1, 2

Jaunartze ondorengoa

Era askotara laguntzen deutsazu, Jauna, zeure herriari;
emoiozuz zeure errukiaren oraingo eta geroko osagaiak,
mundu honetako arazoetan Zeuk lagundurik,
konfiantza osoz jo dagian betiko ondasunetara.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Eguena

Sarrera-ant. Hasieran eta gizaldien aurretik, Jainko zan Hitza, eta Hitz hori munduaren Salbatzaile izateko jaio da. Ik. Jn 1, 1

Agerkundeko festaburuaren aurretik:

Otoitza Oi Jainko, zure Semearen jaiotzaz
miragarriro hasi dozu zeure herriaren salbazino-egintza;
sendotu zeure herri honen fedea,
Jesu Kristo bera gidari dauala,
agindu deutsazun zeruko saria lortu dagian.
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Agerkundeko festaburuaren ondoren:

Oi Jainko, zure Semearen bitartez,
betiko argia sortuazo dozu herrialde guztientzat;
egizu, zure herriak ezagutu daiala
bere Salbatzailearen misterio sakona,
ezagupen horretan aurrera eginez
egun baten inoiz amatatzen ez dan argira heldu dadin.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa Onartu, Jauna, gure dohaiok;
euron bidez hartu-emon miragarriak doguz Zugaz;
egizu, Zeuk emondakoak eskeiniz,
izan daigula Zu Zeu hartzeko grazia.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Prefazioa: Agerkundeko festaburuaren aurretik, Gabonaldikoa, 472-475. or.; Agerkundeko festaburuaren ondoren, Agerkundekoa, 476. or., nahiz Gabonaldikoa, 472-475. or.

Jaunartze-ant. Hain maite izan eban Jainkoak mundua, bere Seme bakarra emon eutson, harengan sinisten dauanik inor galdu ez dadin, betiko bizia izan dagian baino. Jn 3, 16

Jaunartze ondorengoa

Jainko ahalguztiduna,
egizu, misterio santu honeen indarrez
izan dadila gure bizitza gero eta kristauagoa.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Barikua

Sarrera-ant.

Ilunpean argia lez da Jauna zuzenentzat: errukiorra, bihozbera eta zintzoa. Sal 112 [111], 4

Agerkundeko festaburuaren aurretik:

Otoitza

Argitu egizuz, Jauna, zeure fededunak,
eta biztu honeen bihotza zeure aintzaren distiraz,
euren Salbatzailea autortu dagien beti
eta beragaz egiazko alkartasunean bizi daitezan.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Agerkundeko festaburuaren ondoren:

Jainko ahalguztiduna, izarraren bidez
adierazo zeuntsan munduari Salbatzailearen jaiotza;
argitu egizu gure bihotza,
misterio hori gero eta gehiago sakondu daigun.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa

Hartu, Jauna, bihotz onez zeure herriaren eskeintzak,
fedez autortzen dogun egia
zerutar sakramentu honen bidez lortu daigun.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Prefazioa: Agerkunde festaburuaren aurretik, Gabonaldikoa, 472-475. or.; Agerkunde festaburuaren ondoren, Agerkundekoa, 476. or., nahiz Gabonaldikoa, 472-475. or.

Jaunartze-ant. Jainkoak deuskun maitasuna honetan agertu zan: Jainkoak bere Seme bakarra bialdu ebala lurrera, gu haren bidez bizi gaitezan.
1 Jn 4, 9

Jaunartze ondorengoa

Oi Jainko, Eukaristian parte izatea emon deuskuzu;
egizu, sakramentu honek
eragin dagizala gure bihotzetan bere frutuak
eta sakramentu hori hartzeak
egin gaizala gai zure dohaiak onartzeko.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Zapatua

Sarrera-ant. Bere Semea bialdu eban Jainkoak, emakumeagandik jaioa, guk seme-alabatzakoa hartu gengian. Ga 4, 4-5

Agerkundeko festaburuaren aurretik:

Otoitza

Jainko ahalguztidun betikoa,
zeure Seme bakarraren etorreran
argi barri distiratsuz agertu zara;
egizu, ha, Maria Birjinagandik jaioz,
gorputz izaeran gugaz bat egin dan lez,
geuk ere bat egin daigula beragaz graziaren erreinuan.
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Agerkundeko festaburuaren ondoren:

Jainko ahalguztidun betikoa,
zeure Seme bakarraren bitartez izaki barri egin gaituzu;
egin gaizuz, zeure graziari esker,
zeure Semearen izaera bereko,
harengan bat egin gozuz-eta Zeugaz.
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa

Oi Jainko, Zeu zaitugu
egiazko jainkozaletasunaren eta bakearen iturria;
egizu, dohai honen bidez
autortu daigula eta goratu zure handitasuna,
eta sakramentu hau hartzeak
sendotu daiala gure arteko alkartasuna.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Prefazioa: Agerkundeko festaburuaren aurretik, Gabonaldikoa, 472-475. or.; Agerkundeko festaburuaren ondoren, Agerkundekoa, 476. or., nahiz Gabonaldikoa, 472-475. or.

Jaunartze-ant.

Haren betearen betetik guztiok hartu dogu, grazia graziaren gain hartu be. Jn 1, 16

Jaunartze ondorengoa

Era askotara laguntzen deutsazu, Jauna, zeure herriari;
emoiozuz zeure errukiaren oraingo eta geroko osagaiak,
mundu honetako arazoetan Zeuk lagundurik,
konfiantza osoz jo dagian betiko ondasunetara.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Urtarrilaren 6aren ondorengo domekan

JAUNAREN BATEOA

Jaia

Jaunaren Agerkunde- edo Epifania eguna domekaz ospatzen dan tokietan, domeka hori hilaren 7an nahiz 8an izaten bada, Jaunaren Bateo-jaia hurrengo astelehenean ospatuko da.

Sarrera-ant. Jauna bateatu ondoren, zerua zabaldu eta Espiritua jatsi zan usoirudian haren gainera, eta Aitaren berba hau etorri zan: hauxe da nire Semea, nire maitea; berau dot atsegin. Ik. Mt 3, 16-17

Aintza zeruetan esango da.

Otoitza Jainko ahalguztidun betikoa,
Kristo Jordan ibaiko uretan bateatua izan zanean,
argiro autortu zenduan,
Espiritu Santua haren gainera bialduz,
bera zala zure Seme maitea;
emoiezu, uretik eta Espiritu Santuagandik jaio diran
zeure seme-alabatzakoei, zure maitasunean irautea beti.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Edo:

Oi Jainko, zure Semea haragizko gure izaeran agertu da;
egizu, kanpotik gure antzeko autortzen dogun harek
erabarritu gaizala barrutik bere antzeko eginez.
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Sinisten dot esango da.

Oparigaien gainekoa

Onartu, Jauna,
zeure Seme maitearen agerraldia ospatzen dogun
egun honetan ekarri doguzan dohaiak;
bihurtu daitezala munduko pekatua kendu dauan
zure Seme errukitsuaren sakrifizio.
Errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Prefazioa JAUNAREN BATEOA

℣. Jauna zuekin.
℟. Eta zure espirituarekin.

℣. Gora bihotzak.
℟. Jaunagan daukaguz.

℣. Eskerrak Jaungoiko gure Jaunari.
℟. Egoki da eta zuzen.

Egoki da, bai, eta zuzen,
bidezko eta salbagarri,
nonahi eta beti guk Zuri eskerrak emotea,
Jauna, Aita guztiz santu,
Jainko ahalguztidun betiko horri.

Jordan ibaiko uretan seinale miragarriak eginez
garbikuntza barriaren misterioa adierazo deuskuzu
eta zeure ahotsa entzunazo,
gizadiak sinistu dagian geure artean dogula zure Hitza;
eta uso-itxuran agertutako Espiritu Santuaren bidez
jakinazo deuskuzu,
Kristo zeure Zerbitzaria poz-orioz gantzutu dozula
eta behartsuei Barri Ona emotera bialdu.

Horregaitik, zeruko indar guztiekin,
lurrean beti eta beti goresten zaitugu,
Zuri, Jainko guztiz handi horri,
eten barik [esanez] kantatuz:

Santu, Santu, Santua...


℣. Jau-na zu-e-kin. ℟. E-ta zu-re es-pi-ri-tu-a-re-kin.
℣. Go-ra bi-ho-tzak. ℟. Jau-na-gan dau-ka-guz.
℣. Es-ke-rrak Jaun-goi-ko gu-re Jau-na-ri. ℟. E-go-ki da e-ta zu-zen.


Egoki da, bai, eta zuzen, bidezko eta sal-ba-ga-rri, no-na-hi eta
beti guk Zuri eskerrak e-mo-te-a, Jauna, Aita guz-tiz san-tu,
Jainko ahalguzti-dun be-ti-ko ho-rri. Jordan ibai-ko uretan seinale
miragarriak e-gi-nez garbikun-tza barriaren misterioa adierazo deus-
ku-zu eta zeure ahotsa en-tzu-na-zo, gizadiak sinistu dai-an geure
artean do-gu-la zu-re Hi-tza; eta u-so–itxuran agertutako Espiritu San-
tuaren bidez jakinazo deus-ku-zu, Kristo zure Zerbitzaria poz–orioz
gantzutu do-zu-la eta behartsuei Barri Ona e-mo-te-ra bi-al-du.



Jaunartze-ant. Autormen hau egin eban Joanek: neuk ikusi dot eta autortzen, hauxe dala Jainkoaren Semea. Jn 1, 32.34

Jaunartze ondorengoa

Jaun errukitsua,
dohai santu honeekin aseturik apalik dei egiten deutsugu:
egin gaizuz zeure Semearen Hitzaren entzule zintzo,
izenez eta izatez zure seme-alaba izan gaitezan.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Domeka honen ondorengo astelehenetik hasi eta Garizuma aurreko martitzenera bitarteko aldia Urtean Zeharrekoa da. Bai domeketako Mezetan bai asteguneta koetan, 373-406. or.an eta ondorengoetan datozan mezagaiak hartuko dira.

GARIZUMALDIA

1. Oso ondo legoke, Erromako «statio» edo eleiz txango hareen antzera, tokian tokiko eleiza batzarrean batzeko antxinako ohitura gorde eta indarbarritzea, herri handietan behintzat eta bertako modurik egokienean, batez be Garizumaldian.

Eleiztarren batzar honeek domeketan nahiz aste barruko beste egun egokiagoetan egin daitekez, batez be eleizbarrutiko Artzaina buru dala, bai santuren baten hilobia dagoan eleizan, bai uriko eleiza edo santutegirik nagusienetan, baita jente asko batzen dan eleizbarrutiko erromes-lekuetan be.

Batzar-egun honeetan ospatuko dan Meza aurretik, bertako inguruabarren arabera, prozesinoa egitekoa bada, hasierako otoitza urteerako eleiza txikiagoan egingo da, edo beste leku egokiren baten, baina eleiza nagusira heldu baino lehen.

Herria agurtu ondoren, abadeak Kurutze Santuaren Mezako otoitza esango dau (ik. geroago 851. or.), nahiz Pekatuen parkamena eskatzeko Mezakoa (ik. 1192. or.), nahiz Eleizearentzat, aparteko eran Lekuan lekuko Eleizarentzat, Mezakoa (ik. 1137. or.), nahiz herriaren gaineko otoitz bat. Orduan, Mezea ospatuko dan eleizarako prozesinoa eratuko da, Santuen letaniak abestuz. Letanietan, dagokien lekuan, tokiko eleizako santu zaindariaren edo fundatzailearen eta bertako santuen eskariak sartu daitekez.

Prozesinoa eleiza nagusira heltzean, abadeak altarea gurtu eta, egoki eretxi ezkero, intsentsuz lurrunduko dau. Hasierako ohikuneak eta, egoki eretxi ezkero, Erruki, Jauna be, itzirik, Mezako otoitza esango dau; eta hortik aurrera Mezeagaz jarraituko dau, ohi danez.

2. Batzar-egun honeetan, Mezearen ordez, Jainkoaren hitzaren ospakizuna be egin daiteke, batez be penitentzia-ospakizun eran, Erromako Ohikune Liburuan Garizumaldirako emonda dagozan moduan.

3. Aldi honetako astegunetan egoki da Meza amaierako bedeinkazino aurretik egun bakotxerako jarrita dagoan herriaren gaineko otoitza egitea.

4. Aldi honetan galazota dago altarea lorez apaintzea, eta musika-tresnak kantuan laguntzeko bakarrik erabili daitekez. Salbuespentzat hartzen dira Laetare domekea (Garizumako IV.a), festaburuak eta jaiak.

HAUTS-EGUNA

Egun honetako Mezan errautsa bedeinkatuko da eta kristauen buruan ezarriko; errauts hori aurreko urtean bedeinkatutako olibondo-adarrez edo beste adar batzukaz egingo da.

Errautsak bedeinkatzea eta ezartzea Meza barik be egin daiteke. Holan egingo danean, lehenengo hitzaren liturgia egingo da, sarrera-antifona, otoitza eta irakurgaiak euren kantuekin Mezakoan lez eginez. Ondoren, homilia egingo da eta errautsa bedeinkatzea eta ezartzea. Jainkoaren herriaren otoitza, bedeinkazinoa eta agurra eginez amaituko da ohikunea.

Hasierako ohikuneak eta hitzaren liturgia

Sarrera-ant. Guztiakaz dozu errukia, Jauna, eta ez dozu Zeuk egindako ezer gitxiesten; gizakien pekatuei ez ikusiarena egiten deutsezu, bihozbera zara-eta guztiekin, Jauna, gure Jainkoa. Ik. Jkt 11, 24.25.27

Damu-otoitzik ez da egingo; horren ordez errautsa ezarriko da.

Otoitza Lagundu eiozu, Jauna, kristau-herriari
barau-egun honegaz benetan bihotz-barritzeko bidea hasten,
penitentziaz indarturik,
gaiztakeri espirituaren aurkako ahaleginean
garaile urten dagian.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Errautsa bedeinkatu eta ezartzea

Homilia egin ondoren, abadeak, zutunik eta eskuak baturik dituala, esango dau:

Oharpena Senideok: Egin deiogun otoitz Jainko Aitari, penitentziaren ezaugarritzat hartuko dogun errautsa bere grazia ugariz bedeinkatu dagian.

Eta, isilik otoitz labur bat egin ondoren, besoak zabalik, jarraituko dau:

Bedeinkapen-
-otoitza

Oi Jainko,
damutzen dana errukiz hartzen dozu
eta bihotz-barritzen dana Zeugaz adiskidetzen;
entzun aita-bihotzez zeure herriaren otoitza
eta isuri bedeinkazinoaren ✠ grazia
errautsa hartuko daben zeure seme-alabon gainera,
Garizumako bidea arretaz egin
eta gogo-bihotzak erabarriturik,
zure Semearen pazko-misterioa ospatzera heldu daitezan.
Errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.
℟. Amen.

Edo:

Oi Jainko,
ez dozu pekatarien heriotzea nahi,
bihotz-barritzea baino;
entzun bihotz onez gure otoitzak,
eta bedeinkatu ✠ egizu buruan ezarriko deuskuen errauts hau;
badakigu hauts garana eta hauts bihurtuko;
emoiguzu, Garizumako egintzen bidez, pekatuen parkamena,
zure Seme biztuaren antzeko biziera barria lortu daigun.
Errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.
℟. Amen.

Eta ur bedeinkatuz txipriztinduko ditu errautsak, ezer esan barik. Gero abadeak errautsa ezarriko deutse ospakizunera batu diranei, bakotxari esanez:

Bihotz-barritu zaiteze eta sinistu Barri Ona.

Edo:

Gogoratu zaitez hautsa zarala eta hauts bihurtuko.

Bien bitartean abestu egingo da:

1. antifona

Jantzi gaitezan hautsez eta zurdatzez; egin daigun barau eta negar Jaunaren aurrean, bihozbera eta errukitsua da-eta gure Jainkoa gure pekatuak parkatzeko.

2. antifona Negar egin begie atari eta altara bitartean abadeek, Jaunaren zerbitzariek. Esan begie: parkatu, Jauna, parkatu zeure herriari; ez itxiazo, Jauna, Zuri abesten deutsuenei ahoa. Ik. Jl 2, 17; Est 4, 17

3. antifona Ezereztu egizu, Jauna, nire hobena. Sal 51 [50], 3

Antifona hau errepikatu daiteke Erruki nitaz, ene Jainko, 51. [50] salmoaren txatal bakotxaren ondoren.

Galderantzuna

℟. Bihurtu gaitezan bide onera ezjakintasunez pekatu egin dogunok, heriotzako ordua ezustean datorkigula, penitentzia egiteko denpora gura eta asti barik gelditu ez gaitezan. * Entzun, Jauna, eta errukitu zaitez, pekatu egin dogu-eta zure aurka.
℣. Lagundu eiguzu, gure Jainko salbatzaile horrek, eta libratu gaizuz zeure izenari ohore eginez. * Entzun, Jauna.
Ik. Ba 3, 2; Sal 79 [78], 9

Beste kantu egokiren bat be abestu daiteke.

Errautsa ezartzea amaitutakoan, eskuak garbituko ditu abadeak; gero Jainkoaren herriaren otoitza egin eta Mezea ospatzen jarraituko dau, ohi danez.

Sinisten dot ez da esango.

Eukaristiaren liturgia

Oparigaien gainekoa

Garizumari hasiera ospez emotean,
sakrifizio hau eskeintzen deutsugu, Jauna,
eta otoitz egiten:
gure penitentziek eta maitasunezko egintzek
lagundu deiguela geure buruaren jaube izaten,
geure pekatuetatik garbiturik
zure Semearen nekaldia bihotzez ospatu daigun.
Errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Prefazioa: Garizumako III.a nahiz IV.a, 482-484. or.

Jaunartze-ant. Jaunaren legea gau eta egun hausnartzen dauanak emoten dau bere sasoian frutua. Ik. Sal 1, 2-3

Jaunartze ondorengoa

Hartu dogun sakramentuak, Jauna,
eragin deigula Zuk atsegin dozun
eta guretzat osasungarri dan baraua egitera.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Agurra egitekoan, abadeak, herriari begira eta eskuak haren gainera zabaldurik, otoitz hau esango dau:

Herriaren gaineko otoitza

Oi Jainko, emon bihotz onez damu-espiritua
zure aurrean apalik makurtzen diran zure seme-alabei,
damutuei Zuk agindutako saria
zeure errukiari esker lortu daigun.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Hauts-egun ondorengo eguena

Sarrera-ant.

Jaunari deika niharduan, eta entzun eban harek nire ahotsa, asko dira-eta inguratzen nabenak. Jarri zaitez Jaunaren eskuetan, eta harek deutsu eutsiko. Ik. Sal 55 [54], 17-20.23

Otoitza

Jauna,
izan daigula zure grazia eragile eta lagun geure egintzetan;
gure jarduerak Zeu izan zagizan iturri eta Zeu helburu.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa

Begitu bihotz onez, Jauna,
altarara ekarri dogun eskeintzari;
guretzat parkamen-iturri izanez,
Zuretzat gorespen bihurtu dadin.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Prefazioa: Garizumakoa, 478-485. or.

Jaunartze-ant.

Ene Jainko, sortu bihotz garbia nigan, barritu arnasa sendoa nire barruan. Sal 51 [50], 12

Jaunartze ondorengoa

Jainko ahalguztiduna, zure dohaiaren bedeinkazinoa harturik
apalik eskatzen deutsugu:
Eukaristia hau izan dadila guretzat beti
parkamen- eta salbazino-iturri.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Nahi bada erabiltzekoa

Herriaren gaineko otoitza

Jainko ahalguztiduna,
betiko biziaren bideak erakutsi deutsazuz zeure herriari;
eroan egizu bide horreetatik,
Zugan, amatatzerik ez dauan argi-iturri horrengan,
bizi barriaren argia lortu dagian.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Hauts-egun ondorengo barikua

Sarrera-ant. Entzun, Jauna, eta erruki nitaz, izan zakidaz laguntzaile, Jauna.
Sal 30 [29], 11

Otoitza

Lagundu deigula zure onginahiak, Jauna,
hasi dogun penitentzialdi honetan,
gorputzez egiten dogunak
gure barru-jarreraren erabarritzea ekarri deigun.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa

Jauna, hartu egizu Garizumako gure jardueraren sakrifizioa;
gure asmoak zuretzat onargarri egin dagiala
eta bihotz-barritzera eroan gaizala.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Prefazioa: Garizumakoa, 478-485. or.

Jaunartze-ant. Azaldu niri, Jauna, zeure bideak, erakutsi zeure bidezidorrak.
Sal 25 [24], 4

Jaunartze ondorengoa

Jainko ahalguztiduna,
sakramentu honetan esku hartzeak
garbitu gaizala pekatu guztietatik
eta egin gaizala zure errukiaren osagaiak hartzeko gai.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Nahi bada erabiltzekoa

Herriaren gaineko otoitza

Jainko errukitsua, esker oneko izan dadila beti zure herria
zure egintza harrigarriakaitik,
eta bere erromesaldian
itun zaharreko zure irakaspenak hausnartuz,
lortu dagiala Zu beti ikustea.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Hauts-egun ondorengo zapatua

Sarrera-ant. Erantzun guri, Jauna, samurra da-eta zure maitasuna, bihurtu gugana begiak zeure erruki handiaz, Jauna. Ik. Sal 69 [68], 17

Otoitza

Jainko ahalguztidun betikoa,
begitu errukiz gure makaltasunari
eta luzatu zeure beso indartsua gu babesteko.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa

Onartu, Jauna eskeintzen dihardugun
bake- eta gorespen-sakrifizio hau;
garbitu eta barritu gaizala,
gure bizitza osoa Zuretzat opari atsegingarri izan dadin.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Prefazioa: Garizumakoa, 478-485. or.

Jaunartze-ant. Nahiago dot errukia sakrifizioak baino, dino Jaunak. Ez naz zintzoei dei egitera etorri, pekatariei baino. Mt 9, 13

Jaunartze ondorengoa

Bizia emoten dauan ogiaz janariturik,
arren eskatzen deutsugu, Jauna,
bizitza honetan sakramentuz ospatzen doguna
betiko bizitzarako salbazino izan dakigula.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Nahi bada erabiltzekoa

Herriaren gaineko otoitza

Jauna, izan zaitez bihotz oneko
misterio santu honeetan esku hartu dauan zeure herriagaz,
eta egizu, bere uste ona zure babesean jarrita dauan ezkero,
ez dadila galdu ezelako arriskutan.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

GARIZUMAKO I. DOMEKA

Domeka honetan egingo da, Pazko Gaubelan kristau-sarbideko sakramentuak hartzera onartuak izango diran «Kristaugaiak aukeratzeko» edo horreen «izenak hartzeko» ohikunea; horretarako otoitz eta eskari bereziak erabiliko dira; ik. geroago 1009. or.

Sarrera-ant. Dei egingo deust, eta Nik erantzungo; libratuko dot eta ospez jantziko; bizitza luzea eta betea emongo deutsat.

Ik. Sal 91 [90], 15-16

Aintza zeruetan ez da esango.

Otoitza

Jainko ahalguztiduna,
egizu, Garizumako urteroko jarduerak eroan gaizala
Kristoren misterioa hobeto ezagutzera
eta berari dagokion eran bizitzera.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Sinisten dot esango da.

Oparigaien gainekoa

Jauna, opari honekin hasten gara
pazko-misterioa ospatzeko prestatzen;
egizu, gure jarrera izan dadila
eskeintza honek eskatzen dauanaren araberakoa.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Prefazioa JAUNAREN TENTALDIAK

℣. Jauna zuekin.
℟. Eta zure espirituarekin.

℣. Gora bihotzak.
℟. Jaunagan daukaguz.

℣. Eskerrak Jaungoiko gure Jaunari.
℟. Egoki da eta zuzen.

Egoki da, bai, eta zuzen,
bidezko eta salbagarri,
nonahi eta beti guk Zuri eskerrak emotea,
Jauna, Aita guztiz santu,
Jainko ahalguztidun betiko horri,
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Berak, berrogei eguneko baraua eginez,
hasiera emon eutson-eta Garizumako gure barauari;
eta, tentatzailearen maltzurkeriak baztertuz,
pekaturako gure jokera zelan menperatu erakutsi euskun,
pazko-misterioa bihotz garbiz ospatu daigun
eta betiko Pazkora heldu gaitezan.

Horregaitik, aingeru eta santu guztiekin batera,
beti eta beti [esaten] abesten deutsugu gorazarre hau:

Santu, Santu, Santua,
diran guztien Jainko Jauna.
Zeru-lurrak beterik daukaz zure distirak.
Hosanna zeru-goienetan!
Bedeinkatua Jaunaren izenean datorrena.
Hosanna zeru-goienetan!





Jaunartze-ant. Gizakia ez da ogiz bakarrik bizi, Jainkoaren ahotik urteten dauan hitz guztitik baino. Mt 4, 4

Edo:

Bere lumapean kerizpetuko zaitu Jaunak, haren hegopean izango dozu babesleku. Sal 91 [90], 4

Jaunartze ondorengoa

Hartu dogun ogi santu honek, Jauna,
sinismena bizkortzen deusku,
itxaropena sendotzen eta maitasuna indartzen;
egizu, ikasi daigula egiazko ogi bizia dan Jesusen gose izaten
eta zure ahotik urteten daben hitzetan bizia aurkitzen.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Herriaren gaineko otoitza

Etorri bedi, Jauna, ugari zure bedeinkazinoa
zure herriaren gainera;
emoiozu estualdietan itxaropen handiagoa,
tentaldian indar sendoagoa eta betiko salbazinoa.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Garizumako I. astelehena

Sarrera-ant.

Zelan morroien begiak nagusien eskuetara, halan dagoz gure begiak Jaunagana, gure Jainkoagana, gutaz errukitu dadin arte. Erruki gutaz, Jauna, erruki! Sal 123 [122], 2-3

Otoitza

Jainko gure Salbatzailea, bihurtu gaizuz Zeugana
eta irakatsi guri zeruko jakituria,
Garizumako jarduerak gugan frutu on ugari emon dagian.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa

Onartu, Jauna, zeure zerbitzarion eskeintza;
zure eragitez, santu egin dagiala gure bizitza
eta lortu deigula zure bihotz onaren errukia.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Prefazioa: Garizumakoa, 478-485. or.

Jaunartze-ant.

Benetan dinotsuet: nire seniderik txikien honeetako bati egin zeuntsoena neuri egin zeunsten, dino Jaunak. Zatoze, nire Aitaren bedeinkatuok; hartu egizue munduaren sortzetik zuentzat prestaturik dagoan erreinua. Mt 25, 40.34

Jaunartze ondorengoa

Aurkitu daigula, Jauna, sakramentu honetan
geure gorputz-arimentzat laguntza,
bietan erabarriturik,
betiko biziaren betea gozatu daigun.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Nahi bada erabiltzekoa

Herriaren gaineko otoitza

Argitu egizuz, Jauna, zeure argiaren distiraz
zeure herriaren gogo-bihotzak,
zer egin ikusi dagian eta zuzen dana egiteko gai izan dadin.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Garizumako I. martitzena

Sarrera-ant. Jauna, Zeu izan zaitugu gordeleku gizaldiz gizaldi, Jainko zara-eta Zu betidanik eta betiko. Ik. Sal 90 [89], 1-2

Otoitza

Begira, Jauna, zeure familia honi,
eta emoiguzu, neurritsu izateko gorputza heziz,
zure bila ibiltzeko gogo biziagoa.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa

Jainko ahalguztiduna, gauza guztien egilea,
onartu egizuz zeure esku zabaletik harturik
ekarri doguzan eskeintzak,
eta egizu,
bizitza honetarako emon deuskuzuzan ogi-ardao honeek
baliagarri izan daiguzala betiko bizirako.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Prefazioa: Garizumakoa, 478-485. or.

Jaunartze-ant. Deitzen deutsudanean, erantzun, Jainko, ene defendatzaile. Estualdian emoidazu nasaitasun. Erruki zakidaz, Jauna, eta entzun nire otoitza. Sal 4, 2

Jaunartze ondorengoa

Sakramentu honek emon deigula, Jauna,
lurreko gauzetarako grina hezitzeko indarra,
zeruko ondasunak maiteago izan daiguzan.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Nahi bada erabiltzekoa

Herriaren gaineko otoitza

Oi Jainko, emoiezu zeure fededunei
zeure bedeinkazinoaren indarra;
izan zakiez nahigabean kontsolamentu,
estualdian kemen, arriskuan babes.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Garizumako I. eguaztena

Sarrera-ant. Izan gogoan, Jauna, zeure errukia eta maitasuna, betidanikoak direta; ez daitezala arerioak nire lepotik poztu; Israelen Jainko, askatu gaizuz geure estualdi guztietatik. Ik. Sal 25 [24], 6.2.22

Otoitza

Begira, Jauna, begi onez
zure zerbitzari izan nahi dauan herri honi;
emoiguzu, gorputza penitentziaz hezitzen dogunoi,
gogo-bihotzak egintza onen bidez barritzeko laguntza.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa

Jauna,
Zuk emondako dohaiak ekarri doguz Zuri eskeintzeko;
ogi-ardao honeek salbazinoaren sakramentu
egiten dozuzan ezkero,
egizu, izan daitezala guretzat betiko biziaren iturri.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Prefazioa: Garizumakoa, 478-485. or.

Jaunartze-ant. Alaituko dira, Jauna, Zugan babesten diranak, pozez oihu egingo dabe eten barik, Zuk zainduko dozuz-eta. Ik. Sal 5, 12

Jaunartze ondorengoa

Oi Jainko,
zeure hitzez eta sakramentuez gu janaritzen diharduzu beti;
egizu, hartu dogun janari honek emon deigula betiko bizia.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Nahi bada erabiltzekoa

Herriaren gaineko otoitza

Zaindu, Jauna, zeure herria
eta garbitu, bihotz errukitsuz, pekatu guztietatik,
ez daualako ezelako ezbeharrik izango,
ezelako gaiztakeriaren menpe ez badago.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Garizumako I. eguena

Sarrera-ant. Entzun, Jauna, nire hitzok, egin jaramon nire aieneari. Zagoz adi nire deadarrera, ene Errege, ene Jainko. Sal 5, 2-3

Otoitza

Emoiguzu, Jauna, zuzen dana hausnartzeko
eta egiteko grazia;
egizu, Zu barik ezin bizi garanok
bizi gaitezala Zeuk nahi dozun lez.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa

Jauna, entzun bihotz onez zeure herriaren eskariak;
onartu beronen otoitzak eta eskeintzak
eta bihurtu Zeugana gure bihotza.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Prefazioa: Garizumakoa, 478-485. or.

Jaunartze-ant. Eskatzen dauanak hartu egiten dau, bilatzen dauanak aurkitzen, eta atea jotzen dauanari zabaldu egiten jako. Mt 7, 8

Jaunartze ondorengoa

Jainko gure Jauna, salbazinoko bidean
indargarri emon deuskuzuz misterio santu honeek;
izan bekiguz laguntza, bai bizitza honetarako bai betikorako.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Nahi bada erabiltzekoa

Herriaren gaineko otoitza

Betorkigu, Jauna,
gure eskariakaitik itxaroten dogun zure errukia,
eta emoiguzuz esku zabalez zeruko dohaiak,
zuzen dana eskatzen jakinez, eskatutakoa eskuratu daigun.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Garizumako I. barikua

Sarrera-ant. Atara nagizu estutasun honeetatik, Jauna. Ikusi nire atsekabea eta nekea, eta parkatu nire pekatu guztiak. Sal 25 [24], 17-18

Otoitza

Jauna, Garizumako penitentzialdiak
prestatu daizala zure fededunak pazko-jaiak ospatzeko;
egizu, alkarregaz dihardugun gorputz-heziketa honek
eroan gaizala guztiok barru-barritzera.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa

Onartu, Jauna, eskeintza hau;
honen bidez zeure adiskidetasuna agertu nahi izan dozu
eta zeure erruki indartsuaz gu salbatu.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Prefazioa: Garizumakoa, 478-485. or.

Jaunartze-ant. Ala Ni!, dino Jaunak, Nik ez dot atsegin gaiztoa hiltzea, jokabidez aldatu eta bizitzea baino. Ez 33, 11

Jaunartze ondorengoa

Sakramentu santua hartzeak indarbarritu gaizala, Jauna,
antxinako pekatutik garbiturik,
salbazinoko ondasunak lortu daiguzan.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Nahi bada erabiltzekoa

Herriaren gaineko otoitza

Begira, Jauna, bihotz onez zeure herriari,
eta egizu, agiriko jardueran adierazoten dauana
barruan ere jazo dakiola.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Garizumako I. zapatua

Sarrera-ant.

Jaunaren legea bikain, bihotz-barritu egiten dau; Jaunaren agindua fidagarri, heldubakoa zuhur egiten dau. Ik. Sal 19 [18], 8

Otoitza

Aita betikoa,
bihurtu egizu Zeugana gure bihotza,
eta egizu, ibili gaitezala beti zure bila,
beharrezko bakarra zaran horren bila,
eta alkar benetan maitatuz bizi gaitezala zure zerbitzuan.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa

Jauna, misterio santu honek garbitu gaizala pekatutik
eta gai egin beraren frutuak hartzeko.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Prefazioa: Garizumakoa, 478-485. or.

Jaunartze-ant.

Izan zaiteze guztiz onak, zeruko zuen Aita guztiz ona dan lez, dino Jaunak. Mt 5, 48

Jaunartze ondorengoa

Agertu zaitez beti, Jauna,
zeure Eukaristiaz barritzen dozuzanen aldeko;
eta zeure berbaz argitu dozuzanei
emon zeure laguntza salbagarria.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Nahi bada erabiltzekoa

Herriaren gaineko otoitza

Oi Jainko, sendotu egizuz zeure fededunak
eskatzen deutsuen bedeinkazinoaz,
zure nahia egitetik ez daitezan behin ere aldendu
eta Zuk egindako mesedeakaitik
eskerrak emon deizuezan.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

GARIZUMAKO II. DOMEKA

Sarrera-ant. Bihotzak esaten deust: Bilatu egizu Jaunaren aurpegia. Zeure aurpegi bila nabil, Jauna, ez ezkutatu niri zeure aurpegia.
Sal 27 [26], 8-9

Edo:

Izan gogoan, Jauna, zeure errukia eta maitasuna, betidanikoak direeta; ez daitezala arerioak nire lepotik poztu; Israelen Jainko, askatu gaizuz geure estualdi guztietatik. Ik. Sal 25 [24], 6.2.22

Aintza zeruetan ez da esango.

Otoitza Oi Jainko, zeure Seme maiteari entzuteko esaten deuskuzu;
emoiozu gure espirituari zeure berbearen janaria,
gure barru-begiak argiturik, zure aintza pozez ikusi daigun.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Sinisten dot esango da.

Oparigaien gainekoa Jauna, eskeintza honek garbitu gaizala geure pekatutik
eta santu egin daizala zure fededunen gorputz-arimak,
pazko-jaiak ospatzeko gai izan daitezan.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Prefazioa JAUNAREN ANTZALDATZEA

℣. Jauna zuekin.
℟. Eta zure espirituarekin.

℣. Gora bihotzak.
℟. Jaunagan daukaguz.

℣. Eskerrak Jaungoiko gure Jaunari.
℟. Egoki da eta zuzen.

Egoki da, bai, eta zuzen,
bidezko eta salbagarri,
nonahi eta beti guk Zuri eskerrak emotea,
Jauna, Aita guztiz santu,
Jainko ahalguztidun betiko horri,
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Ikasleei bere heriotzea aldez aurretik iragarri ondoren,
bere distira agertu eutsen mendi santuan,
garbi jakin egien,
Legea eta Profetak ere autorle izanik,
nekaldiaren bidez sartu behar ebala biztueran.

Horregaitik, zeruko indar guztiekin,
lurrean beti eta beti goresten zaitugu,
Zuri, Jainko guztiz handi horri,
eten barik [esanez] kantatuz:

Santu, Santu, Santua,
diran guztien Jainko Jauna.
Zeru-lurrak beterik daukaz zure distirak.
Hosanna zeru-goienetan!
Bedeinkatua Jaunaren izenean datorrena.
Hosanna zeru-goienetan!





Jaunartze-ant. Hauxe da nire Seme maitea, berau dot atsegin. Entzuiozue.
Mt 17, 5

Jaunartze ondorengoa

Misterio aintzagarriak hartu doguzanok
eskerrak emoten deutsuguz, Jauna,
lur honetan gagozala ere
zeruko ondasunen jaube egin gaituzulako.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Herriaren gaineko otoitza

Bedeinkatu, Jauna, eten barik zeure fededunak
betiko bedeinkazinoz,
eta egizu,
zure Seme bakarraren Ebanjelioari loturik bizi daitezala,
harek Apostoluei erakutsi eutsen aintza
gogo biziz bilatu eta zoriontsu eskuratu dagien.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Garizumako II. astelehena

Sarrera-ant.

Askatu nagizu, Jauna, erruki zakidaz! Sendo ditut oinak zuzenta-sun-bidean, bedeinkatuko dot Jauna batzarrean. Sal 26 [25], 11-12

Otoitza

Oi Jainko, gure arimen onerako,
gorputzaren heziketa agintzen deuskuzu;
lagundu eiguzu pekatutik iges egiten
eta Zuk maitasunez agindua bihotzez betetzen.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa

Entzun, Jauna, bihotz onez gure otoitzak,
eta atara egizuz lur honetako liluretatik
zeure erreinuko misterioen zerbitzari egin dozuzanak.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Prefazioa: Garizumakoa, 478-485. or.

Jaunartze-ant.

Izan zaiteze errukiorrak, zuen Aita errukiorra dan lez, dino Jaunak. Lk 6, 36

Jaunartze ondorengoa

Jaunartze honek garbitu gaizala, Jauna, pekatutik
eta zeruko zorionean partaide egin.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Nahi bada erabiltzekoa

Herriaren gaineko otoitza

Sendotu, Jauna, zeure fededunen bihotza
eta indartu zeure graziaz,
otoitzean zintzo iraun dagien
eta alkarrenganako maitasunean leial.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Garizumako II. martitzena

Sarrera-ant.

Argitu nire begiok, ez nagian heriotza-loak hartu, ez dagian arerioak esan: Garaitu dot. Sal 13 [12], 4-5

Otoitza

Jauna, zaindu egizu beti zeure Eleizea;
eta, giza makaltasunagaitik ezin dauanez Zu barik iraun,
atara egizu arriskuetatik eta eroan salbazino-bidetik.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa

Misterio honen bidez egin gaizuz santu, Jauna,
zeure bihotz onez;
garbitu gaizuz lurreko txarkerietatik
eta eroan zeruko ondasunetara.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Prefazioa: Garizumakoa, 478-485. or.

Jaunartze-ant.

Zure egintza ospetsuak ditut iragarriko, zure ohorez poztu eta jai egingo, zure izena, Goi-goiko, kantuz ospatuko. Sal 9, 2-3

Jaunartze ondorengoa

Mahai santuan parte hartzeak, Jauna,
eroan gaizala santuago izatera
eta ekarri deigula eten barik zure errukiaren laguntza.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Nahi bada erabiltzekoa

Herriaren gaineko otoitza

Entzun bihotz onez, Jauna, zeure fededunen eskariak,
eta osatu egizuz euren arimako makaltasunak,
zure parkamena eskuraturik,
zure bedeinkazinoaz poztu daitezan beti.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Garizumako II. eguaztena

Sarrera-ant. Jauna, ez itzi ni eskutik, ene Jainko, ez gelditu urrun. Zatoz laster ni laguntzera, ene Jauna, ene salbatzailea! Sal 38 [37], 22-23

Otoitza

Eragiozu, Jauna, zeure familiari
egintza onak egiten jarraitu dagian beti;
eta, lurreko gauzetan zure laguntza izanik,
ibili dadila gogo biziagoz betikoen bila.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa

Hartu bihotz onez, Jauna, gure eskeintza hau
eta, hartuemon santu honen bidez,
askatu gaizuz geure pekatuen lokarrietatik.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Prefazioa: Garizumakoa, 478-485. or.

Jaunartze-ant. Gizonaren Semea ez da etorri zerbidua izatera, zerbitzari izatera baino, eta bere bizia guztien ordainsari emotera. Mt 20, 28

Jaunartze ondorengoa

Jainko gure Jauna,
hilezkortasun- seinaletzat emon deuskuzun sakramentu hau
izan dakigula betiko salbazino-iturri.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Nahi bada erabiltzekoa

Herriaren gaineko otoitza

Emon oparo, Jauna, zeure zerbitzariei grazia eta laguntza,
emon gorputz-arimen osasuna
eta senidearteko maitasun betea,
eta gorde egizuz beti Zeuganako zaletasunean.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Garizumako II. eguena

Sarrera-ant. Oi Jainko, probatu nagizu eta ezagutu nire kezkak; ikusi galbidetik ete nabilen, eta gidatu ni betiko bidetik. Ik. Sal 139 [138], 23-24

Otoitza

Oi Jainko,
bihotz garbia maite dozu eta erruduna errubako egiten;
zuzendu Zeugana fededunen bihotza
eta berotu Espirituaren sutan,
fedean sendo iraun daigun eta egintzetan oparo.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa

Sakrifizio honen bidez, Jauna,
egizu santu Garizumako gure jarduera,
agiriko egintzek barruz barritzera eragin deiguen.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Prefazioa: Garizumakoa, 478-485. or.

Jaunartze-ant. Zorionekoak jokabide akasbakoa dabenak, Jaunaren lege-bidean dabiltzanak. Sal 119 [118], 1

Jaunartze ondorengoa

Oi Jainko, sakrifizio honen ondorioak iraun dagiala gugan
eta agertu dadila gure egintzetan.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Nahi bada erabiltzekoa

Herriaren gaineko otoitza

Begira, Jauna, bihotz onez,
zure graziaren laguntza eske gatortzuzan zerbitzarioi,
Zeu izan zaiguzan babes eta gidari.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Garizumako II. barikua

Sarrera-ant. Zugan babesten naz, Jauna, ez nadila behin ere lotsagarri geratu; atara nagizu jarri deusten saretik, Zeu zaitut-eta gordeleku.
Sal 31 [30], 2.5

Otoitza

Jainko ahalguztiduna, ahalegindu gaitezala
garbi bihurtzen gaituan Garizumako penitentzialdia egiten,
pazko-jai santuetara bihotz-barriturik heldu gaitezan.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa

Oi Jainko, zure errukiak prestatu dagizala zure zerbitzariak
misterio honeek ospatzeko
eta lagundu deiela beti zure zerbitzuan bizitzen.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Prefazioa: Garizumakoa, 478-485. or.

Jaunartze-ant. Jainkoak gu maite izan gaitu, eta bere Semea gure pekatuen parkamen-oparitzat bialdu deusku.
Ik. 1 Jn 4, 10

Jaunartze ondorengoa

Betiko salbazinoaren agiria harturik,
arren eskatzen deutsugu, Jauna,
egin daigula leial aurrera,
salbazino horretara heldu gaitezan.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Nahi bada erabiltzekoa

Herriaren gaineko otoitza

Emon, Jauna, zeure herriari
gorputz-arimen osasuna,
egintza onen bidetik ibiliz
zure babesa eta laguntza izan dagizan beti.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Garizumako II. zapatua

Sarrera-ant. Errukiorra eta bihozbera da Jauna, hasarregatxa eta onginahiz betea. Ona da Jauna guztientzat, errukiz betea bere sorkari guztientzat.
Sal 145 [144], 8-9

Otoitza

Oi Jainko, zeure graziaren bidez osatu egin gozuz
eta, lur honetan gagozala, zeruko ondasunen jaube egin;
zuzendu egizu eguneroko gure bizitza
eta eroan Zu zagozan argi horretara.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa

Sakramentu honen bidez emoiguzu, Jauna,
geure erospenaren frutua,
bizitzako bide oker guztiak bazterturik
salbazinoaren ondasunetara eroan gaizan.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Prefazioa: Garizumakoa, 478-485. or.

Jaunartze-ant. Egoki da zu poztea, zure anaia hau hilda egoan eta barriro bizi da-eta, galduta egoan eta aurkitu egin dogu.
Ik. Lk 15, 32

Jaunartze ondorengoa

Hartu dogun sakramentua sartu dadila, Jauna,
gure bihotz barruraino,
eta emon deigula bere indarra.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Nahi bada erabiltzekoa

Herriaren gaineko otoitza

Zabaldu egizu, Jauna, zeure bihotz errukitsua
eta entzun gure eskariak;
egizu, Zuri atsegin jatzuna eskatu daigula,
guk eskatua Zuk emon deiguzun.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

GARIZUMAKO III. DOMEKA

Domeka honetan egingo da, Pazko Gaubelan kristau-sarbideko sakramentuak hartzera onartuak izango diran kristaugaien gaitasunaren lehenengo azterketa; horretarako otoitz eta eskari bereziak erabiliko dira; ik. geroago 1010. or.

Sarrera-ant. Nik begiak Jaunagan ditut beti, harek libratzen deustaz-eta oinak saretik. Begitu niri eta erruki zakidaz, bakarrik nago, eta errukarri. Sal 25 [24], 15-16

Edota:

Zuen bidez hareen aurrean santu agertuko nazanean, nazinoen artetik hartuko zaituet; ur garbiz txipriztindu eta zeuen kutsadura guztietatik garbituko zaituet, eta barruan espiritu barria ezarriko deutsuet. Ik. Ez 36, 23-26

Aintza zeruetan ez da esango.

Otoitza

Jainko errukitsua, on guztien iturria,
baraua, otoitza eta erruki-egintzak
ipini deuskuzuz geure pekatuen osabide;
begira bihotz onez geure makaltasuna autortzen dogunoi
eta bizkortu gaizuz zeure erruki handiaz
pekatuaren zamapean aurkitzen garanok.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Sinisten dot esango da.

Oparigaien gainekoa

Jaun errukitsua, sakrifizio honek lortu deigula,
zure parkamena eskatzen diharduguno,
geure senideei parkatzen jakiteko grazia.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Aldarrikatu dan Ebanjelio-zatia emakume samariarrari buruzkoa izan ez bada, Garizumako I. nahiz II. prefazioa esango da, 478-480. or.

Prefazioa EMAKUME SAMARIARRA

℣. Jauna zuekin.
℟. Eta zure espirituarekin.

℣. Gora bihotzak.
℟. Jaunagan daukaguz.

℣. Eskerrak Jaungoiko gure Jaunari.
℟. Egoki da eta zuzen.

Egoki da, bai, eta zuzen,
bidezko eta salbagarri,
nonahi eta beti guk Zuri eskerrak emotea,
Jauna, Aita guztiz santu,
Jainko ahalguztidun betiko horri,
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Berak, emakume samariarrari edateko ura eskatu eutsonerako,
sortuta eban harengan sinismenaren dohaia.
Eta, hain egarri handiz gura ebanez Jaunak
emakume harek sinistea,
Jainkoaren maitasunaren sua biztu eutson bihotzean.

Horregaitik, geuk ere eskerrak emoten deutsuguz
eta zure aintza goresten dogu
aingeruekin batean [esanez] kantatuz:

Santu, Santu, Santua, ...




Egoki da, bai, eta zuzen, bidezko eta sal-ba-ga-rri, no-na-hi eta
beti guk Zuri eskerrak e - mo-te-a, Jauna, Aita guz-tiz san-tu,
Jainko ahalguztidun betiko ho-rri, Jesu Kristo gure Jau-na-ren
bi-tar-tez. Be-rak, emakume samariarrari edateko ura eskatu eutso-ne-
ra - ko, sortua e-ban harengan sinismenaren do-hai-a. Eta, hain
egarri handiz gura ebanez Jaunak emakume harek si - nis -
te - a, Jainkoaren maitasunaren sua biz-tu eu-tson bi-ho-tze-an.
Horregai-tik, geuk ere eskerrak emoten deu-tsu-guz eta zure aintza
go - res - ten do-gu aingeruekin ba - te - ra kan-ta - tuz:

Emakume samariarrari buruzko Ebanjelio-zatia iragarri bada:

Jaunartze-ant. Nik emongo deutsadan uretik edaten dauana, dino Jaunak, ur hori betiko bizia darion iturburu bihurtuko da harengan. Ik. Jn 4, 14

Beste Ebanjelio-zatiren bat iragarri bada:

Txoriak aurkitu dau etxea, baita elaiak ere kumeentzat habia: zure altarak, Jaun ahalguztiduna, ene Erregea eta ene Jainkoa! Zorionekoak zure etxean bizi diranak eten barik Zu goresten!

Sal 84 [83], 4-5

Jaunartze ondorengoa

Betiko salbazinoaren agiria da, Jauna,
lur honetan daborduko
hartu dogun zerutar ogia;
egizu, orain sakramentuz ospatu doguna
egintzetan bete daigula.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Herriaren gaineko otoitza

Gidatu egizu, Jauna, zeure fededunon bihotza
eta emon errukitsu zeure zerbitzarioi grazia hau:
Zuganako eta lagun hurkoaganako maitasunean iraunez,
zure aginduak oso-osorik betetzea.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Garizumako III. astelehena

Sarrera-ant. Nekatzen doakit barrua, Jaunaren tenpluko atarien gogo biziz. Nire bihotzak eta gorputzak poz-oihu dagioe Jainko biziari.

Sal 84 [83], 3

Otoitza

Jauna, garbitu egizu zeure Eleizea
eta zaindu eten barik zeure errukiz;
eta Zu barik ezin dauanez sendo iraun,
zure laguntzak gidatu dagiala beti.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa

Jauna, Zu goresteko eskeintzen deutsugun opari hau
egizu guretzat salbazinoaren sakramentu.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Prefazioa: Garizumakoa, 478-485. or.

Jaunartze-ant.

Goratu egizue Jauna, nazino guztiok, sendoa da-eta guretzat haren maitasuna. Sal 117 [116], 1.2

Jaunartze ondorengoa

Sakramentu honetan parte hartzeak garbitu gaizala, Jauna,
eta emon deigula batasuna.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Nahi bada erabiltzekoa

Herriaren gaineko otoitza

Zaindu egizu, Jauna, zeure esku indartsuaz
eske datorkizun zeure herria;
garbitu egizu eta zuzendu,
bizitza honetako gorabeheretan Zeuk lagundurik,
betiko ondasunak bilatu dagizan.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Garizumako III. martitzena

Sarrera-ant.

Deika naukazu, Jainko, erantzuten deustazu-eta; bihurtu nigana belarria, entzun nire berbea. Zaindu nagizu begi-ninia bezala, Jauna, gorde ni zeure hegoen kerizpetan. Sal 17 [16], 6.8

Otoitza

Zure graziak, Jauna, ez gaizala inoiz be itzi,
egin gaizala zure zerbitzari zintzo
eta emon deigula beti zure laguntza.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa

Jauna, opari salbagarri honek
garbitu gaizala geure pekatutik
eta emon deigula zure indar salbatzailea.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Prefazioa: Garizumakoa, 478-485. or.

Jaunartze-ant. Jauna, nor egon daiteke zure etxean? Nor bizi zure mendi santuan?
Akats barik eta zuzen jokatzen dauana. Sal 15 [14], 1-2

Jaunartze ondorengoa

Jauna, hartu dogun sakramentu honek bizibarritu gaizala,
eta emon deigula, aldi berean,
pekatuen parkamena eta zure laguntza.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Nahi bada erabiltzekoa

Herriaren gaineko otoitza

Oi Jainko, Zeuk eratzen eta gidatzen dozu zeure herria;
kendu egiozu pekatuaren eragina,
Zuri gogoko jatzuna beti eginez
bakean bizi dadin zure babespean.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Garizumako III. eguaztena

Sarrera-ant. Sendotu egizuz nire pausuak zeure irakaspenaz, ez nagiala ezelako
gaiztakeriak menperatu. Sal 119 [118], 133

Otoitza

Jauna, Garizumako ekinaldiaz
hezitzen gozuz eta zeure hitzaz janaritzen;
egizu, neurritsu izanez, Zu bihotz-bihotzez zerbidu zaiguzala
eta otoitzean beti bat eginik iraun daigula.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Oparigaien gainekoa

Onartu, Jauna, eskeintza honekin batera
zeure herriaren otoitzak;
eta zaindu gaizuz jauspide guztietatik
zure misterioak ospatzen doguzanok.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Prefazioa: Garizumakoa, 478-485. or.

Jaunartze-ant. Bizirako bidea erakutsiko deustazu; alaitasunez beteko nozu, Jauna, zeure aurrean. Sal 16 [15], 11

Jaunartze ondorengoa

Zeruko mahaian hartu dogun janariak
egin gaizala santu, Jauna,
hutsegite guztietatik garbiturik,
Zuk agindutako ondasunak lortzeko gai izan gaitezan.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Nahi bada erabiltzekoa

Herriaren gaineko otoitza

Gure Jainko, emoiozu zeure herriari
Zuri atsegin jatzuna nahi izatea,
eta Garizumako jarduerak gai egin dagiala,
onerako dauan guztia Zugandik hartzeko.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Garizumako III. eguena

Sarrera-ant. Neu naz herriaren salbazinoa, dino Jaunak; edozein estualditan dei egiten badeuste, entzungo deutset, eta euren Jainko izango nabe betiko.

Otoitza

Gure salbazinoaren jaia hurreratzean,
apalik eskatzen deutsugu, Jaun handi horri:
prestatu gaitezala geroago eta hobeto
pazko-misterioa egoki ospatzeko.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa

Jauna, garbitu egizu zeure herria gaiztakeria-kutsu guztitik,
haren eskeintza atsegin izan dagizun;
eta, egia osoaren jaube egingo garala
agindu deuskuzun ezkero,
ez itzi guri guzurrezko atseginetan jausten.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Prefazioa: Garizumakoa, 478-485. or.

Jaunartze-ant. Legeak ezarri dituzu, Jauna, arretaz gorde daiguzan. Izan beitez sendo nire bideak, zure arauak betetzeko. Sal 119 [118], 4-5

Jaunartze ondorengoa

Indarbarritu, Jauna, eten barik zeure laguntzaz
sakramentu honetan janaritu dozuzanak;
ospakizunean ez ezik bizitzan ere
zure salbazino-egintzaren frutuak jaso dagiezan.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Nahi bada erabiltzekoa

Herriaren gaineko otoitza

Jauna, zure bihotz onari deika gagoz
uste ona zure errukian jarririk;
gu garana Zugandik hartuta dogun ezkero,
emoiguzu zeure grazia,
on dana nahi izan daigun eta nahi dogun ona egin.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Garizumako III. barikua

Sarrera-ant. Ez da, Jauna, Zu lako jainkorik, handia zara, eta mirarigilea, Zeu bakarrik Jainko. Sal 86 [85], 8.10

Otoitza

Jauna, isuri onbera zeure grazia gure bihotzera,
bizitzako bide oker guztiak alboraturik
zintzo jarraitu deiegun zure aginduei zeure laguntzaz.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa

Begira begi onez, Jauna, dakartsuguzan dohaiak:
izan beitez Zuretzat atsegingarri eta guretzat salbagarri.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Prefazioa: Garizumakoa, 478-485. or.

Jaunartze-ant. Jainkoa bihotz-bihotzez maitatzea eta lagun hurkoa nork bere burua lez maitatzea, erre-opari eta sakrifizio guztiak baino hobea da. Ik. Mk 12, 33

Jaunartze ondorengoa

Jauna, sartu bedi zure Espirituaren indarra
gure gorputz-arimetan;
orain sakramentuz hartu dogun salbazinoa
bete-betean eskuratu daigun.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Nahi bada erabiltzekoa

Herriaren gaineko otoitza

Bihotz onez begitu, Jauna,
zure erruki eske dagoan zeure herriari,
zure bihotz onean uste on daben guztiek
zabaldu dagiezan nonahi zure maitasunaren dohaiak.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Garizumako III. zapatua

Sarrera-ant. Bedeinkatu begi nire arimak Jauna, ez bedi ahaztu haren mesedeaz. Erru guztiak deutsuz parkatzen. Sal 103 [102], 2-3

Otoitza

Urtero lez Garizuma pozik ospatzean,
arren eskatzen deutsugu, Jauna,
pazko-sakramentuetan sakonago parte hartuz,
lortu daiguzala euren frutuak.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa

Oi Jainko, zure graziari zor deutsagu
bihotza garbiturik pazko-misterioetara hurreratzea;
egizu, misterio horreek handikiro ospatuz,
emon deizugula behar bezalako gorespena.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Prefazioa: Garizumakoa, 478-485. or.

Jaunartze-ant. Zergalariak, urrun gelditurik, bular joka ziharduan, esanez: Ene Jainko, erruki zakioz pekatari honi! Ik. Lk 18, 13

Jaunartze ondorengoa

Jainko errukitsua, Eukaristia emoten deuskuzu janari;
egizu, ospatu daigula begirunez
eta emon dagiala gugan beti frutua.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Nahi bada erabiltzekoa

Herriaren gaineko otoitza

Zabaldu egizu, Jauna, zerutik zeure esku indartsua
zeure fededunen gainera,
Zu bihotz guztiaz bilatu zagiezan
eta egoki eskatzen dabena lortu dagien Zugandik.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

GARIZUMAKO IV. DOMEKA

Meza honetan kolore morea nahiz errosa erabili daiteke, baita musika-tresnak be, eta altarea lorez apaindu daiteke.

Domeka honetan egingo da, Pazko Gaubelan kristau-sarbideko sakramentuak hartzera onartuak izango diran kristaugaien gaitasunaren bigarren azterketa; horretarako otoitz eta eskari bereziak erabiliko dira; ik. geroago 1012. or.

Sarrera-ant. Poztu zaiteze Jerusalemegaz, alaitu beragaz, maite dozuen guztiok! Izan orain beragaz zoriontsu, haregaitik dolu egin zenduenok! Asetzeraino edango dozue haren bular gozotik. Is 66, 10-11

Aintza zeruetan ez da esango.

Otoitza Oi Jainko, zure Hitzaren bidez,
miragarriro adiskidetu zenduzan gizon-emakumeak Zeugaz;
egizu, kristau-herria, maitasunean bero eta sinismenean alai,
prestatu daitela gero eta hurrago doguzan pazko-jaietarako.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Sinisten dot esango da.

Oparigaien gainekoa Pozik eskeintzen deutsugu, Jauna, betiko osabide dan oparia,
eta apalik eskatzen:
ospatu daigula begirunez eta eskeini
munduaren salbazinorako.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Aldarrikatu dan Ebanjelio-zatia itsu jaio zanari buruzkoa izan ez bada, Garizumako I. nahiz II. prefazioa esango da, 478-480. or.

Prefazioa

ITSU JAIO ZANA

℣. Jauna zuekin.
℟. Eta zure espirituarekin.

℣. Gora bihotzak.
℟. Jaunagan daukaguz.

℣. Eskerrak Jaungoiko gure Jaunari.
℟. Egoki da eta zuzen.

Egoki da, bai, eta zuzen,
bidezko eta salbagarri,
nonahi eta beti guk Zuri eskerrak emotea,
Jauna, Aita guztiz santu,
Jainko ahalguztidun betiko horri,
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Berak, gizakundeko misterioaren bidez,
sinismenaren argira eroan dau ilunpetan ebilen gizadia,
eta, jaiotza barriko uraren bidez,
Jainkoaren seme-alaba ordeko egin gaitu
pekatuaren menpean sortuak garanok.

Horregaitik, zeruko eta lurrekoek
kantu barria abestuz adoratzen zaitue;
eta geuk ere, aingeru guztiekin batean,
beti eta beti [esaten] abesten deutsugu:

Santu, Santu, Santua ...




Egoki da, bai, eta zuzen, bidezko eta sal-ba-ga-rri, no-na-hi eta
beti guk Zuri eskerrak e-mo-te-a, Jauna, Aita guz-tiz san-tu,
Jainko ahalguztidun betiko ho-rri, Jesu Kristo gure Jau-na-ren
bi-tar-tez. Be-rak, gizakundeko misterioa-ren bi-dez, sinisme-
na-ren argira eroan dau ilunpetan ebilen gi-za-di-a, eta, jaiotza
barriko ura-ren bi-dez, Jainkoaren seme–alaba ordeko egin gai-tu
pekatuaren menpean sor-tu-ak ga-ra-nok. Horregai-tik, zeruko eta
lu-rre-ko-ek kantu barria abestuz adoratzen zai-tu-e eta geuk ere,
aingeru guztiekin ba-te-ra, beti eta beti a-bes-ten deu-tsu-gu:

Itsu jaio zanari buruzko Ebanjelio-zatia iragarri bada:

Jaunartze-ant. Jaunak begiak igurtzi deustaz; eta joan, garbitu eta ikusten hasi naz, eta Jainkoagan sinisten. Ik. Jn 9, 11.38

Seme hondatzailearen Ebanjelio-zatia aldarrikatu bada:

Egoki da zu poztea, zure anaia hau hilda egoan eta biztu egin da-eta, galduta egoan eta aurkitu egin dogu. Ik. Lk 15, 32

Beste Ebanjelio-zatiren bat iragarri bada:

Jerusalem, uri lez ondo eraikia, beragan tinko batua! Hara igoten dabe leinuek, Jaunaren leinuek, Jaunaren izena gorestera.
Sal 122 [121], 3-4

Jaunartze ondorengoa

Oi Jainko, Zeuk argitzen dozuz
mundu honetara etorri diran gizon-emakume guztiak;
argitu gure bihotza zeure graziaren distiraz,
Zuri atsegin jatzuna erabili daigun beti gogoan
eta Zu benetan maitatu zaiguzan.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Herriaren gaineko otoitza

Zaindu egizuz, Jauna, zure laguntza eske dozuzanok,
indartu makalak eta argitu beti zeure argiaz
heriotza-ilunpean dabiltzanak,
gatx guztietatik bihotz onez atarata,
ondasun gorenak eskuratu dagiezan.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Garizumako IV. astelehena

Sarrera-ant. Nik Jaunagan dot konfiantza. Poztu eta alaituko naz zure maitasu-nagaitik, erreparatu deutsazu-eta nire atsekabeari. Sal 31 [30], 7-8

Otoitza

Oi Jainko, sakramentu miragarri honeen bidez
barritzen dozu mundua;
egizu, zure seme-alaben alkartea eraiki daitela
salbazino-ezaugarri honeek ospatuz
eta izan dagiala mundu honetan behar dauan zure laguntza.

Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa

Emon guri, Jauna, eskeintza honen frutuak,
lurtar zaharkeriaren jardueratik garbiturik,
zerutar bizitzan aurrera eginez erabarrituak izan gaitezan.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Prefazioa: Garizumakoa, 478-485. or.

Jaunartze-ant.

Neure espiritua ipiniko dot zuengan, eta gai egingo zaituet nire legeen arabera ibiltzeko eta nire aginduak arretaz betetzeko, dino Jaunak. Ez 36, 27

Jaunartze ondorengoa

Zure sakramentuetan esku hartzeak, Jauna,
barriztatu gaizala zure biziaz bizitzeko
eta egin gaizala santu betiko ondasunetara heltzeko.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Nahi bada erabiltzekoa

Herriaren gaineko otoitza

Jauna, bizibarritu zeure herria barrutik eta kanpotik,
Zuk kendu nahi ez deutsazuzan gorputzeko atseginak
espirituaren arabera bizi dagizan.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Garizumako IV. martitzena

Sarrera-ant.

Egarri zarienok, zatoze uretara, dino Jaunak; etorri, dirurik ez dozuenok ere; eta edan atseginez. Ik. Is 55, 1

Otoitza

Jauna, Garizumako egintza santuek
prestatu dagiezala zure fededunen gogo-bihotzak
pazko-misterioa egoki ospatzeko
eta salbazinoaren barri ona zabaltzeko.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa

Hona hemen, Jauna, zure eskutik hartu doguzan dohaiak;
bizitza hilkor honetan
zure laguntza badogula erakusten deuskue;
egizu, bihurtu daitezala guretzat
betiko bizia emoten dauan janari.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Prefazioa: Garizumakoa, 478-485. or.

Jaunartze-ant.

Jauna dot artzain, ez naz ezeren beharrean; larre gurietan etzunazoten nau, ur-bazter nasaira eroaten. Sal 23 [22], 1-2

Jaunartze ondorengoa

Jauna, garbitu gaizuz bihotz onez
eta barritu zeure sakramentuen bidez,
gure gorputzak ere eurotan aurkitu dagian
oraingo bizitzarako indarra eta gerorako iturri bizia.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Nahi bada erabiltzekoa

Herriaren gaineko otoitza

Jainko errukitsua, egizu,
zure herria bizi dadila beti Zeuri eskeinita
eta, zure bihotz onari esker,
lortu dagiala eten barik onerako izango dauana.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Garizumako IV. eguaztena

Sarrera-ant.

Nik Zuri dagitsut otoitz; mesede-sasoia dozu, Jauna. Erantzun, ene Jainko, zeure maitasun handiaz, zeure salbazino leialaz.
Sal 69 [68], 14

Otoitza

Oi Jainko,
zintzoen saritzaile eta pekatari damutuen parkatzaile,
erruki zakiguz eta entzun gure otoitza:
pekatari garala autortzen dogunoi
emoiguzu parkamena eta bakea.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa

Sakrifizio honen indarrak, Jauna,
garbitu gaizala pekatuzko izakera zaharretik,
barritu dagiala gugan bizia eta ekarri deigula salbazinoa.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Prefazioa: Garizumakoa, 478-485. or.

Jaunartze-ant.

Jainkoak ez eban bere Semea mundura bialdu, mundua kondenatzera, haren bitartez mundua salbatzera baino. Jn 3, 17

Jaunartze ondorengoa

Jauna, hartu doguzan sakramentuak
ez daitezala izan gure hondamendirako,
gure salbazinorako baino, Zeuk nahi dozun lez.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Nahi bada erabiltzekoa

Herriaren gaineko otoitza

Jauna, zaindu zeure seme-alabak zeure babesean,
on dana mundu honetan eginez
onik gorena zaran horrengana heldu daitezan.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Garizumako IV. eguena

Sarrera-ant.

Poztu zaiteze bihotzez Jaunaren bila zabiltzenok. Jo egizue indartzen dauan Jaunagana, bilatu eten barik haren aurpegia.
Sal 105 [104], 3-4

Otoitza

Zure bihotz onari apalik otoitzean gagoz, Jauna;
egizu, penitentziak garbiturik
eta maitasun-egintzek lagundurik,
iraun daigula beti leial zure aginduetan,
pazko-jaietarako zintzo prestatu gaitezan.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa

Egizu, Jainko ahalguztiduna,
gure sakrifizio izango dan eskeintza honek
indartu gaizala beti geure makaltasunean,
eta gorde gatx guztietatik.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Prefazioa: Garizumakoa, 478-485. or.

Jaunartze-ant.

Barruan ezarriko deutset neure legea eta bihotzean idatziko. Ni hareen Jainko izango naz, eta eurak nire herri izango dira, dino Jaunak.
Jr 31, 33

Jaunartze ondorengoa

Hartu dogun sakramentuak garbitu gaizala, Jauna,
eta emoiezu zeure zerbitzariei erru guztitik libre gelditzea,
kontzientziaren pisu astunaz larri dagozanak
zerutar laguntza beteaz poztu daitezan.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Nahi bada erabiltzekoa

Herriaren gaineko otoitza

Oi Jainko, Zugan uste on dabenen babesa zarana,
bedeinkatu, zaindu, salbatu eta prestatu egizu zeure herria;
emoiozu zeure grazia,
pekatutik askaturik eta arerioak garaiturik,
zure maitasunean iraun daian beti.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Garizumako IV. barikua

Sarrera-ant. Ene Jainko, salbatu nagizu zeure izenagaitik, defendatu nire auzia zeure ahalmenaz. Entzun, ene Jainko, nire otoitza, makurtu belarria nire ahoko hitzetara. Sal 54 [53], 3-4

Otoitza

Oi Jainko,
laguntza egokiak prestatu dozuz makal garanontzat;
egizu, hartu daigula pozik Zuk emondako salbazinoa
eta biziera zintzoan azaldu.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa

Jainko ahalguztiduna,
sakrifizio honek garbitu gaizala bere ahalmen indartsuz,
garbiago heldu gaitezan Zugana.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Prefazioa: Garizumakoa, 478-485. or.

Jaunartze-ant. Kristogan, beraren heriotzaz dogu askapena, pekatuen parkamena, Jainkoaren onginahi eskuzabalari esker. Ik. Ef 1, 7

Jaunartze ondorengoa

Egizu, Jauna, beti zaharbarritzen dihardugunez,
pekatuzko izaera zaharra itzi
eta, gogo-bihotz santuz, erabarritu gaitezala.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Nahi bada erabiltzekoa

Herriaren gaineko otoitza

Zaindu egizuz, Jauna, zeure seme-alaba honeek
eta, euren uste ona zure maitasunean jarrita daukienez,
emoiezu bihotz onez zerutar laguntza.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Garizumako IV. zapatua

Sarrera-ant. Herio-olatuek inguratu ninduen, Herio-leizeko lokarriek ninduen lotu; neure larrialdian dei egin neutsan Jaunari, eta entzun eban bere tenplutik nire oihua. Ik. Sal 18 [17], 5-7

Otoitza Jauna, zure errukiak zuzendu daiala gure bihotza,
Zu barik ezin gara-eta zure gogoko izan.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa Jauna, onartu egizuz onbera gure dohaiak
eta egizu zeure gogoaren menpeko gure gogo bihurria.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Prefazioa: Garizumakoa, 478-485. or.

Jaunartze-ant. Bildots garbi eta akasbakoa lez zuen alde bere burua eskeini dauan Kristoren odol baliotsuaz izan zarie askatuak. Ik. 1 P 1, 18-19

Jaunartze ondorengoa Zure sakramentu honek garbitu gaizala, Jauna,
eta bere indarrez zure gogoko egin.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Nahi bada erabiltzekoa

Herriaren gaineko otoitza Zaindu egizu, Jauna,
datozen pazko-jaietarako prestatzen diharduan zeure herria
eta emoiozu eskuzabal zeure grazia,
ikusten diran laguntzen eraginez
gogo sutsuagoz jo dagian ikusten ez diran ondasunetara.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

GARIZUMAKO V. DOMEKA

Eleizako Kurutzeak eta irudiak zapi batez estaltzeko ohitura gorde daiteke, domeka honetatik hasita. Kurutzeak Bariku Santuan Jaunaren Nekaldia ospatu arte egongo dira estalduta; irudiak, barriz, Pazko Gaubelako ospakizuna hasi arte.

Domeka honetan egingo da, Pazko Gaubelan kristau-sarbideko sakramentuak hartzera onartuak izango diran kristaugaien gaitasunaren hirugarren azterketa; horretarako otoitz eta eskari bereziak erabiliko dira; ik. geroago 1013. or.

Sarrera-ant. Egidazu justizia, Jainko, defendidu nire auzia jente sinisbakoaren aurka, libratu nagizu maltzur gaiztoaren eskutik, Zeu zara-eta nire Jainko babeslea, nire indarra. Ik. Sal 43 [42], 1-2

Aintza zeruetan ez da esango.

Otoitza Jainko gure Jauna, zure Semeak
bere bizia emoteraino maite izan eban mundua;
egizu, geuk ere maitasun bera izan daigula beti.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Sinisten dot esango da.

Oparigaien gainekoa Entzun eiguzu, Jainko ahalguztiduna, eta egizu,
sakrifizio honek garbitu gaizala
kristau-sinismenaz argitu gaituzunok.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Aldarrikatu dan Ebanjelio-zatia Lazarori buruzkoa izan ez bada, Garizumako I. nahiz II. prefazioa esango da, 478-480. or.

Prefazioa LAZARO

℣. Jauna zuekin.
℟. Eta zure espirituarekin.

℣. Gora bihotzak.
℟. Jaunagan daukaguz.

℣. Eskerrak Jaungoiko gure Jaunari.
℟. Egoki da eta zuzen.

Egoki da, bai, eta zuzen,
bidezko eta salbagarri,
nonahi eta beti guk Zuri eskerrak emotea,
Jauna, Aita guztiz santu,
Jainko ahalguztidun betiko horri,
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Egiazko gizona da, izan ere,
Lazaro adiskideagaitik negar egin ebana,
eta egiazko Jainkoa, hildakoa hobitik atara ebana.
Berak, gizon-emakume guztiez errukiturik,
bizi barrira eroaten gaitu
salbameneko sakramentuen bidez.

Beraren bitartez,
zure handitasuna autortzen dau aingeruen taldeak,
beti pozez alkarturik zure aurrean.
Onartu egizu, Jauna,
euren gorespenekin bat egin daiguzala geuk ere
geure kantu-hotsak:

Santu, Santu, Santua ...





℣. Es-ke-rrak Jaun-goi-ko gu-re Jau-na-ri. ℟. E-go-ki da e-ta zu-zen.



Egoki da, bai, eta zuzen, bidezko eta sal-ba-ga-rri, no-na-hi eta



beti guk Zuri eskerrak e-mo-te-a, Jauna, Aita guz-tiz san-tu, Jainko



ahalguztidun betiko ho-rri, Jesu Kristo gure Jau-na-ren bi-tar-tez.



Egiaz-ko gizona da, izan ere, Lazaro adiskideagaitik negar e-



gin e-ba-na, eta egiaz-ko Jainkoa, hildakoa hobitik atara e-ba-na.



Berak, gizon–emakume guztiez erru-ki-tu-rik, bizi barrira eroa -



ten gai-tu, salbameneko sa-kra-men-tu - en bi-dez. Beraren bitar-



tez, zure handitasuna autortzen dau aingeruen tal-de-ak, beti po-



zez alkarturik zure au-rre-an. Onartu ei-zu, Jau-na, euren



gorespenekin bat egin daiguzala geuk e-re geu-re kan-tu–ho-tsak:

Lazarori buruzko Ebanjelio-zatia aldarrikatu bada:

Jaunartze-ant. Bizi dana, Nigan sinisten badau, ez da betiko hilko, dino Jaunak. Jn 11, 26

Emakume adulteriogileari buruzko Ebanjelio-zatia aldarrikatu bada:

Ez zaitu inork gaitzetsi? Inork ere ez, Jauna. Ezta Neuk ere ez zaitut gaitzesten. Zoaz eta ez egin barriro pekaturik. Jn 8, 10-11

Beste Ebanjelio-zatiren bat aldarrikatu bada:

Gari-garaua, lurrean jausi eta hiltzen ez bada, bera bakarrik geldi-tzen da; baina, hiltzen bada, frutu asko emoten dau. Jn 12, 24-25

Jaunartze ondorengoa

Jainko ahalguztiduna, egizu,
orain Kristoren Gorputz-Odolekin bat egin dogun ezkero,
haren gorputzeko atal izan gaitezala beti.
Errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Herriaren gaineko otoitza

Bedeinkatu egizu, Jauna,
zure errukia itxaroten dauan zeure herria,
eta emoiozu bihotz zabalez
Zuk argiturik eskatzen dauana.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Garizumako V. astelehena

Sarrera-ant. Erruki nitaz, Jainko, niri segika dabilkidaz, egun osoan eraso egin eta zapaltzen nabe. Sal 56 [55], 2

Otoitza

Oi Jainko, zure grazia miragarriak
era guztietako bedeinkazinoz aberasten gaitu;
egizu, gure izaera zaharretik biziera barrira aldaturik,
prestatu gaitezala zeruetako erreinuko ospeaz gozatzeko.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa

Misterio santuak ospatzean, Jauna,
geure bihotz barritua eskeintzen deutsugu pozik
gorputzeko penitentzien frututzat.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Prefazioa: Jaunaren Nekaldiko I.a, 486. or.

Emakume adulteriogileari buruzko Ebanjelio-zatia aldarrikatu bada:

Jaunartze-ant.

Ez zaitu inork gaitzetsi? Inork ere ez, Jauna. Neuk ere ez zaitut gaitzesten. Zoaz eta ez egin barriro pekaturik. Jn 8, 10-11

Beste Ebanjelio-zatiren bat iragarri danean:

Neu naz munduaren argia, dino Jaunak; Niri jarraitzen deustana ez da ilunpean ibiliko; izango dau bizirako argia. Jn 8, 12

Jaunartze ondorengoa

Zure sakramentuen graziak sendotu gaitu, Jauna;
egizu, garbitu gaizala geure jokaera okerretatik,
Kristori jarraituz, Zugana bizkor joan gaitezan.
Errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Nahi bada erabiltzekoa

Herriaren gaineko otoitza

Libratu egizu, Jauna, bere pekatuetatik
eskean dabilkizun herri hau,
bizitza santua eroanez
ezelako zoritxarren nahigaberik jasan ez dagian.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Garizumako V. martitzena

Sarrera-ant. Itxaron Jaunagan! Eutsi gogor, izan bihotz! Itxaron Jaunagan!
Sal 27 [26], 14

Otoitza

Jauna, emoiguzu, arren,
zure nahia leial betetzen irautea beti;
egunetik egunera ugariagoa eta santuagoa izan dadin
zure zerbitzari dan herria.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa

Baketze-opari hau eskeintzen deutsugu, Jauna,
errukiturik, gure pekatuak parkatu daizuzan
eta gure bihotz aldakorrak zuzendu.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Prefazioa: Jaunaren Nekaldiko I.a, 486. or.

Jaunartze-ant. Nik, lurretik jasoko nabenean, Neugana erakarriko ditut guztiak, dino Jaunak.
Jn 12, 32

Jaunartze ondorengoa

Jainko ahalguztiduna,
egizu, misterio honeetan sarri parte hartuz,
ondasun zerutarrak jadetsi daiguzala.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Nahi bada erabiltzekoa

Herriaren gaineko otoitza

Oi Jainko, uste ona Zeugan jartzen dabenekin
nahiago dozu errukitsu izan, hasarratu baino;
emoiezu zeure fededunei egindako okerren benetako damua,
Zugaz hartu-emonak izateko grazia eskuratu dagien.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Garizumako V. eguaztena

Sarrera-ant. Arerioakandik libratu ninduzun, Jauna, aurka jagi jatazanen gainetik jaso, gizon zakarragandik askatu. Sal 18 [17], 49

Otoitza

Jainko errukitsua,
argitu egizuz penitentziak santutu dituan
zure seme-alaben bihotzak;
eta, zure zerbitzurako gogoa emoten deuskuzunez,
entzun bihotz onez gure otoitzak.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa

Onartu, Jauna, ekarri deutsuguzan dohai santuak;
egizu, zure izenaren goragarri eskeintzeko
emon deuskuzuzanak
izan daitezala guretzat osagarri.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Prefazioa: Jaunaren Nekaldiko I.a, 486. or.

Jaunartze-ant. Jainkoak bere Seme maitearen erreinura aldatu gaitu; honengan dogu askapena, beronengan pekatuen parkamena. Kol 1, 13-14

Jaunartze ondorengoa

Jauna,
hartu dogun sakramentuak
emon deigula zeruko osabidea,
eta, gure bihotzetik ohitura txarrak kendurik,
zaindu eta indarbarritu gaizala beti.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Nahi bada erabiltzekoa

Herriaren gaineko otoitza

Jainko ahalguztiduna, entzun zeure herri honen eskariak
eta, zeure bihotz onagazko
konfiantza sortzen deutsazun ezkero,
emoiozu maitasunez, egin ohi dozunez,
zeure errukiaren dohaia.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Garizumako V. eguena

Sarrera-ant. Kristo itun barri baten bitarteko da, heriotzaren bidez, hutsegiteak parkatzeko; holan, agindutako betiko ondarea jaso leikie Jainkoak deitutakoek. Heb 9, 15

Otoitza

Entzun, Jauna, zuri otoizka dagozanei
eta zaindu egizuz bihotz onez
euren esperantza zure errukian dabenak;
pekatutik garbiturik,
Bateoan agindutako biziera santuan iraun dagien
eta Zuk agindutako bizi betea hartu dagien ondare.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa

Hartu egizu onez, Jauna, gure sakrifizio hau:
balia dakigula guri, bihotz-barritzeko
eta mundu guztiari, salbatzeko.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Prefazioa: Jaunaren Nekaldiko I.a, 486. or.

Jaunartze-ant. Bere Semea bera ez eban Jainkoak heriotzatik libratu, gu guztion alde heriotzara emon baino, eta haregaz doan emon euskun dana. Ik. Erm 8, 32

Jaunartze ondorengoa

Zure dohai salbagarriak harturik,
apalik eskatzen dogu, Jauna, zure errukia,
orain janaritzat sakramentu hau emoten deuskuzun lez,
zeure bihotz onez betiko biziaren jaube egin gaizuzala.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Nahi bada erabiltzekoa

Herriaren gaineko otoitza

Zagoz zeure herriagaz, Jauna, eta lagundu egiozu,
gogoko ez jatzuna egunetik egunera baztertuz,
zure aginduetan aurkitu dagian bere poz betea.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Garizumako V. barikua

Sarrera-ant. Erruki nitaz, Jauna, larri nago-eta; libratu nagizu arerioen eta pertsegitzaileen eskutik; Jauna, ez nadila lotsagarri geratu, Zuri dei egin izateagaitik. Sal 31 [30], 10.16.18

Otoitza

Parkatu, arren, Jauna, zeure herriaren okerrak,
eta, gure makaltasunagaitik, pekatuak lotuta gaukazanok
askatu gaizala zure bihotz onak.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Edo:

Oi Jainko, Kristoren nekaldia kontenplatuz
Maria dohatsuaren antzeko izatea
emoten deutsazu Eleizeari bihotz onez aldi honetan;
egizu, Ama Birjina bera otoitzean lagun dogula,
zure Seme bakarrari gero eta sutsuago jarraitu deiogula
eta honen graziaren betea eskuratu daigula.
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa Jainko errukitsua, hurreratu gaitezala beti garbi zure altarara, eta misterio honetan sarri parte hartzeak salbatu gaizala. Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Prefazioa: Jaunaren Nekaldiko I.a, 486. or.

Jaunartze-ant. Gure pekatuak bere gain hartu eta Kurutzera eroan ebazan Jesusek, gu, pekaturako hilda, zuzen bizi gaitezan; haren zauriek osatu gaitue. Ik. 1 P 2, 24

Jaunartze ondorengoa Hartu dogun sakrifizioaren babesak, Jauna,
ez deigula inoiz huts egin
eta urrundu daiala gugandik kaltegarri dan guztia.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Nahi bada erabiltzekoa

Herriaren gaineko otoitza

Jainko ahalguztiduna, gorde egizuz gatx guztietatik
zure babesaren grazia eske daukazuzan
zeure seme-alaba honeek,
zure zerbitzuan bizi daitezan uste on osoz.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Garizumako V. zapatua

Sarrera-ant. Zu, Jauna, ez egon urrun! Ene indar, zatoz laster ni laguntzera; izan be, har bat naz ni, ez gizakia, jenteak iraindua, herriak gitxitzat hartua. Sal 22 [21], 20.7

Otoitza

Oi Jainko, jatorri aukeratu, errege eta abade egin dozuz
Kristogan jaiotza barria izan dabenak;
emoiguzu zure aginduak bete nahi eta ahal izatea,
betiko bizitzara deitu dozun zure herriak
fede bera izan dagian bihotzean eta maitasun bera ekintzetan.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa

Jauna, onartu eskeintza modura gure baraualdiko dohaiak;
egizu, zure grazia eskuratzeko
eta Zuk agindutako betiko ondasunak lortzeko
gai egin gagiezala.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Prefazioa: Jaunaren Nekaldiko I.a, 486. or.

Jaunartze-ant. Kristo, sakabanaturik egozan Jainkoaren seme-alabak alkartzeko saldu eben. Ik. Jn 11, 52

Jaunartze ondorengoa

Guztiz ahaltsu zaranez, Jauna, apalik eskatzen deutsugu,
zure Semearen Gorputz eta Odol santuez janaritu gaituzunok
parte izan daigula jainkozko zure izatean.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Nahi bada erabiltzekoa

Herriaren gaineko otoitza

Erakutsi zeure bihotz errukitsua, Jauna,
otoitzean dabilkizun Eleizeari
eta egin bihotzez harrera ona zure aurrean apaltzen diranei;
egizu, zeure Seme bakarraren heriotzaz salbatu dozuzanak
ez daitezala ez pekatuaren errudun izan,
ez zoritxarraren zamapean jausi.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

ASTE SANTUA

JAUNAREN NEKALDIKO ERRAMU DOMEKA

Hasierako ohikuneak

1. Egun honetan, Eleizeak, Kristo Jauna bere Pazko-misterioa burutzeko Jerusalemen sartu zanekoa gogoratzen dau. Horregaitik, Meza guztietan egingo da Jaunaren sarrera honen oroitzapena; prozesinoaren nahiz sarrera ospetsuaren bidez egin leiteke oroitzapen hori Meza nagusiaren aurretik, edo sarrera soilaren bidez gainerako Mezen aurretik. Baina eleiztar asko batzen dan beste Meza baten edo besteren aurretik be egin leiteke sarrera ospetsu hori; ez, ostera, prozesinoa.

Prozesinoa edo sarrera ospetsua egiterik ez dagoan lekuetan, komeni da Jesusek Mesias lez egin eban sarrerako eta Jaunaren Nekaldiko Jainkoaren hitzaren ospakizuna egitea, zapatu arratsaldean nahiz domekako ordu egoki baten.

Jaunaren Jerusalemgo sarreraren gomuta

1. era: Prozesinoa

2. Ordu egokian, eleiza txikiago baten nahiz beste leku egokiren baten batuko dira eleiztarrak, prozesinoan joan beharreko eleizatik kanpo. Eleiztarrek erramu-adarrak izango dabez eskuetan.

3. Abadea eta diakonoa, Mezarako behar diran jantzi gorriz jantzita, herria batuta dagoan lekura joango dira, beste zerbitzariak lagun dabezala. Abadeak, kasuilaren ordez, eleiz kapa jantzi leike, baina prozesinoaren ondoren kendu egingo dau eleiz kapa hori.

4. Bitartean, hurrengo antifona hau nahiz beste kantu egokiren bat abestuko da.

Antifona

Hosanna Daviden semeari! Bedeinkatua Jaunaren izenean datorrena, Israelgo Erregea! Hosanna Goi-goikoari! Ik. Mt 21, 9

5. Orduan, abadeak eta fededunek aitaren egingo dabe, esanez: Aitaren, eta Semearen, eta Espiritu Santuaren izenean. Ondoren, herria agurtuko dau ohitura danez; eta oharpen labur bat egingo dau, eleiztarrek egun honetako ospakizunean ekinez eta jakinaren gainean parte hartu dagien; honan egin leike:

Oharpena Senide maiteok: Garizumako aldi honetan bihotza prestatzen gabiltz penitentziaz eta maitasun-egintzez. Hurrean dogu Pazko-jaia. Jaunaren pazko-misterioari, hau da, haren nekaldiaren eta biztueraren misterioari, Eleiza osoarekin bat eginik hasiera emoteko ospakizuna egitera batu gara gaur. Misterio hori betetzeko sartu zan Jauna Jerusalemgo uri santuan. Ospatu daigun, beraz, fedez eta maitasunez, gu salbatzeko egin eban sarrera horren gomuta, eta jarraitu deiogun geure Jaunari, grazia lagun dogula haren kurutzean bat eginda, haren biztueran eta bizian ere bat egin daigun.

6. Oharpena egin ondoren, abadeak, eskuak baturik, hurrengo otoitz honeetakoren bat esango dau:

Bedeinkazino-otoitza

Egin daigun otoitz.

Jainko ahalguztidun betikoa,
bedeinkatu egizuz ✠ erramu-adar honeek;
eta egizu, Kristo Erregeari
goraka eta kantari jarraitzen deutsagunok,
beraren bidez betiko Jerusalemera heldu gaitezala.
Errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.
℟. Amen.

Edo:

Oi Jainko, indartu egizu Zugan uste on dabenen fedea
eta entzun bihotz onez gure otoitzak:
gaur Kristo garailea erramu-adarrakaz goratzen dogunok,
beragaz bat eginik, egintza onen frutuak emon daiguzan.
Errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.
℟. Amen.

Eta ur bedeinkatuz erramuak txipriztinduko ditu, ezer esan barik.

7. Ondoren, diakonoak edo, diakonorik ez bada, abadeak berak Jaunaren sarrerako lau Ebanjelioetako bat aldarrikatuko dau. Egoki eretxi ezkero, erabili leiteke intsentsua.

Ebanjelioa

A urtean

Bedeinkatua Jaunaren izenean datorrena!

✠ Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik Mt 21, 1-11

Jerusalemera hurreratu ziranean, Oliamendi ondoko Betfage herritxura heldurik, ikasle bi bialdu zituan Jesusek esanaz: «Zoaze aurreko herritxu horretara; behingoan asteme bat aurkituko dozue lotuta, eta astakumea berarekin; askatu eta ekarri Neuri. Eta inork ezer esaten badeutsue, erantzun: ”Jaunak behar ditu, baina behingoan bihurtuko ditu”».

Hori gertatu zan Jainkoak profetaren bidez esana bete zedin:

«Esan Sion uriari:
”Hara, bajatortzu zeure erregea,
apal eta asteme baten gainean,
asto baten kumearen gainean”».

Joan ziran, bada, ikasleak eta Jesusek agindu modura egin eben; ekarri zituen astoa eta astakumea, eta euren jantziak bizkarrean ezarri eutsiezan, eta Jesus gainean jesarri zan. Jente askok euren jantziak zabaldu ebezan bidean; beste batzuk, barriz, zuhaitzei adarrak ebagi eta bidean zabaltzen zituen. Aurretik eta ostetik joian jenteak hauxe inoan oihuka:

«Hosanna Daviden semeari!
Bedeinkatua Jaunaren izenean datorrena!
Hosanna Goi-goikoari!».

Jesus Jerusalemen sartu zanean, uri osoak, harrituta, itauntzen eban: «Nor dogu berau?». Jenteak erantzuten eban: «Hau Jesus profeta da, Galileako Nazaretekoa».

Jaunak esana!

Ebanjelioa

(1. aukera) **B urtean**

Bedeinkatua Jaunaren izenean datorrena!

✠ Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik Mk 11, 1-10

Jerusalenera hurreratu ziranean, Oliamendi ondoko Betfage eta Betania herritxuetara helduta, ikasleetariko bi bialdu zituan Jesusek, esanez: «Zoaze aurreko herritxu horretara; sartu orduko, astakume bat aurkituko dozue lotuta, gainean oraindik inor jarri ez jakona; askatu eta ekarri. Eta nonork zer darabilzue esaten badeutsue, erantzun: ”Jaunak behar dau; baina behingoan bihurtuko dau bertora”».

Joan ziran, bada, eta han aurkitu eben astakumea ate ondoan lotuta, kanpotik kalean, eta askatzen hasi ziran. Bertan egozanetariko batzuk esan eutsien: «Zer darabilzue astakumea askatzen?». Jesusek esana adierazorik, hareek astakumea eroaten itzi eutsien.

Jesusi eroan eutsoen, eta euren jantziak astakumeari bizkarrean ipini eutsoezan, eta Jesus gainean jarri zan. Askok euren soinekoak zabaldu zituen bidean; beste batzuk, barriz, landetan ebagitako abarrak. Aurretik eta ondotik joiazenek, hauxe inoen oihuka:

«Hosanna!
Bedeinkatua Jaunaren izenean datorrena!
Bedeinkatua datorren erreinua, gure aita Daviden erreinua!
Hosanna Goi-goikoari!».

Jaunak esana!

Ebanjelioa

(2. aukera) **B urtean**

Bedeinkatua Jaunaren izenean datorrena!

✠ Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik Jn 12, 12-16

Aldi haretan, jaietarako etorria zan jentetza handiak, Jesus Jerusalemera etorrela jakitean, palma-adarrak hartu eta bidera urten eutson eta oihuka hasi zan:

«Hosanna!
Bedeinkatua Jaunaren izenean datorrena!
Bedeinkatua Israelgo erregea!».

Astotxu bat aurkiturik, gainean jarri zan Jesus, Liburu Santuak dinoan lez:

«Ez bildurrik izan, Sion uria!
Hara, badatorkizu zeure erregea,
astakume baten gainean jarria».

Ikasleak ez ziran orduan profezia honetaz jaubetu; baina gero, Jesus goratua izan zanean, konturatu ziran Liburu Santuak dinoan haxe berbera egin eutsoela Jesusi.

Jaunak esana!

Ebanjelioa

C urtean

Bedeinkatua Jaunaren izenean datorrena!

✠ Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik Lk 19, 28-40

Aldi haretan, Jesusek Jerusalemgo bidean gora jarraitu eban danen aurretik. Oliamendi ondoko Betfage eta Betania herritxuetara hurreratu zanean, ikasleetariko bi bialdu zituan, esanez: «Zoaze aurreko herritxu horretara; sartzean, astokume bat aurkituko dozue loturik, gainean inoiz inor jarri ez jakona; askatu eta ekarri. Eta inork zergaitik askatzen dozuen itaunduko baleutsue, erantzun: ”Jaunak behar dau”».

Joan ziran, bada, bialdutakoak, eta Jesusek esan bezala aurkitu eben. Astokumea askatzen ebiltzala, jabeek esan eutsien: «Zer zabiltze astokumea askatzen?». Eta hareek erantzun: «Jaunak behar dau».

Jesusi ekarri eutsoen eta, euren jantziak astakumeari bizkarrean ipinirik, gainean jesarriazo eben. Aurrera egin ahala, jenteak euren jantziak zabaltzen eutsozan bidean. Oliamenditik beherantza hartzera joiala, ikasle-talde handia, pozez beterik, Jainkoa indartsu goratzen hasi zan, ikusi ebezan mirari guztiakaitik:

«Bedeinkatua Jaunaren izenean datorren erregea!
Bakea zerutik eta aintza Jainkoari!».
Jente arteko fariseu batzuk esan eutsoen Jesusi: «Maisu, egiezu errieta ikasleei!». Harek erantzun eutsen: «Hara zer dinotsuedan: honeek isilduko balira, harriek egingo leukie deadar».

Jaunak esana!

8. Ebanjelioa aldarrikatu ondoren, homilia labur bat egin leiteke. Prozesinoari hasiera emon aurretik, abadeak nahiz diakonoak nahiz beste laguntzaile laiko batek oharpena egin leike, honan:

Jesus goratu eban jentearen antzera, lagun egin deiogun geuk be Jaunari bakean eta pozez kantari.

Edo:

℣. Goazen bakean.
℟. Kristoren izenean. Amen.

9. Eta prozesinoa hasiko da Mezea emon behar dan eleizarako bidean. Aurretik intsentsularia joango da, intsentsurik erabiltzen bada, ontzia ketan dauala; ondoren, kurutzeduna, tokian tokiko ohituren arabera kurutzea erramu-orriz apainduta daroala eta argizari biztuak daroezan laguntzaile biren erdian. Gero diakonoa, Ebanjelio-liburua daroala, abadea bere laguntzaileekin eta, atzetik, fededun guztiak, erramu-adarrak eskuetan dabezala.

Prozesino bitartean, abesbatzak eta herriak ondorengo kantu honeek edo beste kantu egokiren batzuk abestuko dabez Kristo Erregearen omenez:

1. antifona ℟. Hebrearren umetxuak,
olibondo-adarrak eskuetan ebezala,
bidera urten eutsoen Jaunari, oihuka:
Hosanna zeru-goienetan!

Eta 24. [23] salmoko ahapaldien tartean errepikatu leiteke antifona.

Jaunarena da lurra, eta lurra betetzen dauana,
mundua eta bertan bizi diranak,
harek ezarri dau-eta itsasoen gainean,
harek finkatu lur azpiko ibaien gainean. ℟.

Jaunaren mendira nork igongo?
Haren toki santuan nor egongo? ℟.

Eskuak errubako eta bihotza garbi dituana,
sasijainkoetara jotzen ez dauana,
engainuzko zinik egiten ez dauana.
Holakoa bedeinkatuko dau Jaunak,
justizia egingo deutso Jainko salbatzaileak. ℟.

Hau da haren bila ahalegintzen dan gizaldia,
Jakoben Jainkoaren aurpegi bila dabilena.
Ateburuok, zabaldu zaiteze,
zabaldu zaiteze, aspaldiko ateok,
badator-eta Errege ospetsua. ℟.

Nor da Errege ospetsu hori?
Jauna da, indartsu eta ahaltsua,
Jauna, guduan ahaltsua. ℟.

Ateburuok, zabaldu zaiteze,
zabaldu zaiteze, aspaldiko ateok,
badator-eta Errege ospetsua. ℟.

Nor da Errege ospetsu hori?
Jaun ahalguztiduna,
bera da Errege ospetsua. ℟.

2. antifona ℟. Hebrearren umetxuek, soinekoak bidean zabaldurik,
halan inoen oihu baten:
Hosanna! Gora Daviden semea!
Bedeinkatua Jaunaren izenean datorrena!

Eta 47. [46] salmoko ahapaldien tartean errepikatu leiteke antifona.

Herri guztiok, jo egizue txalo,
egin pozez oihu eta irrintzi Jainkoari,
izugarria da-eta Jauna, Goi-goikoa,
mundu osoaren errege handia. ℟.

Menpean ipintzen deuskuz herriak,
oinpean jartzen nazinoak.
Ondarea aukeratu dau guretzat,
maite dauan Jakoben harrobide. ℟.

Irrintzi artean igon dau Jainkoak,
turuta-soinuz Jaunak. ℟.

Kanta Jainkoari, kanta,
kanta gure erregeari, kanta.
Jainkoa da mundu osoaren errege,
kanta trebetasunez hari. ℟.

Jainkoa nazinoen errege da,
Jainkoa bere tronu santuan dago jesarrita. ℟.

Herrietako buruzagiak alkartu jakoz
Abrahamen Jainkoaren herriari,
Jainkoarenak dira-eta munduko ahaltsuak,
bera guztien gainetik garai. ℟.

Kristo Erregeari gorazarrea

℟. Jesu Kristo salbatzaile,
Zuri gure maitasuna;
Zu zara danon errege,
Zuri aintza eta hosanna.

1. Israeldarren errege zara,
Daviden seme bikaina;
bedeinkatua danen errege
bakegilea zarana. ℟.

2. Heriotzara bidean Zuri
«Gora!» eutsuen esaten;
heriotzaren garaile horri
«Gora!» deutsugu kantatzen. ℟.

3. Atseginez hartu zenduzan
zeure herriaren oihuak;
apal danaren maitale zara,
onartu gure kantuak. ℟.

10. Prozesinoa eleizan sartzean ondorengo itaunerantzun hau abestuko da nahiz Jaunaren sarrera aitatzen dauan beste kantu egokiren bat.

℣. Jauna uri santuan sartzean,
hebrearren umetxuek biztuera iragartzen eben,
erramuak astinduz eta oihuka:
Hosanna zeru-goienetan!

℟. Hosanna zeru-goienetan!

℣. Jesus Jerusalemera etorrela jakitean,
bidera urten eutson herriak,
erramuak astinduz eta oihuka:
Hosanna zeru-goienetan! ℟.

11. Abadeak, altarara heltzean, gurtu egingo dau eta, egoki eretxi ezkero, intsentsuaz lurrunduko. Gero jesarlekura joango da, eta eleiz kapa, erabili badau, kendu eta kasuilea jantziko dau. Sarrerako beste ohikuneak eta, egoki begitandu ezkero, Erruki, Jauna be itzirik, Mezako otoitza esango dau; eta hortik aurrera Mezea ospatzen jarraituko dau, ohitura danez.

2. era: Sarrera ospetsua

12. Prozesinoa eleizaz kanpo egin ezin danean, Jaunaren sarrera eleiza barruan ospatuko da, Meza nagusirako sarrera ospe handiz eginez.

13. Fededunak, erramu-adarrak eskuetan dabezala, eleizako ate aurrean edo eleiza barruan bertan batuko dira. Abadea, beraren laguntzaileak eta kristau-taldetxu bat altaratik aparte dagoan eta eleiztar gehienek ikusi leikien eleizako toki batera joango dira.

14. Abadea toki horretara doan bitartean, Hosanna antifona abestuko da nahiz beste kantu egokiren bat. Ondoren, erramu-adarrak bedeinkatuko dira eta Jaunaren sarrerako Ebanjelio-zatia iragarriko, lehen esan dan lez

(ik. 5-7. zk.). Ebanjelioa iragarri ondoren, abadea bere laguntzaileekin eta kristau-taldetxuarekin, eleizan zehar ibilbide ospetsua eginez, altarara joango da; bitartean, Jauna uri santuan sartzean (ik. 10. zk.) nahiz beste kantu egokiren bat abestuko da.

15. Abadeak, altarara heltzean, gurtu egingo dau. Gero jesarlekura joango da eta, sarrerako beste ohikuneak eta, egoki eretxi ezkero, Erruki, Jauna be itzirik, Mezako otoitza esango dau; eta hortik aurrera Meza ospatzen jarraituko dau, ohitura danez.

3. era: Sarrera soila

16. Sarrera ospetsua egingo ez dan egun honetako beste Meza guztietan, Jauna Jerusalemen sartu zaneko gomutea sarrera soil baten bidez egingo da.

17. Abadea altarara doan bitartean, sarrera-antifona abestuko da bere salmoarekin (ik. 18. zk.) nahiz beste kantu egokiren bat. Abadeak, altarara heltzean, gurtu egingo dau. Gero jesarlekura joango da, eta aitaren egin eta herria agurtuko dau; hortik aurrera Meza ospatzen jarraituko dau, ohitura danez.

Sarrerako kantua abestu ezin dan beste Mezetan, abadeak, altarara heltzean, gurtu egingo dau behingoan eta herria agurtuko; gero sarrera-antifona irakurri eta hortik aurrera Meza ospatzen jarraituko dau, ohitura danez.

18.

Sarrera-ant. Pazko-festaburua baino sei egun lehenago, Jauna Jerusalemera etorri zala, umeek palma-adarrak hartu eta bidera urten eutsoen, eta oihuka hasi ziran: Ik. Jn 12, 1.12-13; Sal 24 [23], 9-10

℟. Hosanna zeru-goienetan!
Bedeinkatua errukiz beterik zatozan hori!

Ateburuok, zabaldu zaiteze,
zabaldu zaiteze, aspaldiko ateok,
badator-eta Errege ospetsua.
Nor da Errege ospetsu hori?
Jaun ahalguztiduna,
bera da Errege ospetsua. ℟.

Meza

19. Prozesinoaren edo sarrera ospetsuaren ondoren, abadeak otoitza esanez hasiko dau Mezea.

20.

Otoitza

Jainko ahalguztidun betikoa,
gizon-emakume guztiei apaltasun-bidea erakusteko,
gure Salbatzailea, giza haragia harturik,
kurutzean hiltzea nahi izan zenduan;
egizu, arren, hartu daiguzala gogoan
beraren nekaldiko irakaspenak,
haren biztueran parte izan daigun.
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

21. Jaunaren Nekaldiaren kondaira argimutilik eta intsentsu barik aldarrikatuko da, eta liburuari agurrik eta kurutzerik egin barik. Diakonoak aldarrikatuko dau edo, diakonorik ez bada, abadeak berak. Kristau soilek be iragarri leikie, baina Kristoren berbak, ahal dala, abadeari itziz.

Irakurleek, diakono diranean, bestela ez, bedeinkazinoa eskatuko deutsoe abadeari Nekaldia aldarrikatzen hasi aurretik, Ebanjeliorako ohitura danez.

22. Nekaldiaren kondaira aldarrikatu ondoren egoki da homilia labur bat egitea, baita alditxu baten isilik egotea be.

Sinisten dot esango da eta Jainkoaren herriaren otoitza egingo.

23.

Oparigaien gainekoa

Jauna, zure Semearen nekaldiari esker
betorkigu laster zure parkamena;
eta, zure bihotz onberaz,
emoiguzu, haren sakrifizio bakarrari esker, zeure errukia,
geure ekintzakaitik merezidu ez badogu ere.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

24.

Prefazioa JAUNAREN NEKALDIA

℣. Jauna zuekin.
℟. Eta zure espirituarekin.

℣. Gora bihotzak.
℟. Jaunagan daukaguz.

℣. Eskerrak Jaungoiko gure Jaunari.
℟. Egoki da eta zuzen.

Egoki da, bai, eta zuzen,
bidezko eta salbagarri,
nonahi eta beti guk Zuri eskerrak emotea,
Jauna, Aita guztiz santu,
Jainko ahalguztidun betiko horri,
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Berak, pekatu bakoa izanik,
pekatariakaitik onartu eban nekaldia
eta, erru bakoa izan arren, gaizkile bezala kondenau eben.
Bere heriotzaz garbitu ditu gure pekatuak
eta, bere biztueraz, salbamena lortu deusku.

Horregaitik, geuk ere, aingeru guztiekin batera,
goresten zaitugu,
poz betean [esanez] kantari:

Santu, Santu, Santua,
diran guztien Jainko Jauna.
Zeru-lurrak beterik daukaz zure distirak.
Hosanna zeru-goienetan!
Bedeinkatua Jaunaren izenean datorrena.
Hosanna zeru-goienetan!




℣. Go-ra bi-ho-tzak. ℟. Jau-na-gan dau-ka-guz.
℣. Es-ke-rrak Jaun-goi-ko gu-re Jau-na-ri. ℟. E-go-ki da e-ta zu-zen.
Egoki da, bai, eta zuzen, bidezko eta sal-ba-ga-rri, no-na-hi eta
beti guk Zuri eskerrak e-mo-te-a, Jauna, Aita guz-tiz san-tu,
Jainko ahalguztidun betiko ho-rri, Jesu Kristo gure Jau-na-ren
bi-tar-tez. Be-rak, pekatu bakoa izanik, pekatariakaitik onartu eban
ne-kal-di-a eta, erruba-ko izan arren, gaizkile bezala konde-nau
e-ben. Bere heriotzaz garbitu ditu gure pe-ka-tu-ak eta, bere biz-
tu-e-raz, sal-ba-me-na lor-tu deus-ku. Horregai-tik, geuk ere aingeru
guztiekin ba-te-ra, goresten zai-tu-gu, poz be-te-an kan-ta-ri:

25.

Jaunartze-ant. Ene Aita, edari mingots hau nahitaez edan behar badot, egin bedi zure nahia. Mt 26, 42

26.

Jaunartze ondorengoa

Zure misterio santuaz indarbarriturik otoizka gaituzu, Jauna:
zure Semearen heriotzari esker,
sinisten dogun bizi betea itxarotea emon deuskuzun lez,
emoiguzu, haren biztueraz, bizi hori eskuratzea.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

27.

Herriaren gaineko otoitza

Begira, Jauna, zeure familia honi,
honegaitik nahi izan eban-eta Jesu Kristo gure Jaunak
bere bizia gaizkileen eskuetan itzi
eta kurutzeko heriotzea hartu.
Errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Astelehen Santua

Sarrera-ant. Salatu, Jauna, salatzen nabenak, burrukatu, burrukatzen nabenak. Ezarri ezkutua eta koraza, jagi ni laguntzera, Jauna, ene salbatzaile indartsua. Ik. Sal 35 [34], 1-2; 140 [139], 8

Otoitza

Jainko ahalguztiduna,
egizu, geure makaltasunagaitik jausten garanok
bizibarritu gaitezala
zure Seme bakarraren nekaldiari esker.
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa

Begitu, Jauna, bihotz onez
ospatzen doguzan misterio santu honeei;
eta gure pekatuak kentzeko,
Zuk, errukiturik, prestatu zenduan Kristoren opariak
emon dagiala gugan betiko biziaren frutua.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Prefazioa: Jaunaren Nekaldiko II.a, 487. or.

Jaunartze-ant. Ez ezkutatu niri aurpegia larrialdian, Jauna, makurtu nigana belarria nik dei egitean; erantzun bizkor. Sal 102 [101], 3

Jaunartze ondorengoa

Zatoz, Jauna, zeure herriarengana
eta gorde zeure maitasun arduratsuaz
sakramentuen bidez sagaratu dozuzanen bihotzak;
zure laguntzaz zaindu dagiela beti
zure errukiari esker hartu daben
betiko salbazinorako osabidea.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Nahi bada erabiltzekoa

Herriaren gaineko otoitza

Emoiezu, Jauna, zeure babesa euren burua umiltzen dabenei
eta zaindu eten barik
uste ona zure errukian jartzen dabenak,
pazko-jaiak ospatzeko prestatu daitezan,
gorputzeko jardueraz ez ezik,
baita garrantzitsuagoa dan bihotz-garbitasunaz ere.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Martitzen Santua

Sarrera-ant.

Ez itzi ni, Jauna, neure erasotzaileen esku, testigu guzurtiak jaso dira-eta nire aurka, indarkeria dariela. Ik. Sal 27 [26], 12

Otoitza

Jainko ahalguztidun betikoa, egizu,
ospatu daiguzala biziro Jaunaren nekaldiko misterioak
zure parkamena lortu daigun.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa

Esker on egiozu, Jauna, zeure familiaren eskeintzari;
eta dohai santuetan parte hartzen dabenei emoiezu
dohai horreek adierazoten daben salbazinoa
bete-betean hartzea.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Prefazioa: Jaunaren Nekaldiko II.a, 487. or.

Jaunartze-ant.

Bere Semea bera ez eban Jainkoak heriotzatik libratu, ezpada ze gu guztion alde heriotzara emon eban. Ik. Erm 8, 32

Jaunartze ondorengoa

Zure dohai salbagarriak harturik,
apalik eskatzen dogu, Jauna, zure errukia,
orain janaritzat sakramentu hau emoten deuskuzun lez,
zeure bihotz onez betiko biziaren jaube egin gaizuzala.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Nahi bada erabiltzekoa

Herriaren gaineko otoitza

Oi Jainko, gorde egizu bihotz errukitsuz
pekatuaren iruzur zahar guztitik
zure esaneko dan herri hau
eta egizu gai bizi barri santurako.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Eguazten Santua

Sarrera-ant.

Jesusen izenaren omenez danen belaunak makurtu daitezala, zeruan, lurrean eta lurpean, Jauna menpeko egin zalako heriotzaraino, kurutzean hiltzeraino. Horregaitik, Jesu Kristo da Jauna, Jainko Aitaren aintzarako. Ik. Flp 2, 10.8.11

Otoitza

Oi Jainko, zure Semeak gugaitik
kurutzeko heriotza jasatea nahi izan zenduan,
gu arerioaren menpetik askatzeko;
egizu, zure zerbitzariok bizteko grazia lortu daigula.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa

Onartu, Jauna, eskeintzen deutsugun dohai hau;
eta egizu, zeure bihotz onez,
zure Semearen nekaldia sakramentuz ospatzeak
lortu deiguzala bere frutuak.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Prefazioa: Jaunaren Nekaldiko II.a, 487. or.

Jaunartze-ant.

Gizonaren Semea ez da etorri zerbidua izatera, zerbitzari izatera baino, eta bere bizia guztien ordainsari emotera. Mt 20, 28

Jaunartze ondorengoa

Jainko ahalguztiduna, misterio honeek ospatzean
zure Semea gugaitik hil zala autortzen dogu;
emoiguzu gogo-bihotzez sinistea
heriotza horren bidez betiko bizia emon deuskuzula.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Nahi bada erabiltzekoa

Herriaren gaineko otoitza

Egizu, Jauna, zeure fededunek
parte hartu dagiela beti pazko-sakramentuetan
eta itxaron dagiezala gogo biziz geroko dohaiak;
euren berbiztearen iturri diran misterioetan zintzo iraunez,
bizi barrira heldu daitezan.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

EGUEN SANTUA

1. Antxina-antxinako eleiz tradizinoaren arabera, egun honetan galazota dagoz herri bako Meza guztiak. Goizean Krisma Meza emongo da katedralean; eta arratsaldean Jaunaren Afariko Meza parroki alkarteetan.

Krisma Meza

2. Bere artaldearen abadeburutzat hartu behar da Gotzaina, beragandik dator eta berari lotuta dago, zelan edo halan, fededunen Kristogandiko bizia.

Gotzainak bere presbiteroekin ospatzen dauan alkarmeza honek presbiteroek euren Gotzainagaz daben alkartasuna adierazo behar dau. Beraz, Meza hau Gotzainagaz batera ahal daben presbitero guztiek emotea komeni da, eta jaunartzea ogi-ardaoen itxurapean izatea. Eleizbarrutiko presbitero guztien batasuna adierazoteko, Gotzainagaz batera Meza emoten daben presbiteroak eleizbarrutiko eskualde desberdinetakoak izatea komeni da.

Gotzainak sagaratutako krismaz igurtziak dira bateatu barriak eta markatuak Sendotza hartzen dabenak. Kristaugaien orioaz prestatzen dira eta antolatzen Bateorako kristaugaiak. Gaixoen orioaren bidez arintzen jakez hareei gaixotasunak.

Kristau-liturgiak onartu egin dau Itun Zaharreko ohiturea, sagarapen-orioaz igurtziak izaten ziran-eta erregeak, abadeak eta profetak; izan be, hareek Kristoren aurreirudi ziran, eta «Kristo» berbeak «Jaunak igurtzitakoa» esan gura dau.

Era berean, krisma santuaz adierazoten da, Bateoaren bidez Kristoren pazko-misterioan mentatuak izan diran kristauak, beragaz hil dirala, beragaz hobiratuak eta berbiztuak izan dirala, eta haren errege-, abade- eta profeta-ministerioan partaide dirala, eta Sendotzan emoten jaken Espiritu Santuari esker espirituzko oliadura hartzen dabela.

Kristaugaien orioagaz arao edo exorzismoaren eragina zabaldu egiten da; holan, bateatuek, biziaren iturrira hurreratu eta bizi barrira jaio aurretik, deabruari eta pekatuari uko egin ahal izateko indarra hartzen dabe.

Gaixoen orioa –horren erabilera aitatzen dau-eta Santiagok bere gutunean–, gaixoen gorputzeko eta arimako gaixotasunen osagaia da, txarra adoretsu jasan eta gainditu ahal izateko, eta pekatuen parkamena lortzeko.

Gaixoen orioaren eta kristaugaien orioaren bedeinkazinoa, baita krisma sagaratzea be, Gotzainak egiten dau normalean Eguen Santu goizean, Erromako Pontifikalari jarraituz ospatzen dan aparteko Mezan.

3. Baina egun honetan presbiteroak eta kristau-herria Gotzainagaz alkartzea zaila izaten bada, bedeinkazino hau beste egun batera aurreratu leiteke, baina Pazko-egunetik asko urrundu barik, eta beti be, dagokion Meza berezia erabiliz.

4. Sakramenturako gai egokia olibatik lortutako orioa da, edo, egoki eretxi ezkero, landareetatik lortutako beste orioa.

Krisma, orioz eta lurrunez edo gai usaintsuz egina izaten da.

Krismaren prestaera era pribatuan egin leiteke sagaratzearen aurretik, edo Gotzainak egin leike liturgi ospakizunean bertan.

Krisma sagaratzea Gotzainari bakarrik dagokio.

Kristaugaien orioa Gotzainak bedeinkatuko dau Krisma Mezan, gainerako orioakaz batera.

Halan be, helduen Bateoko katekumenotza-ibilbidean oliadura hori egin behar danean, ahalmena emoten jake abade presbiteroei kristaugaien orioa bedeinkatzeko.

Gaixoen oliadurarako orioak Gotzainak bedeinkatua izan behar dau, edo zuzenbideak emondako eskumena nahiz Aulki Santuak berariaz emondako ahalmena dauan abade presbiteroak bedeinkatua.

Zuzenbideak emondako eskumenez bedeinkatu leike:

a) zuzenbidearen arabera Gotzainaren pareko danak.

b) edozein presbiterok, egiazko beharrizana danean.

5. Latindar Eleizan tradizinoz jasotako ohituraren arabera, gaixoen orioaren bedeinkazinoa Eukaristi Otoitza amaitu aurretik egingo da; kristaugaien orioaren bedeinkazinoa eta krisma sagaratzea, barriz, jaunartu ondoren.

Halan be, arrazoi pastoralakaitik, bedeinkazino-ekintza guztia hitzaren liturgiaren ondoren be egin leiteke, gero esango dan ordena gordez.

Gotzainaren, alkarmeza-emoileen eta gainerako zerbitzarien prestaera, eleizako hareen sarrera eta Meza-hasieratik hitzaren liturgia amaitu arte egiten daben guztia, alkarmezea danean lez egingo da. Orioen bedeinkazinoan parte hartuko daben diakonoak presbitero alkarmeza-emoileen aurretik joango dira altarara.

Meza honetan ez da Fede-autormena egingo.

Jainkoaren herriaren otoitza eskari bereziz egina da eta Abadegintzako aginduak barritzeagaz bat eginda dago.

Meza honetan gure Jauna hartzen dabenek hartu leikie barriro arratsaldeko Mezan be.

Prestatu beharrekoak

Orioen bedeinkazinorako, Mezarako beharrezko diranez gainera, beste honeek prestatu behar dira Sakristian edo beste leku egoki baten:

– orio ontziak;
– krisma egiteko usaingarriak, Gotzainak nahasketea liturgia ospakizunean egin gura badau;
– Mezarako ogia, ardaoa eta ura, oparigaien prestaera aurretik eroanak izango dira-eta orioekin batera.

Presbiterioan:
– mahai bat orio ontziak jartzeko, herriak ikusteko moduan eta liturgi ekintza osoan egoki parte hartzeko eran jarrita;
– Gotzainaren aulkia, bedeinkazinoa altara aurrean egitekoa bada.

EUKARISTIAREN OSPAKIZUNA

6.

Sarrera-ant. Jesu Kristok errege eta abade egin gaitu Jainko Aitarentzat. Aintza eta agintea berari gizaldi eta gizaldietan. Amen. Ik. Ap 1, 6

Aintza zeruetan esango da.

7.

Otoitza Oi Jainko, zeure Seme bakarra Espiritu Santuaz igurtziz
Jaun eta Mesias egin dozu;
egizu, bihotz onez, igurtzi berberaz sagaratuak garanok
zure salbazinoaren testigu agertu gaitezala munduan.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

8. Ebanjelioa iragarri ondoren, Gotzainak homilia egingo dau eta, hitzaren liturgian iragarri diran pasarteetan oinarriturik, Abadegintzako oliadurari buruz berba egingo deutse herriari eta presbiteroei; gogoberotu egingo ditu euren lanean leialak izan daitezan; eta Abadegintzako aginduak herriaren aurrean erabarritzea eskatuko deutse.

Abadegintzako aginduak barritzea

9. Homiliaren ondoren, Gotzainak alkarrizketa egingo dau presbiteroekin, honan gitxi gora-behera:

Adiskideok: Kristo Jaunak Apostoluei eta guri Abadetza emondako eguna urtero gogoratzen dogun ospakizun honetan, zeuen Gotzainaren eta Jainkoaren herri santuaren aurrean behin emondako hitza barritu nahi dozue?

Presbiteroek danek batera, erantzungo dabe:

Bai, nahi dot.

Zeuen buruari uko eginez eta zeuen abadegintza-egunean Kristoganako maitasunez eta Eleizearen zerbitzurako pozik hartu zenduezan eginkizun santuak bete nahi dituzuela barriro aginduz, Jesus Jaunagaz estuago lotu eta haren antzeko izan nahi dozue?

Presbiteroek: Bai, nahi dot.

Lurreko ondasunen goseak ez, gizon-emakumeen onak bakarrik eragiten deutsuela baino, Eukaristiaren eta beste liturgi ekintzen bidez, jainkozko misterioen banatzaile leialak izan, eta buru eta artzain dan Kristori jarraituz hitzaren zerbitzua leial bete nahi dozue?

Presbiteroek: Bai, nahi dot.

Ondoren, Gotzainak, herriari begira, jarraituko dau:

Eta orain, egin daigun danok otoitz zeuen presbiteroen alde: bedeinkatu dagizala Jaunak oparo, izan daitezala Kristo abade nagusiaren zerbitzari leial eta eroan zagiezala zuek harengana, bera da-eta salbazino-iturri bakarra. Eskatu deiogun Jaunari.

Herriak: Entzun, Jauna, gure eskaria.

Eta egin otoitz nire alde ere, gizon ezereza izan arren, niri emon eusten apostolu-eginkizuna leial bete dagidan; eta zuen artean abade, artzain on, maisu eta guztien zerbitzari dan Kristoren irudi gero eta biziagoa eta beteagoa izan naiten. Eskatu deiogun Jaunari.

Herriak: Entzun, Jauna, gure eskaria.

Gorde gaizala Jaunak guztiok bere maitasunean, eta berak eroan gaizala danok, artzain eta artalde, betiko bizitzara.

Herriak: Amen.

10. Sinisten dot ez da esango.

11.

Oparigaien gainekoa Sakrifizio honen indarrak, Jauna,
garbitu gaizala pekatuzko izaera zaharretik;
barritu dagiala gugan bizia eta ekarri deigula salbazinoa.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

12.

Prefazioa: KRISTOREN ABADETZA ETA ABADEEN MINISTERIOA

℣. Jauna zuekin.
℟. Eta zure espirituarekin.

℣. Gora bihotzak.
℟. Jaunagan daukaguz.

℣. Eskerrak Jaungoiko gure Jaunari.
℟. Egoki da eta zuzen.

Egoki da, bai, eta zuzen,
bidezko eta salbagarri,
nonahi eta beti guk Zuri eskerrak emotea,
Jauna, Aita guztiz santu,
Jainko ahalguztidun betiko horri.

Zure Seme bakarra, Espiritu Santuaz gantzuturik,
itun barri eta betikoaren Abade Nagusi egin zenduan-eta,
eta, zure salbamen-asmo miragarrian,
haren abadetza bakarrak Eleizan beti irautea erabagi.

Zure Semeak, izan ere,
errege eta abade egin dau bere herri aukeratua
eta, gainera, senide-maitasunez,
herri honetako gizon batzuk aukeratu ditu,
esku-ezartzearen bidez
bere abade-zerbitzuan parte izan dagien.

Honeek, Kristoren izenean,
salbamenaren sakrifizioa gertabarritzen dabe,
zure seme-alabei pazko-afaria prestatuz;
eta zure herri santua zerbitzen dabe maitasunean,
zure hitzaz janaritzen
eta zure sakramentuez indartzen.

Zugaitik, Jauna, eta senideen salbamenerako bizia eskeiniz,
Kristoren antzeko egin daitezala
eta Zuganako fedearen eta maitasunaren
testigu zintzo agertu daitezala beti.

Horregaitik, geuk ere, aingeru guztiekin batera,
goresten zaitugu, Jauna,
poz betean [esanez] kantari:

Santu, Santu, Santua...




Egoki da, bai, eta zuzen, bidezko eta sal-ba-ga-rri, no-na-
hi eta beti guk Zuri eskerrak e-mo-te-a, Jauna, Aita guz-
tiz san-tu, Jainko ahalguzti-dun be-ti-ko ho-rri.
Zure Se-me bakarra, Espiritu Santuaz gan-tzu-tu-rik, itun barri eta
betikoaren Abade Nagusi egin zen-du-la-ko eta, zeure salbamen–
–asmo miraga-rri-an, haren abadetza bakarrak Eleizan beti i-rau-te-
a e-ra-ba-gi. Zure Seme-ak, izan ere, errege eta abade egin
dau bere herri auke-ra-tu-a eta, gaine-ra, senide–maitasunez,
herri honetako gizon batzuk aukera-tu di-tu, esku–ezartzea-ren
bi-dez bere abade–zerbitzuan par-te i-zan da-gi-en. Hone-ek,


Kristoren izenean, salbamenaren sakrifizioa gertabarri-tzen da-be,
zure se-me–alabei pazko–afaria pres-ta-tuz; eta zure herri santua
zerbitzen dabe maita-su-ne-an, zure hitzaz jana-ri-tzen
eta zure sakra-men-tu-ez in-dar-tzen.
Zugaitik, Jau-na, eta senideen salbamenerako bizia es-kei-niz,
Kristoren antzeko egin dai-te-za-la eta Zuganako fedearen eta
maitasunaren testigu zin-tzo a-ger-tu dai-te-za-la be-ti.
Horregai-tik, geuk ere, aingeru eta santu guztiekin ba-te-ra,
goresten zaitu-gu, Jau-na, poz be-te-an kan-ta-ri:

13.

Jaunartze-ant. Jauna, zure maitasun-egintzak kantatuko ditut beti, zure leialtasuna iragarriko gizaldiz gizaldi. Sal 89 [88], 2

14.

Jaunartze ondorengoa

Jainko ahalguztiduna,
egizu, zeure sakramentuez ase dituzunak
Kristoren usain on izan daitezala munduan.
Errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

15. Orio santuei parrokia bakotxean harrera egitea Jaunaren Afariko Arratsaldeko Meza aurretik antolatu daiteke, nahiz eta egokiagoa dirudian beste une baten.

ORIOEN BEDEINKAZINOA ETA KRISMA SAGARATZEA

Oparigaien prozesinoa

Abadegintzako aginduak barritu ondoren, izentatutako diakonoek eta gainerako zerbitzariek orioak eroango dabez; diakonorik ez balitz, presbitero eta zerbitzari batzuek, nahiz ogia, ardaoa eta ura eroango dabezan fededunak, sakristiara edo orioak eta gainerako oparigaiak jarri diran lekura joango dira ordena egokian.

Altarara bihurtzean, honan joango dira: lehenengo, krismaren nahasketa Gotzainak berak egin gura badau, lurrun usaintsuaren ontzia daroan zerbitzaria; gero, kristaugaien orio ontzia daroan zerbitzaria, bedeinkatu behar bada; jarraian, gaixoen orio ontzia daroan zerbitzaria. Azkenik, diakono edo presbitero batek krismarako orioa eroango dau. Horreen ondoren, Eukaristi ospakizunerako ogia, ardaoa eta ura daroezan zerbitzariak joango dira.

Prozesino hau eleizan zehar egin bitartean, abesbatzak O Redemptor gorazarrea abestuko dau, kristau-batzarrak be parte hartzen dauala, nahiz beste kantu egokiren bat, oparigaiak aurkezteko kantuaren ordez.

Gorazarrea

O Redémptor, sume carmen
Temet concinéntium.

Arbor feta alma luce
Hoc sacrándum prótulit,
Fert hoc prona præsens turba
Salvatóri sæculi.

Consecráre tu dignáre,
Rex perénnis patriæ,
Hoc olívum, signum vivum,
lura contra dæmonum.

Ut novétur sexus omnis
Unctióne chrísmatis:
Ut sanétur sauciáta
Dignitátis glória.

Lota mente sacro fonte
Aufugántur crímina,
Uncta fronte sacrosáncta
Influunt charísmata.

Corde natus ex Paréntis,
Alvum implens Vírginis,
Præsta lucem, claude mortem
Chrísmatis consórtibus.

Sit hæc dies festa nobis
Sæculórum sæculis,
Sit sacráta digna laude
Nec senéscat témpore.

Altarara edo gotzain-aulkira heltzean, Gotzainak onartu egingo ditu dohaiak. Krisma santurako orio ontzia daroan diakonoak Gotzainari aurkeztuko deutso, ahots ozenez esanez: Krisma santurako orioa; Gotzainak onartu eta laguntzen deutsoen diakonoetako bati emongo deutso; honek prestatutako mahaian jarriko dau. Gauza bera egingo dabe gaixoen oliadurarako eta kristaugaientzako orio ontziak daroezanek. Lehenengoak esango dau: Gaixoen orioa; besteak, Kristaugaien orioa. Gotzainak onartuko ditu orio ontzi biak eta prestatutako mahaian jarriko dabez zerbitzariek.

Alkarmeza emoten danean lez egingo da Mezea, Eukaristi Otoitza amaitu arte, bedeinkazinoaren ohikunea behingoan egitekoa ez bada. Kasu honetan, gero esango dan eran egingo da dana.

Gaixoen orioaren bedeinkazinoa

Gotzainak, I. Eukaristi Otoitzean, Honen bitartez, Jauna, beti gauza on guztiak egiten dozuz... esan aurretik, edo gainerako Eukaristi Otoitzetan Honen bitartez, honekin eta honengan... doxologia esan aurretik, gaixoen orio ontzia eroan dabenek altara ondora eroango dabe eta Gotzainaren aurrean eukiko; Gotzainak otoitz hau esanez bedeinkatuko dau gaixoen orioa:

Oi Jainko, kontsolamentu guztien Aita,
Zuk zeure Semearen bidez osatu nahi izan dozuz
gaixoen gaixotasunak;
entzun bihotz onez guk fedez egiten deutsugun otoitza:
isuri egizu zerutik Espiritu Santu Laguntzailea
orio-gantzu honen gainera,
Zuk emonazo deutsazu olibondo hezeari
gure gorputza indartzeko.
Aberastu egizu orio hau ✠ zeure bedeinkazino santuaz,
honegaz gantzutuak izango diranek
sumatu dagien euren gorputzean,
ariman eta espirituan zure laguntza
eta desagertu dakiezan era guztietako oinazeak,
gaixotasunak eta ondoezak.
Zuk, Jauna, bedeinkatu dozun orio hau
izan bedi orio santu guretzat
Jesu Kristo gure Jaunaren izenean.
[Errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.
℟. Amen.]

Errege bizi da-eta amaiera bedeinkazinoa Eukaristi Otoitzetik kanpo egiten danean bakarrik esango da.

Bedeinkazinoa amaitzean, gaixoen orio ontzia bere lekura eroango da barriro, eta Mezeagaz jarraituko da jaunartze ondorena arte.

Kristaugaien orioaren bedeinkazinoa

Jaunartze ondorengo otoitza esandakoan, zerbitzariek, bere sasoian altara aurrean ipini izango dan mahai gainean jarriko dabez bedeinkatzekoak diran orioen ontziak. Gotzainak, presbitero alkarmeza-emoileak bere albo bietan, zirkulu erdia eratuz dituala, eta gainerako zerbitzariak bere atzean, kristaugaien orioa bedeinkatuko dau, bedeinkatu behar bada, eta ondoren krisma sagaratuko.

Dana prest dagoanean, Gotzainak, zutunik herriari begira eta besoak zabalik, otoitz hau esango dau:

Oi Jainko, zeure herriaren indarra eta babesa zarana,
bizi-indarraren irudi egin dozu Zuk orioa;
bedeinkatu egizu ✠ orio hau
eta honegaz gantzutuak izango diran kristaugaiei
emoiezu indarra,
jainkozko jakituria eta kemena harturik
Kristoren Ebanjelioa sakonago ulertu dagien,
kristau-bizitzako zereginei adoretsu ekin deieen,
eta, zure seme-alaba ordeko eginik,
bizi barrira jaio izanaz eta Eleizako kide izateaz
poztu daitezan.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.
℟. Amen.

Krisma sagaratzea

Jarraian, Gotzainak lurrunak isuriko ditu oriora eta krisma egingo dau, ezer esan barik, lehenago prestatuta ez balego.

Hori eginik, otoitzerako deia egingo dau:

Senideok: Eskatu deiogun Jainko Aita ahalguztidunari bedeinkatu eta sagaratu dagiala gantzu hau, beragaz gorputzean kanpotik gantzutuak izango diranek Jainkoaren ontasunaren igurtzia sumatu dagien euren barruan eta salbazino-frutuak hartzeko gai izan daitezan.

Orduan, Gotzainak, egoki begitandu ezkero, putz egingo dau krisma-ontziaren ahoan eta, besoak zabalik, ondoren datozan sagara-otoitzetako bat esango dau:

I. aukera

Oi Jainko,
hazkunde guztien eta espirituzko aurrerapen guztien egilea,
onartu atseginez Eleizeak, gure bitartez,
eskeintzen deutsun esker ona.

Munduaren hasieran, frutua ekarriko eben zuhaitzak
lurretik sortu eitezala agindu zenduan,
eta, horreen artean,
orain krisma santua prestatzeko orioa emoten deuskun
olibondoa sortu zenduan.

Davidek ere
geure aurpegia poz-orioz alaitzera dei egin euskun kantuz,
gizakien onerako Zuk maitasunez
eratuko zenduzan sakramentuak
espiritu profetikoz aurreikusirik.

Eta uholde handiaren egunetan,
munduko pekatuaren zorra ordaindua izan zanean,
uso batek, geroko graziaren ezaugarri,
gizakien arteko bakea berregin zenduala adierazo eban
olibo-adarraren bidez.

Eta azken aldietan,
oliaduraren esanahia bere betera heldu da:
Bateoko urak guztion pekatuak garbitu ondoren,
atsegingarri eta baketsu bihurtzen dau-eta
gure aurpegia oliadura honek.

Horregaitik, Jauna,
Zuk agindu zeuntsan Moises zeure zerbitzariari,
bere anaia Aaron uretan garbitu ondoren,
abade sagaratu egiala orio honegaz gantzutuz.

Oliadurak oraindino ospe handiagoa hartu eban,
zure Seme Jesu Kristo gure Jaunak
Jordan ibaian Joani bateoa eskatu eutsonean.

Izan ere, Zuk uso itxuran goitik Espiritu Santua bialdurik,
zure ahotsaren testigantzaz agertu zenduan
Seme bakar harengan zenduala atsegin osoa.

Holan, agirian jarri zan,
Kristori buruz berba egin ebala Davidek,
profeta-hitzez esan ebanean:
«Jainkoak igurtzi zaitu jai-orioz, zeure lagunen gainetik».

Alkarmeza-emoile guztiek krismarantz luzatuko dabe eskumako eskua, ezer esan barik, eta holan eukiko otoitza amaitu arte.

Zuri, beraz, eskatzen deutsugu, Jauna,
santu egin daizula zeure bedeinkazinoz ✠ orio hau
eta emon deiozula Espiritu Santuaren indarra
Kristo zure Semearen ahalmenez,
harengandik datorkio-eta orio honi krisma izena;
hain zuzen, beragaz igurtzi zenduzan abadeak,
erregeak, profetak eta martiriak;
egizu, krisma hau izan dadila,
Bateoan espirituzko bainuaz erabarrituak izango diranentzat,
salbazinoaren eta kristau-bizitza betearen
sakramentu eta sendotasun;
oliadura honen bidez sagaratuek,
lehenengo jaiotzako ustelkeria hondaturik
eta zure handitasunaren tenplu eginik,
bizitza santuaren usain gozoa zabaldu dagiela;
Zuk eratutako sakramentuaren arabera,
errege-, abade- eta profeta-ohorez gantzuturik,
hondatzen ez dan jantzia eroan dagiela;
orio hau izan dadila,
urez eta Espiritu Santuaz barriro jaioko diranentzat,
salbazinoko krisma,
emon deiela betiko bizian parte izatea
eta egin daizala aintza zerutarraren oinordekide.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.
℟. Amen.

Edo beste otoitz hau:

II. aukera

Oi Jainko, sakramentuen egilea eta bizi-emoilea,
eskerrak emoten deutsuguz neurri bako zure ontasunakaitik.
Zuk orio santutzailearen misterioa
iragarri zenduan Itun Zaharrean,
eta, sasoia bete zanean, bere distira osora eroan zenduan
Kristo zeure Seme maiteagan.
Izan ere, zure Seme Jesu Kristo gure Jaunak
pazko-misterioaz gizadia salbatu ebanean,
Espiritu Santuaz bete eban Eleizea
eta dohai zerutarrez miresgarri aberastu,
beraren bidez salbazino-egintza
bere betera heldu zedin munduan.

Horregaitik, Jauna, krisma santuaren sakramentuaz
zeure graziaren aberastasunak eskeintzen deutsezuz gizakiei,
Bateoko garbialdian barriro jaiorik,
zure seme-alabak Espirituaren oliaduraz
sendotuak izan daitezan
eta, Kristo zure Semearen irudiko eginik,
haren profeta-, abade- eta errege-eginkizunean
parte izan dagien.

Alkarmeza-emoile guztiek krismarantz luzatuko dabe eskumako eskua, ezer esan barik, eta holan eukiko otoitza amaitu arte.

Zuri, beraz, eskatzen deutsugu, Jauna,
zure graziaren indarrari esker,
lurrunaren eta orioaren nahasketa hau
zure bedeinkazinoaren ✠ sakramentu egin dadila guretzat;
emon oparo zeure Espiritu Santuaren dohaiak
krisma honegaz gantzutuak izango diran gure senideei;
edertu santutasunaren distiraz
orio honegaz sagaratutako lekuak eta gauzak;

Baina, beste ezer baino lehen, egizu,
gantzu honen sakramentuaren bidez,
Eleizea hazi dadila,
Kristoren betetasunaren neurriko izatera heldu arte
eta Zu, betiko argiaren distiraz,
Kristogaz Espiritu Santuagan
danetan dana izango zaran arte,
gizaldi eta gizaldi guztietan.
℟. Amen.

Orioen bedeinkazinoko ohikune osoa hitzaren liturgiaren ondoren egitekoa danean, Jainkoaren herriaren otoitza amaitutakoan, Gotzaina, alkarmeza-emoileekin batera, kristaugaien orioaren eta gaixoen orioaren bedeinkazinoa, eta krisma sagaratzea egingo dan mahaira hurreratuko da, eta dana lehen esan dan lez egingo da.

Meza-amaierako bedeinkazinoa emondakoan, Gotzainak intsentsua jarriko dau intsentsu-ontzian, eta diakonoak Zoaze Jaunaren bakean esan ondoren sakristiarako prozesinoa antolatuko da.

Bedeinkatutako orioak kurutzearen jarraian eroango dabez zerbitzariek. Abesbatzak nahiz herriak O Redémptor gorazarreko ahapaldi batzuk abestuko ditu, edo beste kantu egokiren bat.

Sakristian, Gotzainak, egoki eretxi ezkero, orio santuak benerazinoz eta ohorez erabili eta arduraz gorde behar dirala esan leikie presbiteroei.

PAZKO HIRURREN SANTUA

1. Eleizeak, Pazko Hirurrenean, gure salbazinoko misterio nagusiak ospatzen ditu; gure Jauna kurutzeratua, hobiratua eta berbiztua izan zaneko gomutea egiten dau ospakizun berezietan.

Leku guztietan egin beharrekoa da Jaunaren Nekaldiko Bariku Santuko pazko-barau sakratua, egoki begitandu ezkero Zapatu Santura be luzatu leitekena, Jaunaren Biztuerako poza gozatzera gogo biziz prestatzeko.

2. Pazko Hirurreneko ospakizunak egoki egin ahal izateko, beharrezko da gitxieneko laguntzaile laikoen talde bat izatea, eta bete behar dabezan eginkizunei buruz horreei prestaera emotea.

Egun honeetako ospakizunetan garrantzi berezia dau herriaren, laguntzaileen eta buru dan abadearen kantuak; izan be, kantuz iragartzen diranean hartzen dabe testuek euren indar berezia. Ahaleginak egin beiez eleiz artzainek fededunei erarik egokienean ospakizunen esanahia eta zatiak azaltzen, eta behar dan prestaera emoten, guztiek biziro eta onuraz parte hartu dagien.

3. Pazko Hirurreneko ospakizunak gotzain-eleizetan, parrokietan eta ohikuneak egoki egin leitekezan tokietan egingo dira, hau da, fededunen talde nahiko zabala, laguntzaileen gitxieneko kopurua eta zati batzuk behintzat kantuz egin leitekezan tokietan.

Beraz, alkarte txikiak eta edozein eratako talde berezi murritzak beste eleiza horreetan batzea komeni da, ospakizun sakratu honeek era duinagoan egin ahal izateko.

JAUNAREN AFARIKO EGUEN SANTUA

Arratsaldeko meza

1. Jaunaren Afariko Mezea arratsaldean, ordurik egokienean eta parrokiako alkarte osoak bete-betean parte harturik ospatuko da, eta abade eta beste eleiz zerbitzari guztiek, dagokiezan eginkizunak betetzen dabezala.

2. Abade guztiek hartu leikie parte alkarmezan, egun horretan Krisma Mezea emon badabe be edo baita herriaren zerbitzurako beste Meza bat emon behar badabe ere.

3. Arrazoi pastoralak halan eskatzen dauanean, Gotzainak edo lekuko Ordinarioak emon leike baimena eleizetan eta kultu-lekuetan beste Meza bat emoteko arratsaldean; eta, behar-beharrezko danean, baita goizean emoteko be, baina arratsaldeko Mezara ezelan be joan ezin diran kristauentzat bakarrik.

Baina, kontu izan behar da, Meza honeek bakartxu batzuren onerako bakarrik eta arratsaldeko Meza nagusiaren kaltetan izan ez daitezan.

4. Gure Jauna Meza barruan bakarrik emon leiteke; gaixoei, ostera, eguneko edozein ordutan.

5. Altarea lorez apainduko da, baina egun honi dagokion neurritasunez. Sagrarioak huts-hutsik egon behar dau; abadeek eta kristauek gaur eta bihar jaunartzeko behar dan beste ogi Meza honetan sagaratu behar da.

6.

Sarrera-ant. Jainkoak libra gaizala harrotzetik, Jesu Kristo gure Jaunaren kurutzean izan ezik; kurutze horretan dago gure salbazinoa, bizia eta biztuera; berak salbatu eta askatu gaitu. Ik. Ga 6, 14

7. Aintza zeruetan esango da. Gorazarrea abesten dan bitartean kanpaiak joko dira, eta amaitzen danetik Pazko Gaubelan Aintza zeruetan abestuko dan arte isilduko, eleizbarrutiko Gotzainak, egoki eretxi ezkero, besterik erabagiten ez badau. Aldi honetan organoa eta beste musika-tresnak be kantuari eusteko bakarrik erabili leitekez.

8.

Otoitza Oi Jainko, zure Seme bakarrak
bere burua heriotzara emon aurretik
betiko Itunaren sakrifizio barria itzi eutson Eleizeari;
haren maitasun-agiri dan Afari santua ospatzera
batu gaituzu arratsalde honetan;
egizu, misterio handi hau ospatzeak
bete gaizala maitasunez eta bizi barriz.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

9. Ebanjelioa aldarrikatu ondoren, abadeak homilia egingo dau, Meza honetan gogoratzen diran misteriorik nagusienak aitatuz: Eukaristiaren eta Abadetzaren erakuntza, eta senideak maitatzeko Jaunak emondako agindua.

Oinak garbitzea

10. Homiliaren ondoren, ikuspegi pastoraletik egoki bada, oinak garbitzea egingo da.

11. Horretarako Jainkoaren herriaren artetik aukeratuak izan diranak aurrez ipinirik dagozan jesarlekuetara eroango dabez laguntzaileek. Gero, abadea (halan behar izan ezkero, kasuilea itzirik) bakotxagana hurreratuko da, eta laguntzaileek oinak urez bustitzen eta lehortzen lagunduko deutsoe.

12. Bitartean, ondoren datozan antifonak edo beste kantu egokiren batzuk abestuko dira.

1. antifona Jagi zan Jauna mahaitik, ontzi bat urez bete eta ikasleei oinak garbitzen hasi jaken; jarraibide hau itzi eutsen ikasleei.
Ik. Jn 13, 4.5.15

2. antifona Jesus Jaunak, bere ikasleakaz afaldu ondoren, oinak garbitu eutsezan, eta esan eutsen: Ulertzen dozue Nik, Maisua eta Jauna izanik, egin deutsuedana? Jarraibide emon deutsuet, zeuok ere Nik zuekin lez jokatu dagizuen. Ik. Jn 13, 12.13.15

3. antifona

℟. Jauna Zuk niri oinak garbitu? Jesusek erantzun eutson: Garbitzen ez bazaitut, ez dozu Nirekin zerikusirik izango.
℣. Simon Pedrogana heldu zanean, honek esan eutson: - Jauna, Zuk niri oinak garbitu? Jesusek erantzun eutson:
℣. Nik egiten dihardudana zuk ez dozu orain ulertzen; geroago ulertuko dozu. ℟. Jn 13, 6.7.8

4. antifona

Nik, Maisua eta Jauna izanik, oinak garbitu badeutsuedaz, zenbatez gehiago garbitu behar deutsazuez zuek oinak alkarri. Ik. Jn 13, 14

5. antifona

℟. Honetan ezagutuko dabe guztiek nire ikasle zariena: zuek alkar maite izatean.
℣. Jesusek esan eutsen ikasleei: ℟. Ik. Jn 13, 35

6. antifona

Agindu barria emoten deutsuet: maitatu dagizuela alkar, Nik maite izan zaituedan lez, dino Jaunak. Jn 13, 34

7. antifona

℟. Iraun begie zuekan hiru honeek: sinismenak, itxaropenak eta maitasunak; baina hiruretan handiena maitasuna da.
℣. Hiru gauza doguz oraindino, iraunkor diranak: sinismena, itxaropena eta maitasuna; baina hiruretan handiena maitasuna da. ℟.
Ik. 1 Ko 13, 13

13. Oinak garbitu ondoren, abadeak eskuak garbituko ditu eta lehortuko; barriro kasuilea jantzi eta jesarlekura joango da; eta handik Jainkoaren herriaren otoitza zuzenduko dau.

Sinisten dot ez da esango.

Eukaristiaren liturgia

14. Eukaristiaren liturgia hastean, fededunen prozesinoa eratu leiteke, ogi-ardaoekin batera behartsuentzako opariak aurkezteko.

Bitartean ondorengo kantu hau edo beste kantu egokiren bat abestuko da.

℟. **Maitasuna non / han Jainkoa,**
maita dagigun / lagun hurkoa.

1. Maitasun berean / Kristok batu gaitu.
Poztu gaitezan eta / beragan alaitu.
Gurtu eta maitatu / dagigun Jainkoa,
alkarrentzat izan / maitasun zintzoa. ℟.

2. Jaunak alkartuta / gaur batu bagara,
bake txarrak bota / daiguzan sutara;
auziak aldendu, / itzi gorrotoa.
Bego gure erdian / Jesus Jaungoikoa. ℟.

3. Gero santuekin / alkartasunean,
Sartuko ahal gara / zorion betean,
Zu, Kristo, ikusiz / zeure ederrean,
aurpegiz aurpegi / betitasunean. ℟.

15.

Oparigaien gainekoa

Egizu, Jauna, parte hartu daigula sarri sakramentu honetan,
gure erospena barritzen da-eta
Jaunaren opariaren oroigarri hau ospatzen dogun bakotxean.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Prefazioa

16. KRISTOREN SAKRIFIZIOA ETA SAKRAMENTUA

℣. Jauna zuekin.
℟. Eta zure espirituarekin.

℣. Gora bihotzak.
℟. Jaunagan daukaguz.

℣. Eskerrak Jaungoiko gure Jaunari.
℟. Egoki da eta zuzen.

Egoki da, bai, eta zuzen,
bidezko eta salbagarri,
nonahi eta beti guk Zuri eskerrak emotea,
Jauna, Aita guztiz santu,
Jainko ahalguztidun betiko horri,
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Bera dogu egiazko eta betiko Abade:
behin betiko sakrifizio barria eratu nahirik,
bere burua eskeini eutsun opari salbagarri
eta guri agindu euskun
opari hau beraren oroigarri eskeintzeko;
horrelan, guretzat eskeinitako Gorputza jatean,
indarrez betetzen gara
eta, guretzat isuritako Odola edatean,
geure pekatuetatik garbitzen.

Horregaitik, aingeru eta goiangeruekin,
ahalmen, nagusitza
eta zeruko talde guztiekin,
zure aintzari gorazarre hau
beti eta beti [esaten] abesten deutsagu:

Santu, Santu, Santua,
diran guztien Jainko Jauna.
Zeru-lurrak beterik daukaz zure distirak.
Hosanna zeru-goienetan!
Bedeinkatua Jaunaren izenean datorrena.
Hosanna zeru-goienetan!




Egoki da, bai, eta zuzen, bidezko eta sal-ba-ga-rri, no-na-hi eta
beti guk Zuri eskerrak e-mo-te-a, Jauna, Aita guz-tiz san-tu,
Jainko ahalguztidun betiko ho-rri, Jesu Kristo gure Jau-na-ren
bi-tar-tez. Bera do-gu egiazko eta betiko A-ba-de: behin beti-
ko sakrifizio barria eratu na-hi-rik, bere burua eskeini eutsun opari
sal-ba-ga-rri eta guri agindu eus-kun opari hau beraren o-roi-ga-rri
es-kein-tze-ko; ho-rre-lan, guretzat eskeinitako Gorputza ja-te-an,
indarrez bete-tzen ga-ra eta, guretzat isuritako Odola eda-te-an,
geure pekatu-e-ta-tik gar-bi-tzen. Horregai-tik, aingeru eta goi-
ain-ge-ru-e-kin, ahalmen, nagusitza eta zeruko talde guz-ti-
e-kin, zure aintzari goraza-rre hau beti eta beti a-bes-ten deu-tsa-gu:

17. Erromako kanona edo I. Eukaristi Otoitza erabiliko danean, hemen ondoren, 18. zk.an eta ondorengoetan datorren eran egingo da dana.

II. eta III. Eukaristi Otoitzetan be bada Eguen Santuko Jaunaren Afariko Meza honi dagokion aipamena. (ik. 581. eta 594. or.)

18. Abadeak, besoak zabalik, esango dau:

Meza-emoile nagusiak

Zuri, beraz, Aita guztiz on horri,
zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
apalik eskatzen deutsugu,

Eskuak batu eta esango dau:

onartu eta bedeinkatu ✠ dagizuzala

Kurutze-seinalea egingo dau, behin bakarrik, ogiaren eta kalizaren gainean, esanez:

emoitza, dohai eta sakrifizio garbiok.

Besoak zabalik, jarraituko dau:

Zure Eleiza santu eta katolikoaren alde
eskeintzen deutsugu lehenengo:
emoiozu mundu zabalean bakea eta batasuna
eta zaindu egizu bide zuzenean,
zeure zerbitzari I. gure Aita Santuarekin,
I. gure Gotzainarekin,

Meza Gotzainak bere eleizbarrutian ospatzen dauanean, esango dau:

nirekin, zure zerbitzari ezerez honekin,

Eleizbarrutikoa ez dan beste Gotzain bat danean, ik. *Erromako Meza Liburuaren Eraketa Orokorra,* 31. or.ko, 149. zk.an zelan egin aipamen hau.

eta eta Apostoluen siniste katolikoa
osorik zaintzen daben gainerako Gotzain guztiekin.

19. Bizien aldeko oroitzapena.

Alkarmeza-
-emoile batek

Izan gogoan, Jauna,
guk gogoan doguzan I. eta I. zure seme-alabak

Eskuak batu eta otoitz laburra egingo dau, gogoratu nahi dituanen alde.
Gero, besoak zabalik, jarraituko dau:

eta hemen diran guztiak:
ezagutzen dozu honeen siniste zintzoa.
Danon izenean eskeintzen deutsugu gorespen-opari hau
eta eurek ere eskeintzen deutsue,
bai eurentzat, bai euren artekoentzat,
pekatuen parkamenerako
eta itxaroten daben gorputz-arimen salbazinorako;
horretarako egiten deutsuez euren otoitzak Zuri,
betiko Jainko bizi eta egiazko horri.

20. Santuen oroitzapena

Alkarmeza-
-emoile batek

Danok, Eleiza osoarekin bat eginik,
Jesu Kristo gure Jauna gugaitik saldu ebeneko
egun santu hau ospatzen dogu,
eta aitatzen eta goresten ditugu:
lehenengo, Maria beti Birjina dohatsua,
gure Jaun eta Jainko Jesu Kristoren Ama,
eta haren senar Jose santua,
baita zure Apostolu eta martiri santuak ere:
Pedro eta Paulo, Andres,
[Santiago, Joan, Tomas, Santiago eta Felipe,
Bartolome, Mateo, Simon eta Tadeo,
Lino, Kleto, Klemente eta Sixto,
Kornelio, Zipriano, Lorentzo eta Krisogono,
Joan eta Paulo, Kosme eta Damian,]
eta zure santu guztiak;
euron merezimentu eta otoitzei esker
emoiguzu, nonahi eta beti, zeure indarra eta laguntza.
[Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. Amen.]

21. Besoak zabalik, jarraituko dau:

Alkarmeza-emoile nagusiak

Hona hemen, Jauna, zure zerbitzarion
eta zure herri osoaren eskeintza:
gaur, Jesu Kristo gure Jaunak ikasleei
bere Gorputz Odolen misterioa ospatzeko
emon eutsen egun honetan, egiten deutsugun eskeintza;
hartu egizu onez,
eratu zeure bakean gure egunak;
betiko heriotzatik atara
eta hartu gaizuz zeure aukeratuen artean.

Eskuak batuko ditu.

[Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. Amen.]

22. Eskuak oparigaien gainean zabalik dituala, esango dau:

Alkarmeza-emoile guztiek

Bedeinkatu, Jauna, eskeintza hau;
izan dadila Zuretzat on eta atsegingarri
eta egin dadila guretzat
zure Seme maite Jesu Kristo gure Jaunaren Gorputz eta Odol.

Eskuak batuko ditu.

23. Hurrengo esaldietan, Jaunaren berbak garbi eta agirian esan behar dira, berba horreek eurek eskatzen dabenez.

Berak, gaurko egunez,
gu eta gizon-emakume guztiak salbatzeko hil bezperan,

Ogia hartu eta, altara gainean apur bat jasorik dauala, jarraituko dau:

bere esku santuetan ogia hartu,

Begiak jasoko ditu.

eta begiak zerura,
Jainko Aita ahalguztidun horrengana, jasorik,
Zuri eskerrak emonez,
bedeinkatu eban, zatitu
eta bere ikasleei emon eutsen, esanez:

Apur bat makurtuko da.

HARTU EIZUE ETA JAN GUZTIOK HONETATIK:
HAU NEURE GORPUTZA DA-ETA,
ZUENTZAT EMONGO DANA.

Ostia sagaratua herriari erakutsiko deutso; gero, patena gainean itzi eta, belaunikaturik, gurtu egingo dau.

24. Ondoren, jarraituko dau:

Era berean, afalondoan,

Kaliza hartu eta, altara gainean apur bat jasorik, jarraituko dau:

bere esku santuetan kaliza baliotsu hau harturik,
barriz ere eskerrak emonez, bedeinkatu eban
eta bere ikasleei emon eutsen, esanez:

Apur bat makurtuko da.

HARTU EIZUE ETA EDAN GUZTIOK HONETATIK:
HAU NEURE ODOLAREN KALIZA DA-ETA,
ITUN BARRI ETA BETIKOAREN ODOLA,
ZUENTZAT ETA ASKORENTZAT
PEKATUAK PARKATZEKO ISURIKO DANA.
EGIZUE HAU NEURE OROIGARRI.

Kaliza herriari erakutsiko deutso; gero, sagara-oihalean itzi eta, belaunikaturik, gurtu egingo dau.

25. Ondoren, esango dau:

Meza-emoile nagusiak Hau da sinismenaren misterioa.

Eta herriak gorapen honeetakoren batekaz erantzungo dau:

Hil eta biztu zarala, Jauna,
Zu barriz etorri arte,
hau dogu, hau, barri ona!

Edo:

Ogi-ardao honeek hartzean,
zeure heriotza dogu autortzen,
Zeu, Jauna, etorri artean.

Edo:

Zeure kurutze eta biztueraz
munduaren salbatzaile zarana,
salba gagizuz, Jesus Jauna!

26. Gero, abadeak, besoak zabalik, esango dau:

Alkarmeza--emoile guztiek

Horregaitik, Jauna,
guk, zure zerbitzariok eta zure herri santu honek,
zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren nekaldi dohatsua,
hilen artetik biztea eta zeruratze miragarria gogoratuz,
Zuri, Jainko handi horri,
Zuk emondako dohaietatik,
opari garbia, opari santua,
opari errubakoa eskeintzen deutsugu,
betiko biziaren ogi santua eta betiko zorionaren kaliza.

27. Eta jarraituko dau:

Hartu egizuz begi on eta argiz:
halan hartu zenduzan
Abel zeure zerbitzari zintzoaren dohaiak,
eta Abraham gure aitaren oparia
eta Melkisedek zeure abade nagusiaren
eskeintza santua eta errubakoa.

28. Makurtuta, eskuak baturik, jarraituko dau:

Apalik eskatzen deutsugu, Jainko ahalguztidun horri:
zure aingeru santuak eroan dagizala ogi-ardao santu honeek
zeruko altarara, Jaun handi horren aurrera;
altara honetatik zure Semearen Gorputz eta Odol santuak
hartzen ditugun guztiok

Zutundu eta, aitaren eginez, esango dau:

zeruko ondasunez eta graziaz bete gaitezan.

Eskuak batuko ditu:

[Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. Amen.]

29. Hildakoen aldeko oroitzapena Besoak zabalik, esango dau:

Alkarmeza-emoile batek

Izan gogoan, Jauna,
sinistearen ezaugarriarekin joan
eta orain bakezko lotan diran I. eta I. zeure seme-alabak.

Eskuak batu eta otoitz laburra egingo dau, gogoratu nahi dituan hildakoen alde. Gero, besoak zabalik, jarraituko dau:

Euroi eta Kristogan atseden daben guztiei
emon, Jauna, zeruan poza, argia eta bakea.

Eskuak batuko ditu.

[Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. Amen.]

30. Eskumaz bularra joko dau, esanez:

Alkarmeza-emoile batek

Geuri ere, zure bihotz onean sinistea dogun pekatarioi,

Besoak zabalik, jarraituko dau:

egiguzu leku zeure Apostolu eta martiri santuen artean:
Joan Bateatzailea, Esteban, Matias eta Bernabe
[Ignazio, Alexandro, Martzelino eta Pedro,
Felizitas, Perpetua, Ines, Zezilia eta Anastasia,]
eta zeure santu guztien artean,
ez guk mereziari begituz,
Zu parkatzaile zaralako baino.

Eskuak batuko ditu.

Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

31. Eta jarraituko dau:

Meza-emoile nagusiak

Honen bitartez, Jauna,
beti gauza on guztiak egiten dituzu,
santutzen, biziazoten, bedeinkatzen eta guri emoten.

32. Patena ostia sagaratuarekin eta kaliza hartu eta, biak jasorik, esango dau:

Meza-emoile nagusiak zein guztiek

Honen bitartez, honekin eta honengan,
Zuri, Jainko Aita ahalguztidun horri,
Espiritu Santuarekin batera,
ospe eta aintza guztia gizaldi eta gizaldi guztietan.

Herriak gorapen honegaz erantzungo dau:

Amen.

Doxologia, hau da, “Honen bitartez” aukerako beste doinuetan emona ik, 620-622. or.etan.

Ondoren, jaunartze-ohikunea egingo da, 623. or.

33. Jaunartze-sasoian, une egokian, abadeak altarako mahaitik eskura emongo deutse Eukaristia diakonoei, akolitoei edo ezohiko jauna-emoileei, euren etxean jaunartuko daben gaixoei jarraian eroan deieen.

34.

Jaunartze-ant. Hau neure Gorputza da, zuentzat emona. Kaliza hau itun barria da, nire Odolaz sinatua, dino Jaunak; egizue hau, hartzen dozuen bakotxean, neure oroigarri. 1 Ko 11, 24-25

35. Jaunartzea amaitutakoan, altara gainean itziko da kopoia, hurrengo egunean jaunartzeko ogi sagaratuagaz. Abadeak, jesarlekuan zutunik, jaunartze ondorengo otoitza esango dau.

36.

Jaunartze ondorengoa

Jainko ahalguztiduna,
gaur ospatu dogun zure Semearen Afarian
indarbarritu gaituzu;
egizu, betiko mahaian be asetu gaitezala.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Sakramentu santua gurtza-tokira eroatea

37. Otoitza esan ondoren, abadeak, altara aurrean zutunik, intsentsua lurrun-ontzian jarri eta bedeinkatu egingo dau eta, belaunikaturik, Sakramentu Santua hirutan lurrunduko. Gero, kolore zurizko bizkar-oihala jarri, zutundu, kopoia eskuetan hartu eta bizkar-oihalaren ertzez estalduko dau.

38. Gero prozesinoa eratuko da, eleizan zehar, eta Sakramentu Santua eroango da, argizari biztuekin eta intsentsuaz lurrunduz, eleizako toki egoki baten aurrez apainduta dagoan altarara. Aurretik laguntzaile laiko bat joango da kandela biztuak dabezan beste laiko biren erdian kurutzea daroala. Jarraian kandela biztuak dabezan beste batzuk joango dira. Sakramentu Santua daroan abadearen aurretik intsentsua daroana joango da, kea dariola. Bitartean, Pange, lingua –hau da, Kanta, Gorputz Santuaren– gorazarrea abestuko da (azkeneko ahapaldi biak itzita), edo beste eukaristia kanturen bat.

39. Prozesinoa Sakramentu Santua gorde behar dan lekura heltzen danean, abadeak, behar izan ezkero diakonoak lagunduta, sagrarioan jarriko dau kopoia, sagrarioko atea zabalik itziz. Ondoren lurrun-ontzian intsentsua jarri, belaunikatu eta Sakramentu Santua lurrunduko dau; bitartean Tantum, ergo, sacramentum –hau da, Sinismen-sakramentua– abestuko da, nahiz beste eukaristia kanturen bat. Gero diakonoak edo abadeak berak sagrarioko atea itxiko dau.

40. Une baten gure Jauna isilik gurtzen egon ondoren, abadea eta laguntzaileak sakristiara bihurtuko dira.

41. Une egoki baten, altarak erantzi egingo dira eta, ahal bada, kurutzeak kendu eleizatik. Eleizan gelditzen diran kurutzeak estaltzea komeni da.

42. Meza honetan parte hartu dabenek ez dabe Bezperetako ordua ospatu beharrik.

43. Fededunei dei egin bekie, lekuan lekuko ohiturak eta beste gorabeherak kontuan harturik, gau honetan denporalditxu bat gure Jauna gurtzen egon daitezan. Baina gauerditik aurrera, gurtza hori ospe barik egingo da.

44. Eleiza berean Bariku Santuan Jaunaren Nekaldiko ospakizuna egitekoa ez bada, Mezea ohi lez amaituko da eta Sakramentu Santua sagrarioan gordeko.

SAGARA




Era berean, afalondoan, bere esku santuetan kaliza baliotsu hau
har-tu-rik, barriz ere eskerrak emonez, be-dein-ka-tu e-ban eta bere
ikasleei emon eutsen, e-sa-nez: HAR-TU EI- ZU-E E-TA E-DAN GUZ-
TI-OK HO-NE-TA-TIK: HAU NEU-RE O-DO-LA-REN KA-LI-ZA
DA E-TA, ITUN BARRI ETA BETIKOA-REN O-DO-LA, ZUENTZAT
E-TA AS-KO-REN-TZAT PE-KA-TU-AK PAR-KA-TZE-KO I-
SU-RI-KO DA-NA. E-GI-ZU-E HAU NEU-RE O-ROI-GA-RRI.

GORAPENA


1
℣. Hau da si-nis-me-na-ren mis-te-ri-o - a.
℟. Hil e-ta biz-tu za-ra-la, Jau - na, Zu ba-rriz
e-to-rri ar - te, hau do-gu, hau, ba-rri o - na!

Edo:


2
℣. Hau da si-nis-me-na-ren mis-te-ri-o-a.
℟. O-gi–ar-dao ho-neek har-tze-an, zu-re he-ri-o-tza
do-gu au-tor-tzen, Zeu, Jau-na, e-to-rri ar-te-an.

Edo:


3
℣. Hau da si-nis-me-na-ren mis-te-ri-o-a.
℟. Zeu-re ku-ru-tze e-ta biz-tu-e-raz mun-du-a-ren
sal-ba-tzai-le za-ra-na, sal-ba ga-gi-zuz, Je-sus Jau-na!

Eskaintza



Doxologia



JAUNAREN NEKALDIKO BARIKU SANTUA

1. Antxina-antxinako ohitura danez, gaurko eta biharko egunetan, Eleizeak ez dau sakramenturik ospatzen, Penitentzia eta Gaixoen Oliadura izan ezik.

2. Egun honetan, Jaunaren Nekaldiko ospakizunaren barruan bakarrik emongo jake gure Jauna kristauei. Ospakizun honetara joan ezin diran gaixoei, ostera, eguneko edozein ordutan eroan leikiee.

3. Altarea guztiz erantzita egongo da: ez kurutze, ez argimutil eta ez altarako zapi.

Jaunaren Nekaldiaren ospakizuna

4. Eguerdi ondorengo orduetan, hirurak aldean, arrazoi pastoralakaitik beranduagoko orduren bat aukeratzen ez bada, Jaunaren Nekaldiaren ospakizuna egingo da. Ospakizun honek hiru zati ditu: hitzaren liturgia, kurutzea gurtzea eta jaunartzea.

5. Abadea eta diakonoa –diakonorik bada–, Mezarako lez gorriz jantzita, altarara doaz isiltasunean, eta, altarea agurtu ondoren, ahuspez etzungo dira edo, egokiago eretxi ezkero, belaunikatu; eta une baten isilik otoitz egingo dabe. Gainerako guztiak belaunikatu egingo dira.

6. Gero abadea, bere laguntzaileekin, jesarlekura joango da. Han, zutunik dagoan herriari begira eta eskuak baturik dituala, ondorengo otoitzetako bat esango dau, Egin daigun otoitz deia egin barik.

Otoitza Jauna, Jesu Kristo zure Semeak,
bere odola gugaitik isuriz sortu eban pazko-misterioa;
izan gogoan zeure bihotz ona eta agertu zeure errukia;
egizuz santu zeure seme-alabak eta zaindu beti.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.
℟. Amen.

Edo:

Oi Jainko,
Kristo zure Seme eta gure Jaunaren nekaldiaz
ezereztu zenduan
lehenengo pekatuak gizon-emakume guztiakana
zabaldutako heriotzea;
egin gaizuz zeure Semearen antzeko,
gure izate mugatuak beharturik
gizaki lurtarraren irudia daroagunok
zure grazia santutzaileari esker
gizaki zerutarraren irudia be eroan daigun.
Errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.
℟. Amen.

I. Hitzaren liturgia

7. Gero, danak jesarrita dagozala, lehenengo irakurgaia iragarriko da Isaias profetaren liburutik (52, 13–53,12) bere salmoagaz.

8. Jarraian bigarren irakurgaia iragarriko da, Hebrearrei egindako gutunetik (4, 14-16; 5, 7-9) eta Ebanjelio aurreko kantua.

9. Azkenik Jaunaren Nekaldiaren kontakizuna aldarrikatuko da San Joanen ebanjeliotik (18, 1–19, 42), aurreko domekan lez.

10. Jaunaren Nekaldia iragarri ondoren, homilia labur bat egingo dau abadeak, eta, amaieran, dei egingo deutse kristauei une baten otoitz egin dagien.

Jainkoaren herriaren otoitza

11. Hitzaren liturgia Jainkoaren herriaren otoitzagaz amaituko da. Honan egingo da otoitz hori: diakonoak –diakonorik bada–, edo, ez balego, laguntzaile laikoak, irakurtokian zutunik otoitzaren asmoa agertzen dauan deia egingo dau. Ondoren, guztiek une baten otoitz egingo dabe isilik; gero, abadeak jesarlekuan zutunik edo, egoki eretxi ezkero, altaran, besoak zabalik dituala, otoitza esango dau.

Bitartean, eleiztarrak belaunikaturik nahiz zutunik egongo dira.

12. Abadeak otoitza esan aurretik, tradizinoari jarraituz, diakonoak Belaunikatu gaitezan – Zutundu zaiteze deia egin leike, eta guztiak belaunikatu egingo dira, isilean otoitz egiteko.

13. Herriaren egoera larriren bat izaten danean, eleizbarrutiko Gotzainak emon leike baimena edo agindua be beste asmo bereziren baten aldeko otoitza sartzeko.

l. Eleiza santuaren alde

Senideok, egin dagigun otoitz Jainkoaren Eleiza santuaren alde: gure Jaun eta Jainkoak bakea, batasuna eta laguntza emon deiola mundu zabalean; guri, barriz, bizimodu baketsua, Jainko Aita ahalguztiduna goresteko.

Isilunea otoitzerako. Gero, abadeak:

Jainko ahalguztidun betikoa,
Kristogan herrialde guztiei agertu deutsezu zeure aintza;
zaindu egizu zeure maitasunaren egintza,
mundu guztian zabaldurik dagoan zure Eleizeak
sinismenean sendo iraun dagian eta zure izena autortu.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.
℟. Amen.

2. Aita Santuaren alde

Egin dagigun otoitz I. gure Aita Santuaren alde: gotzainmailara deitu dauan Jainkoak sendo gorde daiala bere Eleiza santuaren onerako, Jainkoaren herri santua zuzendu daian.

Isilunea otoitzerako. Gero, abadeak:

Jainko ahalguztidun betikoa,
Zeuk eratzen dozuz diran guztiak zeure jakituriaz;
entzun bihotz onez gure otoitzak
eta gorde egizu maitasunez
guretzat aukeratu dozun Aita Santua,
Zeuk gidatzen dozun kristau-herriak,
artzain honen ardurapean,
aurrera egin dagian sinismenean.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.
℟. Amen.

3. Eleiz zerbitzarien eta maila guztietako kristauen alde

Egin dagigun otoitz I. gure Gotzainaren alde, [I. haren Gotzain Koadjutorearen edo Laguntzailearen] eta Eleizako gotzain, presbitero eta diakono guztien alde, baita kristauherri osoaren alde ere.

Isilunea otoitzerako. Gero, abadeak:

Jainko ahalguztidun betikoa,
zeure Espirituaz santu egiten dozu
eta gidatzen Eleizearen gorputz osoa;
entzun eleiz zerbitzari guztien alde
egiten deutsuguzan otoitzak,
zure graziari esker, bakotxa bere eginkizunean
zure zerbitzari zintzo izan dadin.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.
℟. Amen.

4. Kristaugaien alde

Egin daigun otoitz [gure] kristaugaien alde: Jainko gure Jaunak honeen gogo-bihotzak edegi eta bere errukiaren atea zabaldu deien, honeek ere, Bateoko uraren bidez pekatu guztien parkamena harturik, Jesu Kristo gure Jaunaren gorputzeko atal izan daitezan.

Isilunea otoitzerako. Gero, abadeak:

Jainko ahalguztidun betikoa,
zeure Eleizea seme-alaba barriz ugaritzen diharduzu beti;
sendotu egizuz [gure] kristaugaien sinismena eta jakituria,
Bateo-iturriko jaiotza barriaz,
zure seme-alaba ordekoen artean sartu daitezan.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.
℟. Amen.

5. Kristauen batasunaren alde

Egin daigun otoitz, Kristogan sinisten daben senide guztien alde: egiari jarraitu deioen euren bizitzan eta gure Jaun eta Jainkoak bere Eleiza bakarrean batu eta zaindu dagizan.

Isilunea otoitzerako. Gero, abadeak:

Jainko ahalguztidun betikoa,
zure seme-alaba sakabanatuak batzen dozuz,
eta batutakoak zaintzen;
begitu bihotz onez zeure Semearen artaldeko ardiei,
Bateo berak santu egin dituanak
egiazko sinismenak bat egin dagizan
eta maitasun-lokarriak alkartu.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.
℟. Amen.

6. Judeguen alde

Egin daigun otoitz judeguen alde be, Jainko gure Jaunak profeten bidez lehenengo berba egin eutson herriaren alde: haren izen santuaganako maitasunean aurrera egin dagien beti eta haregaz egindako ituna zintzo gorde dagien.

Isilunea otoitzerako. Gero, abadeak:

Jainko ahalguztidun betikoa,
Abrahami eta haren ondorengoei
egin zeuntsezan zeure agintzariak;
entzun errukiz zeure Eleizearen eskariak,
lehenengo aukeratu zenduan herria
erospen osora heldu daiten.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.
℟. Amen.

7. Kristogan sinisten ez dabenen alde

Egin dagigun otoitz Kristogan sinisten ez dabenen alde: Espiritu Santuaren argiaz beterik, eurak ere salbazino-bidean sartu daitezan.

Isilunea otoitzerako. Gero, abadeak:

Jainko ahalguztidun betikoa,
emoiezu Kristogan sinisten ez dabenei
zeure aurrean bihotz leialez eta zintzo biziz,
egia osoa ezagutzera heltzea;
guri, barriz, emoiguzu alkar maiteago izatea
eta Zu sakonago ezagutzen ahalegintzea,
zure maitasunaren autorle hobeak izan gaitezan munduan.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.
℟. Amen.

8. Jainkoagan sinisten ez dabenen alde

Egin dagigun otoitz Jainkoa ezagutzen ez dabenen alde: euren kontzientziari zintzo jarraituz Jainkoagana heldu daitezan.

Isilunea otoitzerako. Gero, abadeak:

Jainko ahalguztidun betikoa,
Zeuk egin dituzu gizon-emakume guztiak,
beti zeure bila ibili daitezan
eta, Zu aurkiturik, Zugan atseden izan dagien;
egizu, mundu honetako neke eta estualdietan
danok ikusi dagiezala zure bihotz onaren ezaugarriak
eta zure sinistedunen testigantza,
holan pozik autortu dagien
Zeu zarala egiazko Jainko bakarra eta guztion Aita.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.
℟. Amen.

9. Herri-agintarien alde

Egin dagigun otoitz herri guztietako agintarien alde: gure Jaun eta Jainkoak horreen gogo-bihotzak bere nahiaren arabera gidatu dagizan, danen bakerako eta askatasunerako.

Isilunea otoitzerako. Gero, abadeak:

Jainko ahalguztidun betikoa,
zeure eskuetan daukazuz
gizon-emakumeen bihotzak eta herrien eskubideak;
begitu begi onez herrietako agintariei,
zure laguntzaz mundu guztian izan daitezan
herrien aurrerapena, bake iraunkorra eta erlijino-askatasuna.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.
℟. Amen.

10. Atsekabetuen alde

Senideok, egin deiogun otoitz Jainko Aita ahalguztidunari: garbitu dagiala mundua oker guztietatik, uxatu dagizala gatxak, emon deiela ogia gose diranei, askatu dagizala espetxeratuak, hausi kateak, zaindu bidaiariak, etxeratu bidez dabiltzanak, osatu gaixoak eta salbatu dagizala hilzorian dagozanak.

Isilunea otoitzerako. Gero, abadeak:

Jainko ahalguztidun betikoa,
atsekabetuen poza eta nekatuen indarra,
heldu beitez Zugana
edozein estualditan Zuri deiez dagozanen eskariak,
euren preminetan zure errukiaren laguntza lortu izanaz
poztu daitezan.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.
℟. Amen.

II. Kurutze santua gurtzea

14. Jainkoaren herriaren otoitza amaitutakoan, Kurutze santua gurtzea egingo da. Kurutzea aurkezteko hemen ondoren datozan era bietatik, egokiena aukeratu bedi, arrazoi pastoralak kontuan izanik.

Kurutze santua aurkeztea

Lehenengo era

15. Diakonoak laguntzaileekin edo beste zerbitzari egoki batek, sakristiara joan eta Kurutzea zapi morez estalduta ekarriko dau presbiterio erdira, eleizan zehar prozesinoa eginez, kandela biztuak dabezan laguntzaile bi alboetan dituala.

Abadeak, altara aurrean zutunik eta herriari begira dagoala, hartuko dau Kurutzea, goialdea apur bat azaldu eta, gora jasoz, Hona hemen kurutze-habea deia abestuko dau, diakonoak eta, behar bada, abesbatzak laguntzen deutsoela. Guztiek erantzungo dabe: Zatoze, gurtu daigun! kantua amaitzean, guztiak belaunikatu egingo dira, eta une labur baten kurutzea gurtuko dabe isilik. Abadea, kurutzea jasorik daukala, zutunik egongo da.

Hona hemen kurutze-habea,
munduaren osasuna zintzilik euki ebana!
℟. Zatoze, gurtu dagigun!

Gero abadeak Kurutzearen eskumako besoa azaldu eta, barriro Kurutzea gora jasoz, Hona hemen kurutze-habea deia abestuko dau, eta lehen esan dan lez egingo da.



Azkenik, Kurutze osoa azaldu eta, gora jasoz, hirugarren aldiz Hona hemen kurutze-habea deia abestuko dau, eta lehen esan dan lez egingo da.

Bigarren era

16. Diakonoak laguntzaileekin edo beste zerbitzari egoki batek eleiza ateetara joan eta han hartuko dau Kurutzea, estaldu barik, laguntzaileak argizari biztuekin alboetan dituala, presbiterio erdira ekarriko dau, eleizan zehar prozesinoa eginez. Kurutzea daroanak ate ondoan bertan, eleizearen erdian eta altara aurrean gora jasoko dau eta Hona hemen kurutze-habea deia abestuko dau; guztiek Zatoze, gurtu daigun! erantzungo dabe, eta aldi bakotxean belaunikatu egingo dira une baten isilik otoitz egiteko, lehen esan dan lez.

Kurutze santua gurtzea

17. Ondoren, abadeak nahiz diakonoak, kandela biztuak dabezan laguntzaile bi alboetan dituala, presbiterioko sarrerara nahiz beste leku egoki batera eroango dau Kurutzea eta han itziko, edo laguntzaileei emongo deutse euki dagien, ezker-eskuma kandela biztuak dagozala.

18. Kurutzea gurtzera batzarburu dan abadea hurreratuko da lehenengo, egoki eretxi ezkero kasuilea eta oinetakoak kenduta. Ondoren ordena sakratua hartuta daben zerbitzariak, laguntzaile laikoak eta fededunak prozesinoa eginez lez joango dira, eta Kurutzea gurtuko dabe belaun batez belaunikatuz, edo beste eraren batez, lekuan lekuko ohituren arabera; esate baterako, Kurutzeari mun eginez.

19. Kurutze bakarra jarri behar da gurtzarako. Baina eleizkizunera etorri diranak asko diralako, guztiek banaka Kurutzea gurtzeko astirik ez danean, abade eta diakonoek eta batzarreko kristau-talde batek gurtza egin ondoren, abadeak, Kurutzea hartu, eta altara aurrean zutunik dei berezi bat egingo deutso herriari Kurutzea gurtzera. Gero une baten Kurutzea gora jasorik eukiko dau, herriak isilik gurtu dagian.

20. Kurutzea gurtu ahala jesarri egingo dira. Bitartean Zure Kurutzea gurtzen dogu antifona, Irain-hitzak, Kurutze Santua gorazarrea edo beste kantu egokiren batzuk abestuko dira.

Kurutze santua gurtzean abesteko kantuak

Antifona

℟. Zure Kurutzea gurtzen dogu, Jauna,
eta zure biztuera santua goresten eta handiesten,
habe honen bidez etorri zan-eta poza mundu guztira.

℣. Erruki bekigu Jainkoa eta bedeinkatu gaizala
agertu deigula aurpegi argia. ℟. Sal 67 [66], 2

Irain hitzak

I.

Danek: Ene herri, zer egin deutsut Nik zuri?
Zertan nahigabetu zaitut?
Esaidazu!

Batek: Nik Egiptotik atara zindudazan;
zuk, ostera, kurutzea jarri deutsazu zeure Salbatzaileari!

Danek: Ene herri, ...

Taldeak: Hágios o Theós.

Danek: Jaungoiko Santua.

Taldeak: Hágios Ischyrós.

Danek: Santu eta indartsua.

Taldeak: Hágios Athánatos, eléison himás.

Danek: Santu eta hilezkorra, erruki zakiguz!

Batek: Nik berrogei urtez basamortuan zehar eroan zindudazan,
manaz asetu eta lur bikainera eroan;
zuk, ostera, kurutzea jarri deutsazu zeure Salbatzaileari!

Taldeak: Hágios o Theós.

Danek: Jaungoiko...

Batek: Zer gehiago egin behar neban Nik zuretzat?
Nik mahasti bikain baten antzera aldatu zindudazan;
zu, ostera, garratza izan zara Nigaz:
ozpinez ito dozu nire egarria,
eta lantzaz saihetsa edegi deutsazu zeure Salbatzaileari!

Taldeak: Hágios o Theós.

Danek: Jaungoiko...

II.

Taldeak: Nik zugaitik zigortu egin nituan
Egipto eta hango lehen-semeak;
zuk, ostera, zigortu egin nozu, eta saldu!

Danek: Ene herri, zer egin deutsut Nik zuri?
Zertan nahigabetu zaitut?
Esaidazu!

Taldeak: Nik Egiptotik atara zindudazan,
Faraoia Itsaso Gorrian hondaturik;
zuk, ostera, Ni abade nagusien eskuetara eroan nozu!

Danek: Ene herri, ...

Taldeak: Nik itsasoa edegi neban zure aurrean;
zuk, ostera, lantzaz nire saihetsa edegi dozu!

Danek: Ene herri, ...

Taldeak: Ni lainozko habean
aurretik joan nintxatzun bide-erakusle;
zuk, ostera, Pilatoren auzitegira eroan nozu!

Danek: Ene herri, ...

Taldeak: Nik manaz asetu zindudazan basamortuan;
zuk, ostera, zigorkadaz eta matrailekoz jo nozu!

Danek: Ene herri, ...

Taldeak: Nik harritik ur osasungarria emon neutsun edateko;
zuk, ostera, behazuna eta ozpina emon deustazuz edari!

Danek: Ene herri, ...

Taldeak: Nik zugaitik jo egin nituan kanaandar erregeak;
zuk, ostera, jo egin nozu kanaberaz buruan!

Danek: Ene herri, ...

Taldeak: Nik errege-makila emon neutsun;
zuk, ostera, arantzazko koroia ezarri deustazu buruan!

Danek: Ene herri, ...

Taldeak: Nik gora jaso zindudazan indar handiz;
zuk, ostera, kurutze-habean zintzilik jarri nozu!

Danek: Ene herri, ...

Gorazarrea

I.

Danek: Kurutze santua, zuhaitzetan ederrena,
ez da zuhaitzik, lorez, orriz eta frutuz
zu lez jantzirik!
Egur gozo, untze gozoz
hain zama gozoa zintzilik daukazuna!

Taldeak: Kanta daigun burruka goragarriaren garaipena,
autortu daigun
kurutzean irabazitako garaipenik handiena:
munduaren Erosleak bere heriotzaz irabazi ebana.

Danek: Kurutze santua, ...

Taldeak: Lehen-gurasoen hutseginaz errukiturik,
sagar galgarria hartuz zan-eta heriotzara jausi,
zuhaitz bat dau aukeratu,
zuhaitzak eragindako kalteen osagarri.

Danek: Egur gozo, ...

Taldeak: Gure salbazino-egintzak eban era hau eskatu:
deabruaren maltzurkeria
beste batek behar eban hondatu,
arerioak zauritu ebana, ha behar zan osatu.

Danek: Kurutze santua, ...

Taldeak: Noizbait sasoi santua heldu zanean,
Aitaren altzotik urten eban munduaren Egileak,
haragiz jantzita Birjinaren sabelean.

Danek: Egur gozo, ...

Taldeak: Negar egiten dau umeak, etzunda aska estuan,
Ama Birjinak zapiz deutso gorputza batu,
Jainkoaren esku-oinek han dabe euren lehen-lotura.

Danek: Kurutze santua, ...

Taldeak: Bete ditu gizartean hogeita hamahiru urte;
bere gogoz hartu dau hainbat oinaze-neke:
Bildots hau azkenean kurutze-habean hil dabe.

Danek: Egur gozo, ...

Taldeak: Untzeek dabe zulatu, ozpina dau edari;
odola eta ura dario haren saihets hilari:
zeru-lurrak, itsasoa, zelan itzi dituan garbi!

Danek: Kurutze santua, ...

Taldeak: Bigundu zaitez, zuhaitz handi, nasaitu gorputz hori;
uko egiozu zurezko gogor izateari;
egiozu ohe goxo Erregearen gorputzari.

Danek: Egur gozo, ...

Taldeak: Zeu izan zara gorputz hori jasotzeko duin, zeu bakarrik,
eta mundu galduan dabilen ontziarentzat kai harrigarri,
Zugan dogu-eta Bildotsaren odol salbagarri.

Danek: Kurutze Santu, ...

Amaiera hau ez da inoiz itziko.

Danek: Hirutasun santuari ospea betiere.
Aita, Seme, Espiritu, hirurei ohore.
Zeru-lurrek horreei esker bizian diraue. Amen.

II.

1. Zure besotan, oi Kurutzea,
hil jaku Jesus maitea.
Haren kurutze-ezartzailea
neu naz, neu, pekataria.

℟. **Oi Kurutzea, oi Kurutzea,**
Kurutze santu maitea.

2. Jesu Kristoren odolak zaitu
Kalbarioan gorritu.
Ezerk geroztik munduan ez dau
Zuk beste distiratu. ℟.

3. Arerioagaz beti burrukan
hemen gabiltz munduan.
Gure gidari Zu bazaitugu,
nork gu garaitu orduan? ℟.

4. Jesu Kristori Zurekin baino
ez deutso inork jarraitzen.
Zure bidetik da beti zuzen
kristaua zeruratutzen. ℟.

Tokian tokiko baldintzak eta herri-tradizinoak kontuan izanik eta egoki eretxi ezkero, Stabat Mater abestu leiteke Graduale Romanum liburuak dakarrenez, edo beste kantu egokiren bat Doloreetako Maria Birjina dohatsuaren oroipenez.

21. Gurtzea amaitutakoan, diakonoak edo laguntzaileak altarako bere lekura eroango dau Kurutzea. Argizari biztuak, barriz, altara ondoan nahiz altara gainean Kurutzearen alboetan itziko dira.

III. Jaunartze sakratua

22. Altarako zapia jarriko da, eta gainean sagara-oihala eta Meza Liburua. Ondoren, diakonoak edo, diakonorik ez bada, abadeak berak gure Jauna ekarriko dau gordeta dagoan sagrariotik altarara, bide laburretik; beste guztiak zutunik eta isilik egongo dira. Laguntzaile bik lagun egingo deutsoe Jaunari argizari biztuekin, eta argiak altara inguruan edo gainean itziko dabez.

Diakonoak, diakonorik bada, Jauna altara gainean itzi eta kopoia zabaltzen dauanean, abadea hurreratuko da altarara, eta belaunikatu egingo.

23. Gero, abadeak ahots garbiz eta eskuak baturik, esango dau:

Salbatzaileak agindu eta irakatsiari jarraituz, bildur barik esan dagigun:

Abadeak, besoak zabalik, herri guztiagaz batera jarraituko dau:

Gure Aita, zeruetan zarana,
santu izan bedi zure izena,
etor bedi zure erreinua,
egin bedi zure nahia, zeruan bezala lurrean ere.
Emoiguzu gaur egun honetako ogia,
parkatu gure zorrak,
geuk ere geure zordunei parkatzen deutsegun ezkero,
ez eiguzu itzi tentazinoan jausten,
baina atara gagizuz gatxetik.

24. Besoak zabalik, abadeak bakarrik jarraituko dau:

Atara gagizuz, Jauna, gatx guztietatik,
emoiguzu bakea gure egunotan,
zure errukiari esker,
pekatutik garbi bizi gaitezan
eta estualdietan sendo,
betiko zorionaren itxaropenean,
Jesu Kristo gure Salbatzailea
noiz etorriko dan zain gagozala.

Eskuak batuko ditu.
Herriak amaituko dau otoitza, esanez:

Zeurea dozu erregetza,
zeureak ospe eta indarra
orain eta beti.

25. Abadeak gero, eskuak baturik, ahots apalez jarraituko dau:

Jesu Kristo gure Jauna,
zure Gorputza eta Odola hartzea izan bedi,
zure bihotz onari esker,
nire gorputz-arimen babes eta salbazinorako,
eta ez nire auzi eta kalterako.

26. Abadeak, belaunikatu ondoren, ogi santua hartu eta, kopoi gainean apur bat jasorik dauala, herriari erakutsiko deutso, ahots garbiz esanez:

Hona hemen Jaungoikoaren Bildotsa,
hona munduko pekatua kentzen dauana.
Zoriontsuak Jaunaren mahaira deituak!

Eta, herriarekin batera, behin bakarrik, esango dau:

Jauna, ni ez naz inor Zu nire etxean sartzeko;
baina esaizu hitz bat, eta osatuko naz.

27. Eta, altarara makurtuz, begirune handiz Kristoren Gorputza hartuko dau, ahots apalez esanez: Kristoren Gorputza.

28. Gero kristauei Jauna emotera joango da. Jauna emon bitartean, 22. [21] salmoa edo beste kantu egokiren bat abestu leiteke.

29. Gure Jauna emotea amaitu ondoren, diakonoak edo laguntzaile egoki batek kopoia eleizatik kanpo eroango dau, lehendik prest dagoan tokira; edo, hori egoki ez bada, sagrarioan itziko dau.

30. Gero, abadeak esango dau: Egin daigun otoitz, eta, isilune baten ondoren, jaunartze ondorengo otoitza esango dau.

Jaunartze ondorengoa

Jainko ahalguztidun betikoa,
zeure Seme Jesu Kristoren
heriotza eta biztuera dohatsuaz erabarritu gaituzu;
zaindu egizu gugan zeure maitasunaren egintza,
misterio honetan parte harturik
zeure zerbitzari izan gaitezan beti.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

31. Agurtzerakoan, diakonoak edo, diakonorik ez bada, abadeak berak dei egin leikie eleiztarrei, esanez: Makurtu burua Jaunaren bedeinkazinoa hartzeko.

Gero, abadeak, herriari begira eta eskuak haren gainera zabalduta dituala, herriaren gaineko otoitz hau esango dau:

Herriaren gaineko otoitza

Zure Semearen heriotza ospatu dogu, Jauna,
eta haren biztuera santuaren zain gagoz;
bialdu gugana zeure bedeinkazino ugaria,
etorri bekigu zure parkamena,
emoiguzu zeure kontsolamentua,
sendotu gure sinismena
eta eroan gaizuz betiko salbazinora.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

32. Eta guztiak, Kurutze aurrean belaunikatu eta isilik urtengo dabe eleizatik.

33. Ospakizun ondoren, une egokian, altarea erantzi egingo da, altara gainean bi edo lau kandela artean Kurutzea itzirik.

34. Arratsaldeko liturgia ospakizun ospetsu honetan parte hartu dabenek ez dabe Bezperetako ordua ospatu beharrik.

ZAPATU SANTUA

1. Zapatu Santuz, Eleizea Jaunaren hilobi ondoan egoten da, haren nekaldi-heriotzak eta infernuetara jaistea hausnartzen, eta haren biztuera itxaroten, otoitz eta barau eginez.

2. Altarea erantzita geldituko da, eta Eleizeak ez dau Mezarik ospatuko, gauez haren biztuera itxaroten dauala Pazko Gaubela ospetsuaren ondoren, pazko-alaitasunean sartuko dan arte; berrogeta hamar egun iraungo dau pazko-poz horrek.

3. Egun honetan, gure Jauna «eleizakoak» lez bakarrik emon leiteke.

PAZKOALDIA

JAUNAREN BIZTUERAKO PAZKO DOMEKA

PAZKO GAUBELA SANTUA

1. Antxina-antxinako tradizinoari jarraituz, gau hau Jaunaren zain zuhur egoteko gaua da (Ur 12, 12). Horregaitik, Ebanjelioak eskatzen dauanez (Lk 12, 35-37), kristauek, argi biztuak eskuetan dituela, Jauna noiz etorriko zain dagozan zerbitzarien antzeko izan behar dabe, harek, etortzean, zuhur aurkitu eta bere mahaian jesarriazo dagizan.

2. Gaubela honek, festaburu guztietan handiena eta ospetsuena danez, bakarra izan behar dau eleiza bakotxean. Honan dago antolatuta: Gaubelaren lehenengo zatia dan argiaren liturgia eta Pazko-deia egin ondoren, Jaunaren berban eta agintzarietan konfiantza osoa izanik, hasieratik Jainko Jaunak bere herriaren alde egindako gauza harrigarriak gogoratuko ditu Eleiza santuak hitzaren liturgian (bigarren zatia); eta eguna hurreratu dala eta Bateoaz sortuko dituan fededun barriak lagun dituala (hirugarren zatia), dei egingo deutso Jaunak Eleizeari bere heriotzaren eta biztueraren oroigarria dan eta bere herriarentzat prestatuta daukan Eukaristiaren mahaira, bera etorri arte (laugarren zatia).

3. Pazko Gaubela osoa gauez egin behar da. Beraz, ez da ilunabarra baino lehen hasi behar, ezta domekako egunsentia baino geroago amaitu behar be.

4. Gaubela honetako Mezea, gauerdi aurretik ospatu arren, Jaunaren Biztuerako Pazko Meza da.

5. Meza honetan parte hartzen dabenek, barriro be Jauna hartu leikie Pazko-eguneko Mezan.

Gaueko Meza bakarka nahiz alkarregaz emon dauan abadeak, emon leike Pazko-egunean barriro Mezea bakarka nahiz alkarregaz.

Pazko Gaubelak Irakurgaien orduaren lekua dau.

6. Abadeak normalean diakonoa izango dau laguntzaile. Diakonorik ez bada, ospakizunean buru dan abadeak edo alkarmezea emoten dauan beste abade batek egingo ditu diakonoaren eginkizunak, gero berariaz esango diranak izan ezik.

Abadeak eta diakonoak Mezakoan erabiliko dabezan jantzi zuriak eroango dabez ospakizunaren hasieratik.

7. Prest euki behar dira argizariak Gaubelan izango diran guztientzat. Eleizako argiak amatatu egingo dira.

I. Gaubelaren hasiera nagusia edo Argiaren liturgia

Sua bedeinkatzea eta pazko-zuzia prestatzea

8. Eleizatik kanpo, toki egoki baten, sua biztuko da. Herria han batuta dagoala, abadea hara joango da bere laguntzailearekin. Honeetako batek pazko-zuzia eroango dau. Ez da eroango prozesino-kurutzerik, ez argimutilik.

Sua eleizatik kanpo bizterik ez badago, 13. zk. esaten dan lez egingo da ohikune hau.

9. Abadeak eta fededunek aitaren egingo dabe, harek Aitaren, eta Semearen, eta Espiritu Santuaren izenean esaten dauala; ondoren, eleizkizunera etorri dan herria agurtuko dau ohitura danez, eta oharpen labur bat egingo dau Pazko Gaubela honen esanahiari buruz, honan gitxi gorabehera:

Hasierako oharpena

Senide maiteok: Jesu Kristo gure Jauna heriotzatik bizira igaro daneko Gau santu honetan, Eleizeak dei egiten deutse munduan zabaldurik dagozan bere seme-alabei alkartzera eta otoitzean zuhur egotera. Holan, Jaunaren hitza entzunez eta sakramentuak hartuz Jaunaren Pazkoa alkartean ospatzen badogu, izango dogu itxaropen, eurekin batera menperatuko dogula heriotzea eta beragaz biziko garala, Jainkoagan.

10. Gero sua bedeinkatuko dau, eskuak baturik dituala, esanez:

Bedeinkazino-otoitza

Egin daigun otoitz.
Oi Jainko, zeure Semearen bitartez
emon deuskuzu fededunoi zeure suaren argia;
bedeinkatu ✠ egizu su barri hau,
eta egizu, pazko-jai honeetan zerutar gauzetarako suturik,
heldu gaitezala arima garbiz betiko argiaren jaietara.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.
℟. Amen.

11. Su barria bedeinkatu ondoren, laguntzaile batek abadeari aurrean jarriko deutso pazko-zuzia. Abadeak ziri batekin kurutzea markatuko dau argizarian. Gero, kurutzearen gainean «Alpha» eta azpian «Omega» hizki grekoak egingo ditu; eta kurutzearen lau besoetan, gagozan urteko lau zenbakiak, esanez:

1. Kristo atzo eta gaur
(kurutzearen goitik beherakoa egingo dau);
2. Hasiera eta Helmuga
(kurutzearen ezkerretik eskumarakoa egingo dau);
3. Alpha
(kurutzearen gainean, Alpha hizkia egingo dau);
4. eta Omega
(kurutzearen azpian, Omega hizkia egingo dau).
5. Berarenak dira egunak
(kurutzearen ezkerreko beso gainean, urtearen lehenengo zenbakia jarriko dau);
6. eta mendeen mendeak
(kurutzearen eskumako beso gainean, urtearen bigarren zenbakia jarriko dau).
7. Berari ospea eta erregetza
(kurutzearen ezkerreko beso azpian, urtearen hirugarren zenbakia jarriko dau);
8. gizaldi eta gizaldietan. Amen.
(kurutzearen eskumako beso azpian, urtearen laugarren zenbakia jarriko dau).



12. Pazko-zuzian gurutzea, hizkiak eta zenbakiak egin ondoren, apaizak bost intsentsu-ale ezar ditzake gurutze eran, esanez:

1. Bere zauri santu
2. eta dohatsuen bitartez,
3. gorde gaizala
4. eta zaindu
5. Kristo Jaunak. Amen.

1
4 2 5
3

13. Eragozpenen bat dala-eta, eleizatik kanpo sua bizterik ez danean, suaren bedeinkazinoa beste era batera moldatuko da. Herria, besteetan lez, eleizan baturik dagoala, abadea, pazko-zuzia daroen laguntzaileekin, eleiza atera joango da. Herria, ahal dala, abadeari begira jarriko da.

Agurra eta oharpena egin ondoren, 9. zk. esan dan lez, sua bedeinkatu, eta pazko-zuzia prestatu eta biztuko dau, 10-12. zk. esan dan lez.

14. Su barritik biztuko dau abadeak pazko-zuzia, esanez:

Aintzaz biztu dan Kristoren argiak
uxatu dagizala gogo-bihotzetako ilunak.

Prozesinoa

15. Pazko-zuzia bizturik, laguntzaile batek sutatik ikatz sutuak hartu eta intsentsu-ontzian jarriko ditu, eta abadeak, ohitura danez, intsentsua jarriko dau. Diakonoak edo, diakonorik ez bada, beste zerbitzari egoki batek pazko-zuzia hartu eta prozesinoa hasiko da. Intsentsua daroana joango da diakonoaren edo beste zerbitzariaren aurretik intsentsu-ontzia ketan daroala. Ondoren abadea joango da bere laguntzaileekin, eskuetan kandela amatatuak dabezala.

Eleiza atean, diakonoak, zutunik eta pazko-zuzia jasoz, abestuko dau:

Kristoren argia.

Eta danek erantzungo dabe:

Eskerrak Jainkoari.

Abadeak pazko-zuzitik bere kandelea biztuko dau.



16. Diakonoak aurrera jarraituko dau Eleizearen erdira arte eta, zutunik eta pazko-zuzia jasoz, abestuko dau barriro:

Kristoren argia.

Eta danek erantzungo dabe:

Eskerrak Jainkoari.

Danek euren argizariak biztuko dabez pazko-zuzitik, eta aurrera jarraituko dabe.

17. Diakonoak, altarara heltzean, zutunik eta herriari begira, pazko-zuzia jasoz abestuko dau hirugarrenez:

Kristoren argia.

Eta danek erantzungo dabe:

Eskerrak Jainkoari.

Eta diakonoak irakurtoki ondoan edo presbiterio erdian jarrita dagoan argimutil handian jarriko dau pazko-zuzia.

Eta eleizako argi guztiak biztuko dira, altarako kandelak izan ezik.

Pazko-deia

18. Altarara heltzean, abadea bere jesarlekura joango da, kandelea laguntzaileari emon, intsentsua jarri eta bedeinkatu egingo dau, Mezakoan egiten dan lez. Diakonoak, abadeagana joan eta bedeinkazinoa eskatuko deutso, esanez: Bedeinkatu nagizu, jauna. Abadeak honan emongo deutso bedeinkazinoa, ahots apalez:

Izan bedi Jauna zure bihotzean eta zure ezpanetan,
pazko-deia egoki eta zuzen iragarri dagizun:
Aitaren, eta Semearen, ✠ eta Espiritu Santuaren izenean.
℟. Amen.

Pazko-deia diakono ez dan batek abesten dauanean, ez jako bedeinkazinorik emongo.

19. Diakonoak, liburua eta pazko-zuzia lurrundu ondoren, pazko-deia iragarriko dau irakurtokitik edo atriletik, fededun guztiak zutunik dagozala eta argizariak bizturik eskuetan dabezala.

Diakonorik ez bada, abadeak berak edo beste presbitero alkarmeza-emoile batek iragarri leike pazko-deia. Halan behar izan ezkero, diakono ez dan abeslari batek iragarri behar badau pazko-deia, honek ez ditu esango kako artean datozan hitz honeek: Horregaitik, zuek, senide maiteok... gorapenak kantatu dagidazan arte, ezta Jauna zuekin agurra be.

Ik. Pazko-dei hau era laburragoan honen ondoren, 286. or.

Pazko-deia era luzean

Poztu bedi, poztu oraintxe, zeruko aingeru-taldea;
poztu beitez zerutar guztiak,
eta, Kristo berbiztuaren garaipena ospatzeko,
entzun bedi salbazinoaren irrintzi pozgarria.

Alaitu bedi lurra ere, horrelako argi biziaz argiturik,
eta, betiko Erregearen distiraz beterik,
ikusi begi zelan izan diran uxatuak lurbira guztiko ilunpeak.

Poztu bedi Eleiza ama ere
horrenbesteko argi-distiraz apaindurik,
eta herriaren oihu-hotsak alaitu begi leku santu hau.

Pazko-deia abesten diharduana diakonoa edo abadea ez bada, ez dau abestuko kako artean datorren ondorengo paragrafo hau, ezta Jauna zuekin deia be.

[Horregaitik, zuek, argi santu honen distira ederra
ikusten dozuen senide maiteok,
eskatu, neugaz batera, Jainko ahalguztidunari errukia.
Neuk merezi barik, bere zerbitzari egin nauan harek argitu nagiala
pazko-zuzi honen gorapenak kantatu daidazan.]

[℣. Jauna zuekin.
℟. Eta zure espirituarekin.]
℣. Gora bihotzak.
℟. Jaunagan daukaguz.
℣. Eskerrak Jaungoiko gure Jaunari.
℟. Egoki da eta zuzen.

Egoki da, bai, eta zuzen,
bihotzez eta gogoz oihuka goratzea
Jainko ikusezin Aita ahalguztiduna
eta bere Seme bakar Jesu Kristo gure Jauna.

Beronek ordaindu deutso-eta gure ordez
Aita betikoari Adamen zorra,
eta bere odol santuaz kendu deusku
antxinako pekatuaren zigorra.

Pazko-jaiak ditugu;
jai honeetan eskeintzen da egiazko Bildotsa,
bere odolaz fededunen etxeetako ateak sagaratzen dituana.

Gau honetan, Jauna,
atara zenduzan Egiptotik israeldarrak, gure guraso zaharrak,
eta Itsaso Gorrian zehar, oinik busti barik, lehorrez eroan.

Hauxe da, izan ere, harako gaua,
zutabe antzeko laino argitsu baten distirak
pekatuaren ilunpeak uxatu zituana.

Hauxe da, bai, gaua:
lur zabalean Kristogan sinisten dabenak
lurreko makurkeria eta pekatuen ilunpeetatik atara,
graziara bihurtu eta santutasunera erakartzen dituan gaua.

Hauxe da gaua,
Kristok, heriotzaren kateak hausirik,
hilen artetik garaile urten ebanekoa.

Jaiotzak ez eban izango guretzat baliorik,
Kristoren salbamena izan ezik.

Bai harrigarria guganako zure errukia!
Bai neurribakoa zure maitasun samurra,
zerbitzaria salbatzeko Semea emotea!

Beharrezkoa, benetan, Adamen pekatua,
Kristoren heriotzaz parkatua!
Hau erru zorionekoa,
holako Salbatzaile bikaina merezi izan ebana!

Hau, bai, benetan, gau zoriontsua:
berak bakarrik jakin zituan-eta
Kristo hilen artetik biztu zaneko unea eta ordua!

Gau honetaz dago idatzia:
«Eguna baizen argitsu bihurtuko da gaua;
nire argi, nire atsegin izango da».

Hauxe da gau santua,
gaiztakeriak uxatu eta hobenak garbitzen dituana,
jausiei errubakotasuna eta minduei poza ekartzen deutsena.
Gorrotoak uxatu, bakea sortu
eta handikiak menperatzen dituan gaua!

Gau pozgarri honetan, hartu eizu, Aita on horrek,
iluntzeko gorespen-sakrifizio hau:
Eleiza santuak egiten deutsu-eta, bere zerbitzarien eskuz,
erleek landutako argizari honen eskeintza ederrean.

Eta badakigu zer iragartzen deuskun
Jainkoaren aintzarako su bizitan dagoan zutabe honek.
Bere sua beste askorengana zabaldu arren,
ez dau argitasunik galtzen.
Argi-zuzi eder hau, hain zuzen ere,
erleen argizari urtuak janaritzen dau.

Hau, bai, benetan, gau zoriontsua,
zerua lurragaz,
gizakia Jainkoagaz bat egiten dan gaua!

Zure izenaren aintzarako
bedeinkatu dogun argizari honek, Jauna,
iraun dagiala bizturik,
gau honetako iluna urratzeko
eta, zuretzat usain gozo bihurturik,
egin dagiala bat izarren argiarekin.

Aurkitu daiala biztuta goizeko izarrak,
iluntzerik ezagutzen ez dauan Artizarrak,
zure Seme Jesu Kristo gure Jaunak,
hilen artetik biztuta
gizadia bere bakearen distiraz argitu ebanak.
Errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.
℟. Amen.

Pazko-deia era laburragoan

Poztu bedi, poztu oraintxe, zeruko aingeru-taldea;
poztu beitez zerutar guztiak,
eta, Kristo berbiztuaren garaipena ospatzeko,
entzun bedi salbazinoaren irrintzi pozgarria.

Alaitu bedi lurra ere, holako argi biziaz argiturik,
eta, betiko Erregearen distiraz beterik,
ikusi begi zelan izan diran uxatuak lurbira guztiko ilunpeak.

Poztu bedi Eleiza ama ere
horrenbesteko argi-distiraz apaindurik,
eta herriaren oihu-hotsak alaitu begi leku santu hau.

Pazko-deia abesten diharduana diakonoa edo abadea ez bada, ez dau abestuko kako artean datorren Jauna zuekin deia.

[℣. Jauna zuekin.
℟. Eta zure espirituarekin.]
℣. Gora bihotzak.
℟. Jaunagan daukaguz.
℣. Eskerrak Jaungoiko gure Jaunari.
℟. Egoki da eta zuzen.

Egoki da, bai, eta zuzen,
bihotzez eta gogoz oihuka goratzea
Jainko ikusezin Aita ahalguztiduna
eta haren Seme bakar Jesu Kristo gure Jauna.

Berak ordaindu deutso-eta gure ordez
Aita betikoari Adamen zorra,
eta bere odol santuaz kendu deusku
antxinako pekatuaren zigorra.

Pazko-jaiak ditugu;
jai honeetan eskeintzen da egiazko Bildotsa,
bere odolaz fededunen etxeetako ateak sagaratzen dituana.

Gau honetan, Jauna,
atara zenduzan Egiptotik israeldarrak, gure guraso zaharrak,
eta Itsaso Gorrian zehar, oinik busti barik, lehorrez eroan.

Hauxe da, izan ere, harako gaua,
zutabe antzeko laino argitsu baten distirak
pekatuaren ilunpeak uxatu zituana.

Hauxe da, bai, gaua:
lur zabalean Kristogan sinisten dabenak
lurreko makurkeria eta pekatuen ilunpeetatik atara,
graziara bihurtu eta santutasunera erakartzen dituan gaua.

Hauxe da gaua,
Kristok, heriotzaren kateak hausirik,
hilen artetik garaile urten ebanekoa.

Bai harrigarria guganako zure errukia!
Bai neurribakoa zure maitasun samurra,
zerbitzaria salbatzeko Semea emotea!

Beharrezkoa, benetan, Adamen pekatua,
Kristoren heriotzaz parkatua!
Hau erru zorionekoa,
holako Salbatzaile bikaina merezi izan ebana!

Hauxe da gau santua,
gaiztakeriak uxatu eta hobenak garbitzen dituana,
jausiei errubakotasuna eta minduei poza ekartzen deutsena.

Hau, bai, benetan, gau zoriontsua,
zerua lurragaz,
gizakia Jainkoagaz bat egiten dan gaua!

Gau pozgarri honetan, hartu egizu, Aita on horrek,
Iluntzeko gorespen-sakrifizio hau:
Eleiza santuak egiten deutsu-eta, bere zerbitzarien eskuz,
erleek landutako argizari honen eskeintza ederrean.

Zure izenaren aintzarako
bedeinkatu dogun argizari honek, Jauna,
iraun dagiala bizturik,
gau honetako iluna urratzeko
eta, zuretzat usain gozo bihurturik,
egin dagiala bat izarren argiarekin.

Aurkitu daiala biztuta goizeko izarrak,
iluntzerik ezagutzen ez dauan Artizarrak,
zure Seme Jesu Kristo gure Jaunak,
hilen artetik biztuta
gizadia bere bakearen distiraz argitu ebanak.
Errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.
℟. Amen.


Poz-tu be-di, poz-tu o-rain-txe, ze - ru - ko aingeru – tal-de-a;
poz-tu bei-tez ze-ru-tar guz-ti-ak, e-ta, Kris-to berbiztuaren garai-
pe-na os-pa-tze-ko, en-tzun be-di salbamenaren i-rrin-tzi poz-ga-
rri-a. A- lai -tu be-di lu-rra e - re, ho - la - ko argi biziaz ar -
gi-tu-rik, eta, betiko Erregea - ren dis-ti-raz be-te-rik, i -ku- si
be - gi zelan izan di - ran u - xa - tu-ak lur-bi-ra guz-ti-ko i-lun-
pe-ak. Poz-tu be-di E-lei-za a-ma e - re horrenbeste - ko argi–
–distiraz a-pain-du-rik, eta herria-ren oi-hu–ho-tsak a-lai -tu be -
gi le - ku san - tu hau.
[Ho-rre-gai-tik, zuek, argi santu honen distira e-de-rra i-kus-ten dihardu-
zuen senide mai-te-ok, eskatu, nirekin batera, Jain-ko a - halguztiduna-


ri e-rru-ki-a. Nik merezidu ba-rik, bere zerbitzari egin nauan harek ar-
gi-tu nai-a-la paz-ko– zu-zi honen gorapenak kan-ta dai-da-zan.]
[℣. Jau-na zu-e-kin. ℟. E-ta zu-re es-pi-ri-tu-a-re-kin.]
℣. Go-ra bi-ho-tzak. ℟. Jau-na-gan dau-ka-guz.
℣. Es-ke-rrak Jaun-goi-ko gu-re Jau-na-ri. ℟. E-go-ki da e-ta zu-zen.
E-go-ki da, bai, e-ta zu-zen, bi-ho-tzez eta gogoz oihuka go-ra-tze-
a Jain-ko i-kusezin Aita ahal-guz-ti-du-na e-ta ha-ren Seme
bakar Je-su Kris-to gu-re Jau-na. Be-rak or-dain-du deutso gu-re
or-dez Ai-ta be-tikoari A-da-men zo-rra, e-ta be-re odol san-
tu-az ken-du deus-ku an-txi-na-ko pe-ka-tu-a-ren zi-go-rra.
Paz-ko–jai-ak di-tu-gu; jai ho-ne-e-tan eskeintzen da egiaz-ko Bil-


do-tsa, be-re o-do-laz fededunen etxeetako ateak sa-ga-ra-tzen di-tu-
a-na. Gau ho - ne - tan, Jau-na, a - ta - ra zenduzan Egiptotik is -
ra-el-da-rrak, gu-re gu-ra-so za-ha-rrak, eta Itsaso Go - rri-an ze-
har, oi-nik bus-ti ba-rik, le-ho-rrez e-ro-an. Hau-xe da, i-zan e-re,
ha-ra-ko gau-a, zu-ta-be antzeko laino argitsu ba-ten dis-ti-rak
pe-ka-tu-a-ren ilunpeak u-xa-tu zi-tu-a-na. Hau-xe da, bai, gau-a:
lur za-balean Kristogan sinis-ten da-be-nak lu-rre-ko makurkeria
eta pekatuen ilunpeeta-tik a-ta-ra, grazia-ra bi-hur-tu e-ta san-tu-
tasunera erakar-tzen di-tu-an gau-a. Hau-xe da gau-a, Kris-tok
heriotzaren kate-ak hau-si-rik, hi-len artetik garaile urten e-ba-ne-
ko-a. Jaiotzak ez eban izango guretzat ba-li-o-rik, Kris-to-ren


sal-ba-me-na i-zan e-zik. Bai ha-rri-ga-rri - a guganako zure e -
rru-ki-a! Bai neu-rribakoa zure maita-sun sa-mu-rra, zerbitza-ri-a
salbatzeko Se-me-a e-mo-te-a! Be-ha-rrez-ko-a, benetan, Adamen
pe-ka-tu - a, Kris-to-ren heriotzaz par-ka-tu - a! Hau e-rru zo-ri-
o-ne-ko-a, ho-rre-la-ko Salbatzaile bikaina mere-zi i-zan e-ba-na!
[Hau, bai, be-ne-tan, gau zo-ri-on-tsu-a: be-rak ba-ka-rrik jakin zi-tu-
an–e-ta Kris-to hi-len artetik biztu zaneko une-a e-ta or-du-a!
Gau ho-ne-taz da-go i-da-tzi-a: «E-gu-na baizen argitsu bihurtu-ko
da gau-a; ni - re ar - gi, ni - re a - tse-gin i - zan-go da».]
Hau-xe da gau san-tu-a, gaiz-ta-ke-ri-ak uxatu eta hobenak garbitzen
di-tu-a-na, jau-si - ei errubakotasuna eta minduei poza ekar-tzen


deu-tse-na. Gorrotoak uxatu, ba-ke-a sor-tu e-ta han-dikiak menpera-
tzen di-tu-an gau-a! Gau poz-ga-rri honetan, hartu eizu, Ai-ta on ho-rrek,
i-lun-tze-ko gorespen–sa-kri-fi-zi-o hau: E-lei-za santuak egiten deu-
tsu–e-ta, bere zerbitza-ri-en es-kuz, er-le-ek landutako argizari honen
es-kein-tza e-de-rre-an. [E-ta ba-dakigu zer ira-gar-tzen deus-kun
Jain-ko-a-ren aintzarako su bizitan dagoan zu-ta-be ho-nek. Be-re
su-a beste askorengana zabaldu arren, ez dau argita-su-nik gal-tzen.
Argi–zuzi eder hau, ha-tan be, er-le-en argizari urtu-ak ja-
na-ri-tzen dau.] Hau, bai, be-ne-tan, gau zo-ri-on-tsu-a, ze-ru-a
lu-rra-re-kin, gi-za-ki-a Jainkoarekin bat e-gi-ten dan gau-a!
Zu-re i-zenaren aintzarako bedeinkatu dogun argizari ho-nek, Jau-na,



II. Hitzaren liturgia

20. Gaubela guztien ama dan honetan bederatzi irakurgai eskeintzen dira; zazpi Itun Zaharretik hartuak eta bi Barritik (Epistolaa eta Ebanjelioa). Irakurgai honeek guztiak aldarrikatu behar dira, hori egin ahal leiteken lekuetan, Gaubelak luzaro egindako ospakizuna dau-eta ezaugarri.

21. Arrazoi pastoral garrantzizkoek halan eskatzen dabenean, itzi leitekez Itun Zaharreko irakurgai batzuk; halan ere, gogoan izan behar da beti, Pazko Gaubela honetan garrantzi handia dauala Jainkoaren hitza aldarrikatzeak. Itun Zaharretik gitxienean hiru irakurgai Legearenak eta Profetenak aldarrikatu behar dira, dagokiezan erantzun-salmoekin. Eta Urteera liburuko 14. kapituluko irakurgaia eta dagokion kantika ez dira behin ere egin barik itzi behar.

22. Bakotxak bere argia amatatu eta danak jesarri egingo dira. Irakurgaiak hasi baino lehen, ospakizunburu dan abadeak oharpen bat egingo deutso herriari, honan gitxi gorabehera:

Oharpena Senide maiteok: Pazko-dei ospetsua entzunez hasi gara Jaunaren biztueraren gau santua ospatzen. Entzun daigun orain gogoeta-giroan Jainkoaren hitza. Ikusi daigun zelan salbatu eban gure Jainkoak lehenengo aldietan bere herria, eta azkenak diran aldi honeetan zelan bialdu deuskun bere Semea salbatzaile. Eta egin daigun otoitz, Jainko gure Jaunak gugan bete dagian pazko-misterioan hasi eban salbazino-egintza hau.

23. Gero irakurgaiak iragarriko dira. Irakurleak dagokion pasartea iragarriko dau irakurtokitik. Ondoren salmolari nahiz abeslari batek salmoa esango dau, herriak errepika abesten dauala. Salmoa amaitzean, guztiak jagi, abadeak Egin daigun otoitz esan eta, isilune baten ondoren, irakurgaiari dagokion otoitza esango dau. Salmoa esan ordez, isilune bat egin leiteke; baina, orduan, Egin daigun otoitz esan ondoren ez da isilunerik egingo.

Irakurgai ondorengo otoitzak

24. Lehenengo irakurgaiaren (Kreazinoa: Has 1,1–2, 2 edo 1, 1.26-31a) eta salmoaren (104. [103] nahiz 33. [32]) ondoren:

Egin daigun otoitz.

Jainko ahalguztidun betikoa,
gauza guztiak harrigarriro sortu dozuz;
egizu, Zuk salbatutako gizon-emakumeek ikusi dagiela,
aldi guztien hasieran mundua sortzea harrigarria izan bazan,
oraindino harrigarriagoa dala
azken aldietan Kristo gure pazkoak
eskeinitako bere buruaren oparia.
Errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.
℟. Amen.

Edo, gizakiaren sortzeaz:

Gizakia harrigarriro egin
eta modu harrigarriagoan salbatu dozun Jainkoa,
emoiguzu pekatuaren lilurari zentzun onez gogor egitea,
betiko pozetara heldu gaitezan.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.
℟. Amen.

25. Bigarren irakurgaiaren (Abrahamen oparia: Has 22, 1-18; edo Has 22, 1-2.10-13.15-18) eta salmoaren (16. [15]) ondoren:

Egin daigun otoitz.

Oi Jainko, fededunen Aita gorena,
zure seme-alaba ordezkotzaren grazia isuriz,
lur guztian ugaritzen dozuz
Zuk agindutakoa hartuko daben seme-alabak,
eta, Bateoko pazko-sakramentuaren bidez,
herri guztien aita egin dozu Abraham zeure zerbitzaria,
Zeuk agindu zenduanez;
egizu, arren, zure herriak
erantzun deiola behar danez zure deiari.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.
℟. Amen.

26. Hirugarren irakurgaiaren (Itsaso Gorria igarotzea: Ur 14, 15–15, 1) eta kantikaren (Ir 15) ondoren:

Egin daigun otoitz.

Oi Jainko, gure egunotan ere ikusten dogu
argitsu barritzen dozuzala lehengo zeure mirariak;
aldi haretan, herri bakar bat Faraoiaren menpetik askatuz
erakutsi zenduan zeure indarra;
orain, herri guztiak salbatzen dozuz,
Bateoko uretan zehar igarotzean bizi barria emonez;
egizu, mundu guztiko herriak heldu daitezala
Abrahamen seme-alaba eta Israel barri izatera.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. ℟. Amen.

Edo:

Egin daigun otoitz.

Oi Jainko,
Itun Barriaren argiaz argitu dozuz Itun Zaharreko mirariak,
eta holan Itsaso Gorria
Bateoko iturriaren iruditzat hartzen dogu,
eta Egiptotik askatutako judegu-herria
kristau-herriaren iruditzat;
egizu, gizon-emakume guztiak,
sinismenari esker, Israel lez aukeratuak izanik,
zure Espirituaren bitartez bizi barrira etorri daitezala.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.
℟. Amen.

27. Laugarren irakurgaiaren (Jerusalem barria: Is 54, 5-14) eta salmoaren (30. [29]) ondoren:

Egin daigun otoitz.

Jainko ahalguztidun betikoa,
zure izenaren aintzarako, ugaritu egizuz
gure fede-gurasoei agindu zeuntsezan ondorengoak
eta hazi zeure seme-alaba ordekotzat aukeratuen taldea,
zure Eleizeak ikusi dagian, oraintxetik betetzen hasi dala
antxinako asabek zalantza barik itxaron ebena.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.
℟. Amen.

Edo egin barik geldituko diran irakurgaiei dagokiezan otoitzetakoren bat.

28. Bosgarren irakurgaiaren (Salbazinoa guztiei doan eskeinia: Is 55, 1-11) eta kantikaren (Is 12) ondoren:

Egin daigun otoitz.

Jainko ahalguztidun betikoa,
munduaren itxaropen bakarra,
profeten ahoz erakutsi dozuz aldez aurretik,
orain betetzen diran misterioak;
indartu bihotz onez zeure herriaren salbazinorako gogoa,
fededunak ez leike-eta zure grazia barik
onbidean aurrera egin.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.
℟. Amen.

29. Seigarren irakurgaiaren (Jakituriaren iturria: Ba 3, 9-15.31–4, 4) eta salmoaren (19. [18]) ondoren.

Egin daigun otoitz.

Oi Jainko, gizon-emakume guztiei sinistera dei eginez
zeure Eleizea beti handiago egiten diharduzu,
zaindu egizuz zeure babespean
Bateoko uraz garbitu dituzunak.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.
℟. Amen.

30. Zazpigarren irakurgaiaren (Bihotz barria eta gogo barria; Ez 36, 16-28) eta salmoaren (42-43. [41-42]) ondoren:

Egin daigun otoitz.
Oi Jainko, indar aldatuezina eta argi ilunduezina,
begitu bihotz onez misterio harrigarria dan Eleiza osoari
eta, betidanik nahi izan dozun lez,
barritu egizu bakean
gizon-emakume guztien salbazino-egintza;
mundu guztiak ezagutu dagiala eta autortu gauza miragarri
hau:

jausita egoana jaso egin dozula,
zaharra barriztatu eta dana bere betera eroan,
diran guztien hasiera dan
Kristo zure Seme eta gure Jaunari esker.
Errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.
℟. Amen.

Edo:

Egin daigun otoitz.

Oi Jainko, pazko-misterioa ospatzeko
Itun Zaharreko eta Barriko irakurgaiez eskolatzen gaituzu;
egizu, ezagutu daigula zure errukia,
orain hartzen doguzan dohaiek sendotu dagien gugan
gerokoak eskuratzeko itxaropena.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.
℟. Amen.

31. Itun Zaharreko azkeneko irakurgaia, bere erantzun-salmo eta otoitzarekin esan ondoren, altarako argizariak biztu eta abadeak Aintza zeruetan gorazarrea hasiko dau, gero guztiek jarraitzen deutsoela. Bitartean kanpaiak joko dira, tokiko ohituren arabera.

32. Gorazarrea amaitu ondoren, abadeak Mezako otoitza esango dau, ohi dan lez.

Otoitza Egin daigun otoitz.

Oi Jainko,
Jaunaren biztueraren distiraz argitzen dozu gau santu hau;
bizkortu egizu zeure eleiz alkartean
seme-alabatzako espiritua;
gorputz-arimaz barriztaturik,
bete-betean izan gaitezan zure zerbitzari.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

33. Ondoren irakurleak Apostoluaren irakurgaia iragarriko dau.

34. Epistola iragarritakoan, guztiak zutunik dagozala, abadeak Aleluia kantatuko dau jaieratsu, eta gero guztiek abestuko dabe barriro. Behar izan ezkero, salmolariak abestu leike Aleluia.

1



Edo:

2



Ondoren, salmolariak edo abeslariak 118. [117] salmoa abestuko dau, herriak tarteka Aleluia erantzunez.

35. Abadeak intsentsua jarriko dau, ohi dan lez, eta diakonoa bedeinkatuko. Ebanjeliora ez dira argizariak eroango intsentsua bakarrik baino.

36. Ebanjelioa iragarri ondoren, ez bedi egin barik itzi homilia, laburra bada be.

III. Bateoaren Liturgia

37. Homilia egin ondoren, Bateoaren liturgia egingo da. Bateo-harria kristau-batzar guztiak ikusteko eran badago, abadea, laguntzaileekin batera, bertara joango da. Bestela, barriz, ur-ontzi bat jarriko da presbiterioan.

38. Bateatzeko kristaugai heldurik badago, dei egingo jake, eta aita-amabitxiek horreen aurkezpena egingo dabe; baina kristaugaiak umetxuak badira, guraso eta aita-amabitxiek eroango dabez, batzarrean batuta dagoan kristau-herriaren aurrera.

39. Ondoren, bateo-harrira joateko prozesinoa egin behar bada, behingoan antolatuko da. Lehenengo pazko-zuzia daroana joango da, jarraian Bateoa hartu behar dabenak euren aita-amabitxi eta gurasoekin, eta azkenik zerbitzariak, diakonoa eta abadea. Prozesino bitartean letaniak abestuko dira (43. zk.). Letaniak amaitutakoan, abadeak oharpen bat egingo dau (40. zk.).

40. Bateoaren liturgia presbiterioan egin behar bada, abadeak behingoan sarrerako oharpena egingo dau, honan gitxi gorabehera:

Bateatzekorik bada:

Oharpena Senide maiteok: Egin daigun otoitz, Bateoko uretan bizi barrira jaioko diran gure senide honeek itxaroten dabena bete dadin; eskatu deiogun Jainko Aita ahalguztidunari lagundu deiela bere bihotz errukitsuz.

Bateo-ura bedeinkatu behar danean, baina bateatzekorik ez bada:

Senide maiteok: Eskatu deiogun Jainko Aita ahalguztidunari isuri dagiala bere grazia bateo-iturri honetara, ur honetatik bizi barrira jaioko diranak Kristogan zure seme-alaba ordeko egin daitezan.

41. Ondoren, guztiak zutunik dagozala (Pazkoaldia da-eta), abeslari bi letaniak abesten hasiko dira, danek erantzuten deutsiela.

Bateo-harrira joateko prozesino luzea egin behar bada, bidean abestuko dira letaniak; holakoetan, Bateoa hartu behar dabenei aurretik dei egingo jake. Prozesinoa honan eratuko da: lehenengo, pazko-zuzia daroana joango da, ondoren Bateoa hartu behar dabenak euren aita-amabitxi eta gurasoekin, eta azkenik zerbitzariak, diakonoa eta abadea. Kasu honetan, aurreko oharpena ura bedeinkatu aurretik egingo da.

42. Bateatzekorik ez danean, eta Bateo-harria bedeinkatu beharrik ez bada, letaniak itzi eta behingoan uraren bedeinkazinoa egingo da (52. zk.).

43. Letanietan beste santu batzuren izenak be sartu leitekez, nahi izan ezkero, batez ere, eleizako eta herriko zaindarienak, eta Bateoa hartu behar dabenenak.

Santuen letaniak

Erruki, Jauna.	Erruki, Jauna.
Kristo, erruki.	Kristo, erruki.
Erruki, Jauna.	Erruki, Jauna.
Jainkoaren Ama, Maria santua,	Otoitz gure alde.
Mikel santua,	Otoitz gure alde.
Jainkoaren Aingeru santuak,	Otoitz gure alde.
Joan Bateatzaile santua,	Otoitz gure alde.

Jose santua, Otoitz gure alde.
Pedro eta Paulo santuak, Otoitz gure alde.
Andres santua, Otoitz gure alde.
Joan santua, Otoitz gure alde.
Maria Magdalena santua, Otoitz gure alde.
Esteban santua, Otoitz gure alde.
Antiokiako Ignazio santua, Otoitz gure alde.
Lorentzo santua, Otoitz gure alde.
Balentin Berrio-Otxoa santua, Otoitz gure alde.
Perpetua eta Felizitas santuak, Otoitz gure alde.
Ines santua, Otoitz gure alde.
Gregorio santua, Otoitz gure alde.
Agustin santua, Otoitz gure alde.
Atanasio santua, Otoitz gure alde.
Basilio santua, Otoitz gure alde.
Martin santua, Otoitz gure alde.
Benito santua, Otoitz gure alde.
(Armentiako) Prudentzio santua, Otoitz gure alde.
Frantzisko eta Domingo santuak, Otoitz gure alde.
(Loiolako) Ignazio santua, Otoitz gure alde.
(Xabierko) Frantzisko santua, Otoitz gure alde.
Joan Maria (Vianney) santua, Otoitz gure alde.
(Sienako) Katalina santua, Otoitz gure alde.
Teresa Jesusena santua, Otoitz gure alde.
Jainkoaren santu guztiak, Otoitz gure alde.
Agertu zakiguz errukior, Gorde gaizuz, Jauna.
Gatx guztietatik, Gorde gaizuz, Jauna.
Pekatu guztietatik, Gorde gaizuz, Jauna.
Betiko heriotzatik, Gorde gaizuz, Jauna.
Zure gizakundeagaitik, Gorde gaizuz, Jauna.
Zure heriotza eta biztueragaitik, Gorde gaizuz, Jauna.
Espiritu Santuaren etorreragaitik, Gorde gaizuz, Jauna.
Guri pekatarioi, Entzun guri, Jauna.

Bateatzekorik bada:

Aukeratu honeek [hau]
Bateoko graziaz
bizibarritu dagizuzala [dagizula], Entzun guri, Jauna.

Bateatzekorik ez bada:

Bateo-iturri hau,
zure seme-alabak sortzeko,
zeure graziaz santu egin dagizula, Entzun guri, Jauna.
Jesus, Jainko biziaren Seme, Entzun guri, Jauna.
Kristo, entzun guri, Jauna, Kristo, entzun guri, Jauna.
Kristo, aditu guri, Jauna, Kristo, aditu guri, Jauna.

Bateatzekorik bada, abadeak, besoak zabalik, otoitz hau esango dau:

Jainko ahalguztidun betikoa, agertu zaitez indartsu
zeure maitasun handiaren sakramentu honetan;
bialdu egizu seme-alabatzako espiritua,
bateo-iturri honetatik jaioko diran zure seme-alabengana,
geure egintza apalez egingo dogunak
zure graziaren indarraz frutu ugaria ekarri dagian.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.
℟. Amen.

Bateoko uraren bedeinkazinoa

44. Ondoren, abadeak Bateoko ura bedeinkatuko dau, besoak zabalik, otoitz hau esanez:

Bedeinkazino-otoitza

Oi Jainko, gauza harrigarriak egiten dozuz
sakramentuetan zeure indar ezkutuaz,
eta era askotan erabili izan dozu ura
Bateoko grazia guri adierazoteko.

Oi Jainko, munduaren hasieratik
zure Espiritua baebilen ur gainean,
ordutik hartu egian urak santutzeko indarra.

Oi Jainko, uriola handiko uren bidez erakutsi zeunskun,
bizi barria emoten deuskun Bateo bera izango zala
pekatuaren amaiera eta izaera barriaren hasiera.

Oi Jainko, Abrahamen ondorengoak, Itsaso Gorrian zehar,
oinik busti barik eroan zenduzan,
Faraoiaren menpetik ataratako herria
bateatuen familiaren irudi izan eiten.

Oi Jainko,
Joanek zure Semea Jordan ibaian bateatu ebanean,
Espiritu Santuaz igurtzi zenduan;
kurutzean egoala, ura eta odola isuri ebazan bere saihetsetik,
eta, biztu ondoren, hau agindu eutsen bere ikasleei:
«Zoaze eta egin herri guztiak nire ikasle,
Aitaren, eta Semearen,
eta Espiritu Santuaren izenean bateatuz».

Begitu orain zeure Eleizeari eta edegi egiozu bateo-iturria;
hartu begi ur honek Espiritu Santuagandik
zure Seme bakarraren grazia,
gizakia, zeure irudiko egina,
Bateoko sakramentuaren bidez
izaera zaharreko kutsu guztietatik garbituta,
uretik eta Espiritu Santuagandik biziera barrira jaio dadin.

Eta, egoki begitandu ezkero, pazko-zuzia behin nahiz hiru bider uretan sartu ondoren, jarraituko dau:

Jatsi bedi, Jauna, zure Semearen bidez,
ur honetara Espiritu Santuaren indarra,

Eta pazko-zuzia uretan dauala, jarraituko dau:

Bateoan Kristogaz hil eta hobiratuak,
beragaz biztu daitezan bizirako.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.
℟. Amen.

45. Pazko-zuzia uretatik atara eta herriak gorapen hau abestuko dau:

Iturriok, bedeinkatu egizue Jauna;
goretsi eta goraipatu gizaldien gizaldietan.

46. Bateoko uraren bedeinkazinoa amaitu eta herriak gorapena abestu ondoren, abadeak, zutunik, itaunak zuzenduko deutsez kristaugai helduei eta umetxuen guraso eta aita-amabitxiei egin behar dabezan ukapenei buruz, dagokien Erromako Ohikune Liburuan dagoan eran.

Kristaugai helduen oliadura, lehenago, azken prestaerako ohikuneetan egin ez bada, une honetan egingo da.

47. Jarraian, abadeak fedeari buruz itaunduko deutse helduei banaka, eta, umetxuak diranean, aita-amabitxi eta guraso guztiei batera egingo deutsez fedeari buruzko hiru itaunak, dagokien Ohikune Liburuan dagoan eran.

Gau honetan bateatu beharrekoak asko izango balira, kristaugai helduen eta aita-amabitxi eta gurasoen erantzunaren ondoren, abadeak ospakizunean dagozan guztiei batera eskatu leikie Bateoko aginduak barritzea.

48. Itaunak egitea amaitu ondoren, abadeak kristaugai helduak eta umetxuak bateatuko ditu.

49. Bateatu ondoren, abadeak krismaz igurtziko ditu umetxuak. Gero, danei, bai umetxuei bai helduei, jantzi zuria emongo deutse. Ondoren, abadeak edo diakonoak zerbitzariagandik pazko-zuzia hartuko dau, eta bateatu barrien kandelak biztuko dabez. Effeta ohikunea egin barik itziko da umetxuentzako.

50. Ondoren, Bateoak eta beste ohikune osagarriak presbiterioan egin ez badira, presbiteriora bihurtuko dira, prozesinoa eginez lehen lez, bateatu barriek eta aita-amabitxiek eta gurasoek kandelak biztuta dabezala. Prozesino bitartean Vidi aquam Bateoko kantika abestuko da (54. zk) edo beste kantu egokiren bat.

51. Bateatuak helduak badira, Gotzainak edo, Gotzaina bertan ez bada, bateatu dituan presbiteroak Sendotzako sakramentua emongo deutse behingoan presbiterioan, Pontificalean edo Erromako Ohikune Liburuan dagoan eran.

Uraren bedeinkazinoa Bateorik ez danean

52. Bateatzekorik ez danean eta bateo-harria bedeinkatu beharrik ez danean, abadeak honan prestatuko ditu fededunak uraren bedeinkazinorako:

Oharpena

Senide maiteok, egin deiogun otoitz Jainko gure Jaunari, Bateoaren oroipenez gure buruak txipriztinduko dituan ur hau bedeinkatu dagian. Ur honek barriztatu gaizala, hartu dogun Espirituari beti leial izan gakiozan.

Eta isilune labur baten ondoren, abadeak, besoak zabalik, otoitz hau esango dau:

Bedeinkazino-otoitza

Jainko gure Jauna, entzun bihotz onez
gau santu honetan zuhur dagoan zeure herriaren otoitzak,
eta, geure sortze harrigarria
eta salbatze harrigarriagoa gogoratzen doguzan honetan,
bedeinkatu ✠ egizu ur hau.
Zeuk sortua da ura, lurra emonkor egiteko
eta gure gorputzari garbitasuna eta atsegina emoteko.
Zeure errukiaren zerbitzari egin zenduan ura;
izan be, uraren bidez askatu zenduan zeure herria
esklabotza-lokarrietatik
eta uraren bidez kendu zeuntsan egarria basamortuan;
uraren bidez iragarri eben profetek
Zuk gizon-emakumeekin itun barria egingo zenduala;
uraren bidez, Kristok Jordan ibaian santu egin ebanean,
eraldatu zenduan gure pekatari-izaera,
jaiotza barria dakarren Bateoaz.
Beraz, ur hau izan dadila
guk hartu genduan Bateoaren oroigarri
eta bat egin gaizala Pazko-ospakizunean bateatuak izan diran
gure anai-arreben pozetan.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.
℟. Amen.

Bateoko aginduak barritzea

53. Bateoak (eta Sendotzak) amaitutakoan, edo sakramenturik izan ez bada, ura bedeinkatu ondoren, danek, zutunik eta argizari biztuak eskuetan hartuta, Bateoko aginduak barrituko dabez, hori lehenago bateatu barriakaz batera egin ez bada (ik. 47. zk.). Abadeak oharpen bat egingo deutse fededunei, honan gitxi gorabehera:

Oharpena Senide maiteok: Pazko-misterioaren bidez Kristogaz hil eta hobiratuak izan gara, haregaz biziera barrian bizi gaitezan. Horregaitik, Garizumako ekitaldia amaiturik, barritu daiguzan Bateo santuan agindutakoak, Satani eta haren egiteei uko egin geuntselako, eta Jainkoaren zerbitzari leial izango ginala agindu Eleiza santu katolikoan.

Lehenengo era:

Abadeak: Uko egiten deutsazue Satani?

Danek: Bai, uko egiten deutsat.

Abadeak: Eta haren egite guztiei?

Danek: Bai, uko egiten deutset.

Abadeak: Eta haren pekatu-bide guztiei?

Danek: Bai, uko egiten deutset.

Bigarren era:

Abadeak: Jainkoaren seme-alaben askatasunean bizitzeko,
uko egiten deutsazue pekatuari?

Danek: Bai, uko egiten deutsat.

Abadeak: Pekatuak menperatu ez zagiezan,
uko egiten deutsezue pekatu-bide guztiei?

Danek: Bai, uko egiten deutset.

Abadeak: Uko egiten deutsazue
pekatuaren iturri eta nagusi dan Satani?

Danek: Bai, uko egiten deutsat.

Abadeak jarraituko dau:

Abadeak: Sinisten dozue Jainko Aita ahalguztiduna,
zeru-lurren egilea?

Danek: Bai, sinisten dot.

Abadeak: Sinisten dozue haren Seme bakar
Jesu Kristo gure Jauna,
Maria Birjinagandik jaioa,
oinazetan hila eta hobiratua,
hilen artetik biztua
eta Aitaren eskumaldean jarririk dagoana?

Danek: Bai, sinisten dot.

Abadeak: Sinisten dozue Espiritu Santua,
Eleiza santu eta katolikoa,
santuen alkartasuna,
pekatuen parkamena,
haragiaren biztuera eta betiko bizitza?

Danek: Bai, sinisten dot.

Amaitzeko, abadeak esango dau:

Jainko ahalguztidunak, Jesu Kristo gure Jaunaren Aitak,
uraren eta Espiritu Santuaren bitartez
jaiotza barria eta pekatuen parkamena emon deuskuzanak,
gorde gaizala bere graziaz Kristo gure Jaunagan
betiko bizitzarako.
℟. Amen.

54. Abadeak ur bedeinkatuz txipriztinduko dau herria, danek antifona abesten daben bitartean:

Antifona Ura ikusi neban tenpluaren eskumaldetik urteten, aleluia;
eta ur hori heldu jaken guztiak salbatu egin ziran,
eta esango dabe kantari: Aleluia, aleluia.

Bateoaren gaia darabilen beste kantu egokiren bat be kantatu leiteke.

55. Bien bitartean, bateatu barriak euren lekura eroango dabez, fededunen artera.

Bateo-ura altara aurrean bedeinkatu bada, diakonoak eta laguntzaileek begirunez bateo-harrira eroango dabe ur-ontzia.

Bateo-uraren bedeinkazinorik izan ez bada, ur bedeinkatua leku egoki baten itziko da.

56. Ur bedeinkatuz txipriztintzea egin ondoren, abadea bere jesarlekura joango da, eta han, Sinisten dot esan barik, Jainkoaren herriaren otoitza zuzenduko dau, bateatu barriek lehenengo aldiz otoitz honetan parte hartuko dabela.

IV. Eukaristiaren liturgia

57. Abadeak altarara joan eta Eukaristiaren liturgia hasiko dau, ohi dan lez.

58. Oso egokia da ogia eta ardaoa bateatu barriek eroatea edo, horreek umetxuak badira, euren guraso eta aita-amabitxiek.

59.

Oparigaien gainekoa

Onartu, Jauna, eskeintza honeekin batera
zeure herriaren otoitzak,
pazko-misterioetan hasi doguna
zure indarraz betiko bizitzarako osagarri izan dakigun.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

60. Prefazioa, Pazkoaldiko I.a: Pazko-misterioa (gau honetan), 488. or.
Ik. prefazio honetako orrian, I., II. eta III. Eukaristi Otoitzetan Pazko-misterioaren aipamena egiteko oharrak.

61. Eukaristi Otoitzean bateatu barrien eta aita-amabitxien aipamena egingo da, Meza Liburuan eta Erromako Ohikune Liburuan Eukaristi Otoitz bakotxerako adierazota dagoan eran.

62. Jaungoikoaren Bildotsa esan aurretik, abadeak oharpen labur bat egin leikioe, gure Jauna lehenengoz hartuko dabela eta, holako misterio handiak dauan balioaz, kristau-sarbidearen gailurra eta kristau-bizitzaren muina dala adierazoz hatan be.

63. Bateatu barriek gure Jauna ogi-ardaoen itxurapean hartzea komeni da aita-amabitxi, guraso eta ezkonlagun katolikoekin, eta fede-hezitzaile laikoekin batera. Era berean, eleizbarrutiko Gotzainaren oneretxiagaz eta baldintza egokiak diranean, fededun guztiek be gure Jauna ogi-ardaoen itxurapean hartzea komeni da.

64.

Jaunartze-ant. Kristo gure Pazko Bildotsa opari eskeinia izan da; ospatu daigun Pazko-jaia legamina bako pazko-ogiekin, hau da, bihotz-garbitasunaz eta egiaz. 1 Ko 5, 7-8

Egoki da 118. [117] salmoa abestea.

65.

Jaunartze ondorengoa

Isuri eiguzu, Jauna, zeure maitasun-espiritua,
pazko-sakramentuez asetu gaituzunok
zure maitasunean bat eginik bizi gaitezan.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

66.

Bedeinkazino nagusia

Bedeinkatu zaiezala Jainko ahalguztidunak
Pazko-festaburu honetan
eta zaindu, erruki handiz, pekatu-bide guztietatik.
℟. Amen.

Bere Semearen biztueraz bizibarritu zaituen Jainkoak
emon deizuela betiko biziaren saria.
℟. Amen.

Jaunaren nekaldiko egunak igaro ondoren
Pazko-festaburua ospatzen dozuenok,
heldu zaitezela haren laguntzaz zeruan betiko pazko-jaietara.
℟. Amen.

Bedeinkatu zagiezala Jaungoiko ahalguztidunak:
Aitak, eta Semeak, ✠ eta Espiritu Santuak.
℟. Amen.

Egoeraren arabera, Helduen nahiz Umeen Bateoko Ohikune Liburuan datorren bedeinkazino nagusia be erabili leiteke.

67. Herriari agur egiterakoan, diakonoak edo, diakonorik izan ezean, abadeak berak abestu edo esango dau:

Zoaze Jaunaren bakean, aleluia, aleluia.

Eta danek erantzungo dabe:

℟. Eskerrak Jainkoari, aleluia, aleluia.

Agurra honan egingo da pazko-zortziurren osoan.

1



Edo:

2



68. Pazko-zuzia bizturik eukiko da Pazkoaldiko liturgi ospakizun nagusi guztietan.

Eguneko Meza

69.

Sarrera-ant. Biztu naz, eta Zeugaz nozu, aleluia; gainean jarri deustazu eskua, aleluia; miragarria da zure ezagutza, aleluia, aleluia.
Ik. Sal 139 [138], 18.5-6

Edo:

Biztu da Jauna egiaz, aleluia; berari aintza eta agintea gizaldi eta gizaldietan, aleluia, aleluia. Lk 24, 34; ik. Ap 1, 6

Aintza zeruetan esango da.

70.

Otoitza Oi Jainko, egun honetan,
heriotza garaitu dauan zure Seme bakarraren bidez,
betiko biziaren ateak zabaldu deuskuzuz;
egizu, gure Jaunaren biztuerako festaburua ospatzen dogunok,
zure Espirituak erabarriturik, biziaren argira biztu gaitezala.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Sinisten dot esango da.

71.

Oparigaien gainekoa Pazko-pozez eskeintzen deutsugu, Jauna, sakrifizio hau, beronek sortzen daualako eta janaritzen harrigarriro zure Eleizea. Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

72. Prefazioa, Pazkoaldiko I.a: Pazko-misterioa (egun honetan), 488. or.

Ik. Prefazio honetako orrian, I., II. eta III. Eukaristi Otoitzetan Pazko-misterioaren aipamena egiteko oharrak.

73.

Jaunartze-ant. Kristo gure Pazko Bildotsa opari eskeinia izan da; ospatu daigun Pazko-jaia legamina bako pazko-ogiakaz, hau da, bihotz-garbitasunaz eta egiaz. Ik. 1 Ko 5, 7-8

74.

Jaunartze ondorengoa

Oi Jainko, zaindu zeure Eleiza maitasun handiz,
pazko-sakramentuez bizibarriturik
biztueraren argira heldu daiten.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

75. Meza amaierako bedeinkazinoa emoteko, Pazko Gaubelako bedeinkazino nagusia erabiliko dau abadeak, 310. or.

76. Herriari agur egiterakoan, zortziurren osoan, II. Pazko-domekara arte, abestu edo esango da:

Zoaze Jaunaren bakean, aleluia, aleluia.
℟. Eskerrak Jainkoari, aleluia, aleluia.

PAZKO ZORTZIURRENEKO ASTELEHENA

Sarrera-ant. Esnea eta eztia darion lurraldean sartu zaitue Jaunak, Jaunaren legea beti ezpanetan izan dagizuen, aleluia. Ur 13, 5.9

Edo:

Biztu da Jauna hilen artetik, berak esan eban lez; poztu gaitezan guztiok eta alaitu, errege da-eta betiko, aleluia.

Aintza zeruetan esango da.

Otoitza

Oi Jainko, seme-alaba barriak emoten deutsazuz beti zeure Eleizeari;
egizu, sinismenez hartu dogun sakramentua
geure bizitzan zintzo bete daigula.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa

Onartu, Jauna, bihotz onez zeure herriaren eskeintzak,
Zuganako fedeaz eta Bateoaz bizibarriturik,
betiko zoriona lortu dagian.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Prefazioa: Pazkoaldiko I.a (egun honetan), 488. or.
Ik. Prefazio honetako orrian, I., II. eta III. Eukaristi Otoitzetan Pazko-misterioaren aipamena egiteko oharrak.

Jaunartze-ant. Kristo, hilen artetik biztu zan ezkero, ez da barriro hilko; heriotzak ez dau gehiago aginterik harengan, aleluia. Erm 6, 9

Jaunartze ondorengoa

Egin daiala gainezka, Jauna,
gure bihotzean pazko-misterioaren graziak,
betiko salbazinoaren bidean jarri gaituzunok
zure dohaiak hartzeko gai egin gaizuzan.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Bedeinkazino nagusia erabili daiteke, 644. or., 7. zk.

PAZKO ZORTZIURRENEKO MARTITZENA

Sarrera-ant. Jakituriaren uretik emon eutsen edaten; harengan babestu eta ez dira kili-kolo egongo; betiko goratuko ditu, aleluia. Ik. Si 15, 3-4

Aintza zeruetan esango da.

Otoitza Oi Jainko, pazko-misterioaren laguntzak emon deuskuzuz;
jarraitu zeruko dohaiak zeure herriari emoten,
egiazko askatasun osoa lorturik,
lur honetan hartzen hasi dan poza
bete-betean gozatu dagian zeruan.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa Hartu bihotz onez, Jauna, zeure familiaren eskeintza
eta zaindu zeure babespean,
Zuk emondako dohaiak galdu ez, ezpada ze
betiko ondasunak eskuratu dagizan.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Prefazioa: Pazkoaldiko I.a (egun honetan), 488. or.
Ik. Prefazio honetako orrian, I., II. eta III. Eukaristi Otoitzetan Pazko-misterioaren aipamena egiteko oharrak.

Jaunartze-ant. Kristogaz berbiztu zarien ezkero, bilatu egizuez zeruko gauzak, hantxe dago-eta Kristo, Jainkoaren eskumaldean jesarrita. Gura izan egizuez biziro goiko gauzak, aleluia. Kol 3, 1-2

Jaunartze ondorengoa Entzun eiguzu, Jainko ahalguztiduna,
eta Bateoko grazia bardinbakoa emon deutsezun zeure seme-alabei
emoiezu betiko zoriona.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Bedeinkazino nagusia erabili daiteke, 644. or., 7. zk.

PAZKO ZORTZIURRENEKO EGUAZTENA

Sarrera-ant. Zatoze, nire Aitaren bedeinkatuok; hartu egizue munduaren sortzetik zuentzat prestaturik dagoan erreinua, aleluia. Mt 25, 34

Aintza zeruetan esango da.

Otoitza

Oi Jainko, Jaunaren biztuerako festaburua
urtero alaitasunez barritzea emoten deuskuzu;
egizu, bihotz onez,
lur honetan ospatzen dogun Pazkoak
izan dagiala bere betea zeruko pozetan.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa

Onartu, Jauna, gizon-emakume guztien salbazinorako
eskeintzera goazen opari hau,
eta emoiguzu bihotz onez gorputz-arimen osasuna.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Prefazioa: Pazkoaldiko I.a (egun honetan), 488. or.
Ik. Prefazio honetako orrian, I., II. eta III. Eukaristi Otoitzetan Pazko-misterioaren aipamena egiteko oharrak.

Jaunartze-ant. Ogia zatitzean ezagutu eben ikasleek Jesus Jauna, aleluia.
Ik. Lk 24, 35

Jaunartze ondorengoa

Jauna, zure Semearen sakramentua begirunez hartzeak
garbitu gaizala pekatuzko izaera zaharretik
eta egin gaizala gizaki barri.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Bedeinkazino nagusia erabili daiteke, 644. or., 7. zk.

PAZKO ZORTZIURRENEKO EGUENA

Sarrera-ant. Aho batez goratu eben, Jauna, zure indar garailea; izan ere, jakituriak hitz eragin eutsen mutuei eta garbi berba eginazo umetxuei, aleluia. Jkt 10, 20-21

Aintza zeruetan esango da.

Otoitza Oi Jainko, era askotako jenteak
bat egin dozuz zeure izenaren gorespenean;
egizu, bateo-iturrian jaio diranek
fede bera izan dagiela bihotzean eta maitasun bera egiteetan.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa Onartu, Jauna, bihozbera, gure oparia,
bateatu barriakaitik eskerrak emoteko
eta zeruko laguntza bizkortzeko eskeintzen deutsugu-eta.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Prefazioa: Pazkoaldiko I.a (egun honetan), 488. or.
Ik. Prefazio honetako orrian, I., II. eta III. Eukaristi Otoitzetan Pazko-misterioaren aipamena egiteko oharrak.

Jaunartze-ant. Zuek, Jainkoak beretzat eskuratutako herri zarie; iragarri egizuez ilunpetatik bere argi zoragarrira dei egin deutsuen Jainkoaren egintza bikainak, aleluia. Ik. 1 P 2, 9

Jaunartze ondorengoa Entzun, Jauna, gure otoitza;
gure erospeneko hartu-emon santuok lortu deiguela
bizitza honetarako laguntza eta betiko poza.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Bedeinkazino nagusia erabili daiteke, 644. or., 7. zk.

PAZKO ZORTZIURRENEKO BARIKUA

Sarrera-ant. Seguru gidatu eban Jaunak bere herria; hareen arerioak, barriz, itsasoak estaldu ebazan, aleluia. Ik. Sal 78 [77], 53

Aintza zeruetan esango da.

Otoitza Jainko ahalguztidun betikoa, pazko-misterioaren bidez
itun barria egin nahi izan dozu gizon-emakumeokin;
egizu, geure bizitza guztian agertu daigula
pazko-ospakizun honeetan autortzen dogun sinismena.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa Bete egizu gugan,Jauna,
pazko-dohaien hartu-emonak adierazoten dauana,
lurreko gauzak maitatzetik,
zerukoak maitatzera heldu gaitezan.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Prefazioa: Pazkoaldiko I.a (egun honetan), 488. or.
Ik. Prefazio honetako orrian, I., II. eta III. Eukaristi Otoitzetan Pazko-misterioaren aipamena egiteko oharrak.

Jaunartze-ant. Jesusek esan eutsen ikasleei: Zatoze gosaltzera. Eta ogia hartu eta emon eutsen, aleluia. Ik. Jn 21, 12-13

Jaunartze ondorengoa Zaindu beti maitasunez, Jauna, Zeuk salbatu dituzunak,
eta zure Semearen nekaldiari esker askatu dozuzanak
poztu daitezala haren biztueraz.
Errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Bedeinkazino nagusia erabili daiteke, 644. or., 7. zk.

PAZKO ZORTZIURRENEKO ZAPATUA

Sarrera-ant. Pozarren atara eban Jaunak bere herria, poz-oihuka bere aukeratuak, aleluia. Sal 105 [104], 43

Aintza zeruetan esango da.

Otoitza

Oi Jainko, zeure grazia oparoaz
gero eta ugariagoa egiten dozu fededunen herria;
begira bihotz onez zeure aukeratuei,
Bateoko sakramentuaz bizibarritu diranek
bizitza hilezkorra jadetsi dagien.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa

Eskerrak emoten deutsuguz beti, Jauna,
pazko-misterio honegaitik;
egizu, eten barik barritzen diharduzun gure erospenak
ekarri deigula betiko poza.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Prefazioa: Pazkoaldiko I.a (egun honetan), 488. or.
Ik. Prefazio honetako orrian, I., II. eta III. Eukaristi Otoitzetan Pazko-misterioaren aipamena egiteko oharrak.

Jaunartze-ant. Kristogan bateatuak zarien guztiok Kristoz jantzita zagoze, aleluia. Ga 3, 27

Jaunartze ondorengoa

Begira bihotz onez, Jauna,
zeure herriari,
eta, betiko biziaren sakramentuetan erabarritu dozunez,
egizu, heldu daitela
aintzaz beteko dan haragiaren biztuera hilezkorrera.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Bedeinkazino nagusia erabili daiteke, 644. or., 7. zk.

II. PAZKO DOMEKA

hau da, Jainkoaren Errukiarena

Sarrera-ant. Ume jaiobarriak lez, bilatu egizue hitzaren esne garbia, horren bitartez hazi eta salbazino betera heldu zaitezen, aleluia.
1 P 2, 2

Edo:

Poztu zaiteze zeuon aintzarekin, eta emon eskerrak zeruko erreinura dei egin deutsuen Jainkoari, aleluia. 4 Esd 2, 36-37

Aintza zeruetan esango da.

Otoitza

Beti errukior zaran Jainkoa,
pazko-jaietan bizkortu egiten dozu zeure herriaren fedea;
indartu egizu gugan Zeuk emondako grazia,
hobeto ulertu daigun,
zelako Bateoaz garbitu gaituzun,
zelako Espirituaz bizibarritu
eta zelako odolaz erosi.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Sinisten dot esango da.

Oparigaien gainekoa

Onartu, Jauna, onez, zeure herriaren
[eta bateatu barrien] eskeintzak,
Zuganako fedeaz eta Bateoaz bizibarriturik,
betiko zoriona lortu [dagien] dagian.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Prefazioa: Pazkoaldiko I.a (egun honetan), 488. or.
Ik. Prefazio honetako orrian, I., II. eta III. Eukaristi Otoitzetan Pazko-misterioaren aipamena egiteko oharrak.

Jaunartze-ant. Ekazu eskua eta aztertu untze-zuloak, eta ez izan sinisgogor, sinistedun baino, aleluia. Ik. Jn 20, 27

Jaunartze ondorengoa

Jainko ahalguztiduna, egizu,
pazko-sakramentuetan hartu dogun graziak
iraun dagiala beti gure bihotzean.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Meza amaierako bedeinkazinoa emoteko, Pazko Gaubelako bedeinkazino nagusia erabiliko da, 644. or.

Eta herriari agur egitekoan abestu edo esango da:

Zoaze Jaunaren bakean, aleluia, aleluia.

Eta danek erantzungo dabe:

Eskerrak Jainkoari, aleluia, aleluia.

Pazkoaldiko II. astelehena

Sarrera-ant. Kristo, hilen artetik biztu zan ezkero, ez da barriro hilko; heriotzak ez dau gehiago aginterik harengan, aleluia. Erm 6, 9

Otoitza

Jainko ahalguztiduna,
pazko-osagaien bidez bizibarritu gaituzu;
egizu, lurreko aitaren antzeko izateari itzi deutsagunok
zerutar gizaki barri izan gaitezala.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa

Onartu, Jauna, zure Eleizeak pozik ekarritako eskeintzak
eta, holako poza emon deutsazun ezkero,
emoiozu frututzat betiko zoriona.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Prefazioa: Pazkoaldikoa, 488-495. or.

Jaunartze-ant. Jesusek, bere ikasleen erdian jarririk, esan eutsen: Bakea zuei, aleluia. Jn 20, 19

Jaunartze ondorengoa

Begitu bihotz onez, Jauna, zeure herriari,
eta betiko biziaren sakramentuetan erabarritu dozunez
egizu, heldu daitela
aintzaz beteko dan haragiaren biztuera hilezkorrera.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Pazkoaldiko II. martitzena

Sarrera-ant. Poztu gaitezan eta egin jai, emon deiogun aintza Jainkoari, errege izaten hasia da-eta Jauna, gure Jainko ahalguztiduna, aleluia. Ap 19, 7a.6c

Otoitza

Jainko ahalguztiduna,
emoiguzu biztu dan Jaunaren garaipena iragartzeko indarra,
graziaren lehen-frutua hartu dogunok
egunen baten grazia honen frutu betea eskuratu daigun.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa

Eskerrak emoten deutsuguz beti, Jauna,
pazko-misterio honegaitik;
egizu, eten barik barritzen dozun gure erospenak
ekarri deigula betiko poza.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Prefazioa: Pazkoaldikoa, 488-495. or.

Jaunartze-ant. Mesiasek sufridu egin behar eban eta hirugarren egunean hilen artetik biztu, bere aintzan sartzeko, aleluia. Ik. Lk 24, 46.26

Jaunartze ondorengoa

Entzun, Jauna, gure otoitza;
gure erospeneko hartu-emon santuok lortu deiguela
bizitza honetarako laguntza eta betiko poza.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Pazkoaldiko II. eguaztena

Sarrera-ant. Nazinoen artean goretsiko zaitut, Jauna, iragarriko deutset zure izena neure senideei, aleluia. Ik. Sal 18 [17], 50; 22 [21], 23

Otoitza

Jauna,
jatorrizko duintasuna berreskuratzea
emon deutsazu giza izaerari
urtero ospatzen dogun misterioaren bidez,
eta biztueraren itxaropena bizkortzea;
zure bihotz onari eskatzen deutsagu,
maitasunez bizi daigula
fedez ospatzen dogun jazoera hori.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa

Oi Jainko, sakrifizio honetako hartu-emon miragarriei esker,
zeure jainkotasun bakar eta gorenean
parte izateko grazia emoten deuskuzu;
egizu, sinisten dogun egia egintzetan autortu daigula.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Prefazioa: Pazkoaldikoa, 488-495. or.

Jaunartze-ant. Hauxe dino Jaunak: Neuk aukeratu zaituet mundutik, eta eginkizun hau emon deutsuet: frutu ugaria eta iraunkorra emon dagizuela edonon, aleluia. Ik. Jn 15, 19.16

Jaunartze ondorengoa

Zagoz beti, Jauna, zeure herriagaz,
eta zerutar misterioak ezagutuazo deutsezuzenei
emoiezu, euren izate zaharra itzirik,
jainkozko bizi barriaren erara bizitzea.
Jesu Kristo gure Janaren bitartez.

Pazkoaldiko II. eguena

Sarrera-ant. Oi Jainko, zeure herriaren aurretik urten zenduanean, hareek gidatuz eta euren artean biziz, dar-dar egin eban lurrak, urtu egin zan zerua, aleluia. Ik. Sal 68 [67], 8-9.20

Otoitza

Oi Jainko,
pazko-sakrifizioa eratu dozu munduaren salbazinorako;
entzun bihotz onez zeure herri honen eskaria,
eta egizu, gure alde otoitzean diharduan
Kristo gure Abade Nagusiak,
gure antzera gizon dan aldetik, adiskidetu gaizala Zugaz,
eta, Zu lez Jainko dan aldetik, emon deigula parkamena.
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa

Igon begie Zugana, Jauna, gure otoitzak eta opari-eskeintzak,
zure errukiak garbiturik,
zure maitasunaren sakramentuak hobeto ospatu daiguzan.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Prefazioa: Pazkoaldikoa, 488-495. or.

Jaunartze-ant. Ni zeuekin izango nozue egunero munduaren azkenera arte, aleluia. Mt 28, 20

Jaunartze ondorengoa

Jainko ahalguztidun betikoa,
betiko bizitzarako sortu gaituzu Kristoren biztueran;
ugaritu egizuz gugan pazko-sakramentuaren frutuak
eta isuri gure bihotzera janari salbagarri honen indarra.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Pazkoaldiko II. barikua

Sarrera-ant. Zeure heriotzaz irabazi gaituzu, Jauna, arraza, hizkuntza, herri eta nazino guztietatik; eta errege egin gaituzu geure Jainkoarentzat, aleluia. Ik. Ap 5, 9-10

Otoitza Oi Jainko, gogo garbien itxaropena eta argia,
arren eskatzen deutsugu:
emoiguzu gaitasuna otoitzerako
eta esker oneko bihotza Zu beti goresteko.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa Hartu bihotz onez, Jauna, zeure familiaren eskeintza
eta zaindu zeure babespean,
Zuk emondako dohaiak galdu ez, ezpada ze
betiko ondasunak eskuratu dagizan.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Prefazioa: Pazkoaldikoa, 488-495. or.

Jaunartze-ant. Kristo gure Jauna gure pekatuakaitik emon eben heriotzara eta gure salbazinorako izan zan biztua, aleluia. Erm 4, 25

Jaunartze ondorengoa Zaindu beti maitasunez, Jauna, Zeuk salbatu dozuzanak,
eta zeure Semearen nekaldiari esker askatu dituzunak
poztu daitezala haren biztueraz.
Errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Pazkoaldiko II. zapatua

Sarrera-ant. Zuek, Jainkoak beretzat eskuratutako herri zarie; iragarri egizuez ilunpetatik bere argi zoragarrira dei egin deutsuen Jainkoaren egintza bikainak, aleluia. Ik. 1 P 2, 9

Otoitza Jauna,
kendu gugandik pekatuaren legeaz idatzitako agiria,
Jesu Kristoren biztuerari esker
zeure Semearen pazko-misterioan gugandik desegina.
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Edo:

Oi Jainko, pazko-misterioaren bidez
zabaldu deutsezu zeure fededunei maitasunaren atea;
begitu egiguzu eta izan gutaz erruki,
zure laguntzaz zure nahiaren bideetan gabiltzanok
bizirako bidea inoiz itzi ez daigun.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa

Zagoz gure alde, Jauna,
egizuz santu ogi-ardao honeek
eta, espirituzko opari hau onarturik,
egin gaizuz geu ere Zuretzat betiko opari.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Prefazioa: Pazkoaldikoa, 488-495. or.

Jaunartze-ant.

Aita, Zuk emon deustazuzanak Neu nagoan tokian Neugaz egotea nahi dot, Zuk emon deustazun aintza ikusi dagien, aleluia.

Ik. Jn 17, 24

Jaunartze ondorengoa

Sakramentuaren dohai santuak harturik,
apalik eskatzen deutsugu, Jauna:
zure Semeak bere oroigarri egiteko
agindu euskun Eukaristia honek
gehitu dagiala gugan maitasuna.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

III. PAZKO DOMEKA

Sarrera-ant. Lur osoa, egiozu irrintzi Jainkoari, kanta haren izen ospetsuari, emon aintza eta gorespen berari, aleluia. Sal 66 [65], 1-2

Aintza zeruetan esango da.

Otoitza Oi Jainko, poztu daitela beti
bizibarritu eta gaztetu dozun zeure herria;
egizu, zure seme-alaba ordeko izatea
berreskuratu izanaz pozturik,
usterik sendoenaz itxaron daigula biztuera-eguna.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Sinisten dot esango da.

Oparigaien gainekoa Onartu, Jauna, zure Eleizeak pozik ekarritako eskeintzak
eta, holako poza emon deutsazun ezkero,
emoiozu frututzat betiko zoriona.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Prefazioa: Pazkoaldikoa, 488-495. or.

Jaunartze-ant. Ogia zatitzean ezagutu eben ikasleek Jesus Jauna, aleluia. Ik. Lk 24, 35

A urtean

B urtean Idatzita egoan Mesiasek sufridu egin behar ebala eta hirugarren egunean hilen artetik biztu, eta bihotz-barritzeko dei egin behar jakela beraren izenean herri guztiei, pekatuak parkatu dakiezan, aleluia. Lk 24, 46-47

C urtean Jesusek esan eutsen ikasleei: Zatoze gosaltzera. Eta ogia hartu eta emon eutsen, aleluia. Ik. Jn 21, 12-13

Jaunartze ondorengoa

Begitu bihotz onez, Jauna,
zeure herriari,
eta, betiko biziaren sakramentuetan erabarritu dozunez,
egizu, heldu daitela
aintzaz beteko dan haragiaren biztuera hilezkorrera.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Bedeinkazino nagusia erabili leiteke, 645. or., 8 zk.

Pazkoaldiko III. astelehena

Sarrera-ant.

Biztu da Artzain ona, bere bizia ardiakaitik emon ebana eta bere artaldeagaitik hil nahi izan ebana, aleluia.

Otoitza

Jainko ahalguztiduna, Kristo berbiztuaren izaera barria
emon deuskuzu pazko-sakramentuen bidez;
egizu, gizaki zaharraren jokabideak alde batera itzirik,
gizaki barriari dagokionez bizi gaitezala.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa

Igon begie Zugana, Jauna, gure otoitzak eta opari-eskeintzak,
zure errukiak garbiturik,
zure maitasunaren sakramentuak hobeto ospatu daiguzan.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Prefazioa: Pazkoaldikoa, 488-495. or.

Jaunartze-ant.

Bakea izten deutsuet, neure bakea emoten; Nik emoten deutsuedan bakea ez da munduarena lakoa, dino Jaunak, aleluia. Jn 14, 27

Jaunartze ondorengoa

Jainko ahalguztidun betikoa,
betiko bizitzarako sortu gaituzu Kristoren biztueran;
gehitu egizuz gugan pazko-sakramentuaren frutuak
eta isuri gure bihotzera janari salbagarri honen indarra.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Pazkoaldiko III. martitzena

Sarrera-ant. Goratu egizue gure Jainkoa, hari begirune deutsazuen zerbitzari guztiok, txiki eta handi, etorri dira-eta haren Mesiasen salbazinoa, indarra eta erregetza, aleluia. Ik. Ap 19, 5; 12, 10

Otoitza

Oi Jainko, zeure erreinuko ateak edegiten deutsezuz
urez eta Espiritu Santuaz barriro jaio diranei;
indartu honeengan Zeuk emondako grazia,
pekatu guztietatik garbiturik,
Zeuk agindutako dohaiak lortu dagiezan.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa

Onartu, Jauna, zure Eleizeak pozik ekarritako eskeintzak
eta, holako poza emon deutsazun ezkero,
emoiozu frututzat betiko zoriona.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Prefazioa: Pazkoaldikoa, 488-495. or.

Jaunartze-ant. Kristogaz hil bagara, sinisten dogu, bizi ere beragaz biziko garala, aleluia. Erm 6, 8

Jaunartze ondorengoa

Begitu bihotz onez, Jauna,
zeure herriari,
eta, betiko biziaren sakramentuetan erabarritu dozunez,
egizu, heldu daitela
aintzaz beteko dan haragiaren biztuera hilezkorrera.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Pazkoaldiko III. eguaztena

Sarrera-ant. Zure gorespenaz betea neukan ahoa, kantatu ahal izateko. Poz-oihuz kantatuko deutsue nire ezpanek, aleluia. Ik. Sal 71 [70], 8.23

Otoitza Zatoz, Jauna, zeure familia honi laguntzera;
eta, fedearen grazia emon deuskuzun ezkero,
egizu, izan daigula parte
zure Seme bakarraren biztueran betiko.
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa Eskerrak emoten deutsuguz beti, Jauna,
pazko-misterio honegaitik;
egizu, eten barik barritzen diharduzun gure erospenak
ekarri deigula betiko poza.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Prefazioa: Pazkoaldikoa, 488-495. or.

Jaunartze-ant. Biztu da Jauna eta argitu gaitu bere odolaz askatu gaituanok, aleluia.

Jaunartze ondorengoa Entzun, Jauna, gure otoitza;
gure erospeneko hartu-emon santuok ekarri deiguela
bizitza honetarako laguntza eta betiko poza.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Pazkoaldiko III. eguena

Sarrera-ant. Jaunari deutsat kantatzen, garaipen handia lortu daualako. Jauna dot indar eta kemen, bera neure salbazino, aleluia. Ik. Ur 15, 1-2

Otoitza Jainko ahalguztidun betikoa,
pazkoaldi honetan argiago eta sakonago
agertu deuskuzu zeure maitasuna;
egizu, okerraren ilunpeetatik atara gaituzunok
zintzoago lotu gakiozala zure egiari.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa

Oi Jainko, sakrifizio honetako hartu-emon miragarriei esker,
zeure jainkotasun bakar eta gorenean
parte izateko grazia emoten deuskuzu;
egizu, sinisten dogun egia egintzetan autortu daigula.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Prefazioa: Pazkoaldikoa, 488-495. or.

Jaunartze-ant.

Kristo danakaitik hil da, bizi diranak ez daitezan eurentzat bizi, eurakaitik hil eta biztu dan harentzat baino, aleluia. 2 Ko 5, 15

Jaunartze ondorengoa

Zagoz beti, Jauna, zeure herriagaz,
eta zerutar misterioak ezagutuazo deutsezuzanei
emoiezu, euren izate zaharra itzirik,
jainkozko bizi barriaren erara bizitzea.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Pazkoaldiko III. barikua

Sarrera-ant.

Hila izan dan Bildotsa bada nor ahalmena eta aberastasuna, jakituria, indarra eta ohorea hartzeko, aleluia. Ap 5, 12

Otoitza

Jainko ahalguztiduna,
egizu, gure Jauna biztu dala jakiteko grazia izan dogunok,
Espirituaren maitasunari esker
biztu gaitezala bizi barrira.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa

Zagoz gure alde, Jauna,,
egizuz santu ogi-ardao honeek
eta, espirituzko opari hau onarturik,
egin gaizuz geu ere Zuretzat betiko opari.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Prefazioa: Pazkoaldikoa, 488-495. or.

Jaunartze-ant.

Kurutzeratua hilen artetik biztu zan, eta askatu ginduzan, aleluia.

Jaunartze ondorengoa

Sakramentuaren dohai santuak harturik,
apalik eskatzen deutsugu, Jauna:
zure Semeak bere oroigarri egiteko
agindu euskun Eukaristia honek
gehitu dagiala gugan maitasuna.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Pazkoaldiko III. zapatua

Sarrera-ant.

Bateoaren bidez, Kristogaz hobiratuak izan zarie, eta biztu be, beragan biztu zarie, ha hilen artetik biztu eban Jainkoaren ahalmenean sinistuz, aleluia. Kol 2, 12

Otoitza

Oi Jainko, bateo-iturrian bizibarritu dozuz
Zugan sinisten dabenak;
zaindu egizuz Kristogan barriro jaio diranak,
gaiztakeriaren tentaldiak garaitu dagiezan
eta zure adiskidetzan leial iraun dagien.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa

Hartu bihotz onez, Jauna, zeure familiaren eskeintza
eta zaindu zeure babespean,
Zeuk emondako dohaiak galdu ez, ezpada ze
betiko ondasunak eskuratu dagizan.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Prefazioa: Pazkoaldikoa, 488-495. or.

Jaunartze-ant.

Aita, honeen alde erregutzen dot, bat izan daitezala Gugaz, munduak sinistu dagian Zeuk bialdu nozuna, dino Jaunak, aleluia. Jn 17, 20-21

Jaunartze ondorengoa

Zaindu beti maitasunez, Jauna, Zeuk salbatu dozuzanak,
eta zure Semearen nekaldiari esker askatu dozuzanak
poztu daitezala beraren biztueraz.
Errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

IV. PAZKO DOMEKA

Sarrera-ant. Jaunaren maitasunaz dago lurra beteta, Jaunak bere hitzaz egin dau ortzia, aleluia. Sal 33 [32], 5-6

Aintza zeruetan esango da.

Otoitza

Jainko ahalguztidun betikoa,
eroan gaizuz zeruko pozetan partaide izatera,
fededunen artalde apal hau heldu daiten
beraren artzaina, heriotza garaiturik, heldu dan ospera.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Sinisten dot esango da.

Oparigaien gainekoa

Eskerrak emoten deutsuguz beti, Jauna,
pazko-misterio honegaitik;
egizu, eten barik barritzen diharduzun gure erospenak
ekarri deigula betiko poza.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Prefazioa: Pazkoaldikoa, 488-495. or.

Jaunartze-ant. Biztu da Artzain ona, bere bizia ardiakaitik emon ebana eta bere artaldeagaitik hil nahi izan ebana, aleluia.

Jaunartze ondorengoa

Artzain Ona, zaindu maitasunez zeure artaldea;
eta eroan betiko larre gurietara
zeure Semearen odol baliotsuaz salbatu dozuzan ardiak.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Bedeinkazino nagusia erabili leiteke, 645. or., 8. zk.

Pazkoaldiko IV. astelehena

Sarrera-ant. Kristo, hilen artetik biztu zan ezkero, ez da barriro hilko; heriotzak ez dau gehiago aginterik harengan, aleluia. Erm 6, 9

Otoitza

Oi Jainko, zeruko zoriontsuen argi distiratsua,
lur honetan pazko-misterioa ospatzeko
egokiera emon deuskuzu;
egizu, gozatu daigula gizaldien gizaldietan
zure graziaren betea.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa

Onartu, Jauna, zure Eleizeak pozarren ekarritako eskeintzak
eta, holako poza emon deutsazun ezkero,
emoiozu frututzat betiko zoriona.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Prefazioa: Pazkoaldikoa, 488-495. or.

Jaunartze-ant. Jesusek, bere ikasleen erdian jarririk, esan eutsen: Bakea zuei, aleluia. Jn 20, 19

Jaunartze ondorengoa

Begitu bihotz onez, Jauna,
zeure herriari,
eta, betiko biziaren sakramentuetan erabarritu dozunez,
egizu, heldu daitela
aintzaz beteko dan haragiaren biztuera hilezkorrera.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Pazkoaldiko IV. martitzena

Sarrera-ant. Poztu gaitezan eta egin jai, emon deiogun aintza Jainkoari, errege izaten hasia da-eta Jauna, gure Jainko ahalguztiduna, aleluia. Ap 19, 7a.6c

Otoitza Jainko ahalguztiduna, egizu,
Kristoren biztuera ospatzen dihardugunok,
salbatuak izatearen poza merezi daigula.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa Eskerrak emoten deutsuguz beti, Jauna,
pazko-misterio honegaitik;
egizu, eten barik barritzen diharduzun gure erospenak
ekarri deigula betiko poza.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Prefazioa: Pazkoaldikoa, 488-495. or.

Jaunartze-ant. Mesiasek sufridu egin behar eban eta hirugarren egunean hilen artetik biztu, bere aintzan sartzeko, aleluia. Ik. Lk 24, 46.26

Jaunartze ondorengoa Entzun, Jauna, gure otoitza;
gure erospeneko hartu-emon santuok ekarri deiguela
bizitza honetarako laguntza eta betiko poza.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Pazkoaldiko IV. eguaztena

Sarrera-ant. Nazinoen artean goratuko zaitut, Jauna, iragarriko deutset zure izena neure senideei, aleluia. Ik. Sal 18 [17], 50; 22 [21], 23

Otoitza Oi Jainko,
fededunen bizia, apalen ospea eta zintzoen zoriona,
entzun bihotz onez gure otoitza
eta zure agintzarien egarri garanok
asetu gaizuz zeure ondasun ugariz.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa

Oi Jainko, sakrifizio honetako hartu-emon miragarriei esker,
zeure jainkotasun bakar eta gorenean
parte izateko grazia emoten deuskuzu;
egizu, sinisten dogun egia egintzetan autortu daigula.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Prefazioa: Pazkoaldikoa, 488-495. or.

Jaunartze-ant.

Hauxe dino Jaunak: Neuk aukeratu zaituet mundutik, eta eginkizun hau emon deutsuet: frutu ugaria eta iraunkorra emon dagizuela edonon, aleluia. Ik. Jn 15, 19.16

Jaunartze ondorengoa

Zagoz beti, Jauna, zeure herriagaz,
eta zerutar misterioak ezagutuazo deutsezuzanei,
emoiezu, euren izate zaharra itzirik,
jainkozko bizi barriaren erara bizitzea.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Pazkoaldiko IV. eguena

Sarrera-ant.

Oi Jainko, zeure herriaren aurretik urten zenduanean, hareek gidatuz eta euren artean biziz, dar-dar egin eban lurrak, urtu egin zan zerua, aleluia. Ik. Sal 68 [67], 8-9.20

Otoitza

Oi Jainko, gizakiaren izatea barritu egin dozu,
hasierakoa baino bikainagoa eginez;
begitu zeure errukiaren sakramentu miragarriari
eta zaindu egizuz zeure graziaz eta bedeinkazinoz
bizi barriaren misterioaz erabarritu dozuzanak .
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa

Igon begie Zugana, Jauna, gure otoitzak eta opari-eskeintzak,
zure errukiak garbiturik,
zure maitasunaren sakramentuak hobeto ospatu daiguzan.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Prefazioa: Pazkoaldikoa, 488-495. or.

Jaunartze-ant. Ni zeuokaz izango nozue egunero munduaren azkenera arte, aleluia.
Mt 28, 20

Jaunartze ondorengoa

Jainko ahalguztidun betikoa,
betiko bizitzarako sortu gaituzu Kristoren biztueran;
gehitu egizuz gugan pazko-sakramentuaren frutuak
eta isuri gure bihotzera janari salbagarri honen indarra.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Pazkoaldiko IV. barikua

Sarrera-ant. Zeure heriotzaz irabazi gaituzu, Jauna, arraza, hizkuntza, herri eta nazino guztietatik; eta errege egin gaituzu geure Jainkoarentzat, aleluia.
Ik. Ap 5, 9-10

Otoitza

Oi Jainko, Zeugandik dogu askatasuna eta salbazinoa;
entzun gure otoitzak
eta, zeure Semearen odolaz salbatu gaituzun ezkero,
egizu, Zeugandik bizi gaitezala
eta Zeugan aurkitu daigula betiko zoriona.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa

Hartu bihotz onez, Jauna, zeure familiaren eskeintza
eta zaindu zeure babespean,
Zeuk emondako dohaiak galdu ez, ezpada ze
betiko ondasunak eskuratu dagizan.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Prefazioa: Pazkoaldikoa, 488-495. or.

Jaunartze-ant. Kristo gure Jauna gure pekatuakaitik emon eben heriotzara eta gure salbazinorako izan zan biztua, aleluia.
Erm 4, 25

Jaunartze ondorengoa

Zaindu beti maitasunez, Jauna, Zeuk salbatu dozuzanak,
eta zure Semearen nekaldiari esker askatu dozuzanak
poztu daitezala haren biztueraz.
Errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Pazkoaldiko IV. zapatua

Sarrera-ant.

Zuek, Jainkoak beretzat eskuratutako herri zarie; iragarri egizuez ilunpetatik bere argi zoragarrira deitu deutsuen Jainkoaren egintza bikainak, aleluia. Ik. 1 P 2, 9

Otoitza

Oi Jainko, zerutar osabidea
gauzatu dozu munduarentzat pazko-festaburuan;
jarraitu zeure Eleizeagaz bihozbera izaten,
orainaldiko jarduera zintzoa betiko bizitzarako balia dakion.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa

Zagoz gure alde, Jauna,
egizuz santu ogi-ardao honeek
eta, espirituzko opari hau onarturik,
egin gaizuz geu ere Zuretzat betiko opari.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Prefazioa: Pazkoaldikoa, 488-495. or.

Jaunartze-ant.

Aita, Zuk emon deustazuzanak Neu nagoan tokian Neugaz egotea nahi dot, Zuk emon deustazun aintza ikusi dagien, aleluia. Ik. Jn 17, 24

Jaunartze ondorengoa

Sakramentuaren dohaia harturik,
apalik eskatzen deutsugu, Jauna:
zure Semeak bere oroigarri egiteko
agindu euskun Eukaristia honek
gehitu dagiala gugan maitasuna.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

V. PAZKO DOMEKA

Sarrera-ant. Kanta Jaunari kantu barria, egintza harrigarriak egin ditu-eta Jaunak; bere salbazino-egintza agertu dau nazinoen aurrean, aleluia.
Ik. Sal 98 [97], 1-2

Aintza zeruetan esango da.

Otoitza

Jainko ahalguztidun betikoa,
burutu egizu gugan beti pazko-sakramentua,
Bateoaren bidez bizibarritu dozuzanek
zure laguntza eta babesari esker frutu ugari emon dagien;
eta egizu, betiko biziaren zorionera heldu daitezala.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Sinisten dot esango da.

Oparigaien gainekoa

Oi Jainko, sakrifizio honetako hartu-emon miragarriei esker,
zeure jainkotasun bakar eta gorenean
parte izateko grazia emoten deuskuzu;
egizu, sinisten dogun egia egintzetan autortu daigula.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Prefazioa: Pazkoaldikoa, 488-495. or.

Jaunartze-ant. Neu naz egiazko mahatsondoa eta zuek aihenak, dino Jaunak; norbait Nigan badago, Ni beragan lez, harek frutu asko emongo dau, aleluia.
Jn 15, 1.5

Jaunartze ondorengoa

Zagoz beti, Jauna, zeure herriagaz,
eta zerutar misterioak ezagutuazo deutsezuzanei
emoiezu, euren izate zaharra itzirik,
jainkozko bizi barriaren erara bizitzea.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Bedeinkazino nagusia erabili leiteke, 645. or., 8. zk.

Pazkoaldiko V. astelehena

Sarrera-ant. Biztu da Artzain ona, bere bizia ardiakaitik emon ebana eta bere artaldeagaitik hil nahi izan ebana, aleluia.

Otoitza

Jauna, babestu beti zeure eskuz fededunen familia,
zure Seme bakarraren biztueraz gatx guztitik gorderik,
zeruko dohaiez aberasten jarraitu dagian.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa

Igon begie Zugana, Jauna, gure otoitzak eta opari-eskeintzak,
zure errukiak garbiturik,
zure maitasunaren sakramentuak hobeto ospatu daiguzan.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Prefazioa: Pazkoaldikoa, 488-495. or.

Jaunartze-ant. Bakea izten deutsuet, neure bakea emoten; Nik emoten deutsuedan bakea ez da munduarena lakoa, dino Jaunak, aleluia. Jn 14, 27

Jaunartze ondorengoa

Jainko ahalguztidun betikoa,
betiko bizitzarako sortu gaituzu Kristoren biztueran;
ugaritu egizuz gugan pazko-sakramentuaren frutuak
eta isuri gure bihotzera janari salbagarri honen indarra.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Pazkoaldiko V. martitzena

Sarrera-ant. Goratu egizue gure Jainkoa, hari begirune deutsazuen zerbitzari guztiok, txiki eta handi, etorri dira-eta haren Mesiasen salbazinoa, indarra eta erregetza, aleluia. Ik. Ap 19, 5; 12, 10

Otoitza

Oi Jainko,
betiko bizitzarako sortu gaituzu Kristoren biztueran;
emoiozu zeure herriari fedean eta itxaropenean irautea,
zalantza barik sinistu dagian beteko dirala Zuk agindutakoak.

Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa

Onartu, Jauna, zure Eleizeak pozarren ekarritako eskeintzak
eta, holako poza emon deutsazun ezkero,
emoiozu frututzat betiko zoriona.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Prefazioa: Pazkoaldikoa, 488-495. or.

Jaunartze-ant.

Kristogaz hil bagara, sinisten dogu, bizi ere beragaz biziko garala, aleluia. Erm 6, 8

Jaunartze ondorengoa

Begitu bihotz onez, Jauna,zeure herriari,
eta, betiko biziaren sakramentuetan erabarritu dozunez,
egizu, heldu daitela
aintzaz beteko dan haragiaren biztuera hilezkorrera.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Pazkoaldiko V. eguaztena

Sarrera-ant.

Zure gorespenaz betea neukan ahoa, kantatu ahal izateko. Poz-oihuz kantatuko deutsue nire ezpanek, aleluia. Ik. Sal 71 [70], 8.23

Otoitza

Oi Jainko,
bihotz garbia maite dozu eta erruduna errubako egiten,
zuzendu Zeugana zeure fededunen bihotza,
sinisbakotasunaren ilunpeetatik atara dozuzanak
zure egiaren argitik behin ere aldendu ez daitezan.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa

Eskerrak emoten deutsuguz beti, Jauna,
pazko-misterio honegaitik;
egizu, eten barik barritzen diharduzun gure erospenak
ekarri deigula betiko poza.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Prefazioa: Pazkoaldikoa, 488-495. or.

Jaunartze-ant. Biztu da Jauna eta argitu gaitu bere odolaz askatu gaituanok, aleluia.

Jaunartze ondorengoa

Entzun, Jauna, gure otoitza;
gure erospeneko hartu-emon santuok ekarri deiguela
bizitza honetarako laguntza eta betiko poza.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Pazkoaldiko V. eguena

Sarrera-ant. Jaunari deutsat kantatzen, garaipen handia lortu daualako. Jauna dot indar eta kemen, bera neure salbazino, aleluia. Ik. Ir 15, 1-2

Otoitza

Oi Jainko, gu pekatari eta dohakabe izanik,
santu eta dohatsu egin gaitu zure graziak;
lagundu eiguzu zeure egintzez eta dohaiez
eta, fedearen bidez zuzen egin gaituzunoi,
emoiguzu fede horretan sendo irautea.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa

Oi Jainko, sakrifizio honetako hartu-emon miragarriei esker,
zeure jainkotasun bakar eta gorenean
parte izateko grazia emoten deuskuzu;
egizu, sinisten dogun egia egintzetan autortu daigula.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Prefazioa: Pazkoaldikoa, 488-495. or.

Jaunartze-ant. Kristo danakaitik hil da, bizi diranak ez daitezan eurentzat bizi, eurakaitik hil eta biztu dan harentzat baino, aleluia. 2 Ko 5, 15

Jaunartze ondorengoa

Zagoz beti, Jauna, zeure herriagaz,
eta zerutar misterioak ezagutuazo deutsezuzanei,
emoiezu euren izate zaharra itzirik,
jainkozko bizi barriaren erara bizitzea.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Pazkoaldiko V. barikua

Sarrera-ant. Hila izan dan Bildotsa bada nor ahalmena eta aberastasuna, jakituria, indarra eta ohorea hartzeko, aleluia. Ap 5, 12

Otoitza Emoiguzu, Jauna, pazko-misterioari dagokionez bizitzea,
pozik ospatzen dogun misterio honek
bere indarrez zaindu eta salbatu gagizan beti.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa Zagoz gure alde, Jauna,
egizuz santu ogi-ardao honeek
eta, espirituzko opari hau onarturik,
egin gaizuz geu ere Zuretzat betiko opari.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Prefazioa: Pazkoaldikoa, 488-495. or.

Jaunartze-ant. Kurutzeratua hilen artetik biztu zan, eta askatu ginduzan, aleluia.

Jaunartze ondorengoa Sakramentuaren dohai santuak harturik,
apalik eskatzen deutsugu, Jauna:
zure Semeak bere oroigarri egiteko
agindu euskun Eukaristia honek
gehitu dagiala gugan maitasuna.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Pazkoaldiko V. zapatua

Sarrera-ant. Bateoaren bidez, Kristogaz hobiratuak izan zarie, eta biztu ere, beragan biztu zarie, ha hilen artetik biztu eban Jainkoaren ahalmenean sinistuz, aleluia. Kol 2, 12

Otoitza

Jainko ahalguztidun betikoa, Bateoan gu birsortzean
zeure bizia emon deuskuzu eta betieran bizitzeko gai egin;
emoiguzu zeure laguntza aintzaren betea lortu daigun.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa

Hartu bihotz onez, Jauna, zeure familiaren eskeintza
eta zaindu zeure babespean,
Zuk emondako dohaiak galdu ez, ezpada ze
betiko ondasunak eskuratu dagizan.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Prefazioa: Pazkoaldikoa, 488-495. or.

Jaunartze-ant.

Aita, honeen alde erregutzen dot, bat izan daitezala Gugaz, munduak sinistu dagian Zeuk bialdu nozuna, dino Jaunak, aleluia.

Jn 17, 20-21

Jaunartze ondorengoa

Zaindu beti maitasunez, Jauna, Zeuk salbatu dozuzanak,
eta zure Semearen nekaldiari esker askatu dozuzanak
poztu daitezala haren biztueraz.
Errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

VI. PAZKO DOMEKA

Sarrera-ant. Adierazo mezua poz-oihuz, iragarri lurraren bazterreraino; askatu dau Jaunak bere herria, aleluia. Ik. Is 48, 20

Aintza zeruetan esango da.

Otoitza Jainko ahalguztiduna,
hilen artetik biztu dan gure Jauna goresteko
gogotsu ospatzen doguz egun pozgarri honeek;
egizu, oroigarri horreetan autortzen doguna
bete daigula beti geure egintzetan.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Sinisten dot esango da.

Oparigaien gainekoa Igon begie Zugana, Jauna, gure otoitzak eta opari-eskeintzak,
zure errukiak garbiturik,
zure maitasunaren sakramentuak hobeto ospatu daiguzan.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Prefazioa: Pazkoaldikoa, 488-495. or.

Jaunartze-ant. Maite banozue, beteko dozuez nire aginduak, dino Jaunak. Nik Aitari eskatuko deutsat, eta beste Laguntzaile bat emongo deutsue, beti zuekin egon daiten, aleluia. Jn 14, 15-16

Jaunartze ondorengoa Jainko ahalguztidun betikoa,
betiko bizitzarako sortu gaituzu Kristoren biztueran;
ugaritu egizuz gugan pazko-sakramentuaren frutuak
eta isuri gure bihotzera janari salbagarri honen indarra.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Bedeinkazino nagusia erabili leiteke, 645. or., 8. zk.

Pazkoaldiko VI. astelehena

Sarrera-ant. Kristo, hilen artetik biztu zan ezkero, ez da barriro hilko; heriotzak ez dau gehiago aginterik harengan, aleluia. Erm 6, 9

Otoitza

Jainko errukitsua, pazko-ospakizunetan hartutako graziek
ekarri deiguela frutu ugari geure bizitza guztian.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa

Onartu, Jauna, zure Eleizeak pozik ekarritako eskeintzak
eta, holako poza emon deutsazun ezkero,
emoiozu frututzat betiko zoriona.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Prefazioa: Pazkoaldikoa, 488-495. or.

Jaunartze-ant. Jesusek, bere ikasleen erdian jarririk, esan eutsen: Bakea zuei, aleluia. Jn 20, 19

Jaunartze ondorengoa

Begitu bihotz onez, Jauna,zeure herriari,
eta, betiko biziaren sakramentuetan erabarritu dozunez,
egizu, heldu daitela
aintzaz beteko dan haragiaren biztuera hilezkorrera.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Pazkoaldiko VI. martitzena

Sarrera-ant. Poztu gaitezan eta egin jai, emon deiogun aintza Jainkoari, errege izaten hasia da-eta Jauna, gure Jainko ahalguztiduna, aleluia. Ap 19, 7a.6c

Otoitza

Jainko ahalguztidun errukitsua,
egizu, zure Seme Jesu Kristoren biztueran
parte izan daigula benetan.
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa

Eskerrak emoten deutsuguz beti, Jauna,
pazko-misterio honegaitik;
egizu, eten barik barritzen diharduzun gure erospenak
ekarri deigula betiko poza.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Prefazioa: Pazkoaldikoa, 488-495. or.

Jaunartze-ant.

Mesiasek sufridu egin behar eban eta hirugarren egunean hilen artetik biztu, bere aintzan sartzeko, aleluia. Ik. Lk 24, 46.26

Jaunartze ondorengoa

Entzun, Jauna, gure otoitza;
gure erospeneko hartu-emon santuok lortu deiguela
bizitza honetarako laguntza eta betiko poza.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Pazkoaldiko VI. eguaztena

Sarrera-ant.

Nazinoen artean goretsiko zaitut, Jauna, iragarriko deutset zure izena neure senideei, aleluia. Ik. Sal 18 [17], 50; 22 [21], 23

Otoitza

Entzun, Jauna, gure otoitza
eta, zure Semearen biztuerako jaiak ospatzen doguzan lez,
egizu, santu guztiekin batera poztu gaitezala,
bera barriro etorriko danean.
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa

Oi Jainko, sakrifizio honetako hartu-emon miragarriei esker,
zeure jainkotasun bakar eta gorenean
parte izateko grazia emoten deuskuzu;
egizu, sinisten dogun egia egintzetan autortu daigula.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Prefazioa: Pazkoaldikoa, 488-495. or.

Jaunartze-ant. Hau dino Jaunak: Neuk aukeratu zaituet mundutik, eta eginkizun hau emon deutsuet: frutu ugaria eta iraunkorra emon dagizuela edonon, aleluia. Ik. Jn 15, 19.16

Jaunartze ondorengoa

Zagoz beti, Jauna, zeure herriagaz,
eta zerutar misterioak ezagutuazo deutsezuzanei
emoiezu, euren izate zaharra itzirik,
jainkozko bizi barriaren erara bizitzea.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Pazkoaldiko VI. eguena

Sarrera-ant. Oi Jainko, zeure herriaren aurretik urten zenduanean, hareek gidatuz eta euren artean biziz, dar-dar egin eban lurrak, urtu egin zan zerua, aleluia. Ik. Sal 68 [67], 8-9.20

Otoitza

Oi Jainko,
erospenaren frutuetan parte emon deutsazu zeure herriari;
egizu, poztu gaitezala beti Jaunaren biztueraz.
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa

Igon begie Zugana, Jauna, gure otoitzak eta opari-eskeintzak,
zure errukiak garbiturik,
zure maitasunaren sakramentuak hobeto ospatu daiguzan.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Prefazioa: Pazkoaldikoa, 488-495. or.

Jaunartze-ant. Ni zeuekin izango nozue egunero munduaren azkenera arte, aleluia. Mt 28, 20

Jaunartze ondorengoa

Jainko ahalguztidun betikoa,
betiko bizitzarako sortu gaituzu Kristoren biztueran;
ugaritu egizuz gugan pazko-sakramentuaren frutuak
eta isuri gure bihotzera janari salbagarri honen indarra.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Pazkoaldiko VI. barikua

Sarrera-ant. Zeure heriotzaz irabazi gaituzu, Jauna, arraza, hizkuntza, herri eta nazino guztietatik; eta errege egin gaituzu geure Jainkoarentzat, aleluia. Ik. Ap 5, 9-10

Otoitza Entzun, Jauna, gure otoitzak, eta egizu,
zabaldu dadila Barri Ona lurbira osoan,
Kristoren erospenak ekarritako salbazinoa ere
guztiengana heldu dadin,
eta zure seme-alaba ordeko guztiek egiaren hitza
eta agindutako bizi barria izan dagiezan.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Jaunaren Igokundeko festaburua aurreko eguenean ospatu daben lekuetan:

Oi Jainko, betiko bizitzarako sortu gaituzu
Kristoren biztueran;
jaso gure bihotza
zure eskumaldean dagoan gure Salbatzaileagana,
Bateoaz birsortu gaituzunok
biztuera zoriontsua izan daigun,
bera aintzatsu etorriko danean.
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa Hartu bihotz onez, Jauna, zeure familiaren eskeintza
eta zaindu zeure babespean,
Zuk emondako dohaiak galdu ez, ezpada ze
betiko ondasunak eskuratu dagizan.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Prefazioa: Pazkoaldikoa, 488-495. or.

Jaunartze-ant. Kristo gure Jauna gure pekatuakaitik emon eben heriotzara eta gure salbazinorako izan zan biztua, aleluia. Erm 4, 25

Jaunartze ondorengoa

Zaindu beti maitasunez, Jauna, Zeuk salbatu dozuzanak,
eta zure Semearen nekaldiari esker askatu dozuzanak
poztu daitezala haren biztueraz.
Errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Pazkoaldiko VI. zapatua
Goizeko Meza

Sarrera-ant.

Zuek, Jainkoak beretzat eskuratutako herri zarie; iragarri egizuez ilunpetatik bere argi zoragarrira dei egin deutsuen Jainkoaren egintza bikainak, aleluia. Ik. 1 P 2, 9

Otoitza

Sendotu egizuz, Jauna, gure gogo-bihotzak,
beti on dana egiten ahaleginduz
pazko-misterioaren arabera bete-betean bizitzea lortu daigun.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Jaunaren Igokundeko festaburua aurreko eguenean ospatu daben lekuetan:

Oi Jainko, zure Semeak, Zugana igotean,
Espiritu Santua isuriko ebala agindu eutsen apostoluei;
hareei erreinuko jakiturian sakontzeko
grazia ugaria emon zeuntsen lez,
emoiguzuz geuri ere zeure Espirituaren dohaiak.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa

Zagoz gure alde, Jauna,
egizuz santu ogi-ardao honeek
eta, espirituzko opari hau onarturik,
egin gaizuz geu ere Zuretzat betiko opari.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Prefazioa: Pazkoaldikoa, 488-495. or.

Jaunartze-ant. Aita, Zuk emon deustazuzanak Neu nagoan tokian Neugaz egotea nahi dot, Zuk emon deustazun aintza ikusi dagien, aleluia.

Ik. Jn 17, 24

Jaunartze ondorengoa

Sakramentuaren dohai santuak harturik,
apalik eskatzen deutsugu, Jauna:
zure Semeak bere oroigarri egiteko
agindu euskun Eukaristia honek
gehitu dagiala gugan maitasuna.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

VII. Pazko-Domeka

JAUNAREN IGOKUNDEA

Festaburua

Bezpera-arratsaldeko Meza

Meza-gai honeek erabiliko dira Igokunde aurreko arratsaldean, I. Bezperen aurretik nahiz ondoren.

Sarrera-ant. Munduko erreinuok, kanta Jainkoari, jo soinua Jaunari, zerura igon dau-eta; haren ospea eta indarra hodeiak baino gorago, aleluia. Ik. Sal 68 [67], 33.35

Aintza zeruetan esango da.

Otoitza Oi Jainko, zure Semeak zeruetara igon eban gaurko egunez
Apostoluak begira egozala;
emoiguzu, harek agindu eban lez,
ha lur honetan gugaz izan daitela beti
eta guk zeruan beragaz bizitzeko zoriona izan daigula.
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Sinisten dot esango da.

Oparigaien gainekoa Oi Jainko,
beti bizi dan zure Seme bakarra, gure Abade Nagusia,
zure eskuman jarrita dago otoitz egiten gure alde;
emoiguzu, uste osoz graziaren aulkira hurreratzea,
zure errukia lortzeko.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Prefazioa: Igokundekoa, 496-498. or.

Ik. Prefazio horreetako orrietan, I., II. eta III. Eukaristi Otoitzetan Igokundeko misterioaren aipamena egiteko oharrak.

Jaunartze-ant. Kristo, pekatuakaitik opari bat bakarra eskeiniz, Jainkoaren eskumaldean jesarrita dago behin betiko, aleluia. Ik. Heb 10, 12

Jaunartze ondorengoa Zure altarako mahaitik hartu dogun sakramentuak, Jauna, biztu dagiala gure bihotzean zeruko aberrira joateko gogoa, eta emon deigula,
Salbatzailea gure aurrelari heldu dan lekura heltzeko haren pausuei jarraituz, geuk ere ahaleginak egitea.
Errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Bedeinkazino nagusia erabili leiteke, 646. or., 9. zk.

Eguneko Meza

Sarrera-ant. Galilearrok, zertan zagoze hor zerura begira? Zuen ondotik zerura igon dauan Jesus hori, zerura joaten ikusi dozuen lez etorriko da barriro, aleluia. Eg 1, 11

Aintza zeruetan esango da.

Otoitza Jainko ahalguztiduna, zure Seme Jesu Kristoren Igokundea garaipena gertatu da guretzat,
eta haren gorputzeko garanok ziur itxaroten dogu,
gure buru danak dauan aintza izango dogula geuk ere;
egizu, egia honek bete gaizala pozez eta esker onez.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Edo:

Jainko ahalguztiduna,
sinisten dogu, zure Seme bakarrak, gure Salbatzaileak,
zeruetara igon ebala gaurko egunez;
egizu, izan daigula geuk ere geure gogoa zerutar gauzetan.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Sinisten dot esango da.

Oparigaien gainekoa

Apalik eskeintzen deutsugu, Jauna, sakrifizio hau
zure Semearen Igokunde aintzatsua
ospatzen dogun egun honetan;
egizu, misteriozko hartu-emon santu honen bidez,
beragaz batera zerurako biztu gaitezala.
Errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Prefazioa: Igokundekoa, 496-498. or.
Ik. Prefazio horreetako orrietan, I., II. eta III. Eukaristi Otoitzetan Igokundeko misterioaren aipamena egiteko oharrak.

Jaunartze-ant.

Ni zeuokaz izango nozue egunero munduaren azkenera arte, aleluia.
Mt 28, 20

Jaunartze ondorengoa

Jainko ahalguztidun betikoa,
lur honetan berton
zerutar ondasunetan parte izatea emoten deuskuzu;
egizu, gure kristau gogoak jo dagiala
gure izaera Zugaz bat egina dagoan leku haretara.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Bedeinkazino nagusia erabili leiteke, 646. or., 9. zk.

VII. PAZKO DOMEKA

Jaunaren Igokundeko festaburua pazkoaldiko VI. eguenean ospatu dan lekuetan, Meza-gai honeek erabiliko dira VII. Pazko-domekan.

Sarrera-ant. Entzun, Jauna, nire dei-hotsa. Bihotzak esaten deust: Bilatu egizu Jaunaren aurpegia. Zure aurpegi bila nabil, Jauna; ez ezkutatu niri zeure aurpegia, aleluia. Ik. Sal 27 [26], 7-9

Aintza zeruetan esango da.

Otoitza

Entzun bihotz onez, Jauna, gure otoitzak,
eta egizu, gizon-emakumeon Salbatzailea
Zeugaz aintzatsu bizi dala sinisten dogunok,
sentidu daigula geugaz ere badagoala
munduaren azkeneraino,
berak agindu eban lez.
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Sinisten dot esango da.

Oparigaien gainekoa

Onartu, Jauna, zeure fededunen eskariak eta eskeintzak;
egizu, fedez eta maitasunez ospatzen dogun Eukaristia honek
eroan gaizala zeruko zorionera.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Prefazioa: Pazkoaldikoa, 488-495. or., nahiz Igokundekoa, 496-499. or.

Jaunartze-ant. Egizu, Aita, guztiak bat izan daitezala, Gu biok bat garan lez. Ik. Jn 17, 22

Jaunartze ondorengoa

Jainko gure Salbatzailea,
sakramentu honen bidez sendotu gaizuz sinismen honetan:
Eleiza osoak ere izango dauala bere gorputzean
haren buru danak orain daukan ospea.
Errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Bedeinkazino nagusia erabili leiteke, 645. or., 8. zk.

Pazkoaldiko VII. astelehena

Sarrera-ant. Espiritu Santuaren indarra hartuko dozue, eta nire lekuko izango zarie lurraren azken mugaraino, aleluia. Eg 1, 8

Otoitza Jauna, etorri bedi gugana Espiritu Santuaren indarra,
zure nahia gogoz onartu
eta geure bizitza osoaz autortu daigun.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa Sakrifizio orbanbako honek garbitu gaizala, Jauna,
eta isuri dagiala gogo-bihotzetan goiko graziaren indarra.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Prefazioa: Pazkoaldikoa, 488-495. or., nahiz Igokundekoa, 496-499. or.

Jaunartze-ant. Ez zaituet umezurtz itziko, dino Jaunak; bihurtuko naz zuokana eta poztuko da zuen bihotza, aleluia. Ik. Jn 14, 18; 16, 22

Jaunartze ondorengoa Zagoz beti, Jauna, zeure herriagaz,
eta zerutar misterioak ezagutuazo deutsezuzanei
emoiezu, euren izate zaharra itzirik,
jainkozko bizi barriaren erara bizi daitezala.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Pazkoaldiko VII. martitzena

Sarrera-ant. Neu naz lehenengoa eta azkena, bizi dana; hilda egon nintzan, baina orain bizirik nago gizaldien gizaldietan, aleluia. Ap 1, 17-18

Otoitza Jainko ahalguztidun errukiorra, egizu,
Espiritu Santuak, gugana etorriz eta gugan biziz,
bere aintzaren bizileku egin gaizala.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa

Onartu, Jauna, zeure fededunen eskariak eta eskeintzak;
egizu, fedez eta maitasunez ospatzen dogun Eukaristia honek
eroan gaizala zeruko zorionera.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Prefazioa: Pazkoaldikoa, 488-495. or., nahiz Igokundekoa, 496-499. or.

Jaunartze-ant.

Aitak Espiritu Santua bialduko deutsue nire izenean; berak irakatsiko deutsue dana eta gogoratuazoko Nik esan deutsuedan guztia, dino Jaunak, aleluia. Jn 14, 26

Jaunartze ondorengoa

Sakramentuaren dohai santuak harturik,
apalik eskatzen deutsugu, Jauna:
zure Semeak bere oroigarri egiteko
agindu euskun Eukaristia honek
gehitu dagiala gugan maitasuna.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Pazkoaldiko VII. eguaztena

Sarrera-ant.

Herri guztiok, jo egizue txalo, egin pozez oihu eta irrintzi Jainkoari, aleluia. Sal 47 [46], 2

Otoitza

Jainko errukitsua,
egizu, zure Eleizea, Espiritu Santuak batuta,
bizi dadila bihotz guztiz Zugazko zaletasunean
eta borondate garbiz bat egina.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa

Onartu, Jauna, zure nahia betez egiten deutsugun sakrifizioa,
eta, Zu goresteko ospatzen dogun Eukaristia honen bidez,
eroan egizu gugan bere betera
zure salbazinoak dakarren santutasuna.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Prefazioa: Pazkoaldikoa, 488-495. or., nahiz Igokundekoa, 496-499. or.

Jaunartze-ant. Laguntzailea, Aitagan jatorria dauan egiaren Espiritua, etortzean, harek autormen egingo dau nire alde, eta zeuok ere egingo dozue autormen, dino Jaunak, aleluia. Jn 15, 26-27

Jaunartze ondorengoa

Sakramentu honetan parte hartzeak, Jauna,
bete gaizala zure graziaz
eta, bere indarraz garbiturik,
gai egin gaizala eten barik dohai handi honeek hartzeko.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Pazkoaldiko VII. eguena

Sarrera-ant. Hurreratu gaitezan konfiantza osoz Jainkoaren graziaren tronura, errukia lortu eta preminaldian laguntza izan daigun, aleluia. Heb 4, 16

Otoitza

Zure Espiritu Santuak, Jauna,
emon deiguzala ugari bere dohaiak,
zeure gogoko egin gagizan
eta gure egintzak Zeuk nahi lakoak izan daitezan.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa

Zagoz gure alde, Jauna,
egizuz santu ogi-ardao honeek
eta, espirituzko opari hau onarturik,
egin gaizuz geu ere Zuretzat betiko opari.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Prefazioa: Pazkoaldikoa, 488-495. or. nahiz Igokundekoa, 496-499. or.

Jaunartze-ant. Egia dinotsuet: hoba da zuentzat Ni joatea; izan be, joaten ez banaz, ez jatzue etorriko Laguntzailea, dino Jaunak, aleluia. Jn 16, 7

Jaunartze ondorengoa

Hartu dogun sakramentu honek, Jauna,
lagundu deigula zure asmoak argiago ikusten
eta indarbarritu gaizala
zure Espirituaren dohaiak bete-betean hartu daiguzan.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Pazkoaldiko VII. barikua

Sarrera-ant. Kristok maite gaitu eta bere odolaz gure pekatuetatik askatu gaitu, eta Jainko Aitarentzat errege eta abade egin gaitu, aleluia.
Ik. Ap 1, 5-6

Otoitza

Oi Jainko,
Jesu Kristo goratuz eta Espiritu Santua guri emonez,
erreinuko sarrera edegi deuskuzu;
egizu, zure dohai handi honeek hartu doguzanok
zure zerbitzari zintzoagoak izan gaitezala
eta fede honetan beti aurrera egin daigula.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa

Begitu begi onez, Jauna, zeure herriaren eskeintzari,
eta, zure gogoko izan dadin,
garbitu dagiala gure bihotza Espiritu Santuaren etorrerak.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Prefazioa: Pazkoaldikoa, 488-495. or., nahiz Igokundekoa, 496-499. or.

Jaunartze-ant. Egiaren Espiritua etortzean, berak gidatuko zaitue egia beteraino, dino Jaunak, aleluia. Jn 16, 13

Jaunartze ondorengoa

Oi Jainko,
sakramentu honen bidez garbitzen gaituzu eta janaritzen;
egizu, Zuk emondako jatordu honetan esku hartzeak
ekarri deigula betiko bizia.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Pazkoaldiko VII. zapatua
Goizeko Meza

Sarrera-ant. Bihotz batez otoitzari emonak bizi ziran ikasleak emakume batzukaz eta Jesusen ama Mariagaz eta senideakaz, aleluia. Ik. Eg 1, 14

Otoitza

Jainko ahalguztiduna,
egizu, amaitzera goazen pazko-jaietako pozak
iraun dagiala gure jokabideetan eta bizitza guztian,
zure grazia lagun.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa

Jauna, Espiritu Santuaren etorrerak
prestatu gaizala sakramentu hau ospatzeko
bera da-eta pekatu guztien parkamena.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Prefazioa: Pazkoaldikoa, 488-495. or. nahiz Igokundekoa, 496-499. or.

Jaunartze-ant.

Espiritu Santuak nire aintza azalduko dau, adierazoko deutsuena niretik hartuko dau-eta, dino Jaunak, aleluia. Jn 16, 14

Jaunartze ondorengoa

Entzun bihotz onez, Jauna, gure otoitzak
eta, antxinako sakramentuetatik
barrietara igaroazo gaituzun lez,
egizu, pekatuzko izaera zaharra itzi
eta, gogo-bihotz santuz, erabarritu gaitezala.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

PENTEKOSTE DOMEKA

Festaburua

Bezpera-gaubelako Meza

Meza-gai honeek erabiliko dira Pentekoste-domeka aurreko arratsaldean.
I. Bezperen aurretik nahiz ondoren.

Sarrera-ant. Jainkoak bere maitasuna isuri deusku bihotzera, gugan bizi dan Espirituaren bitartez, aleluia. Erm5, 5; ik. 8, 11

Aintza zeruetan esango da.

Otoitza Jainko ahalguztidun betikoa,
pazko-misterioa guk berrogeta hamar egunez
ospatzea nahi izan dozu;
egizu, dohai zerutarrak batu dagizala
banatutako herriak,
eta hizkuntza desbardinetakoak
egin dagizala bat zure izenaren autormenean.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Edo:

Jainko ahalguztiduna,
dirdai egin dagiala gugan zure aintzaren distirak
eta zure argiak sendotu dagizala
Espiritu Santuaren argitasunez
zure graziari esker sortu barri diranak.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Sinisten dot esango da.

Oparigaien gainekoa

Isuri egizu, Jauna, zeure Espirituaren bedeinkazinoa
gure eskeintza honeen gainera,
zure Eleiza, maitasunez beterik,
mundu guztiarentzat
salbazinoaren egiazko ezaugarri argi izan dadin.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Prefazioa: Pentekoste-eguneko Mezan lez, 367. or.

Jaunartze-ant.

Jaietako azkeneko egunean, Jesusek zutunik jarri eta oihu egin eban:
Egarri dana betor Nigana eta edan begi, aleluia. Jn 7, 37

Jaunartze ondorengoa

On egin deiguela, Jauna, hartu doguzan dohai honeek
eta zeure apostoluei miragarriro isuri zeuntsen Espiritu berak
sutu gaizala geu be beti.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Bedeinkazino nagusia erabili leiteke, 646. or., 10. zk.

PENTEKOSTE GAUBELAKO MEZA
ERA LUZEAN OSPATUA

1. Pentekoste Gaubelako Mezea era luzean ospatuko dan eleizetan, era honetan egingo da:

2. a) Mezeagaz lotuta, aurretik I. Bezperak koru-alkartean nahiz kristau-alkartean esatekoak badira, eleizkizuna sarrerako deiagaz eta Espiritu Santuari zuzendutako gorazarre bategaz hasi leiteke, nahiz sarrerako kantuagaz; kantu bitartean, sarrerako prozesinoa egingo da eta abadeak kristau-batzarra agurtuko dau; kasu bietan ez da damu-otoitza egingo (ik. *Orduetako Liturgiaren Eraketa Orokorra*, 94. eta 96. zk.).

Jarraian Bezperetako salmoak esango dira irakurgai laburrera arte, hau kanpo. Salmoak esan ondoren, damu-otoitza eta, ondo eretxi ezkero, Erruki, Jauna be itzita, abadeak otoitza esango dau: Jainko ahalguztiduna, dirdai egin dagiala gugan, 361. or.

3. b) Mezeari ohiko eran emon bajako hasiera, Erruki, Jauna esan ondoren, abadeak otoitza esango dau: Jainko ahalguztiduna, dirdai egin dagiala gugan, 361. or.

Ondoren, oharpena egin leikio abadeak herriari, honan gitxi gorabehera:

Senideok: hasiera emon deutsagu Pentekoste Gaubelari; apostoluek eta ikasleek Jesusen ama Mariagaz otoitzean ziharduen, Jaunak agindutako Espirituaren zain egozala; euren antzera, otoitz egin daigun geuk be eta entzun orain, arretaz eta patxadaz, Jainkoaren hitza. Hausnartu daiguzan Jainkoak bere herriaren alde burututako egintza miragarriak, eta eskatu daigun, Aitak lehen-dohai lez fededunei bialdu eutsen Espiritu Santuak eroan dagiala bere betera bere salbazino-egintza munduan.

4. Jarraian *Irakurgaiak* liburuan aukeran jarrita dagozan irakurgaiak iragarriko dira. Irakurleak irakurtokitik aldarrikatuko dau irakurgaia. Gero salmolariak edo abeslariak salmoa esango dau, herriak errepikaz erantzuten dauala. Ondoren danak zutunduta, abadeak Egin daigun otoitz esango dau eta, danek isilune baten otoitz eginik, irakurgaiari dagokion otoitza esango. Erantzun-salmoaren lekuan isilunea egin leiteke, baina, kasu honetan, ez da barriro isilunea egingo Egin daigun otoitz esan ondoren.

Irakurgaien ondorengo otoitzak

5. Lehenengo irakurgaiaren (Babel ezarri eutsoen izena, han nahastu eban-eta Jaunak mundu guztiaren hizkuntza: Has 11, 1-9) eta erantzun-salmoaren (33 [32], 10-11. 12-13. 14-15; [℟. 12 b] Bai dohatsu Jaunak bere oinorde aukeratu dauan herria) ondoren:

Egin daigun otoitz.

Jainko ahalguztiduna,
egizu, zure Eleizea herri santu izan dadila beti,
Aitaren eta Semearen
eta Espiritu Santuaren batasunean alkartuta,
munduari zure santutasunaren
eta batasunaren misterioa agertu deion
eta zure maitasun betera gidatu dagian.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.
℟. Amen.

6. Bigarren irakurgaiaren (Jatsiko da Jauna Sinai mendira herriaren aurrean: Ur 19, 3-8. 16-20b) eta kantikaren (Dn 3, 52. 53. 54. 55. 56 [℟. 52b] Aintza eta gorapen Zuri gizaldietan!), edo erantzun-salmoaren (19 [18], 8. 9. 10. 11 [℟. Jn 6, 68c]; Zuk daukazuz, Jauna, betiko biziaren hitzak ondoren:

Egin daigun otoitz.

Oi Jainko, suaren distiraz emon zeuntsan Moisesi
antxinako legea Sinai mendian
eta gaurko egunez azaldu zeuntsan itun barria
Espiritu Santuaren suaz;
egizu, zeure Apostoluei miragarriro
isuri zeuntsen Espiritu berak
sutu gaizala geu ere beti,
eta herrialde guztietatik bat egindako Israel barriak
pozik hartu dagiala zure maitasunaren betiko agindua.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.
℟. Amen.

7. Hirugarren irakurgaiaren (Hazur igarrok, espiritua sartuarazoko dot Nik zuengan, eta biziko zarie Ez 37, 1-14) eta erantzun-salmoaren (107 [106], 2-3. 4-5. 6-7. 8-9 [℟.1] Eskerrak Jaunari, haren maitasuna betikoa da-eta, edo Aleluia) ondoren:

Egin daigun otoitz.

Jauna, Jainko ahalguztiduna,
Zeuk erabarritzen dozu jausita egoana,
eta erabarritu dozunari iraupena emoten;
ugaritu egizuz zeure egintza santutzaileaz
erabarritzen dozuzanak
eta egizu, zeure goi-argiak gidatu dagizala beti
Bateoko garbitasuna hartu daben guztiak.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.
℟. Amen.

Edo:

Egin daigun otoitz.

Oi Jainko, zeure berba bizi-emoileaz
bizi barrira sortu gaituzu;
isuri egizu gure gainera zeure Espiritu Santua
fede berean alkarturik bizi gaitezan
eta, aintzaz beteko dan haragiaren
biztuera hilezkorrera heldu gaitezan.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.
℟. Amen.

Edo:

Egin daigun otoitz.

Poztu dadila beti, Jainko,
Espiritu Santuari esker bizibarritu
eta gaztetu dozun zeure herria;
egizu, zeure seme-alaba ordeko izatea
berreskuratu izanaz pozturik,
usterik sendoenaz eta esker onez
itxaron daigula biztuera-eguna.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.
℟. Amen.

8. Laugarren irakurgaiaren (Neure morroien eta mirabeen gainera neure espiritua isuriko dot: Jl 3, 1-5) eta erantzun-salmoaren (104 [103], 1-2a. 24 eta 35c. 27-28. 29-30 [℟. ik. 30] Bialdu egizu, Jauna, zeure Arnasa, eta barrituazo lur-azala, edo Aleluia) ondoren.

Egin daigun otoitz.

Jaun errukitsua, bete egizu gugan zeure agintzaria:
etorri dadila Espiritu Santua,
Jesu Kristo gure Jaunaren Barri Onaren testigu egin gagizan
munduaren aurrean.
Errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.
℟. Amen.

9. Ondoren, Aintza zeruetan gorazarrearen kantua hasiko dau abadeak.

10. Gorazarrea amaitutakoan, Mezako lehenengo otoitza esango dau abadeak, ohi dan eran:

Otoitza Egin daigun otoitz.

Jainko ahalguztidun betikoa,
pazko-misterioa guk berrogeta hamar egunez
ospatzea nahi izan dozu;
egizu, dohai zerutarrak batu dagizala
banatutako herriak,
eta hizkuntza desbardinetakoak
egin dagizala bat zure izenaren autormenean.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

11. Gero, Apostoluaren pasartea iragarriko dau irakurleak (Erm 8, 22-27) eta ohi dan moduan aurrera jarraituko dau Mezeak.

12. Bezperak Mezeagaz lotu badira, jaunartze-antifona, Jaietako azken egunean esango da eta Magnificat kantika abestuko Zatoz, Espiritu Santu! Bezperetako bere antifonagaz; jarraian jaunartze ondorengo otoitza esango da eta gainerakoak ohi dan eran.

13. Egoki eretxi ezkero bedeinkazino nagusia erabili daiteke, 646. or., 10. zk.

Herria agurtzeko, diakonoak edo, diakonorik izan ezean, abadeak berak abestuko edo esango dau:

Zoaze Jaunaren bakean, aleluia, aleluia.
℟. Eskerrak Jainkoari, aleluia, aleluia.

Gura izan ezkero, Mezearen Egunerokoan agurtzeko jarritakoak dagozan esaldietako bat esan daiteke aurretik.

Eguneko Meza

Sarrera-ant. Jaunaren Espirituak lurra betetzen dau eta, gauza guztiak alkarregaz batzen dituanez, hots guztiak ezagutzen ditu, aleluia. Jkt 1, 7

Edo:

Jainkoak bere maitasuna isuri deusku bihotzera, gugan bizi dan Espirituaren bitartez, aleluia. Erm5, 5; ik. 8, 11

Aintza zeruetan esango da.

Otoitza

Oi Jainko, gaur ospatzen dogun misterioaren bidez,
herri eta nazino guztietan santutzen dozu zeure Eleiza osoa;
isuri egizuz Espiritu Santuaren dohaiak mundu zabalera
eta barritu egizuz orain fededunen bihotzean
Ebanjelioa iragartzen hasi ziranean
errukiz egin zenduzan mirariak.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Sinisten dot esango da.

Oparigaien gainekoa

Jauna, Espiritu Santuak agertu deigula argiago
sakrifizio honen misterioa, zure Semeak agindu eban lez,
eta eroan gaizala, bihotz onez,
harek agertutako egia bete-betean ezagutzera.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Prefazioa PENTEKOSTE MISTERIOA

℣. Jauna zuekin.
℟. Eta zure espirituarekin.

℣. Gora bihotzak.
℟. Jaunagan daukaguz.

℣. Eskerrak Jaungoiko gure Jaunari.
℟. Egoki da eta zuzen.

Egoki da, bai, eta zuzen,
bidezko eta salbagarri,
nonahi eta beti guk Zuri eskerrak emotea,
Jauna, Aita guztiz santu,
Jainko ahalguztidun betiko horri.

Pazko-misterioa bere betera eroan nahirik,
Espiritu Santua bialdu zenduan gaurko egunez
zure Semearekin alkarturik
zure seme-alaba ordeko egindakoakana;
Espiritu hori izan eban Eleizak bere arima sortze-egunetik;
berak eroan zituan herri guztiak Jainkoa ezagutzera;
berak alkartu ere fede beraren autormenean
hizkuntza ezbardinetan banatutakoak.

Horregaitik, pazko-pozez gainezka dagoz
gizon-emakume guztiak mundu zabalean.
Zeruko indar eta aingeru guztiek ere
horregaitik dabe beti zure aintzaren gorespena kantatzen:

Santu, Santu, Santua,
diran guztien Jainko Jauna.
Zeru-lurrak beterik daukaz zure distirak
Hosanna zeru-goienetan!
Bedeinkatua Jaunaren izenean datorrena.
Hosanna zeru-goienetan!

Pentekoste Gaubelako eta eguneko Mezetan eskari berezia egingo da: Eukaristi Otoitzean, Danok, Eleiza osoarekin, 567. or.; II. Eukaristi Otoitzean, Izan gogoan, Jauna, 585. or.; III. Eukaristi Otoitzean, Entzun, bihotz onez, 602-603. or.




℣. Es-ke-rrak Jaun-goi-ko gu-re Jau-na-ri. ℟. E-go-ki da e-ta zu-zen.


Egoki da, bai, eta zuzen, bidezko eta sal-ba-ga-rri, no-na-hi eta
beti guk Zuri eskerrak e-mo-te-a, Jauna, Aita guz-tiz san-tu,
Jainko ahalguzti-dun be-ti-ko ho-rri. Paz-ko–misterioa bere
betera eroan gu-ra-rik, Espiri-tu Santua bialdu zenduan gaurko
e-gu-nez, zure Semearekin al-kar-tu-rik zure seme–alaba ordeko e-
gin-da-ko-a-ka-na; Espiritu ho-ri izan eban Eleizak bere arima
sortze–e-gu-ne-tik; be-rak eroan zituan herri guztiak Jainkoa eza-
gu-tze-ra; berak alkartu ere fede beraren autor-me-ne-an
hizkuntza ezbardine-tan ba-na-tu-ta-ko-ak.



Jaunartze-ant. Guztiak Espiritu Santuaz bete ziran eta Jainkoaren egintza harrigarriak iragartzen ebezan, aleluia. Eg 2, 4.11

Jaunartze ondorengoa

Zeuk emoten deutsazuz Eleizeari, Jauna, zeruko dohaiak;
zaindu egizu beragan Zeuk emondako grazia;
indarbarritu dagizala gugan beti Espiritu Santuak
berak guri emondako dohaiak,
eta hartu dogun janari santuak
eroan gaizala salbazinoaren betera.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Bedeinkazino nagusia erabili leiteke, 646. or., 10. zk.

Herria agurtzeko, diakonoak edo, diakonorik izan ezean, abadeak berak abestu edo esango dau:

Zoaze Jaunaren bakean, aleluia, aleluia.
℟. Eskerrak Jainkoari, aleluia, aleluia.



Edo:



Pazkoaldia amaitutakoan amatatu egingo da pazko-zuzia eta Bateo-lekuan ospetsu gordeko; Bateo-ospakizunean biztuta egongo da eta bertatik biztuko dira bateatu barrien kandelak.

Pentekoste ondorengo astelehenean eta martitzenean be Meza ospatu beharra edo ospatzeko ohitura daben lekuetan, Pentekoste-eguneko Meza erabili leiteke barriro edo Espiritu Santuaren debozinozko Mezea hartu leiteke, 1218. or.

Baina Jainkoaren Gurtzarako eta Sakramentuen Araubiderako Kongregazinoak 2018ko otsailaren 11n emondako Dekretuaren arabera, Maria dohatsua Eleizaren Amaren oroipeneko Meza ospatuko da Pentekoste ondorengo astelehenean. Ik. maiatzaren amaieran, Pentekoste ondorengo astelehenean, 779. or.

Pentekoste ondorengo eguenean, Jesu Kristo gure Jauna, betiko Abade nagusiaren jaieguna ospatuko da (ik. 407. or.)

URTEAN ZEHARREKO ALDIA

1. Urtean Zeharreko aldia 34 edo 33 astek osotzen dabe. Urtarrilaren 6a ondorengo Domekeari jarraitzen deutson astelehenean hasten da eta Garizuma hasi arte luzatzen; barriro Pentekoste-domeka ondorengo astelehenean hasi eta Abendualdiko I. Domeka aurreko zapatuan amaitzen.

2. Urtean Zeharreko domekak eta asteak honan zenbatzen dira:

a) Urtean Zeharreko lehenengo domekea Jaunaren Bateoaren jaia ospatzen dan domeka da; hari jarraitzen deutson astea Urtean Zeharreko lehenengoa da. Gainerako domekek eta asteek hortik aurrerako zenbakiak daroez, Garizuma hasi arte.

b) Pentekoste ondoren, Urtean Zeharreko asteak guztira 34 badira, Garizuma aurretik etenda gelditu zan astearen hurrengo astea hartzen da, baina kontuan izanik Pentekoste-domekako, Hirutasun Guztiz Santuaren festaburuko eta, leku batzuetan, Kristoren Gorputz Odol Santuen festaburuko Mezak be domekako Mezen ordez ospatzen dirala. Urtean Zeharreko asteak 33 badira, barriz, Pentekoste ondoren hartu beharko litzateken lehenengo astea itzi egiten da.

3. Horregaitik, Meza Liburuan 34 Meza emoten dira aldi honetako domeka eta astegunetarako, eta honan erabiliko dira:

a) Domeketan Urtean Zeharreko domekearen zenbakiari dagokion Mezea esango da, egun horretan beste festaburu edo jairen bat izaten ez bada.

b) Astegunetan, ostera, 34 Meza horreetatik edozein hartu leiteke, fededunen onura pastoralari begituz.

4. Domeketan Aintza zeruetan eta Sinisten dot esango dira; astegunetan ez.

5. Bere prefazio berezia dauan Eukaristi Otoitza erabiltzen ez bada, domeketan Urtean Zeharreko domeketako prefazioa esango da, 500-512. or.; astegunetan, barriz, astegunetako prefazioa, 542-551. or.

6. Jaunartzerako antifona bi eskeintzen dira: lehenengoa salmoetatik hartuta; bigarrena gehienetan Ebanjeliotik hartuta. Bietako bata nahiz bestea aukeratu leiteke, egokiagoa deritxoguna, Ebanjelioagaz bat datorrena gurago izanez.

URTEAN ZEHARREKO I. ASTEA

Urtean Zeharreko lehenengo domekan Jaunaren Bateoa ospatzen da, 145. or.

Sarrera-ant. Gizon bat ikusi neban tronu garai baten jesarrita; aingeru-talde handiak gurtzen eban, danek aho batez kantari: Honen agintea betikoa da.

Otoitza

Hartu onez, Jauna, zeure herriaren eskariak eta otoitzak;
emoiozu egin beharrekoak ikusteko argia
eta ikusitakoa betetzeko indarra.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa

Atsegin bekizu, Jauna, zeure herriaren eskeintza hau;
egin gaizala santu
eta emon deigula apalik eskatzen doguna.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Jaunartze-ant. Jauna, Zugan da biziaren iturria, eta zure argiaz ikusten dogu argia.
Sal 36 [35], 10

Edo:

Ni, bizia izan dagien etorri naz, bizia ugari izan dagien, dino Jaunak.
Jn 10, 10

Jaunartze ondorengoa

Jainko ahalguztiduna, sakramentu hau emon deuskuzu janari;
apalik eskatzen deutsugu:
atsegin jatzun bizieraz zerbidu zaiguzala.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

URTEAN ZEHARREKO II. DOMEKA

Sarrera-ant. Mundu guztia ahuspezten da, Jainko, zure aurrean; kantatu egiten deutsue, Goi-goiko, kantatu zure izenari. Sal 66 [65], 4

Otoitza

Jainko ahalguztidun betikoa,
zeure ardurapean daukazuz zeru-lurrak;
entzun bihotz onez zeure herriaren otoitza
eta emon zeure bakea gure egunotan.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa

Egizu, Jauna, parte hartu daigula sarri sakramentu honetan,
gure erospena barritzen da-eta
Jaunaren opariaren oroigarri hau ospatzen dogun bakotxean.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Jaunartze-ant. Mahaia atontzen deustazu, gainezka dot edontzia. Sal 23 [22], 5

Edo:

Guk ezagutu dogu eta sinistu Jainkoak deuskun maitasuna. 1 Jn 4, 16

Jaunartze ondorengoa

Isuri gugana, Jauna, zeure maitasun-espiritua,
bizia emoten dauan zerutar ogi bat beraz janaritu gaituzunok
bat izan gaitezan bihotzez maitasunean.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Bedeinkapen nagusia erabili daiteke, 647-651. or., 11-20. zk.

URTEAN ZEHARREKO III. DOMEKA

Sarrera-ant. Kanta Jaunari kantu barria, kanta Jaunari, lur osoa. Distira eta handitasuna ditu aurrean, indarra eta edertasuna haren santutegian. Sal 96 [95], 1.6

Otoitza

Jainko ahalguztidun betikoa,
zuzendu zeure gogora gure jarduera,
zure Seme maitearen izenean frutu on ugari emon daigun.
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta Errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa

Begitu, Jauna, begi onez gure eskeintzari,
eta sagaratu egizu zeure Espirituaren indarrez,
guretzat salbazino-sakramentu izan dadin.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Jaunartze-ant. Jaunari begiratzen deutsoenak distiratsu egongo dira, ez jake aurpegia lotsaz gorrituko. Sal 34 [33], 6

Edo:

Neu naz munduaren argia, dino Jaunak; Niri jarraitzen deustana ez da ilunpean ibiliko; izango dau bizirako argia. Jn 8, 12

Jaunartze ondorengoa

Jainko ahalguztiduna,
bizi barriaren grazia emon deuskuzu;
egizu, poztu gaitezala beti dohai honegaz.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Bedeinkapen nagusia erabili daiteke, 647-651. or., 11-20. zk.

URTEAN ZEHARREKO IV. DOMEKA

Sarrera-ant. Salbatu gaizuz, Jauna, gure Jainkoa, batu gaizuz nazinoen artetik, zure izen santuari eskerrak emon eta zure gorespena harro abestu daigun. Sal 106 [105], 47

Otoitza

Jainko gure Jauna,
egizu, gurtu zaiguzala bihotz-bihotzez
eta maitatu daiguzala gizon-emakume guztiak
egiazko maitasunez.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa

Hona hemen, Jauna,
altara gainean zure zerbitzarion eskeintza;
hartu egizu bihotz onez
eta egizu guretzat sakramentu salbagarri.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Jaunartze-ant. Erakutsi aurpegi argia zerbitzari honi, salbatu nagizu zeure maitasunaz. Jauna, ez nadila lotsagarri geratu, Zuri dei egiteagaitik. Sal 31 [30], 17-18

Edo:

Zorionekoak gogoz behartsu diranak, eurena dabe-eta Jainkoaren erreinua. Zorionekoak apalak, eurek izango dabe-eta agindutako lurra ondare. Mt 5, 3.5

Jaunartze ondorengoa

Indarbarritu egin gaituzu, Jauna,
gure erospeneko sakramentuaren bidez;
egizu, betiko salbazinoaren janari honi esker,
egin daigula beti aurrera egiazko fedean.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Bedeinkapen nagusia erabili daiteke, 647-651. or., 11-20. zk.

URTEAN ZEHARREKO V. DOMEKA

Sarrera-ant. Zatoze, gurtu daigun Jainkoa ahuspezturik, belaunikatu gaitezan egin gaituan Jaunaren aurrean, bera da-eta Jauna, gure Jainkoa. Sal 95 [94], 6-7

Otoitza

Zaindu familia hau, Jauna, zeure betiko maitasunez;
eta gure esperantzaren oinarri bakarra
zure grazia zerutarra dan ezkero,
hartu gaizuz beti zeure babespean.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa

Jainko gure Jauna,
gorputzeko makaltasunean guri eusteko
egin dozuz ogi-ardaoak;
egizuz guretzat betiko biziaren sakramentu ere.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Jaunartze-ant. Goratu begie Jauna agertu dauan maitasunagaitik, gizakien alde egin dituan gauza harrigarriakaitik! Asetu ebazan egarri ziranak, ondasunez bete gose ziranak. Sal 107 [106], 8-9

Edo:

Zorionekoak atsekabetuak, eurak ditu-eta Jainkoak kontsolatuko. Zorionekoak zuzentasunaren gose eta egarri diranak, eurak ditu-eta Jainkoak asetuko. Mt 5, 4.6

Jaunartze ondorengoa

Oi Jainko,
ogi eta kaliza berean guk parte hartzea nahi izan dozu;
egizu, Kristogaz gorputz berean bat eginik,
emon daigula pozik betiko frutu ugari
munduaren salbazinorako.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Bedeinkapen nagusia erabili daiteke, 647-651. or., 11-20. zk.

URTEAN ZEHARREKO VI. DOMEKA

Sarrera-ant. Izan zakidaz, Jauna, harkaitz babesle, gaztelu salbatzaile, Zeu zaitut-eta neure hatx eta gaztelu; zeure izenaren ohorez, eroan nagizu eta gidatu. Sal 31 [30], 3-4

Otoitza

Oi Jainko,
bihotz garbi eta zintzoengan biziko zarala agindu dozu;
zeure graziari esker,
egin gaizuz zure bizileku izateko gai.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa

Eskeintza honek, Jauna, garbitu gaizala eta erabarritu;
eta zure nahia betetzen dabenentzat
izan daitela betiko sariaren iturri.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Jaunartze-ant. Asetzeraino jan eben, gura ebena emon eutsen Jaunak, ez zan iruzurtuta gelditu hareen guraria. Ik. Sal 78 [77], 29-30

Edo:

Hain maite izan eban Jainkoak mundua, ze bere Seme bakarra emon eutson, harengan sinisten dauanik inor galdu ez dadin, betiko bizia izan dagian baino. Jn 3, 16

Jaunartze ondorengoa

Jauna, zerutar ogi osasungarria emon deuskuzu janari;
egizu, bilatu daiguzala geuk ere beti
egiazko bizia emoten deuskuen ondasunak.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Bedeinkapen nagusia erabili daiteke, 647-651. or., 11-20. zk.

URTEAN ZEHARREKO VII. DOMEKA

Sarrera-ant. Jauna, nik zure maitasunean dot konfiantza; poztu dadila nire bihotza zure garaipenaz; orduan, kantuz ekingo deutsat Jaunari, egin deustan onagaitik. Sal 13 [12], 6

Otoitza

Jainko ahalguztiduna, zure laguntzak egin gaizala gai,
beti zuzen dana hausnartuz,
Zuri atsegin jatzuna hitzez eta egitez betetzeko.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa

Zure misterioak dagokien begirunez ospatzean,
apalik eskatzen deutsugu, Jauna,
zure handitasunaren ohoretan eskeintzen dogunak
ekarri deigula salbazinoa.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Jaunartze-ant. Zure egintza ospetsuak ditut iragarriko, zure ohorez poztu eta jai egingo, zure izena, Goi-goiko, kantuz ospatuko. Sal 9, 2-3

Edo:

Jauna, sinisten dot Zu Mesias zarala, Jainkoaren Semea, mundura etortzekoa zana. Jn 11, 27

Jaunartze ondorengoa

Jainko ahalguztiduna,
salbazino-sakramentu honetan emon deuskuzun ogia
izan daigula betiko biziaren ezaugarri.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Bedeinkapen nagusia erabili daiteke, 647-651. or., 11-20. zk.

URTEAN ZEHARREKO VIII. DOMEKA

Sarrera-ant. Jauna izan neban euskarri; zabaldira atara ninduan eta libratu, maite nindualako. Sal 18 [17], 19-20

Otoitza

Egizu, Jauna, mundu honetako gorabeherak
bideratu daiguzala zure asmoen arabera
zuzentasunean eta bakean,
eta emoiozu Eleizeari
zure zerbitzu santuan zintzo irauteko poza.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa

Oi Jainko, Zugandik hartu doguz dohai honeek
eta, guk eskeinirik,
gu guztion zerbitzuaren seinaletzat onartzen dozuz;
egizu, gure merezimentutzat hartzen dozun eskeintza honek
ekarri deigula betiko saria.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Jaunartze-ant. Kantuz ekingo deutsat Jaunari, egin deustan onagaitik, kantatuko dot Goi-goiko Jaunaren izena. Ik. Sal 13 [12], 6; 7, 18

Edo:

Ni zeuokaz izango nozue egunero munduaren azkenera arte, dino Jaunak. Mt 28, 20

Jaunartze ondorengoa

Zure dohai salbagarriak harturik,
apalik eskatzen dogu, Jauna, zure errukia,
orain janaritzat sakramentu hau emoten deuskuzun lez,
zeure bihotz onez betiko biziaren jaube egin gaizuzala.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Bedeinkapen nagusia erabili daiteke, 647-651. or., 11-20. zk.

URTEAN ZEHARREKO IX. DOMEKA

Sarrera-ant. Begitu niri eta erruki zakidaz, Jauna, bakarrik nagoalako eta errukarri. Ikusi nire atsekabea eta nekea, eta parkatu nire pekatu guztiak, ene Jainko. Sal 25 [24], 16.18

Otoitza

Oi Jainko, munduagazko dozun zeure ardura santuaz,
ez dozu inoiz salbazino-asmoari dagokionean huts egiten;
kendu kalterako doguna
eta emon on egingo deuskun guztia.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa

Jauna, zure errukian uste on dogula gatoz
geure dohaiakaz zure altara santura;
egizu, garbi egiten gaituan zure grazia lagun,
ospatzen dihardugun sakramentuak
bihotz-barritu gaizala.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Jaunartze-ant. Deika naukazu, Jainko, erantzuten deustazu-eta; bihurtu nigana belarria, entzun nire berbea. Sal 17 [16], 6

Edo:

Benetan dinotsuet: Otoitzean eskatzen dozuen edozein gauza, sinistu lortuko dozuela, eta emongo deutsue Jainkoak, dino Jaunak. Mk 11, 23.24

Jaunartze ondorengoa

Gidatu gaizuz, Jauna, zeure Espirituaz,
zeure Semearen Gorputz Odolez janaritu gaituzunok,
Zu egitez eta benetan autorturik,
eta ez mihinaz eta hitzez bakarrik,
zeruetako erreinuan sartzea lortu daigun.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Bedeinkapen nagusia erabili daiteke, 647-651. or., 11-20. zk.

URTEAN ZEHARREKO X. DOMEKA

Sarrera-ant. Jauna dot argi eta salbazino, nork ni bildurtu? Jauna biziaren babes, nork ni ikaratu? Nire etsaiak eta arerioak labantzen dira eta jausten. Sal 27 [26], 1-2

Otoitza

On guztien iturri zaran Jainkoa,
entzun onez gure otoitza,
eta egizu, Zuk argiturik, jakin daigula zer dan zuzena
eta, Zuk eraginik, bete daigula.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa

Begitu, Jauna, begi onez gu guztion zerbitzuari,
gure eskeintza hau Zuretzat atsegingarri izan daiten
eta maitasunean sendotu gaizan.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Jaunartze-ant. Jauna da nire hatx, nire gaztelu, bera nire askatzaile; ene Jainko, ene harkaitz babesgarri. Sal 18 [17], 3

Edo:

Jainkoa maitasuna da, eta maitasunean dirauana Jainkoagan dago eta Jainkoa harengan. 1 Jn 4, 16

Jaunartze ondorengoa

Zure indar osatzaileak
gorde gaizala, Jauna,
Zugandik bereizten gaituan gaiztakeriatik
eta gidatu gaizala zuzentasun-bidean.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Bedeinkapen nagusia erabili daiteke, 647-651. or., 11-20. zk.

URTEAN ZEHARREKO XI. DOMEKA

Sarrera-ant. Entzun, Jauna, nire dei-hotsa, Zeu zaitut-eta laguntza. Ez itzi ni eskutik, ez baztertu, salbatzaile zaitudan Jainko.
Sal 27 [26], 7.9

Otoitza
Oi Jainko, Zugan itxaroten dabenen indarra,
entzun bihotz onez gure otoitza;
eta, Zu barik, gizakiaren makaltasuna ez danez ezertarako gai,
emoiguzu beti zeure graziaren laguntza;
zure aginduak betez,
Zuretzat atsegingarri izan gaitezan gogoz eta egitez.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa
Oi Jainko, orain eskeintzen deutsuguzan dohaietan
bizitza honetarako janaria
eta bizi barriaren sakramentua emoten deutsazuz gizadiari
bere izaera bikotxerako;
egizu, gure gorputz-arimak ez daitezala inoiz ere
laguntza horreek barik geratu.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Jaunartze-ant. Gauza bat deutsat eskatzen Jaunari, horren bila nabil ni: bizi nadila Jaunaren etxean neure bizitzako egun guztietan. Sal 27 [26], 4

Edo:

Aita santu horrek, zaindu egizuz zeure ahalmenaz Zeuk emon deustazuzanok, bat izan daitezan Gu Geu bat garan lez, dino Jaunak.
Jn 17, 11

Jaunartze ondorengoa
Jauna, hartu dogun sakramentuak
fededunok Zugaz bat garala adierazoten dauan lez,
egin dagiala Eleizearen batasuna.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Bedeinkapen nagusia erabili daiteke, 647-651. or., 11-20. zk.

URTEAN ZEHARREKO XII. DOMEKA

Sarrera-ant.

Jauna da bere herriaren indar, berak gantzututako erregearen babes eta salbazino. Salbatu zeure herria, Jauna, eta bedeinkatu zeure ondarea, izan beti euron artzain eta gidari. Ik. Sal 28 [27], 8-9

Otoitza

Izan daigula beti, Jauna,
zure izenagazko begirunea eta maitasuna,
ez dozuzalako zeure eskutik behin ere izten
zeure maitasunean sendo jarri dozuzanak.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa

Onartu, Jauna, eskeintzen dihardugun
bake- eta gorespen-sakrifizio hau;
garbitu eta barritu gaizala
gure bizitza osoa Zuretzat opari atsegingarri izan dadin.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Jaunartze-ant.

Zeuri begira dagoz danak zain, Jauna, eta Zeuk emoten deutsezu jaten euren sasoian. Sal 145 [144], 15

Edo:

Neu naz Artzain ona; Nik neure bizia emoten dot ardien alde, dino Jaunak. Jn 10, 11.15

Jaunartze ondorengoa

Kristoren Gorputz santuaz eta Odol baliotsuaz
barritu gaituzu, Jauna;
egizu, misterio santu honetan parte hartzeak
ekarri deigula egiazko erospena.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Bedeinkapen nagusia erabili daiteke, 647-651. or., 11-20. zk.

URTEAN ZEHARREKO XIII. DOMEKA

Sarrera-ant. Herri guztiok, jo egizue txalo, egin pozez oihu eta irrintzi Jainkoari. Sal 47 [46], 2

Otoitza

Oi Jainko,
seme-alabatzat hartu gaituzu maitasunez
eta argiaren seme-alaba egin gaituzu;
egizu, ez gaizala inguratu guzurraren ilunpeak
eta bizi gaitezala beti zure egiaren argi ederrean.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa

Oi Jainko, sakramentu-ezaugarrien bidez
bere betera eroaten dozu gure erospena;
egizu, gu guztion zerbitzuak gai egin gaizala
zure dohai santuak hartzeko.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Jaunartze-ant. Bedeinkatu begi nire arimak Jauna, nire barru osoak haren izen santua. Sal 103 [102], 1

Edo:

Aita, eurokaitik erregutzen dot, bat izan daitezala Gugaz, munduak sinistu dagian Zeuk bialdu nozuna, dino Jaunak. Jn 17, 20-21

Jaunartze ondorengoa

Eskeini eta hartu dogun opari santuak
bizibarritu gaizala, Jauna,
maitasunean beti Zugaz bat eginik,
beti iraungo daben frutuak emon daiguzan.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Bedeinkapen nagusia erabili daiteke, 647-651. or., 11-20. zk.

URTEAN ZEHARREKO XIV. DOMEKA

Sarrera-ant.

Oi Jainko, hausnartzen dogu zure maitasuna, zure tenpluaren erdian. Zure ospea lez zure gorespena be, oi Jainko, mundu osora heltzen da; zure eskua justiziaz dago beteta. Sal 48 [47], 10-11

Otoitza

Oi Jainko, zure Semearen beheratzeaz,
jaso egin dozu jausita egoan mundua;
emon zeure fededunei egiazko pazko-poza,
pekatuaren buztarpetik askatu dozuzanok
gozatu dagiela betiko zoriona.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa

Eskeintzen deutsugun opari honek garbitu gaizala, Jauna,
eta eroan gaizala egunetik egunera
zure Seme Jesu Kristoren bizi barria geugan agertzera.
Errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Jaunartze-ant.

Txastatu egizue eta ikusi zein ona dan Jauna; zorionekoa harengan babesten dana. Sal 34 [33], 9

Edo:

Zatoze Neugana nekatu eta zamatu guztiok, eta Neuk arinduko zaituet, dino Jaunak. Mt 11, 28

Jaunartze ondorengoa

Mugarik bako zeure maitasunaren dohaiez
janaritu gozuz, Jauna;
egizu, lortu daiguzala salbazino-frutuak
eta bizi gaitezala beti Zeu goresten.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Bedeinkapen nagusia erabili daiteke, 647-651. or., 11-20. zk.

URTEAN ZEHARREKO XV. DOMEKA

Sarrera-ant. Nik, zuzena nazala, zure aurpegia dot ikusiko; esnatzean zure presentziaz naz asetuko. Sal 17 [16], 15

Otoitza

Oi Jainko, okerbidean dabiltzanei
zeure egiaren argia agertzen deutsezu
bide zuzenera bihurtu daitezan;
egizu, euren burua kristautzat daukienek
itzi dagiela izen horregaz bat ez datorren guztia
eta bete izen horri dagokiona.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa

Begitu, Jauna, otoitzean diharduan Eleizearen dohaiei
eta egizu, horreek hartuko dabezan fededunak
gero eta santuago izan daitezala.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Jaunartze-ant. Txoriak aurkitu dau etxea, baita elaiak ere kumeentzat habia: zeure altarak, Jaun ahalguztiduna, ene Erregea eta ene Jainkoa! Zorionekoak zure etxean bizi diranak eten barik Zeu goresten! Sal 84 [83], 4-5

Edo:

Nire haragia jaten eta nire odola edaten dauana Nigan dago eta Ni harengan, dino Jaunak. Jn 6, 57

Jaunartze ondorengoa

Zeure mahaian janaritu gaituzu, Jauna;
egizu, misterio honeetan parte hartzen dogun bakotxean
sendotu dadila gure salbazinoaren emoitza.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Bedeinkapen nagusia erabili daiteke, 647-651. or., 11-20. zk.

URTEAN ZEHARREKO XVI. DOMEKA

Sarrera-ant.

Nik Jainkoa dot laguntzaile, Jauna neure biziaren babesle. Sakrifizioak eskeiniko deutsudaz bihotz-bihotzez, zure izena goratuko, Jauna, ona zaralako. Sal 54 [53], 6.8

Otoitza

Begitu, Jauna, begi onez zeure zerbitzarioi
eta emoiguzuz ugari zeure graziaren dohaiak,
fedez, esperantzaz eta maitasunez suturik
zure aginduak betetzen zuhur iraun daigun.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa

Oi Jainko, Itun Zaharreko opari desbardinak
euren betera ekarri dozuz
Kristoren kurutzeko sakrifizio bakar eta bikainean;
onartu egizu eta egin santu zeure zerbitzarion sakrifizioa,
sasoi baten Abelena bedeinkatu zenduan lez,
eta egizu, gutariko bakotxak
zure handitasuna goresteko eskeintzen dauan hau
izan daitela gizon-emakume guztien salbazinorako.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Jaunartze-ant.

Bere mirariak gogoangarri egin ditu; errukiorra da Jauna eta bihozbera; begirune deutsoenei janaria emon deutse. Sal 111 [110], 4-5

Edo:

Hara, atean nago deika, dino Jaunak; norbaitek nire ahotsa entzun eta atea edegiten badeust, harenean sartuko naz eta alkarregaz afalduko dogu. Ap 3, 20

Jaunartze ondorengoa

Zagoz beti, Jauna, zeure herriagaz,
eta zerutar misterioak ezagutuazo deutsezuzanei
emoiezu, euren izate zaharra itzirik,
jainkozko bizi barriaren erara bizitzea.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Bedeinkapen nagusia erabili daiteke, 647-651. or., 11-20. zk.

URTEAN ZEHARREKO XVII. DOMEKA

Sarrera-ant. Jainkoa bere egoitza santuan bizi da; Jainkoak etxea emoten deutse baztertuei, indarra eta kemena emoten deutso bere herriari.
Ik. Sal 68 [67], 6-7.36

Otoitza Oi Jainko, Zugan uste on dabenen babesa zarana,
Zu barik ez da ezer sendorik, ez ezer santurik;
erakutsi eiguzu zeure erruki handia,
Zu gidari eta erakusle zaitugula,
zuhurtasunez balia gaitezan lurreko gauzez,
eta oraintxetik betiko ondasunei lotuta bizi gaitezan.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa Onartu, Jauna, zeure esku zabaletik hartuta
ekarri deutsuguzan eskeintzak;
egizu, misterio santu honeek,
zure graziaren indar eragileaz
santu egin dagiela oraingo gure bizitza
eta gidatu gagiezala betiko zorionera.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Jaunartze-ant. Bedeinkatu begi nire arimak Jauna, ez bedi ahaztu haren mesedeaz.
Sal 103 [102], 2

Edo:

Zorionekoak errukitsuak, eurak ditu-eta Jainkoak erruki izango. Zorionekoak bihotz-garbi diranak, eurek ikusiko dabe-eta Jainkoa.
Mt 5, 7-8

Jaunartze ondorengoa Eukaristiako sakramentua hartu dogu, Jauna,
zure Semearen nekaldi-biztueren betiko oroigarri;
berak neurribako maitasunez emon deuskun dohai hau
izan dakigula salbazinorako.
Errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Bedeinkapen nagusia erabili daiteke, 647-651. or., 11-20. zk.

URTEAN ZEHARREKO XVIII. DOMEKA

Sarrera-ant. Ene Jainko, libratu nagizu; Jauna, zatoz laster ni laguntzera. Zeu zaitut laguntzaile eta askatzaile, Jauna, ez luzatu. Sal 70 [69], 2.6

Otoitza

Zatorkiez lagun, Jauna, zeure zerbitzariei
eta agertu egiezu beti zeure bihotz ona
zuri otoitzean diharduenei;
eta egile eta gidari autortzen zaituenez,
bizibarritu egizu eten barik eta zaindu
Zeuk egina dan mundu hau.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa

Zagoz gure alde, Jauna,
egizuz santu ogi-ardao honeek
eta, espirituzko opari hau onarturik,
egin gaizuz geu ere Zeuretzat betiko opari.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Jaunartze-ant. Zeruko ogia emon zeunskun, Jauna, zapore askotarikoa, guztientzat atsegingarria. Ik. Jkt 16, 20

Edo:

Neu naz bizia emoten dauan ogia, dino Jaunak; Nigana datorrena ez da gose izango, eta Nigan sinisten dauana ez da behin be egarrituko. Jn 6, 35

Jaunartze ondorengoa

Zaindu egizu beti, Jauna,
zeruko ogiaz janaritu eta bizibarritu dozun zeure herria,
eta, guretzat dozun etenbako arduraz,
egin gaizuz betiko bizitzarako gai.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Bedeinkapen nagusia erabili daiteke, 647-651. or., 11-20. zk.

URTEAN ZEHARREKO XIX. DOMEKA

Sarrera-ant. Izan gogoan, Jauna, zeure ituna, ez ahaztu betiko zeure errukarrien biziaz. Jagi zaitez, Jauna, defendatu zeure auzia; ez ahaztu zure bila dabiltzanen oihuez. Ik. Sal 74 [73], 20.19.22.23

Otoitza

Jainko ahalguztidun betikoa, Espiritu Santuak irakatsirik
Zuri Aita esateko eskubidea emon deuskuzu;
sendotu gure bihotzetan zure seme-alabatzako espiritua,
agindu deuskuzun bizi betean sartu gaitezan.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa

Hartu bihotz onez, Jauna,
zeure Eleizearen dohai honeek,
guk eskeintzeko Zeuk maitasunez emonak;
egizuz, zeure indarrez,
gure salbazinoaren sakramentu.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Jaunartze-ant. Jerusalem, ospatu egizu Jauna, garirik onenaz ase zaituana. Sal 147, 12.14

Edo:

Nik emongo dodan ogia neure haragia da, mundua bizi dadin emona, dino Jaunak. Jn 6, 51

Jaunartze ondorengoa

Hartu dogun sakramentu honek salbatu gaizala, Jauna,
eta sendotu zure egiaren argitan.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Bedeinkapen nagusia erabili daiteke, 647-651. or., 11-20. zk.

URTEAN ZEHARREKO XX. DOMEKA

Sarrera-ant.

Oi Jainko, begitu onez gure babeskiari, begitu zeure igurtzitakoaren aurpegiari; hoba da egun bat zure atarietan, nire etxean mila baino. Sal 84 [83], 10-11

Otoitza

Oi Jainko,
ondasun ikusezinak daukazuz maite zaituenentzat;
biztu gure bihotzean zeure maitasunaren garra,
Zu gauza guztietan eta gauza guztien gainetik maite izanez,
guk asmatu geinkezanak baino handiagoak diran
Zuk agindutako ondasunak lortu daiguzan.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa

Onartu, Jauna, gure dohaiok;
euron bidez hartu-emon miragarriak doguz Zugaz;
egizu, Zeuk emondakoak eskeiniz,
izan daigula Zu Zeu hartzeko grazia.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Jaunartze-ant.

Jaunarena da maitasuna, berarena askapen betea. Sal 130 [129], 7

Edo:

Neu naz zerutik jatsia dan ogi bizia, dino Jaunak; ogi honetatik jaten dauana betiko biziko da. Jn 6, 51

Jaunartze ondorengoa

Jauna, sakramentu honetan Kristogaz bat eginik
zure errukiari deika gagoz apalik:
izan gaitezala lur honetan zure Semearen irudikoago,
haren zorion bera izan daigun zeruan.
Errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Bedeinkapen nagusia erabili daiteke, 647-651. or., 11-20. zk.

URTEAN ZEHARREKO XXI. DOMEKA

Sarrera-ant. Makurtu belarria, Jauna, erantzun; salbatu egizu Zugan uste on dauan zerbitzari hau. Erruki nitaz, Jauna, Zuri deika dihardut-eta egun osoan. Sal 86 [85], 1-3

Otoitza

Oi Jainko,
gogo bateko egiten dozuz zeure fededunen bihotzak;
egizu, maitatu dagizala zure herriak Zuk aginduak
eta itxaron Zuk agindutakoa,
mundu honetako gorabeheren artean,
geure bihotza egiazko zoriona dagoan lekuan jarri daigun.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa

Kristoren opari bakarraren bidez, Jauna,
zeure seme-alaben herri egin gaituzu;
emoiozu onez zeure Eleizeari batasuna eta bakea.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Jaunartze-ant. Zeure biltegietako emoitzez dozu, Jauna, lurra asetzen, lurretik ogia eta gizakiaren bihotza alaitzen dauan ardaoa ataratzeko. Ik. Sal 104 [103], 13-15

Edo:

Nire haragia jaten eta nire odola edaten dauanak betiko bizia dau, dino Jaunak, eta Neuk biztuko dot azken egunean. Jn 6, 54

Jaunartze ondorengoa

Eroan gugan onez, Jauna, bere betera
zeure errukizko salbazino-egintza;
egin gaizuz on-onak eta adoretu,
gauza guztietan zure nahia bete ahal izateko.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Bedeinkapen nagusia erabili daiteke, 647-651. or., 11-20. zk.

URTEAN ZEHARREKO XXII. DOMEKA

Sarrera-ant. Erruki nitaz, Jauna, Zuri deika nabil-eta egun osoan; ona zara, Jauna, eta errukiorra, dei egiten deutsuenentzat onginahiz betea.
Sal 86 [85], 3.5

Otoitza

Zeru-lurren Jainkoa, Zeugandik dator on guztia;
sartu gure bihotzean Zuganako maitasuna;
lotu gaizuz gero eta estuago Zeugaz,
gugan indartu dagizun on dan guztia
eta indartu dozuna arreta handiz zaindu.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa

Eskeintza santu honek, Jauna, ekarri deigula beti
zure salbazinoaren dohaia,
sakramentuetan irudiz ospatzen doguna
zure indarrak bere betera eroan dagian.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Jaunartze-ant. Bai handia, Jauna, zure ontasuna! Begirune deutsuenentzat dozu gordea.
Sal 31 [30], 20

Edo:

Zorionekoak bakegileak, Jainkoaren seme-alaba izango dira-eta. Zorionekoak zuzentasunagaitik erasoa jasaten dabenak, eurena dabe-eta Jainkoaren erreinua.
Mt 5, 9-10

Jaunartze ondorengoa

Mahai santuko ogia harturik,
otoitz egiten deutsugu, Jauna:
maitasunaren agiria dan janari honek
sendotu dagiala gure bihotza
geure senideengan Zeu zerbidu zaiguzan.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Bedeinkapen nagusia erabili daiteke, 647-651. or., 11-20. zk.

URTEAN ZEHARREKO XXIII. DOMEKA

Sarrera-ant. Zintzoa zara Zu, Jauna, eta zuzenak zure erabagiak; jokatu zerbitzari honegaz zeure maitasunaren arabera.
Sal 119 [118], 137.124

Otoitza

Oi Jainko, Zeuk salbatu gaituzu
eta zeure seme-alabatzat onartu;
begitu onbera seme-alaba ordeko egin gaituzunoi,
Kristogan sinisten dogunok egiazko askatasuna
eta betiko bizia izan daiguzan.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa

Oi Jainko, Zeu zaitugu
egiazko jainkozaletasunaren eta bakearen iturria;
egizu, dohai honen bidez
autortu daigula eta goratu zure handitasuna,
eta sakramentu hau hartzeak
sendotu dagiala gure arteko alkartasuna.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Jaunartze-ant. Basahuntza gogo biziz uretara lez, halantxe nire gogoa, ene Jainko, Zugana; Jainkoaren egarri naz, Jainko biziaren egarri.
Sal 42 [41], 2-3

Edo:

Neu naz munduaren argia, dino Jaunak; Niri jarraitzen deustana ez da ilunpean ibiliko; izango dau bizirako argia. Jn 8, 12

Jaunartze ondorengoa

Hitzaren eta sakramentuaren mahaian
janaritzen eta bizibarritzen dozuz, Jauna, zeure fededunak;
zure Semearen dohai handiak balia dakiguzala
haren bizian beti parte izatea merezidu daigun.
Errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Bedeinkapen nagusia erabili daiteke, 647-651. or., 11-20. zk.

URTEAN ZEHARREKO XXIV. DOMEKA

Sarrera-ant.

Emon bakea, Jauna, Zugan itxaroten dabenei, eta izan beitez sinisgarri zure profetak; entzun zeure zerbitzariaren eta zeure herri Israelen eskariak. Ik. Si 36, 18

Otoitza

Diran guztien egile eta gidari zaran Jainkoa,
begitu eiguzu eta emoiguzu bihotz guztiz Zu zerbitzea,
zure errukiaren ondasunak sumatu daiguzan.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa

Entzun bihotz onez, Jauna, gure eskariak
eta onartu zeure zerbitzarion eskeintza;
gutariko bakotxak zure izena goresteko eskeintzen dauan hau
izan daitela gizon-emakume guztien salbazinorako.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Jaunartze-ant.

Bai zoragarria zure maitasuna, oi Jainko! Zure hegopera batzen dira gizakiak. Sal 36 [35], 8

Edo:

Jainkoa bedeinkatuz hartzen dogun esker onezko kalizak Kristogaz bat egiten gaitu haren Odolean, eta zatitzen dogun ogiak Jaunagaz bat egiten gaitu haren Gorputzean. Ik. 1 Ko 10, 16

Jaunartze ondorengoa

Jauna, jaubetu dadila dohai zerutarraren indarra
gure gorputzaz eta arimaz,
gure bizitzan indar hori izan dadin nagusi,
eta ez gure nahia.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Bedeinkapen nagusia erabili daiteke, 647-651. or., 11-20. zk.

URTEAN ZEHARREKO XXV. DOMEKA

Sarrera-ant. Neu naz herriaren salbazinoa, dino Jaunak; edozein estualditan dei egiten badeuste, entzungo deutset, eta euren Jainko izango nabe betiko.

Otoitza Oi Jainko,
lege nagusi hau emon deuskuzu agindu guztien oinarri:
Zeu eta lagun hurkoa maitatzea;
egizu, zure aginduak betez, heldu gaitezala betiko bizitzara.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa Hartu, Jauna, bihotz onez zeure herriaren eskeintzak,
fedez autortzen dogun egia
zerutar sakramentu honen bidez lortu daigun.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Jaunartze-ant. Jauna, legeak ezarri dozuz, arretaz gorde daiguzan. Izan beitez sendo nire bideak, zure arauak betetzeko. Sal 119 [118], 4-5

Edo:

Neu naz artzain ona, dino Jaunak; ezagutzen ditut neure ardiak, eta neureek ezagutzen nabe Ni. Jn 10, 14

Jaunartze ondorengoa Indarbarritu, Jauna, eten barik zeure laguntzaz
sakramentu honetan janaritu dozuzanak;
ospakizunean ez ezik bizitzan be
zure salbazino-egintzaren frutuak jaso dagiezan.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Bedeinkapen nagusia erabili daiteke, 647-651. or., 11-20. zk.

URTEAN ZEHARREKO XXVI. DOMEKA

Sarrera-ant. Zuzen jokatu dozu, Jauna, egin deuskuzun guztia egitean, pekatu egin dogu-eta zure aurka, eta ez deutsegu zure aginduei obedidu; baina emon gorapena zeure izenari, eta jokatu egizu gugaz zeure neurribako errukiaz. Ik. Dn 3, 31.29.30.43.42

Otoitza

Oi Jainko, parkatuz eta errukituz
agertzen dozu berariaz zeure ahalmen handia;
isuri egizu eten barik gure gainera zeure grazia,
Zuk agindutako ondasunetara lehiatuz,
zeruko zoriona lortu daigun.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa

Jainko errukitsua, onartu egizuz gure dohai honeek,
eta zeure Eleizearen eskeintza honetatik
sortu egizu guretzat bedeinkazino guztien iturria.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Jaunartze-ant. Gogoratu egizu, Jauna, zerbitzari honi emondako hitza; horixe egin dozu nire itxaropide, horixe dot kontsolamentu atsekabean. Sal 119 [118], 49-50

Edo:

Honetan ezagutu dogu Jainkoaren maitasuna: Kristok bere bizia gure alde emotean. Geuk ere geure bizia emon behar dogu senideen alde. 1 Jn 3, 16

Jaunartze ondorengoa

Betiko biziaren sakramentu honek
barritu daizala, Jauna, gure gorputz-arimak,
zure Semearen heriotza iragarriz
beragaz bat egiten dogunok,
haren biztueran ere parte izan daigun.
Errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Bedeinkapen nagusia erabili daiteke, 647-651. or., 11-20. zk.

URTEAN ZEHARREKO XXVII. DOMEKA

Sarrera-ant. Jauna, zeure menpe dozu dana eta ezin deutso inork zure nahiari kontra egin. Zeuk egin dozuz zeru-lurrak eta zerupean diran gauza miresgarri guztiak; Zeu zara guztien Jauna. Ik. Est 4, 17c-e

Otoitza

Jainko ahalguztidun betikoa, ontasun guztien iturria,
guk merezidu eta uste baino neurri handiagoan
betetzen dozuz gure eskariak;
isuri egizu gugana zeure errukia,
askatu gure bihotza bildur guztitik
eta emon eskatzen ere ausartzen ez garana.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa

Onartu, Jauna, zure guraria betez
egiten deutsugun sakrifizioa,
eta, Zu goresteko ospatzen dogun Eukaristia honen bidez,
eroaizu gugan bere betera
zure salbazinoak dakarren santutasuna.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Jaunartze-ant. Ona da Jauna beragan uste on dauanarentzat, beragana jotzen dauanarentzat. Nk 3, 25

Edo:

Ogia bat danez, guztiok gorputz bat gara, ogi bakarretik eta kaliza beretik hartzen dogunok. Ik. 1 Ko 10, 17

Jaunartze ondorengoa

Jainko ahalguztiduna, sakramentu honetan parte hartzeak
asetu daiala Zugazko dogun gose-egarria
eta eraldatu gaizala hartu dogun horretan.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Bedeinkapen nagusia erabili daiteke, 647-651. or., 11-20. zk.

URTEAN ZEHARREKO XXVIII. DOMEKA

Sarrera-ant. Erruak kontuan badozuz, Jauna, nork iraun zutunik, ene Jauna?
Baina Zuri parkamena dagokizu, Israelen Jainko.
Sal 130 [129], 3-4

Otoitza Jauna, izan daigula beti zure grazia,
bai aldez aurretik, bai bidelagun;
Zuk eutsirik, on egiteko prest egon gaitezan beti.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa Onartu, Jauna, zeure fededunen eskariak eta eskeintzak;
egizu, fedez eta maitasunez ospatzen dogun Eukaristia honek
eroan gaizala zeruko zorionera.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Jaunartze-ant. Aberatsek ezagutzen dabe beharrizana eta gosea; Jaunagana jotzen dabenei ez jake onik falta. Sal 34 [33], 11

Edo:

Kristo agertuko danean, haren antzeko izango gara, dan lakoa ikusiko dogu-eta. 1 Jn 3, 2

Jaunartze ondorengoa Guztiz ahaltsu zaranez, Jauna, apalik eskatzen deutsugu,
zure Semearen Gorputz eta Odol santuez janaritu gaituzunok
parte izan daigula jainkozko zeure izatean.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Bedeinkapen nagusia erabili daiteke, 647-651. or., 11-20. zk.

URTEAN ZEHARREKO XXIX. DOMEKA

Sarrera-ant. Deika naukazu, Jainko, erantzuten deustazu-eta; bihurtu nigana belarria, entzun nire berbea. Zaindu nagizu begi-ninia lez, gorde ni zeure hegoen kerizpean. Sal 17 [16], 6.8

Otoitza

Jainko ahalguztidun betikoa,
egizu, gure gogoa Zuri emona egon dadila beti,
Zu, Jaun handi hori,
bihotz leialez eta garbiz zerbidu zaiguzan.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa

Dohai honeek bihotz zabalez eskeintzean, Jauna,
egizu, garbi egiten gaituan zure grazia lagun,
ospatzen dihardugun sakramentuak
bihotz-barritu gaizala.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Jaunartze-ant. Jauna arduratzen da begirune deutsoenez, haren maitasunean itxaroten dabenez, hareek heriotzatik libratzeko eta gosetean bizirik gordetzeko. Sal 33 [32], 18-19

Edo:

Bizia guztien alde ordainsaritzat emoten etorri da Gizonaren Semea. Mk 10, 45

Jaunartze ondorengoa

Jauna, eukaristi ospakizun honek
zeruko bizia gozatuazo deusku aldez aurretik;
izan daigula beraren laguntza
lur honetan zure ondasunak gozatzeko,
baita argia ere betikoak maitatzeko.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Bedeinkapen nagusia erabili daiteke, 647-651. or., 11-20. zk.

URTEAN ZEHARREKO XXX. DOMEKA

Sarrera-ant. Poztu zaiteze bihotzez Jaunaren bila zabiltzenok. Jo egizue indartzen dauan Jaunagana, bilatu eten barik haren aurpegia.
Sal 105 [104], 3-4

Otoitza

Jainko ahalguztidun betikoa,
sendotu gugan sinismena, esperantza eta maitasuna;
eta egizu, agindu deuskuzuna lortu ahal izateko,
maitatu daiguzala Zuk aginduak.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa

Aita guztiz ona,
begitu Zuri, Jaun handi horri,
ekarri deutsuguzan dohai honeei
eta egizu, gure zerbitzuaren
adierazpen dan eskeintza hau heldu dadila Zugana
eta goratu dagiala zure izena.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Jaunartze-ant. Ospatu ahal izan daigula poz-oihuz zure garaipena eta banderak zabaldu geure Jainkoaren izenean. Sal 20 [19], 6

Edo:

Kristok maite izan ginduzan eta bere burua gure alde emon eban, Jainkoak atseginez onartzen dauan oparitzat eskeiniz. Ef 5, 2

Jaunartze ondorengoa

Jauna, gure fedearen sakramentu honek
egin dagiala gugan berak adierazoten dauana,
orain irudiz egiten doguna
gero egiaz eta bete-betean hartu daigun.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Bedeinkapen nagusia erabili daiteke, 647-651. or., 11-20. zk.

URTEAN ZEHARREKO XXXI. DOMEKA

Sarrera-ant. Jauna, ez itzi ni eskutik; ene Jainko, ez gelditu urrun; zatoz laster ni laguntzera, ene Jauna, ene salbatzailea! Sal 38 [37], 22-23

Otoitza Jainko ahalguztidun errukitsua, zure laguntzaz
zerbidu ahal zaitue ondo eta duintasunez zeure fededunek;
egizu, joan gaitezala ezelako eragozpen barik
Zeuk agindutako ondasunetara.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa Jauna, zure Eleizeak egiten deutsun sakrifizio hau
izan bedi Zuretzat opari garbi
eta guretzat zure errukiaren iturri santu.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Jaunartze-ant. Bizirako bidea erakutsiko deustazu; alaitasunez beteko nozu zeure aurrean, Jauna. Sal 16 [15], 11

Edo:

Bizia dan Aitak bialdu nau eta Ni Aitari esker bizi naz; era berean, Ni jaten nauana Neuri esker biziko da, dino Jaunak. Jn 6, 57

Jaunartze ondorengoa Jauna, jarraitu gugan zeure salbazinoaren egintza,
hartu dogun sakramentuaz janariturik,
agindutako ondasunak hartzeko
zure laguntzaz prestatu gaitezan.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Bedeinkapen nagusia erabili daiteke, 647-651. or., 11-20. zk.

URTEAN ZEHARREKO XXXII. DOMEKA

Sarrera-ant. Heldu bekizu nire otoitza, Jauna, makurtu belarria nire garrasira. Sal 88 [87], 3

Otoitza

Jainko ahalguztidun errukitsua,
urrundu gugandik eragozpen guztiak,
gorputzez eta arimaz geure buruaren jaube izanik
askatasun osoz zure nahia bete daigun.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa

Begitu, Jauna, begi onez gure sakrifizio honi,
eta egizu, hartu daigula parte fede handiz
orain sakramentuz ospatzen dogun zure Semearen nekaldian.
Errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Jaunartze-ant. Jauna dot artzain, ez naz ezeren beharrean; larre gurietan etzunazoten nau, ur-bazter nasaira eroaten. Sal 23 [22], 1-2

Edo:

Ogia zatitzean ezagutu eben ikasleek Jesus Jauna. Lk 24, 35

Jaunartze ondorengoa

Zure dohaiez janariturik, eskerrak emoten deutsuguz, Jauna,
eta zure bihotz onari eskatzen deutsagu,
sakramentu honetan emon deuskuzun
Espiritu Santuaren indarrak
iraun dagiala gugan
eta emon deigula leialtasunean bizitzeko grazia.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Bedeinkapen nagusia erabili daiteke, 647-651. or., 11-20. zk.

URTEAN ZEHARREKO XXXIII. DOMEKA

Sarrera-ant. Hauxe dino Jaunak: Zuen zoriona da nire egitasmoa, ez zuen zoritxarra; Niri dei egitean, entzungo deutsuet; eta jaurti zinduedazan toki guztietatik batuko zaituet. Ik. Jr 29, 11-12.14

Otoitza

Jainko gure Jauna,
egin gaizala zure laguntzak beti alai zure zerbitzuan,
ondasun guztien iturri zaran horri emonak
bizitzea da-eta guretzat
egiazko zorion betea eta iraunkorra.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa

Zuri, Jaun handi horri, aurkezten deutsugun eskeintza honek
lortu deigula Zu leial zerbitzeko grazia,
eta emon deigula betiko zorionaren frutua.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Jaunartze-ant. Nire zoriona Jainkoaren ondoan egotea, nire babesa Jainko Jaunagan aurkitzea. Sal 73 [72], 28

Edo:

Benetan dinotsuet: otoitzean eskatzen dozuen edozein gauza, sinistu lortuko dozuela, eta emongo deutsue Jainkoak, dino Jaunak. Mk 11, 23-24

Jaunartze ondorengoa

Sakramentuaren dohai santuak harturik,
apalik eskatzen deutsugu, Jauna:
zure Semeak bere oroigarri egiteko
agindu euskun Eukaristia honek
gehitu dagiala gugan maitasuna.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Bedeinkapen nagusia erabili daiteke, 647-651. or., 11-20. zk.

URTEAN ZEHARREKO XXXIV. ASTEA

Urtean Zeharreko azkeneko domekan Jesu Kristo Gure Jaunaren, diran Guztien Erregearen, festaburua ospatzen da, 419. or.

Sarrera-ant. Jaunak bakea agintzen deutse bere herriari eta fededunei, barriro konfiantza agertzen deutsoenei. Sal 85 [84], 9

Otoitza

Berotu, Jauna, zeure fededunen bihotza,
salbazinoaren egintzan gogotik parte hartuz,
zure errukiaren ondasunak ugariago lortu dagiezan.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa

Onartu, Jauna, zure nahia betez
ekarri deutsugun eskeintza hau;
egizu, bete daiguzala beti zure aginduak,
Zuretzat eskeintza atsegingarri izan gaitezan.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Jaunartze-ant. Goratu egizue Jauna, nazino guztiok, sendoa da-eta guretzat haren maitasuna. Sal 117 [116], 1-2

Edo:

Ni zeuokaz izango nozue egunero munduaren azkenera arte, dino Jaunak. Mt 28, 20

Jaunartze ondorengoa

Jainko ahalguztiduna, misterio santu honetan
Zeugaz bat egin ahal izateko poza emon deuskuzu;
egizu, ez gaitezala behin be urrundu
on guztien iturri zaran horrengandik.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

URTEAN ZEHARREKO
JAUNAREN JAIAK ETA FESTABURUAK

Pentekoste ondorengo eguenean

JESU KRISTO GURE JAUNA, BETIKO ABADE NAGUSIA

Jaia

Sarrera-ant. Kristo itun barri baten bitarteko da eta, beti irauten dauanez, inoiz amaituko ez dan abadetza dauka. Ik. Heb 7, 24; 9, 15

Aintza zeruetan esango da.

Otoitza Oi Jainko,
zure handitasunaren aintzarako eta gizadi osoa salbatzeko,
betiko abade nagusi egin dozu zeure Seme bakarra,
egizu, Kristok zure misterioen zerbitzari
eta emoile aukeratu dituanok,
Espiritu Santuaren graziaz
leial bete dagiela hartu daben zerbitzu hori.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa Onargarri egin daizala oparigai honeek, Jauna,
gure bitartekoa dan Jesu Kristok,
eta beragaz batera,
eskeini gaizala opari atsegingarri Zuretzat.
Errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Prefazioa: Krisma Mezakoa, 230. or.

Jaunartze-ant. Ni zeuokaz izango nozue egunero munduaren azkenera arte.
Mt 28, 20b

Jaunartze ondorengoa

Eskeini eta hartu dogun opari santuak
bizibarritu gaizala, Jauna,
maitasunean eten barik Zugaz bat eginik
beti iraungo daben frutuak emon daiguzan.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Pentekoste ondorengo domekan

HIRUTASUN GUZTIZ SANTUA

Festaburua

Sarrera-ant. Bedeinkatua izan bedi Jainko Aita, eta Jainkoaren Seme bakarra, eta Espiritu Santua, handia izan da-eta guretzat haren errukia.

Aintza zeruetan esango da.

Otoitza

Jainko Aita, egiaren Hitza dan zeure Semea
eta Espiritu santutzailea bialdu dozuz mundura
gizon-emakumeoi zeure misterio miragarria agertzeko;
egizu, egiazko sinismena autortuz,
ezagutu daigula betiko Hirutasunaren aintza
eta gurtu daigula Batasun ahalguztiduna.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Sinisten dot esango da.

Oparigaien gainekoa

Jainko gure Jauna,
zure izen santuari dei egiten deutsagu:
egizuz santu, zeure ahalmenaz,
aurkezten deutsuguzan dohai honeek,
eta euron bidez bihurtu gaizuz guztiok Zeuretzat
betiko opari atsegingarri.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Prefazioa HIRUTASUN GUZTIZ SANTUAREN MISTERIOA

℣. Jauna zuekin.
℟. Eta zure espirituarekin.

℣. Gora bihotzak.
℟. Jaunagan daukaguz.

℣. Eskerrak Jaungoiko gure Jaunari.
℟. Egoki da eta zuzen.

Egoki da, bai, eta zuzen,
bidezko eta salbagarri,
nonahi eta beti guk Zuri eskerrak emotea,
Jauna, Aita guztiz santu,
Jainko ahalguztidun betiko horri.

Zu, Aita, zeure Seme bakarrarekin eta Espiritu Santuarekin,
Jainko bakarra zara, Jaun bakarra;
ez pertsona bakarra, ezpada ze izate baten hiru pertsona.

Eta, Zeuk irakatsirik, zure aintzaz sinisten doguna bera,
ezeren alderik gabe, autortzen dogu,
bai zure Semeaz, bai Espiritu Santuaz.

Horrelan, egiazko eta betiko Jainko autortzen zaitugula,
hiru pertsona gurtzen doguz aldi berean,
hirurak izate batekoak eta handitasun berekoak.

Zeu zaitue goresten aingeruek eta goiaingeruek,
baita kerubin eta serafin dohatsuek ere,
beti eta beti bihotz batez [esanez] kantari:

Santu, Santu, Santua,
diren guztien Jainko Jauna.
Zeru-lurrak beterik daukaz zure distirak.
Hosanna zeru-goienetan!
Bedeinkatua Jaunaren izenean datorrena.




℣. Es-ke-rrak Jaun-goi-ko gu-re Jau-na-ri. ℟. E-go-ki da e-ta zu-zen.


Egoki da, bai, eta zuzen, bidezko eta sal-ba-ga-rri, no-na-hi eta
beti guk Zuri eskerrak e-mo-te-a, Jauna, Aita guz-tiz san-tu, Jainko
ahalguzti-dun be-ti - ko ho-rri. Zu, Ai-ta, zeure Seme bakarrarekin
eta Espiritu Santu-a-re-kin, Jainko bakarra zara, Jaun ba-ka-rra;
ez pertsona ba-ka-rra, ezpada ze izate bate-an hi-ru per-tso-na.
E-ta Zuk irakatsita, zure aintzaz sinisten dogu-na be-ra, ezeren
alderik gabe autor-tzen do-gu, bai zure Se-me-az, bai Es-pi-ri-tu
San-tu-az. Ho-ne-lan, egiazko eta betiko Jainko autortzen zai-tu-gu-la,
hiru pertsona gurtzen doguz aldi be-re-an, hirurak izate bate-ko-ak
eta han - di - ta - sun be - re - ko - ak.



Jaunartze-ant. Seme-alaba zarien seinaletzat bere Semearen Espiritua bialdu dau Jainkoak zuen bihotzera, «Abba! Aita!» deika diharduana. Ga 4, 6

Jaunartze ondorengoa

Jainko gure Jauna, betiko Hirutasun Santua
eta haren Batasun hausiezina autortu dogu;
egizu, hartu dogun sakramentu honetan
aurkitu daigula gorputz-arimen osasuna.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Hirutasun Guztiz Santu ondorengo domekan

KRISTOREN GORPUTZ ETA ODOL GUZTIZ SANTUAK

Festaburua

Sarrera-ant. Garirik onenaz janaritu zituan, eztirik gozoenaz asetu.
Ik. Sal 81 [80], 17

Aintza zeruetan esango da.

Otoitza Oi Jainkoa,
sakramentu harrigarri honetan
zeure heriotzaren oroigarria itzi deuskuzu;
egizu, goratu daigula fede biziz
zure Gorputz Odolen misterioa,
geugan zure erospenaren ondorenak sumatu daiguzan beti.
Aitarekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi zara-eta gizaldi eta gizaldietan.

Sinisten dot esango da.

Oparigaien gainekoa Emoiozu onez zeure Eleizeari, Jauna,
batasunaren eta bakearen dohaia,
horreen adierazgarri mistikoa da-eta
ekarri deutsugun eskeintza hau.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Prefazioa: Eukaristia santuarena, II.a nahiz I.a, 514-516. or.

Jaunartze-ant. Nire haragia jaten eta nire odola edaten dauana Neugan dago eta Ni harengan, dino Jaunak.
Jn 6, 56

Jaunartze ondorengoa Emoiguzu, Jauna, orain hartu doguzan
zure Gorputz eta Odol baliotsuez aurreratu deuskuzuna,
zure jaungoikotasunaren betiko gozotasunaz asetu gaitezan.
Errege bizi zara-eta gizaldi eta gizaldietan.

Meza ondorenean prozesinoa egitea komeni da, Meza horretan sagaratutako ostia eroanez. Ez dago ezelako eragozpenik, prozesino hori jarraian, agirian gurtza egin ondoren, egiteko. Prozesinoa Meza ondoren egiten bada, fededunen jaunartzea amaitutakoan, altara gainean jarriko da kustodia ostia sagaratuagaz eta, jaunartze ondorengo otoitza esandakoan, amaierako ohikuneak itzi eta hasiera emongo jako prozesinoari.

Pentekoste ondorengo III. barikuan

JESUSEN BIHOTZ GUZTIZ SANTUA

Festaburua

Sarrera-ant. Jaunaren Bihotzeko asmoek betiko diraue, fededunak heriotzatik libratzeko eta gosetean bizirik gordetzeko. Ik. Sal 33 [32], 11.19

Aintza zeruetan esango da.

Otoitza Jainko ahalguztiduna,
zure Seme maitearen Bihotza gorestean,
maitasunez gure alde gauzatu dozuzan egintzak
pozik ospatzen doguz; egizu,
hartu daigula zeruko iturri horri gainezka darion grazia.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Edo:

Oi Jainko,
gure pekatuek zauritutako zure Semearen Bihotzean
zeure maitasunaren ondasun neurribakoak emon deuskuzuz;
egizu, Kristori geure fedearen omena eskeiniz,
bihurtu deiogula ordain egokia ere.
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta Errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Sinisten dot esango da.

Oparigaien gainekoa Begitu, Jauna, zeure Semearen Bihotzeko
maitasun neurribakoari;
egizu, gure eskeintza hau atsegingarri izan dadila Zuretzat
eta lortu deigula guri pekatu guztien parkamena.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Prefazioa

KRISTOREN MAITASUN NEURRIBAKOA

℣. Jauna zuekin.
℟. Eta zure espirituarekin.

℣. Gora bihotzak.
℟. Jaunagan daukaguz.

℣. Eskerrak Jaungoiko gure Jaunari.
℟. Egoki da eta zuzen.

Egoki da, bai, eta zuzen,
bidezko eta salbagarri,
nonahi eta beti guk Zuri eskerrak emotea,
Jauna, Aita guztiz santu,
Jainko ahalguztidun betiko horri,
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Berak, maitasun harrigarriak eraginik
kurutzera jaso ebenean,
bere burua gure alde eskeini eban
eta bere saihets edegitik odola eta ura isuri zituan,
handik sortu eitezan Eleizaren sakramentuak,
eta gizon-emakume guztiek,
Salbatzailearen Bihotz edegira baturik,
pozik edan egien salbamenaren iturritik.

Horregaitik, santu eta aingeru guztiekin batera
goresten zaitugu,
beti eta beti [esaten] abesten deutsugula:

Santu, Santu, Santua...




℣. Es-ke-rrak Jaun-goi-ko gu-re Jau-na-ri. ℟. E-go-ki da e-ta zu-zen.


Egoki da, bai, eta zuzen, bidezko eta sal-ba-ga-rri, no-na-hi eta
beti guk Zuri eskerrak e-mo-te-a, Jauna, Aita guz-tiz san-tu, Jainko
ahalguztidun betiko ho-rri, Jesu Kristo gure Jau-na-ren bi-tar-tez.
Be-rak, maitasun harrigarriak eraginda kurutzera jaso e-be-ne-an,
bere buru-a gure alde eskeini ebalako eta bere saihets edegitik
odola eta ura isuri zi-tu-an, handik sortu eitezan Eleizaren sakra-
men-tu-ak, eta gizon–emakume guztiek, Salbatzailearen Bihotz
edegira ba-tu-rik, pozik edan egien salba-me-na-ren i-tu-rri-tik.
Horregai-tik, santu eta aingeru guztiekin ba-te-ra goresten zai-tu-gu,
beti eta beti a-bes-ten deu-tsu-gu-la:

Jaunartze-ant. Hauxe dino Jaunak: Egarri dana betor Nigana, eta edan begi Nigan sinisten dauanak; ur biziko ibaiak jarioko jakoz barru-barrutik.
Jn 7, 37-38

Edo:

Gudari batek lantzaz saihetsa zulatu eutson, eta bat-batean odolak eta urak urten eben. Jn 19, 34

Jaunartze ondorengoa

Zure maitasunaren sakramentu honek
erakarri gaizala beti, Jauna, zure Semeagana,
haren maitasunak beroturik,
geure senideengan bera ikusten jakin daigun.
Errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Urtean Zeharreko azken domekan

JESU KRISTO GURE JAUNA, DIRAN GUZTIEN ERREGEA

Festaburua

Sarrera-ant. Hila izan dan Bildotsa bada nor ahalmena eta aberastasuna, jakituria, indarra eta ohorea hartzeko. Berari aintza eta agintea gizaldi eta gizaldietan. Ap 5, 12; 1, 6

Aintza zeruetan esango da.

Otoitza Jainko ahalguztidun betikoa,
diran guztien Errege dan zeure Seme maitea ezarri zenduan
gauza guztien oinarri eta buru;
egizu onbera, izaki guztiek, pekatuaren buztarpetik askaturik,
Zeu zerbidu zagiezala beti eta goratu.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Sinisten dot esango da.

Oparigaien gainekoa Gizadia Zugaz adiskidetzen dauan opari hau eskeiniz,
apalik eskatzen deutsugu, Jauna:
zure Seme Jesu Kristoren merezimentuei esker,
emon herri guztiei batasuna eta bakea.
Errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Prefazioa JESU KRISTO, DIRAN GUZTIEN ERREGEA

℣. Jauna zuekin.
℟. Eta zure espirituarekin.

℣. Gora bihotzak.
℟. Jaunagan daukaguz.

℣. Eskerrak Jaungoiko gure Jaunari.
℟. Egoki da eta zuzen.

Egoki da, bai, eta zuzen,
bidezko eta salbagarri,
nonahi eta beti guk Zuri eskerrak emotea,
Jauna, Aita guztiz santu,
Jainko ahalguztidun betiko horri.

Zeure Seme bakarra, Jesu Kristo gure Jauna,
poz-orioz gantzutuz,
betiko Abade eta diran guztien Errege sagaratu dozu,
gure erospenaren misterioa burutu daian,
kurutzeko altaran
bere burua opari garbi eta baketzaile eskeiniz,
eta, izaki guztiak bere menpeko eginik,
Zuri, Jaun guztiz handi horri, eskura emon deizun
mugarik ez dauan betiko erreinua:
egiaren eta biziaren erreinua,
santutasunaren eta graziaren erreinua,
zuzentasun, maitasun eta bakearen erreinua.

Horregaitik, aingeru eta goiaingeruekin,
ahalmen eta nagusitzekin
eta zeruko talde guztiekin,
zure aintzari gorazarre hau
beti eta beti [esaten] abesten deutsagu:

Santu, Santu, Santua...




Egoki da, bai, eta zuzen, bidezko eta sal-ba-ga-rri, no-na-hi eta
beti guk Zuri eskerrak e - mo-te-a, Jauna, Aita guz-tiz san-tu,
Jainko ahalguzti-dun be - ti ko ho-rri. Zeure Se - me bakarra,
Jesu Kristogure Jauna, poz–orioz gan-tzu-tuz, betiko Aba - de
eta diran guztien Errege sagara-tu do-zu, gure erospenaren misterioa
buru - tu dai - an, kurutzeko altaran bere burua opari gar - bi
eta ba - ke - tzai - le es - kei - niz, eta iza - ki guztiak bere menpeko
e - gi - nik, Zu - ri, Jaun guztiz handi horri, eskura emon deizun
mugarik ez dauan betiko e-rrei-nu-a: egiaren eta biziaren e-rrei-nu-a,
santutasunaren eta graziaren errei - nu - a, zuzentasun,
maitasun eta ba - ke - a - ren e - rrei - nu - a.



Jaunartze-ant. Tronuan jesarri da Jauna betiko errege; bedeinkatu dagiala Jaunak bakeaz bere herria. Sal 29 [28], 10-11

Jaunartze ondorengoa

Betiko biziaren ogiaz janaritu gaituzu, Jauna;
egizu, diran guztien Errege dan Kristoren
esaneko izateaz pozten garanok
beragaz zeruko erreinuan betiko bizi gaitezala.
Errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

MEZAREN EGUNEROKOA

MEZAREN EGUNEROKOA

HERRIAGAZ OSPATUKO DANEAN

Hasierako ohikuneak

Sarrerako kantua

1. Herria batzarrean batuta dagoala, abadea altarara joango da laguntzaileekin, sarrerako kantua abesten dan bitartean.

Altarara heltzean, behar dan agurra egingo dau laguntzaileekin: altareari mun egingo deutso eta, egoki eretxi ezkero, intsentsuz lurrunduko dau. Gero, jesarlekura joango da laguntzaileekin.

Sarrerako kantua amaitutakoan, abadeak eta herriak, zutunik, aitaren egingo dabe, abadeak, herriari begira, hau esaten dauan bitartean:

Aitaren, eta Semearen, eta Espiritu Santuaren izenean.

Herriak erantzungo dau:

Amen.

LEHENENGO ERA

2. Abadeak, besoak zabalduz, herria agurtuko dau, esanez:

Herria agurtzea

Jesu Kristo gure Jaunaren grazia,
eta Jainko Aitaren maitasuna,
eta Espiritu santuaren batasuna
izan bedi zuekin.

Agur hau abestuz egin nahi bada, holan egin daiteke:



Bigarren era

Jaungoiko gure Aitaren
eta Jesu Kristo gure Jaunaren
grazia eta bakea zuekin.

Agur hau abestuz egin nahi bada, holan egin daiteke:

2



Hirugarren era

Jauna zuekin.

Agur hau abestuz egin nahi bada, holan egin daiteke:

3a



Edo:

3b



Gotzainaren agurra

Gotzainak, Jauna zuekin ordez, lehenengo agur hau egitekoan beste hau esango dau:

Bakea zuekin.

Agur hau abestuz egin nahi bada, holan egin daiteke:



Herriak erantzungo dau:

Eta zure espirituarekin.

Edo:

Bedeinkatua Zu, Jauna, orain eta beti.

Beste agur era batzuk

Gure bihotza Jainkoa maitatzera
zuzentzen dauan Jauna
izan bedi zuekin.

Edo:

Jainko Aitagandik
eta Jesu Kristo Jaunagandik
bakea, maitasuna eta sinismena zuekin.

Edo:

Jainko itxaropen-emoilea,
Espiritu Santuaren egintzari esker
bere pozaz eta bakeaz betetzen gaituana,
izan bedi zuekin.

Edo:

Gugatik gizon egin zan
[edo: Gugaitik nekeak jasan zituan,
edo: Gugaitik hil eta biztu zan...]
Jesu Kristo gure Jaunaren errukia
izan bedi zuekin.

Edo:

Gauza guztien egile
eta dohai guztien emoile dan Jauna
izan bedi zuekin.

Edo:

Aita errukitsua eta Jainko poz-emoilea
izan bedi zuekin.

Edo:

Jainkoaren hitza entzun
eta berari gure esker ona agertzeko
[edo: gure sinismena ospatzeko...
edo: gure arteko maitasuna indartzeko...]
Jainkoaren izenean batuta dagoan
kristau-batzar honetan,
Jauna izan bedi zuekin.

Edo:

Jainko Aitaren
eta Jesu Kristo gure Salbatzailearen
grazia, errukia eta bakea zuekin.

Edo, hildakoen Mezan:

Estualdi guztietan pozten gaituan Jainkoak
bete zaiezala itxaropenez,
eta haren bakea izan bedi zuekin.

Badira agurtzeko beste era batzuk liturgialdi bakotxerako bereziak, hemen ondoren.

Herriak erantzungo dau:

Eta zure espirituarekin.

Edo:

Bedeinkatua Zu, Jauna, orain eta beti.

Edo:

Bedeinkatua Jainkoa,
Jesu Kristo gure Jaunaren Aita.

Herria agurtzeko beste era batzuk liturgialdi berezietarako

Abendualdirako

Gu salbatzera datorren Jauna
izan bedi zuekin.

Gabonaldirako

Gu salbatzeko jaio dan Kristogan agertu jakun
Jainko gure Aitaren bakea eta maitasuna zuekin.

Garizumarako

Bihotz-barritzera dei egiten deuskun
Jesu Kristoren grazia eta maitasuna zuekin.

Pazkoaldirako

Heriotzaren lokarriak etenik
Jesu Kristo berbiztu dauan Jainko bizi-emoilea
izan bedi zuekin.

3. Abadeak nahiz diakonoak edo beste laguntzaile egokiren batek oharpen labur-laburra egin leikio herriari, eguneko Mezarako girotzeko.

4. Gero, damu-otoitza egingo da, ondoren emoten diran era honeetakoren bat erabiliz.

1

Abadeak herriari damurako deia egingo deutso, honan gitxi gorabehera:

Damu-otoitza Senideok: Autor daiguzan geure pekatuak, misterio santuak ospatzeko gai izan gaitezan.

Edo:

Jesus Jaunak Hitzaren eta Eukaristiaren mahaira dei egiten deusku eta, horretarako, bihotz-barritu gaitezala eskatzen. Autor daiguzan, beraz, geure pekatuak eta eskatu daigun uste osoz Jainkoaren errukia

Edo domeketan eta Pazko-zortziurrenean bakarrik:

Kristok pekatuaren eta heriotzaren gain lortu dauan garaipena ospatzen dogu domekan. Autortu daigun zeruetako Aitaren errukiaren beharrizanean gagozala, pekaturako hilik, bizi barrira biztu gaitezan.

Isilune laburra egingo da. Eta, danek batera, euren pekatuak autortuko ditue:

Autortzen deutsat Jainko guztiz ahaltsuari,
eta zuei ere bai, nire senideoi,
pekatu egin dodala
gogapen, hitz eta egitez,
eta eginbeharrak ez eginez;

Eta, bularra joz, esango dabe:

bai, pekatari naz.
Horregaitik eskatzen deutset Andra Maria beti Birjinari,
aingeru eta santu guztiei
eta zuoi ere bai, nire senideoi,
otoitz egin deiozuela nire alde Jainko gure Jaunari.

Jarraian, abadeak parkamen-eskaria egingo dau:

Erruki dakigula Jainko guztiz ahaltsua
eta, gure pekatuak parkaturik,
eroan gaizala betiko bizitzara.

Herriak erantzungo dau:

Amen.

2

5. Abadeak herriari damurako deia egingo deutso, honan gitxi gorabehera:

Eukaristi ospakizun honen hasieran, eskatu deiogun Jainkoari bihotz-barritzearen grazia; holan baketzea lortuko dogu eta alkartuago egongo gara Jainkoagaz eta geure senideakaz.

Edo:

Ebanjelioko zerga-batzailea lez, hurreratu gaitezan Jainko zuzenagana, apalik eta bihotz-damuturik, eta, geure burua pekatari autortuz, eskatu deiogun errukia Jainko Aitari.

Isilune laburra egingo da.
Eta abadeak esango dau:

Erruki, Jauna.

Herriak erantzungo dau:

Pekatu egin dogu eta.

Abadeak:

Agertu guri, Jauna, zeure bihotz ona.

Herriak:

Eta salba gaizuz.

Jarraian, abadeak parkamen-eskaria egingo dau:

Erruki dakigula Jainko guztiz ahaltsua
eta, gure pekatuak parkaturik,
eroan gaizala betiko bizitzara.

Herriak erantzungo dau:

Amen.

Damu-otoitz hau abestuz egin nahi bada, holan egin daiteke:



3

6. Abadeak herriari damurako deia egingo deutso, honan gitxi gorabehera:

Jesu Kristok, pekaturik ez dauan gure bitartekoak, otoitzean dihardu gure alde eta adiskidetu egiten gaitu Aitagaz. Edegi daigun, bada, geure espiritua damurako, Jaunaren mahaira hurreratzeko gai izan gaitezan.

Edo:

Jaunak esana da: «Zuen artean pekaturik ez dauanak bota dagiala lehenengo harria». Autortu daigun, bada, pekatari garala eta eskatu deiogun apalik parkamena zeruetako Aitari, geuk ere geure senideei bihotzez parkatuz.

Isilune laburra egingo da.

Eta abadeak nahiz beste laguntzaile egokiren batek hurrengo eskari honeek edo horreen antzeko beste batzuk egingo ditu:

Jesus Jauna, bihotz-urratuak salbatzera bialdua:
erruki, Jauna. (Edo: Kyrie, eléison).

Herriak erantzungo dau:

Erruki, Jauna. (Edo: Kyrie, eléison).

Abadeak:

Jesus Jauna, pekatariei dei egitera etorria: Kristo, erruki. (Edo: Christe, eléison).

Herriak

Kristo, erruki. (Edo: Christe, eléison).

Abadeak:

Jesus Jauna, gure alde otoitz egiteko, Aitaren eskumaldean zaituguna:

erruki, Jauna. (Edo: Kyrie, eléison).

Herriak:

Erruki, Jauna. (Edo: Kyrie, eléison).

Jarraian, abadeak parkamen-eskaria egingo dau:

Erruki dakigula Jainko guztiz ahaltsua
eta, gure pekatuak parkaturik,
eroan gaizala betiko bizitzara.

Herriak erantzungo dau

Amen.

Damu-otoitz hau abestuz egin nahi bada, holan egin daiteke:



Badira damu-otoitzerako beste era batzuk liturgialdi bakotxerako bereziak, hemen ondoren aukeran.

Damu-otoitza hirugarren eran egiteko beste eskari batzuk

I.

Abadeak herriari damurako deia egingo deutso, honan gitxi gorabehera:

Urtean Zehar

Eukaristi ospakizun honen hasieran, eskatu deiogun Jainkoari bihotz-barritzearen grazia; holan baketzea lortuko dogu eta alkartuago egongo gara Jainkoarekin eta geure senideekin.

Jesus Jauna, Aitagana garoazan bidea: erruki, Jauna.
℟. Erruki, Jauna.
Jesus Jauna, herri guztiak argitzen dituan egia: Kristo, erruki.
℟. Kristo, erruki.
Jesus Jauna, mundua erabarritzen dauan bizia: erruki, Jauna.
℟. Erruki, Jauna.

II.

Jesus Jauna, egiaren eta graziaren betea zarana: erruki, Jauna.
℟. Erruki, Jauna.
Jesus Jauna, gu aberasteko zeure burua behartsu egin dozuna: Kristo, erruki.
℟. Kristo, erruki.
Jesus Jauna, gurekin zeure herri santua egitera etorri zarana: erruki, Jauna.
℟. Erruki, Jauna.

III.

Jesus Jauna, gu kondenatzera ez, ezpada ze salbatzera, etorri zarana: erruki, Jauna.
℟. Erruki, Jauna.
Jesus Jauna, bihotz-barritzen dan pekatari bakar batengaitik, zeruan poz handia izango dala esan zenduana: Kristo, erruki.
℟. Kristo, erruki.
Jesus Jauna, asko maite izan dauanari asko parkatzen deutsazuna: erruki, Jauna.
℟. Erruki, Jauna.

IV.

Jesus Jauna, galdurik egoana bilatzera etorri zarana: erruki, Jauna.
℟. Erruki, Jauna.
Jesus Jauna, guztion erospenerako zeure bizia emon dozuna: Kristo, erruki.
℟. Kristo, erruki.
Jesus Jauna, zeure seme-alaba sakabanatuak batzen dituzuna: erruki, Jauna.
℟. Erruki, Jauna.

V.

Jesus Jauna, Pedro damutuari parkamena eskeini zeuntsana: erruki, Jauna.
℟. Erruki, Jauna.
Jesus Jauna, lapur onari paradisua agindu zeuntsana: Kristo, erruki.
℟. Kristo, erruki.
Jesus Jauna, pekatuen parkamenerako Apostoluei Espiritu Santua emon zeuntsena: erruki, Jauna.
℟. Erruki, Jauna.

VI.

Jesus Jauna, behartsuen alde zagozana: erruki, Jauna,
℟. Erruki, Jauna.
Jesus Jauna, indarbakoen babesleku zarana: Kristo, erruki.
℟. Kristo, erruki.
Jesus Jauna, pekatarien itxaropen zaituguna: erruki, Jauna.
℟. Erruki, Jauna.

VII.

Jesus Jauna, gure bakea zarana: erruki, Jauna.
℟. Erruki, Jauna.
Jesus Jauna, guretzat ogi egin zinana: Kristo, erruki.
℟. Kristo, erruki.
Jesus Jauna, bizia emoten deuskuzuna: erruki, Jauna.
℟. Erruki, Jauna.

* * *

Abendualdian

Senideok: Abendualdian Jaunaren etorrera gogoratzen dogu eta haren etorrera barria prestatzera egiten jaku dei. Prestatu daigun geure bihotza Jaunari ondoetorria egin ahal izateko.

I.

Jesus Jauna, mundura gu salbatzera etorria: erruki, Jauna.
℟. Erruki, Jauna.
Jesus Jauna, Espiritu Santuaren graziaz eten barik geugaz zaituguna: Kristo, erruki.
℟. Kristo, erruki.
Jesus Jauna, gure egintzak epaitzera egun baten etorriko zarana: erruki, Jauna.
℟. Erruki, Jauna.

II.

Jesus Jauna, zeure herriari bakea ekartzera etorri zinana: erruki, Jauna.
℟. Erruki, Jauna.
Jesus Jauna, galdurik egoana salbatzera etorri zinana: Kristo, erruki.
℟. Kristo, erruki.
Jesus Jauna, mundua barri egitera etorri zinana: erruki, Jauna.
℟. Erruki, Jauna.

III.

Jesus Jauna, ilunpetan bizi diranei
argi egitera zatozan munduko argia: erruki, Jauna.
℟. Erruki, Jauna.
Jesus Jauna, zeure artaldea egiaren eta zuzentasunaren bidetik eroatera zatozan Artzain ona: Kristo, erruki.
℟. Kristo, erruki.
Jesus Jauna, Aitaren agintzariak euren betera eroateko,
egun baten bihurtuko zaran Jainkoaren Semea: erruki, Jauna.
℟. Erruki, Jauna.

* * *

Gabonaldian

Senideok: Bihotz garbi eta apalekoek bakarrik jaso leikie Gabonetan ospatzen dogun Jainko gizon eginaren misterioa eta barri ona. Autor daiguzan geure pekatuak, eskuzabal eskeintzen jakun salbazinoa onartzeko gai izan gaitezan.

I.

Jesus Jauna, Mariagandik jaio eta gure senide egin zinan Jainkoaren Semea: erruki, Jauna.
℟. Erruki, Jauna.
Jesus Jauna, gure ahuleriak ezagutzen eta maitasunez ulertzen dituzun Gizonaren Semea: Kristo, erruki
℟. Kristo, erruki.
Jesus Jauna, gu guztiokin familia bat bera egiten dozun Aitaren Lehen Semea: erruki, Jauna
℟. Erruki, Jauna.

II.

Jesus Jauna, diran guztiei izatea emon deutsezun Aitaren betiko Hitza: erruki, Jauna.
℟. Erruki, Jauna.
Jesus Jauna, mundu honetara etorri eta mundu honek onartu ez zaituan egiazko Argia: Kristo, erruki
℟. Kristo, erruki.
Jesus Jauna, gizon eginik gure artean bizilekua jarri dozun Jainkoaren Semea: erruki, Jauna.
℟. Erruki, Jauna.

III.

Jesus Jauna, Errege bakegile eta Jainkoaren Santua: erruki, Jauna
℟. Erruki, Jauna.
Jesus Jauna, ilunpeetan distiratzen dozun argia: Kristo, erruki.
℟. Kristo, erruki.
Jesus Jauna, gizaki barriaren eredua: erruki, Jauna.
℟. Erruki, Jauna.

* * *

Garizumaldian

Senideok: Jainkoak ez dau pekatariaren heriotza nahi, bihotz-barritu eta bizi dadila baino. Ospakizun honen hasieran, jarri daigun geure uste osoa Jainko Aitagan eta dei egin deiogun:

Edo:

Senideok: Pekatuak aldendu egiten gaitu Jainkoagandik eta geure anai-arrebakandik. Egin daiguzan bakeak, damuturik pekatuen parkamena eskatuz:

I.

Jesus Jauna, uraren eta Espirituaren bidez jaiotza barria emon deuskuzuna: erruki, Jauna.
℟. Erruki, Jauna.
Jesus Jauna, gure barruan bihotz barria sortzeko, Espiritu Santua bialdu deuskuzuna: Kristo, erruki.
℟. Kristo, erruki.
Jesus Jauna, betiko salbazinoa ekarri deuskuzuna: erruki, Jauna.
℟. Erruki, Jauna.

II.

Jesus Jauna, gure erruak garbitzen dituzuna: erruki, Jauna.
℟. Erruki, Jauna.
Jesus Jauna, gugan bihotz garbia sortzen dozuna: Kristo, erruki.
℟. Kristo, erruki.
Jesus Jauna, salbazinoaren poza barriro emoten deuskuzuna: erruki, Jauna.
℟. Erruki, Jauna.

III.

Jesus Jauna, gizadiaren salbazinoa kurutze-habean ezarri zenduana: erruki, Jauna.
℟. Erruki, Jauna.
Jesus Jauna, guk zure pausuei jarraitzeko, gugaitik nekaldia jasan zenduana: Kristo, erruki.
℟. Kristo, erruki.
Jesus Jauna, gu, pekaturako hilik, santutasunerako bizi gaitezan gure pekatuak zeure lepoan habe gainera eroan zenduzana: erruki, Jauna.
℟. Erruki, Jauna.

* * *

Pazko Zortziurrenean

Senideok: Jesusek bere heriotzaren eta biztueraren bidez parkamena eta bakea lortu deusku. Pazko-misterio hau ospatzen hasi aurretik, eskatu daigun Jainkoaren parkamena:

Pazkoaldian

Senideok: Autor daiguzan geure pekatuak eta hurreratu gaitezan uste osoz geure Artzain Onagana, haren parkamena lortzeko:

I.

Jesus Jauna, zeure biztueraz pekatua eta heriotza desegin dituzuna: erruki, Jauna.
℟. Erruki, Jauna.
Jesus Jauna, zeure biztueraz izadi osoa erabarritu dozuna: Kristo, erruki.
℟. Kristo, erruki.
Jesus Jauna, zeure biztueraz biziei alaitasuna eta hildakoei bizia emon deutsezuna: erruki, Jauna.
℟. Erruki, Jauna.

II.

Jesus Jauna, hilen arteko Lehen-Semea: erruki, Jauna.
℟. Erruki, Jauna.
Jesus Jauna, pekatuaren eta heriotzaren garailea: Kristo, erruki.
℟. Kristo, erruki.
Jesus Jauna, gure biztuera eta bizia: erruki, Jauna.
℟. Erruki, Jauna.

III.

Jesus Jauna, Itun Barriko Abade Nagusia zarana: erruki, Jauna.
℟. Erruki, Jauna.
Jesus Jauna, Jainkoaren Eleiza santua eraikitzeko harri bizi egiten gaituzuna: Kristo, erruki.
℟. Kristo, erruki.
Jesus Jauna, guri Espirituaren dohaia bialtzeko, Aitaren eskumaldera igon dozuna: erruki, Jauna.
℟. Erruki, Jauna.

IV.

Jesus Jauna, gu salbatzeagaitik gizon egin zinana: erruki, Jauna.
℟. Erruki, Jauna.
Jesus Jauna, guri bizia emoteko hil eta biztu zinana: Kristo, erruki.
℟. Kristo, erruki.
Jesus Jauna, gu Aitagana eroateko zerura igon zenduana: erruki, Jauna.
℟. Erruki, Jauna.

V.

Jesus Jauna, zeure ardiak ezagutzen dituzun Artzain Ona: erruki, Jauna.
℟. Erruki, Jauna.
Jesus Jauna, ardi galduaren bila etsi gabe zabiltzana: Kristo, erruki.
℟. Kristo, erruki.
Jesus Jauna, betiko biziko larre gurietara eroaten gaituzuna: erruki, Jauna.
℟. Erruki, Jauna.

* * *

I.

Hilen aldeko Mezan

Jesu Kristok, bere heriotzaz eta biztueraz, pekatuen parkamena eta bizi barria lortu deusku. Prestatu gaitezan Jaunaren pazko-misterioa Eukaristia honetan behar dan lez ospatzeko:

Jesus Jauna, kurutzean odola isuriz, gure pekatuak kentzen dituzuna: erruki, Jauna.
℟. Erruki, Jauna.
Jesus Jauna, hilobitik biztuz, heriotzatik ataratzen gaituzuna: Kristo, erruki.
℟. Kristo, erruki.
Jesus Jauna, zeruetara igonez, bizia salbatzen deuskuzuna: erruki, Jauna.
℟. Erruki, Jauna.

II.

Senideok: Gizon-emakumeen nahigabe eta estualdien barri ondo dakian Jainko errukiorrari eskatu deiogun pekatu guztien parkamena eta bihotz barruko poza:

Jesus Jauna, gure nahigabe eta pozaldietan parte hartzeko mundura etorria: erruki, Jauna.
℟. Erruki, Jauna.
Jesus Jauna, gugan heriotza eta pekatua garaitzeko kurutzean hila: Kristo, erruki.
℟. Kristo, erruki.
Jesus Jauna, guri bizirako bidea zabaltzeko hilen artetik berbiztua: erruki, Jauna.
℟. Erruki, Jauna.

* * *

Domekan ura bedeinkatzeko eta ur bedeinkatuz txipriztintzeko ohikunea

Domeketan, batez be Pazkoaldian, ura bedeinkatzeko eta, Bateoaren oroigarri, ur bedeinkatuz txipriztintzeko ohikunea egin leiteke inoiz damu-otoitzaren ordez; edozein eleizatan eta eleizkizun-lekutan egin leiteke hori, domekako Meza guztietan, baita zapatu-arratsaldera aurreratutako Mezetan be (ik. I. Eranskina, 1285. or.).

7. Ondoren, Erruki, Jauna eskariak egingo dira, aurretik damu-otoitzean esan ez badira.

℣. Erruki, Jauna.
℟. Erruki, Jauna.

℣. Kristo, erruki.
℟. Kristo, erruki.

℣. Erruki, Jauna.
℟. Erruki, Jauna.

℣. Kyrie, eléison.
℟. Kyrie, eléison.

℣. Christe, eléison.
℟. Christe, eléison.

℣. Kyrie, eléison.
℟. Kyrie, eléison.

Erruki, Jauna eskari honeek abestuz holan egin daitekez:



8. Eta, eguneko liturgiak agintzen dauanean, gorazarre hau abestuko da edo esango.

Aintza zeruetan

Aintza zeruetan Jaungoikoari
eta bakea lurrean haren gogoko gizakiei.
Hain handi eta eder zaitugulako,
gora Zu,
bedeinkatua Zu,
gorespen Zuri,
ahuspez agur,
eskerrak Zuri,
Jainko Jauna, zeruko Errege,
Jaungoiko Aita guztiahalduna.
Jauna, Seme bakar, Jesu Kristo,
Jainko Jauna, Jainkoaren Bildots, Aitaren Seme:
Zeuk kentzen dozu munduko pekatua; erruki, Jauna;
Zeuk kentzen dozu munduko pekatua; entzun gure deia.
Aitaren eskumaldean jarririk zagoz Zu; erruki, Jauna.
Zeu bakarrik Santua, Zeu bakarrik Jauna,
Zeu bakarrik Goi-goikoa, Jesu Kristo,
Espiritu Santuarekin
Jainko Aitaren argitan. Amen.

Latinez

Glória in excélsis Deo
et in terra pax homínibus bonæ voluntátis.
Laudámus te,
benedícimus te,
adorámus te,
glorificámus te,
grátias ágimus tibi propter magnam glóriam tuam,
Dómine Deus, Rex cæléstis,
Deus Pater omnípotens.
Dómine Fili unigénite, Iesu Christe,
Dómine Deus, Agnus Dei, Fílius Patris,
qui tollis peccáta mundi, miserére nobis;
qui tollis peccáta mundi, súscipe deprecatiónem nostram.
Qui sedes ad déxteram Patris, miserére nobis.
Quóniam tu solus Sanctus, tu solus Dóminus,
tu solus Altíssimus,
Iesu Christe, cum Sancto Spíritu: in glória Dei Patris.
Amen.

9. Gorazarrea amaitutakoan, abadeak, eskuak baturik, esango dau:

Otoitza Egin dagigun otoitz.

Eta danek, abadeagaz batera, otoitz egingo dabe unetxu baten isilik.
Gero, abadeak, besoak zabalik, otoitza esango dau.

Otoitzaren amaieran herriak erantzungo dau:

Amen.

Otoitz honi amaiera luzea dagokio beti.

Otoitza Aitari zuzendua danean:

Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean

Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Aitari zuzendua izanik, otoitzaren azkenean Semearen aipamena egiten danean:

Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Otoitza Semeari zuzendua danean:

Aitarekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi zara-eta gizaldi eta gizaldietan.

Otoitza abestuz egin nahi bada, holan egin daiteke:



Edo:



Edo:



Hitzaren liturgia

Irakurgaiak

10. Irakurleak, irakurtokira joan, eta lehenengo irakurgaia iragarriko dau. Danek jesarrita entzungo dabe.
Irakurgaiaren amaiera adierazoteko, irakurleak esango dau:

Jaunak esana.

Danek erantzungo dabe:

Eskerrak Zuri, Jauna.

11. Salmolariak salmoa kantatuko dau edo aldarrikatuko, eta herriak tarteka erantzuna errepikatuko dau.

12. Ondoren, bigarren irakurgairik aldarrikatu behar bada, irakurtokitik egingo da, lehenengoa lez.
Irakurgaiaren amaiera adierazoteko, irakurleak esango dau:

Jaunak esana.

Danek erantzungo dabe:

Eskerrak Zuri, Jauna.

Gorapen hau abestuz egin nahi bada, holan egin daiteke:

1



Edo:

2



13. Ebanjelio aurretik Aleluia abestuko da, edo errubriketan liturgiaren arabera ezarrita dagoan beste kantu egokiren bat.

14. Bien bitartean, abadeak intsentsua jarriko dau, intsentsurik erabiltzen bada. Gero, Ebanjelioa aldarrikatu behar dauan diakonoak bedeinkazinoa eskatuko dau, abadearen aurrean makurturik eta ahots apalez esanez:

Ebanjelioa Bedeinkatu nagizu, jauna.

Abadeak ahots apalez esango dau:

Izan bedi Jauna zure bihotzean eta zure ezpanetan,
haren Ebanjelioa egoki eta zuzen iragarri dagizun:
Aitaren, eta Semearen, ✠ eta Espiritu Santuaren izenean.

Diakonoak erantzungo dau:

Amen.

Diakonorik ez bada, abadeak berak, altara aurrean makurturik, ahots apalez esango dau:

Garbitu egizuz, Jainko ahalguztidun horrek,
nire ezpanak eta bihotza,
Ebanjelio santua egoki iragarri ahal izan dagidan.

15. Gero, diakonoa (edo abadea), egoki eretxi ezkero laguntzaileak argiakaz eta intsentsuagaz lagun dituala, irakurtokira joango da eta esango dau:

Jauna zuekin.

Herriak erantzungo dau:

Eta zure espirituarekin.

Diakonoak (edo abadeak):

Jesu Kristoren Ebanjelioa San I.[r]en liburutik.

Eta, hau esatean, kurutze-seinalea egingo dau liburuan eta, gero, bere bekokian, ahoan eta bularrean.

Herriak erantzungo dau:

Aintza Zuri, Jauna.

Ondoren, diakonoak (edo abadeak), intsentsurik erabiltzen bada, liburua lurrundu eta ebanjelioa iragarriko dau.

16. Ebanjelioa amaitutakoan, diakonoak (edo abadeak) esango dau:

Jaunak esana.

Danek erantzungo dabe:

Eskerrak Zuri, Jauna.

Ebanjelioa abestuz aldarrikatu nahi bada, honan egin daiteke:



Edo:



Gorapen hau abestuz egiten bada, beste erantzun batzuk be erabili leitekez Jesu Kristoren gorapenerako; adibidez:

Gora Zu, Jauna.

Edo:

Aintza, Jesus, Zuri beti,
Zeu zara gure argi.

Edo:

Zure hitzak, Jauna,
espiritu eta bizi dira.

Eta mun egingo deutso liburuari, ahots apalez esanez:

Ebanjelioko hitzez gure pekatuak garbitu beitez.

Homilia

17. Ondoren, homilia egingo da. Domeka eta jaiegun guztietan beharrezkoa da homilia egitea; gainerako egunetan be ondo legoke.

LEHENENGO ERA

18. Homilia amaitutakoan, fede-autormena egingo da, aginduta badago:

Fede-autormena

Sinisten dot Jaungoiko bat bakarra,
Aita guztiz ahaltsua, zeru-lurren Egilea,
agiri diran eta ez diran guztiena.
Sinisten dot Jaun bat bakarra, Jesu Kristo,
Jainkoaren Seme bakar,
mende guztiak baino lehen Aitagandik sortua.
Jainkoagandik Jainko, argitik argi,
egiazko Jainkoagandik egiazko Jainko;
sortua, ez egina,
Aitaren izate berekoa.
Haren bidez dira eginak gauza guztiak.
Gu gizakiokaitik eta gu salbatzeko jatsi zan zerutik.

Ondorengo hitzetan, gizon egin zan arte, danak makurtu egingo dira.

Eta, Espiritu Santuaren egitez
Maria Birjinagandik gorputz harturik,
gizon egin zan.
Pontzio Pilatoren menpean gugaitik kurutzeratua izan zan,
oinazetan hila eta hobiratua.
Hirugarren egunean biztu zan,
Liburu Santuak esan eben lez,
zerura igon eta Aitaren eskumaldean jarririk dago.
Aintzaz etorriko da barriz, biziak eta hilak epaitzera
eta haren erregetzak ez dau azkenik izango.

Sinisten dot Espiritu Santua,
Jauna eta bizi-emoilea,
Aitagandik eta Semeagandik dana;
Aitarekin eta Semearekin batean
agur eta gorespen berbera hartzen dauana
eta profeten ahoz hitz egin ebana.
Sinisten dot Eleiza: bat, santua, katolikoa eta Apostoluena.
Autortzen dot Bateo bakarra, pekatuak parkatzeko.
Itxaroten dot hilen biztuera
eta datorren munduko bizitza.
Amen.

Latinez

Credo in unum Deum,
Patrem omnipoténtem, factórem cæli et terræ,
visibílium ómnium et invisibílium.
Et in unum Dóminum Iesum Christum,
Fílium Dei unigénitum,
et ex Patre natum ante ómnia sæcula.
Deum de Deo, lumen de lúmine,
Deum verum de Deo vero,
génitum, non factum, consubstantiálem Patri:
per quem ómnia facta sunt.
Qui propter nos hómines et propter nostram salútem
descéndit de cælis.

Ondorengo hitzetan, homo factus est arte, danak makurtu egingo dira.

Et incarnátus est de Spíritu Sancto
ex María Vírgine, et homo factus est.
Crucifíxus étiam pro nobis sub Póntio Piláto;
passus et sepúltus est,
et resurréxit tértia die, secúndum Scriptúras,
et ascéndit in cælum, sedet ad déxteram Patris.
Et íterum ventúrus est cum glória,
iudicáre vivos et mórtuos,
cuius regni non erit finis.

Et in Spíritum Sanctum, Dóminum et vivificántem:
qui ex Patre Filióque procédit.
Qui cum Patre et Fílio simul adorátur et conglorificátur:
qui locútus est per prophétas.
Et unam, sanctam, cathólicam et apostólicam Ecclésiam.
Confíteor unum baptísma in remissiónem peccatórum.
Et exspécto resurrectiónem mortuórum,
et vitam ventúri sæculi.
Amen.

Bigarren era

19. Nizeako eta Konstantinoplako Kontzilioetako fede-autormen horren ordez Apostoluen fede-bilduma deritxon Erromako Eleizearen Bateoko fede-autormen hau be erabili leiteke, batez be Garizuman eta Pazkoaldian.

Sinisten dot Jainko Aita ahalguztiduna,
zeru-lurren Egilea.
Sinisten dot haren Seme bakarra,
Jesu Kristo gure Jauna,

Ondorengo hitzetan, Birjinagandik jaio zana arte, danak makurtu egingo dira.

Espiritu Santuaren egitez sortu
eta Andra Maria Birjinagandik jaio zana;
Pontzio Pilatoren menpean nekaldua;
kurutzean josia,
hila eta hobiratua izan zana;
infernuetara jatsi
eta hirugarren egunean
hilen artetik biztu zana;
zeruetara igon
eta Jainko Aita ahalguztidunaren
eskumaldean jarririk dagoana;

handik biziak eta hilak epaitzera etorriko dana.
Sinisten dot Espiritu Santua,
Eleiza santu katolikoa,
santuen alkartasuna,
pekatuen parkamena,
haragiaren biztuera eta betiko bizitza.
Amen.

Latinez

Credo in Deum
Patrem omnipoténtem, Creatórem cæli et terræ,
et in Iesum Christum, Fílium eius únicum,
Dóminum nostrum,

Ondorengo hitzetan, ex Maria Virgine arte, danak makurtu egingo dira.

qui concéptus est de Spíritu Sancto,
natus ex María Vírgine,
passus sub Póntio Piláto,
crucifíxus, mórtuus et sepúltus,
descéndit ad ínferos,
tértia die resurréxit a mórtuis,
ascéndit ad cælos,
sedet ad déxteram Dei Patris omnipoténtis,
inde ventúrus est iudicáre vivos et mórtuos.
Credo in Spíritum Sanctum,
sanctam Ecclésiam cathólicam,
sanctórum communiónem,
remissiónem peccatórum,
carnis resurrectiónem,
vitam ætérnam.
Amen.

Jainkoaren herriaren otoitza

20. Ondoren, Jainkoaren herriaren edo fededunen otoitza egingo da. Badira eredu batzuk IV. Eranskinean (ik. 1293. or.) Honan eratuko da fededunen otoitz hau:

Deia

Abadeak, oharpen labur baten bidez, otoitz egitera dei egingo deutse fededunei.

Eskariak

Eskariak diakonoak aurkeztuko ditu, eta diakonorik ez bada, irakurle batek nahiz gai dan beste norbaitek. Herriak esaldiren batekaz parte hartuko dau otoitzean, nahiz isilunea eginez. Eskari-asmoak normalean honeek izango dira:

a) Mundu guztiko Eleizaren eta bertako Eleizaren beharrizanen alde.
b) Agintarien alde eta mundu osoaren salbamenerako.
c) Beharrizan-egoera berezian aurkitzen diranen alde.
d) Bertako kristau-alkartearen alde.

Amaiera

Abadeak emongo deutso amaiera azken otoitzagaz.

Eukaristiaren liturgia

21. Hitzaren liturgia amaitu ondoren, laguntzaileek sagara-oihala, garbizapitxua, kaliza eta Meza Liburua jarriko ditue altara gainean. Bien bitartean, oparigaien aurkezpeneko kantua abestuko da.

22. Ondo legoke eleiztarrek eskeintzan euren parte-hartzea adierazotea, Eukaristiarako ogi-ardaoak eroanez nahiz Eleizearen eta behartsuen preminei laguntzeko beste emoitza batzuk eskeiniz.

23. Abadeak, altara ondoan zutunik, patenea ogiagaz hartu eta, altara gainean apur bat jasorik, esango dau ahots apalez:

Oparigaiak aurkeztea

Bedeinkatua Zu, Jauna, zeru-lurren Jaungoikoa;
zeure esku zabaletik hartu dogu
orain ekarri deutsugun ogi hau,
lurraren indarrak eta gizakiaren lanak sortua;
hauxe egingo jaku biziaren ogi.

Eta sagara-oihalean itziko dau patenea ogiagaz.

Oparigaien aurkezpeneko abestirik kantatzen ez bada, entzuteko eran esan daikez abadeak aurreko berba honeek; azkenean erantzun daike herriak:

Bedeinkatua Zu, Jauna, orain eta beti.

24. Jarraian, diakonoak edo abadeak berak ardaoa eta ur apurtxu bat botako ditu kalizara, ahots apalez esanez:

Gizatasunean gugaz bat egin zanak,
uraren eta ardaoaren bat-egite honen bidez,
egin gaizala bat beragaz jainkotasunean.

25. Gero, abadeak kaliza hartu eta, esku biekin altara gainean apur bat jasorik, esango dau ahots apalez:

Bedeinkatua Zu, Jauna, zeru-lurren Jaungoikoa;
zeure esku zabaletik hartu dogu
orain ekarri deutsugun ardao hau,
mahatsondoaren indarrak eta gizakiaren lanak sortua;
hauxe egingo jaku betiko zorionaren edari.

Eta sagara-oihalean itziko dau kaliza.

Oparigaien aurkezpeneko abestirik kantatzen ez bada, abadeak aurreko hitz honeek entzuteko eran esan leikez; azkenean, herriak erantzun leike:

Bedeinkatua Zu, Jauna, orain eta beti.

26. Jarraian, abadeak, makurturik, ahots apalez esango dau:

Onartu gaizuz, Jauna, apal eta damuturik gagozanok
eta gure sakrifizioa, Jainko Jauna, atsegin dakizula.

Intsentsuz lurrintzea

27. Eta, egoki eretxi ezkero, oparigaiak eta altarea intsentsuz lurrunduko ditu. Gero, diakonoak edo laguntzaileak abadea eta herria lurrunduko ditu.

28. Ondoren, abadeak, altarearen aldamenean, eskuak garbituko ditu, ahots apalez esanez:

Eskuak garbitzea

Garbitu nagizu zehatz, Jauna, neure errutik,
garbitu neure pekatutik.

29. Jarraian, altara erdian zutunik, herriari begira, besoak zabalduz eta batuz, esango dau:

Senideok,
egin daigun otoitz guztiok batean,
Eleiza osoaren oparia Jainkoari eskeintzerakoan.

Edo:

Senideok,
egin daigun otoitz,
Jainko Aita ahalguztidunari
opari hau gogoko izan dakion.

Edo:

Senideok,
egin daigun otoitz,
eguneroko gure pozak eta nekeak altarara eroanez,
Jainko Aita ahalguztidunari
eskeintzera goazen opari hau atsegin izan dakion.

Herriak erantzungo dau:

Jainkoa goresteko eta gizakia salbatzeko.

Oparien gaineko otoitza

30. Gero, abadeak, besoak zabalik, oparigaien gaineko otoitza esango dau.

Herriak erantzungo dau:

Amen.

Oparigaien gaineko otoitzari amaiera laburra dagokio beti

Otoitza Aitari zuzendua danean:

Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Aitari zuzendua izanik, otoitzaren azkenean Semearen aipamena egiten danean:

Errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Otoitza Semeari zuzendua danean:

Errege bizi zara-eta gizaldi eta gizaldietan.

Herriak erantzungo dau:

Amen.

EUKARISTI OTOITZA

31. Abadeak prefazioagaz hasiko dau Eukaristi Otoitza. Besoak zabalduz, esango dau:

Prefazioa Jauna zuekin.

Herriak erantzungo dau:

Eta zure espirituarekin.

Abadeak, eskuak jasorik, jarraituko dau:

Gora bihotzak.

Herriak:

Jaunagan daukaguz.

Abadeak, besoak zabalik:

Eskerrak Jaungoiko gure Jaunari.

Herriak:

Egoki da eta zuzen.

Abadeak, besoak zabalik, prefazioa esango dau.

LEHENENGO DOINUA:

1



BIGARREN DOINUA:

2



HIRUGARREN DOINUA:



Prefazioaren amaieran, eskuak batu eta herriagaz batera, prefazioari azkena emongo deutso, abestuz nahiz ahots ozenez esanez:

Santu, Santu, Santua,
diren guztien Jainko Jauna.
Zeru-lurrak beterik daukaz zure distirak.
Hosanna zeru-goienetan!
Bedeinkatua Jaunaren izenean datorrena.
Hosanna zeru-goienetan!

Latinez

Sanctus, Sanctus, Sanctus Dóminus Deus Sábaoth.
Pleni sunt cæli et terra glória tua.
Hosánna in excélsis.
Benedíctus qui venit in nómine Dómini.
Hosánna in excélsis.

Santu, Santua abestu nahi bada, honela egin daiteke:



Edo:





32. Abadeak Eukaristi Otoitzeko zatirik nagusienak behintzat kantatu leikez Meza guztietan, ik. doinuak prefazio bakotxaren ondoren eta Eukaristi Otoitz bakotxaren amaieran.

I. Eukaristi Otoitzean, hau da, Erromako Kanonean, kako zuzenen artean jarriak dagozan zatiak itzi leitekez.

Eukaristi Otoitzen amaierako Honen bitartez abestu nahi bada, ik. doinuak 620-622. or.etan.

ABENDUALDIKO I. PREFAZIOA

KRISTOREN ETORRERA BIAK

33. Prefazio hau, Abendualdiko I. domekatik abenduko hilaren 16ra bitartean, aldiko Mezetan esango da; baita aldi honetan emoten diran beste Mezetan be, prefazio berezirik ez badabe.

℣. Jauna zuekin.
℟. Eta zure espirituarekin.

℣. Gora bihotzak.
℟. Jaunagan daukaguz.

℣. Eskerrak Jaungoiko gure Jaunari.
℟. Egoki da eta zuzen.

Egoki da, bai, eta zuzen,
bidezko eta salbagarri,
nonahi eta beti guk Zuri eskerrak emotea,
Jauna, Aita guztiz santu,
Jainko ahalguztidun betiko horri,
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Bera behin apalik etorri zan gizon egina,
betidaniko zure asmoa betetzera
eta guri zerurako bidea zabaltzera.
Barriz etorriko da aintzaz beterik,
orduan guri bete-betean emotera
orain fedez itxaroten dogun saria.

Horregaitik, aingeru eta goiaingeruekin
ahalmen, nagusitza
eta zeruko talde guztiekin,
zure aintzari gorazarre hau
beti eta beti [esaten] abesten deutsagu:

Santu, Santu, Santua,
diran guztien Jainko Jauna.
Zeru-lurrak beterik daukaz zure distirak.
Hosanna zeru-goienetan!
Bedeinkatua Jaunaren izenean datorrena.
Hosanna zeru-goienetan!


Egoki da, bai, eta zuzen, bidezko eta sal-ba-ga-rri, no-na - hi eta
beti guk Zuri eskerrak e-mo-te-a, Jauna, Aita guz-tiz san-tu,
Jainko ahalguztidun betiko ho-rri, Jesu Kristo gure Jau-na-ren
bi-tar-tez. Be-ra behin apalik etorri zan gizon e-gi-na, betidani-
ko zure asmoa betetzera eta guri zerurako bidea za-bal-tze-ra.
Barriz etorriko da aintzaz be-te-rik, orduan guri bete–betean emo-te-
ra orain fedez itxaro-ten do-gun sa-ri - a. Horregai-tik,
aingeru eta goiainge-ru-e-kin, ahalmen, nagusitza eta zeruko talde
guz- ti - e-kin, zure aintzari goraza - rre hau beti eta beti
a - bes - ten deu - tsa - gu:

ABENDUALDIKO II. PREFAZIOA

KRISTOREN ZAIN EGOTEA, LEHEN ETA ORAIN

34. Prefazio hau abenduko hilaren 17tik 24ra bitartean aldiko Mezetan esango da; baita aldi honetan emoten diran beste Mezetan be, prefazio berezirik ez badabe.

℣. Jauna zuekin.
℟. Eta zure espirituarekin.

℣. Gora bihotzak.
℟. Jaunagan daukaguz.

℣. Eskerrak Jaungoiko gure Jaunari.
℟. Egoki da eta zuzen.

Egoki da, bai, eta zuzen,
bidezko eta salbagarri,
nonahi eta beti guk Zuri eskerrak emotea,
Jauna, Aita guztiz santu,
Jainko ahalguztidun betiko horri,
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Bera dogu profeta guztiek antxinatik adierazoa,
Ama Birjinak maitasun samurrez sabelean ekarria,
Joanek etortzekoa zala esana,
baita etorria zala erakutsia ere.
Berari esker, pozez dihardugu
gabon-misteriorako prestatzen,
otoitzean zuhur aurkitu gaizan
eta beraren gorespenetan alai.

Horregaitik, aingeru eta goiaingeruekin
ahalmen, nagusitza
eta zeruko talde guztiekin
zure aintzari gorazarre hau
beti eta beti [esaten] abesten deutsagu:

Santu, Santu, Santua,
diran guztien Jainko Jauna.
Zeru-lurrak beterik daukaz zure distirak.
Hosanna zeru-goienetan!
Bedeinkatua Jaunaren izenean datorrena.
Hosanna zeru-goienetan!


Egoki da, bai, eta zuzen, bidezko eta sal-ba-ga-rri, no-na-hi eta
beti guk Zuri eskerrak e-mo-te-a, Jauna, Aita guz-tiz san-tu,
Jainko ahalguztidun betiko ho-rri, Jesu Kristo gure Jau-na-ren
bi-tar-tez. Bera do-gu profeta guztiek antxinatik adie-ra-zo-a,
Ama Birjinak maitasun samurrez sabelean e-ka-rri-a, Joanek
etortzekoa zala e-sa-na, baita etorria zala e-ra-ku-tsi-a e-re.
Berari es-ker, pozez dihardugu gabon–misteriorako pres-ta-tzen,
otoitzean zuhur aurki-tu gai-zan eta beraren go-res-pe-ne-tan a-lai.
Horregai-tik, aingeru eta goiainge-ru-e-kin, ahalmen, nagusitza
eta zeruko talde guz-ti-e-kin zure aintzari goraza-rre hau
beti eta beti a-bes-ten deu-tsa-gu.

ABENDUALDIKO III. PREFAZIOA
JESU KRISTO, HISTORIAREN JAUN ETA EPAILE

35. Prefazio hau Abendualdiko I. domekatik abenduko hilaren 16ra bitartean aldiko Mezetan esango da; baita aldi honetan emoten diran beste Mezetan be, prefazio berezirik ez badabe.

℣. Jauna zuekin.
℟. Eta zure espirituarekin.

℣. Gora bihotzak.
℟. Jaunagan daukaguz.

℣. Eskerrak Jaungoiko gure Jaunari.
℟. Egoki da eta zuzen.

Egoki da, bai, Zuri eskerrak emotea,
egoki eta zuzen
bedeinkazino- eta gorespen-kantuz Zu gorestea,
diran guztien egile eta helburu zaran
Aita ahalguztidun betiko horri.

Zuk ezkutuan itzi deuskuzu,
zure Seme Jesu Kristo
aintzaz eta ahalmenez jantzirik
eta gure historiaren Jaun eta Epaile eginik,
zeruetako hodeietan
agertuko dan eguna eta ordua.

Egun bildurgarri baina aintzatsu horretan,
mundu honen irudia galdu egingo da
eta zeru-lur barriak jaioko dira.

Orduan ospez beterik azalduko jakun Jauna bera
dator orain gure bidera
gizaki bakotxagan eta jazoera bakotxean,
guk sinismenez onartu daigun
eta, maitasunez, haren erreinuaren zain bizi gaitezan.

Horregaitik, haren azken etorrera itxaroten dogula,
aingeru eta santuekin batera,
zure aintzaren gorazarrea [esaten] abesten dogu:

Santu, Santu, Santua...

ABENDUALDIKO IV. PREFAZIOA

Maria, Eva barria

36. Prefazio hau abenduko hilaren 17tik 24ra bitartean aldiko Mezetan esango da; baita aldi honetan emoten diran beste Mezetan be, prefazio berezirik ez badabe.

℣. Jauna zuekin.
℟. Eta zure espirituarekin.

℣. Gora bihotzak.
℟. Jaunagan daukaguz.

℣. Eskerrak Jaungoiko gure Jaunari.
℟. Egoki da eta zuzen.

Egoki da, bai, Zuri eskerrak emotea,
Jauna, Aita guztiz santu,
Jainko ahalguztidun betiko horri.

Gora Zu, bedeinkatua Zu eta gorespen Zuri,
Ama Birjinaren misterioagaitik.
Izan ere, antxinako arerioagandik
hondamena etorri jakun lez,
Siongo alabearen sabel garbian
aingeruen ogiaz janaritzen gaituana sortu da,
eta salbazinoa eta bakea jaio da gizadi osoarentzat.

Evak galdu euskun grazia
Mariaren eskutik bihurtu deusku Jainkoak.
Maria dogu gizon-emakume guztien ama.
Harengan amatasuna,
pekatutik eta heriotzatik askatua,
bizi barriaren dohaira zabaltzen da.

Holan, lehenago pekatua nagusitu zan lekuan,
orain gainezka dogu zure errukia,
Jesu Kristo gure Salbatzaileagan.

Horregaitik, guk,
Kristo barriz noiz etorriko zain gagozan bitartean,
aingeru eta santuekin batera,
zure aintzaren gorazarrea [esaten] abesten dogu:

Santu, Santu, Santua...

GABONALDIKO I. PREFAZIOA
KRISTO ARGIA

37. Prefazio hau Jaunaren Jaiotzako Mezetan eta jai honen zortziurrenean esango da; baita bere prefazio berezia izanik, Mezea Jaiotzako Zortziurrenaren barruan emoten bada be, baina ez Jainkoaren misterioei edo Pertsonei buruzko prefazio berezia daben Mezetan; Gabonaldiko astegunetan be prefazio hau esan daiteke.

℣. Jauna zuekin.
℟. Eta zure espirituarekin.

℣. Gora bihotzak.
℟. Jaunagan daukaguz.

℣. Eskerrak Jaungoiko gure Jaunari.
℟. Egoki da eta zuzen.

Egoki da, bai, eta zuzen, bidezko eta salbagarri,
nonahi eta beti guk Zuri eskerrak emotea,
Jauna, Aita guztiz santu,
Jainko ahalguztidun betiko horri.

Gizon egin dan Hitzaren misterioan
zure aintzaren argi barria sortu da gure bihotzetan.
Eta orain Jainkoa agirian ezagutzen dogula,
berak garoaz agiri ez diranak maitatzera.

Horregaitik, aingeru eta goiaingeruekin,
ahalmen, nagusitza
eta zeruko talde guztiekin,
zure aintzari gorazarre hau
beti eta beti [esaten] abesten deutsagu:

Santu, Santu, Santua...

Jaunaren Jaiotzako festaburuan eta zortziurrenean eskari berezia egingo da; I. Eukaristi Otoitzean, Danok, Eleiza osoarekin, 566. or.; II. Eukaristi Otoitzean, Izan gogoan, Jauna, 584. or.; III. Eukaristi Otoitzean, Entzun bihotz onez, 602. or., kasu bakotxean <<gau santua>> edo <<egun santua>> bereizketa eginez, dagokion eran.


℣. Jau - na zu - e - kin. ℟. E - ta zu - re es - pi - ri - tu - a - re-kin.
℣. Go-ra bi - ho-tzak. ℟. Jau-na - gan dauz - ka - guz.
℣. Es-ke-rrak Jaun-goi-ko gu-re Jau-na-ri. ℟. E-go-ki da e - ta zu-zen.
E-go-ki da, bai, eta zuzen, bidezko eta sal - ba - ga - rri, no - na -
hi eta beti guk Zuri eskerrak e - mo-te - a, Jau - na, Ai - ta guz-tiz
san-tu, Jain - ko a - halguzti - dun be - ti - ko ho - rri.
Gi-zon e-gin dan Hitzaren mis-te-ri-o-an zure ain-tza-ren argi
barria sortu da gure bi - ho-tze-tan. E - ta o - rain Jainkoa agirian
ezagu-tzen do-gu-la berak ga - ro - az agiri ez di-ra-nak mai-ta -
tze-ra. Ho-rre-gai-tik, aingeru eta goiain-ge-ru - e - kin, a - hal-men,
nagusitza eta zeruko talde guz - ti - e - kin zu - re
aintzari go-ra-za-rre hau be-ti e - ta beti a-bes-ten deu-tsa-gu:

GABONALDIKO II. PREFAZIOA

JAINKO GIZON EGINAK DANA BARRIZTATZEN DAU

38. Prefazio hau Jaunaren Jaiotzako Mezetan eta jai honen zortziurrenean esango da; baita bere prefazio berezia izanik, Mezea Jaiotzako Zortziurrenaren barruan emoten bada be, baina ez Jainkoaren misterioei edo Pertsonei buruzko prefazio berezia daben Mezetan; Gabonaldiko astegunetan be prefazio hau esan daiteke.

℣. Jauna zuekin.
℟. Eta zure espirituarekin.

℣. Gora bihotzak.
℟. Jaunagan daukaguz.

℣. Eskerrak Jaungoiko gure Jaunari.
℟. Egoki da eta zuzen.

Egoki da, bai, eta zuzen,
bidezko eta salbagarri,
nonahi eta beti guk Zuri eskerrak emotea,
Jauna, Aita guztiz santu,
Jainko ahalguztidun betiko horri,
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Gaur ospatzen dogun misterioko jai honetan,
Kristo Jauna, jainkozko izaeran ikusezina dana,
gure izaeran agertu da,
eta gizaldi guztiak baino lehen sortua
gizaldi baten izaten hasi:
jausiak ziran guztiak beragan jasorik,
diran guztiak euren betean barriro ezartzeko,
eta galdua egoan gizakia
zeruetako erreinura barriz erakartzeko.

Horregaitik, geuk ere, aingeru guztiekin batera,
goresten zaitugu,
pozez [esaten] abesten deutsugula:

Santu, Santu, Santua...

Jaunaren Jaiotzako festaburuan eta zortziurrunean eskari berezia egingo da; I. Eukaristi Otoitzean, Danok, Eleiza osoarekin, 566. or.; II. Eukaristi Otoitzean, Izan gogoan, Jauna, 584. or.; III. Eukaristi Otoitzean, Entzun bihotz onez, 602. or., kasu bakotxean <<gau santua>> edo <<egun santua>> bereizketa eginez, dagokion eran.

GABONALDIKO III. PREFAZIOA

Hitzaren Gizakundean sortutako hartu-emonak

39. Prefazio hau Jaunaren Jaiotzako Mezetan eta jai honen zortziurrenean esango da; baita bere prefazio berezia izanik, Mezea Jaiotzako Zortziurrenaren barruan emoten bada be, baina ez Jainkoaren misterioei edo Pertsonei buruzko prefazio berezia daben Mezetan; Gabonaldiko astegunetan be prefazio hau esan daiteke.

℣. Jauna zuekin.
℟. Eta zure espirituarekin.

℣. Gora bihotzak.
℟. Jaunagan daukaguz.

℣. Eskerrak Jaungoiko gure Jaunari.
℟. Egoki da eta zuzen.

Egoki da, bai, eta zuzen,
bidezko eta salbagarri,
nonahi eta beti guk Zuri eskerrak emotea,
Jauna, Aita guztiz santu,
Jainko ahalguztidun betiko horri,
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Honen bidez agertu jaku egun honetan
gu erabarritzen gaituan hartu-emon miragarriaren misterioa:
zure Hitzak, gure ahuleria bere gain hartu dau
eta gure izate hilkorra betiko ospera jaso;
holan, batasun miragarri baten bidez,
geuri ere betiko izatea emoten deusku.

Horregaitik, aingeru taldeekin batean,
goresten zaitugu,
pozez beterik [esaten] kantatzen dogula:

Santu, Santu, Santua...

Jaunaren Jaiotzako festaburuan eta zortziurrunean eskari berezia egingo da; I. Eukaristi Otoitzean, Danok, Eleiza osoarekin, 566. or.; II. Eukaristi Otoitzean, Izan gogoan, Jauna, 584. or.; III. Eukaristi Otoitzean, Entzun bihotz onez, 602. or., kasu bakotxean <<gau santua>> edo <<egun santua>> bereizketa eginez, dagokion eran

JAUNAREN AGERKUNDEKO PREFAZIOA

KRISTO, HERRIALDE GUZTIEN ARGIA

40. Prefazio hau Agerkunde-festaburuko Mezetan esango da. Agerkundetik Jaunaren Bateo-domekara arteko egunetan prefazio hau nahiz Gabonaldiko beste edozein prefazio erabili leiteke.

℣. Jauna zuekin.
℟. Eta zure espirituarekin.

℣. Gora bihotzak.
℟. Jaunagan daukaguz.

℣. Eskerrak Jaungoiko gure Jaunari.
℟. Egoki da eta zuzen.

Egoki da, bai, eta zuzen,
bidezko eta salbagarri,
nonahi eta beti guk Zuri eskerrak emotea,
Jauna, Aita guztiz santu,
Jainko ahalguztidun betiko horri.

Kristogan dagoan gure salbazinoaren misterioa
gaur agertu dozu,
herrialde guztiei argi egiteko;
zure Semea gure izate hilkorrean agerturik,
barriztatu egin gaituzu
haren jainkozko argi hilezkorraz.

Horregaitik, aingeru eta goiaingeruekin,
ahalmen, nagusitza
eta zeruko talde guztiekin,
zure aintzari gorazarre hau
beti eta beti [esaten] abesten deutsagu:

Santu, Santu, Santua,
diran guztien Jainko Jauna.
Zeru-lurrak beterik daukaz zure distirak.
Hosanna zeru-goienetan!
Bedeinkatua Jaunaren izenean datorrena.
Hosanna zeru-goienetan!

Jaunaren Agerkundeko festaburuan eskari berezia egingo da: I. Eukaristi Otoitzean, Danok, Eleiza osoarekin, 566. or; II. Eukaristi Otoitzean, Izan gogoan, Jauna, 585. or.; III. Eukaristi Otoitzean, Entzun bihotz onez, 602. or.


Egoki da, bai, eta zuzen, bidezko eta sal-ba-ga-rri, no-na-hi eta
beti guk Zuri eskerrak e-mo-te-a, Jauna, Aita guz-tiz san-tu,
Jainko ahalguzti -dun be-ti - ko ho-rri. Kris-to-gan dagoan gure
salbamenaren misterioa gaur ager-tu do-zu, herrial-de guztiei argi e-
gi-te-ko; zure Semea gure izate hilkorrean a-ger-tu-rik, erabarritu
egin gai-tu-zu haren jainkoz-ko ar-gi hi-lez-ko-rraz. Horregai-tik,
aingeru eta goiainge- ru - e - kin, ahalmen, nagusitza
eta zeruko talde guz - ti - e-kin, zure aintzari goraza - rre hau
beti eta beti a-bes-ten deu-tsa-gu:

GARIZUMAKO I. PREFAZIOA

GARIZUMAREN ESANAHI ESPIRITUALA

41. Prefazio hau Garizuman esango da eta, batez ere, domeketan, beste prefazio berezirik ez dabenean.

℣. Jauna zuekin.
℟. Eta zure espirituarekin.

℣. Gora bihotzak.
℟. Jaunagan daukaguz.

℣. Eskerrak Jaungoiko gure Jaunari.
℟. Egoki da eta zuzen.

Egoki da, bai, eta zuzen,
bidezko eta salbagarri,
nonahi eta beti guk Zuri eskerrak emotea,
Jauna, Aita guztiz santu,
Jainko ahalguztidun betiko horri,
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Zure fededunak, arimak garbiturik,
Zuri esker, pozez doaz urtero pazko-misterioetara:
otoitz gehiago eginez eta alkar maiteago izanez,
bizi barria emon deutsen sakramentuak hartuta,
Jainkoaren seme-alaben grazia betera heldu daitezan.

Horregaitik, aingeru eta goiaingeruekin,
ahalmen, nagusitza
eta zeruko talde guztiekin,
zure aintzari gorazarre hau
beti eta beti [esaten] abesten deutsagu:

Santu, Santu, Santua,
diran guztien Jainko Jauna.
Zeru-lurrak beterik daukaz zure distirak.
Hosanna zeru-goienetan!
Bedeinkatua Jaunaren izenean datorrena.
Hosanna zeru-goienetan!


Egoki da, bai, eta zuzen, bidezko eta sal-ba-ga-rri, no-na-hi eta
beti guk Zuri eskerrak e-mo-te-a, Jauna, Aita guz-tiz san-tu,
Jainko ahalguztidun betiko ho-rri, Jesu Kristo gu-re Jau-na-ren
bi-tar-tez. Zure fededu-nak, arimak gar-bi-tu-rik, Zuri es-ker,
pozez doaz urtero pazko–misterio-e-ta-ra: otoitz gehiago eginez eta
alkar maiteago i-za-nez, bizi barria emon deutsen sakramentuak har-
tu-ta, Jainkoaren seme–alaben grazia bete-ra hel-du dai-te-zan.
Horregai-tik, aingeru eta goiainge-ru-e-kin, ahalmen, nagusitza
eta zeruko talde guz-ti-e-kin, zure aintzari goraza-rre hau
beti eta beti a-bes-ten-deu-tsa-gu:

GARIZUMAKO II. PREFAZIOA

GARIZUMA, BIHOTZ-BARRITZEA

42. Prefazio hau Garizuman esango da eta, batez ere, domeketan, beste prefazio berezirik ez dabenean.

℣. Jauna zuekin.
℣. Gora bihotzak.
℣. Eskerrak Jaungoiko gure Jaunari.

℟. Eta zure espirituarekin.
℟. Jaunagan daukaguz.
℟. Egoki da eta zuzen.

Egoki da, bai, eta zuzen,
bidezko eta salbagarri,
nonahi eta beti guk Zuri eskerrak emotea,
Jauna, Aita guztiz santu,
Jainko ahalguztidun betiko horri.

Zure seme-alabei denpora salbagarri hau emoten deutsezu,
bihotzen garbitasuna barriztatu dagien
eta, holan, euren grina txarretatik askaturik,
mundu igarokor honetaz arduratu daitezan,
betikoari zintzoago jarraituz.

Horregaitik, santu eta aingeru guztiekin
goresten zaitugu,
beti eta beti [esaten] abesten deutsugula:

Santu, Santu, Santua,
diran guztien Jainko Jauna.
Zeru-lurrak beterik daukaz zure distirak.
Hosanna zeru-goienetan!
Bedeinkatua Jaunaren izenean datorrena.
Hosanna zeru-goienetan!




℣. Go - ra bi - ho - tzak. ℟. Jau-na-gan dau - ka - guz.
℣. Es-ke-rrak Jaun-goi-ko gu-re Jau-na-ri. ℟. E-go-ki da e-ta zu-zen.


Egoki da, bai, eta zuzen bidezko eta sal-ba-ga-rri,nonahi eta beti
guk Zuri eskerrak e - mo - te - a, Jauna, Aita guztiz santu, Jainko
ahalguztidun be-ti-ko ho - rri. Zu-re se-me–alabei denpora salba-
garri hau emoten deutsezu, bihotzen garbitasuna barriz-tau da-gi-en
eta, holan, euren grina txarretatik askaturik, mundu igarokor
honetaz ardura - tu dai-te-zan, betikoari zintzoa - go ja - rrai-tuz.
Ho - rre - gai - tik, santu eta aingeru guztie - kin ba - te - ra
go-res-ten zai-tu-gu, beti eta beti a - bes - ten deu-tsu - gu - la:

GARIZUMAKO III. PREFAZIOA

PENITENTZIAREN FRUTU ONAK

43. Prefazio hau Garizumako astegunetako Mezetan eta barau-egunetan esango da.

℣. Jauna zuekin.
℟. Eta zure espirituarekin.

℣. Gora bihotzak.
℟. Jaunagan daukaguz.

℣. Eskerrak Jaungoiko gure Jaunari.
℟. Egoki da eta zuzen.

Egoki da, bai, eta zuzen,
bidezko eta salbagarri,
nonahi eta beti guk Zuri eskerrak emotea,
Jauna, Aita guztiz santu,
Jainko ahalguztidun betiko horri.

Guk Zuri eskerrak emotea nahi dozu-eta,
penitentzia eginez eta jan-edanetan neurria hartuz;
holan, gure pekatari-harrokeria hezirik
eta gose diranei jatekoa emonez,
zure bihotz zabalaren antzeko izan gaitezan.

Horregaitik, aingeru guztiekin batean,
bihotz batez
gorespen hau [esaten] kantatzen deutsugu:

Santu, Santu, Santua,
diran guztien Jainko Jauna.
Zeru-lurrak beterik daukaz zure distirak.
Hosanna zeru-goienetan!
Bedeinkatua Jaunaren izenean datorrena.
Hosanna zeru-goienetan!


Egoki da, bai, eta zuzen, bidezko eta sal-ba-ga-rri, no-na-hi eta
beti guk Zuri eskerrak e-mo-te-a, Jauna, Aita guz-tiz san-tu,
Jainko ahalguzti-dun be-ti-ko ho-rri. Guk Zu-ri eskerrak
emotea nahi do-zu–e-ta, penitentzi-a eginez eta jan–edanetan neurri-
a har-tuz; holan, gure pekatari–harrokeria he-zi-rik eta gose
diranei jatekoa e-mo-nez, zure bihotz zabalaren antze-ko i-
zan gai-te-zan. Horregai-tik, aingeru guztiekin ba-te-ra,
bi-hotz ba-tez gorespen hau kan-ta-tzen deu-tsu-gu:

GARIZUMAKO IV. PREFAZIOA

Barauaren frutu onak

44. Prefazio hau Garizumako astegunetako Mezetan eta barau-egunetan esango da.

℣. Jauna zuekin.
℟. Eta zure espirituarekin.

℣. Gora bihotzak.
℟. Jaunagan daukaguz.

℣. Eskerrak Jaungoiko gure Jaunari.
℟. Egoki da eta zuzen.

Egoki da, bai, eta zuzen,
bidezko eta salbagarri,
nonahi eta beti guk Zuri eskerrak emotea,
Jauna, Aita guztiz santu,
Jainko ahalguztidun betiko horri.

Gorputzaren barauaz,
gure grina txarrak hezten dituzu,
gure bihotzak jasotzen
eta indarra eta saria emoten,
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Honen bitartez aingeruek zure handitasuna goresten dabe,
Zerutar espiritu eta aginteek zure ospea adoratzen,
goiko indar eta serafin dohatsuek Zuri ahuspez agur egiten,
poztasun berak ditu-eta zerutar guztiak alkartzen.
Onartu egizu, Jauna,
hareen gorespenekin bat egin daiguzala geuk ere
geure kantu-hotsak:

Santu, Santu, Santua,
diran guztien Jainko Jauna.
Zeru-lurrak beterik daukaz zure distirak.
Hosanna zeru-goienetan!
Bedeinkatua Jaunaren izenean datorrena.
Hosanna zeru-goienetan!

GARIZUMAKO V. PREFAZIOA

URTEERAKO BIDEA GARIZUMAKO BASAMORTUAN

45. Prefazio hau Garizumako asteguneteko Mezetan esango da.

℣. Jauna zuekin.
℟. Eta zure espirituarekin.

℣. Gora bihotzak.
℟. Jaunagan daukaguz.

℣. Eskerrak Jaungoiko gure Jaunari.
℟. Egoki da eta zuzen.

Egoki da, bai, zure izena bedeinkatzea,
errukian aberatsa zaran Aita,
pazko-argirantzako gure bidean,
Kristoren pausoei jarraitzen deutsegun aldi honetan:

Kristo da-eta maitasunean adiskidetua izan dan
gizadiaren maisua eta eredua.
Zuk, Jauna, Garizumako basamortuaren bidez,
urteera barriaren bidea zabaltzen deutsazu Eleizeari,
bihotz damutu eta umilduaz mendi santura heltzean,
biztu daigun geugan
itunaren herri izateko bokazinoa:
zure izena bedeinkatu,
zure hitza entzun
eta zure miragarriak pozez ikustera
deitua izan dan herri izateko bokazinoa.

Salbazino-ezaugarri honeekaitik,
zure aintzaren zerbitzari diran aingeruekin batera,
zure gorespenak [esaten] abesten ditugu:

Santu, Santu, Santua,
diran guztien Jainko Jauna.
Zeru-lurrak beterik daukaz zure distirak.
Hosanna zeru-goienetan!
Bedeinkatua Jaunaren izenean datorrena.
Hosanna zeru-goienetan!

JAUNAREN NEKALDIKO I. PREFAZIOA

KURUTZEAREN INDARRA

46. Prefazio hau Garizumako bosgarren aste barruan esango da eta kurutzearen eta Jaunaren nekaldiko Mezetan.

℣. Jauna zuekin.
℟. Eta zure espirituarekin.

℣. Gora bihotzak.
℟. Jaunagan daukaguz.

℣. Eskerrak Jaungoiko gure Jaunari.
℟. Egoki da eta zuzen.

Egoki da, bai, eta zuzen,
bidezko eta salbagarri,
nonahi eta beti guk Zuri eskerrak emotea,
Jauna, Aita guztiz santu,
Jainko ahalguztidun betiko horri.

Zure Semearen nekaldi salbagarriari esker,
mundu guztiak autortu leike zure handitasuna;
izan ere, kurutzearen indarrean miragarriro agertzen dira,
bai munduaren epaia,
bai Kurutzeratuaren nagusitasuna.

Horregaitik, geuk ere, aingeru eta santu guztiekin batera,
goresten zaitugu, Jauna,
poz betean [esanez] kantari:

Santu, Santu, Santua,
diran guztien Jainko Jauna.
Zeru-lurrak beterik daukaz zure distirak.
Hosanna zeru-goienetan!
Bedeinkatua Jaunaren izenean datorrena.
Hosanna zeru-goienetan!

JAUNAREN NEKALDIKO II. PREFAZIOA

NEKALDIAREN GARAIPENA

47. Prefazio hau Aste Santuko astelehenean, martitzenean eta eguaztenean esango da.

℣. Jauna zuekin.
℟. Eta zure espirituarekin.

℣. Gora bihotzak.
℟. Jaunagan daukaguz.

℣. Eskerrak Jaungoiko gure Jaunari.
℟. Egoki da eta zuzen.

Egoki da, bai, eta zuzen,
bidezko eta salbagarri,
nonahi eta beti guk Zuri eskerrak emotea,
Jauna, Aita guztiz santu,
Jainko ahalguztidun betiko horri,
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Izan ere, gainean ditugu
haren nekaldi salbagarriaren
eta biztuera harrigarriaren egunak;
eurotan garaitua izan da gure betidaniko arerioa
eta eurotan ospatzen dogu geure erospenaren misterioa.

Honen bitartez, zure handitasuna autortzen dau
aingeruen taldeak,
beti pozez alkarturik zure aurrean.
Onartu egizu, Jauna,
euron gorespenekin bat egin daiguzala geuk ere
geure kantu-hotsak:

Santu, Santu, Santua,
diran guztien Jainko Jauna.
Zeru-lurrak beterik daukaz zure distirak.
Hosanna zeru-goienetan!
Bedeinkatua Jaunaren izenean datorrena.
Hosanna zeru-goienetan!

I. PAZKO PREFAZIOA

PAZKO-MmisterioA

48. Prefazio hau Pazkoaldian esango da.

Pazko Gaubelako Mezan gau honetan esango da; Pazko-egunean eta zortziurren osoan, barriz, egun honetan, eta zortziurrenaren ondoren aldi honetan.

℣. Jauna zuekin.
℟. Eta zure espirituarekin.

℣. Gora bihotzak.
℟. Jaunagan daukaguz.

℣. Eskerrak Jaungoiko gure Jaunari.
℟. Egoki da eta zuzen.

Egoki da, bai, eta zuzen,
bidezko eta salbagarri,
Zu, Jaun hori, beti gorestea,
baina poz handiagoz eta berariaz
Kristo, gure Pazkoa,
hila eta eskeinia izan dan [gau / egun] aldi honetan.

Bera da munduko pekatua kendu dauan egiazko Bildotsa,
bere heriotzaz gure heriotza ezereztu
eta bere biztueraz gure bizia barritu dauana.

Horregaitik, pazko-pozez gainezka dagoz
gizon-emakume guztiak mundu zabalean.
Zeruko indar eta aingeru guztiek ere
horregaitik dabe beti
zure aintzaren gorespena kantatzen:

Santu, Santu, Santua...

Pazko Gaubelatik II. Pazko Domeka bitarteko Mezetan eskari bereziak egingo dira: I. Eukaristi Otoitzean, Danok, Eleiza osoarekin, 567. or., eta Hona hemen, Jauna, 568. or.; II. Eukaristi Otoitzean, Izan gogoan, Jauna, 585. or., eta Baita, izan gogoan, Jauna, 586. or.; III. Eukaristi Otoitzean, Sendotu, Jauna, euren asmo santuetan, 600. or. eta Entzun, bihotz onez, 602. or., kasu bakotxean <<gau santua>> edo <<egun santua>> bereizketa eginez, dagokion eran.


Egoki da, bai, eta zuzen, bidezko eta sal-ba-ga-rri, Zu, Jaun ho-
ri, beti go-res-te-a, baina poz handiagoz eta be-ra-ri-az Kristo,
gure Paz-ko-a, hila eta eskeinia izan dan [gau / egun] al-di ho-ne-tan.
Be-ra da munduko pekatua kendu dauan egiazko Bil-do-tsa, bere heri-
otzaz gure heriotza e-ze-rez-tu eta bere biztueraz gure bizia ba-
rri-tu dau-a-na. Horregai-tik, pazko–pozez gainez-ka da-goz
gizon–emaku-me guztiak mundu za-ba-le-an. Zeruko indar eta
aingeru guzti-ek e-re horregaitik dabe be-ti zure aintzaren go-
res-pe-na kan-ta-tzen:

II. PAZKO PREFAZIOA

KRISTOGAN BIZI BARRIA

49. Prefazio hau Pazkoaldian esango da.

℣. Jauna zuekin.
℟. Eta zure espirituarekin.

℣. Gora bihotzak.
℟. Jaunagan daukaguz.

℣. Eskerrak Jaungoiko gure Jaunari.
℟. Egoki da eta zuzen.

Egoki da, bai, eta zuzen,
bidezko eta salbagarri,
Zu, Jaun hori, beti gorestea,
baina poz handiagoz eta berariaz
Kristo, gure Pazkoa,
hila eta eskeinia izan dan aldi honetan.

Honen bitartez jaiotzen dira
argiaren seme-alabak betiko bizirako,
eta zabaltzen jakez fededunei
zeruko erreinuko ateak;
gure heriotza desegina izan da haren heriotzan
eta haren biztueran gu guztiok biztu gara.

Horregaitik, pazko-pozez gainezka dagoz
gizon-emakume guztiak mundu zabalean.
Zeruko indar eta aingeru guztiek ere
horregaitik dabe beti
zure aintzaren gorespena kantatzen:

Santu, Santu, Santua, diran guztien Jainko Jauna.
Zeru-lurrak beterik daukaz zure distirak.
Hosanna zeru-goienetan!
Bedeinkatua Jaunaren izenean datorrena.
Hosanna zeru-goienetan!


℣. Jau-na zu-e-kin. ℟. E-ta zu-re es-pi-ri-tu-a-re-kin.
℣. Go-ra bi-ho-tzak. ℟. Jau-na-gan dau-ka-guz.
℣. Es-ke-rrak Jaun-goi-ko gu-re Jau-na-ri. ℟. E-go-ki da e-ta zu-zen.
Egoki da, bai, eta zuzen, bidezko eta salbagarri, Zu, Jaun hori,
beti go-res-te-a, baina poz handiagoz eta be-ra-ri-az Kristo, gure
Pazkoa, hila eta eskeinia izan dan al-di ho-ne-tan. Honen bi-tar-tez
jaiotzen dira argiaren seme–alabak betiko bi-zi-ra-ko, eta zabaltzen
jakez fe-de-du-nei zeruko erreinu-ko a-te-ak; gure heri-o-tza
desegina izan da haren he-ri-o-tzan eta haren biz-tu-e-ran gu
guztiok biz-tu ga-ra. Ho-rre-gai-tik, pazko–pozez gainezka dagoz
gizon–emakume guztiak mundu za-ba-le-an. Zeruko indar eta
aingeru guztiek ere horregaitik da-be be-ti zure aintzaren go-
res-pe-na kan-ta-tzen:

III. PAZKO PREFAZIOA

KRISTO BIZI DA ETA OTOITZEAN DIHARDU BETI GURE ALDE

50. Prefazio hau Pazkoaldian esango da.

℣. Jauna zuekin.
℟. Eta zure espirituarekin.

℣. Gora bihotzak.
℟. Jaunagan daukaguz.

℣. Eskerrak Jaungoiko gure Jaunari.
℟. Egoki da eta zuzen.

Egoki da, bai, eta zuzen,
bidezko eta salbagarri,
Zu, Jaun hori, beti gorestea,
baina poz handiagoz eta berariaz
Kristo, gure Pazkoa,
hila eta eskeinia izan dan aldi honetan.

Harek bere burua guretzat eskeintzen dihardu beti
eta gure alde otoitz egiten, zure ondoan;
bera da opari-bildotsa,
gehiago hilko ez dana,
ezpada ze betiko bizi dana.

Horregaitik, pazko-pozez gainezka dagoz
gizon-emakume guztiak mundu zabalean.
Zeruko indar eta aingeru guztiek ere
horregaitik dabe beti
zure aintzaren gorespena kantatzen:

Santu, Santu, Santua...




℣. Go-ra bi-ho-tzak. ℟. Jau-na-gan dau-ka-guz.
℣. Es-ke-rrak Jaun-goi-ko gu-re Jau-na-ri. ℟. E-go-ki da e-ta zu-zen.
E-go-ki da, bai, eta zuzen, bidezko eta sal-ba-ga-rri, Zu, Jaun ho-
ri, beti go-res-te-a, bai-na poz handiagoz eta be-ra-ri-az Kristo,
gu-re Paz-ko-a, hi-la e-ta eskeinia izan dan al-di ho-ne-tan.
Ha-rek be-re burua guretzat eskeintzen di-har-du be-ti e-ta gu-
re alde otoitz egiten, zu-re on-do-an; be-ra da opa-ri–bil-do-tsa,
gehiago hil-ko ez da-na, ez-pa-da ze be-ti-ko bi-zi da-na.
Ho-rre-gai-tik, pazko–pozez gai-nez-ka da-goz gi-zon–emakume
guztiak mundu za-ba-le-an. Ze-ru-ko indar eta aingeru guz-ti-ek e-re
horregaitik da-be be-ti zu-re aintzaren go-res-pe-na kan-ta-tzen:

IV. PAZKO PREFAZIOA

PAZKO-MISTERIOAZ BARRIZTATZEN DIRA GAUZA GUZTIAK

51. Prefazio hau Pazkoaldian esango da.

℣. Jauna zuekin.
℟. Eta zure espirituarekin.

℣. Gora bihotzak.
℟. Jaunagan daukaguz.

℣. Eskerrak Jaungoiko gure Jaunari.
℟. Egoki da eta zuzen.

Egoki da, bai, eta zuzen,
bidezko eta salbagarri,
Zu, Jaun hori, beti gorestea,
baina poz handiagoz eta berariaz
Kristo, gure Pazkoa,
hila eta eskeinia izan dan aldi honetan.

Pekatua eta heriotza ezerezturik,
berak barritu dau hondatuta egoan guztia
eta beragan izan dogu barriro biziaren betea.

Horregaitik, pazko-pozez gainezka dagoz
gizon-emakume guztiak mundu zabalean.
Zeruko indar eta aingeru guztiek ere
horregaitik dabe beti
zure aintzaren gorespena kantatzen:

Santu, Santu, Santua,
diran guztien Jainko Jauna.
Zeru-lurrak beterik daukaz zure distirak.
Hosanna zeru-goienetan!
Bedeinkatua Jaunaren izenean datorrena.
Hosanna zeru-goienetan!

V. PAZKO PREFAZIOA

KRISTO ABADE ETA OPARI

52. Prefazio hau Pazkoaldian esango da.

℣. Jauna zuekin.
℟. Eta zure espirituarekin.

℣. Gora bihotzak.
℟. Jaunagan daukaguz.

℣. Eskerrak Jaungoiko gure Jaunari.
℟. Egoki da eta zuzen.

Egoki da, bai, eta zuzen,
bidezko eta salbagarri,
Zu, Jaun hori, beti gorestea,
baina poz handiagoz eta berariaz
Kristo, gure Pazkoa,
hila eta eskeinia izan dan aldi honetan.

Bere gorputza kurutzean eskeiniz,
euren betera ekarri ditu Lege Zaharreko sakrifizioak
eta, gu salbatzeko Zuri bere burua emonez,
bera egin da abade, altara eta opari.

Horregaitik, pazko-pozez gainezka dagoz
gizon-emakume guztiak mundu zabalean.
Zeruko indar eta aingeru guztiek ere
horregaitik dabe beti
zure aintzaren gorespena kantatzen:

Santu, Santu, Santua,
diran guztien Jainko Jauna.
Zeru-lurrak beterik daukaz zure distirak.
Hosanna zeru-goienetan!
Bedeinkatua Jaunaren izenean datorrena.
Hosanna zeru-goienetan!

JAUNAREN IGOKUNDEKO I. PREFAZIOA

IGOKUNDEKO MISTERIOA

53. Prefazio hau Jaunaren Igokunde-egunean esango da. Igokundetik Pentekoste-domeka aurreko zapatua bitarteko egunetan, prefazio berezirik ez daben Mezetan, prefazio hau nahiz Pazkoaldiko beste edozein erabili leiteke.

℣. Jauna zuekin.
℟. Eta zure espirituarekin.

℣. Gora bihotzak.
℟. Jaunagan daukaguz.

℣. Eskerrak Jaungoiko gure Jaunari.
℟. Egoki da eta zuzen.

Egoki da, bai, eta zuzen,
bidezko eta salbagarri,
nonahi eta beti guk Zuri eskerrak emotea,
Jauna, Aita guztiz santu,
Jainko ahalguztidun betiko horri.

Jesus Jaunak, Errege ospetsuak,
pekatuaren eta heriotzaren garaileak,
aingeruak harriturik,
igon dau [gaur] zeru-goienetara;
Jainkoak beraren eta gizakien bitarteko ezarri dau
eta munduaren epaile eta jaunen Jaun egin.
Zerura doa, ez gure giza izate apaletik urruntzeko,
Ezpada ze guri itxaropen bizia emoteko:
geu ere, beraren gorputzeko atal garanok,
joango garala egun baten,
bera, gure burua, sartu dan erreinura.

Horregaitik, pazko-pozez gainezka dagoz
gizon-emakume guztiak mundu zabalean.
Zeruko indar eta aingeru guztiek ere
horregaitik dabe beti
zure aintzaren gorespena kantatzen:

Santu, Santu, Santua...

Jaunaren Igokundeko festaburuan eskari berezia egingo da: I. Eukaristi Otoitzean, Danok, Eleiza osoarekin, 567. or.; II. Eukaristi Otoitzean, Izan gogoan, Jauna, 585. or.; III. Eukaristi Otoitzean, Entzun bihotz onez, 602-603. or.


Egoki da, bai, eta zuzen, bidezko eta sal-ba-ga-rri, no-na-hi eta
beti guk Zuri eskerrak e-mo-te-a, Jauna, Aita guz-tiz san-tu,
Jainko ahalguzti-dun be-ti-ko ho-rri. Jesus Jau-na, Errege
ospetsua, pekatuaren eta heriotzaren ga-rai-le-a, aingeru-ak harriturik,
igon da [gaur] zeru–goie-ne-ta-ra; Jainkoak beraren eta gizakien bitar-
teko e-za-rri dau eta munduaren epaile e-ta jau-nen Jaun e-gin.
Zerura do-a, ez gure giza izate apaletik u-rrun-tze-ko, ezpada ze
guri itxaropen bizia e-mo-te-ko: gu ere, beraren gorputzeko atal
ga-ra-nok, joango garala egun ba-ten, bera, gure burua, sar-tu
dan e-rrei-nu-ra. Horregai-tik, pazko–pozez gainez-ka da-goz
gizon–emaku-me guztiak mundu za-ba-le-an. Zeruko indar eta
aingeru guzti-ek e-re horregaitik dabe be-ti zure aintzaren go-
res-pe-na kan-ta-tzen:

JAUNAREN IGOKUNDEKO II. PREFAZIOA

IGOKUNDEKO MISTERIOA

54. Prefazio hau Jaunaren Igokunde-egunean esango da. Igokundetik Pentekoste-domeka aurreko zapatua bitarteko egunetan, prefazio berezirik ez daben Mezetan, prefazio hau nahiz Pazkoaldiko beste edozein erabili leiteke.

℣. Jauna zuekin.
℟. Eta zure espirituarekin.

℣. Gora bihotzak.
℟. Jaunagan daukaguz.

℣. Eskerrak Jaungoiko gure Jaunari.
℟. Egoki da eta zuzen.

Egoki da, bai, eta zuzen,
bidezko eta salbagarri,
nonahi eta beti guk Zuri eskerrak emotea,
Jauna, Aita guztiz santu,
Jainko ahalguztidun betiko horri,
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Hilen artetik biztu ondoren,
agirian agertu jaken bere ikasle guztiei,
eta euren begien aurrean zerura igon eban,
geuk ere haren jainkotasunean parte izan gengian.

Horregaitik, pazko-pozez gainezka dagoz
gizon-emakume guztiak mundu zabalean.
Zeruko indar eta aingeru guztiek ere
horregaitik dabe beti
zure aintzaren gorespena kantatzen:

Santu, Santu, Santua,
diran guztien Jainko Jauna.
Zeru-lurrak beterik daukaz zure distirak.
Hosanna zeru-goienetan!
Bedeinkatua Jaunaren izenean datorrena.
Hosanna zeru-goienetan!

Jaunaren Igokundeko festaburuan eskari berezia egingo da: I. Eukaristi Otoitzean, Danok, Eleiza osoarekin, 567. or.; II. Eukaristi Otoitzean, Izan gogoan, Jauna, 585. or.; III. Eukaristi Otoitzean, Entzun bihotz onez, 602-603. or.

IGOKUNDE ONDORENERAKO PREFAZIOA

Espiritu Santuaren etorreraren zain

55. Prefazio hau Igokunde ondorengo egunetan esango da, Pentekoste-domeka aurreko zapatura arte.

℣. Jauna zuekin.
℟. Eta zure espirituarekin.

℣. Gora bihotzak.
℟. Jaunagan daukaguz.

℣. Eskerrak Jaungoiko gure Jaunari.
℟. Egoki da eta zuzen.

Egoki da, bai, eta zuzen,
bidezko eta salbagarri,
sorkari guztiek zeru-lurretan bat egitea
Zeu goratzeko,
Jainko ahalguztidun betiko hori,
diran guztien Jauna dan
Jesu Kristo zure Semearen bitartez.

Beronek, zeruetako santutegian
behin betiko sartu dala,
otoitz egiten dau orain gure alde
eta gure bitartekoa da,
Espiritua eten barik isuri dakigun.

Gure arimen Artzain eta Gotzain izanik,
alkartean otoitz egitera deitzen deusku,
Mariaren eta Apostoluen antzera,
Pentekoste barriaren zain gagozala.

Santutasunaren eta maitasunaren misterio honegaitik,
aingeru eta santuekin batean,
beti eta beti zure aintzaren gorazarre hau
[esaten] abesten dogu:

Santu, Santu, Santua...

URTEAN ZEHARREKO DOMEKETAKO
I. PREFAZIOA

PAZKO-MISTERIOA ETA JAINKOAREN HERRIA

56. Prefazio hau Urtean Zeharreko domeketan esango da.

℣. Jauna zuekin.
℟. Eta zure espirituarekin.

℣. Gora bihotzak.
℟. Jaunagan daukaguz.

℣. Eskerrak Jaungoiko gure Jaunari.
℟. Egoki da eta zuzen.

Egoki da, bai, eta zuzen,
bidezko eta salbagarri,
nonahi eta beti guk Zuri eskerrak emotea,
Jauna, Aita guztiz santu,
Jainko ahalguztidun betiko horri,
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Miragarria da berak pazko-misterioaz egin deuskun hau:
pekatuaren eta heriotzaren menpean bizi ginanok
bere ospe ederrera deitu gaitu,
eta orain hau dogu izena:
jatorri aukeratu, errege eta abade,
nazino santu eta Zeuretzat eskuratutako herri;
holan, ilunpetatik zeure argi zoragarrira deitu gaituzunok
zure egintza harrigarriak nonahi zabaldu daiguzan.

Horregaitik, aingeru eta goiaingeruekin,
ahalmen, nagusitza
eta zeruko talde guztiekin,
zure aintzari gorazarre hau
beti eta beti [esaten] abesten deutsagu:

Santu, Santu, Santua...

Domeketan, I., II. eta III. Eukaristi Otoitzetan, domekeari dagokion aipamen berezia egin daiteke.


Egoki da, bai, eta zuzen, bidezko eta sal-ba-ga-rri, no-na-hi eta
beti guk Zuri eskerrak e-mo-te-a, Jauna, Aita guz-tiz san-tu,
Jainko ahalguztidun betiko ho-rri, Jesu Kristo gure Jau-na-ren
bi-tar-tez. Miragarria da berak pazko–misterioaz egin deus-kun hau:
pekatuaren eta heriotzaren menpean bizi gi-na-nok bere ospe
e-de-rre-ra dei-tu gai-tu, eta o-rain hauxe dogu izena: jatorri hautatu,
errege eta a-ba-de, nazino san-tu eta Zeuretzat eskuratuta-ko he-rri;
holan, ilunpetatik zeure argi zoragarrira deitu gai-tu-zu-nok zure
egintza harrigarriak nona-hi za-bal dai-gu-zan. Horregai-tik, aingeru
eta goiainge-ru-e-kin, ahalmen, nagusitza eta zeruko talde guz-
ti-e-kin, zure aintzari goraza-rre hau beti eta beti a-bes-ten deu-tsa-gu:

URTEAN ZEHARREKO DOMEKETAKO II. PREFAZIOA

SALBAZINO MISTERIOA

57. Prefazio hau Urtean Zeharreko domeketan esango da.

℣. Jauna zuekin.
℟. Eta zure espirituarekin.

℣. Gora bihotzak.
℟. Jaunagan daukaguz.

℣. Eskerrak Jaungoiko gure Jaunari.
℟. Egoki da eta zuzen.

Egoki da, bai, eta zuzen,
bidezko eta salbagarri,
nonahi eta beti guk Zuri eskerrak emotea,
Jauna, Aita guztiz santu,
Jainko ahalguztidun betiko horri,
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Galduta ebilen gizakiaz errukiturik,
Birjinagandik jaio zan;
kurutzean hilik, betiko heriotzatik atara gaitu
eta, hilen artetik bizturik, betiko biziaren jabe egin.

Horregaitik, aingeru eta goiaingeruekin,
ahalmen, nagusitza
eta zeruko talde guztiekin,
zure aintzari gorazarre hau
beti eta beti [esaten] abesten deutsagu:

Santu, Santu, Santua...

Domekako Mezetan, I., II. eta III. Eukaristi Otoitzetan, domekeari dagokion aipamen berezia egin daiteke.




℣. Go-ra bi-ho-tzak. ℟. Jau-na-gan dau-ka-guz.


℣. Es-ke-rrak Jaun-goi-ko gu-re Jau-na-ri. ℟. E-go-ki da e-ta zu-zen.


Egoki da, bai, eta zuzen, bidezko eta sal-bagarri, nonahi eta beti
guk Zuri eskerrak emotea, Jauna Aita guz-tiz san-tu, Jainko ahal-
guztidun betiko horri, Jesu Kristo gure Jauna-ren bi-tar-tez.
Gal-du-ta ebilen gizakiaz errukiturik, Birjinagan-dik jai-o zan;
kurutzean hilik, betiko heriotzatik a-ta-ra gai-tu eta, hilen artetik
bizturik, betiko biziaren ja-be e-gin. Ho-rre-gai-tik, aingeru eta
goiain-ge-ru-e-kin ahalmen, nagusitza eta zeruko talde guz-ti-e-
kin, zure aintzari gorazarre hau beti eta beti a-bes-ten deu-tsa-gu.

URTEAN ZEHARREKO DOMEKETAKO III. PREFAZIOA

GIZON BATEK SALBATU GIZAKIAK

58. Prefazio hau Urtean Zeharreko domeketan esango da.

℣. Jauna zuekin.
℟. Eta zure espirituarekin.

℣. Gora bihotzak.
℟. Jaunagan daukaguz.

℣. Eskerrak Jaungoiko gure Jaunari.
℟. Egoki da eta zuzen.

Egoki da, bai, eta zuzen,
bidezko eta salbagarri,
nonahi eta beti guk Zuri eskerrak emotea,
Jauna, Aita guztiz santu,
Jainko ahalguztidun betiko horri.

Badakigu zure ahalmen handiaren egintza dana
gizaki hilkorrei jainkozko zure laguntza emotea
eta gure izate hilkorretik ataratzea, hatan be, osabidea;
holan, gizon baten bidez galduak ziranak
beste gizon baten bidez izan ziran salbatuak,
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Honen bitartez, zure handitasuna autortzen dau
aingeruen taldeak,
beti pozez alkarturik zure aurrean.
Onartu egizu, Jauna,
euren gorespenekin bat egin daiguzala geuk ere
geure kantu-hotsak:

Santu, Santu, Santua...

Domeketan, I., II. eta III. Eukaristi Otoitzetan, domekeari dagokion aipamen berezia egin daiteke.




℣. Go-ra bi-ho-tzak. ℟. Jau-na-gan dau-ka-guz.
℣. Es-ke-rrak Jaun-goi-ko gu-re Jau-na-ri. ℟. E-go-ki da e-ta zu-zen.
E-go-ki da, bai, eta zuzen, bidezko eta sal-ba-ga-rri, no-na-
hi eta beti guk Zuri eskerrak e-mo-te-a, Jau-na, Ai-ta guz-tiz san-tu,
Jain-ko a-halguzti-dun be-ti- ko ho-rri. Ba-da-ki-gu zure ahalmen
handiaren egintza dana gizaki hilkorrei jainkozko zure laguntza
e-mo-te-a e-ta gu-re izate hilkorretik ataratzea, hatan be, o-sa-bi-
de-a; ho-lan gizon baten bidez galdu-ak zi-ra-nak beste gizon baten
bidez izan ziran sal-ba-tu-ak, Je-su Kris-to gure Jau-na-ren bi-tar-tez.
Ho-nen bi-tartez, zure handitasuna autortzen dau aingeru-en tal-de-ak,
be-ti po- zez alkarturik zu-re au-rre-an. O-nar-tu ei-zu, Jau-na, eu-
ren go-respenekin bat egin daiguzala geuk ere geu-re kan-tu-ho-tsak:

URTEAN ZEHARREKO DOMEKETAKO IV. PREFAZIOA

SALBAZINOAREN HISTORIA

59. Prefazio hau Urtean Zeharreko domeketan esango da.

℣. Jauna zuekin.
℟. Eta zure espirituarekin.

℣. Gora bihotzak.
℟. Jaunagan daukaguz.

℣. Eskerrak Jaungoiko gure Jaunari.
℟. Egoki da eta zuzen.

Egoki da, bai, eta zuzen,
bidezko eta salbagarri,
nonahi eta beti guk Zuri eskerrak emotea,
Jauna, Aita guztiz santu,
Jainko ahalguztidun betiko horri,
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Berak, gure artean jaioaz, gizon-emakume barri egin gaitu;
kurutzean hilez, gure pekatuak ezereztu ditu;
hilen artetik biztuz, betiko bizia emon deusku,
eta, Zugana igonez, Aita guztiz santu,
zeruko ateak zabaldu deuskuz.

Horregaitik, aingeru eta santuekin batean,
beti eta beti [esaten] abesten deutsugu gorazarre hau:

Santu, Santu, Santua,
diran guztien Jainko Jauna.
Zeru-lurrak beterik daukaz zure distirak.
Hosanna zeru-goienetan!
Bedeinkatua Jaunaren izenean datorrena.
Hosanna zeru-goienetan!

Domeketan, I., II. eta III. Eukaristi Otoitzetan, domekari dagokion aipamen berezia egin daiteke.

URTEAN ZEHARREKO DOMEKETAKO V. PREFAZIOA

DIRAN GUZTIAK JAINKOAK EGINAK

60. Prefazio hau Urtean Zeharreko domeketan esango da.

℣. Jauna zuekin.
℟. Eta zure espirituarekin.

℣. Gora bihotzak.
℟. Jaunagan daukaguz.

℣. Eskerrak Jaungoiko gure Jaunari.
℟. Egoki da eta zuzen.

Egoki da, bai, eta zuzen,
bidezko eta salbagarri,
nonahi eta beti guk Zuri eskerrak emotea,
Jauna, Aita guztiz santu,
Jainko ahalguztidun betiko horri.

Munduan diran guztiak Zeuk egin dituzu,
denporaren aldiak Zeuk ezarri;
gizakia, barriz, zeure irudiko egin dozu
eta gauza guztiak beraren esku itzi dituzu,
Zeuk egindako guztien nagusi izan dadin zure izenean
eta zure egintza miragarrietan beti Zeu goratu zaizan,
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Horregaitik, geuk ere, aingeru guztiekin batean,
goresten zaitugu,
pozez [esaten] abesten deutsugula:

Santu, Santu, Santua,
diran guztien Jainko Jauna.
Zeru-lurrak beterik daukaz zure distirak.
Hosanna zeru-goienetan!
Bedeinkatua Jaunaren izenean datorrena.
Hosanna zeru-goienetan!

Domeketan, I., II. eta III. Eukaristi Otoitzetan, domekeari dagokion aipamen berezia egin daiteke.

URTEAN ZEHARREKO DOMEKETAKO VI. PREFAZIOA

Betiko Pazkoaren agiria

61. Prefazio hau Urtean Zeharreko domeketan esango da.

℣. Jauna zuekin.
℟. Eta zure espirituarekin.

℣. Gora bihotzak.
℟. Jaunagan daukaguz.

℣. Eskerrak Jaungoiko gure Jaunari.
℟. Egoki da eta zuzen.

Egoki da, bai, eta zuzen,
bidezko eta salbagarri,
nonahi eta beti guk Zuri eskerrak emotea,
Jauna, Aita guztiz santu,
Jainko ahalguztidun betiko horri.

Zeugandik dogu bizitzea, mogitzea eta izatea
eta, gorputz honetan bizi garala ere,
egunero sentitzen dogu zure maitasuna
eta betiko biziaren hasiera ere badaukagu.
Eta Jesus hilen artetik biztu eban Espiritua
lehen-dohai dogunok badogu itxaropen
betiko salbazino izango dogula pazko-misterioa.

Horregaitik, geuk ere, aingeru guztiekin batean,
goresten zaitugu,
pozez [esaten] abesten deutsugula:

Santu, Santu, Santua,
diran guztien Jainko Jauna.
Zeru-lurrak beterik daukaz zure distirak.
Hosanna zeru-goienetan!
Bedeinkatua Jaunaren izenean datorrena.
Hosanna zeru-goienetan!

Domeketan, I., II. eta III. Eukaristi Otoitzetan, domekeari dagokion aipamen berezia egin daiteke.

URTEAN ZEHARREKO DOMEKETAKO VII. PREFAZIOA

KRISTOK, ESANEKO IZANEZ, SALBATU GAITU

62. Prefazio hau Urtean Zeharreko domeketan esango da.

℣. Jauna zuekin.
℟. Eta zure espirituarekin.

℣. Gora bihotzak.
℟. Jaunagan daukaguz.

℣. Eskerrak Jaungoiko gure Jaunari.
℟. Egoki da eta zuzen.

Egoki da, bai, eta zuzen,
bidezko eta salbagarri,
nonahi eta beti guk Zuri eskerrak emotea,
Jauna, Aita guztiz santu,
Jainko ahalguztidun betiko horri.

Zeure Semea gure salbatzaile bialtzeraino
maite izan dozu-eta mundua:
pekatuan izan ezik,
beste guztietan gure antzeko egin dozu,
zure Semeagan maite zenduana
geugan ere maitatzeko.
Harek, zure esaneko izanik, eskuratu deuskuz barriro,
guk, zure esaneko ez izateagaitik, galdutako ondasunak.

Horregaitik, geuk ere, aingeru eta santu guztiekin batean,
goresten zaitugu, Jauna,
poz betean [esanez] kantari:

Santu, Santu, Santua,
diran guztien Jainko Jauna.
Zeru-lurrak beterik daukaz zure distirak.
Hosanna zeru-goienetan!
Bedeinkatua Jaunaren izenean datorrena.
Hosanna zeru-goienetan!

Domeketan, I., II. eta III. Eukaristi Otoitzetan, domekeari dagokion aipamen berezia egin daiteke.

URTEAN ZEHARREKO DOMEKETAKO VIII. PREFAZIOA

Eleizea, hirutasunaren indarrez eta antzera bat egina

63. Prefazio hau Urtean Zeharreko domeketan esango da.

℣. Jauna zuekin.
℟. Eta zure espirituarekin.

℣. Gora bihotzak.
℟. Jaunagan daukaguz.

℣. Eskerrak Jaungoiko gure Jaunari.
℟. Egoki da eta zuzen.

Egoki da, bai, eta zuzen,
bidezko eta salbagarri,
nonahi eta beti guk Zuri eskerrak emotea,
Jauna, Aita guztiz santu,
Jainko ahalguztidun betiko horri.

Zeure Semearen odolaz eta Espiritu Santuaren indarrez,
barriro batu nahi izan dituzu Zeugana
pekatuak sakabanaturik eukazan zeure seme-alabak.
Holan, zure herriak,
Hirutasun Santuaren indarrez eta haren antzera bat eginda,
argi erakusten deutso munduari zer dan Eleizea:
Kristoren gorputza eta Espiritu Santuaren egoitza,
zure neurribako jakituriaren gorespenerako.

Horregaitik, aingeru-taldeekin batean,
goresten zaitugu
pozez beterik [esaten] kantatzen dogula:

Santu, Santu, Santua,
diran guztien Jainko Jauna.
Zeru-lurrak beterik daukaz zure distirak.
Hosanna zeru-goienetan!
Bedeinkatua Jaunaren izenean datorrena.
Hosanna zeru-goienetan!

Domeketan, I., II. eta III. Eukaristi Otoitzetan, domekeari dagokion aipamen berezia egin daiteke.

URTEAN ZEHARREKO DOMEKETAKO IX. PREFAZIOA

(Espiritu Santuaren II. prefazioa)

ESPIRITUAREN ERAGINA ELEIZAN

64. Prefazio hau Urtean Zeharreko domeketan esango da.

℣. Jauna zuekin.
℣. Gora bihotzak.
℣. Eskerrak Jaungoiko gure Jaunari.

℟. Eta zure espirituarekin.
℟. Jaunagan daukaguz.
℟. Egoki da eta zuzen.

Egoki da, bai, eta zuzen,
bidezko eta salbagarri,
nonahi eta beti guk Zuri eskerrak emotea,
Jauna, Aita guztiz santu,
Jainko ahalguztidun betiko horri.

Zuk bakotxari eta nori bere orduan
emoten deutsazu dagokiona
eta zeure Eleizea miragarriro zaintzen dozu eta zuzentzen.
Zuk beti diharduzu, Espiritu Santuaren indarrez,
Eleizeari laguntzen,
uste ona beti Zeugan jarririk,
estualdian eten barik otoitz egin deizun
eta pozaldian eskerrak emon,
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Horregaitik, aingeru-taldeekin batean,
goresten zaitugu,
pozez beterik [esaten] kantatzen dogula:

Santu, Santu, Santua,
diran guztien Jainko Jauna.
Zeru-lurrak beterik daukaz zure distirak.
Hosanna zeru-goienetan!
Bedeinkatua Jaunaren izenean datorrena.
Hosanna zeru-goienetan!

Domeketan, I., II. eta III. Eukaristi Otoitzetan, domekeari dagokion aipamen berezia egin daiteke.

URTEAN ZEHARREKO DOMEKETAKO X. PREFAZIOA

JAUNAREN EGUNA

65. Prefazio hau Urtean Zeharreko domeketan esango da.

℣. Jauna zuekin.
℟. Eta zure espirituarekin.

℣. Gora bihotzak.
℟. Jaunagan daukaguz.

℣. Eskerrak Jaungoiko gure Jaunari.
℟. Egoki da eta zuzen.

Egoki da, bai, Zu bedeinkatzea, Aita guztiz santua;
egoki da Zuri eskerrak emotea,
egiaren eta biziaren iturri zaran horri,
zeure etxean batzarra egitera dei egin deuskuzulako.

Gaur, zure familia hau
zure hitza entzuteko
eta zatituko dogun zure ogi bakarretik jateko batu da.
Holan, bere Jaun berbiztuaren oroigarria ospatzen dau
eta beste domeka baten zain bizi da:
iluntzerik izango ez dauan
eta gizadia zure atsedenean sartuko dan domekearen zain.
Orduan zure aurpegia ikusiko dogu
eta zure errukia goratuko, betiren beti.

Itxaropen pozgarri honek eraginik
eta aingeru eta santuekin batean,
bihotz batez zure aintzaren gorazarrea
[esaten] kantatzen dogu:

Santu, Santu, Santua,
diran guztien Jainko Jauna.
Zeru-lurrak beterik daukaz zure distirak.
Hosanna zeru-goienetan!
Bedeinkatua Jaunaren izenean datorrena.
Hosanna zeru-goienetan!

Domeketan, I., II. eta III. Eukaristi Otoitzetan, domekeari dagokion aipamen berezia egin daiteke.


Egoki da, bai, Zu bedeinkatzea, Aita guztiz san-tu-a; egoki da
Zuri eskerrak e-mo-te-a, egiaren eta biziaren iturri zaran ho-rri,
zeure etxean batzarra egitera dei-tu gai-tu - zu-la-ko. Gaur, zu-re fami-
lia hau zure hitza entzuteko eta zatituko dogun zure ogi bakarretik
jateko ba-tu da. Horreta-ra, bere Jaun berbiztuaren oroigarria os-pa-tzen
dau eta beste domeka baten zain bi-zi da: iluntzerik izango ez dau-an
eta gizadi osoa zure atsedenean sartuko dan do-me-ke-a-ren zain.
Or-du-an zure aurpegia ikusiko dogu eta zure errukia goratuko beti e-
ta be-ti. Itxaropen pozgarri honek e-ra-gi-nik eta aingeru eta santuekin
ba-te-ra, bihotz batez zure aintzaren gorazarre-a kan-ta - tzen do-gu:

EUKARISTIA SANTUAREN I. PREFAZIOA

KRISTOREN SAKRIFIZIOA ETA SAKRAMENTUA

66. Prefazio hau Eguen Santuz, «Jaunaren Afariko» Mezan esango da; Kristoren Gorputz eta Odol Santuen festaburuan eta Eukaristiaren debozinozko Mezetan be esan leiteke.

℣. Jauna zuekin.
℟. Eta zure espirituarekin.

℣. Gora bihotzak.
℟. Jaunagan daukaguz.

℣. Eskerrak Jaungoiko gure Jaunari.
℟. Egoki da eta zuzen.

Egoki da, bai, eta zuzen, bidezko eta salbagarri,
nonahi eta beti guk Zuri eskerrak emotea,
Jauna, Aita guztiz santu,
Jainko ahalguztidun betiko horri,
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Bera dogu egiazko eta betiko Abadea:
behin betiko sakrifizio barria eratu gurarik,
bere burua eskeini eutsun opari salbagarri
eta guri agindu euskun
opari hau beraren oroigarri eskeintzeko;
holan, guretzat eskeinitako Gorputza jatean,
indarrez betetzen gara
eta, guretzat isuritako Odola edatean,
geure pekatuetatik garbitzen.

Horregaitik, aingeru eta goiaingeruekin
eta zeruko talde guztiekin,
zure aintzari gorazarre hau
beti eta beti [esaten] abesten deutsagu:

Santu, Santu, Santua,
diran guztien Jainko Jauna.
Zeru-lurrak beterik daukaz zure distirak.
Hosanna zeru-goienetan!
Bedeinkatua Jaunaren izenean datorrena.
Hosanna zeru-goienetan!


Egoki da, bai, eta zuzen, bidezko eta sal-ba-ga-rri, no-na-hi eta
beti guk Zuri eskerrak e-mo-te-a, Jauna, Aita guz-tiz san-tu,
Jainko ahalguztidun betiko ho-rri, Jesu Kristo gure Jau-na-ren
bi-tar-tez. Bera do-gu egiazko eta betiko A-ba-de: behin beti-
ko sakrifizio barria eratu na-hi-rik, bere burua eskeini eutsun opari
sal-ba-ga-rri eta guri agindu eus-kun opari hau beraren o-roi-ga-rri
es-kein-tze-ko; ho-rre-lan, guretzat eskeinitako Gorputza ja-te-an,
indarrez bete-tzen ga-ra eta, guretzat isuritako Odola eda-te-an,
geure pekatu-e-ta-tik gar-bi-tzen. Horregai-tik, aingeru eta goi-
ain-ge-ru-e-kin, ahalmen, nagusitza eta zeruko talde guz-ti-
e-kin, zure aintzari goraza-rre hau beti eta beti a-bes-ten deu-tsa-gu:

EUKARISTIA SANTUAREN II. PREFAZIOA

Eukaristia guztiz Santuaren frutuak

67. Prefazio hau Kristoren Gorputz eta Odol Santuen festaburuan eta Eukaristiaren debozinozko Mezetan esango da.

℣. Jauna zuekin.
℟. Eta zure espirituarekin.

℣. Gora bihotzak.
℟. Jaunagan daukaguz.

℣. Eskerrak Jaungoiko gure Jaunari.
℟. Egoki da eta zuzen.

Egoki da, bai, eta zuzen,
bidezko eta salbagarri,
nonahi eta beti guk Zuri eskerrak emotea,
Jauna, Aita guztiz santu,
Jainko ahalguztidun betiko horri,
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Bere Apostoluekin egindako Azken Afarian,
kurutzeko opariaren oroitzapen salbagarriak
betiko iraun egian,
bere burua eskeini eutsun,
pekaturik bako Bildots eta opari atsegingarri
zure gorespenerako.

Sakramentu santu honekin
janaritzen dituzu zeure fededunak eta santu egiten,
mundu berean bizi diran gizon-emakume guztiak
fede berak argitu daizan eta maitasun berak bat egin.

Beraz, sakramentu miragarri honen mahaira gatoz,
zure maitasun gozoaren beteak
aintzan zure antzeko egin gaizan.

Horregaitik, zeruko eta lurrekoek
kantu barria abestuz adoratzen zaitue;
eta geuk ere, aingeru guztiekin batean,
beti eta beti [esaten] abesten deutsugu:

Santu, Santu, Santua...

EUKARISTIA SANTUAREN III. PREFAZIOA

Eukaristia, betiko Pazkorako bidean janari

68. Prefazio hau Eleizakoak emoten diran Mezan esan leiteke.

℣. Jauna zuekin.
℟. Eta zure espirituarekin.

℣. Gora bihotzak.
℟. Jaunagan daukaguz.

℣. Eskerrak Jaungoiko gure Jaunari.
℟. Egoki da eta zuzen.

Egoki da, bai, Zuri eskerrak emotea,
ona da zure izena bedeinkatzea,
Aita guztiz santua,
Jainko errukitsu eta bake-emoilea.

Zuk zeure Semea,
kurutzeko heriotzaraino zure esaneko izan zana,
Zeugana gure aurretik bihurtzea nahi izan zenduan,
Zeu zara-eta giza itxaropen guztien helmuga.
Zure Semea,
beraren maitasunaren testamentu dan Eukaristian,
janari eta edari espiritual egiten da,
betiko Pazkorako bidean gu janaritzeko.

Betiko biztueraren aurre-dohai honekin,
oraintxetik parte hartzen dogu, itxaropenez,
zure erreinuko mahai zoriontsuan,
eta, aingeru eta santuekin batean,
zure aintzaren gorazarrea [esaten] abesten dogu:

Santu, Santu, Santua,
diran guztien Jainko Jauna.
Zeru-lurrak beterik daukaz zure distirak.
Hosanna zeru-goienetan!
Bedeinkatua Jaunaren izenean datorrena.
Hosanna zeru-goienetan!

PENITENTZIARAKO PREFAZIOA

Espirituagan Adiskidetzearen sakramentua

69. Prefazio hau Garizuman esan leiteke. Adiskidetze Mezetan eta penitentzi giroko beste Mezetan be esan leiteke.

℣. Jauna zuekin.
℟. Eta zure espirituarekin.

℣. Gora bihotzak.
℟. Jaunagan daukaguz.

℣. Eskerrak Jaungoiko gure Jaunari.
℟. Egoki da eta zuzen.

Egoki da, bai, Zu goratzea,
Aita guztiz santua, Jainko ahalguztiduna;
egoki da Zuri eskerrak emotea,
guganako zure mesede guztiakaitik
eta, batez ere, parkamenaren graziagaitik.

Pekatuak ito beharrean eukan gizakiari
Zuk, adiskidetzearen sakramentuaz,
errukiaren eta bakearen kaia zabaldu deutsazu,
Kristo hil eta berbiztuaren bitartez.

Santua izanik ere,
aldi berean penitentziaren beharrizana dauan Eleizeari
Zuk, zeure Espirituaren indarraz,
bigarren ohol salbagarria eskeini deutsazu
Bateoaren ondoren;
holan, barriztatu egiten dozu eten barik Eleizea,
eta zeure maitasunaren jai-jatorduan batzen.

Zure ontasunaren dohai honegaitik,
aingeru eta santuekin batean,
zure aintzaren gorazarrea [esaten] abesten dogu
aho batez kantari:

Santu, Santu, Santua...

GAIXOEN OLIADURARAKO PREFAZIOA

Sufritzea, Kristoren Pazkoan parte hartzea

70. Prefazio hau Gaixoen Oliadurako Mezetan esan leiteke.

℣. Jauna zuekin.
℟. Eta zure espirituarekin.

℣. Gora bihotzak.
℟. Jaunagan daukaguz.

℣. Eskerrak Jaungoiko gure Jaunari.
℟. Egoki da eta zuzen.

Egoki da, bai, Zuri eskerrak emotea,
Aita errukitsu eta Jaun ahalguztidun horri,
Jesu Kristo gure Jaun eta Eroslearen bitartez.

Biziaren sorburu
eta gorputz-arimen osagile dan zure Seme bakarrak
gure makaltasunak bere gain hartzea nahi izan dozu,
une larrietan guri laguntzeko
eta oinazealdietan gu santutzeko.

Oliaduraren sakramentu-ezaugarrian,
Eleizaren otoitzaz pekatutik askatzen gaituzu,
Espiritu Santuaren graziaz indartzen
eta pazko-garaipenean partedun egiten.

Zure ontasunaren ezaugarri honegaitik,
aingeru eta santuekin batean,
zure aintzaren gorazarrea [esaten] abesten dogu
aho batez kantari:

Santu, Santu, Santua,
diran guztien Jainko Jauna.
Zeru-lurrak beterik daukaz zure distirak.
Hosanna zeru-goienetan!
Bedeinkatua Jaunaren izenean datorrena.
Hosanna zeru-goienetan!

MARIA BIRJINA DOHATSUAREN I. PREFAZIOA

Maria Birjina dohatsuaren amatasuna

71. Prefazio hau Maria Birjina dohatsuaren Mezetan esango da, ospatzen dan jaia bere lekuan aitatuz, Meza bakotxean adierazten danez.

℣. Jauna zuekin.
℟. Eta zure espirituarekin.

℣. Gora bihotzak.
℟. Jaunagan daukaguz.

℣. Eskerrak Jaungoiko gure Jaunari.
℟. Egoki da eta zuzen.

Egoki da, bai, eta zuzen,
bidezko eta salbagarri,
nonahi eta beti guk Zuri eskerrak emotea,
Jauna, Aita guztiz santu,
Jainko ahalguztidun betiko horri.

Eta Zu bedeinkatzea eta gorestea
Maria beti Birjina dohatsuaren ***

[* urtarrilaren 1eko festaburua: amatasuna
* Maria Birjinaren Jaiotzako jaian: Jaiotza
* Maria Birjinaren oroipenetan: jaia
* Maria Birjinaren debozinozko Mezetan: agurtza]

ospatzen dogun egun honetan.
Berak sortu dau, Espiritu Santuaren egitez, zure Seme bakarra,
eta, birjintasunaren ederra galdu barik,
berak emon deutso munduari betiko argia,
Jesu Kristo gure Jauna.

Honen bitartez, aingeruek zure handitasuna goresten dabe,
zerutar espiritu eta podereek zure ospea adoratzen,
goiko indar eta serafin dohatsuek Zuri ahuspez agur egiten,
poztasun berak ditu-eta zerutar guztiak alkartzen.
Onartu egizu, Jauna,
euren gorespenekin bat egin daiguzala geuk ere
geure kantu-hotsak:

Santu, Santu, Santua...


Egoki da, bai, eta zuzen, bidezko eta sal-ba-ga-rri, no-na-hi eta
beti guk Zuri eskerrak e-mo-te-a, Jauna, Aita guz-tiz san-tu, Jainko
ahalguzti-dun be-ti - ko ho-rri. E-ta Zu bedeinkatzea eta go-res-te-a
Maria beti Birjina doha-tsu-a-ren [amatasuna / festaburua / Jaiotza / jaia
agurtza] ospatzen do-gun e-gun ho-ne-tan. Be-rak sortu dau, Espiritu
Santuaren egitez, zeure Seme ba-ka-rra, eta, birjintasunaren ederra
gal-du ba-rik, berak emon deutso munduari betiko ar-gi-a, Je-su Kris-to
gu-re Jau-na. Honen bitar-tez, aingeruek zure handitasuna gores-ten
da-be, zerutar espiritu eta podereek zure ospea a-do-ra-tzen, goiko
indar eta serafin dohatsuek Zuri ahuspez agur e-gi-ten, poztasun
berak ditu–eta zerutar guz-ti-ak al-kar-tzen. O-nartu ei-zu, Jau-na, euren
gorespenekin bat egin daiguzala geuk e-re geu-re kan-tu–ho-tsak:

MARIA BIRJINA DOHATSUAREN II. PREFAZIOA

ELEIZAK, MARIAREN HITZEKIN, JAINKOA GORESTEN DAU

72. Prefazio hau Andra Mariaren Mezetan esango da.

℣. Jauna zuekin.
℟. Eta zure espirituarekin.

℣. Gora bihotzak.
℟. Jaunagan daukaguz.

℣. Eskerrak Jaungoiko gure Jaunari.
℟. Egoki da eta zuzen.

Egoki da, bai, eta zuzen,
bidezko eta salbagarri,
kantuz autortzea miragarria zarala Zu santu guztien ospean
eta, batez ere, Maria Birjina dohatsuaren oroipena
ospatzen dogun egun honetan,
zure maitasuna gorestea
haren esker onezko kantu berarekin.

Egia da, bai,
handiak egin dozuzala mundu guztiaren alde
eta gizaldi guztietara zabaldu dozula zeure errukia,
zeure mirabearen ezereztasuna ikusi
eta haren bidez gizakiari emon deutsazunean
munduaren Salbatzailea,
zeure Seme Jesu Kristo gure Jauna.

Honen bitartez,
zure handitasuna autortzen dau aingeruen taldeak,
beti pozez alkarturik zure aurrean.
Onartu egizu, Jauna,
euren gorespenekin bat egin daiguzala geuk ere
geure kantu-hotsak:

Santu, Santu, Santua,
diran guztien Jainko Jauna.
Zeru-lurrak beterik daukaz zure distirak.
Hosanna zeru-goienetan!
Bedeinkatua Jaunaren izenean datorrena.
Hosanna zeru-goienetan!

MARIA BIRJINA DOHATSUAREN III. PREFAZIOA

Maria, Eleizaren eredu eta ama

73. Prefazio hau Maria Birjina dohatsuaren debozinozko B Mezakoa da eta Maria Birjinaren Mezetan esango da.

℣. Jauna zuekin...

Egoki da, bai, eta zuzen,
bidezko eta salbagarri,
nonahi eta beti guk Zuri eskerrak emotea,
Jauna, Aita guztiz santu,
Jainko ahalguztidun betiko horri,
eta Zu behar dan lez bedeinkatu eta gorestea,
Maria Birjina ospatzen dogun egun honetan.

Berak zure Hitza bihotz garbiz hartu eban,
bere birjina-sabelean sortu
eta Eleizaren hasiera prestatu,
Sortzailea mundura ekarriz.

Berak, kurutze ondoan
jainkozko maitasunaren testamentua harturik,
Kristoren heriotzaz bizi barrira sortutako guztiak
bere seme-alabatzat hartu zituan.

Berak bat egin eban bere otoitza ikasleenarekin,
Apostoluak Zuk agindutako Espirituaren zain egozala,
eta, holan, Eleiza otoizlariaren eredu bihurtu zan.

Zeruetara jasoa izan ondoren,
erromes doan Eleizari ama-maitasunez laguntzen deutso
eta Eleizaren pausuak gidatzen ditu,
Jaunaren egun handia etorri bitartean.

Horregaitik, santu eta aingeru guztiekin batean
goresten zaitugu,
beti eta beti [esaten] abesten deutsugula:

Santu, Santu, Santua...

MARIA BIRJINA DOHATSUAREN IV. PREFAZIOA

Maria, poztasunaren eta itxaropenaren ezaugarri

74. Prefazio hau Maria Birjina dohatsuaren Mezetan esango da.

℣. Jauna zuekin.
℟. Eta zure espirituarekin.

℣. Gora bihotzak.
℟. Jaunagan daukaguz.

℣. Eskerrak Jaungoiko gure Jaunari.
℟. Egoki da eta zuzen.

Egoki da, bai, Zuri eskerrak emotea;
ona da zure aintza gorestea,
Aita guztiz santu,
Jainko ahalguztidun betikoa.

Goratua Zu, bedeinkatua Zu,
Jesu Kristo zeure Semearen bitartez,
Maria Birjina dohatsuaren ospakizun honetan.

Maria Birjinak, zure mirabe apal izanik,
zure hitza entzun eta bere bihotzean gorde eban;
salbazino-misterioan miragarriro bat eginik,
otoitzean iraun eban Apostoluekin,
Espiritu Santuaren zain egozan bitartean,
eta orain argi egiten deusku bizitzako bidean
poztasunaren eta itxaropenaren ezaugarri izanez.

Zure ontasunaren dohai honegaitik,
aingeru eta santuekin batean,
zure gorespenak [esaten] abesten ditugu
bihotz batez kantari:

Santu, Santu, Santua,
diran guztien Jainko Jauna.
Zeru-lurrak beterik daukaz zure distirak.
Hosanna zeru-goienetan!
Bedeinkatua Jaunaren izenean datorrena.
Hosanna zeru-goienetan!

MARIA BIRJINAREN V. PREFAZIOA

Maria, gizadi barriaren irudi

75. Prefazio hau Maria Birjina dohatsuaren Mezetan esango da.

℣. Jauna zuekin.
℟. Eta zure espirituarekin.

℣. Gora bihotzak.
℟. Jaunagan daukaguz.

℣. Eskerrak Jaungoiko gure Jaunari.
℟. Egoki da eta zuzen.

Egoki da, bai, Zu gorestea;
egoki eta zuzen, Zuri,
biziaren eta alaitasunaren iturri zaran
Aita guztiz santu horri,
eskerrak emotea.

Zuk historiaren azken aldi honetan
agertu nahi izan deuskuzu
aspaldiko gizaldietatik ezkutuan egoan misterioa,
honan mundu guztiak barriro bizia lortu
eta itxaropena eskuratu egian.

Adam barria dan Kristogan
eta Eva barria dan Mariagan,
zure Eleizaren misterioa agiri da,
gizadi berrerosiaren lehen-frutua.

Dohai harrigarri honi esker,
izadi osoak,
Espiritu Santuak indarturik,
betiko Pazkorako bidea hartzen dau barriro.

Horregaitik, guk,
aingeru eta santuekin batean,
zure aintzaren gorazarrea [esaten] abesten dogu
aho batez kantari:

Santu, Santu, Santua...

AINGERUEN PREFAZIOA

JAINKOAREN AINTZA AINGERUENGAN

76. Prefazio hau aingeru santuen Mezetan esango da.
Prefazio hau musikaz ik. 864. or.

℣. Jauna zuekin.
℟. Eta zure espirituarekin.

℣. Gora bihotzak.
℟. Jaunagan daukaguz.

℣. Eskerrak Jaungoiko gure Jaunari.
℟. Egoki da eta zuzen.

Egoki da, bai, eta zuzen,
bidezko eta salbagarri,
nonahi eta beti guk Zuri eskerrak emotea,
Jauna, Aita guztiz santu,
Jainko ahalguztidun betiko horri.

Eta zure handitasuna gorestea,
aingeruak eta goiaingeruak ospatzean.
Horreei emoten deutsegun ospeak
Zeu goresten zaitu, Jauna,
eta horreei autortzen deutsegun edertasunak
erakusten deusku Zu neurribakoa zarala
eta izaki guztiak baino goragokoa,
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Honen bitartez dau aingeruen taldeak
zure handitasuna goresten
eta, eurekin batera, geuk ere pozik adoratzen zaitugu
bihotz batez [esanez] kantari:

Santu, Santu, Santua,
diran guztien Jainko Jauna.
Zeru-lurrak beterik daukaz zure distirak.
Hosanna zeru-goienetan!
Bedeinkatua Jaunaren izenean datorrena.
Hosanna zeru-goienetan!

SAN JOSE, MARIA BIRJINA DOHATSUAREN SENARRAREN PREFAZIOA

San Joseren egitekoa

77. Prefazio hau San Joseren Mezetan esango da, ospatzen den jaia bere lekuan aipatuz, Meza bakotxean esaten danez.
Prefazio hau musikaz ik. 747. or.

℣. Jauna zuekin ...

Egoki da, bai, eta zuzen,
bidezko eta salbagarri,
nonahi eta beti guk Zuri eskerrak emotea,
Jauna, Aita guztiz santu,
Jainko ahalguztidun betiko horri.

Eta zure handitasuna kantuz autortzea,
bedeinkatzea eta gorestea
Jose Santuaren
[Jose santuaren festaburuan: festaburua
San Jose langilearen oroipenean: oroitzapena
Jose santuaren deboziozko Mezetan: agurtza]
ospatzen dogun egun honetan.
Hau, bai, gizon zuzena,
Jainkoaren Ama Birjinari Zuk senartzat emona;
hau, bai, zerbitzari leial eta zentzunduna,
zure Familia santuaren buru ezarria,
aita modura zaindu egian
Espiritu Santuaren egitez sortutako
zure Seme bakar Jesu Kristo gure Jauna.

Honen bitartez, aingeruek zure handitasuna goresten dabe,
zerutar espirituek eta aginteek zure ospea adoratzen,
goiko indar eta serafin dohatsuek Zuri ahuspez agur egiten,
poztasun berak ditu-eta zerutar guztiak alkartzen.
Onartu egizu, Jauna,
euren gorespenekin bat egin daiguzala geuk ere
geure kantu-hotsak:

Santu, Santu, Santua...

APOSTOLUEN I. PREFAZIOA

APOSTOLUAK, JAINKOAREN HERRIAREN ARTZAIN

78. Prefazio hau Apostoluen Mezetan esango da, eta, batez be, Pedro eta Paulo santuen Mezetan.

℣. Jauna zuekin.
℟. Eta zure espirituarekin.

℣. Gora bihotzak.
℟. Jaunagan daukaguz.

℣. Eskerrak Jaungoiko gure Jaunari.
℟. Egoki da eta zuzen.

Egoki da, bai, eta zuzen,
bidezko eta salbagarri,
nonahi eta beti guk Zuri eskerrak emotea,
Jauna, Aita guztiz santu,
Jainko ahalguztidun betiko horri.

Zuk, betiko Artzain horrek,
ez dozu bertan behera izten zeure artaldea,
ezpada ze zeure babespean zaintzen dozu beti,
zeure Apostolu santuen bidez;
eurak dira zure Semearen ordezkariak,
zure artaldeari artzain eta zuzendari izateko emonak.

Horregaitik, aingeru eta goiaingeruekin
ahalmen, nagusitza
eta zeruko talde guztiekin,
zure aintzari gorazarre hau
beti eta beti [esaten] abesten deutsagu:

Santu, Santu, Santua,
diran guztien Jainko Jauna.
Zeru-lurrak beterik daukaz zure distirak.
Hosanna zeru-goienetan!
Bedeinkatua Jaunaren izenean datorrena.
Hosanna zeru-goienetan!


Egoki da, bai, eta zuzen, bidezko eta sal-ba-ga-rri, no-na-hi eta
beti guk Zuri eskerrak e-mo-te-a, Jauna, Aita guz-tiz san-tu,
Jainko ahalguzti-dun be-ti - ko ho-rri. Zuk, beti - ko Artzain
horrek, ez dozu bertan behera izten zeure ar-tal-de-a, ezpada ze
zeure babespean zaintzen dozu beti, zeure Apostolu dohatsu-en bi-dez;
honeek zure Semearen ordezkari-ak di-ra, zure artaldeari artzain eta
zuzendari i-za-te-ko e-mo-nak. Horregai-tik, aingeru eta goiainge-
ru-e-kin, ahalmen, nagusitza eta zeruko talde guz - ti - e - kin,
zure aintzari goraza-rre hau beti eta beti a-bes-ten deu-tsa-gu:

APOSTOLUEN II. PREFAZIOA

APOSTOLUAK, ELEIZAREN OINARRI ETA LEKUKO

79. Prefazio hau Apostoluen eta Ebanjelarien Mezetan esango da.

℣. Jauna zuekin.
℟. Eta zure espirituarekin.

℣. Gora bihotzak.
℟. Jaunagan daukaguz.

℣. Eskerrak Jaungoiko gure Jaunari.
℟. Egoki da eta zuzen.

Egoki da, bai, eta zuzen,
bidezko eta salbagarri,
nonahi eta beti guk Zuri eskerrak emotea,
Jauna, Aita guztiz santu,
Jainko ahalguztidun betiko horri,
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Apostoluen oinarri gainean
eraiki dozu-eta zeure Eleizea,
mundu honetan betiko izan dadin
zure santutasunaren ezaugarri,
eta gizon-emakume guztiei erakutsi deien
salbazinoaren barri ona.

Horregaitik, Jauna, orain eta beti,
aingeru-talde guztiekin batean,
bihotz batez [esaten] kantatzen deutsugu:

Santu, Santu, Santua,
diran guztien Jainko Jauna.
Zeru-lurrak beterik daukaz zure distirak.
Hosanna zeru-goienetan!
Bedeinkatua Jaunaren izenean datorrena.
Hosanna zeru-goienetan!

SANTUEN I. PREFAZIOA

SANTUEN OSPEA

80. Prefazio hau «Santu Guztien» debozinozko Mezetan esango da, baita eleizetako Zaindari santuen Mezetan eta santuen festaburu eta jaietan be, prefazio egokiagorik esan behar ez bada. Santuen oroipenetan be esan leiteke.

℣. Jauna zuekin.
℟. Eta zure espirituarekin.

℣. Gora bihotzak.
℟. Jaunagan daukaguz.

℣. Eskerrak Jaungoiko gure Jaunari.
℟. Egoki da eta zuzen.

Egoki da, bai, eta zuzen,
bidezko eta salbagarri,
nonahi eta beti guk Zuri eskerrak emotea,
Jauna, Aita guztiz santu,
Jainko ahalguztidun betiko horri.

Goratua zara, bai, santuen batzarrean
eta, euren merezimentuak saritzean,
zeure dohaiak dituzu saritzen.
Jarraibide emoten deuskuzu euren bizitzan,
parte euren batasunean,
laguntza euren bidez;
halakoen testigantzaz indarturik,
azkeneraino zuzen jokatu daigun
Zuk agindutako burrukan
eta eurekin batera lortu
zimelduko ez dan koroa ederra,
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Horregaitik, aingeru eta goiaingeruekin
eta santuen batzar guztiarekin batean,
eten barik [esaten] kantatzen deutsugu gorazarre hau:

Santu, Santu, Santua...

SANTUEN II. PREFAZIOA

SANTUEN EGINTZA

81. Prefazio hau «Santu Guztien» debozinozko Mezetan esango da, baita eleizetako Zaindari santuen Mezetan eta santuen festaburu eta jaietan be, prefazio egokiagorik esan behar ez bada. Santuen oroipenetan be esan leiteke.

℣. Jauna zuekin.
℟. Eta zure espirituarekin.

℣. Gora bihotzak.
℟. Jaunagan daukaguz.

℣. Eskerrak Jaungoiko gure Jaunari.
℟. Egoki da eta zuzen.

Egoki da, bai, eta zuzen,
bidezko eta salbagarri,
nonahi eta beti guk Zuri eskerrak emotea,
Jauna, Aita guztiz santu,
Jainko ahalguztidun betiko horri,
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Zeure santuen fede-autormen ederraz
indar barria emoten deutsazu beti zeure Eleizari
eta argiro erakusten guri zeure maitasuna.
Zure salbazino-asmoa gugan bete dadin,
santuen jarraibide ederrak eragiten deusku
eta euren otoitzak laguntzen.

Horregaitik, geuk ere, aingeru eta santu guztiekin batean,
goresten zaitugu, Jauna,
poz betean [esanez] kantari:

Santu, Santu, Santua,
diran guztien Jainko Jauna.
Zeru-lurrak beterik daukaz zure distirak.
Hosanna zeru-goienetan!
Bedeinkatua Jaunaren izenean datorrena.
Hosanna zeru-goienetan!


Egoki da bai, eta zuzen, bidezko eta sal-ba-ga-rri, no-na-hi eta
beti guk Zuri eskerrak e-mo-te-a, Jauna, Aita guz-tiz san-tu,
Jainko ahalguztidun betiko ho-rri, Jesu Kristo gure Jau-na-ren
bi-tar-tez. Zeure santu-en fede–autormen ederraz indar barria
emoten deutsazu beti zeure E-lei-za-ri eta argi-ro erakusten guri
zeure mai-ta-su-na. Zure salbamen–asmoa gugan be-te da-din,
santuen jarraibide ederrak eragiten deus-ku eta euren o-toi-tzak
la-gun-tzen. Horregai-tik, geuk ere, aingeru eta santu guztiekin ba-
te-ra, goresten zaitu-gu, Jau-na, poz be-te-an kan-ta-ri:

MARTIRI SANTUEN I. PREFAZIOA

Martiriak, ezaugarri eta jarraibide

82. Prefazio hau martiri santuen festaburu eta jaietan esango da. Horreen oroipenetan be esan leiteke.

℣. Jauna zuekin.
℟. Eta zure espirituarekin.

℣. Gora bihotzak.
℟. Jaunagan daukaguz.

℣. Eskerrak Jaungoiko gure Jaunari.
℟. Egoki da eta zuzen.

Egoki da, bai, eta zuzen,
bidezko eta salbagarri,
nonahi eta beti guk Zuri eskerrak emotea,
Jauna, Aita guztiz santu,
Jainko ahalguztidun betiko horri.

Kristori jarraituz, I. martiri santuak
zure izena autortzeko isuri eban odolak
argi erakusten ditu zure miragarriak:
gure makaltasunean zeure ahalmena agertzen dozu
eta indartsu egiten indarrik bakoa,
zure testigu izan dadin,
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Horregaitik, zeruko indar guztiekin,
lurrean beti eta beti goresten zaitugu,
Zuri, Jainko guztiz handi horri,
eten barik [esanez] kantatuz:

Santu, Santu, Santua,
diran guztien Jainko Jauna.
Zeru-lurrak beterik daukaz zure distirak.
Hosanna zeru-goienetan!
Bedeinkatua Jaunaren izenean datorrena.
Hosanna zeru-goienetan!


Egoki da, bai, eta zuzen, bidezko eta sal-ba-ga-rri, no-na-hi eta
beti guk Zuri eskerrak e-mo-te-a, Jauna, Aita guz-tiz san-tu,
Jainko ahalguzti - dun be - ti - ko ho-rri. Kris-to-ri jarraituz,
I. martiri san-tu-ak, zure izena autortzeko isuri eban o-do-lak
argi erakusten ditu zu-re mi-ra - ga-rri-ak: gure makaltasunean
zeure ahalmena agertzen do-zu-la-ko, eta indartsu egiten indarrik
ba - ko - a, zeure testigu izan da-din, Jesu Kristo gure Jau-na-
ren bi-tar-tez. Horregai-tik, zeruko indar guz-ti-e-kin, lurrean
beti eta beti goresten zai-tu - gu, Zuri, Jainko guztiz handi ho-rri,
e - ten ba - rik kan-ta-tuz:

MARTIRI SANTUEN II. PREFAZIOA

JAINKOAREN EGINTZA HARRIGARRIAK MARTIRIEN GARAIPENEAN

83. Prefazio hau martiri santuen festaburu eta jaietan esango da. Horreen oroipenetan be esan leiteke.

℣. Jauna zuekin.
℟. Eta zure espirituarekin.

℣. Gora bihotzak.
℟. Jaunagan daukaguz.

℣. Eskerrak Jaungoiko gure Jaunari.
℟. Egoki da eta zuzen.

Egoki da, bai, eta zuzen,
bidezko eta salbagarri,
nonahi eta beti guk Zuri eskerrak emotea,
Jauna, Aita guztiz santu,
Jainko ahalguztidun betiko horri.

Martiri santuak goratzean Zeu goratzen zaitugulako
eta euren martiritzako sufrimentuetan
zure indarraren egintzak miresten doguzalako.
Zeuk emoten dozu bihotz onez fede gartsua,
Zeuk sendotzen iraupenean
eta garaipena emoten hilzorian,
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Horregaitik, zeruko eta lurrekoek
kantu barria abestuz adoratzen zaitue;
eta geuk ere, aingeru guztiekin batean,
beti eta beti [esaten] abesten deutsugu:

Santu, Santu, Santua,
diran guztien Jainko Jauna.
Zeru-lurrak beterik daukaz zure distirak.
Hosanna zeru-goienetan!
Bedeinkatua Jaunaren izenean datorrena.
Hosanna zeru-goienetan!


Egoki da, bai, eta zuzen, bidezko eta sal-ba-ga-rri, no-na-hi eta
beti guk Zuri eskerrak e-mo-te-a, Jauna, Aita guz-tiz san-tu,
Jainko ahalguzti-dun be-ti - ko ho-rri. Mar-ti-ri santuak
goratzean Zeu goratzen zaitu-gu-la-ko eta hare-en martiritzako
sufrimentuetan zure indarraren egintzak miresten dogu-za-la-ko.
Zeuk emoten dozu bihotz onez fede gar-tsu-a, Zeuk sendotzen
iraupenean eta garaipena emoten hilzo - ri - an, Jesu Kristo
gu-re Jau-na-ren bi-tar-tez. Horregai-tik, zeruko eta lu-rre-ko-
ek, kantu barria abestuz adoratzen zai-tu-e; eta geuk ere, aingeru
guztiekin ba-te-ra, beti eta beti a-bes-ten deu-tsu-gu:

ELEIZ ARTZAIN SANTUEN PREFAZIOA

Artzain santuen egintza Eleizan

84. Prefazio hau eleiz artzain santuen festaburu eta jaietan esango da. Horreen oroipenetan be esan leiteke.

℣. Jauna zuekin.
℟. Eta zure espirituarekin.

℣. Gora bihotzak.
℟. Jaunagan daukaguz.

℣. Eskerrak Jaungoiko gure Jaunari.
℟. Egoki da eta zuzen.

Egoki da, bai, eta zuzen,
bidezko eta salbagarri,
nonahi eta beti guk Zuri eskerrak emotea,
Jauna, Aita guztiz santu,
Jainko ahalguztidun betiko horri,
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Poza emoten deutsazu zeure Eleizari
I. santuaren jaia ospatzean,
indar barria haren bizitzaren jokabideaz,
argia eta irakaspena haren hitzez,
baita laguntza ere haren otoitzez.

Horregaitik, aingeru eta santuekin batean,
beti eta beti [esaten] abesten deutsugu gorazarre hau:

Santu, Santu, Santua,
diran guztien Jainko Jauna.
Zeru-lurrak beterik daukaz zure distirak.
Hosanna zeru-goienetan!
Bedeinkatua Jaunaren izenean datorrena.
Hosanna zeru-goienetan!


Egoki da bai, eta zuzen, bidezko eta sal-ba-ga-rri, no-na-hi eta
beti guk Zuri eskerrak e-mo-te-a, Jauna, Aita guz-tiz san-tu,
Jainko ahalguztidun betiko ho-rri, Jesu Kristo gure Jau-na-ren
bi-tar-tez. Po-za emoten deutsazu zeure Eleizari I. santuaren jaia os-
pa-tze-an, indar barria haren bizitzaren joka-bi-de-az, argia eta
irakaspena haren hi-tzez, baita laguntza e-re ha-ren o-toi-tzez.
Horregai-tik, aingeru eta santu guztiekin ba-te-ra, beti e-ta be-ti
abesten deutsu-gu go-ra - za-rre hau:

BIRJINA ETA ERLIJIOSO-ERLIJIOSA SANTUEN PREFAZIOA

JAINKOARI ESKEINITAKO BIZITZAREN ESANAHIA

85. Prefazio hau birjina eta erlijioso-erlijiosa santuen festaburu eta jaietan esango da. Horreen oroipenetan be esan leiteke.

℣. Jauna zuekin.
℟. Eta zure espirituarekin.

℣. Gora bihotzak.
℟. Jaunagan daukaguz.

℣. Eskerrak Jaungoiko gure Jaunari.
℟. Egoki da eta zuzen.

Egoki da, bai, eta zuzen,
bidezko eta salbagarri,
nonahi eta beti guk Zuri eskerrak emotea,
Jauna, Aita guztiz santu,
Jainko ahalguztidun betiko horri.

Egoki da, bai, Zu gorestea,
guretzat dozun ardura miragarria agertzen dozulako,
zeruetako erreinuagaitik
euren burua Kristori eskeinita
bizi izan diran santuengan.
Holan, hasiera haretako santutasunera
erakartzen dozu barriro gizadia
eta aurretik gozatuazoten deutsazuz hemen
geroko bizi barrian izango dituan ondasunak.

Horregaitik, santu eta aingeru guztiekin goresten zaitugu
beti eta beti [esaten] kantatzen dogula:

Santu, Santu, Santua,
diran guztien Jainko Jauna.
Zeru-lurrak beterik daukaz zure distirak.
Hosanna zeru-goienetan!
Bedeinkatua Jaunaren izenean datorrena.
Hosanna zeru-goienetan!


Egoki da, bai, eta zuzen, bidezko eta sal-ba-ga-rri, no-na-hi eta
beti guk Zuri eskerrak e-mo-te-a, Jauna, Aita guz-tiz san-tu,
Jainko ahalguzti - dun be-ti - ko ho-rri. Egoki da, bai, Zu
go-res-te-a, gu-re-tzat dozun ardura miragarria agertzen do-zu–
la-ko, zeruetako erreinuagaitik euren burua Kristori es-kei-ni-ta
bizi i-zan di-ran san-tu-en-gan. Ho-lan, hasiera haretako santuta-
su-ne-ra erakartzen dozu barriro gi-za-di-a eta aurretik goza-
tuazoten deutsazuz he-men geroko bizi barrian izango di-tu-an on-
da-su-nak. Horregai-tik, santu eta aingeru guz-ti-e-kin goresten
zai-tu-gu beti eta beti kan-ta-tzen do-gu-la:

ASTEGUNETAKO I. PREFAZIOA

KRISTOGAN GAUZA GUZTIAK ERABARRITUAK

86. Prefazio hau, prefazio berezirik izan ez eta aldiko prefazioren bat hartu beharrik ez daben Mezetan esango da.

℣. Jauna zuekin.
℟. Eta zure espirituarekin.

℣. Gora bihotzak.
℟. Jaunagan daukaguz.

℣. Eskerrak Jaungoiko gure Jaunari.
℟. Egoki da eta zuzen.

Egoki da, bai, eta zuzen,
bidezko eta salbagarri,
nonahi eta beti guk Zuri eskerrak emotea,
Jauna, Aita guztiz santu,
Jainko ahalguztidun betiko horri,
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Berau egin dozu gauza guztien buru
eta beronen betearen betetik emon deuskuzu guztioi;
izatez Jainko izanik, ezereztu egin zan
eta kurutzeko bere odolaz
zeru-lurrak baketu zituan.
Hori dala-eta, danen gainetik goratu dozu
eta salbatzaile egin
haren esanera jartzen diran guztientzat.

Horregaitik, aingeru eta goiaingeruekin
ahalmen, nagusitza
eta zeruko talde guztiekin,
zure aintzari gorazarre hau
beti eta beti [esaten] abesten deutsagu:

Santu, Santu, Santua,
diran guztien Jainko Jauna.
Zeru-lurrak beterik daukaz zure distirak.
Hosanna zeru-goienetan!
Bedeinkatua Jaunaren izenean datorrena.
Hosanna zeru-goienetan!


Egoki da bai, eta zuzen, bidezko eta sal-ba-ga-rri, no-na-hi eta
beti guk Zuri eskerrak e-mo-te-a, Jauna, Aita guz-tiz san-tu,
Jainko ahalguztidun betiko ho-rri, Jesu Kristo gure Jau-na-ren
bi-tar-tez. Be-ra egin dozu gauza guzti-en bu-ru eta bera-ren bete-
aren betetik emon deuskuzu guz-ti-oi; izatez Jainko izanik, ezereztu
e-gin zan eta kurutzeko bere o-do-laz zeru–lurrak ba-ke-tu
zi-tu-an. Hori dala e-ta, danen gainetik gora-tu do-zu eta salbatzai-
le e-gin haren esanera jar-tzen di-ran guz-ti-en-tzat.
Horregai-tik aingeru eta goiainge-ru-e-kin, ahalmen, nagusitza
eta zeruko talde guz-ti-e-kin, zure aintzari goraza-rre hau
beti eta beti a-bes-ten deu-tsa-gu:

ASTEGUNETAKO II. PREFAZIOA

Salbazinoa Kristoren bitartez

87. Prefazio hau, prefazio berezirik izan ez eta aldiko prefazioren bat hartu beharrik ez daben Mezetan esango da.

℣. Jauna zuekin.
℟. Eta zure espirituarekin.

℣. Gora bihotzak.
℟. Jaunagan daukaguz.

℣. Eskerrak Jaungoiko gure Jaunari.
℟. Egoki da eta zuzen.

Egoki da, bai, eta zuzen,
bidezko eta salbagarri,
nonahi eta beti guk Zuri eskerrak emotea,
Jauna, Aita guztiz santu,
Jainko ahalguztidun betiko horri.

Ona zaralako egin zenduan gizakia
eta, bere erruz galduta egoana,
erosi egin zenduan errukiz beterik,
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Honen bitartez, aingeruek zure handitasuna goresten dabe,
zerutar espiritu eta aginteek zure ospea adoratzen,
goiko indar eta serafin dohatsuek Zuri ahuspez agur egiten,
poztasun berak ditu-eta zerutar guztiak alkartzen.
Onartu egizu, Jauna,
euren gorespenekin bat egin daiguzala geuk ere
geure kantu-hotsak:

Santu, Santu, Santua,
diran guztien Jainko Jauna.
Zeru-lurrak beterik daukaz zure distirak.
Hosanna zeru-goienetan!
Bedeinkatua Jaunaren izenean datorrena.
Hosanna zeru-goienetan!

ASTEGUNETAKO III. PREFAZIOA

ESKERRAK JAINKOARI GIZAKIA EGIN ETA ERABARRITU DAUALAKO

88. Prefazio hau, prefazio berezirik izan ez eta aldiko prefazioren bat hartu beharrik ez daben Mezetan esango da.

℣. Jauna zuekin.
℟. Eta zure espirituarekin.

℣. Gora bihotzak.
℟. Jaunagan daukaguz.

℣. Eskerrak Jaungoiko gure Jaunari.
℟. Egoki da eta zuzen.

Egoki da, bai, eta zuzen,
bidezko eta salbagarri,
nonahi eta beti guk Zuri eskerrak emotea,
Jauna, Aita guztiz santu,
Jainko ahalguztidun betiko horri.

Zure Seme maitearen bitartez egin zenduan gizadia
eta beraren bitartez barritu ere bai maitasunez.

Hori dala-eta, Zuri eskerrak emoteko,
diran guztiek zerbitzen zaitue,
salbatu guztiek goresten
eta zure santuek bihotz batez bedeinkatzen.
Horregaitik, geuk ere, aingeru guztiekin batean,
goresten zaitugu,
poz betean [esanez] kantari:

Santu, Santu, Santua,
diran guztien Jainko Jauna.
Zeru-lurrak beterik daukaz zure distirak.
Hosanna zeru-goienetan!
Bedeinkatua Jaunaren izenean datorrena.
Hosanna zeru-goienetan!

ASTEGUNETAKO IV. PREFAZIOA

JAINKOA GORESTEA, JAINKOAREN DOHAIA

89. Prefazio hau, prefazio berezirik izan ez eta aldiko prefazioren bat hartu beharrik ez daben Mezetan esango da.

℣. Jauna zuekin.
℟. Eta zure espirituarekin.

℣. Gora bihotzak.
℟. Jaunagan daukaguz.

℣. Eskerrak Jaungoiko gure Jaunari.
℟. Egoki da eta zuzen.

Egoki da, bai, eta zuzen,
bidezko eta salbagarri,
nonahi eta beti guk Zuri eskerrak emotea,
Jauna, Aita guztiz santu,
Jainko ahalguztidun betiko horri.

Ez dozu gure gorespenen beharrizanik,
baina zeure dohaia dogu Zuri eskerrak emotea.
Gure kantuek ez deutsue Zuri aintza handiagotzen,
baina bai guri salbazinoa emoten,
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Horregaitik, aingeru guztiekin batean,
goresten zaitugu,
pozez beterik [esaten] kantatzen dogula:

Santu, Santu, Santua,
diran guztien Jainko Jauna.
Zeru-lurrak beterik daukaz zure distirak.
Hosanna zeru-goienetan!
Bedeinkatua Jaunaren izenean datorrena.
Hosanna zeru-goienetan!

ASTEGUNETAKO V. PREFAZIOA

KRISTOREN MISTERIOA IRAGARTZEA

90. Prefazio hau, prefazio berezirik izan ez eta aldiko prefazioren bat hartu beharrik ez daben Mezetan esango da.

℣. Jauna zuekin.
℟. Eta zure espirituarekin.

℣. Gora bihotzak.
℟. Jaunagan daukaguz.

℣. Eskerrak Jaungoiko gure Jaunari.
℟. Egoki da eta zuzen.

Egoki da, bai, eta zuzen,
bidezko eta salbagarri,
nonahi eta beti guk Zuri eskerrak emotea,
Jauna, Aita guztiz santu,
Jainko ahalguztidun betiko horri,
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Maitasunean alkarturik,
haren heriotza ospatzen dogulako,
fede biziz haren biztuera autortzen
eta itxaropen sendoz
haren aintzazko etorrera itxaroten.

Horregaitik, santu eta aingeru guztiekin
goresten zaitugu,
beti eta beti [esaten] abesten deutsugula:

Santu, Santu, Santua,
diran guztien Jainko Jauna.
Zeru-lurrak beterik daukaz zure distirak.
Hosanna zeru-goienetan!
Bedeinkatua Jaunaren izenean datorrena.
Hosanna zeru-goienetan!

ASTEGUNETAKO VI. PREFAZIOA

SALBAZINO-MISTERIOA KRISTOGAN

91. Prefazio hau, prefazio berezirik izan ez eta aldiko prefazioren bat hartu beharrik ez daben Mezetan esango da.

℣. Jauna zuekin.
℟. Eta zure espirituarekin.

℣. Gora bihotzak.
℟. Jaunagan daukaguz.

℣. Eskerrak Jaungoiko gure Jaunari.
℟. Egoki da eta zuzen.

Egoki da, bai, eta zuzen,
bidezko eta salbagarri,
nonahi eta beti guk Zuri, Aita guztiz santu horri,
eskerrak emotea,
Jesu Kristo zure Seme maitearen bitartez.

Kristo da, izan ere, zure Hitza,
beraren bidez egin dituzu diran guztiak;
bera bialdu deuskuzu salbatzaile eta erosle,
Espiritu Santuaren egitez gizon egina
eta Birjinagandik jaioa.

Berak, zure nahia betetzeko
eta Zuretzat herri santua irabazteko,
kurutzean besoak zabaldu zituan
eta, heriotza ezereztuz, nagusi agertu eban biztuera.

Horregaitik, aingeru eta santu guztiekin,
geuk ere zure ospea eta aintza goresten dogu,
bihotz batez [esanez] kantari:

Santu, Santu, Santua,
diran guztien Jainko Jauna.
Zeru-lurrak beterik daukaz zure distirak.
Hosanna zeru-goienetan!
Bedeinkatua Jaunaren izenean datorrena.
Hosanna zeru-goienetan!

ASTEGUNETAKO VII. PREFAZIOA

KRISTO, GURE ARTEKO EGINA ETA GUREKIN ERROMES

92. Prefazio hau, prefazio berezirik izan ez eta aldiko prefazioren bat hartu beharrik ez daben Mezetan esango da.

℣. Jauna zuekin.
℟. Eta zure espirituarekin.

℣. Gora bihotzak.
℟. Jaunagan daukaguz.

℣. Eskerrak Jaungoiko gure Jaunari.
℟. Egoki da eta zuzen.

Egoki da, bai, Zu gorestea,
Jauna, Aita guztiz santua,
egoki eta zuzen guk Zuri,
itunaren eta bakearen Jainko horri,
eskerrak emotea.

Zuk, Abrahami deitu
eta bere lurraldetik urteteko agindu zeuntsan
eta herrialde guztien aita egin zenduan.
Zuk Moises sortu zenduan,
zeure herria askatu
eta agindutako lurraldera eroateko.

Zuk, historiaren azkenaldi honetan,
zeure Semea bialdu dozu,
gure arteko bat izan eta gurekin erromes egin zedin,
gu pekatutik eta heriotzatik askatzeko;
Espiritua ere isuri deuskuzu,
nazino guztietatik herri barria egiteko.

Herri honek zure erreinua izango dau jomuga,
zure seme-alaben askatasuna bere lurralde,
maitasunaren agindua bere lege.

Zure ontasunaren dohai honeekaitik,
aingeru eta santuekin batean,
zure aintzaren gorazarrea [esaten] abesten dogu
poz betean kantari:

Santu, Santu, Santua...

ASTEGUNETAKO VIII. PREFAZIOA

JESUS, SAMARIAR ONA

93. Prefazio hau, prefazio berezirik izan ez eta aldiko prefazioren bat hartu beharrik ez daben Mezetan esango da. Berariaz erabilgarria da Urtean Zeharreko XV. domekan, C urtean, eta XXVII. astelehenean.

℣. Jauna zuekin.
℟. Eta zure espirituarekin.

℣. Gora bihotzak.
℟. Jaunagan daukaguz.

℣. Eskerrak Jaungoiko gure Jaunari.
℟. Egoki da eta zuzen.

Egoki da, bai, Zuri eskerrak emotea,
egoki eta zuzen Zu gorestea,
santu zaran Aita,
Jainko ahalguztidun betikoa,
bizitzako une eta egoera guztietan:
osasun eta gaixoaldietan,
oinaze eta pozaldietan,
zure zerbitzari eta gure Eroslea dan Jesusen bitartez.

Jesus, lur honetako bizitzaldian,
on eginez bizi izan zan
eta gatxak jotako guztiak osatzen.
Gaur ere, samariar onarena eginez,
euren gorputzean nahiz espirituan sufritzen dagozan
guztiengana hurreratzen da
eta osatu egiten ditu euren zauriak
errukiaren orioa eta itxaropenaren ardaoa
erabiliz osagai.

Zure graziaren dohai honegaitik,
oinaze-minen gau ilunean aurkitzen garanean ere,
pazko-argia sumatzen dogu,
hil eta berbiztu dan zure Semeagan.

Horregaitik, aingeru eta santuekin batean,
zure aintzaren gorazarrea [esaten] abesten dogu
aho batez kantari:

Santu, Santu, Santua...

ASTEGUNETAKO IX. PREFAZIOA

JAINKOAREN AINTZA, GIZAKIA BIZITZEA

94. Prefazio hau, prefazio berezirik izan ez eta aldiko prefazioren bat hartu beharrik ez daben Mezetan esango da.

℣. Jauna zuekin.
℟. Eta zure espirituarekin.

℣. Gora bihotzak.
℟. Jaunagan daukaguz.

℣. Eskerrak Jaungoiko gure Jaunari.
℟. Egoki da eta zuzen.

Egoki da, bai, eta zuzen,
bidezko eta salbagarri,
nonahi eta beti guk Zuri eskerrak emotea,
Jauna, Aita guztiz santu,
Jainko ahalguztidun betiko horri.

Zeu zara Jainko bizi eta egiazkoa;
zure distirak lurbira osoa betetzen dau;
baina, batez ere, zeure irudira egin dozun gizakiagan
itzi dozu zeure aintzaren ezaugarria.

Zeuk dei egiten deutsazu gizakiari,
eguneroko lanaren bidez,
Zugaz batera aurrera eroan dagian
zure kreazino-egitasmoa.
Zeure Espiritua ere emoten deutsazu
zuzentasunaren zerbitzari eta bakegile izan dadin
gizaki barria dan Kristogan.

Horregaitik, aingeru eta santuekin batean,
zure aintzaren gorazarrea [esaten] abesten dogu,
poz betean kantari:

Santu, Santu, Santua,
diran guztien Jainko Jauna.
Zeru-lurrak beterik daukaz zure distirak.
Hosanna zeru-goienetan!
Bedeinkatua Jaunaren izenean datorrena.
Hosanna zeru-goienetan!

HILEN ALDEKO I. PREFAZIOA

KRISTOGAN BIZTEKO ITXAROPENA

95. Prefazio hau hilen aldeko Mezetan esango da.

℣. Jauna zuekin.
℣. Gora bihotzak.
℣. Eskerrak Jaungoiko gure Jaunari.

℟. Eta zure espirituarekin.
℟. Jaunagan daukaguz.
℟. Egoki da eta zuzen.

Egoki da, bai, eta zuzen,
bidezko eta salbagarri,
nonahi eta beti guk Zuri eskerrak emotea,
Jauna, Aita guztiz santu,
Jainko ahalguztidun betiko horri,
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Beragan argi egin deusku
biztuera zoriontsuaren itxaropenak
eta nahitaez hil beharrak goibeltzen gaituanok
gero hilezkor izango garan hitzak pozten gaitu.
Zure zintzoei, Jauna, bizia ez jake kentzen,
aldatu egiten jake,
eta, lurreko bizileku hau hondatzean,
betiko bizilekua eskuratzen dabe zeruan.

Horregaitik aingeru eta goiaingeruekin,
ahalmen, nagusitza
eta zeruko talde guztiekin,
zure aintzari gorazarre hau
beti eta beti [esaten] abesten deutsagu:

Santu, Santu, Santua...

Hilen aldeko eskari berezia egingo da: I. Eukaristi Otoitzean, Hona hemen, Jauna, 571. or.; II. Eukaristi Otoitzean, ...eleizgizon guztiekin batean ondoren, Baita, izan gogoan, Jauna, 588. or.; III. Eukaristi Otoitzean, ...banaturik dabiltzan zure seme-alabak ondoren, Izan gogoan, Jauna, 598. or.


Egoki da, bai, eta zuzen, bidezko eta sal-ba-ga-rri, no-na-hi eta
beti guk Zuri eskerrak e - mo-te - a, Jauna, Aita guz-tiz san - tu,
Jainko ahalguztidun betiko ho - rri, Jesu Kristo gure Jau-na-ren
bi - tar - tez. Harengan argi egin deusku biztuera zoriontsuaren i-
txa-ro-pe-nak eta nahitaez hil beharrak goibeltzen gai - tu - a - nok
gero hilezkor izango ga - ran hi - tzak poz - ten gai - tu.
Zure zintzo-ei, Jauna, bizia ez ja-ke ken-tzen, aldatu egi-ten ja-ke,
eta, lurreko bizileku hau honda-tze-an, betiko bizilekua eskura-tzen
da - be ze-ru-an. Horregai-tik aingeru eta goiainge - ru - e-kin,
ahalmen, nagusitza eta zeruko talde guz - ti - e - kin,
zure aintzari goraza - rre hau beti eta beti a - bes-ten deu-tsa - gu:

HILEN ALDEKO II. PREFAZIOA

Gu bizi gaitezan hil da Kristo

96. Prefazio hau hilen aldeko Mezetan esango da.

℣. Jauna zuekin.
℟. Eta zure espirituarekin.

℣. Gora bihotzak.
℟. Jaunagan daukaguz.

℣. Eskerrak Jaungoiko gure Jaunari.
℟. Egoki da eta zuzen.

Egoki da, bai, eta zuzen,
bidezko eta salbagarri,
nonahi eta beti guk Zuri eskerrak emotea,
Jauna, Aita guztiz santu,
Jainko ahalguztidun betiko horri,
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Bera danen alde hil da,
gu guztiok betiko hil ez gaitezan;
gehiago oraindino, bere bizia emon dau,
gu guztiok betiko Zuretzat bizi gaitezan.

Horregaitik, aingeru-taldeekin batera,
goresten zaitugu,
pozez beterik [esaten] kantatzen dogula:

Santu, Santu, Santua,
diran guztien Jainko Jauna.
Zeru-lurrak beterik daukaz zure distirak.
Hosanna zeru-goienetan!
Bedeinkatua Jaunaren izenean datorrena.
Hosanna zeru-goienetan!

Hilen aldeko eskari berezia egingo da: I. Eukaristi Otoitzean, Hona hemen, Jauna, 571. or.; II. Eukaristi Otoitzean, ...eleizgizon guztiekin batean ondoren, Baita, izan gogoan, Jauna, 588. or.; III. Eukaristi Otoitzean, ...banaturik dabiltzan zure seme-alabak ondoren, Izan gogoan, Jauna, 598. or.


Egoki da, bai, eta zuzen, bidezko eta sal-ba-ga-rri, no-na-hi eta
beti guk Zuri eskerrak e-mo-te-a, Jauna, Aita guz-tiz san-tu,
Jainko ahalguztidun betiko ho-rri, Jesu Kristo gure Jau-na-ren
bi - tar - tez. Be - ra danen alde hil da, gu guztiok betiko hil ez
gai-te-zan; gehiago oraindino, bere bizia e-mon dau, gu guztiok
betiko Zure-tzat bi-zi gai-te-zan. Horregai-tik, aingeru–taldeekin
ba-te-ra, goresten zai-tu-gu, pozez beterik kan-ta-tzen do-gu-la:

HILEN ALDEKO III. PREFAZIOA

KRISTO, SALBAZINO ETA BIZI

97. Prefazio hau hilen aldeko Mezetan esango da.

℣. Jauna zuekin.
℣. Gora bihotzak.
℣. Eskerrak Jaungoiko gure Jaunari.

℟. Eta zure espirituarekin.
℟. Jaunagan daukaguz.
℟. Egoki da eta zuzen.

Egoki da, bai, eta zuzen,
bidezko eta salbagarri,
nonahi eta beti guk Zuri eskerrak emotea,
Jauna, Aita guztiz santu,
Jainko ahalguztidun betiko horri,
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Bera da munduaren salbamena,
gizon-emakume guztien bizia
eta hilen biztuera.

Honen bitartez, zure handitasuna autortzen dau
aingeruen taldeak,
beti pozez alkarturik zure aurrean.
Onartu egizu, Jauna,
euren gorespenekin bat egin daiguzala geuk ere
geure kantu-hotsak:

Santu, Santu, Santua,
diran guztien Jainko Jauna.
Zeru-lurrak beterik daukaz zure distirak.
Hosanna zeru-goienetan!
Bedeinkatua Jaunaren izenean datorrena.
Hosanna zeru-goienetan!

Hilen aldeko eskari berezia egingo da: I. Eukaristi Otoitzean, Hona hemen, Jauna, 571. or.; II. Eukaristi Otoitzean, ...eleizgizon guztiekin batean ondoren, Baita, izan gogoan, Jauna, 588. or.; III. Eukaristi Otoitzean, ...banaturik dabiltzan zure seme-alabak ondoren, Izan gogoan, Jauna, 598. or.


Egoki da, bai, eta zuzen, bidezko eta sal-ba-ga-rri, no-na-hi eta
beti guk Zuri eskerrak e-mo-te-a, Jauna, Aita guz-tiz san-tu,
Jainko ahalguztidun betiko ho-rri, Jesu Kristo gure Jau-na-ren
bi-tar-tez. Be-ra da munduaren sal-ba-me-na, gizon–emakume
guztien bi-zi-a e-ta hi-len biz-tu-e-ra.
Honen bitar-tez, zure handitasuna autortzen dau aingeruen tal-de-ak,
beti po-zez alkarturik zure au-rre-an. Onartu egi-zu, Jau-na, euren gores-
penekin bat egin daiguzala geuk e-re geu-re kan-tu –ho-tsak:

HILEN ALDEKO IV. PREFAZIOA

Lurreko bizitzatik zeruko zorionera

98. Prefazio hau hilen aldeko Mezetan esango da.

℣. Jauna zuekin.
℟. Eta zure espirituarekin.

℣. Gora bihotzak.
℟. Jaunagan daukaguz.

℣. Eskerrak Jaungoiko gure Jaunari.
℟. Egoki da eta zuzen.

Egoki da, bai, eta zuzen,
bidezko eta salbagarri,
nonahi eta beti guk Zuri eskerrak emotea,
Jauna, Aita guztiz santu,
Jainko ahalguztidun betiko horri.

Zeuk emoten deuskuzu bizia,
Zeuk zaintzen gaituzu
eta lurretik sortuak izan garanok
pekatuaren legez lurrera bihurtzen gara zure aginduz.

Baina, zure Semearen heriotzari esker,
salbatu gaituzu
eta zure deiak itzartuko gaitu,
Kristo biztuaren aintzan sartzeko.

Horregaitik, aingeru eta santuekin batera,
beti eta beti [esaten] abesten deutsugu gorazarre hau:

Santu, Santu, Santua,
diran guztien Jainko Jauna.
Zeru-lurrak beterik daukaz zure distirak.
Hosanna zeru-goienetan!
Bedeinkatua Jaunaren izenean datorrena.
Hosanna zeru-goienetan!

Hilen aldeko eskari berezia egingo da: I. Eukaristi Otoitzean, Hona hemen, Jauna, 571. or.; II. Eukaristi Otoitzean, ...eleizgizon guztiekin batean ondoren, Baita, izan gogoan, Jauna, 588. or.; III. Eukaristi Otoitzean, ...banaturik dabiltzan zure seme-alabak ondoren, Izan gogoan, Jauna, 598. or.

HILEN ALDEKO V. PREFAZIOA

GURE BIZTUERA KRISTOREN GARAIPENAREN BIDEZ

99. Prefazio hau hilen aldeko Mezetan esango da.

℣. Jauna zuekin.
℟. Eta zure espirituarekin.

℣. Gora bihotzak.
℟. Jaunagan daukaguz.

℣. Eskerrak Jaungoiko gure Jaunari.
℟. Egoki da eta zuzen.

Egoki da, bai, eta zuzen,
bidezko eta salbagarri,
nonahi eta beti guk Zuri eskerrak emotea,
Jauna, Aita guztiz santu,
Jainko ahalguztidun betiko horri.

Hiltzea gizakiak berak irabazitako saria da;
baina zure maitasunaren egintza da
Kristorekin batera gu barriro bizira deituak izatea;
izan ere, pekatuagaitik hil ginanok
berrerosi egin gaituzu zeure Semearen garaipenaz.

Horregaitik, zeruko indar guztiekin,
lurrean beti eta beti goresten zaitugu,
Zuri, Jainko guztiz handi horri,
eten barik [esanez] kantatuz:

Santu, Santu, Santua,
diran guztien Jainko Jauna.
Zeru-lurrak beterik daukaz zure distirak.
Hosanna zeru-goienetan!
Bedeinkatua Jaunaren izenean datorrena.
Hosanna zeru-goienetan!

Hilen aldeko eskari berezia egingo da: I. Eukaristi Otoitzean, Hona hemen, Jauna, 571. or.; II. Eukaristi Otoitzean, ...eleizgizon guztiekin batean ondoren, Baita, izan gogoan, Jauna, 588. or.; III. Eukaristi Otoitzean, ...banaturik dabiltzan zure seme-alabak ondoren, Izan gogoan, Jauna, 598. or.

EUKARISTI OTOITZAK

I. EUKARISTI OTOITZA
EDO ERROMAKO KANONA

100. ℣. Jauna zuekin.
℟. Eta zure espirituarekin.

℣. Gora bihotzak.
℟. Jaunagan daukaguz.

℣. Eskerrak Jaungoiko gure Jaunari.
℟. Egoki da eta zuzen.

Jarraian egunari dagokion prefazioa esango da, eta honan emongo jako amaiera:

Santu, Santu, Santua,
diran guztien Jainko Jauna.
Zeru-lurrak beterik daukaz zure distirak.
Hosanna zeru-goienetan!
Bedeinkatua Jaunaren izenean datorrena.
Hosanna zeru-goienetan!

101. Abadeak, besoak zabalik, esango dau:

Meza-emaile nagusiak

Zuri, beraz, Aita guztiz on horri,
zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
apalik eskatzen deutsugu,

Eskuak batu eta esango dau:

onartu eta bedeinkatu ✠ daizuzala

Kurutze-seinalea egingo dau, behin bakarrik, ogiaren eta kalizaren gain, esanez:

emoitza, dohai eta sakrifizio garbiok.

Besoak zabalik, jarraituko dau:

Zure Eleiza santu eta katolikoaren alde
eskeintzen deutsuguz lehenengo:
emoiozu mundu zabalean bakea eta batasuna
eta zaindu egizu bide zuzenean,
zeure zerbitzari I. gure Aita Santuarekin,
I. gure Gotzainarekin,
I. Gotzain Laguntzailearekin,

Meza Gotzainak bere eleizbarrutian ospatzen dauanean, esango dau:

nirekin, zure zerbitzari ezerez honekin,

Eleizbarrutikoa ez dan beste Gotzain bat danean, ik. *Erromako Meza Liburuaren Eraketa Orokorra*, 31. or.ko 149. zk.an zelan egin aipamen hau.

eta Apostoluen siniste katolikoa
osorik zaintzen daben gainerako Gotzain guztiekin.

102. BIZIEN ALDEKO OROITZAPENA

Alkarmeza-emoile batek

Izan gogoan, Jauna,
guk gogoan ditugun [I. eta I.] zure seme-alabak

Eskuak batu eta otoitz laburra egingo dau, gogoratu nahi dituanen alde.

Bateoko Mezan aita-amabitxien aipamena egingo da:

Batzuk diranean bateatuak:

Izan gogoan, Jauna, guk gogoan ditugun [I. eta I.] zure seme-alabak, Zuk aukeratutako honeek Bateoko graziara eroan dabezan aita-amabitxiak

Bakarra danean bateatua:

Izan gogoan, Jauna, guk gogoan dogun I. zure semea [zure alaba], Zuk aukeratutako hau Bateoko graziara eroan daben aita-amabitxiak

Gero, besoak zabalik, jarraituko dau:

eta hemen diran guztiak;
Zeuk dakizu euren fedearen eta eraspenaren barri.
Danon izenean eskeintzen deutsugu
gorespen-sakrifizio hau
eta eurek ere eskeintzen deutsue,
bai eurentzat, bai euren artekoentzat,
pekatuen parkamenerako
eta itxaroten daben gorputz-arimen salbazinorako;
horretarako egiten deutsuez euren otoitzak Zuri,
betiko Jainko bizi eta egiazko horri.

103. Santuen oroitzapena

Jaunaren jaiotza-egunean eta zortziurrenean, Jaunaren Agerkundean, Pazko Gaueko Mezatik II. Pazko Domekara arte, Jaunaren Igokundean eta Pentekoste Domekan, Danok, Eleiza osoarekin berezia esango da (ik. 566-567. or.)

Alkarmeza-emoile batek

Danok, Eleiza osoarekin bat eginik,

Domeketan, Danok, Eleiza osoarekin berezirik ez dagoanean, hau esan daiteke:

domekea ospatzen dogu:
Kristok heriotza garaitu
eta bere bizi hilezkorrean parte izatea
emon deuskun eguna,

eta aitatzen eta goresten ditugu:
lehenengo, Maria beti Birjina dohatsua,
gure Jaun eta Jainko Jesu Kristoren Ama,
eta beraren senar Jose santua,
baita zure Apostolu eta martiri santuak ere:
Pedro eta Paulo, Andres,
[Santiago, Joan, Tomas, Santiago eta Felipe,
Bartolome, Mateo, Simon eta Tadeo,
Lino, Kleto, Klemente eta Sixto,
Kornelio, Zipriano, Lorentzo eta Krisogono,
Joan eta Paulo, Kosme eta Damian,]
eta zure santu guztiak;
euron merezimentu eta otoitzei esker
emoiguzu, nonahi eta beti, zeure indarra eta laguntza.
[Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. Amen.]

«Danok, Eleiza osoarekin» bereziak

Jaunaren Jaiotza-egunean eta zortziurrenean:

Jaunaren Jaiotzan

Danok, Eleiza osoarekin bat eginik, Ama Birjinaren sabel garbiak munduari Salbatzailea ekarri eutsoneko [gau santu hau] egun santu hau ospatzen dogu, eta aitatzen eta goresten ditugu: lehenengo, Maria beti Birjina dohatsua bera, gure Jaun eta Jainko Jesu Kristoren Ama, †

Jaunaren Agerkundean

Danok, Eleiza osoarekin bat eginik, zure Seme bakarra, Zurekin beti aintza berekoa, egiazko gure gorputz bera harturik gizon egina agertu zaneko egun santu hau ospatzen dogu, eta aitatzen eta goresten ditugu: lehenengo, Maria beti Birjina dohatsua, gure Jaun eta Jainko Jesu Kristoren Ama, †

Pazko Gaueko Mezatik II. Pazko Domekara arte:

Biztuerako Pazkoan

Danok, Eleiza osoarekin bat eginik, Jesu Kristo gure Jauna bere gorputzean biztu zaneko [gau santu hau] egun santu hau ospatzen dogu, eta aitatzen eta goresten ditugu: lehenengo, Maria beti Birjina dohatsua, gure Jaun eta Jainko Jesu Kristoren Ama, ✝

Jaunaren Igokundean

Danok, Eleiza osoarekin bat eginik, zure Seme bakar gure Jaunak beretzat hartutako gure izate makala zure eskumalde argian ezarri ebaneko egun santu hau ospatzen dogu, eta aitatzen eta goresten ditugu: lehenengo, Maria beti Birjina dohatsua, gure Jaun eta Jainko Jesu Kristoren Ama, ✝

Pentekoste Domekan

Danok, Eleiza osoarekin bat eginik, Espiritu Santua Apostoluei mihin-itxuran agertu jakeneko Pentekoste-egun santu hau ospatzen dogu, eta aitatzen eta goresten ditugu: lehenengo, Maria beti Birjina dohatsua, gure Jaun eta Jainko Jesu Kristoren Ama, ✝

✝ eta beraren senar Jose santua;
baita zure Apostolu eta martiri santuak ere:
Pedro eta Paulo, Andres,
[Santiago, Joan, Tomas, Santiago eta Felipe,
Bartolome, Mateo, Simon eta Tadeo,
Lino, Kleto, Klemente eta Sixto,
Kornelio, Zipriano, Lorentzo eta Krisogono,
Joan eta Paulo, Kosme eta Damian,]
eta zure santu guztiak;
honeen irabazi eta otoitzei esker emoiguzu,
nonahi eta beti, zeure indarra eta laguntza.
[Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. Amen.]

104. Besoak zabalik, jarraituko dau:

Meza-emoile nagusiak

Hona hemen, Jauna, zure zerbitzarion
eta zure herri osoaren eskeintza;
hartu egizu onez,
eratu zeure bakean gure egunak,
betiko heriotzatik atara
eta hartu gaizuz zeure aukeratuen artean.

Eskuak batuko ditu.

[Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. Amen.]

«Hona hemen, Jauna» bereziak

Pazko-egunean eta zortziurrenean

Pazko Gaueko Mezatik II. Pazko Domekara arte:

Hona hemen, Jauna, zure zerbitzarion eta zure herri osoaren eskeintza; gaur, berariaz, urez eta Espiritu Santuaz barriro sortu dituzun eta pekatu guztien parkamena emon deutsezun honeen alde egiten deutsugu; hartu egizu onez eskeintza hau, eratu zeure bakean gure egunak, betiko heriotzatik atara eta hartu gaizuz zeure aukeratuen artean.
[Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. Amen.]

Bateoko Mezan

Bateatu batzurentzat:

Hona hemen, Jauna, zure zerbitzarion eta zure herri osoaren eskeintza; gaur, berariaz, I. eta I. gure senide bateatu barri honeen alde

Bateatu bakarrarentzat:

Hona hemen, Jauna, zure zerbitzarion eta zure herri osoaren eskeintza; gaur, berariaz, I. gure senide bateatu barri honen alde

egiten deutsugu, urez eta Espiritu Santuaz jaiotza barria emon eta pekatutik askatu dituzulako; hartu egizu onez eskeintza hau eta, Kristoren gorputz-atal bizi egin dituzun ezkero, idatzi egizu euron izena bizien liburuan.

[Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. Amen.]

egiten deutsugu, urez eta Espiritu Santuaz jaiotza barria emon eta pekatutik askatu dozulako; hartu egizu onez eskeintza hau eta, Kristoren gorputz-atal bizi egin dozun ezkero, idatzi egizu beronen izena bizien liburuan.

[Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. Amen.]

Sendotzako Mezan

Sendotu batzurentzat:

Hona hemen, Jauna, zure zerbitzarion eta zure herri osoaren eskeintza; gaur, berariaz, Sendotza hartu daben [I. eta I.] gure senide honeen alde egiten deutsugu, Bateoan bizi barrira jaio ziran honeei orain Espiritu Santua dohaitzat emon deutsezulako; hartu egizu onez eskeintza hau eta gorde zeure seme-alaba honeengan Zeuk emon deutsezun dohaia.

[Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. Amen.]

Sendotu bakarrarentzat:

Hona hemen, Jauna, zure zerbitzarion eta zure herri osoaren eskeintza; gaur, berariaz, Sendotza hartu dauan I. gure senide honen alde egiten deutsugu, Bateoan bizi barrira jaio zan honi orain Espiritu Santua dohaitzat emon deutsazulako; hartu egizu onez eskeintza hau eta gorde zeure seme [edo alaba] honengan Zeuk emon deutsazun dohaia.

[Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. Amen.]

Lehenengo Jaunartzean

Lehenengo jaunartzea egindako batzurentzat:

Hona hemen, Jauna, zure zerbitzarion eta zure herri osoaren eskeintza; gaur, berariaz, zure familiaren mahaian lehenengoz Eukaristia hartuko daben [I. eta I.] gure senide honeen alde egiten deutsugu, biziaren ogia eta salbazinoaren kaliza hartzera dei egin deutsezulako; hartu egizu onez eskeintza hau eta egizu, ume honeek hazten joan daitezala eten barik Zuganako adiskidetasunean eta eleiz alkartasunean.

[Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. Amen.]

Lehenengo jaunartzea egindako bakarrarentzat:

Hona hemen, Jauna, zure zerbitzarion eta zure herri osoaren eskeintza; gaur, berariaz, zure familiaren mahaian lehenengoz Eukaristia hartuko dauan I. honen alde egiten deutsugu, biziaren ogia eta salbazinoaren kaliza hartzera dei egin deutsazulako; hartu egizu onez eskeintza hau eta egizu, ume hau hazten joan dadila eten barik Zuganako adiskidetasunean eta eleiz alkartasunean.

[Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. Amen.]

Ezkontzako Mezan

Hona hemen, Jauna, zure zerbitzarion eskeintza, gaur, berariaz, I. eta I. ezkonbarri honeen alde eskeintzen deutsugu, baita eurontzat otoitz egiten deutsun zure herri osoaren alde ere; hartu egizu onez, eta honeek Ezkontzako egunera ekarri dozuzan ezkero, egizu (izan dagiezala, Zuk emonik, hain gogoko dabezan ondorengoak eta) luzaro bizi daitezala pozik alkarregaz.

[Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. Amen.]

Hilen aldeko Mezan

Hildako batzurentzat:

Hona hemen, Jauna, zure zerbitzarion eta zure herri osoaren eskeintza; gaur, berariaz, [I. eta I.] gure senide honeek betiko atsedena lortu dagien eskeintzen deutsugu; hartu egizu onez eskeintza hau eta egizu, [I. eta I.] gure senide honeek haragiaren ustelkeriatik askaturik, zure santuen artean parte izan dagiela.

[Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. Amen.]

Hildako bakarrarentzat:

Hona hemen, Jauna, zure zerbitzarion eta zure herri osoaren eskeintza; gaur, berariaz, I. gure senide honek betiko atsedena lortu dagian eskeintzen deutsugu; hartu egizu onez eskeintza hau eta egizu, I. gure senide honek haragiaren ustelkeriatik askaturik, zure santuen artean parte izan dagiala.

[Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. Amen.]

105. Eskuak oparigaien gainean zabalik dituala, esango dau:

Alkarmeza-emoileak

Bedeinkatu, Jauna, eskeintza hau;
izan dadila Zuretzat on eta atsegingarri
eta egin dadila guretzat
zure Seme maite Jesu Kristo gure Jaunaren
Gorputz eta Odol.

Eskuak batuko ditu.

106. Hurrengo esaldietan, Jaunaren hitzak garbi eta agirian esan behar dira, hitz horreek eurek eskatzen dabenez.

Berak, hil bezperan,

Ogia hartu eta, altara gainean apur bat jasorik, jarraituko dau:

bere esku santuetan ogia hartu,

Begiak jasoko ditu.

eta begiak zerura,
Jainko Aita ahalguztidun horrengana, jasorik,
Zuri eskerrak emonez,
bedeinkatu eban, zatitu
eta bere ikasleei emon eutsen, esanez:

Apur bat makurtuko da.

HARTU EIZUE ETA JAN GUZTIOK HONETATIK:
HAU NEURE GORPUTZA DA-ETA
ZUENTZAT EMONGO DANA.

Ostia sagaratua herriari erakutsiko deutso; gero, patenaren gainean itzi eta, belaunikaturik, gurtu egingo dau.

107. Ondoren, jarraituko dau:

Era berean, afalondoan,

Kaliza hartu eta, altara gainean apur bat jasorik, jarraituko dau:

bere esku santuetan kaliza baliotsu hau harturik,
barriz ere eskerrak emonez, bedeinkatu eban
eta bere ikasleei emon eutsen, esanez:

Apur bat makurtuko da.

HARTU EIZUE ETA EDAN GUZTIOK HONETATIK:
HAU NEURE ODOLAREN KAZILA DA-ETA,
ITUN BARRI ETA BETIKOAREN ODOLA,
ZUENTZAT ETA ASKORENTZAT
PEKATUAK PARKATZEKO ISURIKO DANA.
EGIZUE HAU NEURE OROIGARRI.

Kaliza herriari erakutsiko deutso; gero, sagara-oihalean itzi eta, belaunikaturik, gurtu egingo dau.

108. Ondoren, esango dau:

Meza-emoile nagusiak

Hau da sinismenaren misterioa.

Eta herriak gorapen honeetakoren batekaz erantzungo dau:

Hil eta biztu zarala, Jauna,
Zu barriz etorri arte,
hau dogu, hau, barri ona!

Edo:

Ogi-ardao honeek hartzean,
zure heriotza dogu autortzen,
Zeu, Jauna, etorri artean.

Edo:

Zeure kurutze eta biztueraz
munduaren salbatzaile zarana,
salba gagizuz, Jesus Jauna!

109. Gero, abadeak, besoak zabalik, esango dau:

Alkarmeza--emoileek

Horregaitik, Jauna,
guk, zure zerbitzariok eta zure herri santu honek,
zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren nekaldi dohatsua,
hilen artetik biztea eta zeruratze miragarria gogoratuz,
Zuri, Jainko handi horri,
Zuk emondako dohaietatik,
opari garbia, opari santua, opari errubakoa
eskeintzen deutsugu,
betiko biziaren ogi santua eta betiko zorionaren kaliza.

110. Eta jarraituko dau:

Hartu egizuz begi on eta argiz:
halan hartu zenduzan
Abel zeure zerbitzari zintzoaren dohaiak,
eta Abraham gure aitaren sakrifizioa
eta Melkisedek zeure abade nagusiaren
eskeintza santua eta errubakoa.

111. Makurtuta, eskuak baturik, jarraituko dau:

Apalik eskatzen deutsugu, Jainko ahalguztidun horri:
zure aingeru santuak eroan daizala
ogi-ardao santu honeek zeruko altarara,
Jaun handi horren aurrera;
altara honetatik
zure Semearen Gorputz eta Odol santuak
hartzen doguzan guztiok

Zutundu eta, aitaren eginez, esango dau:

zeruko ondasunez eta graziaz bete gaitezan.

Eskuak batuko ditu:

[Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. Amen.]

112. HILEN ALDEKO OROITZAKENA

Besoak zabalik, esango dau:

Alkarmeza-
-emoile batek

Izan gogoan, Jauna,
sinistearen ezaugarriarekin joan
eta orain bakezko loan [dan I. zure semea / alabea]
diran [I. eta I.] zure seme-alabak.

Eskuak batu eta otoitz laburra egingo dau, gogoratu nahi dituan hildakoen alde. Gero, besoak zabalik, jarraituko dau:

[Honi] honeei eta Kristogan atseden daben guztiei
emon, Jauna, zeruan poza, argia eta bakea.

Eskuak batuko ditu.

[Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. Amen.]

113. Eskumaz bularra joko dau, esanez:

Alkarmeza-
-emoileek

Geuri ere, zure bihotz onean sinistea dogun pekatarioi,

Besoak zabalik, jarraituko dau:

eiguzu leku zeure Apostolu eta martiri santuen artean:
Joan Bateatzailea, Esteban, Matias eta Bernabe
[Ignazio, Alexandro, Martzelino eta Pedro,
Felizitas, Perpetua, Agata, Luzia,
Ines, Zezilia eta Anastasia,]
eta zeure santu guztien artean,
ez guk mereziari begituz,
Zu parkatzaile zaralako baino.

Eskuak batuko ditu.

Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

114. Eta jarraituko dau:

Meza-emoile
nagusiak

Honen bitartez, Jauna,
beti gauza on guztiak egiten dituzu,
santutzen, biziazoten, bedeinkatzen eta guri emoten.

115. Patena ostia sagaratuarekin eta kaliza hartu eta, biak jasorik, esango dau:

Meza-emoile
nagusiak nahiz
guztiek

Honen bitartez, honekin eta honengan,
Zuri, Jainko Aita ahalguztidun horri,
Espiritu Santuarekin batean,
ospe eta aintza guztia
gizaldi eta gizaldi guztietan.

Herriak gorapen honegaz erantzungo dau:

Amen.

Ondoren, jaunartze-ohikunea egingo da, 623. or.

Eukaristi Otoitz honetako sagara, gorapena, oroipena eta eskeintza eta doxologia abestu nahi izan ezkero, honan kanta daitekez:

SAGARA







GORAPENA

Lehenengo era:



Bigarren era:



Hirugarren era:



OROIPENA ETA ESKEINTZA





Doxologia edo Honen bitartez aukerako doinuetan emona ik. 620-622. or.etan.

II. EUKARISTI OTOITZA

116. Nahiz eta bere prefazio berezia izan, Eukaristi Otoitz hau beste prefazioekin ere erabili leiteke, batez ere salbazino-misterioa laburbaturik emoten dabenekin, esate baterako, astegunetako prefazioekin.

℣. Jauna zuekin.
℟. Eta zure espirituarekin.

℣. Gora bihotzak.
℟. Jaunagan daukaguz.

℣. Eskerrak Jaungoiko gure Jaunari.
℟. Egoki da eta zuzen.

Meza-emoile nagusiak

Egoki da, bai, eta zuzen,
bidezko eta salbagarri,
nonahi eta beti guk Zuri, Aita guztiz santu horri,
eskerrak emotea,
Jesu Kristo zure Seme maitearen bitartez.

Kristo da, izan ere, zure Hitza,
haren bidez egin dituzu diran guztiak;
bera bialdu deuskuzu salbatzaile eta erosle,
Espiritu Santuaren egitez gizon egina
eta Birjinagandik jaioa.

Berak, zure nahia betetzeko
eta Zuretzat herri santua irabazteko,
kurutzean besoak zabaldu zituan
eta, heriotza ezereztuz, nagusi agertu eban biztuera.

Horregaitik, aingeru eta santu guztiekin,
geuk ere zure ospea eta aintza goresten dogu,
bihotz batez [esanez] kantari:

Santu, Santu, Santua,
diran guztien Jainko Jauna.
Zeru-lurrak beterik daukaz zure distirak.
Hosanna zeru-goienetan!
Bedeinkatua Jaunaren izenean datorrena.
Hosanna zeru-goienetan!

117. Abadeak, besoak zabalik, esango dau:

Meza-emoile nagusiak

Santu zara, bai, Jauna,
eta santutasun guztiaren iturri;

118. Eskuak oparigaien gainean zabalik dituala, esango dau:

Alkarmeza-emoile guztiek

egizuz, bada, santu ogi-ardao honeek,
zeure Espiritua isuriz,

Eskuak batuko ditu eta kurutze-seinalea egingo dau, behin bakarrik, ogiaren eta kalizaren gain, esanez:

Jesu Kristo gure Jaunaren Gorputz eta ✠ Odol
egin daitezan guretzat.

Eskuak batuko ditu.

119. Hurrengo esaldietan, Jaunaren hitzak garbi eta agirian esan behar dira, hitz horreek eurek eskatzen dabenez.

Berak, saldu ebenean

Eguen Santu arratsaldeko Mezan:

gau honetan, hain zuzen,

eta bere gogoz kurutzera joiala,

Ogia hartu eta, altara gainean apur bat jasorik, jarraituko dau:

ogia hartu eta, eskerrak emonez,
zatitu eban
eta bere ikasleei emon eutsen, esanez:

Apur bat makurtuko da.

HARTU EIZUE ETA JAN GUZTIOK HONETATIK:
HAU NEURE GORPUTZA DA-ETA,
ZUENTZAT EMONGO DANA.

Ostia sagaratua herriari erakutsiko deutso; gero, patena gainean itzi eta, belaunikaturik, gurtu egingo dau.

120. Ondoren, jarraituko dau:

Era berean, afalondoan,

Kaliza hartu eta, altara gainean apur bat jasorik, jarraituko dau:

kaliza harturik,
barriz ere eskerrak emonez,
bere ikasleei emon eutsen, esanez:

Apur bat makurtuko da.

HARTU EIZUE ETA EDAN GUZTIOK HONETATIK:
HAU NEURE ODOLAREN KALIZA DA-ETA,
ITUN BARRI ETA BETIKOAREN ODOLA,
ZUENTZAT ETA ASKORENTZAT
PEKATUAK PARKATZEKO ISURIKO DANA.
EGIZUE HAU NEURE OROIGARRI.

Kaliza herriari erakutsiko deutso; gero, sagara-oihalean itzi eta, belaunikaturik, gurtu egingo dau.

121. Ondoren, esango dau:

Meza-emoile nagusiak Hau da sinismenaren misterioa.

Eta herriak gorapen honeetakoren batekaz erantzungo dau:

Hil eta biztu zarala, Jauna,
Zu barriz etorri arte,
hau dogu,hau, barri ona!

Edo:

Ogi-ardao honeek hartzean,
zure heriotza dogu autortzen,
Zeu, Jauna, etorri artean.

Edo:

Zeure kurutze eta biztueraz
munduaren salbatzaile zarana,
salba gagizuz, Jesus Jauna!

122. Gero, abadeak, besoak zabalik, esango dau:

Meza-emoile guztiek

Horregaitik, Jauna,
zure Semearen heriotza eta biztuera gogoratuz,
biziaren ogia eta salbamenaren kaliza
eskeintzen deutsuguz,
Zuri eskerrak emonez,
altaran zeure zerbitzari onartu gaituzulako.

Eta apalik eskatzen deutsugu,
Kristoren Gorputza eta Odola hartzen ditugunok
Espiritu Santuak bat egin gaizala.

Jaunaren jaiotza-egunean eta zortziurrenean, Jaunaren Agerkundean, Eguen Santu arratsaldeko Mezan, Pazko Gaueko Mezatik II. Pazko Domekara arte, Jaunaren Igokundean eta Pentekoste Domekan, izan gogoan, Jauna berezia esango da (ik. 584-585. or.).

Alkarmeza-emoile batek Izan gogoan, Jauna,
mundu guztian zabaldurik dagoan zeure Eleizea;

Domeketan, Izan gogoan, Jauna bereziagorik ez dagoanean, hau esan leiteke:

gaur, Kristok heriotza garaitu
eta bere bizi hilezkorrean parte izatea emon deuskun eguna,
hau da, domekea, ospatzera hemen batua;

eroaizu maitasun osora,
I. gure Aita Santuarekin,
I. gure Gotzainarekin,
I. Gotzain Laguntzailearekin,

Mezea Gotzainak bere eleizbarrutian ospatzen dauanean, esango dau:

nirekin, zure zerbitzari ezerez honekin,

Eleizbarrutikoa ez dan beste gotzain batek ospatzen dauanean, ik. *Erromako Meza Liburuaren Eraketa Orokorra*, 31. or.ko 149. zk.an zelan egin dan aipamen hau.

eta eleiz gizon guztiekin batean.

Pazko-domeka, zortziurren eta helduen Bateoko Mezan; Umeen Bateo, Sendotza, Lehenengo jaunartze eta Ezkontzako Mezan Baita, izan gogoan, Jauna eskari berezia esango da (ik. 586-588. or.).

«Izan gogoan, Jauna» bereziak festaburu batzuetarako

Jaunaren Jaiotza-egunean eta zortziurrenean:

Jaunaren Jaiotzan Izan gogoan, Jauna, mundu guztian zabaldurik dagoan zeure Eleizea: gaur, hemen baturik, Maria Birjinak munduari Salbatzailea ekarri eutsoneko [gau santua] egun santua ospatzen diharduan Eleizea; †

Jaunaren Agerkundean

Izan gogoan, Jauna, mundu guztian zabaldurik dagoan zeure Eleizea: gaur, hemen baturik, zure Seme bakarra, Zugaz beti aintza berekoa izanik eta egiazko gure gorputz bera harturik, gizon egina agertu zaneko egun santua ospatzen diharduan Eleizea; ✝

Pazko Gaueko Mezatik II. Pazko Domekara arte:

Biztuerako Pazkoan

Izan gogoan, Jauna, mundu guztian zabaldurik dagoan zeure Eleizea: gaur, hemen baturik, Jesu Kristo gure Jauna biztu zaneko [gau santua] egun santua ospatzen diharduan Eleizea; ✝

Jaunaren Igokundean

Izan gogoan, Jauna, mundu guztian zabaldurik dagoan zeure Eleizea: gaur, hemen baturik, Kristo zeru-lurretako Jaun ezarria izan zaneko Igokunde-egun zoriontsua ospatzen diharduan Eleizea; ✝

Pentekoste Domekan

Izan gogoan, Jauna, mundu guztian zabaldurik dagoan zeure Eleizea: gaur, hemen baturik, zure Espiritua isurtzeak Eleiza hau herrialde guztientzat batasun-sakramentu egin ebaneko egun santua ospatzen diharduan Eleizea; ✝

✝ eroaizu maitasun osora,
I. gure Aita Santuarekin,
I. gure Gotzainarekin,
I. Gotzain Laguntzailearekin

Mezea Gotzainak bere eleizbarrutian ospatzen dauanean, esango dau:

nirekin, zure zerbitzari ezerez honekin,

Eleizbarrutikoa ez dan beste gotzain batek ospatzen dauanean, ik. *Erromako Meza Liburuaren Eraketa Orokorra*, 31. or.ko 149. zk.an zelan egin dan aipamen hau.

eta eleizgizon guztiekin batean.

«Baita, izan gogoan, Jauna» eskari bereziak

Pazko Domekan, Zortziurrenean eta helduen Bateoko Mezan

Bateatu batzurentzat:

Baita, izan gogoan, Jauna, [I. eta I.] gure senide honeek ere; gaur Bateoaren [eta Sendotzaren] bidez zure familian sartu dira; egizu, Kristo zure Semeari bihotz-bihotzez eta gogo beroz jarraitu deioela.

Bateatu bakarrarentzat:

Baita, izan gogoan, Jauna, I. gure senide hau ere; gaur Bateoaren [eta Sendotzaren] bidez zure familian sartu da; egizu, Kristo zure Semeari bihotz-bihotzez eta gogo beroz jarraitu deiola.

Umeen Bateoko Mezan

Ume bateatu batzurentzat:

Baita, izan gogoan, Jauna, [I. eta I.] gure senide bateatu barri honeek ere, gaur urez eta Espiritu Santuaz bizi barrira jaio dira eta pekatutik askatu dituzu; Kristoren gorputz-atal bizi egin dituzun ezkero, idatzi egizu honeetako bakotxaren izena bizien liburuan.

Ume bateatu bakarrarentzat:

Baita, izan gogoan, Jauna, I. gure senide bateatu barri hau ere, gaur urez eta Espiritu Santuaz bizi barrira jaio da eta pekatutik askatu dozu, Kristoren gorputz-atal bizi egin dozun ezkero, idatzi egizu honen izena bizien liburuan.

Sendotzako Mezan

Sendotu batzurentzat:

Baita, izan gogoan, Jauna, gaur Sendotza hartu daben [I. eta I.] gure senide honeek ere; Bateoan bizi barrira jaio ziran eta orain Espiritu Santuaren ezaugarriaz markatu dituzu; gorde egizu honeengan zeure maitasunaren dohaia.

Sendotu bakarrarentzat:

Baita, izan gogoan, Jauna, gaur Sendotza hartu dauan I. gure senide hau ere; Bateoan bizi barrira jaio zan eta orain Espiritu Santuaren ezaugarriaz markatu dozu; gorde egizu honengan zeure maitasunaren dohaia.

Lehenengo Jaunartzeko Mezan

Lehenengo jaunartzea egindako batzurentzat:

Baita, izan gogoan, Jauna, gaur lehenengoz Eukaristia hartuko daben [I. eta I.] gure senide honeek ere; zeure familiaren mahaian ogi bizi-emoilea eta salbamenaren kaliza hartzera dei egin deutsezu; egizu, hazten joan daitezala eten barik Zugazko adiskidetasunean eta Eleizeagazko alkartasunean.

Lehenengo jaunartzea egindako bakarrarentzat:

Baita, izan gogoan, Jauna, gaur lehenengoz Eukaristia hartuko dauan I. gure senide hau ere; zure familiaren mahaian ogi bizi-emoilea eta salbamenaren kaliza hartzera deitu dozu; egizu, hazten joan dadila eten barik Zugazko adiskidetasunean eta Elizeagazko alkartasunean.

Ezkontzako Mezan

Baita, izan gogoan, Jauna, [I. eta I.] gure senide ezkonbarri honeek ere; gaur, Kristogan, etxeko eleiz alkartea eta zure maitasunaren sakramentu dan familia barria sortu dabe; egizu, egun honetan hartu daben graziak iraun dagiala honeengan alkarrenganako maitasunean eta bakean bizitza osoan.

Hilen aldeko Mezan

Hildako batzurentzat:

Baita, izan gogoan, Jauna, [gaur] mundu honetatik Zeugana eroan dituzun [I. eta I.] zeure zerbitzariak. Heriotzean zure Semearekin bat egin daben ezkero, biztueran ere berarekin bat izan daitezala.

Hildako bakarrarentzat:

Baita, izan gogoan, Jauna, [gaur] mundu honetatik Zeugana eroan dozun I. zeure zerbitzaria. Heriotzean zure Semearekin bat egin dauan ezkero, biztueran ere berarekin bat izan dadila.

Alkarmeza-emoile batek

Era berean, izan gogoan, Jauna,
bizteko itxaropenean joan diran gure senideak
eta hildako guztiak ere;
hartu egizuz zeure aurpegiaren argitan.

Erruki zakiguz, arren,
guk guztiok betiko bizitza jaritsi daigun,
Jainkoaren Ama Maria Birjina dohatsuarekin,
haren senar Jose santuarekin,
Apostolu santuekin
eta, gizaldi guztietan,
zure adiskide izan diran santuekin;
eurekin batera goratu zaiguzan,

Eskuak batuko ditu.

Jesu Kristo zure Semearen bitartez.

123. Patena ostia sagaratuarekin eta kaliza hartu eta, biak jasorik, esango dau:

Meza-emoile nagusiak nahiz guztiek

Honen bitartez, honekin eta honengan,
Zuri, Jainko Aita ahalguztidun horri,
Espiritu Santuarekin batean,
ospe eta aintza guztia
gizaldi eta gizaldi guztietan.

Herriak gorapen honegaz erantzungo dau:

Amen.

Doxologia hau doinuz emona ik. 620-622. or.etan.
Ondoren, jaunartze-ohikunea egingo da, 623. or.

Eukaristi Otoitz honetako prefazioa, sagara, gorapena, oroipena eta eskeintza eta doxologia abestu nahi izan ezkero, honan kanta daitekez:

SAGARA





Gorapena

Lehenengo era:



Bigarren era:



Hirugarren era:



OROIPENA ETA ESKEINTZA



Doxologia, hau da, Honen bitartez aukerako doinuetan emona ik. 620-622. or.etan.

III. EUKARISTI OTOITZA

124. ℣. Jauna zuekin.
℟. Eta zure espirituarekin.

℣. Gora bihotzak.
℟. Jaunagan daukaguz.

℣. Eskerrak Jaungoiko gure Jaunari.
℟. Egoki da eta zuzen.

Jarraian egunari dagokion prefazioa esango da, eta honan emongo jako amaiera:

Meza-emoile nagusiak

Santu, Santu, Santua,
diran guztien Jainko Jauna.
Zeru-lurrak beterik daukaz zure distirak.
Hosanna zeru-goienetan!
Bedeinkatua Jaunaren izenean datorrena.
Hosanna zeru-goienetan!

125. Abadeak, besoak zabalik, esango dau:

Santu zara, bai, Jauna,
eta diran guztiek emoten deutsue
behar dan gorespena.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez
eta Espiritu Santuaren indarrez,
Zeuk biziazoten dituzu guztiak eta santutzen
eta Zeuk diharduzu beti eta beti zeure herria batzen,
eguzkialde batetik besteraino
opari garbia eskeini dakizun.

126. Eskuak oparigaien gainean zabalik dituala, esango dau:

Alkarmeza-
-emoile guztiak

Apalik, beraz, Jauna, eskatzen deutsugu:
egin daizuzala santu,
zeure Espirituaren indarrez,
oparitako ekarri ditugun ogi-ardao honeek,

Eskuak batu eta kurutze-seinalea egingo dau, behin bakarrik, ogiaren eta kalizaren gain, esanez:

zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren
Gorputz eta ✠ Odol egin daitezan,

Eskuak batuko ditu:

misterio honeek
berak agindurik egiten ditugun ezkero.

127. Hurrengo esaldietan, Jaunaren hitzak garbi eta agirian esan behar dira, hitz horreek eurek eskatzen dabenez.

Berak, saldu eben gau haretan,

Eguen Santu arratsaldeko Mezan:

munduan ziran bereak maite izanik,
azkeneraino maitatu zituan.
Eta afaltzen egoala,

Ogia hartu eta, altara gainean apur bat jasorik, jarraituko dau:

ogia hartu eta, Zuri eskerrak emonez,
bedeinkatu eban,
zatitu eta bere ikasleei emon eutsen, esanez:

Apur bat makurtuko da.

HARTU EIZUE ETA JAN GUZTIOK HONETATIK:
HAU NEURE GORPUTZA DA-ETA,
ZUENTZAT EMONGO DANA.

Ostia sagaratua herriari erakutsiko deutso; gero, patena gainean itzi eta, belaunikaturik, gurtu egingo dau.

128. Ondoren, jarraituko dau:

Era berean, afalondoan,

Kaliza hartu eta, altara gainean apur bat jasorik, jarraituko dau:

kaliza harturik,
Zuri eskerrak emonez,
bedeinkatu eban
eta bere ikasleei emon eutsen, esanez:

Apur bat makurtuko da.

HARTU EIZUE ETA EDAN GUZTIOK HONETATIK:
HAU NEURE ODOLAREN KALIZA DA-ETA,
ITUN BARRI ETA BETIKOAREN ODOLA,
ZUENTZAT ETA ASKORENTZAT
PEKATUAK PARKATZEKO ISURIKO DANA.
EGIZUE HAU NEURE OROIGARRI.

Kaliza herriari erakutsiko deutso; gero, sagara-oihalean itzi eta, belaunikaturik, gurtu egingo dau.

129. Ondoren, esango dau:

Meza-emoile nagusiak Hau da sinismenaren misterioa.

Eta herriak gorapen honeetakoren bategaz erantzungo dau:

Hil eta biztu zarala, Jauna,
Zu barriz etorri arte,
hau dogu, hau, barri ona!

Edo:

Ogi-ardao honeek hartzean,
zure heriotza dogu autortzen,
Zeu, Jauna, etorri artean.

Edo:

Zeure kurutze eta biztueraz
munduaren salbatzaile zarana,
salba gagizuz, Jesus Jauna!

130. Gero, abadeak, besoak zabalik, esango dau:

Alkarmeza-emoile guztiek

Horregaitik, Jauna, guk,
zure Semearen nekaldi salbagarria
eta hilen artetik biztea
eta zeruratze miragarria gogoratuz,
haren azken etorrera itxaroten dogula,
Zuri eskerrak emoteko eskeintzen deutsugu
sakrifizio bizi eta santu hau.

Begira, Jauna, zeure Eleizearen eskeintza honi;
ikusi eskeintza honetan
Zurekin baketu gaituan Jesu Kristoren oparia;
egizu, Jauna,
zure Semearen Gorputza eta Odola hartzen ditugunok,
Espiritu Santuaz beterik,
Jesu Kristogan
gorputz bat eta espiritu bat izan gaitezala.

Alkarmeza-emoile batek

Berak egin gaizala Zuretzat betiko opari,
zure aukeratuekin zerua jaritsi daigun:
lehenengo, Maria guztiz dohatsua,
Jainkoaren Ama beti Birjinarekin,
haren senar Jose santuarekin,
zure Apostolu eta martiri santuekin,

[I. santuarekin: eguneko santua nahiz eleizako zaindaria]
eta santu guztiekin;
badakigu, honeen bitartez
zure laguntza izango doguna
nonahi eta beti.

Pazko-domeka, zortziurren eta helduen Bateoko Mezan; umeen Bateo, Sendotza, Lehenengo jaunartze eta Ezkontzako Mezan Gu Zurekin baketzen gaituan berezia esango da (ik. 600-602. or.).

Alkarmeza--emoile batek

Gu Zurekin baketzen gaituan opari hau
izan bedi, Jauna,
mundu guztiarentzat bake eta salbamen.
Mundu honetako ibilaldian,
bete egizu sinismenez eta maitasunez zeure Eleizea:
zeure zerbitzari I. gure Aita Santua,
I. gure Gotzaina,
I. Gotzain Laguntzailea,

Mezea Gotzainak bere eleizbarrutian ospatzen dauanean, esango dau:

ni, zure zerbitzari ezerez hau,

Eleizbarrutikoa ez dan beste Gotzain bat danean, ik. Erromako Meza Liburuaren Eraketa Orokorra, 31. or.ko 149. zk.an zelan egin aipamen hau.

beste gotzain eta eleizgizon guztiak
eta zeurea dozun herri osoa.

Jaunaren Jaiotza-egunean eta zortziurrenean, Jaunaren Agerkunde, Eguen Santu arratsaldeko Mezan, Pazko Gaueko Mezatik II. Pazko-domekara arte, Jaunaren Igokundean eta Pentekoste-domekan, Entzun, bihotz onez berezia esango da (ik. 602-603. or.).

Entzun, bihotz onez,
zeure aurrera deitu dozun familia honen otoitzak;

Domeketan, Entzun bihotz onez bereziagorik ez dagoanean, hau esan leiteke:

domekan, Kristok heriotza garaitu
eta bere bizi hilezkorrean parte izatea emon deuskun
egun honetan egiten deutsuguzan otoitzak;

Aita guztiz ona, erakarri Zeugana
mundu zabalean banaturik dabiltzan zeure seme-alabak.

† Hildako gure senideak,
eta mundu honetatik Zurekin adiskide
joan diran guztiak,
hartu egizuz bihotz onez zeure zeruan;
geuk ere sinisten dogu
zure aintzaren zorion betea izango dogula
betiko, eurekin batean,

Eskuak batuko ditu.

Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez;
beronen eskuz emoten deutsazuz
ondasun guztiak munduari.

Hilen aldeko Mezan

131. Eukaristi Otoitz hau hilen aldeko Mezan erabiltzen danean, beste hau esan leiteke:

Hildako batzurentzat:

† Izan gogoan, Jauna, [gaur] mundu honetatik Zeugana eroan dituzun [I. eta I.] zeure zerbitzariak. Heriotzan zure

Hildako bakarrarentzat:

† Izan gogoan, Jauna, [gaur] mundu honetatik Zeugana eroan dozun I. zeure zerbitzaria. Heriotzan zure Se-

Semeagaz bat egin daben ezkero biztueran ere berarekin bat izan daitezala, hilak lurretik biztu eta gure gorputz ezerezok bere gorputz argitsuaren antzeko egingo dituanean.

meagaz bat egin dauan ezkero biztueran ere berarekin bat izan dadila, hilak lurretik biztu eta gure gorputz ezerezok bere gorputz argitsuaren antzeko egingo dituanean.

Izan gogoan, Jauna,
hildako gure senideak ere
eta mundu honetatik Zurekin adiskide joan diran guztiak;
hartu eizuz, bihotz onez, zeure zeruan.
Geuk ere sinisten dogu
zure aintzaren zorion betea izango dogula betiko,
eurekin batean,
gure begietatik negar guztiak lehortuko dituzunean;
orduan, Zu, gure Jaun hori, zaran lakoa ikusiz,
zeure antzeko izango gara gizaldi eta gizaldietan,
beti Zu goresten,

Eskuak batuko ditu.

Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez;
beronen eskuz emoten deutsazuz
ondasun guztiak munduari.

132. Patena ostia sagaratuarekin eta kaliza hartu eta, biak jasorik, esango dau:

Meza-emoile nagusiak nahiz guztiek

Honen bitartez, honekin eta honengan,
Zuri, Jainko Aita ahalguztidun horri,
Espiritu Santuarekin batean,
ospe eta aintza guztia
gizaldi eta gizaldi guztietan.

Herriak gorapen honegaz erantzungo dau:

Amen.

Ondoren, jaunartze-ohikunea egingo da, 623. or.

«Gu Zurekin baketzen gaituan» bereziak

Alkarmeza--emoile batek

Gu Zurekin baketzen gaituan opari hau
izan bedi, Jauna,
mundu guztiarentzat bake eta salbamen.
Mundu honetako ibilaldian,
bete egizu sinismenez eta maitasunez zeure Eleizea:
zeure zerbitzari I. gure Aita Santua,
I. gure Gotzaina,
I. Gotzain Laguntzailea

Mezea Gotzainak bere eleizbarrutian ospatzen dauanean, esango dau:

ni, zure zerbitzari ezerez hau,

Eleizbarrutikoa ez dan beste Gotzain bat danean, ik. *Erromako Meza Liburuaren Eraketa Orokorra*, 31. or.ko 149. zk.an zelan egin aipamen hau.

beste gotzain eta eleiz gizon guztiak
eta zeurea dozun herri osoa. *

Pazko Domekan, zortziurrenean eta helduen Bateoko Mezan

Bateatu batzurentzat:

* Sendotu, Jauna, euren asmo santuetan zeure zerbitzari honeek; gaur jaiotza barriko uraren bidez [eta Espiritu Santuaren dohaiez] zure herrian sartu dira; egizu, beti biziera barrian ibili daitezala. †

Bateatu bakarrarentzat:

* Sendotu, Jauna, bere asmo santuetan zeure zerbitzari hau; gaur jaiotza barriko uraren bidez [eta Espiritu Santuaren dohaiez] zure herrian sartu da; egizu, beti biziera barrian ibili dadila. †

Umeen Bateoko Mezan

Bateatutako ume batzurentzat:

* Lagundu egiezu [I. eta I.] gure senide bateatu barri honeei; gaur urez eta Espiritu Santuaz barriro jaioazo eta pekatutik askatu dituzu; Kristoren gorputz-atal bizi egin dituzun ezkero, idatzi egizuz honeen izenak bizien liburuan. †

Ume bateatu bakarrarentzat:

* Lagundu egiozu I. gure senide bateatu barri honi; gaur urez eta Espiritu Santuz barriro jaioazo eta pekatutik askatu dozu; Kristoren gorputz-atal bizi egin dozun ezkero, idatzi egizu honen izena bizien liburuan. †

Sendotzako Mezan

Sendotu batzurentzat:

* Lagundu egiezu gaur Sendotza hartu daben [I. eta I.] gure senide honeei; Espiritu Santuaren ezaugarriaz markatu dituzu; gorde egizu honeengan zeure maitasunaren dohaia. †

Sendotu bakarrarentzat:

* Lagundu egiozu gaur Sendotza hartu dauan I. gure senide honi; Espiritu Santuaren ezaugarriaz markatu dozu; gorde egizu honengan zeure maitasunaren dohaia. †

Lehenengo Jaunartze Mezan

Lehenengo Jaunartzea egindako batzurentzat:

* Lagundu egiezu gaur lehenengoz Eukaristia hartuko daben [I. eta I.] gure senide honeei; zeure familiaren mahaian, ogi bizi-emoilea eta

Lehenengo jaunartzea egindako bakarrarentzat:

* Lagundu egiozu gaur lehenengoz Eukaristia hartuko dauan I. gure senide honi; zeure familiaren mahaian, ogi bizi-emoilea eta salba-

salbamenaren kaliza hartzera deitu dituzu; egizu, hazten joan daitezala eten barik Zugazko adiskidetasunean eta Eleizeagazko alkartasunean. †

menaren kaliza hartzera deitu deutsazu; egizu, hazten joan dadila eten barik Zugazko adiskidetasunean eta Eleizeagazko alkartasunean. †

Ezkontzako Mezan

* Lagundu egiezu I. eta I. gure senide ezkonbarri honeei; gaur, Kristogan, etxeko eleiz alkartea eta zure maitasunaren sakramentu dan familia barria sortu dabe; egizu, zure aurrean sinatu daben ituna gorde dagiela, zure laguntzaz, bizitza osoan. †

«Entzun, bihotz onez» bereziak festaburu batzuetarako

† Entzun, bihotz onez,
zeure aurrera deitu dozun familia honen otoitzak; *

Jaunaren Jaiotza-egunean eta zortziurrenean

* Maria Birjinak munduari Salbatzailea ekarri eutsoneko [gau santua] egun santua ospatzen dogun honetan. †

Jaunaren Agerkundean

* zure Seme bakarra, Zurekin beti aintza berekoa izanik eta egiazko gure gorputz bera harturik, gizon egina agertu zaneko egun santua ospatzen dogun honetan. †

Pazko Gaueko Mezatik II. Pazko Domeka arte

Biztuerako Pazkoan

* Jesu Kristo gure Jauna bere gorputzean biztu zaneko [gau santua] egun santua ospatzen dogun honetan. †

Jaunaren Igokundean

* Kristo zeru-lurretako Jaun ezarri zenduaneko Igokunde-
-egun zoriontsua ospatzen dogun honetan. †

Pentekoste Domekan

* zure Espiritua isurtzeak Eleiza herrialde guztientzat batasun-sakramentu egin ebaneko egun santua ospatzen dogun honetan. †

† Aita guztiz ona, erakarri Zeugana
mundu zabalean banaturik dabiltzan zeure seme-alabak.

Hildako gure senideak
eta mundu honetatik Zurekin adiskide joan diran guztiak
hartu eizuz bihotz onez zeure zeruan;
geuk ere sinisten dogu
zure aintzaren zorion betea izango dogula
betiko, eurekin batean,

Eskuak batuko ditu.

Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez;
beronen eskuz emoten deutsazuz
ondasun guztiak munduari.

Patena ostia sagaratuarekin eta kaliza hartu eta, biak jasorik, esango dau:

Meza-emoile nagusiak nahiz guztiek

Honen bitartez, honekin eta honengan,
Zuri, Jainko Aita ahalguztidun horri,
Espiritu Santuarekin batean,
ospe eta aintza guztia gizaldi
eta gizaldi guztietan.

Herriak gorapen honegaz erantzungo dau:

Amen.

Ondoren, jaunartze-ohikunea egingo da, 623. or.

Eukaristi Otoitz honetako prefazioa, sagara, gorapena, oroipena eta eskeintza abestu nahi izan ezkero, honan kanta daitekez:

SAGARA







GORAPENA

Lehenengo era:



Bigarren era:



Hirugarren era:



Oroipena eta eskeintza



Doxologia edo Honen bitartez aukerako doinuetan emona ik. 620-622. or.etan.

IV. EUKARISTI OTOITZA

133. Eukaristi Otoitz honek bere prefazioagaz salbazino-historiaren laburpena emoten dau. Horregaitik, beraren egitura dala-eta, ez dago beste prefazio bat hartzerik.

℣. Jauna zuekin.
℟. Eta zure espirituarekin.

℣. Gora bihotzak.
℟. Jaunagan daukaguz.

℣. Eskerrak Jaungoiko gure Jaunari.
℟. Egoki da eta zuzen.

Meza-emoile nagusiak

Egoki da, bai, Zuri eskerrak emotea,
egoki eta zuzen Zu gorestea, santu zaran Aita.
Zeu bakarrik zara Jainko bizi eta egiazkoa;
betidanik zara
eta beti iraungo dozu
hurreratu ezineko argitan.

Baina, ona zaralako eta biziaren iturria,
Zeuk egin dituzu zeru-lurrak,
diran guztiak zeure ontasunez betetzeko
eta zeure argiaren argiz pozteko.

Horregaitik, aingeru-talde handiak dituzu
zeure aurrean zerbitzari,
zure aurpegi argitsua ikusiz,
gau eta egun, beti eta beti goresten zaituela.
Eurekin batean geuk ere goresten zaitugu
eta gure ahoz zeru-lurrek ere bai,
Zuri poz betean [esanez] kantari:

Santu, Santu, Santua,
diran guztien Jainko Jauna.
Zeru-lurrak beterik daukaz zure distirak.
Hosanna zeru-goienetan!
Bedeinkatua Jaunaren izenean datorrena.
Hosanna zeru-goienetan!

134. Abadeak, besoak zabalik, esango dau:

Meza-emoile nagusiak

Bai, goresten zaitugu, Aita guztiz santua;
handia zara
eta gauza guztiak jakituriaz eta maitasunez egin dituzu.

Gizakia zeure irudiko egin zenduan,
eta bere esku itzi zeuntsan mundua,
egin dituzun guztien nagusi izan zedin,
egile zaituan horren zerbitzari izanez.

Zure esana ez beterik
zure adiskidetasuna galdu ebanean,
ez zenduan Zuk heriotzaren menpean itzi;
guztiei eskua luzatu zeuntsen,
zure bila ibili eta aurkitu zagiezan.

Zugazko ituna ere
askotan eskeini zeuntsen gizon-emakumeei
eta profeten bidez argi egin ere bai,
salbamenaren itxaropenean.

Izan ere, hain maite izan zenduan mundua, ze,
Aita guztiz santua,
ordua bete zanean,
zeure Seme bakarra emon zeunskun salbatzaile.

Espiritu Santuaren egitez gizon egin zan,
Maria Birjinagandik jaio
eta gure artean bizi,
pekatuan izan ezik, beste guztietan gure antzeko;
eta barri on hau ekarri eban:
behartsuak salbatuko zirala,
giltzapetuak askatuko
eta nahigabetuak poztuko.

Zure asmoa betetzeko,
heriotzara emon eban bere burua
eta, hilen artetik bizturik,
heriotza ezereztu egin eban eta bizia barritu.

Eta gugaitik hil eta biztu dan harentzat bizi gaitezan,
eta ez geuretzat,
Zugandik, Aita, Espiritu Santua bialdu euskun,
sinistedunentzat lehenengo dohaia,
mundu honetan bere egitekoa burutuz
santutasunaren betea emoteko.

135. Eskuak oparigaien gainean zabalik dituala, esango dau:

Alkarmeza-emoile guztiek

Beraz, Jauna,
Espiritu Santu honek
santu egin dagizala dohai honeek,

Eskuak batu eta kurutze-seinalea egingo dau, behin bakarrik, ogiaren eta kalizaren gain, esanez:

Jesu Kristo gure Jaunaren
Gorputz eta ✠ Odol egin daitezan,

Eskuak batuko ditu.

berak guri betiko ituntzat
itzi euskun misterio handi hau ospatzeko.

136. Hurrengo esaldietan, Jaunaren hitzak garbi eta agirian esan behar dira, hitz horreek eurek eskatzen dabenez.

Eta bera goratzeko ordua etorri jatzunean,
Aita guztiz santua,
berak, munduan ziran bereak maite izanik,
azkeneraino maitatu zituan.

Eta, afaltzen egozala,

Ogia hartu eta, altara gainean apur bat jasorik, jarraituko dau:

ogia hartu,
bedeinkatu eta zatitu eban
eta bere ikasleei emon eutsen, esanez:

Apur bat makurtuko da.

HARTU EIZUE ETA JAN GUZTIOK HONETATIK:
HAU NEURE GORPUTZA DA ETA,
ZUENTZAT EMONGO DANA.

Ostia sagaratua herriari erakutsiko deutso; gero, patenaren gainean itzi eta, belaunikaturik, gurtu egingo dau.

137. Ondoren, esango dau:

Era berean,

Kaliza hartu eta, altara gainean apur bat jasorik, jarraituko dau:

kaliza ardaoz betea harturik, eskerrak emon zituan
eta bere ikasleei emon eutsen, esanez:

Apur bat makurtuko da.

HARTU EIZUE ETA EDAN GUZTIOK HONETATIK:
HAU NEURE ODOLAREN KALIZA DA ETA,
ITUN BARRI ETA BETIKOAREN ODOLA,
ZUENTZAT ETA ASKORENTZAT
PEKATUAK PARKATZEKO ISURIKO DANA.
EGIZUE HAU NEURE OROIGARRI.

Kaliza herriari erakutsiko deutso; gero, sagara-oihalean itzi eta, belaunikaturik, gurtu egingo dau.

138. Ondoren, esango dau:

Meza-emoile nagusiak

Hau da sinismenaren misterioa.

Eta herriak gorapen honeetakoren bategaz erantzungo dau:

Hil eta biztu zarala, Jauna,
Zu barriz etorri arte,
hau dogu, hau, barri ona!

Edo:

Ogi-ardao honeek hartzean,
zure heriotza dogu autortzen,
Zeu, Jauna, etorri artean.

Edo:

Zeure kurutze eta biztueraz
munduaren salbatzaile zarana,
salba gagizuz, Jesus Jauna!

139. Gero, abadeak, besoak zabalik, esango dau:

Alkarmeza-emoile guztiek

Horregaitik, Jauna, geuk ere orain,
gure erospenaren oroigarria eginez,
Kristoren heriotza eta hilen lekura jaistea
gogoratzen ditugu
eta haren biztuera
eta zeruetara, zure eskumaldera, igotea autortzen,
eta, bera aintza handitan noiz etorriko zain gagozala,
beraren Gorputza eta Odola eskeintzen deutsuguz,
Zuretzat sakrifizio atsegingarri,
mundu guztiarentzat salbagarri.

Ikusi begi onez, Jauna,
Zeuk Eleizeari emon deutsazun opari hau.
Egizu, alkarrekin ogi beretik jaten
eta kaliza beretik edaten dogunok,
Espiritu Santuak gorputz berean bat eginik,
Jesu Kristogan opari biziak izan gaitezala,
zure aintzaren goresgarri.

Alkarmeza-emoile batek

Orain, Jauna, izan gogoan,
guk, opari hau eskeintzean, gogoan ditugun guztiak:
lehenengo, zeure zerbitzari I. gure Aita Santua,
I. gure Gotzaina,
I. Gotzain Laguntzailea,

Mezea Gotzainak bere eleizbarrutian ospatzen dauanean, esango dau:

ni, zure zerbitzari ezerez hau,

Eleizbarrutikoa ez dan beste gotzain bat danean, ik. *Erromako Meza Liburuaren Eraketa Orokorra*, 31. or.ko 149. zk.an zelan egin aipamen hau.

mundu zabaleko gotzain eta eleizgizon guztiak
Meza hau eskeintzen dabenak,
hemen batu diranak, †

Eskari bereziak diranean

Pazko Domekan, Zortziurrenean eta Bateoko Mezan:

Bateatu batzurentzat:

gaur urez eta Espiritu Santuaz jaiotza barria hartu daben [I. eta I.] gure senide honeek, †

Bateatu bakarrarentzat:

gaur urez eta Espiritu Santuaz jaiotza barria hartu dauan [I.] gure senide hau, †

Sendotzako Mezan

Sendotu batzurentzat:

gaur Sendotza hartu daben eta Espiritu Santuaren ezaugarriaz markatuak izan diran [I. eta I.] gure senide honeek, †

Sendotu bakarrarentzat:

gaur Sendotza hartu dauan eta Espiritu Santuaren ezaugarriaz markatua izan dan [I.] gure senide hau, †

Lehenengo jaunartze Mezan

Lehenengo jaunartzea egindako batzurentzat:

gaur zure familiaren mahaian, ogi bizi-emoilea eta salbamenaren kaliza hartzera lehenengo aldiz deitu deutsezun [I. eta I.] gure senide honeek, †

Lehenengo jaunartzea egindako bakarrarentzat:

gaur zure familiaren mahaian, ogi bizi-emoilea eta salbamenaren kaliza hartzera lehenengo aldiz deitu deutsazun [I.] gure senide hau, †

Ezkontzako Mezan

gaur, Kristogan, familia barria sortu daben I. eta I. gure senide honeek, †

† zeure herri osoa
eta bihotz zintzoz zure bila dabiltzan guztiak.

Alkarmeza-
-emoile batek

Izan gogoan Kristoren bakean hil diranak ere
eta fededun hil diran guztiak;
Zeuk bakarrik dakizu euren fedearen barri.

Zeure seme-alaba gaituzun guztioi
emoiguzu, Aita errukitsu horrek, zeruko oinordekotza,
Maria Birjina Jainkoaren Ama doatsuarekin,
haren Senar Jose santuarekin,
eta zeure Apostolu eta santuekin, zeure erreinuan,
han Zu goratu zaiguzan,
pekatu eta heriotzatik askatu dituzun guztiekin,

Eskuak batuko ditu.

Kristo gure Jaunaren bitartez;
beronen eskuz emoten deutsazuz
ondasun guztiak munduari.

140. Patena ostia sagaratuarekin eta kaliza hartu eta, biak jasorik, esango dau:

Meza-emoile
nagusiak
nahiz guztiek

Honen bitartez, honekin eta honengan,
Zuri, Jainko Aita ahalguztidun horri,
Espiritu Santuarekin batean,
ospe eta aintza guztia
gizaldi eta gizaldi guztietan.

Herriak gorapen honegaz erantzungo dau:

Amen.

Ondoren, jaunartze-ohikunea egingo da, 623. or.

Eukaristi Otoitz honetako prefazioa, sagara, gorapena, oroipena eta eskeintza abestu nahi izan ezkero, honan kanta daitekez:

SAGARA


Eta bera goratzeko ordua etorri jatzunean, Aita guztiz san -
tu - a, berak, munduan ziran bereak maite izanik, azkeneraino
mai-ta-tu zi-tu-an. Eta, afaltzen egozala, ogia har-tu bedeinkatu
eta za - ti - tu e - ban eta bere ikasleei emon eutsen, e - sa - nez:
HAR-TU EI-ZU-E E-TA JAN GUZ-TI-OK HO-NE-TA-TIK: HAU NEU-
RE GOR-PU-TZA DA E-TA, ZU-EN-TZAT E-MON-GO DA-NA.
Era berean, kaliza ardaoz betea har-tu-rik, eskerrak e-mon
zi-tu-an eta bere ikasleei emon eutsen, e-sa-nez: HAR-TU EI-
ZU-E E-TA E-DAN GUZ-TI-OK HO-NE-TA-TIK: HAU NEU-RE O-



Gorapena

Lehenengo era:



Bigarren era:



Hirugarren era:



Oroipena eta eskeintza



Doxologia

Lehenengo doinua:



Bigarren doinua:



Hirugarren doinua:



Laugarren doinua:



Bosgarren doinua:



Jaunartze-ohikunea

141. Kaliza eta patenea itzi ondoren, abadeak, eskuak baturik, esango dau:

Salbatzaileak agindu eta irakatsiari jarraituz,
bildur barik esan dagigun:

Edo:

Jainkoak, Espiritu Santuaren bidez,
bere seme-alaba egin gaitu;
horregaitik, konfiantzaz, esan daigun
Kristok irakatsitako otoitza:

Edo:

Jainkoak bere maitasuna isuri deusku bihotzera,
emon deuskun Espiritu Santuaren bitartez;
beraz, fedez eta itxaropenez, esan daigun:

Edo:

Adiskidetzearen ezaugarri
eta senitarteko batasunaren lokarri dogu Eukaristia;
Jaunaren jatorduko mahaira hurreratu aurretik,
esan daigun alkarturik berak irakatsitako otoitza:

Edo:

Guk ez dakigu Jainkoari zer eta zelan eskatu;
baina bihotzean dogun haren Espirituak
otoitz hau jartzen deusku ezpanetan:

Edo:

Eskatu deiogun zeruetako Aitari
geure pekatuen parkamena
eta emon deigula bihotz zabala,
geuk ere geure zordunei parkatzeko:

Edo:

Jesusek irakasten deuskunez,
eskatu deiogun zeruetako Aitari,
etorri dadila beraren erreinua gure gizartera:

Edo:

Familia bereko anai-arreba garanez,
esan deiogun alkarturik guztion Aitari:

Besoak zabaldu eta, herriarekin batera, jarraituko dau:

Gure Aita, zeruetan zarana:
santu izan bedi zure izena,
etor bedi zure erreinua,
egin bedi zure nahia
zeruan bezala lurrean ere.
Emoiguzu gaur egun honetako ogia;
parkatu gure zorrak,
geuk ere geure zordunei parkatzen deutsegun ezkero,
eta ez eiguzu itzi tentazinoan jausten,
baina atara gagizuz gatxetik.

Latinez

Pater noster, qui es in cælis:
sanctificétur nomen tuum;
advéniat regnum tuum
fiat volúntas tua, sicut in cælo, et in terra.
Panem nostrum cotidiánum da nobis hódie;
et dimítte nobis débita nostra,
sicut et nos dimíttimus debitóribus nostris;
et ne nos indúcas in tentatiónem;
sed líbera nos a malo.

142. Abadeak, besoak zabalik, berak bakarrik jarraituko dau:

Atara gagizuz, Jauna, gatx guztietatik;
emoiguzu bakea gure egunotan;
zure errukiari esker
pekatutik garbi bizi gaitezan
eta estualdietan sendo,
betiko zorionaren itxaropenean,
Jesu Kristo gure salbatzailea
noiz etorriko dan zain gagozala.

Eskuak batuko ditu.
Herriak gorapen honegaz amaituko dau otoitza:

Zeurea dozu erregetza,
zeureak ospe eta indarra
orain eta beti.

1


Sal - batzaileak agindu eta irakatsiari ja - rrai - tuz, bil - dur ba-
rik e - san da - gi - gun:
Gure Aita, zerue - tan za - ra - na: san - tu izan bedi zure i - ze - na;
etor bedi zu - re e - rrei - nu - a; egin be - di zu - re na - hi - a zeruan
bezala lu - rre - an e - re. E - moi - gu - zu gaur egun honeta - ko o -
gi - a; par - ka - tu gu - re zo - rrak, geuk ere geure zordunei parkatzen
deu - tse - gun ez - ke - ro; ez eiguzu itzi tenta - zi - no - an jaus - ten,
baina atara ga - gi - zuz ga - txe - tik.

2


Salbatzaileak agindu eta irakatsia - ri ja - rrai - tuz, bildur
barik e - san da - gi - gun:


3
Salbatzaileak agindu eta irakatsiari ja - rrai - tuz, bildur barik
e - san da - gi - gun:
4
Salbatzaileak agindu eta irakatsiari ja -rrai-tuz, bil - dur barik
e- san da - gi-gun: Gu-re Ai - ta, ze-ru-e - tan za-ra - na...
A - ta - ra gagizuz, Jauna, gatx guzti - e - ta - tik; emoiguzu bakea
gure e-gu-no-tan; zu-re e-rrukiari esker pekatutik garbi bizi gai-te-
zan eta estualdi-e-tan sen-do, be - ti - ko zorionaren itxaropenean,
Jesu Kristo gure salba-tzai-le-a noiz etorriko dan zain ga-go-za-la.
℟. Zeu-re - a do - zu e - rre-ge - tza, zeu-re-ak os -
pe e - ta in - da - rra o - rain e - ta be - ti.

143. Gero, abadeak, besoak zabalik, ozen esango dau:

Bakearen ohikunea

Jesu Kristo gure Jauna,
Zeuk esana da Apostoluei:
«Bakea izten deutsuet,
neure bakea emoten»:
Begira zeure Eleizearen sinismenari
eta ez gure pekatuei
eta, zeure gogoa danez,
emoiozu Eleizeari bakea,
emon batasuna.

Eskuak batuko ditu:

Errege bizi zara-eta gizaldi eta gizaldietan.

Herriak erantzungo dau:

Amen.

Bakearen otoitzerako beste sarrera batzuk

Litugi urtearen aldi nagusietan nahiz beste ospakizun berezi batzutan, bakearen ohikuneko otoitzaren sarrera egokitu leiteke, honan gitxi gorabehera.

Abendualdian

Jesu Kristo gure Jauna, herri guztiak salbatzera etorria
eta, bakearen poz betea ekartzera,
barriro etorriko zarana: ✝

Gabonaldian

Jesu Kristo gure Jauna,
Jainko indartsua eta Errege bakegilea;
Zu jaio zinanean,
aingeruek bakearen barri ona
zabaldu eben munduan: ✝

Garizuman

Jesu Kristo gure Jauna, Zeu zara gure bakea,
eta bihotz damutuak
Jainkoagaz adiskidetzen dituzu: ✝

Pazkoaldian

Jesu Kristo gure Jauna,
pekatua eta heriotza garaitu dituzuna;
biztu zinanean, Apostoluen artean agertu
eta bake-agurra egin zeuntsen: ✝

Pentekoste Domekan

Jesu Kristo gure Jauna,
Espiritu Santua bialdu zeuntsan Eleizeari
herri guztiak alkarmaitasunean bat egiteko: ✝

✝ Begira zeure Eleizearen sinismenari
eta ez gure pekatuei
eta, zeure gogoa danez,
emoiozu Eleizeari bakea,
emon batasuna.

Eskuak batuko ditu:

Errege bizi zara-eta gizaldi eta gizaldietan.

Herriak erantzungo dau:

Amen.

144. Abadeak, herriari begira, besoak zabalduz eta batuz, esango dau:

Jaunaren bakea beti zuekin.

Herriak erantzungo dau:

Eta zure espirituarekin.

145. Ondoren, egoki eretxi ezkero, diakonoak edo abadeak berak esango dau:

Emoiozue bakea alkarri.

Edo:

Jainkoaren seme-alaba garanez,
emon deiogun alkarri senide-batasunaren ezaugarria.

Edo:

Kristok alkarren senide egin gaitu bere kurutzeaz;
adiskidetzearen ezaugarri,
emoiozue bakea alkarri.

Edo:

Kristo berbiztuaren Espirituaz,
emoiozue bakea alkarri.

Eta danek, leku bakotxean ohi danez, bakea emongo deutsoe alkarri, euren arteko maitasuna adierazoz; abadeak diakonoari edo laguntzaileari emongo deutso bakea.



146. Gero, abadeak ostia sagaratua hartu, patenaren gainean zatitu eta zati txiki bat kalizera botako dau, ahots apalez esanez:

Kaliza honetan batzen diran
Jesu Kristo gure Jaunaren Gorputza eta Odola
izan beitez, hartzen ditugunontzat
betiko bizirako.

147. Bitartean, abestu edo esango da:

Jainkoaren Bildotsa

Jaungoikoaren Bildotsa, Zeuk kentzen dozu munduko pekatua: erruki, Jauna.
Jaungoikoaren Bildotsa, Zeuk kentzen dozu munduko pekatua: erruki, Jauna.
Jaungoikoaren Bildotsa, Zeuk kentzen dozu munduko pekatua: emoiguzu bakea.

Latinez

Agnus Dei, qui tollis peccáta mundi: miserére nobis.
Agnus Dei, qui tollis peccáta mundi: miserére nobis.
Agnus Dei, qui tollis peccáta mundi: dona nobis pacem.

Ogiaren zatitzea luzatzen bada, kantu hau gehiagotan be abestu leiteke. Baina, azkenekoan, emoiguzu bakea esango da.



148. Ondoren, abadeak, eskuak baturik, ahots apalez esango dau:

Jesu Kristo gure Jauna, Jainko biziaren Semea,
Aitak hala nahirik eta Espiritu Santuak lagunduta,
zeure heriotzaz bizia emon deutsazu munduari;
zeure Gorputz eta Odol santuen bitartez,
atara nagizu neure gaiztakeria eta gatx guztietatik;
lotu nakiela beti zure aginduei
eta ez nadila behin ere Zugandik urrundu.

Edo:

Jesu Kristo gure Jauna,
zure Gorputza eta Odola hartzea izan bedi,
zure bihotz onari esker,
nire gorputz-arimen babes eta salbamenerako
eta ez nire auzi eta kalterako.

149. Abadeak, belaunikatu ondoren, ostia sagaratua hartu eta, patenaren eta kalizaren gainean apur bat jasorik, herriari erakutsiko deutso, esanez:

Jaunartzea Hona hemen Jaungoikoaren Bildotsa,
hona munduko pekatua kentzen dauana.
Zoriontsuak Jaunaren mahaira deituak!!

Eta, herriagaz batera, behin bakarrik, esango dau:

Jauna, ni ez naz inor Zu nire etxean sartzeko;
baina esaizu hitz bat eta osatuko naz.

150. Abadeak, ahots apalez, esango dau:

Kristoren Gorputzak zaindu nagiala betiko bizirako.

Eta, begirune handiz, Kristoren Gorputza hartuko dau. Gero, kaliza hartu eta, ahots apalez, esango dau:

Kristoren Odolak zaindu nagiala betiko bizirako.

Eta, begirune handiz, Kristoren Odola hartuko dau.

151. Ondoren, patena edo kopoia hartu eta jaunartu behar dabenengana hurreratuko da eta, ostia sagaratua apur bat jasorik, bakotxari erakutsiko deutso, esanez:

Kristoren Gorputza.

Jaunartzen dauanak erantzungo dau:

Amen.

Eta gure Jauna hartuko dau.

Eukaristia banatzen dauan diakonoak nahiz beste laguntzaileek era berean egingo dabe.

152. Jaunartzea ogi-ardaoen itxurapean egiten bada, *Erromako Meza Liburuaren Eraketa Orokorrean*, 45. or.ko 284-287. zk.etan, esanda dagoanez egin bedi.

153. Abadeak Kristoren Gorputza eta Odola hartu dituanean hasiko da jaunartze-kantua.

154. Jaunartzea amaitutakoan, abadeak nahiz diakonoak edo akolitoak patena kalizaren gainean garbituko dau eta kaliza ere bai, garbiketa hori Meza ondorenean egitea nahiago ez bada.

Garbitu bitartean, abadeak, ahots apalez, esango dau:

Ahoz hartu dogun hau gogo biziz hartu daigula, Jauna, eta gaurko dohai hau betiko salbamen izan dakigula.

155. Gero, abadea jesarlekura joan leiteke. Egoki eretxi ezkero, isilunea egin leiteke nahiz salmoren bat edo gorespen-kanturen bat abestu.

156. Ondoren, jesarlekuan nahiz altara aurrean zutunik, abadeak esango dau:

Egin daigun otoitz.

Eta danek, abadeagaz batera, unetxu batez otoitz egingo dabe isilik, isilune hau aurretik egin ez bada.

Gero, abadeak, besoak zabalik, jaunartze ondorengo otoitza esango dau. Herriak erantzungo dau:

Amen.

Jaunartze ondorengo otoitzari amaiera laburra dagokio beti.

Otoitza Aitari zuzendua danean:

Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Aitari zuzendua izanik, otoitzaren azkenean Semearen aipamena egiten danean:

Errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Otoitza Semeari zuzendua danean:

Errege bizi zara-eta gizaldi eta gizaldietan.

Amaierako ohikunea

Oharpenak

157. Une honetan egingo dira, egin behar badira, labur-labur, oharrak.

158. Ondoren, azken agurra egingo da. Abadeak, herriari begira eta besoak zabalduz, esango dau:

Azken agurra

Jauna zuekin.

Herriak erantzungo dau:

Eta zure espirituarekin.

Abadeak herria bedeinkatuko dau, esanez:

Bedeinkatu zagiezala Jaungoiko ahalguztidunak:
Aitak, eta Semeak, ✠ eta Espiritu Santuak.

Herriak erantzungo dau:

Amen.

159. Egun jakin batzuetan eta egokiera batzuetan, bedeinkazino honen aurretik, beste bedeinkazino ospetsuago bat emon leiteke 640-656. or., edo herriaren gaineko otoitz bat egin, 657-662. or.

160. Gotzainak ondorengo era hau erabiliko dau herria bedeinkatzeko, bedeinkazino nagusietakoren bat edo herriaren gaineko otoitzen bat erabiltzea nahiago ez badau:

℣. Bedeinkatua Jaunaren izena.
℟. Orain eta beti.

℣. Gure laguntza Jaunaren izena.
℟. Zeru-lurrak egin zituana.

Eta artzain-makila hartu eta, hiru aldiz kurutzearen seinalea eginez, esango dau:

℣. Bedeinkatu zagiezala Jaungoiko ahalguztidunak: Aitak, ✠ eta Semeak, ✠ eta Espiritu ✠ Santuak.
℟. Amen.

161. Ondoren, diakonoak edo abadeak berak, eskuak baturik, herria agurtuko dau, ondorengo agur-era honeetakoren bat erabiliz:

Zoaze Jaunaren bakean.

Herriak erantzungo dau:

Eskerrak Jainkoari.

Edo:

Jaunaren poza da gure indarra.
Zoaze Jaunaren bakean.

Edo:

Goratu egizue Jauna zeuen bizieraz.
Zoaze Jaunaren bakean.

Edo:

Zoaze eta iragarri Jaunaren Ebanjelioa.

Edo:

Zoaze bakean eta goratu zeuen bizieraz Jauna.

Edo, berariaz, Pazko-domeketan:

Zabaldu alde guztietan Jaun berbiztuaren poza.
Zoaze Jaunaren bakean.

Herriak erantzungo dau:

Eskerrak Jainkoari.

1


℣. Jau-na zu-e-kin. ℟. E-ta zu-re es-pi-ri-tu-a-re-kin.
℣. Bedeinkatu zaiezala Jaungoiko ahalguz-ti-du-nak: Ai-tak, eta
Semeak, ✠ eta Espiritu San-tu-ak. ℟. A-men.
℣. Zo-a-ze Jau-na-ren ba-ke-an. ℟. Es-ke-rrak Jain-ko-a-ri.

Edo:

2


℣. Jau-na zu-e-kin. ℟. E-ta zu-re es-pi-ri-tu-a-re-kin.
℣. Be-dein-ka-tu zai-e-za-la Jaun-goi-ko a-hal-guz-ti-du-nak: Ai-tak,
e-ta Se-me-ak ✠ e-ta Es-pi-ri-tu San-tu-ak. ℟. A-men.
℣. Zo-a-ze Jau-na-ren ba-ke-an. ℟. Es-ke-rrak Jain-ko-a-ri.

Gotzainak, Meza nagusian, honan emongo dau bedeinkapena:



162. Gero, abadeak altareari mun egingo deutso begirunez, hasieran lez. Eta, laguntzaileekin batera makurtze nagusia egin ondoren, joan egingo da.

163. Jarraian beste liturgia eleizkizunen bat egin behar balitz, amaierako ohikunea ez da egingo.

MEZA AMAIERAKO BEDEINKAZINO NAGUSIAK ETA HERRIAREN GAINEKO OTOITZAK

BEDEINKAZINO NAGUSIAK

Hurrengo bedeinkazino honeek, abadeari ondo baderitxo, ospakizunaren amaieran erabili leitekez: Mezaren nahiz Hitzaren ospakizun baten, Orduetako Liturgiaren edo sakramentuen ospakizun baten amaieran.

Diakonoak edo, diakonorik ezean, abadeak berak dei egingo deutse eleiztarrei honan: Makurtu burua Jaunaren bedeinkazinoa hartzeko. Gero, abadeak, eskuak herriaren gain zabalik, bedeinkazinoa esango dau. Eta danek erantzungo dabe: Amen.



Edo:



I. Aldiko ospakizunetan

1. Abendua

Jesu Kristo etorri dala sinisten dozue
eta barriro aintzaz etorriko dala itxaroten;
Jainko ahalguztidun errukitsuak,
haren etorreraren argiaz,
egin zaiezala santu eta bere bedeinkazinoaz bete.
℟. Amen.

Bizitza honetan gorde zaiezala Jainkoak
fedean sendo,
itxaropenean alai
eta maitasunean eginkor.
℟. Amen.

Orain gure Salbatzaile gizon eginaren etorreraz
pozten zarienoi,
gero, barriro aintzaz etorriko danean,
emon deizuela betiko biziaren saria.
℟. Amen.

Bedeinkatu zagiezala Jaungoiko ahalguztidunak:
Aitak, eta Semeak, ✠ eta Espiritu Santuak.
℟. Amen.

2. Jaunaren Jaiotza

Jainko guztiz onak bere Semea gizon egitearekin
uxatu ditu munduko ilunpeak
eta Maria Birjinagandik jaiotzarekin
argitu [gau] egun santu hau;
uxatu daizala berak zuengandik pekatuaren ilunpeak
eta argitu zuen bihotza bere graziaren distiraz.
℟. Amen.

Kristoren jaiotza salbagarriaren barri
artzainei aingeruen bidez emon eutsenak
bete dagiala bere pozez zuen bihotza
eta egin zaiezala bere Barri Onaren zabaltzaile.
℟. Amen.

Bere Semearen gizon egiteaz
zeru-lurrak bat egin dituanak
bete zaiezala bere bakeaz eta gogo onez
eta eroan zeruko Eleizearekin bat egitera.
℟. Amen.

Bedeinkatu zagiezala Jaungoiko ahalguztidunak:
Aitak, eta Semeak, ✠ eta Espiritu Santuak.
℟. Amen.

3. Urtearen hasiera

Bedeinkazino guztien iturri dan Jainkoak
emon deizuela bere grazia,
isuri dagiala zuen gainera bere bedeinkazino ugaria
eta gorde zaiezala urte guztian bizirik eta osasuntsu.
℟. Amen.

Egin zaiezala berak sinismenean sendo,
itxaropenean zintzo
eta bizitzako gorabeheretan
maitasunean iraunkor azkeneraino.
℟. Amen.

Urte barri honetan
eratu dagizala zuen egunak eta lanak bere bakean,
entzun dagizala zuen eskariak nonahi eta beti
eta eroan zaiezala betiko bizira.
℟. Amen.

Bedeinkatu zagiezala Jaungoiko ahalguztidunak:
Aitak, eta Semeak, ✠ eta Espiritu Santuak.
℟. Amen.

4. Jaunaren Agerkundea

Ilunpeetatik bere argi miragarrira deitu zaituen Jainkoak
isuri dagiala zuen gainera bere bedeinkazinoa
eta sendotu zaiezala sinismenean,
itxaropenean eta goi-maitasunean.
℟. Amen.

Gaurko egunez munduari
ilunpeetan argi distiratsu agertu jakon Kristok
egin zaiezala bere jarraitzaile
eta zuen anai-arrebentzat argi.
℟. Amen.

Magoek, izarra gidari, Kristoren bila ibili ondoren,
poz handiz aurkitu eben lez,
emon deizuela zuoi ere Jainkoak,
mundu honetako ibilaldiaren ondoren,
argitik argi dan Kristogana heltzea.
℟. Amen.

Bedeinkatu zagiezala Jaungoiko ahalguztidunak:
Aitak, eta Semeak, ✠ eta Espiritu Santuak.
℟. Amen.

5. Garizuma

Jainko Aita errukitsuak emon deizuela guztioi,
seme hondatzaileari lez,
aitaren etxera bihurtzeko poza.
℟. Amen.

Otoitzean eta bizitzan eredu dogun Kristok
eroan zaiezala, Garizumako bidetik,
egiazko bihotz-barritzera.
℟. Amen.

Jakituriaren eta adorearen Espirituak
indartu zaiezala gaiztoaren aurkako burrukan
Kristogaz batean pazko-garaipena ospatu dagizuen.
℟. Amen.

Bedeinkatu zagiezala Jaungoiko ahalguztidunak:
Aitak, eta Semeak, ✠ eta Espiritu Santuak.
℟. Amen.

6. Jaunaren Nekaldia

Errukiaren Aitak maitasunaren ikasbidea emon deutsue
bere Semearen nekaldian;
egin zaiezala Jainkoaren eta gizakien zerbitzari
eta emon deizuela
bere bedeinkazinoaren dohai miragarria.
℟. Amen.

Kristoren heriotzeak
betiko heriotzatik atara zaituen ezkero,
emon deizuela betiko bizia ere.
℟. Amen.

Kristori maitasun-bidean jarraituz,
izan zaitezela haren lagun biztueran ere.
℟. Amen.

Bedeinkatu zagiezala Jaungoiko ahalguztidunak:
Aitak, eta Semeak, ✠ eta Espiritu Santuak.
℟. Amen.

7. Pazko Gaubela eta Pazko Domekea

Bedeinkatu zaiezala Jainko ahalguztidunak
Pazko-festaburu honetan
eta zaindu, erruki handiz, pekatu-bide guztietatik.
℟. Amen.

Bere Semearen biztueraz bizibarritu zaituen Jainkoak
emon deizuela betiko biziaren saria.
℟. Amen.

Jaunaren nekaldiko egunak igaro ondoren
Pazko-jaia ospatzen dozuenok,
heldu zaitezela haren laguntzaz zeruan
betiko pazko-jaietara.
℟. Amen.

Bedeinkatu zagiezala Jaungoiko ahalguztidunak:
Aitak, eta Semeak, ✠ eta Espiritu Santuak.
℟. Amen.

8. Pazkoaldia

Bere Semearen biztueraz salbatu
eta bere seme-alaba egin zaituen Jainkoak
poztu zaiezala bere bedeinkazinoaz.
℟. Amen.

Bere erospenaz egiazko askatasuna lortu deutsuen Kristok
emon deizuela betiko oinordekotza.
℟. Amen.

Zuen sinismena autortuz,
Bateoan Kristogaz biztu zarienok,
orain zintzo bizi izanez,
lortu daizuela zeruan beragaz bat egitea.
℟. Amen.

Bedeinkatu zagiezala Jaungoiko ahalguztidunak:
Aitak, eta Semeak, ✠ eta Espiritu Santuak.
℟. Amen.

9. Jaunaren Igokundea

Bedeinkatu zaiezala Jaungoiko ahalguztidunak,
Jesusek zerura, zuei lekua prestatzera,
igon eban egun honetan.
℟. Amen.

Biztu ondoren ikasleei agertu jaken Jesu Kristo Jauna
mundua epaitzera etorriko danean
agertu dakizuela epaile errukitsu.
℟. Amen.

Jesu Kristo Aitaren ondoan jarririk dagoala
sinisten dozue;
pozik sentidu dagizuela
zeuokaz ere badagoala azken egunera arte,
berak agindu ebanez.
℟. Amen.

Bedeinkatu zagiezala Jaungoiko ahalguztidunak:
Aitak, eta Semeak, ✠ eta Espiritu Santuak.
℟. Amen.

10. Espiritu Santua

Argi guztien Aita dan Jainkoak
ikasleen gogoak argitu zituan [gaurko egunez]
Espiritu Santua isuriz;
poztu zaiezala bere bedeinkazinoaz
eta aberastu bere Espirituaren dohaiez.
℟. Amen.

Ikasleen gainean harrigarriro agertu zan suak
garbitu dagiala zuen bihotza gatx guztietatik
eta edertu bere argiaren distiraz.
℟. Amen.

Hainbeste eratako jentea
fede beraren autormenean bat egin eban Espiritu Santuak
gorde zaiezala fede berean
eta orain zuentzat itxaropen dana
bihurtu dakizuela egun baten egiazko ikuskizun.
℟. Amen.

Bedeinkatu zagiezala Jaungoiko ahalguztidunak:
Aitak, eta Semeak, ✠ eta Espiritu Santuak.
℟. Amen.

11. Urtean Zehar, I.a (Aharonen bedeinkazinoa. Zen 6, 24-26)

Bedeinkatu zaiezala Jaunak, eta zaindu.
℟. Amen.

Agertu deizuela Jaunak bere aurpegi argia,
eta errukitu dadila zuetaz.
℟. Amen.

Agertu deizuela Jaunak bere aurpegia,
eta emon bere bakea.
℟. Amen.

Bedeinkatu zagiezala Jaungoiko ahalguztidunak:
Aitak, eta Semeak, ✠ eta Espiritu Santuak.
℟. Amen.

12. Urtean Zehar, II.a (Flp 4, 7)

Gogoeta guztiak baino handiagoa dan Jainkoaren bakeak
gorde dagizala zuen gogo-bihotzak
Jainkoaren eta bere Seme Jesu Kristo gure Jaunaren
ezagueran eta maitasunean.
℟. Amen.

Bedeinkatu zagiezala Jaungoiko Ahalguztidunak:
Aitak, eta Semeak, ✠ eta Espiritu Santuak.
℟. Amen.

13. Urtean Zehar, III.a

Jainko ahalguztidunak bedeinkatu zaiezala bere errukiaz,
eta bete bere jakituria salbagarriaz.
℟. Amen.

Egin zaiezala fedean gero eta sendoago
eta egite onetan iraunkor.
℟. Amen.

Zuzendu dagizala beragana zuen pausoak,
eta erakutsi deizuela bakearen eta maitasunaren bidea.
℟. Amen.

Bedeinkatu zagiezala Jaungoiko ahalguztidunak:
Aitak, eta Semeak, ✠ eta Espiritu Santuak.
℟. Amen.

14. Urtean Zehar, IV.a

Kontsolamentu guztien iturri dan Jainkoak
eratu dagizala zuen egunak bere bakean
eta emon deizuela bere bedeinkazinoa.
℟. Amen.

Atara zaiezala berak estualdi guztietatik
eta sendotu bere maitasunean.
℟. Amen.

Sinismenean, itxaropenean eta maitasunean aberasturik,
oraingo bizitzan santu izan zaitezen
eta gero betiko zoriona izan dagizuen.
℟. Amen.

Bedeinkatu zagiezala Jaungoiko ahalguztidunak:
Aitak, eta Semeak, ✠ eta Espiritu Santuak.
℟. Amen.

15. Urtean Zehar, V.a

Jainko ahalguztidunak
urrundu dagizala zuengandik gatx guztiak,
eta emon deizuela bere bedeinkazinoa.
℟. Amen.

Zabaldu dagiala berak zuen bihotza
bere hitza entzuteko,
betiko zorionaz bete zaitezen.
℟. Amen.

Emon deizuela Jainkoak
ona eta zuzena zer dan ezagutzea,
haren aginduetan aurrera egin dagizuen
eta zeruko santuen lagun izan zaitezen.
℟. Amen.

Bedeinkatu zagiezala Jaungoiko ahalguztidunak:
Aitak, eta Semeak, ✠ eta Espiritu Santuak.
℟. Amen.

16. Urtean Zehar, VI.a

Bedeinkatu zaiezala Jainkoak
era guztietako zerutar bedeinkazinoz
eta egin zaiezala bere aurrean beti santu eta garbi;
emon deizuela ugari bere aintzaren aberastasuna,
argitu zaiezala egiaren hitzaz,
emon deizuela salbazinoko Ebanjelioaren irakaspena
eta aberastu zaiezala beti senide-maitasunez.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.
℟. Amen.

Bedeinkatu zagiezala Jaungoiko ahalguztidunak:
Aitak, eta Semeak, ✠ eta Espiritu Santuak.
℟. Amen.

17. Urtean Zehar, VII.a (2 Ts 2, 16-17)

Jesu Kristo gure Jaunak eta Jainko gure Aitak,
maite izan gaituan eta betiko kontsolamentua
eta halako itxaropen zoriontsua
doan emon deuskun Aitak,
bete zaiezala adorez eta sendotu,
on dan guztia egitez eta hitzez burutzeko.
℟. Amen.

Bedeinkatu zagiezala Jaungoiko ahalguztidunak:
Aitak, eta Semeak, ✠ eta Espiritu Santuak.
℟. Amen.

18. Urtean Zehar, VIII.a (1 Ts 5, 23-24)

Bakea emoten dauan Jainkoak
egin zaiezala oso-osorik santu,
eta zuen izate osoak –espiritu, arima eta gorputz–

errubako iraun dagiala,
Jesu Kristo gure Jaunaren etorrera arte.
℟. Amen.

Bedeinkatu zagiezala Jaungoiko ahalguztidunak:
Aitak, eta Semeak, ✠ eta Espiritu Santuak.
℟. Amen.

19. Urtean Zehar, IX.a (ik. Heb 13, 20-21)

Jainko bake-emoileak biztu eban hilen artetik
Jesu Kristo gure Jauna, ardien artzain handia,
betiko ituna ezartzeko bere odola isuri ebana;
Jainko berak egin zaiezala gai
egite on guztien bidez bere nahia betetzeko
eta burutu dagiala zuekan berari atsegin jakona.
℟. Amen.

Bedeinkatu zagiezala Jaungoiko ahalguztidunak:
Aitak, eta Semeak, ✠ eta Espiritu Santuak.
℟. Amen.

20. Urtean Zehar, X.a (ik. 1 P 5, 10-11)

Dohai guztien emoile dan
eta Kristoren bidez
betiko bere aintzara dei egin deutsuen Jainkoak
bizkortu eta sendotu zaiezala
eta sendo ezarri fedean.
℟. Amen.

Bedeinkatu zagiezala Jaungoiko ahalguztidunak:
Aitak, eta Semeak, ✠ eta Espiritu Santuak.
℟. Amen.

II. Santuen ospakizunetan

21. Maria Birjina dohatsua

Maria Birjina dohatsuagandik jaiotakoaren bitartez
gizadia bihotz onez salbatu dauan Jainkoak
emon deizuela oparo bere bedeinkazinoa
℟. Amen.

Bizi-iturria emon deutsuen Mariaren laguntza
izan dagizuela nonahi eta beti.
℟. Amen.

Eta Mariaren jaia santutasunez ospatzera etorri zarienoi
emon deizuela Jainkoak
Espirituaren poza eta zeruko sariaren dohaia.
℟. Amen.

Bedeinkatu zagiezala Jaungoiko ahalguztidunak:
Aitak, eta Semeak, ✠ eta Espiritu Santuak.
℟. Amen.

22. Pedro eta Paulo santuak

Pedroren autormen salbagarriaz sendotu
eta Eleizearen fede bizian
oinarritu zaituen Jainko ahalguztidunak
bete zaiezala bere bedeinkazinoaz.
℟. Amen.

Paulo santuaren hitzez argitu zaituen Jainkoak
erakutsi deizuela senideak Kristogana erakartzen,
Paulok egin eban lez.
℟. Amen.

Pedrok giltzaz, Paulok hitzez, eta biek euren otoitzez
lagundu deiguela,
batak kurutzean eta besteak ezpataz hilda
irabazi eben zerua lortzen.
℟. Amen.

Bedeinkatu zagiezala Jaungoiko ahalguztidunak:
Aitak, eta Semeak, ✠ eta Espiritu Santuak.
℟. Amen.

23. Apostoluak

Apostolu bat baino gehiago diranean:

Oinarritzat Apostoluak emon deutsuezan Jainkoak bedeinkatu zaiezala, I. eta I. Apostolu santuen otoitzari esker.
℟. Amen.

Apostolu bakarrarentzat:

Oinarritzat Apostoluak emon deutsuezan Jainkoak bedeinkatu zaizala, I. Apostolu santuaren otoitzari esker.
℟. Amen.

Apostoluen irakaspena eta jarraibide ederra
emon deutsuen Jaunak
egin zaiezala, euren laguntzaz,
mundu guztiarentzat egiaren autorle.
℟. Amen.

Apostoluen irakaspenez fedea sendotu deutsuen Jaunak
lagundu deizuela betiko etxera heltzen.
℟. Amen.

Bedeinkatu zagiezala Jaungoiko ahalguztidunak:
Aitak, eta Semeak, ✠ eta Espiritu Santuak.
℟. Amen.

24. Santu guztientzat

Santuen aintza eta poza dan Jainkoak,
Santu Guztien festaburu hau
pozik ospatu ahal izatea emon deutsue gaur;
bedeinkatu zaiezala betiko bedeinkazinoaz.
℟. Amen.

Atara zaiezala hareen bitartez oraingo gatxetatik
eta euren ikasbidez argitu,
Jainkoaren eta gizon-emakumeen zerbitzuan
ahalegindu zaitezen.
℟. Amen.

Egun honetan, bere seme-alabak
zerutarren artean ikusirik,
Eleizea pozik dagoan lez,
zeuok ere izan dagizuela eurekin batean zeruko zoriona.
℟. Amen.

Bedeinkatu zagiezala Jaungoiko ahalguztidunak:
Aitak, eta Semeak, ✠ eta Espiritu Santuak.
℟. Amen.

25. Santu baten jaia

San(ta) I.ren jaia ospatzera batu gaitu gaur
Jainko gure Aitak;
bedeinkatu zaiezala, zaindu eta sendotu bere bakean.
℟. Amen.

Kristo gure Jaunak
pazko-misterioaren indar erabarritzailea
erakutsi dau San(ta) I.rengan;
egin zaiezala bere Ebanjelioaren benetako testigu.
℟. Amen.

Espiritu Santuak ebanjeliozko maitasunaren ejenplua
emon deusku San(ta) I.rengan;
emon deizuela
Eleizan egiazko fede- eta maitasun-alkartasuna
handitzeko grazia.
℟. Amen.
Bedeinkatu zagiezala Jaungoiko ahalguztidunak:
Aitak, eta Semeak, ✠ eta Espiritu Santuak.
℟. Amen.

III. Beste bedeinkazino batzuk

26. Eleiza sagaratze-egunean eta urtemugan

Etxe honen sagaratzea [sagaratzearen urtemuga]
Ospatzeko gaur hemen batu zaituen
zeru-lurren Jaun eta Jainkoak
emon deizuela oparo zeruko bedeinkazinoa.
℟. Amen.

Bere seme-alaba sakabanatu guztiak
Kristogan batu nahi dituan Jainkoak
egin zaiezala bere etxe
eta Espiritu Santuaren bizileku.
℟. Amen.

Zorionez pekatutik garbiturik,
izan dagizuela Jainkoa zeuongan bizitzeko poza
eta emon deizuela berak egun baten
santu guztiekin zeruko zoriona.
℟. Amen.

Bedeinkatu zagiezala Jaungoiko ahalguztidunak:
Aitak, eta Semeak, ✠ eta Espiritu Santuak.
℟. Amen.

27. Hilen aldeko ospakizunak

Poz-emoile dogun Jainkoak
maitasun miragarriz egin eban gizakia,
eta fededunoi, bere Semearen biztueran,
bizteko itxaropena emon deusku;
bete zaiezala berak bere bedeinkazinoaz.
℟. Amen.

Emon deigula berak bizi garanoi pekatuen parkamena
eta hildako guztiei zeruko argia eta bakea.
℟. Amen.

Hilen artetik biztu zala sinisten dogun Kristogaz
emon deigula danoi betiko zorionean bizitzea.
℟. Amen.

Bedeinkatu zagiezala Jaungoiko ahalguztidunak:
Aitak, eta Semeak, ✠ eta Espiritu Santuak.
℟. Amen.

HERRIAREN GAINEKO OTOITZAK

Hurrengo bedeinkazino honeek, abadeari ondo baderitxo, ospakizunaren amaieran erabili leitekez: Mezearen nahiz hitzaren ospakizun baten, Orduen Liturgiaren edo sakramentuen ospakizun baten amaieran.

Diakonoak edo, diakonorik ezean, abadeak berak dei egin leikie eleiztarrei honan: Makurtu burua Jaunaren bedeinkazinoa hartzeko. Gero abadeak, eskuak herriaren gain zabalik, bedeinkazinoa esango dau. Eta danek erantzungo dabe: Amen.

Otoitza esan ondoren, abadeak jarraituko dau: Bedeinkatu zagiezala Jainko ahalguztidunak: Aitak, eta Semeak, ✠ eta Espiritu Santuak. Eta danek erantzungo dabe: Amen.

1. Begitu, Jauna, begi onez zeure herriari
eta ez itzi oraingo laguntza barik
betiko erreinura eroan nahi dozuzanak.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

2. Emoiozu, Jauna, kristau-herriari
autortzen dauan fedea hobeto ezagutzea
eta ospatzen dauan Eukaristia maitatzea.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

3. Eskuratu dagizala, Jauna, zure herriak
bedeinkazino santuaren ondorio onak,
kaltegarri jakona itzirik,
bilatzen dituan ondasunak aurkitu dagizan.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

4. Jauna, Zuk pekatariak ere zaintzen dituzu,
baina maitasun handiagoz arduratzen zara
bihotzez zure zerbitzuan bizi diranekin;
egizu, zure herria bihotz guztiaz bihurtu dadila Zugana.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

5. Jainko guztiz ona, egiozu argi zeure herriari,
zure nahia betetzen ahaleginduz,
ona dana egin dagian beti.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez

6. Emon, Jauna, bihotz onez zeure fededunei
parkamena eta bakea,
pekatu guztietatik garbiturik
uste osoz zerbidu zaiezan.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

7. Begitu, Jauna, begi onez
zerbitzari dozun zure herriari;
hazi eta zabaldu dadila
eta egin dagiala zintzo zure nahia.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

8. Erruki zakioz, Jauna, zeure herriari;
atara egizu gatx guztietatik,
bihotz guztiaz zerbidu zagizan
eta zure babesean sendo iraun dagian.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

9. Poztu bedi, Jauna, zure familia
erospeneko misterioak ospatzean
eta emoiozuz ugari erospenaren frutu salbagarriak.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

10. Jainko guztiz errukitsua,
emon zeure fededunei osasuna eta bakea;
zure bedeinkazinoak babesturik,
beti eskerrak emon deizuezan
eta bihotz alaiz bedeinkatu zaiezan.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

11. Zaindu egizu, Jauna, zeure familia
etenbako maitasunez,
Zuk babesturik, ezbehar guztitik aske
eta egintza onei emona bizi dadin zure zerbitzuan.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

12. Barriztatu egizuz, Jauna,
guztiz, gorputz eta arima, zeure fededunak
eta eroan egizuz pekatuen damu izatera,
atsegin kaltegarriak baztertu dagiezan
eta euren poza eta atsegina Zugan aurkitu dagien.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

13. Betor, Jauna, fededunen gainera
zure bedeinkazino santua
eta emoiezu zeure laguntza,
euren eginkizunetan
zure maitasuna izan dagien indar-emoile.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

14. Zure laguntza eske dituzu, Jauna,
bihotz apalez zeure fededunak,
Zu barik ezer onik egiteko gauza ez diranez,
zure errukiari esker
zuzena zer dan sumatu dagien
eta onuragarri izango daben guztia eskuratu.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

15. Entzun, Jauna, eske dabilen fededunen herriari
eta emoiozu laguntza bere makaltasunean,
bihotz zintzoz Zuri emonik
oraingo bizitzarako osagaiak izan dagizan,
gerokoa lortzeko.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

16. Begitu, Jauna, begi onez zeure familiari
eta entzun zeure betiko errukiaz haren eskariak;
zure laguntza barik ezer onik egin ez leikenez,
zure graziari esker zure agindu salbagarriak bete dagizan.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

17. Emon ugari, Jauna, zeure fededunei grazia zerutarra,
ahoz, arimaz eta bizitzaz goratu zaiezan,
eta, garan guztia zure dohai dogunez,
zeuretzat izan dadila gure bizitza osoa.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

18. Argitu egizu, Jauna, zeure herria zeruko dohaiez,
egintza txar guztiak alde batera itziz
eta egintza on guztiak betez,
zure hasarrea ez, ezpada ze zure errukia jadetsi dagian.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

19. Entzun, Jauna, zeure fededunen eskariak
eta zaindu bihotz onez
euren itxaropena zure errukian jarri dabenak,
bizitza santuan leial iraun dagien
eta, bizitza honetan beharrezko diranak izanik,
Zuk agindutakoen jaube egin daitezan betiko.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez

20. Emon, Jauna, bihotz onez zeure grazia
eske datorkizun zeure herriari,
Zeuk egina eta Zeuk erabarritua izan dana
etenbako zure laguntzaz salbatu dadin.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

21. Aurrera egin dagiala, Jauna, zure herriak
Zuganako jokera jaieratsuan,
eta, bihotzeko damu osasuntsuak eraginik,
bete dagizala pozik zure aginduak,
Zuk agindutakoak eskuratu dagizan.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

22. Zuri eskeinia bizi dan herriaren makaltasunak
bigundu dagiala, Jauna, zure bihotza
eta haren otoitz apalak lortu dagiala zure errukia,
egintza zuzenez harrotu ezin danak
zure esku zabalari esker parkamena jadetsi dagian.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

23. Luzatu, Jauna, zeure eskuma indartsua
zeure seme-alaben gainera,
eta egizu, Aita, zure borondateari obediduz,
izan dagiela zure maitasunaren betiko babesa.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

24. Entzun, Jauna, zeure familia honen otoitzak
eta emon zeure kemena apalik eskean dabiltzunari,
beharrezko baliabideez indarturik,
zure izenaren autormenean iraun dagian.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

25. Zaindu, Jauna, zeure familia
eta emon oparo zeure maitasunaren ezaugarriak,
zerutar jakituria eta dohaiak ugari hartu dagizan.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

26. Poztu dadila, Jauna, fededunen herria,
zure eskumak indarbarriturik
aurrera egin dagian kristau-bizitzan
eta oraingo eta geroko ondasunez gozatu dagian.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Santuen jaietan

27. Poztu dadila, Jauna, kristau-herria,
zure Semearen gorputzeko atal diran
santuak gorestean,
eta egizu, hareen jaieguna ospatzen dogunok
eurek lez egun baten jadetsi daigula
betiko zoriona.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

28. Bihotz-barritu egizuz, Jauna, zeure fededunak
eta, santuen otoitzari esker,
zaindu egizuz beti zeure babespean.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

MEZAREN EGUNEROKOA

LAGUNTZAILEAREKIN BAKARRIK

Hasierako ohikuneak

1. Abadea laguntzailearekin altarara doa eta, haregaz batera behar dan agurra egindakoan, altareari mun egin eta jesarlekura joango da.

Orduan laguntzaileak edo abadeak berak sarrerako antifona irakurriko dau. Ondoren abadeak eta laguntzaileak, zutunik, aitaren egingo dabe, abadeak laguntzaileari begira esango dauala:

Aitaren, eta Semearen, eta Espiritu Santuaren izenean.

Laguntzaileak erantzungo dau:

Amen.

2. Orduan, abadeak, besoak zabalduz, laguntzaileari begira agurtu egingo dau, esanez:

Jauna zuekin.

Laguntzaileak erantzungo dau:

Eta zure espirituarekin.

Mezaren Egunerokoan datozan agurra egiteko beste erak erabili leitekez, 425-429. or.

3. Gero, abadeak eta laguntzaileak damu-otoitza egingo dabe:

Autortzen deutsat Jainko guztiz ahaltsuari,
eta zuri ere bai, ene senide horri,
pekatu egin dodala
gogapen, hitz eta egitez,
eta eginbeharrak ez eginez;

Eta bularra joz, esango dabe:

bai, pekatari naz.

Gero jarraituko dabe:

Horregaitik eskatzen deutset Andra Maria beti Birjinari,
aingeru eta santu guztiei
eta zuri ere bai, ene senide horri,
otoitz egin deiozula nire alde Jainko gure Jaunari.

Ondoren, abadeak parkamen-eskaria egingo dau:

Erruki dakigula Jainko guztiz ahaltsua
eta, gure pekatuak parkaturik,
eroan gaizala betiko bizitzara.

Laguntzaileak erantzungo dau:

Amen.

Damu-otoitza egiteko, Mezaren Egunerokoan datozan beste erak erabili leitekez, 430-444. or.

4. Ondoren, Erruki, Jauna eskariak egingo dira, abadeak eta laguntzaileak txandaka esanez:

℣. Erruki, Jauna.
℟. Erruki, Jauna.
℣. Kristo, erruki.
℟. Kristo, erruki.
℣. Erruki, Jauna.
℟. Erruki, Jauna.

℣. Kýrie, eléison.
℟. Kýrie, eléison.
℣. Christe, eléison.
℟. Christe, eléison.
℣. Kýrie, eléison.
℟. Kýrie, eléison.

5. Ondoren, eguneko liturgiak agintzen dauanean, abadeak eta laguntzaileak Aintza zeruetan gorazarrea esango dabe, 445. or.

6. Gorazarrea amaitutakoan, abadeak, eskuak baturik, esango dau:

Egin dagigun otoitz.

Eta unetxu baten isilik otoitz egin ondoren, besoak zabaldu eta otoitza esango dau; amaitutakoan, laguntzaileak esango dau:

Amen.

Hitzaren liturgia

7. Gero, laguntzaileak edo abadeak berak aldarrikatuko ditu lehenengo irakurgaia, salmoa, bigarren irakurgaia, egin behar bada, eta beste kantua.

8. Ondoren abadeak, makurturik, ahots apalez esango dau:

Garbitu egizuz, Jainko ahalguztidun horrek,
nire ezpanak eta bihotza,
Ebanjelio santua egoki aldarrika ahal izan dagidan.

9. Gero, eskuak baturik, esango dau:

Jauna zuekin.

Laguntzaileak erantzungo dau:

Eta zure espirituarekin.

Abadeak:

Jesu Kristoren Ebanjelioa San I.[r]en liburutik.

Eta, hau esatean, kurutze-seinalea egingo dau liburuan eta, gero, bere bekokian, ahoan eta bularrean. Laguntzaileak erantzungo dau:

Aintza Zuri, Jauna.

Ondoren, abadeak ebanjelioa iragarriko dau; eta amaitutakoan esango dau:

Jaunak esana.

Laguntzaileak erantzungo dau:

Eskerrak Zuri, Jauna.

Ondoren, abadeak mun egingo deutso liburuari, ahots apalez esanez:

Ebanjelioko hitzez gure pekatuak garbitu beitez.

10. Gero, egin beharrekoa bada, fede-autormena egingo dabe abadeak eta laguntzaileak, 453-456. or.

11. Jarraian, Jainkoaren herriaren otoitza egin leiteke; sarrera eta amaierako otoitza abadeak egingo ditu, otoitzerako asmoak, barriz, laguntzaileak aurkeztuko.

Badira IV. Eranskinean Jainkoaren herriaren otoitz-formulario batzuk (ik. 1293. or.)

Eukaristiaren liturgia

12. Altara gainean jarriko ditu laguntzaileak sagara-oihala, garbi-zapitxua, kaliza eta Meza Liburua, hasieratik jarrita ez baegozan, eta altara-erdira etorriko da abadea.

13. Patena ogiagaz ekarriko deutso laguntzaileak eta, altara gainean apur bat jasorik, esango dau ahots apalez:

Bedeinkatua Zu, Jauna, zeru-lurren Jaungoikoa;
zeure esku zabaletik hartu dogu
orain ekarri deutsugun ogi hau,
lurraren indarrak eta gizakiaren lanak sortua;
hauxe egingo jaku biziaren ogi.

Ondoren, patena ogiagaz sagara-oihalean itziko dau. Azkenean, laguntzaileak hau erantzun leike:

Bedeinkatua Zu, Jauna, orain eta beti.

14. Ondoren, abadeak ardaoa eta ur apur bat botako ditu kalizara, ahots apalez esanez:

Gizatasunean gugaz bat egin ebanak,
uraren eta ardaoaren bat-egite honen bidez,
egin gaizala bat beragaz jainkotasunean.

15. Gero, kaliza hartu eta, altara gainean apur bat jasorik, esango dau ahots apalez:

Bedeinkatua Zu, Jauna, zeru-lurren Jaungoikoa;
zeure esku zabaletik hartu dogu
orain ekarri deutsugun ardao hau,
mahatsondoaren indarrak eta gizakiaren lanak sortua;
hauxe egingo jaku betiko zorionaren edari.

Ondoren, kaliza sagara-oihalean itziko dau. Azkenean, laguntzaileak hau erantzun leike:

Bedeinkatua Zu, Jauna, orain eta beti.

16. Jarraian, abadeak, makurturik, ahots apalez esango dau:

Onartu gaizuz, Jauna, apal eta damuturik gagozanok
eta gure oparia, Jainko Jauna, atsegin dakizula.

17. Ondoren, altarearen aldamenean, eskuak garbituko ditu, ahots apalez esanez:

Garbitu nagizu zeharo, Jauna, neure errutik,
garbitu neure pekatutik.

18. Jarraian, altara erdian zutunik, laguntzaileari begira, besoak zabalduz eta batuz, esango dau:

Senideok,
egin daigun otoitz, guztiok batean,
Eleiza osoaren oparia Jaungoikoari eskeintzekoan.

Laguntzaileak erantzungo dau:

Jainkoa goresteko eta gizakia salbatzeko.

Gero, abadeak, besoak zabalik, oparigaien gaineko otoitza esango dau; eta, amaitzean, laguntzaileak esango dau:

Amen.

19. Orduan abadeak Eukaristi Otoitza esango dau, Eukaristi Otoitz bakotxerako emonak dagozan arauak gordez, 563-615. or.

20. Eukaristi Otoitzaren amaierako gorespenaren ondoren, kaliza eta patena itzi eta abadeak, eskuak baturik, esango dau:

Salbatzaileak agindu eta irakatsiari jarraituz,
bildur barik esan dagigun:

Besoak zabaldu eta, laguntzailearekin batera, jarraituko dau:

Gure Aita, zeruetan zarana:
santu izan bedi zure izena,
etor bedi zure erreinua,
egin bedi zure nahia
zeruan bezala lurrean ere.
Emoiguzu gaur egun honetako ogia;
parkatu gure zorrak,
geuk ere geure zordunei
parkatzen deutsegun ezkero,
ez eiguzu itzi tentazinoan jausten,
baina atara gagizuz gatxetik.

21. Abadeak, besoak zabalik, berak bakarrik jarraituko dau:

Atara gagizuz, Jauna, gatx guztietatik;
emoiguzu bakea gure egunotan;
zure errukiari esker
pekatutik garbi bizi gaitezan
eta estualdietan sendo,
betiko zorionaren itxaropenean,
Jesu Kristo gure salbatzailea
noiz etorriko dan zain gagozala.

Eskuak batuko ditu.
Laguntzaileak gorapen honegaz amaituko dau otoitza:

Zeurea dozu erregetza,
zeureak ospe eta indarra
orain eta beti.

22. Gero, abadeak, besoak zabalik, ozen esango dau:

Jesu Kristo gure Jauna,
Zeuk esana da Apostoluei:
«Bakea izten deutsuet,
neure bakea emoten»:
Begira zeure Eleizearen sinismenari
eta ez gure pekatuei
eta, zeure gogoa danez,
emoiozu Eleizeari bakea,
emon batasuna.

Eskuak batuko ditu:

Errege bizi zara-eta gizaldi eta gizaldietan.

Laguntzaileak erantzungo dau:

Amen.

23. Abadeak, laguntzaileari begira, besoak zabalduz eta batuz, esango dau:

Jaunaren bakea beti zuekin.

Laguntzaileak erantzungo dau:

Eta zure espirituarekin.

Eta abadeak, egoki eretxi ezkero, bakea emongo deutso laguntzaileari.

24. Gero, abadeak ostia sagaratua hartu eta patenaren gainean zatituko dau; bitartean laguntzaileak esango dau:

Jaungoikoaren Bildotsa, Zeuk kentzen dozu munduko pekatua: erruki, Jauna.
Jaungoikoaren Bildotsa, Zeuk kentzen dozu munduko pekatua: erruki, Jauna.
Jaungoikoaren Bildotsa, Zeuk kentzen dozu munduko pekatua: emoiguzu bakea.

Abadeak zati txiki bat kalizara botako dau, ahots apalez esanez:

Kaliza honetan batzen diran
Jesu Kristo gure Jaunaren Gorputza eta Odola
izan beitez, hartzen ditugunontzat,
betiko bizirako.

25. Ondoren, abadeak, eskuak baturik, ahots apalez esango dau:

Jesu Kristo gure Jauna, Jainko biziaren Semea,
Aitak halan nahirik eta Espiritu Santuak lagunduta,
zeure heriotzaz bizia emon deutsazu munduari;
zeure Gorputz eta Odol santuen bitartez,
atara nagizu neure gaiztakeria eta gatx guztietatik;
lotu nakiela beti zure aginduei
eta ez nadila behin ere Zugandik urrundu.

Edo:

Jesu Kristo gure Jauna,
zure Gorputza eta Odola hartzea izan bedi,
zure bihotz onari esker,
nire gorputz-arimen babes eta salbamenerako
eta ez nire auzi eta kalterako.

26. Abadeak, belaunikatu ondoren, ostia sagaratua hartu eta, patenaren gainean apur bat jasorik, laguntzaileari erakutsiko deutso, esanez:

Hona hemen Jaungoikoaren Bildotsa,
hona munduko pekatua kentzen dauana.
Zoriontsuak Jaunaren mahaira deituak!

Eta, laguntzailearekin batera, behin bakarrik, esango dau:

Jauna, ni ez naz inor Zu nire etxean sartzeko;
baina esaizu hitz bat eta osatuko naz.

Laguntzaileak ez badau jaunartu behar, abadeak ostia hartu eta esango dau: Jauna, ni ez naz inor...

27. Gero, ahots apalez esango dau:

Kristoren Gorputzak zaindu nagiala betiko bizirako.

Eta, begirune handiz, Kristoren Gorputza hartuko dau. Gero, kaliza hartu eta, ahots apalez, esango dau:

Kristoren Odolak zaindu nagiala betiko bizirako.

Eta, begirune handiz, Kristoren Odola hartuko dau.

28. Bitartean, laguntzaileak jaunartze-antifona esango dau.

29. Ondoren, patena hartu eta, laguntzaileak jaunartu behar badau, beragana hurreratuko da eta, ostia sagaratua apur bat jasorik, erakutsiko deutso, esanez:

Kristoren Gorputza.

Laguntzaileak erantzungo dau:

Amen.

Eta gure Jauna hartuko dau.

30. Abadeak patena kalizaren gainean garbituko dau eta kaliza ere bai. Eta laguntzaileak alboko mahai txikira eroango ditu kaliza, patena, sagara-oihala eta garbi-zapitxua, edo altaran bertan itzi leikez.

Garbiketa bitartean, abadeak, ahots apalez, esango dau:

Ahoz hartu dogun hau gogo biziz hartu daigula, Jauna,
eta gaurko dohai hau betiko salbamen izan dakigula.

31. Isilune bat egin leiteke.

32. Ondoren, abadeak, eskuak baturik, esango dau:

Egin daigun otoitz.

Eta unetxu batez otoitzean isilik egon ondoren, isilune hau aurretik egin ez bada, besoak zabalik, jaunartze ondorengo otoitza esango dau. Amaieran laguntzaileak esango dau:

Amen.

Amaierako ohikunea

33. Ondoren, abadeak, laguntzaileari begira eta besoak zabalduz, esango dau:

Jauna zuekin.

Laguntzaileak erantzungo dau:

Eta zure espirituarekin.

Abadeak laguntzailea bedeinkatuko dau, esanez:

Bedeinkatu zagiezala Jaungoiko ahalguztidunak:
Aitak, eta Semeak, ✠ eta Espiritu Santuak.

Laguntzaileak erantzungo dau:

Amen.

34. Gero, abadeak altareari mun egingo deutso begirunez eta, laguntzailearekin batera makurtze nagusia egin ondoren, joan egingo da.

MEZAREN EGUNEROKOAREN ERANSKINA

«Adiskidetzeari buruzko» Eukaristi Otoitzak, fededunei adiskidetzearen misterioa era berezian adierazoten jaken Mezetan erabili leitekez; esate baterako, Meza honeetan: bihotz-batasuna indartzeko, adiskidetzeko, bakearen eta zuzentasunaren aldeko, gudaldi nahiz iraultzaldiko, pekatuen parkamena eskatzeko, maitasuna eskatzeko, Kurutze santuaren misterioko, Eukaristia santuaren, Jesu Kristo gure Jaunaren Odol baliotsuaren, nahiz Garizuma aldiko Mezetan. Eukaristi Otoitz honeek euren prefazioak badabez ere, erabili leitekez penitentzia eta bihotz-barritzea gai daben beste prefazioarekin ere, esate baterako, Garizumako prefazioekin.

Zelan esan «adiskidetzeari buruzko» I. Eukaristi Otoitza alkarmezan erabiltzen danean

Prefazioa eta Santu zara, bai-tik Zu santu zaran lez arte meza-emoile nagusiak bakarrik esango dau, besoak zabalik.

Begira, arren-dik harengan gara-eta zure seme-alaba arte alkarmeza-emoile guztiek batera esango dabe, eskuak oparigaien gainera luzatuz.

Galduak ginala-tik ezelako zatiketa barik arte alkarmeza-emoile guztiek batera esango dabe, honan:

a) Galduak ginala, Baina, bere besoak eta Eurekin mahaian egoala eskuak batuta;

b) Jaunaren hitzak, egoki eretxi ezkero, eskumako eskua ogirantz eta kalizarantz luzatuz; meza-emoile nagusiak ostia eta kaliza fededunei erakustean, ostiari eta kalizari begituko deutsie, eta gero makurtze nagusia egingo dabe.

c) Horregaitik, Jauna eta Aita guztiz ona besoak zabalik.

Egizu, gu guztiok eskaria alkarmeza-emoileetako batek esatea komeni da, berak bakarrik eta besoak zabalik.

Batez ere zati honeek: Baina, bere besoak, Eurekin mahaian egoala, Era berean, afalondoan, Horregaitik, Jauna, Aita guztiz ona eta amaierako doxologia kantuz esan leitekez.

Eukaristi Otoitzeko azken doxologia meza-emoile nagusiak bakarrik, nahiz berarekin batera alkarmeza-emoile guztiek esan leikie.

«ADISKIDETZEARI BURUZKO»
EUKARISTI OTOITZAK

I

1. ℣. Jauna zuekin.
   ℟. Eta zure espirituarekin.
   ℣. Gora bihotzak.
   ℟. Jaunagan daukaguz.
   ℣. Eskerrak Jaungoiko gure Jaunari.
   ℟. Egoki da eta zuzen.

Meza-emoile nagusiak

Egoki da, bai, eta zuzen,
bidezko eta salbagarri,
Zuri, Jauna, Aita guztiz santu horri,
eskerrak emotea,
beteagoa dan bizira deitzen deuskuzulako beti.

Jainko guztiz ona eta errukitsua,
eten barik eskeintzen dozu zeure parkamena
eta dei egiten deutsezu pekatariei
uste on osoa zeure errukian bakarrik izan dagien.

Ez gaituzu itzi
zure ituna hainbeste aldiz desegin dogunok
eta, lokarri ezin hausiz,
gizon-emakume guztiak Zeurekin bat egin dituzu,
zeure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Beraz, graziaren eta baketzearen denpora
eskeintzen deutsazu zeure herriari
eta Kristoren arnasa emoten,
Zugana bihurtu dadin
eta gizaki guztien zerbitzari izan,
Espiritu Santuarekin alkartuago biziz.

Horregaitik, zure miragarriez beterik,
eskerrak emoten deutsuguz
eta, zeruko talde guztiekin batean,
pozik goresten ditugu zure maitasun indartsua
eta salbamenaren alaitasuna,
bihotz batez [esanez] kantari:

Santu, Santu, Santua,
diran guztien Jainko Jauna.
Zeru-lurrak beterik daukaz zure distirak.
Hosanna zeru-goienetan!
Bedeinkatua Jaunaren izenean datorrena.
Hosanna zeru-goienetan!

2. Abadeak, besoak zabalik, esango dau:

Meza-emoile nagusiak

Santu zara, bai, Jauna.
Zuk, munduaren hasieratik,
on jakona emoten deutsazu gizakiari,
santu izan dadin, Zu santu zaran lez.

3. Eskuak oparigaien gainean zabalik dituala, esango dau:

Alkarmeza--emoile guztiek

Begitu, arren, zeure herriaren dohaiei
eta isuri horreen gainera zeure Espirituaren indarra,
eskeintza honeek
Jesu Kristo zure Seme maitearen

Eskuak batu eta kurutze-seinalea egingo dau, behin bakarrik, ogiaren eta kalizaren gainean, esanez:

Gorputz eta ✠ Odol egin daitezan,

Eskuak batuko ditu:

beragan garealako zure seme-alaba.

Galduta gengozala eta Zugana ezin hurreratu ginanean,
azkeneraino maite izan ginduzuzan;
zuzen bakarra dan zure Semeak
gure eskuetara emon eban bere burua
eta kurutzeratu egin eben.

Baina, bere besoak zeru-lurren artean zabalduz
zure itunaren betiko ezaugarria egin baino lehen,
bere ikasleekin Pazkoa ospatu nahi izan eban.

4. Hurrengo esaldietan, Jaunaren hitzak garbi eta agirian esan behar dira, hitz horreek eurek eskatzen dabenez.

Eurekin mahaian egoala,

Ogia hartu eta, altara gainean apur bat jasorik, jarraituko dau:

ogia hartu eta, Zuri eskerrak emonez,
bedeinkatu eban,
zatitu eta hareei emon eutsen, esanez:

Apur bat makurtuko da.

HARTU EIZUE ETA JAN GUZTIOK HONETATIK:
HAU NEURE GORPUTZA DA-ETA,
ZUENTZAT EMONGO DANA.

Ostia sagaratua herriari erakutsiko deutso; gero, patenaren gainean itzi eta, belaunikaturik, gurtu egingo dau.

5. Ondoren, esango dau:

Era berean, afalondoan,
kurutzean isuriko eban odolaz
gauza guztiak beragaz baketuko zituala jakinik,

Kaliza hartu eta, altara gainean apur bat jasorik, jarraituko dau:

hartu eban kaliza ardaoz betea
eta, barriz ere eskerrak emonez,
bere ikasleei emon eutsen, esanez:

Apur bat makurtuko da.

HARTU EIZUE ETA EDAN GUZTIOK HONETATIK:
HAU NEURE ODOLAREN KALIZA DA-ETA,
ITUN BARRI ETA BETIKOAREN ODOLA,
ZUENTZAT ETA ASKORENTZAT
PEKATUAK PARKATZEKO ISURIKO DANA.
EGIZUE HAU NEURE OROIGARRI.

Kaliza herriari erakutsiko deutso; gero, sagara-oihalean itzi eta, belaunikaturik, gurtu egingo dau.

6. Ondoren, esango dau:

Meza-emoile nagusiak

Hau da sinismenaren misterioa.

Eta herriak gorapen honeetakoren batekin erantzungo dau:

Hil eta biztu zarala, Jauna,
Zu barriz etorri arte,
hau dogu, hau, barri ona!

Edo:

Ogi-ardao honeek hartzean,
zure heriotza dogu autortzen,
Zeu, Jauna, etorri artean.

Edo:

Zeure kurutze eta biztueraz
munduaren salbatzaile zarana,
salba gagizuz, Jesus Jauna!

7. Gero, abadeak, besoak zabalik, esango dau:

Alkarmeza-emoile guztiek

Horregaitik, Jauna, Jesu Kristo gure Pazkoa
eta gure behin betiko bakea gogoratuz,
haren heriotza
eta hilen artetik biztea ospatzen dogula
eta haren azken etorrerako egun pozgarria
itxaroten dogula,
eskeintzen deutsugu Zuri, Jainko zuzen eta leial horri,
gizakiak Zurekin baketzen dituan oparia.

Aita guztiz ona,
begitu begi onez zeure Semearen sakrifizioaz
Zeurekin bat egiten dituzunei,
eta egizu, ogi eta kaliza beretik hartzen dabela,
Espiritu Santuaren indarrez
gorputz bat izan daitezala Kristogan,
ezelako zatiketa barik.

Alkarmeza-emoile batek

Egizu, gu guztiok gogo-bihotzez
bat izan gaitezala alkarrekin,
I. gure Aita Santuarekin,
eta I. gure Gotzainarekin,
eta I. Gotzain Laguntzailearekin.

Meza Gotzainak bere eleizbarrutian ospatzen dauanean, esango dau:

nirekin, zure zerbitzari ezerez honekin,

Eleizbarrutikoa ez dan beste Gotzain bat danean, ik. *Erromako Meza Liburuaren Eraketa Orokorra*, 31. or.ko 149. zk.an zelan egin aipamen hau.

Emoiguzu zeure erreinuaren etorrera prestatzeko indarra,
zure ondoan agertuko garan ordura arte;
han santu izango gara, zeruko santuen artean,
Jainkoaren Ama Maria Birjina dohatsuarekin,
Apostoluekin eta santu guztiekin,
eta zure errukiaren esku izten ditugun
hildako gure senideekin.

Orduan, izaki barri eginik,
azkenean pekatutik eta heriotzatik askatuta,
beti bizi dan Kristoren esker ona abestuko deutsugu.

Eskuak batuko ditu.

8. Patena ostia sagaratuarekin eta kaliza hartu eta, biak jasorik, esango dau:

Meza-emoile nagusiak nahiz guztiek

Honen bitartez, honekin eta honengan,
Zuri, Jainko Aita ahalguztidun horri,
Espiritu Santuarekin batean,
ospe eta aintza guztia
gizaldi eta gizaldi guztietan.

Herriak gorapen honegaz erantzungo dau:

Amen.

Ondoren, jaunartze-ohikunea egingo da, 623. or.

Zelan esan «adiskidetzeari buruzko» II. Eukaristi Otoitza alkarmezan erabiltzen danean

Prefazioa eta Diran guztien Jainkoa-tik alkar maitatu daigun arte meza-emoile nagusiak bakarrik esango dau, besoak zabalik.

Orain, beraz, Kristok-etik betetzen dogun ezkero arte alkarmeza-emoile guztiek batera esango dabe, eskuak oparigaien gainera luzatuz.

Berak, gu salbatzeko-tik bereizkeria sortzen daben gauza guztiak arte alkarmeza-emoile guztiek batera esango dabe, honan:

a) Berak, gu salbatzeko eskuak batuta;

b) Jaunaren hitzak, egoki eretxi ezkero, eskumako eskua ogirantz eta kalizarantz luzatuz; meza-emoile nagusiak ostia eta kaliza fededunei erakustean, ostiari eta kalizari begituko deutsie, eta gero makurtze nagusia egingo dabe;

c) Jainko gure Jauna eta Aita guztiz santua besoak zabalik.

Espiritu honek egin dagiala eta Egizu, arren, zeure Eleizea eskariak alkarmeza-emoileetako batek nahiz bestek esatea komeni da, berak bakarrik eta besoak zabalik.

Batez ere zati honeek: Orain, beraz, Kristok, Berak gu salbatzeko, Era berean, arratsalde haretan bertan, Jainko gure Jauna, Aita guztiz santua eta amaierako doxologia kantuz esan leitekez.

Eukaristi Otoitzeko azken doxologia meza-emoile nagusiak bakarrik, nahiz berarekin batera alkarmeza-emoile guztiek esan leikie.

«ADISKIDETZEARI BURUZKO»
EUKARISTI OTOITZAK

II

1. ℣. Jauna zuekin.
   ℟. Eta zure espirituarekin.
   ℣. Gora bihotzak.
   ℟. Jaunagan daukaguz.
   ℣. Eskerrak Jaungoiko gure Jaunari.
   ℟. Egoki da eta zuzen.

Meza-emoile nagusiak

Jainko Aita ahalguztiduna,
eskerrak eta gorespenak emoten deutsuguz
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
mundu honetan egin dituzun gauza guztiakaitik.

Gizakiak alkarren arerio eta aurkari dirala,
badakigu eta ikusten dogu
Zeuk erakartzen dituzula bihotzak
alkarrekin bakeak egitera.

Zure Espirituak lanean dihardu
gizon-emakumeen bihotzean
eta, horri esker,
arerio ziranak alkarrizketan hasten dira barriro,
alkarri esku emonez,
eta herriek ere alkarren bidera urteten dabe,
batak besteari lagunduz.

Bai, zure indarrari esker,
bakearen maitasuna nagusitzen jako gerreari,
parkamena bengantzeari
eta adiskidetasuna areriotasunari.

Horregaitik, beti eskerrak emon behar deutsuguz lurrean,
zure handitasuna goresten daben zerutar guztiekin,
goraki [esanez] abestuz:

Santu, Santu, Santua,
diran guztien Jainko Jauna.
Zeru-lurrak beterik daukaz zure distirak.
Hosanna zeru-goienetan!
Bedeinkatua Jaunaren izenean datorrena.
Hosanna zeru-goienetan!

2. Abadeak, besoak zabalik, esango dau:

Meza-emoile nagusiak

Diran guztien Jainkoa, eskerrak Zuri,
mundu honetara zure izenean etorri dan
Jesu Kristo zure Semeagaitik.
Bera da gizon-emakumeak salbatzen dituan Hitza,
pekatariei luzatzen deutsezun eskua,
zure bakea dakarskun bidea.
Jainko gure Aita, Zugandik urrun gengozala,
barriro Zeugana erakarri ginduzuzan,
zeure Semearen bitartez.
Bera heriotzara eroan dozu,
gu Zugana bihurtu gaitezan
eta alkar maitatu daigun.

3. Eskuak oparigaien gainean zabalik dituala, esango dau:

Alkarmeza--emoile guztiek

Orain, beraz, Kristok ekarri deuskun adiskidetzea
ospatzen dogula,
otoitz egiten deutsugu:
santu egizuz dohai honeek zeure Espiritua isuriz,
Jesu Kristo zure Semearen

Eskuak batu eta kurutze-seinalea egingo dau, behin bakarrik, ogiaren eta kalizaren gainean esanez:

Gorputz eta ✠ Odol egin daitezan,
berak esan deuskuna betetzen dogun ezkero.

Eskuak batuko ditu.

4. Hurrengo esaldietan, Jaunaren hitzak garbi eta agirian esan behar dira, hitz horreek eurek eskatzen dabenez.

Berak, gu salbatzeko bere bizia emoterakoan,
mahaian egoala,

Ogia hartu eta, altara gainean apur bat jasorik, jarraituko dau:

bere eskuetan ogia hartu
eta, Zuri eskerrak emonez, bedeinkatu eban,
zatitu eta bere ikasleei emon eutsen, esanez:

Apur bat makurtuko da.

HARTU EIZUE ETA JAN GUZTIOK HONETATIK:
HAU NEURE GORPUTZA DA-ETA,
ZUENTZAT EMONGO DANA.

Ostia sagaratua herriari erakutsiko deutso; gero, patenaren gainean itzi eta, belaunikaturik, gurtu egingo dau.

5. Ondoren, esango dau:

Era berean, arratsalde haretan bertan,

Kaliza hartu eta, altara gainean apur bat jasorik, jarraituko dau:

eta, zure errukiagaitik eskerrak emonez,
hartu eban bedeinkapen-kaliza
eta bere ikasleei emon eutsen, esanez:

Apur bat makurtuko da.

HARTU EIZUE ETA EDAN GUZTIOK HONETATIK:
HAU NEURE ODOLAREN KALIZA DA-ETA,
ITUN BARRI ETA BETIKOAREN ODOLA,
ZUENTZAT ETA ASKORENTZAT
PEKATUAK PARKATZEKO ISURIKO DANA.
EGIZUE HAU NEURE OROIGARRI.

Kaliza herriari erakutsiko deutso; gero, sagara-oihalean itzi eta, belaunikaturik, gurtu egingo dau.

6. Ondoren, esango dau:

Meza-emoile nagusiak

Hau da sinismenaren misterioa.

Eta herriak gorapen honeetakoren batekin erantzungo dau:

Hil eta biztu zarala, Jauna,
Zu barriz etorri arte,
hau dogu, hau, barri ona!

Edo:

Ogi-ardao honeek hartzean,
zure heriotza dogu autortzen,
Zeu, Jauna, etorri artean.

Edo:

Zeure kurutze eta biztueraz
munduaren salbatzaile zarana,
salba gagizuz, Jesus Jauna!

7. Gero abadeak, besoak zabalik, esango dau:

Alkarmeza-emoile guztiek

Jainko gure Jauna,
zure Semeak bere maitasunaren oroigarria itzi euskun;
haren heriotza eta biztuera gogoratuz,
berak emon euskun oparia eskeintzen deutsugu:
guztiz adiskidetzen gaituan sakrifizioa.

Aita guztiz santua,
onartu gaizuz, arren, zeure Semearekin batean
eta emoiguzu salbameneko mahai honetan
haren Espiritua:
kendu dagizala gure artean bereizkeria sortzen daben
gauza guztiak.

Alkarmeza-emoile batek

Espiritu honek egin dagiala zure Eleizea gizakien artean
egiazko batasunaren ezaugarri
eta bakearen zerbitzari
I. gure Aita Santuarekin,
I. gure Gotzainarekin,
I. Gotzain Laguntzailearekin,

Meza Gotzainak bere eleizbarrutian ospatzen dauanean, esango dau:

nirekin, zure zerbitzari ezerez honekin,

Eleizbarrutikoa ez dan beste Gotzain bat danean, ik. *Erromako Meza Liburuaren Eraketa Orokorra*, 31. or.ko 149. zk.an zelan egin aipamen hau.

beste Gotzain guztiekin eta zure herri osoarekin.

Eta gu zeure Semearen mahai honetan
batu gaituzun lez,
batu gaizuz zeure erreinuko mahaian
zeru barrian eta lur barrian,
betiko bakea izango dan lekuan,
Jainkoaren Ama Maria Birjina dohatsuarekin,
zure Apostoluekin eta santu guztiekin batean,
baita gure senideekin be
eta Zurekin adiskide hil diran
edozein herri, leinu eta hizkuntzetako
gizon-emakumeekin.
Orduan, bai, goretsiko dogu batasunaren betea
eta betiko bakea,

Eskuak batuko ditu.

Jesu Kristo gure Jaunagan.

8. Patena ostia sagaratuarekin eta kaliza hartu eta, biak jasorik, esango dau:

Meza-emoile nagusiak nahiz guztiek

Honen bitartez, honekin eta honengan,
Zuri, Jainko Aita ahalguztidun horri,
Espiritu Santuarekin batean,
ospe eta aintza guztia
gizaldi eta gizaldi guztietan.

Herriak gorapen honegaz erantzungo dau:

Amen.

Ondoren, jaunartze-ohikunea egingo da, 623. or.

Zelan esan «beharrizan batzuetarako Mezetan erabili leiteken» Eukaristi Otoitza alkarmezan erabiltzen danean

Prefazioa eta Santu zara, bai-tik zatitzen deusku ogia arte meza-emoile nagusiak bakarrik esango dau, besoak zabalik.

Horregaitik eskatzen deutsugu-tik egin daitezan guretzat arte alkarmeza-emoile guztiek batera esango dabe, eskuak oparigaien gainera luzatuz.

Berak, hil bezpera-tik orain eta betieran arte alkarmeza-emoile guztiek batera esango dabez, honan:

a) Berak, hil bezperan eskuak batuta;

b) Jaunaren hitzak, egoki eretxi ezkero, eskumako eskua ogirantz eta kalizarantz luzatuz; meza-emoile nagusiak ostia eta kaliza fededunei erakustean, ostiari eta kalizari begituko deutsie, eta gero makurtze nagusia egingo dabe;

c) Horregaitik, Aita guztiz santua eta Begira, Aita ona besoak zabalik.

Arnasbarritu egizu (I. era), edo Zeure mahaira deitu (II. era), edo Misterio honetan parte (III. era), nahiz Eroan egizu, Jauna (IV. era) eta Izan gogoan, Aita ona eskariak alkarmeza-emoileetako batek nahiz bestek esatea komeni da, berak bakarrik eta besoak zabalik.

Batez ere zati honeek: Berak, hil bezperan, Era berean, afalondoan, Horregaitik, Aita guztiz santua, Begira, Aita ona eta amaierako doxologia kantuz esan leitekez.

Eukaristi Otoitzeko azken doxologia meza-emoile nagusiak bakarrik, nahiz berarekin batera alkarmeza-emoile guztiek esan leikie.

BEHARRIZAN BATZUETARAKO MEZETAN ERABILI LEITEKEN EUKARISTI OTOITZA

I. era

Eleiza, batasunera bidean

1. Eukaristi Otoitz hau ondorengo Meza honeetan da egoki erabiltzea: Eleizarentzat, Aita Santuarentzat, Gotzainarentzat, Aita Santua nahiz Gotzaina aukeratzeko, Kontzilioa nahiz Sinodoa danean, abadeentzat, abadeak norberarentzat, eleiz zerbitzarientzat edo gogarte- nahiz pastoraltza-batzarra danean emoten diran Mezetan.

℣. Jauna zuekin.
℟. Eta zure espirituarekin.
℣. Gora bihotzak.
℟. Jaunagan daukaguz.
℣. Eskerrak Jaungoiko gure Jaunari.
℟. Egoki da eta zuzen.

Meza-emoile nagusiak

Egoki da, bai, eta zuzen,
bidezko eta salbagarri,
Zuri, Jauna, Aita guztiz on horri, eskerrak emotea
eta gorespen-gorazarrea kantatzea.

Zure Semeak iragarri deuskun Barri Onari esker,
Eleiza bakarra batu dozu
herri, hizkuntza eta lurralde guztietatik;
eta zeure Espirituaren indarrez bizibarritzen dozun
Eleiza honen bidez
gizon-emakume guztiak
batasunean alkartzen diharduzu beti eta beti.

Zuk maitasunez egindako ituna autortuz,
itxaropen zoriontsuaren erreinuko ateak
edegiten deutsez Eleizeak guztiei eten barik;
Eleiza hori dogu,
Jesu Kristo gure Jaunagan
Zuk betiko agindu deuskuzun
leialtasunaren ezaugarri distiratsu.

Horregaitik, zeruko indar guztiekin,
lurrean beti eta beti goresten zaitugu,
mundu guztiko Eleizarekin batean
bihotz batez [esanez] kantari:

Santu, Santu, Santua...

2. Abadeak, besoak zabalik, esango dau:

Meza-emoile nagusiak

Santu zara, bai, eta goresgarri,
gizon-emakumeak maite dituzun Jainkoa:
Zu beti geugaz zaitugu bidelagun.
Bedeinkatua zure Semea;
gure artean da, bere maitasunez batzen gaituala.
Behinola ikasleei lez,
geuri ere berak argitzen deuskuz Liburu Santuak
eta berak zatitzen deusku ogia.

3. Eskuak oparigaien gainean zabalik dituala, esango dau:

Alkarmeza--emoile guztiek

Horregaitik eskatzen deutsugu,
Aita guztiz ona:
isuri egizu zeure Espiritu Santua
ogi eta ardao honeek santu egin dagizan

Eskuak batu eta kurutze-seinalea egingo dau, behin bakarrik, ogiaren eta kalizaren gainean, esanez:

eta Jesu Kristo gure Jaunaren
Gorputz eta ✠ Odol egin daitezan guretzat.

Eskuak batuko ditu.

4. Hurrengo esaldietan, Jaunaren hitzak garbi eta agirian esan behar dira, hitz horreek eurek eskatzen dabenez.

Berak, hil bezperan,
Azken Afariko gauean,

Ogia hartu eta, altara gainean apur bat jasorik, jarraituko dau:

ogia hartu, bedeinkatu eta zatitu eban,
eta bere ikasleei emon eutsen, esanez:

Apur bat makurtuko da.

HARTU EIZUE ETA JAN GUZTIOK HONETATIK:
HAU NEURE GORPUTZA DA-ETA,
ZUENTZAT EMONGO DANA.

Ostia sagaratua herriari erakutsiko deutso; gero, patenaren gainean itzi eta, belaunikaturik, gurtu egingo dau.

5. Ondoren, esango dau:

Era berean, afalondoan,

Kaliza hartu eta, altara gainean apur bat jasorik, jarraituko dau:

kaliza harturik
eta Zuri eskerrak emonez,
bere ikasleei emon eutsen, esanez:

Apur bat makurtuko da.

HARTU EIZUE ETA EDAN GUZTIOK HONETATIK:
HAU NEURE ODOLAREN KALIZA DA-ETA,
ITUN BARRI ETA BETIKOAREN ODOLA,
ZUENTZAT ETA ASKORENTZAT
PEKATUAK PARKATZEKO ISURIKO DANA.
EGIZUE HAU NEURE OROIGARRI.

Kaliza herriari erakutsiko deutso; gero, sagara-oihalean itzi eta, belaunikaturik, gurtu egingo dau.

6. Ondoren, esango dau:

Meza-emoile nagusiak

Hau da sinismenaren misterioa.

Eta herriak gorapen honeetakoren batekaz erantzungo dau:

Hil eta biztu zarala, Jauna,
Zu barriz etorri arte
hau dogu, hau, barri ona!

Edo:

Ogi-ardao honeek hartzean,
zure heriotza dogu autortzen,
Zeu, Jauna, etorri artean.

Edo:

Zeure kurutze eta biztueraz
munduaren salbatzaile zarana,
salba gagizuz, Jesus Jauna!

7. Gero, abadeak, besoak zabalik, esango dau:

Alkarmeza-emoile guztiek

Horregaitik, Aita guztiz santua,
zure Seme Jesu Kristo gure salbatzailearen
oroigarria ospatzen dogu;
nekaldiaren eta kurutzeko heriotzaren bidez
bizi barrira bizturik
zeure eskumaldean jarri dozula gogoratzen dogu
eta hori zure maitasunaren egintza dala autortzen,
bera etorri arte;
eta ogi bizi-emoilea eta esker onezko kaliza
eskeintzen deutsuguz.

Begira, Aita ona, begi onez
zeure Eleizearen eskeintza honi:
bere burua guretzat emon dauan Kristoren
pazko-sakrifizioa da.
Egizu, Kristoren Gorputz Odoletan bat egiten dogunok,
zure maitasun Espirituaren indarrez,
zure Semearen gorputzeko atal izan gaitezala
orain eta beti.

Alkarmeza-emoile batek

Arnasbarritu egizu, Jauna, Ebanjelioaren argiaz,
I.-ko gure eleizbarrutian bizi dan zure Eleizea;
sendotu batasun-lokarriak
fededunen eta eleiz artzainen artean,
I. gure Aita Santuarekin,
I. gure Gotzainarekin,
I. Gotzain Laguntzailearekin,

Mezea Gotzainak bere eleizbarrutian ospatzen dauanean, esango dau:

nirekin, zure zerbitzari ezerez honekin,

Eleizbarrutikoa ez dan beste Gotzain bat danean, ik. *Erromako Meza Liburuaren Eraketa Orokorra*, 31. or.ko 149. zk.an zelan egin aipamen hau.

eta mundu zabaleko gotzainekin batean;
holan zure herria
batasunaren eta alkartasunaren
profeta-ezaugarri argitsu izan dadin,
mundu nahastu eta sakabanatu honetan.

Hilen aldeko otoitza.

Hildakoak hainbat diranean:

Alkarmeza-emoile batek

Izan gogoan, Aita ona, Kristoren bakean hil diran [I. eta I.] gure senideak, eta fededun hil diran guztiak; Zeuk bakarrik dakizu euren fedearen barri; egizu, gozatu dagiela zure aurpegiaren argia, eta eroan egizuz biztueran bizi betera.

Hildakoa bakarra danean:

Izan gogoan, Aita ona, Kristoren bakean hil dan I. gure senidea, eta fededun hil diran guztiak; Zeuk bakarrik dakizu euren fedearen barri; egizu, gozatu dagiela zure aurpegiaren argia, eta eroan egizuz biztueran bizi betera.

Lur honetako gure ibilaldia amaitzean,
hartu gaizuz geu ere zeure etxean betiko.
Han Zurekin biziko gara beti;
eta Jainkoaren Ama Maria Birjina dohatsuarekin,
Apostolu eta martiriekin
[I. santuarekin: eguneko santua nahiz zaindaria]
eta santu guztiekin bat eginik,
Zeu goratuko zaitugu, eta handietsiko,

Eskuak batuko ditu.

Jesu Kristo zure Semearen bitartez.

8. Patena ostia sagaratuagaz eta kaliza hartu eta, biak jasorik, esango dau:

Meza-emaile nagusiak nahiz guztiek

Honen bitartez, honekin eta honengan,
Zuri, Jainko Aita ahalguztidun horri,
Espiritu Santuarekin batean,
ospe eta aintza guztia gizaldi eta gizaldi guztietan.

Herriak gorapen honegaz erantzungo dau:

Amen.

Ondoren, jaunartze-ohikunea egingo da, 623. or.

II. era

Jainkoa, Eleizaren gidari salbazino-bidean

1. Eukaristi Otoitz hau ondorengo Meza honeetan da egoki erabiltzea: Eleizarentzat, abadegaiak Jaunari eskatzeko, laikoentzat, familiaren alde, erlijioso-erlijiosentzat, erlijioso-erlijiosagaiak Jaunari eskatzeko, maitasuna eskatzeko, senitarteko eta adiskideentzat, nahiz Jainkoari eskerrak emoteko Mezetan.

℣. Jauna zuekin.
℟. Eta zure espirituarekin.
℣. Gora bihotzak.
℟. Jaunagan daukaguz.
℣. Eskerrak Jaungoiko gure Jaunari.
℟. Egoki da eta zuzen.

Meza-emoile nagusiak

Egoki da, bai, eta zuzen,
bidezko eta salbagarri,
nonahi eta beti guk Zuri eskerrak emotea, Jauna,
munduaren egile
eta era guztietako biziaren iturri zaran
Aita guztiz santu horri.

Zuk ez dituzu behin ere eskutik izten
zeure jakituriaz egin dozuzanak;
arduraz jarraitzen dozu orain ere zeure lana gure artean.
Antxina, esku azkarrez eta beso zabalez
eroan zenduan Israel zeure herria basamortuan zehar.

Orain, barriz, zeure Espirituaren indarrez gidatzen dozu
mundu honetako ibilaldian zeure Eleiza
eta, bizitza honetako bideetan zehar,
zeure erreinuko pozetara daroazu,
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Horregaitik, aingeru eta santuekin batean,
zure aintzari gorazarre hau
beti eta beti [esaten] abesten deutsagu:

Santu, Santu, Santua,
diran guztien Jainko Jauna.
Zeru-lurrak beterik daukaz zure distirak.
Hosanna zeru-goienetan!
Bedeinkatua Jaunaren izenean datorrena.
Hosanna zeru-goienetan!

2. Abadeak, besoak zabalik, esango dau:

Meza-emoile nagusiak

Santu zara, bai, eta goresgarri,
gizon-emakumeak maite dituzun Jainkoa:
Zu beti geurekin zaitugu bidelagun.
Bedeinkatua zure Semea;
gure artean da, bere maitasunez batzen gaituala.
Behinola ikasleei lez,
geuri ere berak argitzen deuskuz Liburu Santuak
eta berak zatitzen deusku ogia.

3. Eskuak oparigaien gainean zabalik dituala, esango dau:

Alkarmeza--emoile guztiek

Horregaitik eskatzen deutsugu,
Aita guztiz ona:
isuri egizu zeure Espiritu Santua
ogi eta ardao honeek santu egin dagizan

Eskuak batu eta kurutze-seinalea egingo dau, behin bakarrik, ogiaren eta kalizaren gainean, esanez:

eta Jesu Kristo gure Jaunaren
Gorputz eta ✠ Odol egin daitezan guretzat.

Eskuak batuko ditu.

4. Hurrengo esaldietan, Jaunaren hitzak garbi eta agirian esan behar dira, hitz horreek eurek eskatzen dabenez.

Berak, hil bezperan, Azken Afariko gauean,

Ogia hartu eta, altara gainean apur bat jasorik, jarraituko dau:

ogia hartu, bedeinkatu eta zatitu eban,
eta bere ikasleei emon eutsen, esanez:

Apur bat makurtuko da.

Hartu eizue eta jan guztiok honetatik:
hau neure Gorputza da-eta,
zuentzat emongo dana.

Ostia sagaratua herriari erakutsiko deutso; gero, patenaren gainean itzi eta, belaunikaturik, gurtu egingo dau.

5. Ondoren, esango dau:

Era berean, afalondoan,

Kaliza hartu eta, altara gainean apur bat jasorik, jarraituko dau:

kaliza harturik
eta Zuri eskerrak emonez,
bere ikasleei emon eutsen, esanez:

Apur bat makurtuko da.

Hartu eizue eta edan guztiok honetatik:
hau neure Odolaren kaliza da-eta,
itun barri eta betikoaren Odola,
zuentzat eta askorentzat
pekatuak parkatzeko isuriko dana.
Egizue hau neure oroigarri.

Kaliza herriari erakutsiko deutso; gero sagara-oihalean itzi eta, belaunikaturik, gurtu egingo dau.

6. Ondoren, esango dau:

Meza-emoile nagusiak

Hau da sinismenaren misterioa.

Eta herriak gorapen honeetakoren bategaz erantzungo dau:

Hil eta biztu zarala, Jauna,
Zu barriz etorri arte
hau dogu, hau, barri ona!

Edo:

Ogi-ardao honeek hartzean,
zure heriotza dogu autortzen,
Zeu, Jauna, etorri artean.

Edo:

Zeure kurutze eta biztueraz
munduaren salbatzaile zarana,
salba gagizuz, Jesus Jauna!

7. Gero, abadeak, besoak zabalik, esango dau:

Alkarmeza-emoile guztiek

Horregaitik, Aita guztiz santua,
zure Seme Jesu Kristo gure salbatzailearen
oroigarria ospatzen dogu;
nekaldiaren eta kurutzeko heriotzaren bidez
bizi barrira bizturik
zeure eskumaldean jarri dozula gogoratzen dogu
eta hori zure maitasunaren egintza dala autortzen,
bera etorri arte;
eta ogi bizi-emoilea eta esker onezko kaliza
eskeintzen deutsuguz.

Begitu, Aita ona, begi onez
zeure Eleizaren eskeintza honi:
bere burua guretzat emon dauan Kristoren
pazko-sakrifizioa da.
Egizu, Kristoren Gorputz-Odoletan bat egiten dogunok,
zure maitasun Espirituaren indarrez,
zure Semearen gorputzeko atal izan gaitezala
orain eta beti.

Alkarmeza-emoile batek

Zeure mahaira deitu gaituzunok
sendotu gaizuz, Jauna, batasunean,
fedez eta itxaropenez bizi gaitezan,
I. gure Aita Santuarekin,
I. gure Gotzainarekin,
I. Gotzain Laguntzailearekin,

Mezea Gotzainak bere eleizbarrutian ospatzen dauanean, esango dau:

nirekin, zure zerbitzari ezerez honekin,

Eleizbarrutikoa ez dan beste Gotzain bat danean, ik. *Erromako Meza Liburuaren Eraketa Orokorra*, 31. or.ko 149. zk.an zelan egin aipamen hau.

gainerako gotzain, eleizgizon
eta zure herri osoarekin batean,
eta egizu, zabaldu daiguzala munduan
poza eta uste ona.

Hilen aldeko otoitza.

Hildakoak hainbat diranean:

Alkarmeza-emoile batek

Izan gogoan, Aita ona, Kristoren bakean hil diran [I. eta I.] gure senideak, eta fededun hil diran guztiak; Zeuk bakarrik dakizu euren fedearen barri; egizu, gozatu dagiela zure aurpegiaren argia, eta eroan egizuz biztueran bizi betera.

Hildakoa bakarra danean:

Izan gogoan, Aita ona, Kristoren bakean hil dan I. gure senidea, eta fededun hil diran guztiak; Zeuk bakarrik dakizu euren fedearen barri; egizu, gozatu dagiela zure aurpegiaren argia, eta eroan egizuz biztueran bizi betera.

Lur honetako gure ibilaldia amaitzean,
hartu gaizuz geu ere zeure etxean betiko.
Han Zurekin biziko gara beti;
eta Jainkoaren Ama Maria Birjina Ama dohatsuarekin,
Apostolu eta martiriekin
[I. santuarekin: eguneko santua nahiz zaindaria]
eta santu guztiekin bat eginik,
Zu goratuko zaitugu, eta handietsiko,

Eskuak batuko ditu.

Jesu Kristo zure Semearen bitartez.

8. Patena ostia sagaratuagaz eta kaliza hartu eta, biak jasorik, esango dau:

Meza-emoile nagusiak nahiz guztiek

Honen bitartez, honekin eta honengan,
Zuri, Jainko Aita ahalguztidun horri,
Espiritu Santuarekin batean,
ospe eta aintza guztia gizaldi eta gizaldi guztietan.

Herriak gorapen honekin erantzungo dau:

Amen.

Ondoren, jaunartze-ohikunea egingo da, 623. or.

III. era

Jesus, Aitaganako bidea

1. Eukaristi Otoitz hau ondorengo Meza honeetan da egoki erabiltzea: herrien ebanjelizatzerako, erasopean bizi diran kristauentzat, aberriaren alde, agintarientzat, herrialdeetako agintarien batzarra danean, urtearen hasieran nahiz herrien aurrerabidearen alde emoten diran Mezetan.

℣. Jauna zuekin.
℟. Eta zure espirituarekin.
℣. Gora bihotzak.
℟. Jaunagan daukaguz.
℣. Eskerrak Jaungoiko gure Jaunari.
℟. Egoki da eta zuzen.

Meza-emoile nagusiak

Egoki da, bai, eta zuzen,
bidezko eta salbagarri,
nonahi eta beti guk Zuri eskerrak emotea,
Aita guztiz santu, zeru-lurren Jaun horri,
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Bera da zure Hitza,
beraren bitartez egin zenduan mundua
eta zuzentasunez gidatzen dituzu diran guztiak.
Ha, gizon eginik, bitartekari emon zeunskun;
harek zure izenean hitz egin euskun
eta berari jarraitzera deitu ginduzan.
Bera da Zugana eroaten gaituan bidea,
libre egiten gaituan egia,
pozez betetzen gaituan bizia.

Zeure Semearen bitartez,
familia bakarrean batzen dituzu
zeure aintzarako egin dituzun gizon-emakumeak,
haren kurutzeko odolaz erosi
eta Espirituaren ezaugarriaz markatu dituzunak.

Horregaitik, Jauna, orain eta beti,
aingeru guztiekin batean,
geuk ere zure aintza goresten dogu,
pozez [esaten] abesten deutsugula:

Santu, Santu, Santua...

2. Abadeak, besoak zabalik, esango dau:

Meza-emoile nagusiak

Santu zara, bai, eta goresgarri,
gizon-emakumeak maite dituzun Jainkoa:
Zu beti geurekin zaitugu bidelagun.
Bedeinkatua zure Semea;
gure artean da, bere maitasunez batzen gaituala.
Behinola ikasleei lez,
guri ere berak argitzen deuskuz Liburu Santuak
eta berak zatitzen deusku ogia.

3. Eskuak oparigaien gainean zabalik dituala, esango dau:

Alkarmeza-emoile guztiek

Horregaitik eskatzen deutsugu, Aita guztiz ona:
isuri egizu zeure Espiritu Santua
ogi eta ardao honeek santu egin dagizan

Eskuak batu eta kurutze-seinalea egingo dau, behin bakarrik, ogiaren eta kalizaren gainean, esanez:

eta Jesu Kristo gure Jaunaren
Gorputz eta ✠ Odol egin daitezan guretzat.

Eskuak batuko ditu.

4. Hurrengo esaldietan, Jaunaren hitzak garbi eta agirian esan behar dira, hitz horreek eurek eskatzen dabenez.

Berak, hil bezperan, Azken Afariko gauean,

Ogia hartu eta, altara gainean apur bat jasorik, jarraituko dau:

ogia hartu, bedeinkatu eta zatitu eban,
eta bere ikasleei emon eutsen, esanez:

Apur bat makurtuko da.

Hartu eizue eta jan guztiok honetatik:
hau neure Gorputza da-eta,
zuentzat emongo dana.

Ostia sagaratua herriari erakutsiko deutso; gero, patenaren gainean itzi eta, belaunikaturik, gurtu egingo dau.

5. Ondoren, esango dau:

Era berean, afalondoan,

Kaliza hartu eta, altara gainean apur bat jasorik, jarraituko dau:

kaliza harturik
eta Zuri eskerrak emonez,
bere ikasleei emon eutsen, esanez:

Apur bat makurtuko da.

Hartu eizue eta edan guztiok honetatik:
hau neure Odolaren kaliza da-eta,
itun barri eta betikoaren Odola,
zuentzat eta askorentzat
pekatuak parkatzeko isuriko dana.
Egizue hau neure oroigarri.

Kaliza herriari erakutsiko deutso; gero, sagara-oihalean itzi eta, belaunikaturik, gurtu egingo dau.

6. Ondoren, esango dau:

Meza-emoile nagusiak

Hau da sinismenaren misterioa.

Eta herriak gorapen honeetakoren bategaz erantzungo dau:

Hil eta biztu zarala, Jauna,
Zu barriz etorri arte
hau dogu, hau, barri ona!

Edo:

Ogi-ardao honeek hartzean,
zure heriotza dogu autortzen,
Zeu, Jauna, etorri artean.

Edo:

Zeure kurutze eta biztueraz
munduaren salbatzaile zarana,
salba gagizuz, Jesus Jauna!

7. Gero abadeak, besoak zabalik, esango dau:

Alkarmeza-emoile guztiek

Horregaitik, Aita guztiz santua,
zure Seme Jesu Kristo gure salbatzailearen
oroigarria ospatzen dogu;
nekaldiaren eta kurutzeko heriotzaren bidez
bizi barrira bizturik
zeure eskumaldean jarri dozula gogoratzen dogu,
eta hori zure maitasunaren egintza dala autortzen,
bera etorri arte;
eta ogi bizi-emoilea eta esker onezko kaliza
eskeintzen deutsuguz.

Begitu, Aita ona, begi onez
zeure Eleizaren eskeintza honi:
bere burua guretzat emon dauan Kristoren
pazko-sakrifizioa da.
Egizu, Kristoren Gorputz Odoletan bat egiten dogunok,
zure maitasun Espirituaren indarrez,
zure Semearen gorputzeko atal izan gaitezala
orain eta beti.

Alkarmeza-emoile batek

Misterio honetan parte hartzen dogunok,
Aita ahalguztiduna,
bizkortu gaizuz zeure Espirituaz;
emoiguzu zeure Semearen antzeko izatea
eta sendotu gaizuz alkartasun-lokarriz,
I. gure Aita Santuarekin,
I. gure Gotzainarekin,
I. Gotzain Laguntzailearekin,

Mezea Gotzainak bere eleizbarrutian ospatzen dauanean, esango dau:

nirekin, zure zerbitzari ezerez honekin,

Eleizbarrutikoa ez dan beste Gotzain bat danean, ik. *Erromako Meza Liburuaren Eraketa Orokorra*, 31. or.ko 149. zk.an zelan egin aipamen hau.

gainerako gotzain, eleizgizon
eta mundu zabalean bizi dan zeure herriarekin batean.

Egizu, Eleizako fededun guztiak,
sasoian sasoiko ezaugarriak fedearen argitan aztertuz,
ahalegindu daitezala zintzo Ebanjelioaren zerbitzuan.
Edegi egizuz gure begiak
gizon-emakume guztien preminetara,
euren nahigabe eta estualdietan,
poz eta itxaropenetan parte hartuz,
salbazinoaren barri ona zintzo eroan deiegun,
eta eurekin batean
zure erreinuko bidean aurrera egin daigun.

Hilen aldeko otoitza.

Hildakoak hainbat diranean:

Alkarmeza-emoile batek

Izan gogoan, Aita ona, Kristoren bakean hil diran [I. eta I.] gure senideak, eta fededun hil diran guztiak; Zeuk bakarrik dakizu euren fedearen barri; egizu, gozatu dagiela zure aurpegiaren argia, eta eroan egizuz biztueran bizi betera.

Hildakoa bakarra danean:

Izan gogoan, Aita ona, Kristoren bakean hil dan I. gure senidea, eta fededun hil diran guztiak; Zeuk bakarrik dakizu euren fedearen barri; egizu, gozatu dagiela zure aurpegiaren argia, eta eroan egizuz biztueran bizi betera.

Lur honetako gure ibilaldia amaitzean,
hartu gaizuz geu ere zeure etxean betiko.
Han Zurekin biziko gara beti;
eta Jainkoaren Ama Maria Birjina dohatsuarekin,
Apostolu eta martiriekin
[I. santuarekin: eguneko santua nahiz zaindaria]
eta santu guztiekin bat eginik,
Zeu goratuko zaitugu, eta handietsiko,

Eskuak batuko ditu.

Jesu Kristo zure Semearen bitartez.

8. Patena ostia sagaratuagaz eta kaliza hartu eta, biak jasorik, esango dau:

Meza-emoile nagusiak nahiz guztiek

Honen bitartez, honekin eta honengan,
Zuri, Jainko Aita ahalguztidun horri,
Espiritu Santuarekin batean,
ospe eta aintza guztia
gizaldi eta gizaldi guztietan.

Herriak gorapen honekin erantzungo dau:

Amen.

Ondoren, jaunartze-ohikunea egingo da, 623. or.

IV. era

Jesus, on egiten igaro zana

1. Eukaristi Otoitz hau ondorengo Meza honeetan da egoki erabiltzea: iheslari eta erbesteratuentzat, gosetean nahiz goserik bizi diranentzat, nahigabetzen gaituenentzat, katigu dagozanentzat, espetxeratuentzat, gaixorik dagozanentzat, hilzorian dagozanentzat, heriotza ona eskatzeko, nahiz edozein beharrizanetan emoten diran Mezetan.

℣. Jauna zuekin.
℟. Eta zure espirituarekin.
℣. Gora bihotzak.
℟. Jaunagan daukaguz.
℣. Eskerrak Jaungoiko gure Jaunari.
℟. Egoki da eta zuzen.

Meza-emoile nagusiak

Egoki da, bai, eta zuzen,
bidezko eta salbagarri,
nonahi eta beti guk Zuri eskerrak emotea,
Aita errukitsu eta Jainko leial horri,
Jesu Kristo zeure Semea
Jaun eta erosle emon deuskuzulako guri.

Harek maitasun samurra erakutsi eutsen
txikiei eta behartsuei,
gaixoei eta pekatariei;
eta zapalduen eta nahigabetuen lagun hurko egin zan.

Hitzez eta egitez iragarri eutson munduari
Zu Aita zaitugula
eta arduraz zaintzen dituzula zeure seme-alabak.

Horregaitik, aingeru eta santu guztiekin batean
goresten eta bedeinkatzen zaitugu,
eta zure aintzari gorazarre hau
beti eta beti [esaten] abesten deutsagu:

Santu, Santu, Santua,
diran guztien Jainko Jauna.
Zeru-lurrak beterik daukaz zure distirak.
Hosanna zeru-goienetan!
Bedeinkatua Jaunaren izenean datorrena.
Hosanna zeru-goienetan!

2. Abadeak, besoak zabalik, esango dau:

Meza-emoile nagusiak

Santu zara, bai, eta goresgarri,
gizon-emakumeak maite dituzun Jainkoa:
Zu beti geurekin zaitugu bidelagun.
Bedeinkatua zure Semea;
geure artean da, bere maitasunez batzen gaituala.
Behinola ikasleei lez,
guri ere berak argitzen deuskuz Liburu Santuak
eta berak zatitzen deusku ogia.

3. Eskuak oparigaien gainean zabalik dituala, esango dau:

Alkarmeza--emoile guztiek

Horregaitik eskatzen deutsugu,
Aita guztiz ona:
isuri egizu zeure Espiritu Santua
ogi eta ardao honeek santu egin dagizan

Eskuak batu eta kurutze-seinalea egingo dau, behin bakarrik, ogiaren eta kalizaren gainean, esanez:

eta Jesu Kristo gure Jaunaren
Gorputz eta ✠ Odol egin daitezan guretzat.

Eskuak batuko ditu.

4. Hurrengo esaldietan, Jaunaren hitzak garbi eta agirian esan behar dira, hitz horreek eurek eskatzen dabenez.

Berak, hil bezperan, Azken Afariko gauean,

Ogia hartu eta, altara gainean apur bat jasorik, jarraituko dau:

ogia hartu, bedeinkatu eta zatitu eban,
eta bere ikasleei emon eutsen, esanez:

Apur bat makurtuko da.

HARTU EIZUE ETA JAN GUZTIOK HONETATIK:
HAU NEURE GORPUTZA DA-ETA,
ZUENTZAT EMONGO DANA.

Ostia sagaratua herriari erakutsiko deutso; gero, patenaren gainean itzi eta, belaunikaturik, gurtu egingo dau.

5. Ondoren, esango dau:

Era berean, afalondoan,

Kaliza hartu eta, altara gainean apur bat jasorik, jarraituko dau:

kaliza harturik
eta Zuri eskerrak emonez,
bere ikasleei emon eutsen, esanez:

Apur bat makurtuko da.

HARTU EIZUE ETA EDAN GUZTIOK HONETATIK:
HAU NEURE ODOLAREN KALIZA DA-ETA,
ITUN BARRI ETA BETIKOAREN ODOLA,
ZUENTZAT ETA ASKORENTZAT
PEKATUAK PARKATZEKO ISURIKO DANA.
EGIZUE HAU NEURE OROIGARRI.

Kaliza herriari erakutsiko deutso; gero, sagara-oihalean itzi eta, belaunikaturik, gurtu egingo dau.

6. Ondoren, esango dau:

Meza-emoile nagusiak

Hau da sinismenaren misterioa.

Eta herriak gorapen honeetakoren batekaz erantzungo dau:

Hil eta biztu zarala, Jauna,
Zu barriz etorri arte
hau dogu, hau, barri ona!

Edo:

Ogi-ardao honeek hartzean,
zure heriotza dogu autortzen,
Zeu, Jauna, etorri artean.

Edo:

Zeure kurutze eta biztueraz
munduaren Salbatzaile zarana,
salba gagizuz, Jesus Jauna!

7. Gero, abadeak, besoak zabalik, esango dau:

Alkarmeza-emoile guztiek

Horregaitik, Aita guztiz santua,
zure Seme Jesu Kristo gure salbatzailearen
oroigarria ospatzen dogu;
nekaldiaren eta kurutzeko heriotzaren bidez
bizi barrira bizturik
zeure eskumaldean jarri dozula gogoratzen dogu
eta hori zure maitasunaren egintza dala autortzen,
bera etorri arte;
eta ogi bizi-emoilea eta esker onezko kaliza
eskeintzen deutsuguz.

Begitu, Aita ona, begi onez zeure Eleizaren eskeintza honi:
bere burua guretzat emon dauan Kristoren
pazko-sakrifizioa da.
Egizu, Kristoren Gorputz-Odoletan bat egiten dogunok,
zure maitasun Espirituaren indarrez,
zure Semearen gorputzeko atal izan gaitezala
orain eta beti.

Alkarmeza-emoile batek

Eroan egizu, Jauna, zeure Eleiza
fedearen eta maitasunaren betera
I. gure Aita Santuarekin,
I. gure Gotzainarekin,
I. Gotzain Laguntzailearekin,

Mezea Gotzainak bere eleizbarrutian ospatzen dauanean, esango dau:

nirekin, zure zerbitzari ezerez honekin,

Eleizbarrutikoa ez dan beste Gotzain bat danean, ik. *Erromako Meza Liburuaren Eraketa Orokorra*, 31. or.ko 149. zk.an zelan egin aipamen hau.

gainerako gotzain, eleizgizon
eta zeurea dozun herri osoarekin batean.

Zabaldu egizuz gure begiak
senideen beharrizanak ikusi daiguzan;
emoiguzu zeure goi-argia
hitz eta egintza egokiak asmatu daiguzan
nekaturik eta lanpeturik dagozanak arintzeko;
egizu, Kristoren antzera eta haren agindua betez
danen zerbitzari izan gaitezala.
Zure Eleiza izan dadila benetan
egiaren eta askatasunaren testigu,
bakearen eta justiziaren lekuko,
holan gizon-emakume guztiak
itxaropen barrian sendotu daitezan.

Hilen aldeko otoitza.

Hildakoak hainbat diranean:

Alkarmeza-emoile batek

Izan gogoan, Aita ona, Kristoren bakean hil diran [I. eta I.] gure senideak, eta fededun hil diran guztiak; Zeuk bakarrik dakizu euren fedearen barri; egizu, gozatu dagiela zure aurpegiaren argia, eta eroan egizuz biztueran bizi betera.

Hildakoa bakarra danean:

Izan gogoan, Aita ona, Kristoren bakean hil dan I. gure senidea, eta fededun hil diran guztiak; Zeuk bakarrik dakizu euren fedearen barri; egizu, gozatu dagiela zure aurpegiaren argia, eta eroan egizuz biztueran bizi betera.

Lur honetako gure ibilaldia amaitzean,
hartu gaizuz geu ere zeure etxean betiko.
Han Zurekin biziko gara beti;
eta Jainkoaren Ama Maria Birjina dohatsuarekin,
Apostolu eta martiriekin
[I. santuarekin: eguneko santua nahiz zaindaria]
eta santu guztiekin bat eginik,
Zeu goratuko zaitugu, eta handietsiko,

Eskuak batuko ditu.

Jesu Kristo zure Semearen bitartez.

8. Patena ostia sagaratuagaz eta kaliza hartu eta, biak jasorik, esango dau:

Meza-emoile nagusiak nahiz guztiek

Honen bitartez, honekin eta honengan,
Zuri, Jainko Aita ahalguztidun horri,
Espiritu Santuarekin batean,
ospe eta aintza guztia gizaldi eta gizaldi guztietan.

Herriak gorapen honekin erantzungo dau:

Amen.

Ondoren, jaunartze-ohikunea egingo da, 623. or.

SANTUEN BEREZIA

1. Ospakizunaren maila –hau da, festaburua, jaia, oroipena– egun bakotxean adierazoten da. Besterik esaten ez danean, nahierazko oroipena da.

2. Festaburu eta jaiegunetan, Meza Liburuak osorik jartzen ditu erabili behar diran meza-gai bereziak.

3. Oroipenei dagokienaz, izan honeek gogoan:

a) Egun batzuetarako meza-gai bereziak jartzen diranean, horreek erabili beharrekoak dira beti.

b) Meza Liburuak Santuen Betikora bialtzen dauanean, aukeratu beitez gairik egokienak, Santuen Betiko sailaren hasierako errubriketan esaten danez. Aitatzen dan orrialdeak Santuen Betikoan dagokiozan meza-gaien hasiera bakarrik adierazoten dau.

c) Meza Liburuak Betiko batera baino gehiagotara bialtzen dauanean, horreetako edozein aukeratu leiteke, eleiztarrentzat egokiena zein izango dan gogoan izanik, eta Betiko beraren Mezetatik gaiak handik eta hemendik hartu leitekez. Esate baterako: santu bat martiria eta gotzaina bada, martirien Betikoa nahiz eleiz artzainen Betikoa (gotzainentzat) erabili leiteke.

d) Santutasunaren berezitasunen bat agertzen daben Betikoez gainera (esate baterako: martiriena, birjinena, eleiz artzainena, etab.), santutasuna orokorrean aitatzen daben gizon-emakume santuen Betikoa be erabili leiteke. Esate baterako: birjina eta martiria dan emakume batentzat, martirien nahiz birjinen Betikoak erabili leitekez, edo gizon-emakume santuen Betikoa.

e) Oparigaien gaineko eta jaunartze ondorengo otoitzak, bereziak ez diranean, Betikotik nahiz Aldiko Berezitik hartu leitekez.

4. Santuen Berezi honetan aurkitzen diran Mezak –Jaunaren eta Maria Birjina dohatsuaren bizitzako misterioen Mezak izan ezik (ik. Erromako Meza Liburuaren Eraketa Orokorra, 375. zk.) edo debozinozko aparteko Mezak dabezan santu jakin batzurenak izan ezik– debozinozkotzat be erabili leitekez. Orduan, ez dira esango otoitzetan, santuaren jaiotza, festaburua edo jaia aitatzen dabezan hitzak, eta horreen ordez, oroipena edo aipamena esango da.

URTARRILA

Urtarrilaren 2an

Basilio Handia eta Naziantzoko Gregorio santuak, gotzainak eta eleiz irakasleak

Oroipena

Sarrera-ant. Zintzoen jakituriaz berba egingo dabe nazinoek, hareen gorespena iragarriko dau herri-batzarrak; gizaldiz gizaldi biziko da hareen izena. Ik. Si 44, 15.14

Otoitza Oi Jainko,
Basilio Handia eta Naziantzoko Gregorio gotzain santuen bizieraz eta irakaspenez
argi egin zeuntsan zeure Eleizeari;
egizu, ikasi daigula apalik zure egia
eta bete leial maitasunean.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa Egizu, Jauna,
Basilio eta Gregorio santuen egunean
zure herriak Zu goresteko eskeintzen dauan sakrifizioa
izan dadila guretzat salbagarri.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Jaunartze-ant. Guk Kristo kurutzeratua predikatzen dogu, Jainkoaren indarra eta Jainkoaren jakituria dan Kristo. Ik. 1 Ko 1, 23.24

Jaunartze ondorengoa

Jainko ahalguztiduna,
Basilio eta Gregorio santuen eguna ospatzean,
zerutar mahaian parte hartu dogu;
egizu, honeei esker,
sendotu eta handitu daitezala gugan goi-indarrak,
fedearen dohaia osorik zaindu daigun
eta erakutsi deuskuzun salbazino-bidean ibili gaitezan.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Urtarrilaren 3an

Jesusen Izen guztiz santua

Sarrera-ant.

Jesusen izenaren omenez danen belaunak makurtu daitezala, zeruan, lurrean eta lurpean, eta mihin guztiek autortu dagiela Jesu Kristo dala Jauna, Jainko Aitaren aintzarako. Flp 2, 10-11

Otoitza

Gizadiaren salbazinoa zeure Hitzaren gizon egitean
oinarritu zenduan Jainkoa;
emon zeure herriari eskatzen deutsun errukia,
guztiek jakin dagien
ez jakola zure Seme bakarraren izenari baino dei egin behar.
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa

Eskuzabal emoten deuskuzuzan dohaiak
Zuri aurkeztean, Jauna, otoitz egiten deutsugu:
heriotzaraino zure esaneko izan zan Kristori
gu salbatzen gaituan izena emon zeuntsan lez,
babestu gaizala haren indarrak.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Jaunartze-ant.

Jauna, gure Jauna, bai miragarria zure izena lurbira osoan! Sal 8, 2

Jaunartze ondorengoa

Jauna, Kristoren izenaren omenez
zure handitasunari eskeinirik hartu dogun dohaiak
isuri dagiala gugan ugari zure grazia,
gure izenak zeruan idatzirik dagozala jakitearen
poza izan daigun.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Urtarrilaren 7an

Peñaforteko San Raimundo, presbiteroa

Eleiz artzainen (bakarrarentzat, 972. or.) Betikotik.

Otoitza

Oi Jainko,
pekatari eta katiguenganako maitasun harrigarria isuri zenduan
Peñaforteko Raimundo presbitero santuaren bihotzean;
emoiguzu, haren otoitzari esker,
pekatuaren esklabotzatik askaturik,
atsegin jatzuna gogoz eta askatasunez egitea.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Urtarrilaren 9an

Cordobako San Eulogio, presbiteroa eta martiria

Martirien (bakarrarentzat, 953. or.), eleiz artzainen (bakarrarentzat, 972. or.) nahiz santuen (santu bakarrarentzat, 993. or.) Betikotik.

Otoitza

Jainko gure Jauna,
Eleiza mozarabea egoera txarrean zala,
Cordobako Eulogio santua aukeratu zenduan,
eta ausardia handia emon zeuntsan sinismena autortzeko;
emoiguzu geuri ere holakoxe indar-espiritua,
pozez eta kementsu garaitu daiguzan geure zoritxar guztiak.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Urtarrilaren 13an

San Hilario, gotzaina eta eleiz irakaslea

Eleiz artzainen (gotzainarentzat, 968. or.) nahiz eleiz irakasleen (981. or.) Betikotik.

Otoitza

Jainko ahalguztiduna, eten barik irakatsi eban
Hilario gotzain santuak zure Semea Jainko dala;
egizu, geuk ere egia hori
egoki ezagutu eta zinez autortu daigula.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Urtarrilaren 17an

San Anton, abata

Oroipena

Sarrera-ant.

Zintzoa palmondoa lez garatuko da, Libanoko zedroa lez haziko; Jaunaren etxean landatua, gure Jainkoaren atarietan garatuko da.
Sal 92 [91],13-14

Otoitza

Oi Jainko,
basamortuan zure zerbitzuan bizitza harrigarria eroatea
emon zeuntsan San Anton abatari;
egizu, haren otoitzari esker,
geure buruari uko eginez
gauza guztien gainetik Zeu maitatu zaiguzala beti.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa

Onartu, Jauna, guk zure zerbitzariok
San Antonen oroitzapen-egun honetan
zure altarara ekarri doguzan eskeintzak;
egizu, lur honetako loturetatik askaturik
Zeu bakarrik izan zaiguzala geure aberastasun.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Jaunartze-ant. Guztiz ona izan nahi badozu, zoaz, saldu zeure ondasunak eta emon behartsuei, eta jarraitu Niri, dino Jaunak. Ik. Mt 19, 21

Jaunartze ondorengoa

Jauna, ilunpeetako arerioaren indarrak bikain garaitzea
emon zeuntsan San Antoni;
egizu, zure sakramentuez osasuntsu janariturik,
menperatu daiguzala geuk ere beti arerioaren maltzurkeriak.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Urtarrilaren 20an

Fruktuoso, gotzaina,eta Augurio eta Eulogio, diakonoak, santuak, martiriak

Sarrera-ant. Sugarrak baino gehiago Kristoganako maitasunak kiskalduta, Fruktuosok, Auguriok eta Eulogiok itxaroten eben biztueraren agiriko testigantza egin eben pozik, su biziko labara bota ebezan hiru gazteen antzera.

Otoitza

Jauna,
sortaldetik sartaldera zabaldurik dagoan Eleizaren alde
bere bizia eskeintzeko indarra emon zeuntsan
Fruktuoso gotzain santuari,
eta Augurio eta Eulogio diakonoak
jarri zeuntsazan lagun martiritzan;
egizu, bizi dadila beti zure Eleizea itxaropenean alai,
eta eskeini dagiala bere bizia, atzera egin barik,
herri guztien onerako.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa

Onartu, Jauna, Fruktuoso, Augurio eta Eulogio santuen
jaiegunean dakartsuguzan emoitzak,
eta egizu, erasoaldian martiriei adorea emon eutsien
misterio honeek lagundu deiguela
ezbeharretan indar barik gelditu ez gaitezan.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Jaunartze-ant. Heriotzara garoez Jesusegaitik, gure izate hilkor honetan Jesusen bizia be agertu daiten. 2 Ko 4, 11

Jaunartze ondorengoa

Zure Semeak gizadiaren salbazinorako
jasan eban nekaldiaren oroigarri
hartu dogun sakramentu honek
indartu dagiala, Jauna, gure maitasunaren sua,
Frutuoso, Augurio eta Eulogio santuen
ejenpluari jarraituz,
prest egon gaitezan bizia eskeintzeko
herri guztien onerako.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

San Fabian, aita santua eta martiria

Martirien (bakarrarentzat, 953. or.) nahiz eleiz artzainen (aita santuarentzat, 965. or.) Betikotik.

Otoitza

Zeu zara, Jauna, zeure abadeen ospea;
egizu, Fabian martiri santuaren otoitzari esker,
haren fede berean eta zerbitzu duinean bat eginik
aurrera egin daigula.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

San Sebastian, martiria

Martirien (bakarrarentzat, 953. or.) Betikotik.

Otoitza

Emoiguzu, Jauna, indar-espiritua,
Sebastian martiri santuaren ejenplu ospetsuari jarraituz,
zure nahia egiten jakin daigun, eta ez gizakiena.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Urtarrilaren 21ean

Santa Ines, birjina eta martiria

Oroipena

Martirien (birjina martiriarentzat, 961. or.) nahiz birjinen (bakarrarentzat, 985. or.) Betikotik.

Otoitza

Jainko ahalguztidun betikoa,
munduko ahulenak aukeratzen dozuz
indartsuenak lotsatuazoteko;
egizu, arren, Ines martiriaren eguna ospatzen dogunok
eutsi deiogula sendo fedeari beraren antzera.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Urtarrilaren 22an

San Bizente, diakonoa eta martiria

Oroipena

Sarrera-ant. Martiri santu honek bere odola isuri eban Kristoren izenagaitik; ez eutsen bildurrik izan epaileen amenazuei, eta, holan, zeruetako erreinura heldu zan.

Otoitza

Jainko ahalguztidun betikoa,
isuri egizu errukitsu gure bihotzera zeure Espiritua,
eta emoiguzu gainezka maitasun bizia,
Bizente martiri santuaren antzera
gorputzeko oinaze guztiak garaitzeko gai izan gaitezan.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa

Jauna, pozez beterik eskeintzen deutsugu
gorespen-opari hau:
honen bitartez,
San Bizente martiriaren garaipena ospatzen dogu
eta uste osoz itxaroten
beraren babes zorionekoa izango dogula.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Jaunartze-ant. Nire zerbitzari izan nahi dauanak, jarraitu beit, dino Jaunak; eta, Ni nagoan tokian, hantxe izango da nire zerbitzaria be. Jn 12, 26

Jaunartze ondorengoa

Hartu dogun zerutar janari honek
emon deigula, Jauna, indar-espiritua,
espiritu horrek egin eban-eta San Bizente
zure zerbitzuan zintzo eta martiritzan garaile adoretsu.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Urtarrilaren 23an

San Ildefontso, gotzaina

Oroipena

Eleiz artzainen (gotzainarentzat, 968. or.) Betikotik.

Otoitza

Jainko ahalguztiduna, Mariaren birjintasunaren
autorle sutsu egin zenduan Ildefontso santua;
egizu, zure Semearen Amak
dohai berezi hori izan ebala sinisten dogunok
sentidu daigula Ama horren otoitz indartsuaren babesa.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Urtarrilaren 24an

San Frantzisko Sales, gotzaina eta eleiz irakaslea

Oroipena

Eleiz artzainen (gotzainarentzat, 968. or.) nahiz eleiz irakasleen (981. or.) Betikotik.

Otoitza

Oi Jainko, gizakiak salbatzeko
danen zerbitzari egin zenduan gauza guztietan
Frantzisko gotzain santua;
egizu, arren, agertu daigula geuk ere beti, harek lez,
zure maitasunaren gozoa geure senideen zerbitzuan.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa

Espiritu Santuaren suaz miragarriro biztu zenduan, Jauna,
Frantzisko santuaren gogo eztia;
orain eskeintzen deutsugun opari salbagarri honen bidez,
biztu egizu gure bihotza ere jainkozko su berberaz.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Jaunartze ondorengoa

Jainko ahalguztiduna,
egizu, hartu dogun sakramentuaren bidez,
lur honetan Frantzisko santuaren
maitasuna eta onberatasuna imitatuz
haren ospea ere jadetsi daigula zeruetan.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Urtarrilaren 25ean

San Paulo apostoluaren Kristoganatzea

Jaia

Sarrera-ant. Badakit norengan jarri dodan uste ona eta ziur nago badauala harek indarrik nire esku itzi dauan fede-gordailua zaintzeko, epaile zuzen bezala etorriko dan egunera arte. Ik. 2 Tm 1, 12; 4, 8

Aintza zeruetan esango da.

Otoitza

Oi Jainko, mundu guztia eskolatu dozu
Paulo apostolu santuaren hitzez;
haren Kristoganatzea gaur ospatzen dogun ezkero,
egizu, geuk ere aurrera egin daigula Zuganako bidean
haren ejenpluari jarraituz,
zure egiaren testigu izan gaitezan munduaren aurrean.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa

Zerutar misterio honeek ospatzean,
otoitz egiten deutsugu, Jauna:
bete dagiala Espiritu Santuak gure bihotza
zure aintza ezagutu ahal izateko
Paulo apostolu santua argitu eban fede beraz.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Prefazioa: Apostoluen I.a, 528. or.

Jaunartze-ant. Bere bizia nire alde emoteraino maitatu ninduan Jainkoaren Semeaganako sinismenean oinarriturik bizi dot neure giza bizitza.
Ga 2, 20

Jaunartze ondorengoa

Jainko gure Jauna, hartu dogun sakramentu honek
biztu dagiala gugan maitasunaren garra,
gar handi horrek sutu eban-eta Paulo apostolu santua
eleiz alkarte guztiez arduratzeko.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Bedeinkazino nagusia erabili leiteke, 653. or., 23. zb.

Urtarrilaren 26an

Timoteo eta Tito santuak, gotzainak

Oroipena

Sarrera-ant. Zabaldu haren ospea nazinoetan, haren mirariak herri guztietan; handia da-eta Jauna, guztiz goresgarria. Sal 96 [95], 3-4

Otoitza

Oi Jainko, Timoteo eta Tito santuak
apostolutzarako dohaiez edertu zenduzan;
egizu, bion otoitzari esker,
izan gaitezala mundu honetan zuzen eta jainkozale,
zeruko aberrira heldu gaitezan.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa

Onartu, Jauna, Timoteo eta Tito santuen jaia ospatzeko,
zure herriak ekarri deutsuzan oparigaiak;
egizu, gure bihotz zintzoagaitik
izan gaitezala zuretzat atsegingarri.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Jaunartze-ant. Zoaze mundu guztira eta iragarri Barri Ona; Ni zeuekin izango nozue egunero, dino Jaunak. Mk 16, 15; Mt 28, 20

Jaunartze ondorengoa

Jainko gure Jauna, arreta handiz irakatsi eta zaindu eben
Timoteo eta Tito santuek
Apostoluek iragarritako fedea;
egizu, hartu dogun sakramentuak
indartu gaizala sinismen horretan.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Urtarrilaren 27an

Santa Anjela Merici, birjina

Birjinen (bakarrarentzat, 985. or.) nahiz santuen (hezitzaileentzat, 1003. or.) Betikotik.

Otoitza

Jadetsi deigula zure errukia, Jauna,
Anjela birjina santuaren otoitzak;
haren maitasun- eta zuhurtasun-bideetan ibiliz,
zure irakaspenak aintzat hartu daiguzan
eta autortu geure bizitzan.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Urtarrilaren 28an

Aquinoko San Tomas, presbiteroa eta eleiz irakaslea

Oroipena

Eleiz irakasleen (981. or.) nahiz eleiz artzainen (bakarrarentzat, 972. or.) Betikotik.

Otoitza

Oi Jainko, argitasun berezia emon zeuntsan
Aquinoko Tomas santuari,
bai santutasunaren gogo bizia, bai goi-jakintza lantzeko;
egiguzu argi, harek irakatsi ebana ulertzeko,
eta emoiguzu indarra, berak egindakoa geuk ere egiteko.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Urtarrilaren 31n

San Joan Bosco, presbiteroa

Oroipena

Eleiz artzainen (bakarrarentzat, 972. or.) nahiz santuen (hezitzaileentzat, 1003. or.) Betikotik.

Otoitza

Oi Jainko, gazteen aita eta maisu egin zenduan
Joan Bosco presbitero santua;
egizu, haren maitasun berak suturik,
arimen zaletasuna izan daigula
eta Zeu bakarrik zerbidu zaiguzala.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

OTSAILA

Otsailaren 2an

JAUNAREN AURKEZPENA

Jaia

Kandelen bedeinkazinoa eta prozesinoa

I. era: Prozesinoa

1. Eleiztarrak, ordu egokian, eleiza txikiago baten nahiz beste leku egokiren baten batuko dira, prozesinoan joan beharreko eleizatik kanpo. Eleiztarrek kandelak eskuetan izango dabez, biztu barik.

2. Abadea, bere laguntzaileekin, Mezatarako behar diran jantzi zuriz jantzita etorriko da; abadeak, kasuila ordez, kapea jantzi leike; baina, prozesinoaren ondoren, erantzi egingo dau kapa hori.

3. Kandelak bizten diran bitartean Hara, indarrez jantzita antifona abestuko da, edo beste kantu egokiren bat.

Antifona Hara, indarrez jantzita dator gure Jauna, bere zerbitzarien begiak zabaltzera, aleluia.

4. Kantua amaitutakoan, abadeak, herriari begira, esango dau: Aitaren, eta Semearen, eta Espiritu Santuaren izenean. Ondoren herria agurtuko dau, ohitura danez, eta oharpen labur bat egingo dau, eleiztarrek jaiegun honetako ospakizunean gogotsu eta ohartuz parte hartu dagien. Oharpena holan egin leike, gitxi gorabehera:

Oharpena Senide maiteok: Orain berrogei egun, pozaren pozez ospatu genduan Jaunaren Jaiotza-eguna. Gaur, barriz, Jesus Jerusalemgo tenplura eroan eben eguna dogu; Jesus aurkeztean, itxuraz, legea betetzea besterik ez eben egin; baina, egiaz, fededunen herriari bidera urten eutson Jesusek. Espiritu Santuak erakarririk, han egozan tenpluan Simeon eta Ana zoriontsuak; eta Espiritu berak argiturik, ume txiki harengan Jauna ezagutu eben, eta pozik emon eben haren barri. Geu ere, Espiritu Santuak baturik, goazen Jaunaren etxera, Kristoren bidera. Ogia zatitzean aurkituko eta ezagutuko dogu bera, barriro aintzaz agertuko jakun arte.

5. Oharpenaren ondoren, abadeak, eskuak baturik, kandelak bedeinkatuko ditu, esanez:

Bedeinkazino-otoitza Egin daigun otoitz.

Oi Jainko, argi guztien iturria eta sorburua,
herrialde guztien Argia dan Kristo erakutsi zeuntsan
gaurko egunez Simeon zintzoari;
sagaratu egizuz kandela honeek zeure ✠ bedeinkazinoaz;
entzun zeure herriaren eskariak,
argiak eskuetan dabezala,
zure izena goresteko batu da-eta hemen;
egizu, bide onean ibili daitezala, betiko argira heltzeko.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.
℟. Amen.

Edo:

Oi Jainko, egiazko argia,
betiko argiaren egilea eta zabaltzailea,
isuri egizu fededunen bihotzean betiko argiaren distira;
eleiza santu honetan
kandela honeen dirdirak argitzen dituanak
zoriontsu heldu daitezan zure aintzaren argira.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.
℟. Amen.

Eta kandelak ur bedeinkatuz txipriztinduko ditu, ezer esan barik.

6. Abadeak, diakonoaren edo zerbitzari baten eskutik harentzat prestatuta dagoan kandela biztua hartu eta prozesinoa hasiko dau, diakonoak (edo, diakonorik ezean, abadeak berak) honako hau esanez:

Goazen bakean Jaunaren bidera.

Edo:

Goazen bakean.

Eta danek erantzungo dabe:

Kristoren izenean. Amen.

7. Fededun guztiek euren kandela biztuak eroango dabez. Prozesinoan hurrengo antifona honeetakoren bat abestuko dabe: Atzerriak argitzeko argia bere kantikarekin (Lk 2, 29-32) nahiz Apaindu zeure gela antifona nahiz beste kantu egokiren bat:

1. antifona

℟. **Kristo dogu nazinoak argitzeko argia,**
eta zure herri Israelen ospea.

℣. Orain itzi zeinke, Jauna,
zeure morroi hau bakean hiltzen,
Zeuk agindu zenduan lez. ℟.

℣. Ikusi dabe nire begiok Zugandiko salbazinoa,
herri guztien aurrean Zuk aurkeztua. ℟.

2. antifona

Apaindu zeure gela, Sion,
eta egin ondoetorria Kristo zeure Erregeari;
besarkatu Maria, zeruko atea da-eta;
berak dakar argi barria dan Errege aintzatsua;
Birjina dirau,
egunsentiaren aurretik sortutako Semea besoetan dauala;
Simeonek eskuetan harturik, herriei aldarrikatu eutsen,
haxe dala biziaren eta heriotzaren Jauna,
munduaren Salbatzailea.

8. Prozesinoa eleizan sartzekoan, Mezako sarrera-antifona abestuko da. Abadeak, altarara heltzen danean, agurtu egingo dau eta, nahi izan ezkero, intsentsuz lurrundu ere bai. Gero jesarlekura joango da (eleiz kapa erantzi, erabili badau, eta kasuila jantziko dau); eta, Aintza zeruetan abestu ondoren, Mezako otoitza esango dau. Hortik aurrera Mezea beti lez ospatzen jarraituko dau.

II. era: Sarrera ospetsua

9. Nonon prozesinoa egiterik ez balego, kristauak, kandelak eskuetan dabezala, eleizan batuko dira. Abadea, jantzi zuriz, laguntzaileak eta kristau-taldetxu bat inguruan dituala, eleizako leku egoki batera joango da, eleiz ate aurrera nahiz eleiz barruko leku batera, baina eleiztar gehienek ondo ikusi eta ohikunean eroso parte hartu leikien eleizako toki batera.

10. Abadea bedeinkazinorako aukeratutako lekura heltzean, kandelak biztu eta Hara, indarrez jantzita dator antifona (3. zk.) nahiz beste kantu egokiren bat abestuko da.

11. Herria agurtu eta oharpena egin ondoren, abadeak kandelak bedeinkatuko ditu, lehenago 4-5. zk.etan esan danez; eta prozesinoa hasiko da altararantz, abestuz (6-7. zk.). Mezatakoan, 8. zk.an esandakoak egingo dira.

Meza

Sarrera-ant. Oi Jainko, hausnartzen dogu zure maitasuna, zure tenpluaren erdian. Zure ospea bezala zure gorespena ere, oi Jainko, mundu osora heltzen da; zure eskua justiziaz dago betea. Sal 48 [47], 10-11

Aintza zeruetan esango da.

Otoitza Jainko ahalguztidun betikoa,
zure Seme bakarra, gurea lako giza izatez jantzirik,
aurkeztu eben gaurko egunez Jerusalemgo jauretxean;
egizu, Jaun handi horrek,
aurkeztu gaitezala geu ere bihotz-garbi zure aurrean.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Jai hau domekaz izaten danean, Sinisten dot esango da.

Oparigaien gainekoa

Atsegin dakizula, Jauna, Eleizeak pozik egiten deutsun eskeintza,
Zeuk nahi izan dozu-eta
zure Seme bakarra Bildots garbi Zuri eskeinia izatea
munduaren bizirako.
Errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Prefazioa

JAUNAREN AURKEZPENAREN MISTERIOA

℣. Jauna zuekin.
℟. Eta zure espirituarekin.

℣. Gora bihotzak.
℟. Jaunagan daukaguz.

℣. Eskerrak Jaungoiko gure Jaunari.
℟. Egoki da eta zuzen.

Egoki da, bai, eta zuzen,
bidezko eta salbagarri,
nonahi eta beti guk Zuri eskerrak emotea,
Jauna, Aita guztiz santu,
Jainko ahalguztidun betiko horri.

Zu bezala betikoa dan zure Semea
gaurko egunez eskeini eben jauretxean,
eta Espiritu Santuak adierazo eban,
Israelen ospea eta nazinoen argia zala bera.

Horregaitik, pozez beterik
Zuk bialdutako Salbatzailearen bidera goazala,
aingeru eta santu guztiekin goresten zaitugu,
beti eta beti [esaten] abesten deutsugula:

Santu, Santu, Santua...




℣. Go-ra bi-ho-tzak. ℟. Jau-na-gan dau-ka-guz.
℣. Es-ke-rrak Jaun-goi-ko gu-re Jau-na-ri. ℟. E-go-ki da e-ta zu-zen.


Egoki da, bai, eta zuzen bidezko eta sal-ba-ga-rri, nonahi eta beti
guk Zuri eskerrak e-mo-te-a, Jauna, Aita guztiz santu, Jainko
ahalguztidun be-ti-ko ho-rri. Zu be-za-la betikoa dan
zure Semea gaurko egunez eskeini e-ben ten-plu-an, eta
Espiritu Santuak adie-ra-zo e-ban, Israelen ospea eta nazinoen ar-
gi-a za-la bera. Ho-rre-gai-tik, pozez beterik Zuk bialdutako Sal-
batzailearen bidera go-a-ze-la, aingeru eta santu guztiekin go-
res-ten zai-tu-gu, beti eta beti a-bes-ten deu-tsu-gu-la:

Jaunartze-ant. Ikusi dabe nire begiok Zugandiko salbazinoa, herri guztien aurrean
Zuk aurkeztua. Lk 2, 30-31

Jaunartze ondorengoa

Simeonen itxaropena bete dozun Jauna,
emoiguzu, Eukaristia honi esker, zeure graziaren betea;
eta egizu, harek, hil aurretik,
Kristo besoetan hartzeko poza izan eban lez,
geuk ere, Jaunaren bidera goazenok,
betiko bizia jadetsi daigula.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Bedeinkapen nagusia erabili daiteke, 650. or., 16. zk.

Otsailaren 3an

San Blas, gotzaina eta martiria

Martirien (bakarrarentzat, 953. or.) nahiz eleiz artzainen (gotzainarentzat, 968. or.) Betikotik.

Otoitza

Entzun, Jauna, zeure herriari,
Blas martiri santua lagun dogula,
egiten dogun otoitza,
lur honetan bakearen poza
eta gero betiko bizia lortzeko laguntza izan dagian.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

San Oskar, gotzaina

Eleiz artzainen (misiolarientzat, 977. or. nahiz gotzainarentzat, 968. or.) Betikotik.

Otoitza

Oi Jainko, herrialde askori Ebanjelioaren argia eroatera
bialdu zenduan Oskar gotzain santua;
egizu, haren otoitzari esker,
ibili gaitezala beti zure egiaren argitan.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Otsailaren 5ean

Santa Agata, birjina eta martiria

Oroipena

Martirien (birjina martiriarentzat, 961. or.) nahiz birjinen (bakarrarentzat, 985. or.) Betikotik.

Otoitza

Jauna, zeure gogoko izan zenduan
Agata birjina eta martiri santua,
bai bizi izan eban birjintasunaren ederrez,
bai martiritzan erakutsi eban indarrez;
emoiguzu, haren otoitzari esker, zeure parkamena.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Otsailaren 6an

San Paulo Miki eta lagunak, martiriak

Oroipena

Martirien (martiri batzurentzat, 947. or.) Betikotik.

Otoitza

Santu guztien indar zaitugun Jainkoa,
Paulo Miki eta lagunak, martiri santuak,
kurutzeko heriotzaren bidez zeruko bizira eroan zenduzan;
egizu, hareen otoitzari esker,
geuk ere hil arte adoretsu gorde daigula
autortzen dogun fedea.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Otsailaren 8an

San Jeronimo Emiliani

Santuen (hezitzaileentzat, 1003. or.) Betikotik.

Otoitza Jainko, Aita errukitsua,
umezurtzen babesle eta aita egin zenduan
Jeronimo Emiliani santua;
egizu, haren otoitzari esker, gorde daigula zintzo
zure seme-alaba izena eta izana emoten deuskun espiritua.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Santa Josefina Bakhita, birjina

Birjinen (bakarrarentzat, 985. or.) Betikotik.

Otoitza Oi Jainko, Zuk eroan zenduan Josefina santua
esklabotza zapaltzailetik
zeure alaba eta Kristoren emazte izatearen duintasunera;
emoiguzu, bera eredu dogula,
Kristo gure Jaun kurutzeratuari maitasun sendoz jarraitzea
eta, errukibera izanez, maitasunean irautea.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Otsailaren 10ean

Santa Eskolastika, birjina

Oroipena

Birjinen (bakarrarentzat, 985. or.) nahiz santuen (lekaimearentzat, 998. or.) Betikotik.

Otoitza Eskolastika birjina santuaren oroipena
ospatzen dogun egun honetan,
egizu, Jauna, bera eredu dogula,
maitasun garbiz zerbidu zaiguzala,
Zuk deuskuzun maitasunaren frutu gozoak jadetsi daiguzan.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Otsailaren 11n

Lourdesko Maria Birjina dohatsua

Maria Birjina dohatsuaren (935. or.) Betikotik.

Otoitza

Jainko errukitsua, emoiguzu laguntza geure makaltasunean;
Jainkoaren Ama errubakoaren oroipena ospatzen dogunok,
haren otoitzaren laguntzaz,
geure gaiztakerietatik urten daigun.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Otsailaren 14an

Zirilo, lekaidea, eta Metodio, gotzaina, santuak

Europako zaindariak

Jaia

Sarrera-ant.

Honeek dira gizon santuak, Jainkoaren adiskideak, jainkozko egiaren mezulari ospetsuak.

Aintza zeruetan esango da.

Otoitza

Oi Jainko, Zirilo eta Metodio anaia santuen bidez
emon zeuntsen Ebanjelioaren argia herri eslaviarrei;
emoiguzu zure irakaspenak bihotzez onartzeko grazia,
eta egin gaizuz egiazko sinismenean
eta fede-autorpen zuzenean bat egindako herri.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa

Begitu, Jauna, begi onez
Zirilo eta Metodio santuen oroitzapenean
Zuri, Jaun handi horri, aurkezten deutsuguzan emoitzak,
eta egizu, izan daitezala
maitasunean Zugaz adiskidetutako gizadi barriaren ezaugarri.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Prefazioa: Santuena (531-532. or.).

Jaunartze-ant. Ikasleak alde guztietara joan ziran Barri Ona iragartzera. Eta Jaunak berak ziharduan eurekin, egiten ebezan mirarien bidez hitza baiesten ebala. Ik. Mk 16, 20

Jaunartze ondorengoa

Oi Jainko, herri guztien Aita,
ogi bat beraren eta Espiritu bat beraren bidez,
betiko jai-jatorduan partaide
eta oinordeko izatea emoten deuskuzu;
Zirilo eta Metodio santuen jai honetan
egizu bihotz onez,
zure seme-alaben herri osoa bizi dadila fedean bat eginik
eta eraiki dagiela alkarregaz
zuzentasunaren eta bakearen erreinua.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Bedeinkazino nagusia erabili leiteke, 654. or., 25. zk.

Otsailaren 17an

Maria Birjina dohatsuaren Zerbitzarien Ordenako Zazpi Fundatzaile santuak

Santuen (erlijiosoentzat, 999. or.) Betikotik.

Otoitza

Jauna, gaur gogoratzen doguzan senide santuek
biziro maite izan eben Jainkoaren Ama;
eta zure herria Zugana eroaten ahalegindu ziran;
emoiguzu geuri ere, Jauna, euren bihotz on bera.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Otsailaren 21ean

San Pedro Damiani, gotzaina eta eleiz irakaslea

Eleiz irakasleen (981. or.) nahiz eleiz artzainen (gotzainarentzat, 968. or.) Betikotik.

Otoitza

Jainko ahalguztiduna,
egizu, Pedro Damiani gotzain santuaren
aholkuei eta ejenpluei jarraitu deiegula;
gauza guztien gainetik Kristo maitatuz
eta aspertu barik zure Eleizaren zerbitzari izanez,
betiko argi pozgarrira heldu gaitezan.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Otsailaren 22an

San Pedro apostoluaren Gotzain Aulkia

Jaia

Sarrera-ant.

Jaunak esan eutson Simon Pedrori: Nik otoitz egin dot zure alde, zure fedea amatatu ez dadin. Eta zuk, Nigana bihurtzean, sendotu egizuz zeure senideak. Lk 22, 32

Aintza zeruetan esango da.

Otoitza

Jainko ahalguztiduna,
Pedro apostoluaren fede-autormenaren
harkaitz gainean finkatu gaituzu;
ez gaizala kili-kolo jarri ezelako nahastek.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa

Begitu, Jauna, begi onez zeure Eleizaren otoitz eta emoitzei,
Pedro santua artzain dauala eta haren irakaspenari esker,
sinismenean zintzo iraun dagian eta betiko zoriona lortu.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Prefazioa: Apostoluen I.a, 528. or.

Jaunartze-ant. Pedrok esan eutson Jesusi: Zu Mesias zara, Jainko biziaren Semea. Jesusek erantzun eutson: Zu Pedro zara, harkaitza; harkaitz horren gainean eraikiko dot Nik neure Eleizea. Ik. Mt 16, 16.l8

Jaunartze ondorengoa

Oi Jainko, Pedro apostolu santuaren jaia ospatzean
Kristoren Gorputza eta Odola emon deuskuzuz
janari eta edari;
egizu, orain salbagarri izan dogun hartu-emon hau
izan dadila guretzat batasun- eta bake-sakramentu.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Bedeinkazino nagusia erabili leiteke, 653. or., 23. zk.

Otsailaren 23an

San Polikarpo, gotzaina eta martiria

Oroipena

Martirien (bakarrarentzat, 953. or.) nahiz eleiz artzainen (gotzainarentzat, 968. or.) Betikotik.

Otoitza

Diran guztien Jainkoa,
zeure martirien sailean ezarri zenduan
Polikarpo gotzain santua;
egizu, haren otoitzari esker,
Kristoren kalizean haregaz batera geuk ere parte harturik
eta Espiritu Santua lagun,
biztu gaitezala betiko bizirako.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

MARTXOA

Martxoaren 1ean

Baionako San Leon, gotzaina eta martiria

Martirien (bakarrarentzat, 953. or.) nahiz eleiz artzainen (gotzainarentzat, 968. or.) Betikotik.

Otoitza Oi Jainko,
Leon gotzain eta martiri santua predikari zala,
dei egin zeuntsen gure asabei Ebanjelioaren argi harrigarrira;
egizu, haren otoitzari esker, egin daigula beti aurrera
Jesu Kristo gure Jaunaren eta zure Semearen
grazian eta ezagueran.
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Martxoaren 3an

Emeterio eta Zeledonio santuak, martiriak

Martirien (martiri batzurentzat, 947. or.) Betikotik.

Otoitza Jainko ahalguztidun betikoa,
Emeterio eta Zeledonio martiri santuek,
zure laguntzaz, heriotza jasan eben Kristogaitik;
emoiozu gure izate makalari jainkozko zeure indarra,
hareek Zugaitik bildur barik hil ziran lez,
gu zure sinismenean sendo bizi gaitezan.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Martxoaren 4an

San Kasimiro

Santuen (santu bakarrarentzat, 993. or.) Betikotik.

Otoitza

Jainko ahalguztiduna,
zure zerbitzari izatea errege izatea da;
egizu, Kasimiro santuaren otoitzari esker,
izan gaitezala beti zure zerbitzari santu eta zuzen.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Martxoaren 7an

Perpetua eta Felizitas santuak, martiriak

Oroipena

Sarrera-ant.

Pozik dira zeruan Kristoren pausuei jarraitu eutsien santuak; Kristoganako maitasunaz euren odola isuri ebelako, poz betea dabe beragaz betiko.

Otoitza

Oi Jainko, zure maitasunak eraginik,
Perpetua eta Felizitas martiri santuek
arerioen erasoa baztertu
eta heriotzaren nekeak garaitu ebezan;
egizu, euren otoitzari esker,
gero eta maiteago izan zaiguzala.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa

Jauna, pozik dihardugu Zuri gaurko sakrifizio hau eskeintzen;
Perpetua eta Felizitas santuen
zeruko garaipena gogoratzean,
zure egintza miragarriak aldarrikatzen doguz
eta halako laguntzaile aintzatsuak emon deuskuzuzalako
pozten gara.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Jaunartze-ant. Heriotzara garoez Jesusegaitik, gure izate hilkor honetan Jesusen bizia be agertu dadin. 2 Ko 4, 11

Jaunartze ondorengoa

Zerutar atseginak hartu doguz, Jauna, sakramentu hau ospatuz
eta Perpetua eta Felizitas santuak goratuz;
apalik eskatzen deutsugu,
Zuri esker eta Zu leial zerbitzeko ospatu dogun
sakramentu honen ondorioak hartu daiguzala.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Martxoaren 8an

San Joan Jainkoarena, erlijiosoa

Santuen (erlijiosoentzat, 999. or. nahiz erruki-egintzak bete ebezanentzat, 1001. or.) Betikotik.

Otoitza

Oi Jainko,
erruki-espiritua emon zeuntsan behartsu eta gaixoentzat
Joan Jainkoarena santuari;
egizu, geu ere maitasun-egintzetan ahaleginduz,
zure aukeratuen artean izan gaitezala zure erreinuan.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Martxoaren 9an

Santa Frantziska Erromatarra, erlijiosa

Santuen (emakume santuentzat, 1004. or., nahiz erlijiosentzat 999. or.) Betikotik.

Otoitza

Oi Jainko,
Frantziska Erromatarra santua eredu emon zeunskun
bai ezkontza-bizitzarako, bai komentu-bizitzarako;
egizu, izan gaitezala beti zure zerbitzari leial,
geure bizitzako gorabehera guztietan
Zeu ikusi zaiguzan eta Zeuri jarraitu deizugun.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Martxoaren 17an

San Patrizio, gotzaina

Eleiz artzainen (misiolarientzat, 977. or. nahiz gotzainarentzat, 968. or.) Betikotik.

Otoitza

Oi Jainko,
Irlandako jenteei zeure aintza ezagutuazoteko
aukeratu zenduan Patrizio gotzain santua;
egizu, haren otoitzei eta merezimentuei esker,
kristau izateaz pozten diranek
agertu dagiezala gizakien aurrean
eten barik zure egintza miragarriak.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Martxoaren 18an

Jerusalemgo San Zirilo, gotzaina eta eleiz irakaslea

Eleiz artzainen (gotzainarentzat, 968. or.) nahiz eleiz irakasleen (981. or.) Betikotik.

Otoitza

Oi Jainko,
Zirilo Jerusalemgo gotzain santuaren bidez
salbazinoko misterioak sakonago ezagutzera
eroan zenduan zeure Eleizea;
egizu, haren otoitzari esker,
geuk ere zure Semea gero eta hobeto ezagutu daigula,
gero eta bizi oparoagoa izan daigun.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Martxoaren 19an

SAN JOSE, MARIA BIRJINA DOHATSUAREN SENARRA

Festaburua

Sarrera-ant. Hauxe da etxezain leiala eta zentzunduna, Jaunak bere familiaren buru ipini dauana. Ik. Lk 12, 42

Aintza zeruetan esango da.

Otoitza

Jainko ahalguztiduna,
gizadiaren salbazinoko lehenengo misterioak
Jose santuaren ardura leialaren pean jarri zenduzan;
egizu, haren otoitzari esker,
Eleizak ere zaindu dagizala beti eta eroan bere betera.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Sinesten dot esango da.

Oparigaien gainekoa

Jauna, Jose santua Maria Birjinagandik jaiotako
zure Seme bakarraren zerbitzari leiala izan zan lez,
egizu, geuk ere bihotz garbiz zerbidu zaiguzala zure altaran.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Prefazioa SAN JOSEREN EGITEKOA

℣. Jauna zuekin.
℟. Eta zure espirituarekin.
℣. Gora bihotzak.
℟. Jaunagan daukaguz.
℣. Eskerrak Jaungoiko gure Jaunari.
℟. Egoki da eta zuzen.

Egoki da, bai, eta zuzen, bidezko eta salbagarri,
nonahi eta beti guk Zuri eskerrak emotea,
Jauna, Aita guztiz santu,
Jainko ahalguztidun betiko horri.

Eta zure handitasuna kantuz autortzea,
bedeinkatzea eta gorestea
Jose santuaren * festaburua ospatzen dogun egun honetan.
Hau, bai, gizon zuzena,
Jainkoaren Ama Birjinari Zuk senartzat emona;
hau, bai, zerbitzari leial eta zentzunduna,
zure Familia santuaren buru ezarria,
aitak bezala zaindu eian
Espiritu Santuaren egitez sortutako
zure Seme bakar Jesu Kristo gure Jauna.

Honen bitartez aingeruek zure handitasuna goresten dabe,
zerutar espiritu eta podereek zure ospea adoratzen,
goiko indar eta serafin dohatsuek Zuri ahuspez agur egiten,
poztasun berak ditu-eta zerutar guztiak alkartzen.
Onartu eizu, Jauna,
euren gorespenekin bat egin daiguzala geuk ere
geure kantu-hotsak:

Santu, Santu, Santua...




Egoki da, bai, eta zuzen, bidezko eta sal-ba-ga-rri, no-na-hi eta
beti guk Zuri eskerrak e-mo-te-a, Jauna, Aita guz-tiz san-tu,
Jainko ahalguzti-dun be-ti-ko ho-rri. Eta zu-re handita-
suna kantuz au-tor-tze-a, bedeinkatzea eta go-res-te-a
Jose santuaren *festaburua* ospatzen do-gun e-gun ho-ne-tan.
Hau, bai, gizon zuzena, Jainkoaren Ama Birjinari Zuk senartzat
e-mo-na; hau, bai, zerbitzari leial eta zentzunduna, zure
Familia santuaren buru e-za-rri-a, aitak bezala zain-du ei-an
Espiritu Santuaren egitez sortu-ta-ko zure Seme bakar Je-su
Kris-to gu-re Jau-na. Honen bitar-tez, aingeruek zure handitasuna



Jaunartze-ant. Ederto, morroi zintzoa eta leiala, sartu zeure nagusiaren jaia ospatzera! Mt 25, 21

Jaunartze ondorengoa

Altarako janari santuaz asetu dozu, Jauna,
zeure kristau-familia hau
Jose santuaren festaburua
pozik ospatzen dauan egun honetan;
zaindu egizu beti zeure babespean
eta gorde beragan
Zuk maitasun handiz emondako dohaiak.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Bedeinkapen nagusia erabili daiteke, 654. or., 25. zk.

Martxoaren 23an

San Toribio Mogrovejo, gotzaina

Eleiz artzainen (gotzainarentzat, 968. or.) Betikotik.

Otoitza

Oi Jainko,
Toribio Mogrovejo gotzain santuaren apostolu-arduraz
eta egiagazko haren maitasunez zabaldu egin dozu Eleiza;
egizu, Zuri eskeinita dagoan herri hau
hazten joan dadila eten barik sinismenean eta santutasunean.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Martxoaren 25ean

JAUNAREN GIZAKUNDEAREN ADIERAZPENA

Festaburua

Festaburu hau Aste Santuan danean, Pazkoaldiko II. astelehenera aldatuko da.

Sarrera-ant.

Jaunak, munduan sartzean, dino: Hemen nozu, Jainko, zure nahia betetzeko. Heb 10, 5.7

Aintza zeruetan esango da.

Otoitza

Oi Jainko,
zure Hitza Maria Birjinaren sabelean
egiaz gizon egitea nahi izan zenduan;
egizu, gure Salbatzailea
Jainko eta gizon dala autortzen dogunok,
parte izan daigula haren jainkotasunean ere.
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Sinisten dot esango da. Eta Espiritu Santuaren egitez... gizon egin zan hitzak esatean, belaunikatu egingo dira danak.

Oparigaien gainekoa

Onartu, Jainko ahalguztiduna, zeure Eleizearen emoitzak,
eta Eleizak zure Seme bakarraren gizakundean
bere hasiera izan dauala autortzen dauan ezkero,
emoiozu Kristoren misterioen festaburu hau
gaur pozik ospatzea.
Errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Prefazioa

GIZAKUNDEAREN MISTERIOA

℣. Jauna zuekin.
℟. Eta zure espirituarekin.

℣. Gora bihotzak.
℟. Jaunagan daukaguz.

℣. Eskerrak Jaungoiko gure Jaunari.
℟. Egoki da eta zuzen.

Egoki da, bai, eta zuzen
bidezko eta salbagarri,
nonahi eta beti guk Zuri eskerrak emotea,
Jauna, Aita guztiz santu,
Jainko ahalguztidun betiko horri,
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Maria Birjinak, aingeruari entzunik, fedez onartu ebalako
eta bere sabel garbian maitasunez ekarri,
gizakiokaitik eta gizakion artean
Espiritu Santuaren egitez sortzekoa zan Kristo.
Holan bete ziran egiaz
Jainkoak Israeli egindako agintzariak,
eta agirian jarri zan,
miragarriro beteko zala herrien itxaropena.

Horregaitik, zure handitasuna autortzen dau aingeruen taldeak,
beti pozez alkarturik zure aurrean.
Onartu eizu, Jauna,
euren gorespenekin bat egin daiguzala geuk ere
geure kantu-hotsak:

Santu, Santu, Santua,
diran guztien Jainko Jauna.
Zeru-lurrak beterik daukaz zure distirak.
Hosanna zeru-goienetan!
Bedeinkatua Jaunaren izenean datorrena.
Hosanna zeru-goienetan!






bi-tar-tez. Ma-ri-a Birjinak, aingeruari entzunik, fedez onartu e-ba-
la-ko eta bere sabel garbian maitasunez e-ka-rri, gizakiokaitik
eta gizakion ar-te-an Espiritu Santuaren egitez sor-tze-ko-a
zan Kris-to. Ho-lan bete ziran egiaz, Jainkoak Israeli egindako a-
gin-tza-ri-ak, eta agirian ja-rri zan, miragarriro beteko zala
he-rri-en i-txa-ro-pe-na. Horregai-tik, zure handitasuna autortzen
dau aingeruen tal-de-ak, beti pozez alkarturik zure au-rre-an.
Onartu eizu, Jauna, euren gorespenekin bat egin daiguzala geuk e-re
geu-re kan-tu – ho-tsak:

Jaunartze-ant. Begira, Birjina seindun dago eta semea izango dau, eta Emmanuel ipiniko deutso izena. Is 7, 14

Jaunartze ondorengoa

Sendotu egizu gugan, Jauna,
zinezko fedearen sakramentu hau
eta egizu, Ama Birjinaren Semea
egiazko Jainko eta gizon dala autortzen dogunok
lortu daigula betiko zorionera heltzea
biztuera salbagarriaren indarrez.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Bedeinkapen nagusia erabili daiteke, 652. or., 21. zk

APIRILA

Apirilaren 2an

Paulako San Frantzisko, ermitaua

Santuen (erlijiosoentzat, 999. or.) Betikotik.

Otoitza

Apalen goratzaile zaran Jainkoa,
santuen ospea emon zeuntsan
Paulako Frantzisko santuari;
egizu, bera lagun,
beraren merezimentuei eta ejenpluari jarraitu deiegula,
Zuk apalei agindutako saria zorionez jadetsi daigun.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Apirilaren 5ean

San Bizente Ferrer, presbiteroa

Eleiz artzainen (misiolarientzat, 960. or.) Betikotik.

Otoitza

Oi Jainko,
Ebanjelioaren iragarle egin zenduan
Bizente Ferrer presbitero santua;
egizu, berak lur honetara epaile etorriko dala
iragarri euskun Jesu Kristo
zeruetan errege ikusi daigula pozez.
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Apirilaren 7an

La Salleko San Joan Bautista, presbiteroa

Oroipena

Eleiz artzainen (bakarrarentzat, 972. or.) nahiz santuen (hezitzaileentzat, 1003. or.) Betikotik.

Otoitza

Oi Jainko,
kristau-gazteria hezteko aukeratu zenduan
La Salleko Joan Bautista santua;
sortu egizuz zeure Eleizan,
gazteak gizatasunean eta kristautasunean
heziko dabezan irakasleak.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Apirilaren 11n

San Estanislao, gotzaina eta martiria

Oroipena

Martirien (bakarrarentzat, 953. or., edo pazkoaldian, 958. or.) nahiz eleiz artzainen (gotzainarentzat, 968. or.) Betikotik.

Otoitza

Oi Jainko, Zeu goresteagaitik,
arerioen ezpatapean kementsu jasan eban heriotza
Estanislao gotzain santuak;
egizu, arren, geuk ere
fedean sendo iraun daigula heriotzaraino.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Apirilaren 13an

San Martin I.a, aita santua eta martiria

Martirien (bakarrarentzat, 953. or., edo pazkoaldian, 958. or.) nahiz eleiz artzainen (aita santuarentzat, 965. or.) Betikotik.

Otoitza Jainko ahalguztiduna, Martin aita santu eta martiria,
zure grazia lagun,
ez eben ikaratu egin eutsoezan amenazuek,
ezta menperatu ere emon eutsoezan oinazeek;
emoiguzu arimako indarra,
geuk ere mundu honetako neke guztiak
atzera egin barik jasan daiguzan.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

San Hermenegildo, martiria

Martirien (bakarrarentzat, 953. or., edo pazkoaldian, 958. or.) Betikotik.

Otoitza Oi Jainko,
fedearen zaintzaile adoretsu egin zenduan
Hermenegildo martiri santua zeure Eleizarentzat;
egizu, gaur haren martiritzaren oroipena ospatzen dogunok
bizi gaitezala zure izenaren autormenean bat eginik
eta iraun daigula zure maitasunean.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Apirilaren 21ean

San Antselmo, gotzaina eta eleiz irakaslea

Eleiz artzainen (gotzainarentzat, 968. or.) nahiz eleiz irakasleen (981. or.) Betikotik.

Otoitza Oi Jainko, zure jakituriaren sakontasuna
bilatzeko eta irakasteko dohaia emon zeuntsan
Antselmo gotzain santuari;
egizu, lagundu deiola Zugazko fedeak gure adimenari,
gure bihotzak gozo aurkitu dagian
sinisteko agindu deuskuzun egia.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Apirilaren 23an

San Jorje, martiria

Martirien (bakarrarentzat, pazkoaldian, 958. or.) Betikotik.

Otoitza

Zure ahalmen handia goresten dogu, Jauna,
eta apalik eskatzen deutsugu:
Jesu Kristoren nekaldiaren
jarraitzaile gartsu izan zan Jorje santua
izan daigula laguntzaile bizkor geure makaltasunean.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

San Adalberto, gotzaina eta martiria

Martirien (bakarrarentzat, pazkoaldian, 958. or.) nahiz eleiz artzainen (gotzainarentzat, 968. or.) Betikotik.

Otoitza

Oi Jainko, martiri-koroa emon zeuntsan
arimen zaletasunaz suturik egoan
Adalberto gotzain santuari;
egizu, haren otoitzari esker,
artzainak izan dagiala artaldearen obedientzia,
eta artaldeak artzainaren ardurea beti.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Apirilaren 24an

Sigmaringengo San Fidel, presbiteroa eta martiria

Martirien (bakarrarentzat, pazkoaldian, 958. or.) nahiz eleiz artzainen (bakarrarentzat, 972. or.) Betikotik.

Otoitza

Oi Jainko, Zugazko maitasunez sutua egoan
Sigmaringengo Fidel santua
eta martirien palma-adarrez
ospetsu egin nahi izan zenduan fedearen zabalkundean;

egizu, haren otoitzari esker,
geuk ere maitasunean sendoturik,
ezagutu daigula beragaz batera
Kristoren biztuerak dauan indarra.
Zurekin eta Espiriritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi zara-eta gizaldi eta gizaldietan.

Apirilaren 25ean

San Markos, ebanjelaria

Jaia

Sarrera-ant. Zoaze mundu guztira, eta iragarri Barri Ona izaki guztiei, aleluia. Mk 16,15

Aintza zeruetan esango da.

Otoitza Oi Jainko,
Barri Ona iragartzeko grazia emon zeuntsan
Markos ebanjelari santuari;
egizu, haren irakaspena balia dakigula
Kristoren pausuei zintzo jarraitzeko.
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa Markos santua goratzean
eskeintzen deutsugu, Jauna, gorespen-opari hau;
eta apalik eskatzen,
zure Eleizeak iraun dagiala beti zure Barri Ona zabaltzen.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Prefazioa: Apostoluen II.a, 530. or.

Jaunartze-ant. Ni zeuekin izango nozue egunero munduaren azkenera arte, dino Jaunak, aleluia. Mt 28, 20

Jaunartze ondorengoa

Jainko ahalguztiduna,
zure altaratik hartu dogun sakramentuak santu egin gaizala
eta Markos santuak iragarri eban
Ebanjelioagazko fedean indartu.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Bedeinkapen nagusia erabili daiteke, 653. or., 23. zk.

Apirilaren 26an

San Isidoro, gotzaina eta eleiz irakaslea

Jaia

Sarrera-ant.

Argitsua da jakituria, amatatu ezina haren distira; neke barik ikusten dabe maite dabenek, baita aurkitzen be haren bila dabiltzanek, aleluia.
Jkt 6, 12

Aintza zeruetan esango da.

Otoitza

Jauna, Jainko ahalguztiduna,
giza jakintzaren eredu eta sorburu egin zenduan
Isidoro gotzain eta eleiz irakasle santua;
egizu, haren otoitzari esker,
bilatu daigula arretaz betiko egia eta onartu bihotz zabalez.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa

Jauna, giza lanak sortutako emoitza honeek
ekarri deiguela zure bedeinkazinoa
eta egin gagiezala egiaren Espirituaren esaneko.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Prefazioa

San Isidororen irakasletza

℣. Jauna zuekin.
℟. Eta zure espirituarekin.
℣. Gora bihotzak.
℟. Jaunagan daukaguz.

℣. Eskerrak Jaungoiko gure Jaunari.
℟. Egoki da eta zuzen.

Egoki da, bai, eta zuzen,
bidezko eta salbagarri,
nonahi eta beti guk Zuri eskerrak emotea,
Jauna, Aita guztiz santu,
Jainko ahalguztidun betiko horri,
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Isidoro santuaren jaia ospatzeko poza emon deuskuzu,
eta zeure Eleizea sendotu dozu,
haren bizi-ereduaz,
haren irakaspen oparoaz
eta haren jakituria argitsuaz;
holan, haren hitzez eskolatu dozu
eta haren otoitzaren laguntzaz babestu.

Horregaitik, geu ere zeruko talde guztiekin alkartzen gara,
eta, euren pozez beterik,
zure aintza goresten dogu, [esanez] abestuz:

Santu, Santu, Santua...

Jaunartze-ant. Apalik ikasi neban jakituria, damu barik banatzen dot; ez ditut haren aberastasunak neuretzat bakarrik gordetzen, altxor agortezina da-eta gizakientzat; bera eskuratzen dabenak Jainkoaren adiskide egiten dira, heziketaz lortutako dohaiari esker, aleluia. Jkt 7, 13-14

Jaunartze ondorengoa

Jauna, biziaren ogia dan Kristo emon deuskuzu janari;
argitu gaizuz Kristo maisuaren irakaspenez
Isidoro santuaren jai honetan,
zure egia ikasi eta egia hori maitasun-egintzetan bizi daigun.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Bedeinkazino nagusia erabili leiteke, 654. or. 25. zk.

Apirilaren 28an

Armentiako San Prudentzio, gotzaina

Eleiz artzainen (gotzainarentzat, 968. or.) Betikotik.

Otoitza Oi Jainko, bakearen iturria,
hasarreak banatutako senideen artean barriro bakea ezartzeko dohai harrigarria emon zeuntsan Prudentzio gotzain santuari;
egizu, haren otoitzari esker zure nahietara bihurturik,
bihotzez bat eginik bizi gaitezala beti.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

San Pedro Chanel, presbiteroa eta martiria

Martirien (bakarrarentzat, pazkoaldian, 958. or.) nahiz eleiz artzainen (misiolarientzat, 977. or.) Betikotik.

Otoitza Oi Jainko,
zeure Eleizea urrutietara zabaltzeko eginkizuna
emon zeuntsan Pedro Chanel santuari,
eta martirien koroaz saritu zenduan;
egizu, pazkoaldi honetan
Kristo hil eta biztuaren misterioa pozik ospatzen dogunok
bizi barriaren lekuko izan gaitezala.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

San Luis Maria Grignion Montfortekoa, presbiteroa

Eleiz artzainen (bakarrarentzat, 972. or.) Betikotik.

Otoitza Oi Jainko,
Kristoren salbazinoaren eta maitasunaren bidetik
eroan nahi izan zenduzan
Luis Maria presbitero santuaren pausuak,
Maria Birjina bidelagun ebala;

egizu, bera eredu harturik,
zure maitasunaren misterioak hausnartuz,
ahalegindu gaitezala aspertu barik zure Eleiza eraikitzen.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Edo:

Jainko ahalguztidun betikoa,
zure Seme Jesu Kristori osorik eskeinia bizitzeko grazia
emon zeuntsan Luis Maria presbitero santuari,
eta horren testigu eta maisu aparta egin zenduan
Jesusen Ama santuaren eskutik;
egizu, geuk ere, espirituzko bide berari jarraituz,
zure erregetza munduan zabaltzen lan egin daigula beti.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Apirilaren 29an

Sienako Santa Katalina, birjina eta eleiz irakaslea
Europako zaindaria

Jaia

Sarrera-ant. Hauxe da birjina zentzunduna, Kristori kriseilu biztuaz bidera urten eutsona, aleluia.

Aintza zeruetan esango da.

Otoitza Oi Jainko, zeure maitasunaren su bizia emon zeuntsan
Sienako Katalina santuari,
zeure Semearen nekaldia gogoz hausnartzeko
eta Eleizaren zerbitzari adoretsu izateko;
egizu, haren otoitzari esker,
zure herria, Kristoren misterioari loturik,
poztu dadila beti haren aintzaren agertzeaz.

Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa

Onartu, Jauna, Katalina santuaren oroitzapenean
eskeintzen dihardugun opari salbagarria;
egizu, haren irakaspenek argitu gagiezala,
Zuri, egiazko Jainko horri,
esker beroagoak emoteko gai izan gaitezan.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Prefazioa: Birjina santuena, 540. or.

Jaunartze-ant.

Jainkoa argia da; geu ere argitan bagabiltz, alkartasuna dogu batak bestearekin eta haren Seme Jesusen odolak pekatu guztitik garbitzen gaitu, aleluia. Ik. 1 Jn 1, 7

Jaunartze ondorengoa

Orain hartu dogun sakramentuak
emon deigula, Jauna, betiko bizia,
Katalina santuaren mundu honetako bizia indartu eban lez.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Bedeikazino nagusia erabili leiteke, 654. or., 25. zk.

Apirilaren 30ean

San Pio V.a, aita santua

Eleiz artzainen (aita santuarentzat, 965. or.) Betikotik.

Otoitza

Oi Jainko,
fedea zaintzeko eta Zu hobeto gurtzeko
Pio aita santua sortu zenduan zeure Eleizan;
egizu, haren otoitzari esker,
fede biziz eta egiazko maitasunez beterik,
esku hartu daigula zure misterioetan.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

MAIATZA

Maiatzaren 1ean

San Jose langilea

Sarrera-ant. Zorionekoa Jaunari begirune deutsona eta haren bideetan dabilena! Zeure lanaren frututik dozu jango, zoriontsu izango zara eta ondo jatzu joango, aleluia. Sal 128 [127], 1-2

Otoitza

Oi Jainko, gauza guztien egilea,
lan egiteko legea ezarri deutsazu Zuk gizadiari;
egizu, onbera,
Jose santua eredu eta laguntzaile dogula,
bete daiguzala Zuk jarritako eginbeharrak
eta lortu daigula Zuk agindutako saria.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa

Oi Jainko, errukiaren iturri agortu ezina,
onartu egizuz Jose santuaren oroitzapenean
Zuri, Jaun handi horri, ekarri deutsuguzan emoitzak
eta egizuz, bihotz onez, otoitzean dihardugunontzat
graziaren iturri.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Prefazioa: San Jose Maria Birjina dohatsuaren senarrarena: Jose santuaren * oroitzapena, 746. or.

Jaunartze-ant. Edozer esaten nahiz egiten dozuela, egizue dana Jesu Kristo Jaunaren izenean, beraren bidez Jainko Aitari eskerrak emonez, aleluia. Kol 3, 17

Jaunartze ondorengoa

Jauna, zerutar janari gozoaz elikaturik,
apalik eskatzen deutsugu,
Jose santua eredu dogula
Zuk guretzat dozun maitasunaren autorle izanik,
gozatu daigula eten barik betiko bakea.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Maiatzaren 2an

San Atanasio, gotzaina eta eleiz irakaslea

Oroipena

Sarrera-ant. Batzarraren erdian berba egiteko gaitasuna emon eutson, eta Jaunak jakituriaz eta adimenez bete eban; soineko ospetsua jantzi eutson, aleluia. Ik. Si 15, 5

Otoitza

Jainko ahalguztidun betikoa,
zure Semearen jainkotasunaren autorle gartsu egin zenduan
Atanasio gotzain santua;
egizu, arren, haren irakaspenaz eta laguntzaz,
Zu geroago eta ezagunago eta maiteago izan zaiguzala.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa

Onartu, Jauna, Atanasio santuaren
oroitzapena ospatzeko dakartsuguzan emoitzak;
zure egia autortzea onuragarri izan dadila salbazinorako
haren fedearen lekuko diranentzat.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Jaunartze-ant. Inork ezin leike ipinita dagoan oinarria besterik ipini; eta oinarri hori Jesu Kristo da, aleluia. 1 Ko 3, 11

Jaunartze ondorengoa

Jainko ahalguztiduna, egizu, Atanasio santuagaz gogotsu autortzen dogun Jesu Kristoren jainkotasunak, sakramentu honen bidez, biziazo gaizala eta babestu. Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Maiatzaren 3an

San Felipe eta Santiago, apostoluak

Jaia

Sarrera-ant.

Honeexek dira gizon santuak, Jaunak zinezko maitasunez aukeratuak; betiko aintza emon deutse, aleluia.

Aintza zeruetan esango da.

Otoitza

Oi Jainko,
Felipe eta Santiago apostoluen jaia ospatuz
pozten gaituzu urtero;
emoiguzu, euron otoitzari esker,
zure Semearen nekaldian eta biztueran parte izatea,
betieran Zeu ikustera heldu gaitezan.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa

Onartu, Jauna, Felipe eta Santiago apostoluen
jai honetan egiten deutsugun eskeintza;
emoiguzu, bihotz garbiz eta zintzoz
Zu jainkozaletasunez zerbitzea
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Prefazioa: Apostoluena, 528-530. or.

Jaunartze-ant.

Jauna, erakutsi eiguzu Aita, eta nahikoa dogu. Felipe, Ni ikusten nauanak Aita ere ikusten dau, aleluia. Jn 14, 8-9

Jaunartze ondorengoa

Garbitu egizuz, Jauna, gure gogo-bihotzak
hartu dogun sakramentuaz;
eta egizu, Felipe eta Santiago apostoluakaz batera
zure Semeagan Zeu ikusirik,
lortu daigula betiko bizia.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Bedeinkazino nagusia erabili leiteke, 653. or., 23. zk.

Maiatzaren 10ean

Avilako San Joan, presbiteroa eta eleiz irakaslea

Oroipena

Sarrera-ant.

Zintzoen jakituriaz berba egingo dabe nazinoek, hareen gorespena iragarriko dau herri-batzarrak; gizaldiz gizaldi biziko da hareen izena, aleluia. Ik. Si 44, 15.14

Otoitza

Oi Jainko,
kristau-bizitzarako irakasle eredugarria egin zenduan
Avilako Joan santua zeure herriarentzat,
bai bizitzako santutasunez, bai apostolutzarako zaletasunez;
egizu, gure egunotan ere gero eta santuago izan dadila Eleiza,
zure zerbitzarien apostolu-zaletasun eredugarriaz.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa

Begirune handiz eskeintzen deutsugun
salbazino-opari honen bidez,
biztu, Jauna, gure bihotzean
Espiritu Santuaren sua,
su horregaz biztu zenduan-eta
artzain-maitasunez betea egoan
Avilako Joan santuaren arimea.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Jaunartze-ant. Guk Kristo kurutzeratua predikatzen dogu, Jainkoaren indarra eta Jainkoaren jakituria dan Kristo, aleluia. Ik. 1 Ko 1, 23.24

Jaunartze ondorengoa Janari gozo eta biziemoileaz asetuta,
eskaria egiten deutsugu, Jauna,
zure Semeagaz gero eta gehiago bat eginik bizi gaitezala,
haren Gorputz mistikoaren atal bikainago izan gaitezan.
Errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Maiatzaren 12an

Nereo eta Akileo santuak, martiriak

Martirien (martiri batzurentzat, pazkoaldian 956. or.) Betikotik.

Otoitza Jainko ahalguztiduna,
zeure testigu kementsu egin dituzu fede-autormenean
Nereo eta Akileo martiri ospetsuak;
egizu, somatu daigula euren laguntza zure aurrean.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

San Pankrazio, martiria

Martirien (bakarrarentzat, pazkoaldian 958. or.) Betikotik.

Otoitza Poztu bedi, Jauna, zure Eleizea,
Pankrazio martiri santuaren laguntzan uste ona dauala;
egizu, haren otoitzari esker,
jarraitu deizula Zuri leial eta iraun dagiala sendo.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Maiatzaren 13an

Fatimako Maria Birjina dohatsua

Maria Birjina doatsuaren (935. or.) Betikotik.

Otoitza

Oi Jainko,
zure Semearen Ama gure Ama ere egin zenduan;
emoiguzu, munduaren salbazinorako
penitentzian eta otoitzean irautea,
gero eta gehiago ahalegindu gaitezan
Kristoren erregetza eraikitzen.
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Maiatzaren 14an

San Matias, apostolua

Jaia

Sarrera-ant.

Ez ninduzuen zuek aukeratu Ni, Neuk aukeratu zinduedazan zuek, eta eginkizun hau emon deutsuet: frutu ugaria eta iraunkorra emon dagizuela edonon (P.a. aleluia). Jn 15, 16

Aintza zeruetan esango da.

Otoitza

Oi Jainko,
Apostoluen alkargoan sartu zenduan Matias santua;
egizu, haren otoitzari esker,
zure maitasunaz pozten garanok
izan gaitezala zure aukeratuen arteko.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa

Onartu, Jauna, Matias santuaren jai honetan
zeure Eleizeak begirunez egiten deutsun eskeintza;
honen bidez sendotu gaizuz zeure graziaren indarra emonez.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Prefazioa: Apostoluena, 528-530. or.

Jaunartze-ant. Hauxe da nire agindua: maitatu daizuela alkar, Neuk maite izan zaituedan lez, dino Jaunak (P.a. aleluia). Jn 15, 12

Jaunartze ondorengoa

Bete egizu eten barik, Jauna, zeure familia zerutar dohaiez
eta, Matias santuaren otoitzari esker,
hartu gaizuz betiko argian
eta emoiguzu santuen zorionean parte izatea.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Bedeinkazino nagusia erabili leiteke, 653. or., 23. zk.

Maiatzaren 15ean

San Isidro nekazaria

Oroipena

Sarrera-ant. Nekazaria lurraren frutu ederraren zain egoten da eta pazientziaz itxaroten dau sasoiz datorren euria eta berandu datorrena (P.a. aleluia). St 5, 7

Otoitza

Jainko gure Jauna,
Isidro nekazari santuaren umiltasunean eta apaltasunean,
Kristogaz bat egindako bizitza isilaren eredua
emon zeunskun;
egizu, eguneroko gure lanak
bihurtu dagiala gure mundua gero eta gizatiarrago
eta izan dadila, aldi berean, zure izenaren gorespenerako.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa

Hona hemen, Jauna, ogi eta ardao honeek;
Isidro nekazari santuak lez,
gizakiak bere izerdiaz emonazo deutsoz lurrari;
onartu egizuz eta santutu.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Jaunartze-ant. Otoitz egin eban, eta zeruak euria emon eban eta lurrak frutua ekarri (P.a. aleluia). St 5, 18

Edo:

Neu naz egiazko mahatsondoa, eta neure Aita da nekazaria (P.a. aleluia). Jn 15, 1

Jaunartze ondorengoa

Egizu, Jauna, hartu dogun sakramentu hau
izan dadila gugan maitasun-uzta ugaria emongo dauan hazi;
eta, gaur gogoratzen dogun Isidro santua eredu dogula,
jakin daigula eguneroko geure ogitik
senide doguzan gizakiei emoten.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Maiatzaren 17an

San Paskoal Bailon, erlijiosoa

Santuen (erlijiosoentzat, 999. or.) Betikotik.

Otoitza

Oi Jainko, zaletasun berezia emon zeuntsan
Paskoal Bailon santuari
zeure Semearen Gorputz-Odolenganako;
egizu, zeure seme-alabentzat prestatu dozun jatordu honetan
aurkitu daiguzala harek aurkitu zituan zerutar ondasunak.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Maiatzaren 18an

San Joan I.a, aita santua eta martiria

Martirien (bakarrarentzat, 953. or., edo pazkoaldian 958. or.) nahiz eleiz artzainen (aita santuarentzat, 965. or.) Betikotik.

Otoitza

Oi Jainko, fededunen sari-emoilea,
Joan aita santuaren martiritzaz sagaratu zenduan egun hau;
entzun zeure herriaren eskariak,
eta egizu, haren merezimentuak goratzen doguzanok
bera eredu izan daigula fedean tinko irauteko.

Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Maiatzaren 20an

Sienako San Bernardino, presbiteroa

Eleiz artzainen (misiolarientzat, 977. or.) nahiz santuen (erlijiosoentzat, 999. or.) Betikotik.

Otoitza

Oi Jainko,
Jesusen izen santuagazko maitasun miragarria
emon zeuntsan Sienako San Bernardino presbiteroari;
egizu, haren merezimentuei eta otoitzari esker,
zure maitasun-espirituak sutu gaizala beti.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Maiatzaren 21ean

Kristobal Magallanes, presbiteroa, eta lagunak, martiriak

Martirien (martiri batzurentzat, 947. or., edo pazkoaldian, 956. or.) Betikotik.

Otoitza

Jainko ahalguztidun betikoa,
San Kristobal presbiteroa eta haren lagunak
Kristo Erregeren jarraitzaile leial
egin zenduzan martiritzaraino;
emoiguzu, euren otoitzari esker,
egiazko fedearen autormenean iraunez
zure maitasunaren aginduak beti betetzea.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Maiatzaren 22an

Santa Joakina Vedruna, erlijiosa

Santuen (erlijiosentzat, 999. or.) Betikotik.

Otoitza

Jauna, Joakina santua sortu zenduan Eleizan,
gazteria kristautasunean hezteko eta gaixoei laguntzeko;
egizu, jarraitu deiogula haren ikasbideari,
eta geure bizitzan zerbidu daiguzala maitasunez
geure senideak.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa

Onartu, Jauna, zure Semearen maitasun oroigarria ospatzeko
ekarri doguzan emoitza honeek;
eta egizu, misterio honeetan esku hartzen dogunok,
Joakina Vedrunaren antzera,
gauza guztien gainetik Zeu maitatu zaiguzala,
baita gizon-emakume guztiak ere Zuganako maitasunez.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Jaunartze ondorengoa

Egizu, Jauna, Eukaristia honek indartu dagiala gugan zure bizia;
eta, Joakinaren antzera,
izan gaitezala, hitzez eta egitez, maitale ingurukoentzat
eta argi-egile guri begira dagozanentzat.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Casiako Santa Rita, erlijiosa

Santuen (erlijiosentzat, 999. or.) Betikotik.

Otoitza

Emoiguzu, Jauna, Rita santuari oparo emon zeuntsan
kurutzearen jakituria eta kemena,
nahigabeetan Kristoren nekaldian parte hartuz,
haren pazko-misterioan barruagotik esku hartu daigun.
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Maiatzaren 25ean

San Beda Agurgarria, presbiteroa eta eleiz irakaslea

Eleiz irakasleen (981. or.) nahiz gizon santuen (lekaidearentzat, 996. or.) Betikotik.

Otoitza

Oi Jainko,
Beda presbitero santuaren jakintzaz
argitu dozu zeure Eleizea;
emoiezu, bihotz onez, zeure zerbitzariei
haren irakaspenen argia eta merezimentuen laguntza.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

San Gregorio VII.a, aita santua

Eleiz artzainen (aita santuarentzat, 965. or.) Betikotik.

Otoitza

Emoiozu, Jauna, zeure Eleizeari
Gregorio aita santuari emon zeuntsan
indar-espiritua eta zuzentasun-gosea,
txarto dagoan guztia baztertuz,
zuzena dan guztia askatasunez eta maitasunez bizi dagian.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Santa Maria Magdalena Pazzi, birjina

Birjinen (bakarrarentzat, 985. or.) nahiz santuen (erlijiosentzat, 999. or.) Betikotik.

Otoitza

Birjintasuna maite dozun Jainkoa,
zerutar dohaiez apaindu zenduan
Maria Magdalena Pazzi, birjina santua,
eta zeure maitasunaz sutu zeuntsan bihotza;
egizu, gaur haren oroipena ospatzen dogunok
imitatu daigula haren garbitasun- eta maitasun-ejenplua.

Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Maiatzaren 26an

San Felipe Neri, presbiteroa

Oroipena

Sarrera-ant. Jainkoak bere maitasuna isuri deusku bihotzera, gugan bizi dan Espirituaren bitartez (P.a. aleluia). Erm 5, 5; ik. 8, 11

Otoitza

Oi Jainko,
santutasunaren aintzaz goratzen dituzu
zeure zerbitzari leialak;
egizu, arren, Espiritu Santuak biztu dagiala gugan
Felipe Neri santuaren bihotza
harrigarriro berotu eban sua bera.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa

Gorespen-oparia eskeintzean, otoitz egiten deutsugu, Jauna:
Felipe Neri santuaren jokabideari jarraituz,
bizi gaitezala beti Zeu goratzen
eta lagun hurkoari pozik zerbitzu egiten.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Jaunartze-ant. Aitak Ni maite izan nauan lez, halantxe maite izan zaituet Neuk ere zuek, dino Jaunak; iraun tinko nire maitasunean (P.a. aleluia). Jn 15, 9

Jaunartze ondorengoa

Jauna, zerutar ogi osasungarria emon deuskuzu janari;
egizu, bilatu daiguzala geuk ere beti,
Felipe Neri santuaren antzera,
egiazko bizia emoten deuskuen ondasunak.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Maiatzaren 27an

Canterburyko San Agustin, gotzaina

Eleiz artzainen (misiolarientzat, 977. or. nahiz gotzainarentzat, 968. or.) Betikotik.

Otoitza

Oi Jainko,
Canterburyko Agustin gotzain santuaren predikuaren bidez
Ebanjelioaren argira ekarri zenduan Ingalaterrako jentea;
egizu, Eleizan iraun dagiala beti emonkor haren lanen frutuak.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Maiatzaren 29an

San Paulo VI.a, aita santua

Eleiz artzainen (aita santuarentzat, 965. or.) Betikotik.

Otoitza

Oi Jainko,
zure Eleiza gidatzeko eginkizuna emon zeuntsan
zure Semearen Ebanjelioaren
apostolu arduratsu izan zan Paulo aita santu dohatsuari;
egizu, arren, haren irakaspenez argiturik
zure lankide izan gaitezala
maitasunaren zibilizazinoa munduan zabaltzen.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta, gizaldi eta gizaldietan.

Maiatzaren 30ean

San Fernando

Santuen (bakarrarentzat, 993. or.) Betikotik.

Otoitza

Oi Jainko,
zeure Eleizaren zaintzaile egin zenduan
Fernando santua lurrean;
entzun zeure herriaren eskariak,
eta egizu, izan dagiala ha laguntzaile zeruan.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Maiatzaren 31n

Maria Birjina dohatsuaren Ikustaldia

Jaia

Sarrera-ant.

Zatoze eta entzun, Jainkoari begirune deutsazuenok, kontatuko deutsuedaz harek nire alde eginak (P.a. aleluia). Sal 66 [65], 16

Aintza zeruetan esango da.

Otoitza

Jainko ahalguztidun betikoa,
Elisabetengana joateko gogoa biztu zeuntsan
Maria Birjina dohatsuari bihotzean,
zure Semea sabelean eroala;
egizu, Espirituaren deiari jarraituz,
goratu zaiguzala geuk ere beti Mariarekin batean.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa

Onartu atseginez, Jauna, zure handitasunean
gure salbazino-sakrifizio hau,
gogoz onartu zenduan lez
zeure Seme bakarraren Ama guztiz dohatsuaren maitasuna.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Prefazioa: Maria Birjina dohatsuaren II-V.a, 522-525. or.

Jaunartze-ant. Dohatsu deituko nabe gaurdanik gizaldi guztiek, handiak egin deustaz-eta Ahalguztidunak; santua da haren izena (P.a. aleluia).

Lk 1, 48-49

Jaunartze ondorengoa

Goratu zaizala Eleizeak, oi Jainko,
fededunentzat egiten dituzun miragarriakaitik;
eta egizu, Joan Bateatzaileak, pozez saltoka,
Mariak sabelean ekarrenari igarri eutson lez
sentidu dagiala pozez Eleizeak
sakramentu honetan bizirik dagoala betiko.
Errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Bedeinkazino nagusia erabili leiteke, 652. or., 21. zk.

Pentekoste ondorengo astelehenean

Maria Birjina dohatsua, Eleizaren Ama

Oroipena

Ik. Debozinozko Mezak, Maria dohatsua Eleizaren Amarena, 1223. or.

Pentekoste ondorengo eguenean

Jesu Kristo gure Jauna,
Betiko Abade Nagusia

Jaia

Ik. Urtean Zeharreko Jaunaren Jaiak eta Festaburuak, 407. or.

Pentekoste ondorengo III. zapatuan

Maria Birjina dohatsuaren Bihotz guztiz Garbia

Oroipena

Sarrera-ant. Poztu dadila nire bihotza zure garaipenaz; orduan kantuz ekingo deutsat Jaunari, egin deustan onagaitik. Sal 13 [12], 6

Otoitza

Oi Jainko,
bizileku egokia eratu zeuntsan Espiritu Santuari
Maria Birjina dohatsuaren bihotzean;
egizu, arren, Maria Birjinaren beraren otoitzari esker,
izan gaitezala zure aintzaren bizileku.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa

Onartu, Jauna,
Jainkoaren Ama Maria Birjina dohatsuaren
oroitzapen-egun honetan
zure fededunek egiten deutsuezan eskariak eta emoitzak;
egizu, izan dakizuzala Zuri atsegingarri
eta ekarri deiguela guri zure errukiaren laguntza.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Prefazioa: Maria Birjina dohatsuaren I.a, jaia ospatzen dogun, 520. or., nahiz II-V.a, 522-525. or.

Jaunartze-ant. Mariak gogoan jasotzen zituan gauza honeek guztiak, bihotzean hausnartuz. Lk 2, 19

Jaunartze ondorengoa

Betiko salbazinoaren partaide egin gaituzu, Jauna;
egizu, zure Semearen Amaren oroipena egitean,
poztu gaitezala zure graziaren beteaz
eta somatu daigula gero eta era biziagoan zure salbazinoa.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

EKAINA

Ekainaren 1ean

San Justino, martiria

Oroipena

Sarrera-ant. Zuloak edegi deustez harroek, zure nahia aintzat hartzen ez dabenek; zure mandamentuak azalduko ditut lotsa barik erregeen aurrean (P.a. aleluia). Sal 119 [118], 85.46

Otoitza

Oi Jainko,
kurutzearen zorakeriaz
Jesu Kristoren jakintza parebakoa
erakutsi zeuntsan harrigarriro
Justino martiri santuari;
egizu, haren otoitzari esker,
inguratzen gaituen siniste okerrak bazterturik,
iraun daigula fedean sendo.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa

Egizu, Jauna, hurreratu gaitezala egoki
Justino santuak adore handiz
defendidu eban sakramentu honetara.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Jaunartze-ant. Zuen artean ez neban ezer jakin nahi izan, Jesu Kristo, eta berau kurutzeratua, izan ezik (P.a. aleluia). 1 Ko 2, 2

Jaunartze ondorengoa

Zerutar janariaz indarturik, Jauna, apalik eskatzen deutsugu:
Justino martiri santuaren irakatsiei jarraituz,
izan gaitezala beti esker oneko
Zugandik hartu doguzan graziakaitik.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Ekainaren 2an

Martzelino eta Pedro santuak, martiriak

Martirien (martiri batzurentzat, 947. or., edo pazkoaldian, 956. or.) Betikotik.

Otoitza

Oi Jainko,
Martzelino eta Pedro martiri santuen
autormen aintzatsuaz inguratzen gaituzu eta zaintzen;
egizu, izan gaitezala gero eta euren antzekoago,
euren otoitzaren laguntzari esker.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Ekainaren 3an

Karlos Lwanga eta lagunak, martiriak

Oroipena

Sarrera-ant.

Urrea arragoan lez garbitu zituan Jaunak, eta erre-opari lez onartu.
Luzaroan iraungo dau hareen oroipenak, onginahia eta errukia dau-
eta Jainkoak bere fededunentzat (P.a. aleluia). Ik. Jkt 3, 6.9

Otoitza

Oi Jainko,
kristau-hazi bihurtzen dozu martirien odola;
egizu, arren, Karlos Lwanga santuak eta lagunek
euren odolaz busti eben Eleizaren arloak
emon dagiala beti ugari kristau-uzta.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa

Hartu egizuz, Jauna, gure eskeintza eta eskariak,
eta egizu, Ugandako martiri santuei
pekatu egitea baino hiltzea nahiago izateko
grazia emon zeuntsen lez,
geu ere, gauza guztien gainetik,
Zuretzat bakarrik bizi gaitezala
eta zerbitzari zintzo izan, zure altaran.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Jaunartze-ant. Balio handikoa da Jaunaren begietan haren fededunen heriotza (P.a. aleluia). Ik. Sal 116 [115], 15

Jaunartze ondorengoa

Jainkozko sakramentua hartu dogu, Jauna,
zure martiri santuen garaipena ospatuz;
egizu, hareek, oinazeak jasateko,
sakramentu honetan aurkitu eben indarrak
emon deigula geuri ere, oraingo nekeen artean,
fede eta maitasun iraunkorra.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Ekainaren 5ean

San Bonifazio, gotzaina eta martiria

Oroipena

Martirien (bakarrarentzat, 953. or., edo pazkoaldian, 958. or.) nahiz eleiz artzainen (misiolarientzat, 977. or.) Betikotik.

Otoitza

Izan daigula gure alde, Jauna,
Bonifazio martiri santua,
harek berbaz irakatsi eta odolez autortu eban sinismena
guk sendo gorde daigun
eta geure egintzetan ausardiaz agertu.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Ekainaren 6an

San Norberto, gotzaina

Eleiz artzainen (gotzainarentzat, 968. or.) nahiz santuen (erlijiosoentzat, 999. or.) Betikotik.

Otoitza

Oi Jainko, otoitz-gizon gartsu eta eleiz artzain bikain
egin zenduan Norberto zeure Eleizako gotzain santua;
egizu, haren otoitzari esker,
zure fededunen herriak izan dagizala beti
zure gogoko artzainak eta janari osasungarriak.

Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Ekainaren 9an

San Efrem, diakonoa eta eleiz irakaslea

Eleiz irakasleen (981. or.) Betikotik.

Otoitza

Isuri onbera, Jauna, gure bihotzean Espiritu Santua,
harek emon eutson-eta Efrem diakono santuari
zure misterioak abestuz bizitzeko poza
eta Zeu bakarrik zerbitzeko indarra.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Ekainaren 11n

San Bernabe, apostolua

Oroipena

Sarrera-ant.

Zorionekoa santu hau, Apostoluen taldean hartua izatea merezi izan ebana, gizon ona zalako eta Espiritu Santuaz eta sinismenez betea (P.a. aleluia). Ik. Eg 11, 24

Otoitza

Oi Jainko,
Zeuk bereziazo zenduan Bernabe santua,
fedez eta Espiritu Santuaz betea,
jentilak bihotz-barritzera eroateko;
egizu, harek adore handiz
iragarri eban Jesu Kristoren Ebanjelioa
zabaldu dagiala orain ere zure Eleizeak zintzo
hitzez eta egitez.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa

Egizu santu, Jauna, zeure bedeinkazinoaz gure eskeintza,
eta beronen bidez biztu gugan zeure maitasunaren sua,
su honek eragin eutson-eta Bernabe santuari
Ebanjelioaren argia jentilei eroatera.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Prefazioa: Apostoluena, 528-530. or.

Jaunartze-ant.

Aurrerantzean ez deutsuet morroi deituko, morroiak ez dau-eta jakiten nagusiak zer egiten dauan; zuei adiskide deitzen deutsuet, neure Aitak jakinazo deustan guztia adierazo deutsuet-eta (P.a. aleluia).

Jn 15, 15

Jaunartze ondorengoa

Betiko biziaren agiria harturik, Jauna,
apalik otoitz egiten deutsugu:
Bernabe apostolu santuaren oroipena egitean,
sakramentuaren irudipean ospatu doguna
hartu daigula agiri-agirian.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Ekainaren 13an

Paduako San Antonio, presbiteroa eta eleiz irakaslea

Oroipena

Eleiz artzainen (bakarrarentzat, 972. or.) nahiz eleiz irakasleen (980. or.) nahiz santuen (erlijiosoentzat, 999. or.) Betikotik.

Otoitza

Jainko ahalguztidun betikoa,
Ebanjelioaren predikari miragarri
eta behar-orduan laguntzaile emon zeuntsan zeure herriari
Paduako Antonio santua;
egizu, haren otoitzari esker,
kristau-bizitzarako irakaspenean zintzo jarraituz,
sentidu daigula larrialdi guztietan zure errukiaren laguntza.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Ekainaren 15ean

Santa Maria Mikaela
Sakramentu guztiz Santuarena, birjina

Birjinen (bakarrarentzat, 985. or.) nahiz santuen (emakume santuentzat, 1004. or.) Betikotik.

Otoitza

Gizon-emakumeak maite dituzun
eta guztiei parkamena emoten deutsezun Jainkoa,
egin gaizuz maitale eta eskuzabal;
Maria Mikaela santua eredu dogula,
behartsuenengan eta zure laguntzaren
preminarik handiena dabenengan Zeu aurkitu zaiguzan.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Ekainaren 19an

San Romualdo, abata

Santuen (abatarentzat, 995. or.) Betikotik.

Otoitza

Oi Jainko,
Romualdo santuaren bidez,
erabarritu egin zenduan zeure Eleizan ermitau-bizitza;
egizu, geure buruari uko eginez eta Kristori jarraituz,
heldu gaitezala zorionez zeruko erreinura.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Ekainaren 21ean

San Luis Gonzaga, erlijiosoa

Oroipena

Sarrera-ant. Eskuak errugabe eta bihotza garbi dituanak dau Jaunaren mendira igongo eta bera da haren toki santuan egongo. Ik. Sal 24 [23], 4.3

Otoitza Oi Jainko, zerutar dohaien emoilea,
Luis Gonzaga santuagan bat egin zenduzan
errubako bizitza miragarria eta penitentzia;
egizu, haren otoitzari eta merezimentuei esker,
errubakotasunean ez bada be,
penitentzian behintzat imitatu daigula.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa Egizu, Jauna, Luis Gonzaga santuaren ejenpluari jarraituz,
eztegu-jantzitan hurreratu gaitezala beti zure mahai santura,
sakramentu honetan parte hartzeak
grazian aberats egin gagizan.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Jaunartze-ant. Zeruko ogia emon eutsen; aingeruen ogia jan eban gizakiak.
Sal 78 [77], 24-25

Jaunartze ondorengoa Egizu, Jauna, aingeruen ogiaz janaritzen gaituzunok
zerbidu zaiguzala Zu bizitza garbiz,
eta, gaur goresten dogun San Luis Gonzagaren antzera,
iraun daigula beti eskerrak emoten.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Ekainaren 22an

Nolatar San Paulino, gotzaina

Eleiz artzainen (gotzainarentzat, 968. or.) Betikotik.

Otoitza Oi Jainko, Paulino gotzain santua miragarri egin zenduan
behartsuakanako maitasunez eta artzain-arduraz;
egizu, arren, haren merezimentuak ospatuz,
izan gaitezala maitasunean bere antzeko.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Joan Fisher, gotzaina, eta Tomas Moro santuak, martiriak

Martirien (martiri batzurentzat, 947. or.) Betikotik.

Otoitza Oi Jainko, martiritzak emoten deutso egiazko fedeari bere betea;
egizu, arren, Joan Fisher eta Tomas Moro
santuen otoitzak indarturik,
berbaz autortzen dogun fedea bizitzaz ere agertu daigula.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Ekainaren 24an

SAN JOAN BATEATZAILEAREN JAIOTZA

Festaburua

Bezpera arratsaldeko Mezea

Meza hau ekainaren 23ko arratsaldean emongo da, festaburuko I. Bezperak esan aurretik nahiz ondoren.

Sarrera-ant. Handia izango da Jaunaren aurrean eta Espiritu Santuaz beteko da amaren sabelean bertan, eta haren jaiotzak jente asko poztuko dau. Lk 1, 15.14

Aintza zeruetan esango da.

Otoitza

Egizu, Jainko ahalguztiduna,
zure familia salbazinoko bidean ibili dadila,
Joan Bateatzailearen aholkuei jarraituz,
pozez heldu dadin
harek aurretik erakutsi eban Jesu Kristo gure Jaunagana.
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Sinisten dot esango da.

Oparigaien gainekoa

Begira, Jauna, begi onez
San Joan Bateatzailearen festaburuan
zure herriak dakartzun eskeintzari;
egizu onez,
sakramentu honetan ospatzen diharduguna
bete daigula bizitzan zure zerbitzari zintzo izanez.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Prefazio berezia, eguneko Mezakoa, 790. or.

Jaunartze-ant.

Bedeinkatua Jauna, Israelen Jainkoa, agertu eta bere herria askatu dauana! Lk 1, 68

Jaunartze ondorengoa

Jauna, zeruko mahaitik jan dogunoi lagundu deigula
Joan Bateatzaile santuaren otoitz indartsuak,
eta gure pekatuak kenduko ebazan Bildotsa
ezagutzera emon euskunak
lortu deigula zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren errukia.
Errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Bedeinkazino nagusia erabili leiteke, 654. or., 25. zk.

Eguneko Meza

Sarrera-ant.

Agertu zan gizon bat, Jainkoak bialdua: Joan eban izena. Argiaren autormen egitera etorri zan eta Jaunarentzat herri egokia prestatzera. Ik. Jn 1, 6-7; Lk 1, 17

Aintza zeruetan esango da.

Otoitza

Oi Jainko,
zeure Semearentzat herri on-ona prestatzeko
sortu zenduan Joan Bateatzaile santua;
emoiozu zeure herriari espirituzko pozaren dohaia
eta eroan egizuz zeure fededun guztien gogoak
bake- eta salbazino-bidetik.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Sinisten dot esango da.

Oparigaien gainekoa

Emoitzez bete dogu, Jauna, zure altarea
San Joanen jaioteguna egoki ospatzeko,
berak esan eban-eta
munduaren Salbatzailea hurrean egoala,
baita erakutsi ere, ha etorri zanean.
Errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Prefazioa

BIDEGILEAREN EGITEKOA

℣. Jauna zuekin.
℟. Eta zure espirituarekin.

℣. Gora bihotzak.
℟. Jaunagan daukaguz.

℣. Eskerrak Jaungoiko gure Jaunari.
℟. Egoki da eta zuzen.

Egoki da, bai, eta zuzen,
bidezko eta salbagarri,
nonahi eta beti guk Zuri eskerrak emotea,
Jauna, Aita guztiz santu,
Jainko ahalguztidun betiko horri,
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Honen bidegile
eta ama guztien semeen artean handiena dan
Joan Bateatzaileagan zure miragarriak goresten ditugu.
Jaiotzan poz handia ekarri eutson munduari;
eta jaio aurretik ere
amaren sabelean salto egin eban pozez,
gizon-emakume guztien Salbatzailea etorri jakonean;
profeta guztien artean, bera izan zan
Jainkoaren Bildotsa ezagutzera emon eban bakarra.

Berak bateatu eban Jordan ibaian Bateoaren egilea,
urari salbazino-indarra emongo eutsona,
eta odola isuriz egin eban autormenik handiena
Kristo Jaunaren alde.

Horregaitik, zeruko indar guztiekin,
lurrean beti eta beti goresten zaitugu,
Zuri, Jainko guztiz handi horri,
eten barik [esanez] kantatuz:

Santu, Santu, Santua,
diran guztien Jainko Jauna.
Zeru-lurrak beterik daukaz zure distirak.
Hosanna zeru-goienetan!
Bedeinkatua Jaunaren izenean datorrena.
Hosanna zeru-goienetan!


℣. Jau-na zu-e-kin. ℟. E-ta zu-re es-pi-ri-tu-a-re-kin.
℣. Go-ra bi-ho-tzak. ℟. Jau-na-gan dau-ka-guz.
℣. Es-ke-rrak Jaun-goi-ko gu-re Jau-na-ri. ℟. E-go-ki da e-ta zu-zen.
Egoki da, bai, eta zuzen, bidezko eta sal-ba-ga-rri, no-na-hi eta
beti guk Zuri eskerrak e-mo-te-a, Jauna, Aita guz-tiz san-tu,
Jainko ahalguztidun betiko ho-rri, Jesu Kristo gure Jau-na-ren
bi-tar-tez. Ho-nen bi-de-gi-le eta ama guztien semeen artean
han-di-e-na dan Joan Bateatzaile-a-gan zure miragarriak
go-res-ten di-tu-gu. Jai-o-tzan poz handia ekarri eutson mun-du-
a-ri; eta jai-o aurretik ere amaren sabelean salto egin e-ban po-
zez, gizon–emakume guztien Salbatzailea etorri ja-ko-ne-an;



Jaunartze-ant. Gure Jainkoaren errai errukitsuakaitik, agertu jaku goiz-eguzkia zeru-goitik. Ik. Lk 1, 78

Jaunartze ondorengoa

Zerutar Bildotsaren mahaian indarbarritu gaituzu, Jauna;
egizu, Joan Bateatzailea santuaren jaioteguna
pozez ospatzen dauan Eleizeak
hartu dagiala bere salbazinoaren egiletzat
Joanek etortzekoa zala aldez aurretik iragarri eban ha.
Errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Bedeinkazino nagusia erabili leiteke, 654. or., 25. zk.

Ekainaren 26an

San Pelaio, martiria

Martirien (bakarrarentzat, 953. or.) Betikotik.

Otoitza

Jauna, gure Aita,
zure aurpegia ikusiko ebela agindu zeuntsen bihotz-garbiei;
indartu gaizuz zeure graziaz,
Pelaio martiri santuaren antzera,
Zu maiteago izan zaiguzan munduko lilurak baino,
eta bihotz garbiz pekatu barik bizi gaitezan.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Ekainaren 27an

Alexandriako San Zirilo, gotzaina eta eleiz irakaslea

Eleiz artzainen (gotzainarentzat, 968. or.) nahiz eleiz irakasleen (981. or.) Betikotik.

Otoitza

Oi Jainko,
garaitu ezineko indarra emon zeuntsan
Zirilo Alexandriako gotzain santuari
Maria Birjina guztiz dohatsua
Jainkoaren Ama dala atzera egin barik autortzeko;
egizu, egiaz Jainkoaren Ama dala sinisten dogunok
salbatu gaizala Jesu Kristo zure Seme gizon eginak.
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Ekainaren 28an

San Ireneo, gotzaina eta martiria

Oroipena

Sarrera-ant.

Egiazko irakaspena eban ahoan, eta haren ezpanetan ez zan gaiztakeriarik aurkitu; leial eta zuzen jokatu eban Nigaz eta jente asko urrundu eban gaiztakeriatik. Ml 2, 6

Otoitza

Oi Jainko,
egiazko doktrina irakasteko
eta Eleizearen bakea sendotzeko dohaia emon zeuntsan
Ireneo gotzain santuari;
barritu egizu gugan, haren otoitzari esker,
fedea eta maitasuna,
indar guztiaz ahalegindu gaitezan beti
bihotz-batasuna eta alkartasuna eragiten.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa

Ireneo santuaren
eguna ospatzean, Jauna,
pozik eskeintzen deutsugu sakrifizio hau;
emon deizula honek Zuri gorespena,
eta guri egiagazko maitasuna,
sendo gorde daigun bai Eleizearen fede osoa,
bai batasun egonkorra.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Jaunartze-ant.

Zagoze Nigan, Ni zuekan lez, dino Jaunak. Norbait Nigan badago,
Ni harengan lez, harek frutu asko emongo dau. Jn 15, 4-5

Jaunartze ondorengoa

Jaunartze honen bidez, Jauna,
gehitu egizu errukitsu gugan fedea;
fede hau heriotzaraino gordetzeak
Ireneo gotzain santuari ospea emon eutson lez,
fede honi benetan jarraitzeak
jadetsi deigula guri ere santu izatea.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Ekainaren 29an

PEDRO ETA PAULO SANTUAK, APOSTOLUAK

Festaburua

Bezpera arratsaldeko Mezea

Meza hau ekainaren 28ko arratsaldean emongo da, festaburuko I. Bezperak esan aurretik nahiz ondoren.

San Pedro edo San Pauloren debozinozko Mezarako, ik. geroago 1231. or. nahiz 1232. or.

Sarrera-ant. Pedro apostoluak eta Paulok, jentilen irakasleak, irakatsi euskuen zure legea, Jauna.

Aintza zeruetan esango da.

Otoitza Jainko gure Jauna,
Pedro eta Paulo apostolu santuen otoitzek lagundu deiguela,
eta, zerbitzu gorenaren lehenengo dohaiak
Eleizeari euren bidez emon zeuntsazan lez,
emoiguzu, euren bidez, betiko salbazinoa lortzeko laguntza.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Sinisten dot esango da.

Oparigaien gainekoa Altarara ekarri deutsugu, Jauna, geure eskeintza,
Pedro eta Paulo apostolu santuen festaburua ospatzean;
egizu, ez daigula uste ona geure merezimentuetan izan,
ezpada ze gu salbatzeko dozun onberatasunean bakarrik
jarri daigula geure harrobidea.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Prefazio berezia, eguneko Mezakoa, 797. or.

Jaunartze-ant. Simon, Joanen semea, honeek baino maiteago al nozu? Jauna, Zuk dana dakizu, Zuk badakizu maite zaitudana. Jn 21, 15.17

Jaunartze ondorengoa

Apostoluen irakaspenez argitu dituzu, Jauna, zeure fededunak;
indarbarritu dagiezala zerutar sakramentuek.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Bedeinkazino nagusia erabili leiteke, 652. or., 22. zk.

Eguneko Meza

Sarrera-ant.

Honeexek dira, bizi zirala, Eleizea euren odolaz landatu ebenak;
Jaunaren kaliza edan eben eta Jainkoaren adiskide egin ziran.

Aintza zeruetan esango da.

Otoitza

Oi Jainko,
alaitasun santuz betetzen gaituzu
Pedro eta Paulo apostolu santuen festaburu honetan;
egizu, zure Eleizeak kristau-fedearen lehenengo barria
hareekandik izan eban lez,
jarraitu deiela beti zintzo euren irakaspenei.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Sinisten dot esango da.

Oparigaien gainekoa

Zure Apostoluen otoitza izan dagiala lagun, Jauna,
ekarri deutsugun emoitzak
eta egin gaizala zeure gogoko,
sakrifizio hau eskeintzerakoan.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Prefazioa

Pedroren eta Pauloren egiteko bikotxa Eleizan

℣. Jauna zuekin.
℟. Eta zure espirituarekin.

℣. Gora bihotzak.
℟. Jaunagan daukaguz.

℣. Eskerrak Jaungoiko gure Jaunari.
℟. Egoki da eta zuzen.

Egoki da, bai, eta zuzen,
bidezko eta salbagarri,
nonahi eta beti guk Zuri eskerrak emotea,
Jauna, Aita guztiz santu,
Jainko ahalguztidun betiko horri.

Pedro eta Paulo zure apostolu santuek
pozez betetzen gaituelako, Zuk halan nahirik;
Pedro fedearen lehenengo autorlea izan zan,
eta Paulo fede beraren argitzailea;
bata, Israelgo hondarrak batuz,
hasierako Eleizaren eraikitzailea izan zan,
bestea, jentilei salbamenerako deia
egin eutsen maisua eta irakaslea.
Biek, nork bere bidetik,
Kristoren familia bakarra batu eben,
eta orain biek, ospe berean bat eginik,
gure gorespenak hartzen dabez.

Horregaitik, santu eta aingeru guztiekin batera
goresten zaitugu,
beti eta beti [esaten] abesten deutsugula:

Santu, Santu, Santua...




beti guk Zuri eskerrak e - mo-te - a, Jauna, Aita guz-tiz san - tu,
Jainko ahalguzti - dun be - ti - ko ho - rri. Pedro eta Pau - lo
zure apostolu san-tu-ek po-zez betetzen gaituelako, zuk halan na-
hi - rik; Pedro fedearen lehenengo autorlea i - zan zan, eta Paulo
fede bera-ren ar - gi - tzai-le - a; ba-ta, Israelgo hondarrak batuz,
hasierako Eleizearen eraikitzailea i - zan zan, bes - te - a, jentilei sal-
bamenerako deia egin eutsen maisua eta ira-kas-le - a. Biek, nork
bere bidetik, Kristoren familia bakarra ba - tu e - ben, eta orain
biek, ospe berean bat e - gi - nik, gure go - res - pe - nak har -
tzen da - bez. Horregai-tik, santu eta aingeru guztiekin ba - te - ra
goresten zai - tu - gu, beti eta beti a - bes-ten deu - tsu - gu - la:

Jaunartze-ant. Pedrok esan eutson Jesusi: Zu Mesias zara, Jainko biziaren Semea. Jesusek erantzun eutson: Zu Pedro zara, hatxa; hatx horren gainean eraikiko dot Nik neure Eleizea. Ik. Mt 16, 16.18

Jaunartze ondorengoa

Sakramentu honen bidez indarbarritu gaituzunoi, Jauna,
emoiguzu lehenengo kristauen antzera bizitzea Eleizan;
ogia zatitzean eta Apostoluen irakaspenetan zintzo iraunez,
bihotz bat eta arima bat izan gaitezan,
zure maitasunak sendoturik.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Bedeinkazino nagusia erabili leiteke, 652. or., 22. zk.

Ekainaren 30ean

Erromako Eleiza Santuko Lehen Martiriak

Martirien (martiri batzurentzat, 947. or.) Betikotik.

Otoitza

Oi Jainko,
martirien odolaz edertu zenduan
Erromako Eleizearen hasiera oparoa;
egizu, burruka garratz haretan izan eben maitasun-garrak
lortu deigula guri
hausi ezineko indarra eta garaipenaren poza.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

UZTAILA

Uztailaren 3an

SAN TOMAS, APOSTOLUA

Jaia

Sarrera-ant. Zeu zara nire Jainko, eskerrak Zuri! Gora Zu, ene Jainko hori! Eskerrak Zuri, nire salbatzaile izan zaralako. Ik. Sal 118 [117], 28.21

Aintza zeruetan esango da.

Otoitza

Jainko ahalguztiduna,
egizu, Tomas apostolu santuaren jaia
pozez ospatzen dogunok
indartu gaizala beti haren otoitzak,
eta harek Jauntzat autortu eban
zure Seme Jesu Kristogan sinistuz izan daigula bizia.
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa

Zor deutsugun zerbitzua eskeiniz,
apalik eskatzen deutsugu, Jauna:
zaindu daizuzala gugan,
gorapen-opari hau eskeintzen deutsugunongan,
zeure dohaiak, Tomas apostolu santuaren egunean.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Prefazioa: Apostoluena, 528-530. or.

Jaunartze-ant. Ekazu eskua eta aztertu untze-zuloak, eta ez izan sinisgogor, sinistedun baino. Ik. Jn 20, 27

Jaunartze ondorengoa

Oi Jainko,
zure Seme bakarraren Gorputza hartu dogu benetan sakramentu honetan;
egizu, arren, Tomas apostoluagaz batera
fedez gure Jaun eta Jainko autortu doguna,
autortu daigula geure egitez eta bizitzaz ere.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Bedeinkazino nagusia erabili leiteke, 653. or., 23. zk.

Uztailaren 4an

Portugalgo Santa Elisabet

Santuen (erruki-egintzak bete ebezanentzat, 1001. or.) Betikotik.

Otoitza

Bakegilea eta maitasunzalea zaran Jainkoa,
hasarre ziranak adiskidetzeko grazia emon zeuntsan Portugalgo Elisabet santuari;
emoiguzu, haren otoitzari esker, bakearen alde lan egitea,
Jainkoaren seme eta alaba izena benetan merezidu daigun.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Uztailaren 5ean

San Antonio Maria Zaccaria, presbiteroa

Eleiz artzainen (bakarrarentzat, 972. or.) nahiz santuen (hezitzaileentzat, 1003. or., edo erlijiosoentzat, 999. or.) Betikotik.

Otoitza

Emoiguzu, Jauna, Paulo apostoluaren espiritu bera
Jesu Kristoren ezagutza parebakoan aurrera egin daigun,
Antonio Maria Zaccaria santuak,
ezagutza horregaz beterik,
iragarri eban-eta beti salbazino-hitza Eleizan.

Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Uztailaren 6an

Santa Maria Goretti, birjina eta martiria

Martirien (birjina martiriarentzat, 961. or.) nahiz birjinen (bakarrarentzat, 985. or.) Betikotik.

Otoitza

Errubakotasunaren sortzailea
eta garbitasunaren maitalea zaran Jainkoa,
gazterik martiri izateko grazia emon zeuntsan
zeure zerbitzari Maria Goretti santuari,
emoiguzu, haren otoitzari esker,
zure aginduak betetzeko indarra eta iraupena.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Uztailaren 7an

San Fermin, gotzaina eta martiria

Martirien (bakarrarentzat, 953. or.) nahiz eleiz artzainen (gotzainarentzat, 968. or.) Betikotik.

Otoitza

Fededun guztien artzain eta gidari zaran Jainkoa,
Zeuk jarri zenduan San Fermin gotzaina
zeure herri santuaren buru
eta, ebanjelizatze-egintza betez,
martirien palma-adarrez ospetsu egin zenduan;
emoiguzu, haren otoitzari esker,
hitzez irakatsi eban fedea zaintzea
eta bizitzaz agertu eban bideari jarraitzea.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Uztailaren 9an

San Agustin Zhao Rong, presbiteroa, eta lagunak, martiriak

Martirien (martiri batzurentzat, 947. or.) Betikotik.

Otoitza

Oi Jainko,
Agustinen eta lagun martiri santuen fede-autormenaren bidez
era miresgarrian sendotu zenduan zeure Eleizea;
egizu, zure herriak,
Zugandik jasotako misinoari leial izanez, lortu daiala,
bai bere askatasuna handitzea,
bai munduaren aurrean egiaren testigu izatea.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Uztailaren 11n

San Benito, Abata
Europako zaindaria

Jaia

Sarrera-ant.

Bizitza beneragarriko gizona izan zan, graziaz eta izenez bedeinkatua; bere etxea eta gurasoengandiko ondasunak itzi eta, Jainkoaren nahia bakarrik bete nahirik, bizitza santua eroaten ahalegindu zan.

Aintza zeruetan esango da.

Otoitza

Jainkozko zerbitzuaren eskolan,
Benito abata santua maisu miragarri egin zenduan Jainkoa,
egizu, Zu gauza guztiak baino maiteago izanik,
bihotz zabalez ahalegindu gaitezala zure aginduen bidean.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa

Begira, Jauna, begi onez,
Benito santuaren egun honetan dakartsugun eskeintza honi;
egizu, santu honen ejenpluari jarraituz eta zure bila ibiliz,
lortu daiguzala, zure zerbitzuan,
batasunaren eta bakearen dohaiak.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Prefazioa: Erlijioso santuena, 540. or.

Jaunartze-ant.

Hauxe da etxezain leiala eta zentzunduna, Jaunak, bere orduan behar dan janaria banatzeko, morroien buru ipini dauana.

Ik. Lk 12, 42

Jaunartze ondorengoa

Sakramentu honetan betiko biziaren agiria harturik,
apalik otoitz egiten deutsugu, Jauna:
Benito santuaren aholkuei jarraituz,
Zugazko zerbitzua leial bete daigula
eta maitasun gartsuz maitatu daiguzala geure senideak.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Bedeinkazino nagusia erabili leiteke, 654. or., 25. zk.

Uztailaren 13an

San Henrike

Santuen (santu bakarrarentzat, 993. or.) Betikotik.

Otoitza

Oi Jainko,
zeure grazia oparoaz bete zenduan Henrike santua
eta lur honetako errege-arduretatik
betikoak diran gauzetara goratu zenduan miragarriro;
egizu, haren otoitzari esker,
mundu honetako gorabeheren artean
bihotz garbiz lehiatu gaitezala bizkor Zugana.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Uztailaren 14an

San Kamilo Lelis, presbiteroa

Santuen (erruki-egintzak bete ebezanentzat, 1001. or.) Betikotik.

Otoitza

Kamilo Lelis presbitero santua
gaixoenganako maitasun miragarriz
apaindu zenduan Jainkoa,
isuri eiguzu, haren merezimentuei esker,
zeure maitasun-espiritua,
geure senideengan Zeu zerbidurik,
bake osoan Zeugana joan gaitezan heriotzako orduan.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Uztailaren 15ean

San Buenaventura, gotzaina eta eleiz irakaslea

Oroipena

Eleiz artzainen (gotzainarentzat, 968. or.) nahiz eleiz irakasleen (981. or.) Betikotik.

Otoitza

Jainko ahalguztiduna,
egizu, Buenaventura gotzain santua
zerurako jaiotzea ospatzen dogunok
haren irakaspen argitsuaz balia gaitezala
eta haren maitasun gartsuari jarraitu deiogula beti.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Uztailaren 16an

Karmel mendiko Maria Birjina dohatsua

Oroipena

Maria Birjina dohatsuaren (935. or.) Betikotik.

Otoitza Lagundu deigula, Jauna,
Maria Birjina aintzatsuaren otoitz beneragarriak;
haren laguntza geugaz dogula,
Kristo dan mendira heldu gaitezan.
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Uztailaren 20an

San Apolinar, gotzaina eta martiria

Martirien (bakarrarentzat, 953. or.) nahiz eleiz artzainen (gotzainarentzat, 968. or.) Betikotik.

Otoitza Gidatu egizuz, Jauna, zeure fededunak
betiko salbazinoaren bidetik,
Apolinar gotzain santuak
bere irakaspenez eta martiritzaz irakatsi lez;
egizu, beraren otoitzari esker,
zure aginduetan zintzo iraunez,
aintzazko koroa lortu daigula beragaz batera.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Uztailaren 21ean

Brindisiko San Lorentzo, presbiteroa eta eleiz irakaslea

Eleiz artzainen (bakarrarentzat, 972. or.), eleiz irakasleen (981. or.) nahiz santuen (erlijiosoentzat, 999. or.) Betikotik.

Otoitza Oi Jainko,
indar- eta jakituria espiritua emon zeuntsan
Brindisiko Lorentzo presbitero santuari,
zure izena goresteko eta gizakiak salbatzeko;
emoiguzu geuri ere espiritu bera, zer egin jakin daigun
eta, jakin ondoren, haren otoitzaren laguntzaz, bete.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Uztailaren 22an

Santa Maria Magdalena

Jaia

Sarrera-ant. Jaunak esan eutson Maria Magdalenari: Zoaz nire senideakana eta esaiezu; Neure Aitagana eta zuen Aitagana noa, neure Jainkoagana eta zuen Jainkoagana. Jn 20, 17

Aintza zeruetan esango da.

Otoitza Oi Jainko, zure Seme bakarrak
bere biztueraren barri pozgarria guztiei iragartzeko
eginkizuna emon eutson Maria Magdalenari;
egizu, haren otoitzari esker eta haren ejenpluari jarraituz,
emon daigula Jesu Kristo berbiztuaren barri
eta ikusi daigula zure aintzan errege.
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa Onartu, Jauna, Maria Magdalena santuaren oroitzapenean
ekarri doguzan emoitzak,
zure Semeak bihotz onez hartu eban-eta
Maria Magdalenak berari erakutsi eutson maitasuna.
Errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Prefazioa Apostoluen apostolu

℣. Jauna zuekin.
℟. Eta zure espirituarekin.

℣. Gora bihotzak.
℟. Jaunagan daukaguz.

℣. Eskerrak Jaungoiko gure Jaunari.
℟. Egoki da eta zuzen.

Egoki da, bai, eta zuzen,
bidezko eta salbagarri,
guk Zu, Aita ahalguztiduna, gauza guztietan goratzea
eta autortzea zure errukia ez dala
zure ahalmena baino txikiagoa,
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Ha baratzean Maria Magdalenari agertu jakon-eta;
izan ere, Mariak hemengo bizitzaldian maite eban Jesus
hiltzen ikusi eban kurutzean,
haren bila joan zan hilobiratua egoanean,
eta bera izan zan lehenengoa
hilen artetik berbiztua adoratzen;
Jesusek, barriz, apostoluen aurrean
apostolu-eginkizuna emonez ohoratu eban,
bizi barriaren barri ona
munduko azken mugetaraino heldu eiten.

Horregaitik, geuk ere, aingeru eta santu guztiekin batean,
goresten zaitugu, Jauna,
poz betean [esanez] kantari:

Santu, Santu, Santua...

Jaunartze-ant. Kristoren maitasunak behartzen gaitu, bizi diranak ez daitezan eurentzat bizi, eurakaitik hil eta biztu dan harentzat baino.
2 Ko 5, 14-15

Jaunartze ondorengoa

Maitasun iraunkorrez lotu jakon eten barik
Maria Magdalena santua Kristo bere Maisuari;
egizu, Jauna, zure misterioak santutasunez hartzeak
sartu deigula bihotzean maitasun hori bera.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Bedeinkazino nagusia erabili leiteke, 654. or., 25. zk.

Uztailaren 23an

SANTA BRIGIDA, ERLIJIOSA
Europako zaindaria

Jaia

Sarrera-ant. Poztu gaitezan danok Jaunagan, Santa Brigidaren jaieguna ospatzean: egun handi honetan pozten dira aingeruak eta Jainkoaren Semea goresten dabe.

Aintza zeruetan esango da.

Otoitza

Oi Jainko,
bizitzako bide desbardinetan zehar
eroan zenduan Zuk Santa Brigita
eta, zure Semearen nekaldia gogoan erabiliz,
Kurutzearen jakituria irakatsi zeuntsan era harrigarrian;
egizu, zure deiari leial jarraituz,
bilatu zaiguzala Zeu gauza guztietan.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa

Jainko bihozbera,
gizaki zaharra desegin nahi izan dozu Santa Brigidagan
eta gizaki barria sortu, zeure irudira;
haren merezimentuei esker,
erabarritu gaizuz bera erabarritu zenduan lez,
atsegin izango jatzun eukaristi oparia eskeini deizugun.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Prefazioa: Erlijiosa santuena, 540. or.

Jaunartze-ant. Zuzen dana dozu maite eta oker dana gorroto, Jainkoak, zeure Jainkoak, gantzutu zaitu-eta jai-orioz, zeure lagunen gainetik.

Sal 45 [44], 8

Jaunartze ondorengoa

Jainko ahalguztiduna,
sakramentu honek indarbarriturik,
egizu, guk, zure zerbitzariok,
gauza guztien gainetik Zeu bilatu zaiguzala
Santa Brigida eredutzat hartuz,
eta mundu honetan bizi garan bitartean ere
izan gaitezala gizaki barri.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Bedeinkazino nagusia erabili leiteke, 654. or., 25. zk.

Uztailaren 24an

San Sarbelio Makhlûf, presbiteroa

Eleiz artzainen (bakarrarentzat, 972. or.) nahiz santuen (lekaidearentzat, 996. or.) Betikotik.

Otoitza

Oi Jainko,
basamortuko burruka berezira deitu zeuntsan
Sarbelio presbitero santuari
eta era guztietako jainkozaletasuna emon zeuntsan;
emoiguzu, gure Jaunaren nekaldian parte hartuz,
zeruko erreinuan bat egin daigula santu honegaz.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Uztailaren 25ean

SANTIAGO, APOSTOLUA
Espainiako zaindaria

Festaburua

Sarrera-ant. Jesusek, Galileako itsasbazterrean zehar ebilela, anaia bi ikusi zituan, Santiago eta Joan, Zebedeoren semeak, sareak konpontzen ziharduela, eta dei egin eutsen, eta Boanerges izena ipini eutsen, hau da, Trumoikume. Ik. Mt 4, 18.21; Mk 3, 17

Aintza zeruetan esango da.

Otoitza

Jainko ahalguztidun betikoa,
Santiagoren odol-isurtzeaz sagaratu zenduzan
Apostoluen lehenengo ebanjelizatze-lanak;
egizu, zure Eleizeak,
haren zaindaritzaz eten barik indarbarriturik,
sendo iraun dagiala haren testigantzaz
eta gure herriek leial jarraitu deioela Kristori
gizaldien azkeneraino.
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Sinisten dot esango da.

Oparigaien gainekoa

Jauna, Kristoren kaliza edaten
Apostoluetan lehenengoa Santiago izatea nahi izan zenduan;
haren festaburua ospatzean garbitu gaizuz
zeure Semearen nekaldiko bateo salbagarriaz,
sakrifizio atsegingarria eskeini deizugun.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Prefazioa

APOSTOLUAREN ZAINDARITZA

℣. Jauna zuekin.
℟. Eta zure espirituarekin.
℣. Gora bihotzak.
℟. Jaunagan daukaguz.

℣. Eskerrak Jaungoiko gure Jaunari.
℟. Egoki da eta zuzen.

Egoki da, bai, eta zuzen,
bidezko eta salbagarri,
nonahi eta beti guk Zuri eskerrak emotea,
Jauna, Aita guztiz santu,
Jainko ahalguztidun, betiko Artzain horri.

Santiagok, testigu kutunak, iragarri eban
zure Semearen heriotzatik eta biztueratik datorren erreinua,
eta bera izan zan Apostoluetan lehenengoa
Jaunaren kaliza edaten;
haren gidaritzaz eta zaindaritzaz
gordetzen da sinismena gure herrietan,
eta zabaltzen lur osoan;
bera dabe lagun erromes doazenek,
azkenean Zeugana heldu arte,
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Horregaitik, Jauna, aingeru guztiekin batean
orain eta beti goresten zaitugu,
fede apalez [esaten] abesten deutsugula:

Santu, Santu, Santua...




Egoki da, bai, eta zuzen bidezko eta sal-ba-ga-rri, nonahi eta beti
guk Zuri eskerrak e-mo-te-a, Jauna, Aita guztiz santu, Jainko
ahalguztidun betiko Ar-tzain ho-rri. San-ti-a-gok, testigu ku-
tunak, iragarri eban zure Semearen heriotzatik eta biztueratik da-
to-rren e-rrei-nu-a, eta bera izan zan apostoluetan le-he-nen-go-a
Jaunaren kali-za e-da-ten; haren gida-ri-tzaz eta zain-da-ri-tzaz
gordetzen da sinismena gure he-rri-e-tan, eta zabaltzen lur o-
so-an; be-ra da-be lagun erromes do-a-ze-nek, azkenean Zuga-
na hel-du ar-te, Jesu Kristo gure Jauna-ren bi-tar-tez.
Ho-rre-gai-tik, Jauna, aingeru guztie-kin ba-te-ra orain eta beti
go-res-ten zai-tu-gu, fede apalez a-bes-ten deu-tsu-gu-la:

Jaunartze-ant. Jaunaren kalizatik edan eban, eta Jainkoaren adiskide egin zan.
Ik. Mt 20, 23

Jaunartze ondorengoa
Eskerrak emoten deutsuguz, Jauna,
Santiago apostolu eta gure zaindariaren festaburua ospatzean
pozik hartu doguzan dohai santuakaitik;
bera laguntzaile dogula,
zaindu gaizuz beti zeure babespean.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Bedeinkazino nagusia erabili leiteke, 653. or., 23. zk.

Uztailaren 26an
Joakim eta Ana santuak, Maria Birjina dohatsuaren gurasoak

Oroipena

Sarrera-ant. Egin daigun Joakimen eta Anaren gorespena euren alabeagaitik; gizaki guztien bedeinkazinoa emon eutsen hareei Jaunak.
Ik. Si 44, 1.25

Otoitza
Jauna, gure asaben Jainkoa,
grazia berezia emon zeuntsen Joakim eta Ana santuei,
eurengandik jaio zan-eta zure Seme gizon eginaren Ama;
emoiguzu, bien otoitzari esker,
zeure herriari agindu zeuntsan salbazinoa lortzea.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa
Onartu, Jauna, zeure zerbitzarion eskeintza hau,
eta egizu, Abrahami eta ondorengoei
agindu zeuntsen bedeinkazino berean parte izan daigula.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Jaunartze-ant. Bedeinkazinoa hartu eben Jaunagandik, eta errukia euren Jainko salbatzaileagandik. Ik. Sal 24 [23], 5

Jaunartze ondorengoa

Oi Jainko,
zeure Seme bakarra gizakiengandik jaiotzea
nahi izan zenduan,
gizon-emakumeak, misterio miragarri baten bidez,
Zugandik barriro jaio eitezan;
seme-alaben ogiaz asetu gaituzun ezkero,
emoiguzu, bihotz onez, seme-alabatzako espiritua
eta egin gaizuz santu.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Uztailaren 29an

Santa Marta

Oroipena

Sarrera-ant. Jesus herritxu baten sartu zan, eta Marta eritxon emakume batek etxean hartu eban. Lk 10, 38

Otoitza

Jainko ahalguztidun betikoa,
zure Semeak Marta santuaren etxean
hartu nahi izan eban ostatu;
egizu, haren otoitzari esker,
geure senideengan Kristo zerbiduz,
izan daigula zeruko etxean zure harrera onaren poza.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa

Marta santuagan Zu miresgarri
agiri zarala autortzen dogu, Jauna,
eta Zuri, Jaun handi horri, apalik eskatzen deutsugu:
haren maitasun-zerbitzua gogoko izan jatzun lez,
izan dadila Zuretzat atsegingarri gure zerbitzu apal hau.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Jaunartze-ant. Martak esan eutson Jesusi: Zu Mesias zara, Jainkoaren Semea, mundura etortzekoa zana. Jn 11, 27

Jaunartze ondorengoa

Zure Seme bakarraren Gorputz eta Odol santuak hartzeak,
aldendu gaizala, Jauna, gauza galkorretatik,
Marta santuak lez
lur honetan maitasun zintzoan aurrera egin daigun
eta zeruan Zu ikusteaz poztu gaitezan beti.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Uztailaren 30ean

San Pedro Krisologo, gotzaina eta eleiz irakaslea

Eleiz artzainen (gotzainarentzat, 968. or.) nahiz eleiz irakasleen (981. or.) Betikotik.

Otoitza

Oi Jainko,
Pedro Krisologo gotzain santua
gizon egindako zure Hitzaren predikari handi egin zenduan;
egizu, haren otoitzari esker,
hausnartu daiguzala eten barik bihotzean
zure salbazino-misterioak
eta ezagutuazo daiguzala geure egintzen bidez.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Uztailaren 31n

Loiolako San Ignazio, presbiteroa

Oroipena

Sarrera-ant. Jesusen izenaren omenez danen belaunak makurtu daitezala, zeruan, lurrean eta lurpean, eta mihin guztiek autortu dagiela Jesu Kristo dala Jauna, Jainko Aitaren aintzarako. Ik. Flp 2, 10-11

Otoitza

Oi Jainko, Loiolako Ignazio santua emon zeuntsan Eleizeari
zure izenaren aintza gero eta gehiago zabaltzeko;
egizu, bera lagun eta ejenplu dogula,
lur honetan burruka eginik,
lortu daigula garaipen-koroa beragaz batera zeruan.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa

Jainko Jauna,izan dakizuzala atsegin
Loiolako Ignazio santuaren ospakizun honetan
ekarri deutsuguzan eskeintzak;
eta santutasun guztiaren iturri dan sakramentu honek
egin gaizala geu be santu egian.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Jaunartze-ant.

Lurrean sua jartzera etorri naz, dino Jaunak, eta nahiago neuke honezkero sutan balego! Lk 12, 49

Jaunartze ondorengoa

Jauna, Loiolako Ignazio santuaren jai honetan
Zuri eskerrak emoteko eskeini deutsugun gorespen-opariak
eroan gaizala betieran zure handitasun aintzatsua gorestera.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

ABUZTUA

Abuztuaren 1ean

San Alfontso Maria Ligorio, gotzaina eta eleiz irakaslea

Oroipena

Eleiz artzainen (gotzainarentzat, 968. or.) nahiz eleiz irakasleen (981. or.) Betikotik.

Otoitza

Zure Eleizan onbiderako ejenplu barriak
beti sortzen dituzun Jainkoa,
emoiguzu, arimen zaletasunean
Alfontso Maria Ligorio gotzain santuaren pausuei jarraitzea
haren sari bera izan daigun zeruan.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa

Sutu egizu, Jaun onbera, gure bihotza
Espiritu Santuaren sugarretan,
Alfontso Maria santuari, bai misterio honeek ospatzeko,
bai bere burua Zuri opari santu eskeintzeko,
emon zeuntsan sugarretan.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Jaunartze ondorengoa

Oi Jainko,
Eukaristi misterio handi honen predikari eta zerbitzari leial
egin zenduan Alfontso Maria santua;
egizu, zure fededunok
parte hartu daigula sarri misterio honetan
eta, parte hartuz, goratu zaiguzala amai barik.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Abuztuaren 2an

Vercelliko San Eusebio, gotzaina

Eleiz artzainen (gotzainarentzat, 968. or.) Betikotik.

Otoitza

Jainko Jauna,
emoiguzu, Vercelliko Eusebio gotzain santuak
Kristoren jainkotasuna autortzeko
Zugandik hartu eban kemena eta iraupena,
harek irakatsi euskun sinismeneko egian leial iraunez,
zure Semearen bizian parte izan daigun.
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

San Pedro Julian Eymard, presbiteroa

Santuen (erlijiosoentzat, 999. or.) nahiz eleiz artzainen (bakarrarentzat, 972. or.) Betikotik.

Otoitza

Oi Jainko,
zeure Semearen Gorputz Odolen misterio santuagazko
maitasun miragarria emon zeuntsan Pedro Julian santuari;
emoiguzu, bihotz onez, jainkozko jai-jatordu honetan
harek aurkitu eban gozotasun bera aurkitzea geuk ere.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Abuztuaren 4an

San Joan Maria Vianney, presbiteroa

Oroipena

Eleiz artzainen (bakarrarentzat, 972. or.) Betikotik.

Otoitza Jainko ahalguztidun errukitsua,
Joan Maria Vianney presbitero santua
miragarri egin zenduan artzain-zaletasunean;
egizu, haren ejenpluaren bidez eta haren otoitzari esker,
erakarri daiguzala senideak Kristogazko maitasunera
eta eurekin batera lortu daigula betiko aintza.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Abuztuaren 5ean

Santa Maria basilika Sagaratzea

Maria Birjina dohatsuaren (935. or.) Betikotik.

Otoitza Parkatu, arren, Jauna, zeure zerbitzarien pekatuak;
eta, gure egite hutsez ezin garanez zure gogoko izan,
salbatu gaitezala
zure Seme eta gure Jaunaren Amaren otoitzari esker.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Abuztuaren 6an

Jaunaren Antzaldatzea

Jaia

Sarrera-ant. Hodei argi baten Espiritu Santua agertu zan eta Aitaren ahotsa entzun zan: Hauxe da nire Seme maitea, berau dot atsegin. Entzuiozue.
Ik. Mt 17, 5

Aintza zeruetan esango da.

Otoitza

Oi Jainko,
zure Semearen Antzaldatze ospetsuan,
Moises eta Elias asabak testigu zirala,
sendotu egin zenduzan fedeko misterioak
eta egiazko zeure seme-alaba egingo ginduzuzala
adierazo zenduan harrigarriro;
egizu, entzun daigula zure zerbitzariok
zure Seme maitearen ahotsa,
beragaz batera zeruko zorionean parte izan daigun.
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Jai hau domekaz izaten danean, Sinisten dot esango da.

Oparigaien gainekoa

Jauna, egizuz, arren, santu gure emoitzak
zeure Semearen Antzaldatze ospetsuaz,
eta garbitu gaizuz pekatuetatik haren argiaren distiraz.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Prefazioa

ANTZALDATZEAREN MISTERIOA

℣. Jauna zuekin.
℟. Eta zure espirituarekin.

℣. Gora bihotzak.
℟. Jaunagan daukaguz.

℣. Eskerrak Jaungoiko gure Jaunari.
℟. Egoki da eta zuzen.

Egoki da, bai, eta zuzen,
bidezko eta salbagarri,
nonahi eta beti guk Zuri eskerrak emotea,
Jauna, Aita guztiz santu,
Jainko ahalguztidun betiko horri,
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Honek bere aintza agertu eban testigu aukeratuen aurrean
eta distirarik handienaz argitu
beste guztiena bezalakoa eban gorputza.
Horretara, kurutzearen lotsaria
bihotzetik uxatu ahal izatea emon eutsen ikasleei
eta, Eleizaren buru izanik,
beragan aldez aurretik era miresgarrian argi egin eban distira
Eleiza osoaren gorputzean izango zala adierazo eban.

Horregaitik, zeruko indar guztiekin,
lurrean beti eta beti goresten zaitugu,
Zuri, Jainko guztiz handi horri,
eten barik [esanez] kantatuz:

Santu, Santu, Santua,
diran guztien Jainko Jauna.
Zeru-lurrak beterik daukaz zure distirak.
Hosanna zeru-goienetan!
Bedeinkatua Jaunaren izenean datorrena.
Hosanna zeru-goienetan!




Egoki da, bai, eta zuzen, bidezko eta sal-ba-ga-rri, no-na-hi eta
beti guk Zuri eskerrak e - mo - te - a, Jauna, Aita guz-tiz san - tu,
Jainko ahalguztidun betiko ho-rri, Jesu Kristo gure Jau-na-ren
bi-tar-tez. Ho-nek bere aintza ager-tu e-ban testigu aukeratuen
au-rre-an eta distirarik handienaz ar-gi-tu beste guztiena bezalako-a
e-ban gor-pu-tza. Horreta - ra kurutzearen lo-tsa-ri-a bihotze-tik
uxatu ahal izatea emon eutsen i-kas-le-ei eta, Eleizaren buru i-za-nik,
beregan aldez aurretik era miresgarrian argi egin eban dis - ti - rak
Eleiza osoaren gorputzean gertatuko zala a-di-e-ra - zo e-ban.
Horregai-tik, zeruko indar guz-ti-e-kin, lurrean beti eta beti goresten
zai-tu-gu, Zuri, Jainko guztiz handi ho-rri, e-ten ba-rik kan-ta-tuz:

Jaunartze-ant. Kristo agertuko danean, haren antzeko izango gara, dan lakoxea ikusiko dogu-eta. 1 Jn 3, 2

Jaunartze ondorengoa

Zeure Semearen aintza agertu zenduan
Antzaldatze ospetsuaren egunean;
egizu, Jauna, hartu dogun zerutar janari honek
egin gaizala zure Semearen irudiko.
Errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Bedeinkapen nagusia erabili daiteke, 648. or., 14. zk.

Abuztuaren 7an

Sixto II.a, aita santua, eta lagunak, martiriak

Martirien (martiri batzurentzat, 647. or.) Betikotik.

Otoitza

Jainko ahalguztiduna,
Sixtori eta lagun martiri santuei kemena emon zeuntsen
zure hitzagaitik eta Jesusen testigantza egiteagaitik
bizia emoteko;
emoiguzu Espiritu Santuaren indarra,
sinismenean leial iraun daigun
eta zure izenaren autormenean sendo.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

San Kaietano, presbiteroa

Eleiz artzainen (bakarrarentzat, 972. or.) nahiz santuen (erlijiosoentzat, 999. or.) Betikotik.

Otoitza

Kaietano presbitero santuari
Apostoluen biziera imitatzeko grazia
emon zeuntsan Jainkoa;
egizu, haren ejenpluaren bidez eta haren otoitzari esker,
Zeugan izan daigula beti uste osoa
eta ibili gaitezala eten barik zure erreinuaren bila.

Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Abuztuaren 8an

San Domingo Guzman, presbiteroa

Oroipena

Sarrera-ant. Batzarraren erdian berba egiteko gaitasuna emon eutson, eta Jaunak jakituriaz eta adimenez bete eban; soineko ospetsua jantzi eutson. Ik. Si 15, 5

Otoitza

Lagundu deiola, Jauna, zure Eleizeari
Domingo Guzman santuak
bere merezimentuen eta irakaspenen bidez,
eta zure egiaren predikari miragarri izan zana
izan dadila gure laguntzaile bere otoitz sutsuaz.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa

Entzun bihotz onez, Jauna,
Domingo santua lagun dogula egiten deutsuguzan otoitzak;
sakrifizio honen indarrak
sendotu dagizala zure graziaren laguntzaz
fedearen alde lanean diharduenak.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Jaunartze-ant. Hauxe da etxezain leiala eta zentzunduna, Jaunak, bere orduan behar dan janaria banatzeko, morroien buru ipini dauana. Ik. Lk 12, 42

Jaunartze ondorengoa

Hartu dogun zerutar sakramentuaz janaritu gaituzu, Jauna,
Domingo santuaren oroitzapen-egun honetan;
bere buruaren eskeintza osoa egiten deutsun zure Eleizeak
hartu dagiala sakramentu honen frutu salbagarria,
eta predikari ospetsu izan zanak
lagundu deigula bere otoitzari esker.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Abuztuaren 9an

SANTA TERESA BENEDIKTA KURUTZEKOA, BIRJINA ETA MARTIRIA

Europako zaindaria

Jaia

Sarrera-ant. Niri dagokidanez, Jainkoak libratu nagiala harrotzetik, Jesu Kristo gure Jaunaren kurutzean izan ezik; Kristo kurutzean hil zan ezkero, mundua hilda dago niretzat eta ni munduarentzat. Ga 6, 14

Aintza zeruetan esango da.

Otoitza Jauna, gure asaben Jainkoa,
zeure Seme kurutzeratua ezagutzera
eta heriotzaraino haren antzekoa izatera
eroan zenduan Santa Teresa Benedikta martiria;
egizu, haren otoitzari esker,
gizon-emakume guztiak heldu daitezala
Kristo salbatzailea ezagutzera
eta izan dagiela, Kristori berari esker,
zure aurpegia betieran ikusteko grazia.
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa Onartu, Jauna, bihotz onez
Teresa Benedikta martiri santuaren jai honetan
aurkezten deutsuguzan emoitzak,
eta Itun Zaharreko opari desbardinak
opari bakarraren bikaintasunera eroan zenduzan horrek
barritu egizu zeure Semeak bere odolaz
eskeini eutsun opari ha.
Errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Prefazioa: Birjina santuena, 540. or.

Jaunartze-ant. Ibar baltz ilunean banabil ere, ez naz gatxaren bildur, Zu nigaz zagoz-eta. Sal 23 [22], 4

Jaunartze ondorengoa

Teresa Benedikta martiri santuaren oroipen-eguna ospatzean,
egizu, Aita bihozbera,
kurutzeko zuhaitzaren frutu zerutarrak
indartu dagiala gure bihotza,
paradisuan bizi-zuhaitzetik parte izateko zoriona izan daigun
lur honetan Kristogaz leial bat eginez.
Errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Bedeinkazino nagusia erabili leiteke, 654. or., 25. zk.

Abuztuaren 10ean

San Lorentzo, diakonoa eta martiria

Jaia

Sarrera-ant.

Lorentzo diakono santuak Eleizeari eskeini eutson oso-osorik bere burua; holan martiritza lortu eban, eta Jesu Kristo Jaunagana pozik igotea.

Aintza zeruetan esango da.

Otoitza

Oi Jainko,
zure maitasunaren garrak
zure zerbitzari leial eta martiri ospetsu
egin eban Lorentzo santua;
egizu, maitatu daigula harek maite izan ebana,
eta bete daigula egintzetan harek irakatsi ebana.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa

Onartu, Jauna, Lorentzo santuaren egun honetan
alai egindako gure eskeintza;
egizu, izan dakigula salbazinorako lagungarri.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Prefazioa: Martiri santuena, 534-536. or.

Jaunartze-ant.

Nire zerbitzari izan nahi dauanak, jarraitu beit, dino Jaunak, eta, Ni nagoan tokian, hantxe izango da nire zerbitzaria ere. Jn 12, 26

Jaunartze ondorengoa

Dohai santuaz asetu gaituzu, Jauna,
Lorentzo santuaren jaia ospatzean;
apalik eskatzen deutsugu,
opari honetan zerbitzari izan garanok
sentidu daigula gero eta gehiago salbazinoaren betea.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Bedeinkazino nagusia erabili leiteke, 654. or., 25. zk.

Abuztuaren 11n

Santa Klara, birjina

Oroipena

Birjinen (bakarrarentzat, 985. or.) nahiz santuen (lekaimearentzat, 998. or.) Betikotik.

Otoitza

Jainko guztiz errukitsua,
Klara santua pobretasuna maitatzera eroan zenduan;
emoiguzu, haren otoitzari esker,
pobretasun-espirituz Kristori jarraitzea
zeruetako erreinuan Zeu ikustera heldu gaitezan.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Abuztuaren 12an

Santa Joana Frantziska Chantal, erlijiosa

Santuen (erlijiosentzat, 999. or.) Betikotik.

Otoitza

Oi Jainko,
dohai miragarriak emon zeuntsazan
Joana Frantziska santuari
bere bizitzako ibilbide desbardinetan;
egizu, haren otoitzari esker, bokazinoari leial jarraituz
munduan argi izan gaitezala geure egintzetan.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Abuztuaren 13an

Pontziano, aita santua, eta Hipolito, presbiteroa, santuak, martiriak

Martirien (martiri batzurentzat, 947. or.) nahiz eleiz artzainen (eleiz artzain batzurentzat, 971. or.) Betikotik.

Otoitza

Jauna, santuen kemen harrigarriak
handitu dagiala gugan Zuganako maitasuna
eta sendotu beti fede santua gure bihotzean.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Abuztuaren 14an

San Maximiliano Maria Kolbe, presbiteroa eta martiria

Oroipena

Sarrera-ant.

Zatoze, nire Aitaren bedeinkatuok, dino Jaunak. Benetan dinotsuet: nire seniderik txikien honeetako bati egin zeuntsoena Neuri egin zeunsten. Mt 25, 34.40

Otoitza

Oi Jainko,
Maria Sortzez Garbiaganako maitasunean
sutu zenduan Maximiliano Maria
presbitero eta martiri santua,
eta apostolu-zaletasunez
eta lagun hurkoaganako maitasunez bete zenduan;
egizu, arren, haren otoitzari esker,
lan egin daigula gogotsu zure aintzarako
gizon-emakumeen zerbitzuan,
eta izan gaitezala heriotzaraino zure Semearen antzeko.
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa

Zure aurrera dakarguz, Jauna, geure emoitzak,
eta, arren, otoitz egiten deutsugu:
Maximiliano Maria santuaren antzera,
ikasi daigula geure bizia Zuri eskeintzen.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Jaunartze-ant.

Ez dau inork maitasun handiagorik, bere bizia adiskideen alde emoten dauanak baino, dino Jaunak. Jn 15, 13

Jaunartze ondorengoa

Zure Semearen Gorputz-Odolez indarbarriturik,
eskatzen deutsugu, Jauna, biztu dagizula gugan,
Maximiliano Maria santuak janari honetan
hartu izan eban maitasun-sua.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Abuztuaren 15ean

MARIA BIRJINA DOHATSUAREN ZERURATZEA

Festaburua

Bezpera-arratsaldeko Meza

Meza hau abuztuaren 14ko arratsaldean emongo da, festaburuko I. Bezperak esan aurretik nahiz ondoren.

Sarrera-ant.

Goraki berba egiten dabe zutaz, Maria! Gaur aingeruak baino gorago jasoa izan zara, eta Kristogaz erregina zara betiko.

Aintza zeruetan esango da.

Otoitza

Oi Jainko,
Maria Birjina dohatsuari,
haren apaltasuna atsegin izan jatzulako,
zure Seme bakarra gizon egitean
haren Ama izateko grazia emon zeuntsan,
eta egun honetan parebako aintzaz koroatu zenduan;
balia bekigu haren otoitza
eta, erospeneko misterioaz salbatu gaituzunok,
eroan gaizuz zeruko zeure ospera.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Sinisten dot esango da.

Oparigaien gainekoa

Onartu, Jauna, eskeintzen dihardugun
bake- eta gorespen- sakrifizio hau;
Jainkoaren Ama santuaren Zeruratze-egunean
eskeintzen deutsugu,
parkamena lortu deigun
eta beti esker oneko egin gagizan.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Prefazio berezia, eguneko Mezakoa, 833. or.

Jaunartze-ant.

Zorionekoa Maria Birjinaren sabela, betiko Aitaren Semea eroan ebana. Ik. Lk 11, 27

Jaunartze ondorengoa

Jainko gure Jauna,
zerutar mahaian parte harturik,
otoitz egiten deutsagu zure bihotz onari:
Jainkoaren Amaren Zeruratzea ospatzen dogunok
atara gaizuz beti gatx guztietatik.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Bedeinkazino nagusia erabili leiteke, 652. or., 21. zk.

Eguneko Meza

Sarrera-ant. Seinale handia agertu zan zeruan: emakume bat eguzkiz jantzita, iretargia oinazpian eta hamabi izarreko koroa buruan.

Ap 12, 1

Edo:

Poztu gaitezan danok Jaunagan, Maria Birjinaren jaieguna ospatzean; haren zeruratzeaz pozten dira aingeruak eta Jainkoaren Semea goresten dabe.

Aintza zeruetan esango da.

Otoitza Jainko ahalguztidun betikoa,
zeruko ospera eroan zenduan, gorputz eta arima,
Maria Birjina Sortzez Garbia, zeure Semearen Ama;
egizu, goiko ondasunak bilatu daiguzala beti,
zeruko ospean parte izan daigun beragaz.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Sinisten dot esango da.

Oparigaien gainekoa Igon begi Zugana, Jauna, jaieraz egiten dihardugun eskeintzak,
eta, Maria Birjina guztiz dohatsua
zeruetara jasoaren otoitzari esker,
egizu, gure bihotzak, goi-maitasunaren garrez suturik,
jo dagiala eten barik Zeugana.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Prefazioa MARIA ZERURATUAREN AINTZA

℣. Jauna zuekin.
℟. Eta zure espirituarekin.
℣. Gora bihotzak.
℟. Jaunagan daukaguz.
℣. Eskerrak Jaungoiko gure Jaunari.
℟. Egoki da eta zuzen.

Egoki da, bai, eta zuzen,
bidezko eta salbagarri,
nonahi eta beti guk Zuri eskerrak emotea,
Jauna, Aita guztiz santu,
Jainko ahalguztidun betiko horri,
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Gaur, Maria Birjina, Jainkoaren Ama,
zerura jasoa izan da-eta.
Egun baten aintzaz betea izango dan
zure Eleizaren hasiera eta irudia da;
bere itxaropen sendo eta poz-iturri dau bera
oraindino bidean erromes doan zure herriak.
Izan ere, ez dozu itzi hilobian usteltzen
zure Semea, bizi guztien sortzailea,
miragarriro sortu eban Ama.

Horregaitik, aingeru-taldeekin batean,
goresten zaitugu,
pozez beterik [esaten] kantatzen dogula:

Santu, Santu, Santua,
diran guztien Jainko Jauna.
Zeru-lurrak beterik daukaz zure distirak.
Hosanna zeru-goienetan!
Bedeinkatua Jaunaren izenean datorrera.
Hosanna zeru-goienetan!




Egoki da, bai, eta zuzen, bidezko eta sal-ba-ga-rri, no-na-hi eta
beti guk Zuri eskerrak e - mo - te - a, Jauna, Aita guz-tiz san-tu,
Jainko ahalguztidun betiko ho-rri, Jesu Kristo gure Jau - na - ren
bi - tar - tez. Gaur, Mari - a Birjina, Jainkoa - ren A - ma,
zerura jasoa izan da–e - ta. Egun batean aintzaz betea izan-go dan
zure Eleizaren hasiera e - ta i - ru - di - a da; be-re itxaropen sendo
eta poz–iturri dau be-ra o-rain-di-no bidean erromes doan zure he-
rri - ak. Izan ere, ez dozu itzi hilobian us - tel-tzen zure Semea, bizi
guztien sortzai - le - a, miragarri - ro sor - tu e - ban A - ma.
Horregai - tik, aingeru–taldeekin ba - te - ra, goresten zai - tu - gu,
pozez beterik kan - ta - tzen do - gu - la:

Jaunartze-ant. Dohatsu deituko nabe gaurtik aurrera gizaldi guztiek, handiak egin deustaz-eta Ahalguztidunak. Lk 1, 48-49

Jaunartze ondorengoa

Sakramentu salbagarria hartu dogu, Jauna;
egizu, Maria Birjina dohatsua
zeruetara jasoaren otoitzari esker,
biztueraren aintzara heldu gaitezala.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Bedeinkazino nagusia erabili leiteke, 652. or., 21. zk.

Abuztuaren 16an

Hungariako San Esteban

Santuen (santu bakarrarentzat, 993. or.) Betikotik.

Otoitza

Egizu, Jainko ahalguztiduna,
zure Eleizeak, Hungariako Esteban santua,
lur honetan errege zala, zabaltzaile izan eban lez,
defendatzaile ospetsu izan dagiala orain zeruan.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Abuztuaren 19an

San Joan Eudes, presbiteroa

Eleiz artzainen (bakarrarentzat, 972. or.) nahiz santuen (erlijiosoentzat, 999. or.) Betikotik.

Otoitza

Oi Jainko,
Jesu Kristoren aberastasun neurribakoak iragartzeko
aukeratu zenduan miragarriro Joan Eudes presbitero santua;
egizu, haren ikasbide eta aholkuei esker
zure jakituria hobeto ezagutuz,
bizi gaitezala leial Ebanjelioaren argiaren arabera.

Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

San Ezekiel Moreno Diaz, gotzaina

Sarrera-ant. Goratu egizue Jauna, dei egin haren izenari, ezagutuarazo herrien artean haren egintza bikainak. Sal 104, 1

Otoitza Oi Jainko,
Ezekiel gotzain santua eredu emon deuskuzu,
bai Ebanjelioagazko leialtasunean,
bai Jesusen Bihotzaren araberako artzain izatean;
egizu, haren otoitzari esker, iraun daigula bihotz osoz
Zuganako bidean eta Eleizearen zerbitzuan,
kristau-testigantza alaitasunez eginez.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa Isuri egizu, Jauna, zerutik zeure bedeinkazinoa
Ezekiel santuaren egunean
aurkezten deutsuguzan emoitza honeen gainera;
egizu, horreek hartzean, lortu daigula
geure erruen parkamena
eta zerutar ondasunez bete gaitezala.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Jaunartze-ant. Jaunak ikasleak bialdu ebazan herrietan iragartzera: Hurrean dozue Jainkoaren erreinua. Ik. Lk 10, 1.9

Jaunartze ondorengoa Hartu dogun sakramentu honek bizibarritu gaizala, Jauna,
eta, Ezekiel gotzain santuaren eguna pozik ospatzean,
egizu, haren apostolu-zaletasuna eredu hartuz,
egunetik egunera aurrera egin daigula.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Abuztuaren 20an

San Bernardo, abata eta eleiz irakaslea

Oroipena

Sarrera-ant. Jakituriaz bete eban Jaunak Bernardo santua, eta agortzen ez dan irakaspena emon eutson honek Jainkoaren herriari.

Otoitza

Oi Jainko,
zeure Eleizearen argi bizi egin zenduan
zure etxearen maitasunez sutan egoan
Bernardo abata santua;
egizu, haren otoitzari esker,
haren espiritu berak beroturik
ibili gaitezala geu ere eten barik argiaren seme-alaba lez.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa

Jainko handia,
batasunaren eta bakearen sakramentua eskeintzen deutsugu,
Bernardo abata santuaren oroipena egitean,
ha, hitzez eta egitez distiratsu izanik,
gogo handiz ahalegindu zan-eta
zure Eleizearen bakearen alde.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Jaunartze-ant. Aitak Ni maite izan nauan lez, halantxe maite izan zaituet Neuk be zuek, dino Jaunak; iraun sendo nire maitasunean. Jn 15, 9

Jaunartze ondorengoa

Bernardo santuaren egunean hartu dogun janariak, Jauna,
emon dagiala gugan bere frutua;
haren ikasbideek indarturik
eta haren irakaspenek eskolaturik,
gizon egin zan zure Hitzaren maitasunaz
liluratuak bizi gaitezan.
Errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Abuztuaren 21ean

San Pio X.a, aita santua

Oroipena

Eleiz artzainen (aita santuarentzat, 965. or.) Betikotik.

Otoitza

Oi Jainko,
sinismen katolikoa zaintzeko
eta diran guztiak Kristogan eraikitzeko,
zerutar jakituriaz eta apostolu-garrez bete zenduan
Pio aita santua;
egizu, arren, haren irakaspenei eta ikasbideei jarraituz,
betiko saria lortu daigula.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa

Onartu, Jauna, bihotz onez gure eskeintza hau,
eta egizu, Pio aita santuaren aholkuei jarraituz,
misterio santuok begirune handiz ospatu
eta fede biziz hartu daiguzala.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Jaunartze ondorengoa

Jainko gure Jauna,
zure mahaian indarbarriturik, otoitz egiten deutsugu
Pio aita santuaren oroipena ospatzean,
egin gaizuz fedean sendo
eta bihotzez bat zeure maitasunean.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Abuztuaren 22an

Maria Birjina dohatsua Erregina

Oroipena

Sarrera-ant. Zure eskuman dago Erregina, urrez apaindutako soinekoa jantzita.
Ik. Sal 45 [44], 10.14

Otoitza Oi Jainko,
zeure Semearen Ama egin zenduan gure Ama eta Erregina;
egizu, arren, haren otoitzak lagundurik,
izan daigula zure seme-alaben zoriona zeruko erreinuan.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa Maria Birjina dohatsuaren oroipena ospatzean
geure emoitzak dakartsuguz, Jauna;
arren eskatzen deutsugu, lagundu deigula
kurutzean bere burua opari garbi eskeini eutsun
zure Seme gizon eginak.
Errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Prefazioa: Maria Birjina dohatsuaren I.a: jaia ospatzen dogun, 520. or., nahiz II-V.a, 522-525. or.

Jaunartze-ant. Zorionekoa zu, Jaunak esan deutsuna beteko dala sinistu dozulako!
Lk 1, 45

Jaunartze ondorengoa Zerutar sakramentua harturik, Jauna,
apalik eskatzen deutsugu:
Maria Birjina dohatsuaren oroipena ospatzen dogunok
lortu daigula betiko jai-jatorduan mahaikide izatea.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Abuztuaren 23an

Limako Errosa santua, birjina

Birjinen (bakarrarentzat, 985. or.) Betikotik.

Otoitza Oi Jainko,
Limako Errosa santuak,
Zuganako maitasunez suturik, mundua itzi eban,
penitentzia bizitza gogorrean Zeu beste inor ez zerbitzeko;
emoiguzu, haren otoitzari esker,
lur honetan egiazko bizibidean ibilirik,
zure atseginak ibaika gozatzea zeruan.

Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Abuztuaren 24an

San Bartolome, apostolua

Jaia

Sarrera-ant. Iragarri egunez egun Jainkoa salbatzaile dala, zabaldu haren ospea nazinoetan. Sal 96 [95], 2-3

Aintza zeruetan esango da.

Otoitza Sendotu egizu gugan, Jauna,
Bartolome apostolu santua zure Semeagaz
benetan bat egin eban fedea;
eta egizu, haren otoitzari esker,
zure Eleizea izan dadila herri guztientzat salbazino-sakramentu.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa Bartolome apostolu santuaren jaia ospatzean,
apalik eskatzen deutsugu, Jauna:
haren otoitzari esker lortu daigula zure laguntza,
haren ohoretan eskeintzen deutsugu-eta gorespen-opari hau.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Prefazioa: Apostoluena, 528-530. or.

Jaunartze-ant. Nik erreinua emoten deutsuet, Aitak Niri emon eustan lez; nire mahaian jango eta edango dozue nire erreinuan, dino Jaunak. Lk 22, 29-30

Jaunartze ondorengoa Betiko salbazinoaren agiria hartu dogu, Jauna,
Bartolome apostolu santuaren jaiegun pozgarri honetan;
izan bekigu, arren, oraingo eta geroko bizirako laguntza.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Bedeinkazino nagusia erabili leiteke, 653. or., 23. zk.

Abuztuaren 25ean

San Luis

Santuen (bakarrarentzat, 993. or.) Betikotik.

Otoitza

Oi Jainko,
Luis santua lur honetako errege-arduretatik
zeruko erreinuaren ospera eroan zenduan;
egizu, haren otoitzari esker, bilatu daigula
eguneroko geure egitekoen artean betiko zure erreinua.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

San Jose Calasanz, presbiteroa

Santuen (hezitzaileentzat, 1003. or.) nahiz eleiz artzainen (bakarrarentzat, 972. or.) Betikotik.

Otoitza

Oi Jainko,
maitasun eta eroapen handia emon zeuntsan
Jose Calasanz presbitero santuari,
giza eta kristau-heziera umeei emoteko;
egizu, arren, jakituriaren maisutzat ospatzen dogun
santu honi jarraituz,
izan gaitezala beti egiaren zerbitzari.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Abuztuaren 26an

Santa Teresa Jesusena Jornet eta Ibars, birjina

Oroipena

Sarrera-ant. Zatoz, Kristoren emaztea; hartu egizu Jaunak zuretzat betiko prestatu dauan koroa.

Otoitza

Oi Jainko, Zeuk eroan zenduan
Teresa Jesusena Jornet birjina santua maitasun osora,
zaharrenganako ardura izanez;
emoiguzu, bera jarraibide dogula,
lagun hurkoagan Kristo zerbitzea,
honen maitasunaren testigu izan gaitezan.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa

Onartu, Jauna, zeure herriaren emoitzak,
eta egizu, zure Semeak maitasunez
gugan egin ebazan miragarriak gorestean,
santuen ejenpluari jarraituz,
sendotu gaitezala
Zugazko eta lagun hurkoagazko maitasunean.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Jaunartze-ant.

Gauerdian oihu bat entzun zan: Badator senarra; urten egiozue bidera Kristo Jaunari. Mt 25, 6

Jaunartze ondorengoa

Jainko errukitsua,
salbazino-sakramentuaz janariturik, arren eskatzen deutsugu,
Teresa Jesusena Jornet santuaren maitasuna imitatuz,
parte izan daigula egun baten berarekin aintzan.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Abuztuaren 27an

Santa Monika

Oroipena

Santuen (emakume santuentzat, 1004. or.) Betikotik.

Otoitza

Atsekabetuen kontsolatzaile zaran Jainkoa,
bihotz onez hartu zenduzan Monika santuaren malkoak,
bere seme Agustin bide onera erakartzeko;
egizu, ama-seme horreen otoitzari esker,
egin daigula negar geure pekatuakaitik
eta lortu zure parkamenaren grazia.

Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Abuztuaren 28an

San Agustin, gotzaina eta eleiz irakaslea

Oroipena

Sarrera-ant. Batzarraren erdian berba egiteko gaitasuna emon eutson, eta Jaunak jakituriaz eta adimenez bete eban; soineko ospetsua jantzi eutson.
Ik. Si 15, 5

Otoitza

Barritu egizu, Jauna, zeure Eleizan,
Agustin gotzain santuari
oparo emon zeuntsan espiritua,
espiritu horrek berak beterik,
Zutaz bakarrik izan gaitezan egarri,
Zeu zara-eta egiazko jakituriaren iturria;
eta egizu, Zeu bakarrik bilatu zaiguzala,
Zeu zara-eta goi-maitasunaren egilea.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa

Gure salbazinoaren oroigarria ospatzean,
apalik eskatzen deutsugu, Jainko guztiz errukitsu horri:
izan dakigula zure errukiaren sakramentu hau
batasun-ezaugarri eta maitasun-lokarri.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Jaunartze-ant. Hauxe dino Jaunak: Bakarra da zuen maisua, Kristo, eta zuek guztiok senide zarie.
Mt 23, 10.8

Jaunartze ondorengoa

Zure Semearen mahaian parte hartzeak
egin gaizala santu, Jauna,
Kristoren gorputzeko atal izanik,
sakramentuz hartu dogun ha bera egin gaitezan.
Errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Abuztuaren 29an

San Joan Bateatzailearen martiritza

Oroipena

Sarrera-ant.

Zure mandamentuak azalduko ditut, Jauna, lotsa barik erregeen aurrean. Zure aginduetan naz gozatzen, hain maite ditudan aginduetan. Sal 119 [118], 46-47

Otoitza

Oi Jainko, Zuk halan nahirik,
zure Semearen aurrelari izan zan San Joan Bateatzailea,
bai jaiotzan, bai heriotzan;
egizu, ha egiaren eta zuzentasunaren alde
martiri izan zan lez,
autortu daigula geuk ere gogotsu geure sinismena.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa

Orain egiten dihardugun eskeintzaren bidez, Jauna,
emoiguzu zure bide zuzenetatik ibiltzea:
bide horreek erakutsi zituan-eta Joan Bateatzaile santuak
basamortuan oihu eginez,
baita adoretsu autortu ere, bere odola isuriz.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Prefazioa: San Joan Bateatzailearen festaburu-egunekoa, 790. or.

Jaunartze-ant.

Joanek erantzun eban: harek hazi egin behar dau; nik, barriz, txikiago bihurtu. Jn 3, 27.30

Jaunartze ondorengoa

Joan Bateatzaile santuaren martiritza ospatzean,
egizu, Jauna,
guk hartutako sakramentu honek adierazoten dituan
salbazinoko miragarriak goratu daiguzala,
baita gozatu ere beronen frutuak.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

IRAILA

Irailaren 3an **San Gregorio Handia, aita santua eta eleiz irakaslea**

Oroipena

Sarrera-ant. Gregorio santua Pedroren gotzain-aulkira jasoa izan zan, Jaunaren bila ebilen beti eta haregazko maitasun sutsuan bizi izan zan.

Otoitza Oi Jainko,
errukiz zaintzen dozu zeure herria eta maitasunez gidatzen;
Gregorio aita santuaren otoitzari esker,
emoiezu jakituri espiritua
Eleizearen ardurea emon deutsezun artzainei,
artaldearen santutasuna artzainen betiko poz izan dadin.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa Egizu, Jauna, gure onerako izan dadila
Gregorio santuaren egun honetan
egiten dihardugun eskeintza,
opari honen bidez parkatu dituzu-eta
mundu guztiaren pekatuak.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Jaunartze-ant. Hauxe da etxezain leiala eta zentzunduna, Jaunak, bere orduan behar dan janaria banatzeko, morroien buru ipini dauana. Ik. Lk 12, 42

Jaunartze ondorengoa Kristo emon deuskuzu, Jauna, biziaren ogi;
egizu, Gregorio santuaren jaia ospatzean,
Kristo maisu harturik, ikasi daigula zure egia
eta maitasun-egintzetan bete.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Irailaren 8an **MARIA BIRJINA DOHATSUAREN JAIOTZA**

Jaia

Sarrera-ant. Pozez ospatu daigun Maria Birjina dohatsuaren Jaiotza, beragandik jaio zan-eta zuzentasun-eguzkia, Kristo gure Jainkoa.

Aintza zeruetan esango da.

Otoitza Emoiguzu, Jauna, zeure zerbitzarioi
zerutar graziaren dohaia;
egizu, Maria Birjina dohatsuak semea izatea
salbazinoaren hasiera izan genduan lez,
bakea sendotzeko bide izan daigula
Mariaren Jaiotzaren ospakizuna.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa Zure Seme bakarraren gizatasunak lagundu deigula, Jauna,
Birjinagandik jaiotzean
Amaren osotasuna gitxitu ez, ezpada ze sagaratu ebanak,
geure pekatu-kutsu guztitik libratu gagizan
eta gure oparigai hau zure gogoko egin dagian.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Edo:

Maria Birjina dohatsuaren Jaiotza pozik ospatzean,
geure emoitzak dakartsuguz, Jauna, eta apalik eskatzen,
lagundu deigula Birjina beragandik jaioaz
gizon egin zan zure Semeak.
Errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Prefazioa: Maria Birjina dohatsuaren I.a, Jaiotza ospatzen dogun, 520. or., nahiz II-V.a, 522-525. or.

Jaunartze-ant. Begira, Birjinak Semea izango dau; honek salbatuko dau bere herria pekatuetatik. Is 7, 14; Mt 1, 21

Jaunartze ondorengoa

Poztu bedi, Jauna,
jaunartze honen bidez indartu dozun zeure Eleizea;
emoiozu poz betea
Maria Birjina dohatsuaren jaiotegun honetan,
salbazinoaren itxaropena eta egunsentia ekarri eutson-eta
jaiotza horrek munduari.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Bedeinkazino nagusia erabili leiteke, 652. or., 21. zk.

Irailaren 9an

San Pedro Claver, presbiteroa

Eleiz artzainen (bakarrarentzat, 972. or.) nahiz santuen (erruki-egintzak bete ebezanentzat, 1001. or.) Betikotik.

Otoitza

Oi Jainko,
esklaboen esklabo egin zenduan Pedro Claver santua,
eta maitasun eta eroapen miragarriz indartu
hareei laguntzeko;
egizu, haren otoitzari esker,
Jesu Kristoren jokabideari jarraituz,
maitatu daigula lagun hurkoa egitez eta egiaz.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Irailaren 12an

Mariaren Izen santua

Sarrera-ant.

Jainko Jaunak lurreko emakume guztien gainetik bedeinkatu zaitu, oi Maria Birjina; Jaunak ospetsu egin dau zure izena, eta gizakiek isildu barik goratuko zaitue. Ik. Jdt 13, 18-19

Otoitza

Jainko ahalguztiduna,
emoiezu Maria Birjina dohatsuaren izen aintzatsua
ospatzen diharduen guztiei,
haren otoitzari esker,
zure errukiaren ondasunak eskuratzea.

Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa

Egizu, Jauna, Maria beti Birjina dohatsuaren otoitzak
egin daizala zure gogoko gure emoitzak,
eta haren izena goresten dogunok
bihurtu gaizala Zuretzat onargarri.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Jaunartze-ant.

Dohatsu deituko nabe gaurtik aurrera gizaldi guztiek, ikusi dau-eta Jainkoak mirabe honen ezereztasuna. Ik. Lk 1, 48

Jaunartze ondorengoa

Egizu, Jauna, Jainkoaren Ama Mariaren otoitzari esker
lortu daigula zure bedeinkazinoaren grazia,
haren izen beneragarria ospatzen dogunok
sentidu daigun geure beharrizan guztietan haren laguntza.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Irailaren 13an

San Joan Krisostomo, gotzaina eta eleiz irakaslea

Oroipena

Sarrera-ant.

Ortziaren distiraz distiratuko dabe jakitunek, eta besteei bide zuzenean ibiltzen irakatsi deutsienek izarrak bezala betieran. Dn 12, 3

Otoitza

Oi Jainko, Zugan uste on dabenen indarra,
predikuan hizlari miragarri
eta estualdietan indartsu egin zenduan
Joan Krisostomo gotzain santua;
egizu, haren irakaspenek argiturik,
beraren eroapen iraunkorrak bete gaizala indarrez.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa

Atsegin izan bekizu, oi Jainko,
Joan Krisostomo santuaren oroitzapenean
pozik egiten deutsugun sakrifizioa,
Zu bihotz guztiaz gorestera eragiten deuskue-eta
haren bizitzak eta irakaspenek.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Jaunartze-ant.

Guk Jesu Kristo kurutzeratua predikatzen dogu, Jainkoaren indarra eta Jainkoaren jakituria dan Kristo. Ik. 1 Ko 1, 23.24

Jaunartze ondorengoa

Jainko errukitsua,
Joan Krisostomo santuaren oroitzapeneko jaunartze honek
sendotu gaizala zure maitasunean,
eta zure egiaren testigu leial egin.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Irailaren 14an

KURUTZE SANTUAREN GORESPENA

Jaia

Sarrera-ant.

Jainkoak libra gaizala harrotzetik, Jesu Kristo gure Jaunaren kurutzean izan ezik; kurutze horretan dago gure salbazinoa, bizia eta biztuera; berak salbatu eta askatu gaitu. Ik. Ga 6, 14

Aintza zeruetan esango da.

Otoitza

Oi Jainko, zure Seme bakarrak
kurutzeko heriotza onartzea nahi izan zenduan,
gizon-emakume guztiak salbatzeko;
egizu, arren, haren misterioa lur honetan ezagutu dogunok
lortu daigula zeruan haren salbazino betea.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Jai hau domekaz izaten danean, Siniesten dot esango da.

Oparigaien gainekoa

Jauna, mundu guztiko pekatua kentzeko
kurutzeko altaran eskeinitako opari honek
garbitu gaizala pekatu guztietatik.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Prefazioa

KURUTZE AINTZATSUAREN GARAIPENA

℣. Jauna zuekin.
℟. Eta zure espirituarekin.

℣. Gora bihotzak.
℟. Jaunagan daukaguz.

℣. Eskerrak Jaungoiko gure Jaunari.
℟. Egoki da eta zuzen.

Egoki da, bai, eta zuzen,
bidezko eta salbagarri,
nonahi eta beti guk Zuri eskerrak emotea,
Jauna, Aita guztiz santu,
Jainko ahalguztidun betiko horri.

Kurutzeko zuhaitzean ezarri dozu-eta
gizon-emakume guztien salbazinoa:
heriotza sortu zan toki beretik sortu zedin bizia,
eta zuhaitzean garaile izandako arerioa
zuhaitzean garaitua izan zedin,
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Honen bitartez, aingeruek zure handitasuna goresten dabe,
zerutar espiritu eta aginteek zure ospea adoratzen,
goiko indar eta serafin dohatsuek Zuri ahuspez agur egiten,
poztasun berak ditu-eta zerutar guztiak alkartzen.

Onartu eizu, Jauna,
euren gorespenekin bat egin daiguzala geuk ere
geure kantu-hotsak:

Santu, Santu, Santua...


℣. Jau - na zu - e - kin. ℟. E - ta zu - re es - pi - ri - tu - a - re-kin.
℣. Go - ra bi - ho - tzak. ℟. Jau - na - gan dau - ka - guz.
℣. Es-ke-rrak Jaun-goi-ko gu-re Jau-na - ri. ℟. E-go-ki da e - ta zu-zen.


E - go - ki da, bai, eta zuzen, bidezko eta sal - ba - ga - rri,
no-na - hi eta beti guk Zuri eskerrak e-mo-te - a, Jau-na, Ai-ta guz-tiz
san-tu, Jain-ko a - halguzti - dun be - ti - ko ho - rri.
Ku-ru - tze - ko zuhaitzean ezarri dozu–eta gizon–emakume guztien
sal-ba-me-na: he-ri-o-tza sortu zan toki beretik sortu ze-din bi-zi-a,
e - ta zu-haitzean garaile izandako a - re-ri-o-a zuhaitzean garaitua
i-zan ze-din, Je - su Kris-to gure Jau-na - ren bi - tar - tez.



Jaunaren nekaldiko I. prefazioa be esan leiteke, 496. or.

Jaunartze-ant. Nik, lurretik jasoko nabenean, Neugana erakarriko ditut guztiak, dino Jaunak. Jn 12, 32

Jaunartze ondorengoa

Jesu Kristo Jauna,
zure eskutik hartu dogun janari santuak indarbarriturik,
Zuri otoitz egiten deutsugu:
kurutzeko zuhaitzaren bidez
salbatu eta bizibarritu gaituzunok
eroan gaizuzala biztueraren aintzara.
Errege bizi zara-eta gizaldi eta gizaldietan.

Irailaren 15ean

Doloreetako Maria Birjina dohatsua

Oroipena

Sarrera-ant. Simeonek esan eutson Mariari: Begira, hau israeldar asko jausteko eta beste asko jasotzeko ipinita dago; eztabaida sortzen dauan ezaugarri izango da, holan bihotz askotako asmoak agirian gelditu daitezan. Eta zuri ezpata batek aldez alde zulatuko deutsu arimea. Lk 2, 34-35

Otoitza

Zure Semearen oinazeetan
bere Amak kurutze-oinean parte hartzea
nahi izan zenduan Jainkoa;
emoiozu Eleizeari, Mariagaz Jesusen nekaldian bat eginik,
parte izatea beronegaz biztueran.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa

Jainko errukitsua, Maria Birjina dohatsua,
Jesusen kurutze-oinean zutunik egoala,
gure Ama egin nahi izan zenduan onberatasunez;
onartu egizuz zeure izenaren goresgarri
haren omenez egiten doguzan otoitzak eta eskeintzak.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Prefazioa: Maria Birjina dohatsuaren I.a, (jaia ospatzen dogun), 520. or., nahiz II-V.a, 522-525. or.

Jaunartze-ant. Poztu zaiteze Kristoren sufrimentuen partaide zarienean, ha aintzaz beterik agertzean pozez gainezka egon zaitezen. 1 P 4, 13

Jaunartze ondorengoa

Betiko erospenaren sakramentua harturik,
apalik eskatzen deutsugu, Jauna:
Maria Birjina dohatsuak bere Semearen oinazeetan
parte hartu izanaren oroipena ospatzen dogunok
bete daigula geugan, Eleizearen onerako,
Kristoren nekaldiari falta jakona.
Errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Irailaren 16an

Kornelio, aita santua, eta Zipriano, gotzaina, santuak, martiriak

Oroipena

Martirien (martiri batzurentzat, 947. or.) nahiz eleiz artzainen (gotzainentzat, 968. or.) Betikotik.

Otoitza

Kornelio eta Zipriano santuak
Eleizearen artzain zintzo eta martiri garaile
egin zenduzan Jainkoa;
egizu, euren otoitzari esker,
izan gaitezala iraupentsu sinismenean
eta ahalegin guztiaz lan egin daigula
Eleizearen batasunaren alde.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa

Onartu, Jauna,
Kornelio eta Zipriano santuak goresteko
zure herriak egiten diharduan eskeintza;
martiri santuei erasoaldian indarra emon eutsen lez,
emon deigula geuri ere estualdian iraupena.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Jaunartze ondorengoa

Hartu dogun sakramentu honen bidez, Jauna,
apalik eskatzen deutsugu:
Kornelio eta Zipriano martiri santuak eredu doguzala,
sendotu gaizala geu ere zure Espirituaren indarrak,
Ebanjelioko egiaren autorle izan gaitezan.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Irailaren 17an

San Roberto Belarmino, gotzaina eta eleiz irakaslea

Eleiz artzainen (gotzainarentzat, 968. or.) nahiz eleiz irakasleen (981. or.) Betikotik.

Otoitza Oi Jainko,
santutasun eta jakituria harrigarriz bete zenduan
Roberto Belarmino gotzain santua,
Eleizearen fedea zaintzeko;
egizu, haren otoitzari esker,
gorde dagiala zure herriak osorik eta pozik egiazko fedea.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Irailaren 19an

San Jenaro, gotzaina eta martiria

Martirien (bakarrarentzat, 953. or.) nahiz eleiz artzainen (gotzainarentzat, 968. or.) Betikotik.

Otoitza Oi Jainko,
Jenaro martiri santuaren
oroipena egitea emoten deuskuzu;
egizu, betiko zorionean ere izan gaitezala haren lagun.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Irailaren 20an

Andres Kim Taegon, presbiteroa, eta Paulo Chong Hasang eta lagunak, santuak, martiriak

Oroipena

Sarrera-ant. Martiri santuek Kristogaitik isuri eben euren odola lurrean; horregaitik, betiko saria irabazi dabe.

Otoitza Oi Jainko,
seme-alaba ordekoak ugaritu dozuz lurreko bazter guztietan
eta Andres eta lagun martiri santuen odola
kristau-hazi emonkor bihurtu dozu;
egizu, arren, izan daigula euren laguntza
eta jarraitu deiogula eten barik euren ejenpluari.

Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa

Jainko ahalguztiduna,
begira bihotz onez zeure herriaren emoitzei,
eta egizu, martiri santuen otoitzari esker,
bihurtu gaitezala gu geu Zuretzat,
mundu osoaren salbazinorako, sakrifizio atsegingarri.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Jaunartze-ant.

Jentearen aurrean autortzen nauana, autortuko dot Neuk ere zeruko neure Aitaren aurrean, dino Jaunak. Mt 10, 32

Jaunartze ondorengoa

Indartsuen janaria harturik,
martiri santuen ospakizuna egitean,
apalik eskatzen deutsugu, Jauna:
Kristogaz leial bat eginik,
jokatu daigula Eleizan
gizon-emakume guztien salbazinoaren alde.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Irailaren 21ean

San Mateo, apostolua eta ebanjelaria

Jaia

Sarrera-ant.

Zoaze eta egin herri guztiak nire ikasle, bateatuz eta Nik agindu deutsuedan guztia betetzen irakatsiz, dino Jaunak. Mt 28, 19a.20a

Aintza zeruetan esango da.

Otoitza

Oi Jainko, zeure erruki miragarrian,
Apostolu izateko aukeratu zenduan Mateo zergalaria;
emoiguzu, haren ejenpluaren bidez eta haren otoitzari esker
Zuri jarraituz,
Zeugaz sendo bat egitea.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa

Mateo santuaren oroipena ospatzeko
egiten deutsuguz, Jauna, gure otoitzak eta eskeintzak;
zaindu egizu maitasunez
Apostoluen predikuaz janaritu zenduan Eleizearen fedea.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Prefazioa: Apostoluena, 528-530. or.

Jaunartze-ant.

Ez naz zintzoei dei egitera etorri, pekatariei baino, dino Jaunak.
Mt 9, 13

Jaunartze ondorengoa

Mateo santuak Salbatzailea bere etxean hartzean
izan eban poz salbagarri berean hartu dogu parte guk orain;
egizu, Jauna, izan daigula beti janari,
zintzoei barik, pekatariei deitzera etorri zan ha.
Errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Bedeinkazino nagusia erabili leiteke, 653. or., 23. zk.

Irailaren 23an

Pietrelcinako San Pio, presbiteroa

Oroipena

Eleiz artzainen (bakarrarentzat, 972. or.) nahiz santuen (erlijiosoentzat, 999. or.) Betikotik.

Otoitza

Jainko ahalguztidun betikoa,
zure Semearen kurutzean parte izateko
dohai berezia emon zeuntsan Pio presbitero santuari
eta, haren zerbitzuaren bidez,
zeure errukiaren miragarriak barritu zenduzan;
egizu, haren otoitzari esker,
Kristoren oinazeetan parte izanez
heldu gaitezala zoriontsu biztueraren ospera.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Irailaren 24an

Mesedeetako Maria Birjina dohatsua

Maria Birjina dohatsuaren (935. or.) Betikotik.

Otoitza

Jainko Aita errukitsua,
zeure Semea bialdu zenduan mundu honetara
gizakion salbazinorako;
egizu, haren Amari Mesedeetako izenez deitzen deutsagunok
leial zaindu daigula gugan
eta zabaldu gizaki guztiakana
seme-alaben egiazko askatasuna,
Kristo Jaunak bere opari-eskeintzaz lortua.
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Irailaren 26an

San Kosme eta San Damian, martiriak

Martirien (martiri batzurentzat, 947. or.) Betikotik.

Otoitza

Kosme eta Damian santuen oroipena egitean,
goresten zaitugu, Jauna,
hareei zeruko zoriona
eta guri zeure laguntza miragarria emon deuskuzulako.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa

Zure santuen heriotza baliotsua gogoratuz, Jauna,
martiritzaren iturri eta eredu dan sakrifizioa
eskeintzen deutsugu.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Jaunartze ondorengoa

Iraunazo gugan, Jauna, zeure dohai santua;
eta, Kosme eta Damian martiri santuen oroitzapena egitean,
Zeuk emonik hartu dogunak
ekarri deigula salbazinoa eta bakea.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Irailaren 27an

San Bizente Paul, presbiteroa

Oroipena

Sarrera-ant. Jaunaren Espiritua nire gainean dago, berak gantzutu nau-eta, behartsuei Barri Ona emotera bialdu nau, bihotz-hausiak osatzera.
Ik. Lk 4, 18

Otoitza Oi Jainko,
apostolu-dohaiak emon zeuntsazan
Bizente Paul presbitero santuari
behartsuei laguntzeko eta eleiz gizonak prestatzeko;
emoiguzu, haren espiritu berak suturik,
harek maitatua maitatu daigula eta harek irakatsia bete.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa Bizente Paul santuari
ospatzen ebazan zerutar misterioen erara bizitzea
emon zeuntsan Jainkoa,
egizu, sakrifizio honen indarrak egin gaizala geu ere
Zuretzat eskeintza atsegingarri.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Jaunartze-ant. Goratu begie Jauna agertu dauan maitasunagaitik, gizakien alde egin dituan gauza harrigarriakaitik! Asetu ebazan egarri ziranak, ondasunez bete gose ziranak.
Sal 107 [106], 8-9

Jaunartze ondorengoa Behartsuak ebanjelizatu ebazan zure Semea
imitatzera eragiten deusku Bizente santuaren ejenpluak;
zure sakramentu honek indarbarriturik,
apalik otoitz egiten deutsugu, Jauna,
lagundu deigula santu honen zaindaritzak.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Irailaren 28an

San Wentzeslao, martiria

Martirien (bakarrarentzat, 953. or.) Betikotik.

Otoitza

Oi Jainko,
zeruko erreinua lurrekoa baino maiteago izaten
irakatsi zeuntsan Wentzeslao martiri santuari;
emoiguzu, haren otoitzari esker, geure buruari uko egitea,
Zuri bihotz guztiaz jarraitzeko.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

San Lorentzo Ruiz eta lagunak, martiriak

Martirien (martiri batzurentzat, 947. or.) Betikotik.

Otoitza

Jainko gure Jauna,
zure erreinuan zorioneko dira
mundu honetan zuzenagaitik erasoa jasaten dabenak;
emoiguzu, Lorentzo Ruizek eta lagun martiri santuek
zure eta lagun hurkoaren zerbitzuan izan eben iraupen bera.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Irailaren 29an

GOIAINGERU SANTUAK: MIKEL, GABRIEL ETA RAFAEL

Jaia

Sarrera-ant. Bedeinkatu egizue Jauna, haren aingeruok, entzun baizen laster haren esana egiten dozuen izaki indartsuok. Sal 103 [102], 20

Aintza zeruetan esango da.

Otoitza Oi Jainko,
zeure jakituria miragarrian
euren eginkizuna ezarri deutsezu,
bai aingeruei, bai gizon-emakumeei;
egizu, onez, zeruan beti zeure zerbitzari dozuzanak
lurrean geure biziaren zaintzaile izan daiguzala.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa Oparigaiak aurkezten deutsuguz, Jauna, Zu goresteko,
eta apalik eskatzen,
aingeruek zure aintzaren aurrera eroanik,
onartu daizuzala bihotz onez
eta egin daiguzala guretzat sakramentu salbagarri.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Prefazioa JAINKOAREN AINTZA AINGERUENGAN

℣. Jauna zuekin.
℟. Eta zure espirituarekin.

℣. Gora bihotzak.
℟. Jaunagan daukaguz.

℣. Eskerrak Jaungoiko gure Jaunari.
℟. Egoki da eta zuzen.

Egoki da, bai, eta zuzen,
bidezko eta salbagarri,
nonahi eta beti guk Zuri eskerrak emotea,
Jauna, Aita guztiz santu,
Jainko ahalguztidun betiko horri.

Eta zure handitasuna gorestea,
Aingeruak eta goiaingeruak ospatzean.
Horreei emoten deutsegun ospeak
Zeu goresten zaitu, Jauna,
eta horreei autortzen deutsegun edertasunak
erakusten deusku Zu neurribakoa zarala
eta izaki guztiak baino goragokoa,
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Honen bitartez dau aingeruen taldeak
zure santutasuna goresten
eta, eurekin batean, geuk ere pozik adoratzen zaitugu
bihotz batez [esanez] kantari:

Santu, Santu, Santua,
diran guztien Jainko Jauna.
Zeru-lurrak beterik daukaz zure distirak.
Hosanna zeru-goienetan!
Bedeinkatua Jaunaren izenean datorrena.
Hosanna zeru-goienetan!




Egoki da, bai, eta zuzen, bidezko eta sal-ba-ga-rri, no-na-hi eta
beti guk Zuri eskerrak e-mo-te-a, Jauna, Aita guz-tiz san-tu,
Jainko ahalguzti - dun be-ti - ko ho-rri. Eta zu - re handitasuna
gorestea, aingeruak eta goiaingeruak os-pa-tze-an. Ho-rre-ei emoten
deutsegun ospeak Zeu goresten zai-tu, Jau-na, eta horre-ei autortzen
deutsegun edertasunak erakusten deusku Zu neurribakoa za-ra-la
eta izaki guztiak baino gorago-ko - a, Jesu Kristo gure Jau-na-
ren bi - tar - tez. Honen bitar - tez dau aingeruen tal - de - ak
zure santutasuna go-res-ten eta, eurekin batean geuk ere pozik
adoratzen zai-tu-gu bi-hotz ba - tez kan-ta - ri:

Jaunartze-ant. Eskerrak emoten deutsudaz, Jauna, bihotz-bihotzez, kantuz goratzen zaitut aingeruen aurrean. Sal 138 [137], 1

Jaunartze ondorengoa

Hartu dogun zerutar ogiaz indarbarriturik, Jauna,
apalik eskatzen deutsugu:
zure aingeruak zaindari doguzala,
egin daigula kementsu aurrera salbazino-bidean.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Irailaren 30ean

San Jeronimo, presbiteroa eta eleiz irakaslea

Oroipena

Sarrera-ant. Zorionekoa Jaunaren legea gau eta egun hausnartzen dauana; emoten dau bere sasoian frutua. Ik. Sal 1, 2.3

Otoitza

Oi Jainko,
Liburu Santuakanako maitasun gozoa eta bizia
emon zeuntsan Jeronimo presbitero santuari;
egizu, zure herriak izan dagiala gero eta gehiago
zure hitza janari,
eta aurkitu dagiala hitz horretan biziaren iturria.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa

Egizu, Jauna, Jeronimo santua eredu dogula,
zure hitza hausnartu ondoren,
gero eta gogo biziagoz prestatu gaitezala
Zuri opari salbagarria eskeintzeko.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Jaunartze-ant. Jainko Jauna, zure hitzak nigana heltzean, iruntsi egiten nituan; horreexek nebazan neure poza, neure bihotzeko gozamena. Ik. Jr 15, 16

Jaunartze ondorengoa

San Jeronimo egunean hartu dogun janari santuak
biztu dagiala, Jauna, zure fededunen bihotza,
irakaspen santuei arreta eskeiniz,
zer egin ulertu dagien
eta, ha eginez, betiko bizia eskuratu.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

URRIA

Urriaren 1ean

Santa Teresa Jesus Umearena, birjina eta eleiz irakaslea

Oroipena

Sarrera-ant. Jaunak inguratu eta bere ardurapean hartu eban, eta begi-ninia lez zaindu; arranoak lez, hegoak zabaldu eta luma gainean eroan eban, Jaunak bakarrik eroan eban. Ik. Dt 32, 10-12

Otoitza

Oi Jainko,
txikiei eta apalei zabaltzen deutsezu Zuk erreinua;
emoiguzu Teresa Jesus Umearena santuaren bideetan ibiltzea,
haren otoitzari esker,
betiko zure aintza agertu dakigun.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa

Teresa Jesus Umearena santuagan miresgarri agertu zarala autortzen dogu, Jauna;
Zuri, Jainko handi horri, arren, eskatzen deutsugu,
haren merezimentuak atsegingarri izan zenduzan lez,
izan daizula onargarri zure zerbitzarion eskeintza hau ere.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Jaunartze-ant. Hauxe dino Jaunak: Umeen antzeko bihurtzen ez bazarie, ez zarie sartuko zeruetako erreinuan. Mt 18, 3

Jaunartze ondorengoa

Hartu dogun sakramentuak, Jauna,
biztu dagiala gugan maitasunaren garra:
maitasun horrek eroan eban-eta
Teresa Jesus Umearena santua
guztiz zeurea izatera eta zure errukia danentzat eskatzera.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Urriaren 2an **Aingeru Zaindari santuak**

Oroipena

Sarrera-ant. Jaunaren aingeruok, bedeinkatu egizue Jauna, ospatu eta goretsi gizaldien gizaldietan. Dn 3, 58

Otoitza

Oi Jainko,
zeure ardura miragarriaz
aingeru santuak bialdu deuskuzuz gu zaintzeko;
apalik eskatzen deutsugu,
izan daigula aldi oro euren babesa
eta poztu gaitezala eurekin zeruan.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa

Onartu, Jauna,
aingeru santuen omenez egiten deutsugun eskeintza;
egizu, onez, izan daiguzala beti geure ondoan,
oraingo arriskuetatik atara
eta betiko bizitzara heldu gaitezan.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Prefazioa: Aingeruena, 526. or.

Jaunartze-ant. Kantuz goratzen zaitut aingeruen aurrean, ene Jainko. Ik. Sal 138 [137], 1

Jaunartze ondorengoa

Zerutar sakramentuaz janaritu gaituzu, Jauna,
betiko bizitzarako;
arren, eskatzen deutsugu,
gidatu gaizuzala, aingeruen laguntzaz,
salbazinoaren eta bakearen bidean.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Urriaren 3an **San Frantzisko Borja, presbiteroa**

Eleiz artzainen (bakarrarentzat, 972. or.) nahiz santuen (erlijiosoentzat, 999. or.) Betikotik.

Otoitza Jainko gure Jauna,
lurreko gauzen balioa
zeure legeari begituz neurtzeko agintzen deuskuzu;
egizu, San Frantzisko Borja
zure zerbitzari leial eta zintzoaren eguna ospatzean
ikasi daigula ez dagoala lurrean
zure zerbitzuan emondako bizitzak
dakarren poza lakorik.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Urriaren 4an **Asisko San Frantzisko**

Oroipena

Sarrera-ant. Frantziskok, Jainkoaren gizonak, bere etxea itzi eta etxeparteari uko egin eutson, eta pobre eta behartsu egin zan; baina Jaunak beretzat hartu eban.

Otoitza Oi Jainko,
Kristoren antz-antzeko egin zenduan
Asisko Frantzisko santua,
bizitza umilaren eta behartsuaren bidez;
egizu, ibili gaitezala haren bide beretik,
zure Semeari jarraitzeko
eta maitasun pozgarriz Zeugaz bat egiteko.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa

Gure emoitzak ekartzean, Jauna,
Zeuri otoitz egiten deutsugu:
prestatu gaizuz Asisko Frantzisko santuak hain maite eban kurutzeko misterioa egoki ospatzeko.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Jaunartze-ant.

Zorionekoak gogoz behartsu diranak, eurena dabe-eta Jainkoaren erreinua. Mt 5, 3

Jaunartze ondorengoa

Hartu dogun sakramentuaren bidez, Jauna,
emoiguzu Asisko Frantzisko santuaren maitasuna
eta apostolu-garra imitatzeko grazia;
sentidu daiguzala zure maitasunaren ondorioak
eta balia daiguzala gizon-emakume guztien salbazinorako.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Urriaren 5ean

ESKARI ETA ESKER ONEZKO OTOITZ EGUNAK

Udako oporraldia eta uzta-batzea amaitu ondoren, eta urteroko langintzari hasiera emotekoan, kristau-alkarteak Eskari eta esker onezko otoitz-egunak ospatzen ditu. Gitxienean, urriaren 5ean egingo da ospakizun hori (edo 6an, 5a domekaz izaten danean); baina, ahal dala, gauza egokia izango litzateke, ospakizun honeek aste honetako beste egun bitan be egitea.

Otoitz-egun bakarra ospatuko danerako Meza

Otoitz-egun bakarra ospatuko danean, hiru egunetarako emoten diran meza-gai guztietatik egokienak aukeratuko dira; gogoan izanik, beti be, hiru gai erabiltzen dirala: eskerrak emotea, eskariak egitea eta bihotz-barritzea. Eta, batez be, honeek aukeratu leitekez:

Sarrera-ant.

Kantatu eta egin gorazarre Jaunari bihotz-bihotzez, gauza guztiakaitik Jainko Aitari eten barik eskerrak emonez, Jesu Kristo gure Jaunaren izenean. Ef 5, 19-20

Otoitza

Jainko Jauna, Aita maitatia,
Israelgo gure gurasoei lur ona eta aberatsa emon zeuntsen,
han atsedena eta erosotasuna izan egien;
eta guri ere maitasunez, ahalmena emon deuskuzu
izadia lantzeko
eta haretatik geure aurrerapena eta zer jana ataratzeko;
eskerrak emoten deutsuguz
zure egintza harrigarri guztiakaitik,
eta apalik eskatzen deutsugu argi egin deiguzula,
ikasi daigun, Zeuk emoten deuskuzula,
eta ez gure besoen indar hutsak,
lurretik aberastasunak sortzeko ahalmena.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa

Zeuk emondako dohaiak eskertzeko
eskeintzen deutsugu, Jauna, gorespen-opari hau,
eta ahuspez eskatzen:
guk merezidu barik emon deuskuzuna
zure izena goresteko erabili daigula.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Prefazioa: asteguneta ko IV.a da egokiena, 546. or.

Jaunartze-ant.

Zeure ondasunez burutzen dozu urtea, Jauna, eta munduko bazter guztien itxaropide zara. Ik. Sal 65 [64], 12.6

Jaunartze ondorengoa

Batasunaren eta maitasunaren mahaian
parte emon deuskuzu, Jauna;
emoiguzu zeure indarra,
geure ahaleginez, mundu hau eraikitzen
eta zure erreinua etorriazoten lan egin daigun.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Hiru otoitz-egun ospatuko diranerako Mezak

Esker onezko eguna

Sarrera-ant. Kantatu eta egin gorazarre Jaunari bihotz-bihotzez, gauza guztiakaitik Jainko Aitari eten barik eskerrak emonez, Jesu Kristo gure Jaunaren izenean. Ef 5, 19-20

Otoitza

Jainko Jauna, Aita maitatia,
Israelgo gure gurasoei lur ona eta aberatsa emon zeuntsen,
han atsedena eta erosotasuna izan egien;
eta guri ere maitasunez ahalmena emon deuskuzu
izadia lantzeko
eta haretatik geure aurrerapena eta zer jana ataratzeko;
eskerrak emoten deutsuguz
zure egintza harrigarri guztiakaitik,
eta apalik eskatzen deutsugu argi egin deiguzula,
ikasi daigun, Zeuk emoten deuskuzula,
eta ez gure besoen indar hutsak,
lurretik aberastasunak sortzeko ahalmena.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa

Zeuk emondako dohaiak eskertzeko
eskeintzen deutsugu, Jauna, gorespen-opari hau,
eta ahuspez eskatzen:
guk merezidu barik emon deuskuzuna
zure izena goresteko erabili daigula.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Prefazioa: astegunetako IV.a da egokiena, 546. or.

Jaunartze-ant. Eskerrak emoten deutsudaz, Jauna, bihotz-bihotzez, dei egin neutsunean erantzun zeunstalako. Ik. Sal 138 [137], 1.3

Jaunartze ondorengoa

Zure Semearen sakramentu izateko
eskerrak emonez eskeini deutsuguzan ogi-ardaoak
Zuk goiko janari bihurturik emon deuskuzuz barriro;
egizu, Jauna, eukaristi dohai horrek bizkorturik,
zintzoago zerbidu zaiguzala egunetik egunera
eta gainerako dohaiak ere Zugandik lortu daiguzala.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Esker onezko egunerako beste Meza bat

Sarrera-ant. Poztu beitez kantari nazinoak, Jauna, zuzentasunez dituzu-eta gobernatzen herriak eta gidatzen munduan nazinoak. Sal 67 [66], 5

Otoitza

Aita on-ona, maitasunez eta jakituriaz
gizakiaren esku itzi zenduan lurra,
ha landuz beretzat janaria izan egian
eta zure handitasunaren
eta gizakiaganako arduraren aztarrenak aurkitu egizan;
eskerrak emoten deutsuguz
Zugandik hartu ditugun gauza on guztiakaitik;
egizu, jakin daigula zure dohai horreek
Zeu goratzeko eta geure senideen onerako erabiltzen.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa

Onartu, Jauna, esker onezko eskeintza hau,
zure ontasunak emonik
orain arte hartu doguzan dohaiakaitik;
agertu eiguzu, aurrerantzean ere,
zeure babespean zaindu gaituzunoi aita-maitasuna,
holan beti handiagoa izan dadin Zuganako gure maitasuna
eta zintzoago izan gaitezan zure zerbitzuan.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Prefazioa: astegunetako IV.a da egokiena, 546. or.

Jaunartze-ant. Lurrak bere uzta emon dau, Jainkoak, gure Jainkoak, bedeinkatzen gaitu. Sal 67 [66], 7

Jaunartze ondorengoa

Zeruko Aita, on guztien iturria,
inoiz ez deutsezu huts egiten Zugan itxaroten dabenei,
eta beti betetzen dozu eske jatortzuzanen gogoa;
eskerrak emoten deutsuguz,
zeure seme-alabak ondasunez bete dozuzalako,
eta eskatzen deutsugu, atara gaizuzala,
orain ospatu dogun Eukaristia honen bidez, gatx guztietatik.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Penitentzia eguna

Penitentzia egun hau, ahal dala, urriaren 5aren ondorengo barikuan ospatuko da, edo, urriaren 5a barikuz izaten bada, urriaren 6an nahiz hurrengo asteko edozein egunetan.

Oso ondo legoke egun honetan, pekatuen parkamenerako Mezaz gainera, Penitentziako sakramentuaren alkarteko ospakizuna egitea; ez, ostera, Eukaristiaren barruan.

Sarrera-ant. Izaki guztiez dozu errukia, eta ez dozu Zeuk egindako ezer gitxiesten; gizakien pekatuei ezikusiarena egiten deutsezu, bihotz-barritu daitezan. Bihozbera zara Zu izaki guztiekin, zeureak dira-eta, bizidunak maite dituzun Jaun horrenak. Jkd 11, 23-24.26

Otoitza

Pekatari gara, Jauna,
eta autortzen deutsuguz geure pekatuak;
erruki zakiguz eta emoiguzu ugari zeure bakea.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa

Gorespen-opari hau eskeintzen deutsugu, Jauna,
errukiturik, pekatuak parkatu deuskuzuzalako;
lagundu eiguzu eta babestu, ahula da-eta gure izatea
eta Zeu barik ezin dogu-eta ezer egin.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Eukaristi Otoitza, Adiskidetzeari buruzko I.a nahiz II.a erabili leiteke bere prefazioagaz (ik. 675-687. or.).

Jaunartze-ant. Hara Nik esan: Bardin pozten da Jainkoa bere aingeruekin bihotz-barritzen dan pekatari batengaitik. Lk 15, 10

Jaunartze ondorengoa

Jainko errukitsua,
jaunartze honetan pekatuen parkamena lorturik,
eskatzen deutsugu: aurrerantzean, zure graziari esker,
ihes egin daigula pekatutik
eta zerbidu zaiguzala Zu bihotz zintzoz.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Giza lanaren aldeko eskari-eguna

Sarrera-ant. Sendotu begi Jaunak gure eskuen lana, poztu gaitezan eta zoriontsu izan geure egun guztietan. Sal 90 [89], 17.14

Otoitza

Gizakiaren ikerketaren eta lanaren bidez
Zeuk egindako mundu hau
egunez egun moldatzen eta edertzen diharduzun Jainkoa;
entzun gure otoitza, eta egizu,
gure ahalegina eta lana onuragarri izan dadila beti
giza familiarentzat
eta munduagazko zure asmoak betetzeko izan daitezala.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa

Jauna,
aurkezten deutsuguzan ogi-ardao honeen bidez
janaritzen dozu gure bizia lurrean
eta barriztatzen gure betiko bizia;
emoiguzu beti bizibide dogun ogi hau
eta betiko biziaren iturri dan sakramentu hau.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Jaunartze-ant. Eskatu, eta emongo deutsue Jainkoak; bilatu, eta aurkituko dozue; jo atea, eta zabalduko deutsue, dino Jaunak. Mt 7, 7

Jaunartze ondorengoa Betiko biziaren sakramentuaz sendotu gaituzunoi
lagundu eiguzu, Jauna, zeure graziaz
lur honetako eginkizunetan ere.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Eskari-egunerako beste Meza bat

Sarrera-ant. Jaunak ez badau eraikitzen etxea, alperrik dihardue etxegileek; Jaunak ez badau zaintzen uria, alperrik dago zuhur urizaina. Sal 127 [126], 1

Otoitza Jainko ahalguztidun betikoa, Zugana eske doazanei
eurek merezi eta itxaroten daben baino gehiago
emoten deutsezu zeure maitasun neurribakoan;
bete egizuz gure bihotzaren nahiak
eta emoiguzuz zeure maiteentzat prestatuta daukazuzan
eta guri bururatu ere ezin jakuzan ondasunak.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa Gaur aurkezten deutsugun eskeintza honen bidez, Jauna,
egizuz, arren, santu
esku artean doguzan egitasmoak eta lanak.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Jaunartze-ant. Zeure ondasunez burutzen dozu urtea, Jauna, eta munduko bazter guztien itxaropide zara. Ik. Sal 65 [64], 12.6

Jaunartze ondorengoa Zure Semearen sakramentu izateko
eskerrak emonez eskeini deutsuguzan ogi-ardaoak
Zuk goiko janari eginik bihurtu deuskuzuz;
egizu, Jauna, eukaristi dohai horrek bizkorturik,
zintzoago zerbidu zaiguzala egunetik egunera
eta gainerako dohaiak ere Zeugandik lortu daiguzala.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Urriaren 6an **San Bruno, presbiteroa**

Santuen (lekaidearentzat, 996. or.) nahiz eleiz artzainen (bakarrarentzat, 972. or.) Betikotik.

Otoitza

Oi Jainko,
Bruno santuari
bakartadean zure zerbitzari izateko dei egin zeuntsan;
egizu, haren otoitzari esker,
mundu honetako gorabeheren artean
izan zaiguzala beti Zeu gogoan.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Urriaren 7an **Errosarioko Maria Birjina dohatsua**

Oroipena

Sarrera-ant.

Poztu zaitez, Maria, graziaz bete hori! Jauna zurekin; bedeinkatua zu emakumeen artean, eta bedeinkatua zure sabeleko frutua.
Lk 1, 28.42

Otoitza

Isuri egizu, Jauna, gure bihotzetan zeure grazia,
eta egizu, aingeruak esanik
zure Seme Jesu Kristo gizon egin dala jakin dogunok,
Maria Birjina dohatsuaren otoitzari esker
eta haren nekaldiaren eta kurutzearen bidez,
heldu gaitezala biztueraren ospera.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa

Egin gaizuz, Jauna, opari hau egoki eskeintzeko gai;
eta, zure Seme bakarraren misterioak ospatuz,
lortu daiguzala haren agintzariak.
Errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Prefazioa: Maria Birjina dohatsuaren I.a, jaia ospatzen dogun, 520. or., nahiz II-V.a, 522-525. or.

Jaunartze-ant. Begira, sabelean sortu eta semea izango dozu eta Jesus ipiniko deutsazu izena. Lk 1, 31

Jaunartze ondorengoa

Jainko gure Jauna,
zure Semearen heriotza eta biztuera
iragartzen doguz sakramentu honetan;
egizu, haren oinazeetan lagun izanik,
haren kontsolamentuan eta aintzan ere parte izan daigula.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Urriaren 9an

Dionisio, gotzaina, eta lagunak, martiriak

Martirien (martiri batzurentzat, 947. or.) Betikotik.

Otoitza

Oi Jainko,
jentilei zure aintza predikatzera bialdu zenduzan
Dionisio santua eta lagunak, martiriak, eta euren oinazeetan
zeure indarrez eta iraupenez bete zenduzan;
egizu, eurak eredu doguzala,
mundu honetako ondasun engainagarriak
gitxietsi daiguzala
eta ez gaitezala munduko ezbeharren bildur izan.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

San Joan Leonardi, presbiteroa

Eleiz artzainen (misinolarientzat, 977. or.) nahiz santuen (erruki-egintzak bete ebezanentzat, 1001. or.) Betikotik.

Otoitza Oi Jainko, on guztien emoilea,
Ebanjelioa helduazo zeuntsen herriei
Joan Leonardi presbitero santuaren bidez;
egizu, haren otoitzari esker,
zabaldu dadila egiazko fedea nonahi eta beti.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Urriaren 10ean

Villanuevako San Tomas, gotzaina

Eleiz artzainen (gotzainarentzat, 968. or.) Betikotik.

Otoitza Oi Jainko,
zeure Eleizako artzain santuen arteko
egin nahi izan zenduan Villanuevako San Tomas, gotzaina,
eta bere irakaspen eta maitasunagaitik ospetsua;
egizu, haren otoitzari esker,
izan gaitezala beti zure familia santuko kide.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa Villanuevako San Tomasen oroipen-egunean
ekarri deutsuguzan emoitza honeek emon deiguezala, Jauna,
jakintzaz argitutako bizitza eta bizitzaz aberastutako jakintza.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Jaunartze ondorengoa Jainko gure Jauna, hartu doguzan sakramentu honeek
emon deiguela maitasun-espiritua,
horrek eragin eutson-eta Villanuevako San Tomasi
bere bizitza guztian zeure Eleizearen alde lan egitera.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Urriaren 11n

Santa Maria Soledad Torres Acosta, birjina

Birjinen (bakarrarentzat, 985. or.) Betikotik.

Otoitza Jauna, gaixoak ikustera joanez eta hareei lagunduz,
bihotz zabaleko zure zerbitzari izatea emon zeuntsan
Maria Soledad birjina santuari;
emoiguzu zeure argia eta grazia,
nekeetan dagozan geure senideengan Zeu ikusiz
bat izan gaitezan Zurekin zeruan.
Aitarekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi zara-eta gizaldi eta gizaldietan.

San Joan XXIII.a, aita santua

Eleiz artzainen (aita santuarentzat, 965. or.) Betikotik.

Otoitza Jainko ahalguztidun betikoa,
Joan aita santuaren bidez,
mundu guztira zabaldu gura izan dozu
Kristo artzain onaren irudi bizia;
egizu, haren otoitzari esker,
alaitasunez zabaldu daigula
kristau-maitasunaren betea.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Urriaren 12an

Pilareko Maria Birjina dohatsua

Jaia

Sarrera-ant. Basamortuan herria gau eta egun gidatzen eta adoretzen eban habea lez zagoz zu gure artean. Ik. Jkd 18, 3; Ir 13, 21-22

Aintza zeruetan esango da.

Otoitza

Jainko ahalguztidun betikoa,
aspalditik deitzen deutsoe zure Semearen Amari
Pilareko Ama Maria
eta Zuk zeure babespean hartzen dituzu
holan deitzen deutsoenak;
egizu, haren laguntzari esker,
izan gaitezala sinismenean sendo,
itxaropenean uste handiko eta maitasunean iraunkor.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa

Jainko ahalguztidun betikoa,
fedearen argiz argitu gaituzu;
begitu begi onez gure emoitzei
eta entzun, bihotz onez, gure otoitzak,
Pilareko Ama Mariaren laguntzari esker,
sinismenean sendo iraun daigun
eta maitasunean bihotz zabaleko izan gaitezan.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Prefazioa

Maria Birjinaren aintza

℣. Jauna zuekin.
℟. Eta zure espirituarekin.

℣. Gora bihotzak.
℟. Jaunagan daukaguz.

℣. Eskerrak Jaungoiko gure Jaunari.
℟. Egoki da eta zuzen.

Egoki da, bai, eta zuzen,
bidezko eta salbagarri,
nonahi eta beti guk Zuri eskerrak emotea,
Jauna, Aita guztiz santu,
Jainko ahalguztidun betiko horri,
zure Semearen Ama Birjinagan
egindako harrigarri guztiakaitik.

Izan ere, Kristoren Ama Maria,
pekatu barik sortua, ez zan hilobian usteldu;
birjintasunean beti santua izan zan, Semeagan aintzatsua,
jasokundean garailea;
beragandik jaio zan Kristo,
Eleizearen senarra, herri guztien argia, fededunen itxaropena
eta gure herri osoaren poza.

Horregaitik, Pilareko Ama Mariaren festaburu hau ospatzean,
aingeru eta goiaingeruekin
eta zeruko talde guztiekin,
zure aintzari gorazarre hau
beti eta beti [esaten] abesten deutsagu:

Santu, Santu, Santua...

Jaunartze-ant. Dohatsu deituko nabe gaurdanik gizaldi guztiek, handiak egin deustaz-eta Ahalguztidunak. Lk 1, 48-49

Jaunartze ondorengoa

Oi Jainko,
hainbeste eratan egon nahi izan dozu gure artean;
horregaitik, eskerrak emoten deutsuguz
hartu dogun Eukaristiagaitik,
eta apalik eskatzen,
Pilareko Ama Mariaren otoitzari esker,
heldu gaitezala Zu zeruan beti ikustera.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Bedeinkazino nagusia erabili leiteke, 652. or., 21. zk.

Urriaren 14an

San Kalisto I.a, aita santua eta martiria

Martirien (bakarrarentzat, 953. or.) nahiz eleiz artzainen (aita santuarentzat, 965. or.) Betikotik.

Otoitza Oi Jainko,
Kalisto aita santuari Eleizearen zerbitzari izatera
eta hildako kristauei otoitzaren bidez laguntzera
eragin zeuntsan;
egizu, arren, haren martiritzako fede-autorpenak
indartu gaizala,
ustelkeriaren morrontzatik askaturik,
usteldu ezinezko ondarea eskuratu daigun.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Urriaren 15ean

Santa Teresa Jesusena, birjina eta eleiz irakaslea

Jaia

Sarrera-ant. Basahuntza gogo biziz uretara lez, halantxe nire gogoa, ene Jainko, Zugana; Jainkoaren egarri naz, Jainko biziaren egarri.
Sal 42 [41], 2-3

Aintza zeruetan esango da.

Otoitza Oi Jainko,
zeure Espirituaren bidez argitu zenduan
Teresa Jesusena santua,
Eleizeari santutasun beterako bidea irakasteko;
egizu, izan daigula haren irakaspena beti janari
eta biztu dagiala gugan benetan santu izateko gogoa.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa Izan beitez zure gogoko, Jauna, gure emoitzak,
Teresa Jesusena santuak fede handiz egin eutsun eskeintza
hain gogoko izan jatzun lez.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Prefazioa: Birjina santuena, 540. or.

Jaunartze-ant. Jauna, zure maitasun-egintzak kantatuko ditut beti, zure leialtasuna iragarriko gizaldiz gizaldi. Sal 89 [88], 2

Jaunartze ondorengoa

Jauna, gure Jainkoa,
zeruko ogiaz janaritu dozu zeure familia hau;
egizu, Teresa Jesusena santuak lez,
izan dagiala zure maitasuna betiren beti abesteko poza.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Bedeinkazino nagusia erabili leiteke, 654. or., 25. zk.

Urriaren 16an

Santa Eduvigis, erlijiosa

Santuen (erlijiosentzat, 999. or. nahiz emakume santuentzat, 1004. or.) Betikotik.

Otoitza

Jainko ahalguztiduna,
apaltasunean eredu izan zan guztientzat
Eduvigis santuaren bizitza;
emoiguzu, haren otoitz beneragarriari esker, zerutar laguntza.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Santa Margarita Maria Alacoque, birjina

Birjinen (bakarrarentzat, 985. or.) Betikotik.

Otoitza

Isuri egizu gure bihotzean, Jauna,
Margarita Maria santuari oparo emon zeuntsan espiritua,
holan ezagutu daigun
jakintza guztien gainetik dagoan Kristoren maitasuna
eta zure izatearen betetasun guztiaz bete gaitezan.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Urriaren 17an

Antiokiako San Ignazio, gotzaina eta martiria

Oroipena

Sarrera-ant. Kristorekin kurutzeraturik nago, eta honezkero ez naz neu bizi, Kristo bizi da nigan. Eta bere bizia nire alde emoteraino maitatu ninduan Jainkoaren Semeaganako sinismenean oinarriturik bizi dot neure giza bizitza. Ga 2, 19-20

Otoitza Jainko ahalguztidun betikoa,
martiri santuen autormenaz
Kristoren gorputza dan zeure Eleizea edertzen dozu;
egizu, gaur ospatzen dogun martiritzaren aintzak
Antiokiako Ignazio santuari betiko ospea emon eutson lez,
ekarri deigula guri betiko babesa.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa Atsegin bekizu, Jauna, zeure zerbitzarion oparia,
begi onez hartu zenduan-eta Zuk Antiokiako Ignazio santua,
Kristoren gari egina eta martiritzan ogi garbi bihurtua.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Jaunartze-ant. Kristoren gari naz; basapiztien haginek eihoko nabe, ogi garbi izan nadin.

Jaunartze ondorengoa Antiokiako Ignazio santuaren egunean
hartu dogun zerutar ogiak janaritu gaizala, Jauna,
eta emon deigula hitzez eta egitez kristau izatea.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Urriaren 18an

San Lukas, ebanjelaria

Jaia

Sarrera-ant. Bai ederrak dirala mendi gainetan albistariaren oinak! Bakea aldarrikatzen dau, zorionaren barri ona emoten eta salbazinoa iragartzen. Is 52, 7

Aintza zeruetan esango da.

Otoitza

Jainko Jauna,
behartsuenganako dozun maitasuna
bere predikuaz eta idatziez adierazoteko
aukeratu zenduan Lukas santua;
egizu, Kristoren izena pozez autortzen dabenek
jarraitu dagiela gogoz eta bihotzez bat izaten
eta ikusi dagiela herrialde guztiek zure salbazinoa.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa

Emoiguzu, Jauna, zerutar dohai honeen bidez
Zeu bihotz zabalez zerbitzea,
Lukas santuaren jaia ospatzeko
dakartsugun eskeintza hau
osabide izan dakigun eta salbazino.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Prefazioa: Apostoluen II.a, 530. or.

Jaunartze-ant. Jaunak ikasleak bialdu zituan herrietan iragartzera: Hurrean dozue Jainkoaren erreinua. Ik. Lk 10, 1.9

Jaunartze ondorengoa

Jainko ahalguztiduna,
zure altaratik hartu dogun sakramentuak
santu egin gaizala eta indartu
San Lukasek predikatu eban Ebanjelioaren fedean.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Bedeinkapen nagusia erabili daiteke, 653. or., 23. zk.

Urriaren 19an

Alcantarako San Pedro, presbiteroa

Eleiz artzainen (bakarrarentzat, 972. or.) nahiz santuen (erlijiosoentzat, 999. or.) Betikotik.

Otoitza Jainko gure Jauna,
Alcantarako Pedro santua ospetsu egin zenduan,
bai bere penitentzia miragarriaz,
bai goren-goreneko bere ikuskariez;
egizu, haren merezimentuei esker,
geure buruari bizitzan gogor eginez,
errazago jadetsi daiguzala zeruko ondasunak.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Joan Brebeuf eta Isaak Joges, presbiteroak, eta lagunak, santuak, martiriak

Martirien (misinolari martirientzat, 959. or.) Betikotik.

Otoitza Oi Jainko,
Joan, Isaak eta euren lagun santuen bizitzaz
eta hareek isuritako odolez adierazo nahi izan dozu
betiko erreinuaren itxaropen zoriontsua;
egizu, zeure bihotz onez, euren otoitzari esker,
sendotu dadila egunetik egunera kristauen fedea.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Kurutzeko San Paulo, presbiteroa

Sarrera-ant. Zuen artean ez neban ezer jakin nahi izan, Jesu Kristo, eta berau kurutzeratua, izan ezik. 1 Ko 2, 2

Otoitza Jauna, Kurutzeko Paulo presbitero santuak
Kristoren kurutzea izan eban bere maitasun bakarra;
lortu deigula berak grazia,
haren ejenpluak biziro eraginik,
kementsu besarkatu daigun geure kurutzea.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa Jainko ahalguztiduna,
onartu Kurutzeko san Pauloren oroitzapenean
egiten deutsugun eskeintza;
eta egizu, Jaunaren nekaldiko misterioak ospatzen doguzanok
sakramentuz egina bete daigula bizitzan.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Jaunartze-ant. Guk Kristo kurutzeratua predikatzen dogu, Jainkoaren indarra eta Jainkoaren jakituria dan Kristo. Ik. 1 Ko 1, 23.24

Jaunartze ondorengoa Oi Jainko, Kurutzeko Paulo santuagan
harrigarriro agertu zenduan kurutzeko misterioa;
egizu, bihotz onez, sakrifizio honek indarturik,
iraun daigula sendo Kristori lotuta
eta lan egin daigula Eleizan guztien salbazinorako.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Urriaren 22an

San Joan Paulo II.a, aita santua

Eleiz artzainen (aita santuarentzat, 965. or.) Betikotik.

Otoitza Oi Jainko, errukiz aberatsa zarana.
Zeuk egin dozu Joan Paulo aita santua,
Eleiza osoaren gidari;
egizu, haren irakaspenen argira,
zabaldu daigula uste osoz geure bihotza
gizakiaren askatzaile bakarra dan
Kristo salbatzailearen graziara.

Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Urriaren 23an

Capistranoko San Joan, presbiteroa

Eleiz artzainen (misinolarientzat, 977. or.) nahiz santuen (erlijiosoentzat, 999. or.) Betikotik.

Otoitza

Bere estualdietan sendotzeko,
zeure herri fededunari
Capistranoko Joan santua
laguntzaile emon zeuntsan Jainkoa,
apalik eskatzen deutsugu,
ezarri gaizuzala zeure babesaren kerizpean
eta zaindu daizula Eleizea bake iraunkorrean.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Urriaren 24an

San Antonio Maria Claret, gotzaina

Eleiz artzainen (misinolarientzat, 977. or. nahiz gotzainarentzat, 968. or.) Betikotik.

Otoitza

Oi Jainko,
maitasun eta kemen harrigarria emon zeuntsan
Antonio Maria Claret gotzain santuari,
herriak Ebanjelioaren argira erakartzeko;
egizu, haren otoitzari esker, zure gogoko dana bilatuz,
ahalegindu gaitezala adoretsu
senide barriak Kristogana batzen.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Urriaren 28an

SIMON ETA JUDAS SANTUAK, APOSTOLUAK

Jaia

Sarrera-ant. Honeexek dira gizon santuak, Jaunak zinezko maitasunez aukeratuak: betiko aintza emon deutse.

Aintza zeruetan esango da.

Otoitza

Apostolu santuen predikuaz
zeure izena ezagutzera erakarri gaituzun Jainkoa,
egizu, bihotz onez,
Simon eta Judas santuen otoitzari esker,
zabaldu dadila eten barik zeure Eleizea
Zugan sinistuko daben herriak ugarituz.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa

Simon eta Judas apostolu santuen
betiko ospea goratzean,
otoitz egiten deutsugu, Jauna:
onartu egizuz gure eskariak
eta prestatu gaizuz misterio santu honeek egoki ospatzeko.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Prefazioa: Apostoluena, 528-530. or.

Jaunartze-ant. Ni maite nauanak gordeko dau nire hitza, dino Jaunak, nire Aitak maite izango dau, eta beragana etorriko gara eta beragan egingo dogu bizilekua. Jn 14, 23

Jaunartze ondorengoa

Zure sakramentua harturik, Jauna,
Espiritu Santuaren eraginez otoitz egiten deutsugu:
Simon eta Judas apostoluen nekaldia ospatzean
eskeini dogun opariak zaindu gaizala zure maitasunean.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Bedeinkazino nagusia erabili leiteke, 653. or., 23. zk.

AZAROA

Azaroaren 1ean

SANTU GUZTIAK

Festaburua

Santu Guztien debozinozko Mezarako, ik. geroago, 1234. or.

Sarrera-ant. Poztu gaitezan danok Jaunagan, Santu Guztien festaburua ospatzean; egun handi honetan pozten dira aingeruak eta Jainkoaren Semea goresten dabe.

Aintza zeruetan esango da.

Otoitza Jainko ahalguztidun betikoa,
Santu Guztien merezimentuak
egun berean ospatzea emoten deuskuzu;
horrenbeste laguntzaile dogun ezkero,
emoiguzu oparo,
eskatzen deutsugun errukia eta parkamena.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Sinisten dot esango da.

Oparigaien gainekoa Atsegin bekizuz, Jauna,
Santu Guztien omenez dakartsuguzan oparigaiak;
eta egizu, Zugan hilezkor autortzen doguzanok
gure salbazinoaz arduratsu sentidu daiguzala.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Prefazioa GURE AMA JERUSALEMEN AINTZA

℣. Jauna zuekin.
℟. Eta zure espirituarekin.

℣. Gora bihotzak.
℟. Jaunagan daukaguz.

℣. Eskerrak Jaungoiko gure Jaunari.
℟. Egoki da eta zuzen.

Egoki da, bai, eta zuzen,
bidezko eta salbagarri,
nonahi eta beti guk Zuri eskerrak emotea,
Jauna, Aita guztiz santu,
Jainko ahalguztidun betiko horri.

Pozez beterik ospatzen dogu gaur zure uri santua,
geure ama dogun zeruko Jerusalem,
han daukaguz orain baturik geure senide zoriontsuak,
beti eta beti Zu goratzen.
Bertara goaz geu ere gogotsu fedearen bidetik erromes,
pozik ikusten doguzala zeruko argi ederrean
Eleizearen seme-alabarik onenak;
eurok doguz aldi berean
laguntza eta eredu geure makaltasunean.

Horregaitik, santu honeekin eta aingeru guztiekin batean,
bihotz batez gorapen hau [esaten] kantatzen deutsugu:

Santu, Santu, Santua,
diran guztien Jainko Jauna.
Zeru-lurrak beterik daukaz zure distirak.
Hosanna zeru-goienetan!
Bedeinkatua Jaunaren izenean datorrena.
Hosanna zeru-goienetan!


℣. Jau-na zu-e-kin. ℟. E-ta zu-re es-pi-ri-tu-a-re-kin.
℣. Go-ra bi-ho-tzak. ℟. Jau-na-gan dau-ka-guz.
℣. Es-ke-rrak Jaun-goi-ko gu-re Jau-na-ri. ℟. E-go-ki da e-ta zu-zen.


Egoki da, bai, eta zuzen, bidezko eta sal-ba-ga-rri, no-na-hi eta
beti guk Zuri eskerrak e-mo-te-a, Jauna, Aita guz-tiz san-tu,
Jainko ahalguzti-dun be-ti-ko ho-rri. Pozez bete-rik
ospatzen dogu gaur zure uri san-tu-a, geure ama dogun zeruko
Je-ru-sa-lem, han doguz orain batuta geure senide zorion-tsu-ak,
beti eta be-ti Zu go-ra-tzen. Bertara go-az geu ere gogotsu
fedearen bidetik e-rro-mes, po-zik ikusten doguzala



Jaunartze-ant. Zorionekoak bihotz-garbi diranak, eurek ikusiko dabe-eta Jainkoa. Zorionekoak bakegileak, Jainkoaren seme-alaba izango dira-eta. Zorionekoak zuzentasunagaitik erasoa jasaten dabenak, eurena dabe-eta Jainkoaren erreinua. Mt 5, 8-10

Jaunartze ondorengoa

Oi Jainko,
Santu Guztien jaiegun honetan,
Zeu autortzen zaitugu harrigarri, Zeu bakarrik santu;
eta zure grazia eskatzen deutsugu,
zeure maitasun beteaz santutasun osora eroan gaizuzan
eta, lurrean erromes goazenon mahai santu honetatik,
zeruan prestatuta daukazun mahai santura igaro gaitezan.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Bedeinkazino nagusia erabili leiteke, 654. or., 24. zk.

Azaroaren 2an

Hildako fededun guztien oroitzapena

Ondorengo Meza honeetatik egokiena iruditzen jakona aukeratu leike batzarburuak.

Egun honetan, abade bakotxak hiru Meza emon leikez, beti be Benedikto XV.ak *Incruentum Altaris Sacrificium* Konstituzino Apostolikoan (1915.08.10): A.A.S. 7 (1915), 401-404. or. erabagitakoak gordez.

Azaroaren 2a domekaz izaten danean, Hildako Fededun Guztien Oroipeneko Meza ospatuko da.

1

Sarrera-ant. Jesus hil eta biztu zan lez, Jesusegaz bat eginik hil diranak ere Jainkoak beragaz hartuko ditu. Adamegaz daben alkartasunagaitik gizaki guztiak hiltzen diran lez, Kristogaz daben alkartasunagaitik danak bihurtuko dira bizira. Ik. 1 Ts 4, 14; 1 Ko 15, 22

Otoitza

Entzun bihotz onez, Jauna, gure eskariak
eta sendotu hilen artetik biztu dan
zure Semeagan dogun fedea,
hildako gure senideak biztuko diran itxaropena ere
gugan sendoagoa izan dadin.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa

Begira, Jauna, begi onez gure eskeintza honi,
hildako fededun guztiak zeruko aintzan onartu daizuzan
bere maitasun-misterioan bat egiten gaituan zure Semeagaz.
Errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Prefazioa: Hildakoena, 552-559. or.

Jaunartze-ant. Neu naz biztuera eta bizia, dino Jaunak; Nigan sinisten dauana, hil arren ere, biziko da, eta bizi dana, Nigan sinisten badau, ez da betiko hilko. Jn 11, 25-26

Jaunartze ondorengoa

Egizu, Jauna, hildako gure senideak
sartu daitezala argi eta bake dan bizilekura,
euren alde ospatu dogu-eta pazko-sakramentua.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Bedeinkazino nagusia erabili leiteke, 656. or., 27. zk.

2

Sarrera-ant.

Emoiezu, Jauna, hildakoei betiko atsedena, eta argi egin begie betiko argiak. Ik. 4 Esd 2, 34.35

Otoitza

Fededunen zoriona eta zintzoen bizia zaran Jainkoa,
Zeuk salbatu gaituzu zeure Semearen heriotzaz eta biztueraz;
erruki zaitez hildako gure senideez
eta egizu, biztueraren misterioa sinistu daben ezkero,
gozatu dagiela betiko zorionaren poza.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa

Jainko ahalguztidun errukitsua,
sakrifizio honetan eskeintzen dan Kristoren odolaz
kendu egizuz hildako zure zerbitzarien pekatuak,
eta egizu, zure bihotz onak egin dagizala gero eta garbiago
Bateoko uretan garbitu zenduzanak.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Prefazioa: Hildakoena, 552-559. or.

Jaunartze-ant.

Betiko argiak argi egin begie, Jauna; bizi beitez zure santuekin betiko, errukior zara-eta. Ik. 4 Esd 2, 35

Jaunartze ondorengoa

Gugaitik hil eta aintzaz biztu zan
zure Semearen sakramentua harturik,
apalik eskatzen deutsugu, Jauna, hildako gure senideen alde:
Kristoren pazko-misterioan garbiturik,
lortu dagiela biztuera-egunean zorion betea.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Bedeinkazino nagusia erabili leiteke, 656 or., 27. zk.

3

Sarrera-ant.

Jesus hilen artetik biztu eban Jainkoak biziazoko ditu gure gorputz hilkorrak ere, gugan bizi dan Espirituaren bitartez. Ik. Erm 8, 11

Otoitza

Oi Jainko, zeure Seme bakarra, heriotza garaiturik,
zeruko aintzara sartuazo zenduan;
egizu, hildako gure senideek ere,
bizitza honetako izate hilkorra garaiturik,
betieran ikusi zagiezala Zu, euren egile eta salbatzaile hori.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa

Hartu bihotz onez, Jauna,
Kristogan lo dagozan gure senide guztien alde
egiten deutsugun eskeintza;
zure Semearen sakrifizio bakarrari esker
heriotzaren lokarrietatik askaturik,
lortu dagiela betiko bizia.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Prefazioa: Hildakoena, 552-559. or.

Jaunartze-ant.

Salbatzailea, Jesu Kristo Jauna, itxaroten dogu; harek antzaldatuko dau gure gorputz ezerez hau, bere gorputz aintzatsuaren irudiko eginez. Ik. Flp 3, 20-21

Jaunartze ondorengoa

Eskeini deutsugun sakrifizio honen bidez,
isuri egizu, Jauna, zeure erruki ugaria
hildako gure senideen gainera;
eta Bateoaren grazia emon zeuntsenei
emoiezu betiko zorionaren betea.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Bedeinkazino nagusia erabili leiteke, 656. or., 27. zk.

Azaroaren 3an

San Martin Porres, erlijiosoa

Santuen (erlijiosoentzat, 999 or.) Betikotik.

Otoitza

Martin Porres santua
apaltasun-bidetik zeruko osperaino eroan zenduan Jainkoa,
egizu, jarraitu deiogula haren ejenplu miresgarriari
beragaz batean zeruan goratuak izan gaitezan.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Azaroaren 4an

San Karlos Borromeo, gotzaina

Oroipena

Eleiz artzainen (gotzainarentzat, 968. or.) Betikotik.

Otoitza

Zaindu egizu, Jauna, zeure herrian,
Karlos Borromeo gotzain santuari
oparo emon zeuntsan espiritua;
holan, Eleizea eten barik barritu dadin
eta, Kristoren irudiko eginik,
haren aurpegia munduari agertzeko gai izan dadin.
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa

Begira, Jauna, begi onez Karlos santuaren oroitzapenean
zure altarara ekarritako emoitzei,
eta egizu, ha bere artzain-lanean arduratsu
eta onbidean miragarri egin zenduan lez,
geuk ere, sakrifizio honi esker, frutu on ugari emon daigula.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Jaunartze ondorengoa

Hartu dogun sakramentu honek emon deigula, Jauna,
bihotzeko indarra,
Karlos santua zure zerbitzuan leial
eta maitasunean gartsu egin eban indar bera.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Azaroaren 5ean

Kurutzeko Santa Anjela Guerrero González, birjina

Birjinen (bakarrarentzat, 985. or.) Betikotik.

Otoitza

Oi Jainko,
kurutzearen jakituriaz argitu zenduan
Kurutzeko Santa Anjela, birjina,
pobre eta gaixoengan Kristo zure Semea ezagutu
eta euren zerbitzari apal izan zedin;
egizu, haren maitasun-ejenpluari jarraituz,
heldu gaitezala Zugana geure senideekin batera.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Azaroaren 6an

Pedro Poveda Castroverde eta Inozentzio Sortzez Garbiarena Canoura Arnau, presbiteroak, santuak, eta lagunak, martiriak

Oroipena

Martirien (martiri batzurentzat, Pazkoaldiaz kanpo, 947. or.) Betikotik.

Otoitza Jainko gure Aita, Zeuk emon zeuntsen
Pedro Poveda eta Inozentzio Sortzez Garbiarena
presbitero santuei, eta lagun martiriei,
Jainkoaren Ama lagun,
euren odola isurtzeraino Kristoren jarraitzaile izateko grazia;
egizu, arren, euren ejenpluari eta otoitzei esker,
hitzez eta egintzez autortu daigula sendo fedea.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Azaroaren 9an

Letrango basilika Sagaratzea

Jaia

Sarrera-ant. Uri santua ikusi neban, Jerusalem barria, zerutik Jainkoagandik jaisten, andragaia bere senarrarentzat lez apaindua. Ap 21, 2

Edo:

Hona Jainkoaren bizilekua gizakien artean; hareekin biziko da. Hareek izango ditu bere herri, eta Jainkoa bera izango dabe hareek eurekin. Ap 21, 3

Aintza zeruetan esango da.

Otoitza Oi Jainko, harri biziz eta bereziz eraikitzen dozu
zeure aintzaren betiko etxea;
ugaritu zeure Eleizeari emondako dohaiak,
zeruko Jerusalem gero eta handiagoa egiten joan dadin beti.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Edo:

Eleizeari zeure emazte izena emon deutsazun Jainkoa,
egizu, zure izenaren zerbitzari izanez,
Zeu gurtu eta maitatu zagizala zure herriak,
eta Zuri jarraitu deizula,
agindu deutsazun erreinura, Zuk gidaturik, heldu dadin.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Jai hau domekaz izaten danean, Sinisten dot esango da.

Oparigaien gainekoa

Onartu, Jauna, egiten dihardugun eskeintza,
eta emoiguzu, hemen otoitzean batuta gagozanoi,
sakramentuen indarra eta gure eskarien frutua.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Prefazioa: Eleizea sagaratzearen urtemugakoa, sagaratutako eleizaz kanpo, 933. or.

Jaunartze-ant.

Harri bizi lez, espirituzko tenpluaren eraikuntzan parte hartzen dozue eta abade sagaratuak zarie. 1 P 2, 5

Jaunartze ondorengoa

Lurreko Eleizea
zeruko Jerusalemen ezaugarri egin dozun Jainkoa;
sakramentu honetan parte hartzearen bidez,
egin gaizuz orain zeure graziaren bizileku
eta eroan gaizuz gero zeure aintzaren etxera.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Bedeinkazino nagusia erabili leiteke, 655. or., 26. zk.

Azaroaren 10ean

San Leon Handia, aita santua eta eleiz irakaslea

Oroipena

Sarrera-ant.

Jaunak bake-ituna egin eban haregaz, eta herriaren buru jarri eban, abade izan zedin betiko. Ik. Si 45, 30

Otoitza

Oi Jainko,
Apostoluen harri sendoaren gainean eraiki zenduan Eleizea,
eta ez dozu behin ere itziko
Heriotzaren indarrak nagusitu dakiozan;
Leon aita santuaren otoitzari esker,
zaindu egizu beti zeure egian sendo eta bakean iraunkor.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa

Oparigai honeek aurkeztean, apalik eskatzen deutsugu, Jauna;
egiozu argi bihotz onez zeure Eleizeari,
zure artaldea mundu guztian ugaritu eta sendotu dadin
eta artzainak, zure gidaritzapean, zeure gogoko izan daitezan.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Jaunartze-ant.

Pedrok esan eutson Jesusi: Zu Mesias zara, Jainko biziaren Semea.
Jesusek erantzun eutson: Zu Pedro zara, hatxa; hatx horren gainean
eraikiko dot Nik neure Eleizea. Ik. Mt 16, 16.18

Jaunartze ondorengoa

Gidatu egizu, Jauna, maitasunez
mahai santu honetan indarbarritzen dozun Eleizea;
Zuk esku sendoaz eroanik,
gero eta askatasun handiagoa izan
eta fede betean zintzo iraun dagian.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Azaroaren 11n

Tourseko San Martin, gotzaina

Oroipena

Sarrera-ant.

Neure bihotzaren eta gogoaren arabera jardungo dauan abade zintzo
bat sortuazoko dot, dino Jaunak. Ik. 1 Sm 2, 35

Otoitza Oi Jainko, Martin gotzain santuak goratu zaitu,
bai bizitzaz, bai heriotzaz;
barritu egizuz gure bihotzean zeure graziaren miragarriak,
ez heriotzak, ez bizitzak,
ez gagizan zure maitasunetik aldendu.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa Jainko Jauna, egizuz santu
Martin santuaren egun honetan
pozik ekarri doguzan oparigaiak;
lagundu deiguela, lur honetako atsegin-atsekabeen artean,
beti zure bideetan ibiltzen.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Jaunartze-ant. Benetan dinotsuet: nire seniderik txikien honeetako bati egin zeuntsoena Neuri egin zeunsten, dino Jaunak. Mt 25, 40

Jaunartze ondorengoa Jauna, batasunaren sakramentua emon deuskuzu janari;
egizu, bizi gaitezala beti zure borondatea bete-betean eginez;
Martin santua osorik zure esaneko izan zan lez,
geu ere poztu gaitezan benetan zureak izateaz.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Azaroaren 12an

San Josafat, gotzaina eta martiria

Oroipena

Sarrera-ant. Jaunaren itunagaitik eta asaben legeakaitik, sendo iraun eben Jainkoaren santuek senide-maitasunean, espiritu bera izan eben-eta beti eta fede bera.

Otoitza Jauna, zure Espirituak eraginik,
Josafat santuak
ardien zerbitzura jarri eban bere bizia;
biztu egizu zeure Eleizan Espiritu hori bera,
geu ere, haren otoitzari esker eta Espiritu berak indarturik,
senideen alde bizia emoteko bildur izan ez gaitezan.

Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa

Jainko guztiz errukitsua,
bedeinkatu egizuz gure emoitza honeek
eta sendotu egizu gugan,
Josafat santuak bere odola isuriz
autortu eban sinismena.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Jaunartze-ant. Bere bizia Nigaitik galtzen dauanak, dino Jaunak, eskuratu egingo dau betiko. Ik. Mt 10, 39

Jaunartze ondorengoa

Hartu dogun zerutar janariak emon deigula, Jauna,
indar- eta bake-espiritua:
Josafat santua eredu dogula,
gogotsu emon daigun geure bizia
Eleizearen izen onerako eta batasunerako.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Azaroaren 13an

San Leandro, gotzaina

Eleiz artzainen (gotzainarentzat, 968. or.) Betikotik.

Otoitza

Oi Jainko,
fedearen egia osoan zaindu zenduan Eleizea,
Leandro gotzain santuaren bidez;
emoiozu zeure herriari
erru eta huts guztietatik garbi irautea.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Azaroaren 15ean

San Alberto Handia, gotzaina eta eleiz irakaslea

Eleiz artzainen (gotzainarentzat, 968. or.) nahiz eleiz irakasleen (981. or.) Betikotik.

Otoitza

Oi Jainko,
Alberto gotzain santua handi egin zenduan,
jainkozko fedea eta giza jakintza alkarregaz lotzen;
egizu, lotu gakiezala sendo haren maisu-irakaspenei,
giza zientzietan aurrera eginez
Zu hobeto ezagutzera eta maitatzera heldu gaitezan.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Azaroaren 16an

Eskoziako Santa Margarita

Santuen (erruki-egintzak bete ebezanentzat, 1001. or.) Betikotik.

Otoitza

Oi Jainko,
Eskoziako Margarita santua harrigarria egin zenduan
behartsuakanako izan eban maitasunaz;
egizu, haren otoitzari esker eta haren ejenpluari jarraituz,
izan gaitezala gizon-emakumeen artean
zure ontasunaren irudi.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Santa Gertrudis, birjina

Birjinen (bakarrarentzat, 985. or.) nahiz santuen (lekaimearentzat, 998. or.) Betikotik.

Otoitza Oi Jainko,
Gertrudis birjina santuaren bihotzean
bizileku atsegina egin zenduan Zeuretzat;
haren otoitzari esker,
argitu egizuz gure bihotzeko ilunpeak,
pozik sentidu daigun geugan zaitugula
eta geugan diharduzula.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Azaroaren 17an

Hungariako Santa Elisabet, erlijiosa

Oroipena

Santuen (erruki-egintzak bete ebezanentzat, 1001. or.) Betikotik.

Otoitza Hungariako Elisabet santuari
behartsuengan Kristo ezagutzea eta ohoratzea
emon zeuntsan Jainkoa;
egizu, haren otoitzari esker,
behartsuak eta atsekabetuak
maitasunez zerbidu daiguzala beti.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Azaroaren 18an

Pedro eta Paulo apostolu santuen basilikak Sagaratzea

Sarrera-ant. Pedro eta Paulo mundu osoko buruzagi egin dituzu. Gizaldiz gizaldi gogoratuazo dabe honeek zure izena, eta gizaldiz gizaldi goratuko zaitue herriek. Ik. Sal 45 [44], 17-18

Otoitza Zaindu egizu, Jauna, zeure Eleizea,
apostoluen babesean;
eta Ebanjelioaren lehenengo barria
euren bidez hartu eban ezkero,
izan dagiala euren bidez gero eta ugariago
azken egunera arte zure grazia.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa Gure zerbitzuari dagokion eskeintza egitean, Jauna,
zure bihotz onari dei egiten deutsagu:
zaindu egizu osorik gure bihotzean,
Pedro eta Paulo apostoluen ministerioari esker
jaso dogun egia.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Prefazioa: Apostoluena, 528-530. or.

Jaunartze-ant. Jauna, Zure hitzek betiko bizia dabe. Eta guk sinistu dogu Zeu zarala Jainkoaren Santua. Ik. Jn 6, 68-69

Jaunartze ondorengoa Zerutar ogiaz janaritu dozu, Jauna, zeure herria;
poztu dadila, gidari eta zaintzaile emon zeuntsazan
Pedro eta Paulo apostoluen oroitzapena egitean.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Azaroaren 21ean

Maria Birjina dohatsuaren Aurkezpena

Oroipena

Maria Birjina dohatsuaren (935. or.) Betikotik.

Otoitza Maria Birjina guztiz santuaren oroipen aintzatsua
ospatzen dogun honetan,
egizu, Jauna, haren otoitzari esker,
hartu daigula geuk ere zure graziaren betetik.

Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Azaroaren 22an

Santa Zezilia, birjina eta martiria

Oroipena

Martirien (birjina martiriarentzat, 961. or.) nahiz birjinen (bakarrarentzat, 985. or.) Betikotik.

Otoitza

Zezilia santuaren ospakizuna urtero eginez
pozten gaituzun Jainkoa,
egizu, arren, zure zerbitzari haretaz
tradizinoak jaieraz adierazo deuskuzan egintzak
izan daiguzala eredu
eta ikusi daiguzala euretan
zure Seme Jesu Kristok
bere fededunengan egindako miragarriak.
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Azaroaren 23an

San Klemente I.a, aita santua eta martiria

Martirien (bakarrarentzat, 953. or.) nahiz eleiz artzainen (aita santuarentzat, 965. or.) Betikotik.

Otoitza

Jainko ahalguztidun betikoa,
harrigarria zara zeure santu guztiek agertu daben kemenean;
emoiguzu, Klemente santuaren
urteroko oroitzapena pozik ospatzea,
harek, zure Semearen abade eta martiri izanik,
bere testigantzaz egiaztatu ebalako ospatzen eban misterioa,
eta bere ejenpluaz baieztu hitzez iragartzen ebana.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

San Kolunbano, abata

Eleiz artzainen (misinolarientzat, 977. or.) nahiz santuen (abadearentzat, 995. or.) Betikotik.

Otoitza

Oi Jainko,
Kolunbano santuagan harrigarriro alkartu zenduzan
Ebanjelioa zabaltzeko zeregina
eta monasterio-bizitzarako zaletasuna;
egizu, haren otoitzari esker eta haren ejenpluari jarraituz,
ahalegindu gaitezala Zeu gauza guztien gainetik bilatzen
eta fededunen herria zabaltzen.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Azaroaren 24an

Andres Dung-Lac, presbiteroa, eta lagunak, martiriak

Oroipena

Sarrera-ant.

Jainkoak libratu gaizala harrotzetik, Jesu Kristo gure Jaunaren kurutzean izan ezik, kurutzeko heriotzaren mezua Jainkoaren indarra da-eta salbatuak izan garanontzat. Ik. Ga 6, 14; ik. 1 Ko 1, 18

Otoitza

Aitatasun guztien iturri eta sorburu zaran Jainkoa,
odola isurtzeraino onartu eben
Andres eta lagun martiri santuek
zure Semearen kurutzea;
egizu, hareen otoitzari esker,
zabaldu daigula Zuganako maitasuna geure senideengan
eta lortu daigula zure seme- eta alaba-izena, baita izana ere.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa

Onartu, Aita guztiz ona,
martiri santuen nekaldia ospatzean
eskeintzen deutsuguzan oparigaiak;
eta egizu, geure bizitzako ezbeharren artean
bizi gaitezala beti Zuganako leial
eta eskeini daigula geure burua Zuretzat opari atsegingarri.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Jaunartze-ant.

Zorionekoak zuzentasunagaitik erasoa jasaten dabenak, eurena dabe-eta zeruetako erreinua. Mt 5, 10

Jaunartze ondorengoa

Ogi bat beragaz janaritu gaituzu, Jauna,
zure martiri santuen oroipena ospatu dogun honetan;
apalik eskatzen deutsugu, Jauna:
iraun daigula
Zuganako maitasunean danok bat eginik,
iraupenari agindutako betiko saria lortu daigun.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Azaroaren 25ean

Alexandriako Santa Katalina, birjina eta martiria

Martirien (birjina martiriarentzat, 961. or.) nahiz birjinen (bakarrarentzat, 985. or.) Betikotik.

Otoitza

Jainko ahalguztidun betikoa,
Zeuk emon zeuntsan zeure herriari
Santa Katalina birjina eta martiri menperatuezina;
haren otoitzari esker, indartu gaizuz fede iraunkorrean
eta emoiguzu Eleizearen batasunerako
aspertu barik lan egitea.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Azaroaren 29an

Tolosako San Zernin, gotzaina eta martiria

Martirien (bakarrarentzat, 953. or.) nahiz eleiz artzainen (gotzainarentzat, 968. or.) Betikotik.

Otoitza

Oi Jainko, fededunen Aita gorena,
San Zernin gotzainaren predikuaz
fedearen argia biztu zeunskun
eta bizi barrira sortuazo ginduzuzan bateoan;
egizu, arren, haren ejenpluari eta otoitzari esker,
izan gaitezala Ebanjelioaren testigu munduaren aurrean
eta parte izan daigula Kristoren biztueran.
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Azaroaren 30ean

San Andres, apostolua

Jaia

Sarrera-ant.

Jaunak, Galileako itsasbazterrean zehar ebilela, anaia bi ikusi zituan, Pedro eta Andres, eta dei egin eutsen: Zatoze Neugaz, eta giza arrantzale egingo zaituet. Ik. Mt 4, 18-19

Aintza zeruetan esango da.

Otoitza

Zuri, Jaun handi horri, apalik eskatzen deutsugu,
Andres apostolu santua
zure Eleizearen predikari eta artzain izan zan lez,
izan dadila beti zure aurrean gure aldeko erregutzaile.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa

Jainko ahalguztiduna, egin gagiezala zure gogoko
Andres santuaren jaia ospatzeko
dakartsuguzan emoitzek,
eta eurok hartzeak bizibarritu gaizala.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Prefazioa: Apostoluena, 528-530. or.

Jaunartze-ant. Andresek esan eutson bere anaia Simoni: Mesias aurkitu dogu, hau da, Kristo. Eta Jesusengana eroan eban. Ik. Jn 1, 41-42

Jaunartze ondorengoa

Hartu dogun sakramentuak, Jauna, bete gaizala indarrez;
Andres apostolu santuak lez, Jesusegaz nekeak eroanik,
zeruko aintzan beragaz bizitzea lortu daigun.
Errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Bedeinkazino nagusia erabili leiteke, 653. or., 23. zk.

ABENDUA

Abenduaren 3an

Xabierko San Frantzisko, presbiteroa

Oroipena

Sarrera-ant. Nazinoen artean goratuko zaitut, Jauna, iragarriko deutset zure izena neure senideei. Sal 18 [17], 50; 22 [21], 23

Otoitza Xabierko Frantzisko santuaren predikuari esker
herrialde asko Zeugana erakarri zenduan Jainkoa;
egizu, sutu daitezala fededunen bihotzak
sinismena zabaltzeko harek izan eban zaletasun beraz
eta poztu dadila Eleizea
seme-alaba ugari izateaz leku guztietan.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa Onartu, Jauna, Xabierko Frantzisko santuaren
oroitzapena ospatzeko dakartsuguzan oparigaiak;
egizu, ha gizon-emakumeak salbatzeko egarriak
urrunera eroan eban lez,
geuk ere, Ebanjelioaren testigu lehiatsu izanez,
jo daigula gogo biziaz Zugana senideekin batera.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Jaunartze-ant. Gaueko ilunpean esaten deutsuedana esan zuek egun-argitan, dino Jaunak, eta belarrira entzuten dozuena iragarri etxe gainetik. Mt 10, 27

Jaunartze ondorengoa Oi Jainko, Sakramentu honek biztu dagiala gugan
Xabierko Frantzisko santuak
gizakiak salbatzeko izan eban maitasun-garra;

egizu, geure kristau-bokazinoari zintzoago jarraituz,
langile onei agindutako saria lortu daigula beragaz batera.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Abenduaren 4an

Damaskotar San Joan, presbiteroa eta eleiz irakaslea

Eleiz artzainen (bakarrarentzat, 972. or.) nahiz eleiz irakasleen (981. or.) Betikotik.

Otoitza

Lagundu deiguela, Jauna,
Damaskotar Joan presbitero santuaren otoitzek,
harek hain ederto irakatsi eban egiazko fedea
gure argi eta indar izan dadin beti.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Abenduaren 6an

San Nikolas, gotzaina

Eleiz artzainen (gotzainarentzat, 968. or.) Betikotik.

Otoitza

Jauna, zure errukiari dei egiten deutsagu ahuspez:
Nikolas gotzain santuaren otoitzari esker,
zaindu gaizuz arrisku guztietatik,
salbazinorako bidea zabalik aurkitu daigun.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Abenduaren 7an

San Anbrosio, gotzaina eta eleiz irakaslea

Oroipena

Sarrera-ant.

Batzarraren erdian berba egiteko gaitasuna emon eutson, eta Jaunak jakituriaz eta adimenez bete eban; soineko ospetsua jantzi eutson.
Ik. Si 15, 5

Otoitza

Anbrosio gotzain santua,
fede katolikoaren irakasle
eta apostolutzarako adorearen ejenplu egin zenduan Jainkoa,
sortu egizuz Eleizan gidari zuhur eta indartsu izango diran
zeure gogoko gizonak.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa

Espiritu Santuak argitu eban eten barik, Jauna,
Anbrosio santuaren fedea
zure aintza zabaltzeko;
emoiguzu fedearen argi bera
jainkozko misterio honeek ospatzen doguzanoi.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Jaunartze-ant.

Jaunaren legea gau eta egun hausnartzen dauanak emoten dau bere sasoian frutua. Ik. Sal 1, 2-3

Jaunartze ondorengoa

Hartutako sakramentuaz indarbarritu gaituzu, Jauna;
egizu, San Anbrosioren irakaspena balia dakigula,
zure bideetan kementsu aurrera eginez
zeruko mahaiaz gozatzeko gai izan gaitezan.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Abenduaren 8an

MARIA BIRJINA DOHATSUAREN SORTZE GARBIA

Espainiako zaindaria

Festaburua

Jantzi zuriz emongo da Meza hau; kolore urdineko jantziak be erabili daitekez

Sarrera-ant.

Pozaren pozez nago Jaunagaz, neure arima Jainkoagaz alai daukat, salbazinoaz jantzi nau-eta, garaipen-soinekoz estaldu, edergailuz apaintzen dan andragaia lez. Is 61, 10

Aintza zeruetan esango da.

Otoitza

Oi Jainko,
egoitza egokia prestatu zeuntsan zeure Semeari
Maria Birjinaren Sortze Garbiaz
eta, honen Semearen heriotza aurreikusirik,
garbi gorde zenduan pekatu guztitik Ama;
egizu, Maria Birjinaren otoitzari esker,
geu ere Zugana garbi heldu gaitezala.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Sinisten dot esango da.

Oparigaien gainekoa

Onartu, Jauna, Maria Birjina dohatsuaren
Sortze Garbiaren festaburua ospatzean
eskeintzen deutsugun opari salbagarria;
eta bera, aurretiaz hartutako zure graziari esker,
erru guztitik libre izan zala autortzen dogun lez,
libratu gaizuz geu ere, haren otoitzaren laguntzaz,
pekatu guztietatik.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Prefazioa

MARIAREN ETA ELEIZAREN MISTERIOA

℣. Jauna zuekin.
℟. Eta zure espirituarekin.

℣. Gora bihotzak.
℟. Jaunagan daukaguz.

℣. Eskerrak Jaungoiko gure Jaunari.
℟. Egoki da eta zuzen.

Egoki da, bai, eta zuzen,
bidezko eta salbagarri,
nonahi eta beti guk Zuri eskerrak emotea,
Jauna, Aita guztiz santu,
Jainko ahalguztidun betiko horri.

Maria Birjina txit dohatsua
jatorrizko pekatuaren kutsu guztitik garbi gorde zendualako
eta zeure graziaren beteaz edertu,
zeure Semeari Ama bardinbakoa emoteko
eta harengan adierazoteko Eleizaren hasiera:
Kristoren emaztea, tximurrik eta errurik bakoa
eta guztiz ederra dan Eleizaren hasiera.
Izan ere, Birjina garbi honek emon behar euskun Semea,
gure pekatuak garbituko zituan Bildots errubakoa.
Haxe bera aukeratu zenduan guztien artean
zure herriarentzat grazia lortzeko laguntzaile
eta santutasunaren eredu miragarri.

Horregaitik, aingeru-taldeekin batean,
goresten zaitugu,
pozez beterik [esaten] kantatzen dogula:

Santu, Santu, Santua,
diran guztien Jainko Jauna.
Zeru-lurrak beterik daukaz zure distirak.
Hosanna zeru-goienetan!
Bedeinkatua Jaunaren izenean datorrena.
Hosanna zeru-goienetan!




beti guk Zuri eskerrak e-mo-te-a, Jauna, Aita guz-tiz san-tu,
Jainko ahalguzti - dun be-ti - ko ho-rri. Ma-ri - a Birji-na
guztiz do - ha - tsu - a jatorrizko pekatuaren kutsu guztitik
garbi gorde zendu - a - la - ko eta zeure graziaren beteaz e -
der-tu, zeure Semeari Ama berdin-ba-ko-a e-mo - te-ko eta haren-
gan adierazteko Eleizaren ha-si - e - ra: Kristoren e-maz-te - a,
tximurrik eta errurik ba-ko-a eta guztiz ederra dan E-lei-za-ren
ha-si - e - ra. Izan e-re, Birjina garbi honek emon behar euskun Se -
me-a, gure pekatu-ak garbituko zituan Bildots erru - ba - ko - a.
Haxe bera aukeratu zenduan guztien ar-te-an zure herriarentzat
grazia lortzeko lagun-tzai-le eta santutasunaren e - re-du mi-ra -



Jaunartze-ant. Goragarriak esan dabez zutaz, Maria, Zugandik jaio da-eta zuzentasun-eguzkia, Jesu Kristo gure Jainkoa.

Jaunartze ondorengoa

Jainko gure Jauna, Maria Birjinaren sortzea
jatorrizko pekatutik garbi gorde zenduan miragarriro;
hartu dogun sakramentu honek osatu dagizala gugan
pekatu horren zauriak.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Bedeinkazino nagusia erabili leiteke, 652. or., 21. zk.

Abenduaren 9an

San Joan Diego Cuauhtlatoatzin

Santuen (santu bakarrarentzat, 993. or.) Betikotik.

Otoitza

Oi Jainko,
San Joan Diegoren bidez adierazo zenduan
Maria Birjina guztiz santuak
zure herriari deutson maitasuna;
egizu, haren otoitzari esker,
Guadalupeko gure Amaren aholkuei zintzo jarraituz,
zure nahia bete daigula beti.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Abenduaren 10ean

Meridako Santa Eulalia, birjina eta martiria

Martirien (birjina martiriarentzat, 961. or.) nahiz birjinen (bakarrarentzat, 985. or.) Betikotik.

Otoitza

On guztien iturri zaran Jainkoa,
umeen martiritzaz ere baliatzen zara
gu zure izena autortzera eroateko;
egizu, zure Eleizeak,
Meridako Eulalia martiri santuaren ejenpluak indarturik,
bildurrik ez daiala izan Zugaitik sufritzeko
eta bilatu dagiala biziro betiko sariaren aintza.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Loretoko Maria Birjina dohatsua

Oroipena

Maria Birjina dohatsuaren (935. or.) Betikotik

Ik. 1341 or.

Abenduaren 11n

San Damaso I.a, aita santua

Eleiz artzainen (aita santuarentzat, 965. or.) Betikotik.

Otoitza

Jauna,
martirien merezimentuakazko zaletasun
eta maitasun berezia
emon zeuntsan Damaso aita santuari;
egizu, ospatu daigula eten barik martirien fede-autormena.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Abenduaren 12an

Guadalupeko Maria Birjina dohatsua

Maria Birjina dohatsuaren (Abendualdian, 943. or.) Betikotik.

Otoitza Jainko, Aita errukitsua,
zure Semearen Ama guztiz santuaren zaindaritzapean
jarri zenduan miragarriro zeure herria;
egizu, Guadalupeko Amatzat harturik
dei egiten deutsoen guztiek
fede biziz bilatu dagiela herrien aurrerabidea,
zuzentasunaren eta bakearen bidetik.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Abenduaren 13an

Santa Luzia, birjina eta martiria

Oroipena

Martirien (birjina martiriarentzat, 961. or.) nahiz birjinen (bakarrarentzat, 985. or.) Betikotik.

Otoitza Jauna, lagundu deigula
Santa Luzia birjina eta martiriaren otoitz ahaltsuak,
ha zerurako jaio izana ospatu daigun mundualdi honetan,
baita gozatu ere betiko ondasunak zeruan.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Abenduaren 14an

Kurutzeko San Joan, presbiteroa eta eleiz irakaslea

Oroipena

Sarrera-ant. Jainkoak libra nagiala harrotzetik, Jesu Kristo gure Jaunaren kurutzean izan ezik; Kristo kurutzean hil zan ezkero, mundua hilik dago niretzat eta ni munduarentzat. Ga 6, 14

Otoitza

Oi Jainko,
bere buruari osorik uko egiten irakatsi zeuntsan
Kurutzeko Joan presbitero santuari,
eta kurutzea bene-benetan maitatzen;
egizu, ha eten barik eredutzat hartuz,
heldu gaitezala betiko zure aintza gozatzera.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa

Jainko ahalguztiduna,
onartu Kurutzeko San Joanen oroitzapenean
egiten deutsugun eskeintza;
eta egizu, Jaunaren nekaldiko misterioak ospatzen doguzanok
sakramentuz adierazoa bete daigula bizitzan.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Jaunartze-ant.

Nire ondoren etorri nahi dauanak uko egin begio bere buruari, hartu begi bere kurutzea eta jarraitu beit, dino Jaunak. Mt 16, 24

Jaunartze ondorengoa

Oi Jainko,
Kurutzeko Joan santuagan
harrigarriro agertu zenduan kurutzeko misterioa;
egizu onez, sakrifizio honek indarturik,
iraun daigula sendo Kristori lotuak
eta lan egin daigula Eleizan guztien salbazinorako.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Abenduaren 21ean

San Pedro Kanisio, presbiteroa eta eleiz irakaslea

Eleiz artzainen (bakarrarentzat, 972. or.) nahiz eleiz irakasleen (981. or.) Betikotik.

Otoitza Fede katolikoa zaintzeko,
Pedro Kanisio presbitero santua
kemenez eta jakitez bete zenduan Jainkoa;
egizu, haren otoitzari esker,
egiaren bila dabiltzanek
aurkitu zagiezala Zeu, Jainko hori, pozik
eta fededun-herriak Zeu autortzen iraun dagiala.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Abenduaren 23an

Ketyko San Joan, presbiteroa

Jaia

Eleiz artzainen (bakarrarentzat, 972. or.) nahiz santuen (erruki-egintzak bete ebezanentzat, 1001. or.) Betikotik.

Otoitza Jainko ahalguztiduna, egizu,
Ketyko Joan presbitero santuaren ejenpluari jarraituz,
jokatu daigula santuen jakituriaren arabera
eta, guztienganako errukitsu izanik,
eskuratu daigula zure parkazinoa.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Abenduaren 26an

San Esteban, lehenengo martiria

Jaia

Sarrera-ant. Zeruko ateak zabaldu jakoz Esteban lehenengo martiriari; horregaitik, garaipen-koroa hartu dau sari.

Aintza zeruetan esango da.

Otoitza

Egizu, Jauna, bete daigula geure bizitzan,
Esteban lehenengo martiriaren egun honetan
ospatzen dogun misterioa;
eta harek bere hiltzaileentzat otoitz egin
eta parkamena eskatu eban lez,
ikasi daigula arerioak eurak ere maitatzen.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa

Onartu egizuz, Jauna,
San Esteban martiriaren oroitzapen aintzatsu honetan
bihotz jaieratsuaz ekarri deutsuguzan oparigaiak.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Prefazioa: Gabonaldikoa, 472-475. or.
Ik. Prefazio horreetako orrietan, I., II. eta III. Eukaristi Otoitzetan Gabonetako misterioaren aipamena egiteko oharrak.

Jaunartze-ant.

Harrika egiten eutsoen bitartean, Estebanek honan egiten eban otoitz: Jesus Jauna, hartu egizu nire bizia. Eg 7, 59

Jaunartze ondorengoa

Eskerrak Zuri, Jauna,
guretzat dituzun errukizko egintza ugariakaitik,
bai zeure Semearen jaiotzaz salbatu gaituzulako,
bai Esteban martiri santuaren ospakizunean
poztu gaituzulako.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Bedeinkazino nagusia erabili leiteke, 641. or., 2. zk.

Abenduaren 27an

San Joan, apostolua eta ebanjelaria

Jaia

Sarrera-ant.

Hauxe da Joan apostolua, Azken Afarian Jesusen bular gainean burua etzun ebana. Zorionekoa Jainkoaren sekretuak agertu jakozan eta biziaren hitzak mundu guztian zabaldu zituan Apostolua. Ik. Si 15, 5

Edo:

Batzarraren erdian berba egiteko gaitasuna emon eutson, eta Jaunak jakituriaz eta adimenez bete eban; soineko ospetsua jantzi eutson.

Aintza zeruetan esango da.

Otoitza

Joan apostolu santuaren bidez
zure Hitzaren misterioa agertu deuskuzun Jainkoa;
egizu, ulertu daigula adimen argiz
harek belarrira bikain esan euskuna.
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa

Santutu, Jauna, aurkeztu doguzan oparigaiak,
eta egizu, afari honetan sumatu daigula
betiko Hitzaren misterioa,
Joan zeure apostoluari
Azken Afarian agertu zeuntsan misterioa.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Prefazioa: Gabonaldikoa, 472-475. or.
Ik. Prefazio horreetako orrietan, I., II. eta III. Eukaristi Otoitzetan Gabonetako misterioaren aipamena egiteko oharrak.

Jaunartze-ant.

Hitza haragi egin zan, eta geure artean jarri eban bizilekua. Eta haren betearen betetik guztiok hartu dogu. Jn 1, 14.16

Jaunartze ondorengoa

Jainko ahalguztiduna,
San Joan apostoluak emon euskun bere predikuaz
gizon egin dan zure Hitzaren barri;
egizu, orain ospatu dogun sakramentu honi esker,
bizi dadila beti gugan zure Hitza.
Errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Bedeinkazino nagusia erabili leiteke, 641. or., 2. zk.

Abenduaren 28an

UMETXU ERRUBAKO SANTUAK, MARTIRIAK

Jaia

Sarrera-ant. Umetxu errubakoak Kristogaitik hil ebezan; orain Bildots orbanbakoari jarraitzen deutsoe, eten barik esanez: Gora Zu, Jauna!

Aintza zeruetan esango da.

Otoitza Oi Jainko, gaurko egunez
Umetxu errubako martiriek zure aintza autortu eben,
ez hitzez, heriotzaz baino;
egizu, guk ahoz autortzen dogun sinismena
bizitzako jardueraz ere agertu daigula.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa Onartu, Jauna, zeure zerbitzarien emoitzak,
eta, ezaguerarik ez dabenak ere salbatzen dituzun ezkero,
garbitu egizuz misterio honeek fedez ospatzera datozanak.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Prefazioa: Gabonaldikoa, 472-475. or.
Ik. Prefazio horreetako orrietan, I., II. eta III. Eukaristi Otoitzetan Gabonetako misterioaren aipamena egiteko oharrak.

Jaunartze-ant. Gizakien artetik salbatuak eta Jainkoarentzat eta Bildotsarentzat lehen-frutu lez eskeiniak izan dira honeek; Bildotsari jarraitzen deutsoe, edonora doala. Ik. Ap 14, 4

Jaunartze ondorengoa Jauna,
Kristo jaiobarriaren graziaz zeruko koroa emon zeuntsen
zure Semea euren ahoz autortzeko gai ez ziran Umetxoei;
emoiezu salbazinoaren betea
hareen jaiegunean janari santua hartu daben zeure fededunei.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Bedeinkazino nagusia erabili leiteke, 641. or., 2. zk.

Abenduaren 29an

San Tomas Becket, gotzaina eta martiria

Martirien (bakarrarentzat, 953. or.) nahiz eleiz artzainen (gotzainarentzat, 968. or.) Betikotik.

Otoitza

Oi Jainko,
bihotz handiko gizon egin zenduan
Tomas Becket martiri santua,
harek bere bizia zuzentasunaren alde emoteraino;
egizu, haren otoitzari esker, egon gaitezala prest
geure biziari mundu honetan Kristogaitik uko egiteko,
gero zeruan aurkitu ahal izan daigun.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Prefazioa: Gabonaldikoa, 472-475. or.
Ik. prefazio horreetako orrietan, I., II. Eta III. Eukaristi Otoitzetan Gabonetako misterioaren aipamena egiteko oharrak.

Abenduaren 31n

San Silvestre I.a, aita santua

Eleiz artzainen (aita santuarentzat, 965. or.) Betikotik.

Otoitza

Zatoz, Jauna, zeure herriari laguntzera;
eta, Silvestre aita santuaren otoitzari esker, emoiozu indarra,
orainaldiko bizitza honetan Zeu gidari izanik,
betiko bizitzara zoriontsu heldu dadin.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Prefazioa: Gabonaldikoa, 472-475. or.
Ik. prefazio horreetako orrietan, I., II. eta III. Eukaristi Otoitzetan Gabonetako misterioaren aipamena egiteko oharrak.

BETIKO MEZAK

1. Aukera handiagoa izan dadin, Betiko bakotxerako Meza bat baino gehiago jarri da, bere antifona eta otoitzekin.

Egoki eretxi ezkero, Betiko jakin bateko antifonak eta otoitzak bata besteagaz aldatu leikez abadeak, ikuspegi pastoraletik egokien izan leitekezanak aukeratuz.

Gainera, oroipen Mezetan, oparigaien gaineko eta jaunartze ondorengo otoitzak Betiko horreetatik nahiz aldiko Berezian asteguneterako emonak dagozan Mezetatik hartu leitekez.

2. Otoitz honeek era berean erabiliko dira gizonezkoarentzat eta emakumearentzat, batentzat nahiz askorentzat, behar diran egokitzeak eginez.

3. Betiko bakotxean bakarrarentzat jarrita dagozan testuak askorentzat erabili leitekez, dagokiezan aldaketak eginez. Era berean, askorentzat jarrita dagozan testuak bakarrarentzat erabili leitekez.

4. Liturgialdi eta egoera jakinetarako jarrita dagozan Mezak aldi eta egoera horreetan bakarrik erabili behar dira.

ELEIZA SAGARATZEAREN BETIKOA

«Eleiza Sagaratzeko» eta «Altarea sagaratzeko» meza-gaiak Sakramentu eta Ohikuneetarako Mezen atalean datoz, 1115-1129. or.

SAGARATZEAREN URTEMUGAN

I. Sagaratutako eleizan bertan

Sarrera-ant. Ikaragarria da Jainkoa bere santutegian; bera da Israelen Jainkoa, bere herriari indarra eta kemena emoten deutsona. Bedeinkatua Jainkoa! (P.a. aleluia). Sal 68 [67], 36

Aintza zeruetan esango da.

Otoitza

Oi Jainko,
eleiza hau sagaratzearen urteurrena ospatzen dogula,
entzun zeure herriaren otoitzak,
eta egizu, hemen ospatzen doguna izan dadila beti
Zuretzat zerbitzu santua eta guretzat salbazino betea.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Sinisten dot esango da.

Oparigaien gainekoa

Jauna, zeure etxea aintzaz eta santutasunez
bete zenduan eguna gogoratzen dogu gaur;
egin gaizuz geu ere beti Zeuretzat eskeintza atsegingarri.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Prefazioa: Eleiza sagaratzea Mezako B prefazioa, 1119. or.

Jaunartze-ant. Jainkoaren tenplu zarie, eta Jainkoaren Espiritua zuokan bizi da. Jainkoaren tenplua santua da; tenplu hori zeuok zarie (P.a. aleluia).
Ik. 1 Ko 3, 16-17

Jaunartze ondorengoa

Hartu dagiala, Jauna, zure herriak
zure bedeinkazinoaren frutua eta poza,
jaiegun honetan gorputzez ospatu dauana
arimaren onerako izan dauala jaubetu dadin.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Bedeinkazino nagusia erabili leiteke, 654. or. 25. zk.

II. Gainerako eleizetan

Sarrera-ant. Uri santua ikusi neban, Jerusalem barria, zerutik Jainkoagandik jaisten, andragaia bere senarrarentzat lez apainduta (P.a. aleluia).
Ap 21, 2

Edo:

Hona Jainkoaren bizilekua gizakien artean; hareekin biziko da. Hareek izango ditu bere herri, eta Jainkoa bera izango dabe hareek eurekin (P.a. aleluia).
Ap 21, 3

Aintza zeruetan esango da.

Otoitza

Zure aintzaren betiko etxea
harri biziz eta bereziz eraikitzen dozun Jainkoa,
ugaritu zeure Eleizari emondako dohaiak,
zeruko Jerusalem gero eta handiagoa egiten joan dadin.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Edo:

Eleizari zeure emazte izena emon deutsazun Jainkoa,
egizu, zure izenaren zerbitzari izanez,
Zeu gurtu eta maitatu zaizala zure herriak,
eta Zuri jarraitu deizula,
agindu deutsazun erreinura, Zeuk gidaturik, heldu dadin.

Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa

Onartu, Jauna, egiten dihardugun eskeintza,
eta emoiguzu, hemen otoitzean batuta gagozanoi,
sakramentuen indarra eta gure eskarien frutua.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Prefazioa

KRISTOREN EMAZTEA ETA ESPIRITUAREN TENPLUA DAN ELEIZAREN MISTERIOA

℣. Jauna zuekin.
℟. Eta zure espirituarekin.

℣. Gora bihotzak.
℟. Jaunagan daukaguz.

℣. Eskerrak Jaungoiko gure Jaunari.
℟. Egoki da eta zuzen.

Egoki da, bai, eta zuzen,
bidezko eta salbagarri,
nonahi eta beti guk Zuri eskerrak emotea,
Jauna, Aita guztiz santu,
Jainko ahalguztidun betiko horri.

Otoitz-etxe guztietan eskuzabal zagoz Zu,
eta, zeure graziaz beti lagunduz,
Zeuk egiten gaituzu Espiritu Santuaren bizileku,
bizitza santuaren argiaz distiratsu.
Eten barik santutzen dozu, Jauna, Kristoren emazte dan
eta agiriko etxe honeek adierazoten daben Eleiza;
holan, hainbeste seme-alabaren ama zoriontsu eginik,
zure aintzarako zeruan kokatua izan dadin.

Horregaitik, santu eta aingeru guztiekin batera
goresten zaitugu,
beti eta beti [esaten] abesten deutsugula:

Santu, Santu, Santua...

Jaunartze-ant. Harri bizi lez, espirituzko tenpluaren eraikuntzan parte hartzen dozue eta abade sagaratuak zarie (P.a. aleluia). 1 P 2, 5

Edo:

Nire etxea otoitz-etxe izango da, dino Jaunak; etxe honetan, eskatzen dauanak hartu egiten dau, bilatzen dauanak aurkitu, eta atea jotzen dauanari zabaldu egiten jako (P.a. aleluia). Ik. Mt 21, 13; Lk 11, 10

Jaunartze ondorengoa

Lurreko Eleiza zeruko Jerusalemen ezaugarri
egin dozun Jainkoa;
sakramentu honetan parte hartzearen bidez,
egin gaizuz orain zeure graziaren bizileku
eta eroan gaizuz gero zeure aintzaren etxera.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

MARIA BIRJINA DOHATSUAREN BETIKOA

Ondorengo meza-gai honeek erabiliko dira Santa Mariaren oroipena zapatuan ospatzeko, baita Maria Birjina dohatsuaren debozinozko Mezetan be. Otoitz honeetan, «oroitzapen» hitza dagoan lekuan, egoki eretxi ezkero, «oroipen» esan leiteke.

I. Urtean Zehar

Meza-gai honeek, araudiak dinoana kontuan izanik, Garizuman ere erabili leitekez, liturgia egutegian ofizialtasunez jarrita dagoan Maria Birjina dohatsuaren ospakizunen bat danean.

1

Sarrera-ant. Agur, Ama santua, gizaldien gizaldietan zeru-lurren Erregea danaren Ama!

Otoitza Jainko Jauna,
emoiguzu zeure zerbitzarioi gorputz-arimetako osasuna
eta, Maria beti Birjina dohatsua laguntzaile dogula,
atara gaizuz bizitza honetako ilunaldietatik
eta eroan zeruko zoriona gozatzera.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa Onartu, arren, Jauna, eskeintza honegaz batera
zeure herriaren otoitzak;
egizu, zeure Semearen Ama Maria dohatsua
otoitzean lagun dogula,
ez dadila inor gelditu bere asmo onak bete barik,
ezta bere eskaria lortu barik ere.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Edo:

Zure Seme bakarraren gizatasunak lagundu deigula, Jauna,
Birjinagandik jaiotzean
Amaren osotasuna gitxitu ez, ezpada ze sagaratu egin ebanak,
geure pekatu-kutsu guztitik libratu gaizan
eta gure oparigai hau zure gogoko egin dagian.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Prefazioa: Maria Birjina dohatsuaren I.a (debozinozko Mezetan: agurtza ospatzen dogun), 520. or., nahiz II-V.a, 522-525. or.

Jaunartze-ant. Zorionekoa Maria Birjinaren sabela, betiko Aitaren Semea eroan ebana. Ik. Lk 11, 27

Jaunartze ondorengoa

Zeruko sakramentuak harturik,
zure bihotz onari otoitzez eskatzen deutsagu, Jauna:
Maria Birjina dohatsuaren oroitzapena
pozik ospatzen dogunok,
izan gaitezala, haren antzera,
salbazino-misterioaren zerbitzari leial.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

2

Sarrera-ant. Zorionekoa Zu, Maria Birjina: zeuk eroan zenduan gauza guztien sortzailea; zeure egilea sortu zenduan, eta birjina gelditu zara betiko.

Otoitza

Jainko errukitsua, emoiozu kemena gure izate makal honi;
egizu, zure Semearen Ama goresten dogunok,
beronen otoitzaren laguntzaz,
urten daigula geure gaiztakerietatik.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa

Jauna, egizu,
sakrifizio honen eskeintzak, zure grazia lagun,
bihurtu gaizala zure Semearen Ama goresten dogunok
Zuretzat betiko opari bizi.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Prefazioa: Maria Birjina dohatsuaren I.a (debozinozko Mezetan: agurtza ospatzen dogun), 520. or., nahiz II-V.a, 522-525. or.

Jaunartze-ant.

Handiak egin deustaz Ahalguztidunak: santua da haren izena. Lk 1, 49

Jaunartze ondorengoa

Betiko salbazinoan parte hartzea emon deuskuzu, Jauna;
egizu, zure Semearen Amaren oroipena egiten dihardugunok
poztu gaitezala zure graziaren beteaz
eta sumatu daigula
gero eta indartsuagoa dala salbazinoa gugan.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

3

Sarrera-ant.

Jainko Jaunak lurreko emakume guztien gainetik bedeinkatu zaitu, oi Maria Birjina; Jaunak ospetsu egin dau zure izena, eta gizakiek isildu barik goratuko zaitue. Ik. Jdt 13, 18-19

Otoitza

Maria Birjina guztiz santuaren oroipen aintzagarria
egiten dihardugunoi, Jauna,
emoiguzu, haren otoitzari esker, zeure graziaren betetik.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa

Gorespen-oparia eskeintzen deutsugu, Jauna,
zure Semearen Amaren oroitzapena
pozik ospatzen dihardugunok;
egizu, hartu-emon santu honeen bidez,
gero eta aurrerago egin daigula zeruko bidean.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Prefazioa: Maria Birjina dohatsuaren I.a (debozinozko Mezetan: agurtza ospatzen dogun), 520. or., nahiz II-V.a, 522-525. or.

Jaunartze-ant. Dohatsu deituko nabe gaurdanik gizaldi guztiek, ikusi dau-eta Jainkoak mirabe honen ezereztasuna. Ik. Lk 1, 48

Jaunartze ondorengoa

Zerutar janariaz aseturik, Jauna,
bihotz-bihotzez eskatzen deutsugu,
izan gaitezala sakramentuan hartu dogun
eta Birjina garbiagandik jaio dan
zure Semearen autorle berbaz eta jarraitzaile bizitzaz.
Errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

4

Sarrera-ant. Zure abegi onaren bila dabiltz herriko handikiak; erregeagana zaroez, neskatila adiskideak pozik eta alai daroez.
Ik. Sal 45 [44], 13.15.16

Otoitza

Parkatu, arren, Jauna, zeure zerbitzarien pekatuak;
eta gure egite hutsez ezin gara-eta zure gogoko izan,
salbau gaitezala zure Semearen Amaren otoitzari esker.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa

Onartu, Jauna, gure eskeintza;
eta egizu, gure bihotzak,
Espiritu Santuaren argiz beterik,
jakin dagiala, Maria Birjina dohatsuaren antzera,
zure hitzak bilatzen eta bere barruan gordetzen.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Prefazioa: Maria Birjina dohatsuaren I.a (debozinozko Mezetan: agurtza ospatzen dogun), 520. or., nahiz II-V.a, 522-525. or.

Jaunartze-ant. Goratu Jauna gure Jainkoa, Maria bere mirabeagan bete ebalako Israel etxeari agindutako errukia.

Jaunartze ondorengoa

Salbazino- eta fede-sakramentua harturik, Jauna,
apalik eskatzen deutsugu:
Maria Birjina dohatsua maitasunez gogoratu dogunok
egin gaizuzala beragaz batera betiko maitasunean partaide.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

5

Sarrera-ant.

Poztu zaitez, Maria, graziaz bete hori! Jauna zugaz; bedeinkatua zu emakumeen artean, eta bedeinkatua zure sabeleko frutua.
Ik. Lk 1, 28.42

Otoitza

Oi Jainko, Zuk aukeratu zenduan Maria Birjina dohatsua,
apalen artean apalena eta pobreen artean pobreena,
Salbatzailearen Ama izateko;
egizu, arren, ha eredutzat harturik,
bizi gaitezala Zeugan benetan sinistuz
eta jarri daigula Zeugan oso-osorik salbazinoaren itxaropena.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa

Onartu, Jauna, gure oparigai honeek
Zuganako gure eskeintzaren seinaletzat,
eta zure Semearen neurribako maitasun-egintzak
ospatzen doguzanok sendotu gaizuz
Zuganako eta lagun hurkoaganako maitasunean,
Maria Birjina dohatsua sendotu zenduan lez.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Prefazioa: Maria Birjina dohatsuren I.a (debozinozko Mezetan: agurtza ospatzen dogun), 520. or., nahiz II-V.a, 522-525. or.

Jaunartze-ant.

Goraki berba egiten dabe zutaz, Maria Birjina, handiak egin ditueta zugan Ahalguztidunak.
Ik. Sal 87 [86], 3; Lk 1, 49

Jaunartze ondorengoa

Jauna, emoiozu zeure Eleizari,
sakramentu honen indarrez sendoturik,
Ebanjelioko bidean gogotsu aurrera egitea,
harik eta Maria Birjinak, zure zerbitzari apalak,
betiko aintzan daborduko gozatzen dauan zoriona
Eleizak ere lortu dagian arte.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

6

Sarrera-ant. Jeseren kimua loratu da; Birjinak Jainkoa eta gizona sortu dau; Jainkoak bakea bihurtu dau, behekoak eta goikoak beragan adiskidetuz.

Otoitza

Lagundu deigula, Jauna,
Maria beti Birjina dohatsuaren otoitz agurgarriak,
arrisku guztietatik atara
eta zure bakean bizitzeko zoriona izan daigun.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa

Zuri parkamena eskatzeko eta Zu goresteko
eskeintzen deutsuguz, Jauna, emoitza honeek,
eta apal-apal eskatzen deutsugu,
Maria Birjina dohatsua eredutzat hartuz,
eskeini deizugula geure burua
Zuretzat atsegingarri izango dan opari santu lez.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Prefazioa: Maria Birjina dohatsuaren I.a (debozinozko Mezetan: agurtza ospatzen dogun), 520. or., nahiz II-V.a, 522-525. or.

Jaunartze-ant. Lilura darizu ezpanetatik, betidanik bedeinkatu zaitu-eta Jainkoak.
Sal 45 [44], 3

Jaunartze ondorengoa

Zerutar janariaz sendoturik, egizu, Jauna,
Maria Birjina dohatsua eredutzat hartuz,
eroan daigula bizitza garbia zure zerbitzuan,
eta beragaz batera
goratu zaiguzala benetako gorespenez.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

7

Sarrera-ant. Mariak esan eban: Pozaren pozez daukat neure barrua, Jainkoa da-eta nire salbazinoa, ikusi dau-eta mirabe honen ezereztasuna.
Ik. Lk 1, 47-48

Otoitza

Zeure Hitzaren bizilekutzat
Maria dohatsuaren sabel garbia aukeratu zenduan Jainkoa,
egizu, arren, haren laguntzaz babesturik,
pozik parte hartu daigula
haren oroitzapenez egiten dihardugun ospakizun honetan.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa

Onartu, Jauna, zeure herriaren emoitzak,
Maria dohatsuaren oroipena egitean eskeiniak;
bere birjintasunez zure gogoko izan zan
eta apaltasunez zure Semea eta gure Jauna sortu eban.
Errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Prefazioa: Maria Birjina dohatsuaren I.a (debozinozko Mezetan: agurtza ospatzen dogun), 520. or., nahiz II-V.a, 522-525. or.

Jaunartze-ant. Mariak gogoan jasotzen zituan gauza honeek guztiak, bihotzean hausnartuz. Lk 2, 19

Jaunartze ondorengoa

Jainko gure Jauna,
espirituzko janarian parte harturik, eskatzen deutsugu:
Maria Birjina dohatsuaren antzeko izaten ahaleginduz,
ahalegindu gaitezala beti Eleizaren zerbitzuan
eta sumatu daigula zure zerbitzari izatearen poza.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

8

Sarrera-ant. Zorionekoa zu, Maria Birjina sakratua, eta guztiz ohoragarria, zugandik jaio da-eta zuzentasun-eguzkia, Jesu Kristo gure Jainkoa, gu salbatu eta askatu gaituana.

Otoitza

Jainko ahalguztiduna,
Maria Birjina dohatsuaren laguntzaz
pozik dagoz zure fededunak;
egizu, haren otoitzari esker,
bizi gaitezala lur honetan gatx guztietatik libre
eta heldu gaitezala zeruko betiko pozera.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa

Onartu, Jauna, zeure fededunen otoitzak eta emoitzak
Jainkoaren Ama Maria Birjina dohatsua
goresten dogun oroitzapen honetan;
egizu, izan daitezala Zuretzat atsegingarri
eta ekarri deiguela guri zure errukiaren laguntza.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Prefazioa: Maria Birjina dohatsuaren I.a (debozinozko Mezetan: agurtza ospatzen dogun), 520. or., nahiz II-V.a, 522-525. or.

Jaunartze-ant. Ikusi dau Jainkoak mirabe honen ezereztasuna; horregaitik dohatsu deituko nabe gizaldi guztiek.

Jaunartze ondorengoa

Salbazino-sakramentuaz indarbarriturik,
apal-apal eskatzen deutsugu, Jauna:
Jainkoaren Ama Maria Birjina dohatsuaren oroipena
jaieratsu ospatu dogunok
gozatu daigula zure salbazinoaren frutua.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

II. Abendualdian

Sarrera-ant.

Isuri goitik, zeruok, iruntza lez, isuri, hodeiok, garaipena euria lez!
Edegi bedi lurra, eta emon begi salbazinoa. Is 45, 8

Edo:

Aingeruak esan eutson Mariari: Jainkoak gogoko zaitu. Begira, sabelean sortu eta semea izango dozu, eta Goi-goikoaren Seme deituko deutsoe. Ik. Lk 1, 30-32

Otoitza

Zure Semeak, aingeruak esan eban lez,
Maria Birjina dohatsuaren sabelean
haragi hartzea nahi izan zenduan Jainkoa,
egizu, ha benetan Jainkoaren Ama dala sinisten dogunoi
lagundu deigula haren otoitzak zure aurrean.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Edo:

Oi Jainko, gurasoei agindua betez,
Maria Birjina dohatsua aukeratu zenduan
Salbatzailearen Ama izateko;
emoiguzu bera eredu hartuz bizitzeko grazia,
zure gogoko izan zan-eta apaltasunean
eta gure mesederako obedientzian.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa

Onartu, Jauna, emoitza honeek
eta bihurtu egizuz zeure ahalmenez salbazino-sakramentu;
irudi ziran asaben opariak indarra galdu ebela,
egiazko Bildotsa eskeintzen deutsugu:
Jesu Kristo zure Semea,
Birjina garbiagandik miragarriro jaioa.
Errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Prefazioa: Maria Birjina dohatsuaren I.a, 520. or., nahiz II_V. 522-525. or. Abendualdiko II. nahiz IV. prefazioa ere esan leiteke, 468. edo 471. or.

Jaunartze-ant.

Begira, birjina umedun dago eta semea izango dau, eta Emmanuel ipiniko deutsoe izena. Ik. Is 7, 14

Jaunartze ondorengoa

Jainko gure Jauna,
hartu dogun sakramentuak ekarri deigula beti zure errukia
eta gizon egin dan zure Semeak salbatu gaizala
haren Amaren oroitzapena leial goresten dogunok.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

III. Gabonaldian

Sarrera-ant.

Amak betiko izena dauan Erregea sortu dau, amatasunaren poza eta birjintasunaren ohorea alkartuz; holakorik ez da sekulan izan, ezta izango ere.

Edo:

Jainkoaren Ama Birjina santua: mundu osoak hartu ezin dauana, zure erraietan ezkutatu da gizon egina.

Otoitza

Maria dohatsua birjina izanik ama eginez,
gizadiari salbazinoa emon deutsazun Jainkoa,
egizu, laguntzaile ere izan daigula zure aurrean
beraren bidez lortu genduan-eta biziaren sortzailea
zure Seme Jesu Kristo gure Jauna.
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Edo:

Oi Jainko, zeure Hitza betidanik sortua,
Birjinaren sabeletik jaiotzea nahi izan zenduan;
egizu, Maria dohatsuaren otoitzari esker,
zure Semearen distirak argitu dagizala gure ilunpeak
eta emon deigula bere betearen betetik poza eta bakea.
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa

Zure Seme bakarra mundu honetan jaiotzearen bidez
eta Maria Birjina ama eginez
sagaratu zenduan ospatzen dihardugun aldi zoriontsu hau;
egizu, Jauna, opari honek egin gaizala gu santu
eta jaio gaitezala bizi barrira zure Semeagan.
Errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Prefazioa: Maria Birjina dohatsuaren I.a, 520. or., nahiz II-V.a, 522-525. or.

Jaunartze-ant. Zorionekoa Maria Birjinaren sabela, betiko Aitaren Semea eroan ebana. Ik. Lk 11, 27

Jaunartze ondorengoa

Gizon egindako zure Hitzaren Gorputz-Odolek
indartu gaitue, Jauna;
egizu, Maria Birjina dohatsuaren oroipena egitean
pozik hartu dogun sakramentuak emon deigula
zure Semearen jainkotasunean parte izatea betiko.
Errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

IV. Pazkoaldian

Sarrera-ant. Negarra dantza bihurtu deustazu, Jauna, dolu-jantzia jai-jantzi, aleluia. Sal 30 [29], 12

Otoitza

Jesu Kristo zure Seme eta gure Jaunaren biztueraz
mundua pozez bete zenduan Jainkoa,
egizu, haren Ama Maria Birjinaren otoitzari esker,
jadetsi daigula betiko biziaren zoriona.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa

Onartu, Aita guztiz santua,
Maria Birjina dohatsuaren oroitzapena ospatzean
pozez beterik egiten deutsugun opari apal hau,
eta egizu, Kristoren sakrifizioagaz bat egin dogunok
izan daigula orainaldirako kontsolamentu
eta betiko salbazino.
Errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Prefazioa: Maria Birjina dohatsuaren I.a, 520. or., nahiz II-V.a, 522-525. or.

Jaunartze-ant.

Poztu zaitez, Ama Birjina, biztu da-eta Kristo hilobitik, aleluia.

Jaunartze ondorengoa

Pazko-sakramentuaz aseturik, eskatzen deutsugu, Jauna,
zure Semearen Amaren oroipena ospatzen dogunok
agertu daigula geure giza izate hilkor honetan Jesusen biziera.
Errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Pazkoaldian, Santa Maria Apostoluen Erreginaren Meza ere erabili leiteke, jantzi gorriz, 1226. or.

MARTIRIEN BETIKOA

I. Pazkoaldiaz kanpo

A. Martiri batzurentzat

1

Sarrera-ant. Pozik dira zeruan Kristoren pausuei jarraitu eutsien santuak; Kristoganako maitasunaz euren odola isuri ebelako, poz betea dabe beragaz betiko.

Edo:

Gizon [emakume] santuek odol aintzagarria isuri eben Jaunagaitik, Kristo maitatu eben bizitzan eta haren antzeko izan ziran heriotzan; horregaitik, garaipenaren koroa merezidu izan eben.

Otoitza Lortu daigula, Jauna, geure otoitzen frutu pozgarria;
I. eta I. martiri santuen
urteroko oroipena egiten dihardugunok
gorde daigula, eurek lez, geure fedea.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa Onartu, Aita guztiz on horrek,
martiri santuen oroitzapenean dakartsuguzan emoitzak,
eta zeure zerbitzari gaituzunoi emoiguzu
zure izena autortzen sendo irautea.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Jaunartze-ant. Zuek Neugaz iraun dozue nire probaldietan. Eta Nik erreinua emoten deutsuet, dino Jaunak; neure mahaian jango eta edango dozue nire erreinuan. Lk 22, 28-30

Edo:

Handia izango da santuen saria Jainkoagan, Kristogaitik hil diralako betiko bizia izango dabe.

Jaunartze ondorengoa

Oi Jainko, martiri santuengan
harrigarriro agertu zenduan kurutzeko misterioa;
egizu onez, sakrifizio honek indarturik,
iraun daigula sendo Kristori lotuta
eta lan egin daigula Eleizan guztien salbazinorako.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

2

Sarrera-ant.

Zoritxar asko izaten dau zintzoak, baina guztietatik libratzen dau Jaunak. Hazur guztiak zaintzen deutsoz, bat bakarra ere ez deutsoe hausiko. Sal 34 [33], 20-21

Edo:

Honeek larrialdi handitik datozanak dira. Bildotsaren odolean garbitu dabez euren soinekoak. Oinazeetara eskeini ebezan euren gorputzak Jainkoagaitik, eta betiko koroa eskuratu eben.

Ik. Ap 7, 14; Dn 3, 95

Otoitza

Jainko ahalguztidun betikoa,
I. eta I. santuei
Kristogaitik martiritza sufritzeko grazia emon zeuntsen;
emoiozu gure izate makalari jainkozko zeure indarra,
hareek Zugaitik, bildur barik, euren bizia emon eben lez,
geu ere zure sinismenean sendo bizi gaitezan.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa

Atsegin izan bekizu, Jauna,
zure martiri ospetsuen omenez egiten dihardugun eskeintza;
garbitu dagizala gure pekatuak,
eta egin dagizala zure zerbitzarien asmoak zure asmoekin bat.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Jaunartze-ant. Ez dau inork maitasun handiagorik, bere bizia adiskideen alde emoten dauanak baino, dino Jaunak. Ik. Jn 15, 13

Edo:

Zuoi dinotsuet, ene adiskideoi: ez izan bildurrik erasotzen deutsuenei. Ik. Lk 12, 4

Jaunartze ondorengoa

Zeruko ogia harturik eta Kristogan gorputz bat eginik,
otoitz egiten deutsugu, Jauna:
ez gaitezala urrundu sekula Kristoren maitasunetik;
eta I. eta I. martiri santuek lez,
gainditu daiguzala adoretsu neke guztiak,
maite gaituan haregaitik.
Errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

3

Sarrera-ant. Jaunagandik dator zintzoen salbazinoa, Bera dabe gordelekua arrisku-sasoian. Sal 37 [36], 39

Edo:

Urrea arragoan lez garbitu zituan Jaunak, eta erre-opari lez onartu. Luzaroan iraungo dau hareen oroipenak, onginahia eta errukia daueta Jainkoak bere fededunentzat. Ik. Jkt 3, 6.9

Otoitza

Poztu gaizala, Jauna, gure martiri-talde honen garaipenak;
emon deiola gure fedeari indar handiagoa
eta kontsolatu gaizala era askotako laguntzaz.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Edo:

Jauna, I. eta I. martiri santuen otoitza
balia dakigula zure aurrean,
eta sendotu gaizala zure egiaren autormenean.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa

Onartu, Jauna, I. eta I. martiri santuak goresteko
egiten dihardugun eskeintza;
hareei erasoaldian indarra emon eutsen lez,
emon deigula guri estualdian iraupena.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Jaunartze-ant.

Bere bizia Nigaitik eta Barri Onagaitik galtzen dauanak gorde egingo dau, dino Jaunak. Mk 8, 35

Edo:

Gizakien eretxiz, zigorra jasan eben, baina hareek hilezkor izateko itxaropenez beterik egozan. Jkt 3, 4

Jaunartze ondorengoa

Iraunazo gugan, Jauna, zeure dohai santua;
eta I. eta I. martiri santuen jaia ospatzean
Zeuk emonik hartu dogunak
ekarri deigula salbazinoa eta bakea.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

4

Sarrera-ant.

Deadar egiten dabe zintzoek, eta Jaunak entzun, larrialdi guztietatik libratzen ditu. Sal 34 [33], 18

Edo:

Jaunaren itunagaitik eta asaben legeakaitik, sendo iraun eben Jainkoaren santuek senide-maitasunean, espiritu bera izan eben-eta beti eta fede bera.

Otoitza

I. eta I. santuen jaia
urtero ospatuz pozten gaituzun Jainkoa;
egizu, arren, hareen zerurako jaiotza ospatzen dogunok
agertu gaitezala eurak lez estualdietan sendo.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Edo:

I. eta I. martiri santuei
aintza handi honetara heltzeko grazia emon zeuntsen Jainkoa;
emoiguzu, euren otoitzen laguntzaz, pekatuen parkamena
eta estualdi guztietatik libre izatea.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa

Onartu, Jauna, I. eta I. santuen oroitzapen honetan
egiten deutsugun eskeintza;
hareei fedearen argia emon zeuntsen lez,
emoiguzu guri parkamena eta bakea.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Jaunartze-ant.

Heriotzara garoez Jesusegaitik, gure izate hilkor honetan Jesusen bizia ere agertu dadin. 2 Ko 4, 11

Edo:

Ez bildur izan gorputza hil bai, baina bizia kendu ezin dabenei, dino Jaunak. Mt 10, 28

Jaunartze ondorengoa

I. eta I. martiri santuen egunean
hartu dogun sakramentu honen bidez,
emoiguzu ugari, Jauna, zeure grazia;
egizu, euren lehia eta burruka gogorretik ikasi daigula
bai eroapen sendokoak izaten, bai garaipen santuaz pozten.
Jesu Kristo gure Jkaunaren bitartez.

5

Sarrera-ant. Martiri santuek Kristogaitik isuri eben euren odola lurrean; horregaitik, betiko saria irabazi dabe.

Edo:

Zintzoen bizitza Jainkoaren eskuetan dago, ez ditu ezelako oinazek harrapatuko. Zentzunbakoen begietan hilda egozan behin betiko, baina zintzoak bakean dagoz. Jkt 3, 1-2.3

Otoitza

Erruki zakiguz, Jauna, eta gehitu gure sinismena;
sinismen horrek I. eta I. martiri santuei,
odola isurtzeraino autortu ebelako,
ospea emon eutsen lez,
guri ere, fede horretan azkeneraino iraunez,
santutasuna lortu deigula.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa

Begira, Jauna, begi onez gure sakrifizio honi,
eta egizu, I. eta I. santuen antzera
hartu daigula parte fede handiz
orain sakramentuz ospatzen dogun zure Semearen nekaldian.
Errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Edo:

I. eta I. santuen garaipen-egunean
egiten dogun eskeintzak, Jauna,
sutu daiala gure bihotza eten barik zure maitasun-garrez;
eta gai egin gaizala,
azkeneraino zintzo irauten dabenei
agindu deutsezun saria hartzeko.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Jaunartze-ant. Ez heriotzak, ez biziak, ez beste ezelako izakik, ez gaitu aldenduko Jainkoak Jesu Kristogan agertu deuskun maitasunetik.
Ik. Erm 8, 38-39

Edo:

Zuen buruko uleak ere zenbatuak ditu Jainkoak. Ez, bada, bildur izan; txori guztiek baino gehiago balio dozue zuek.
Ik. Mt 10, 30-31

Jaunartze ondorengoa

Zure Seme bakarraren Gorputz-Odolez
janaritu gaituzu, Jauna,
I. eta I. martiri santuen egun honetan;
emoiguzu, maitasun sendoz Zugan irautea,
Zugandik bizitzea eta Zugana joatea.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

B. Martiri bakarrarentzat

1

Sarrera-ant. Santu honek heriotzarainoko burruka egin eban bere Jainkoari leial izateagaitik; ez eben ikaratu arerioen amenazuek, hatx sendoa eban-eta oinarri.

Edo:

Burruka gogorraren bidez probatu eban Jaunak, garaitzen ikasi egian, beste ezer baino ahaltsuagoa da-eta jakituria. Ik. Jkt 10, 12

Otoitza

Jainko ahalguztidun errukitsua,
zeure indarra emon zeuntsan I. martiri santuari
bere nekaldiko oinazeak jasateko;
emoiguzu zeure laguntza
haren garaipen-eguna ospatzen dihardugunoi
arerioen zirikaldietatik nagusi urten daigun.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa

Isuri egizu, Jauna, zeure bedeinkazinoa
gure emoitza honeen gainera;
zure maitasunak sutu gaizala,
maitasun horren indarrez garaitu zituan-eta
I. santuak bere gorputzeko oinazeak.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Edo:

Onartu, Jauna, I. martiri santuaren oroitzapenean
egiten deutsugun eskeintza;
izan bekizu atsegin,
haren odol-isurtzea atsegin izan jatzun lez.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Jaunartze-ant.

Nire ondoren etorri nahi dauanak uko egin begio bere buruari, hartu begi bere kurutzea eta jarraitu beit, dino Jaunak. Ik. Mt 16, 24

Edo:

Bere bizia Nigaitik galtzen dauanak, dino Jaunak, eskuratu egingo dau betiko. Ik. Mt 10, 39

Jaunartze ondorengoa

Hartu dogun Eukaristiak indartu gaizala, Jauna,
I. martiri santua indartu eban lez,
bai zure zerbitzuan leial agertzeko,
bai bere nekaldian sendo irauteko.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

2

Sarrera-ant.

Hauxe da egiazko martiria, Kristoren izenagaitik bere odola isuri ebana; epaileen amenazuei ez eutsen bildurrik izan, eta, holan, zeruetako erreinura heldu zan.

Edo:

Dana galdu eban Kristo ezagutzeagaitik; haren partaide egin zan nekeetan, eta haren antzeko heriotzan. Ik. Flp 3, 8.10

Otoitza

Jainko ahalguztidun betikoa,
zuzentasunagaitik heriotzaraino burrukatzeko indarra
emon zeuntsan I. santuari;
egizu, haren otoitza lagun dogula,
jasan daiguzala zure maitasunagaitik estualdi guztiak
eta joan gaitezala Zeugana kementsu,
Zeu bakarrik zaitugu-eta bizi-iturria.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa

Jainko guztiz ona, bedeinkatu egizuz gure oparigai honeek;
eta sendotu egizu gugan, I. santuak
bere odola isuriz autortu eban sinismena.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Edo:

Eskeintza hau, Jauna, I. zure martiri santuaren
oroipena ospatzeko egiten deutsugu:
ezelako tentaldik ez eban-eta berau
Kristoren gorputzaren batasunetik aldendu.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Jaunartze-ant.

Neu naz mahatsondoa eta zuek aihenak, dino Jaunak; nonor Nigan badago, Ni harengan lez, harek frutu asko emongo dau.

Ik. Jn 15, 1.5

Edo:

Niri jarraitzen deustana ez da ilunpean ibiliko; izango dau bizirako argia, dino Jaunak. Jn 8, 12

Jaunartze ondorengoa

Zeure sakramentuaz indarbarritu gaituzu, Jauna;
egizu, I. santuaren iraupen miresgarri bera izanez,
lortu daigula iraupen horri agindutako betiko saria.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

II. Pazkoaldian

A. Martiri batzurentzat

1

Sarrera-ant. Zatoze, nire Aitaren bedeinkatuok; hartu egizue munduaren sortzetik zuentzat prestaturik dagoan erreinua, aleluia. Ik. Mt 25, 34

Edo:

Soineko zuriz jantzirik dagozan horreek larrialdi handitik datozenak dira. Bildotsaren odolean garbitu dabez euren soinekoak, aleluia.
Ik. Ap 7, 13-14

Otoitza Jainko ahalguztiduna, I. eta I. martiri santuak
zure hitzaren autorle eta Jesusen testigu egin zenduzan,
bizia Zugaitik emoteraino;
emoiguzu Espiritu Santuaren indarra,
sinismenean leial iraun daigun
eta zure izenaren autormenean sendo.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Edo:

Sinismenean sendo eta makaltasunean indartsu
egiten gaituzun Jainkoa,
emoiguzu, I. eta I. martirien ikasbideari eta otoitzari esker,
zure Semearen nekaldian eta biztueran bat egitea,
zorion betea ere izan daigun, eurekin batera, zure ondoan.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa

Zure santuen heriotza baliotsua gogoratuz, Jauna,
martiritzaren iturri eta eredu dan sakrifizioa
eskeintzen deutsugu.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Jaunartze-ant.

Garaileari Jainkoaren paradisuan dagoan biziaren zuhaitzeko frutuetatik emongo deutsat jaten, aleluia. Ap 2, 7

Edo:

Poztu zaiteze zintzook, Jaunagan, zuzenei dagokie, izan ere, ha gorestea, aleluia. Ik. Sal 33 [32], 1

Jaunartze ondorengoa

Zeruko jatordu honegaz, Jauna,
I. eta I. martirien garaipena ospatu dogu;
egizu, biziaren ogia jan dogunok
kristau-burrukaldian garaile izan gaitezala
eta, garaile izanik,
lortu daigula zeruan biziaren zuhaitzetik jatea.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

2

Sarrera-ant.

Honeexek dira Bildotsaren odolaz garaile urten eben santuak; nahiago izan eben heriotzea, bizia baino; horregaitik, Kristogaz errege dira betiko, aleluia. Ik. Ap 12, 11

Edo:

Poztu zaiteze, santuok, Bildotsaren aurrean; hartu egizue munduaren sortzetik zuentzat prestaturik dagoan erreinua, aleluia. Ik. Mt 25, 34

Otoitza

Poztu gaizala, Jauna,
I. eta I. martiri santuen oroipenak,
heriotza aintzatsuan
euren odola isurtzerainoko indarra emon zeuntsen-eta,
zure Semearen nekaldia eta biztuera agirian autortu egien.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa

Begira, Jauna, begi onez gure emoitza honeei;
Espiritu Santuak santu egin dagizala bere bedeinkazinoaz
eta sortu dagiala gure bihotzean maitasun bizia,
I. eta I. martiri santuen antzera
gorputzeko oinaze guztiak garaitzeko gai izan gaitezan.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Jaunartze-ant.

Kristogaz hiltzen bagara, beragaz biziko gara; beragaz sufritzen badogu, beragaz izango gara errege, aleluia. Ik. 2 Tm 2, 11-12

Edo:

Poztu zaiteze eta alaitu, handia izango da-eta zuen saria zeruetan aleluia. Mt 5, 12

Jaunartze ondorengoa

Jauna, I. eta I. martiri santuen oroitzapen honetan
ogi beretik jan dogunok eskatzen deutsugu:
iraun daigula beti maitasunean
eta, gizon-emakume barri eginik,
ibili gaitezala bizitza barriko bidean.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

B. Martiri bakarrarentzat

Sarrera-ant.

Betiko argiak egingo deutse argi zure santuei, Jauna, eta betieran biziko dira, aleluia. Ik. 4 Esd 2, 35

Edo:

Hona hemen bere burrukaldian Jainkoak eskutik itzi ez eban martiria; Jaunaren aginduetan leial iraunez garaipena lortu ebalako, koroatua da orain, aleluia.

Otoitza

I. santua martiri-koroaz apainduz
zeure Eleiza edertu zenduan Jainkoa,
egizu, arren, harek Jesusi nekaldian jarraitu eutson lez,
guk, haren pausuei jarraituz,
lortu daigula betiko zoriona.

Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa

Onartu, Jauna, ospatzen dihardugun
bake- eta gorapen-sakrifizio hau;
I. martiri santuaren oroitzapenean eskeintzen deutsugu,
parkamena jadetsi deigun
eta beti esker oneko egin gaizan.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Jaunartze ant.

Galgaraua, lurrean jausi eta hiltzen ez bada, bera bakarrik gelditzen da; baina, hiltzen bada, frutu asko emoten dau, aleluia. Jn 12, 24

Edo:

Balio handikoa da Jaunaren begietan haren fededunen heriotzea, aleluia. Ik. Sal 116 [115], 15

Jaunartze ondorengoa

Zerutar zure dohaiak hartu ditugu, Jauna,
I. santuaren jaia pozik ospatzean;
egizu, jatordu santu honetan
zure Semearen heriotzea aldarrikatzen dogunok
izan gaitezala bat haren biztueran eta aintzan
zure martiri santuekin batera.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

III. Misiolari martirientzat

A. Misiolari martiri batzurentzat

Sarrera-ant.

Jainkoak libratu gaizala harrotzetik, Jesu Kristo gure Jaunaren kurutzean izan ezik, kurutzeko heriotzaren mezua Jainkoaren indarra da-eta salbatuak izan garanontzat (P.a. aleluia).
Ik. Ga 6, 14; ik. 1 Ko 1, 18

Otoitza

Jainko ahalguztidun errukiorra,
zure bihotz onari otoitz egiten deutsagu:
I. eta I. martiri santuen predikuaren bidez
herriei Jesu Kristo zure Semea ezagutzea emon zeuntsen lez,
emoiezu, baita ere, euren otoitza lagun, fedean sendo irautea.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa

I. eta I. martirien nekaldia ospatzen dihardugu;
egizu, Jauna, iragarri daigula, sakrifizio honetan,
zure Seme bakarraren heriotzea era egokian,
indarra emon eutsen-eta harek bere testigu izateko,
bai hitzez, bai bizieraz.
Errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Jaunartze-ant.

Zorionekoak zuzentasunagaitik erasoa jasaten dabenak, eurena dabe-eta zeruetako erreinua (P.a. aleluia). Mt 5, 10

Edo:

Jentearen aurrean autortzen nauana autortuko dot Neuk ere zeruko neure Aitaren aurrean, dino Jaunak (P.a. aleluia). Mt 10, 32

Jaunartze ondorengoa

Zeruko gozoa emon deuskuzu janari, Jauna;
egizu, I. eta I. santuek lez
eroan daiguzala bihotzean
zure Semearen maitasunaren eta nekaldiaren seinaleak,
eta gozatu daigula eten barik betiko bakearen frutua.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

B. Misiolari martiri bakarrarentzat

Sarrera-ant.

Martiri santu honek, Kristoren aldeko lanagaitik, arriskuan jarri eban bizia heriotzaraino (P.a. aleluia). Ik. Flp 2, 30

Otoitza

Jainko ahalguztiduna, fedea zabaltzeagaitik
martirien koroa merezidu izan eban I. santuak;
egizu, benetan maitatu daigula eta zaindu
geuk ere sinismen hori.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa

I. martiri santuaren eguna ospatzean,
zure altarara ekarri doguz, Jauna, oparigaiak;
egizu, Jaunaren nekaldiko misterioak ospatzen doguzanok
sakramentuz egina bete daigula bizitzan.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Jaunartze-ant.

Bere bizia Nigaitik eta Barri Onagaitik galtzen dauanak gorde egingo dau, dino Jaunak (P.a. aleluia). Mk 8, 35

Jaunartze ondorengoa

Zerutar jatordua ospaturik, arren eskatzen deutsugu, Jauna:
I. martiri santuaren oroipenak eragin deigula
eta haren otoitz sutsuak eroan gaizala
hain fede handiaren ereduari jarraitzera.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

IV. Birjina martiriarentzat

Sarrera-ant.

Gugaitik kurutzeratua izan dan Bildotsari jarraitu deutso birjina adoretsuak, garbitasunaren eta kastitatearen opari eginez bere burua, bildur barik (P.a. aleluia).

Edo:

Zorionekoa, bere burua ukatu eta kurutzea hartuz, birjinen senarra eta martirien buruzagia dan Jaunari jarraitu deutson birjinea (P.a. aleluia).

Otoitza

Birjina martiri batzurentzat:

Oi Jainko, gaur [I. eta I.] birjina eta martiri santuen urteroko oroitzapenaz pozten gaituzu; egizu, arren, hareen irabaziek lagundu deiguela, euren garbitasunaren eta kemenaren distirak argitzen gaituan lez.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez, Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Birjina martiri bakarrarentzat:

Oi Jainko, gaur I. birjina eta martiri santuaren urteroko oroitzapenaz pozten gaituzu; egizu, arren, haren irabaziek lagundu deiguela, haren garbitasunaren eta kemenaren distirak argitzen gaituan lez.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez, Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa

Birjina martiri batzurentzat:

Atsegingarri izan bekizu, Jauna, [I. eta I.] santuen egunean egiten dihardugun eskeintza, euren martiritza atsegingarri izan jatzun lez.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Birjina martiri bakarrarentzat:

Atsegingarri izan bekizu, Jauna, I. santuaren egunean egiten dihardugun eskeintza, beraren martiritza atsegingarri izan jatzun lez.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Jaunartze-ant.

Tronuaren erdian dagoan Bildotsak janarituko ditu eta ur biziko iturrietara eroango (P.a. aleluia). Ap 7, 17

Jaunartze ondorengoa

Birjina martiri batzurentzat:

Oi Jainko, santuen koroa emon zeuntsen [I. eta I.] santuei birjina eta martiri izan ziralako; emoiguzu, sakramentu honen indarrez,

Birjina martiri bakarrarentzat:

Oi Jainko, santuen koroa emon zeuntsan I. santuari birjina eta martiri izan zalako; emoiguzu, sakramentu honen indarrez, gatx guztiak

gatx guztiak gainditurik, lortu daigula zeruko ospea. Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

gainditurik, lortu daigula zeruko ospea. Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

V. Emakume santu martiriarentzat

Sarrera-ant. Mundu honetako bizitzari gitxi eretxi, erreinuko saria lortzera heldu eta euren soinekoak Bildotsaren odolean garbitu dabezan honeena da zeruetako erreinua (P.a. aleluia).

Emakume martiri batzurentzat:

Otoitza Makal dagozanak zeure dohaiez indartzen dituzun Jainkoa, [I. eta I.] santuek Zugandik hartu eben garaile urteteko kemena; eiguzu, hareen oroipena ospatzen dogunoi, Zugandik lortu deiguela beti garaile urteteko grazia.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez, Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Emakume martiri bakarrarentzat:

Makal dagozanak zeure dohaiez indartzen dituzun Jainkoa; I. santuak Zugandik lortu eban garaile urteteko kemena; eiguzu, haren oroipena ospatzen dogunoi, Zugandik lortu deigula beti garaile urteteko grazia.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez, Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Emakume martiri batzurentzat:

Oparigaien gainekoa Jauna, pozik dihardugu Zuri gaurko sakrifizio hau eskeintzen; [I. eta I.] santuen zeruko garaipena gogoratzean, zure egintza miraga-

Emakume martiri bakarrarentzat:

Jauna, pozik dihardugu Zuri gaurko sakrifizio hau eskeintzen; I. santuaren zeruko garaipena gogoratzean, zure egintza miragarriak aldarri-

rriak aldarrikatzen doguz eta halako laguntzaile aintzatsuak emon deuskuzuzalako pozten gara.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

katzen doguz eta halako laguntzaile aintzatsua emon deuskuzulako pozten gara.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Jaunartze-ant. Nahiago izan eben heriotzea, bizia baino. Poztu zaiteze, beraz, zeruok, eta hareetan bizi zarienok (P.a. aleluia). Ap 12, 11-12

Emakume martiri batzurentzat:

Jaunartze ondorengoa

Zerutar atseginak hartu ditugu, Jauna, sakramentu hau ospatuz eta [I. eta I.] santuak goratuz; apalik eskatzen deutsugu, Zuri esker eta Zeu leial zerbitzeko ospatu dogun sakramentu honen ondorenak hartu daiguzala.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Emakume martiri bakarrarentzat:

Zerutar atseginak hartu ditugu, Jauna, sakramentu hau ospatuz eta I. santua goratuz; apalik eskatzen deutsugu, Zuri esker eta Zeu leial zerbitzeko ospatu dogun sakramentu honen ondorenak hartu daiguzala.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

ELEIZ ARTZAINEN BETIKOA

I. Aita santuarentzat nahiz gotzainarentzat

1

Sarrera-ant. Jaunak abade nagusi aukeratu eban beretzat, eta ondasun guztiak isuri zituan haren gainera (P.a. aleluia).

Edo:

Hona, bere bizitzan Jainkoari atsegin emon eutson abade nagusia; horregaitik, zin eginez, handi egin eban bere herrian Jaunak (P.a. aleluia). Ik. Si 50, 1; 44, 16.22

Aita santuarentzat:

Otoitza Jainko ahalguztidun betikoa,
I. santua zure herri osoaren buru
eta hitzez eta ejenpluz
harentzat onuragarri izatea nahi izan zenduan;
beraren erreguei esker,
zaindu egizuz Eleizaren artzainak
eta euren ardurapeko artaldeak,
eta gidatu betiko salbazinorako bidean.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Gotzainarentzat:

Oi Jainko, I. gotzain santuagan
artzain onaren jarraibidea emon zeuntsan zeure Eleizeari;
egizu, haren otoitza lagun dogula,
zure larreetan izan gaitezala betiko.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa

Egizu, Jauna, I. santuaren egunean
zure herriak Zeu goresteko eskeintzen dauan sakrifizioa
izan dadila guretzat salbagarri.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Jaunartze-ant.

Artzain onak bere bizia emon eban ardien alde (P.a. aleluia).
Ik. Jn 10, 11

Jaunartze ondorengoa

Jainko gure Jauna, hartu dogun sakramentu honek
biztu dagiala gugan maitasunaren garra,
gar handi horrek sutu eban-eta I. santua,
zure Eleizearen ardurea gogotik bere gain hartzeko.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

2

Sarrera-ant.

Jaunak bake-ituna egin eban haregaz, eta herriaren buru jarri eban,
abade izan zedin betiko (P.a. aleluia). Ik. Si 45, 30

Aita santuarentzat:

Otoitza

Oi Jainko, I. santua
Eleiza osoaren buru eta artzain izateko,
distiratsu egin zenduan bizitzaren eta irakaspenen ederrez;
egizu, halako gotzainaren merezimentuak
goresten dihardugunok
geure egintza onez argi izan gaitezala
gizon-emakumeen aurrean
eta maitasunez sutsu zure aurrean.

Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Aita santuarentzat:

Oi Jainko,
Zuk ezarri zenduan I. santua Pedroren ondorengo,
eta mundu guztiko Eleizaren ardurea emon zeuntson;
haren otoitzari esker eskatzen deutsugu,
zaindu daizula beti zeure artalde maitea,
fede osoz eta benetako maitasunez
aurrera egin dagian zerurako bidean.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Gotzainarentzat:

Jainko ahalguztiduna, emoiguzu
I. gotzain santuaren oroipena ondo ospatzea;
ha bere Eleizarentzat hitzez eta ikasbidez
onuragarri izatea nahi izan zenduan lez,
sumatu daigula harek zure aurrean
egindako otoitzaren laguntza.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa

Egizu, Jauna, gure onerako izan dadila
I. santuaren jaia ospatzeko
egiten dihardugun eskeintza,
opari honen bidez parkatu dituzu-eta
mundu guztiaren pekatuak.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Jaunartze-ant. Jauna, Zuk dana dakizu; Zuk badakizu maite zaitudana (P.a. aleluia).

Jn 21, 17

Jaunartze ondorengoa

Jainko Jauna, I. santuaren jai honetan
hartu doguzan dohaien indarrak
ekarri dagiala gugan bere frutua;
emon deigula bizitza hilkor honetarako laguntza
eta jadetsi betiko zorionaren poza.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

II. Gotzainarentzat

1

Sarrera-ant. Ni Neu egingo naz artaldearen kargu, dino Jaunak, eta artzain bat jarriko deutset janaritu dagizan; Neu, Jauna, izango nabe Jainko (P.a. aleluia).

Ik. Ez 34, 11.23-24

Edo:

Hauxe da etxezain leiala eta zentzunduna, Jaunak, bere orduan behar dan janaria banatzeko, morroien buru ipini dauana (P.a. aleluia).

Ik. Lk 12, 42

Otoitza

Jainko ahalguztidun betikoa,
zeure herri santuaren gotzain ezarri zenduan I. santua;
emoiguzu, honen otoitza lagun dogula,
zeure errukiaren grazia.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Edo:

Jainko ahalguztidun betikoa,
zeure Eleiza santuaren gotzain ezarri zenduan I. santua;
egizu, harek zure Espirituaren argiaz irakatsi ebana
sendotu dadila gure bihotzetan,

eta, Zeuk emonda, zaindari doguna izan daigula babesle,
errukitsu zaitugun horren aurrean.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa

Begira, Jauna, bihotz onez
I. santuaren jaia ospatzeko
altarara ekarri deutsugun eskeintzari:
ekarri deigula guri parkamena
eta emon deizula Zuri gorespena.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Jaunartze-ant.

Ez ninduzuen zuek aukeratu Ni, dino Jaunak, Neuk aukeratu zinduedazan zuek, eta eginkizun hau emon deutsuet: frutu ugaria eta iraunkorra emon dagizuela edonon (P.a. aleluia). Jn 15, 16

Edo:

Zorionekoa nagusiak, etxera heldu eta atea jotzean, bere zeregin-etan zuhur aurkitzen dauan morroia! (P.a. aleluia). Ik. Lk 12, 36-37

Jaunartze ondorengoa

Sakramentu santu honek indarbarriturik, Jauna,
apalik otoitz egiten deutsugu:
I. santuaren ikasbideak eraginik,
ahalegindu gaitezala harek sinistu ebana autortzen
eta harek irakatsi ebana bizitzen.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

2

Sarrera-ant.

Abade zintzo bat sortuazoko dot, nire bihotzaren eta gogoaren arabera jardungo dauana, dino Jaunak (P.a. aleluia). 1 Sm 2, 35

Edo:

Etxezain leiala eta zentzunduna ipini eban etxe-nagusi handiak, bere orduan behar dan janaria emon egien morroi-lagunei (P.a. aleluia). Ik. Lk 12, 42

Otoitza

Oi Jainko, era miresgarrian
artzain santuen taldeko egin zenduan I. santua,
eta maitasunean gartsu izan zan
eta mundua garaitzen dauan fedean miragarri;
egizu, haren otoitza lagun dogula,
fedean eta maitasunean iraunez,
izan gaitezala aintzan haren kideko.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Edo:

Jainko Jauna,
zerutik datorren irakaspenez jantzi zenduan I. santua;
emoiguzu, otoitzean bera lagun dogula,
irakaspen hori leial gordetzea eta bizitzaz autortzea.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa

Onartu, Jauna, I. santuaren jaia ospatzean
zure herriak egiten deutsun eskeintza;
egizu, sentidu daigula, honen bidez,
itxaroten dogun zure errukiaren laguntza.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Jaunartze-ant.

Bizia izan dagien etorri naz Ni, bizia ugari izan dagien, dino Jaunak (P.a. aleluia). Jn 10, 10

Edo:

Nigan sinisten dabenek seinale honeek izango dabez lagun, dino Jaunak: deabruak botako dabez, eta gaixoei eskuak ezarri eta osatu egingo dira. Ik. Mk 16, 17-18

Jaunartze ondorengoa

Jainko gure Jauna, Kristoren Gorputz santuaz
eta Odol baliotsuaz janaritu gaituzu;
sakramentuz ospatu doguna betiko salbazino izan daigula.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

III. Eleiz artzainentzat

A. Eleiz artzain batzurentzat

Sarrera-ant.

Neure gogoko buruzagiak emongo deutsuedaz, jakituriaz eta zuhurtasunez gidatuko zaitueen buruzagiak (P.a. aleluia). Jr 3, 15

Edo:

Jaunaren abadeok, bedeinkatu egizue Jauna; santu eta bihotz-apalok, goratu Jainkoa (P.a. aleluia). Ik. Dn 3, 84.87

Otoitza

Zure herria larratzeko
I. eta I. [gotzain] santuak
egiaren eta maitasunaren espirituz bete zenduzan Jainkoa;
egizu, jai honetan goresten ditugun honeen
antzeko izan gaitezala,
eta euron otoitzaren laguntzaz aurrera egin daigula.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa

Zure santuak gogoratuz, Jauna,
gorespen-opari hau eskeintzen deutsugu:
sinisten dogu opari honek atarako gaituala
oraingo eta geroko gatxetatik.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Jaunartze-ant.

Gizonaren Semea ez da etorri zerbidua izatera, zerbitzari izatera baino, eta bere bizia guztien ordainsari emotera (P.a. aleluia). Mt 20, 28

Jaunartze ondorengoa

I. eta I. zure santuen oroipena eginez,
zerutar sakramentua hartu dogu, Jauna;
egizu, orainaldian egin dogun eleizkizun honen bidez,
heldu gaitezala betiko zorionera.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

B. Eleiz artzain bakarrarentzat

1

Sarrera-ant.

Jantzi beitez zure abadeak garaipenez, Jauna, ekin begioe pozez oihuka zure fededunek (P.a. aleluia). Sal 132 [131], 9

Otoitza

Jainko ahalguztiduna, ahuspez eskatzen deutsugu,
I. zure [gotzain] santuaren otoitza lagun,
emon deiguzuzala ugari zeure dohaiak
eta eratu daizuzala bakean gure egunak.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa

Onartu, Jauna, I. santuaren oroitzapenean
zure altaran egiten dihardugun eskeintza;
eta sakramentu honen bidez hari ospea emon zeuntsan lez,
emoiguzu guri parkamena.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Jaunartze-ant.

Zorionekoa Jaunak, heltzean, zuhur aurkituko dauan zerbitzaria! Benetan dinotsuet: bere ondasun guztien buru ipiniko dau (P.a. aleluia). Ik. Mt 24, 46-47

Edo:

Hauxe da etxezain leiala eta zentzunduna, Jaunak, bere orduan behar dan janaria banatzeko, morroien buru ipini dauana (P.a. aleluia). Ik. Lk 12, 42

Jaunartze ondorengoa

Jainko ahalguztiduna,
I. santuaren jaia ospatzean,
zerutar mahaian parte hartu dogu;
egizu, honi esker,
sendotu eta handitu daitezala gugan goi-indarrak,
fedearen dohaia osorik zaindu daigun
eta erakutsi deuskuzun salbazino-bidean ibili gaitezan.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

2

Sarrera-ant.

Jaunaren Espiritua nire gainean dago, harek igurtzi nau-eta, behartsuei Barri Ona emotera bialdu nau, bihotz-hausiak osatzera (P.a. aleluia). Ik. Lk 4, 18

Edo:

Jaunak bere abade egin eban, gorespen-opariak eskeintzeko (P.a. aleluia). Ik. Si 45, 20

Otoitza

Oi Jainko,
zeure fededunen argi eta arimen artzain zarana,
zure artaldea bere hitzez larratzeko
eta bere ikasbidez zuzentzeko eginkizuna
emon zeuntsan I. [gotzain] santuari;
emoiguzu, haren otoitzari esker,
hitzez irakatsi eban fedea zaintzea
eta agertu euskun bideari jarraitzea.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa

Jainko ahalguztiduna, apalik eskatzen deutsugu:
I. santua [dohatsua] goresteko egiten dihardugun eskeintzak
jainkozko zure ahalmenaren aintza adierazoten dauan lez,
emon deigula zure salbazinoaren frutua ere.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Jaunartze-ant. Ni zeuokin izango nozue egunero munduaren azkenera arte, dino Jaunak (P.a. aleluia). Mt 28, 20

Jaunartze ondorengoa

Hartu dogun sakramentuak gai egin gaizala, Jauna,
I. santuak zerbitzu leialez
irabazitako zoriona lortzeko.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Edo:

Jainko ahalguztiduna,
jaunartze honen bidez indarbarritu gaituzu;
egizu, I. santuaren bideari jarraituz
izan gaitezala zure zerbitzari leial
eta maitatu daiguzala geure senideak aspertu barik.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

IV. Eleiz fundatzaileentzat

A. Eleiz fundatzaile bakarrarentzat

Sarrera-ant. Hauxe dino Jaunak: Ahoan jarri deutsudazan neure hitzak ez dira zure ahotik aldenduko, eta onartuko ditut neure altara gainean zure erre-opariak eta sakrifizioak (P.a. aleluia). Ik. Is 59, 21; 56, 7

Otoitza

Jainko ahalguztidun errukitsua,
I. santuaren predikuaz
gure asabak argitu zenduzan;
egizu, kristau-izena ospetzat dogunok
agertu daigula eten barik geure egintzetan
autortzen dogun fedea.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Edo:

Begira, Jauna,
I. [gotzain] santuak egiaren hitzaz sortu
eta biziaren sakramentuaz janaritu eban zeure familiari;
zure graziak, haren lanen bidez, fededun egin zituanak
egin dagizala, haren otoitzen bidez, maitasunean gartsu.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa

Jainko ahalguztiduna,
egizu, I. santuaren oroitzapenean
egiten dihardugun zure herriaren sakrifizio honek
egin gaizala aberats zeruko dohaiez.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Jaunartze-ant.

Gizonaren Semea bere bizia guztien alde ordainsari emotera etorri da (P.a. aleluia). Ik. Mk 10, 45

Edo:

Inork ezin leike ipinita dagoan oinarria besterik ipini; eta oinarri hori Jesu Kristo da (P.a. aleluia). 1 Ko 3, 11

Jaunartze ondorengoa

Betiko salbazinoaren agiria hartu dogu, Jauna,
I. santuaren jaiegun pozgarri honetan;
izan bekigu, arren, oraingo eta geroko bizitzarako laguntza.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

B. Eleiz fundatzaile batzurentzat

Sarrera-ant.

Honeexek dira gizon santuak, Jaunak zinezko maitasunez aukeratuak; betiko aintza emon deutse eta euron irakaspenaz distira egiten dau Eleizak (P.a. aleluia).

Otoitza

Begira, Jauna, begi onez zeure Eleizari;
I. eta I. santuen apostolu-garrari esker
kristau-fedearen hasiera emon zeuntsan lez,
emoiozu, euron laguntzaz,
bere kristau-izatea aspertu barik maitatzea.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Edo:

Oi Jainko,
I. eta I. [gotzain] santuak predikari zirala
dei egin zeuntsen gure asabei Ebanjelioaren argi harrigarrira;
egizu, euren otoitzari esker, egin daigula beti aurrera
Jesu Kristo gure Jaunaren eta zure Semearen
grazian eta ezagueran.
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa

Onartu, Jauna, I. eta I. santuen jaia ospatzeko,
zure herriak ekarri deutsuzan oparigaiak;
egizu, gure bihotz zintzoagaitik
izan gaitezala zuretzat atsegingarri.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Jaunartze-ant.

Aurrerantzean ez deutsuet morroi deituko, morroiak ez dau-eta jakiten nagusiak zer egiten dauan, dino Jaunak; zuei adiskide deitzen deutsuet, neure Aitak jakinazo deustan guztia adierazo deutsuet-eta (P.a. aleluia). Jn 15, 15

Edo:

Zuek, Jainkoak beretzat eskuratutako herri zarie; iragarri egizuez ilunpetatik bere argi zoragarrira deitu deutsuen Jainkoaren egintza bikainak (P.a. aleluia). Ik. 1 P 2, 9

Jaunartze ondorengoa

Poztu gaizala, Jauna, I. eta I. santuen jaiegun honetan
altaratik hartu dogun zure salbazino-agiriak;
holan, zure dohaiak bilatuz,
gure fedearen hasiera pozgarria ospatzen dogu
eta zure santuengan Zu miresgarri zarala autortzen.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

V. Misiolarientzat

Misiolari martirientzat, 959-961. or.

1

Sarrera-ant.

Honeexek dira gizon santuak, Jainkoaren adiskideak, jainkozko egiaren mezulari ospetsuak (P.a. aleluia).

Edo:

Nazinoen artean goratuko zaitut, Jauna, iragarriko deutset zure izena neure senideei (P.a. aleluia). Sal 18 [17], 50; 22 [21], 23

Otoitza

Oi Jainko,
I. [gotzain] santuaren bidez, jentil herriei
ilunpeetatik egiaren argira
etortzeko grazia emon deutsezu;
emoiguzu, haren laguntzaz, sendo irautea,
bai fedean,
bai harek iragarri eban Ebanjelioagazko itxaropenean.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Edo:

Jainko ahalguztidun betikoa, egun pozgarri hau
I. santua aintzatsu autortuz sagaratu zenduan;
egizu, harek ardurarik handienaz eten barik autortu eban fedea
gorde daigula guk beti
eta ahalegindu gaitezala egintzetan betetzen.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa

Jainko ahalguztiduna,
onartu I. santuaren jaia ospatzean
egiten deutsugun eskeintza,
eta egizu, Jaunaren nekaldiko misterioak ospatzen doguzanok
sakramentuz egina bete daigula bizitzan.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Jaunartze-ant. Nik Neuk larratuko ditut ardiak eta Neuk hartuazoko deutset atseden, dino Jaunak (P.a. aleluia). Ez 34, 15

Edo:

Gau-ilunez esaten deutsuedana esan zuek egun-argiz, dino Jaunak, eta belarrira entzuten dozuena iragarri etxe gainetik (P.a. aleluia). Mt 10, 27

Jaunartze ondorengoa

Jauna,
I. santuak azkeneraino lan eginez,
bere bizia emon eban egiaren fedea zabaltzen;
sakramentu honen indarrez, sendotu egizu gugan fede hori
hitzez eta egitez alde guztietan autortu daigun.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

2

Sarrera-ant. Bai ederrak dirala mendi gainetan albistariaren oinak! Bakea aldarrikatzen dau, zorionaren barri ona emoten eta salbazinoa iragartzen (P.a. aleluia). Is 52, 7

Otoitza

Oi Jainko,
I. santuaren erlijino-zaletasunez
eta apostolu-arduraz zabaldu zenduan zeure Eleiza;
egizu, haren otoitzari esker, barritu eta hazi dadila
egunetik egunera fedean eta santutasunean.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa

Entzun, Jauna, bihotz onez gure otoitzak
eta askatu gaizuz erru guztitik;
egizu, garbi egiten gaituan zure grazia lagun,
ospatzen dihardugun sakramentuak emon deigula bizi barria.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Jaunartze-ant.

Zoaze mundu guztira eta iragarri Barri Ona; Ni zeuokin izango nozue egunero, dino Jaunak (P.a. aleluia). Mk 16, 15; Mt 28, 20

Edo:

Zagoze Nigan, Ni zuengan lez, dino Jaunak; inor Nigan badago, Ni harengan lez, harek frutu asko emongo dau (P.a. aleluia). Jn 15, 4-5

Jaunartze ondorengoa

Jainko gure Jauna,
ardura handiz irakatsi eta zaindu eban I. santuak
Apostoluek iragarritako fedea;
egizu, hartu dogun sakramentuak
indartu gaizala sinismen horretan.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

3

Sarrera-ant.

Zabaldu haren ospea nazinoetan, haren mirariak herri guztietan; handia da-eta Jauna, guztiz goresgarria (P.a. aleluia).
Sal 96 [95], 3-4

Otoitza

Oi Jainko, zure erruki miragarrian,
I. santua aukeratu zenduan
Kristoren aberastasun neurribakoak zabaltzeko;
egizu, haren otoitzari esker,
ezagutu zaiguzala Zeu gero eta gehiago
eta, egintza on guztietan frutu emonez,
Ebanjelioko egiaren arabera ibili gaitezala leial zure aurrean.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa

Isuri egizu, Jauna, zeure bedeinkazinoa
I. santuaren oroipenez
egiten dogun eskeintza honen gainera;
honetatik hartuz, gerta gaitezala errurik gabe
eta asetu zerutar janariz.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Jaunartze-ant.

Jaunak ikasleak bialdu zituan herrietan iragartzera: Hurrean dozue Jainkoaren erreinua (P.a. aleluia). Ik. Lk 10, 1.9

Edo:

Lur oneko hazia lakoak dira, hitza bihotz onez eta zabalez entzunik, iraupenez frutua emoten dabenak (P.a. aleluia). Ik. Lk 8, 15

Jaunartze ondorengoa

Hartu dogun sakramentuak bizkortu gaizala, Jauna;
egizu, I. santuaren oroitzapenean pozten garanoi
egin dakigula onuragarri
haren apostolu-kemenaren ikasbidea.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

ELEIZ IRAKASLEEN BETIKOA

1

Sarrera-ant. Batzarraren erdian hitz egiteko gaitasuna emon eutson, eta Jaunak jakituriaz eta adimenez bete eban; soineko ospetsua jantzi eutson (P.a. aleluia). Ik. Si 15, 5

Edo:

Zintzoaren ahoari jakituria dario, haren mihinak zuzena dana esaten dau; bere Jainkoaren legea dau bihotzean (P.a. aleluia).
Sal 37 [36], 30-31

Otoitza

Jainko ahalguztidun betikoa,
zeure Eleiza santuaren irakasle egin zenduan
I. [gotzain] santua;
egizu, harek zure Espirituaren argiaz irakatsi ebana
sendotu dadila gure bihotzean;
eta, Zeuk emonda, zaindari doguna izan daigula babesle
errukitsu zaitugun horren aurrean.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa

Atsegin bekizu, oi Jainko,
I. irakasle santuaren jaia ospatzean
pozik eskeintzen deutsugun sakrifizioa,
bera eragile dogula,
geuk ere zure goresle izan nahi dogu-eta bete-betean.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Jaunartze-ant. Hauxe da etxezain leiala eta zentzunduna, Jaunak, bere orduan behar dan janaria banatzeko, morroien buru ipini dauana (P.a. aleluia). Ik. Lk 12, 42

Edo:

Jaunaren legea gau eta egun hausnartzen dauanak emoten dau bere sasoian frutua (P.a. aleluia). Ik. Sal 1, 2.3

Jaunartze ondorengoa

Kristo emon deuskuzu, Jauna, ogi bizi-emoile;
egizu, I. santuaren jaia ospatzean,
Kristo irakasle dogula, ezagutu daigula zure egia
eta maitasunez bizi.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

2

Sarrera-ant.

Ortziaren distiraz distiratuko dabe jakitunek, eta besteei bide zuzenean ibiltzen irakatsi deutsienek, izarrek bezala betieran (P.a. aleluia). Dn 12, 3

Edo:

Zintzoen jakituriaz berba egingo dabe nazinoek, hareen gorespena iragarriko dau herri-batzarrak; gizaldiz gizaldi biziko da hareen izena (P.a. aleluia). Ik. Si 44, 15.14

Otoitza

Jainko Jauna,
zerutik datorren irakaspenez jantzi zenduan I. santua;
emoiguzu, otoitzean bera lagun dogula,
irakaspen hori leial gordetzea eta bizitzaz autortzea.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa

Espiritu Santuak eten barik argitu eban, Jauna,
I. santua zure aintza zabaltzeko;
emon deigula Espiritu Santuak haren fedearen argia
misterio santu honeek ospatzen dihardugunoi.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Jaunartze-ant. Guk Kristo kurutzean josia predikatzen dogu, Jainkoaren indarra eta Jainkoaren jakituria dan Kristo (P.a. aleluia). Ik. 1 Ko 1, 23.24

Jaunartze ondorengoa

Zeruko janariaz indarturik, Jauna,
apalik eskatzen deutsugu:
I. santuaren irakaspenei jarraituz,
izan gaitezala beti esker oneko
Zugandik hartu doguzan graziakaitik.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

BIRJINEN BETIKOA

Birjina martiriarentzat, 961. or.

I. Birjina batzurentzat

Sarrera-ant. Birjinek goratu begie Jaunaren izena, izen goren bakarra; haren ospea zeru-lurren gainetik garai (P.a. aleluia). Ik. Sal 148, 13

Edo:

Pozik eta alai daroez birjinak Erregeagana, Errege dan Jaunaren tenpluan sartzen dira (P.a. aleluia). Ik. Sal 45 [44], 16

Otoitza Agertu guri, Jauna, zeure erruki oparoa;
eta egizu, I. eta I. birjina santuen jaia ospatzean
pozten garanok izan daigula, Zuri esker,
eurekin batera zeruan betiko izatearen gozamena.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa I. eta I. birjina santuen oroitzapena egitean, Jauna,
miragarria zarala autortuz dakartsugu geure eskeintza;
egizu, euren merezimentuak atsegin izan jatzuzan lez,
gure eskeintza ere izan dadila zure gogokoa.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Jaunartze-ant. Heldu zan senarra, eta prest egozan birjina zentzundunak ezteguetara sartu ziran beragaz batera (P.a. aleluia). Ik. Mt 25, 10

Edo:

Ni maite nauana nire Aitak maite izango dau, eta Aita eta biok harengana etorriko gara eta beragan egingo dogu bizilekua (P.a. aleluia). Jn 14, 21.23

Jaunartze ondorengoa

I. eta I. birjina santuen jaiegun honetan
hartu dogun sakramentuak, Jauna,
zuhur egonazo gaizala beti eta argitu,
zure Semea noiz etorriko zain egonik,
haren betiko ezteguetan onartu gaizuzan.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

II. Birjina bakarrarentzat

1

Sarrera-ant. Hauxe da birjina zentzunduna, Kristori kriseilu biztuaz bidera urten eutsona (P.a. aleluia).

Edo:

Ederra zara benetan, Kristoren birjina, Jaunaren koroia hartu zenduan-eta, betiko birjintasunaren koroia (P.a. aleluia).

Otoitza

Jainko gure Salbatzailea, entzun gure otoitzak;
egizu, I. birjina santuaren
oroitzapenean pozten garanok
ikasi daigula zure zerbitzari zintzo izaten.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa

Miragarria zarala autortzen dogu, Jauna,
I. birjina santua gorestean;
eta apalik eskatzen deutsugu,
haren merezimentuak atsegin izan jatzuzan lez,
gure eskeintza ere izan dadila zure gogokoa.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Jaunartze-ant. Badator senargaia; urten egiozue bidera Kristo Jaunari (P.a. aleluia).
Ik. Mt 25, 6

Edo:

Gauza bat eskatzen deutsat Jaunari, horren bila nabil ni: bizi nadila Jaunaren etxean neure bizitzako egun guztietan (P.a. aleluia).

Sal 27 [26], 4

Jaunartze ondorengoa

Jainko gure Jauna,
dohai santuetan parte izatea emonez indarbarritu gaituzu;
egizu, I. santuak lez,
Jesusen heriotzea geure gorputzean eroanik,
bizi gaitezala oso-osorik Zeuretzat.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

2

Sarrera-ant.

Poztu gaitezan eta egin jai, guztien Jaunak birjina santu eta ospetsu hau maite izan daualako (P.a. aleluia).

Edo:

Hauxe da birjina zentzunduna, Jaunak zuhur aurkitu ebana; kriseiluekin batera orioa ere hartu eban eta, Jauna etortzean, ezteguetara sartu zan beragaz batera (P.a. aleluia).

Otoitza

Jainko Jauna, I. birjina santua
aberats egin zenduan zeruko dohaiez;
egizu, oraingo bizitzan haren antzeko izaten ahaleginduz,
gozatu daiguzala betiko atseginak beragaz batera.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Edo, birjina fundatzailearentzat:

Jainko gure Jauna,
zure emazte leiala izan zan I. birjina santuak
biztu dagiala gure bihotzean zure maitasunaren sua,
zure Eleizaren betiko aintzarako
beste birjina lagunengan biztu eban lez.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa

Emon, Jauna, guri eskeintza honen frutuak;
I. santuaren antzera,
lurtar zaharkeriaren jardueratik garbiturik
zerutar bizitzan aurrera eginez erabarrituak izan gaitezan.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Jaunartze-ant.

Bost birjina zentzundunek, kriseiluekin batera orioa ere hartu eben ontzietan. Gauerdian oihu bat entzun zan: Badator senargaia; urten egiozue bidera Kristo Jaunari (P.a. aleluia). Ik. Mt 25, 4.6

Jaunartze ondorengoa

Zure Semearen Gorputza eta Odola hartzeak, Jauna,
aldendu gaizala gauza galkor guztietatik;
I. santuak lez,
lur honetan Zuganako egiazko maitasunean
aurrera egin daigun
eta zeruan Zeu ikusteaz poztu gaitezan beti.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

3

Sarrera-ant.

Zatoz, Kristoren emaztea; hartu egizu Jaunak zuretzat betiko prestatu dauan koroia(P.a. aleluia).

Edo:

Mundu honetako erregetza eta ondasun guztiei gitxi eretxi eutsen Jesu Kristo Jaunaren maitasunagaitik (P.a. aleluia).

Otoitza Bihotzez garbi diranengan biziko zarala
agindu dozun Jainkoa;
I. zure birjina santuaren otoitza dala bide
eta zure graziari esker,
egin gaizuz zure bizileku izateko gai.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Edo:

Entzun, Jauna, gure otoitzak;
I. birjina santuaren zintzotasuna
jaieratsu goresten dogunok
iraun daigula zure maitasunean
eta egin daigula honetan beti aurrera azkeneraino.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa Onartu, Jauna, I. birjina santuaren oroitzapenean
apalik eskeintzen deutsugun gorespena;
emoiguzu, opari garbi honen bidez,
zure aurrean beti maitasun santuaren sutan irautea.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Jaunartze-ant. Birjina zentzundunak alderdirik onena aukeratu dau, eta ez deutso inork kenduko (P.a. aleluia). Ik. Lk 10, 42

Edo:

Gauerdian oihu bat entzun zan: Badator senargaia; urten egiozue bidera Kristo Jaunari (P.a. aleluia). Ik. Mt 25, 6

Jaunartze ondorengoa

Jainko guztiz ona,
zeruko ogiaz indarbarriturik, apalik eskatzen deutsugu:
I. santuaren oroitzapena pozik ospatzen dogunok
lortu daigula pekatuen parkamena, gorputzeko osasuna
eta arimaren betiko grazia eta zoriona.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

GIZON ETA EMAKUME SANTUEN BETIKOA

Ondorengo meza-gaiak santuen arlo berezi batentzat jarri badira, arlo horretako santuentzat bakarrik erabili behar dira; baina ezer adierazoten ez bada, edozein santurentzat erabili leitekez.

I. Mota guztietako santuentzat

A. Santu batzurentzat

1

Sarrera-ant. Goratu zagiezala, Jauna, zeure sorkari guztiek, bedeinkatu zeure fededunek; autortu begie zure erregetza ospetsua, berba egin begie zure ahalmenaz (P.a. aleluia). Sal 145 [144], 10-11

Otoitza

Jainko ahalguztidun betikoa,
santuak goratuz,
zeure maitasunaren agiri argiak emoten deuskuzuz hareengan;
egizu, onez, euren otoitzek lagundu
eta ikasbideek eragin deiguela
zure Seme bakarrari leial jarraitzera.
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa

Hartu egizuz, Jauna, bihotz onez gure eskariak;
eta zaindu gaizuz zeure santuen otoitzari esker,
zintzo bete daigun altarako zure zerbitzua.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Jaunartze-ant. Zintzoak pozten dira, Jainkoaren aurrean gozatzen, alai eta pozez gainezka (P.a. aleluia). Sal 68 [67], 4

Edo:

Zorionekoak, Jaunak, heltzean, zuhur aurkituko dituan morroiak! Egia dinotsuet: bere janzkiak aldaturik, mahaian jesarriazoko ditu eta zerbitzen hasiko jake (P.a. aleluia). Ik. Lk 12, 37

Jaunartze ondorengoa

Jainko ahalguztidun betikoa,
bake eta poz guztien emoile zaran Aita,
egizu, santuen oroipen-egunean
Zu goresteko batu dan zure familia honek,
hartu dauan zure Seme bakarraren sakramentuari esker,
jaso dagiala betiko salbazinoaren agiria.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

2

Sarrera-ant. Zintzoa Jaunagaz da pozten, harengan babesten, eta bihotz zuzenekoak harengan harrotzen (P.a. aleluia). Sal 64 [63], 11

Otoitza

Ikusten dozu, oi Jainko,
gure makaltasunagaitik huts egiten dogula;
zure errukiak indartu gaizala, santuen ikasbideei esker,
Zuganako maitasunean.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa

Jainko ahalguztiduna,
I. santuaren egun honetan
apalik eskeintzen deutsugun oparia
izan bedi Zuretzat atsegingarri
eta gure gorputz-arimentzat salbagarri.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Jaunartze-ant. Nire zerbitzari izan nahi dauanak, jarraitu beit, dino Jaunak, eta Ni nagoan tokian, hantxe izango da nire zerbitzaria ere (P.a. aleluia). Jn 12, 26

Jaunartze ondorengoa

Zure santuak zerurako jaio ziran egunean
eskatzen deutsugu, Jauna,
sakramentu honek indarturik, gozatu daiguzala
zure graziak orain emoten deuskuzan ondasunak.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

3

Sarrera-ant.

Zintzoa palmondoa lez garatuko da, Libanoko zedroa lez haziko; Jaunaren etxean landatua, gure Jainkoaren atarietan garatuko da (P.a. aleluia). Sal 92 [91], 13-14

Otoitza

Santuen otoitz indartsuak, Jauna,
lortu deiela laguntza zure fededunei;
eta hareen jaieguna bihotzez ospatzen dogunok
izan daigula parte euren betiko zoriontasunean.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa

Zuri eskeintzeko, Jauna,
opariak zure altarara ekarri ditugunoi emoiguzu
zeure santuei emon zeuntsen
Zuganako maitasun-espiritua,
ekintza sakratu hau gogo garbiz
eta bihotz gartsuz bete daigun
eta Zuretzat atsegingarri eta guretzat salbagarri
izango dan sakrifizioa ospatu daigun.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Jaunartze-ant.

Zatoze Nigana nekatu eta zamatu guztiok, eta Neuk arinduko zaituet, dino Jaunak (P.a. aleluia). Mt 11, 28

Jaunartze ondorengoa

Hartu dogun sakramentu honek salbatu gaizala, Jauna,
eta sendotu zure egiaren argitan.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

4

Sarrera-ant. Bedeinkatua konfiantza Jaunagan dauana, bere euskarri Jauna dauana; ur-ertzean landatutako zuhaitzaren antzeko da: ur bizigarrietara zabaltzen ditu sustraiak, ez dau sargoriaren bildurrik (P.a. aleluia). Jr 17, 7-8

Otoitza

Jainko ahalguztiduna,
zure santuen ikasbideak eroan gaizala zintzoago bizitzera,
eta gaur I. eta I. santuak goresten doguzanok
jarraitu deiegula euren egintzei.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa

Jainko guztiz ona,
santuen jaia ospatzean, otoitz egiten deutsugu:
altarara ekarri doguzan eskeintza honeek
emon deizuela Zuri aintzarik handiena
eta ekarri deiguela guri grazia ugari.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Jaunartze-ant. Aitak Ni maite izan nauan lez, halantxe maite izan zaituet Neuk ere zuek, dino Jaunak; iraun sendo nire maitasunean (P.a. aleluia). Jn 15, 9

Jaunartze ondorengoa

Jainko gure Jauna,
egizu, zure santuen egunean ospatu dogun sakramentuak
ekarri deigula salbazinoa eta betiko bakea.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

B. Santu bakarrarentzat

1

Sarrera-ant. Jauna, zure indarraz pozten da zintzoa, zure garaipenaz izugarri alaitzen; gura ebana emon deutsazu (P.a. aleluia). Ik. Sal 21 [20], 2-3

Otoitza

Oi Jainko, gure makaltasunari salbazino-bidea errezteko
ikasbidea eta laguntza emoten deuskuzu zeure santuengan;
egizu, arren, I. santua
zerurako jaio zan eguna ospatzen dogunok
jo daigula Zeugana haren ikasbideari jarraituz.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa

I. santuaren egunean
ekarri dogun eskeintza honen bidez, Jauna,
emoiguzu zeure fededunoi
bakearen eta batasunaren dohaia.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Jaunartze-ant.

Nire ondoren etorri nahi dauanak uko egin begio bere buruari, hartu begi bere kurutzea eta jarraitu beit, dino Jaunak (P.a. aleluia).
Mt 16, 24

Edo, herri-agintari izan diranentzat:

Bilatu lehenengo Jainkoaren erreinua eta beronen zuzentasuna, eta gainerako guztia gehigarri emongo deutsue Jainkoak (P.a. aleluia).
Mt 6, 33

Jaunartze ondorengoa

I. santuaren oroitzapenean
hartu dogun sakramentuak, Jauna,
egin dagizala santu gure gogo-bihotzak,
jainkozko izaeran parte izan daigun.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

2

Sarrera-ant.

Egiazko irakaspena eban ahoan, eta haren ezpanetan ez zan gaiztakeriarik aurkitu; leial eta zuzen jokatu eban Nirekin eta asko urrundu zituan gaiztakeriatik (P.a. aleluia).
Ml 2, 6

Otoitza

Oi Jainko, Zeu bakarrik zara santua,
eta Zu barik ez da inor onik;
egizu, I. santuaren otoitzari esker,
bizi gaitezala orain,
gero zure aintza barik ez izateko moduan.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa

Jauna, I. santuaren jaia ospatzean
Zuri, Jainko handi horri, eskeintzen deutsugun sakrifizioa
izan bedi guretzat salbagarri eta Zuretzat atsegingarri.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Jaunartze-ant.

Zorionekoak bihotz-garbi diranak, eurek ikusiko dabe-eta Jainkoa. Zorionekoak bakegileak, Jainkoaren seme-alaba izango dira-eta (P.a. aleluia). Mt 5, 8-9

Jaunartze ondorengoa

Dohai santuaz asetu gaituzu, Jauna;
egizu, I. santuaren jaia ospatzean
opari honetan zerbitzari apal izan garanok
sumatu daigula gero eta gehiago zure salbazinoa.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

II. Lekaide-lekaimeentzat eta erlijioso-erlijiosentzat

A. Abatarentzat

Sarrera-ant.

Zintzoa palmondoa lez garatuko da, Libanoko zedroa lez haziko; Jaunaren etxean landatua, gure Jainkoaren atarietan garatuko da (P.a. aleluia). Sal 92 [91], 13-14

Edo:

Zintzoaren ahoari jakituria dario, haren mihinak zuzena dana esaten dau, bere Jainkoaren legea dau bihotzean (P.a. aleluia). Sal 37 [36], 30-31

Otoitza

Jauna, Ebanjelioko santutasunaren eredua
emon deuskuzu I. abata santuagan;
egizu, mundu honetako gorabeheren artean
bizi gaitezala zeruko ondasunei bihotz-bihotzez loturik.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa

Zure altarara hurreratu garanoi emoiguzu, Jauna,
I. abata santua sutu eban
Zuganako maitasun berbera,
sakrifizio hau Zuri bihotz garbiz eta maitasun gartsuz
eskeintzeko gai izan gaitezan.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Jaunartze-ant.

Hauxe da etxezain leiala eta zentzunduna, Jaunak, bere orduan behar dan janaria banatzeko, morroien buru ipini dauana (P.a. aleluia). Ik. Lk 12, 42

Edo:

Zuetariko handiena izan bedi zuen zerbitzari, dino Jaunak (P.a. aleluia). Mt 23, 11

Jaunartze ondorengoa

Bihotz-barritu gaizuz, Jauna,
hartu dogun sakramentu honen indarrez,
I. abata santuaren ikasbideari jarraituz
eta gure atsegina goiko gauzetan jarriz, ez lurrekoetan,
Kristogaz zoriona lortu daigun.
Errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

B. Lekaidearentzat

Sarrera-ant.

Senideek alkarturik Jainkoa goratzen daben tokian, hantxe emongo dau Jaunak bedeinkazinoa (P.a. aleluia).

Edo:

Izan bedi nire ahoa zure gorespenaz betea, kantatu dagidan; poz-oihuz kantatuko deutsue nire ezpanek (P.a. aleluia).
Ik. Sal 71 [70], 8.23

Otoitza

Jainko Jaun onbera,
Zeuk deitu zeuntsan I. zeure zerbitzari santuari
Kristori jarraitzera;
emoiguzu, haren otoitzari esker, geure buruari uko egitea,
Zeuri bihotz guztiaz jarraitzeko.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa

Onartu, Jauna, zeure herriaren salbazinorako
eskeintzen deutsugun oparia;
emoiguzu, I. santuaren otoitzari esker,
pekatuaren lilurei ihes egitea eta zeruko santuen lagun izatea.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Jaunartze-ant.

Jainkoaren hitza bihotz onez eta zabalez entzuten dabenek frutua emoten dabe iraupenez (P.a. aleluia). Ik. Lk 8, 15

Edo:

Zorionekoak zure etxean bizi diranak, Jauna, eten barik Zeu goresten (P.a. aleluia). Sal 84 [83], 5

Jaunartze ondorengoa

Jauna, gure Jainkoa, emoiguzu zeure laguntza
eta egizu, I. santuak babesturik
eta zure jakituriaren sakramentu honi esker,
neurritsu bizi gaitezala.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

C. Lekaimearentzat

Sarrera-ant. Frutua emoten dauan olibondoaren antzeko naz ni Jainkoaren etxean, Jainkoaren maitasunean dot konfiantza betiko (P.a. aleluia).
Ik. Sal 52 [51], 10

Edo:

Mundu honetako erregetza eta apaindura guztiei gitxi eretxi neutsen Jesu Kristo neure Jaunaren maitasunagaitik, bera neban ikusi eta maitatu, beragan neban sinistu eta bera egin neure lagun (P.a. aleluia).

Otoitza

Oi Jainko,
Zuk dei egin zeuntsan I. zeure mirabe santuari
gauza guztien gainetik zure bila ibiltzera;
egizu, haren ejenpluaren bidez eta haren otoitzari esker,
heldu gaitezala betiko zure aintzara
bihotz garbi eta apalez zure zerbitzari izanez.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa

Zuganako gure maitasunaren emoitzak dakartsuguz, Jauna,
I. santuaren oroitzapena ospatzean,
Zeuk sagaratu daizuzan,
horreetan zure laguntza agertzen deuskuzu-eta
Zuk agindutako betiko dohaien itxaropena galdu ez daigun.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Jaunartze-ant. Hitz ederrez gainezka dot bihotza, erregeari opa deutsat neure olerkia (P.a. aleluia).
Sal 45 [44], 2

Edo:

Gauza bakarra da beharrezko: alderdirik onena aukeratu dau Mariak, eta ez deutso inork kenduko (P.a. aleluia).
Lk 10, 42

Jaunartze ondorengoa

Salbazinoko iturrietan indarbarriturik
apalik eskatzen deutsugu, Jauna,
I. santuaren otoitzari esker,
bizi gaitezala Kristori gero eta estuago loturik,
haren graziaren erreinuan parte izan daigun.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

D. Erlijioso-erlijiosentzat

1

Sarrera-ant.

Jauna, Zeu zaitut neure ondarea, neure edontzia, zure esku dago nire zoria (P.a. aleluia). Sal 16 [15], 5

Edo, erlijiosarentzat:

Bere emazte egin eban Jaunak betiko, leialtasunez eta maitasunez (P.a. aleluia). Ik. Os 2, 21-22

Otoitza

Oi Jainko, Zeuk emon zeuntsan I. santuari
Kristo behartsu eta apalaren antzera bizitzeko grazia;
egizu, haren otoitzari esker,
Zuk egin deuskuzun deiari zintzo jarraituz,
heldu gaitezala geu ere
zeure Semeagan erakutsi deuskuzun santutasunera.
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa

Jainko guztiz ona, gizaki zaharra deseginik,
zeure antzeko barria sortu zenduan I. santuagan;
egin gaizuz, bihotz onez, geu ere barri,
Zugaz baketzen gaituan opari atsegingarria
eskeini deizugun.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Jaunartze-ant. Benetan dinotsuet: gauza guztiak itzi eta Nigaz etorri zarienok ehun halako hartuko dozue eta betiko bizia jasoko ondare (P.a. aleluia).
Ik. Mt 19, 27-29

Edo:

Jauna da nire ondarea; ona da Jauna haren bila dabiltzanentzat (P.a. aleluia).
Ik. Nk 3, 24-25

Jaunartze ondorengoa

Sakramentu honen indarrari esker, Jauna,
zaindu gaizuz beti zeure maitasunean,
I. santua lez;
eta eroan egizu bere betera gugan hasi dozun egintza ona,
Jesu Kristo etorriko dan egunera arte.
Errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

2

Sarrera-ant. Santu honeek Jaunak bedeinkatu zituan, justizia egin eutsen Jainko salbatzaileak; hauxe da Jaunaren bila ahalegintzen dan gizaldia (P.a. aleluia).
Ik. Sal 24 [23], 5-6

Edo:

Poztu zaiteze, bihotzez Jaunaren bila zabiltzenok, jo egizue indartzen dauan Jaunagana, bilatu eten barik haren aurpegia (P.a. aleluia).
Sal 105 [104], 3-4

Otoitza

Oi Jainko, Zeuk deitu zeuntsan I. santuari,
mundu honetan gauza guztien gainetik
zeure erregetza bilatzera,
maitasun osoaren bideari jarraituz;
egizu, geuk ere, haren otoitzak lagundurik,
egin daigula aurrera maitasun-bidean espirituzko pozez.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa

Onartu, Jauna, guk zure zerbitzariok
I. santuaren oroitzapenean
zure altarara ekarri doguzan eskeintzak;
egizu, lur honetako eragozpenak bazterturik,
Zeu bakarrik izan zaiguzala geure aberastasun.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Jaunartze-ant.

Dastatu egizue eta ikusi zein ona dan Jauna; zorionekoa harengan babesten dana (P.a. aleluia). Sal 34 [33], 9

Edo:

Zorionekoak gogoz behartsu diranak, eurena dabe-eta Jainkoaren erreinua (P.a. aleluia). Mt 5, 3

Jaunartze ondorengoa

Jainko ahalguztiduna,
gure indarrak barritzen dituzu, sakramentu honen bidez;
egizu, I. santuak lez ikasi daigula
gauza guztien gainetik beti zure bila ibiltzen
eta mundu honetan gizon-emakume barrien irudia agertzen.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

III. Erruki-egintzak bete ebezanentzat

Sarrera-ant.

Zatoze, nire Aitaren bedeinkatuok, dino Jaunak: gaixorik nintzan eta bisitatu egin ninduzuen. Benetan dinotsuet: nire seniderik txikien honeetako bati egin zeuntsoena Neuri egin zeunsten (P.a. aleluia). Ik. Mt 25, 34.36.40

Edo:

Esku betean emoten deutse behartsuei, haren eskuzabaltasunak betiko dirau, ohorez jasoko dau bekokia (P.a. aleluia). Sal 112 [111], 9

Otoitza

Oi Jainko, Zeuk irakatsi deutsazu Eleizari
Zeu eta lagun hurkoa maitatzea dala
zerutar aginduak betetzea;
egizu, I. santuari jarraituz maitasun-egintzak beterik,
izan gaitezala zure erreinuko bedeinkatuen artean.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa

Onartu, Jauna, zeure herriaren oparigai honeek,
eta zure Semearen neurribako maitasun-egintzak
ospatzen doguzanok sendotu gaizuz
Zuganako eta lagun hurkoaganako maitasunean,
I. santua sendotu zenduan lez.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Jaunartze-ant.

Ez dau inork maitasun handiagorik, bere bizia adiskideen alde emoten dauanak baino (P.a. aleluia). Ik. Jn 15, 13

Edo:

Honetan ezagutuko dabe guztiek nire ikasle zariena: zuek alkar maite izatean, dino Jaunak (P.a. aleluia). Jn 13, 35

Jaunartze ondorengoa

Zeure sakramentuez bizibarritu gaituzu, Jauna;
egizu, jarraitu deiogula I. santuaren ikasbideari,
bihotz gartsuz gurtu zinduzalako harek eten barik
eta on asko egin eutsalako maitasun handiz zure herriari.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Edo:

Salbazinoko sakramentuaren gozoaz janaritu gaituzu, Jauna;
eskaria egiten deutsagu zure bihotz onari,
izan gaitezala I. santuaren antzeko maitasunean,
zorionean ere beragaz parte izan daigun.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

IV. Hezitzaileentzat

Sarrera-ant. Itzi umeei Nigana etortzen, ez galazo, holakoena da-eta Jainkoaren erreinua, dino Jaunak (P.a. aleluia). Mk 10, 14

Edo:

Jaunaren legea bete eta betetzen irakasten dauana, handia izango da zeruetako erreinuan, dino Jaunak (P.a. aleluia). Ik. Mt 5, 19

Otoitza Oi Jainko,
salbazinorako bidea lagun hurkoari erakusteko
aukeratu zenduan I. santua, zeure Eleizan;
egizu, geuk ere, haren antzera,
Kristo irakasleari jarraitu deiogula,
gure senideekin Zugana heldu gaitezan.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa Atsegin bekizu, Jauna, I. santuaren oroitzapenean
zure herriak egiten deutsun eskeintza;
eta egizu, sakramentu honetan parte hartzen dogunok
bizitzan zure maitasunaren testigu izan gaitezala.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Jaunartze-ant. Umeen antzeko bihurtzen ez bazarie, ez zarie sartuko zeruetako erreinuan, dino Jaunak (P.a. aleluia). Mt 18, 3

Edo:

Niri jarraitzen deustana ez da ilunpean ibiliko; izango dau bizirako argia, dino Jaunak (P.a. aleluia). Jn 8, 12

Jaunartze ondorengoa Jainko ahalguztiduna,
jaunartze honek emon deigula indarra,
I. santua eredu dogula,
lagun hurkoaganako maitasuna eta egiaren argia
izan daigun bihotzean, eta agertu egintzetan.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

V. Emakume santuentzat

Emakume santu martiriarentzat, 963. or.

1

Sarrera-ant. Goresgarria Jaunari begirune deutson emakumea; zorionak emoten deutsoez seme-alabek, goratu egiten dau senarrak (P.a. aleluia).
Ik. Es 31, 30.28

Edo:

Laguntza emoten deutso behartsuari, eskua zabaltzen dohakabeari, ez dau bere ogia merezidu barik jaten (P.a. aleluia). Ik. Es 31, 20.27

Otoitza I. santuaren jaia
urtero ospatuz pozten gaituzun Jainkoa,
egizu, haren oroipena egiten dogunok
jarraitu deiogula haren ejenpluari bizitzan.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Edo, emakume santu batzurentzat:

Jainko ahalguztiduna,
I. eta I. santuen bizitza miragarriak
jarraibide salbagarria emoten deusku guztioi;
egizu, lortu deiguela euren otoitzek zeruko laguntza.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa Oparigaiak dakartsuguz, Jauna,
I. santuaren oroitzapena egitean;
apalik eskatzen deutsugu,
ekarri deiguela pekatuen parkamena eta salbazinoa.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Jaunartze-ant. Zeruetako erreinuagaz, harribitxi bila dabilen merkatariagaz lez jazotzen da. Balio handiko bat aurkitzen dauanean, joan eta daukan guztia emoten dau ha erosteko (P.a. aleluia). Ik. Mt 13, 45-46

Jaunartze ondorengoa

Jainko ahalguztiduna, I. santuaren jaia ospatzean,
sakramentu honen jainkozko indarrak argitu gaizala eta sutu,
asmo santuetan berotu gaitezan eten barik
eta egintza onetan aberastu.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

2

Sarrera-ant. Hona hemen bere etxea eraiki eban emakume zentzunduna eta, Jainkoari begirune izanik, bide zuzenean ibili zana (P.a. aleluia).
Ik. Es 14, 1-2

Otoitza

Apalen goratzaile zaran Jainkoa,
harrigarria egin zenduan I. santua
maitasunean eta eroapenean;
haren merezimentuen eta otoitzen indarrez,
egizu, eguneroko geure kurutzea eroanez,
izan zaiguzala gero eta maiteago.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Edo:

Isuri, Jauna, gure gainera
I. zure zerbitzari santuari gainezka emon zeuntsan
zeure jakituriaren eta maitasunaren espiritua;
geu ere, beraren antzera,
leial eta arduratsu zure esaneko izanez,
atsegingarri izan gaitezan Zuretzat fedean eta egiteetan.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa

Begira begi onez, Jauna, zeure herriaren oparigaiei,
eta sumatu daigula I. santuaren omenez
bihotz zintzoz egindako eskeintza hau
salbazino-iturri dala guretzat.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Jaunartze-ant.

Zeruko nire Aitaren nahia egiten dauana, horixe dot Nik anaia eta arreba eta ama, dino Jaunak (P.a. aleluia). Mt 12, 50

Jaunartze ondorengoa

Jauna, zeure dohaiekin bete gozuz,
I. santuaren egun honetan;
egizu, garbitu gaiezala euren eraginez
eta zaindu euren laguntzaz.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

SAKRAMENTU
ETA OHIKUNEETARAKO MEZAK

Sakramentu eta ohikuneetarako Mezak galarazota dagoz Abendualdi, Garizuma eta Pazkoaldiko domeketan, baita festaburuetan, Pazko Zortziurrenean, Hildako Fededun Guztien Oroipen-egunean, Hausterre egunean eta Aste Santuko astegunetan ere; bete beitez, gainera, ohikune-liburuetan edota Meza horreetan euretan ezarritako arauak.

I. KRISTAU SARBIDEKO SAKRAMENTUAK

Otoitz honeek era berean erabiliko dira gizonezkoarentzat eta emakumearentzat, batentzat nahiz askorentzat, behar diran egokitzeak eginez.

1. KRISTAUGAIAK AUKERATZEA NAHIZ IZENAK HARTZEA

Pazko Gaubelan kristau-sarbideko sakramentuak hartuko dabezan kristaugaiak «aukeratzeko» edo hareen «izenak hartzeko» ohikunea Garizumako I. domekako Meza barruan egingo da, 157. or. Arrazoi pastoralak dirala-eta, domeka honetatik kanpo egiten bada, hemen jarraian datorren Mezea emon daiteke, kolore morez, Liturgi egunen zerrendako 1-4. zk.etako egunetan izan ezik, 74. or. Hartu daiteke Garizumako IV. barikuko Mezea be, 195. or.

Sarrera-ant. Poztu zaiteze, bihotzez Jaunaren bila zabiltzenok. Jo egizue Jaunagana eta sendotu zaiteze, bilatu eten barik haren aurpegia.

Ik. Sal 105 [104], 3-4

Otoitza

Oi Jainko, Zuk beti diharduzu gizakia salbatzen,
baina orain grazia ugariagoz pozten dozu zeure herria;
begitu begi onez zeure aukeratu honeei,
zure babes errukitsuaren laguntza izan dagien,
bai bizi barrira jaiotzera doazen honeek,
bai Bateoan daborduko jaioak diranek.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa

Jainko ahalguztidun betikoa,
zure izena autortuz,
betiko bizitzarako erabarritzen gaituzu Bateoko sakramentuan;
hartu egizuz zeure zerbitzarien eskeintzak eta asmoak,
Zugan itxaroten daben honeen nahia bete
eta horreen pekatuk kendu daizuzan.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Prefazioa: liturgialdiari dagokiona.

Jaunartze-ant. Kristoren heriotzaz dogu askapena, bekatuen parkamena, Jainkoaren onginahi eskuzabalari esker. Ef 1, 7

Jaunartze ondorengoa Hartu dogun sakramentuak garbitu gaizala, Jauna,
eta emoiezu zeure zerbitzari honeei erru guztitik libre
gelditzea, kontzientziaren pisu astunaz larri dagozanak
zerutar laguntza beteaz poztu daitezan.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

2. GAITASUN AZTERKETAK

Pazko Gaubelan kristau-sarbideko sakramentuak hartzeko izendatuak diran kristaugaien gaitasun- azterketak beren aldi egokian egiten diranean, Garizumako III., IV. eta V. domeketan alegia, hemen ondoren datozen Mezak erabil daitekez, kolore morez. Baina arrazoi pastoralak dirala-eta, azterketak domeka horreetan egiterik ez dagoanean, aukeratu beitez astegun egokiak Garizuman; edo Bateoa Pazko Gaubelatik kanpo ospatu ezkero, baita beste liturgialdietako astegunak be. Azterketetako lehenengo Mezan, ostera, beti samariar emakumearen Ebanjelio-pasartea iragarriko da, bigarrenean itsu jaioarena, eta hirugarrenean Lazarorena, Garizumako III., IV. eta V. domeketarako jarriak dagozan lez.

A
Lehenengo azterketa

Sarrera-ant. Zuen bidez hareen aurrean santu agertuko nazenean, lurralde guztietatik batuko zaituet; ur garbiz txipriztinduko zaituet, eta garbi geldituko zarie zeuen kutsadura guztietatik; eta barruan espiritu barria ezarriko deutsuet, dino Jaunak. Ez 36, 23-26

Edo:

Egarri zarien guztiok, zatoze ur bila, dino Jaunak; etorri, dirurik ez dozuenok be, eta edan pozez. Ik. Is 55, 1

Otoitza

Emon, Jauna, gure kristaugaiei
zure ospea duintasunez eta jakituriaz autortzeko grazia,
jatorrizko pekatuz galdutako lehenengo duintasuna
barriro jadetsi dagien, zure graziari esker.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa

Oi Jainko, betor zure errukia
zeure zerbitzari honeengana,
misterio santuak hartzeko gai egin dagizan
eta Zuri atsegin jatzun bizierara eroan.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Garizumako III. domekako prefazioa esango da, 178. or.
Eukaristi Otoitzetan kristaugaien aipamena egingo da.
I. Eukaristi Otoitza erabiliko danean, bizien aldeko Izan gogoan, Jauna eskarian aita-amabitxien aipamena honan egingo da:

Izan gogoan, Jauna,
kristaugai honeei Bateoko grazia santurako bidean
lagunduko deutsien [I. eta I.] aita-amabitxiok
eta hemen diran guztiak;
Zeuk dakizu hareen fedearen eta eraspenaren barri.
Danon izenean eskeintzen deutsugu...

Gero, Hona hemen, Jauna berezi hau esango da.

Hona hemen, Jauna, zure zerbitzarion eskeintza;
hartu egizu onez,
Bateoan betiko bizia
eta zure graziaren dohai santua hartzeko
aukeratu eta deitu dituzunon alde eskeintzen deutsugu-eta.
[Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. Amen.]

II. Eukaristi Otoitza erabiliko danean, ...eleizgizon guztiekin batean hitzen ondoren, hau esango da:

Baita ere, izan gogoan, Jauna,
kristaugai honeei jaiotza barriaren iturrirako bidean
lagunduko deutsien aita-amabitxiak.

Era berean, izan gogoan, Jauna, bizteko itxaropenean...

III. Eukaristi Otoitza erabiliko danean, ...zeurea dozun herri osoa hitzen ondoren, hau esango da:

Lagundu, Jauna, zeure graziaz
zeure zerbitzari [I. eta I.] aita-amabitxi honeei,
hitzez eta ejenpluz kristaugai honeek
bizi barrira gidatu dagiezan Kristo gure Jaunagan.

Entzun, bihotz onez...

Jaunartze-ant. Nik emongo deutsadan uretik edaten dauana, dino Jaunak, ur hori betiko bizia darion iturburu bihurtuko da harengan. Ik. Jn 4, 14

Jaunartze ondorengoa Zatoz, Jauna, eta barriztatu zeure salbazino-egintza;
zaindu egizuz
Zugandik betiko biziaren ezaugarria hartuko daben honeek,
egoki prestatu daitezan Bateoko sakramenturako.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

B
Bigarren azterketa

Sarrera-ant. Nik begiak Jaunagan ditut beti, harek libratzen deustaz-eta oinak saretik. Begitu niri eta erruki zakidaz, bakarrik nagolako, eta errukarri. Sal 25 [24], 15-16

Otoitza Jainko ahalguztidun betikoa,
poztu egizu Eleizea, seme-alabak ugari emonez;
egizu, jaiotzaz lurtar diranak
jaiotza barriaz zerutar egin daitezala.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa

Jauna, pozik aurkezten deutsuguz
betiko osagai izango doguzan oparigaiak,
eta apalik eskatzen,
begirunez erabili daiguzala
eta aukeratu honeen salbazinorako egoki eskeini.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Garizumako IV. domekako prefazioa esango da, 188. or.
Eukaristi Otoitzetan, kristaugaien eta aita-amabitxien aipamena gorago, lehenengo azterketan, esan dan moduan egingo da dana, 1011. or.

Jaunartze-ant.

Jaunak begiak igurtzi deustaz: joan, garbitu eta ikusten hasi naz, eta Jainkoagan sinisten. Ik. Jn 9, 11.38

Jaunartze ondorengoa

Ugaritu bihotz onez, Jauna, beti zeure familia,
gidatu egizu zeure borondatearen arabera,
babestu, bihotz onez, Zeurekin bat egina
eta zuzendu etenbako zeure maitasunez,
salbazinoa lortu dagian.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

C
Hirugarren azterketa

Sarrera-ant.

Herio-olatuek inguratu ninduen, Herio-leizeko lokarriek ninduen lotu, neure larrialdian dei egin neutsan Jaunari, eta entzun eban bere tenplutik nire oihua. Ik. Sal 18 [17], 5-7

Otoitza

Emon, Jauna, Bateorako aukeratu doguzan honeei
salbamen-misterioak ezagutzea,
Bateoko uretan erabarriturik
zure Eleizako fededunen alkartean sartu daitezan.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa

Entzun eiguzu, Jainko ahalguztiduna,
eta egizu, sakrifizio honen eraginez garbitu daitezala
Zugandik kristau-fedearen lehenengo dohaiak
hartu dabezan honeek.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Garizumako V. domekako prefazioa esango da, 198. or.

Aita-amabitxien aipamena Eukaristi Otoitzetan, gorago, lehenengo azterketan, esan dan moduan egingo da dana, 1011. or.

Jaunartze-ant. Bizi dana, Nigan sinisten badau, ez da betiko hilko, dino Jaunak.
Jn 11, 26

Jaunartze ondorengoa

Jarraitu dagiala, Jauna, zure herriak bat eginik
eta Zuri bihotz-bihotzez loturik,
estualdi guztietan sendo iraun,
bere poza agertu
eta bateatuko diranen alde otoitz egin dagian.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

3. BATEOA

Helduen kristau-sarbideko sakramentuak Pazko Gaubela santuan ospatzen dira. Baina, ezinbestean, Pazko festaburutik kanpo ospatu ezkero, Meza hau erabili daiteke, kolore zuriz nahiz jai-girokoz, Sakramentu eta Ohikuneetarako Mezak emon daitekezanean.

Meza hau emon daiteke umeen Bateoa ospatzen danean be.

Meza honetan ez da esango damu-otoitza, ezta Erruki, Jauna eskariak eta Sinisten dot be.

A

Sarrera-ant. Jantzi egizue giza izaera barria, Jainkoaren irudira sortua, Jesusen egiaren arabera, biziera zuzena eta santua eroateko (P.a. aleluia).
Ik. Ef 4, 24

Aintza zeruetan esango da.

Otoitza Zure Semearen nekaldian eta biztueran
parte hartzea emon deuskuzun Jainkoa,
egizu, zure seme-alaben espirituaz indarturik,
biziera barrian ibili gaitezala beti.

Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa

Jauna,
Bateoaren bidez zeure Semearen irudiko egin
[eta krisma santuaren ezaugarriaz sendotu] dituzunok
zeure abade-herrian sartu dituzu bihotz onez;
egizuz Zeuretzat opari atsegingarri,
eta onartu onberatasunez
zeure Eleizearen eskeintzarekin batean.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Prefazioa

BATEOA, BIZI BARRIAREN HASIERA

℣. Jauna zuekin.
℟. Eta zure espirituarekin.

℣. Gora bihotzak.
℟. Jaunagan daukaguz.

℣. Eskerrak Jaungoiko gure Jaunari.
℟. Egoki da eta zuzen.

Egoki da, bai, Zuri eskerrak emotea
eta zure izena goratzea,
Aita guztiz santua eta errukitsua,
Jesu Kristo gure Jaunaren eta salbatzailearen bitartez.

Gora Zu, bedeinkatua Zu eta gorespen Zuri,
jaiotza barriaren sakramentuagaitik.
Zuk, zeure Semearen bihotz edegitik,
Bateoaren ezkon-dohaia emon deuskuzu;
bera dogu fededunen lehenengo Pazkoa,
geure salbamenaren atea,
Kristogan dogun biziaren hasiera,
gizadi barriaren iturria.

Uraren eta Espirituaren bidez,
birjina eta ama dan Eleizaren sabelean,
abade eta errege dan herria sortu dozu,
herrialde guztietatik batua,
zure maitasunean bat egina eta santutua.

Zure ontasunaren dohai honegaitik,
zure familiak adoratzen zaitu
eta, aingeru eta santuekin batean,
zure aintzaren gorazarrea [esaten] abesten dau:

Santu, Santu, Santua...






Go-ra Zu, bedeinkatua Zu eta gores-pen Zu-ri, jaiotza barriaren
sakramentu - a-gai-tik. Zuk, zeure Semearen bihotz ede - gi - tik,
Bateoaren ezkon–dohai-a e-mon deus-ku-zu; bera do-gu fededunen
lehenengo Paz-ko-a, geure salbamenaren a-te-a, Kristogan dogun
biziaren hasi - e - ra, gizadi ba - rri - a - ren i - tu - rri - a.
U-ra-ren eta Espiritua-ren-bi dez, bir-ji-na eta ama dan Eleizaren sa-
be-le-an, abade eta errege dan herria sor - tu do-zu, herrialde
guztietatik ba-tu-a, zure maitasunean bat egi-na e-ta san-tu-tu-a.
Zu - re ontasunaren dohai ho-ne-gai-tik, zure familiak adora -
tzen zai-tu eta, aingeru eta santuekin ba - te - ra, zure aintzaren
goraza - rre - a a - bes - ten dau:

Pazkoaldian II. pazko-prefazioa ere esan daiteke, 490. edota beste liturgialdietan, Urtean Zeharreko domeketako I. prefazioa, 500. or.

Bateatu barrien aldeko eskari bereziak egingo dira: I. Eukaristi Otoitzean Izan gogoan, Jauna aita- amabitxien aipamena eta Hona hemen, Jauna eskaria, 568. or.; II. Eukaristi Otoitzean, ...eleizgizon guztiekin batean ondoren, Baita ere, izan gogoan, Jauna, 586. or.; III. Eukaristi Otoitzean, ...zeurea dozun herri osoa ondoren, Sendotu, Jauna edota Lagundu egiezu, 601. or.; IV. Eukaristi Otoitzean, ...hemen batu diranak ondoren, ...gaur urez eta Espiritu Santuaz, 613. or.

Jaunartze-ant. Begira zenbaterainoko maitasuna agertu deuskun Aitak, Jainkoaren seme-alaba izena daroagu-eta, baita izana be (P.a. aleluia).
1 Jn 3, 1

Jaunartze ondorengoa

Zure Semearen Gorputz Odolen sakramentua harturik,
otoitz egiten deutsugu, Jauna:
Espiritu Santuaren batasunean
eta senide-maitasunean aurrera egin daigula,
Kristoren Gorputzaren neurri betera
goi-maitasun biziz heldu gaitezan.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

B

Sarrera-ant. Salbatu egin gaitu Jainkoak jaiotza barria emoten dauan garbikuntzaz eta Espiritu Santuak eragiten dauan barrikuntzaz. Holan, onginahi hutsez Jainkoak zuzen egin gaituala, itxaron dogun betiko biziaren oinordeko egin gara (P.a. aleluia).
Tt 3, 5.7

Otoitza

Hitz bizi-emoileaz barriro jaiotzea emoten deuskuzun Jainkoa,
egizu, hitz hori bihotz leialez harturik,
izan gaitezala egiaren testigu sutsu
eta senide-maitasunean frutu ugaria emon daigula.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa

Edegi, Jauna, zeure Afariko ateak
Zuk prestatutako ogi-ardaoak hartzera hurreratuko garanoi,
Eukaristi jatordua pozik ospaturik,
santuen herritar eta zure etxekoen artean izan gaitezan.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Prefazioa: Bateorakoa, 1015. or.; Pazkoaldian, II. pazko-prefazioa esan daiteke, 490. or.; edota, beste liturgialdietan, Urtean Zeharreko domeketako I. prefazioa, 500. or.

Eukaristi Otoitzetan bateatu barrien aipamena egingo da, A formularioan lez egingo da 1018. or.

Jaunartze-ant. Orain Jainkoaren seme-alaba gara; gero izango garana oraindino ez da agertu (P.a. aleluia). 1 Jn 3, 2

Jaunartze ondorengoa

Zure Semearen heriotzaren eta biztueraren
misterio aintzatsua iragarri dogu, Jauna, ospakizun honetan;
egizu, sakramentu honen indarrez
geure bizieraz be autortu daigula.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

4. SENDOTZA

A

Sendotzako sakramentua ospatzeko Meza hau erabili daiteke, kolore gorriz, zuriz nahiz jai-girokoz, Sakramentu eta Ohikune Mezak emon daitekezanean. Sinisten dot ez da esango.

Sarrera-ant. Ur garbiz txipriztinduko zaituet, dino Jaunak; bihotz barria emongo deutsuet eta barruan espiritu barria ezarriko (P.a. aleluia). Ez 36, 25-26

Aintza zeruetan esango da.

Otoitza

Jainko ahalguztidun eta errukiorra,
egizu, Espiritu Santuak,
gugana etorriz eta gugan biziz,
bere aintzaren bizileku egin gaizala.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Edo:

Jaun errukitsua, bete egizu gugan zeure promesa:
etorri dadila Espiritu Santua,
Jesu Kristo gure Jaunaren Barri Onaren
testigu egin gaizan munduaren aurrean.
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Ik. beste otoitz batzuk aukeran, 1026. or.

Oparigaien gainekoa

Onartu, Jauna, bihotz errukitsuz zeure zerbitzarion emoitzak;
egizu, gaur era bikainagoan
zeure Semearen irudiko egin dituzun honeek
beraren lekuko gero eta hobeak izan daitezala eten barik,
harek bere heriotzaz emon euskun Espirituaren bidez
eta beraren salbazino-egintzaren oroigarrian parte hartuz.
Errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Prefazioa

ESPIRITUAREN EZAUGARRIAZ MARKATUAK

℣. Jauna zuekin.
℟. Eta zure espirituarekin.

℣. Gora bihotzak.
℟. Jaunagan daukaguz.

℣. Eskerrak Jaungoiko gure Jaunari.
℟. Egoki da eta zuzen.

Egoki da, bai, Zuri eskerrak emotea,
on da zure aintza gorestea,
ontasun guztiaren sorburu eta iturri zaran
Aita guztiz santua.

Zuk, Bateoan, bizi barria emoten deutsezu fededunei
eta, gainera, zeure Semearen pazko-misterioan parte izatea.
Zuk sendotu egiten dozuz Espirituaren ezaugarriaz,
esku-ezartzearen eta krismaz egindako oliaduraren bidez.

Holan, Espiritu Santuaz gantzutu
eta salbamenaren barri ona iragartzera bialdu zenduan
Kristoren antzera bizibarriturik,
zeure mahaikide egiten dozuz eukaristi jatorduan
Eta fedearen testigu, Eleizan eta munduan.

Horregaitik, guk,
jai-giroko batzar honetan baturik
Pentekoste barriaren egintza harrigarriak ospatzeko,
aingeru eta santuekin batean,
zure aintzaren gorazarrea [esaten] abesten dogu:

Santu, Santu, Santua...




Egoki da, bai, Zuri eskerrak e-mo-te-a, on da zure aintza go-
res-te-a, ontasun guztiaren sorburu eta itu-rri za-ran Ai-
ta guz-tiz san-tu-a. Zuk, Bateo-an, bizi barria emoten deutsezu fe-
de-du-nei eta, gaine-ra, zeure Semearen pazko–misterioan parte i-
za-te-a. Zuk sendotu egiten dozuz Espirituaren ezau-ga-rri-az,
esku–ezartzearen eta krismaz egin-da-ko o-li-a-du-ra ren bi-dez.
Ho-lan, Espiritu Santuaz gan-tzu-tu e-ta salbamenaren barri
ona iragartzera bialdu zen-du-an Kristoren antzera biziba-
rri-tu-rik, zure mahaikide egiten dozuz eukaristi jator-du-an
eta fedearen testigu, Elei-zan e-ta mun-du-an.



Espiritu Santuaren I. prefazioa be erabili daiteke, 1219. or., nahiz II.a, 511. or.

Sendotza hartu dabenen aldeko eskari berezia egingo da: I. Eukaristi Otoitzean, Hona hemen, Jauna, 569. or.; II. Eukaristi Otoitzean, ...eleizgizon guztiekin batean ondoren, Era berean, izan gogoan, Jauna, 587. or.; III. Eukaristi Otoitzean, ...zeurea dozun herri osoa ondoren, Lagundu egiezu, 601. or.; IV. Eukaristi Otoitzean, ...hemen batu diranak ondoren, ...gaur Sendotza hartu daben, 614. or.

Jaunartze-ant. Fedean argituak izan zarienok, Jainkoaren dohaia dastatu eta Espiritu Santuagan parte izan dozuenok, zagoze pozik Jaunagan (P.a. aleluia). Ik. Heb 6, 4

Jaunartze ondorengoa

Jarraitu egizu, Jauna, gerora be bedeinkatzen
Espiritu Santuaz gantzutu
eta zeure Semearen sakramentuaz janaritu dozuzanok,
eragozpen guztiak gainditurik,
euren santutasunaz poztu dagien zure Eleizea,
baita ugaritu eta indartu ere munduan
euren egintzez eta maitasunez.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Mezearen amaieran Gotzainak, eskuak sendotu barrien gain zabalik, esango dau:

Bedeinkapen nagusia

Bedeinkatu zagiezala Jainko Aita ahalguztidunak:
urez eta Espiritu Santuaz jaiobarriturik,
bere seme-alaba egin zaituenak
zaindu zagiezala bere maitasunean leial.
℟. Amen.

Bedeinkatu zagiezala Jainkoaren Seme bakarrak,
eta egiaren Espirituak Eleizan jarraituko ebala
agindu euskunak
sendotu zagiezala bere indarrez
egiazko fedearen autormenean.
℟. Amen.

Bedeinkatu zagiezala Espiritu Santuak,
eta maitasunaren sua ikasleen bihotzean biztu ebanak
bat egin zagiezala eta okerrik barik eroan
Jainkoaren erreinuko zorionera.
℟. Amen.

Eta herri osoa bedeinkatuko dau, esanez:

Eta hemen zagozen guztiok be
bedeinkatu zagiezala Jaungoiko ahalguztidunak:
Aitak, ✠ eta Semeak, ✠ eta Espiritu ✠ Santuak.
℟. Amen.

Edo:

Gotzainak, eskuak herriaren gain zabalik, esango dau:

Herriaren gaineko otoitza

Sendotu egizu, oi Jainko, gugan egin dozuna
eta zaindu fededunen bihotzean Espiritu Santuaren dohaiak,
munduaren aurrean
Kristo kurutzeratuaren autormena egiten lotsatu ez daitezan
eta maitasun beroz haren aginduak bete dagiezan.
Errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.
℟. Amen.

Bedeinkatu zagiezala Jaungoiko ahalguztidunak:
Aitak, ✠ eta Semeak, ✠ eta Espiritu ✠ Santuak.
℟. Amen.

B

Sarrera-ant. Jainkoak bere maitasuna isuri deusku bihotzera, gugan bizi dan Espirituaren bitartez (P.a. aleluia). Erm 5, 5; ik. 8, 11

Otoitza

Isuri egizu, Jauna, bihotz onez gure gainera
zeure Espiritu Santua,
guztiok fedearen batasunean biziz
eta Espiritu beraren maitasunaz indarturik,
Kristoren betetasunaren neurriko izatera heldu gaitezan.
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Ik. beste otoitz batzuk aukeran, 1026. or.

Oparigaien gainekoa

Onartu, Jauna, zeure zerbitzari honeek
zeure Semeagaz batera,
haren kurutzeaz eta krisma santuaz
markatuak izan diran honeek,
euren burua beti Kristogaz Zuri eskeinirik,
Espiritua gero eta ugariago hartu dagien.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Prefazioa: Sendotzarakoa, 1020. or.; Espiritu Santuaren I. prefazioa be erabili daiteke, 1219. or., nahiz II.a, 511. or.
Eukaristi Otoitzean Sendotza hartu dabenen aipamena A formularioan lez egingo da, 1023. or.

Jaunartze-ant. Begiratzen deutsoenak distiratsu egongo dira; dastatu egizue eta ikusi zein ona dan Jauna (P.a. aleluia). Sal 34 [33], 6.9

Jaunartze ondorengoa

Espiritu Santuaren dohaiez bete dituzu, Jauna,
zeure seme-alaba honeek,
eta zeure Semearen Gorputz Odolez janaritu;
egizu, zure lege osoan hezirik,
agertu dagiela munduaren aurrean beti
zure seme-alaben askatasuna
eta bete euren bizitza santuaz
zure herriaren profeta-eginkizuna.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Bedeinkazino nagusia edota herriaren gaineko otoitza, A formularioan lez, 1024. or.

C

Beste otoitz batzuk aukeran

Otoitza

Zugandik dan Espirituak argitu begiz, Jauna,
gure gogo-bihotzak;
eta, zure Semeak agindu euskunez,
eroan gaizala egia osoa ezagutzera.
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa

Onartu, Jauna, zeure familiaren eskeintza;
eta egizu, Espiritu Santua dohaitzat hartu dabenek
gorde dagiela dohai hori eta lortu betiko saria.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Jaunartze ondorengoa

Isuri gugana, Jauna, zeure maitasun-espiritua,
emoten dauan ogi zerutar bat beraz janaritu gaituzunok
bat izan gaitezan bihotzez maitasunean.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

II. GAIXOEN OLIADURA

Gaixoen Oliadura, Sakramentu eta Ohikuneetarako Mezak emon daitekezanean, Meza barruan ospatzen dala, Gaixorik dagozanentzat Mezea erabili daiteke, 1199. or., kolore zuriz, Gaixoen Oliadurarako prefazioarekin 519. or.

Otoitz honeek era berean erabiliko dira gizonezkoarentzat eta emakumearentzat, batentzat nahiz askorentzat, behar diran egokitzeak eginez.

Meza amaieran, ondoren datozen Bedeinkazino nagusietako bat erabili daiteke:

Bedeinkapen nagusia

Gaixo batzurentzat:	Gaixo bakarrarentzat:
Bedeinkatu zagiezala Jainko Aitak. ℟. Amen.	Bedeinkatu zagizala Jainko Aitak. ℟. Amen.
Osatu zagiezala Jainkoaren Semeak. ℟. Amen.	Osatu zagizala Jainkoaren Semeak. ℟. Amen.
Argitu zagiezala Espiritu Santuak. ℟. Amen.	Argitu zagizala Espiritu Santuak. ℟. Amen.
Gorde dagiala Jaunak zuen gorputza eta salbatu zuen arima. ℟. Amen.	Gorde dagiala Jaunak zure gorputza eta salbatu zure arima. ℟. Amen.
Argitu dagiala zuen bihotza eta eroan zagiezala betiko bizitzara. ℟. Amen.	Argitu dagiala zure bihotza eta eroan zagizala betiko bizitzara. ℟. Amen.

Eta hemen zagozen guztiok be bedeinkatu zagiezala Jaungoiko ahalguztidunak:

Aitak, eta Semeak, ✠ eta Espiritu Santuak.
℟. Amen.

Edo:

Izan dadila Jesu Kristo gure Jauna beti zuen ondoan zuek babesteko.
℟. Amen.

Izan dagizuela aurretik zuek gidatzeko, eta atzetik zuek gordetzeko.
℟. Amen.

Berak zaindu, gorde eta bedeinkatu zagiezala.
℟. Amen.

Izan dadila Jesu Kristo gure Jauna beti zure ondoan zu babesteko.
℟. Amen.

Izan dagizula aurretik zu gidatzeko, eta atzetik zu gordetzeko.
℟. Amen.

Berak zaindu, gorde eta bedeinkatu zagizala.
℟. Amen.

Eta hemen zagozen guztiok ere bedeinkatu zagiezala Jaungoiko ahalguztidunak:
Aitak, eta Semeak, ✠ eta Espiritu Santuak.
℟. Amen.

III. ELIZAKOAK EMOTEA

Meza hau erabili daiteke, kolore zuriz, Sakramentu eta Ohikuneetarako Mezak emon daitekezanean.

Otoitz honeek era berean erabiliko dira gizonezkoarentzat eta emakumearentzat, batentzat nahiz askorentzat, behar diran egokitzeak eginez.

Sarrera-ant. Garirik onenaz janaritu eban bere herria, eztirik gozoenaz asetu (P.a. aleluia). Ik. Sal 81 [80], 17

Edo:

Gure gatxak bere gain hartu ebazan Jaunak, eta gure oinazeak eroan (P.a. aleluia). Is 53, 4

Otoitza

Oi Jainko,
zure Semea dogu bidea, egia eta bizia;
begiratu begi onez I. zeure zerbitzariari;
eta egizu,
bere uste osoa zure hitzean jarririk
eta zure Semearen
Gorputz santuaz janariturik,
bakean heldu dadila zure erreinura.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa

Aita guztiz santua,
begiratu, begi onez sakrifizioari,
bere nekaldiaz zeruko ateak edegi zituan
Pazko Bildotsaren ezaugarri izan dadin;
egizu, zure graziari esker,
sartu dagiala opari honek
I. zure zerbitzaria betiko zorionean.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Prefazioa: Eukaristiaren III.a, 517. or.

Jaunartze-ant. Nire haragia jaten eta nire odola edaten dauanak betiko bizia dau, dino Jaunak, eta Neuk biztuko dot azken egunean (P.a. aleluia).
Jn 6, 54

Edo:

Neure gorputzean jasaten dodazun atsekabeen bidez Kristoren atsekabeak osotzen ditut, haren gorputza dan Eleizearen alde (P.a. aleluia).
Kol 1, 24

Jaunartze ondorengoa

Jauna, Zugan sinisten dabenen
betiko salbamena,
egizu, I. zure zerbitzaria,
zerutar ogiz eta ardaoz indartuta,
heldu dadila konfiantza osoz
argiaren eta biziaren erreinura.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

IV. ORDENA SAKRATUAK

1. GOTZAINAREN ORDENAZINOA

Sakramentu Meza hau erabili daiteke, kolore zuriz nahiz jai-girokoz; ez, ostera, festaburuetan, ezta Abendualdiko, Garizumako eta Pazkoaldiko domeketan, Pazko Zortziurreneko egunetan eta Apostoluen jaiegunetan be. Aitatutako egun horreetan egunari dagokion Meza emongo da.

A
Gotzain bakarraren ordenazinoa

Sarrera-ant. Jaunaren Espiritua nire gainean dago, harek igurtzi nau-eta, behartsuei Barri Ona emotera bialdu nau, bihotz-hausiak osatzera (P.a. aleluia). Ik. Lk 4, 18

Aintza zeruetan esango da.

Otoitza

Oi Jainko,
Zuk eskuzabal emondako grazia miragarriari esker,
I.ko eleizbarrutiaren buru egin nahi izan dozu gaur
I. presbiteroa, zeure zerbitzaria;
lagundu eiozu bere gotzain-eginkizuna egoki betetzen,
Zu gauza guztietan gidari izanik,
zuzen eroan dagian hitzez eta ejenpluz
beraren ardurapean jarri dozun herria.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Edo, batez ere, ordenatua izango dana ardura pastoralik ez dauan Gotzaina danean:

Oi Jainko,
zeure artaldea etenbako arretaz zaintzen dozun
fededunen betiko artzaina,
Gotzain Ordenako kide egin nahi izan dozu gaur
I. presbiteroa, zeure zerbitzaria;
egizu, bere biziera santuaz
agertu dadila nonahi Kristoren egiazko testigu.
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Sinisten dot egunari dagokionaren arabera esango da; Jainkoaren herriaren otoitza ez da egingo.

Ordenatu barria dan Gotzaina bada Eukaristiaren liturgian buru, esango dau:

Oparigaien gainekoa

Zure zerbitzari gero eta hobeak izan nahirik eskeintzen deutsugu, Jauna, gorespen-sakrifizioa, merezidu barik emon deustazun eginkizuna Zuk bihotz onez burutu dagizun.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Ordenazioan buru izan dan Gotzain bera bada Eukaristiaren liturgian buru, esango dau:

Atsegin bekizu, Jauna, zure Eleizearen alde eta I. zure zerbitzari Gotzainaren alde egiten dihardugun eskeintza, eta zeure herriaren gotzain egin dozun hau bete egizu apostolu-dohaiez artaldearen onerako.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Prefazioa

KRISTOREN ABADETZA ETA ABADEEN MINISTERIOA

℣. Jauna zuekin.
℟. Eta zure espirituarekin.

℣. Gora bihotzak.
℟. Jaunagan daukaguz.

℣. Eskerrak Jaungoiko gure Jaunari.
℟. Egoki da eta zuzen.

Egoki da, bai, eta zuzen,
bidezko eta salbagarri,
nonahi eta beti guk Zuri eskerrak emotea,
Jauna, Aita guztiz santu,
Jainko ahalguztidun betiko horri.

Zure Seme bakarra, Espiritu Santuaz gantzuturik,
itun barri eta betikoaren Abade Nagusi egin zendulako;
eta, zure salbamen-asmo miragarrian,
haren abadetza bakarrak Eleizan beti irautea erabagi.

Zure Semeak, izan ere,
errege eta abade egin dau bere herri aukeratua
eta, gainera, senide-maitasunez,
herri honetako gizon batzuk aukeratu ditu,
esku-ezartzearen bidez
bere abade-zerbitzuan parte izan dagien.

Honeek, Kristoren izenean,
salbamenaren sakrifizioa gertabarritzen dabe,
zure seme-alabei pazko-afaria prestatuz;
eta zure herri santua zerbitzen dabe maitasunean,
zure hitzaz janaritzen
eta zure sakramentuez indartzen.

Zugaitik, Jauna, eta senideen salbamenerako bizia eskeiniz,
Kristoren antzeko egin daitezala
eta Zuganako fedearen eta maitasunaren
testigu zintzo agertu daitezala beti.

Horregaitik, geuk ere, aingeru eta santu guztiekin batera,
goresten zaitugu, Jauna,
poz betean [esanez] kantari:

Santu, Santu, Santua...




℣. Go-ra bi-ho-tzak. ℟. Jau-na-gan dau-ka-guz.
℣. Es-ke-rrak Jaun-goi-ko gu-re Jau-na-ri. ℟. E-go-ki da e-ta zu-zen.


Egoki da, bai, eta zuzen, bidezko eta sal-ba-ga-rri, no-na-
hi eta beti guk Zuri eskerrak e-mo-te-a, Jauna, Aita guz-
tiz san-tu, Jainko ahalguzti-dun be-ti-ko ho-rri.
Zure Se-me bakarra, Espiritu Santuaz gan-tzu-tu-rik, itun barri eta
betikoaren Abade Nagusi egin zen-du-la-ko eta, zeure salbamen–
–asmo miraga-rri-an, haren abadetza bakarrak Eleizan beti i-rau-te-
a e-ra-ba-gi. Zure Seme-ak, izan ere, errege eta abade egin
dau bere herri auke-ra-tu-a eta, gaine-ra, senide–maitasunez,


herri honetako gizon batzuk aukera-tu di-tu, esku–ezartzea-ren
bi-dez bere abade–zerbitzuan par-te i-zan da-gi-en. Hone-ek,
Kristoren izenean, salbamenaren sakrifizioa gertabarri-tzen da-be,
zure se-me–alabei pazko–afaria pres-ta-tuz; eta zure herri santua
zerbitzen dabe maita-su-ne-an, zure hitzaz jana-ri-tzen
eta zure sakra-men-tu-ez in-dar-tzen.
Zugaitik, Jau-na, eta senideen salbamenerako bizia es-kei-niz,
Kristoren antzeko egin dai-te-za-la eta Zuganako fedearen eta
maitasunaren testigu zin-tzo a-ger-tu dai-te-za-la be-ti.
Horregai-tik, geuk ere, aingeru eta santu guztiekin ba-te-ra,
goresten zaitu-gu, Jau-na, poz be-te-an kan-ta-ri:

Gotzain ordenatu barriaren aipamena Eukaristi Otoitzetan holan egingo da:

a) I. Eukaristi Otoitzean, Hona hemen, Jauna berezi hau esango dau:

Eskaria Gotzain ordenatu barriak egiten badau:

Hona hemen, Jauna, zure zerbitzarion eta zure herri osoaren eskeintza; gaur, batik bat, nire alde eskeintzen deutsugu, Gotzain Ordenako kide egin nozun zeure zerbitzari ezerez honen alde; hartu egizu onez eskeintza hau eta zaindu nigan zeure dohaiak, jainkozko laguntzaz jaso dodan eginkizunean jainkozko frutuak emon daidazan.
[Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. Amen.]

Beste Gotzain batek egiten badau:

Hona hemen, Jauna, zure zerbitzarion eta zure herri osoaren eskeintza; gaur, batik bat, Gotzain Ordenako kide egin dozun I. zeure zerbitzari honen alde eskeintzen deutsugu; hartu egizu onez eskeintza hau eta zaindu beragan zeure dohaiak, jainkozko laguntzaz jaso dauan eginkizunean jainkozko frutuak emon daizan.
[Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. Amen.]

Bedeinkatu, Jauna, eskeintza hau...

b) II. Eukaristi Otoitzean, ...Espiritu Santuak bat egin gaizala hitzen ondoren, esango dau:

Eskaria Gotzain ordenatu barriak egiten badau:

Izan gogoan, Jauna, mundu guztian zabaldurik dagoan zeure Eleizea; eroaizu maitasun osora, I. gure Aita Santuarekin,

Beste gotzain batek egiten badau:

Izan gogoan, Jauna, mundu guztian zabaldurik dagoan zeure Eleizea; eroaizu maitasun osora, I. gure Aita Santuarekin,

ordenatu barria bertako Gotzaina bada:

nirekin, gaur [I.ko] Eleizako Artzain egin nozun zure zerbitzari ezerez honekin †

ordenatu barria bertako Gotzaina bada:

gaur [I.ko] Eleiza honetako Artzain egin dozun I. nire anaiarekin, †

ordenatu barria bertako Gotzaina ez bada:

[I.ko] Eleiza honetako Gotzaina dan I. nire anaiarekin, gaur [I.ko] Elizako Artzain egin nozun zure zerbitzari ezerez honekin †

ordenatu barria bertako Gotzaina ez bada:

[I.ko] Eleiza honetako Gotzaina dan I. nire anaiarekin, gaur [I.ko] Eleizako Artzain egin dozun I. zure zerbitzari honekin †

† eta elizgizon guztiekin batean.

Era berean, izan gogoan, Jauna, bizteko itxaropenean…

c) III. Eukaristi Otoitzean, …mundu guztiarentzat bake eta salbamen hitzen ondoren, esango dau:

Eskaria Gotzain ordenatu barriak egiten badau:

Mundu honetako ibilaldian, bete egizu sinismenez eta maitasunez zeure Eleizea: zeure zerbitzari I. gure Aita Santua,

Beste gotzain batek egiten badau:

Mundu honetako ibilaldian, bete egizu sinismenez eta maitasunez zeure Eleizea: zeure zerbitzari I. gure Aita Santua,

ordenatu barria bertako Gotzaina bada:

ni, gaur [I.ko] Eleiza honetako Artzain egin nozun zure zerbitzari ezerez hau, †

ordenatu barria bertako Gotzaina bada:

gaur [I.ko] Eleiza honetako Artzain egin dozun I. nire anaia, †

ordenatu barria bertako Gotzaina ez bada:

[I.ko] Eleiza honetako Gotzaina dan I. nire anaia, ni, gaur [I.ko] Elizako Artzain aukeratu nozun zure zerbitzari ezerez hau, †

ordenatu barria bertako Gotzaina ez bada:

[I.ko] Eleiza honetako Gotzaina dan I. nire anaia, gaur [I.ko] Elizako Artzain egin dozun I. zure zerbitzari hau †

† gainerako gotzain eta eleizgizon guztiak
eta zeurea dozun herri osoa.

Entzun, bihotz onez...

d) Meza honetako prefazio berezia erabiltzekoa ez bada, IV. Eukaristi Otoitza hartu daiteke, eta, ...zure aintzaren goresgarri hitzen ondoren, esango dau:

Eskaria Gotzain ordenatu barriak egiten badau:

Orain, Jauna, izan gogoan, guk, opari hau eskeintzean, gogoan doguzan guztiak: lehenengo, zeure zerbitzari I. gure Aita Santua,

Beste Gotzain batek egiten badau:

Orain, Jauna, izan gogoan, guk, opari hau eskeintzean, gogoan doguzan guztiak: lehenengo, zeure zerbitzari I. gure Aita Santua,

ordenatu barria bertako Gotzaina bada:

ni, gaur [I.ko] Eleiza honetako Artzain egin nozun zure zerbitzari ezerez hau, †

ordenatu barria bertako Gotzaina bada:

gaur [I.ko] Eleiza honetako Gotzain aukeratu dozun I. nire anaia, †

ordenatu barria bertako Gotzaina ez bada:

[I.ko] Eleiza honetako Gotzain dan I. nire anaia, gaur

ordenatu barria bertako Gotzaina ez bada:

[I.ko] Eleiza honetako Gotzain dan I. nire anaia, gaur

zure herriaren zerbitzurako aukeratu nozun I. zure zerbitzari ezerez hau, †

zure herriaren zerbitzurako aukeratu dozun I. zure zerbitzari hau, †

† mundu zabaleko gotzain eta eleizgizon guztiak,
Meza hau eskeintzen dabenak, hemen batu diranak,
zeure herri osoa
eta bihotz zintzoz zure bila dabiltzan guztiak.

Izan gogoan Kristoren bakean hil diranak be...

Jaunartze-ant. Aita guztiz santua, sagaratu egizuz honeek egiaren bidez. Ni mundura bialdu ninduzun lez, Nik be mundura bialdu ditut honeek, dino Jaunak (P.a. aleluia). Jn 17, 17-18

Ordenatu barria dan Gotzaina bada Eukaristiaren liturgian buru, esango dau:

Ordenazinoan buru izan dan Gotzain bera bada Eukaristiaren liturgian buru, esango dau:

Jaunartze ondorengoa

Eroan, bihotz onez, gugan, Jauna, bere betera zeure errukizko salbazino-egintza; egin gaizuz on-onak eta adoretu, gauza guztietan zure nahia bete ahal izateko. Jesukristo gure Jaunaren bitartez.

Sakramentu honen indarrez, Jauna, emon ugari I. zeure zerbitzari Gotzainari zeure graziaren dohaiak, egoki bete dagian artzainzerbitzua eta betiko saria lortu egindako lan onagaitik. Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Ordenatu barria dan Gotzaina bada Eukaristiaren liturgian buru, eskuak herriaren gain zabalik, bedeinkapen hau emongo dau:

Ordenazinoan buru izan dan Gotzain bera bada Eukaristiaren liturgian buru, eskuak gotzain ordenatu barriaren gain zabalik, bedeinkapen hau emongo dau:

Bedeinkapen nagusia

Oi Jainko, errukiz zaintzen dozu zeure herria eta maitasunez gidatzen; emoiguzu jakituri espiritua Eleizearen ardura emon deuskuzun

Bedeinkatu eta gorde zagizala Jaunak eta, bere herriaren gotzain egin zaituanez, egin zagizala zoriontsu mundu honetan eta emon

artzainoi, artaldearen santutasuna artzainon betiko poz izan dadin.
℟. Amen.

Zuk ezartzen deutsezu neurria, Jauna, zeure ahalmen handiaz, gure bizitzako egunei eta denporaren iraupenari; begitu egiozu onez gure zerbitzu apal honi eta emoiguzu oparo geure egunotan zeure bakea.
℟. Amen.

Zaindu egizu, Jauna, zeure onginahiz emon deustazun eginkizuna eta Gotzain Ordenako kide egin nozun ezkero, emoidazu Zuretzat egintza onez atsegingarri izatea; eta egin gaizuz bat herria eta artzaina alkarrenganako maitasunean, artzainak artaldearen obedientzia izan dagian, eta artaldeak artzainaren ardura beti.
℟. Amen.

Eta herri osoa bedeinkatuko dau, esanez:

Eta hemen zagozen guztiok be
bedeinkatu zagiezala Jaungoiko ahalguztidunak:
Aitak, ✠ eta Semeak, ✠ eta Espiritu ✠ Santuak.
℟. Amen.

deizula parte izatea betiko zorionean.
℟. Amen.

Emon deizula Jaunak, bere laguntzaz eta zeure arduraz, urte askotan zorionez gidatzea, bai eleizgizonak, bai maitasunez batu nahi izan dauan herria.
℟. Amen.

Eta izan dagiela danek bake ona mundu honetan, Jainkoaren aginduak betez, ezbeharrak gaindituz, era guztietako egintza onetan aberats izanez eta zure zerbitzua aintzat hartuz, eta lortu dagiela zurekin santuen batzarrean alkartzea.
℟. Amen.

B
Gotzain batzuen ordenazinoa

Sarrera-ant. Jaunaren Espiritua nire gainean dago, harek igurtzi nau-eta, behartsuei Barri Ona emotera bialdu nau, bihotz-hausiak osatzera (P.a. aleluia). Ik. Lk 4, 18

Aintza zeruetan esango da.

Otoitza

Oi Jainko,
Zuk eskuzabal emondako graziari esker,
gotzain-zerbitzua emon nahi izan deutsezu gaur
zeure zerbitzari presbitero honeei;
lagundu egiezu euren gotzain-eginkizuna egoki betetzen,
Zu gauza guztietan gidari izanik,
zuzen eroan dagien hitzez eta ejenpluz
euron ardurapean jarri dozun herria.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Edo, batez be, ordenatuak izango diranak ardura pastoralik ez daben Gotzainak diranean:

Oi Jainko,
zeure artaldea etenbako arretaz zaintzen dozun
fededunen betiko artzaina,
Gotzain Ordenako kide egin nahi izan dozuz gaur
zeure zerbitzari presbitero honeek;
egizu, euren biziera santuaz
agertu daitezala nonahi Kristoren egiazko testigu.
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Sinisten dot egunari dagokionaren arabera esango da; Jainkoaren herriaren otoitza ez da egingo.

Ordenatu barria dan Gotzaina bada Eukaristiaren liturgian buru, esango dau:

Ordenazinoan buru izan dan Gotzain bera bada Eukaristiaren liturgian buru, esango dau:

Oparigaien gainekoa

Zure zerbitzari gero eta hobeak izan nahirik eskeintzen deutsugu, Jauna, gorespen-sakrifizioa, merezidu barik emon deuskuzun eginkizuna Zuk bihotz onez burutu dagizun.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Atsegin bekizu, Jauna, zure Eleizearen alde eta Gotzain sagaratuak izan diran zure zerbitzari honeen alde egiten dihardugun eskeintza, eta zeure herriaren gotzain egin dituzun honeek bete egizuz apostolu-dohaiez artaldearen onerako.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Prefazioa: Kristoren Abadetza eta abadeen ministerioa, 230. or.

Gotzain ordenatu barrien aipamena Eukaristi Otoitzetan honan egingo da:

a) I. Eukaristi Otoitzean, Hona hemen, Jauna berezi hau esango dau:

Eskaria Gotzain ordenatu barrietako batek egiten badau:

Hona hemen, Jauna, zure zerbitzarion eta zure herri osoaren eskeintza; gaur, batik bat, nire alde, zeure zerbitzari ezerez honen alde, eta Gotzain Ordenako kide egin dituzun zeure zerbitzari honeen alde eskeintzen deutsugu; hartu egizu onez eskeintza hau eta zaindu gugan zeure dohaiak, jainkozko laguntzaz jaso dogun eginkizunean

Eskaria beste Gotzain batek egiten badau:

Hona hemen, Jauna, zure zerbitzarion eta zure herri osoaren eskeintza; gaur, batik bat, Gotzain Ordenako kide egin dituzun zeure zerbitzari honeen alde eskeintzen deutsugu; hartu egizu onez eskeintza hau eta zaindu eurengan zeure dohaiak, jainkozko laguntzaz jaso daben eginkizunean jainkozko frutuak emon dagiezan.

jainkozko frutuak emon daiguzan.
[Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. Amen.]

[Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. Amen.]

Bedeinkatu, Jauna, eskeintza hau...

b) II. Eukaristi Otoitzean, eskaria Gotzain ordenatu barrietako batek egiten badau, ...Espiritu Santuak bat egin gaizala hitzen ondoren, esango dau:

Izan gogoan, Jauna,
mundu guztian zabaldurik dagoan zeure Eleizea;
eroaizu maitasun osora,
I. gure Aita Santuarekin,
[(I.ko) Eleiza honetako Gotzaina dan I. nire anaiarekin, †]
nirekin, zure zerbitzari ezerez honekin
gaur Eleizako artzain egin dozuzan
I. eta I. zeure zerbitzari honeekin
eta eleizgizon guztiekin batean.

Era berean, izan gogoan, Jauna, bizteko itxaropenean...

c) III. Eukaristi Otoitzean, eskaria Gotzain ordenatu barrietako batek egiten badau, ...mundu guztiarentzat bake eta salbamen hitzen ondoren, esango dau:

Mundu honetako ibilaldian,
bete egizu sinismenez eta maitasunez zeure Eleizea:
zeure zerbitzari I. gure Aita Santua,
[(I.ko) Eleiza honetako Gotzaina dan I. nire anaia, †]
ni, zure zerbitzari ezerez hau,
eta gaur Eleizako artzain sagaratu dozuzan
I. eta I. zeure zerbitzari honeek,
gainerako gotzain eta eleizgizon guztiak
eta zeurea dozun herri osoa.

Entzun, bihotz onez...

d) Meza honetako prefazio berezia erabiltzekoa ez bada, IV. Eukaristi Otoitza hartu daiteke, eta, eskaria Gotzain ordenatu barrietako batek egiten badau, ...zure aintzaren goresgarri hitzen ondoren, esango dau:

Orain, Jauna, izan gogoan,
guk, opari hau eskeintzean, gogoan doguzan guztiak:
lehenengo, zeure zerbitzari I. gure Aita Santua,
[(I.ko) Eleiza honetako Gotzaina dan I. nire anaia, †]
ni, zure zerbitzari ezerez hau,
eta gaur zeure herriaren zerbitzurako aukeratu dozuzan
I. eta I. zeure zerbitzari honeek,
mundu zabaleko gotzain eta eleizgizon guztiak,
Meza hau eskeintzen dabenak,
hemen batu diranak,
zeure herri osoa
eta bihotz zintzoz zure bila dabiltzan guztiak.

Izan gogoan Kristoren bakean hil diranak ere...

Jaunartze-ant. Aita guztiz santua, sagaratu egizuz honeek egiaren bidez. Ni mundura bialdu ninduzun lez, Neuk ere mundura bialdu ditut honeek, dino Jaunak (P.a. aleluia). Jn 17, 17-18

Ordenatu barria dan Gotzaina bada Eukaristiaren liturgian buru, esango dau:

Jaunartze ondorengoa

Eroan onez gugan, Jauna, bere betera zeure errukizko salbazino-egintza; egin gaizuz on-onak eta adoretu, gauza guztietan zure nahia bete ahal izateko.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Ordenazinoan buru izan dan Gotzain bera bada Eukaristiaren liturgian buru, esango dau:

Sakramentu honen indarrez, Jauna, emon ugari zure zerbitzari Gotzain honeei zeure graziaren dohaiak, egoki bete dagien artzain-zerbitzua eta betiko saria jadetsi egindako lan onagaitik.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Ordenatu barria dan Gotzaina bada Eukaristiaren liturgian buru, eskuak erriaren gain zabalik, bedeinkapen hau emongo dau:

Ordenazinoan buru izan dan Gotzain bera bada Eukaristiaren liturgian buru, eskuak gotzain ordenatu barrien gain zabalik, bedeinkapen hau emongo dau:

Bedeinkapen nagusia

Oi Jainko, errukiz zaintzen dozu zeure herria eta maitasunez gidatzen; emoiguzu jakituri espiritua Eleizearen ardura emon deuskuzun artzainoi, artaldearen santutasuna artzainon betiko poz izan dadin.
℟. Amen.

Bedeinkatu eta gorde zagiezala Jaunak eta, bere herriaren gotzain egin zaituenez, egin zagiezala zoriontsu mundu honetan eta emon deizuela parte izatea betiko zorionean.
℟. Amen.

Zeuk ezartzen deutsezu neurria, Jauna, zeure ahalmen handiaz, gure bizitzako egunei eta denporaren iraupenari; begiratu egiozu gure zerbitzu apal honi eta emoiguzu oparo geure egunotan zeure bakea.
℟. Amen.

Emon deizuela Jaunak, bere laguntzaz eta zeuen arduraz, urte askotan zorionez gidatzea, bai eleizgizonak, bai maitasunez batu nahi izan dauan herria.
℟. Amen.

Zaindu egizu, Jauna, zeure onginahiz emon deuskuzun eginkizuna eta Gotzain Ordenako kide egin gaituzun ezkero, emoiguzu Zuretzat egintza onez atsegingarri izatea; eta egin gaizuz bat herria eta artzaina alkarrenganako maitasunean, artzainak artaldearen obedientzia izan dagian, eta artaldeak artzainaren ardura beti.
℟. Amen.

Eta izan dagiela danek bake ona mundu honetan, Jainkoaren aginduak betez, ezbeharrak gaindituz, era guztietako egintza onetan aberats izanez eta zure zerbitzua aintzat hartuz, eta lortu dagiela zugaz santuen batzarrean alkartzea.
℟. Amen.

Eta herri osoa bedeinkatuko dau, esanez:

Eta hemen zagozen guztiok ere
bedeinkatu zagiezala Jaungoiko ahalguztidunak:
Aitak, ✠ eta Semeak, ✠ eta Espiritu ✠ Santuak.
℟. Amen.

2. PRESBITEROEN ORDENAZINOA

Sakramentu Meza hau erabili daiteke, kolore zuriz nahiz jai-girokoz; ez, ostera, festaburuetan, ezta Abendualdiko, Garizumako eta Pazkoaldiko domeketan eta Pazko Zortziurreneko egunetan be. Aitatutako egun horreetan egunari dagokion Mezea emongo da.

A
Presbitero batzuren ordenazinoa

Sarrera-ant. Neure gogoko artzainak emongo deutsuedaz, jakituriaz eta zuhurtasunez gidatuko zaitueen artzainak (P.a. aleluia). Ik. Jr 3, 15

Aintza zeruetan esango da.

Otoitza Jainko gure Jauna,
zeure herriaren zuzendari-eginkizuna emon deutsezu abadeei;
emoiezu, gaur presbitero-zerbitzurako aukeratu dozuzan
zeure Eleizako diakono honeei
iraupena zure nahia betetzeko,
euren lanetan eta bizitzan Zeu goratu zagiezan Kristogan.
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Sinisten dot egunari dagokionaren arabera esango da; Jainkoaren herriaren otoitza ez da egingo.

Oparigaien gainekoa

Oi Jainko, zure abadeek
altara sakratua eta zure herria zerbidu dagiela nahi izan dozu;
egizu onez, sakrifizio honi esker,
zure gogoko izan dadila honeen zerbitzua
eta emon dagiala Eleizan beti iraungo dauan frutua.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Prefazioa: Kristoren Abadetza eta abadeen ministerioa, 230. or.

Presbitero ordenatu barrien aipamena Eukaristi Otoitzetan honan egingo da:

a) I. Eukaristi Otoitzean, Gotzain meza-emoileak Hona hemen, Jauna berezi hau esango dau:

Hona hemen, Jauna, zure zerbitzarion
eta zure herri osoaren eskeintza;
gaur, batez be, Presbitero Ordenako kide egin dozuzan
zeure zerbitzari honeen alde eskeintzen deutsugu;
hartu egizu onez eskeintza hau
eta zaindu honeengan zeure dohaiak,
jainkozko laguntzaz jaso daben eginkizunean
jainkozko frutuak emon dagiezan.
[Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. Amen.]

b) II. Eukaristi Otoitzean, alkarmeza-emoileak, ...Espiritu Santuak bat egin gaizala hitzen ondoren, esango dau:

Izan gogoan, Jauna,
mundu guztian zabaldurik dagoan zeure Eleizea;
eroaizu maitasun osora,
I. gure Aita Santuarekin,
I. gure Gotzainarekin,
gaur Eleizako presbitero egin dozuzan
zeure zerbitzari honeekin
eta eleizgizon guztiekin batean.

Era berean, izan gogoan, Jauna, bizteko itxaropenean...

c) III. Eukaristi Otoitzean, alkarmeza-emoileak, ...mundu guztiarentzat bake eta salbamen hitzen ondoren, esango dau:

Mundu honetako ibilaldian,
bete egizu sinismenez eta maitasunez zeure Eleizea:
zeure zerbitzari I. gure Aita Santua,
I. gure Gotzaina,
beste gotzain guztiak,
gaur Eleizako artzain sagaratu dozuzan
zeure zerbitzari honeek,
beste eleizgizon guztiak
eta zeurea dozun herri osoa.

Entzun, bihotz onez...

d) Meza honetako prefazio berezia erabiltzekoa ez bada, IV. Eukaristi Otoitza hartu daiteke, eta alkarmeza- emoileak, ...zure aintzaren goresgarri hitzen ondoren, esango dau:

Orain, Jauna, izan gogoan,
guk, opari hau eskeintzean, gogoan doguzan guztiak:
lehenengo, zeure zerbitzari I. gure Aita Santua,
I. gure Gotzaina,
mundu zabaleko gotzain guztiak,
gaur zeure herriaren presbitero-zerbitzurako
aukeratu dituzun honeek
eta gainerako eleizgizon guztiak,
Meza hau eskeintzen dabenak,
hemen batu diranak,
zeure herri osoa
eta bihotz zintzoz zure bila dabiltzan guztiak.

Izan gogoan Kristoren bakean hil diranak ere...

Jaunartze-ant. Zoaze mundu guztira eta iragarri Barri Ona; Ni zeuekin izango nozue egunero munduaren azkenera arte (P.a. aleluia).

Mk 16, 15; Mt 28, 20

Jaunartze ondorengoa

Eskeini eta hartu dogun opari santuak
bizibarritu dagizala, Jauna, zure abadeak eta fededun guztiak,
maitasunean eten barik Zugaz bat eginik
Zeu, Jaun handi hori, egoki zerbidu zagiezan.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Gotzainak, eskuak presbitero ordenatu barrien eta herriaren gain zabalik, esango dau:

Bedeinkapen nagusia

Eleizea eratu eta gidatzen dauan Jainkoak
babestu zagiezala eten barik bere graziaz,
leial bete dagizuen presbitero-eginkizuna.
℟. Amen.

Berak egin zagiezala jainkozko maitasunaren eta egiaren zerbitzari eta testigu munduan,
eta adiskidetzearen zerbitzari leial.
℟. Amen.

Egin zagiezala egiazko artzain,
fededunei ogi bizia eta hitz bizi-emoilea eskeintzeko,
gero eta batasun handiagoa izan dagien Kristoren gorputzean.
℟. Amen.

Eta herri osoa bedeinkatuko dau, esanez:

Eta hemen zagozen guztiok ere
bedeinkatu zagiezala Jaungoiko ahalguztidunak:
Aitak, ✠ eta Semeak, ✠ eta Espiritu ✠ Santuak.
℟. Amen.

B
Presbitero bakarraren ordenazinoa

Sarrera-ant. Neure gogoko artzainak emongo deutsuedaz, jakituriaz eta zuhurtasunez gidatuko zaitueen artzainak (P.a. aleluia). Ik. Jr 3, 15

Aintza zeruetan esango da.

Otoitza

Jainko gure Jauna,
zeure herriaren zuzendari-eginkizuna emon deutsezu abadeei;
emoiozu, gaur presbitero-zerbitzurako aukeratu dozun
zeure Eleizako diakono honi
iraupena zure nahia betetzeko,
bere lanetan eta bizitzan Zu goratu zagizan Kristogan.
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Sinisten dot egunari dagokionaren arabera esango da; Jainkoaren herriaren otoitza ez da egingo.

Oparigaien gainekoa

Oi Jainko, zure abadeek
altara sakratua eta zure herria zerbidu dagiela nahi izan dozu;
egizu onez, sakrifizio honi esker,
zure gogoko izan dadila honeen zerbitzua
eta emon dagiala Eleizan beti iraungo dauan frutua.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Prefazioa: Kristoren Abadetza eta abadeen ministerioa, 230. or.
Presbitero ordenatu barriaren aipamena Eukaristi Otoitzetan honan egingo da:

a) I. Eukaristi Otoitzean, Gotzain meza-emoileak Hona hemen, Jauna berezi hau esango dau:

Hona hemen, Jauna, zure zerbitzarion
eta zure herri osoaren eskeintza;
gaur, batez ere, Presbitero Ordenako kide egin dozun
zeure zerbitzari honen alde eskeintzen deutsugu;

hartu egizu onez eskeintza hau
eta zaindu honengan zeure dohaiak,
jainkozko laguntzaz jaso dauan eginkizunean
jainkozko frutuak emon dagizan.
[Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. Amen.]

b) II. Eukaristi Otoitzean, alkarmeza-emoileak, ...Espiritu Santuak bat egin gaizala hitzen ondoren, esango dau:

Izan gogoan, Jauna,
mundu guztian zabaldurik dagoan zeure Eleizea;
eroaizu maitasun osora,
I. gure Aita Santuarekin,
I. gure Gotzainarekin,
gaur Eleizako presbitero egin dozun
zeure zerbitzari honekin,
eta eleizgizon guztiekin batean.

Era berean, izan gogoan, Jauna, bizteko itxaropenean...

c) III. Eukaristi Otoitzean, alkarmeza-emoileak, ...mundu guztiarentzat bake eta salbamen hitzen ondoren, esango dau:

Mundu honetako ibilaldian,
bete egizu sinismenez eta maitasunez zeure Eleizea:
zeure zerbitzari I. gure Aita Santua,
I. gure Gotzaina,
beste gotzain guztiak,
gaur Eleizako artzain sagaratu dozun
zeure zerbitzari hau,
beste eleizgizon guztiak
eta zeurea dozun herri osoa.

Entzun bihotz onez...

d) Meza honetako prefazio berezia erabiltzekoa ez bada, IV. Eukaristi Otoitza hartu daiteke, eta alkarmeza- emoileak, ...zure aintzaren goresgarri hitzen ondoren, esango dau:

Orain, Jauna, izan gogoan,
guk, opari hau eskeintzean, gogoan doguzan guztiak:
lehenengo, zeure zerbitzari I. gure Aita Santua,
I. gure Gotzaina,
mundu zabaleko gotzain guztiak,
gaur zeure herriaren presbitero-zerbitzurako
aukeratu dozun hau
eta beste eleizgizon guztiak,
Meza hau eskeintzen dabenak,
hemen batu diranak,
zeure herri osoa
eta bihotz zintzoz zure bila dabiltzan guztiak.

Izan gogoan Kristoren bakean hil diranak be...

Jaunartze-ant. Zoaze mundu guztira eta iragarri Barri Ona; Ni zeuekin izango nozue egunero munduaren azkenera arte (P.a. aleluia).
Mk 16, 15; Mt 28, 20

Jaunartze ondorengoa Eskeini eta hartu dogun opari santuak
bizibarritu dagizala, Jauna, zure abadeak eta fededun guztiak,
maitasunean eten barik Zurekin bat eginik
Zu, Jaun handi hori, egoki zerbidu zagiezan.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Gotzainak, eskuak presbitero ordenatu barriaren eta herriaren gain zabalik, esango dau:

Bedeinkapen nagusia Eleiza eratu eta gidatzen dauan Jainkoak
babestu zagizala eten barik bere graziaz,
leial bete dagizun presbitero-eginkizuna.
℟. Amen.

Berak egin zagizala jainkozko maitasunaren eta egiaren
zerbitzari eta testigu munduan,
eta adiskidetzearen zerbitzari leial.
℟. Amen.

Egin zagizala egiazko artzain,
fededunei ogi bizia eta hitz bizi-emoilea eskeintzeko,
gero eta batasun handiagoa izan dagien
Kristoren gorputzean.
℟. Amen.

Eta herri osoa bedeinkatuko dau, esanez:

Eta hemen zagozen guztiok ere
bedeinkatu zagiezala Jaungoiko ahalguztidunak:
Aitak, ✠ eta Semeak, ✠ eta Espiritu ✠ Santuak.
℟. Amen.

3. DIAKONOEN ORDENAZINOA

Sakramentu Meza hau erabili daiteke, kolore zuriz nahiz jai-girokoz; ez, ostera, festaburuetan, ezta Abendualdiko, Garizumako eta Pazkoaldiko domeketan eta Pazko Zortziurreneko egunetan be. Aitatutako egun horretan egunari dagokion Mezea emongo da.

A
Diakono batzuren ordenazinoa

Sarrera-ant. Nire zerbitzari izan nahi dauanak, jarraitu beit, dino Jaunak; eta, Ni nagoan tokian, han izango da nire zerbitzaria be (P.a. aleluia).
Jn 12, 26

Aintza zeruetan esango da.

Otoitza

Oi Jainko, zerbiduak izaten ez,
senideen zerbitzuan jarduten baino
irakatsi zeuntsen Eleizako zerbitzariei;
gaur diakono-eginkizunerako aukeratu dozuzan honeek
egizuz euren lanean arduratsu,
zerbitzuan apal eta otoitzean iraunkor.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Sinisten dot egunari dagokionaren arabera esango da; Jainkoaren herriaren otoitza ez da egingo.

Oparigaien gainekoa

Aita guztiz santua,
zure Semeak oinak garbitu eutsezan bere ikasleei,
guri ejenplua emoteko;
onartu egizuz zeure zerbitzarion oparigaiak
eta egizu, geure burua espirituzko oparitzat eskeiniz,
bete gaitezala apaltasun- eta arreta-espirituz.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Prefazioa: Kristo, ministerio guztien iturria Eleizan, 1061. or.

Diakono ordenatu barrien aipamena Eukaristi Otoitzetan honan egingo da:

a) I. Eukaristi Otoitzean, Gotzain meza-emoileak, Hona hemen, Jauna berezi hau esango dau:

Hona hemen, Jauna, zure zerbitzarion
eta zure herri osoaren eskeintza;
gaur, batik bat, Diakono Ordenako kide egin dozuzan
zeure zerbitzari honeen alde eskeintzen deutsugu;
hartu egizu onez eskeintza hau
eta zaindu honeengan zeure dohaiak,
jainkozko laguntzaz jaso daben eginkizunean
jainkozko frutuak emon dagiezan.

[Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. Amen.]

b) II. Eukaristi Otoitzean, alkarmeza-emoileak, ...Espiritu Santuak bat egin gaizala hitzen ondoren, esango dau:

Izan gogoan, Jauna,
mundu guztian zabaldurik dagoan zeure Eleizea;
eroaizu maitasun osora,
I. gure Aita Santuarekin,
I. gure Gotzainarekin,
gaur Eleizako diakono egin dozuzan
zeure zerbitzari honeekin,
eta eleizgizon guztiekin batean.

Era berean, izan gogoan, Jauna, bizteko itxaropenean...

c) III. Eukaristi Otoitzean, alkarmeza-emoileak, ...mundu guztiarentzat bake eta salbamen hitzen ondoren, esango dau:

Mundu honetako ibilaldian,
bete egizu sinismenez eta maitasunez zeure Eleizea:
zeure zerbitzari I. gure Aita Santua,
I. gure Gotzaina,
beste gotzain guztiak,
gaur Eleizako diakono sagaratu dozuzan
zeure zerbitzari honeek,
beste eleizgizon guztiak
eta zeurea dozun herri osoa.

Entzun bihotz onez...

d) Meza honetako prefazio berezia erabiltzekoa ez bada, IV. Eukaristi Otoitza hartu daiteke, eta alkarmeza- emoileak, ...zure aintzaren goresgarri hitzen ondoren, esango dau:

Orain, Jauna, izan gogoan,
guk, opari hau eskeintzean, gogoan doguzan guztiak:
lehenengo, zeure zerbitzari I. gure Aita Santua,
I. gure Gotzaina,
mundu zabaleko gotzain guztiak,
gaur zeure herriaren diakono-zerbitzurako aukeratu dozuzan

zeure zerbitzari honeek
eta beste eleizgizon guztiak,
Meza hau eskeintzen dabenak,
hemen batu diranak,
zeure herri osoa
eta bihotz zintzoz zure bila dabiltzan guztiak.

Gogoan izan Kristoren bakean hil diranak be...

Jaunartze-ant. Gizonaren Semea ez da etorri zerbidua izatera, zerbitzari izatera baino, eta bere bizia guztien ordainsari emotera (P.a. aleluia).
Mt 20, 28

Jaunartze ondorengoa

Zerutar janariz eta edariz ase dituzu, Jauna,
zeure zerbitzariak;
egizu, Ebanjelioaren, sakramentuen eta karitatearen
zerbitzari leial izan daitezala,
Zu goresteko eta fededunak salbatzeko.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Gotzainak, eskuak diakono ordenatu barrien eta herriaren gain zabalik, esango dau:

Bedeinkapen nagusia

Eleizan gizakien zerbitzari izatera dei egin deutsuen Jainkoak
egin zagiezala benetan arduratsu danekin,
baina batez be nahigabetu eta pobreekin.
℟. Amen.

Izan dagizuela Kristoren Ebanjelioa iragartzeko zeregina
emon deutsuen haren laguntza,
haren hitzaren arabera bizi izanez,
haren testigu leial eta sutsu izan zaitezen.
℟. Amen.

Eta bere misterioen zabaltzaile egin zaituen harek
egin zagiezala bere Seme Jesu Kristoren jarraitzaile
eta batasunaren eta bakearen zerbitzari munduan.
℟. Amen.

Eta herri osoa bedeinkatuko dau, esanez:

Eta hemen zagozen guztiok ere
bedeinkatu zagiezala Jaungoiko ahalguztidunak:
Aitak, ✠ eta Semeak, ✠ eta Espiritu ✠ Santuak.
℟. Amen.

B
Diakono bakarraren ordenazinoa

Sarrera-ant. Nire zerbitzari izan nahi dauanak, jarraitu beit, dino Jaunak; eta, Ni nagoan tokian, han izango da nire zerbitzaria be (P.a. aleluia).
Jn 12, 26

Aintza zeruetan esango da.

Otoitza Oi Jainko, zerbiduak izaten ez,
senideen zerbitzuan jarduten baino
irakatsi zeuntsen Eleizako zerbitzariei;
gaur diakono-eginkizunerako aukeratu dozun hau
egizu bere lanean arduratsu,
zerbitzuan apal eta otoitzean iraunkor.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Sinisten dot egunari dagokionaren arabera esango da; Jainkoaren herriaren otoitza ez da egingo.

Oparigaien gainekoa Aita guztiz santua,
zure Semeak oinak garbitu eutsezan bere ikasleei,
guri ejenplua emoteko;
onartu egizuz zeure zerbitzarion oparigaiak
eta egizu, geure burua espirituzko oparitzat eskeiniz,
bete gaitezala apaltasun- eta arreta-espirituz.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Prefazioa: Kristo, ministerio guztien iturria Eleizan, 1061. or.

Diakono ordenatu barriaren aipamena Eukaristi Otoitzetan honan egingo da:

a) I. Eukaristi Otoitzean, Gotzain meza-emoileak Hona hemen, Jauna berezi hau esango dau:

Hona hemen, Jauna, zure zerbitzarion
eta zure herri osoaren eskeintza;
gaur, batez ere, Diakono Ordenako kide egin dozun
zeure zerbitzari honen alde eskeintzen deutsugu;
hartu egizu onez eskeintza hau
eta zaindu honengan zeure dohaiak,
jainkozko laguntzaz jaso dauan eginkizunean
jainkozko frutuak emon dagizan.

[Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. Amen.]

b) II. Eukaristi Otoitzean, alkarmeza-emoileak, ...Espiritu Santuak bat egin gaizala hitzen ondoren, esango dau:

Izan gogoan, Jauna,
mundu guztian zabaldurik dagoan zeure Eleizea;
eroaizu maitasun osora,
I. gure Aita Santuarekin,
I. gure Gotzainarekin,
gaur Eleizako diakono sagaratu dozun
zeure zerbitzari honekin,
eta eleizgizon guztiekin batean.

Era berean, izan gogoan, Jauna, bizteko itxaropenean...

c) III. Eukaristi Otoitzean, alkarmeza-emoileak, ...mundu guztiarentzat bake eta salbamen hitzen ondoren, esango dau:

Mundu honetako ibilaldian,
bete egizu sinismenez eta maitasunez zeure Eleizea:
zeure zerbitzari I. gure Aita Santua,
I. gure Gotzaina,

beste gotzain guztiak,
gaur Eleizako diakono sagaratu dozun zeure zerbitzari hau,
eleizgizon guztiak
eta zeurea dozun herri osoa.

Entzun bihotz onez...

d) Meza honetako prefazio berezia erabiltzekoa ez bada, IV. Eukaristi Otoitza hartu daiteke, eta alkarmeza- emoileak, ...zure aintzaren goresgarri hitzen ondoren, esango dau:

Orain, Jauna, izan gogoan,
guk, opari hau eskeintzean, gogoan doguzan guztiak:
lehenengo, zeure zerbitzari I. gure Aita Santua,
I. gure Gotzaina,
mundu zabaleko gotzain guztiak,
gaur zeure herriaren diakono-zerbitzurako aukeratu dozun
zeure zerbitzari hau
eta beste eleizgizon guztiak,
Meza hau eskeintzen dabenak,
hemen batu diranak,
zeure herri osoa
eta bihotz zintzoz zure bila dabiltzan guztiak.

Gogoan izan Kristoren bakean hil diranak be...

Jaunartze-ant. Gizonaren Semea ez da etorri zerbidua izatera, zerbitzari izatera baino, eta bere bizia guztien ordainsari emotera (P.a. aleluia).

Mt 20, 28

Jaunartze ondorengoa

Zerutar janariz eta edariz asetu dozuz, Jauna,
zeure zerbitzariak;
egizu, Ebanjelioaren, sakramentuen eta karitatearen
zerbitzari leial izan daitezala,
Zeu goresteko eta fededunak salbatzeko.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Gotzainak, eskuak diakono ordenatu barrien eta herriaren gain zabalik, esango dau:

Bedeinkapen nagusia

Eleizan gizakien zerbitzari izatera dei egin deutsun Jainkoak
egin zagizala benetan arduratsu danekin,
baina batez be nahigabetu eta pobreekin.
℟. Amen.

Izan dagizula Kristoren Ebanjelioa iragartzeko zeregina
emon deutsun haren laguntza,
haren hitzaren arabera bizi izanez,
beraren testigu leial eta sutsu izan zaitezan.
℟. Amen.

Eta bere misterioen zabaltzaile egin zaituan harek
egin zagizala bere Seme Jesu Kristoren jarraitzaile
eta batasunaren eta bakearen zerbitzari munduan.
℟. Amen.

Eta herri osoa bedeinkatuko dau, esanez:

Eta hemen zagozen guztiok ere
bedeinkatu zagiezala Jaungoiko ahalguztidunak:
Aitak, ✠ eta Semeak, ✠ eta Espiritu ✠ Santuak.
℟. Amen.

4. DIAKONOEN ETA PRESBITEROEN ORDENAZINOA OSPAKIZUN BEREAN

Sakramentu Meza hau erabili daiteke, kolore zuriz nahiz jai-girokoz; ez, ostera, festaburuetan, ezta Abendualdiko, Garizumako eta Pazkoaldiko domeketan eta Pazko Zortziurreneko egunetan be. Aitatutako egun horreetan egunari dagokion Mezea emongo da.

Sarrera-ant.

Nire zerbitzari izan nahi dauanak, jarraitu beit, dino Jaunak; eta, Ni nagoan tokian, han izango da nire zerbitzaria be (P.a. aleluia).

Jn 12, 26

Aintza zeruetan esango da.

Otoitza

Oi Jainko,
zure herriak bere artzainak izatea nahi dozu;
emon zeure Eleizeari onberatasun- eta indar-espiritua,
diakonogai eta presbiterogai honeek
zure altarako zerbitzari egoki
eta Ebanjelioaren zabaltzaile gartsu eta bihozbera
egin dagizan.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Sinisten dot egunari dagokionaren arabera esango da; Jainkoaren herriaren otoitza ez da egingo.

Oparigaien gainekoa

Aita guztiz santua,
zure Semeak oinak garbitu eutsezan bere ikasleei,
guri ejenplua emoteko;
onartu egizuz zeure zerbitzarion oparigaiak
eta egizu, geure gogo-bihotzak eskeiniz
bete gaitezala apaltasun- eta arreta-espirituz.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Prefazioa

KRISTO, MINISTERIO GUZTIEN ITURRIA ELEIZAN

℣. Jauna zuekin.
℟. Eta zure espirituarekin.
℣. Gora bihotzak.
℟. Jaunagan daukaguz.
℣. Eskerrak Jaungoiko gure Jaunari.
℟. Egoki da eta zuzen.

Egoki da, bai, eta zuzen,
bidezko eta salbagarri,
nonahi eta beti guk Zuri eskerrak emotea,
Jauna, Aita guztiz santu,
Jainko ahalguztidun betiko horri.

Zure Seme bakarra, Espiritu Santuaz gantzuturik,
itun barri eta betikoaren Abade Nagusi egun zendualako
eta, zeure salbamen-asmo miragarrian,
Eleizan era askotako zerbitzuak izatea erabagi.

Zure Semeak, izan ere,
errege eta abade egin dau bere herri aukeratua
eta, gainera, senide-maitasunez,
herri honetako gizon batzuk aukeratu ditu,
esku-ezartzearen bidez
bere zerbitzuan parte izan dagien.

Honeek zure herri santua zerbitzen dabe maitasunean,
zure hitzaz janaritzen
eta zure sakramentuez indartzen.

Zugaitik, Jauna,
eta senideen salbamenerako bizia eskeiniz,
Kristoren antzeko egin daitezala
eta Zuganako fedearen eta maitasunaren
testigu zintzo agertu daitezala beti.

Horregaitik, geuk ere, aingeru eta santu guztiekin batean,
goresten zaitugu, Jauna,
poz betean [esanez] kantari:

Santu, Santu, Santua...




Egoki da, bai, eta zuzen, bidezko eta sal-ba-ga-rri, no-na-
hi eta beti guk Zuri eskerrak e-mo-te-a, Jauna, Aita guz-
tiz san-tu, Jainko ahalguzti-dun be-ti - ko ho-rri.
Zure Se-me bakarra, Espiritu Santuaz gan-tzu-tu-rik, itun barri eta
betikoaren Abade Nagusi egin zendu-a-la-ko eta, zeure salba-
men–asmo miraga-rri-an, Eleizan era askotako zerbitzuak i-za-te-
a e-ra-ba-gi. Zure Seme-ak, izan ere, errege eta abade egin
dau bere herri auke-ra-tu-a eta, gaine-ra, senide–maitasunez,
herri honetako gizon batzuk aukera-tu di-tu, esku–ezartzea-ren
bi-dez bere zerbitzuan par-te i - zan da-gi-en.



Ordenatu barrien aipamena Eukaristi Otoitzetan honan egingo da:

a) I. Eukaristi Otoitzean, Gotzain meza-emoileak Hona hemen, Jauna berezi hau esango dau:

Hona hemen, Jauna, zure zerbitzarion
eta zure herri osoaren eskeintza;
gaur, batez be,
Diakono eta Presbitero Ordenako kide egin dozuzan zeure zerbitzari honeen alde eskeintzen deutsugu:

hartu egizu onez eskeintza hau
eta zaindu honeengan zeure dohaiak,
jainkozko laguntzaz jaso daben eginkizunean
jainkozko frutuak emon dagiezan.
[Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. Amen.]

b) II. Eukaristi Otoitzean, alkarmeza-emoileak, ...Espiritu Santuak bat egin gaizala hitzen ondoren, esango dau:

Izan gogoan, Jauna,
mundu guztian zabaldurik dagoan zeure Eleizea:
eroaizu maitasun osora,
I. gure Aita Santuarekin,
I. gure Gotzainarekin,
gaur Eleizako diakono edo presbitero egin dozuzan
zeure zerbitzari honeekin,
eta eleizgizon guztiekin batean.

Era berean, izan gogoan, Jauna, bizteko itxaropenean...

c) III. Eukaristi Otoitzean, alkarmeza-emoileak, ...mundu guztiarentzat bake eta salbamen hitzen ondoren, esango dau:

Mundu honetako ibilaldian,
bete egizu sinismenez eta maitasunez zeure Eleizea:
zeure zerbitzari I. gure Aita Santua,
I. gure Gotzaina,
gainerako gotzain guztiak,
gaur Eleizako diakono edo presbitero
sagaratu dituzun zeure zerbitzari honeek,
beste eleizgizon guztiak
eta zeurea dozun herri osoa.

Entzun bihotz onez...

d) Meza honetako prefazio berezia erabiltzekoa ez bada, IV. Eukaristi Otoitza hartu daiteke, eta alkarmeza- emoileak, ...zure aintzaren goresgarri hitzen ondoren, esango dau:

Orain, Jauna, izan gogoan,
guk, opari hau eskeintzean, gogoan doguzan guztiak:
lehenengo, zeure zerbitzari I. gure Aita Santua,
I. gure Gotzaina,
mundu zabaleko gotzain guztiak,
gaur zeure herriaren diakono- edo presbitero-zerbitzurako
aukeratu dozuzan zeure zerbitzari honeek
eta beste eleizgizon guztiak,
Meza hau eskeintzen dabenak,
hemen batu diranak,
zeure herri osoa
eta bihotz zintzoz zure bila dabiltzan guztiak.

Gogoan izan Kristoren bakean hil diranak ere...

Jaunartze-ant. Aita guztiz santua, sagaratu egizuz honeek egiaren bidez. Ni mundura bialdu ninduzun lez, Neuk be mundura bialdu ditut honeek, dino Jaunak (P.a. aleluia). Jn 17, 17-18

Jaunartze ondorengoa

Zerutar janariz eta edariz asetu dozuz, Jauna,
zeure zerbitzariak;
egizu, Ebanjelioaren, sakramentuen eta karitatearen
zerbitzari leial izan daitezala,
Zeu goresteko eta fededunak salbatzeko.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Gotzainak, eskuak diakono eta presbitero ordenatu barrien eta herriaren gain zabalik, esango dau:

Bedeinkapen nagusia

Eleizea eratu eta gidatzen dauan Jainkoak
babestu zagiezala eten barik bere graziaz,
leial bete dagizuen hartu dozuen eginkizuna.
℟. Amen.

Ebanjelioa predikatzeko
eta altarearen eta gizakien zerbitzari izateko
diakono-eginkizuna emon deutsuen harek
egin zagiezala bere testigu sutsu
eta karitatearen zerbitzari munduan.
℟. Amen.

Eta zuek, presbiterook, egin zagiezala egiazko artzain,
fededunei ogi bizia eta hitz bizi-emoilea eskeintzeko,
gero eta batasun handiagoa izan dagien
Kristoren gorputzean.
℟. Amen.

Eta herri osoa bedeinkatuko dau, esanez:

Eta hemen zagozen guztiok ere
bedeinkatu zagiezala Jaungoiko ahalguztidunak:
Aitak, ✠ eta Semeak, ✠ eta Espiritu ✠ Santuak.
℟. Amen.

V. EZKONTZA

Ezkontza Meza barruan ospatzen danean, Sakramentu Meza hau erabiliko da, jantzi zuriz nahiz jai-girokoz.

Liturgi egunen zerrendako 1-4. zk.etako (74. or.)egunen baten ospatzen bada ezkontza, eguneko Meza erabiliko da ezkonbarrien gaineko Bedeinkazino-otoitza eta, egoki eretxi ezkero, amaierako Bedeinkazino nagusia emonez.

Baina ezkontza Gabonaldiko edo Urtean Zeharreko domeka baten ospatzen bada eta Meza horretan parroki alkarteak parte hartzen badau, domekako Meza erabiliko da.

Erosotasunagaitik Ezkontza Meza honeetako bakotxa bere zati guztiekin osorik eskeintzen bada be, testu guztiak, batik bat otoitzak eta ezkonbarrien gaineko Bedeinkazinoa, egoki erizten dan eran trukatu daitekez.

Ezkontzaren urteurreneko Mezak Beharrizan batzuetarako Mezen artean datoz (1152-1154. or.).

A

Sarrera-ant. Bialdu deizuela Jaunak laguntza bere santutegitik, izan dagizuela euskarri Sion menditik. Emon deizuela zuen bihotzak nahi dauana, bete dagizala zuen egitasmo guztiak (P.a. aleluia).

Ik. Sal 20 [19], 3.5

Damu-otoitza itzi eta Aintza zeruetan esango da.

Otoitza Entzun, Jauna, gure otoitzak
eta zaindu zeure arduraz
gizadia ugaritzeko ezarri dozun ezkontzako erakundea,
zure egintzaz alkartzen diran honeek
zeure laguntzaz batasunean iraun dagien.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Edo:

Oi Jainko, Zuk, gizadia sortzean,
gizonaren eta emakumearen arteko batasuna
egin nahi izan dozu;
lotu egizuz maitasun bakarraren lokarriaz
ezkontzako hitzaz bat egingo diran zure zerbitzari honeek,
maitasunaren frutuak emon dagiezan
eta zure maitasunaren lekuko izan daitezan.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa

Onartu, Jauna,
ezkontzako lege sakratuaren alde egiten dihardugun eskeintza,
eta, ezkontza honen egile zaran ezkero,
izan zaitez laguntzaile arduratsu ere.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Prefazioa

EZKONTZAKO BATASUN BIKAINA

℣. Jauna zuekin.
℟. Eta zure espirituarekin.

℣. Gora bihotzak.
℟. Jaunagan daukaguz.

℣. Eskerrak Jaungoiko gure Jaunari.
℟. Egoki da eta zuzen.

Egoki da, bai, eta zuzen,
bidezko eta salbagarri,
nonahi eta beti guk Zuri eskerrak emotea,
Jauna, Aita guztiz santu,
Jainko ahalguztidun betiko horri.

Ezkontzako batasuna maitasunaren buztarri gozoaz
eta bakearen lokarri etenezinaz josi dozu-eta,
Holan kristau-familietan sortuko diran umeen bidez,
zure seme-alaben taldea ugaritu dadin.

Guganako dozun arduraz, Jauna, eta zeure graziaz
gauza bi honeek lortzen dituzu era miragarrian:
umeen jaiotzaz mundua edertzea
eta euren jaiotza barriaz Eleiza aberastea,
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Honen bitartez, aingeru eta santu guztiekin,
beti eta beti [esaten] abesten deutsugu gorazarre hau:

Santu, Santu, Santua...

Eukaristi Otoitzean ezkonbarrien aldeko eskari berezia egingo da: I. Eukaristi Otoitzean Hona hemen, Jauna, 570. or.; II. Eukaristi Otoitzean, … eleizgizon guztiekin batean ondoren, Baita ere, izan gogoan, Jauna, 588. or.; III. Eukaristi Otoitzean, … zeurea dozun herri osoa ondoren, Lagundu egiezu, 602. or.; IV. Eukaristi Otoitzean, … hemen batu diranak ondoren, … gaur Kristogan familia barria, 614. or.




Egoki da, bai, eta zuzen, bidezko eta sal-ba-ga-rri, no-na-hi eta
beti guk Zuri eskerrak e-mo-te-a, Jauna, Aita guz-tiz san-tu,
Jainko ahalguzti - dun be-ti - ko ho-rri. Ezkontza-ko
batasuna maitasunaren buztarri go-zo-az eta bakea-ren lokarri
etenezinaz josi do-zu–e-ta, holan kristau–familietan sortuko diran
u-me-en bi-dez, zure seme–alaben talde-a u-ga-ri-tu da-din.
Gugana-ko dozun arduraz, Jauna, eta zeu-re gra-zi-az gauza bi hone-
ek lortzen dozuz era mires-ga-rri-an: umeen jaiotzaz mundua
e-der-tze-a eta euren jaiotza barriaz Eleiza aberas-te-a,
Jesu Kristo gure Jau-na-ren bi-tar-tez. Honen bitar-tez,
aingeru eta santu guz-ti-e-kin, beti e-ta be-ti
abesten deutsu-gu go-ra-za-rre hau:

Gure Aita esan ondoren, Atara gaizuz, Jauna itzi eta abadeak, zutunik eta ezkonbarriengana bihurturik, Jainkoaren Bedeinkazinoa eskatuko dau eurentzat. Otoitz hau ez da behin be esan barik itzi behar.

Ezkonbarri honeetakoren batek edo biek gure Jauna ez badabe hartu behar, sarrerako deian kako artean datozan hitzak ez dira esango.

Otoitz honen azkeneko zatian kako artean datozan hitzak be esan barik itzi daitekez, egoerak halan eskatuko baleu, esate baterako ezkonbarriak adintsuak badira.

Ezkonbarriak altarara hurreratuko dira edo, egoki eretxi ezkero, euren lekuan jarraitu daikie, eta belauniko jarriko dira.

Abadeak, eskuak batuta, otoitzera dei egingo deutse danei, esanez:

Ezkonbarrien bedeinkapena

Senideok: Egin deiogun otoitz Jaunari ezkonbarri honeen alde: isuri dagiala, bihotz onez, gaur Kristogan ezkondu diran I. eta I. zerbitzari honeen gainera bere bedeinkazinoaren grazia; eta, itun santuaz alkartu dituanak, [Kristoren Gorputz Odolen sakramentuaz] maitasun berean bat egin dagizala.

Otoitz egingo dabe danek unetxo batean isilik.

Gero abadeak, eskuak ezkonbarrien gain zabalik, jarraituko dau:

Oi Jainko, Zeuk egin dituzu diran guztiak,
zeure indarrez, ezerezetik;
Zeuk dozu hasieratik mundua egoki ezarri
eta zeure irudiko gaituzu egin;
Zeuk deutsazu gizonari
banatu ezinezko laguntzat emaztea moldatu,
gehiago ez daitezan bi izan, bat baino,
holan erakusteko, Zuk bat egin dozuna
ez dala behin ere zilegi banatzea.

Oi Jainko, sakramentu miragarriaz sagaratu dozu
senar-emazteen arteko lokarria,
eta, ezkontzako itunean,
Jesu Kristoren eta Eleizaren arteko misterioa
adierazo nahi izan dozu.

Oi Jainko, Zuk bat egiten dituzu gizona eta emakumea,
eta hasieratik sortutako batasun horri
zeure bedeinkazinoa emon deutsazu:

ez jatorrizko pekatuaren zigorrak,
ez uholde handiaren hondamendiak,
kendu ez eutsan bedeinkazinoa.

Begira begi onez, ezkontzaz bat eginik,
zure bedeinkazinoa eskatzen daben zeure zerbitzari honeei;
emoiezu Espiritu Santuaren grazia,
honeen bihotzean isuritako zure maitasunari esker
leial iraun dagien ezkontzako itunean.

Bete egizu I. zeure alaba hau
maitasunaren eta bakearen graziaz
eta imitatu dagizala
Biblian goratzen diran emakume santuak.

Izan dagiala honengan uste on senarraren bihotzak,
eta, bere betiko lagun
eta grazi bizitzan kideko harturik,
errespetatu dagiala eta maitatu,
Kristok bere Eleizea maite dauan lez.

Eta orain, Jauna,
zure zerbitzari honeen alde eskatzen deutsugu:
iraun dagiela sinismenean eta zure aginduetan
alkarrekin bat eginik;
eta, ezkontzako maitasun bakarrean josirik,
izan daitezala eredugarri euren bizitza zuzenagaitik;
Ebanjelioaren kemenez indarturik
Jesu Kristoren lekuko izan daitezala guztien aurrean;
(izan dagiezala seme-alabak;
izan daitezala guraso onak,
eta ikusi dagiezala biok euren seme-alaben umeak;)
eta zahartzaro pozgarria izan ondoren,
heldu daitezala santuen bizi zoriontsura
eta zeruko erreinura.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.
℟. Amen.

Jesu Kristo gure Jauna... ez da esango; eta behingoan Jaunaren bakea... esango da.

Orduan ezkonbarriek eta gainerako guztiek, lekuan lekuko ohituren arabera, bake-, alkartasun- eta maitasun-ezaugarriren bat emongo deutsoe alkarri.

Jaunartze-ant. Kristok Eleizea maitatu eta beraren alde emon eban bere burua, emazte santua eta kutsubakoa aurkezteko bere aurrean (P.a. aleluia).
Ik. Ef 5, 25.27

Jaunartze ondorengoa

Sakrifizio honen indarrak, Jauna,
sendotu dagiala Zeuk sortu dozun ezkontzako bizibide hau;
batasun santuan alkartu
[eta janari-edari beretik asetu] dozuzanok
maitasunean ere bihotz bateko egin dagizuzan.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Abadeak, eskuak ezkonbarrien gain zabalik, esango dau:

Bedeinkapen nagusia

Gorde zagiezala Jainko Aita betikoak
biok maitasun berean bat eginik,
Kristoren bakea zuengan eta zuen etxean izan dadin beti.
℟. Amen.

Izan dagizuela bedeinkazinoa seme-alabetan,
atsegina adiskideetan, eta benetako bakea guztietan.
℟. Amen.

Izan zaitezela munduan Jainkoaren maitasunaren lekuko,
aurkitu zaieezala behartsuek eta nahigabetuek bihotz zabaleko,
eta egun baten, esker onez,
hartu zaieezala ondo Jainkoaren betiko etxean.
℟. Amen.

Eta herri osoa bedeinkatuko dau, esanez:

Eta hemen zagozen guztiok ere
bedeinkatu zagiezala Jaungoiko ahalguztidunak:
Aitak, eta Semeak, ✠ eta Espiritu Santuak.
℟. Amen.

B

Sarrera-ant. Asetu gaituzu, Jauna, goizean zeure maitasunaz, poztu gaituzu eta zoriontsu egin geure egun guztietan. Betor gugana eta gure eskuen lanaren gainera Jaunaren gozotasuna (P.a. aleluia).

Ik. Sal 90 [89], 14.17

Damu-otoitza itzi eta Aintza zeruetan esango da.

Otoitza Entzun, Jauna, gure otoitzak;
isuri egizu zeure grazia
[I. eta I.] zeure zerbitzari honeen gainera,
zure altara aurrean alkartuko diran honeek
alkarmaitasunean sendo bizi daitezan.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Edo:

Oi Jainko, sakramentu miragarriaz sagaratu dozu
senar-emazteen arteko lokarria,
eta Ezkontzako itunean
Jesu Kristoren eta Eleizaren arteko misterioa
adierazo nahi izan dozu;
egizu, zure zerbitzari honeek bete dagiela egintzetan
fedez sinisten dabena.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa Hartu, Jauna, begi onez
guk pozik egiten deutsuguzan eskeintzak;
eta Ezkontzako itunaz bat egin dituzunok
zaindu egizuz zeure aita-bihotzez.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Prefazioa EZKONTZAKO MISTERIO HANDIA

℣. Jauna zuekin.
℟. Eta zure espirituarekin.

℣. Gora bihotzak.
℟. Jaunagan daukaguz.

℣. Eskerrak Jaungoiko gure Jaunari.
℟. Egoki da eta zuzen.

Egoki da, bai, eta zuzen, bidezko eta salbagarri,
nonahi eta beti guk Zuri eskerrak emotea,
Jauna, Aita guztiz santu,
Jainko ahalguztidun betiko horri,
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Zuk, itun barria egin dozu zeure herriarekin
eta Kristoren heriotzaren eta biztueraren
misterioaz erosi dozu,
beragaz bat izan dadin jainkotasunean
eta haren aintzaren oinordekide zeruan.

Gizona eta emakumea bat egitea
zeure grazia aberatsaren ezaugarri egin dozu,
orain ospatzen dogun sakramentuak
zure maitasunaren asmo miragarria gogoratu deigun.

Horregaitik, aingeru eta santu guztiekin
goresten zaitugu,
beti eta beti [esanez] kantari:

Santu, Santu, Santua,
diran guztien Jainko Jauna.
Zeru-lurrak beterik daukaz zure distirak.
Hosanna zeru-goienetan!
Bedeinkatua Jaunaren izenean datorrena.
Hosanna zeru-goienetan!

Eukaristi Otoitzetan ezkonbarrien aipamena A formularioan lez egingo da, 1070. or.

Gure Aita esan ondoren, Atara gagizuz, Jauna itzi eta abadeak, zutunik eta ezkonbarriengana bihurturik, Jainkoaren bedeinkazinoa eskatuko dau eurentzat. Otoitz hau ez da behin be esan barik itzi behar.

Ezkonbarri honeetakoren batek edo biek gure Jauna ez badabe hartu behar, sarrerako deian kako artean datozan hitzak ez dira esango.

Otoitz honen azkeneko zatian kako artean datozen hitzak ere esan barik itzi daitekez, egoerak halan eskatuko baleu, esate baterako ezkonbarriak adintsuak badira.

Ezkonbarriak altarara hurreratuko dira edo, egoki eretxi ezkero, euren lekuan jarraitu daikee, eta belauniko jarriko dira.

Abadeak, eskuak batuta, otoitzera dei egingo deutse danei, esanez:

Ezkonbarrien bedeinkapena

Egin deiogun otoitz Jainkoari ezkonbarri honeen alde; eskatu daigun, (Kristoren Gorputza eta Odola harturik) beti alkarren maitasunean bizi daitezala.

Otoitz egingo dabe danek unetxo batean isilik.

Gero, abadeak, eskuak ezkonbarrien gain zabalik, jarraituko dau:

Aita guztiz santua,
gizadia zeure irudira sortzean,
gizon eta emakume egin dozuz,
gorputzez eta bihotzez bat izanik,
euren egitekoa bete dagien munduan.

Oi Jainko, zeure maitasun-asmoak agertzeko,
lege zaharrean,
ezkonduen alkarmaitasunaren bidez erakutsi nahi izan dozu
zeure herriarekin egindako ituna;
eta gero, lege barrian,
ezkonduen alkarmaitasuna sakramentu eginik,
kristau ezkonduen batasunaren bidez
adierazo nahi izan dozu
Jesu Kristoren eta Eleizaren arteko ezkon-misterioa.

Zabaldu egizu zeure esku aberatsa
I. eta I. zeure zerbitzari honeen gainera
eta indartu egizuz euron bihotzak Espiritu Santua isuriz.

Egizu, orain hasten daben sakramentuzko batasun honetan,
banatu dagiezala alkarren artean zure maitasun-dohaiak;
eta, batak besteari Zu euren artean zaituela adierazoz,
bihotz bat eta arima bat izan daitezala.

Emoiezu, Jauna, eratzera doazen etxea eraikitzeko
behar dabena euren lanaz lortu ahal izatea,
[eta euren umeak, Ebanjelioaren legean hezirik,
zerutar familiarako gai egitea].

I. zure alaba honi
emon gainezka zeure bedeinkapena,
emaztearen [eta amaren] eginbeharrak betez,
maitasun garbiz berotu dagian bere etxea,
eta bere gozotasunaren graziaz apaindu.

I. zure seme honi be emoiozu, Jauna, zerutar bedeinkapena,
senar leialaren [eta aita arduratsuaren] egitekoak bete dagizan.

Emoiezu, Aita guztiz santu horrek,
zure aurrean bat egin diran honeei,
[zure mahai santura gogotsu datozen ezkero,]
egun baten zeruko mahaian parte hartzeko poza.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.
℟. Amen.

Jesu Kristo gure Jauna... ez da esango; eta behingoan Jaunaren bakea... esango da.

Orduan ezkonbarriek eta gainerako guztiek, lekuan lekuko ohituren arabera, bake-, alkartasun- eta maitasun-ezaugarriren bat emongo deutsoe alkarri.

Jaunartze-ant. Agindu barria emoten deutsuet: maitatu dagizuela alkar, Nik maite izan zaituedan lez, dino Jaunak (P.a. aleluia). Jn 13, 34

Jaunartze ondorengoa

Zure mahai santuan jan eta edan dogunok
eskatzen deutsugu, Jauna:
Ezkontzako sakramentuak alkartu dituan I. eta I.
egon daitezala beti Zuri loturik
eta zure barri emon deieela gizon-emakumeei.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Abadeak, eskuak ezkonbarrien gain zabalik, esango dau:

Bedeinkapen nagusia

Jainko Aita ahalguztidunak emon deizuela bere poza
eta bedeinkatu zagiezala zeuen seme-alabengan.
℟. Amen.

Jainkoaren Seme bakarra agertu dadila zuekin errukior
zori onean eta txarrean.
℟. Amen.

Jainkoaren Espiritu Santuak isuri dagiala beti
bere maitasuna zuen bihotzean.
℟. Amen.

Eta herri osoa bedeinkatuko dau, esanez:

Eta hemen zagozen guztiok ere
bedeinkatu zagiezala Jaungoiko ahalguztidunak:
Aitak, eta Semeak, ✠ eta Espiritu Santuak.
℟. Amen.

C

Sarrera-ant. Egunero zaitut bedeinkatuko, Jauna, beti dot zure izena goratuko. Ona zara-eta guztientzat, errukiz betea zeure sorkari guztientzat (P.a. aleluia). Ik. Sal 145 [144], 2.9

Damu-otoitza itzi eta Aintza zeruetan esango da.

Otoitza Jainko ahalguztiduna,
ezkontzako sakramentuaz bat egingo diran
zure zerbitzari honeek sendotu egizuz
autortzen daben sinismenean,
euren familia kristau eran heziz, zure Eleizea aberastu dagien.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Edo:

Oi Jainko, munduaren hasieran
zeure bedeinkazinoa emon zeuntsen
ugaritzen ziharduen zure seme-alabei;
entzun bihotz onez gure eskariak
eta isuri zeure bedeinkazinoa
[I. eta I.] zeure zerbitzari honeen gainera,
ezkon bizitzan bat izan daitezan alkarrekin
maitasunean, pentsaeran eta santutasunean.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa Entzun, Jauna, bihotz errukitsuz gure otoitzak,
eta hartu, begi onez,
ezkontzako itun santuaz alkartu diran honeen alde
egiten deutsuguzan eskeintzak;
egizu, misterio honen bidez, sendotu daitezala
alkarrenganako eta Zuganako maitasunean.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Prefazioa EZKONTZA, JAINKOAREN MAITASUNAREN EZAUGARRI

℣. Jauna zuekin.
℟. Eta zure espirituarekin.

℣. Gora bihotzak.
℟. Jaunagan daukaguz.

℣. Eskerrak Jaungoiko gure Jaunari.
℟. Egoki da eta zuzen.

Egoki da, bai, eta zuzen,
bidezko eta salbagarri,
nonahi eta beti guk Zuri eskerrak emotea,
Jauna, Aita guztiz santu,
Jainko ahalguztidun betiko horri.

Zuk, gizakia bihotz onez egin ondoren,
maila miragarrira jaso dozu
senar-emazteen maitasuna,
zeure maitasunaren irudi egiteraino.

Maitasunez egin dozun gizakia
maitasun-legera deitzen dozu beti,
zeure betiko maitasunean parte izan dagian.

Ezkontzako sakramentuak,
zure amodioaren seinale izanik,
santu egiten dau senar-emazteen maitasuna,
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Honen bitartez, aingeru eta santu guztiekin,
beti eta beti [esaten] abesten deutsugu gorazarre hau:

Santu, Santu, Santua...

Eukaristi Otoitzetan ezkonbarrien aipamena A formularioan lez egingo da, 1070. or.

Gure Aita esan ondoren, Atara gaizuz, Jauna itzi eta abadeak, zutunik eta ezkonbarriengana bihurturik, Jainkoaren bedeinkazinoa eskatuko dau eurentzat. Otoitz hau ez da behin be esan barik itzi behar.

Otoitzean kako artean datozen hitzak esan barik itzi daitekez, egoerak halan eskatuko baleu, esate baterako ezkonbarriak adintsuak badira.

Ezkonbarriak altarara hurreratuko dira edo, egoki eretxi ezkero, euren lekuan jarraitu daikee, eta belauniko jarriko dira.

Abadeak, eskuak batuta, otoitzera dei egingo deutse danei, esanez:

Ezkonbarrien bedeinkapena

Senide maiteok: Eskatu daigun Jainkoaren bedeinkazinoa ezkonbarri honeentzat, Ezkontzako sakramentuaz aberastu dituanoi bere laguntza emon deien.

Otoitz egingo dabe danek unetxo baten isilik.

Gero abadeak, eskuak ezkonbarrien gain zabalik, jarraituko dau:

Aita guztiz santua, mundu osoaren egilea,
gizona eta emakumea zeure irudira egin dozuz,
eta euron batasuna
zeure bedeinkazinoaz aberastu nahi izan dozu;
gaur Ezkontzako sakramentuaz alkartu diran
zure zerbitzari honeen alde egiten deutsugu otoitz.

Jatsi bedi, Jauna, zure bedeinkazino ugaria
I. eta I. senar-emazte honeen gainera,
eta Espiritu Santuaren indarrak
sutu dagizala goitik euron bihotzak,
biok ezkontzaren dohaia alkarrekin gozatuz,
[seme-alabez euren familia ugaritu
eta] Eleizea aberastu dagien.

Poz-egunetan goratu zagiezala, Jauna,
eta atsekabeetan bilatu.
Lan-orduan jakin dagiela
hor zaituela Zu, laguntzeko;
beharrizan-orduan sentidu dagiela
hor zagozala Zu, arintzeko.

Egin deizuela otoitz kristau-alkartean,
agertu daitezala zure lekuko gizon-emakumeen aurrean
eta, zahartzaro zoriontsura heldurik,
heldu daitezala zeruko erreinura
gaur inguruan dabezan senide eta adiskideekin.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.
℟. Amen.

Jesu Kristo gure Jauna... ez da esango; eta behingoan Jaunaren bakea... esango da.

Orduan ezkonbarriek eta gainerako guztiek, lekuan lekuko ohituren arabera, bake-, alkartasun- eta maitasun-ezaugarriren bat emongo deutsoe alkarri.

Jaunartze-ant. Bedeinkatuko dot aldi oro Jauna, nire ahoan beti haren gorespena. Dastatu egizue eta ikusi zein ona dan Jauna; zorionekoa harengan babesten dana (P.a. aleluia). Sal 34 [33], 2.9

Jaunartze ondorengoa

Jainko ahalguztiduna,
egizu, gehitu dadila zure zerbitzari honeengan
hartu daben Ezkontzako sakramentuaren indarra;
eta guk guztiok hartu daiguzala
eskeini dogun opari honen frutuak.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Abadeak, eskuak ezkonbarrien gain zabalik, esango dau:

Bedeinkapen nagusia

Kanako ezteguetara joan zan Jesus Jaunak
bedeinkatu zagiezala zuek eta zuen senide eta adiskideak.
℟. Amen.

Eleizea azkeneraino maitatu ebanak berak
isuri dagiala beti bere maitasuna zuen bihotzera.
℟. Amen.

Emon deizuela Jaunak,
Kristoren biztueraren testigu izanez,
betiko zorionaren itxaropen santua.
℟. Amen.

Eta herri osoa bedeinkatuko dau, esanez:

Eta hemen zagozen guztiok ere
bedeinkatu zagiezala Jaungoiko ahalguztidunak:
Aitak, eta Semeak, ✠ eta Espiritu Santuak.
℟. Amen.

VI. ABATAREN EDO ABADESAREN BEDEINKAPENA

Meza hau erabili daiteke, kolore zuriz nahiz jai-girokoz, Sakramentu eta Ohikuneetarako Mezak emon daitekezanean.

1
Abataren bedeinkazinoa

Sarrera-ant. Ez ninduzuen zuek aukeratu Ni, Neuk aukeratu zinduedazan zuek, eta eginkizun hau emon deutsuet: frutu ugaria eta iraunkorra emon dagizuela edonon, dino Jaunak (P.a. aleluia). Jn 15, 16

Edo:

Guztien gainetik, izan maitasuna, hori da-eta alkartasun betearen lokarria; eta Kristoren bakeak agindu begi zuen bihotzean (P.a. aleluia). Kol 3, 14-15

Aintza zeruetan esango da.

Otoitza Jauna, I. zure seme hau
I.-tar alkarte honen abata aukeratu dozu;
egizu, gidatu dagizala bide zuzenean bere senideak egintzez eta irakaspenez,
eurekin batean Zugandik, Artzain on horrengandik, betiko saria pozik hartu dagian.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Sinisten dot egunari dagokionaren arabera esango da; Jainkoaren herriaren otoitza ez da egingo.

Oparigaien gainekoa

Hartu, Jauna, bihotz onez zeure seme-alaben dohaiak;
eta egizu, euren burua espirituzko opari eskeiniz,
bete daitezala beti
egiazko apaltasunez, menpetasunez eta bakez.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Prefazioa: Bizitza erlijiosoari buruzkoa esan daiteke, 1102. or.

Eukaristi Otoitzetan abata bedeinkatu barriaren aipamena honan egingo da:

a) I. Eukaristi Otoitzean, meza-emoile nagusiak Hona hemen, Jauna berezi hau esango dau:

Hona hemen, Jauna, zure zerbitzarion
eta zure herri osoaren eskeintza;
gaur, batez ere, alkarte honen zuzendari izateko
aukeratu dozun
I. zeure zerbitzari honen alde eskeintzen deutsugu:
hartu egizu onez eskeintza hau
eta zaindu honengan zeure dohaiak,
zure graziaz hartu dauan eginkizunean
bere senideen bihotzak sendotu dagizan.

[Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. Amen.]

b) II. Eukaristi Otoitzean, alkarmeza-emoileak ...Espiritu Santuak bat egin gaizala hitzen ondoren, esango dau:

Izan gogoan, Jauna,
mundu guztian zabaldurik dagoan zeure Eleizea:
eroaizu maitasun osora,
I. gure Aita Santuarekin,
I. gure Gotzainarekin, eleizgizon guztiekin
eta gaur alkarte honetako abata egin dozun
I. zeure zerbitzari honekin batean.

Era berean, izan gogoan, Jauna, bizteko itxaropenean...

c) III. Eukaristi Otoitzean, alkarmeza-emoileak ...mundu guztiarentzat bake eta salbamen hitzen ondoren, esango dau:

Mundu honetako ibilaldian,
bete egizu sinismenez eta maitasunez zeure Eleizea:
zeure zerbitzari I. gure Aita Santua,
I. gure Gotzaina,
beste gotzain eta eleizgizon guztiak,
gaur alkarte honen abata aukeratu dozun
I. zeure zerbitzari hau,
eta zeurea dozun herri osoa.

Entzun, bihotz onez...

d) Meza honetako prefazio berezia erabiltzekoa ez bada, IV. Eukaristi Otoitza hartu daiteke, eta alkarmeza- emoileak, ...zure aintzaren goresgarri hitzen ondoren, esango dau:

Orain, Jauna, izan gogoan,
guk, opari hau eskeintzean, gogoan doguzan guztiak:
lehenengo, zeure zerbitzari I. gure Aita Santua,
I. gure Gotzaina,
mundu zabaleko gotzain eta eleizgizon guztiak
eta gaur alkarte honen zerbitzurako abata aukeratu dozun
I. zeure zerbitzari hau.
Izan gogoan Meza hau eskeintzen dabenak ere,
hemen batu diranak,
zeure herri osoa
eta bihotz zintzoz zure bila dabiltzan guztiak.

Izan gogoan Kristoren bakean hil diranak be...

Jaunartze-ant. Gizonaren Semea ez da etorri zerbidua izatera, zerbitzari izatera baino, eta bere bizia guztien ordainsari emotera (P.a. aleluia).

Mt 20, 28

Edo:

Egiazko maitasuna non, han Jainkoa. Batasunean alkartu gaitu Kristoren maitasunak (P.a. aleluia).

Jaunartze ondorengoa

Begitu, Jauna, begi onez zeure familia honi;
eta egizu, sinismenaren misterioa ospatu dogunok
ibili gaitezala beti gogotsu Ebanjelioaren bideetan,
gauza guztietan Zuri aintza emonez.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Batzarburuak, eskuak bedeinkatu barria dan abataren gain zabalik, esango dau:

Bedeinkapen nagusia

Familia guztien sorburu dan Jainkoak
sendotu zagizala bere Espirituaren indarrez,
barruko bizitza oparoa izan dagizun,
bere aintzaren aberastasunari dagokionez.
℟. Amen.

Berak lagundu deizula bere aginduen bidean,
zeure senideekin batera bihotz zabalez lehiatzen
Kristoren barruko pozez.
℟. Amen.

Jainkoaren graziaz haren izenean batuta dan
lekaide-familia hau heldu dadila, zure gidaritzapean,
zoriontsu zeruko bizira.
℟. Amen.

Eta herri osoa bedeinkatuko dau, esanez:

Eta hemen zagozen guztiok ere
bedeinkatu zagiezala Jaungoiko ahalguztidunak:
Aitak, ✠ eta Semeak, ✠ eta Espiritu ✠ Santuak.
℟. Amen.

Baina Eukaristiaren liturgian bedeinkatu barria dan abata bada buru, berak emongo dau bedeinkazinoa ohikune pontifikala erabiliz, ik. 638. or.; edo, eskuak lekaide-alkartearen gain zabalik, ondorengo esaldi honeek esan daikez:

Jainko Aita errukitsuak
gorde dagiala zuengan jarrera ona;
eta ni zuentzat abata egin nauan lez,
egin gaizala guztiok partedun betiko zorionean.
℟. Amen.

Jesu Kristo gure Jaunak lagundu deizuela
bere aginduen bidean bihotz zabalez lehiatzen,
senide arteko pozez.
℟. Amen.

Espiritu Santuak emon deigula gu guztioi
bizitzako jainkozko egintzak alkartasunean bizitzea,
geure asaben antzeko izan gaitezan bihotz bat bera izanez.
℟. Amen.

Eta herri osoa bedeinkatuko dau, esanez:

Eta hemen zagozen guztiok ere
bedeinkatu zagiezala Jaungoiko ahalguztidunak:
Aitak, ✠ eta Semeak, ✠ eta Espiritu ✠ Santuak.
℟. Amen.

2
Abadesaren bedeinkazinoa

Sarrera-ant. Ez ninduzuen zuek aukeratu Ni, Neuk aukeratu zinduedazan zuek, eta eginkizun hau emon deutsuet: frutu ugaria eta iraunkorra emon dagizuela edonon, dino Jaunak (P.a. aleluia). Jn 15, 16

Edo:

Guztien gainetik, izan maitasuna, hori da-eta alkartasun betearen lokarria; eta Kristoren bakeak agindu begi zuen bihotzean (P.a. aleluia). Kol 3, 14-15

Aintza zeruetan esango da.

Otoitza

Jauna, I. zure alaba hau
I.-tar alkarte honen abadesa aukeratu dozu;
egizu, gidatu dagizala bide zuzenean bere senideak
egintzez eta irakaspenez,
eurekin batean Zugandik, Artzain on horrengandik,
betiko saria pozik hartu dagian.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Sinisten dot esango da egunari dagokionaren arabera; Jainkoaren herriaren otoitza ez da egingo.

Oparigaien gainekoa

Hartu, Jauna, bihotz onez zeure seme-alaben dohaiak;
eta egizu, euren burua espirituzko opari eskeiniz,
bete daitezala beti
egiazko apaltasunez, menpetasunez eta bakez.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Prefazioa: Bizitza erlijiosoari buruzkoa esan daiteke, 1102. or.
Eukaristi Otoitzean abadesa bedeinkatu barriaren aipamena honan egingo da:

a) I. Eukaristi Otoitzean, meza-emoile nagusiak Hona hemen, Jauna berezi hau esango dau:

Hona hemen, Jauna, zure zerbitzarion
eta zure herri osoaren eskeintza;
gaur, batez ere, alkarte honen zuzendari izateko
aukeratu dozun
I. zeure zerbitzari honen alde eskeintzen deutsugu;
hartu egizu onez eskeintza hau
eta zaindu honengan zeure dohaiak,
zure graziaz hartu dauan eginkizunean
bere senideen bihotzak sendotu dagizan.
[Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. Amen.]

b) II. Eukaristi Otoitzean, alkarmeza-emoileak ...eleizgizon guztiekin batean hitzen ondoren, esango dau:

Izan gogoan gaur alkarte honetako abadesa egin dozun
I. zeure zerbitzari hau ere.

Era berean, izan gogoan, Jauna, bizteko itxaropenean...

c) III. Eukaristi Otoitzean, alkarmeza-emoileak ...zeurea dozun herri osoa hitzen ondoren, esango dau:

Sendotu, Jauna, bere senideen zerbitzurako
gaur alkarte honetako abadesa aukeratu dozun
I. zeure zerbitzari hau.

Entzun bihotz onez...

d) Meza honetako prefazio berezia erabiltzekoa ez bada, IV. Eukaristi Otoitza hartu daiteke, eta alkarmeza- emoileak, ...mundu zabaleko gotzain eta eleizgizon guztiak hitzen ondoren, esango dau:

... eta gaur alkarte honen zerbitzurako abadesa aukeratu dozun
I. zeure zerbitzari hau.
Izan gogoan Meza hau eskeintzen dabenak ere,
hemen batu diranak,
zeure herri osoa
eta bihotz zintzoz zure bila dabiltzan guztiak.

Izan gogoan Kristoren bakean hil diranak ere...

Jaunartze-ant. Gizonaren Semea ez da etorri zerbidua izatera, zerbitzari izatera baino, eta bere bizia guztien ordainsari emotera (P.a. aleluia).

Mt 20, 28

Edo:

Egiazko maitasuna non, han Jainkoa. Batasunean alkartu gaitu Kristoren maitasunak (P.a. aleluia).

Jaunartze ondorengoa

Begitu, Jauna, begi onez zeure familia honi;
eta egizu, sinismenaren misterioa ospatu dogunok
ibili gaitezala beti gogotsu Ebanjelioaren bideetan,
gauza guztietan Zuri aintza emonez.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Batzarburuak, eskuak bedeinkatu barria dan abadesaren gain zabalik, esango dau:

Bedeinkapen nagusia

Alaba honeek, Eleizearen onerako,
bere Semearen maitasunean alkartu dituan Jainkoak
emon deizula bihotz ona
zure ardurapean jarria izan dan familia hau
kristau-bizitza betera gidatu dagizun.
℟. Amen.

Berak lagundu deizula bere aginduen bidean,
zeure senideekin batera bihotz zabalez lehiatzen,
Kristoren barruko pozez.
℟. Amen.

Jainkoaren graziaz haren izenean batua dan
lekaime-familia hau heldu dadila, zure gidaritzapean,
zoriontsu zeruko bizira.
℟. Amen.

Eta herri osoa bedeinkatuko dau, esanez:

Eta hemen zagozen guztiok ere
bedeinkatu zagiezala Jaungoiko ahalguztidunak:
Aitak, ✠ eta Semeak, ✠ eta Espiritu ✠ Santuak.
℟. Amen.

VII. BIRJINEN SAGARATZEA

Meza hau erabili daiteke, kolore zuriz nahiz jai-girokoz, Sakramentu eta Ohikuneetarako Mezak emon daitekezanean.

Sarrera-ant. Jo egizue indartzen dauan Jaunagana, bilatu eten barik haren aurpegia. Ekarri gogora harek egindako mirariak, haren egintza harrigarriak (P.a. aleluia). Sal 105 [104], 4-5

Aintza zeruetan esango da.

Batzuk diranean sagaratzekoak:

Otoitza Jauna, Zuk emon deutsezu zeure alaba honeei birjintasunean bizitzeko gogoa; egizu, hasi daben bizibidea burutu dagiela eta, oso-osorik zureak izanez, azkenera arte iraun dagiela asmo horretan.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez, Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Bakarra danean sagaratzekoa:

Jauna, Zuk emon deutsazu I. zeure alaba honi birjintasunean bizitzeko gogoa; egizu, hasi dauan bizibidea burutu dagiala eta, oso-osorik zurea izanez, azkenera arte iraun dagiala asmo horretan.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez, Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Sinisten dot egunari dagokionaren arabera esango da; Jainkoaren herriaren otoitza ez da egingo.

Oparigaien gainekoa

Batzuk diranean sagaratzekoak:

Oparigai honeen bidez, Jauna, emoiezu zeure alaba honeei hartu daben asmoan irautea, Jesu Kristo errege handiak ateak zabaldu deiezan bera etorriko danean eta zeruko erreinuan pozik sartu daitezan.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Bakarra danean sagaratzekoa:

Oparigai honeen bidez, Jauna, emoiozu I. zeure alaba honi hartu dauan asmoan irautea, Jesu Kristo errege handiak ateak zabaldu deiozan bera etorriko danean eta zeruko erreinuan pozik sartu dadin.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Prefazioa: Bizitza erlijiosoari buruzkoa esan daiteke, 1102. or.
Eukaristi Otoitzean birjina sagaratuen aipamena honan egingo da:

a) I. Eukaristi Otoitzean, meza-emoile nagusiak Hona hemen, Jauna berezi hau esango dau:

Batzuk diranean sagaratuak:

Hona hemen, Jauna, guk zure zerbitzariok eta zure alaba honeek euren sagaratze-egunean egiten deutsugun eskeintza; hartu egizuz onez eta santu egin, gaur, zure graziari esker, zure Semearekin estuago alkartu diran honeek, azken egunean haren bidera pozik urten dagien aintzaz etorriko danean.
[Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. Amen.]

Bedeinkatu, Jauna, eskeintza hau...

Bakarra danean sagaratua:

Hona hemen, Jauna, guk zure zerbitzariok eta I. zure alaba honek bere sagaratze-egunean egiten deutsugun eskeintza; hartu egizu onez eta santu egin, gaur, zure graziari esker, zure Semeagaz estuago alkartu dan hau, azken egunean haren bidera pozik urten dagian aintzaz etorriko danean.
[Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. Amen.]

Bedeinkatu, Jauna, eskeintza hau...

b) II. Eukaristi Otoitzean, alkarmeza-emoileak ...eleizgizon guztiekin batean hitzen ondoren, esango dau:

Batzuk diranean sagaratuak:

Izan gogoan, Jauna, gaur Espirituaren oliaduraz sagaratu dituzun gure senide honeek ere: maitasunaren eta fedearen argia bizturik dabela, Zeu eta zure herria zerbidu zagieezan beti, Kristo euren Senarra noiz etorriko zain dagozala.

Era berean, izan gogoan, Jauna, bizteko itxaropenean...

Bakarra danean sagaratua:

Izan gogoan, Jauna, gaur Espirituaren oliaduraz sagaratu dozun I. gure senide hau ere: maitasunaren eta fedearen argia bizturik dauala, Zeu eta zure herria zerbidu zagiezan beti, Kristo bere Senarra noiz etorriko zain dagoala.

Era berean, izan gogoan, Jauna, bizteko itxaropenean...

c) III. Eukaristi Otoitzean, alkarmeza-emoileak ...zeurea dozun herri osoa hitzen ondoren, esango dau:

Batzuk diranean sagaratuak:

Sendotu egizuz, Jauna, zeure alaba honeek ere euren asmo santuan, Kristo Jaunari bihotz-bihotzez jarraitu nahi deutsoelako eta haren lekuko izan Ebanjelioaren araberako bizitzan eta senide-maitasunean.

Entzun, bihotz onez...

Bakarra danean sagaratua:

Sendotu egizu, Jauna, I. zeure alaba hau ere bere asmo santuan, Kristo Jaunari bihotz-bihotzez jarraitu nahi deutsolako eta haren lekuko izan Ebanjelioaren araberako bizitzan eta senide-maitasunean.

Entzun, bihotz onez...

d) Meza honetako prefazio berezia erabiltzekoa ez bada, IV. Eukaristi Otoitza hartu daiteke, eta alkarmeza- emoileak, ...mundu zabaleko gotzain eta eleizgizon guztiak hitzen ondoren, esango dau:

Batzuk diranean sagaratuak:

... eta gaur Zu gurtzeko eta gizon-emakumeak zerbitzeko betiko sagaratu dituzun gure senide honeek, Meza hau eskeintzen dabenak...

Bakarra danean sagaratua:

... eta gaur Zu gurtzeko eta gizon-emakumeak zerbitzeko betiko sagaratu dozun I. gure senide hau, Meza hau eskeintzen dabenak...

Jaunartze-ant. Basahuntza irrikaz uretara lez, halantxe nire gogoa, ene Jainko, Zugana (P.a. aleluia). Sal 42 [41], 2

Batzuk diranean sagaratuak:

Jaunartze ondorengoa

Zure dohai santuak harturik, Jauna, apalik eskatzen deutsugu: I. eta I. zure alaba honeen bizitza izan dadila eten barik gizadiaren onerako eta aspertu barik zure Eleizearen zabalkunderako. Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Bakarra danean sagaratua:

Zure dohai santuak harturik, Jauna, apalik eskatzen deutsugu: I. zure alaba honen bizitza izan dadila eten barik gizadiaren onerako eta aspertu barik zure Eleizearen zabalkunderako. Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Gotzainak, eskuak Jainkoari sagaratuak izan diran birjinen gain zabalik, esango dau:

Batzuk diranean sagaratuak:

Bedeinkapen nagusia

Aita ahalguztidunak zaindu dagiala osorik bere babespean zuen bihotzean sortuarazo dauan birjintasunaren asmo santua.
℟. Amen.

Bakarra danean sagaratua:

Aita ahalguztidunak zaindu dagiala osorik bere babespean zure bihotzean sortuarazo dauan birjintasunaren asmo santua.
℟. Amen.

Jesus Jaunak, birjina santuen bihotza ezkon-lokarriz beragaz lotzen dauanak, erein dagiala zuen gogoan eta emonkor bihurtu bere hitzaren hazia.
℟. Amen.

Jesus Jaunak, birjina santuen bihotza ezkon-lokarriz beragaz lotzen dauanak, erein dagiala zure gogoan eta emonkor bihurtu bere hitzaren hazia.
℟. Amen.

Espiritu Santuak, Maria Birjinagana etorri zanak eta gaur zuen bihotza bere etorreraz sagaratu dauanak, biztu dagiala zuengan su bizia Jainkoaren eta Eleizearen zerbitzurako.
℟. Amen.

Espiritu Santuak, Maria Birjinarengana etorri zanak eta gaur zure bihotza bere etorreraz sagaratu dauanak, biztu dagiala zugan su bizia Jainkoaren eta Eleizearen zerbitzurako.
℟. Amen.

Eta herri osoa bedeinkatuko dau, esanez:

Eta hemen zagozen guztiok ere
bedeinkatu zagiezala Jaungoiko ahalguztidunak:
Aitak, ✠ eta Semeak, ✠ eta Espiritu ✠ Santuak.
℟. Amen.

Edo:

Batzuk diranean sagaratuak:

Asmo santuaren sortzailea eta betetzailea dan Jainkoak zaindu zagiezala eten barik bere graziaz, zeuen bokazinoaren zereginak leial bete dagizuezan.
℟. Amen.

Bakarra danean sagaratua:

Asmo santuaren sortzailea eta betetzailea dan Jainkoak zaindu zagizala eten barik bere graziaz, zeure bokazinoaren zereginak leial bete daizuzan.
℟. Amen.

Egin zagiezala partedun jainkozko bere maitasunean, eta maitasun horren lekuko eta seinale munduaren aurrean.
℟. Amen.

Egin zagizala partedun jainkozko bere maitasunean, eta maitasun horren lekuko eta seinale munduaren aurrean.
℟. Amen.

Eta lur honetan Kristorekin bat egin zaituen lokarriak, iraun dagiala zeruan betiko, Jainkoaren bihotz onari esker.
℟. Amen.

Eta lur honetan Kristorekin bat egin zaituan lokarriak, iraun dagiala zeruan betiko, Jainkoaren bihotz onari esker.
℟. Amen.

Eta herri osoa bedeinkatuko dau, esanez:

Eta hemen zagozen guztiok ere
bedeinkatu zagiezala Jaungoiko ahalguztidunak:
Aitak, ✠ eta Semeak, ✠ eta Espiritu ✠ Santuak.
℟. Amen.

VIII. ERLJIOSO ETA ERLIJIOSEN PROFESINOA

Lehenengo profesinoaren, betiko profesinoaren eta profesinoaren barritze-egunetan Meza honeek erabili daitekez, kolore zuriz nahiz jai-girokoz, Sakramentu eta Ohikuneetarako Mezak emon daitekezanean.

Erlijioso-erlijiosen profesinoaren urtemugako Mezak Beharraldi batzuetarako Mezen artean datoz, 1157. or.

1. LEHENENGO PROFESINOA

Sarrera-ant. Hemen nozu, Jauna, zure nahia egin dagidan. Atsegin dot, ene Jainko, barne-muinetan dot zure legea (P.a. aleluia).

Ik. Sal 40 [39], 8-9

Aintza zeruetan esango da.

Batzuk diranean profesinoa egingo dabenak:

Otoitza Jauna, Zuk eragin deutsezu gure senide honeei Kristori hurragotik jarraitzeko asmoa hartzera; emoiezu hartu daben bidean azkeneraino irautea, euren bizitza osorik Zuri eskeintzeko gai izan daitezan.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez, Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Bakarra danean profesinoa egingo dauana:

Jauna, Zuk eragin deutsazu I. gure senide honi Kristori hurragotik jarraitzeko asmoa hartzera; emoiozu hartu dauan bidean azkeneraino irautea, bere bizitza osorik Zuri eskeintzeko gai izan dadin.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez, Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Batzuk diranean profesinoa egin dabenak:

Bakarra danean profesinoa egin dauana:

Oparigaien gainekoa

Onartu, Jauna, zure zerbitzari honeek euren profesino erlijiosoaren hasiera ospatzen daben egun honetan aurkezten deutsuguzan oparigaiak eta otoitzak; egizu, zure grazia lagun, honeen bizitzak emon dagiala frutu ugari.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Onartu, Jauna, I. zure zerbitzari honek bere profesino erlijiosoaren hasiera ospatzen dauan egun honetan aurkezten deutsuguzan oparigaiak eta otoitzak; egizu, zure grazia lagun, honen bizitzak emon dagiala frutu ugari.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Prefazioa: Bizitza erlijiosoari buruzkoa esango da, 1102. or.

Jaunartze-ant. Jainkoaren nahia egiten dauana, horixe dot Nik anaia, arreba eta ama, dino Jaunak (P.a. aleluia). Mk 3, 35

Batzuk diranean profesinoa egin dabenak:

Bakarra danean profesinoa egin dauana:

Jaunartze ondorengoa

Hartu dogun sakramentuak poztu gaizala, Jauna; egizu, sakramentu honen indarrez, zure zerbitzari honeek zintzo bete dagiela gaur hasi daben erlijioso-bizitzako eginkizuna eta izan daitezala askatasunez zure zerbitzari.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Hartu dogun sakramentuak poztu gaizala, Jauna; egizu, sakramentu honen indarrez, I. zure zerbitzari honek zintzo bete dagiala gaur hasi dauan erlijioso-bizitzako eginkizuna eta izan dadila askatasunez zure zerbitzari.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

2. BETIKO PROFESINOA

A

Sarrera-ant. Ha poza nirea, esan eustenean: Goazen Jaunaren etxera! Hona orain nire oinak zure ateetan, Jerusalem (P.a. aleluia). Sal 122 [121], 1-2

Aintza zeruetan esango da.

Batzuk diranean profesinoa egingo dabenak:

Otoitza Oi Jainko, Zuk halan nahirik, frutu ederra emon dau zure zerbitzari honeengan Bateoko graziak, zure Semearen pausoei hurragotik jarraitzeko asmoa hartzeraino; egizu, Ebanjelioko santutasun-bideari estuago jarraituz, santuago egin dagiela zure Eleizea eta sendoago haren apostolutar indarra.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez, Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Bakarra danean profesinoa egingo dauana:

Oi Jainko, Zuk halan nahirik, frutu ederra emon dau I. zure zerbitzari honengan Bateoko graziak, zure Semearen pausoei hurragotik jarraitzeko asmoa hartzeraino; egizu, Ebanjelioko santutasun-bideari estuago jarraituz, santuago egin dagiala zure Eleizea eta sendoago haren apostolutar indarra.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez, Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Sinisten dot egunari dagokionaren arabera esango da; Jainkoaren herriaren otoitza ez da egingo.

Batzuk diranean profesinoa egin dabenak:

Bakarra danean profesinoa egin dauana:

Oparigaien gainekoa

Onartu, Jauna, bihotz onez zeure zerbitzari honeen oparigaiak eta asmoak; eta, ebanjelioko aholkuen arabera bizi nahi daben ezkero, emoiezu zeure maitasunaren indarra.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Onartu, Jauna, bihotz onez I. zeure zerbitzari honen oparigaiak eta asmoak; eta, Ebanjelioko aholkuen arabera bizi nahi dauan ezkero, emoiozu zeure maitasunaren indarra.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Prefazioa

BIZITZA ERLIJIOSOA JAINKOAGANAKO ZERBITZU, KRISTO IMITATUZ

℣. Jauna zuekin.
℟. Eta zure espirituarekin.

℣. Gora bihotzak.
℟. Jaunagan daukaguz.

℣. Eskerrak Jaungoiko gure Jaunari.
℟. Egoki da eta zuzen.

Egoki da, bai, eta zuzen,
bidezko eta salbagarri,
nonahi eta beti guk Zuri eskerrak emotea,
Jauna, Aita guztiz santu,
Jainko ahalguztidun betiko horri
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Bera dogu Birjinagandik ernetako lora errubakoa,
bihotz garbiak dohatsu dirala esan ebana
eta bere bizitzaz kastidadearen bikaintasuna erakutsi euskuna.

Berak zure nahia egitea aukeratu eban beti eta,
gugaitik heriotzaraino esaneko eginik,
bere burua eskeini eutsun opari atsegingarri.

Berak sagaratzen ditu
Zu, Jainko handi hori, biziago zerbitzeko
lur honetan gauza guztiak Zugaitik izten dabezanak,
eta zeruan euren altxorra aurkituko dabela agintzen deutse.

Horregaitik, aingeru eta santu guztiekin batean,
beti eta beti [esaten] abesten deutsugu gorazarre hau:

Santu, Santu, Santua...




ren bi-tar-tez. Be-ra do-gu Birjinagandik ernetako lore errubakoa,
bihotz garbiak dohatsu dirala e-san e-ba-na, e-ta be-re bizitzaz
kastidadearen bikaintasuna eraku-tsi eus-ku-na. Be-rak zu-re nahia
egitea aukeratu e-ban be-ti eta, gugaitik heriotzaraino esane-ko
e-gi-nik, bere bu-ru-a eskeini eutsun opa-ri a-tse-gin-ga-rri.
Be-rak sa-ga-ra-tzen di-tu Zu, Jain-ko handi hori, biziago
zer-bi-tze-ko lur ho-ne-tan gau-za guz-ti-ak
Zugaitik izten da-be-za-nak, eta ze-ru-an euren altxorra
da-be-la a-gin-tzen deu-tse. Ho-rre-gai-tik, aingeru eta
santu guztie-kin ba-te-ra, be-ti e-ta be-ti
a-bes-ten deutsu- gu go-ra-za-rre hau:

Eukaristi Otoitzean profesinoa egin dabenen aipamena honan egingo da:

1. Erlijioso gizonezkoentzat

a) I. Eukaristi Otoitzean, meza-emoile nagusiak Hona hemen, Jauna berezi hau esango dau:

Erlijioso batzurentzat:

Hona hemen, Jauna, zure zerbitzariok eta zure seme honeek euren profesino-egunean, egiten deutsugun eskeintza; hartu egizu onez eta santu egin, gaur, zure graziari esker, euren bizitza Zuri eskeintzen deutsuenok, zure Semea aintzaz beterik etorriko danean, beragaz betiko Pazkoaren zorionean onartu daizuzan. [Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. Amen.]

Erlijioso bakarrarentzat:

Hona hemen, Jauna, zure zerbitzariok eta zure seme honek bere profesino-egunean, egiten deutsugun eskeintza; hartu egizu onez eta santu egin, gaur, zure graziari esker, bere bizitza Zuri eskeintzen deutsun hau, zure Semea aintzaz beterik etorriko danean, beragaz betiko Pazkoaren zorionean onartu dagizun. [Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. Amen.]

Bedeinkatu, Jauna, eskeintza hau...

b) II. Eukaristi Otoitzean, alkarmeza-emoileak ...eleizgizon guztiekin batean hitzen ondoren, esango dau:

Erlijioso batzuentzat:

Izan gogoan, Jauna, gure senide honeek ere: gaur zure zerbitzurako eskeini deutsue euren burua betiko; egizu, jaso dagiezala gogo-bihotzak beti Zugana eta zure izen santua goratu dagiela.

Erlijioso bakarrarentzat:

Izan gogoan, Jauna, gure senide hau ere: gaur zure zerbitzurako eskeini deutsu bere burua betiko; egizu, jaso dagizala gogo-bihotzak beti Zugana eta zure izen santua goratu dagiala.

Era berean, izan gogoan, Jauna, bizteko itxaropenean...

c) III. Eukaristi Otoitzean, alkarmeza-emoileak ...eta zeurea dozun herri osoa hitzen ondoren, esango dau:

Erlijioso batzuentzat:

Sendotu egizuz, Jauna, zeure zerbitzari honeek ere euren asmo santuan; gaur, erlijioso-bizitzako lokarriaz betiko lotu jatzuz; egizu, agertu dagiela zure Eleizan Kristoren erospenak ekarri eban betiko bizi barria.

Erlijioso bakarrarentzat:

Sendotu egizu, Jauna, zeure zerbitzari hau ere bere asmo santuan; gaur, erlijioso- bizitzako lokarriaz betiko lotu jatzu; egizu, agertu dagiala zure Eleizan Kristoren erospenak ekarri eban betiko bizi barria.

Entzun, bihotz onez...

d) Meza honetako prefazio berezia erabiltzekoa ez bada, IV. Eukaristi Otoitza hartu daiteke, eta alkarmeza- emoileak, ...mundu zabaleko gotzain eta eleizgizon guztiak hitzen ondoren, esango dau:

Erlijioso batzuentzat:

... gaur erlijioso-bizitzako lokarriz Zugaz estuago lotu diran gure senide honeek, Meza hau eskeintzen dabenak...

Erlijioso bakarrarentzat:

... gaur erlijioso-bizitzako lokarriz Zugaz estuago lotu dan gure senide hau, Meza hau eskeintzen dabenak...

2. Erlijiosa emakumeentzat

a) I. Eukaristi Otoitzean, meza-emoile nagusiak Hona hemen, Jauna berezi hau esango dau:

Erlijiosa batzurentzat:

Hona hemen, Jauna, zure zerbitzariok eta zure alaba honeek euren profesino-egunean, egiten deutsugun eskeintza; hartu egizu onez eta santu egin, gaur, zure graziari esker, zure Semeagaz estuago alkartu diran honeek azken egunean haren bidera pozik urten dagien aintzaz etorriko danean.
[Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. Amen.]

Erlijiosa bakarrarentzat:

Hona hemen, Jauna, zure zerbitzariok eta zure alaba honek bere profesino-egunean, egiten deutsugun eskeintza; hartu egizu onez eta santu egin, gaur, zure graziari esker, zure Semeagaz estuago alkartu dan honek azken egunean haren bidera pozik urten dagian aintzaz etorriko danean.
[Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. Amen.]

Bedeinkatu, Jauna, eskeintza hau...

b) II. Eukaristi Otoitzean, alkarmeza-emoileak ...eleizgizon guztiekin batean hitzen ondoren, esango dau:

Erlijiosa batzuentzat:

Izan gogoan, Jauna, Zu gauza guztietan aurkitzeko, Zugaitik gauza guztiak itzi dabezan gure senide honeek ere; egizu, euren buruaz ahazturik, egon daitezala danen beharrizanetara zabalik.

Erlijiosa bakarrarentzat:

Izan gogoan, Jauna, Zu gauza guztietan aurkitzeko, Zugaitik gauza guztiak itzi dituan gure senide hau be; egizu, bere buruaz ahazturik, egon dadila danen beharrizanetara zabalik.

Era berean, izan gogoan, Jauna, bizteko itxaropenean...

c) III. Eukaristi Otoitzean, alkarmeza-emoileak ...eta zeurea dozun herri osoa hitzen ondoren, esango dau:

Erlijiosa batzuentzat:

Sendotu egizuz, Jauna, zeure alaba honeek ere euren asmo santuan, Kristo Jaunari bihotz-bihotzez jarraitu nahi deutsoelako eta haren lekuko izan Ebanjelioaren araberako bizitzan eta senide-maitasunean.

Erlijiosa bakarrarentzat

Sendotu egizu, Jauna, zeure alaba hau ere bere asmo santuan, Kristo Jaunari bihotz-bihotzez jarraitu nahi deutsolako eta haren lekuko izan Ebanjelioaren araberako bizitzan eta senide-maitasunean.

Entzun, bihotz onez...

d) Meza honetako prefazio berezia erabiltzekoa ez bada, IV. Eukaristi Otoitza hartu daiteke, eta alkarmeza- emoileak, ...mundu zabaleko gotzain eta eleizgizon guztiak hitzen ondoren, esango dau:

Erlijiosa batzuentzat:

... gaur, betiko profesinoa eginez euren burua Zuri sagaratu deutsuen gure senide honeek, Meza hau eskeintzen dabenak...

Erlijiosa bakarrarentzat:

... gaur, betiko profesinoa eginez, bere burua Zuri sagaratu deutsun gure senide hau, Meza hau eskeintzen dabenak...

Jaunartze-ant. Kristogaz kurutzeraturik nago, eta honezkero ez naz ni bizi, Kristo bizi da nigan (P.a. aleluia). Ga 2, 19-20

Batzuk diranean profesinoa egin dabenak:

Jaunartze ondorengoa

Jainkozko misterioak debozinoz harturik, Jauna, apalik eskatzen deutsugu: Zuri lotu jatzuzan zeure zerbitzari

Bakarra danean profesinoa egin dauana:

Jainkozko misterioak debozinoz harturik, Jauna, apalik eskatzen deutsugu: Zuri lotu jatzun I. zeure zerbitzari

honeek sutu daizuzala Espiritu Santuaz eta alkartu betiko zeure Semeagaz.
Errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

hau sutu daizula Espiritu Santuaz eta alkartu betiko zeure Semeagaz.
Errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Abadeak, eskuak profesinoa egin barrien gain zabalik, esango dau:

Batzuk diranean profesinoa egin dabenak:

Bakarra danean profesinoa egin dauana:

Bedeinkapen nagusia

Asmo onen sortzaile dan Jainkoak berotu daiala zuen gogoa eta sendotu zuen bihotza, gaur emondako hitza beti leial gorde daizuen.
℟. Amen.

Asmo onen sortzaile dan Jainkoak berotu daiala zure gogoa eta sendotu zure bihotza, gaur emondako hitza beti leial gorde daizun.
℟. Amen.

Berak emon deizuela aukeratu dozuen bide estutik Kristoren barruko pozez ibiltzea, zeuen senideen zamak gogotsu eroanez.
℟. Amen.

Berak emon deizula aukeratu dozun bide estutik Kristoren barruko pozez ibiltzea, zeure senideen zamak gogotsu eroanez.
℟. Amen.

Jainkoaren maitasunak egin zaiezala Jaunaren izenean batutako familiako kide, Kristoren maitasunaren irudi izan zaitezen.
℟. Amen.

Jainkoaren maitasunak egin zaizala Jaunaren izenean batutako familiako kide, Kristoren maitasunaren irudi izan zaitezan.
℟. Amen.

Eta herri osoa bedeinkatuko dau, esanez:

Eta hemen zagozen guztiok ere
bedeinkatu zagiezala Jaungoiko ahalguztidunak:
Aitak, eta Semeak, ✠ eta Espiritu Santuak.
℟. Amen.

B

Sarrera-ant. Erre-opariekin sartuko naz zure etxean, beteko deutsudaz neure promesak, neure ezpanez egindakoak (P.a. aleluia). Sal 66 [65], 13-14

Aintza zeruetan esango da.

Batzuk diranean profesinoa egingo dabenak:

Bakarra danean profesinoa egingo dauana:

Otoitza

Jauna, Aita guztiz santua, sendotu egizu bihotz onez [I. eta I.] zure zerbitzari honeen asmoa; egizu, lokarri barriz indartu nahi daben Bateoko graziak emon dagiala eurokan bere frutu betea, Zuri, Jaun handi horri, dagokizun gorespena eskeini deizuen eta Kristoren erreinua apostolu-garrez zabaldu dagien. Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Jauna, Aita guztiz santua, sendotu egizu bihotz onez I. zure zerbitzari honen asmoa; egizu, lokarri barriz indartu nahi dauan Bateoko graziak emon dagiala honengan bere frutu betea, Zuri, Jaun handi horri, dagokizun gorespena eskeini deizun eta Kristoren erreinua apostolu-garrez zabaldu dagian. Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Sinisten dot egunari dagokionaren arabera esango da; Jainkoaren herriaren otoitza ez da egingo.

Batzuk diranean profesinoa egin dabenak:

Bakarra danean profesinoa egin dauana:

Oparigaien gainekoa

Onartu, Jaun guztiz ona, zure zerbitzarion oparigaia eta bihurtu egizu sakramentu salbagarri; eta zeure aita-maitasunez zure Semeari hurragotik jarraitzera deitu dituzu-

Onartu, Jaun guztiz ona, zure zerbitzarion oparigaia eta bihurtu egizu sakramentu salbagarri; eta zeure aita-maitasunez zure Semeari hurragotik jarraitzera dei egin deu-

nok bete egizuz Espiritu Santuaren dohaiez.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

tsazun hau bete egizu Espiritu Santuaren dohaiez.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Prefazioa eta, egoki eretxi ezkero, profesinoa egiten dabenen aldeko Eukaristi Otoitzetako eskariak, 1105-1108. or. etan esan dan moduan egingo dira.

Jaunartze-ant. Dastatu egizue eta ikusi zein ona dan Jauna; zorionekoa harengan babesten dana (P.a. aleluia). Sal 34 [33], 9

Batzuk diranean profesinoa egin dabenak:

Jaunartze ondorengoa

Poztu gagiezala, Jauna, gaur handikiro egin dogun betiko profesino-ospakizunak eta hartu dogun jainkozko sakramentu agurgarriak; eta egizu, bizitza erlijiosoaren etenbako eskeintzak biztu dagiala gure senide honeen bihotzean maitasunaren sugarra, Eleizearen eta gizadiaren zerbitzuan bizi daitezan.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Bakarra danean profesinoa egin dauana:

Poztu gagiezala, Jauna, gaur handikiro egin dogun betiko profesino-ospakizunak eta hartu dogun jainkozko sakramentu agurgarriak; eta egizu, bizitza erlijiosoaren etenbako eskeintzak biztu dagiala gure senide honen bihotzean maitasunaren sugarra, Eleizearen eta gizadiaren zerbitzuan bizi daiten.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Abadeak, eskuak profesinoa egin barrien gain zabalik, esango dau::

	Batzuk diranean profesinoa egin dabenak:	Bakarra danean profesinoa egin dauana:
Bedeinkapen nagusia	Asmo santuaren sortzailea eta betetzailea dan Jainkoak zaindu zaiezala etenbarik bere graziaz, zeuen bokazinoaren zereginak leial bete daizuezan. ℟. Amen.	Asmo santuaren sortzailea eta betetzailea dan Jainkoak zaindu zaizala etenbarik bere graziaz, zeure bokazinoaren zereginak leial bete daizuzan. ℟. Amen.
	Egin zaiezala partedun jainkozko bere maitasunean, eta maitasun horren lekuko eta seinale munduaren aurrean. ℟. Amen.	Egin zaizala partedun jainkozko bere maitasunean, eta maitasun horren lekuko eta seinale munduaren aurrean. ℟. Amen.
	Eta lur honetan Kristogaz bat egin zaituen lokarriak, iraun daiala zeruan betiko, Jainkoaren bihotz onari esker. ℟. Amen.	Eta lur honetan Kristogaz bat egin zaituan lokarriak, iraun daiala zeruan betiko, Jainkoaren bihotz onari esker. ℟. Amen.

Eta herri osoa bedeinkatuko dau, esanez:

Eta hemen zagozen guztiok ere
bedeinkatu zagiezala Jaungoiko ahalguztidunak:
Aitak, eta Semeak, ✠ eta Espiritu Santuak.
℟. Amen.

3. BOTOAK BARRITZEA

Sarrera- eta jaunartze-antifonak aurreko Mezetatik hartu daitekez, egokien dirudienak, 1101-1111. or.

Otoitza

Batzuk diranean boto-barritzaileak:

Oi Jainko, Zeuk eratzen dituzu gauza guztiak, Zeuk gidatzen gizon-emakumeak; begitu euren buruaren eskeintza barritu nahi daben gure senide honeei; egizu, bizi daitezala gero eta estuago Eleizearen misterioagaz bat eginik eta gartsuago lan egin dagiela gizadiaren alde.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez, Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Bakarra danean boto-barritzailea:

Oi Jainko, Zeuk eratzen dituzu gauza guztiak, Zeuk gidatzen gizon-emakumeak; begitu bere buruaren eskeintza barritu nahi dauan I. gure senide honi; egizu, bizi dadila gero eta estuago Eleizearen misterioagaz bat eginik eta gartsuago lan egin dagiala gizadiaren alde.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez, Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa

Batzuk diranean boto-barritzaileak:

Begitu, Jauna, begi onez, zeure herriaren emoitzei, gure senide honeek kastitate, pobretasun eta obedientziaren eskeintza barritzean aberatsago egin dira-eta; egizu, bizitzaldi honetako dohai diranak izan daitezala betikoaren sakramentu, eta erabarritu egizu fededun honeen bihotza zeure Semearen antz-irudiko eginez.

Bakarra danean boto-barritzailea:

Begitu, Jauna, begi onez, zeure herriaren emoitzei, I. gure senide hau kastitate, pobretasun eta obedientziaren eskeintza barritzean aberatsago egin da-eta; egizu, bizitzaldi honetako dohai diranak izan daitezala betikoaren sakramentu, eta erabarritu egizu fededun honen bihotza zeure Semearen antz-irudiko eginez.

Errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Prefazioa, betiko profesinokoa, 1102. or.

Batzuk diranean boto-barritzaileak:

Bakarra danean boto-barritzailea:

Jaunartze ondorengoa

Zure zerbitzari honeek, zure grazian bakarrik uste on dabela, barritu dabez euren erabagi neketsuak; egizu, Jauna, hartu dogun sakramentu honi esker, Kristok bere indarrez sendotu dagizala eta Espiritu Santuak bere laguntzaz babestu.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

I. zure zerbitzari honek, zure grazian bakarrik uste on dauala, barritu ditu bere erabagi neketsuak; egizu, Jauna, hartu dogun sakramentu honi esker, Kristok bere indarrez sendotu dagiala eta Espiritu Santuak bere laguntzaz babestu.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

IX. IRAKURLEEN ETA AKOLITOEN ERAKETA

Eraketa-ohikune hau Meza barruan egiten bada, Eleiz Zerbitzarientzako Meza, 1149. or., erabili daiteke, kolore zuriz nahiz jai-girokoz.

Liturgi egunen zerrendako 1-9 arteko egunen baten egiten bada, 74. or., eguneko Meza emongo da.

X. ELEIZA NAHIZ ALTARA SAGARATZEA

1. ELEIZA SAGARATZEA

Eleiza sagaratzean Ohikuneetarako Meza berezia erabiliko da beti, kolore zuriz nahiz jai-girokoz. Eleizea sagaratzea ez daiteke egin Pazko Hirurrenean, Jaunaren Jaiotzako Gabon-egunean, Agerkunde-egunean, Igokunde-egunean eta Pentekoste-domekan, ezta Hauts-egun-egunean, Aste Santuan eta Hildako Fededun Guztien Oroipen-egunean be.

Eleiza sagaratzearen urtemugako Mezak Betikoan datoz, 931. or.

Sarrera-ant. Bere egoitza santuan dago Jainkoa, etxea emoten deutse Jainkoak baztertuei; berak emongo deutso indarra eta kemena bere herriari (P.a. aleluia). Ik. Sal 68 [67], 6.7.36

Edo:

Goazen pozik Jaunaren etxera! (P.a. aleluia). Ik. Sal 122 [121], 1

Aintza zeruetan esango da.

Otoitza

Jainko ahalguztidun betikoa,
isuri zeure grazia otoitz-leku honetara,
eta emon zeure laguntza
hemen dei egiten deutsuen guztiei,
zure hitzaren eta sakramentuen indarrak
fededun guztien bihotza sendotu dagian.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Sinisten dot egunari dagokionaren arabera esango da; Jainkoaren herriaren otoitza ez da egingo.

Oparigaien gainekoa

Atsegin bekizu, Jauna,
Eleizeak pozik egiten deutsun eskeintza,
zure herriak, etxe honetan alkarturik,
misterio honeei esker, betiko salbamena lortu dagian.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

A. Eleiza honetan eleizkizunak lehendik egin izan ez badira, I. nahiz III. Eukaristi Otoitza esango da, prefazio honegaz:

Prefazioa

JAINKOAREN TENPLUAREN MISTERIOA

℣. Jauna zuekin.
℟. Eta zure espirituarekin.

℣. Gora bihotzak.
℟. Jaunagan daukaguz.

℣. Eskerrak Jaungoiko gure Jaunari.
℟. Egoki da eta zuzen.

Egoki da, bai, eta zuzen,
bidezko eta salbagarri,
nonahi eta beti guk Zuri eskerrak emotea,
Jauna, Aita guztiz santu horri.

Mundu osoa zeure aintzaren tenplu egin dozu,
zure izena alde guztietan distiratsu agertu dadin;
baina misterio santuak ospatzeko
guk Zuri leku egokiak eskeintzea be ontzat hartzen dozu.

Pozez gainezka sagaratzen deutsugu, Jauna,
giza eskuz eraikitako otoitz-etxe hau.
Etxe honetan egiazko Tenpluaren misterioa agertzen da
eta zeruko Jerusalemen irudia aurrez ikusten;
izan ere, Ama Birjinagandik jaiotako zure Semearen gorputza
Zeuri sagaratutako Tenplu egin zenduan
eta jainkotasun betearen bizileku.

Uri santu bezala jarri dozu zeure Eleizea,
Apostoluen oinarri gainean eraikia,
Jesu Kristo bera giltzarri dala;
eta eraikitzen jarraitzen dozu
Espirituak bizibarritu eta maitasunak bat egindako
harri hautatuz;
Eleiza horretan, gizaldiz gizaldi,
guztia izango zara Zu guztientzat,
eta betiko distiratuko dau Kristoren argiak.

Honen bitartez, geuk ere, aingeru eta santu guztiekin batean,
goresten zaitugu, Jauna,
poz betean [esanez] kantari:

Santu, Santu, Santua,
diran guztien Jainko Jauna.
Zeru-lurrak beterik daukaz zure distirak.
Hosanna zeru-goienetan!
Bedeinkatua Jaunaren izenean datorrena.
Hosanna zeru-goienetan!




Egoki da, bai, eta zuzen, bidezko eta sal-ba-ga-rri, nonahi eta
beti guk Zuri eskerrak e-mo-te-a, Jauna, Ai-ta guz-tiz san-tu
ho-rri. Mundu oso-a zeure aintzaren tenplu e-gin do-zu,
zure ize-na alde guztietan distiratsu ager-tu da-din; baina misterio
santuak os-pa-tze-ko guk Zuri leku egokiak eskeintzea e-
re on-tzat har-tzen do-zu. Pozez gainez-ka sagaratzen deutsu-
gu, Jau-na, giza eskuz eraikitako otoitz–e-txe hau. Etxe hone-
tan egiazko Tenpluaren misterioa ager-tzen da eta zeruko Jerusa-
lemen irudi-a au-rrez i-kus-ten; izan e-re, Ama Birjinagan-
dik jaiotako zure Semearen gor-pu-tza Zeuri sagaratutako Tenplu
e-gin zen-du-an eta jainkotasun be-te-a-ren bi-zi-le-ku.



Prefazioa

B. Eleiza honetan eleizkizunak lehendik egiten badira, I. nahiz III. Eukaristi Otoitza esango da, prefazio honegaz:

ELEIZA DAN JAINKOAREN TENPLUAREN MISTERIOA

℣. Jauna zuekin.
℟. Eta zure espirituarekin.

℣. Gora bihotzak.
℟. Jaunagan daukaguz.

℣. Eskerrak Jaungoiko gure Jaunari.
℟. Egoki da eta zuzen.

Egoki da, bai, eta zuzen,
bidezko eta salbagarri,
nonahi eta beti guk Zuri eskerrak emotea,
Jauna, Aita guztiz santu,
Jainko ahalguztidun betiko horri
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Giza eskuz egindako agiriko etxe honetan batzen dozulako
eta zeure babespean zaintzen beti
Zugana doan herria;
hemen agertzen dozu eta miragarriro betetzen
gugaz dozun batasunaren misterioa.

Izan ere, leku honetan eraikitzen gaituzu gu
zeure bizileku izateko,
eta mundu osoan zabalduta dagoan Eleizea
hemen haziazoten dozu Kristoren gorputzeko batasunean,
bere betera heldu arte bakezko ikuskarian,
zeruko Jerusalem urian.

Horregaitik, espiritu dohatsu guztiekin batean,
zure aintzaren tenpluan goresten,
bedeinkatzen eta handiesten zaitugu,
bihotz batez [esanez] kantari:

Santu, Santu, Santua...




Egoki da, bai, eta zuzen, bidezko eta sal-ba-ga-rri, no-na-hi eta
beti guk Zuri eskerrak e-mo-te-a, Jauna, Aita guz-tiz san-tu,
Jainko ahalguztidun betiko ho-rri, Jesu Kristo gure Jau-na-ren
bi-tar-tez. Giza es-kuz egindako agiriko etxe honetan batzen do-zu-
la-ko eta zeu-re babespean zaintzen beti Zugana doan he-rri-a;
hemen agertzen dozu eta miragarriro be-te-tzen gurekin dozun ba-
tasuna-ren mis-te - ri-o-a. Izan e-re, leku honetan eraikitzen
gaituzu gu zeure bizileku i-za-te-ko, eta mun-du osoan zabaldua
dagoan E-lei-za hemen haziazoten dozu Kristoren gorputzeko
bata-su-ne-an, bere betera heldu arte bakezko ikuska-ri-an,
zeruko Je-ru-sa-lem u-ri-an. Horregai-tik, espiritu dohatsu



Eukaristi Otoitzean eleizaren sagaratzearen aipamena honan egingo da:

a) I. Eukaristi Otoitzean, Gotzain meza-emoileak Hona hemen, Jauna berezi hau esango dau:

Hona hemen, Jauna, zure zerbitzarion
eta zure herri osoaren eskeintza;
hartu egizu onez
eleiza hau [I.-ren ohoretan] ahaleginez eta gogoz eraiki
eta gaur pozik sagaratu deutsun herri honen eskeintza hau.
[Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. Amen.]

Bedeinkatu, Jauna, eskeintza hau...

b) III. Eukaristi Otoitza erabiltzen danean, alkarmeza-emoileak ...zeurea dozun herri osoa hitzen ondoren, esango dau:

Entzun, bihotz onez,
eleiza hau sagaratu deutsun familia honen otoitzak:
izan dagiala bere salbazino-etxe
eta zerutar sakramentuetarako leku;
iragarri dadila hemen bakearen Ebanjelioa
eta ospatu daitezala misterio santuak;
zure fededunak,
hitz bizi-emoileaz eta zure graziaz argiturik,
lur honetako erromes-bidea egin ondoren,
betiko Jerusalemera heldu daitezala,
han Zuk, Aita guztiz on eta errukitsu horrek, alkartu daizuzan
mundu zabalean sakabanaturik dabiltzan
zeure seme-alaba guztiak.

Hildako gure senideak...

Jaunartze-ant. Nire etxea otoitz-etxe izango da, dino Jaunak; etxe honetan, eskatzen dauanak hartu egiten dau, bilatzen dauanak aurkitu, eta atea jotzen dauanari zabaldu egiten jako (P.a. aleluia). Mt 21, 13; Lk 11, 10

Edo:

Olibondo-kimuen antzeko izan beitez Eleizearen seme-alabak Jaunaren mahai inguruan (P.a. aleluia). Ik. Sal 128 [127], 3

Jaunartze ondorengoa

Hartu dogun janari santu honen bidez, Jauna,
emoiguzu Zu sakon ezagutzea geure bihotzean,
etxe santu honetan beti adoratu zaiguzan
eta, santu guztiekin batean,
zure aurrean poztu gaitezan.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Gotzainak, eskuak herriaren gain zabalik, esango dau:

Bedeinkapen nagusia

Otoitz-etxe hau sagaratzeko
gaur hemen batu zaituen zeru-lurren Jaun eta Jainkoak
emon deizuela oparo zeruko bedeinkazinoa.
℟. Amen.

Bere seme-alaba sakabanatu guztiak
Kristogan batu nahi izan zituan Jainkoak
egin zagiezala bere tenplu
eta Espiritu Santuaren bizileku.
℟. Amen.

Eta holan, pekatutik zorionez garbiturik,
izan dagizuela Jainkoa zeuongan
eta, egun baten santu guztiekin,
emon deizuela betiko zoriona.
℟. Amen.

Bedeinkatu zagiezala Jaungoiko ahalguztidunak:
Aitak, ✠ eta Semeak, ✠ eta Espiritu ✠ Santuak.
℟. Amen.

2. ALTARA SAGARATZEA

Altarea sagaratzean Ohikuneetarako Meza berezia erabiliko da gehienetan, kolore zuriz nahiz jai-girokoz. Altarea sagaratzea ez daiteke egin Pazko Hirurrenean, ezta Hauts-egun-egunean, Aste Santuan eta Hildako Fededun Guztien Oroipen-egunean be. Jaunaren Jaiotzako Gabon-egunean, Agerkunde-egunean, Igokunde-egunean eta Pentekoste-domekan, baita Abendualdi, Garizuma eta Pazkoaldiko domeketan be, eguneko Meza erabiliko da, oparigaien gaineko otoitza eta prefazioa izan ezik, honeek ohikuneari estu lotuak dagoz-eta.

Sarrera-ant. Oi Jainko, begitu onez gure babeskiari, begitu zeure igurtziaren aurpegiari. Hoba da egun bat zure atarietan, nire etxean mila baino (P.a. aleluia). Sal 84 [83], 10-11

Edo:

Helduko naz Jainkoaren altarara, neure poz betea dodan Jainkoagana (P.a. aleluia). Sal 43 [42], 4

Aintza zeruetan esango da.

Otoitza Oi Jainko, gauza guztiak
kurutzeko altaran goratua izan zan zure Semeagana
batzea nahi izan zenduan;
bete egizu graziaz
gaur altara hau sagaratuko deutsun zeure eleiz alkartea;
emon zeure janaria
mahai honen inguruan batuko diran zeure fededunei
eta isuri euren gainera zeure Espiritua
zure herri santu izan daitezan.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Sinisten dot esango da; Jainkoaren herriaren otoitza ez da egingo.

Oparigaien gainekoa

Jainko gure Jauna,
jatsi bedi zure Espiritu Santua altara honen gainera,
zure herriaren oparigai honeek santu egin dagizan
eta eurok hartuko dabezanen bihotza garbitu.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

I. nahiz III. Eukaristi Otoitza esango da, altarea sagaratzearen ohikuneari dagokion prefazio honegaz:

Prefazioa

KRISTO BERA DA ALTAREA

℣. Jauna zuekin.
℟. Eta zure espirituarekin.

℣. Gora bihotzak.
℟. Jaunagan daukaguz.

℣. Eskerrak Jaungoiko gure Jaunari.
℟. Egoki da eta zuzen.

Egoki da, bai, eta zuzen,
bidezko eta salbagarri,
nonahi eta beti guk Zuri eskerrak emotea,
Jauna, Aita guztiz santu,
Jainko ahalguztidun betiko horri,
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Honek, egiazko abade eta egiazko opari izanik,
beti eta beti ospatzeko agindu euskun
berak kurutzeko altaran eskeini eutsun opariaren oroigarria.
Horregaitik eraiki dau zure herriak, Jauna,
gaur pozez beterik Zuri sagaratu deutsugun altara hau.

Benetan, gorena dan leku honetan
Kristoren sakrifizioa eskeiniko da etenbako sakramentu-eran,
gorespenik ederrena izango da Zuretzat
eta salbazino gertatuko guretzat.

Jaunaren mahaia dan altara honetan,
zure seme-alabak, Kristoren Gorputzaz janariturik,
Eleiza santuaren batasunean alkartuko dira.

Zure Espiritua hartuko dabe hemen fededunek,
espirituzko harkaitza dan Kristori darion ur bizitik edanez;
eta honen bidez egingo dira honeek
opari santu eta altara bizi.

Horregaitik, geuk ere, aingeru eta santu guztiekin batean,
goresten zaitugu, Jauna,
poz betean [esanez] kantari:

Santu, Santu, Santua,
diran guztien Jainko Jauna.
Zeru-lurrak beterik daukaz zure distirak.
Hosanna zeru-goienetan!
Bedeinkatua Jaunaren izenean datorrena.
Hosanna zeru-goienetan!




Egoki da, bai, eta zuzen, bidezko eta sal-ba-ga-rri, no-na-hi eta
beti guk Zuri eskerrak e-mo-te-a, Jauna, Aita guz-tiz san-tu,
Jainko ahalguztidun betiko ho-rri, Jesu Kristo gure Jau-na-ren
bi-tar-tez. Ho-nek, egiazko abade eta egiazko opari i-za-nik,
beti eta be-ti ospatzeko agin-du eus-kun berak kurutzeko altaran
eskeini eutsun opariaren oroi-ga-rri-a. Horregaitik eraiki dau zure
herriak Jau-na, gaur pozez beterik Zuri sagaratu deu-tsu-gun al-ta-ra
hau. Be-ne-tan, gorena dan leku ho-ne-tan Kristoren sakrifizioa
eskeiniko da eten barik sakramen-tu –e-ran, gorespenik ederrena
izango da Zu-re-tzat eta salbamen ger-ta-tu-ko gu-re-tzat.



Jaunartze-ant. Txoriak aurkitu dau etxea, baita elaiak be kumeentzat habia: zure altarak, Jaun ahalguztiduna, ene Erregea eta ene Jainkoa! Zorionekoak zure etxean bizi diranak eten barik Zu goresten! (P.a. aleluia).
Sal 84 [83], 4-5

Edo:

Olibondo-kimuen antzeko izan beitez Eleizearen seme-alabak Jaunaren mahai inguruan (P.a. aleluia). Ik. Sal 128 [127], 3

Jaunartze ondorengoa

Hurreratu gaitezala beti, Jauna,
Eukaristiako sakrifizioaren sakramentua
ospatzen dan zure altarara;
fedean eta maitasunean bat eginik,
Kristo janari hartzen dogunok
Kristo bihurtu gaitezan.
Errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Gotzainak, eskuak herriaren gain zabalik, esango dau:

Bedeinkapen nagusia

Errege eta abade egin zaituen Jainkoak
emon deizuela zeuen eginkizunak zintzo betetzeko indarra,
Kristoren sakrifizioan egoki parte hartu daizuen.
℟. Amen.

Altara beraren inguruan batu
eta ogi beragaz asetu zaituen Jaunak
bat egin zagiezala gogo-bihotzez.
℟. Amen.

Holan, Kristoren barri emoten deutsezuen guztiak
Kristogana erakarri dagizuezan
zeuon maitasunaren ejenpluaz.
℟. Amen.

Bedeinkatu zagiezala Jaungoiko ahalguztidunak:
Aitak, ✠ eta Semeak, ✠ eta Espiritu ✠ Santuak.
℟. Amen.

BEHARRIZAN BATZUETARAKO MEZAK ETA OTOITZAK

1. Arlo honetan batera jarri dira egokiera desbardinetarako Mezak eta otoitzak; ingurune desbardinetan erabili leitekez, hainbat beharraldi edo egokieratarako.

Lehenengo zati bietan datozanak, herriagaz nahiz herri barik ospatzen diran Mezetan erabili leitekez; hirugarren zatikoak, barriz, batez be herririk bako Mezetan erabili behar lirateke, arrazoi pastoralek noiz edo noiz besterik eskatzen ez badabe.

2. Beharrizan handiren bat nahiz egokiera pastoral berezia gertatzen danean, egokiena dan Mezea emon daiteke, eleizbarrutiko Gotzainaren aginduz edo baimenez; eta hau edozein egunetan, baina ez festaburuetan, ezta Abendualdi, Garizuma eta Pazkoaldiko domeketan, Pazko Zortziurrenean, Hildako Fededun guztien Oroitzapenean, Hauts-egun Egunean eta Aste Santuko astegunetan be.

Nahiz eta beharrezko oroipena dan egunetan, edo Abendualdiko astegunetan abenduko hilaren 16a arte nahiz Gabonaldian urtarrilaren 2tik aurrera eta Pazko Zortziurrenaz kanpoko Pazkoaldiko astegunetan, berez galazota egon Beharrizan Batzuetarako Mezak, egiazko beharrizan batek nahiz egokiera pastoralak eskatu ezkero, herriagaz egingo dan ospakizunean, eleizako arduradun nahiz meza-emoile dan abadearen eretxiz, emon daiteke beharrizan horri erantzuten deutson Mezea.

Sarrera- eta jaunartze-antifonei Aleluia gehituko jake Pazkoaldian, horreen testuagaz txarto emoten ez badau.

3. Urtean Zeharreko astegunetako Mezetan, abadeak arlo honetako hiru otoitzak nahiz lehenengoa bakarrik esan leikez, 1. zk.an esandakoak kontuan izanik.

4. Beharrizan berezietarako meza-gai honeekin erabili leiteken Eukaristi Otoitzaz, ik. Mezaren Egunerokoaren I. Eranskina, 674. or.

5. Meza honeetako liturgi testuak era berean erabiliko dira gizonezkoarentzat eta emakumea-rentzat, batentzat nahiz askorentzat, behar diran egokitzeak eginez.

6. Meza honeek egunari dagokion kolorez nahiz liturgialdiari dagokionaz emon leitekez, edo kolore morez, penientzi giroa adierazoten badabe, adib. 31., 33., 38. zk. (ik. *Eraketa Orokorra*, 347. zk.).

I. ELEIZA SANTUARENTZAT

1. ELEIZEARENTZAT

A

Sarrera-ant. Bere asmo ezkutua ezagutuarazo deusku Jainkoak: zeruko nahiz lurreko gauza guztiak Kristogan batuko dituala, berau buru dala.
Ik. Ef 1, 9-10

Otoitza

Oi Jainko, zeure ardura miragarrian,
Kristoren erregetza mundu guztian zabaltzea erabagi dozu,
eta gizon-emakume guztiek
erospeneko misterio salbagarrian parte izatea;
egizu, Eleizea izan dadila danentzat salbazino-sakramentu
eta agertu dakiela gizon-emakume guztiei
Kristo dala herrialde guztien itxaropena eta Salbatzailea.
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa

Begira, Jaun errukitsu horrek, begi onez
Zuri sagaratuta dagoan herri honen emoitzei;
egizuz Zeuretzat Zugan sinisten dabenak,
sakramentu honen indarrez,
jatorri aukeratu, errege eta abade,
nazino santu eta Zeuretzat eskuratutako herri.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Prefazioa: Urtean Zeharreko domeketako VIII.a, 510. or.

Jaunartze-ant. Espirituak eta emazteak dinoe: Zatoz! Amen. Zatoz, Jesus Jauna!
Ap 22, 17a.20

Jaunartze ondorengoa

Oi Jainko, zeure sakramentuz janaritzen
eta indartzen dozu beti Eleizea;
emoiguzu zerutar mahai honetan jan eta edan dogunoi
zeure maitasunaren irakaspenei jarraitzea
eta gizon-emakume guztientzat
legamina bizi-emoile eta salbazino-bide izatea.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

B

Sarrera-ant.

Giza talde handi bat ikusi neban, inork konta ezin ahalakoa, nazino eta arraza, herri eta hizkuntza guztietako jentez osotua. Ap 7, 9

Otoitza

Oi Jainko, Kristoren itun barrian
Espirituak herrialde guztietatik batasun osora daroan
herri bakarra batzen diharduzu beti;
egizu, zure Eleizea,
emon jakon egitekoan leial jokatuz,
ibili dadila beti gizadiagaz batean
eta izan dadila, Kristogan barritu
eta Jainkoaren familia izan behar dauan
gizartearentzat legamina eta arima.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa

Onartu bihotz onez, Jauna, dakartsuguzan oparigaiak
eta egizu, kurutzean hil zan
Kristoren saihetsetik sortutako zure Eleizeak,
misterio honetan parte hartuz, atara dagiala beti indarra
santutasun bizi-emoilea eta bere sortzailea dauan
Jesu Kristo gure Jaunari jarraitzeko.
Errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Prefazioa: Urtean Zeharreko domeketako VIII.a, 510. or.

Jaunartze-ant. Gudari batek lantzaz saihetsa zulatu eutson, eta bat-batean odolak eta urak urten eben. Jn 19, 34

Edo:

Bedeinkazinoa, aintza eta jakituria, esker ona eta ospea, ahalmena eta indarra gure Jainkoari gizaldien gizaldietan. Amen! Ap 7, 12

Jaunartze ondorengoa

Jauna, eten barik agertzen deutsezu behartsuei
zeure salbazinoaren misterioa,
eta eurentzat dozu zeure erreinuko ondarerik ederrena;
hartu dogun zure Semearen sakramentu honen bidez,
egizu emonkor Eleizearen salbazino-lana.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

C

Sarrera-ant. Nire izenean bi edo hiru lagun batuta dagozan tokian, hantxe nago Ni euren artean, dino Jaunak. Mt 18, 20

Edo:

Guk, Kristogaz alkarturik, gorputz bat egiten dogu eta bata bestearen atal gara guztiok. Erm 12, 5

Otoitza

Jainko ahalguztiduna,
egizu, zure Eleizea herri santu izan dadila beti,
Aitaren eta Semearen
eta Espiritu Santuaren batasunean alkartuta,
munduari zure santutasunaren
eta batasunaren misterioa agertu deion
eta zure maitasun betera gidatu dagian.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa

Zure Semearen maitasun neurribakoaren oroigarria ospatzean, ahuspez eskatzen deutsugu, Jauna:
Jesu Kristok bere salbazino-egintzaz lortutako frutuak izan daitezala, Eleizearen zerbitzuari esker, onuragarri mundu guztiaren salbazinorako.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Prefazioa: Kristauen batasunekoa, 1163. or.

Jaunartze-ant.

Ogia bat danez, guztiok gorputz bat gara, ogi bakarretik eta kaliza beretik hartzen dogunok. Ik. 1 Ko 10, 17

Jaunartze ondorengoa

Sakramentu miragarri honetan
zeure Eleizeari indarra eta kontsolamentua
emoten deutsazun Jainkoa,
emoiozu zeure herriari, misterio santu honen bidez,
Kristogaz bat egitea,
munduan egiten dituan lanei esker
betiko zure erreinua eraiki dagian askatasunean.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

D

Sarrera-ant.

Aita, Nigan sinistuko dabenen alde dot erregutzen, eurok be bat izan daitezan Gugaz, munduak sinistu dagian Zeuk bialdu nozuna, dino Jaunak. Ik. Jn 17, 20-21

Otoitza

Jainko ahalguztidun betikoa,
Kristogan agertu deutsezu herri guztiei zeure aintza;
zaindu egizu zeure errukiaren lana,
mundu guztian zabaldurik dagoan Eleiza santuak
fede sendoz iraun dagian zure izena autortzen.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa

Oi Jainko,
zeure Semearen sakrifizioaren bidez
garbi egin zenduan Eleizea
eta sakrifizio beraren bidez santutzen dozu eten barik;
egizu, bere buru dauan Kristogaz alkartuta,
bizi dadila Zeuri eskeinita
eta bete dagiala, bihotz garbiz, zure gogoa.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Prefazioa: Urtean Zeharreko domeketako VIII.a, 510. or.

Jaunartze-ant.

Norbait Nigan badago, Ni harengan lez, harek frutu asko emongo dau; Ni barik ezin dozue-eta ezer egin, dino Jaunak. Jn 15, 5

Jaunartze ondorengoa

Gidatu egizu, Jauna, maitasunez
mahai santu honetan indarbarritzen dozun Eleizea;
Zeuk esku sendoaz eroanik,
gero eta askatasun handiagoa izan
eta fede betean zintzo iraun dagian.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

E

Lekuko Eleizearentzat

Sarrera-ant.

Jesu Kristori, maite gaituanari eta bere odolaz geure pekatuetatik askatu ginduzanari, Jainko bere Aitarentzat errege eta abade egin gaituanari, aintza eta agintea gizaldien gizaldietan. Amen.

Ik. Ap 1, 5-6

Otoitza

Oi Jainko,
mundu zabalean erromes dabiltzan Eleizetako bakotxean
bat, santu, katoliko eta Apostoluena dan
zeure Eleiza bakarra agertzen dozu;
egizu, zure eleizbarruti hau,
bere artzainagaz bat eginik
eta Ebanjelioaren eta Eukaristiaren bidez
Espiritu Santuagan alkarturik,
izan dadila zure Eleiza osoaren ordezkari
eta Kristoren presentziaren ezaugarri eta agerpen munduan.
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa

Zure Semearen maitasun neurribakoaren oroigarria ospatzean,
ahuspez eskatzen deutsugu, Jauna,
haren salbazino-egintzaren frutuak
izan daitezala mundu guztiaren salbazinorako,
Eleizearen zerbitzu honen bidez.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Prefazioa: Urtean Zeharreko domeketako VIII.a, 510. or.

Jaunartze-ant.

Hara, atean nago deika, dino Jaunak; norbaitek nire ahotsa entzun eta atea edegiten badeust, harenean sartuko naz eta alkarregaz afalduko dogu. Ap 3, 20

Jaunartze ondorengoa

Sendo iraun dagiala, Jauna, azkeneraino
I.-ko gure eleizbarruti honek fede osoan, bizitza santuan,
senitarteko maitasunean eta jainkozaletasun leialean;
zaindu egizu beti zeure babespean,
zeure Semearen Gorputzaz
eta zeure hitzaz janaritzen dozun eleiz alkarte hau.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

2. AITA SANTUARENTZAT
batez be aukeratzearen urtemugan

Meza hau, jantzi zuriz, Aita Santu aukeratu ebeneko urtemuga-egunean emon leiteke, ospakizun bereziak egiten badira; baina ez Abendualdiko, Garizumako eta Pazkoaldiko domeketan, ezta festaburuetan, Hauts-egun-egunean eta Aste Santuan be.

Sarrera-ant.

Zu Pedro zara, harkaitza; harkaitz horren gainean eraikiko dot Nik neure Eleizea, eta Herioaren indarrak ez jakoz nagusituko; eta zeruetako erreinuko giltzak emongo deutsudaz. Mt 16, 18-19

Otoitza

Oi Jainko, guganako dozun arduraz
zeure Eleizea San Pedroren gainean eraikitzea
erabagi zenduan,
bera beste Apostoluen buru ezarriz;

begitu bihotz onez I. gure Aita Santuari;
eta San Pedroren ondorengo ezarri dozun ezkero,
emoiozu zeure grazia,
zure herriarentzat fede-batasunaren eta alkartasunaren
agiriko sustrai eta oinarri izan dadin.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Edo:

Fededun guztien artzain eta gidari zaran Jainkoa,
begitu begi onez zeure Eleizearen artzain jarri dozun
I. zeure zerbitzariari;
egizu, onuragarriak izan daitezala haren hitza eta ejenplua
bere ardurapean daukan herriarentzat,
bere artaldeagaz batera betiko bizitzara heldu dadin.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Edo:

Oi Jainko, Pedro apostoluaren ondorengoen artean,
aukeratu dozu I. zeure zerbitzaria
artalde osoaren artzain izateko;
begitu begi onez otoitzean diharduan zeure herriari,
eta egizu, lurrean Kristoren ordezko danak
sendotu dagizala bere senideak
eta bat egin dagiala beragaz Eleiza osoak
batasun-, maitasun- eta bake-lokarriz,
guztiek Zugan, arimen artzain horregan,
betiko egia eta bizia lortu dagien.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa

Onartu, Jauna, egiten dihardugun eskeintza hau
eta zaindu eten barik zeure babespean zeure Eleiza santua,
Zeuk artzaintzat emon deutsazun
I. gure Aita Santuagaz batean.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Jaunartze-ant.

Simon, Joanen semea, honeek baino maiteago nozu? Jauna, Zuk dana dakizu, Zuk badakizu maite zaitudana. Jn 21, 15.17

Jaunartze ondorengoa

Zerutar mahaian parte harturik,
apalik eskatzen deutsugu, Jauna:
sakramentu honen indarrez,
sendotu egizu batasunean eta maitasunean zeure Eleizea
eta salbatu egizu eta babestu beti
artzain-eginkizuna emon deutsazun I. zeure zerbitzaria,
honen ardurapean ezarri dozun artaldeagaz batera.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

3. GOTZAINARENTZAT
batez ere gotzain sagaratzearen urtemugan

Meza hau gotzain sagaratu ebeneko urtemuga-egunean emon leiteke, ospakizun bereziak egiten badira; baina ez Abendualdiko, Garizumako eta Pazkoaldiko domeketan, ezta festaburuetan, Hauts-egun-egunean eta Aste Santuan ere.

Sarrera-ant.

Ni Neu egingo naz artaldearen kargu, dino Jaunak, eta artzain bat jarriko deutset janaritu dagizan; Neu, Jauna, izango nabe Jainko. Ez 34, 11.23.24

Otoitza

Oi Jainko, fededunen betiko artzaina,
ardura handiz zara Eleizearen buru
eta maitasunez zuzentzen dozu;
emoiozu zeure herriaren artzain jarri dozun
I. zeure zerbitzariari
Kristoren izenean artaldearen buru
eta zure egiaren irakasle leial izatea,
gurtza sakratuaren abade

eta zure herriaren gidaritzan zerbitzari.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Edo:

Fededun guztien artzain eta gidari zaran Jainkoa,
begitu begi onez I.-ko gure eleizbarrutiaren artzain jarri dozun
I. zeure zerbitzariari;
egizu, onuragarriak izan daitezala haren hitza eta ejenplua
bere ardurapean daukan herriarentzat,
bere artaldeagaz batera betiko bizitzara heldu dadin.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Edo:

Apostoluen ondorengo ezarri dozu, Jauna,
I. zeure zerbitzaria zeure artaldea zaintzeko;
emoiozu kontseilu- eta sendotasun-espiritua,
ezaguera- eta jainkozaletasun-espiritua,
bere ardurapean jarri dozun herria leial zuzenduz,
salbazino-sakramentu dan Eleizea
eraiki dagian mundu honetan.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa

Atsegin bekizu, Jauna,
I. zure zerbitzariaren alde egiten deutsugun eskeintza,
eta zeure herriaren abadeburu egin dozun hau
bete egizu apostolu-dohaiekin artaldearen onerako.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Jaunartze-ant. Gizonaren Semea ez da etorri zerbidua izatera, zerbitzari izatera baino, eta bere bizia guztien ordainsari emotera. Mt 20, 28

Jaunartze ondorengoa

Sakramentu honen indarrez, Jauna,
emon ugari I. zure zerbitzari eta gure Gotzainari
zeure graziaren dohaiak,
egoki bete dagian artzain-zerbitzua
eta betiko saria lortu egindako lan onagaitik.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

4. AITA SANTUA NAHIZ GOTZAINA AUKERATZEKO

Sarrera-ant. Neure bihotzaren eta gogoaren arabera jardungo dauan abade zintzo bat sortuarazoko dot; haren jatorritik sortuko diran erregeak emongo deutsadaz eta nire zerbitzuan ibiliko da beti. 1 Sm 2, 35

Otoitza

Oi Jainko,
zeure artaldea etenbako arretaz zaintzen dozun
fededunen betiko artzaina,
neurribako zeure errukiaz emoiozu Eleizeari artzain ona,
santutasunez Zuri atsegin izango jatzun
eta bere arduraz guretzat on izango dan artzaina.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa

Izan egizu gurekin, Jauna, erruki handia
eta, Zuri eskeintzera goazan opari sakratu honen bidez,
emoiguzu zeure gogoko artzaina,
Eleiza santua egoki gidatu dagian
eta horretaz gu poztu gaitezan.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Jaunartze-ant. Neuk aukeratu zinduedazan zuek, eta eginkizun hau emon deutsuet: frutu ugaria eta iraunkorra emon dagizuela edonon, dino Jaunak. Jn 15, 16

Jaunartze ondorengoa

Zure Semearen Gorputz-Odolen sakramentu salbagarriak
janaritu gaitu, Jauna;
emoiguzu, zeure grazia miresgarriaz,
artzain on bat izatearen poza,
bere bertuteez zure herriarentzat eredu izan dadin
eta fededunen bihotza Ebanjelioaren egiaz argitu dagian.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

5. KONTZILIOA NAHIZ SINODOA DANERAKO

Sarrera-ant.

Guztien gainetik, izan maitasuna, hori da-eta alkartasun betearen lokarria; eta Kristoren bakeak agindu begi zuen bihotzean.

Kol 3, 14-15

Otoitza

Zure Eleizearen zuzendari eta zaintzaile zaran Jauna,
emoiezu zeure zerbitzariei
jakintza-, egi eta bake-espiritua,
Zuri atsegin jatzuna bihotz guztiaz ezagutu dagien
eta, ezagutu ondoren, ahalegin guztiaz bete.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Edo:

Zure herria errukiz zaintzen
eta maitasunez gidatzen dozun Jainkoa,
emoiezu jakituria espiritua
Eleizearen ardura emon deutsezun artzainei,
zure herria gidatu dagien
egia gero eta sakonago ezagutzera
eta atsegin jatzun santutasun handiagoa izatera.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa

Jainko guztiz ona,
begira zeure zerbitzarien eskeintzari
eta emoiezu zeure argiaren grazia;
zure begien aurrean zuzen dana benetan ezagutu dagien
eta uste osoz bete.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Prefazioa: Espiritu Santuaren II.a, 511. or.

Jaunartze-ant. Egiazko maitasuna non, han Jainkoa. Batasunean alkartu gaitu Kristoren maitasunak.

Jaunartze ondorengoa

Egizu, Jainko errukitsua,
hartu dogun sakramentuak
sendotu dagizala egian zure zerbitzariak
eta eroan beti zure izenaren aintza bilatzera.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

6. ABADEENTZAT

Sarrera-ant. Jaunaren Espiritua nire gainean dago, berak igurtzi nau-eta, behartsuei Barri Ona emotera bialdu nau, bihotz-hausiak osatzera, zapalduei askatasuna emotera. Ik. Lk 4, 18

Otoitza

Oi Jainko,
betiko abade nagusi egin dozu zeure Seme bakarra;
egizu, Kristok zure misterioen zerbitzari
eta emoile aukeratu dituanek
leial bete dagiela hartu daben zerbitzu hori.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Edo:

Jainko gure Jauna,
zeure herriaren zuzendari-eginkizuna emon deutsezu abadeei;
emoiezu iraupena zure nahia betetzeko,
euren lanetan eta bizitzan Zeu goratu zagiezan Kristogan.
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa

Oi Jainko, zure abadeek
altarea eta zure herria zerbidu dagiezala nahi izan dozu;
egizu, arren, opari honi esker,
zure gogoko izan dadila euron zerbitzua
eta emon dagiala Eleizan beti iraungo dauan frutua.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Jaunartze-ant.

Aita guztiz santua, sagaratu egizuz honeek egiaren bidez; zure hitza da egia. Ni mundura bialdu ninduzun lez, Neuk ere mundura bialdu ditut honeek, dino Jaunak. Jn 17, 17-18

Jaunartze ondorengoa

Eskeini eta hartu dogun opari santuak
bizibarritu dagizala, Jauna, zure abadeak eta fededun guztiak,
maitasunean eten barik Zugaz bat eginik
Zeu, Jaun handi hori, egoki zerbidu zagiezan.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

7. ABADEAK NORBERARENTZAT

A

Batez ere kristau-herriaren ardurea dauan abadearentzat

Sarrera-ant.

Jainkoak Eleizearen zerbitzari egin nau eta bere mezua zuei oso-osorik adierazoteko eginkizuna emon deust. Kristo iragartzen dihardugu, guztiak euren kristau-bizitzan heldutasun betera heldu daitezan. Ik. Kol 1, 25.28

Otoitza

Oi Jainko, zure familiaren ardurea emon deustazu,
ez nire merezimentuakaitik,
Zeuk eskuzabal emondako graziari esker baino;
lagundu egidazu neure abade-zerbitzua egoki betetzen,
Zeu gauza guztietan gidari izanik,
zuzen gidatu dagidan
nire ardurapean jarri dozun herria.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa

Oi Jainko,
gure egunen eta aldien eratzaile ahaltsua eta onbera,
zaindu egizu zeure onginahiz emon deustazun eginkizuna
eta, opari honen indarrez,
egin gaizuz bat herria eta artzaina
alkarrenganako maitasunean,
artzainak artaldearen obedientzia izan dagian,
eta artaldeak artzainaren ardurea beti.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Jaunartze-ant.

Aitak Ni maite izan nauan lez, halantxe maite izan zaituet Nik ere zuek; iraun tinko nire maitasunean, dino Jaunak. Jn 15, 9

Jaunartze ondorengoa

On guztien iturri eta helburu zaran
Jainko ahalguztidun betikoa,
egizu, misterio honetan parte harturik,
izan nadila bai zuzen danaren egile, bai egiaren predikari,
fededunei zure graziaren irakaspena
egitez eta hitzez emon deiedan.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

B

Sarrera-ant. Hauxe dinotsat Jaunari: Zeu zaitut neure Jauna, ez dot onik Zeu barik. Jauna, Zeu zaitut neure ondarea, neure edontzia, zeure esku dago nire zoria. Sal 16 [15], 2.5

Otoitza

Jainko guztiz onbera, entzun errukitsu nire otoitza,
eta argitu nire bihotza Espiritu Santuaren graziaz,
zure sakramentuak egoki ospatu dagidazan,
zure Eleizea leial zerbidu
eta Zu betiko maitasunez maitatu zagidazan.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa

Onartu, Jainko ahalguztiduna,
apalik dakartsuguzan oparigai honeek;
ikusi, eskeintza honetan,
aldi berean abade eta opari dan Kristo;
egizu, beraren abadetzan parte dodan ezkero,
izan nadila Zuretzat beti espirituzko opari atsegingarri.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Jaunartze-ant. Probaldietan beragaz iraun ebenei esan eutsen Jesusek: Nik erreinua emoten deutsuet, eta nire mahaian jango eta edango dozue. Ik. Lk 22, 28-30

Jaunartze ondorengoa

Aita guztiz santua,
zerutar ogiaz sendotu nozu
eta itun barriko kalizaz poztu;
egizu, zerbidu zagidazala leial,
eta emon dagidala maitasun handiz neure bizi osoa
gizon-emakumeen salbazinorako.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

C
Norberaren abadegintzako urtemugan

Sarrera-ant. Ez ninduzuen zuek aukeratu Ni, dino Jaunak; Neuk aukeratu zinduedazan zuek, eta eginkizun hau emon deutsuet: frutu ugaria eta iraunkorra emon dagizuela edonon. Ik. Jn 15, 16

Otoitza

Aita guztiz santua,
nire ezelako merezimentu barik,
Zeuk aukeratu ninduzun
Kristoren betiko abadetzan parte izateko
eta zeure Eleizearen zerbitzurako;
egizu, izan nadila Ebanjelioaren predikari gartsu eta apal
eta zure sakramentuen emoile leial.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa

Zure zerbitzari gero eta hobeak izan nahirik
eskeintzen deutsugu, Jauna, gorapen-sakrifizioa,
merezidu barik emon deustazun eginkizuna
Zeuk bihotz onez burutu dagizun.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Jaunartze-ant. Jainkoa bedeinkatuz hartzen dogun esker onezko kalizak Kristogaz bat egiten gaitu haren Odolean, eta zatitzen dogun ogiak Jaunagaz bat egiten gaitu haren Gorputzean. Ik. 1 Ko 10, 16

Jaunartze ondorengoa

Neure abade-zerbitzua hasi nebaneko urtemuga honetan,
pozik ospatu dot, Jauna, sinismenaren misterioa,
zure izenaren goresgarri;
egizu, izan nadila egiaz neure bizitzan
sakrifizio honetan era mistikoan bizi izan dodana.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

8. ELEIZ ZERBITZARIENTZAT

Sarrera-ant. Era askotakoak dira dohaiak, baina bat bakarra Espiritua; era askotakoak zerbitzuak, baina bat bakarra Jauna; era askotakoak eginbideak, baina bat bakarra Jainkoa, guztiengan guztia egiten dauana. Ik. 1 Ko 12, 4-6

Otoitza

Oi Jainko, zerbiduak izaten barik,
senideen zerbitzuan jarduten
irakatsi zeuntsen Eleizearen zerbitzariei;
egizuz euren lanean arduratsu,
zerbitzuan apal eta otoitzean iraunkor.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa

Aita guztiz santua,
zure Semeak oinak garbitu eutsezan bere ikasleei,
guri ejenplua emoteko;
onartu egizuz zeure zerbitzarion oparigaiak
eta egizu, geure burua espirituzko oparitzat eskeiniz,
bete gaitezala apaltasun- eta arreta-espirituz.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Jaunartze-ant. Zorionekoak, Jaunak, heltzean, erne aurkituko dituan morroiak! Egia dinotsuet: bere janzkiak aldaturik, mahaian jesarriarazoko ditu eta zerbitzen hasiko jake. Lk 12, 37

Jaunartze ondorengoa

Zerutar janariz eta edariz asetu dituzu, Jauna,
zeure zerbitzariak;
egizu, Ebanjelioaren, sakramentuen eta karitatearen
zerbitzari leial izan daitezala,
Zeu goresteko eta fededunak salbatzeko.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

9. ORDENA SAKRATUETARAKO BOKAZINODUNAK ESKATZEKO

Sarrera-ant. Erregutu uzta-jaubeari, bialdu dagizala langileak bere uztara, dinotse Jesusek ikasleei. Mt 9, 38

Otoitza

Oi Jainko,
zure herriak bere artzainak izatea nahi dozu;
emon zeure Eleizeari onberatasun- eta indar-espiritua,
zure altararako zerbitzari egokiak sortu dagizan
eta Ebanjelioaren zabaltzaile gartsu eta bihozbera egin.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa

Onartu, Jauna, bihotz onez
zeure herriaren otoitzak eta emoitzak,
zure misterioen zerbitzariak ugaritu daitezan
eta beti zure maitasunean iraun dagien.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Jaunartze-ant. Honetan ezagutu dogu Jainkoaren maitasuna: Kristok bere bizia gure alde emotean. Guk ere geure bizia emon behar dogu senideen alde. 1 Jn 3, 16

Jaunartze ondorengoa

Mahai santuko ogia harturik,
otoitz egiten deutsugu, Jauna:
maitasunaren sakramentu honi esker
erne eta heldu dadila
Zuk Eleizearen soloan oparo ereindako hazia,
asko izan daitezan
euren senideengan Zeu zerbitzea aukeratuko dabenak.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

10. LAIKOENTZAT

Sarrera-ant. Zeruetako erreinua legaminaren antzekoa da: emakume batek hiru lakari-urunetan nahasten dau, eta ore guztia harrotzen da. Mt 13, 33

Otoitza

Oi Jainko,
Ebanjelioaren indarra emon deutsazu munduari legaminatzat;
egizu, munduan zeregin sekularretan bizitzeko
bokazinoa jaso dabenak,
kristau-espiritua gartsu biziz
eta mundu honetako eginkizunetan jardunez,
ahalegindu daitezala eten barik zure erreinua eraikitzen.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa

Zeure Semearen sakrifizioaren bidez
mundu osoa salbatu nahi izan dozun Jainkoa,
emoiezu, bizitza laikoan
apostolutza-lanetara deitzen deutsezunei
mundua Kristoren espirituaz betetzea
eta munduaren santutasunerako legamina izatea.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Jaunartze-ant. Lurtar guztiok, egin irrintzi Jaunari, zerbidu egizue Jauna pozaren pozez, sartu zaiteze oihu alaiz haren aurrera, aleluia. Sal 100 [99], 2

Edo:

Honetan azaltzen da nire Aitaren aintza: zuek, nire ikasle izanik, frutu asko emotean, dino Jaunak. Jn 15, 8

Jaunartze ondorengoa

Zure graziaren betetik harturik,
otoitz egiten deutsugu, Jauna:
eginkizun sekularrei emonak bizi diran fededunak,
eukaristia jatorduan indarrez beterik,
izan daitezala Ebanjelioaren lekuko adoretsu
eta egin dagiela Eleizea mundu honetako arazoetan
partedun eta ekintzaile eten barik.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

11. EZKONTZAKO URTEMUGETAN

Ezkontzako urtemuga berezietan, esate baterako 25., 50., 60. urtemugako ezteguetan, «Beharrizan batzuetarako Mezak» emon leitekezanean, «Jainkoari eskerrak emoteko» Mezea emon leiteke, 1207. or., hemen ondoren datozan otoitzekin. Otoitz honeek erabili leitekez, egoki eretxi ezkero, Urtean Zeharreko asteguneta ko Mezetan be.

Ospakizun honeetan egoki izango da Ezkontzako sakramentuaren oroipen berezia egitea, Sakramentu eta Ohikuneetarako Erromatar Liburuko testuak erabiliz (ik. «Ezkontzako Ohikune Liburua»).

A
Ezkontzako urtemugan

Otoitza

Gauza guztien egile zaran Jainkoa,
ezkontzaz bat izateko
egin zenduzan hasieratik gizona eta emakumea;
bedeinkatu egizu eta sendotu
I. eta I. gure adiskide honeen batasuna,
Kristok Eleizeagaz dauan batasunaren irudia
gero eta argiago erakutsi dagien.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa

Oi Jainko,
odola eta ura atararazo zenduzan Kristoren saihetsetik,
gizon-emakumeen salbazino-misterioaren ezaugarritzat;
onartu egizuz I. eta I. gure adiskide honeen
Ezkontzako urtemugan
eskerrak emoteko dakartsuguzan emoitzak,
eta aberastu zeure dohaiekin euron batasuna.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Jaunartze ondorengoa

Goiko janariaz eta edariaz indarbarriturik,
bete egizuz, Jauna, pozez eta maitasunez
senar-emazte honeen bihotzak,
honeen etxea zuzentasun- eta bake-leku izan dadin,
danen kontsolamenturako eta maitasunerako beti zabalik.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

B

XXV. urtemugan (Zidarrezko ezteguak)

Otoitza

Jainko Jauna, I. eta I. zure zerbitzari honeek
orain hogeta bost urte
Ezkontzako lokarri etenezinaz alkartu zenduzan,
eta neke eta atseginetan
gogo-batasuna bizitzeko laguntza emon deutsezu;
egizu handiagoa eta garbiagoa euron maitasuna,
alkar santutuz [euren seme-alabekin] poztu daitezan.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa

Onartu, oi Jainko, I. eta I. gure adiskide honeen
Ezkontzako hogeta bosgarren urtemugan
eskerrak emoteko dakartsuguzan oparigaiak;
egizu, sakramentu-iturri honetatik
bakea eta poza atara dagiela ugari.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Jaunartze ondorengoa

Oi Jainko, zeure familiaren mahaian onartu dituzu
I. eta I. senar-emazteak [euren seme-alaba eta adiskideekin];
emoiezu, pozik eta adoretsu alkarregaz bat eginik bizitzea,
Zuri esker, zeruko mahaian ere alkarregaz izan daitezan.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

C

L. urtemugan (Urrezko ezteguak)

Otoitza

Jainko Aita ahalguztiduna,
begitu bihotz onez
euren bizitza luzeko egintza on guztiakaitik
I. eta I. senar-emazte honeei
[baita bizia eta fedea emon deutsiezan seme-alabei be];
eta euron hasierako maitasuna
Ezkontzako sakramentu miragarriaz sendotu zenduan lez,
bedeinkatu egizu orain euron zahartzaro oparoa.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa

Onartu, oi Jainko, I. eta I. gure adiskide honeen
Ezkontzako berrogeta hamargarren urtemugan
eskerrak emoteko dakartsuguzan oparigaiak;
hainbeste urtetan alkarregaz leial bizi izan diranoi
emoiezu orain ugari
eskatzen deutsuen batasunaren eta bakearen zoriona.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Jaunartze ondorengoa

Zure mahaiko janari-edari bikainez aseturik,
eskatzen deutsugu, Jauna,
zaindu daizuzala I. eta I. senar-emazte honeek
zahartzaro santuan,
biak, urtez beterik, zeruko mahaian onartuko dituzun arte.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

12. FAMILIAREN ALDE

Sarrera-ant.

Hartu aintzat aita-amak; horixe da beragaz agintzari bat daroan lehenengo agindua, hau da: luzaroan bizi eta zoriontsu izan zaitezan lurraldean. Ef 6, 2-3

Otoitza

Oi Jainko,
zure antolamentuan dau familiak bere oinarri sendoa;
entzun errukiz zeure zerbitzarion eskariak,
eta egizu, zure Semearen Familia Santuaren
ejenpluari jarraituz,
familia bizitza zintzoa eta alkarregazko maitasuna biziz,
heldu gaitezala zure etxean pozik betiko sariaz gozatzera.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa

Baketzen gaituan opari hau eskeintzean, Jauna,
apal-apal eskatzen deutsugu:
ezarri daizuzala gure familiak sendo zeure grazian eta bakean.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Jaunartze-ant.

Ahaztu ete leiteke ama bere umetxuaz? Ba, ama umeaz ahaztuko balitz ere, Ni ez naz zutaz ahaztuko, dino Jaunak. Is 49, 15

Jaunartze ondorengoa

Aita guztiz ona,
sakramentu honen bidez indarbarritu dituzunek
imitatu dagiezala zure Semearen Familia Santuaren ejenpluak,
lur honetako neke-minen ondoren,
beragaz betiko alkarturik bizi gaitezan.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

13. ERLIJIOSO-ERLIJIOSENTZAT

A

Sarrera-ant.

Izan konfiantza Jaunagan eta egin on dana, bizi lurraldean eta zaindu leialtasuna. Izan bedi Jauna zure atsegina, eta emongo deutsu zure bihotzak eskatzen dauana. Sal 37 [36], 3-4

Otoitza

Oi Jainko,
Zeu zaitugu asmo on guztien sortzaile eta betetzaile;
eroan egizuz zeure seme [alaba] honeek
betiko salbazinoaren bidetik,
eta egizu,
gauza guztiak itzi eta osorik Zeuri eskeini jatzuzan ezkero
Kristori jarraituz eta munduko diranei uko eginez,
izan daitezala Zuretzat eta euren senideentzat zerbitzari leial,
pobretasun-espirituz eta bihotz-apaltasunez.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa

Eskeintza honen bidez santu egizuz, Jauna,
zeure izenean alkartu dituzun zerbitzari honeek;
Zuri emondako hitza leial betez,
Zu, Jainko handi hori, bihotz zintzoz zerbidu zagiezan.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Jaunartze-ant.

Jaunaren aingeruak esan eutson Eliasi: Jagi eta jan, bide luzea dozu-eta oraindino. Ik. 1 Erg 19, 7

Edo:

Espirituak eta emazteak dinoe: Zatoz! Amen. Zatoz, Jesus Jauna! Ap 22, 17a.20

Jaunartze ondorengoa

Zeure maitasunean alkartu dituzu, Jauna,
eta mahai berean janaritu zeure zerbitzariak;
egizu, eragin deioela batak besteari bihotz batez
alkar maitatzera eta egintza onak egitera,
euren biziera santuaz
agertu daitezan edonon Kristoren egiazko testigu.
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

B

Profesino erlijiosoko XXV. nahiz L. Urtemugan

Sarrera-ant. Hemen nozu, Jauna, zure nahia egiteko. Atsegin dot, ene Jainko: barru-muinetan dot zure legea. Ik. Sal 40 [39], 8-9

Otoitza

Jauna, Jainko leiala,
I. gure senide honek gaur bere profesino erlijiosoaren
[zidarrezko] urrezko ezteguak ospatzean,
Zeugandik hartutako dohaia barritu nahi dau;
eskerrak emoten deutsuguz honegaz hain ona izan zaralako,
eta eskari hau egiten:
sendotu daizula honengan maitasun betearen espiritua,
egunetik egunera zure aintzaren
eta gizon-emakumeen salbazinoaren
zerbitzari sutsuagoa izan dadin.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa

Gure dohai honeekin batera onartu, Jauna,
I. gure senideak gaur baieztatu nahi dauan
bere buruaren eskeintza;
eta, Espiritu Santuaren indarrez,
egizu zeure Seme maitearen antzekoago.
Errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Jaunartze-ant. Basahuntza gurari biziz uretara lez, halantxe nire gogoa, ene Jainko, Zugana. Sal 42 [41], 2

Jaunartze ondorengoa

Urteurren hau pozik ospatzean,
zure Semearen Gorputz-Odolak hartu doguz, Jauna;
egizu, I. gure senide honek,
zeruko janari-edari honeekin indarturik,
hasita daukan Zuganako bidean egin dagiala onik aurrera.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

14. BIZITZA ERLIJIOSORAKO BOKAZINODUNAK ESKATZEKO

Sarrera-ant. Guztiz ona izan nahi badozu, zoaz, saldu zeure ondasunak eta emon behartsuei, eta jarraitu Niri, dino Jaunak. Ik. Mt 19, 21

Otoitza

Aita guztiz santua,
fededun guztiei dei egiten deutsezu maitasun betera;
halan ere, askori eragiten deutsazu
zure Semearen pausuei era estuagoan jarraitzera;
egizu, berariazko bokazinoaz Zeuretzat bereiztu dituzunak
izan daitezala, euren bizieraz,
munduarentzat eta Eleizearentzat
zure erreinuaren ezaugarri argi.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Edo abade erlijiosoak berak esateko:

Begira, Jauna, bihotz onez gure familia honi
eta ugaritu egizu beti lagun barriz;
egizu, eroan dagizala bere alkartekideak
maitasun betearen asmoa gauzatzera
eta ahalegindu dadila eraginkor
gizon-emakume guztien salbazinoa burutzen.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa

Hartu bihotz onez, Aita guztiz santua, gure eskeintzak;
eta zure Semeari bide estutik jarraitzeko asmoa
pozik hartu dabenei
emoiezu senide arteko batasuna eta bihotzeko askatasuna.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Jaunartze-ant. Benetan dinotsuet: gauza guztiak itzi eta Nigaz etorri zarienok ehun halako hartuko dozue eta betiko bizia jasoko ondare, dino Jaunak.
Ik. Mt 19, 27.28.29

Jaunartze ondorengoa

Sendotu egizuz, Jauna, zeure zerbitzariak
espirituzko janariz eta edariz;
egizu, Ebanjelioaren deiari leial jarraituz,
izan daitezala edonon zure Semearen irudi bizi.
Errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Edo abade erlijiosoak berak esateko:

Sakramentu honen indarrez, emoiguzu, Jauna,
beti zure nahiaren zerbitzuan irautea;
izan gaitezala munduaren aurrean zure maitasunaren testigu
eta galtzen ez diran ondasunak bakarrik
bilatu daiguzala gartsu.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

15. ALKARTASUNA SUSTATZEKO

Sarrera-ant. Sinistedun guztiak bat ziran bihotzez eta gogoz; Apostoluek agin-pide handiz egiten eben Jesus Jaunaren biztueraren autormena, eta jenteak oso estimatuak ebazan guztiak, aleluia. Eg 4, 32.33

Otoitza

Batasun betea eta maitasun egiazkoa zaran Jainkoa,
emoiezu fededunei bihotzez eta gogoz bat izatea,
zure Eleizea alkartasunean bizi dadin
eta, egiaren autormenean oinarriturik,
batasunean sendo iraun dagian.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Edo:

Oi Jainko, Zeuk irakatsi deutsazu Eleizeari
Zeu eta lagun hurkoa maitatzea dala
zerutar aginduak betetzea;
emoiguzu bake- eta grazi espiritua,
eta egizu, fededunen familia osoa
bizi dadila bihotz guztiz Zugazko zaletasunean
eta borondate garbiz bat egina.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa

Zeure irakaspenez eta sakramentuez
Zeure irudira barritzen gaituzun Jainkoa,
zuzendu egizuz gure pausuak, errukiturik, zeure bideetatik,
eta, sakrifizio honi esker,
egizu, lortu daigula Zuk agindutako maitasunaren dohaia.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Prefazioa, Kristauen batasunekoa, 1163. or.

Jaunartze-ant. Aita, Nigan sinistuko dabenen alde dot erregutzen, eurak ere bat izan daitezan gugaz, munduak sinistu dagian Zeuk bialdu nozula, dino Jaunak. Ik. Jn 17, 20.21

Jaunartze ondorengoa

Batasunaren sakramentua hartu dogu, Jauna;
apalik eskatzen deutsugu,
zure etxean bihotz-batasun santuan bizi garanok
izan daigula alkarri emoten deutsagun bakea
eta zaindu daigula hartzen dogun bakea.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

16. BAKETZEAREN ALDE

Meza honetan kako artean emoten diranak penitentzialdi berezietan esango dira.

Sarrera-ant. Neu naz herriaren salbamena, dino Jaunak; edozein estualditan dei egiten badeuste, entzungo deutset, eta euren Jainko izango nabe betiko.

Otoitza Jainko errukior eta baketzailea,
salbazino-egun bereziak emoten deutsezuz gizon-emakumeei,
Zeu autortu zagiezan guztien egile eta Aita;
[atsegingarri jatzun sasoi honetan]
emoiguzu bihotz onez zeure laguntza,
bake-deia Zugandik gogotsu entzunez,
gauza guztiak Kristogan eraikitzeko dozun borondatea
bete ahal izan daigun.
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Edo, batez ere Pazkoaldian:

Egiazko askatasunaren egile zaran Jainkoa,
gizon-emakume guztiek
menpetasunetik askatutako herri bakarra egitea nahi dozu
[eta grazi eta bedeinazino-aldi hau emoten deuskuzu];
egizu, zure Eleizea, gero eta askeago izanik,
agertu dadila biziro mundu osoarentzat salbazino-sakramentu,
eta erakutsi dagiala gizakien artean
maitasunaren misterioa eta bere betera eroan.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa Izan gogoan, Jauna,
bere odolaz garbitu ebala munduko pekatua
gure bakea eta adiskidetzea dan zure Semeak;
eta, zure Eleizearen dohaiak bihotz errukitsuz onarturik,
egizu, [aldi honetako grazia pozik ospatzen dihardugunok]
zabaldu daigula guztiengana Kristoren askatasuna.
Errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Adiskidetzeari buruzko Eukaristi Otoitz bietako edozein hartu leiteke, 675. or. nahiz 682. or.

Jaunartze-ant. Zatoze Nigana nekatu eta zamatu guztiok, eta Neuk arinduko zaituet, dino Jaunak. Mt 11, 28

Edo:

Eskatu eta hartuko dozue, zuen poza bete-betea izan dadin, dino Jaunak. Jn 16, 24

Jaunartze ondorengoa

Hartu dogun zure Semearen sakramentuak
gehitu dagizala, Jauna, gure indarrak,
eta batasunaren misterio honetatik
atara daigula maitasun sendoa
eta izan gaitezala alde guztietan Zugandiko bakearen egile.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

17. KRISTAUEN BATASUNA ESKATZEKO

Meza hau kristauen batasuna eskatzeko ospakizun bereziak egiten diranean erabili leiteke, beti be Abendualdiko, Garizumako nahiz Pazkoaldiko domekea edo festaburua izan ezean.

A

Sarrera-ant. Neu naz artzain ona, dino Jaunak; ezagutzen ditut neure ardiak, eta neureek ezagutzen nabe Ni, Aitak Ni ezagutzen nauan eta Nik Aita ezagutzen dodan lez; Nik neure bizia emoten dot ardien alde. Jn 10, 14-15

Otoitza

Jainko ahalguztidun betikoa,
batu egiten dozu sakabanatuta dagoana,
eta batutakoa zaintzen;
begira bihotz onez zeure Semearen artaldeari,
Bateo berak santu egin dituanak
egiazko sinismenak bat egin dagizan
eta maitasunaren lokarriak alkartu.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Edo:

Gizon-emakumeak maite dituzun Jauna,
otoitz egiten deutsugu ahuspez:
isuri gugana bihotz onez eta era beteagoan
zeure Espirituaren grazia;
egizu, Zuk guri egindako deiari behar dan lez jarraiturik,
agertu gaitezala egiaren testigu gizakien aurrean
eta bilatu daigula uste osoz
sinistedun guztien arteko batasuna
benetako bakearen lokarriz.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa

Kristoren opari bakarraren bidez, Jauna,
zeure seme-alaben herri egin gaituzu;
emoiozu, bihotz onez, zeure Eleizeari batasuna eta bakea.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Prefazioa

Kristoren Gorputza dan Eleizaren batasuna

℣. Jauna zuekin.
℟. Eta zure espirituarekin.

℣. Gora bihotzak.
℟. Jaunagan daukaguz.

℣. Eskerrak Jaungoiko gure Jaunari.
℟. Egoki da eta zuzen.

Egoki da, bai, eta zuzen,
bidezko eta salbagarri,
nonahi eta beti guk Zuri eskerrak emotea,
Jauna, Aita guztiz santu,
Jainko ahalguztidun betiko horri,
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Honen bidez ekarri gaituzu zeure egia ezagutzera,
fede beraren eta Bateo beraren bitartez
Kristoren gorputz eginak izan gaitezan;
honen bidez isuri dozu herrialde guztietan
zeure Espiritu Santua,
era askotako dohaien emoile miragarria
eta batasunaren egilea,
zure seme-alaba ordekoengan bizi dana
eta Eleiza osoa betetzen eta zuzentzen dauana.

Horregaitik, aingeru-taldeekin batean,
goresten zaitugu,
pozez beterik [esaten] kantatzen dogula:

Santu, Santu, Santua...




beti guk Zuri eskerrak e-mo-te-a, Jauna, Aita guz-tiz san-tu, Jainko
ahalguztidun betiko ho-rri, Jesu Kristo gure Jau-na-ren bi-tar-tez.
Honen bi-dez ekarri gaituzu zeure egia eza-gu-tze-ra, fede
beraren eta Bateo beraren bi-tar-tez Kristoren gorputz egi-nak
i-zan gai-te-zan; honen bi-dez isuri dozu herrialde guztietan
zeure Espiritu San-tu-a, era askotako dohaien emoile miragarria
eta batasunaren e-gi-le-a, zure seme–alaba ordekoengan bizi
da-na eta Eleiza osoa betetzen eta zu-zen-tzen dau-a-na.
Horregai-tik, aingeru–taldeekin ba-te-ra, goresten zai-tu-gu,
pozez beterik kan-ta-tzen do-gu-la:

Jaunartze-ant. Ogia bat danez, guztiok gorputz bat gara, ogi bakarretik eta kaliza beretik hartzen dogu-eta danok. Ik. 1 Ko 10, 17

Jaunartze ondorengoa

Jauna, hartu dogun sakramentuak
fededunok Zugaz bat garala adierazoten dauan lez,
egin dagiala Eleizearen batasuna.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

B

Sarrera-ant. Salbatu gaizuz, Jauna, gure Jainkoa, batu gaizuz nazinoen artetik, zure izen santuari eskerrak emon eta zure gorespena harro abestu daigun. Sal 106 [105], 47

Otoitza

Era askotako herriak
zeure izenaren autormenean bat egin dituzun Jainkoa,
emoiguzu zeure aginduak bete nahi izatea
eta bete ahal izatea,
zure erreinura deitutako herriak
fede bera izan dagian gogoan eta maitasun bera egintzetan.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Edo:

Bihotz onez entzun, Jauna, zeure herriaren otoitzak;
egizu, fededunen bihotzek bat egin dagiela
Zeu goresten eta alkarregaz penitentzia egiten,
kristauen arteko haustura gainditurik,
Eleizearen batasun betean
betiko zure erreinurako bidean pozik lehiatu gaitezan.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa

Gure salbazinoaren oroigarria ospatzean,
apalik eskatzen deutsugu, Jauna:
izan dakigula zure errukiaren sakramentu hau
batasunaren ezaugarri eta maitasunezko lokarri.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Prefazioa, A Mezakoa, 1163. or.

Jaunartze-ant. Guztien gainetik, izan maitasuna, horixe da-eta alkartasun betearen lokarria; eta Kristoren bakeak agindu begi zuen bihotzean, bake horretara deituak zarien ezkero gorputz baten. Kol 3, 14-15

Jaunartze ondorengoa

Isuri gugana, Jauna, zeure maitasun-espiritua,
eta, sakrifizio honen indarrez,
bat egin gaizuz maitasunean Zugan sinisten dogunok.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

C

Sarrera-ant. Bat bakarra da gorputza eta bat bakarra Espiritua, Jainkoak egin deutsuen deiari dagokion itxaropena ere bat bakarra dan lez. Bat bakarra Jauna, bat bakarra sinismena, bat bakarra Bateoa; bat bakarra guztien Jainkoa eta Aita, guztien gainetik dagoana, guztien bidez diharduana eta guztiengan bizi dana. Ef 4, 4-6

Otoitza

Begira begi onez, Jauna, zeure herriari,
eta isuri beronengana onberatasunez
zeure Espirituaren dohaiak,
egia gero eta maiteago izan dagian
eta, gogoz eta egitez, kristauen batasun betea bilatu dagian.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Edo:

Erakutsi eiguzu, Jauna, zeure errukiaren oparotasuna
eta kendu, zeure Espirituaren indarrez,
kristauen arteko banakuntzak,
nabariago agertu dadin zure Eleizea
herrien argitzat jarritako ezaugarri lez,
eta munduak, zure Espirituak argiturik, sinistu dagian
Zuk bialdu dozun Kristorengan.
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa

Eskeintzen deutsugun opariak, Jauna, garbitu gaizala
eta eroan Bateo berak bat egin gaituan guztiok
azkenean misterio berean parte hartzera.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Prefazioa, A Mezakoa, 1163. or.

Jaunartze-ant.

Egizu guztiak bat izan daitezala; Aita, Zu Nigaz eta Ni Zugaz biok bat garan lez, honeek be bat izan daitezala Gugaz: Ni eurokin bat eta Zu Nigaz bat; holan guztiz bat izango dira. Jn 17, 21.23

Jaunartze ondorengoa

Kristoren sakramentuak harturik, Jauna,
otoitz egiten deutsugu:
barritu egizu Eleizan Zeuk emondako santutasun-grazia;
eta egizu, kristau izena eroateaz pozten diran guztiek
zerbidu zagiezala fede berean bat eginik.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

18. HERRIEN EBANJELIZAZINOA ESKATZEKO

Meza hau misinoen aldeko ospakizun bereziak egiten diranean erabili leiteke, baita Urtean Zeharreko domeketan be, ez ostera Abendualdi, Garizuma nahiz Pazkoaldiko domeka edo festaburu bat danean.

A

Sarrera-ant.

Erruki bekigu Jainkoa eta bedeinkatu gaizala, agertu deigula aurpegi argia, ezagutu dagien munduan zure bidea, nazino guztietan Zugandiko salbazinoa. Sal 67 [66], 2-3

Otoitza

Oi Jainko,
gizon-emakume guztiak salbatzea nahi dozu
eta egia ezagutzera heltzea;
begira zein ugaria dan zure uzta,
eta bialdu bihotz onez langileak uzta hori batzera,
izaki guztiei zure Barri Ona iragarri deieen
eta zure herriak,
biziaren hitzak alkarturik eta sakramentuen indarrak eutsirik,
aurrera egin dagian salbazino- eta maitasun-bidean.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Edo:

Oi Jainko,
zeure Semea bialdu dozu mundura egiazko argitzat;
isuri agindutako Espiritu Santua,
gizon-emakumeen bihotzean egiaren hazia erein
eta fedearen autormena eragin dagian;
eta egizu, guztiek, Bateoaren bidez bizi barrira jaiorik,
lortu dagiela zure herri bakarrean sartzea.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa

Begira, Jauna,
bere burua guztion salbazinorako emon eban zeure Kristori;
egizu, eguzki alde batetik besteraino,
zure izena goratu dagiela herri guztietan,
eta Zuri, Jaun handi horri,
eskeini deizuela opari garbia alde guztietan.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Jaunartze-ant.

Irakatsi herri guztiei Nik agindu deutsuedan guztia betetzen, dino Jaunak. Ni zeuokaz izango nozue egunero munduaren azkenera arte.

Ik. Mt 28, 20

Jaunartze ondorengoa

Indarbarritu egin gaituzu, Jauna,
gure erospeneko sakramentuaren bidez;
egizu, betiko salbazinoaren janari honi esker,
egin daigula beti aurrera egiazko fedean.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

B

Sarrera-ant.

Zabaldu Jaunaren ospea nazinoetan, haren mirariak herri guztietan.
Handia da-eta Jauna, guztiz goresgarria. Sal 96 [95], 3-4

Otoitza

Oi Jainko,
salbazino-sakramentu egin dozu zeure Eleizea
herri guztientzat,
Kristoren egintza salbagarriak
gizaldien azkenera arte iraun dagian;
biztu zeure fededunon bihotza,
eta egizu, argiago sentidu daigula
mundu guztiari salbazinoa iragartzeko
zuzendu deuskuzun dei bizia,
herri guztiekin familia bat bakarra
eta herri bat bakarra sortu dadin eta ugaritu Zuretzat.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa

Atseginez onartu zenduan, Jauna,
zure Semeak mundu osoaren salbamenerako
eskeini eban nekaldi ospetsua;
igon begi Zugana, Jaun handi horrengana,
zuri otoitzean diharduan Eleizearen eskeintza honek be.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Jaunartze-ant.

Goratu egizue Jauna, nazino guztiok, goratu egizue, herri guztiok.
Sendoa da-eta guretzat haren maitasuna, beti-betikoa Jaunaren leialtasuna. Sal 117 [116], 1-2

Edo:

Zoaze mundu guztira eta iragarri Barri Ona izaki guztiei, dino Jaunak. Mk 16, 15

Jaunartze ondorengoa

Zure mahaian parte hartzeak santu egin gaizala, Jauna;
eta, salbazinoaren sakramentu dan Eleizeari esker,
onartu dagiela atseginez herri guztiek
zure Semeak kurutzean burututako salbamena.
Errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

19. ERASOPEAN BIZI DIRAN KRISTAUENTZAT

Sarrera-ant.

Izan gogoan, Jauna, zeure ituna, ez ahaztu betiko zeure gizajoen biziaz; jagi zaitez, Jauna, defendatu zeure auzia, ez ahaztu zure arerioen oihuez. Ik. Sal 74 [73], 20.19.22.23

Edo:

Pedro kartzelan zainduta euken bitartean, eleiz alkarteak eten barik ziharduan Jainkoari otoitzean haren alde. Eg 12, 5

Otoitza

Oi Jainko, zure asmo isilgordean,
Eleizeak zure Semearen nekaldian bat egitea nahi dozu;
emoiezu pazientzia eta maitasun-espiritua
zure izenagaitik estualdian aurkitzen diran fededunei,
zure agintzarien autorle leial eta sinisgarri dirala agertu dadin.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa

Onartu, Jauna, gure otoitz eta emoitza apalak;
eta egizu, zure zerbitzuan leial jokatzeagaitik
gizakien erasoaldiak jasaten dituenak
poztu daitezala
Kristo zure Semearen sakrifizioan parte izateaz
eta euren izenak zeruko santuen artean
idatzita dagozala jakiteaz.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Jaunartze-ant. Zorionekoak zuok, Nigaitik madarikatuko eta erasoka erabiliko zaitueenean, dino Jaunak; poztu zaiteze eta alaitu, handia izango da-eta zuen saria zeruetan. Mt 5, 11-12

Edo:

Jentearen aurrean autortzen nauana, autortuko dot Neuk ere zeruko neure Aitaren aurrean, dino Jaunak. Mt 10, 32

Jaunartze ondorengoa

Sakramentu honen indarrez, Jauna,
sendotu egizuz egian zeure zerbitzariak,
eta egizu, zure Semeari jarraituz kurutzea daroela
larrialdian aurkitzen diranak
poztu daitezala eten barik kristau-izenaz atsekabeen artean.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

20. BATZAR ESPIRITUALA NAHIZ PASTORALA DANERAKO

Sarrera-ant. Nire izenean bi edo hiru lagun batuta dagozan tokian, hantxe nago Ni euren artean, dino Jaunak. Mt 18, 20

Edo:

Guztien gainetik, izan maitasuna, horixe da-eta alkartasun betearen lokarria; eta Kristoren bakeak agindu begi zuen bihotzean, bake horretara deituak zarien ezkero gorputz baten. Kol 3, 14-15

Otoitza Emoiguzu, Jauna, jakintza-espiritua,
eta egiaren eta bakearen espiritua,
zure nahia bihotz osoz ezagutu daigun
eta, hori jakinik, danok gogo batez bete daigun.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Edo:

Oi Jainko, zure Semeak agindu deusku
haren izenean baturik dagozanen artean
hantxe izango dala bera;
egizu, sentidu daigula geure artean
eta somatu daigula geure bihotzean
haren grazia, errukia eta bakea, egian eta maitasunean.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa

Begira, Jauna, bihozbera zure zerbitzarion eskeintzari;
eta egizu, zure begien aurrean zuzen eta salbagarri dana
benetan ezagutu daigula eta uste osoz iragarri.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Prefazioa: Espiritu Santuaren II.a, 511. or.

Jaunartze-ant. Egiazko maitasuna non, hantxe Jainkoa. Batasunean alkartu gaitu Kristoren maitasunak.

Jaunartze ondorengoa

Egizu, Jainko errukitsua,
hartu doguzan janari-edari santuek
sendotu gagiezala zure nahian
eta egiaren lekuko egin alde guztietan.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

II. GIZARTEKO EGOERA BATZUETARAKO

21. ABERRIAREN NAHIZ HERRIAREN ALDE

Otoitza Oi Jainko,
jakituria harrigarriz antolatu dituzu gauza guztiak;
onartu geure herriarentzat egiten gagozan otoitzak;
agintariek zuhurtasunez eta herritarrek zintzo jokaturik,
alkartasuna eta zuzenbidea sendotu daitezan gure artean
eta oparotasuna izan daigun beti bakeagaz batera.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

22. HERRI AGINTARIENTZAT

Otoitza Jainko ahalguztidun betikoa,
zeure eskuetan dozuz
gizon-emakumeon bihotza eta herrien eskubideak;
begira begi onez gure herri-agintariei,
Zeuk emonik munduko alde guztietan indartu daitezan
herrien ongizatea, bake iraunkorra eta erlijino-askatasuna.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

23. NAZINOARTEKO AGINTARIEN BATZARRA DANERAKO

Otoitza Oi Jainko,
jakituriaz antolatzen dituzu gauza guztiak
eta miragarriro zuzentzen;
begira begi onez
batzarrean baturik dagozan nazinoarteko agintariei,
eta emoiezu onberatasunez zeure jakituriaren espiritua,
euren erabagiak danen onerako eta bakerako hartu dagiezan,
eta inoiz be ez daitezan zure nahiaren bidetik aldendu.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

24. GOBERNUBURUARENTZAT NAHIZ ERREGEARENTZAT

Otoitza Oi Jainko,
zure zerbitzura dagoz giza agintaritza guztiak;
emoiozu I. [gure erregeari] zure zerbitzariari,
emoitza onak izatea bere agintaritzan,
Zuganako begirune santuan bizi izanez
eta zure gogoko izaten ahaleginduz,
askatasunean zaindu eta zerbidu dagian beti
bere ardurapean dauan herria.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

25. URTE BARRIAREN HASIERAN

Meza hau ezin da erabili Jainkoaren Ama Mariaren festaburuan, urtarrilaren 1ean.

Sarrera-ant. Zeure ondasunez burutzen dozu urtea, oparotasuna dariela dagoz zure bideak. Ik. Sal 65 [64], 12

Edo:

Ni zeuekin izango nozue egunero, dino Jaunak, munduaren azkenera arte. Mt 28, 20b

Otoitza

Oi Jainko, hasierarik eta azkenik bakoa
eta diran guztien sorburu zarana,
egizu, urte barriaren hasiera eskeintzen deutsugunok
ugari izan daiguzala lurreko ondasunak urte guztian
eta, egintza santuen bidez,
izan gaitezala munduaren argi.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa

Atsegin bekizu, Jauna, eskeintzen deutsugun sakrifizio hau,
urte honen hasierea pozez ospatzen dogunok
urte osoa zure maitasunean igaro daigun.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Jaunartze-ant. Jesu Kristo bat bera da atzo, gaur eta beti. Heb 13, 8

Jaunartze ondorengoa

Zatoz, Jauna,
sakramentu hau hartu dauan herriari laguntzera,
eta, gure uste on osoa beti zure babespean jarri dogun ezkero,
zaindu gaizuz urte honetan arrisku guztietatik.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

26. GIZAKIAREN LANA SANTUTZEKO

A

Sarrera-ant. Hasieran Jainkoak zeru-lurrak egin ebazan. Eta Jainkoak bere irudiko egin eban gizakia. Eta egindako guztia ikusi eban Jainkoak, eta oso ona zan. Has 1, 1.27.31

Edo:

Betor gugana, Jauna, zure gozotasuna, eta sendotu egizu gure eskuen lana. Ik. Sal 90 [89], 17

Otoitza Gauza guztien egile zaran Jainkoa,
lan egiteko legea emon deutsazu gizakiari;
egizu, hasi dogun lana izan dadila
bizitza honi aurrera eragiteko
eta, zure bihotz onari esker,
balia dakigula Kristoren erreinua zabaltzeko.
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Edo:

Oi Jainko, gizakiaren lanaren bidez
edertzen eta gidatzen diharduzu eten barik
kreazino-lan miresgarria;
entzun otoitzean diharduan zure herri honen eskariak
eta egizu izan dagiela lana gizon-emakume guztiek,
modu onean eta alkartuago bizi ahal izan daitezan
anai-arrebak zerbiduz.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Beste otoitz batzuk, 1178. or.

Oparigaien gainekoa

Oi Jainko, orain eskeintzen deutsuguzan dohaietan
bizitza honetarako janaria
eta bizi barriaren sakramentua emoten deutsazuz gizadiari;
egizu, gure gorputz-arimak ez daitezala inoiz ere
laguntza horreek barik aurkitu.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Prefazioa: Urtean Zeharreko domeketako V.a, 507. or.

Jaunartze-ant.

Edozer esaten nahiz egiten dozuela, egizue dana Jesu Kristo Jaunaren izenean, beraren bidez Jainko Aitari eskerrak emonez.

Kol 3, 17

Jaunartze ondorengoa

Batasunaren eta maitasunaren mahaian parte harturik, Jauna,
zure bihotz onari eskatzen deutsagu:
egiteko emon deuskuzun lanaren bidez
lortu daigula bai eguneroko bizibidea ataratzea
bai, fede biziz jokatuz eta Zugan uste osoa izanik,
zure erregetza eraikitzea.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

B

Beste otoitz batzuk

Otoitza

Oi Jainko,
gizakiaren lanaren menpean jarri dituzu izadiaren indarrak;
egizu, arren, gure lanetan kristinau lez jokatuz,
bizi daigula egiaz anai-arrebenganako maitasuna
eta egin daigula lan alkartasun-giroan,
Zeuk sortutako mundu hau bere osotasunera eroan daigun.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa

Onartu, Jauna, zuri otoitzean diharduan Eleizearen emoitzak;
egizu, Zuri eskeintzen deutsugun giza lanaren bidez
lortu daigula Kristo salbatzailearen egintzan parte hartzea.
Errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Jaunartze ondorengoa

Betiko sakramentuen bidez bizibarritzen dituzunei
emoiezu, Jauna, lur honetako gauzen laguntza ere.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

27. EREITE AROAN

A

Sarrera-ant.

Betor gugana, Jauna, zure gozotasuna, eta sendotu egizu gure eskuen lana. Ik. Sal 90 [89], 17

Otoitza

Oi Jainko, Zeuk lagundurik ereiten dogu hazia lurrean,
zure indarrak emonkor egin dagian;
ernetzea eta haztea Zeuk bakarrik emon zeinkean ezkero,
emoiguzu oparo guk geure ahaleginez lortu ezin doguna.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Beste otoitz batzuk, 1180. or.

Oparigaien gainekoa

Oi Jainko,
Zeu zara lurreko frutuen egiazko sortzailea
eta espirituzko dohaien nekazari nagusia;
egizu emonkor gure lana,
lurreko uzta ugaria batu daigun,
eta, ondasun guztiak zure ardurari zor deutsaguzan ezkero,
Zeu goresteko erabili daiguzala beti.
Jesu kristo gure Jaunaren bitartez.

Prefazioa: Urtean Zeharreko domeketako V.a, 507. or.

Jaunartze-ant.

Jaunak emongo dau euria, eta gure lurrak ekarriko bere uzta. Sal 85 [84], 13

Jaunartze ondorengoa

Zeure sakramentuez indarbarritu gaituzun, Jauna,
zatorkiguz geure lanean laguntzera;
eta bizitzea, mugitzea eta izatea Zeugan dogun ezkero,
bedeinkatu egizu guk ereindako hazia,
gure janarirako uzta ugaria emon deigun.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

B

Beste otoitz batzuk

Otoitza

Jainko Jauna,
isuri egizu onbera zeure bedeinkazinoa
zeure herriaren gainera;
eta egizu, gure lurrak, Zeuk eragindako emonkortasunez,
ekarri dagiala uzta ugari,
eta gozatu daigula haregaz beti esker onez,
zure izen santua goresteko.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa

Begira begi onez, Jauna, gure emoitza honeei;
gari-garauez egindako ogia dakartsugu,
zure Semearen Gorputz bihurtu dadin;
egizu, lurrean ereindako hazia,
zure bedeinkazinoz, poz-iturri izan dakigula.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Jaunartze ondorengoa

Jainko ahalguztiduna,
emoiguzu ugari zeure fededunoi lurraren frutua,
haregaz egunero janariturik,
espirituzko bizitzan ere aurrera egin daigun;
eta egizu, sakramentu honetan
zeruko ondasunen ezaugarria hartu dogunok
lortu daiguzala betiko ondasunak.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

28. UZTA BATU ONDOREN

Sarrera-ant. Lurrak bere uzta emon dau, Jainkoak, gure Jainkoak, bedeinkatzen gaitu. Sal 67 [66], 7

Otoitza Jauna, Aita guztiz ona, zeure ardureak eraginda
gizakiaren esku itzi dozu lurra;
egizu, bizi gaitezala lurrak emondako frutuez
eta, Zeuk lagundurik, balia gaitezala beti horreetaz
Zeu goresteko eta gizon-emakume guztien onerako.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Edo:

Eskerrak emoten deutsuguz, Jauna,
lurrak gizadiaren onerako ekarri dituan frutuakaitik;
egizu, zure bihotz onak
lurretik frutu horreek sortu dituan lez,
sortu dagizula gure bihotzean
zuzentasun-hazia eta maitasun-frutua.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa Santu egin, Jauna,
lurrak sortutako frutuetatik
esker onez ekarri deutsuguzan emoitzak;
eta, lurra frutuz emonkor egin deuskuzun lez,
egizuz gure gogo-bihotzak ere emonkor zerutar frutuz.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Prefazioa: Urtean Zeharreko domeketako V.a, 507. or.

Jaunartze-ant. Zeure biltegietako emoitzez dozu, Jauna, lurra asetzen, lurretik ogia eta gizakiaren bihotza alaitzen dauan ardaoa ataratzeko.
Ik. Sal 104 [103], 13-15

Jaunartze ondorengoa

Misterio salbagarri hau ospatzean
eskerrak emoten deutsuguz, Jauna,
lurretik jaso doguzan frutuakaitik;
egizu, misterio horreen eraginez,
lortu daiguzala ondasun hobeak.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

29. HERRIEN AURRERABIDERAKO

Sarrera-ant.

Norbaitek lurreko ondasunak izan eta, senidea beharrizanean ikusirik, bihotza ixten badeutso, zelan iraungo dau harengan Jainkoaren maitasunak? 1 Jn 3, 17

Otoitza

Oi Jainko,
jatorri beretik sortu dituzu herri guztiak,
eta familia berean batu nahi izan dituzu danak Zeugan;
bete egizu danen bihotza zeure maitasun sutsuaz,
eta biztu eurengan aurrerabide zuzena lortzeko gogo beroa
senideen onerako;
egizu, Zuk danentzat
eskuzabal emoten dituzun ondasunez baliaturik,
heldu dadila bere betera gizon eta emakume bakotxa;
eta, zatiketa guztiak bazterturik,
parekotasuna eta zuzentasuna sendotu daitezala gizartean.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa

Hartu bihotz onez, Jauna, zuri deika dihardugunon eskariak;
eta, zure Eleizearen emoitza onarturik,
egizu, bete daitezala zure seme-alaben espirituaz
gizon-emakume guztiak,
euren arteko ezberdintasunak maitasunez gainditurik,
herri guztiek familia bat egin dagien zure bakean.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Jaunartze-ant. Zeure biltegietako emoitzez dozu, Jauna, lurra asetzen, lurretik ogia eta gizakiaren bihotza alaitzen dauan ardaoa ataratzeko.
Ik. Sal 104 [103], 13-15

Edo:

Eskatu, eta emongo deutsue Jainkoak; bilatu, eta aurkituko dozue; jo atea, eta zabalduko deutsue, dino Jaunak. Lk 11, 9

Jaunartze ondorengoa Giza familia eten barik barritzen dauan ogi beraz aseturik,
otoitz egiten deutsugu, Jauna:
batasunaren sakramentu honetan parte hartu dogunok
lortu daigula egiazko maitasun garbia eta eraginkorra,
aurrerabidea lortu nahi daben herriei laguntzeko,
eta, maitasun horrek eraginda,
zuzentasuna bere betera eroateko.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

30. BAKEAREN ETA ZUZENTASUNAREN ALDE

Meza hau ezin da erabili Jainkoaren Ama Mariaren festaburuan, urtarrilaren 1ean.
Erabili daiteke Alkartasuna Sendotzeko Mezea be, 1159. or.

A

Sarrera-ant. Emon bakea, Jauna, Zugan itxaron dabenei, entzun zeure zerbitzarion eskariak, eta eroan gaizuz zuzentasunaren bidetik.
Ik. Si 36, l8-19

Otoitza Oi Jainko, Zeuk esana da
bakegileak zure seme-alaba izango dirala;
egizu, eraiki daigula ahalegin guztiz
egiazko bake sendoa ekarri leiken zuzentasun bakarra.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Edo:

Oi Jainko,
aita-arduraz zaintzen dituzu gauza guztiak
eta jatorri bera emon deutsezu gizakiei;
egizu onez, eratu dagiela bakean familia bakarra
eta bat izan daitezala beti egiaz.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Beste otoitz batzuk, 1185. or.

Oparigaien gainekoa

Errege bakegilea dan zure Semearen sakrifizio salbagarria
eskeintzen deutsugu, Jauna,
bakea eta batasuna adierazoten daben
sakramentu-ezaugarri honeen bidez;
balia dakigula
zure seme-alaba guztien arteko alkartasuna sendotzeko.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Jaunartze-ant.

Zorionekoak bakegileak, Jainkoaren seme-alaba izango dira-eta. Mt 5, 9

Edo:

Bakea izten deutsuet, neure bakea emoten, dino Jaunak. Jn 14, 27

Jaunartze ondorengoa

Emoiguzu, Jauna, maitasun-espiritua,
zure Semearen Gorputz-Odolez janariturik,
berak itzi euskun bakea
guztien artean indartzen ahalegindu gaitezan.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

B

Beste otoitz batzuk bakearen alde

Otoitza Oi Jainko, Zeu zaitugu munduaren egilea
eta zure ardurapean jazotzen dira
munduko gorabehera guztiak;
entzun bihotz onez gure otoitzak,
eta emoiguzu bakean nasai bizitzea geure egunotan,
zure errukiaren gorespena kantatzen
etenbako poza izan daigun.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Edo:

Jainko baketsua eta bakea bera zaran Jauna,
bihotz hasarrekorrak ezin somatu zaikez,
indarkeriazaleak ez zaitu onartzen;
egizu, adiskide diranek iraun dagiela onean,
eta hasarre dagozanak, txarraz ahazturik, adiskidetu daitezala.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

31. GERRATEAN NAHIZ IRAULTZALDIAN

Sarrera-ant. Hauxe dino Jaunak: Zuen zoriona da nire egitasmoa, ez zuen zoritxarra; Niri dei egitean, entzungo deutsuet; eta jaurti zinduedazan toki guztietatik batuko zaituet. Ik. Jr 29, 11-12.14

Edo:

Herio-olatuek inguratu ninduen, Herio-leizeko lokarriek ninduen lotu, neure larrialdian dei egin neutsan Jaunari, eta entzun eban bere tenplutik nire oihua. Ik. Sal 18 [17], 5-7

Otoitza Jainko errukior eta indartsua,
gerra gatxetsi eta jente harroa makurtuarazoten dozu;
kendu egizuz lehenbailehen gure artetik
gogorkeria eta malkoak,
guztiok benetan zure seme-alaba izatea jaritsi daigun.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Edo:

Oi Jainko,
bakearen egilea eta bakea maite dozuna,
Zu ezagutzea bizitzea da,
Zuri zerbitzu egitea errege izatea;
zaindu gaizuz arerioen eraso guztietatik
Zuri dei egiten deutsugunok,
zure babesean uste osoa izanik,
ezelako arerioren bildur izan ez gaitezan.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa Gogoan izan, Jauna,
bakea bera dan zure Semeak
ezereztu ebala bere odolaz gure gorrotoa;
ikusi errukiz, gure gatxak,
eta egizu,
opari honek ekarri deiela maite dituzun gizon-emakumeei
barriro bakean eta nasai bizitzeko egokiera.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Jaunartze-ant. Bakea izten deutsuet, neure bakea emoten, dino Jaunak; Nik emoten deutsuedan bakea ez da munduarena lakoa. Ez kezkatu, ez bildur izan. Jn 14, 27

Jaunartze ondorengoa

Gizakiaren bihotza indarbarritzen dauan ogi beretik harturik,
otoitz egiten deutsugu, Jauna:
baztertu daiguzala zorionez gerrateko hasarre biziak
eta bete leial zure maitasun- eta zuzentasun-legea.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

32. IHESLARI ETA ERBESTERATUENTZAT

Sarrera-ant.

Bere aingeruei agindu deutse Jainkoak, zu bide guztietan zaintzeko.
Sal 91 [90], 11

Edo:

Hauxe dino Jaunak: Zuen zoriona da nire egitasmoa, ez zuen zoritxarra; Niri dei egitean, entzungo deutsuet; eta jaurti zinduedazan toki guztietatik batuko zaituet. Ik. Jr 29, 11-12.14

Otoitza

Jauna, Zuretzat inor ez da arrotz,
inor ez dago zure babesetik urrun;
begira bihotz onez ihes egin dabenei eta erbesteratuei,
gizon-emakume baztertuei eta ume sakabanatuei;
bihurtu daitezala danak euren aberrira
eta emoiguzu guri bihotz ona
behartsuentzat eta etorkinentzat.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa

Jauna, zure Semeak bere bizia emotea nahi izan zenduan,
sakabanaturik egozan zure seme-alabak alkartzeko;
egizu, opari bakegarri honi esker,
lortu daigula bihotzen batasuna
eta gehitu dadila senide arteko maitasuna.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Jaunartze-ant.

Zu nire babesleku eta gaztelu, ene Jainko, Zeugan dot konfiantza.
Sal 91 [90], 2

Jaunartze ondorengoa

Ogi eta kaliza beretik asetu gaituzu, Jauna;
emoiguzu gizatasuna
etorkinekin eta baztertuekin benetan bihotz onez jokatzeko,
egunen baten danok bizidunen lur barrian
alkartzeko zoriona izan daigun.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

33. GOSETEAN NAHIZ GOSEAK DAGOZANENTZAT

A

Sarrera-ant. Izan gogoan, Jauna, zeure ituna, ez ahaztu betiko zeure gizajoen biziaz. Sal 74 [73], 20.19

Otoitza

Jainko on eta ahalguztiduna,
egin dituzun guztien zaintzaile arduratsua,
emoiguzu egiazko maitasuna
jatekorik ez daben gure senideentzat,
gosetik libraturik,
bihotz handiz eta pozik zerbidu zagiezan.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Beste otoitz batzuk, goseak dagozanek eurek esatekoak, 1189. or.

Oparigaien gainekoa

Onartu, Jauna,
zure emoitzarik onenetatik egiten deutsugun eskeintza
eta egizu, jainkozko bizi aberatsa
eta maitasunezko batasuna adierazoten dauan opari honek
eroan gaizala geure ondasunak zuzen banatzera
eta alkarren arteko senidetasunean bizitzera.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Jaunartze-ant. Zatoze Nigana nekatu eta zamatu guztiok, eta Neuk arinduko zaituet, dino Jaunak. Mt 11, 28

Jaunartze ondorengoa

Jainko Aita ahalguztiduna,
apalik eskatzen deutsugu,
zerutik jatsitako ogi biziak emon deigula indarra
preminan aurkitzen diran gure senideei laguntzeko.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

B

Beste otoitz batzuk, gose diranek eurek esatekoak

Otoitza

Oi Jainko, heriotza ez da Zuk egina,
eta janaria emoten deutsezu Zuk bizidun guztiei;
kendu errukitsu zeure zerbitzarion gosea,
bihotz alaiagoz eta gogo handiagoz zerbidu zaiguzan.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa

Gu pobre izanda be, gogotsu ekarri deutsuguz, Jauna,
emoitza honeek;
apalik eskatzen deutsugu, Aita onbera,
bihurtu daitezala guretzat
zure eskuzabaltasun salbagarriaren hasikin.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Jaunartze ondorengoa

Jauna, zure esku zabaletik hartu dogun zerutar ogi honek
gehitu dagiala gure itxaropena
eta emon deigula lanerako indarra,
bizitzeko behar doguna izan daigun
bai guk, bai gure senideek.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

34. LURRIKARA DANERAKO

Otoitza Oi Jainko,
Zeuk sendotu dozu lurra bere oinarrietan;
parkatu bildurrez gagozanoi
eta entzun onez gure otoitzak;
lurrikararen arriskua guztiz aldendurik,
sentidu daigula eten barik zure onberatasuna
eta, zure babespean seguru, zerbidu zaiguzala pozik.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

35. EURIA ESKATZEKO

Otoitza Oi Jainko,
Zeugan dogu bizitzea, mogitzea eta izatea;
emoiguzu behar dogun euria,
orainaldiko ondasunen laguntza dogula,
zerutar ondasunak gogo biziagoz gura izan daiguzan.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

36. EGURALDI ONA ESKATZEKO

Otoitza Jainko ahalguztidun betikoa,
zentzatuz bide onera erakartzen gaituzu
eta parkatuz salbatzen;
emoiguzu eskatzen dogun eguraldi onaren alaitasuna,
eta egizu, poztu gaitezala gogoko dogun eguraldi onaz
eta balia gaitezala beti zure bihotz onaren dohaiez,
zure izena goresteko eta geure salbamenerako.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

37. EKATXAK URRUNTZEKO

Otoitza Oi Jainko, zeure esaneko dira munduko indar guztiak;
apal-apal eskatzen deutsugu,
ekatx bildurgarria baretuta ikusirik,
indarraren mehatxua bihurtu daitela Zuganako gorapen.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

III. EGOERA DESBARDINETARAKO

38. PEKATUEN PARKAMENA ESKATZEKO

A

Sarrera-ant. Izaki guztiez dozu errukia, eta ez deutsazu Zeuk egindako ezeri gitxi erexten; gizakien pekatuei ezikusiarena egiten deutsezu, bihotz-barritu daitezan, Jauna zara-eta Zu, gure Jainkoa. Ik. Jkd 11, 23-24.26

Otoitza Entzun, Jauna, onberatasunez gure eskari apalak;
eta geure pekatuak autortzen deutsuguzanoi
emoiguzu, zeure bihotz errukitsuaz, parkamena eta bakea.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Edo:

Errukitu zakioz, Jauna, zeure herriari,
parkatu bere pekatu guztiak,
eta, zeure bihotz errukitsuaz, aldendu gugandik
geure pekatuakaitik merezidu dogun zigorra.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Beste otoitz batzuk, 1193. or.

Oparigaien gainekoa Bake- eta gorapen-opari hau
eskeintzen deutsugu, Jauna;
errukiturik, gure pekatuak parkatu
eta gure bihotz aldakorrak gidatu daizuzan.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Prefazioa: Urtean Zeharreko domeketako IV.a, 506. or.

Jaunartze-ant. Poztu egiten da Jainkoa bere aingeruekin, bihotz-barritzen dan pekatari batengaitik. Ir. Lk 15, 10

Jaunartze ondorengoa

Jainko errukitsua,
jaunartze honi esker pekatuen parkamena lorturik,
otoitz egiten deutsugu:
hemendik aurrera, zure graziaren laguntzaz,
ez daigula gehiago pekaturik egin
eta Zu bihotz leialez zerbidu zaiguzala.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

B

Beste otoitz batzuk

Otoitza

Jainko ahalguztidun eta guztiz onbera,
hatxetik ur biziaren iturria emon zeuntsan
egarri zan zeure herriari;
atara gure bihotz gogorretik damu-malkoak,
geure pekatuakaitik negar egin daigun
eta, zure errukiari esker, euren parkamena jadetsi.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa

Begira begi onez, Jaun handia,
gure pekatuakaitik egiten deutsugun eskeintza honi,
eta egizu, gizon-emakumeentzat
parkamenaren iturri izan zan sakrifizio honek
emon deigula Espiritu Santuaren grazia
geure pekatuakaitik negar egiteko.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Jaunartze ondorengoa

Begirunez hartu dogun sakramentuak
emon deigula, Jauna,
geure malko eta zotinez,
geure pekatuen orbanak garbitzea, eta, zure graziaz,
lortu deigula eskatzen deutsugun parkamena.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

39. NEURRITASUNA ESKATZEKO

Otoitza Sutu egizu, Jaun onbera, gure bihotza
Espiritu Santuaren sugarretan,
gorputzeko kastitatez zure zerbitzari izan gaitezan
eta bihotz garbiz atsegingarri Zuretzat.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa Izan beitez Zuretzat atsegingarri, Jauna, gure oparigaiak;
egizu, zeure graziaz salbatu gaituzunok gai izan gaitezala,
zure errukia lagun, askatasun osoz eta gogo garbiz
Zuri gorapen-oparia eskeintzeko.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Jaunartze ondorengoa Hartu dogun sakramentuari esker, Jauna,
gure bihotzean eta gorputzean izan daigula
garbitasun handia eta kastitatezko jokabide barria,
gogo garbiz onartu daigun ahoz hartu doguna.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

40. MAITASUNA ESKATZEKO

Sarrera-ant. Hauxe dino Jaunak: Harrizko bihotza kenduko deutsuet eta haragizkoa emongo. Neure espiritua ipiniko dot zuengan; neure herri izango zarie zuek, eta Ni zuen Jainko. Ez 36, 26-28

Otoitza Sutu egizu, Jauna, gure bihotza zeure maitasun Espirituaz,
gure pentsamentua beti zure neurrikoa
eta zure gogokoa izan dadin,
eta senideengan Zeu benetan maitatu zaiguzan.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa

Zagoz gure alde, Jauna,
egizuz santu ogi-ardao honeek
eta, espirituzko opari hau onarturik,
emoiguzu zure maitasuna gizon-emakume guztiengana
zabaldu ahal izatea.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Jaunartze-ant.

Hiru gauza doguz oraindino, iraunkor diranak: sinismena, itxaropena eta maitasuna; baina hiruretan handiena maitasuna da.
1 Ko 13, 13

Jaunartze ondorengoa

Zerutar ogi beretik asetu gaituzunok
bete gaizuz, Jauna, Espiritu Santuaren graziaz
eta indarbarritu biziro maitasun betearen gozotasunez.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

41. SENITARTEKO ETA ADISKIDEENTZAT

Sarrera-ant.

Eskatu bakea Jerusalementzat, bizi beitez nasai maite zaituenak. Neure senide eta lagunen izenean ere, hau dinot: Bakea zurekin!
Sal 122 [121], 6.8

Otoitza

Oi Jainko,
maitasun-dohaiak isuri dituzu zeure fededunen bihotzean,
Espiritu Santuaren graziaz;
izan egizu errukia zeure seme-alaba honeentzat
eta emoiezu arimako eta gorputzeko osasuna,
Zu indar guztiaz maitatu zagiezan
eta Zuri atsegin jatzuna gogo osoz bete dagien.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa

Errukitu zakiez, Jaun handia, zeure zerbitzariei,
euren alde eskeintzen deutsugu-eta gorapen-sakrifizio hau;
emoiezu, misterio santu honen bidez,
goi-goiko bedeinkazinoaren grazia
eta betiko zorionaren aintza.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Jaunartze-ant.

Zeruko nire Aitaren nahia egiten dauana, horixe dot Nik anaia eta arreba eta ama, dino Jaunak. Mt 12, 50

Jaunartze ondorengoa

Zerutar misterio santuak harturik, Jauna,
gure lagun maite egin dituzun honeentzat eskatzen deutsugu:
emoiezu pekatuen parkamena, bizi-poza eta betiko babesa,
guztiok, zure zerbitzuan bat eginik,
zure aurrean alkarregaz zoriontsu izan gaitezan.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

42. NAHIGABETZEN GAITUENENTZAT

Sarrera-ant.

Maitatu egizuez zeuen arerioak, dino Jaunak; egin on gorroto deutsueenei, bedeinkatu madarikatzen zaitueenak, egin otoitz izen ona kentzen deutsueenen alde. Lk 6, 27-28

Otoitza

Oi Jainko,
maitasun-legea emotean,
gatx egiten deuskuenak benetan maitatzeko agindu deuskuzu;
egizu, lege barriko aginduei jarraituz,
gatx egiten deuskunari on eginez erantzun deiogula,
eta batak bestearen nekeak eroaten ikasi daigula.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa

Guztiekin bakean bizi nahirik,
aurkari doguzanentzat dihardugu, Jauna,
sakrifizio hau eskeintzen,
zure arerio ginala,
Zugaz baketu ginduzan
zure Semearen heriotza gogoratzen dogula.
Errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Jaunartze-ant. Zorionekoak bakegileak, Jainkoaren seme-alaba izango dira-eta. Zorionekoak zuzentasunagaitik erasoa jasaten dabenak, eurena dabe-eta Jainkoaren erreinua. Mt 5, 9-10

Jaunartze ondorengoa

Egizu, oi Jainko,
Zugaz baketu gaituan sakramentu honen bidez,
izan gaitezala danentzat bakegile;
eta aurkari doguzanei lagundu deiegula
Zuretzat atsegingarri eta guretzat adiskide izaten.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

43. KATIGU DAGOZANENTZAT

Sarrera-ant. Jauna, ene Jainko salbatzailea, gau eta egun deadar dagitsut. Heldu bekizu nire otoitza, makurtu belarria nire garrasira.
Sal 88 [87], 2-3

Otoitza

Oi Jainko,
zure Semeak zerbitzari-izaera hartu eban,
gizadia pekatuaren menpetik ataratzeko;
emoiezu katigu dagozan zeure zerbitzariei
zeure seme-alaba diran gizaki guztientzat
nahi dozun askatasuna.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa

Gizadia pekatutik askatzen dauan sakramentua
eskeintzen deutsugu, Jauna;
egizu, katigu dagozan zure seme-alabak
askatuak izan daitezala
eta izan dagiela beti bihotz-askatasuna.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Jaunartze-ant.

Jainkoaren izena kantuz dot goratuko, esker onez handietsiko. Izan ere, entzuten deutse Jaunak behartsuei, ez ditu gitxiesten berari lotuak. Sal 69 [68], 31.34

Jaunartze ondorengoa

Askatasuna irabazi euskun oparia ospatzean,
zure bihotz onari eskean gatorkioz, Jauna,
katigu dagozan gure senideen alde:
euren kateetatik askaturik,
zure zuzentasunaren zerbitzari izan daitezala.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

44. ESPETXERATUENTZAT

Ebanjelioagaitik espetxeratuentzat, erabili leitekez «Erasopean bizi diran kristauentzat» Mezako otoitzak, 1171. or.

Otoitza

Jainko ahalguztidun errukiorra,
Zeuk bakarrik dakizu bihotzeko ezkutuen barri,
Zeuk ezagutzen dozu zintzoa, Zeuk zintzotzen gaiztoa;
entzun espetxean dagozan zure seme-alabentzat
egiten deutsuguzan otoitzak,
eta egizu, eroapenak eta itxaropenak
jagiazo dagizala euren atsekabean
eta, eragozpen barik, bihurtu daitezala lehenbailehen etxera.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

45. GAIXOENTZAT

Sarrera-ant. Errukitu zakidaz, Jauna, guztiz jausita nago-eta, osatu nagizu, Jauna, kili-kolo dodaz-eta hazurrak, ikara bizian barrua. Sal 6, 3-4

Edo:

Gure gatxak bere gain hartu ebazan Jaunak, eta gure oinazeak eroan. Ik. Is 53, 4

Gaixo batzurentzat:

Otoitza Oi Jainko, Zuk halan nahirik, zure Semeak bere gain hartu ebazan gure minak, guri gaixotasunaren eta bizitzako nekeen balioa erakusteko; entzun onbera gaixo dagozan senideentzat zuzentzen deutsuguzan eskariak; eta egizu, oinaze, atsekabe edo beste gatx batzuren menpean larri dagozanek sentidu dagiela, zoriontsu, deituen artekoak dirala eta bat eginik dagozala mundua salbatzeko sufridu eban Kristogaz.
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean Jainko eta rrege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Gaixo bakarrarentzat:

Oi Jainko, Zuk holan nahirik, zure Semeak bere gain hartu ebazan gure minak, guri gaixotasunaren eta bizitzako nekeen balioa erakusteko; entzun onbera gaixorik dagoan I.rentzat zuzentzen deutsuguzan eskariak; eta egizu, oinaze, atsekabe edo beste gatx batzuren menpean larri dagoan I.gure senideak sentidu dagiala zoriontsu deituen artekoa dala eta bat eginik dagoala mundua salbatzeko sufridu eban Kristogaz.
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Edo:

Jainko ahalguztidun betikoa, Zugan sinisten dabenen betiko osasuna, entzun gure otoitza eta emon zure errukiaren laguntza gaixo dagozan zeure seme-alabei, osaturik, Eleizan Zuri eskerrak emon deizuezan.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez, Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Jainko ahalguztidun betikoa, Zugan sinisten dabenen betiko osasuna, entzun gure otoitza eta emon zure errukiaren laguntza gaixo dagoan I. zure semeari/alabeari, osaturik, Eleizan Zuri eskerrak emon deizuzan.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez, Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa

Gaixo batzurentzat:

Oi Jainko, zeure esku dagoz gure bizitzako une guztiak; onartu, zure errukia eskatuz, gaixo dagozan gure senideentzat egiten deutsuguzan otoitzak eta emoitzak, euren bizia arriskuan ikusirik kezkatuta gagozanok eurak osatuta ikustean poztu gaitezan.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Gaixo bakarrarentzat:

Oi Jainko, zeure esku dagoz gure bizitzako une guztiak; onartu, zure errukia eskatuz, gaixo dagoan gure senidearentzat egiten deutsuguzan otoitzak eta emoitzak, honen bizia arriskuan ikusirik kezkatuta gagozanok hau osatuta ikustean poztu gaitezan.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Jaunartze-ant. Neure gorputzean jasaten dihardudan atsekabeen bidez Kristoren atsekabeak osatzen ditut, haren gorputza dan Eleizearen alde.

Kol 1, 24

Gaixo batzurentzat:

Jaunartze ondorengoa

Oi Jainko, aparteko laguntza zara Zu giza makaltasunean; agertu egizu zeure laguntza indartsua gaixo dagozan zure zerbitzariengan, zure errukiari esker, osasuntsu bihurtu daitezan zure eleiz alkarte santura.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Gaixo bakarrarentzat:

Oi Jainko, aparteko laguntza zara Zu giza makaltasunean; agertu egizu zeure laguntza indartsua gaixo dagoan zure zerbitzariagan, zure errukiari esker, osasuntsu bihurtu daiten zure eleiz alkarte santura.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

46. HILZORIAN DAGOZANENTZAT

Sarrera-ant. Gutariko inor ez da beretzat bizi, ezta beretzat hiltzen ere. Bizi bagara, Jaunarentzat gara bizi, eta hiltzen bagara, Jaunarentzat gara hiltzen. Beraz, nahiz bizi nahiz hil, Jaunarenak gara. Erm 14, 7-8

Edo:

Gure gatxak bere gain hartu ebazan Jaunak, eta gure oinazeak eroan.
Ik. Is 53, 4

Otoitza

Jainko ahalguztidun errukiorra,
betiko biziaren ateak zabaldu deutsazuz
zeure errukiaz, gizadiari, hil beharra eratze berean;
begira, onbera, hilzorian dagoan I. zure zerbitzari honi,
eta egizu, zure Semearen nekaldian bat eginik
eta haren odolaz markaturik,
agertu daitela zure aurrean erru barik.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Edo, gaur hilko diranentzat:

Jainko ahalguztidun errukiorra,
edonon erakusten dozu
zeure sorkari guztiei deutsezun maitasuna;
entzun, bihotz onez,
gaur hilko diranentzat egiten deutsuguzan eskariak,
zure Semearen odol baliotsuaz erosiak diran ezkero,
urten dagiela mundu honetatik pekatu-kutsu barik
eta aurkitu dagiela betiko atsedena zure errukiaren altzoan.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa

Oi Jainko,
onartu hilzorian dagoan I. zure zerbitzariarentzat
uste osoz egiten deutsugun eskeintza;
emoiozu, opari honen bidez, pekatu guztien parkamena,
orain estutasun larrian aurkitzen dan honek
gero betiko atsedena lortu dagian,
zure nahiaren arabera.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Jaunartze-ant.

Neure gorputzean jasaten nagoan atsekabeen bidez Kristoren atsekabeak osotzen ditut, haren gorputza dan Eleizearen alde. Kol 1, 24

Edo:

Nire haragia jaten eta nire odola edaten dauanak betiko bizia dau, dino Jaunak, eta Neuk biztuko dot azken egunean. Jn 6, 54

Jaunartze ondorengoa

Sakramentu honen indarrez, Jauna,
emoiozu bihotz onez adorea I. zeure zerbitzari honi,
heriotzako orduan arerioa garaile urten ez dakion,
ezpada ze, zure aingeruek lagunduta,
betiko bizitzara igaro daiten.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

47. HERIOTZA ONA ESKATZEKO

Sarrera-ant. Ibar baltz ilunean banabil ere, ez naz gatxaren bildur, Zu neugaz zagoz-eta, Jauna, nire Jainkoa; zure artzain-makilak nasaitzen nau. Sal 23 [22], 4

Otoitza

Oi Jainko, zeure irudira egin ginduzuzan,
eta, gu salbatzeko,
zeure Semeak heriotza onartzea nahi izan zenduan;
emoiguzu otoitzean beti zuhur bizitzeko grazia,
heriotzako orduan
pekatu barik urten daigun mundu honetatik
eta zure errukiaren altzoan
atseden pozgarria izan daigun.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa

Gure heriotza
zeure Semearen heriotzaz ezereztu zenduan, Jauna;
egizu, sakramentu honen indarrez
azken ordura arte zure nahia eginez,
urten daigula mundu honetatik baketsu eta itxaropentsu
eta, zure graziaz, parte izan daigula Kristoren biztueran.
Errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Prefazioa: Astegunetako V.a, 547. or., nahiz VI.a, 548. or.

Jaunartze-ant. Gutariko inor ez da beretzat bizi, ezta beretzat hiltzen be. Bizi bagara, Jaunarentzat gara bizi, eta hiltzen bagara, Jaunarentzat gara hiltzen. Beraz, nahiz bizi nahiz hil, Jaunarenak gara. Erm 14, 7-8

Edo:

Egon zuhur eta egin otoitz une oro, zutunik egon ahal izan zaitezen Gizonaren Semearen aurrean. Lk 21, 36

Jaunartze ondorengoa

Sakramentu honetan betiko biziaren ezaugarria harturik,
emoiguzu, Jauna, zeure bihotz onez,
gure heriotzako orduan zeure laguntza,
arerioaren erasoaldiak garaiturik,
zure altzoan betiko zoriona izan daigun.
Jesu Kristo gure Jaunren bitartez.

48. EDOZEIN BEHARRIZANETAN

A

Sarrera-ant. Neu naz herriaren salbazinoa, dino Jaunak; edozein estualditan dei egiten badeuste, entzungo deutset, eta euren Jainko izango nabe betiko.

Otoitza

Oi Jainko, igesleku zaitugu nekeetan,
indar makalaldian, kontsolamentu negarretan;
parkatu egiozu zeure herriari,
merezidu izan dauan zigor zuzengarria jasan ondoren,
azkenean atsedena izan dagian zure bihotz onean.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa

Hartu bihotz onez, Jauna, zeure familiaren eskeintza
eta zaindu zeure babespean,
Zuk emondako dohaiak galdu ez,
ezpada ze betiko ondasunak eskuratu dagizan.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Jaunartze-ant. Zatoze Neugana nekatu eta zamatu guztiok, eta Neuk arinduko zaituet, dino Jaunak. Mt 11, 28

Jaunartze ondorengoa

Aurkitu daigula, Jauna, sakramentu honetan
geure gorputz-arimentzat laguntza,
bietan erabarriturik,
betiko biziaren betea gozatu daigun.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

B

Sarrera-ant. Jagi, Jauna, zatorkiguz lagun, askatu gaizuz zeure maitasunagaitik!
Ik. Sal 44 [43], 27

Otoitza

Jainko ahalguztidun errukiorra,
ikusi bihotz onez gure larrialdia;
arindu egizu gure nekea eta sendotu gure fedea,
beti zalantza barik uste osoa izan daigun
zure aita-bihotz onean.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa

Onartu, Jauna,
uste osoz eskeintzen deutsuguzan emoitza honeek;
egizu, oraingo gure atsekabealdi eta tristurak
sakrifizio atsegingarri bihurtu daitezala Zuretzat.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Jaunartze-ant. Aitari zeozer nire izenean eskatzen badeutsazue, emongo deutsue. Eskatu eta hartuko dozue, zuen poza bete-betea izan dadin, dino Jaunak.
Jn 16, 23-24

Jaunartze ondorengoa

Zerutar zeure janariaz bizibarritu eta indartu gaituzu, Jauna;
izan geinkezan lanei adoretsu aurre egiteko grazia
eskatzen deutsugu apalik,
baita geure senideak euren estualdietan
kementsu indartzeko ere.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

C
Beste otoitz batzuk

Otoitza

Oi Jainko,
Zuk badakizu zenbat arriskutan gagozan sartuak
eta, giza makaltasunaren ondorioz,
ez garala gauza bizirik irauteko;
emoiguzu gorputzeko eta arimako osasuna,
geure pekatuakaitik doguzan sufrimentuak,
zure laguntzaz, gainditu daiguzan.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Edo:

Emon, Jauna, zeure herriari
deabruaren eragina baztertzeko grazia,
gogo garbiz Zeuri, Jainko horri, bakarrik jarraitu ahal izateko.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa

Onartu, Jauna, gure eskariak eta oparigaiak,
eta egizu, geure pekatuen zigorpean atsekabeturik gagozanok
aske gelditu gaitezala zeure errukiaren graziaz.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Jaunartze ondorengoa

Begira bihotz onez, Jauna, gure larriari,
eta, zure Semearen nekaldiari esker,
aldendu egizu zeure errukiaz
geure pekatuakaitik ondo merezi dogun
zure hasarrearen sumina.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

49. JAINKOARI ESKERRAK EMOTEKO

A

Sarrera-ant. Kantatu eta egin gorazarre Jaunari bihotz-bihotzez, gauza guztiakaitik Jainko Aitari eten barik eskerrak emonez, Jesu Kristo gure Jaunaren izenean. Ef 5, 19-20

Otoitza

Oi Jainko,
beti entzuten dozuz errukitsu
estualdian dagozanen eskariak;
eskerrak emoten deutsuguz gugaz onbera izan zaralako
eta ahuspez eskatzen,
gatx guztietatik urten eta alai zerbidu zaiguzala beti.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Beste otoitz batzuk, 1208. or.

Oparigaien gainekoa

Zeure Semea emon deuskuzu, Jauna,
heriotzatik eta gatx guztietatik atara gagizan onberatasunez;
onartu egizu, estualditik atara gaituzulako eskerrak emonez
eskeintzen deutsugun sakrifizioa.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Prefazioa: Astegunetako IV.a, 546. or.

Jaunartze-ant. Eskerrak emoten deutsudaz, Jauna, bihotz-bihotzez, nire hitzak entzun dozuzalako. Sal 138 [137], 1

Edo:

Zelan ordainduko deutsat Jaunari egin deustan on guztia? Salbazino-edontzia dot jasoko eta Jaunaren izenari dei egingo.
Sal 116 [115], 12-13

Jaunartze ondorengoa

Jainko ahalguztiduna,
ogi bizi-emoile honi esker onberatasunez ataratzen dozuz
zeure zerbitzariak pekatuaren lokarrietatik,
eta indarrak barritzen deutsezuz;
egizu, egunetik egunera hazi daitela gugan
zure aintzara heltzeko itxaropena.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

B

Beste otoitz batzuk

Otoitza

Oi Jainko, Zeu zaitugu dohai guztien Aita
eta Zeugandik dogu daukagun eta garan guztia;
erakutsi eiguzu
zure maitasun neurribakoaren mesedeak ezagutzen,
eta Zeu bihotz leialez eta indar guztiz maitatzen.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa

Gorapen-sakrifizioa eskeintzen deutsugu, Jauna,
Zuk emondako dohaiakaitik,
eta apalik eskatzen,
guk merezidu barik emon deuskuzuna
erabili daigula zure izenaren aintzarako.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Jaunartze ondorengoa

Oi Jainko,
gogo-janari bihurtu deuskuzu,
eskerrak emoteko eskeini deutsugun
zure Semearen sakramentu salbagarria;
emoiguzu ugari zeure indarra eta poza,
gartsuago zerbidu zaiguzan
eta Zugandik dohai barriak lortu daiguzan.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

DEBOZINOZKO MEZAK

Beharrizan handiren bat nahiz egokiera pastoral berezia izaten danean, egokiena dan debozinozko Meza emon daiteke, eleizbarrutiko Gotzainaren aginduz edota baimenez; eta hau edozein egunetan, baina ez jai nagusietan, ezta Abendualdi, Garizuma eta Pazkoaldiko domeketan. Pazko Zortziurrenean, Hildako Fededun guztien Oroitzapenean, Hausterre Egunean eta Aste santuko astegunetan ere.

Nahiz eta beharrezko oroipena dan guztietan, edo Abendualdiko astegunetan abenduko hilaren 16ra arte nahiz Gabonaldian urtarrilaren 2tik aurrera eta Pazko Zortziurrenaz kanpoko Pazkoaldiko astegunetan, berez galazota egon debozinozko mezak, egiazko beharrizan batek nahiz egokiera pastoralak eskatu ezkero, herriagaz egingo dan ospakizunean, eleizako arduradun nahiz meza-emoile dan abadearen eretxiz emon daiteke beharrizan horri erantzuten deutson debozinozko Meza.

Urtean Zeharreko astegunetan, nahierazko oroipena egonda be, abade meza-emoileak aukeratu daike debozinozko Meza, fededunen jaiera edo debozinoa kontuan izanik.

1. HIRUTASUN GUZTIZ SANTUARENA

Meza honetan kolore zuria erabiliko da.

Sarrera-ant. Bedeinkatua izan bedi Jainko Aita, eta Jainkoaren Seme bakarra, eta Espiritu Santua, handia izan da-eta guretzat haren errukia.

Otoitza

Jainko Aita, egiaren Hitza dan zeure Semea
eta Espiritu santutzailea bialdu dituzu mundura
gizon-emakumeei zeure misterio miragarria agertzeko;
egizu, egiazko sinismena autortuz,
ezagutu daigula betiko Hirutasunaren aintza
eta gurtu daigula Batasun ahalguztiduna.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa

Jainko gure Jauna,
zure izen santuari dei egiten deutsagu:
egizuz santu, zeure ahalmenaz,
aurkezten deutsuguzan dohai honeek,
eta euron bidez bihurtu gaizuz guztiok Zeuretzat
betiko opari atsegingarri.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Prefazioa: Hirutasun Guztiz Santuaren festaburukoa. 409. or.

Jaunartze ant. Seme-alaba zarien seinaletzat bere Semearen Espiritua bialdu dau Jainkoak zuen bihotzera, «Abba! Aita!» deika diharduana. Ga 4, 6

Jaunartze ondorengoa

Jainko gure Jauna, betiko Hirutasun Santua
eta haren Batasun hausiezina autortu dogu;
egizu, hartu dogun sakramentu honetan
aurkitu daigula gorputz-arimen osasuna.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

2. JAINKOAREN ERRUKIARENA

Meza honetan kolore zuria erabiliko da. Meza hau ezin da emon II. Pazko-domekan.

Sarrera-ant. Maite gaitu, betidanik maite Jainkoak; bere Seme Bakarra bialdu eban gure pekatuen parkamenerako; eta gureen parkamenerako ez ezik, baita mundu guztikoen parkamenerako be.

Ik. Jr 31, 3; 1 Jn 2, 2

Edo:

Jauna, zure maitasun-egintzak kantatuko dodaz beti, zure leialtasuna iragarriko gizaldiz gizaldi. Sal 89 [88], 2

Otoitza

Oi Jainko,
neurribakoa dozu errukia eta mugabakoa ontasuna;
indartu onberatasunez Zuri sagaraturiko herriaren fedea,
hobeto ulertu daigun
zelako maitasunaz sortu gaituzun,
zelako odolaz erosi
eta zelako Espirituaz bizibarritu.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa

Hartu, Jauna, gure eskeintzak
eta bihurtu egizuz salbazinoaren sakramentu,
zure Semearen heriotzaren eta biztueraren oroigarri;
egizu, sakrifizio honen indarrez,
uste ona beti Kristogan jarririk,
betiko bizitzara heldu gaitezala.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Jaunartze-ant. Jaunaren maitasuna betidanik betidaino, begirune deutsoenentzat.

Sal 103 [102], 17

Edo:

Gudari batek lantzaz saihetsa zulatu eutson, eta bat-batean odolak eta urak urten eben. Jn 19, 34

Jaunartze ondorengoa

Jainko errukitsua,
egizu, zure Semearen Gorputz-Odolez janariturik,
asetu gaitezala uste osoz errukiaren iturrian
eta gu ere senideentzat gero eta errukitsuago agertu gaitezala.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

3. JESU KRISTO GURE JAUNA, BETIKO ABADE NAGUSIAREN

Meza honetan kolore zuria erabiliko da.

Meza honetarako, Jesu Kristo gure Jauna, Betiko Abade Nagusiaren Meza-gaiak be, erabili daitekez, 407. or.

Sarrera-ant. Zin egin dau Jaunak eta ez da damutuko: Abade zara Zu, Melkisedek lez, betiko. Sal 110 [109], 4

Otoitza

Oi Jainko,
zeure aintzarako eta gizadi osoa salbatzeko,
Kristo betiko abade nagusi egin nahi izan dozu;
egizu, harek bere odolari esker zeure egin dauan herriak hartu dagiala
haren kurutzearen eta biztueraren salbazino-indarra,
beraren oroigarri dan ospakizun honetan esku hartuz.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa

Egizu, Jauna, parte hartu daigula sarri sakramentu honetan,
gure erospena barritzen dalako
Jaunaren opariaren oroigarri hau ospatzen dogun bakotxean.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Prefazioa: Eukaristia santuarena, 514-517. or.

Jaunartze-ant. Hau neure Gorputza da, zuentzat emona; kaliza hau itun barria da, nire Odolaz sinatua, dino Jaunak; egizue hau, edaten dozuen bakotxean, neure oroigarri. 1 Ko 11, 24-25

Jaunartze ondorengoa

Egin gaizuz, Jauna, zure Semeagaz batera betiko opari,
harek beraren oroigarri eskeintzeko agindu euskun
sakrifizio honetan parte hartu dogun ezkero.
Errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

4. KURUTZE SANTUAREN MISTERIOARENA

Kurutze santuaren Gorapeneko Mezea emongo da, kolore gorria erabiliz, 851. or.

5. EUKARISTIA SANTUARENA

Meza honetan kolore zuria erabiliko da.

Eukaristia santuaren debozinozko Mezatzat, Jesu Kristo gure Jauna, Betiko Abade Nagusiarena, 407. or., nahiz Kristoren Gorputz eta Odol Santuen festaburukoa erabili daiteke 413. or.

Sarrera-ant. Zeruko ateak edegi ebazan Jaunak eta mana isuri eutsen janari, zeruko ogia emon eutsen; aingeruen ogia jan eban gizakiak. Sal 78 [77], 23-25

Otoitza

Oi Jainko, zeure Seme bakarraren pazko-misterioan
gauzatu dozu gizon-emakumeen erospena;
egizu, Kristoren heriotza eta biztuera
fedez sakramentuen irudipean adierazoten ditugunok
somatu daigula gero eta gehiago zure salbazinoa.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa

Gure salbazinoaren oroigarria ospatzean,
apalik eskatzen deutsugu, Jaun errukitsu horri:
zure errukiaren sakramentu hau izan dakigula
batasunaren ezaugarri eta maitasunaren lokarri.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Prefazioa: Eukaristia santuarena, 514-517. or.

Jaunartze-ant. Neu naz zerutik jatsia dan ogi bizia, dino Jaunak; ogi honetatik jaten dauana betiko biziko da. Eta Nik emongo dodan ogia neure haragia da, mundua bizi dadin emona. Jn 6, 51

Jaunartze ondorengoa

Zeruko mahaian parte hartzeak egin gaizala santu, Jauna,
Kristoren Gorputz - Odolei esker,
senide guztiok bat izan gaitezan.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

6. JESUSEN IZEN SANTUARENA

Meza honetan kolore zuria erabiliko da.

Sarrera-ant. Jesusen izenaren omenez danen belaunak makurtu daitezala, zeruan, lurrean eta lurpean, eta mihin guztiek autortu dagiela Jesu Kristo dala Jauna, Jainko Aitaren aintzarako. Ik. Flp 2, 10-11

Otoitza

Jesusen izen santua goresten dogunoi
emoiguzu onginahiz, Jauna,
bizitza honetan haren gozotasunaz pozturik,
zeruan betiko zoriona gozatzea.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa

Aita ahalguztiduna,
zure Semeak onberatasunez berbea emonda,
uste osoa dogu
haren izenean eskatutako guztia lortuko dogula;
hartu egizuz onez gure dohaiak.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Jaunartze-ant. Ez deusku Jainkoak gizon-emakumeoi beste inor emon eguzkipean, gu salbatu gaikezanik. Eg 4, 12

Jaunartze ondorengoa

Jesusen izenera danen belaunak makurtzea
nahi izan dozu, Jauna,
eta gizon-emakume guztiek salbazinoa lortzea;
emoiguzu, bihotz onez,
sakramentu honetan Jesus Jauna egoki gorestea.
Errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

7. JESU KRISTO GURE JAUNAREN ODOL BALIOTSUARENA

Meza honetan kolore gorria erabiliko da.

Sarrera-ant. Zeure Odol baliotsuaz irabazi gaituzu, Jauna, arraza, hizkuntza, herri eta nazino guztietako gizon-emakumeak; eta errege egin gaituzu geure Jainkoarentzat. Ik. Ap 5, 9-10

Otoitza

Oi Jainko, zeure Semearen Odol baliotsuaz
salbatu dituzu gizon-emakume guztiak;
zaindu egizu gugan zeure errukiaren egintza;
guk, geure salbazino-misterioaren oroigarria
eten barik ospatuz,
honen frutu betea lortu ahal izan daigun.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa

Jaun guztiz handia,
gure emoitzak zure aurrera ekartzean,
eskatzen deutsugu:
hurreratu gaitezala, sakramentu honen bidez,
itun barriaren Bitarteko dan Jesusengana,
eta barritu daigula haren odol-isurtze salbagarria.
Errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Prefazioa: Jaunaren Nekaldiko 1.a, 486. or.

Jaunartze-ant. Jainkoa bedeinkatuz hartzen dogun esker onezko kalizak Kristogaz bat egiten gaitu haren Odolean, eta zatitzen dogun ogiak Jaunagaz bat egiten gaitu haren Gorputzean. Ik. 1 Ko 10, 16

Jaunartze ondorengoa

Bete gaizala gainezka beti, Jauna,
gure Salbatzailearen Odolak
salbazinoko janari-edariz indarbarritu gaituzunok,
eta bihurtu dadila gugan betiko bizia darion iturburu.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Edo:

Jainko ahalguztiduna,
zerutar janari-edariz indarbarritu gaituzu;
arren eskatzen deutsugu,
zaindu gaizuzala arerioen bildurretik
zeure Semearen Odol baliotsuaz salbatu gaituzunok.
Errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

8. JESUSEN BIHOTZ GUZTIZ SANTUARENA

Meza honetan kolore zuria erabiliko da.

Debozinozko Mezatzat, Jesusen Bihotz Guztiz Santuaren festaburukoa ere erabili daiteke, 415. or.

Sarrera-ant. Jaunaren bihotzeko asmoek betiko diraue, fededunak heriotzatik libratzeko eta gosetean bizirik gordetzeko. Ik. Sal 33 [32], 11a.19

Otoitza

Jainko Jauna, jantzi gaizuz
zeure Semearen Bihotzeko indarraz,
eta sutu haren sentimentuez,
haren irudiko eginik,
betiko salbazinoan partaide izan gaitezan.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa

Jainko Aita errukitsua,
guretzat dozun maitasun neurribakoan
zeure Seme bakarra emon deuskuzu
ezin esan ahaleko ontasunez;
egizu, arren, Beragaz guztiok bat eginik,
eskeini deizugula opari egokia.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Prefazioa: Jesusen Bihotz Guztiz Santuaren Mezakoa, 416. or.

Jaunartze-ant.

Hauxe dino Jaunak: Egarri dana betor Nigana, eta edan begi Nigan sinisten dauanak; ur biziko ibaiak jarioko jakoz barru-barrutik.
Jn 7, 37-38

Edo:

Gudari batek lantzaz saihetsa zulatu eutson, eta bat-batean odolak eta urak urten eben.
Jn 19, 34

Jaunartze ondorengoa

Zure maitasunaren sakramentuan parte harturik, Jauna,
zure errukiari apalik deika gagoz:
lur honetan Kristoren irudiko eginik,
zeruetan Beraren lagun izatea lortu daigula.
Errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

9. ESPIRITU SANTUARENA

Meza honetan kolore gorria erabiliko da.

A

Sarrera-ant.

Jainkoak bere maitasuna isuri deusku bihotzera, gugan bizi dan Espirituaren bitartez.
Erm 5, 5; ik. 8, 11

Otoitza

Oi Jainko, zeure Espiritu Santuaren argiaz
bete dozu fededunon bihotza;
emoiguzu, Espiritu horrengan zuzen dana dastatzea
eta beraren kontsolamentua beti gozatzea.

Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa

Santu egin, Jauna, gure emoitzak,
eta garbitu egizu gure bihotza Espiritu Santuaren graziaz.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Prefazioa

JAUNAK ESPIRITUA BIALDU ELEIZARA
Espiritu Santuaren I.a

℣. Jauna zuekin.
℟. Eta zure espirituarekin.

℣. Gora bihotzak.
℟. Jaunagan daukaguz.

℣. Eskerrak Jaungoiko gure Jaunari.
℟. Egoki da eta zuzen.

Egoki da, bai, eta zuzen,
bidezko eta salbagarri,
nonahi eta beti guk Zuri eskerrak emotea,
Jauna, Aita guztiz santu,
Jainko ahalguztidun betiko horri,
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Zeruetara igon eta zure eskumaldean jarririk,
berak agindutako Espiritu Santua isuri eban
zure seme-alaba ordekoen gainera.

Horregaitik, Jauna, orain eta beti,
aingeru-talde guztiekin batean,
bihotz-bihotzez sendo [esaten] kantatzen deutsugu:

Santu, Santu, Santua...


℣. Jau-na zu-e-kin. ℟. E-ta zu-re es-pi-ri-tu-a-re-kin.
℣. Go-ra bi-ho-tzak. ℟. Jau-na-gan dau-ka-guz.
℣. Es-ke-rrak Jaun-goi-ko gu-re Jau-na-ri. ℟. E-go-ki da e-ta zu-zen.


Egoki da, bai, eta zuzen, bidezko eta sal-ba-ga-rri, no-na-hi eta
beti guk Zuri eskerrak e-mo-te-a, Jauna, Aita guz-tiz san-tu, Jainko
ahalguztidun betiko ho-rri, Jesu Kristo gure Jau-na-ren bi-tar-tez.
Zerueta-ra igon eta zure eskumaldean ja-rri-rik berak agindutako
Espiritu Santua isu-ri e-ban zure seme–alaba or-de-ko-en gai-ne-ra.
Horregai-tik, Jauna, orain e-ta be-ti aingeru–talde guztiekin ba-te-ra,
bihotz–bihotzez goraki kan-ta-tzen deu-tsu-gu:

Jaunartze-ant. Indartu, oi Jainko, gure alde egin dozuna Jerusalemen dagoan zeure tenplu santutik. Ik. Sal 68 [67], 29-30

Jaunartze ondorengoa

Jatsi bedi gugana, Jauna, zure Espiritu Santua;
garbitu daiala gure bihotza
eta frutu-emoile egin bere iruntz sarkorrez.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

B

Sarrera-ant. Egiaren Espiritua etortzean, harek irakatsiko deutsue egia betea, dino Jaunak. Ik. Jn 16, 13; 14, 26

Otoitza

Zugandik dan Espiritu Laguntzaileak
argitu begiz, Jauna, gure gogo-bihotzak;
eta, zure Semeak agindu ebanez,
eroan gaizala egia bete-betean ezagutzera.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Edo:

Oi Jainko, Zuretzat zabalik dagoz bihotz guztiak,
agirian nahi izate guztiak,
eta ezer be ez ezkutuan;
garbitu egizuz Espiritu Santua isuriz
gure bihotzeko gogapenak,
Zeu gauza guztien gainetik maitatu zaiguzan
eta behar dan moduan goratu.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa

Begitu onez, Jauna, Zu zerbitzeko benetako asmoz
zure altaran ezarri dogun espirituzko oparigai honi,
eta emon zeure zerbitzarioi zuzentasun-espiritua,
gure fedeak eta apaltasunak
atsegingarri egin dagizan Zuretzat emoitza honeek.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Prefazioa, Espiritu Santuaren II.a, Urtean Zeharreko domeketako IX.a, 511. or.

Jaunartze-ant. Aitagan jatorria dauan egiaren Espirituak azalduko dau nire aintza, dino Jaunak. Ik. Jn 15, 26; 16, 14

Jaunartze ondorengoa

Jainko gure Jauna, zerutar janariaz asetu gaituzu;
isuri gure bihotzaren barru-barruraino
zeure Espirituaren gozoa,
orainaldian jaieraz hartu doguna
betiko dohai bihurtu dakigun.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

C

Sarrera-ant. Jaunaren Espiritua neure gainean dago, behartsuei Barri Ona emotera bialdu nau, dino Jaunak. Ik. Lk 4, 18

Otoitza

Oi Jainko,
herri eta nazino guztietan santutzen dozu zeure Eleiza osoa;
isuri egizuz zeure Espirituaren dohaiak mundu zabalera,
Eleizeak barritu dagizan orain fededunen bihotzean
Ebanjelioa iragartzen hasi ziranean
errukiz egin zenduzan mirariak.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Edo:

Jainko Jauna, zeure Espirituaz zuzentzen gaituzu
eta haren babespean zaintzen;
erakutsi guri zeure errukia
eta entzun errukitsu gure otoitzak,
Zugan sinisten dabenen fedeak beti zure laguntza izan dagian.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa

Zure aurrera ekarri doguz, Jauna, geure eskeintzak;
egizu, zure Semearen ikasleen bihotzak
sutan jarri ebazan Espiritu Santuaren suak
egin dagizala santu.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Prefazioa: Espiritu Santuaren I.a, 1219. or., nahiz II.a, 511. or.

Jaunartze-ant.

Bialdu, Jauna, zeure arnasa, eta sortuko dira eta barrituko dozu lurbira. Ik. Sal 104 [103], 30

Jaunartze ondorengoa

On egin deiguela, Jauna, hartu doguzan dohai honeek,
eta zeure apostoluei miragarriro isuri zeuntsen Espiritu berak
sutu gaizala geu ere beti.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

10. MARIA BIRJINA DOHATSUARENA

Meza honeetan kolore zuria erabiliko da.

A

Maria Birjina dohatsuaren Betikotik edozein Meza hartu leiteke, 935-946. or., liturgialdi bakotxari dagokionez.

B

Maria Birjina dohatsua, Eleizearen Amarena

Sarrera-ant.

Bihotz batez otoitzari emonak bizi ziran ikasleak Jesusen ama Mariagaz. Ik. Eg 1, 14

Otoitza

Oi Jainko Aita errukitsua,
zure Semeak, kurutzean josia egoala,
Maria Birjina dohatsua, bere Ama,
geure Ama ere egin eban;
egizu, haren maitasunaren laguntzaz,
zure Eleizea, gero eta emonkorragoa izanik,
poztu dadila bere seme-alaben santutasunaz
eta erakarri dagizala bere altzora
mundu zabaleko herrialde guztiak.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa

Onartu, Jauna, gure eskeintzak
eta bihurtu egizuz salbazinoko sakramentu,
honen indarrez, Eleizearen Ama dan
Maria Birjinaren maitasunean sutu gaitezan;
eta egizu, salbazino-lanean
beragaz estuago loturik jardun daigula.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Prefazioa: Maria Birjina dohatsuaren III., 523. or.; debozinozko Mezagai honi dagokio batik bat.

Jaunartze-ant.

Ezteguak izan ziran Galileako Kanan, eta han zan Jesusen ama; orduan egin eban Jesusek bere lehenengo ezaugarria, bere aintza azaldu eban, eta sinistu egin eben harengan ikasleek. Ik. Jn 2, 1.11

Edo:

Jesusek, kurutzean josirik egoala, maite eban ikasleari esan eutson: Horra hor zeure ama! Ik. Jn 19, 26-27

Jaunartze ondorengoa

Erospenaren eta biziaren agiria harturik,
ahuspez eskatzen deutsugu, Jauna:
zure Eleizeak, Ama dauan Maria dohatsuak lagunduta,
iragarri deiela Ebanjelioa herrialde guztiei
eta bete dagiala mundu osoa zure Espirituaren oparotasunaz.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

C
Mariaren izen santuarena

Sarrera-ant. Jainko Jaunak lurreko emakume guztien gainetik bedeinkatu zaitu, oi Maria Birjina; Jaunak ospetsu egin dau zure izena, eta gizakiek isildu barik goratuko zaitue. Ik. Jdt 13, 18-19

Otoitza Oi Jainko, Zeuk aukeratu zenduan emakume guztien artean
Maria Birjina dohatsua, graziaz betea,
zure Seme eta gure Salbatzailearen Ama izateko;
emoiguzu haren izen santua goratzen dogunoi
orainaldiko arriskuetatik urtetea
eta betiko bizia beragaz batera eskuratzea.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Edo:

Oi Jainko,
zure Semeak kurutzeko altaran azken arnasa emotean,
bere Amatzat aukeratutako Maria Birjina guztiz dohatsua
geure Ama ere izatea nahi izan eban;
egizu onberatasunez,
Ama honen babesera uste osoz gatozanok
sendotu gaizala beraren izen santuari dei egiteak.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa Begira, Jauna, eskeintza honeei;
egizu, Espiritu Santuaren argiz beterik
eta Maria beti Birjinaren otoitzari esker,
ahalegindu gaitezala beti bihotz-bihotzez
Kristo zure Semeagaz bat eginik bizitzen.
Errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Prefazioa: Maria Birjina dohatsuarena, 520-525. or.

Jaunartze-ant. Gabriel aingerua bialdu eban Jainkoak birjina batengana; birjinak Maria eban izena. Ik. Lk 1, 26-27

Jaunartze ondorengoa

Hitzaren eta sakramentuaren mahaian indartu gaituzu, Jauna;
egizu, arren, Maria dohatsuak gidaturik eta zaindurik,
baztertu daigula kristau-izenaren kontrakoa dan guztia,
eta bete aldekoa.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

D

Santa Maria, Apostoluen Erreginarena

Sarrera-ant. Bihotz batez otoitzari emonak bizi ziran ikasleak Jesusen ama Mariagaz. Ik. Eg 1, 14

Otoitza

Oi Jainko, Espiritu Santua emon zeuntsen
Jesusen Ama Mariagaz otoitzean ziharduen Apostoluei;
egizu, Mariaren otoitzari esker,
zerbidu zaiguzala Zu leial
eta zabaldu daigula zure ospea geure hitzez eta egintzez.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa

Jauna, zure onginahiari
eta Maria beti Birjina dohatsuaren otoitzari esker,
gure eskeintza honek ekarri deiola zeure Eleizeari
gero eta fededun ugariago izatea
eta bertute ugariz eten barik distiratzea.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Prefazioa: Maria Birjina dohatsuarena, 520-525. or.

Jaunartze-ant. Zorionekoa Kristo Jauna sabelean eroan ebana! Hobeto esan, zorionekoak Jainkoaren hitza entzuten eta betetzen dabenak! Ik. Lk 11, 27-28

Jaunartze ondorengoa

Maria Birjina dohatsuaren,
Apostoluen erreginaren, oroipena egitean,
salbazinoa dakarskun laguntza hartu dogu;
arren eskatzen deutsugu, Jauna,
zure herriak, zure nahia betetzen
eta gizon-emakumeak zerbitzen ahaleginduz,
egin dagiala beti aurrera salbazino-bidean.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

11. AINGERU SANTUENA

Meza honetan kolore zuria erabiliko da.

Debozinozko Mezatzat, Aingeru Zaindarien Meza-gaiak be erabili daitekez, urriaren 2koak, hain zuzen be, 869. or.

Sarrera-ant. Bedeinkatu egizue Jauna, haren aingeruok, entzun baizen laster haren esana egiten dozuen izaki indartsuok. Sal 103 [102], 20

Otoitza

Oi Jainko, zeure jakituria harrigarriaz,
Zeuk ezartzen deutsezu euren eginkizuna,
bai aingeruei, bai gizon-emakumeei;
egizu, zeruan beti zeure zerbitzari dituzun honeek
izan daiguzala lurrean geure biziaren zaintzaile.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa

Geure otoitz apalekin eskeintzen deutsugu, Jauna,
gorapen-opari hau;
aingeruek zure aintzaren aurrera eroanik,
hartu egizu onez eta egizu guretzat sakramentu salbagarri.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Prefazioa: Aingeruena, 526. or.

Jaunartze-ant. Kantuz goratzen zaitut, ene Jainko, aingeruen aurrean. Sal 138 [137], 1

Jaunartze ondorengoa

Hartu dogun zerutar janari honek aseturik,
apalik eskatzen deutsugu, Jauna:
harek indarturik eta zure aingeruak zaindari doguzala,
aurrera egin daigula geure salbazino-bidean.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

12. SAN JOAN BATEATZAILEARENA

Meza honetan, San Joan Bateatzailearen bezpera-arratsaldeko Mezea emongo da, kolore zuria erabiliz, 788. or.

13. SAN JOSERENA

Meza honetan kolore zuria erabiliko da.

San Jose, Maria Birjina dohatsuaren senarraren festaburuko Meza, martxoaren 19koa, hain zuzen be, 746. or., nahiz San Jose Langilearen egunekoa be, maiatzaren 1ekoa, 765. or., erabili daiteke.

Sarrera-ant.

Hauxe da etxezain leiala eta zentzunduna, Jaunak bere familiaren buru ipini dauana. Ik. Lk 12, 42

Otoitza

Oi Jainko, guganako dozun ardura harrigarriaz,
zeure Semearen Ama santuaren senar izateko
aukeratu zenduan Jose santua;
egizu, lur honetan zaindari lez goresten doguna,
laguntzaile izan daigula zeruan.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa

Aita guztiz santua, zure Seme bakarra zaintzeko
aitaren zeregina emon zeuntsan Jose santuari;
egizu, haren otoitzak lagundu deigula
geure zeregina betetzen,
gorapen-opari hau gogo beroz eskeini daigun.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Prefazioa: San Jose, Maria Birjina dohatsuaren senarrarena: Jose santuaren agurtza ospatzen dogun…, 527. or.

Jaunartze-ant. Ederto, morroi zintzoa eta leiala, sartu zeure nagusiaren jaia ospatzera! Mt 25, 21

Jaunartze ondorengoa

Sakramentu bizi-emoile honek erabarriturik, Jauna,
zuzen eta santu izanez bizi gaitezala beti zure aurrean;
egizu, zure misterio handiak euren betera eroateko
zerbitzari zuzen eta leiala izan zan Jose santua
izan daigula eredu eta laguntzaile.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

14. APOSTOLU SANTU GUZTIENA

Meza honetan kolore gorria erabiliko da.

Sarrera-ant. Ez ninduzuen zuek aukeratu Ni, Neuk aukeratu zinduedazan zuek, eta eginkizun hau emon deutsuet: frutu ugaria eta iraunkorra emon dagizuela edonon, dino Jaunak. Jn 15, 16

Otoitza

Alaitu dadila beti zure Eleizea, Jauna,
apostolu santuak eten barik goresteaz;
egizu, euren irakaspen
eta merezimentuakaitik pozten danez,
eurak izan dagizala gidari.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa

Isuri gure gainera, Jauna,
apostoluei hain oparo emon zeuntsen zeure Espiritu Santua,
euren bidez emon deuskuzuzan dohaiak autortu daiguzan
eta zure aintzarako gorapen-sakrifizioa egoki eskeini daigun.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Prefazioa: Apostoluena, 528-530. or.

Jaunartze-ant. Zuek, nire jarraitzaileok, hamabi tronutan jesarriko zarie, Israelgo hamabi leinuak epaitzeko, dino Jaunak. Mt 19, 28

Jaunartze ondorengoa

Oi Jainko, egizu iraun daigula pozik eta bihotz apalez
apostoluen irakaspenak entzuten eta alkarte-bizitzan,
ogia zatitzean eta otoitzean.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

15. SAN PEDRO ETA SAN PAULO APOSTOLUENA

Meza honetan kolore gorria erabiliko da.

Sarrera-ant.

Pedro apostoluak eta Paulo jentilen irakasleak irakatsi euskuen zure legea, Jauna.

Otoitza

Jainko gure Jauna,
Pedro eta Paulo apostolu santuen otoitzek lagundu deiguela,
eta, zerbitzu gorenaren lehenengo dohaiak
Eleizeari hareen bidez emon zeuntsazan lez,
emoiguzu, euren bidez, betiko salbazinoa lortzeko laguntza.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa

Altarara ekarri deutsugu, Jauna, geure eskeintza,
Pedro eta Paulo apostolu santuen oroitzapena ospatzean;
egizu, ez daigula uste ona geure merezimentuetan izan,
ezpada ze gu salbatzeko dozun onberatasunean bakarrik
jarri daigula geure harro-bidea.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Prefazioa: Pedro eta Paulo Apostolu santuen festaburukoa, 797. or.

Jaunartze-ant.

Simon, Joanen semea, honeek baino maiteago nozu? Jauna, Zuk dana dakizu, Zuk badakizu maite zaitudana. Jn 21, 15.17

Jaunartze ondorengoa

Apostoluen irakaspenez argitu dituzu, Jauna,
zeure fededunak;
indarbarritu dagiezala zerutar sakramentuek.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

16. SAN PEDRO APOSTOLUARENA

Meza honetan kolore gorria erabiliko da.

Sarrera-ant. Jaunak esan eutson Simon Pedrori: Nik otoitz egin dot zure alde, zure fedea amatatu ez dadin. Eta zuk, Nigana bihurtzean, sendotu egizuz zeure senideak. Lk 22, 32

Otoitza

Oi Jainko, zeure apostolu Pedro santuari
zeruetako erreinuko giltzak emonik,
lotzeko eta askatzeko ahalmena emon zeuntsan;
egizu, haren otoitzari esker,
askatuak izan gaitezala geure pekatuen loturetatik.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa

Goi-agerpena egin zeuntsan, Jauna,
Pedro apostolu santuari,
Zeu, Jainko bizi hori, eta zure Semea autortzeko,
eta heriotza aintzatsua jasatea emon zeuntsan
bere Maisuaren testigantza egiteko;
onartu egizu onez, zure apostolu honen oroitzapenean
zeure herriak egiten deutsun eskeintza hau.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Prefazioa: Apostoluen I.a, 528. or.

Jaunartze-ant. Pedrok esan eutson Jesusi: Zu Mesias zara, Jainko biziaren Semea. Jesusek erantzun eutson: Zu Pedro zara, hatxa; hatx horren gainean eraikiko dot Nik neure Eleizea. Mt 16, 16.18

Jaunartze ondorengoa

Salbazinoko jatorduan onartu gaituzu, Jauna,
Pedro apostolu santuaren oroipena egiten dogunok;
eskerrak emoten deutsuguz eta arren eskatzen,
bizi gaitezala beti zure Semeari loturik,
berak bakarrik ditualako berba bizi-emoileak,
zure artaldeko kide leial izanik,
betiko larreetara zoriontsu eroan gaizuzan.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

17. SAN PAULO APOSTOLUARENA

Meza honetan kolore gorria erabiliko da.

Sarrera-ant. Badakit norengan jarri dodan uste ona eta ziur nago, badauala epaile zuzen horrek indarrik nire esku itzi dauan fede-gordailua azken egunera arte zaintzeko. 2 Tm 1, 12; 4, 8

Otoitza

Jainko Jauna, era miragarrian aukeratu zenduan
Paulo apostolu santua Barri Ona zabaltzeko;
egizu, heldu dadila mundu guztira
harek hainbeste agintariri eta herrialderi iragarritako fedea,
Eleizea eten barik hazten joan daiten.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa

Zerutar misterio honeek ospatzean,
otoitz egiten deutsugu, Jauna:
bete dagiala Espiritu Santuak gure bihotza
zure aintza ezagutu ahal izateko
Paulo apostolu santua argitu eban fede beraz.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Prefazioa: Apostoluen I.a, 528. or.

Jaunartze-ant. Bere bizia nire alde emoteraino maitatu ninduan Jainkoaren Semeaganako sinismenean oinarriturik bizi dot neure giza bizitza. Ga 2, 20

Jaunartze ondorengoa

Zeure Semearen Gorputz-Odolez janaritu gaituzu, Jauna;
egizu, Kristo bera izan daitela gure bizia,
eta ez gaizala ezerk haren maitasunetik aldendu;
eta, Paulo apostolu santuak irakatsi eban lez,
bizi gaitezala geure senideak maitatuz.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

18. EDOZEIN APOSTOLU SANTURENA

Meza honetan kolore gorria erabiliko da. Apostolu beraren jaieguneko Mezea emongo da. Baina beste apostoluren bategaz alkarturik ospatzen bada eta meza-gai hareek apostolu honentzat hain egokiak ez badira, ondorengo Meza hau emongo da, jantzi gorriz.

Sarrera-ant. Iragarri egunez egun Jainkoa salbatzaile dala; zabaldu haren ospea nazinoetan. Sal 96 [95], 2-3

Otoitza

Jauna, sendotu egizu gugan
I. apostolu santua zure Semeagaz
benetan bat egin eban fedea;
eta egizu, haren otoitzari esker,
zure Eleizea izan dadila
herri guztientzat salbazino-sakramentu.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa

I. apostolu santuaren oroitzapenean dakartsugu, Jauna,
geure eskeintza;
egizu, geuk be, haren antzera,
Kristoren Ebanjelioari dagokion eran biziz,
lan egin daigula Ebanjelioaren araberako fedea zabaltzen.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Prefazioa: Apostoluen II.a, 530. or.

Jaunartze-ant. Nik erreinua emoten deutsuet, Aitak Niri emon eustan lez; nire mahaian jango eta edango dozue nire erreinuan, dino Jaunak. Lk 22, 29-30

Jaunartze ondorengoa

Betiko salbazinoaren agiria hartu dogu, Jauna,
I. apostolu santuaren oroipen-egun pozgarri honetan;
izan bekigu, arren,
oraingo eta geroko bizirako laguntza.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

19. SANTU GUZTIENA

Meza honetan kolore zuria erabiliko da.

Sarrera-ant. Pozik dagoz zeruan Kristoren pausoei jarraitu eutsien santuak; horregaitik, poz betea dabe Kristogaz betiko.

Otoitza

Santutasun guztiaren iturri zaran Jainkoa,
egizu, zure santuen otoitzari esker,
bizi gaitezala duintasunez nor bere bokazinoaren arabera,
hareei ere bakotxari bere grazia emon zeuntselako lurrean
eta sari aintzatsu bera guztiei zeruan.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa

Atsegin bekizuz, Jauna,
santu guztien omenez dakartsuguzan oparigaiak;
eta egizu, Zugan hilezkor autortzen doguzanok
gure salbazinoaz arduratuak sentidu daiguzala.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Prefazioa: Santuena, 531-532. or.

Jaunartze-ant. Zorionekoak bihotz-garbi diranak, eurek ikusiko dabe-eta Jainkoa. Zorionekoak bakegileak, Jainkoaren seme-alaba izango dira-eta. Zorionekoak zuzentasunagaitik erasoa jasaten dabenak, eurena dabe-eta Jainkoaren erreinua. Mt 5, 8-10

Jaunartze ondorengoa

Oi Jainko, ogi beraz indarbarritzen gaituzu
eta itxaropen beraz sendotzen;
indartu gaizuz guztiz zeure graziaz,
danok, zure santuekin batera,
Kristogan gorputz bat eta arima bat izanik,
beragaz biztu gaitezan aintzarako.
Errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

HILDAKOEN ALDEKO MEZAK

1. Meza bakotxa osorik eskeintzen da, bere antifona eta otoitzekin, meza-emoileari erosoago izan dakion; baina meza-gaiok, batez be otoitzak, aldatu leitekez euren artean, kontuan izanik gizonezkoa ala emakumea dan, eta bat ala gehiago diran, behar diran aldaketak egiteko.

Era berean, hiletarako nahiz urtemugarako eskeintzen diran otoitzetan, beste inoiz erabiltzen badira, esan barik itziko dira egokiak ez diran hitzak.

2. Pazkoaldian antifona ondorengo Aleluia esan barik itzi leiteke, egoki eretxi ezkero.

I. HILETETAN

Hileta Mezea egunero emon leiteke; ez, ostera, jai oso diran festaburuetan, Eguen Santuan, Pazko Hirurrenean eta Abendualdiko, Garizumako eta Pazkoaldiko domeketan.

1. Hileta-ospakizuna hildako bakarrarentzat

A. Pazkoaldiaz kanpo

Sarrera-ant. Emoiezu, Jauna, hildakoei betiko atsedena, eta argi egin begie betiko argiak. Ik. 4 Esd 2, 34-35

Otoitza Jainko Aita ahalguztiduna,
zure Semea hil eta biztu dala autortzen dau gure fedeak;
egizu zeure onginahiz,
heriotzean zure Semeagaz bat egin dan I. zure zerbitzaria,
misterio honen bidez,
poztu dadila haren biztueran ere parte izateaz.
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Edo:

Oi Jainko, Zuri beti errukitzea eta parkatzea dagokizu;
[gaur] mundu honetatik Zeugana deitu dozun
I. zure zerbitzariarentzat apalik eskatzen deutsugu,
Zugan itxaron eta sinistu dauan ezkero,
eroan dagizula egiazko aberrira
eta gozatu dagiala betiko zoriona.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa

Jauna, I. zure zerbitzariaren salbazinorako
eskeintzen deutsugu oparigai hau,
eta zure bihotz onari eskatzen:
zure Semea Salbatzaile bihozbera dala sinistu eban honek
aurkitu dagiala orain Epaile errukitsua.
Errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Prefazioa: Hildakoena, 552-559. or.

Jaunartze-ant.

Betiko argiak argi egin begie, Jauna, bizi beitez zure santuekin betiko, errukior zara-eta. Emoiezu, Jauna, hildakoei betiko atsedena eta argi egin begie betiko argiak; bizi beitez zure santuekin betiko, errukior zara-eta. Ik. 4 Esd 2, 34-35

Jaunartze ondorengoa

Jainko Jauna,
zure Semeak bere Gorputz santuaren sakramentua
itzi deusku bideko janari;
egizu, zeure onginahiz,
I. gure senidea, sakramentu honen bidez,
heldu dadila Kristoren betiko mahai berera.
Errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

B. Pazkoaldiaz kanpo

Sarrera-ant.

Zabaldu deiola Jaunak zeruko atea, aberri haretara bihurtu dadin. Han ez da heriotzarik, han betiko poza eten barik.

Otoitza

Oi Jainko, pekatarientzat errukia zara
eta zeure santuentzat zoriona;
[gaur] I. zure zerbitzariaren gorpuari
gizabidez lur emongo deutsagun honetan,
egizu, arren, partedun zeure aukeratuakaz zeruko zorionean,
bizitza honetako heriotza-lokarrietatik askatuta,
emon deiozula zure aurpegiaren aurrera agertzea
biztuera-egunean.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Edo:

Oi Jainko, muga jarri zeuntsan oraingo bizitzaldiari,
betiko bizitzarako sarrerea edegiz;
apalik eskatzen deutsugu,
ezarriarazo dagizula, zeure errukiaren graziaz,
I. zeure zerbitzariaren izena bizidunen liburuan.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa

Agertu zaitez, Jauna, I. zeure zerbitzariaren alde;
eta, hilobiratuko dogun egunean
senide honentzat eskeintzen deutsugun
bake-sakrifizio honen bidez,
arren eskatzen deutsugu,
pekatu-kutsurik edo giza makaltasunez egindako hutsik
gelditu bajako,
garbitu eta parkatu deiozula zeure errukiari esker.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Prefazioa: Hildakoena, 552-559. or.

Jaunartze-ant.

Salbatzailea, Jesu Kristo gure Jauna, itxaroten dogu; harek antzaldatuko dau gure gorputz ezerez hau, bere gorputz aintzatsuaren irudiko eginez. Ik. Flp 3, 20-21

Jaunartze ondorengoa

Jainko ahalguztiduna,
Zuri otoitz egiten deutsugu,
[gaur] mundu honetatik joan jakun
I. zure zerbitzariarentzat:
sakrifizio honen bidez garbiturik eta pekatutik askaturik,
jadetsi dagiala biztueraren betiko zoriona.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

C. Pazkoaldian

Sarrera-ant. Jesus hil eta biztu zan lez, Jesusegaz bat eginik hil diranak ere Jainkoak beragaz hartuko ditu. Adamegaz daben alkartasunagaitik gizaki guztiak hiltzen diran lez, Kristogaz daben alkartasunagaitik guztiak bihurtuko dira bizira, aleluia. Ik. 1 Ts 4, 14; 1 Ko 15, 22

Otoitza

Entzun, Jauna, bihotz onez gure eskariak;
eta sendotu hilen artetik biztua dan
zure Semeagan dogun fedea,
I. gure senidea biztuko dan itxaropena ere
gugan sendoagoa izan dadin.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Edo:

Oi Jainko, orainaldikoak amaituarazoz
gerokoen hasierea erakusten dozu;
egizu, arren, I. zure zerbitzariaren arimea, Zeuk gidaturik,
betiko salbazinoan parte izatera heldu dadila.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa

Begira, Jauna, begi onez gure eskeintza honi;
hartu egizu I. zure zerbitzaria
zeruko aintzan zeure Semeagaz,
bat egiten gaitu-eta harek bere maitasun-misterio handian.
Errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Prefazioa: Hildakoena, 552-559. or.

Jaunartze-ant. Neu naz biztuerea eta bizia, dino Jaunak; Nigan sinisten dauana, hil arren ere, biziko da, eta bizi dana, Nigan sinisten badau, ez da betiko hilko, aleluia. Jn 11, 25-26

Jaunartze ondorengoa

Egizu, Jauna, I. zure zerbitzaria
sartu dadila argi eta bake dan bizilekura,
beraren alde ospatu dogu-eta pazko-sakramentua.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

D. Hileta Mezarako beste otoitz batzuk

Otoitza

Oi Jainko,
Zeuk bakarrik emon zeinke bizia heriotzaren ondoren;
askatu egizu I. gure senidea pekatu guztietatik;
Kristoren biztueran sinistu dauan ezkero,
biztuera-egunean Zeugaz alkartu dadila zoriontsu zeruan.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa

Jainko ahalguztidun errukitsua,
sakrifizio honetan eskeintzen dan Kristoren odolaz
kendu egizuz I. zure zerbitzariaren pekatuak,
eta egizu, zure bihotz onak egin dagiala gero eta garbiago
Bateoko uretan garbitu zenduan hau.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Jaunartze ondorengoa

Gugaitik hil eta aintzaz biztu zan
zure Semearen sakramentua harturik,
apalik eskatzen deutsugu, Jauna, I. gure senidearen alde:
Kristoren pazko-misterioan garbiturik,
lortu dagiala biztuera-egunean zorion betea.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

E. Bateatutako umetxuaren hiletetan

1

Sarrera-ant. Zatoze, nire Aitaren bedeinkatuok, dino Jaunak; hartu egizue munduaren sortzetik zuentzat prestaturik dagoan erreinua (P.a. aleluia).
Mt 25, 34

Otoitza

Jainko guztiz ona,
zure jakituriaz halan erabagirik,
Zeugana dei egin deutsazu umetxu honi
bere bizitzaren hasieran;
Bateoko graziaz zeure seme [alaba] egin zenduan hau
orain zure erreinuan bizi dala sinisten dogu;
entzun onginahiz gure eskariak
eta emoiguzu, geu ere, egunen baten,
honegaz batera betiko bizian partaide izatea.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa

Egizuz santu, Jauna, guk eskeinitako dohai honeek,
eta guraso honeek izan dagiela Zuk emon deutsezun
eta Zuri bihurtu deutsuen umetxu hau
zure erreinuan barriro besarkatzeko poza.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Prefazioa: Hildakoena, 552-559. or.

Jaunartze-ant. Bateoaren bitartez Kristogaz hobiratuak izan garanok heriotzean, sinisten dogu bizi ere Kristogaz biziko garala (P.a. aleluia).
Ik. Erm 6, 4.8

Jaunartze ondorengoa

Zure Semearen Gorputz-Odolak harturik, Jauna,
uste onez eskatzen deutsugu,
betiko biziaren itxaropenean
zeure sakramentuaz janaritu dituzunoi
emon deiezula
bizitza honetako atsekabeetan kementsu izatea.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

2

Beste otoitz batzuk

Otoitza

Oi Jainko,
ikusten dozu zein nahigabetua dogun bihotza
I. umetxu hau joan jakulako;
egizu, zure asmoen arabera
mundu honetarako hilda dagoan honegaitik
negar egiten dogun lez,
sinistu daigula
betiko bizilekuan hartu dozula zeruan.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa

Onartu, oi Jainko,
zeure zerbitzari gozuzala adierazoten dauan eskeintza hau;
eta zure jakituriaren asmoak uste osoz onartzen doguzanok
poztu gaizuz zeure errukiaren gozotasunez.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Jaunartze ondorengoa

Zerutar dohaiak harturik, Jauna, otoitz egiten deutsugu:
umetxu hau zeruetako erreinuko mahaian jarri dozun lez,
emoiguzu geuri ere partedun izatea mahai berean.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

F. Oraindino bateatu bako umetxuaren hiletetan

Bateoa hartu barik hil dan umetxuaren hiletak ospatzean, bere gurasoek bateatu nahi eben umea bada, arrazoi pastoralak kontuan harturik, eleizbarrutiko Gotzainak baimena emon leike hiletak hildakoaren etxean bertan egiteko, baita beste hildakoentzat herrialdean egiten diran hileta-eran egiteko ere.

Holako hiletetan, gehienetan, hitzaren liturgi ospakizuna egingo da, Erromako Hileta-liburuan esaten danez. Baina, noiz edo noiz, Meza emotea egoki eretxi ezkero, ondoren emoten diran meza-gaiak erabiliko dira.

Bateoa hartu ez dauan umetxuaren hiletak ospatzen diranean, kontu izan behar da fededunen katekesian Bateoaren beharrezkotasuna ez dadila zalantzan geratu.

Sarrera-ant. Begietako malkoak sikatuko deutsez Jainkoak, eta ez da gehiago heriotzarik izango, ez dolurik, ez negarrik, ez nekerik, lehengo mundua desagertu da-eta. Ap 21, 4

Otoitza Entzun, Jauna, zeure fededunen otoitzak,
eta egizu, umea galdu dabelako
nahigabeturik dagozan guraso honeei emon deiela adore
zure errukian uste osoz jarrita daukien itxaropenak.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Edo:

Oi Jainko, Zeuk dakizu bihotzen barri
eta, errukiturik, Zeuk kontsolatzen dituzu;
guraso honeen fedearen barri dakizun ezkero,
egizu, euren umea mundu honetarako hil jakelako
negarrez dagozan honeek sentidu dagiela
zure errukiaren besoetan itzi dabela.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa

Onartu, oi Jainko,
zeure zerbitzari gaituzula adierazoten dauan eskeintza hau,
eta zure jakituriaren asmoak uste osoz onartzen doguzanok
poztu gaizuz zeure errukiaren gozotasunez.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Prefazioa: Hildakoena, 552-559. or.

Jaunartze-ant.

Betiko hondatuko dau Jaunak heriotzea; lehortuko ditu Jainkoak aurpegi guztietako negar-malkoak. Is 25, 8

Jaunartze ondorengoa

Zure Semearen Gorputz-Odolak harturik, Jauna,
uste onez eskatzen deutsugu,
betiko biziaren itxaropenean
zure sakramentuez janaritu dituzunei
emon deiezula
bizitza honetako atsekabeetan kementsu izatea.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

2. Hileta ospakizuna hildako batzuentzat

A. Pazkoaldiaz kanpo

Sarrera-ant.

Emoiezu, Jauna, hildakoei betiko atsedena, eta argi egin begie betiko argiak. Ik. 4 Esd 2, 34-35

Otoitza

Jainko Aita ahalguztiduna,
zure Semea hil eta biztu dala autortzen dau gure fedeak;
egizu zeure onginahiz,
heriotzan zure Semearekin bat egin diran
I. eta I. zure zerbitzariak, misterio honen bidez,
poztu daitezala beraren biztueran ere parte izateaz.
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Edo:

Oi Jainko, Zuri beti errukitzea eta parkatzea dagokizu;
[gaur] mundu honetatik Zeugana deitu dozuzan
I. eta I. zure zerbitzarientzat apalik eskatzen deutsugu,
Zugan itxaron eta sinistu daben ezkero,
eroan daizuzala egiazko aberrira
eta goza dagiela betiko zoriona.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa

Jauna, I. eta I. zure zerbitzarien salbazinorako
eskeintzen deutsugu oparigai hau,
eta zure bihotz onari eskatzen:
zure Semea Salbatzaile onbera dala sinistu eben honeek
aurkitu dagiela orain Epaile errukitsua.
Errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Prefazioa: Hilen aldekoa, 552-559. or.

Jaunartze-ant.

Betiko argiak argi egin begie, Jauna, bizi beitez zure santuekin betiko, errukior zara-eta. Emoiezu, Jauna, hildakoei betiko atsedena eta argi egin begie betiko argiak; bizi beitez zure santuekin betiko, errukior zara-eta. Ik. 4 Esd 2, 34-35

Jaunartze ondorengoa

Jainko Jauna.
zure Semeak bere Gorputz santuaren sakramentua
itzi deusku bideko janari;
egizu, zeure onginahiz,
I. eta I. gure senideak, sakramentu honen bidez,
heldu daitezala Kristoren betiko mahai berera.
Errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

B. Pazkoaldiaz kanpo

Sarrera-ant. Zabaldu deiola Jaunak zeruko atea, aberri haretara bihurtu daiten. Han ez da heriotzarik, han betiko poza eten barik.

Otoitza Oi, Jainko, pekatarientzat errukia zara
eta zeure santuentzat zoriona;
[gaur] I. eta I. zure zerbitzarien gorpuei
gizabidez lur emotera goazen honetan,
egizuz, arren, partedun
zeure aukeratuekin zeruko zorionean,
eta, bizitza honetako heriotza-lokarrietatik askatuta,
emoiezu zure aurpegiaren aurrera agertzea
biztuera-egunean.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi zara-eta gizaldi eta gizaldietan.

Edo:

Oi, Jainko, muga jarri zeuntsan oraingo bizitzaldiari,
betiko bizirako sarrera edegiz;
apalik eskatzen deutsugu,
jarriazo daizuzala, zeure errukiaren graziaz,
I. eta I. zure zerbitzarien izenak bizidunen liburuan.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa Agertu zaitez, Jauna, I. eta I. zure zerbitzarien alde;
eta, lurperatuko doguzan egunean
senide honeentzat eskeintzen deutsugun
bake-sakrifizio honen bidez,
arren eskatzen deutsugu,
pekatu-kutsurik edo giza makaltasunez egindako hutsik
gelditu bajake,
garbitu eta parkatu deiezula zeure errukiari esker.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Prefazioa: Hilen aldekoa, 552-559. or.

Jaunartze-ant. Salbatzailea, Jesu Kristo gure Jauna, itxaroten dogu; berak antzaldatuko dau gure gorputz ezerez hau, bere gorputz aintzatsuaren irudiko eginez. Ik. Flp 3, 20-21

Jaunartze ondorengoa

Jainko ahalguztiduna,
Zuri otoitz egiten deutsugu,
[gaur] mundu honetatik joan jakuzan
I. eta I. zure zerbitzarientzat:
sakrifizio honen bidez garbiturik eta pekatutik askaturik
lortu dagiela biztueraren betiko zoriona.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

C. Pazkoaldian

Sarrera-ant. Jesus hil eta biztu zan lez, Jesusegaz bat eginik hil diranak be Jainkoak beragaz hartuko ditu. Adamegaz daben alkartasunagaitik gizaki guztiak hiltzen diran lez, Kristorekin daben alkartasunagaitik guztiak bihurtuko dira bizira, aleluia. Ik. 1 Ts 4, 14; 1 Ko 15, 22

Otoitza

Entzun, Jauna, bihotz onez, gure eskariak
eta sendotu hilen artetik biztua dan
zure Semeagan dogun fedea,
I. eta I. gure senideak biztuko diran itxaropena be
gugan sendoagoa izan daiten.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Edo:

Oi, Jainko, orainaldikoak amaituazoz
gerokoen hasiera erakusten dozu;
egizu, arren, I. eta I. zure zerbitzarien arimak, Zeuk gidaturik,
betiko salbazinoan parte izatera heldu daitezala.

Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa

Begira, Jauna, begi onez, gure eskeintza honi;
hartu egizuz I. eta I. zeure zerbitzariak
zeruko aintzan zeure Semearekin,
bat egiten gaitulako harek bere maitasun-misterio handian.
Errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Prefazioa: Hilen aldekoa, 552-559. or.

Jaunartze-ant.

Neu naz biztuera eta bizia, dino Jaunak; Nigan sinisten dauana, hil arren be, biziko da, eta bizi dana, Nigan sinisten badau, ez da betiko hilko, aleluia. Jn 11, 25-26

Jaunartze ondorengoa

Egizu, Jauna, I. eta I. zure zerbitzariak
sartu daitezala argi eta bake dan bizilekura,
euron alde ospatu dogu-eta pazko-sakramentua.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

D. Hileta Mezarako beste otoitz batzuk

Otoitza

Oi, Jainko,
Zeuk bakarrik emon zeinke bizia heriotzaren ondoren;
askatu egizuz I. eta I. gure senideak pekatu guztietatik;
Kristoren biztueran sinistu daben ezkero,
biztuera-egunean Zeugaz alkartu daitezala zoriontsu zeruan.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa

Jainko ahalguztidun errukitsua,
sakrifizio honetan eskeintzen dan Kristoren odolaz
kendu egizuz I. eta I. zure zerbitzarien pekatuak,
eta egizu, zure bihotz onak egin daizala gero eta garbiago
Bateoko uretan garbitu zenduzanok.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Jaunartze ondorengoa

Gugaitik hil eta aintzaz biztu zan
zure Semearen sakramentua harturik,
apalik eskatzen deutsugu, Jauna,
I. eta I. gure senideen alde:
Kristoren pazko-misterioan garbituta,
lortu dagiela biztuera-egunean zorion betea.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

E. Bateatutako umetxuen hiletetan

1

Sarrera-ant.

Zatoze, nire Aitaren bedeinkatuok, dino Jaunak; hartu egizue munduaren sortzetik zuentzat prestaturik dagoan erreinua (P.a. aleluia).
Mt 25, 34

Otoitza

Jainko guztiz ona,
zeure jakituriaz halan erabagita,
Zeugana deitu dozuz umetxu honeek
euren bizitzaren hasieran;
Bateoko graziaz zeure seme eta alaba egin zenduzan honeek
orain zure erreinuan bizi dirala sinisten dogu;
entzun, onbera, gure eskariak
eta emoiguzu, geu be, egunen baten
eurokaz batera betiko bizian partaide izatea.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa

Egizuz santu, Jauna, guk eskeinitako dohaiok,
eta guraso honeek izan dagiela Zuk emon deutsezun
eta Zuri bihurtu deutsuen umetxua
zure erreinuan barriro besarkatzeko poza.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Prefazioa: Hilen aldekoa, 552-559. or.

Jaunartze-ant. Bateoaren bitartez Kristorekin hobiratuak izan garanok heriotzan, sinisten dogu bizi be Kristorekin biziko garala (P.a. aleluia).

Ik. Erm 6, 4.8

Jaunartze ondorengoa Zure Semearen Gorputz Odolak harturik, Jauna,
uste onez eskatzen deutsugu,
betiko biziaren itxaropenean
zeure sakramentuaz janaritu dozuzanei
emon deiezula
bizitza honetako atsekabeetan kementsu izatea.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

2
Beste otoitz batzuk

Otoitza Oi, Jainko,
ikusten dozu zein nahigabetua daukagun bihotza
I. eta I. umetxu honeek joan jakuzalako;
egizu, zure asmoen arabera,
mundu honetarako hilda dagozanokaitik
negar egiten dogun moduan,
sinistu daigula
betiko bizilekuan hartu dozuzala zeruan.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa Onartu, oi Jainko,
zeure zerbitzari gaituzula adierazten dauan eskeintza hau;
eta zeure jakituriaren asmoak uste osoz onartzen ditugunok
poztu gagizuz zeure errukiaren gozotasunez.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Jaunartze ondorengoa Zerutar dohaiak harturik, Jauna, otoitz egiten deutsugu:
umetxu honeek zeruetako erreinuko mahaian
jarri dozuzan lez,
emoiguzu geuri be partedun izatea mahai berean.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

F. Ondino bateatu bako umetxuen hiletetan

Bateoa hartu barik hil diran umetxuen hiletak ospatzean, euren gurasoek bateatu nahi ebezan umeak badira, arrazoi pastoralak kontuan harturik eleizbarrutiko Gotzainak baimena emon leike hiletak hil diran honeetako baten etxean bertan egiteko, baita gainerako hildakoentzat herrialdean egin ohi diran hileta-eran egiteko be.

Horrelako hiletetan, normalean, hitzaren liturgi ospakizuna egingo da, Erromako Hileta-liburuan esaten danez. Baina, noiz edo noiz, Meza emotea egoki eretxi ezkero, ondoren emoten diran meza-gaiak erabiliko dira.

Bateoa hartu ez daben umetxuen hiletak ospatzen diranean, kontu izan behar da fededunen katekesian Bateoaren beharrezkotasuna ez dadila zalantzan jarri.

Sarrera-ant. Begietako malkoak sikatuko deutsez Jainkoak, eta ez da gehiago heriotzarik izango, ez dolurik, ez negarrik, ez nekerik, lehengo mundua desagertua da-eta. Ap 21, 4

Otoitza Entzun, Jauna, zeure fededunen otoitzak,
eta egizu, umea galdu dabelako
nahigabeturik dagozan guraso honeei emon deiela adore
zure errukian uste osoz jarrita dauken itxaropenak.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Edo:

Oi, Jainko, Zuk badakizu bihotzen barri
eta, errukiturik, Zeuk konsolatzen dozuz;
guraso honeen fedearen barri badakizun ezkero,
egizu, euren umea mundu honetarako hil jakelako
negarrez dagozanok sentidu dagiela
zure errukiaren besoetan itzi dabela.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa

Onartu, oi Jainko,
zeure zerbitzari gaituzula adierazten dauan eskeintza hau,
eta zure jakituriaren asmoak uste osoz onartzen doguzanok
poztu gagizuz zeure errukiaren gozotasunez.
Jesu Kristo gure Jaunare bitartez.

Prefazioa: Hilen aldekoa, 552-559. or.

Jaunartze-ant.

Betiko hondatuko dau Jaunak heriotzea; sikatuko ditu Jainkoak aurpegi guztietako negar-malkoak. Is 25, 8

Jaunartze ondorengoa

Zure Semearen Gorputz Odolak harturik, Jauna,
uste onez eskatzen deutsugu,
betiko biziaren itxaropenean
zure sakramentuez janaritu dozuzanei
emon deiezula
bizitza honetako atsekabeetan kementsu izatea.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

II. URTEMUGAN

Meza hau lehenengo urtemugan emon leiteke, baita Gabonetako zortziurrenaren barruan eta beharrezko oroipena danean nahiz astegunetan be; ez, ostera, Hauts-egun-egunean edo Aste Santuan.

Gainerako urtemugetan Urtean Zeharreko astegunetan emon leiteke, nahierazko oroipena izan arren.

A. Pazkoaldiaz kanpo

Sarrera-ant. Begietako malkoak sikatuko deutsez Jainkoak, eta ez da gehiago heriotzarik izango, ez dolurik, ez negarrik, ez nekerik, lehengo mundua desagertu da-eta. Ap 21, 4

Otoitza

Fededunen zoriona eta zintzoen bizia zaran Jainkoa:
Zeuk salbatu gaituzu zeure Semearen heriotzaz eta biztueraz;
erruki zaitez I. gure senideaz
eta egizu, biztueraren misterioa sinistu dauan ezkero,
gozatu dagiala betiko zorionaren poza.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa

Begira, Jauna, begi onez,
I. zure zerbitzariaren arimarentzat
egiten deutsugun eskeintzari;
zerutar osagaiez garbiturik,
zure aintzan bizi dadin zoriontsu betiko.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Prefazioa: Hildakoena, 552-559. or.

Jaunartze-ant. Neu naz biztuerea eta bizia, dino Jaunak; Nigan sinisten dauanak betiko bizia dau; halakoa ez da kondenatua izango, heriotzatik bizira igaro da-eta honezkero. Ik. Jn 11, 25; 5, 24

Jaunartze ondorengoa

Jaunartze santuak indarbarriturik,
ahuspez eskatzen deutsugu, Jauna:
I. zure zerbitzaria pekatu guztietatik garbiturik,
aberastu daizula biztueraren betiko dohaiaz.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

B. Pazkoaldiaz kanpo

Sarrera-ant. Jesus Jauna, emon hildakoei betiko atsedena, eurentzat isuri dozu-eta zeure odol baliotsua.

Otoitza

I. zure zerbitzariarentzat otoitz egiten deutsugu, Jauna,
hil zaneko urtebetetze honetan;
isuri egizu bere gainera zeure betiko errukia, iruntza lez,
eta emoiozu zure santuen alkartean bizitzea.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa

Entzun, Jauna,
I. zure zerbitzariarentzat, hil zaneko urtebetetze honetan,
egiten deutsuguzan eskariak;
bake- eta gorapen-sakrifizio honen bidez,
eroaizu zeure santuen alkartera.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Prefazioa: Hildakoena, 552-559. or.

Jaunartze-ant. Nekearen ondoren Zeu zara, Jauna, atsedena; heriotzearen ondoren, Zeu bizia; emoiezu gure hildakoei betiko atsedena.

Jaunartze ondorengoa

Bihotz onez hartu dituzu, Jauna,
I. zure zerbitzariaren arimearentzat
egin doguzan otoitzak eta eskeini dogun sakrifizioa;
apalik eskatzen deutsugu,
pekatu-kutsurik gelditu bajako,
Zuk zeure errukiaz emondako parkamenak garbitu dagiala.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

C. Pazkoaldian

Sarrera-ant. Jesus hilen artetik biztu eban Jainkoak biziazoko ditu gure gorputz hilkorrak be, gugan bizi dan Espirituaren bitartez, aleluia.
Ik. Erm 8, 11

Otoitza

Jainko ahalguztidun errukitsua,
zure Semeak bere gogoz jasan eban heriotzea gugaitik;
emoiozu, bihotz onez, I. zure zerbitzariari
bat izatea beragaz biztuerako garaipen miragarrian.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa

Jainko ahalguztidun errukitsua,
sakrifizio honetan eskeintzen dan Kristoren odolaz
garbitu egizu I. zure zerbitzariaren arimea bere pekatuetatik,
eta egizu, zure bihotz onak egin dagiala gero eta garbiago
Bateoko uretan garbitu zenduan hau.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Prefazioa: Hildakoena, 552-559. or.

Jaunartze-ant. Neu naz zerutik jatsia dan ogi bizia, dino Jaunak; ogi honetatik jaten dauana betiko biziko da; eta Nik emongo dodan ogia neure haragia da, mundua bizi dadin emona, aleluia.
Jn 6, 51

Jaunartze ondorengoa

Gugaitik hil eta aintzaz biztu zan
zure Semearen sakramentua harturik,
apalik eskatzen deutsugu, Jauna, I. gure senidearen alde:
Kristoren pazko-misterioan garbiturik,
jadetsi dagiala biztuera-egunean zorion betea.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

D. Beste otoitz batzuk urtemugarako

Otoitza

Jainko Jauna,
zeure Semearen nekaldi dohatsuaren bidez,
emoiozu I. zeure zerbitzariari
berak beti lortu nahi izan eban pekatuen parkamena:
Zu zeure egiazko izatean ezaguturik,
betiko zoriona gozatu dagian Zu ikusiz.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa

Apalik eskeintzen deutsugu, Jauna, sakrifizio hau
I. zure zerbitzariarentzat;
egizu, mundu honetan
fedearen dohaiaz argiturik ezagutu zinduzana
poztu daitela beti Zugaz izateaz.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Jaunartze ondorengoa

Bizibarritzen gaituan janariaz asetu gaituzu, Jauna;
egizu, janari honen bidez,
I. gure senidea, pekatu guztietatik garbiturik,
sartu dadila zeruko alkartean.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

E. Beste otoitz batzuk urtemugarako

Otoitza

Jainko parkatzailea,
I. zure zerbitzariaren heriotzako urtebetetzea ospatzen dogu;
emoiozu haren arimeari bakearen atsedena,
bake zoriontsua eta argi distiratsua.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa

Izan daitezala zuretzat atsegingarri, Jauna,
gure otoitzak eta emoitzak;
I. zure zerbitzariaren salbazinorako
egiten dogun opari honen bidez
jadetsi dagiala zure salbazino betea.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Jaunartze ondorengoa

Jainko ahalguztiduna, I. zure zerbitzariaren arimearentzat
eskeini deutsugu Zuri, Jainko handi horri, sakrifizio hau;
egizu, sakramentu honen indarrez eta zure errukiari esker
pekatu guztietatik garbiturik,
izan dagiala betiko argiaren zoriona.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

III. OROIPEN BATZUETARAKO

Meza hau heriotzearen barri izan ondoren nahiz hildakoa hilobiratzekoan emon leiteke, baita Gabonetako zortziurrenaren barruan eta beharrezko oroipena dan egunetan edo astegunetan be; ez, ostera, Hauts-egun-egunean edo Aste Santuan.

Hilen aldeko «ohiko» Mezea Urtean Zeharreko astegunetan emon leiteke, nahierazko oroipena izan arren, egiaz hildakoen alde eskeintzen bada.

A. HILDAKO BATENTZAT

1

Sarrera-ant. Zabaldu deiola Jaunak zeruko atea, aberri haretara bihurtu dadin. Han ez da heriotzarik, han betiko poza eten barik.

Otoitza Jainko Aita ahalguztiduna,
kurutzearen misterioaz sendotu gaituzu
eta zeure Seme biztuaren ezaugarriaz markatu;
emoiozu, bihotz onez, I. zure zerbitzariari
zure aukeratuen alkartean sartzea.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Edo:

Entzun, Jauna, zure errukiari deika dihardugunon otoitzak;
eta I. zure zerbitzaria,
lur honetan errukiz zeure herriko egin zenduana,
sartu egizu orain bakearen eta argiaren erreinuan
eta egizu zeure santuen alkarteko.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Oparigaien gainekoa

Erruki zakioz, Jauna, I. zure zerbitzariari,
harentzat eskeintzen deutsugu-eta gorapen-opari hau;
apalik eskatzen deutsugu, eskeintza bakegarri honen bidez,
biztu dadila betiko bizitzarako.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Prefazioa: Hildakoena, 552-559. or.

Jaunartze-ant.

Aitak Niri emoten deustazan guztiak Neugana etorriko dira, dino Jaunak; eta Nigana etortzen danik ez dot kanpora botako. Jn 6, 37

Jaunartze ondorengoa

Bizia dakarren sakramentuaz indarbarriturik, Jauna,
otoitz egiten deutsugu I. gure senidearen arimarentzat:
zeure itunean parte izatea emon zeuntsan ezkero,
ospatu dogun misterioaren indarrez garbiturik,
poztu dadila beti Kristoren bakean.
Errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

2

Sarrera-ant.

Nik badakit nire eskubidearen babeslea bizi dana eta, azkenean, hautsaren gainetik jagiko nazana. Neure haragi berberaz ikusiko dot Jainkoa. Ik. Jb 19, 25.26

Otoitza

Askatu egizu, Jauna, I. zure zerbitzaria
pekatuen lokarri guztietatik,
mundu honetan Kristoren irudiko egin zenduana
zure santuen artean biztu eta bizi dadin biztuera aintzatsuan.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa

Egizu, Jauna, I. gure senidearen onerako izan dadila
egiten gagozanon eskeintza,
opari honen bidez parkatu dozuz-eta
mundu guztiaren pekatuak.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Prefazioa: Hildakoena, 552-559. or.

Jaunartze-ant. Hauxe da zerutik jatsi dan ogi bizia, dino Jaunak; ogi honetatik jaten dauana betiko biziko da. Ik. Jn 6, 50

Jaunartze ondorengoa On egin deiola, Jauna, I. zure zerbitzariaren arimeari
Eleizeak eskeini deutsun sakrifizioak;
eta Kristoren errukiaren sakramentua hartu eban ezkero,
egizu, beragaz alkartu dadila santuakaz batera.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

3
Beste otoitz batzuk

Otoitza Oi Jainko, hildakoak bizirik dagoz Zugan
eta santuek Zugan gozatzen dabe zorion betea;
apalik eskatzen deutsugu,
mundu honetako argia galdu dauan I. zure zerbitzaria
poztu dadila betiko argiaren zorionaz.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa Atsegin bekizu, Jauna,
I. zure zerbitzariaren arimarentzat
eskeintzen deutsugun sakrifizio hau;
lortu dagiala zure bihotz onagandik
eskatu eban pekatuen parkamena,
poztu dadila beti santuakaz batera
eta goratu dagiala beti zure aintza.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Jaunartze ondorengoa Zerutar dohaiak harturik, eskerrak emoten deutsuguz, Jauna,
eta apalik otoitz egiten I. zure zerbitzariaren arimarentzat:
zure Semearen nekaldiari esker
pekatuen lokarrietatik askaturik,
heldu dadila zoriontsu Zugana.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

4
Beste otoitz batzuk

Otoitza

Igon dagiela Zugana, Jauna, gure eskariek,
eta sartu dadila I. zure zerbitzariaren arimea betiko zorionean:
zeure irudiko eta seme-ordeko [alaba-ordeko] egin zenduanez,
emoiozu orain zeure ondarean parte izatea.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa

Onartu, Jauna, bihotz onez
I. zure zerbitzariaren arimarentzat
uste osoz egiten deutsugun eskeintza,
eta, danentzako osabide miragarri
egin nahi izan dozun opari honen bidez,
emoiozu betiko salbazinoa.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Jaunartze ondorengoa

Janari santuaz indarbarriturik, Jauna,
otoitz egiten deutsugu I. gure senidearentzat:
heriotzearen lokarrietatik askaturik,
poztu dadila zure Semearen biztueran parte izateaz.
Errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

5
Beste otoitz batzuk

Otoitza

Entzun, Jauna, errukiz gure otoitzak,
eta emoiozu I. gure senidearen arimari
pekatu guztien parkamena,
biztuera-egunean bizi dadin
eta argi ederrean atsedena gozatu dagian.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa

Jainko ahalguztidun betikoa,
zure Semeak bere burua emon euskun bizirako ogi,
eta bere odola isuri eban salbazino-edari;
erruki zakioz I. zeure zerbitzariari,
orain eskeintzen deutsugun oparia
salbazino-iturri izan dakion.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Jaunartze ondorengoa

Betiko biziaren agiria harturik, Jauna,
apalik otoitz egiten deutsugu
I. zure zerbitzariaren arimarentzat:
heriotzearen lokarrietatik askaturik,
sartu ahal izan dadila salbatuen alkartasunean.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

B. HILDAKO BATZURENTZAT NAHIZ GUZTIENTZAT

1

Sarrera-ant.

Emoiezu, Jauna, hildakoei betiko atsedena, eta bete egizuz zeure argiaren distiraz.

Otoitza

Oi Jainko, zeure Seme bakarra, heriotza garaiturik,
zeruko aintzara sartuazo zenduan;
egizu, [I. eta I.] gure senideek be,
bizitza honetako izate hilkorra garaiturik,
betieran ikusi zagiezala Zu, euren egile eta salbatzaile hori.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa

Begira, Jauna, begi onez
zure zerbitzarien arimentzat egiten deutsugun eskeintzari,
eta, kristau-fedean bizitzeko grazia emon zeuntsen lez
emoiezu fede horren saria be.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Prefazioa: Hildakoena, 552-559. or.

Jaunartze-ant. Jainkoak bere Seme bakarra bialdu eban lurrera, gu haren bidez bizi gaitezan. 1 Jn 4, 9

Jaunartze ondorengoa

Eskeini deutsugun sakrifizio honen bidez,
isuri egizu, Jauna, zeure erruki ugaria
hildako gure senideen gainera;
eta Bateoaren grazia emon zeuntsenei
emoiezu betiko zorionaren betea.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

2

Sarrera-ant. Hain maite izan eban Jainkoak mundua ze, bere Seme bakarra emon eutson, harengan sinisten dauanik inor galdu ez dadin, betiko bizia izan dagian baino. Jn 3, 16

Otoitza

Jainko ahalguztidun betikoa,
Zeu zara gizon-emakume hilkorren bizia,
Zeu santuen poza;
ahuspez eskatzen deutsugu [I. eta I.] gure senideentzat:
heriotzaren lokarrietatik askaturik,
zure erreinuan parte izan dagiela betiko aintzan.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa

Hartu bihotz onez, Jauna,
[I. eta I.] zure zerbitzarien alde
eta Kristogan lo dagozan guztien alde
egiten deutsugun eskeintza;
zure Semearen sakrifizio bakarrari esker
heriotzaren lokarrietatik askaturik,
lortu dagiela betiko bizia.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez..

Prefazioa: Hildakoena, 552-559. or.

Jaunartze-ant. Salbatzailea, Jesu Kristo gure Jauna, itxaroten dogu; harek antzaldatuko dau gure gorputz ezerez hau, bere gorputz aintzatsuaren irudiko eginez. Ik. Flp 3, 20-21

Jaunartze ondorengoa

Jainko ahalguztiduna, apalik eskatzen deutsugu:
hartu dogun jainkozko sakramentua
balia dakigula guri salbazinorako
eta hildako zure zerbitzarien arimei parkamenerako,
zure errukia eskatzen dogu-eta eurentzat.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

3

Sarrera-ant.

Zorionekoak aurrerantzean Jaunagaz bat eginik hiltzen diranak. Atseden hartuko dabe euren nekeetatik, lagun dabez-eta euren egintza onak. Ap 14, 13

Otoitza

Jainko Jaun errukitsua,
Zeuk emoten deutsezu fededunen arimei betiko atsedena;
emoiezu, arren, [I. eta I.] gure senideei
eta Kristogan atseden hartu daben guztiei
pekatuen parkamena,
euren hoben guztietatik askatuta,
Kristoren biztueran parte izan dagien.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean.

Oparigaien gainekoa

Begira, Jauna, begi onez
hildakoen arimen atsedenerako egiten deutsugun eskeintzari;
egizu, gizakia salbatzen dauan sakramentu honi esker,
sartu daitezala, betiko, Zeuk salbatuen artean.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Prefazioa: Hildakoena, 552-559. or.

Jaunartze-ant.

Kristoren Gorputza eta Odola hartu doguz, gure hildakoen oroipenez; emoiezu, Jauna, betiko atsedena.

Jaunartze ondorengoa

Sakramentu salbagarri hau harturik, Jauna,
zure errukiari deika gagoz:
zure bihotz onak emon deigula
bizi garanoi laguntza
eta gure hildakoei betiko parkamena.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

4

Sarrera-ant. Zugan babesten naz, Jauna, ez nadila behin be lotsagarri geratu; atara nagizu onik, zuzena zara-eta. Sal 31 [30], 2

Otoitza

Fededun guztien egile eta erosle zaran Jainkoa,
emon zeure zerbitzariei pekatu guztien parkamena,
Zugandik beti itxaron eben errukia,
gure otoitzei esker, jadetsi dagien.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa

Erruki zakiez, Jauna, [I. eta I.] zure zerbitzariei,
eurentzat eskeintzen deutsugu-eta bake-opari hau;
bizitza honetan fede katolikoan iraun ebenez,
geroko bizian hartu dagiela saria.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Prefazioa: Hildakoena, 552-559. or.

Jaunartze-ant. Neu naz munduaren argia, dino Jaunak; Niri jarraitzen deustana ez da ilunpean ibiliko; izango dau bizirako argia. Jn 8, 12

Jaunartze ondorengoa

Gure otoitzek, Jauna, on egin deieela
zure zerbitzarien arimei;
sakrifizio honen bidez,
atara egizuz pekatu guztietatik
eta egizuz partaide betiko salbazinoan.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

5

Sarrera-ant. Poztu, bihotzez Jaunaren bila zabiltzenok; jo egizue indartzen dauan Jaunagana, bilatu eten barik haren aurpegia. Sal 105 [104], 3-4

Otoitza

Jainko ahalguztidun betikoa,
bizien eta hildakoen Jauna, guztiontzat errukiorra,
apalik eskatzen deutsugu:
zure bihotz onak emon deiela gure hildakoei
pekatuen parkamena,
eurentzat egiten deutsugu-eta otoitz,
Zugaz poztu daitezan eta Zu goratu zagiezan beti.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa

Onartu, oi Jainko, egiten deutsugun sakrifizio honen eskeintza
eta emon [I. eta I.] zeure zerbitzariei
Kristoren aberastasun oparoan parte izatea,
zure Semeagaz beragaz biztu daitezan
eta haren eskuman jarri.
Errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Prefazioa: Hildakoena, 552-559. or.

Jaunartze-ant.

Erakutsi aurpegi argia zerbitzari honi, salbatu nagizu zeure maitasunaz. Jauna, ez nadila lotsagarri geratu, Zuri dei egin izateagaitik.
Sal 31 [30], 17-18

Jaunartze ondorengoa

Entzun, oi Jainko,
salbazinoaren sakramentuaz janaritu gozuzan seme-alaboi,
eta, Espiritu Santuaren bitartez
Kristo zeure Seme bakarra hilen artetik biztu zenduanez,
emon [I. eta I.] zeure fededunei bizi hilezkorraren poza.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

6

Sarrera-ant.

Oi Jainko, begitu zeure Igurtzitakoaren aurpegiari. Hoba da egun bat zure atarietan, nire etxean mila baino.
Sal 84 [83], 10-11

Otoitza Emoiezu, Jauna, hildako zeure zerbitzariei betiko errukia;
Zugan izan eben sinismena eta itxaropena
balia dakiela beti.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa Jauna, zure Seme errubakoak,
bere burua gugaitik opari eskeiniz,
munduko pekatu guztiak kendu ebazan;
egizu, sakrifizio honek emon deiela
[I. eta I.] zeure zerbitzariei
giza izatearen makaltasunez egindako
hutsegite guztien parkamena.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Prefazioa: Hildakoena, 552-559. or.

Jaunartze-ant. Basahuntza gogo biziz uretara lez, halantxe nire gogoa, ene Jainko, Zugana. Jainkoaren egarri naz, Jainko biziaren egarri.
Sal 42 [41], 2-3

Jaunartze ondorengoa Zure zerbitzari honeek
eta Kristogan atseden hartu daben guztiak
argitu dagizala, Jauna, betiko argiak,
mundu honetan bizi zirala,
salbazino-misterioan parte hartu eben-eta.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

7
Beste otoitz batzuk

Otoitza Erruki zakiez, Jauna, [I. eta I.] zeure zerbitzariei;
Bateoko iturrian bizi barriaren hazia emon zeuntsen ezkero,
eroan egizuz orain zeruko bizi betearen zorionera.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa

[I. eta I.] zure zerbitzarientzat
sakrifizio hau Zuri eskeintzean, Jauna,
arren eskatzen deutsugu:
bete daizuzala gure eskariak,
horreekin beti errukitsu izanez.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Prefazioa: Hildakoena, 552-559. or.

Jaunartze ondorengoa

Zerutar sakramentuak harturik, Jauna,
zure bihotz onari apalik dei egiten deutsagu:
zure zerbitzariak, jaunartze honi esker,
pekatuen parkamena lorturik,
zure erreinuan sartzeko
eta Zu goratzeko gai izan daitezala beti.
Jesu Kristo gur Jaunaren bitartez.

8
Beste otoitz batzuk

Otoitza

Jainko Jauna,
zeure eskuetan izten doguz [I. eta I.] zure zerbitzariak;
munduarentzat hilda dagozanok Zuretzat bizi daitezala;
eta Zuk, zeure erruki handiaz, parkatu eurei
giza makaltasunez mundu honetako ibileretan
egin dabezan pekatuak.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa

Erruki zakiez, Jauna, [I. eta I.] gure senideei,
eurentzat eskeintzen deutsugu-eta bake-opari hau;
bizitza honetan Zugaz leial izan ziranez,
emoiezu betiko saria zeure ondoan.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Prefazioa: Hildakoena, 552-559. or.

Jaunartze ondorengoa

Jainko ahalguztiduna, zure zerbitzariek,
sakramentu honen indarrez,
izan dagiela parte santuen batzarrean
betiko zorionean.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

9
Beste otoitz batzuk

Otoitza

Jainko ahalguztidun betikoa,
Zuri otoitz egiten deutsugunean
badogu itxaropen bihotz onez entzungo deuskuzula beti;
erruki zakiez bizitza honetatik zure izena autortuz
joan diran [I. eta I.] zeure zerbitzariei
eta sartu egizuz zeure santuen alkartean.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa

Jainko Jauna,
zure Semeak bere burua eskeini eutsun opari bizi;
onartu egizu zeure Eleizearen sakrifizio hau,
[I. eta I.] zure zerbitzariek,
pekatu guztietatik askaturik,
betiko biziaren saria hartu dagien.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Prefazioa: Hildakoena, 552-559. or.

Jaunartze ondorengoa

Jainko ahalguztidun errukitsua,
hartu dogun sakramentuak garbitu gaizala;
sakrifizio hau izan dakigula parkamen-iturri,
makaltasunean indar,
arriskuan sendogarri;
eta ekarri deiela biziei eta hilei
pekatu guztien parkamena eta betiko salbazinoaren agiria.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

IV. HILEN ALDEKO BESTE OTOITZ BATZUK

1. AITA SANTUARENTZAT

A

Otoitza

Oi Jainko, fededunen sari-emoile leiala,
hil dan zure zerbitzari I. Aita Santua
Pedroren ondorengo
eta zeure Eleizearen artzain ezarri zenduan;
lurrean arduratsu banatu ebazan zure graziaren
eta errukiaren misterioak
gozatu dagizala betieran pozik Zeuregan zeruan.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa

Zugaz baketzen gaituan opari honek, Jauna,
emon deiola zure zerbitzari I. Aita Santuari
zeruko zoriona,
eta zure errukiak ekarri deigula guri zure graziaren dohaia.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Jaunartze ondorengoa

Zugaz bat egiten gaituan sakramentuaz indarbarriturik, Jauna,
otoitz egiten deutsugu I. Aita Santuarentzat:
lur honetan zure Eleizearentzat
batasunaren agiriko oinarri egin zenduana
sartu dadila pozik zeruko alkartearen zoriontasunean.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

B

Otoitza

Oi Jainko,
ezin adierazo ahaleko zeure asmoz
Eleizearen buru ezarri zenduan zure zerbitzari I. Aita Santua;
egizu, hartu dagiala zure Semeak betiko zorionean,
bere ordezkotza lur honetan egin ebana.
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa

Begira onez, Jauna,
otoitzean diharduan Eleizearen eskeintzari;
eta zeure zerbitzari I., Aita Santua,
lur honetan
zeure artaldearen abade nagusi ezarri zenduan-eta,
eroaizu, sakrifizio honi esker, zeure abade santuen alkartera.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Jaunartze ondorengoa

Zure maitasunaren laguntza harturik, Jauna,
otoitz egiten deutsugu zure zerbitzari I. Aita Santuarentzat:
lur honetan zure misterioen zerbitzari leial izan zanak
santuen aintzan goratu dagiala beti
zure errukia eurekin batera.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

C

Otoitza

Oi Jainko, gizon-emakumeen artzain hilezkorra,
begira otoitzean diharduan herriari;
egizu, maitasunean zure Eleizearen buru izan dan
zure zerbitzari I. Aita Santuak
jadetsi dagiala, zure errukiari esker,
zerbitzari leialaren saria,
baita haren ardurapeko artaldeak be.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa

Begira, bihotz onez, Jauna,
zeure herriaren bake-opari honi,
honen bidez zure errukiaren eskuetan
jartzen dogu-eta uste osoz
zure zerbitzari I. Aita Santuaren arima;
egizu, gizakien artean zure maitasunaren
eta bakearen eragile izan dana
egintza horreen frutuaz poztu dadila beti zure santuekin.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Jaunartze ondorengoa

Betiko jatorduko mahaian jarririk, Jauna,
zure errukiari ahuspez eskatzen deutsagu
zure zerbitzari I. Aita Santuaren arimearentzat:
zure herria egian leial sendotu ebana
poztu dadila orain egia horren jaube izateaz.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

2. GOTZAINARENTZAT

A. Eleizbarrutiko Gotzainarentzat

Otoitza

Jainko ahalguztiduna,
zure familia honen ardura emon zeuntsan
zeure zerbitzari I. gure Gotzainari;
emoiozu honen arimari
bere lanen frutu ugariak beragaz dituala
bere Jaunaren betiko pozetan sartzea.
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa

Zure erruki neurribakoari ahuspez otoitzean gagoz, Jauna:
zure zerbitzari I. gure Gotzainak, mundu honetan bizi zala,
fededunen salbazinorako eskeini eutsun sakrifizio hau
balia dakiola orain berari parkamenerako.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Jaunartze ondorengoa

Balia dakiola, Jauna,
eskatu deutsugun zeure errukiaren onberatasuna
zure zerbitzari I. gure Gotzainaren arimeari;
Kristogan itxaron eta Kristo predikatu ebanez,
sakrifizio honi esker,
beragaz bat egin dagiala betiko alkartasunean.
Errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

B. Beste Gotzain batentzat

Otoitza

Oi Jainko,
apostolutar abadeen artean
gotzain-ministerioa emon zeuntsan
zeure zerbitzari I. gotzainari [kardinalari];
egizu, izan dadila zeruan be euren arteko betieran.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa

Onartu, Jauna,
zure zerbitzari I. gotzainaren [kardinalaren] arimaren alde
eskeintzen deutsugun opari hau;
mundu honetan gotzain-ministerioa emon zeuntsanari
emoiozu zeruko erreinuan sartzea zeure santuen alkartean.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Jaunartze ondorengoa

Jainko ahalguztidun errukitsua,
Zeuk emon zeuntsan I. gotzainari [kardinalari]
lur honetan Kristoren ordezkotza egitea;
egizu, sakrifizio honen bidez garbiturik,
bizi dadila beragaz zeruan.
Errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

3. ABADEARENTZAT

A

Otoitza Jauna, mundu honetan bizi zala
eginkizun sakratua emon zeuntsan
zeure zerbitzari I. abadeari;
egizu, arren, honen arimea
pozik bizi dadila beti zeruko bizileku aintzatsuan.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa Jainko ahalguztiduna,
egizu, I. zure abadeak,
Eukaristia honen bidez,
lortu dagiala zeruan argi betean ikustea
hemen leial ospatu ebazan misterioak.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Jaunartze ondorengoa Oi Jainko, sakramentu salbagarria harturik,
zeure errukia eskatzen deutsugu zure seme I. abadearentzat:
lurrean zeure misterioen zerbitzari egin zenduan hau
asetu dagizula zeruan horreen egiaren beteaz.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

B

Otoitza Entzun, Jauna, bihotz onez
zure zerbitzari I. abadearen arimaren salbazinorako
apalik egiten deutsuguzan otoitzak;
egizu, bere zerbitzua zure izenean leial bete eban hau
poztu dadila beti zure santuen alkartean.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa

Onartu, Jauna, bihotz onez,
guk, zure zerbitzariok,
zure seme I. abadearen arimaren alde
eskeintzen deutsugun sakrifizio hau;
egizu, berak Eleizan maitasunez eskeini eutsun opariak
emon deiola orain parkamena.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Jaunartze ondorengoa

Zerutar mahaiko janariaz aseturik, Jauna,
ahuspez eskatzen deutsugu,
opari honen indarrez, poztu dadila beti zure aurrean
Eleizan zure zerbitzari leial izan dan
zure seme I. abadearen arima.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

4. DIAKONOARENTZAT

Otoitza

Jainko errukitsua,
diakono-ministerioa emon zeuntsan Eleizan
I. zeure zerbitzariari;
emoiozu honen arimari betiko zorionean parte izatea.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa

Erruki zakioz, Jauna, zeure seme I. diakonoari,
haren salbazinorako eskeintzen deutsugu-eta sakrifizio hau;
egizu, lur honetan Jesu Kristo zure Semearen zerbitzuan
jardun eban ezkero,
gozatu dagiala orain betiko aintza
zure zerbitzari leialakaz batera.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Jaunartze ondorengoa

Dohai santuak harturik, Jauna,
apalik otoitz egiten deutsugu
Eleizako zerbitzarien ministeriora deitu zenduan
zure zerbitzari I. diakonoaren alde:
emoiozu onbera, sakrifizio honen bidez,
heriotzearen lokarrietatik askaturik,
zure zerbitzari zintzoakaz parte izatea
eta betiko zure zorionean sartzea.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

5. ERLIJIOSOARENTZAT NAHIZ ERLIJIOSARENTZAT

Otoitza

Jainko ahalguztiduna, Kristoganako zaletasunez
maitasun osoaren bidean ibili da I. zure zerbitzaria;
egizu, zure aintza etortzean poztu dadila honen arima
eta, bere senideakaz batera,
betiko zoriona gozatu dagiala zure erreinuan.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

6. EBANJELIOAREN ZERBITZUAN LAN EGIN DAUAN BATENTZAT

Otoitza

Zure errukiari apalik egiten deutsagu otoitz, Jauna,
I. zure zerbitzariaren alde:
Ebanjelioa zabaltzen langile arduratsua izan dan ezkero,
hartu dagiala orain erreinuko saria.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

7. GAZTE BATENTZAT

Otoitza Oi Jainko,
Zeuk gidatzen dituzu gizon-emakumeon bizitza eta denpora;
zure eskuetan izten dogu apalik,
hain gazterik joan jakun I. zure zerbitzaria;
egizu, bizi dadila beti gazte, zure etxean zoriontsu.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

8. GAIXOALDI LUZEAREN ONDOREN HIL DAN BATENTZAT

Otoitza Oi Jainko, I. gure senidea zeure zerbitzari egin dozu
bere gaixoaldiko nahigabeetan;
egizu, zure Semeari sufrimentuan jarraitu deutsan ezkero,
izan dagiala parte haren zorionean be.
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

9. EZUSTEAN HIL DAN BATENTZAT

Otoitza Jauna, ezustean galdu dogun
I. geure senideagaitik negarrez gagoz;
erakutsi eiguzu zeure bihotz on neurribakoaren indarra,
zure ondoan bizitzera igaro danaren konfiantza izan daigun.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

10. SENAR-EMAZTE HILDAKOENTZAT

Otoitza Emoiezu, Jaun errukitsua, zeure parkamena
I. eta I. zeure zerbitzariei;
egizu, bizitza honetan
ezkon-maitasun leialez bat izan diran honeek,
bat izan daitezala betiko bizian be
zure maitasun betean.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Edo (bietako batentzat):

Emoiozu, Jaun errukitsua,
zeure parkamena I. zeure zerbitzariari,
eta zaindu errukiz eten barik
I., honen [senarra] emaztea;
egizu, bizitza honetan
ezkon-maitasun leialez bat izan diran honeek,
bat izan daitezala betiko bizian be
zure maitasun betean.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

11. GURASOENTZAT

Gurasoentzat:

Otoitza Oi Jainko, aita-amak ohoratzeko agindu deuskuzu; errukitu zaitez gure gurasoakaz, eta parkatu euren pekatuak; egizu, ikusi daiguzala barriro betiko argiaren pozetan.

Aitarentzat nahiz amarentzat:

Oi Jainko, aita-amak ohoratzeko agindu deuskuzu; errukitu zaitez gure aitagaz [amagaz], eta parkatu bere pekatuak; egizu, ikusi daigula barriro betiko argiaren pozetan.

Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez, Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean Jainko eta errege bizi dira-eta gizaldi eta gizaldietan.

Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez, Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa

Onartu, Jauna, gure gurasoen alde eskeintzen deutsugun sakrifizio hau; emon, arren, eurei betiko poza bizien herrian eta guri santuen zoriona eurekin batean.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Onartu, Jauna, gure aitaren [amaren] alde eskeintzen deutsugun sakrifizio hau; emon, arren, berari betiko poza bizien herrian eta guri santuen zoriona beragaz batean.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Jaunartze ondorengoa

Hartu dogun zerutar sakramentuak, Jauna, emon deiela gure gurasoei betiko atsedena eta argia eta guri betiko zure aintzaz asetzea eurekin batean.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Hartu dogun zerutar sakramentuak, Jauna, emon deiola gure aitari [amari] betiko atsedena eta argia eta guri betiko zure aintzaz asetzea beragaz batean.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

12. SENIDE, AHAIDE ETA ONGILEENTZAT

Otoitza

Oi Jainko, parkamen-emoile oparoa
eta gizon-emakumeen salbazinoa maite dozuna
zure errukiari eskatzen deutsagu:
Maria beti Birjina dohatsuaren
eta santu guztien otoitzari esker,
emoiezu mundu honetatik joan jakuzan geure alkarteko senide, ahaide eta ongileei betiko zorionean partaide izatea.

Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa

Oi Jainko, neurribakoa dozu errukia;
onartu egizuz gogo onez gure otoitz apalak
eta, sakramentu salbagarri honen bidez,
emoiezu gure senide, ahaide eta ongile hildakoen arimei
pekatu guztien parkamena.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Jaunartze ondorengoa

Jainko ahalguztidun errukitsua,
gure senide, ahaide eta ongile hildakoen arimentzat
eskeini deutsugu Zuri, Jainko handi horri,
gorapen-sakrifizio hau;
egizu, sakramentu honen indarrez eta zure errukiari esker,
pekatu guztietatik garbiturik,
izan dagiela betiko argiaren zoriona.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

ERANSKINAK

I. ERANSKINA

URA BEDEINKATZEKO ETA UR BEDEINKATUAZ TXIPRIZTINTZEKO OHIKUNEA

1. Domeketan, batez be Pazkoaldian, ura bedeinkatzeko eta, Bateoaren oroigarri, ur bedeinkatuz txipriztintzeko ohikunea egin daiteke inoiz; edozein eleizatan eta eleizkizun-lekutan egin daiteke hori, domekako Meza guztietan, baita zapatu-arratsaldera aurreratutako Mezetan be.

Ohikune hau Meza barruan egiten bada, Meza-hasierako damu-otoitzaren lekuan eta haren ordez egingo da.

2. Abadeak, agurra egin eta jesarlekuan zutunik herriari begira, bedeinkatzera doan ura bere aurrean dauala, otoitzerako deia egingo deutso herriari, honan gitxi gora behera:

Senide maiteok, egin deiogun otoitz Jainko geure Jaunari, Bateoaren oroipenez geure burua txipriztintzeko erabiliko dogun ur hau bedeinkatu dagian. Ur honek barriztatu gaizala, hartu dogun Espirituari beti leial izan gakiozan.

Isilune labur baten ondoren, eskuak baturik, jarraituko dau:

Jainko ahalguztidun betikoa,
ura biziaren iturri eta sorburu eginik,
gizon-emakumeen arima garbitzeko
indarra be emon deutsazu,
guk ur honetan betiko biziaren dohaia hartu daigun;
bedeinkatu ✠ egizu ur hau, Jauna,
zeurea dan egun honetan indartu gaizan.
Ur honen bidez barritu egizu gugan
zeure graziaren iturri bizia,
zaindu gaizuz gorputz-arimetako gatx guztitik,
Zugana bihotz garbiz hurreratu gaitezan
eta zure salbazinoa lortu daigun.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.
℟. Amen.

Edo:

Jauna, Jainko ahalguztiduna,
gorputz-arimen biziaren iturri eta sorburu bakarra,
bedeinkatu ✠ egizu ur hau;
sinismenez erabiliz,
geure pekatuen parkamena lortu deigun
eta, gatx guztiak eta arerioaren maltzurkeriak garaitzeko,
zure graziaren laguntza izan daigun.
Jaun errukitsua,
ur bizi hau izan dakigula salbazino,
bihotz garbiaz Zugana hurreratu gaitezan
eta gorputz-arimetako arrisku guztietatik iges egin daigun.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.
℟. Amen.

Edo, Pazkoaldian:

Jainko gure Jauna,
entzun bihotz onez zeure herriaren otoitzak
eta, geure sortze harrigarria
eta salbatze harrigarriagoa gogoratzen doguzan honetan,
bedeinkatu ✠ egizu ur hau.
Zeuk sortua da ura, lurra emonkor egiteko
eta gure gorputzari garbitasuna eta atsegina emoteko.
Zeure errukiaren zerbitzari egin zenduan ura;
izan be, uraren bidez askatu zenduan zeure herria
esklabotza-lokarrietatik
eta uraren bidez kendu zeuntsan egarria basamortuan;
uraren bidez iragarri eben profetek
Zuk gizon-emekumeekin itun barria egingo zenduala;
uraren bidez, Kristok Jordan ibaian santu egin ebanean,
eraldatu zenduan gure pekatari-izaera,
jaiotza barria dakarren Bateoaz.
Beraz, ur hau izan dadila guk hartu genduan
Bateoaren oroigarri, eta bat egin gaizala

Pazko-ospakizunean bateatuak izan diran
gure anai-arreben pozean.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.
℟. Amen.

3. Herri-ohiturak nahiz beste zeozerk ur bedeinkatuari gatza nahasteko ohikunea egitea eskatzen badau, abadeak, nahi izan ezkero, gatza bedeinkatuko dau, esanez:

Jainko ahalguztiduna,
urari gatza botatzeko agindu zeuntsan behinola
Eliseo profetari, haren agortasuna osatzeko;
bedeinkatu ✠ egizu Zeuk egindako gatz hau
eta egizu, gatza nahastuko jakon ur honegaz
txipriztintzea egingo dan edozein tokitan,
arerioaren eraso guztiak uxaturik,
gorde gaizala eten barik zure Espiritu Santuak,
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.
℟. Amen.

Ondoren, gatza botako dau uretara, ezer esan barik.

4. Gero, isipua harturik, abadeak bere burua eta laguntzaileak txipriztinduko ditu; ondoren, gainerako abadeak, diakonoak eta herria. Egoki eretxi ezkero, eleizan zehar joango da herria txipriztintzen.

Bien bitartean, ondorengo kanturen bat nahiz beste kantu egokiren bat abestuko da.

Pazkoaldiaz kanpo

1. antifona Kendu nire pekatua isipuz, eta garbi geldituko naz; garbitu nagizu, eta edurra baino zuriago bihurtuko naz. Sal 51 [50], 9

2. antifona Ur garbiz txipriztinduko zaituet, eta garbi geldituko zarie zeuen kutsadura guztietatik; eta bihotz barria emongo deutsuet, dino Jaunak. Ez 36, 25-26

Gorazarrea Bedeinkatua Jainkoa, Jesu Kristo gure Jaunaren Aita!
Bere erruki handiaz itxaropen bizira sortu gaitu barriro,
Jesu Kristo hilen artetik biztuz.
Holan, hondatu ez daiteken ondarea itxaroten dogu,
guretzat zeruetan gordeta dagoana
eta azken aldian salbazinorako agertuko dana.
Ik. 1 P 1, 3-5

Pazkoaldian

1. antifona Ura ikusi neban tenpluaren eskumaldetik urteten, aleluia; eta ur hori heldu jaken guztiak salbatu egin ziran, eta esango dabe kantari: aleluia, aleluia. Ik. Ez 47, 1-2.9

2. antifona Nire biztuera-egunean, aleluia, herriak eta erreinuak batuko ditut, dino Jaunak, eta ur garbiz txipriztinduko zaituet, aleluia.
Ik. So 3, 8; Ez 36, 25

3. antifona Iturriok eta arrain handi eta txikiok, goretsi eta goratu Jainkoa gizaldietan, aleluia. Ik. Dn 3, 77.79

4. antifona Zuek jatorri aukeratua zarie, errege eta abade, nazino santu; iragarri egizuez ilunpetatik bere argi zoragarrira deitu deutsuen Jainkoaren egintza bikainak, aleluia. Ik. 1 P 2, 9

5. antifona Zuri, Kristo, ur bizia darizu saihetsetik, munduko pekatua garbitzen eta bizia barritzen dauan ura, aleluia.

5. Jarlekura bihurturik eta kantua amaitutakoan, abadeak, zutunik eta herriari begira, eskuak baturik, esango dau:

Jainko ahalguztidunak garbitu gaizala pekatutik
eta, Eukaristia honen bidez,
bere erreinuko mahaian parte hartzeko gai egin gaizala.
℟. Amen.

6. Ondoren, Aintza zeruetan abestuko edo esango da, Meza horretan esan beharrekoa bada.

II. ERANSKINA

GURE JAUNA EMOTEKO LAGUNTZAILEA «AD ACTUM» IZENTATZEKO OHIKUNEA

1. Eleizbarrutiko Gotzainak badauka eskubide abade-ministerioan diharduen abade bakotxari baimena emoteko, beharrezko danean, abadeagaz batera gure Jauna emoteko laguntzaile egokia «ad actum» izentatu dagian.

2. Holakoetan, gure Jauna emoteko «ad actum» izentatu danak, ondorengo ohikune honen arabera hartu behar dau eginkizun hori.

3. Abadeak berak, ohi danez, sakramentua hartu ondoren, altarara etorriko da ezohiko jauna-emoile hori eta meza-emoilearen ondoan jarriko. Abadeak honan bedeinkatuko dau:

Bedeinkatu ✠ zagizala Jaunak,
Kristoren Gorputza zeure senideei orain emoteko.

Eta jauna-emoileak erantzungo dau:

Amen.

4. Laguntzaileak Eukaristia santua hartu behar badau, abadeak gure Jauna emongo deutso; ondoren kopoia edo ontzia ostiekin nahiz kaliza emongo deutso eta biak batera gure Jauna eleiztarrei emotera joango dira.

III. ERANSKINA

KALIZA ETA PATENA MEZA BARRUAN BEDEINKATZEKO OHIKUNEA

1. Ardaoa eta ogia eskeini, sagaratu eta hartzeko erabiliko diran kaliza eta patenea, Eukaristia ospatzeko bakarrik era iraunkorrean erabiltzen diranean egiten dira «ontzi sakratu».

2. Ontzi horreek Eukaristia ospatzeko bakarrik erabiltzeko asmoa, egokienik Meza barruan egin daiteken bedeinkazino berezi baten bidez adierazoten da kristau-alkartearen aurrean.

3. Edozein abadek egin leike kalizaren eta patenearen bedeinkazinoa; beti be, gorago *Meza Liburuaren Eraketa Orokorreko* 327-332 zenbakietan esandakoaren arabera egingo dau.

4. Bedeinkatu beharrekoa kaliza bakarra edo patena bakarra bada, testuak egokitu egin beharko dira.

5. Jainkoaren hitza entzun ondoren, homilia egingo dau abadeak, irakurgaien esanahia azalduz eta Jaunaren Afaria ospatzeko erabiltzen diran kalizaren eta patenearen bedeinkazinoaren esanahia adierazoz.

6. Jainkoaren herriaren otoitza egin ondoren, zerbitzariek nahiz kaliza eta patenea eskeini dabezan alkarteko ordezkariek altara gainean jarriko dabez. Abadea altarara hurreratuko da. Bitartean antifona hau abestuko da:

Salbazino-edontzia dot hartuko
eta Jaunaren izena deituko.

Edo beste kantu egokiren bat.

7. Kantua amaitutakoan, abadeak esango dau:

Egin daigun otoitz.

Eta otoitz egingo dabe guztiek unetxu baten isilik. Gero abadeak esango dau:

Zure altara gainean jartzen doguz pozik, Jainko Jauna,
kaliza eta patena honeek itun barriko sakrifizioa eskeintzeko;
honeetan eskeini eta hartuko doguzan
zure Semearen Gorputzak eta Odolak
santu egin dagiezala ontzi honeek.
Egizu, Jauna, zure Semearen sakrifizioa ospatzean,
zure sakramentuek indartu gagiezala
eta zure Espirituaz bete,
zure santuekin batera zeruetako erreinuko jai-jatorduan
pozik parte hartu daigun arte.
Zuri aintza eta ospea betiren beti.

Guztiek erantzungo dabe:

Bedeinkatua Zu, Jauna, orain eta beti.

8. Ondoren zerbitzariek sagara-oihala zabalduko dabe altaran. Fededun batzuek Eukaristiarako ogia, ardaoa eta ura ekarriko dabez. Abadeak patenea eta kaliza bedeinkatu barrietan oparigaiak jarriko ditu eta horreen aurkezpena egingo dau ohitura dan lez. Bitartean, 116. [115] Salmoagaz antifona hau abestuko da:

℣. Salbazino-edontzia dot hartuko
eta gorapen-oparia eskeiniko (P.a. aleluia).

116 [115] Salmoa

Sendo nengoan fedean,
«Ni bai zoritxarreko» esatean ere.
Hau esan neban neure larrialdian:
«Gizaki guztiak guzurti dira». ℣.

Zelan ordainduko deutsat Jaunari
egin deustan on guztia?
Salbazino-edontzia dot jasoko
eta Jaunaren izenari dei egingo. ℣.

Beteko deutsadaz Jaunari promesak,
herri osoaren aurrean.
Mingarri jako Jaunari
bere fededunen heriotza. ℟.

Bai, zure zerbitzari naz, Jauna,
zure zerbitzari ezereza,
askatu dituzu nire kateak.
Gorapen-oparia deutsut eskeiniko
eta Jaunaren izenari dei egingo. ℟.

Beteko deutsadaz Jaunari promesak,
herri guztiaren aurrean,
Jaunaren etxeko atarian,
Jerusalem, zure erdian. ℟.

Edo beste kantu egokiren bat.

9. Onartu gaizuz, Jauna, apal otoitza esan ondoren, egoki izango da abadeak emoitzak eta altarea intsentsuz lurruntzea.

10. Ospakizunaren ingurumariak kontuan izanik, egoki izango da fededunek, kaliza bedeinkatu barritik, Kristoren Odola hartzea.

IV. ERANSKINA

JAINKOAREN HERRIAREN OTOITZA EGITEKO EREDU BATZUK

1. FORMULA OROKORRA: I

Abadearen oharpena — Senideok: Egin deiogun otoitz Jainkoari, gizon-emakume guztiak salbatzea eta egia ezagutzera heltzea nahi dauan Aita ahalguztidunari.

Eskariak

1. Jainkoaren Eleiza santuaren alde: Jaunak zaindu eta gorde dagiala. Eskatu deiogun Jaunari.
   ℟. ***Entzun, arren, Jauna.***
2. Mundu guztiko herrien alde: lagundu deiela Jaunak euren artean adiskidetasuna gordetzen. Eskatu deiogun Jaunari. ℟.
3. Edozein beharrizanetan estu eta larri bizi diranen alde: izan dagiela Jaunaren eta senideen laguntza. Eskatu deiogun Jaunari. ℟.
4. Geure alde eta geure alkarte honen alde: Jaunak opari atsegingarri egin gaizala gu guztiok beretzat. Eskatu deiogun Jaunari. ℟.

Abadearen otoitza

Geure babesleku eta indar zaitugun Jainkoa,
entzun zure Eleizeak bihotzez eginiko eskariak,
errukiaren sorburu zaran horrek;
egizu, fedez eskatu deutsuguna
zure bihotz onari esker benetan jadetsi daigula.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.
℟. Amen.

2. FORMULA OROKORRA: II

Abadearen oharpena

Senideok: Orain hasten dogun Jainkoaren herriaren otoitz honetan ez dagiala nork beretzat bakarrik ezta bere preminentzat bakarrik be otoitz egin; egin deiogun otoitz herri osoaren alde Jesu Kristo gure Jaunari.

Eskariak

1a. Kristau-herri osoarentzat, eskatu daigun Jainkoaren errukia.
℟. ***Entzun, Kristo, gure eskaria.***

1b. Oraindino fededun ez diran guztientzat, eskatu deiogun espirituzko dohaien emoile eskuzabalari. ℟.

2a. Herri-agintarientzat, eskatu daigun Jaunaren indarra. ℟.

2b. Mundua zuzentzen dauan Jaunari, eskatu deiogun eguraldi ona eta uzta ugaria. ℟.

3a. Kristau-batzar honetara etortzerik izan ez daben gure senideentzat, eskatu deiogun danon ardura dauanari. ℟.

3b. Hildako fededunentzat betiko atsedena eskatu deiogun gizaki guztien Epaileari. ℟.

4a. Uste osoz Jaunaren errukiari deika gagozan guztiontzat, eskatu daigun Salbatzailearen onberatasuna. ℟.

4b. Uste osoa Jaunaren bihotz onean dogula, eskatu daigun geuretzat eta geure senitartekoentzat Kristo Jaunaren errukia. ℟.

Abadearen otoitza

Jaun onbera, entzun, arren, gure eskariak;
entzun, bihotz onez, zeure fededunen otoitzak.
Errege bizi zara-eta gizaldi eta gizaldietan.
℟. Amen.

3. ABENDUALDIAN

Abadearen oharpena

Senideok: Jesu Kristo gure Jaunaren etorreraren zain pozpozik gagozan aldi honetan, eskatu daigun bihotz beroz bere errukia: behartsuei Barri Ona emotera eta bihotz-urratuak osatzera behinola etorri zan lez, orain gure aldi honetan be emon deiela salbazinoa behartsu sentitzen diran guztiei.

Eskariak

1a. Bere eleiz-alkarte santura etorri dadila eta zaindu dagiala beti. Eskatu deiogun Jaunari.
℟. ***Erruki, Jauna.***

1b. Erromako Aita Santua, gure Gotzaina eta gotzain guztiak bere graziaz eta espirituzko dohaiez bete dagizala. Eskatu deiogun Jaunari. ℟.

2a. Bera babes dogula, gure egunotan bake ederrean bizi gaitezala. Eskatu deiogun Jaunari. ℟.

2b. Gure agintarien buru-bihotzak eroan dagizala, berak nahi dauan lez, guztien ona eragitera. Eskatu deiogun Jaunari. ℟.

3a. Gaixoak osatu, gose diranei janaria emon eta danak edozein larrialditik askatu dagizala. Eskatu deiogun Jaunari. ℟.

3b. Erasopean aurkitzen diran guztiei emon deiela, bihotz errukitsuz, askatasuna. Eskatu deiogun Jaunari. ℟.

4a. Izan gaitezala, gizon-emakume guztien aurrean, benetan Jainkoaren maitasunaren testigu. Eskatu deiogun Jaunari. ℟.

4b. Bera gugana etorriko danean, zuhur aurkitu gaizala. Eskatu deiogun Jaunari. ℟.

Abadearen otoitza

Jainko ahalguztidun betikoa,
Zuk danak salbatzen dituzu eta ez dozu inor galtzea nahi;
entzun zeure herriaren otoitzak,
eta egizu, mundu honetako gorabeherak
bideratu daiguzala zure asmoen arabera
zuzentasunean eta bakean,
eta emoiozu Eleizeari
zeure zerbitzu santuan zintzo irauteko poza.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.
℟. Amen.

4. GABONALDIAN

Abadearen oharpena

Senideok: Jainko gure Salbatzailearen bihotz ona eta onginahia agertu jakun egun [gau, aldi] honetan, egin deiogun otoitz geure Jainkoari, ustea zuzenbidezko geure egintzetan ez, haren neurribako errukian baino, jartzen dogula.

Eskariak

1. Jainkoaren Eleizearen alde: Andra Maria Birjinak sortu eta mundura harrigarriro ekarri eban Jesu Kristo fede osoz itxaron eta pozik hartu dagiala. Eskatu deiogun Jaunari.
   ℟. ***Entzun, Jauna, gure eskaria.***
2. Mundu guztiaren aurrerabide eta bakerako: orainaldian hartutako dohaiak betiko sari bihurtu daitezala. Eskatu deiogun Jaunari. ℟.
3. Goserik, gaixorik edo bakarrik dagozanen alde: Kristoren Jaiotzaren [Agerkundearen] misterioak eroan dagizala fededunak horreei gorputz-arimetan laguntzera. Eskatu deiogun Jaunari. ℟.
4. Geure kristau-alkarteko familien alde: Kristo onartzen dabenek onartu dagiela bera behartsuengan be. Eskatu deiogun Jaunari. ℟.

Abadearen otoitza

Jauna, gure Jainkoa, entzun bihotz onez
Maria laguntzaile dogula egiten deutsuguzan otoitzak,
bere sabel garbian eroan eban-eta
Jainko gizon egina, Jesu Kristo,
errege bizi dana gizaldi eta gizaldietan.
℟. Amen.

5. GARIZUMALDIAN: I

Abadearen oharpena

Senideok: Edozein alditan egin behar dogu otoitz, baina batez be Garizumako egunotan zuzendu behar deutsaguz geure eskariak Jainkoari, Kristori zuhurrago egonez eta sutsuago.

Eskariak

1. Kristau-herri osoaren alde: Garizuma honetan ugariago janaritu dadila Jainkoaren ahotik datorren hitzaz. Eskatu deiogun Jaunari.
   ℟. ***Entzun, arren, Jauna.***
2. Mundu guztiaren alde: benetako nasaitasuna eta bakea gorderik, egun honeek grazia- eta salbazino-aldi izan daitezala. Eskatu deiogun Jaunari. ℟.
3. Pekatarien alde eta fede-gaietan ardurabako diranen alde: aldi egoki honetan Jaunagana bihurtu daitezala. Eskatu deiogun Jaunari. ℟.
4. Geu guztion alde: Jaunak gure bihotzari behingoz pekatutik alde egitea eragin deiola. Eskatu deiogun Jaunari. ℟.

Abadearen otoitza

Emoiozu, Jauna, zeure herriari
bihotz-bihotzez Zugana bihurtzeko grazia,
uste onez eskatzen deutsuna zure errukiari esker lortu dagian.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.
℟. Amen.

6. GARIZUMALDIAN: II

Abadearen oharpena

Senideok: Pazko-festaburua hurreratzean, sutsuago egin deiogun otoitz Jainko Jaunari, danok, bateatuen taldea eta gizadi osoa be, misterio santu honetan egokiago parte hartzeko prestatu gaitezan.

Eskariak

1. Datorren Pazko-festaburuan Bateoa hartuko daben kristaugaien alde: fedean eta misterioen ezagueran sendotu daitezala. Eskatu deiogun Jaunari.
   ℟. ***Entzun, Jauna, gure eskaria.***
2. Besteen laguntzaren beharrizanean dagozan herrien alde: euren bakea, segurtasuna eta ondoizatea sendotu daitezala. Eskatu deiogun Jaunari. ℟.
3. Atsekabearen eta tentaldiaren menpe bizi diranen alde: Jainkoaren graziak indarbarritu dagizala. Eskatu deiogun Jaunari. ℟.
4. Geu guztion alde: geure buruari ukatua behartsuei emoten ikasi daigula. Eskatu deiogun Jaunari. ℟.

Abadearen otoitza

Erruki zakioz, Jauna, otoitzean daukazun Eleizeari
eta begitu begi onez zure aurrean makurtzen diran bihotzei,
zeruko misterioetan parte hartzea emoten deuskuzunok
beti zure laguntza izan daigun.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.
℟. Amen.

7. ASTE SANTUKO ASTEGUNETAN

Abadearen oharpena

Nekaldi santuaren egun honeetan, Kristok deadar handiz eta negarrez Aitari eskariak eta otoitzak egin eutsozan egun honeetan, eskatu deiogun apalik Jainkoari onartu dagizala onbera gure otoitzak be, bere Semeaganako maitasunez.

Eskariak

1. Eleizea, Kristoren emaztea, nekaldi santu honetan garbiago egin daitela haren odolaz. Eskatu deiogun Jaunari.
   ℟. ***Entzun, arren, Jauna.***
2. Kristoren kurutzeko odolaz munduan gauza guztiak baketu daitezala salbazinorako. Eskatu deiogun Jaunari. ℟.
3. Gaixotasunaren eta nekeen bidez Kristoren nekaldian parte hartzen daben guztiek lortu dagiela adorea eta eroapena. Eskatu deiogun Jaunari. ℟.
4. Gu guztiok, Jaunaren nekaldiaren eta kurutzearen bidez, biztuerako aintzara heldu gaitezala. Eskatu deiogun Jaunari. ℟.

Abadearen otoitza

Entzun, Jauna, zeure herriaren eskariak,
geugandik itxaron ezin doguna
zure Semearen nekaldiaren merezimentuei esker lortu daigun.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.
℟. Amen.

8. PAZKOALDIAN

Abadearen oharpena

Senide maiteok: Pazko-pozetan gagozala, egin deiogun otoitz sutsu Jainkoari, bere Seme maitearen eskariak eta erreguak onbera entzun ebazan lez, ontzat hartu dagian gure dei apala be.

Eskariak

1. Gure eleiz arduradunentzat: gidatu dagiela arduraz Artzain Onak euren esku itzitako artaldea. Eskatu deiogun Jaunari.
   ℟. ***Entzun, Jauna, gure eskariak.***
2. Gizadi osoarentzat: Kristok emondako bakea benetan gozatu dagiala. Eskatu deiogun Jaunari. ℟.

3. Atsekabeturik dagozan gure senideentzat: inork ezin kenduko deutsen poztasun bihurtu dakiela samintasuna. Eskatu deiogun Jaunari. ℟.
4. Gure kristau-alkartearentzat: autortu dagiala fede sutsuz Kristoren biztuera. Eskatu deiogun Jaunari. ℟.

Abadearen otoitza

Jainko Jauna, Zuk badakizu
hemen gagozanon bizitza
beharrizan askoren menpean dagoana;
entzun gure eskariak eta onartu fededunon asmoak.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.
℟. Amen.

9. URTEAN ZEHAR: I

Urtean zehar 1. eta 2. formula orokorrak be erabili daitekez, 1293-1294. or.

Abadearen oharpena

Senide maiteok: Gure Jainkoaren egintza salbagarriak gogora ekartzeko baturik, eskatu deiogun erakutsi deiguzala berarentzat onargarri izango diran asmoak.

Eskariak

1. I. Aita Santuarentzat, I. gure Gotzainarentzat, presbitero eta diakonoentzat eta euren ardurapean dagoan kristau-herriarentzat. Eskatu deiogun Jaunari.
   ℟. ***Entzun, arren, Jauna.***
2. Danen onaz arduratu behar daben herri-agintari eta ministroentzat. Eskatu deiogun Jaunari. ℟.
3. Itsasoan edo lehorrean dabiltzanentzat, katigu nahiz espetxean preso dagozanentzat. Eskatu deiogun Jaunari. ℟.
4. Leku santu honetan fedez, debozinoz, Jainkoaganako maitasunez eta begirunez baturik gagozan guztiontzat. Eskatu deiogun Jaunari. ℟.

Abadearen otoitza

Atsegin bekizuz, Jauna,
otoitzez daukazun Eleizearen eskariak;
zure errukiak emon deigula
geure merezimentuz itxaron ezin doguna.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.
℟. Amen.

10. URTEAN ZEHAR: II

Abadearen oharpena

Senide maiteok: Gure salbazinoaren misterioa gogoratzeko batu gara hemen; eskatu deiogun Jainko ahalguztidunari hartu dagiala mundu guztiak bedeinkazinoaren eta biziaren iturri honetatik.

Eskariak

1. Euren burua Jainkoari eskeini deutsoen guztientzat: haren laguntzaz euren asmo onean iraun dagiela leial azkenera arte. Eskatu deiogun Jaunari.
   ℟. ***Entzun, Jauna, gure eskaria.***
2. Herrien bakearen alde: ezelako estura barik, Jaunari gogotsu zerbitzu egin deioela. Eskatu deiogun Jaunari. ℟.
3. Bakartadean nahiz gaixorik bizi diran zaharrentzat: gure senide-maitasunak adoretu dagizala. Eskatu deiogun Jaunari. ℟.
4. Hemen batuta gagozan guztiontzat: jakin daigula Jainkoagandik eten barik hartzen doguzan oraingo ondasunak erabiltzen, betikoei daborduko loturik bizitzeko eran. Eskatu deiogun Jaunari. ℟.

Abadearen otoitza

Entzun bihotz onez, Jauna, deika daukazun zeure herriari,
Zeuk argiturik eskatu deutsuna
lehenbailehen lortu dagian zure esku zabaletik.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.
℟. Amen.

11. HILDAKOEN ALDEKO MEZETAN

Abadearen oharpena

Egin deiogun otoitz fedez, bere Seme Jesu Kristo hilen artetik biztu eban Jainko Aita ahalguztidunari, eta eskatu deiogun bizien eta hildakoen salbazinoa.

Eskariak

1. Sendotu dagiala kristau-herria fedean eta batasunean. Eskatu deiogun Jaunari.
   ℟. ***Entzun, arren, Jauna.***
2. Atara dagiala mundu guztia gerratearen gatxetik. Eskatu deiogun Jaunari. ℟.
3. Agertu dagiala benetako Aita dala, ez lanik, ez jatekorik, ez etxerik ez daben senideentzat. Eskatu deiogun Jaunari. ℟.

4a. Bateoan bizi barriaren hazia hartu eban I. [hildako hau] sartu dagiala santuen betiko alkartean. Eskatu deiogun Jaunari. ℟.

4b. Biztu dagiala azken egunean, betiko biziaren ogia dan Kristoren Gorputza jan eban hau. Eskatu deiogun Jaunari. ℟.

Edo presbiteroarentzat: Zeruko liturgian partaide egin dagiala Eleizan abade-zerbitzua egin eban hau. Eskatu deiogun Jaunari. ℟.

4c. Emon deiela euren lanaren saria hildako gure senide, ahaide eta ongile guztiei. Eskatu deiogun Jaunari. ℟.

4d. Onartu dagizala bere aurpegiaren argitan, bizteko itxaropenean lokartu diran guztiak. Eskatu deiogun Jaunari. ℟.

4e. Lagundu eta kontsolatu dagizala bihotz onez, atsekabeturik dagozan gure senideak, eskatu deiogun Jaunari. ℟.

4f. Batu gaizala bere erreinuko aintza betean, fedean eta otoitzean hemen baturik gagozan guztiok, eskatu deiogun Jaunari. ℟.

Abadearen otoitza

Gure otoitzek, Jauna, on egin deieela
zure zerbitzarien arimei;
atara egizuz pekatu guztietatik
eta egizuz partaide betiko salbazinoan.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.
℟. Amen.

V. ERANSKINA

Agerkundeko festaburuan

PAZKO EGUNAREN
ETA GAINERAKO JAIEGUN MUGIKORREN
AURTENGO EGUTEGIA

Pozarren jakinazoten deutsuegu, senide maiteok,
Jainkoaren errukiari esker
Jesu Kristoren Jaiotzaren jaiekin alaitu garan bezala
alaituko garala gure Salbatzailearen Biztuerarekin ere.

Holan, gogoratzen deutsuegu,
pazko-jaietarako prestatzen gaituan Garizuma santua
(zezeilaren ***an) hasiko dala aurten, Hauts-egunez,
eta (apirilaren ***an) Jaunaren Biztuerako domekan
ospatuko dogula, barru-pozez,
Jesu Kristo gure Jaunaren Pazko santua.
Pazkoko berrogeta hamarraldiaren amaieran,
(maiatzaren ***an), Pentekosteko festaburua ospatuko dogu.

Jakizue, baita be,
(ekainaren ***an) ospatuko dauala Eleizeak
Kristoren Gorputz Odolen festaburua.
Eta urtea amaitzear danean, (azaroaren ***an), izango dala
Abendualdiko lehenengo domeka,
Jesu Kristo gure Jaunaren etorrera itxarotera
dei egingo deuskuna.

Berari ospea eta aintza gizaldi eta gizaldietan. Amen.

VI. ERANSKINA

UMEEKIN OSPATZEN DIRAN MEZETARAKO EUKARISTI OTOITZAK

1. Umeak kristau-alkarteko ohiko Mezetan era ekilean eta ohartuta patxadaz parte hartzen joatea da umeekin ospatzen diran Meza honeetako Eukaristi Otoitzen erabileraren helburua.

2. Eukaristi Otoitz honeen erabilpena umeekin ospatzen diran Mezetara mugatua gelditzen da; halan be, gotzainak badau eskubide, Mezea umeekin bakarrik ez ospatu arren, kristau batzarrean umeen kopurua handia danean, Eukaristi Otoitz honeek erabiltzeko baimena emoteko (ik. *Umeekin ospatzen diran Mezetarako Argibide eta Arauak*, 19. zk.). Eukaristi Otoitz honeen erabilpena batez be egokia izan leiteke katekesiko Mezetan, eskoletan emondakoetan eta, gehien be, lehenengo jaunartzerakoetan.

3. Umeei kristau-familia osoaren ospakizunean sartzen laguntzea izanik Eukaristi Otoitz honeen erabilpenaren helburua, ez da komeni horreetako ohiko esaldiak aldatzea, esate baterako, prefazioaren sarrerako alkarrizketa, Santu, Santua gorazarrea (Eukaristi Otoitz honeetako I.an Santu, Santuaz esaten dana izan ezik) eta, batez be, sagarako berbak aldatzea.

4. Umeen parte-hartze ekileagoa Eukaristian lortze aldera, inoiz, gehitu leitekez Eukaristi Otoitz barruan jarrita dagozan gorespenak; halan be, kontu izan behar da, ospakizunean Eukaristi Otoitza batzarburuari dagokiola ilun ez gelditzea.

5. Umeak errazago konturatu daitezan batzarburu dan abadea Jesu Kristoren ordezko dala, ikuspegi pedagogikotik ez da hain egokia Meza honeetan alkarmeza emotea. Inoiz, halan be, komenigarri ikusten bada alkarmeza emotea, kontu berezia izan behar da, alkarmeza-emoileek Eukaristi Otoitza –eta, batez be, sagarako hitzakahotz apalez esan dagiezan. Arrazoi honengaitik be, hobe da Meza honeetan, Eukaristi Otoitz barruko eskariak alkarmeza-emoileen artean ez banatzea, hori egitea berez *Erromako Meza Liburuaren Eraketa Orokorrean* onartua badago be (ik. 220, 223, 228, 231 eta 234. zk.).

I. EUKARISTI OTOITZA

6. Eukaristi Otoitz honetan, hiru zatitan banatuta dago Santu, Santua, eta zati bakotxa Hosanna zeru-goienetan! esanez amaitzen da beti. Gorapen honeek abestea errazteko, abeslariak edo ume batek abestu leike lehenengo, eta danek errepikatu gero. Sagara ondorengo gorespena, barriz, Eukaristi Otoitz honetarako jarrita dagoana izan leiteke, edo baita ohiko Eukaristi Otoitzetan jarrita dagozanetako bat be.

II. EUKARISTI OTOITZA

7. Eukaristi Otoitz nahierazkoak dira gorespenak, Santu, Santua eta sagara ondorengo gorespena izan ezik.

III. EUKARISTI OTOITZA

8. Liturgi urteak dituan alderdi desbardinak umeei azpimarratzeko, batez be egokia da Eukaristi Otoitz hau; horregaitik otoitz honetako zati batzuk aldatu egiten dira liturgi urteko aldi desbardinetan.

9. Eukaristi Otoitz honetan hiru bider errepikatzen da sagara ondorengo gorespena; honekin lortu gura dana, umeak konturatzea da Eukaristi Otoitzearen muina Jainkoa goratzea dala.

Zelan esan umeekin ospatzen diran Mezetan I. Eukaristi Otoitza alkarmezan erabiltzen danean

Umeen psikologiari begituz, badirudi Mezea umeekin ospatzen danean hobe dala alkarmezarik ez emotea. Halan be, arrazoi bereziak dirala-eta, alkarmeza emoten danean, honan egingo da:

Hasieratik esker onez abesten dogu arte meza-emoile nagusiak bakarrik esango dau, besoak zabalik.

Aita guztiz errukitsua-tik danok kantari abesten dogu arte alkarmezako emoileetako batek esan leike, berak bakarrik, besoak zabalik eta ahots ozenez.

Aita guztiz santua-tik onartu gaizuz eurekin batean arte alkarmezaren emoile guztiek batera esango dabe, honan:

a) Aita guztiz santua-tik zure Semearen Gorputz eta Odol arte eskuak oparigaien gain luzatuz;

b) Holan eskeiniko deutsugu eta Arratsalde batez, Jesus eskuak batuta;

c) Jaunaren berbak, egoki eretxi ezkero, eskumako eskua ogirantz eta kalizerantz luzatuz; meza-emoile nagusiak ostia eta kaliza fededunei erakustean, ostiari eta kalizari begituz eta gero makurtze nagusia eginez;

d) Hainbeste maite gaituzun Aita besoak zabalik.

Zuk, Jauna, ez dozu-tik barriro be goratzen zaitugu arteko eskaria alkarmezaren emoileetako batek edo bestek esan leike, berak bakarrik eta besoak zabalik.

I. EUKARISTI OTOITZA
UMEEKIN OSPATZEN DIRAN MEZETARAKO

1. ℣. Jauna zuekin.
   ℟. Eta zure espirituarekin.

   ℣. Gora bihotzak.
   ℟. Jaunagan daukaguz.

   ℣. Eskerrak Jaungoiko gure Jaunari.
   ℟. Egoki da eta zuzen.

Jauna, Aita guztiz ona, Zeuk batu gaituzu,
eta gu zure aurrean gagoz
Zeu goratzeko,
eta eder eta handi zarala bihotz-bihotzez autortzeko.

Gora Zu, munduan diran gauza eder guztiakaitik
eta gure bihotzetan emoten deuskuzun pozagaitik.
Gora Zu, egun-argiagaitik
eta gure gogoak argitzen dituan zure hitzagaitik.
Gora Zu, lurragaitik,
lurrean bizi diran gizon-emakumeakaitik
eta Zugandik dogun biziagaitik.

Bai, guztiz ona zara,
maite gaituzu eta miragarriak egiten dituzu guretzat.
Horregaitik, guztiok batera (esaten) abesten dogu:

Danek:

Santu, Santu, Santua,
diran guztien Jainko Jauna.
Hosanna zeru-goienetan!



2. Abadeak, besoak zabalik, jarraituko dau:

Zuk, Aita, gogoan dituzu beti gizakiak
eta ez dozu eurakandik urrun egon gura.
Horregaitik bialdu zenduan gugana zeure Seme maitea.
gu salbatzera etorri zan:
gaixoak osatu zituan
pekatariei parkamena eskeini eutsen
eta guztiei zure maitasuna erakutsi eutsen
umeak Beragana hartu eta bedeinkatu ebazan.
Horregaitik, esker onez [esaten] abesten dogu:

Danek:

Zeru-lurrak beterik daukaz zure distirak.
Hosanna zeru-goienetan!



3. Abadeak, besoak zabalik, jarraituko dau:

Aita guztiz errukitsua,
ez zaitugu guk bakarrik goratzen,
lurraren alde guztietan zabaldurik dagoan
eta Eleiza dan zure herriak be goratzen zaitu.
Guk, Eleiza osoarekin batera, otoitz egiten deutsugu:
I. gure Aita Santuarekin,
eta I. gure Gotzainarekin,
eta I. Gotzain Laguntzailearekin.

Meza Gotzainak bere eleizbarrutian ospatzen dauanean, esango dau:

eta nirekin, zeure zerbitzari ezerez honekin.

Eleizbarrutikoa ez dan beste Gotzain bat danean, ik. *Erromako Meza Liburuaren Eraketa Orokorra*, 31. or.an, 149. zk.an zelan egin aipamen hau.

Zeruan ere eskerrak emoten deutsuez
Maria Birjina dohatsuak,
eta apostolu eta santu guztiek
Eurekin batera eta aingeruekin,
guk ere adoratzen zaitugu
eta danok kantari [esaten] abesten deutsugu:

Danek:

Bedeinkatua Jaunaren izenean datorrena.
Hosanna zeru-goienetan.



4. Abadeak, besoak zabalik, jarraituko dau:

Aita guztiz santua,
Zuri gure esker ona erakusteko,
ogia eta ardaoa ekarri ditugu;

Eskuak batu eta, oparigaien gain zabalik, esango dau:

egin daitezala guretzat, Espiritu Santuaren indarrez,

Eskuak batu eta kurutze-seinalea egingo dau, behin bakarrik, ogiaren eta kalizaren gain, esanez:

Jesu Kristo zure Seme maitearen
Gorputz ✠ eta Odol.

Eskuak batuko ditu:

Holan eskeiniko deutsugu,
zure bihotz onak guri emon deuskun dohai hau.

5. Hurrengo esaldietan, Jaunaren hitzak garbi esan behar dira, hitz horreek eurek eskatzen dabenez.

Arratsalde batez, Jesus, hil baino lehen,
mahaian egoan bere apostoluekin.

Ogia hartu eta, altara gainean apur bat jasorik, jarraituko dau:

Mahaitik ogia hartu
eta, Zuri eskerrak emonez, bedeinkatu eban, zatitu
eta bere adiskideei emon eutsen, esanez:

Apur bat makurtuko da.

HARTU EIZUE ETA JAN GUZTIOK HONETATIK:
HAU NEURE GORPUTZA DA-ETA,
ZUENTZAT EMONGO DANA.

Ostia sagaratua herriari erakutsiko deutso: gero, patenaren gainean itzi eta, belaunikoturik, gurtu egingo dau.

6. Ondoren, jarraituko dau:

Gero, afalondoan,

Kaliza hartu eta, altara gainean apur bat jasorik, jarraituko dau:

kaliza ardaoz betea hartu
eta, Zuri eskerrak emonez, bedeinkatu eban,
eta bere ikasleei eskeini eutsen, esanez:

Apur bat makurtuko da.

HARTU EIZUE ETA EDAN GUZTIOK HONETATIK:
HAU NEURE ODOLAREN KALIZA DA-ETA,
ITUN BARRI ETA BETIKOAREN ODOLA,
ZUENTZAT ETA ASKORENTZAT
PEKATUAK PARKATZEKO ISURIKO DANA.

Eta gero esan eutsen:

EGIZUE HAU NEURE OROIGARRI.

Kaliza herriari erakutsiko deutso; gero, sagara-oihalean itzi eta, belaunikoturik, gurtu egingo dau.

7. Ondoren, abadeak, besoak zabalik, jarraituko dau:

Jesu Kristok agindu euskuna egiten dogu orain begirunez:
beraren heriotza eta biztuera ospatzen ditugula,
biziaren ogia eta salbazinoaren kaliza
eskeintzen deutsuguz.
Jesusek Zugana eroaten gaitu bihotz onez;
onartu gaizuz beragaz batera.

Danek:

Kristo gugaitik hil da;
Kristo hilen artetik biztu da.
Zure zain gagoz, Jesus Jauna!



Beste Eukaristi Otoitzetako gorespenak be erabili daitekez.

Hil eta biztu zarala, Jauna,
Zu barriz etorri arte,
hau dogu, hau, barri ona!

Edo:

Ogi-ardao honeek hartzean,
zure heriotza dogu autortzen,
Zeu, Jauna, etorri artean.

Edo:

Zeure kurutze eta biztueraz
munduaren salbatzaile zarana,
salba gaizuz, Jesus Jauna!

8. Gero, abadeak, besoak zabalik, jarraituko dau:

Hainbeste maite gaituzun Aita,
itzi eiguzu mahai honetara hurreratzen
eta bialdu egizu Espiritu Santua
zure Semearen Gorputza eta Odola hartu daiguzan
eta bihotz bat eta arima bat izan gaitezan.

Zuk, Jauna, ez dozu behin ere inor ahazten;
horregaitik eskatzen deutsugu
izan daizuzala gogoan guk maite ditugunak:
I. gure Aita Santua,
I. gure Gotzaina,
I. Gotzain Laguntzailea,
gure guraso, senide eta lagunak,
eta lur honetatik Zugana joanak diran hildako guztiak.

Lehenengo Jaunartzeko Mezan

Jaunartuko dabenak batzuk diranean:

Gaur, batez ere, lehenengoz Eukaristia hartuko daben [I. eta I.] gure senide honeen alde eskatzen deutsugu; zure familiaren mahaian biziaren ogia eta salbazinoaren kaliza hartzera dei egin deutsezu; egizu, hazten joan daitezala eten barik Zugazko adiskidetasunean.

Jaunartuko dauana bakarra danean:

Gaur, batez ere, lehenengoz Eukaristia hartuko dauan [I.] gure senide honen alde eskatzen deutsugu; zure familiaren mahaian biziaren ogia eta salbazinoaren kaliza hartzera dei egin deutsazu; egizu, hazten joan daitela eten barik Zuganako adiskidetasunean.

Izan gogoan, Jauna,
sufritzen eta nahigabeturik bizi diranak;
zeurea dozun kristauen familia osoa
eta munduko gizon-emakume guztiak.

Jainko gure Aita,
zeure Seme Jesu Kristoren bitartez
gure alde egiten dituzunak ikusita,
harriturik gagoz, eta barriro ere goratzen zaitugu.

9. Eskuak batuko ditu. Eta patena ostia sagaratuagaz eta kaliza hartu eta, biak jasorik, jarraituko dau:

Honen bitartez, honekin eta honengan,
Zuri, Aita Jainko ahalguztidun horri,
Espiritu Santuarekin batean,
ospe eta aintza guztia
gizaldi eta gizaldi guztietan.

Danek:

Amen.

Ondoren, jaunartze-ohikunea egingo da, 623. or.

Zelan esan Umeekin ospatzen diran Mezetan II. Eukaristi Otoitza alkarmezan erabiliko danean

Umeen sikologiari begituz, badirudi Mezea umeekin ospatzen danean hobe dala alkarmezarik ez emotea. Halan be, arrazoi bereziak dirala-eta, alkarmeza emoten danean, honan egingo da:

Hasieratik zure biziaz bizi gaitezan arte meza-emoile nagusiak bakarrik esango dau, besoak zabalik.

Jainko gure Aita-tik gu Zugana eroateko arte alkarmezaren emoile guztiek batera esango dabe, honan:

a) Jainko gure Aita eskuak oparigaien gain luzatuz;

b) Jesusek hil bezperan eskuak batuta;

c) Jaunaren hitzak, egoki eretxi ezkero, eskumako eskua ogirantz eta kalizarantz luzatuz; meza-emoile nagusiak ostia eta kaliza fededunei erakustean, ostiari eta kalizari begituz eta gero makurtze nagusia eginez;

d) Aita guztiz ona besoak zabalik.

Entzun eiguzu-tik hartu egizuz maitasunez zeure etxeko pozean arte, eta Batu gaizuz gu be-tik betiko goratuko zaitue arteko eskariak alkarmezaren emoileetako batek edo bestek esan leikez, berak bakarrik eta besoak zabalik.

II. EUKARISTI OTOITZA
UMEEKIN OSPATZEN DIRAN MEZETARAKO

1. ℣. Jauna zuekin.
   ℟. Eta zure espirituarekin.

   ℣. Gora bihotzak.
   ℟. Jaunagan daukaguz.

   ℣. Eskerrak Jaungoiko gure Jaunari.
   ℟. Egoki da eta zuzen.

Bai, Aita guztiz ona,
pozik gagoz Zurekin;
gure bihotzak esker onez beterik ditugu
eta Jesu Kristorekin batera zoriontsu gagoz zure Eleizan.
Bai, maite gaituzu:
mundu handi eta eder hau Zeuk egin dozu guretzat.

Danek:

Aintza Zuri, Jauna!
Maite gaituzu!



Abadeak, besoak zabalik, jarraituko dau:

Bai, maite gaituzu:
Jesus zeure Semea emon deuskuzu,
harek gu Zugana eroan gagizan.

Danek:

Aintza Zuri, Jauna!
Maite gaituzu!



Abadeak, besoak zabalik, jarraituko dau:

Bai, maite gaituzu:
Kristogan alkartzen gaituzu
eta familia bereko seme-alaba egiten
Espiritu Santuaren bidez.

Danek:

Aintza Zuri, Jauna!
Maite gaituzu!



Abadeak, besoak zabalik, jarraituko dau:

Hainbeste maite gozuzalako,
eskerrak emoten deutsuguz,
zeruan goratzen zaituen
aingeru eta santuekin [esanez] kantari:

Danek:

Santu, Santu, Santua,
diran guztien Jainko Jauna.
Zeru-lurrak beterik daukaz zure distirak.
Hosanna zeru-goienetan!
Bedeinkatua Jaunaren izenean datorrena.
Hosanna zeru-goienetan!


San - tu, San - tu, San - tu - a (San - tu), di -
ran guz - ti - en Jain - ko (Jau-na); San-tu, San - tu, San - tu -
a (San - tu), di - ran guz - ti - en Jau - na!
Ze - ru – lu - rrak be - te - rik dau-kaz zu - re dis - ti -
rak. Ho - san - na, ho - san - na, o!
Ho - san - na, ho - san - na, o!
Be-dein-ka-tu - a da ze - ru–goi - e - ne - tan
Jau - na - ren i - ze - ne - an da - to - rre -
na. Ho - san - na, ho - san - na, o!
Ho - san - na, ho - san - na, o!

2. Abadeak, besoak zabalik, jarraituko dau:

Bedeinkatua izan bedi Jesus,
txikien eta behartsuen adiskide izateko Zuk bialdua.
Honetarako etorri zan Jesus:
guri erakusteko Zu, gure Aita, zelan maitatu
eta guk alkar zelan maitatu.

Jesus etorri zan
adiskide izatea galazoten deuskun pekatua eta gorrotoa
gizakion bihotzetik kentzeko.
Jesusek agindu deusku,
Espiritu Santua beti geugaz izango dala,
gu zure seme-alaba lez
zure biziaz bizi gaitezan.

Danek:

Bedeinkatua Jaunaren izenean datorrena.
Hosanna zeru-goienetan!



3. Eskuak batu eta, oparigaien gain zabalik, jarraituko dau:

Jainko gure Aita,
bialdu egizu zeure Espiritua,
ogi eta ardao honeek

Eskuak batu eta kurutze-seinalea egingo dau, behin bakarrik, ogiaren eta kalizaren gain, esanez:

Jesu Kristo gure Jaunaren
Gorputz ✠ eta Odol egin daitezan.

4. Hurrengo esaldietan, Jaunaren hitzak garbi esan behar dira, hitz horrek eurek eskatzen dabenez.

Jesusek, hil bezperan,
zure maitasun neurribakoa erakutsi euskun;
bere ikasleekin mahaian egoala,
ogia hartu,

Ogia hartu eta, altara gainean apur bat jasorik, jarraituko dau:

eta otoitza egin eban, Zu bedeinkatzeko
eta Zuri eskerrak emoteko;
zatitu eban ogia eta ikasleei emon eutsen, esanez:

Apur bat makurtuko da.

HARTU EIZUE ETA JAN GUZTIOK HONETATIK:
HAU NEURE GORPUTZA DA-ETA,
ZUENTZAT EMONGO DANA.

Ostia sagaratua umeen batzarrari erakutsiko deutso, eta danek abestuko dabe:

Jesu Kristo guretzat emona!

Lehenengo abadeak bakarrik, gero danek:



Ostia sagaratua patenaren gainean itzi eta, belaunikaturik, gurtu egingo dau.

5. Gero jarraituko dau:

Gero, kaliza ardaoz betea harturik,

Kaliza hartu eta, altara gainean apur bat jasorik, jarraituko dau:

otoitz egin eban, Zuri eskerrak emoteko,
eta kaliza eskeini eutsen ikasleei, esanez:

Apur bat makurtuko da.

HARTU EIZUE ETA EDAN GUZTIOK HONETATIK:
HAU NEURE ODOLAREN KALIZA DA-ETA,
ITUN BARRI ETA BETIKOAREN ODOLA,
ZUENTZAT ETA ASKORENTZAT
PEKATUAK PARKATZEKO ISURIKO DANA.

Kaliza umeen batzarrari erakutsiko deutso, eta danek abestuko dabe:

Jesu Kristo guretzat emona!

Lehenengo abadeak bakarrik, gero danek:



Abadeak jarraituko dau:

Eta gero esan eutsen:

EGIZUE HAU NEURE OROIGARRI.

Gero, sagara-oihalean itzi eta, belaunikaturik, gurtu egingo dau.

6. Danek abestuko dabe:

Kristo gugaitik hil da;
Kristo hilen artetik biztu da.
Zure zain gagoz, Jesus Jauna!



Beste Eukaristi Otoitzetako gorespenak be erabili leitekez. Abadeak, besoak zabalik, esango dau:

Hau da sinismenaren misterioa.

Danek:

Hil eta biztu zarala, Jauna,
Zu barriz etorri arte,
hau dogu, hau, barri ona!

Edo:

Ogi-ardao honeek hartzean,
zure heriotza dogu autortzen,
Zeu, Jauna, etorri artean.

Edo:

Zeure kurutze eta biztueraz
munduaren salbatzaile zarana,
salba gagizuz, Jesus Jauna!

7. Ondoren, abadeak, besoak zabalik, jarraituko dau:

Aita guztiz ona, gogoan ditugu orain
Jesus munduaren Salbatzailearen heriotza eta biztuera.
Bere burua emon eban eta geure esku itzi,
orain eskeintzen deutsugun
adiskidetzearen eta bakearen gure sakrifizio izateko
eta gu Zugana eroateko.

Danek:

Ospea eta aintza
gure Jainkoari!



Edo:

Gora Zu, bedeinkatua Zu,
eskerrak Zuri!



8. Abadeak, besoak zabalik, jarraituko dau:

Entzun eiguzu, Jainko Jauna,
eta emon zeure maitasun Espiritua
mahai honetan parte daben guztiei,
gero eta alkartuago bizi gaitezan zure Eleizan,
I. gure Aita Santuarekin,
I. gure Gotzainarekin,
I. Gotzain Laguntzailearekin,

Meza Gotzainak bere eleizbarrutian ospatzen dauanean, esango dau:

eta nirekin, zeure zerbitzari ezerez honekin.

Eleizbarrutikoa ez dan beste Gotzain bat danean, ik. *Erromako Meza Liburuaren Eraketa Orokorra*, 31. or.an, 149. zk.an zelan egin aipamen hau.

beste gotzainekin,
eta zure herriaren zerbitzari guztiekin.

Danek:

Gorputz bat guztiok,
espiritu bat, Jauna
Zu goratzeko!



Abadeak, besoak zabalik, jarraituko dau:

Izan gogoan, Jauna, guk maite doguzanak:
gure guraso, senide eta lagunak,
baita maiteago izan behar geunkezanak ere.

Lehenengo Jaunartzeko Mezan

Jaunartuko dabenak batzuk diranean:

Izan gogoan, Jauna, gaur Eukaristia lehenengoz hartuko daben [I. eta I.] gure lagun honeek be: zure familiaren mahaian biziaren ogia eta salbazinoaren kaliza hartzera dei egin deutsezu; egizu, hazten joan daitezala eten barik Zugazko adiskidetasunean.

Bakarra danean jaunartuko dauana:

Izan gogoan, Jauna, gaur Eukaristia lehenengoz hartuko dauan [I.] gure lagun hau be: zure familiaren mahaian biziaren ogia eta salbazinoaren kaliza hartzera dei egin deutsazu; egizu, hazten joan dadila eten barik Zugazko adiskidetasunean.

Izan gogoan gure hildakoak ere
eta bizitza honetatik bakean joan diran guztiak:
hartu egizuz maitasunez zeure etxeko pozean.

Danek:

Gorputz bat guztiok,
espiritu bat, Jauna,
Zu goratzeko!



Abadeak, besoak zabalik, jarraituko dau:

Batu gaizuz, Aita, geu ere egun baten zeure ondoan,
Jesus Jainkoaren Ama eta gure Ama dan Maria Birjinarekin,
zure erreinuan beti iraungo dauan
egun pozgarria ospatu daigun.
Han, Jesu Kristo gure Jaunaren adiskide guztiek
beti goratuko zaitue.

Danek kantatu leikie:

Gorputz bat guztiok,
espiritu bat, Jauna
Zu goratzeko!



9. Eskuak batuko ditu eta patena ostia sagaratuagaz eta kaliza hartu eta, biak jasorik, jarraituko dau:

Honen bitartez, honekin eta honengan,
Zuri, Aita Jainko ahalguztidun horri,
Espiritu Santuarekin batean,
ospe eta aintza guztia
gizaldi eta gizaldi guztietan.

Danek:

Amen.

Ondoren, jaunartze-ohikunea egingo da, 623. or.

Zelan esan Umeekin ospatzen diran Mezetan III. Eukaristi Otoitza alkarmezan erabiliko danean

Umeen sikologiari begituz, badirudi Mezea Umeekin ospatzen danean hobe dala alkarmezarik ez emotea. Halan be, arrazoi bereziak dirala eta, alkarmeza emoten danean, honan egingo da:

Hasieratik berak lehenik egin ebana arte meza-emoile nagusiak bakarrik esango dau, besoak zabalik.

Aita guztiz ona-tik izan gaitezan maitasunez arte alkarmezaren emoile guztiek batera esango dabe, honan:

a) Aita guztiz ona-tik Gorputz eta Odol egingo dira guretzat arte eskuak oparigaien gain luzatuz;

b) Jesusek gugaitik hiltzeko bezperan eskuak batuta;

c) Jaunaren hitzak, egoki eretxi ezkero, eskumako eskua ogirantz eta kalizarantz luzatuz; meza-emoile nagusiak ostia eta kaliza fededunei erakustean, ostiari eta kalizari begituz eta gero makurtze nagusia eginez;

d) Horregaitik, Aita guztiz santua, Zeruetan zaran, Jesus orain, Azken egunean aintzaz eta Aita guztiz santua besoak zabalik.

Izan gogoan, Jauna-tik bizitzea behin betiko arteko eskaria alkarmezaren emoileetako batek edo bestek esan daike, berak bakarrik eta besoak zabalik.

Eukaristi Otoitz honetan badira zati bereziak liturgialdi jakinetan erabiltzekoak.

III. EUKARISTI OTOITZA
UMEEKIN OSPATZEN DIRAN MEZETARAKO

1. ℣. Jauna zuekin.
   ℟. Eta zure espirituarekin.

   ℣. Gora bihotzak.
   ℟. Jaunagan daukaguz.

   ℣. Eskerrak Jaungoiko gure Jaunari.
   ℟. Egoki da eta zuzen.

A. Urtean Zehar:

Eskerrak Zuri, Jainko Jauna.
Izan be, Zeuk egin gaituzu,
senide lez alkar maitatuz
Zuretzat bizi gaitezan.
Zuk emoten deuskuzun dohaia da
batak besteari ondo eginez alkarrekin bizitzea
eta gure poz eta nahigabeetan alkarren lagun izatea. ✝

B. Abendualdian:

Eskerrak Zuri, Jainko Jauna.
Zeuk egin gaituzu,
Zu ezagutu eta maitatu zaiguzan
eta beti Zugaz bizi gaitezan.
Askotan esan deuskuzu,
Zuk gure adiskide izan gura dozula;
profeten bidez,
zeure promesetan itxaropen izaten irakatsi deuskuzu.
Eta zure herriak luzaro itxaron eban ordua bete zanean,
zeure Seme bakarra bialdu zeunskun,
gure familiako anaia zaharrena izanik
guztiok zure lagun izanez bizi gaitezan.

Munduaren azkenean barriro etorriko da
eta biziaren jai handira eroango gaitu,
zure etxeko zorion betera. †

C. Gabonaldian:

Eskerrak Zuri, Jainko Jauna.
Zuk maitasunez egin zenduan mundua
eta maite gaituzulako,
gizakiak pekatuan jausi ziranean,
zeure eskutik itzi barik,
euren bidera urten zenduan.
Orain Jesus bialdu deuskuzu, zeure Seme maitea,
ilunpetan argi egiten dauan argia.
Bera aberatsa izanik, pobre egin zan gugaitik,
bere maitasunaz gu aberasteko. †

D. Garizumaldian:

Eskerrak Zuri, Jainko Jauna.
Zuk gauza harrigarriak egiten dituzu,
on-ona zarala guri erakusteko.
Guztioi, onei lez gaiztoei ere,
lora, frutu eta beste gauza on asko emoten deuskuzu,
guretzat gozabide izan daitezan
eta guk alkarrekin erabili daiguzan.
Aita ona zara eta badakizu
pekatuan jausten diranekin pazientzia izaten,
bihotz-barritu eta hobeak izan daitezan. †

E. Pazkoaldian:

Eskerrak Zuri, Jainko Jauna.
Izan ere, Zuk bizia maite dozu,
bizitzera dei egiten deuskuzu,
eta betiko zoriona gura dozu guretzat.
Horregaitik biztu zenduan hilen artetik Jesu Kristo,
gure arteko lehenengoa,
eta bizi barria emon zeuntsan.
Bizi hori berori emon deuskuzu guri Bateoan
eta zeure berbea emon deuskuzu,
geu ere biztuko garala Kristo lez;
orduan ez da gehiago heriotzarik izango,
ez oinazerik, ez negarrik. †

† Horregaitik, Jainko gure Aita,
pozik eskerrak emoten deutsuguz,
Zugan sinisten daben guztiekin batera
eta santuekin eta aingeruekin goratzen zaitugu,
aho batez [esanez] kantari:

Danek:

Santu, Santu, Santua,
diran guztien Jainko Jauna.
Zeru-lurrak beterik daukaz zure distirak.
Hosanna zeru-goienetan!
Bedeinkatua Jaunaren izenean datorrena.
Hosanna zeru-goienetan!





2. Abadeak, besoak zabalik, jarraituko dau:

Bai, santu zara, Jauna, eta guretzat ona,
eta gizon-emakume guztientzat errukitsua.
Eskerrak emoten deutsuguz,
batez ere Jesu Kristo zure Semeagaitik.

A. Urtean Zehar:

Mundu honetara etorri zan,
gizon-emakumeak pekatu eginez
Zugandik urrundu ziralako
eta alkarren artean bizitzen ez ekielako.
Espiritu Santuaren bitartez,
gure begi-belarriak edegi zituan,
ikusi daigun alkarren anai-arreba garala
eta Zeu zaitugula guztion Aita. ✝

B. Abendualdian:

Bera da zure Hitza,
guri itzarrik egoten laguntzen deuskuna
eta berak laguntzen deusku,
gauza txiki eta handietan
zure maitasunaren seinaleak
eta Zugandik datorkigun poza ikusten. †

C. Gabonaldian:

Berau da munduaren egiazko argia;
beraren bila zintzo dabiltzan guztiei
argi egitera etorri da.
Bera da Errege bake-emoilea,
barriro jaiotzea emoten deuskuna,
Jainkoaren seme-alaba izan gaitezan
eta gizakien artean bakegile.
"Jainkoa gurekin" dogu bera,
eta zeruan izango dogun betiko poza
guk oraintxetik izatea gura dau. †

D. Garizumaldian:

Berak dei egiten deutse gizon-emakume guztiei
bihotz-barritzera eta Ebanjelioa sinistera.
Bere bizia kurutzean eskeiniz,
pekatutik eta heriotzatik atara gaitu
eta bihotz barria emon deusku,
geu ere beraren antzera bizi gaitezan. †

E. Pazkoaldian:

Berak barri on hau ekarri euskun:
zeru ederrean Zurekin betierean bizitzeko eginak garala.
Eta bizi horretarako bide hau erakutsi euskun:
berak gure aurretik hartu eban maitasun bidea. †

† Eta orain Jesu Kristok mahai honetan batzen gaitu,
guk hemen egin daigun, berak lehenengo egin ebana.

Eskuak batu eta oparigaien bain zabalik, jarraituko dau:

Aita guztiz ona,
egizuz santu ogi eta ardao honeek:

Eskuak batu eta kurutze-seinalea egingo dau, behin bakarrik, ogiaren eta kalizaren gain, esanez:

eta Jesu Kristo zure Semearen
Gorputz ✠ eta Odol egingo dira guretzat.

Eskuak batuko ditu:

3. Hurrengo esaldietan, Jaunaren hitzak garbi esan behar dira, hitz horreek eurek eskatzen dabenez.

Jesusek, gugaitik hilgo zan bezperan,
bere ikasleekin Azken Afaria egiten zihariduala,

Ogia hartu eta, altara gainean apur bat jasorik, jarraituko dau:

hartu eban ogia eta,
Zuri eskerrak emonez,
zatitu eban eta ikasleei emon eutsen, esanez:

Apur bat makurtuko da.

HARTU EIZUE ETA JAN GUZTIOK HONETATIK:
HAU NEURE GORPUTZA DA-ETA,
ZUENTZAT EMONGO DANA.

Ostia sagaratua herriari erakutsiko deutso; gero patenaren gainean itzi eta, belaunikaturik, gurtu egingo dau.

4. Ondoren, jarraituko dau:

Era berean, kaliza ardaoz betea hartu eban

Kaliza hartu eta, altara gainean apur bat jasorik, jarraituko dau:

eta, Zuri eskerrak emonez,
bere ikasleei eskeini eutsen, esanez:

Apur bat makurtuko da.

HARTU EIZUE ETA EDAN GUZTIOK HONETATIK:
HAU NEURE ODOLAREN KALIZA DA-ETA,
ITUN BARRI ETA BETIKOAREN ODOLA,
ZUENTZAT ETA ASKORENTZAT
PEKATUAK PARKATZEKO ISURIKO DANA.

Eta gero esan eutsen:

EGIZUE HAU NEURE OROIGARRI.

Kaliza herriari erakutsiko deutso; gero, sagara-oihalean itzi eta, belaunikaturik, gurtu egingo dau.

5. Danek abestuko dabe:

Kristo gugaitik hil da;
Kristo hilen artetik biztu da.
Zure zain gagoz, Jesus Jauna!



Beste Eukaristi Otoitzetako gorespenak be erabili daitekez. Abadeak, besoak zabalik, esango dau:

Hau da sinismenaren misterioa.

Danek:

Hil eta biztu zarala, Jauna,
Zu barriz etorri arte,
hau dogu, hau, barri ona!

Edo:

Ogi-ardao honeek hartzean,
zure heriotza dogu autortzen,
Zeu, Jauna, etorri artean.

Edo:

Zeure kurutze eta biztueraz
munduaren salbatzaile zarana,
salba gagizuz, Jesus Jauna!

6. Ondoren, abadeak, besoak zabalik, jarraituko dau:

Horregaitik, Aita guztiz santua,
zure aurrean gagoz pozez beterik,
gogoan dogulako gu salbatzeko Jesu Kristok egin ebana.
Beraren heriotza eta biztuera ospatzen doguz,
berak Eleizeari itzi eutson sakrifizio santu honetan.

Zeruetan zaran Aita guztiz santua,
onartu gaizuz zeure Seme maiteagaz batera.
Jesusek gugaitik hil gura izan eban,
baina Zuk biztu egin zenduan,
eta horregaitik [esaten] abesten deutsugu:

Danek:

Gora Zu, Jainko guztiz ona!
Eskerrak Zuri! Eskerrak, Jauna!



Abadeak, besoak zabalik, jarraituko dau:

Jesus orain zure ondoan bizi da,
baina hemen da geugaz ere.

Danek:

Gora Zu, Jainko guztiz ona!
Eskerrak Zuri! Eskerrak, Jauna!



Abadeak, besoak zabalik, jarraituko dau:

Azken egunean aintzaz etorriko da,
eta haren erreinuan ez dau inork izango,
ez nekerik, ez penarik, ez negarrik,
eta pekatua eta heriotza ez dira gehiago garaile izango.

Danek:

Gora Zu, Jainko guztiz ona!
Eskerrak Zuri! Eskerrak, Jauna!



Abadeak, besoak zabalik, jarraituko dau:

Aita guztiz santua,
mahai honetara dei egin deuskuzu,
pozez beterik Kristoren Gorputza hartzeko.
Janari honek emon deigula indarra,
Zuretzat gero eta atsegingarriago izan gaitezan,
eta, Espiritu Santuak alkarturik,
gorputz bat izan gaitezan maitasunez.

Izan gogoan, Jauna, I. gure Aita Santua,
I. gure Gotzaina,
I. Gotzain Laguntzailea

Meza Gotzainak bere eleizbarrutian ospatzen dauanean, esango dau:

ni, zeure zerbitzari ezerez hau,

Eleizbarrutikoa ez dan beste Gotzain bat danean, ik. *Erromako Meza Liburuaren Eraketa Orokorra*, 31. or.an, 149. zk.an zelan egin aipamen hau.

eta beste gotzain guztiak.

A. Urtean Zehar:

Emoiguzu zeure laguntza Kristoren ikasle garan guztioi,
bakegile eta zorion-emoile izan gaitezan. †

B. Abendualdian:

Emoiguzu zeure seme-alaboi,
gauza guztiak – baita eguneroko gauza txikiak ere –
ondo egiteko grazia,
holan, badatorren Jesusi harrera ona egin deiogun. †

C. Gabonaldian:

Egizu zeure seme-alabek aintza emon deizuela zeruan
eta ahaleginak egin dagiezala
lurrean bakea izan daigun,
Zuk maite dituzun gizon-emakumeen artean. †

D. Garizumaldian:

Emoiguzu zeure seme-alaboi,
egunero, zeure gogoko diran gauzak egiteko grazia;
holan, munduaren argi izan gaitezan
eta on-onak gauza guztietan, geure senideen aurrean. †

E. Pazkoaldian:

Isuri egizu fededunen bihotzetan Pazkoaren poz betea,
nahigabeetan dabiltzan guztiei poz hori emon deiegun. †

† Izan gogoan, Jauna, hil diran gure senideak ere;
hartu egizuz zeure aurpegiaren argitan.
Emoiguzu, gu guztioi,
Jainkoaren Ama Maria beti Birjinarekin,
I. santuarekin eta zeruko santu guztiekin bat eginik,
egunen baten Kristorekin zure ondoan bizitzea behin betiko.

7. Eskuak batuko ditu. Patena ostia sagaratuagaz eta kaliza hartu eta, biak jasorik, jarraituko dau:

Honen bitartez, honekin eta honengan,
Zuri, Aita Jainko ahalguztidun horri,
Espiritu Santuarekin batean,
ospe eta aintza guztia
gizaldi eta gizaldi guztietan.

Danek:

Amen.

Ondoren, jaunartze-ohikunea egingo da, 623. or.

Loretoko Maria Birjina dohatsua

Otoitza Oi Jainko, gurasoei agindua betez,
Maria Birjina dohatsua aukeratu zenduan
Salbatzailearen Ama izateko;
emoiguzu bera eredu hartuz bizitzeko grazia,
zure gogoko izan zan-eta apaltasunean
eta gure mesederako obedientzian.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

AURKIBIDEAK

OSPAKIZUNEN AURKIBIDE ALFABETIKOA

or.

Adalberto, gotzaina eta martiria, apirilaren 23an 758
Agata, birjina eta martiria, otsailaren 5ean 736
Agustin, gotzaina eta eleiz irakaslea, abuztuaren 28an 844
Agustin Canterburykoa, gotzaina, maiatzaren 27an 777
Agustin Zhao Rong, presbiteroa, eta lagunak, martiriak, uztailaren 9an 804
Aingeru Zaindariak, urriaren 2an 869
Akileo eta Nereo, martiriak, maiatzaren 12an 769
Alberto Handia, gotzaina eta eleiz irakaslea, azaroaren 15ean 906
Alfontso Maria Ligorio, gotzaina eta eleiz irakaslea, abuztuaren 1ean 819
Ana eta Joakim, Maria Birjina dohatsuaren gurasoak, uztailaren 26an 815
Anbrosio, gotzaina eta eleiz irakaslea, abenduaren 7an 915
Andres, apostolua, azaroaren 30ean 912
Andres Dung-Lac, presbiteroa, eta lagunak, martiriak, azaroaren 24an 910
Andres Kim Taegon, presbiteroa, Paulo Chong Hasang eta lagunak, martiriak, irailaren 20an 857
Anjela Merici, birjina, urtarrilaren 27an 727
Anjela Gurutzekoa Guerrero González, birjina, azaroaren 5ean 900
Anton, abadea, urtarrilaren 17an 720
Antonio Maria Claret, gotzaina, urriaren 24an 890
Antonio Maria Zaccaria, presbiteroa, uztailaren 5ean 802
Antonio Paduakoa, presbiteroa eta eleiz irakaslea, ekainaren 13an 785
Antselmo, gotzaina eta eleiz irakaslea, apirilaren 21ean 757
Apolinar, gotzaina eta martiria, uztailaren 20an 807
Arrosa Limakoa, birjina, abuztuaren 23an 840
Atanasio, gotzaina eta eleiz irakaslea, maiatzaren 2an 766
Augurio eta Eulogio, diakonoak, eta Fruktuoso, gotzaina, martiriak, urtarrilaren 20an 721

Bartolome, apostolua, abuztuaren 24an 841
Basilio Handia eta Gregorio Naziantzokoa, gotzainak eta eleiz irakasleak, urtarrilaren 2an 717
Beda Agurgarria, presbiteroa eta eleiz irakaslea, maiatzaren 25ean 775
Benito, abadea, uztailaren 11n 804
Bernabe, apostolua, ekainaren 11n 784
Bernardino Sienakoa, presbiteroa, maiatzaren 20an 773
Bernardo, abadea eta eleiz irakaslea, abuztuaren 20an 838
Bizente, diakonoa eta martiria, urtarrilaren 22an 723
Bizente Ferrer, presbiteroa, apirilaren 5ean 755

Bizente Paul, presbiteroa, irailaren 27an 861
Blas, gotzaina eta martiria, otsailaren 3an 735
Bonifazio, gotzaina eta martiria, ekainaren 5ean 783
Brijita, erlijiosa, uztailaren 23an 810
Bruno, presbiteroa, urriaren 6an 878
Buenaventura, gotzaina eta eleiz irakaslea, uztailaren 15ean 806

Damaso I.a, aita santua, abenduaren 11n 921
Damian eta Kosme, martiriak, irailaren 26an 860
Dionisio, gotzaina eta lagunak, martiriak, urriaren 9an 879
Domingo Guzman, presbiteroa, abuztuaren 8an 826

Eduvigis, erlijiosa, urriaren 16an 885
Efren, diakonoa eta eleiz irakaslea, ekainaren 9an 784
Elisabet Hungariakoa, erlijiosa, azaroaren 17an 907
Elisabet Portugalgoa, uztailaren 4an 802
Emeterio eta Zeledonio, martiriak, martxoaren 3an 742
Erraimundo Peñafortekoa, presbiteroa, urtarrilaren 7an 719
Erromako Eleiza Santuko Lehen Martiriak, ekainaren 30ean 800
Eskari eta esker onezko Otoitz-eguna, urriaren 5ean 871
Eskolastika, birjina, otsailaren 10ean 737
Estanislao, gotzaina eta martiria, apirilaren 11n 756
Esteban, lehen martiria, abenduaren 26an 924
Esteban Hungariakoa, abuztuaren 16an 836
Eulalia Meridakoa, birjina eta martiria, abenduaren 10ean 921
Eulogio Cordobakoa, presbiteroa eta martiria, urtarrilaren 9an 719
Eulogio eta Augurio, diakonoak, eta Fruktuoso, gotzaina, martiriak, urtarrilaren 20an 721
Eusebio Vercelikoa, gotzaina, abuztuaren 2an 820
Ezekiel Moreno Díaz, gotzaina, abuztuaren 19an 837

Fabian, aita santua eta martiria, urtarrilaren 20an 722
Felipe eta Santiago, apostoluak, maiatzaren 3an 767
Felipe Neri, presbiteroa, maiatzaren 26an 776
Felizitas eta Perpetua, martiriak, martxoaren 7an 743
Fermin, gotzaina eta martiria, uztailaren 7an 803
Fernando, maiatzaren 30ean 778
Fidel Sigmaringengoa, presbiteroa eta martiria, apirilaren 24an 758
Frantziska Erromatarra, erlijiosa, martxoaren 9an 744
Frantzisko Asiskoa, urriaren 4an 870
Frantzisko Borja, presbiteroa, urriaren 3an 870
Frantzisko Paulakoa, ermitaua, apirilaren 2an 755
Frantzisko Sales, gotzaina eta eleiz irakaslea, urtarrilaren 24an 724
Frantzisko Xabierkoa, presbiteroa, abenduaren 3an 914
Fruktuoso, gotzaina, eta Augurio eta Eulogio, diakonoak, martiriak, urtarrilaren 20an 721

Gabriel, Mikel eta Rafael goiaingeruak, irailaren 29an 863
Gertrudis, birjina, azaroaren 16an 906
Gregorio Handia, aita santua eta eleiz irakaslea, irailaren 3an 847
Gregorio Naziantzokoa eta Basilio Handia, gotzainak eta eleiz irakasleak, urtarrilaren 2an 717
Gregorio VII.a, aita santua, maiatzaren 25ean 775

Haurtxo/Umetxu errubako santuak, martiriak, abenduaren 28an 927
Henrike, uztailaren 13an 805
Hermenejildo, martiria, apirilaren 13an 757
Hilario, gotzaina eta eleiz irakaslea, urtarrilaren 13an 720
Hildako fededun guztien oroipena, azaroaren 2an 896
Hipolito, presbiteroa, eta Pontziano, aita santua, martiriak, abuztuaren 13an 830
Hirutasun Guztiz Santua 409

Ildefontso, gotzaina, urtarrilaren 23an 724
Ines, birjina eta martiria, urtarrilaren 21ean 723
Ignazio Antiokiakoa, gotzaina eta martiria, urriaren 17an 886
Ignazio Loiolakoa, presbiteroa, uztailaren 31n 817
Inozentzio Sortzez Garbiarena Canoura Arnau eta Pedro Poveda Castroverde, presbiteroak, eta lagunak, martiriak, azaroaren 6an 900
Ireneo, gotzaina eta martiria, ekainaren 28an 794
Isaak Jogues eta Joan Brebeuf, presbiteroak, eta lagunak, martiriak, urriaren 19an . 888
Isidoro, gotzaina eta eleiz irakaslea, apirilaren 26an 760
Isidro nekazaria, maiatzaren 15ean 771

Jenaro, gotzaina eta martiria, irailaren 19an 857
Jeronimo, presbiteroa eta eleiz irakaslea, irailaren 30ean 866
Jeronimo Emiliani, otsailaren 8an 736
Jesu Kristo, gure Jauna:
— Agerkundea, urtarrilaren 6an 134
— Antzaldatzea, abuztuaren 6an 821
— Aurkezpena, otsailaren 2an 729
— Bateoa 145
— Betiko Abade Nagusia 779
— Bihotz guztiz Santua 415
— Biztuera 278
— Diran guztien Erregea 419
— Familia Santua: Jesus, Maria eta Jose 126
— Gizakundearen Adierazpena, martxoaren 25ean 750
— Gorputz eta Odol Santuak 413
— Igokundea 352
— Izen guztiz santua, urtarrilaren 3an 718
— Jaiotza, abenduaren 25ean 121
— Kurutze Santuaren Gorespena, irailaren 14an 851
— Letrango basilika Sagaratzea, azaroaren 9an 901

Joakim eta Ana, Maria Birjina dohatsuaren gurasoak, uztailaren 26an 815
Joakina Vedruna, erlijiosa, maiatzaren 22an 774
Joan, apostolua eta ebanjelaria, abenduaren 27an 925
Joan Avilakoa, presbiteroa eta eleiz irakaslea, maiatzaren 10ean 768
Joan Bateatzailea:
— Jaiotza, ekainaren 24an 788
— Martiritza, abuztuaren 29an 845
Joan Bautista La Sallekoa, presbiteroa, apirilaren 7an 756
Joan Bosco, presbiteroa, urtarrilaren 31n 728
Joan Brebeuf eta Isaak Jogues, presbiteroak, eta lagunak, martiriak, urriaren 19an . 888
Joan Capistranokoa, presbiteroa, urriaren 23an 890
Joan Damaskotarra, presbiteroa eta eleiz irakaslea, abenduaren 4an 915
Joan Diego Cuauhtlatoatzin, abenduaren 9an 920
Joan Eudes, presbiteroa, abuztuaren 19an 836
Joan Fisher, gotzaina, eta Tomas Moro, martiriak, ekainaren 22an 788
Joan Kurutzekoa, presbiteroa eta eleiz irakaslea, abenduaren 14an 922
Joan I.a, aita santua eta martiria, maiatzaren 18an 772
Joan Jainkoarena, erlijiosoa, martxoaren 8an 744
Joan Ketykoa, presbiteroa, abenduaren 23an 924
Joan Krisostomo, gotzaina eta eleiz irakaslea, irailaren 13an 850
Joan Leonardi, presbiteroa, urriaren 9an 879
Joan Maria Vianney, presbiteroa, abuztuaren 4an 820
Joan Paulo II.a, aita santua, urriaren 22an 889
Joan XXIII.a, aita santua, urriaren 11n 881
Joana Frantziska Chantal, erlijiosa, abuztuaren 12an 829
Jorje, martiria, apirilak 23an 758
Josafat, gotzaina eta martiria, azaroaren 12an 904
Jose, Maria Birjina dohatsuaren senarra:
— Festaburua, martxoaren 19an 746
— Langilea, maiatzaren 1ean 765
Jose Calasanz, presbiteroa, abuztuaren 25ean 842
Josefina Bakhita, birjina, otsailaren 8an 737
Judas eta Simon, apostoluak, urriaren 28an 891
Justino, martiria, ekainaren 1ean 781

Kaietano, presbiteroa, abuztuaren 7an 825
Kalisto I.a, aita santua eta martiria, urriaren 14an 883
Kamilo Lelis, presbiteroa, uztailaren 14an 806
Karlos Borromeo, gotzaina, azaroaren 4an 899
Karlos Lwanga eta lagunak, martiriak, ekainaren 3an 782
Kasimiro, martxoaren 4an 743
Katalina Alexandriakoa, birjina eta martiria, azaroaren 25ean 911
Katalina Sienakoa, birjina eta eleiz irakaslea, apirilaren 29an 763
Klara, birjina, abuztuaren 11n 829
Klemente I.a, aita santua eta martiria, azaroaren 23an 909

Kolunbano, abata, azaroaren 23an 910
Kornelio, aita santua, eta Zipriano, gotzaina, martiriak, irailaren 16an 856
Kosme eta Damian, martiriak, irailaren 26an 860
Kristobal Magallanes, presbiteroa, eta lagunak, martiriak, maiatzaren 21ean 773

Leandro, gotzaina, azaroaren 13an 905
Leon Baionakoa, gotzaina eta martiria, martxoaren 1ean 742
Leon Handia, aita santua eta eleiz irakaslea, azaroaren 10ean 902
Lorentzo, diakonoa eta martiria, abuztuaren 10ean 828
Lorentzo Brindisikoa, presbiteroa eta eleiz irakaslea, uztailaren 21ean 807
Lorentzo Ruiz eta lagunak, martiriak, irailaren 28an 862
Luis, abuztuaren 25ean 842
Luis Gonzaga, erlijiosoa, ekainaren 21ean 787
Luis Maria Grignion Montfortekoa, presbiteroa, apirilaren 28an 762
Lukas, ebanjelaria, urriaren 18an 886
Luzia, birjina eta martiria, abenduaren 13an 922

Margarita Eskoziakoa, azaroaren 16an 906
Margarita Maria Alacoque, birjina, urriaren 16an 885
Maria Birjina dohatsua:
— Arrosariokoa, urriaren 7an. 878
— Aurkezpena, azaroaren 21ean. 908
— Bihotz guztiz Garbia, Pentekoste ondorengo hirugarren larunbatean 780
— Doloreetakoa, irailaren 15ean 855
— Eleizaren Ama, Pentekoste ondorengo astelehenean 779
— Erregina, abuztuaren 22an 839
— Fatimakoa, maiatzaren 13an 770
— Guadalupekoa, abenduaren 12an 922
— Ikustaldia, maiatzaren 31n 778
— Izen Santua, irailaren 12an 849
— Jainkoaren Ama, urtarrilaren 1ean 131
— Jaiotza, iralaren 8an 848
— Karmel mendikoa, uztailaren 16an 806
— Loretokoa, abenduaren 10ean 921
— Lourdeskoa, otsailaren 11n 738
— Mesedeetakoa, irailaren 24an 860
— Pilarekoa, urriaren 12an 881
— Santa Maria basilika Sagaratzea, abuztuaren 5ean 821
— Sortze Garbia, abenduaren 8an 916
— Zeruratzea, abuztuaren 15ean 831
Maria Birjina dohatsuaren Zerbitzarien Zazpi Fundatzaile Santuak, otsailaren 17an 739
Maria Goretti, birjina eta martiria, uztailaren 6an 803
Maria Magdalena, uztailaren 22an 808
Maria Magdalena Pazzi, birjina, maiatzaren 25ean 775
Maria Mikaela Sakramentu guztiz Santuarena, birjina, ekainaren 15ean 786

Markos, ebanjelaria, apirilaren 25ean 759
Marta, uztailaren 29an 816
Martin I.a, aita santua eta martiria, apirilaren 13an 756
Martin Porres, erlijiosoa, azaroaren 3an 899
Martin Toursekoa, gotzaina, azaroaren 11n 903
Martzelino eta Pedro, martiriak, ekainaren 2an 782
Mateo, apostolua eta ebanjelaria, irailaren 21ean 858
Matias, apostolua, maiatzaren 14an 770
Maximiliano Maria Kolbe, presbiteroa eta martiria, abuztuaren 14an 830
Metodio, gotzaina, eta Zirilo, lekaidea, otsailaren 14an 738
Mikel, Gabriel eta Rafael, goiaingeruak, irailaren 29an 863
Monika, abuztuaren 27an 843

Nereo eta Akileo, martiriak, maiatzaren 12an 769
Nikolas, gotzaina, abenduaren 6an 915
Norberto, gotzaina, ekainaren 6an 783

Oskar, gotzaina, otsailaren 3an 735

Pankrazio, martiria, maiatzaren 12an 769
Paskoal Bailon, erlijiosoa, maiatzaren 17an 772
Patrizio, gotzaina, martxoaren 17an 745
Paulino Nolatarra, gotzaina, ekainaren 22an 788
Paulo, apostolua:
— Festaburua, ekainaren 29an 796
— Kristoganatzea, urtarrilaren 25ean 725
— Ostiako basilika Sagaratzea, azaroaren 18an 907
Paulo Chong Hasang, Andres Kim Taegon, presbiteroa, eta lagunak, martiriak, irailaren 20an 857
Paulo Gurutzekoa, presbiteroa, urriaren 19an 888
Paulo Miki, eta lagunak, martiriak, otsailaren 6an 736
Paulo VI.a, aita santua, maiatzaren 29an 777
Pedro, apostolua:
— Festaburua, ekainaren 29an 796
— Gotzain-aulkia, otsailaren 22an 740
— Vatikanoko basilika sagaratzea, azaroaren 18an 907
Pedro Alcantarakoa, presbiteroa, urriaren 19an 887
Pedro Chanel, presbiteroa eta martiria, apirilaren 28an 762
Pedro Claver, presbiteroa, irailaren 9an 849
Pedro Damiani, gotzaina eta eleiz irakaslea, otsailaren 21ean 740
Pedro eta Martzelino, martiriak, ekainaren 2an 782
Pedro Julian Eymard, presbiteroa, abuztuaren 2an 820
Pedro Kanisio, presbiteroa eta eleiz irakaslea, abenduaren 21ean 923
Pedro Krisologo, gotzaina eta eleiz irakaslea, uztailaren 30ean 817
Pedro Poveda Castroverde eta Inozentzio Sortzez Garbiarena Canoura Arnau, presbiteroak, eta lagunak, martiriak, azaroaren 6an 900

Pelaio, martiria, ekainaren 26an 794
Perpetua eta Felizitas, martiriak, martxoaren 7an 743
Pio Pietrelcinakoa, presbiteroa, irailaren 23an. 859
Pio V.a, aita santua, apirilaren 30ean 764
Pio X.a, aita santua, abuztuaren 21ean 839
Polikarpo, gotzaina eta martiria, otsailaren 23an 741
Pontziano, aita santua, eta Hipolito, presbiteroa, martiriak, abuztuaren 13an 830
Prudentzio Armentiakoa, gotzaina, apirilaren 28an 762

Rafael, Mikel eta Gabriel, goiaingeruak, irailaren 29an 863
Rita Casiakoa, erlijiosa, maiatzaren 22an 774
Roberto Belarmino, gotzaina eta eleiz irakaslea, irailaren 17an 856
Romualdo, abata, ekainaren 19an 786

Santiago Handia (Zebedeorena), apostolua, uztailaren 25ean 812
Santiago Txikia (Alfeorena) eta Felipe, apostoluak, maiatzaren 3an 767
Santu Guztiak, azaroaren 1ean 892
Sarbelio Makhlûf, presbiteroa, uztailaren 24an 811
Sebastian, martiria, urtarrilaren 20an 722
Silvestre I.a, aita santua, abenduaren 31n 928
Simon eta Judas, apostoluak, urriaren 28an 891
Sixto II.a, aita santua, eta lagunak, martiriak, abuztuaren 7an 825
Soledad Torres Acosta, birgina, urriaren 11n 881

Teresa Benedikta Kurutzekoa, birjina eta martiria, abuztuaren 9an 827
Teresa Jesus Haurrarena, birjina eta eleiz irakaslea, urriaren 1ean 868
Teresa Jesusena, birjina eta eleiz irakaslea, urriaren 15ean 884
Teresa Jesusena (Jornet eta Ibars), birjina, abuztuaren 26an 842
Timoteo eta Tito, gotzainak, urtarrilaren 26an 726
Tito eta Timoteo, gotzainak, urtarrilaren 26an 726
Tomas, apostolua, uztailaren 3an 801
Tomas Aquinokoa, presbiteroa eta eleiz irakaslea, urtarrilaren 28an 727
Tomas Becket, gotzaina eta martiria, abenduaren 29an 928
Tomas Moro eta Joan Fisher, gotzaina, martiriak, ekainaren 22an 788
Tomas Vilanuevakoa, gotzaina, urriaren 10ean 880
Toribio Mogrovejokoa, gotzaina, martxoaren 23an 750

Wentzeslao, martiria, irailaren 28an 862

Zeledonio eta Emeterio, martiriak, martxoaren 3an 742
Zernin Tolosakoa, gotzaina eta martiria, azaroaren 29an 912
Zezilia, birjina eta martiria, azaroaren 22an 909
Zipriano, gotzaina, eta Kornelio, aita santua, martiriak, irailaren 16an 856
Zirilo, lekaidea, eta Metodio, gotzaina, otsailaren 14an 738
Zirilo Alexandriakoa, gotzaina eta eleiz irakaslea, ekainaren 27an 794
Zirilo Jerusalemgoa, gotzaina eta eleiz irakaslea, martxoaren 18an 745

PREFAZIOEN AURKIBIDEA

Aldiko berezia

Abendualdia

I. Kristoren etorrera biak 466
II. Kristoren zain egotea, lehen eta orain 468
III. Jesu Kristo, historiaren Jaun eta Epaile 470
IV. Eva barria 471

Gabonaldia

I. Kristo, argia 472
II. Jainko gizon eginak dana barriztatzen dau 474
III. Hitzaren Gizakundean sortutako hartuemonak 475
Jaunaren Agerkundea: Kristo, herrialde guztien argia 476
Jaunaren Bateoa 146

Garizumaldia

I. Garizumearen esanahi espirituala 478
II. Garizuma, bihotz-barritzea 480
III. Penitentziaren frutu onak 482
IV. Barauaren frutu onak 484
V. Urteerako bidea Garizumako basamortuan 485
VI. Jaunaren tentaldiak (I. domekea) 156
VII. Jaunaren antzaldatzea (II. domekea) 167
VIII. Emakume samariarra (III. domekea) 178
IX. Itsu jaio zana (IV. domekea) 188
X. Lazaro (V. domekea) 198

Jaunaren nekaldia

I. Kurutzearen indarra 486
II. Nekaldiaren garaipena 487
III. Jaunaren Nekaldia (Erramu-domekea) 219
Jaunaren Afariko Mezea (Eukaristia santuaren I. prefazioa):
Kristoren sakrifizioa eta sakramentua 246

Pazkoaldia

I. Pazko-misterioa 488

II. Kristogan bizi barria 490
III. Kristo bizi da eta otoitzean dago beti gure alde 492
IV. Pazko-misterioaz barriztatzen dira gauza guztiak 494
V. Kristo, abade eta opari 495

Jaunaren Igokundea

I. Igokundeko misterioa 496
II. Igokundeko misterioa 498
III. Espiritu Santuaren etorreraren zain 499

Pentekoste-domeka

Pentekosteko misterioa 367

Urtean Zehar (domekak eta Jaunaren festaburuak)

I. Pazko-misterioa eta Jainkoaren herria 500
II. Salbazino-misterioa 502
III. Gizon batek salbatu gizakiak 504
IV. Salbazinoaren historia 506
V. Diran guztiak Jainkoak eginak 507
VI. Betiko Pazkoaren agiria 508
VII. Kristok, esaneko izanez, salbatu gaitu 509
VIII. Eleizea, Hirutasunaren indarraz eta antzera bat egina 510
IX. Espirituaren eragina Eleizan 511
X. Jaunaren eguna 512
Hirutasun Guztiz Santua: Hirutasun Guztiz Santuaren misterioa 409
Jesusen Bihotz Guztiz Santua: Kristoren maitasun neurribakoa 416
Jesu Kristo Gure Jauna, diran guztien Erregea: Jesu Kristo, diran guztien Erregea 419

Urtean Zehar (astegunak)

I. Kristogan gauza guztiak erabarrituak 542
II. Salbazinoa Kristoren bitartez 544
III. Eskerrak Jainkoari gizakia egin eta erabarritu daualako 545
IV. Jainkoa gorestea, Jainkoaren dohaia 546
V. Kristoren misterioa iragartzea 547
VI. Salbazino-misterioa Kristogan (II. Eukaristi Otoitza) 548
VII. Kristo, gure arteko egina eta gugaz erromes 549
VIII. Jesus, samariar ona 550
IX. Jainkoaren aintza, gizakia bizitzea 551

Eukaristi Otoitzak

II. Eukaristi Otoitzeko prefazioa 580
IV. Eukaristi Otoitzeko prefazioa 608
Adiskidetzeari buruzko I. Eukaristi Otoitzeko prefazioa 675

Adiskidetzeari buruzko II. Eukaristi Otoitzeko prefazioa 682
Beharrizan batzuetarako Mezetako Eukaristi Otoitzak :
I. Eleizea, batasunera bidean 685
II. Jainkoa, Eleizearen gidari salbazino-bidean 695
III. Jesus, Aitaganako bidea 701
IV. Jesus, on egiten igaro zana 708
Umeekin ospatzen diran Mezetarako I. Eukaristi Otoitzeko prefazioa 1308
Umeekin ospatzen diran Mezetarako II. Eukaristi Otoitzeko prefazioa 1317
Umeekin ospatzen diran Mezetarako III. Eukaristi Otoitzeko prefazioa 1330

Santuen berezia

Jaunaren Aurkezpena (otsailaren 2a): Jaunaren Aurkezpenaren misterioa 733
San Jose (martxoaren 19a, maiatzaren 1a): San Joseren egitekoa 746
Jaunaren Gizakundearen Adierazpena (martxoaren 25a):
Jaunaren Gizakundearen misterioa 751
San Isidoro (apirilaren 26a): San Isidororen irakasletza 760
San Joan Bateatzailea (ekainaren 24a, abuztuaren 29a): Bidegilearen egitekoa 790
Pedro eta Paulo santuak (ekainaren 29a): Pedroren eta Pauloren egiteko bikotxa Eleizan 797
Maria Magdalena (uztailaren 22a): Apostoluen apostolu 808
Santiago Apostolua (uztailaren 25a): Apostoluaren zaindaritza 812
Jaunaren Antzaldatzea (abuztuaren 6a): Antzaldatzearen misterioa 822
Maria Birjina dohatsuaren Zeruratzea (abuztuaren 15a): Maria Zeruratuaren aintza 833
Kurutze Santuaren Gorespena (irailaren 14a): Kurutze aintzatsuaren garaipena 852
Goiaingeru santuak: Mikel, Gabriel eta Rafael (irailaren 29an): Jainkoaren aintza aingeruengan 863
Pilareko Maria Birjina dohatsua (urriaren 12a): Maria Birjinaren aintza 882
Santu Guztiak (azaroaren 1a): Gure ama Jerusalemen aintza 893
Maria Birjina dohatsuaren Sortze Garbia (abenduaren 8a):
Mariaren eta Eleizearen misterioa 917

Betiko Mezak

Eleiza Sagaratzea

I. Eleiza dan Jainkoaren tenpluaren misterioa 1119
II. Kristoren emaztea eta Espirituaren tenplua dan Eleizearen misterioa 933

Maria Birjina dohatsua

I. Maria Birjina dohatsuaren amatasuna 520
II. Eleizeak, Mariaren berbekin, Jainkoa goresten dau 522
III. Maria, Eleizearen eredu eta Ama 523
IV. Maria, poztasunaren eta itxaropenaren ezaugarri 524
V. Maria, gizadi barriaren irudi 525

Martiriak

I. Martiriak, ezaugarri eta jarraibide 534
II. Jainkoaren egintza harrigarriak martirien garaipenean 536

Eleiz artzainak

Artzain santuen egintza Eleizan 538

Birjinak eta erlijioso-erlijiosak

Jainkoari eskainitako bizitzaren esanahia 540

Gizon-emakume santuak

I. Santuen ospea 531
II. Santuen egintza 532

SAKRAMENTU ETA OHIKUNEETARAKO MEZAK

Bateoa

Bateoa, bizi barriaren hasiera 1015

Sendotza

Espirituaren ezaugarriaz markatuak 1020

Eukaristia Santua

I. Kristoren sakrifizioa eta sakramentua 514
II. Eukaristia guztiz Santuaren frutuak 516
III. Eukaristia, betiko Pazkorako bidean janari 517

Ordena sakratuak

I. Kristoren Abadetza eta abadeen ministerioa 230, 1032
II. Kristo, eleiz ministerio guztien iturri 1061

Penitentzia

Espirituagan Adiskidetzearen sakramentua 518

Gaixoen Oliadura

Sufritzea, Kristoren Pazkoan parte hartzea 519

Ezkontza

I. Ezkontzako batasun bikaina 1069
II. Ezkontzako misterio handia 1076
III. Ezkontza, Jainkoaren maitasunaren ezaugarri 1081

Erlijioso-erlijiosen profesinoa

Bizitza erlijiosoa Jainkoaganako zerbitzu, Kristo imitatuz 1102

Eleiza sagaratzea

I. Jainkoaren tenpluaren misterioa 1116
II. Eleiza dan Jainkoaren tenpluaren misterioa 1119

Altara sagaratzea

Kristo bera da altarea 1125

BEHARRIZAN BATZUETARAKO MEZAK

Kristauen batasuna eskatzeko

Kristoren gorputza dan Eleizearen batasuna 1163

DEBOZINOZKO MEZAK

Espiritu Santua

I. Jaunak Espiritua bialdu Eleizara 1219
II. Espirituaren eragina Eleizan 511

Aingeruak

Jainkoaren aintza aingeruengan 526

Apostoluak

I. Apostoluak, Jainkoaren herriaren artzain 528
II. Apostoluak, Eleizearen oinarri eta lekuko 530

HILDAKOEN ALDEKO MEZAK

Hildakoak

I. Kristogan bizteko itxaropena 552
II. Gu bizi gaitezan hil da Kristo 554
III. Kristo, salbazino eta bizi 556
IV. Lurreko bizitzatik 558
V. Gure biztuera Kristoren garaipenaren bidez 559

AURKIBIDE OROKORRA

Erromako Meza Liburuaren ereduzko hirugarren argitalpenaren euskarazko itzulpena. Aurkezpena VII
Jainkoaren Gurtzarako Kongregazioaren Dekretua ereduzko lehenengo argitalpena promulgatzeari buruz XII
Jainkoaren Gurtzarako Kongregazioaren Oharra ereduzko bigarren argitalpenari buruz XIII
Jainkoaren Gurtzarako eta Sakramentuen Araubiderako Kongregazioaren Dekretua ereduzko hirugarren argitalpenari buruz XIV
Jainkoaren Gurtzarako eta Sakramentuen Araubiderako Kongregazioaren Dekretua Erromako Meza Liburu eraberrituaren euskarazko itzulpena egiaztatuz XVI
Euskal elizbarrutietako Gotzainen Dekretua Meza Liburuaren erabilpenerako XVII
Paulo VI.a Aita Santuaren Konstituzio Apostolikoa: *Missale Romanum* 1
Erromako Meza Liburuaren Eraketa Orokorra 5
Paulo VI.a Aita Santuaren Idazki Apostolikoa: *Mysterii Paschalis* 63
Liturgi urteaz eta egutegiaz arau orokorrak 67
Egutegi orokorra eta berezia 77
Liturgi urteko ospakizun nagusien Aldiko Taula 89

ALDIKO BEREZIA

ABENDUALDIA

I. domekea eta astea 93
II. domekea eta astea 100
III. domekea eta astea 106
IV. domekea eta astea 112
Abenduaren 17tik 24a arteko astegunak 113

GABONALDIA

Jaunaren Jaiotza 121
Bezpera-arratsaldeko Mezea 121
Gauerdiko Mezea 122
Goizeko Mezea 123
Eguneko Mezea 124
Familia Santua: Jesus, Maria eta Jose 126
Zortziurreneko egunak 127
Jainkoaren Ama Maria Santuaren festaburua 131
Gabon ondorengo II. domekea 133
Jaunaren Agerkundea 134
Bezpera-arratsaldeko Mezea 134
Eguneko Mezea 135

Gabonaldiko astegunak 137
Jaunaren Bateoa 145

GARIZUMALDIA
Hauts-egun eguna 150
I. domekea eta astea 157
II. domekea eta astea 167
III. domekea eta astea 177
IV. domekea eta astea 187
V. domekea eta astea 197

ASTE SANTUA
Jaunaren Nekaldiko Erramu Domekea 208
Astegunak 222
Eguen Santua: Krisma Mezea 226

PAZKO HIRURREN SANTUA
Eguen Santua: Jaunaren Afariko arratsaldeko Meza 243
Jaunaren Nekaldiko Bariku Santua 261
Zapatu Santua 277

PAZKOALDIA
Jaunaren Biztuerako Pazko-domekea:
Pazko Gaubela Santua 278
Eguneko Mezea 312
Pazko-zortziurreneko egunak 314
II. domekea eta astea 320
III. domekea eta astea 327
IV. domekea eta astea 333
V. domekea eta astea 339
VI. domekea eta astea 345
Jaunaren Igokundea 352
Bezpera-arratsaldeko Mezea 352
Eguneko Mezea 353
VII. domekea eta astea 355
Pentekoste-domekea 361
Bezpera-arratsaldeko Mezea 361
Pentekoste Gaubelako Mezea era luzean ospatua 362
Eguneko Mezea 367

URTEAN ZEHAR 373

URTEAN ZEHARREKO JAUNAREN JAIAK ETA FESTABURUAK
Jesu Kristo gure Jauna, betiko Abade Nagusia 407
Hirutasun Guztiz Santua 409
Kristoren Gorputz eta Odol Santuak 413

Jesusen Bihotz Guztiz Santua 415
Jesu Kristo gure Jauna, diran guztien Erregea 419

MEZAREN EGUNEROKOA

MEZAREN EGUNEROKOA HERRIAGAZ
Hasierako ohikuneak 425
Hitzaren liturgia 449
Eukaristiaren liturgia 458
Eukaristi Otoitza 461
Prefazioak 470
Eukaristi Otoitzak:
I. Eukaristi Otoitza edo Erromako Kanona 563
II. Eukaristi Otoitza 580
III. Eukaristi Otoitza 593
IV. Eukaristi Otoitza 608
Jaunartze-ohikunea 623
Amaierako Ohikunea 635

BEDEINKAZINO NAGUSIAK ETA HERRIAREN GAINEKO OTOITZAK
Bedeinkazino nagusiak 639
Herriaren gaineko otoitzak 657

MEZAREN EGUNEROKOA LAGUNTZAILEAGAZ BAKARRIK
Hasierako ohikuneak 663
Hitzaren liturgia 665
Eukaristiaren liturgia 666
Amaierako ohikunea 672

MEZAREN EGUNEROKOAREN ERANSKINA
Adiskidetzeari buruzko I. Eukaristi Otoitza 675
Adiskidetzeari buruzko II. Eukaristi Otoitza 682
Beharraldi batzuetarako Mezetan erabili daiteken Eukaristi Otoitza:
I. Eleiza, batasunaren bidean 689
II. Jainkoa, Eleizearen gidari salbazino-bidean 695
III. Jesus, Aitaganako bidea 701
IV. Jesus, on egiten igaro zana 708

SANTUEN BEREZIA

Urtarrila 717
Otsaila 729
Martxoa 742
Apirila 755
Maiatza 765
Ekaina 781

Uztaila 801
Abuztua 819
Iraila 847
Urria 868
Azaroa 892
Abendua 914

BETIKO MEZAK

Eleizea sagaratzearen Betikoa: Sagaratzearen urtemugan 931
I. Sagaratutako eleizan bertan 931
II. Gainerako eleizetan 932
Maria Birjina dohatsuaren Betikoa:
I. Urtean Zehar 935
II. Abendualdian 943
III. Gabonaldian 944
IV. Pazkoaldian 945
Martirien Betikoa:
I. Pazkoaldiaz kanpo:
A. Martiri batzurentzat 947
B. Martiri bakarrarentzat 953
II. Pazkoaldian:
A. Martiri batzurentzat 956
B. Martiri bakarrarentzat 958
III. Misiolari martirientzat:
A. Misiolari martiri batzurentzat 959
B. Misiolari martiri bakarrarentzat 960
IV. Birjina martiriarentzat 961
V. Emakume santu martiriarentzat 963
Eleiz artzainen Betikoa:
I. Aita santuarentzat nahiz gotzainarentzat 965
II. Gotzainarentzat 968
III. Eleiz artzainentzat:
A. Eleiz artzain batzurentzat 971
B. Eleiz artzain bakarrarentzat 972
IV. Eleiz fundatzaileentzat:
A. Eleiza fundatzaile bakarrarentzat 974
B. Eleiza fundatzaile batzurentzat 975
V. Misiolarientzat 977
Eleiz irakasleen Betikoa 981
Birjinen Betikoa:
I. Birjina batzurentzat 984
II. Birjina bakarrarentzat 985
Gizon eta emakume santuen Betikoa:
I. Mota guztietako santuentzat:
A. Santu batzurentzat 990
B. Santu bakarrarentzat 993

II. Lekaide-lekaimeentzat eta erlijioso-erlijiosentzat:
A. Abatarentzat 995
B. Lekaidearentzat 996
C. Lekaimearentzat 998
D. Erlijioso-erlijiosentzat 999
III. Erruki-egintzak bete ebezanentzat 1001
IV. Hezitzaileentzat 1003
V. Emakume santuentzat 1004

SAKRAMENTU ETA OHIKUNEETARAKO MEZAK

I. Kristau sarbideko sakramentuak:
1. Kristaugaiak aukeratzea nahiz izenak hartzea 1009
2. Gaitasun-azterketak 1010
A. Lehenengo azterketa 1010
B. Bigarren azterketa 1012
C. Hirugarren azterketa 1013
3. Bateoa 1014
4. Sendotza 1019
II. Gaixoen Oliadura 1027
III. Eleizakoak emotea 1029
IV Ordena sakratuak:
1. Gotzainaren Ordenazinoa:
A. Gotzain bakarraren Ordenazinoa 1031
B. Gotzain batzuren Ordenazinoa 1041
2. Abadeen Ordenazinoa:
A. Abade batzuren Ordenazinoa 1046
B. Abade bakarraren Ordenazinoa 1050
3. Diakonoen Ordenazinoa:
A. Diakono batzuren Ordenazinoa 1053
B. Diakono bakarraren Ordenazinoa 1057
4. Diakonoen eta abadeen Ordenazinoa ospakizun berean 1060
V. Ezkontza 1068
VI. Abataren edo Abadesaren bedeinkazinoa:
1. Abataren bedeinkazinoa 1085
2. Abadesaren bedeinkazinoa 1089
VII. Birjinen sagaratzea 1093
VIII. Erlijioso-erlijiosen profesinoa:
1. Lehenengo profesinoa 1099
2. Betiko profesinoa 1101
3. Botoak barritzea 1113
IX. Irakurleen eta akolitoen eraketa 1114
X Eleizearen nahiz altarearen sagaratzea:
1. Eleizea sagaratzea 1115
2. Altarea sagaratzea 1124

BEHARRIZAN BATZUETARAKO MEZAK ETA OTOITZAK

I. Eleiza santuarentzat 1133
1. Eleizearentzat 1133
2. Aita Santuarentzat 1138
3. Gotzainarentzat 1140
4. Aita Santua nahiz Gotzaina aukeratzeko 1142
5. Kontzilioa nahiz Sinodoa danerako 1143
6. Abadeentzat 1144
7. Presbiteroak norberarentzat 1145
Norberaren abadegintzako urtemugan 1148
8. Eleiz zerbitzarientzat 1149
9. Ordena sakratuetarako bokazinodunak eskatzeko 1150
10. Laikoentzat 1151
11. Ezkontzako urtemugetan:
Ezkontzako urtemugan 1152
XXV. urtemugan (Zidarrezko Ezteguak) 1153
L. urtemugan (Urrezko Ezteguak) 1154
12. Familiaren alde 1154
13. Erlijioso-erlijiosentzat 1155
Profesino erlijiosoko XXV. nahiz L. urtemugan 1157
14. Bizitza erlijiosorako bokazinodunak eskatzeko 1158
15. Alkartasuna indartzeko 1159
16. Baketzearen alde 1160
17. Kristauen batasuna eskatzeko 1162
18. Herrien ebanjelizazinoa eskatzeko 1168
19. Erasopean bizi diran kristauentzat 1171
20. Batzar espirituala nahiz pastorala danerako 1172

II. Gizarteko egoera batzuetarako
21. Aberriaren nahiz herriaren alde 1174
22. Herri-agintarientzat 1174
23. Nazinoarteko agintarien batzarra danerako 1175
24. Gobernuburuarentzat nahiz erregearentzat 1175
25. Urte barriaren hasieran 1176
26. Gizakiaren lana santutzeko 1177
27. Ereite-aroan 1179
28. Uzta batu ondoren 1181
29. Herrien aurrerabiderako 1182
30. Bakearen eta zuzentasunaren alde 1183
31. Gerratean nahiz iraultzaldian 1185
32. Iheslari eta erbesteratuentzat 1187
33. Gosetean nahiz goseak dagozanentzat 1188
34. Lurrikara danerako 1190

35. Euria eskatzeko 1190
36. Eguraldi ona eskatzeko 1190
37. Ekatxak urruntzeko 1191

III. Egoera desbardinetarako
38. Pekatuen parkamena eskatzeko 1192
39. Neurritasuna eskatzeko 1194
40. Maitasuna eskatzeko 1194
41. Senitartekoentzat eta adiskideentzat 1195
42. Nahigabetzen gaitueenentzat 1196
43. Katigu dagozanentzat 1197
44. Espetxeratuentzat 1198
45. Gaixoentzat 1199
46. Hilzorian dagozanentzat 1201
47. Heriotza ona eskatzeko 1203
48. Edozein beharralditan 1204
49. Jainkoari eskerrak emoteko 1207

DEBOZINOZKO MEZAK

1. Hirutasun Guztiz Santuarena 1211
2. Jainkoaren errukiarena 1212
3. Jesu Kristo gure Jaun, betiko Abade Nagusiarena 1213
4. Kurutze santuaren misterioa 1214
5. Eukaristia santuarena 1214
6. Jesusen Izen santuarena 1215
7. Jesu Kristo gure Jaunaren Odol baliotsuarena 1216
8. Jesusen Bihotz guztiz Santuarena 1217
9. Espiritu Santuarena 1218
10. Maria Birjina dohatsuarena :
B. Maria dohatsua, Eleizearen Ama 1223
C. Mariaren izen santuarena 1225
D. Maria, Apostoluen Erregina 1226
11. Aingeru santuena 1227
12. San Joan Bateatzailearena 1228
13. San Joserena 1228
14. Apostolu santu guztiena 1229
15. San Pedro eta San Paulo apostoluena 1230
16. San Pedro apostoluarena 1231
17. San Paulo apostoluarena 1232
18. Edozein Apostolu santurena 1233
19. Santu Guztiena 1234

HILDAKOEN ALDEKO MEZAK

I. Hiletetan 1237

1. Hileta-ospakizuna hildako bakarrarentzat

A. Pazkoaldiaz kanpo 1237
B. Pazkoaldiaz kanpo 1238
C. Pazkoaldian 1240
D. Hileta Mezarako beste otoitz batzuk 1241
E. Bateatutako umetxuaren hiletetan 1242
F. Oraindino bateatu bako umetxuaren hiletetan 1244

2. Hileta-ospakizuna hildako batzuentzat

A. Pazkoaldiaz kanpo 1245
B. Pazkoaldiaz kanpo 1247
C. Pazkoaldian 1248
D. Hileta Mezarako beste otoitz batzuk 1249
E. Bateatutako umetxuen hiletetan 1250
F. Oraindik bateatu gabeko umetxuen hiletetan 1252

II. Urtemugan

A. Pazkoaldiaz kanpo 1254
B. Pazkoaldiaz kanpo 1255
C. Pazkoaldian 1256
D. eta E. Beste otoitz batzukurtemugarako 1257

III. Oroipen batzuetarako

A. Hildako batentzat 1259
B. Hildako batzurentzat nahiz guztientzat 1263

IV. Hildakoentzko beste otoitz batzuk

1. Aita Santuarentzat 1271
2. Gotzainarentzat 1273
3. Abadearentzat 1275
4. Diakonoarentzat 1276
5. Erlijioso nahiz erlijiosarentzat 1277
6. Ebanjelioaren zerbitzuan lan egin dauan batentzat 1277
7. Gazte batentzat 1278
8. Gaixoaldi luzearen ondoren hil dan batentzat 1278
9. Ezustean hil dan batentzat 1278
10. Senar-emazte hildakoentzat 1279
11. Gurasoentzat 1279
12. Senide, ahaide eta ongileentzat 1280

ERANSKINAK

I. URA BEDEINKATZEKO ETA UR BEDEINKATUAZ TXIPRIZTINTZEKO OHIKUNEA 1285
II. GURE JAUNA EMOTEKO LANGUNTZAILEA «AD ACTUM» IZENTATZEKO OHIKUNEA .. 1289
III. KALIZA ETA PATENA MEZA BARRUAN BEDEINKATZEKO OHIKUNEA 1290
IV. JAINKOAREN HERRIAREN OTOITZA EGITEKO EREDU BATZUK 1293
1. Formula orokorra: I 1293
2. Formula orokorra: II 1294
3. Abendualdian 1295
4. Gabonaldian 1296
5. Garizumaldian: I 1297
6. Garizumaldian: II 1298
7. Aste Santuko astegunetan 1298
8. Pazkoaldian 1299
9. Urtean Zehar: I 1300
10. Urtean Zehar: II 1301
11. Hildakoen Mezetan 1302
V. PAZKO EGUNAREN ETA GAINERAKO JAIEGUN MUGIKORREN AURTENGO EGUTEGIA . 1304
VI. UMEEKIN OSPATZEN DIRAN MEZETARAKO EUKARISTI OTOITZAK 1305
I. Eukaristi Otoitza 1308
II. Eukaristi Otoitza 1317
III. Eukaristi Otoitza 1330

AURKIBIDEAK

Ospakizunen aurkibide alfabetikoa 1345
Prefazioen aurkibidea 1352
Aurkibide orokorra 1357

MEZA LIBURUAREN
EUSKERAZKO ARGITALPEN HONEN
INPRIMAKETA
JAUNAREN AURKEZPENEKO
JAIEGUNEAN AMAITU ZAN
BI MILA ETA HOGEIKO
ZEZEILAREN BIAN